ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA

# 2003

# ARARTEKOAK
# EUSKO LEGEBILTZARRARI
# EGINDAKO TXOSTENA
# 2003. URTEA

© ARARTEKO
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.
Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Paper ekologikoa.
L.G.: VI-137/04.

ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO TXOSTENA 2003

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA** ........ 19

**I. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK** ...... 23

1. 2003 URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK ........ 25

**1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako txosten berezietan egin ziren gomendioak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak** ... 25

*1.1.1. Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko txosten bereziari jarraiki hasitako jardueren jarraipena* ........ 26

*1.1.2. Araban diharduten sasoikako langileen arazoen jarraipena* . 41

*1.1.3. Hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko azterlanaren jarraipena* ........ 46

*1.1.4. Adinekoentzat egoitzez kanpo dagoen laguntzari buruzko txosten bereziaren jarraipena* ........ 47

*1.1.5. Babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko jarraipena* ........ 50

*1.1.6. Adingabe lege hausleen gaian egindakoaren jarraipena* ...... 56

*1.1.7. San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipena.* ........ 69

*1.1.8. Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraren jarraipena* ............ 72

*1.1.9. EAEn buru-gaixoei ematen zaien gizarte-arretaren gaineko jarraipena* ........ 74

*1.1.10. EAEko hezkuntza premia bereziei emandako erantzunari buruzko txosten bereziaren jarraipena* ........ 81

*1.1.11. Ertzaintzaren ziegetako eta udal gordetegietako egoeraren jarraipena* ........ 97

*1.1.12. Zadorrako urtegietako uraren kalitateari buruzko txosten bereziaren jarraipena* ........ 103

**1.2. Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn. Txosten berezia** 105

**1.3. Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna. Txosten berezia** ........ 113

**1.4. Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn. Txosten berezia** ........ 118

**1.5. Hurrengo txosten berezia, adinekoei laguntzeko EAEko sistemari buruzkoa** ........ 125

2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK ..... 126

**2.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak** ..... 126

**2.2. Ararteko erakundeak deitu dituen ikerketa bekak** ..... 135

**2.3. Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materiala egiteko bekak** ..... 136

**2.4. EHUko Udako Ikastaroetako jardunaldiak: "Demokrazia-sistemetan tortura eta tratu txarrak prebenitzea eta desagerraraztea"** 138

**2.5. Giza eskubideei buruz herritarrekin batera egindako lehenengo eztabaida-foroa** ..... 140

3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK ..... 141

**3.1. Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XVIII. Jardunaldiak** .. 141

**3.2. Europako Batasuneko eskualde-ombudsmanen IV. Batzarra** .. 154

**3.3. Iberoamerikako Herri Defendatzaileen eta giza eskubideen batzorde publikoetako mandatari eta lehendakarien Federazioaren Zortzigarren Biltzarra** ..... 155

**3.4. Herriaren Defendatzaileei eta eskubide konstituzionalei buruzko jardunaldiak** ..... 162

**3.5. Arartekoak bilera egin zuen torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEko kontalari bereziarekin** ..... 163

**II ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA** 165

*A) ARARTEKOAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR* ..... 168

1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA ..... 168

**1.1. Sarrera** ..... 168

**1.2. Aukeratutako kexak** ..... 170

A) Nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza

⇒ *Legezkotasun printzipioaren urraketa Gipuzkoako lurraldean ehiza baimenak ematean* ..... 170

⇒ *Gipuzkoako lurraldean ehiza baimen bat kentzea legezko betekizunak errespetatu gabe* ..... 172

B) Merkataritza

⇒ *Piroteknia produktuen salmenta ibiltariaren debekuaren gainean* ..... 173

C) Industria
⇒ *Administrazio publikoen kontrola gas galdara partikular bat jartzeko orduan* ........ 174

2. GIZARTE ONGIZATEA ........ 175
**2.1. Sarrera** ........ 175
**2.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ........ 178
A) Babes berezia behar duten taldeei zuzendutako laguntza
⇒ *Hontza zentroa: larrialdi eta babes zentroa, gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden droga ilegalen kontsumitzaileentzakoa* ........ 178
B) Pertsona ezgaituei zuzendutako laguntza
⇒ *Gizarte eta osasun laguntza koordinatzeko beharrizana. Gizarte eta osasun eremuaren garapena* ........ 182
⇒ *Minusbaliotasuna duen pertsona bati zuzendutako etxez etxeko laguntza* ........ 183
⇒ *Garraioaren zerbitzua, ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentro batera joateko beharrezko baliabide modura* ........ 184
C) Pertsona nagusiei zuzendutako laguntza
⇒ *Taxi-bonua: adin muga eta mugikortasunaren arazoa* ........ 186
⇒ *Gizarte zerbitzuak: komunitatearen funtsezko zerbitzutzat hartzea* ........ 187
⇒ *Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko itxaron zerrenda* 188

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA ........ 190
**3.1. Sarrera** ........ 190
**3.2. Aukeratutako kexak** ........ 192
A) Elebitasuna
⇒ *Bitartekorik ez izatea onartzea, hizkuntza eskubidea murrizteko zuribide modura* ........ 192
⇒ *Herritarrek komunikazio ofizialak bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko duten hizkuntza eskubideari erantzuteko prestatutako ereduen erabilpena* ........ 193
B) Kultur ondarea
⇒ *Tokian tokiko esparruan kultur ondarea babestu beharra* ... 194

4. HEZKUNTZA ........ 195
**4.1. Sarrera** ........ 195
**4.2. Aukeratutako kexak** ........ 198
A) Bekak eta bestelako laguntzak
⇒ *Unibertsitate bekak. Bahiezintasuna* ........ 198
B) Eskubideak eta betebeharrak
⇒ *Eskola garraioa. Bidai laguntzaileen beharra* ........ 200
⇒ *Unibertsitateaz kanpoko ikasketarako laguntzen ukatzea. Familiakoak ez diren enplegatuak* ........ 201

⇒ *Hezkuntza. Eskatzaileak bizi diren aldean eskaintza ez da behar bestekoa* ........ 202
⇒ *Erlijio askatasunerako oinarrizko eskubidearen alderdi negatiboa: hezkuntza arloan izandako benetako kasu bat* ... 204
⇒ *Eskola garraioa* ........ 206
⇒ *Batxilergoa. Batxilergo modalitateak eta aukerako irakasgaiak* 208

C) Hezkuntza berezia
⇒ *Hezkuntza baliabideak aldatzearen arrazoi eske* ........ 213

D) Bestelakoak
⇒ *Hezkuntza. Diabetesak jota eta bere burua tratatu ezinik dauden ikasleen artapena* ........ 213

5. FUNTZIO PUBLIKOA ........ 215

**5.1. Sarrera** ........ 215

**5.2. Aukeratutako kexak** ........ 220

A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Baimendun ikastetxe pribatuetan egindako zerbitzuen balorazioa* ........ 220
⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Ikastaroaren hasierako banaketan izandako akatsak* ........ 221
⇒ *Isilpeko jardueren edo informazioen berri izateko aukera* ... 223
⇒ *Bigarren hezkuntzako irakasleak teknologiari eta bestelako espezialitateei berratxikitzea: irizpide orokorrak egokitu beharra* ........ 224
⇒ *Irakaskuntza arloko funtzio publikorako hautaprobak. Sartzeko eskatzen den titulazioa: ikasketa espedientearen balorazioa* ........ 225

B) Funtzio publiko orokorra
⇒ *Lanpostuak baloratzean ustez sexuagatik egindako diskriminazioa* ........ 227
⇒ *Euskara eskolak HAEEk antolatu ez dituen euskaltegietan hartzea, irisgarritasun arazoak direla medio. Konpentsazio-orduak jasotzeko eskubidea* ........ 229
⇒ *Funtzio publikoan sartzea. Praktiketako kontratupean egindako zerbitzuen balorazioa* ........ 230
⇒ *Ordezkapenak* ........ 232

C) Osasun alorreko funtzio publikoa
⇒ *Osakidetza/SVSren LEP. Hautaprobak minusbaliotasun psikiko bat dutenei egokitzea* ........ 233

6. OGASUNA ........ 236

**6.1. Sarrera** ........ 236

**6.2. Aukeratutako kexak** ........ 239

A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *Zergen likidazioak. Banan-banako jakinarazpena eta pertsona fisikoen helbidea* ........ 239

⇒ *Informazio zerbitzua. Aurkeztu behar diren agiriak. Eskubide jakin batzuez gozatzeko baldintzak betetzeari buruzko frogaren zama* ..... 240
B) Foru zergak - PFEZ
⇒ *PFEZren salbuespena, Zahartasun eta Ezgaitasunezko Derrigorrezko Aseguruaren (SOVI) ezgaitasun pentsio modura jasotako diru sarreren kasuan* ..... 242
⇒ *Ezkontza banaketaren suposamenduak: baterako aitorpena eta ondorengoekiko bizikidetasuna* ..... 244
C) Foru zergak. OEZ. Oinordetzak eta Dohaintzak
⇒ *Bere garaian erositako etxebizitzaz bizi artean gozatzeko eskubidea alaba bati dohaintzan ematea. Jabetza finkatzea* 246
D) Udal zergak
⇒ *Etxebizitza babestuei hobariak aplikatzea OHZ* ..... 247
⇒ *Ibilgailuaren lapurretaren eragina TMIZren ordainketan* .. 248
E) Udalaren tasa
⇒ *Kaleak aldamioekin okupatzea* ..... 249

7. HERRIZAINGOA ..... 251
**7.1. Sarrera** ..... 251
**7.2. Aukeratutako kexak** ..... 257
A) Eskubideak eta askatasunak
⇒ *Bigarren Hezkuntzako institutu batean izandako esku-hartze polizialak, ikastetxeko zuzendariak jakin gabe* ..... 257
⇒ *Baimenik gabeko kaleko salmentaren kasuan, salgaiak konfiskatzeko legez ezarritako bermeak ez betetzea* ..... 259
B) Herritarren segurtasuna
⇒ *Defentsa eskubidea urratzea, erruztatuak proposaturiko proben ukoa zigor prozedura batean ez arrazoitzeagatik* ..... 261
C) Trafikoa
⇒ *Ezgaituentzako aparkaleku txartela eskatu eta erantzunik ez* 262
⇒ *Ibilgailu baten titularrari jarritako zigorraren baliogabetasuna, gidatzen zuen pertsona ez identifikatzeagatik trafikoari buruzko arautegia urratzearen ondorioz salatua izatean* ..... 264
⇒ *Zigor prozeduren bikoiztasuna gertakizun bera dela eta. "Non bis in idem"* ..... 265

8. JUSTIZIA ..... 266
**8.1. Sarrera** ..... 266
**8.2. Aukeratutako kexak** ..... 274
A) Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak
⇒ *Nahikoa motibaziorik ez doako urgazpen juridikoaren ukapen batean* ..... 274
B) Justizia administrazioaren funtzionamendua
⇒ *Jendea ondo ez artatzea bake epaitegi baten mendeko erregistro zibilean* ..... 275

⇒ *Zigor epai batean, zigortuaren identitateari buruzko akats batek beste pertsona baten lokala bahitzea eragin zuen* ...... 277

9. INGURUMENA ..................... 279

**9.1. Sarrera** ..................... 279

**9.2. Aukeratutako kexak** ..................... 281

A) Lurzoru urbanizaezinetako jarduera sailkatuak

⇒ *Hondakindegi klandestino batek eragindako eragozpenak* . 281

B) Egoitza-lurzoruetako jarduera sailkatuak

⇒ *Ostalaritza establezimendu batek zarata gogaikarriak sortzen zituen, ez zuelako behar bezalako soinu-isolamendurako sistemarik* ..................... 285

⇒ *Hiri hondakin solidoak biltzeko kamioiak gauean ateratzen duen zarata* ..................... 290

⇒ *Diskoteka batek erregelamenduz ezarritako soinu-parametroak behin eta berriz gainditzen zituen arren, udalak ez zuen kontrolerako neurririk hartzen* ..................... 290

C) Bestelako ingurumen-arazoak

⇒ *N-1eko trafiko handiak Lasarte parean eragiten dituen eragozpenak* ..................... 291

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK ..................... 293

**10.1. Sarrera** ..................... 293

**10.2. Aukeratutako kexak** ..................... 296

A) Landa-bideak

⇒ *Etxebizitza baterako bidea mantentzea lur urbanizaezinetan* 296

B) Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

⇒ *Nasa mugikorretako segurtasuna* ..................... 296

⇒ *Asua ibaiko zubi baten mantenimendua eta konponketak* .. 297

C) Udal zerbitzu publikoak

⇒ *Panteoi pribatu bat saltzeko eragozpenak* ..................... 298

⇒ *Ur kontagailu zaharren aldaketa* ..................... 299

11. OSASUNA ..................... 301

**11.1. Sarrera** ..................... 301

**11.2. Aukeratutako kexak** ..................... 304

A) Osasun laguntza

⇒ *Erreklamazioa aseguru pribatua duen erabiltzaile bati dirukopuru zehatz bat ordaintzeko egindako jakinarazpenagatik* 304

B) Erabiltzaileen eskubideak

⇒ *Erabilgarri ez dauden edo prestazio publikoetan oraindik sartu ez diren tratamenduei buruzko informazioa. Saiakuntza klinikoko prozedura* ..................... 305

⇒ *Lekualdaketa gastuak: berdintasun printzipioa onuradunak zehaztean* ..................... 306

⇒ *Prestazio publikoen barruan erabilgarri ez dauden edo oraindik sartu ez diren tratamenduen gaineko informazioa* ........ 307
⇒ *Ofizioz emandako alta medikoarekin bat ez etortzea* .......... 308

12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .................................................. 309
**12.1. Sarrera** .......................................................................... 309
**12.2. Aukeratutako kexak** ........................................................ 309
A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura
⇒ *BGAE: finkatutako eskubideen lekualdaketa, komisioak eta epeak* .................................................................. 309

13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .................................................. 311
**13.1. Sarrera** .......................................................................... 311
**13.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak** ...................... 316
A) Irisgarritasuna
⇒ *Zinema gelen banaketari buruzko azterlan zehatz baten premia, mugikortasun urriko pertsonek eskatuta* .................... 316
⇒ *Oztopo arkitektonikoak Bigarren Hezkuntzako institutu batean* .......................................................................... 317
B) Oinarrizko eskubideak
⇒ *Alokairuko etxebizitza-poltsaren funtzionamendua eta atzerritar guztienganako tratu diskriminatzailea* ............... 318
C) Hirigintza diziplina eta aurriak
⇒ *Igogailua instalatzeko obra-lizentzia suteak aurrejagoteko arautegiaren aurkakoa zen* ............................................ 318
⇒ *Etxebizitza lizentzia ukatzea inguruaren kontrakoa zelako* . 320
D) Hirigintza antolamendua
⇒ *Lurzoru urbanizaezinean etxebizitza bat eraikitzeko aukera* 321
⇒ *Gasolindegi bat lekualdatzeko hirigintza hitzarmena eta hirugarren bati ekarritako ondorioak* ............................... 322

14. ZENBAIT GESTIO ...................................................................... 324
**14.1. Sarrera** .......................................................................... 324
**14.2. Aukeratutako kexak** ........................................................ 325
⇒ *Ikastetxe batean epailearen dibortzio ebazpen bat interpretatzeko arazoak* ................................................................ 325
⇒ *Pertsona behartsu batentzako laguntza eta aukeratzeko askatasun pertsonala* .......................................................... 325

*B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI* ...................................... 327
1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI ............................ 327
2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI .............................. 339
3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI ............................ 341
4. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI ........................ 349
5. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI BERARIAZ ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK ................................................................................ 351

**III. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN** 359

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK .......... 361
2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR .......... 365
3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA .......... 368
   A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak .......... 369
   B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak .......... 370
   C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak .......... 371
   D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak .......... 375
   E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak .......... 376
4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA) 377
5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA) .......... 380
6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA) .......... 388
7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK) .......... 389
   A) Gasteizko arreta zuzeneko bulegoa .......... 392
   B) Donostiako arreta zuzeneko bulegoa .......... 393
   C) Bilboko arreta zuzeneko bulegoa .......... 394
8. OFIZIOZKO JARDUERAK .......... 395
9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK) .......... 397

**IV. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA** .......... 401

1. SARRERA ETA OHARRAK .......... 403
2. ARARTEKOAK 2003. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA .......... 407
   A) Eusko Jaurlaritza .......... 407
   B) Foru aldundiak .......... 408
   C) Udalak .......... 409
   D) Beste erakunde publiko batzuk .......... 412
3. ARARTEKOAK 2003. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA .......... 413
   A) Eusko Jaurlaritza .......... 413
   B) Foru aldundiak .......... 417
   C) Udalak .......... 419
   D) Beste erakunde publiko batzuk .......... 425

4. ARARTEKOAK 2003. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA ... 426
A) Eusko Jaurlaritza ... 426
B) Foru aldundiak ... 426
C) Udalak ... 427
D) Beste erakunde publiko batzuk ... 427

**V. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN** ... 429

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ... 433
A) Eusko Jaurlaritza ... 433
B) Tokiko administrazioa ... 434
C) Eragindako beste erakunde batzuk ... 436

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ... 437
A) Eusko Jaurlaritza ... 437
B) Foru administrazioa ... 437
C) Tokiko administrazioa ... 437
D) Eragindako beste erakunde batzuk ... 440

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ... 441
A) Eusko Jaurlaritza ... 441
B) Foru administrazioa ... 441
C) Tokiko administrazioa ... 442
D) Eragindako beste erakunde batzuk ... 443

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOA, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO ... 444
Tokiko administrazioa ... 444

**VI. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK** ... 445

1. ZERGA-KUDEAKETARAKO FORMULA MODERNOAK ETA BEREZITASUNAK ARAUDIEN BIDEZ JASO ETA ONARTZEA ... 447

2. POLIZI KIDEGOEK KONTROL-TRESNAK EZARRI BEHARRA, AGENTEEK ARAUZ KANPO JARDUTEN DUTEN KASUETARAKO ... 451

3. TRAFIKOA, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURTASUNA: AURREZ TAXUTUTAKO EREDUEN ERABILERA ZEHAPEN PROZEDURAK TRAMITATZEAN. ZENBAIT ARAZO DEFENTSARAKO ESKUBIDEAREN INGURUAN ... 458

4. IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUAK: KONTROLERAKO TRESNAK ERABILI BEHARRA ... 465

5. URBANIZAZIO PRIBATUEN MANTENTZEA, ERABILERA PUBLIKORAKO ZORRA DAGOEN KASUETAN ... 470

**VII. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK** ......... 475

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA ......... 478

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK ......... 479

**2.1. Bizitzeko eta integritate fisiko eta moralerako eskubidea** ......... 479

**2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak** ......... 481

**2.3. Intimitaterako eskubidea** ......... 483

**2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa** ......... 484

**2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen printzipioa** ......... 485

**2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak** ......... 486

**2.7. Hezkuntzarako eskubidea** ......... 487

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ......... 488

**3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezkotasun printzipioak** ......... 488

**3.2. Jabetza pribaturako eskubidea** ......... 490

4. GIZARTE ESKUBIDEAK ......... 491

**4.1. Familiaren babesa. Adin txikikoen eskubideen babesa** ......... 491

**4.2. Osasunerako eskubidea** ......... 492

**4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea** ......... 493

**4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea** ......... 494

**4.5. Urritu fisikoen, sentimenezkoen eta psikikoen eskubideak (ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak)** 495

**4.6. Adinekoen eskubideak** ......... 496

5. LABURBILKETA ......... 497

**ERANSKINAK**

- *I. ERANSKINA:* Haur eta gazteen buru-osasunera bideratutako eta psikogeriatriako baliabideak eta zerbitzuak (Herri Defendatzaileen Koordinaketako XVIII. Jardunaldiak) ......... 501

- *II. ERANSKINA:* Sistema demokratikoetan tortura eta tratu txarrak prebenitu eta ezabatzeari buruzko jardunaldia ......... 515

- *III. ERANSKINA:* Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko lege aurreproiektua adingabeen Arartekoaren irudia sortzeari dagokionez aztertzen duen txostena ......... 521

- *IV. ERANSKINA:* *Gipuzkoako Probintzi Auzitegiaren epaia, Pasaiako alkatea Ararteko erakundeari ez laguntzeagatik zigortzen duena.* 535

-V. *ERANSKINA:* GRAFIKOAK

- 1. Diagrama: Arartekoak zenbatetan ikusi duen irregulartasuna administrazioaren jokaeran 2003an bukatutako kexetan .... 541
- 2. Diagrama: Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra ........ 541
- 3. Diagrama: Arartekoak jasotako kexa-kopuruaren bilakaera (1989-2003) 542
- 4. Diagrama: 2003an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren 542
- 5. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa jarduera alorren arabera ........ 543
- 6. Diagrama: Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera ........ 543
- 7. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ........ 544
- 8. Diagrama: Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa sailen arabera ........ 544
- 9. Diagrama: Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera ........ 545
- 10. Diagrama: Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa alorren arabera
- 11. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2003) 545
- 12. Diagrama: Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2003) ........ 546
- 13. Diagrama: Jasotako kexen banaketa kexagileen ezaugarrien arabera .. 546
- 14. Diagrama: Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera . 547
- 15. Diagrama: Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera .... 547
- 16-17. Diagramak: 2003an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bisitak (kopurua eta ezaugarriak) ........ 548
- 18. Diagrama: Banaketa adin taldeen arabera ........ 548
- 19. Diagrama: Kexa bilakatutako bisitak ........ 549
- 20. Diagrama: Harrera zuzeneko hiru bulegoetara joandakoen jatorri geografikoa ........ 549
- 21. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2003). Banaketa alorrez alor ........ 550
- 22. Diagrama: Ofiziozko jarduerak (2003). Eragindako administrazioen araberako banaketa ........ 550
- 23-28. Diagramak: Kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak) ........ 551
- 29-30. Diagramak: Arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” dioten kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa ........ 554

**GAIEN AURKIBIDEA** ........ 555

## AURKEZPENA

Eusko Legebiltzarrari aurkezten diodan txosten honetan Ararteko erakundeak 2003. urtean izan duen jarduera dago islatuta.

Txostenaren egitura legean manatutakoarekin bat dator, jakina. Hau da, bertan baloratuta dago, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesari buruz dagoen egoera (VII. atala); gero, bertan ageri dira jasotako kexei eta egindako jarduerei buruzko datu kuantitatiboak (III. atala), administrazioen lankidetza-maila (IV. eta V. atalak), kexarik garrantzitsuenak (II. atala), eta administrazio-hobekuntzak ekartzeko gomendioak eta iradokizunak (VI. atala).

Legebiltzarreko ordezkaritza honek, urteko txostena emanda, bere Legebiltzarrari 2003. urtean egindako jarduera nagusien berri emateko legezko agindua bete nahi du, botere publikoen aurrean herritarren eskubideak bermatzeko. Hala ere, ez da bakarrik legezko agindua betetzea; horrez gain, asmoa txostena administrazio eta herritarrentzako tresna erabilgarria izatea da.

Pozik adierazten dut administrazio-jokaera okerra egon dela agertu duten espedienteetatik ia % 90etan Administrazioak bere egintzak zuzendu dituela, gehienetan kexaren berezko izapideak burutzen ziren bitartean eta ondorioz, ez dela berariazko gomendiorik egin behar izan. Horrek dakarrenez, beren eskubideak urratuta zituzten herritarrek erantzun egokia jaso dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak gai izan dira zuzendu beharrekoa zuzentzeko eta beren esku-hartzea zuzenbidearekin bat etorri ez zela aitortzeko.

Halaber, egiaztatu dugu kexa aurkeztu eta modu anonimoan eta borondatez inkesta bete duten pertsonen % 84k oso edo nahiko positibotzat jotzen dutela Arartekoaren esku-hartzea. Gainera, ia % 90ek beste pertsona batzuei gomendatuko liekete erakunde honetara jotzea, administrazioaren batekin arazoak izatekotan.

Bereziki nabarmendu nahi ditut ofiziozko jarduerak, egindako ezohizko txostenen jarraipenari lotutako esku-hartzeak, txosten monografikoak gauzatu izana eta txosten honetan aurkituko dituzuen gomendio orokorren proposamena. Horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko herritar askoren eskubideak bermatzen laguntzen dute, kasu askotan herritarrak bereziki aukera gutxi dituzten taldeetako kideak direla.

Horri dagokionez, “Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn” eta “EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna” izeneko ezohizko txostenak aipatu behar dira. Bi txosten horiek 2003. urtean, hau da, ezgaitasunen Europako urtean, amaitu eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zitzaizkion.

2003. urtean “Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn” izeneko txostena ere amaitu da, nahiz eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari 2004ko urtarrilean aurkeztu.

Halaber, “Adinekoentzako laguntza-sistema EAEn” izeneko ezohizko txostena egiten hasi da. Txosten horrek 2004. urtean amaitu eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztuko zaio.

Balio demokratikoetan sakondu beharrak giza eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzen duten ekimenekin jarraitzera eraman gaitu aurten ere, ikerketa-beka, argitalpen edo udako unibertsitateko jardunaldien bidez.

Gainera, 2003. urtean beste bi ekimen abiarazi ditugu:

Alde batetik, giza eskubideei buruzko idazlan-lehiaketa deitu da, gure Autonomia Erkidegoko hezkuntza-zentroetako ikasleei zuzenduta dagoena, beharrezko balio-hezkuntza azpimarratzeko asmoz.

Bestaldetik, herritarrekin egindako lehenengo eztabaida-foroa burutzeko esperientzia hasi dugu, gizarte zibilari giza eskubideekin zerikusia duten gaiei buruzko gogoeten berri emateko asmoz.

Oraingo honetan, Pilar Ramirok, Minusbaliatu Fisikoen Madrilgo Koordinakundeko idazkari nagusiak eta CERMIko Emakumearen Batzordeko presidenteak, hitzaldiak eman zituen Bilbon eta Vitoria-Gasteizen “Mujer y discapacidad: una doble discriminación” (“Emakumea eta ezgaitasuna: bi aldiz baztertua”) gaiari buruz.

Zoritxarrez, 2003an berriz doluz jantzi gara, ETAk hiru lagun hil baititu. Ekintza horien bidez, mina zabaldu du senitarteko eta gizarte osoan, herritar guztien askatasunari erasoz.

Indarkeriaren erabateko gaitzespenak bakearen kulturaren balioak aldarrikatzera behartzen gaitu berriro, hala nola, tolerantzia, modu ezberdinean pentsatzen duen pertsonarekiko errespetua eta akordioen bilaketa.

Erakunde honek herritarren ardura eta kezka garrantzitsuenetako batzuei erantzun nahi die bere eguneko zereginaren bidez eta orain aurkezten dugun txostena ildo horretan egiten ditugun ahaleginen isla da.

2004ko martxoa
JARDUNEKO ARARTEKOA
*Mercedes Agúndez Basterra*

# I. ATALA

# **ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK**

# 1. 2003 URTEAN EGIN EDO HASITAKO TXOSTEN BEREZIAK ETA AURREKO TXOSTENEI JARRAITZEKO OFIZIOZKO JARDUERAK

## 1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIETAN EGIN ZIREN GOMENDIOAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

Aurreneko atal honetan, erakunde honek azken urteetan prestatu dituen txosten berezien jarraipena egiteko jarduerak laburbilduko ditugu. Arartekoa erakundearen txosten guztiek, bukatzeko, zenbait gomendio ematen dizkiete kasuan kasuko administrazio eskudunei eta beraz, jarraipenaren helburua ez da bestrik gomendioak zenbateraino betetzen ari diren jakitea baino. Horretarako, bide desberdinak erabiltzen dira, gaia zein den, txostena egin denetik zenbat urte igaro diren, gomendioa abian jartzeko zerbitzuak zeintzuk eta zenbat diren, beste urte batzuetatik daturik ezagutzen dugun…

Hain zuzen ere, hauek dira biderik erabilienak:

- Bisitaldiak egitea aztertutako zentroetara edo zerbitzuetara (esate baterako, komisariak, harrera-zentroak edo barruan egoteko zentroak).
- Arlo bakoitzean diharduten elkarteekin edo profesional-taldeekin harremanetan jartzea.
- Kasuan kasu eskudun den administrazioari datuak, informazioa eta balorazioak eskatzea.

Aipatutakoez gain, beste bide batzuk ere erabiltzen ditugu, erkatzeko: kexen bidez jasotako informazioa; aztertzen ari garen aldian argitaratu diren planak, programak, deialdiak edo memoriak; bilerak sailetako ardura duten politikoekin…

Administrazioei datuak eskatzen dizkiegunean informazio gaurkotua, ahalik eta gaurkotuena, eskura eduki gura dugulako da. Horregatik, sarritan, eskakizuna urtearen azken bi hiletan egiten dugu eta urtea bukatu bitarteko epea eman –azken ekitaldiko datuak txostenean sartu ahal izateko–, baina erantzunak hurrengo urtearen aurreneko bi hiletan jaso eta aztertzen ditugu. Horrela, bada, hurrengo ataletan agertuko diren datu asko eta asko 2003. urteari dagozkio baina 2004ko urtarrilean edo otsailean jaso ditugu, txosten hau amaitu baino lehentxoago. Kontuan hartzekoa da hori.

### 1.1.1. EUSKAL HERRIKO KARTZELEN EGOERARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIARI JARRAIKI HASITAKO JARDUEREN JARRAIPENA

Ararteko erakundeak Euskal Herriko kartzelen egoerari buruz egindako txosten berezia Eusko Legebiltzarrari 1996an eman zitzaion. Bertan deskribatuta zegoen gure Erkidegoko hiru presondegietan ikusitako problematika, eta bertan pertsona presoen egoera hobetzeko gomendioak egin ziren.

Harrezkero, hurrengo urteetako txosten arruntetan jarraipen-atala sartu da, zeinetan kezkak, jarduerak eta balorazioak islatuz joan baitira, kasu bakoitzean egon diren informazioen arabera. Informazio horiek presondegietako zuzendariengandik, haietan esku hartzeko programak dituzten elkarteengandik, zenbait jarraipen-batzorderengandik, Osasun eta Justizia Sailarengandik, Ararteko erakundearengandik eta abarrengandik jaso dira. Gehienbat osasunerako eta osasun-arretarako eskubidearekin loturiko gaien jarraipena egin da: xiringak trukatzeko programa zabaltzearena, pertsona presoentzako arreta psikiatrikoarena, presondegiaren hautazko bide terapeutikoena, Txagorritxuko eta Basurtoko zainketa bereziko ospitale-unitateen baldintzena eta abarrena. Hau da, Zigor Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren artean finkatutako lankidetza markoaren barruko gaien jarraipena egin da. Hain zuzen ere, azken ezaugarri hori dela eta, Arartekoak zuzenean jardun ahal du. Beste gai garrantzitsu batzuetan ezin du zuzenean jardun.

Urtero gertatu izan den bezala, kontuan hartu behar da ezen presondegiaren gaiko eskudunak ez zaizkiola gure Erkidegoari intsuldatu eta, hortaz, hiru presondegiek Barne Ministerioaren menpean jarraitzen dutela. Horrela, aipatu ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzarako marko-hitzarmena edo osasun arloko beste hitzarmen zehatz bat dela eta, Arartekoak zelanbait esku hartu eta hartzen du, lankidetzapeko gaietan bakarrik baina. Egoera horrek benetako jarraipen-aukerak oso baldintzatzen ditu eta, neurri handi batean, bai aztertutako gaiak bai erabilitako metodologia edo informazio-bideak azaltzen ditu. Egin-eginean ere, informazioa elkarri trukatzeko aldizkako bilerak izan ditugun presondegietako zenbait pertsonekin eta presoei laguntzeko elkarteekin izandako harreman onei eta erakundearteko lankidetzarako foroetako batzuetan agertzeari esker egin da jarraipena urteotan. Foro horiek xiringak trukatzeko programei jarraitzeko batzordeak izan dira. Baina beti zeharka hartu da esku, gaien aldetik mugatuta, eta informazioa biltzeko edo egiaztatzeko funtsezko tresnarik gabe. Horrelako tresnak, esate baterako, honakook dira: presondegiak zuzenean bisitatzea eta haietan lan egiten duten edo preso dauden pertsonekiko elkarrizketak. Behin baino gehiagotan aitortu dugu ezen, marko horrekin bat etorririk, erakunde honentzat zaila dela aztergaiak zehazkiago aztertzea. Alabaina, mugak gorabehera, azken urte honetan ere irekirik egon dira aipatutako jarduera- edo harreman-bideak (elkarteekiko bilerak, zuzendariekiko elkarrizketak...), eta, gai batzuetarako, beste informazio-bide batzuk bilatu dira, beti arrakastatsuak izan ez direnak.

Jarraipen-kapitulu hau idazteko, honako iturriok hartu dira kontuan:

- Urtean zehar jasotako kexak.
- Pertsona presoei laguntzeko 19 elkartetako kideekin martxoan eta apirilean izandako bileretan jasotako kezkak eta datuak.

– Drogazaleekin esku hartzeko programei buruzko Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiaren 2002ko memoria.
– Osasun Sailari, Justizia Sailari, Gizarte Gaiak Sailari eta Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusiari ofiziozko espedienteen bitartez eskatu eta jasotako informazioa.
– Hainbat taldek aurkeztutako proposamen, kexa edo arazoak kontuan hartuta egindako esku-harmenak.
– Justizi Administrazioaren Euskal Behatokiaren 2002ko Memoria.

Jarraian aipatuko ditugu, labur, aztertutako gaien eta iturri batetik edo beste batetik jasotako informazioen alderdi batzuk, nabarmentzeko modukoak direnak.

• **Zigor-arloko eskumenak eta erakundearteko lankidetzarako akordioak**

Euskal Autonomia Erkidegoak zigor-arloko eskumena bereganatu behar du. Intsuldaketa hori ez da oraindik gertatu, Autonomia Estatutuan ezarritakoa gorabehera. Hark eskumen hau bereganatu beharrari begira adieraztekoa adierazi du erakunde honek bere txosten guztietan. Era berean, kontuan hartu da ezen, horrelako intsuldaketarik ezean, lankidetza-hitzarmenak daudela eta, arlo jakin batzuetan batera esku hartu behar da, behintzat, eta pertsona presoen eta esku hartzen duten taldeen eta profesionalenbizi- eta lan-baldintzak hobetu behar dira.

Indarrean dauden hitzarmenek oinarrizko gaiak harturik dituzte barnean, eta haiek eragina dute pertsona presoen osasunerako, hezkuntzarako, lanerako eedo gizarterapenerako eskubidean. Ildo horretatik bere mugak gorabehera hobekuntzarako programa eta jarduera asko ahalbidetzen dituen jarduera-markoa osatzen dute. Baina, haiek behar bezala garatzeko, beharrezkoa da, zalantzarik gabe, aldeen arteko konfiantza eta lankidetza.

Jasotako datuak kontuan harturik, ez dirudi haien potentzialtasunak nahiko garatu direnik. Badirudi, azken urteetan behintzat, haien garapena lankidetzan eragin txarra izan duten kontu politikoek ukitu eta geldituta geratu dela. Izan ere, marko-hitzarmenean ezarritako Jarraipen-batzordearen azken bilera 1998ko martxoan izan zen eta ez da harrezkero bilerarik izan. Azken urte honetan ez da egin, bestalde, presondegian xiringak trukatzeko programari buruzko bilerarik.

Hori zela eta, erakunde honek inplikaturiko aldeengana jotzea egokietsi zuen 2002an, haien balorazioa eta proposamenak jasotzeko. Informazio-eskaera gaian eskumenak zituzten eta esku hartua zuten Eusko Jaurlaritzaren hiru saili (Justizia, Osasuna eta Gizarte Gaiak) zuzendutako hiru ofiziozko espedientetan eta Barne Ministerioaren Zigor Erakundeetako Zuzendaritzarentzako idazki batean zehaztu zen.

Funtsean, haiei guztiei antzeko informazioa eskatu zitzaien, beraien eskumen-eremura egokitua. Horrek lau atal zituen zehazpide.

1. Indarrean zeuden hitzarmenek (osasun arloko hitzarmen zehatzak eta marko-hitzarmenak) iritsitako benetako garapen mailari eta erakundearteko egungo lankidetza eta koordinazio mailari buruzko sail bakoitzaren balorazioa.
2. Gure aurreko jarraipen-txostenean islatutako gaiak ñabartu, osatu edo eguneratzeko egokiesten zituen ekarpenak.

3. Garrantzi bereziko aldediak edo proposamenen bat egitea beharrezkotzat jotzen zuen alderdiak.
4. Haiek erakunde honek egindako gomendioen ildotik zigor-gaietako lankidetzan eta presondegiratzearen hautabidezko zigorretan burutu edo ezarritako jarduera nagusiak.

Hiru sailetatik jasotako erantzunetan lehenengo eta laugarren puntuak ukitu ziren bereziki, eta horien laburpena eman zen iazko txostenean. Laburbilduz, nahiko balorazio negatiboa egiten zen hitzarmenaren eta instituzioen arteko elkarlanaren inguruan, eta bestalde, datuak ematen ziren sail horien ekimenez edo haien laguntzaz burututako programei eta jarduteei buruz. Era berean, informazioa ematen zen burututako edo artean garatzen ari ziren hainbat lankidetza eta hobekuntza-ekimeni buruz (ikus 1.1.1 atala, 2002ko Txostena).

Zigor Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna ezin izan zen iazko txostenean sartu, bai ordea, aurtengoan. Zuzendari Nagusiaren idazkia, 2003ko martxoaren 11koa, bi hilabete geroago iritsi zitzaigun, Herriaren Defendatzailearen bitartez, eta gure eskaeraren 1. eta 2. puntuak ukitzen ditu.

Hitzarmena eta erakundeen arteko elkarlana baloratzean, ondokoa adierazten da, hitzez hitz:

> *"Administrazio Autonomikoarekin sinatua duen hitzarmenaren garapenari dagokionez, Zuzendaritza Nagusi honen ustez hitzarmenean jasotako jardueren betetze maila egokia da bi alderdientzat, eta presondegietako zuzendaritzek berehala zuzentzen dituzte garapen horretan izaten diren hutsune txikiak.*
>
> *Autonomia Erkidego honetako zentroetatik iristen den informazioa eta zerbitzu zentraletan egiten den koordinazioa oinarritzat harturik, balorazioa positiboa da.*
>
> *Hala ere, batzuetan Administrazio Autonomikotik egiten diren galdeek osasun arloko hitzarmenean ezarritakoa gainditzen dute, eta ondorioz hitzarmenaren beraren helburua aldatu edo zabaldu beharko litzateke, eta gaur egun alderdi honek ez du uste egokia edo beharrezkoa denik horrelakorik egitea.*
>
> *Aintzat hartzen ditugu Administrazio Autonomikoaren osasun arloko laguntza eta ahaleginak, ezbairik gabe lagungarria baita presoei artapen hobea emateko, baina ez zaigu iruditzen orain beharrezkoa denik hitzarmenaren helburua zabaltzea."*

Idazkiaren azken lerroaldean berriro heltzen zaio gaiari: *"Legez dagozkion eginbeharren ikuspegitik, Zuzendaritza Nagusi honek esker ona adierazten du beste autonomi eta toki erakundeetatik emandako lankidetzagatik, lagungarriak gertatzen baitira Konstituzioan askatasun gabetzeari ematen zaion helburua lortzeko eta presondegi-zerbitzua kalitatezkoagoa eta eraginkorragoa izateko. Alabaina, lankidetza hori legeak ezartzen duen bide juridikotik garatu behar da."*

Gorago esan den bezala, egin genuen informazio-eskabidearen 2. atalean aukera ematen zitzaien instituzioei aurreko urtean egin genuen segimendu-txostena zehaztu, osatu edo eguneratzeko, eta horretarako osorik helarazi zitzaien 2001eko Txostenaren 1.1.1 ataleko testua.

Horren inguruan, ondokoa adierazten zen Zigor Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiaren erantzunean:

> *"Zure idazkiaren 2. atalari dagokionez, Arartekoak osasun-gaietan bakarrik egin dezake segimendua, hein batez, gainontzeko gai guztiak erakunde autonomiko horren eskumenetatik kanpo geratzen baitira.*
> *Zure txostenean bertan egoki adierazten denez, hura alderdi baten ikuspegia zen, eta zenbait puntutan ados bagaude ere, ez gatoz bat beste balorazio eta iritziekin, eta horrelakoak ezabatu edo xehatu egin beharko lirateke zehatza izan behar duen txosten batean.*
> *Langraizko presondegiko ur-araztegiaren kapazitate urria dela eta, 1995ean Zuzendaritza Nagusi honek araztegi berri bat instalatu zuen espetxe horretan. Arazoa ez zen guztiz konpondu, horretarako egin behar zen jarduna zabalagoa baitzen, eta lotuta zegoen udalerriko beste azpiegitura batzuei: industri poligonoa, eskola, etab.*
> *Txostenaren arabera, ohikoa da ziegetan arratoiak eta saguak ibiltzea. Haatik –eta ez dugu esango haiek erantzule direnik– presoren bati bakarrik gertatu zitzaion.*
> *Izan ere, Langraizko espetxean, estatuko beste guztietan bezala, intsektuak eta arratoiak akabatzeko egiten diren kanpainek emaitza ona dute, beraz, horrelako kasuak bakanak dira.*
> *Txostenaren beste atal batek gobernuz kanpoko erakunde edo elkarteek salatutako arazoak biltzen ditu. Erakunde horiek arazotzat jotzen dute, esate baterako, ezin dutela parte hartu edo eraginik izan presoak sailkatzeko erabakietan. Zuzendaritza Nagusi honen ustez hori ez da arazoa, aitzitik, agerian geratzen da legea errespetatzen dela, bete egiten baita Espetxeetarako Lege Organiko Orokorrean eta espetxe-ordenamenduetan ezarritakoa.*
> *Txostenaren beste atal batzuk aztertu gabe, gogoratu behar da Administrazio honek, bere eskumenak betetzean politika orokor bati eusten diola, eta ez duela desberdin jokatzen eremu geografikoen arabera."*

Hala, bada, uste dugu erantzun horrek eta Eusko Jaurlaritzako hiru sailek emandakoek –denak iazko txostenean jasoak– argi uzten dutela erakunde bakoitzaren jarrera, zertan datozen bat eta zertan bereizten diren, alegia. Bestalde, Zuzendaritza Nagusiaren erantzunak agerian uzten du gure lanak dituen mugak, guk geuk kapitulu honen hasieran azaldu bezala.

- **Jasotako kexak**

Justizi arloari buruzko atalean azaltzen denez, aurten iritsitako kexetan ukitzen diren gai batzuk aurreko urteetakoen antzerakoak dira, terrorismo delituengatik preso daudenen egoera, esate baterako: espetxe batzuetako bizi baldintzak, famili ingurunetik urruntzea, zigorraren hiru laurdenak bete ondoren kartzelan jarraitzea... Maiz, kexa horiek iturri desberdinetatik etortzen dira (kolektiboak, elkarteak, plataformak edo udal ordezkariak).

Presoen eurek aurkeztutako kexetan ere hainbat gai salatzen dira: drogamenpekotasunerako tratamendu egokirik ez izatea, askatasuna gabetzek dakartzan

kalteak eragotziko duten espetxe-tratamendurik ez egotea, presoen egoera juridikoari buruzko datu falta (zigorraren betetze mailari buruzko zalantzak edo akatsak, jakinarazpenen berri ez izatea...), ezkontzeko edo Aldundiak babesturik dauden seme-alaben bisitak antolatzeko eragozpenak, Martutene eta Langraizko espetxeetako berokuntza sistemaren akatsak, baimenik eta komunikaziorik ez jasotzea, atzerritarren dokumentazioa, doako pentsioak kobratzeko zailtasunak...

Izan ere, presoek helarazten dizkiguten idazkietan espetxeko bizimoduan eragina duten kontuetako asko aipatzen dira: gradu atxikipena, ukatutako baimenak, drogamenpekotasunen edo buru-gaixotasunen tratamendurako gabeziak, zigorra betetzeko lekuak eta lekualdaketak, tresnak izan, gutunak jaso edo komunikazioak izateko araudiak, ukatutako pentsioak...

Gaur egungo eskumenen banaketa kontuan harturik, gehienetan, kaxa horren gaineko erabakia Herriaren Defendatzaileari dagokio.

Aurtengo kexengatik, besteak beste, Arartekoak honako gaien inguruan esku hartu du:

– Etxerat-ek eta ukitutako pertsona batek aurkeztutako kexak zirela eta, aztertu zen nolako zailtasunak dituzten UPV/EHUn matrikulatutako presoek (guztira, 400 inguru) beharrezko liburuak eta material didaktikoak jasotzeko eta azterketak egiteko orduan.
– Eritasun larri edo sendaezinagatik ematen den baldintzapeko askatasunaren atzerapena, HIESaren azken fasean dauden gaixoen kasuan. Batzuetan, ez dago behar besteko baliabiderik gaixotasun larriez gain buru-gaixotasuna duten presoei espetxez kanpoko artapena emateko.
– Laguntza-programetan dihardute elkarte batzuek arazo handiak izaten dituzte beren jarduerak burutzeko, deialdiak berandu erabaki zirenez ez baitute diru-laguntzarik jasotzen.

Justiziari buruzko atalaren sarreran (ikus txosten honetako II.-8 kap.) laburpen bat jasotzen da goiko gaietan burutu diren ekimenei buruz.

- **Xiringak trukatzeko programak**

Gure Erkidegoko presondegietan xiringak trukatzeko programei dagokienez, egungo egoera honelaxe labur daiteke:

– Basauriko presondegia: 1997ko uztailean esperimentalki hasitako programa ontzat hartu eta argitalpen xumearen bitartez zabaldua, beste proiektu batzuetarako oinarri bezala. Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiak kaleratutako datuen arabera, 2002an 1.121 xiringa banatu ziren.
– Martuteneko presondegia: Xiringak Trukatzeko Programa presondegi horretan 2000ko otsailean abiarazi zen. Aipatutako datu-iturriaren arabera, 2002 urtean 446 xiringa banatu ziren.
– Langraitzeko presondegia: programa, azkenik, 2001eko urriaren 1ean abiarazi zen eta jarraipen-batzordea 2002ko ekainaren 10ean bildu zen haren garapena berriro ikusi eta beharrezko aldarazpenak aztertzeko.

Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiak kaleratu zituen datuen arabera, 2002an 1.942 xiringa banatu ziren.

Horrela bada, 2001eko urriaz geroztik gure Erkidegoko hiru presondegiek xiringak trukatzeko programak dituzte, gaitzak txikitzeko gainerako programetan sartuak. Horrek zigor-eremuko haien bideragarritasuna erakutsi dute. Programa beste presondegi batzuetan zabaltzeari edo orokortzeari zegokionez, 2002an jaso zen azkeneko idazkia Espainiako Defendatzailearen erakundetik. Bertan jakinarazi zitzaigun Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusitik jasotako informazioa. Beronen arabera, «Gizarteratze zentroetan, Zigor-psikiatrikoetan eta Puerto I zentroan izan ezik, gainerako presondegietan ezarri da programa», zuzendaritza horren 2001eko ekaineko zirkular bat kontuan hartuta. Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiaren memoriaren arabera, 2002. urtean programa 27 espetxetan zegoen ezarrita. Bestalde, eta beste espetxe batzuetan ezarriko diren programak diseinatzeko lagungarria izango delakoan, 2003n Zigor Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak dokumentu bat argitaratu du gaiaren inguruan ("Xiringen trukea espetxeetan. Programa-markoa"). Datuok ikusita, erakunde honek bere burua zoriondu behar du hasieran, 1995an azaldu zenean, erreparo eta aurkaritza handiak eragin zituen baliabide bat ezartzen izandako aurrerapenen aurrean.

- **Presoentzako osasun-arreta eta zaintza bereziko ospitale-unitateen egoera**

Osasun Saila-Osakidetzak Espetxe Gaietarako Estatu Idazkaritzarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena betez, hemen aztertuko ditugun osasun prestazioak Erkidegoak bere baliabideen bitartez ematen ditu. Prestazio horiek espetxetan euretan –profesional espezializatuak egiten dituen bisitetan–, anbulatorioetan edo ospitaletan ematen dira.

Atal hau ukitzean, urteroko txostenetan osasun-artapenari buruzko datuak eta balorazioak txertatu izan ditugu. Izan ere, Osasun Sailaren aldizkako txostenetan urtero eta lurralde bakoitzean emandako prestazioak aipatzen dira, lankidetza-hitzarmenaren segimendurako datu gisa (ikus, esate baterako, gure 2001eko txosteneko datuak, 1.1.1 atalean, edo sailak berak bere prestazioei buruz egiten duen balorazio positiboa, 2002ko txostenean berau). Ez zaigu beharrezkoa iruditu gaiari buruzko datu berriagoak aurkeztea honako honetan.

Bestalde, erakunde honek arreta handiz aztertu du poliziaren zaintzapeko ospitale-unitateen egoera, haietan ospitale-artapena ematen baitzaie presoei, eta horren berri jasotzen da aurreko urteetako txostenetan.

Adibidez, duela bi urteko txostenean zehatz adierazten zen nolakoa zen egoera presoak hartu ohi dituzten ospitaletan (Txagorritxu, Basurto eta Donostia) (ikus 2001eko Txostena, 1.1.1 atala). Iazko txostenean ere ospitaleratze kasuen berri ematen zen, eta Osasuna eta Espetxeak Arabako Elkarteak Zaintza Bereziko Unitateei buruz egindako galdekizunak jasotzen ziren; horren haritik, unitateetako osasun artapenaren ezaugarriekin batera, haietako bakoitzean egindako aldaketak eta hobetzeko zeuden ezaugarriak aztertzen ziren.

Aldaketarik nabarmenetako bat Ertzaintzaren zaintza zen; bereziki aipatzen zen, horrekin batera, hainbat gaitan ez zegoela irizpide bateraturik, adibidez bisiten alorrean, osasun-langileekiko konfidentzialtasunean. Hori guztia helarazia zitzaion 1999an Herrizaingo Sailari, Txagoritxuko ZBU abian jarri zela-eta, eta orduan arazo larrienak

konpontzeko aldaketa batzuk egin baziren ere, beste asko konponbide zain geratu ziren, eta sarritan horretaz galdetu dugun arren ez dugu informaziorik jaso. Horregatik, artean puntu horietako batzuk zuzendu gabe zaudela ikusirik, Arartekoak berriro ere ekin zion ofizioz Herrizaingo Sailaren aurrean, bereziki honako bi gaiak ukituz:

– Intimitaterako eskubidearen errespetua ospitaleetan, hiruretako bakoitzaren ezaugarrien eta egoeraren arabera.
– Ospitaleratutako presoen bisitak pimentzako eta kontrolatzeko irizpideak.

Iazko txostenean lehenbiziko informazio multzo bat eman zen gai horien haritik planteatutako puntuen inguruan (ikus 2002ko Txostena, 1.1.1 atala).

Azken urte honetan aurrera jarraitu du gaiaren inguruko jarduteak. Herrizaingo Sailak bidalitako lehen erantzunean, dokumentu eta azalpen sorta bat emateaz gain, azaldu zigun protokolo bat egitekotan zeukatela ospitaleratutako presoen zaintzarako irizpideak bateratzeko, eta prest zeudela gure proposamenak protokolo horretan txertatzeko.

Dokumentuaren eta haren ezarpenaren zain gaudela, urriaren 9an erakunde honek bere iritzi batzuk helarazi zizkion Herrizaingo Sailari, azken urteotako esperientzia kontuan harturik eta Segurtasun sailburuordearen 56. Jarraibidean ageri diren zenbait irizpideren haritik. Besteak beste, ondokoa gomendatzen zen pazienteen intimitaterako eskubidearen inguruan:

– Erabakiko zen, berehala eta irizpide orokor gisa, Donostiako Ospitalean zaintzan ari diren agenteek ez zutela uniformerik erabiliko.
– Intimitatea babesteko, medikuak kontsulta egiten zuen bitartean, oro har, ertzaina ez zen gaixoaren ondoan egongo, eta zaintza lana gelatik kanpo egingo zuen.
– Segurtasunagatik irizpide orokor horiek betetzen ez baziren, horretarako arrazoien beri emateaz gain prozedura baten arabera egingo zen, eta idatziz jasoko zen.

Ospitaleratutako presoen bisitak arautzeari dagokionez, honako hau proposatu zen:

– Arreta handiz tratatu behar dira gaixotasunaren gorabeherak (behar psikologikoak eta afektiboak, bakartasun handiagoa…), eta beraz, kartzela-araudia ahalik eta gutxien ezarri behar da. Hortik aurrera, eta kasuaren kasuko ezaugarrien arabera, handitu liteke bisita-erregimena.
– Horrelakoetan ez da Espetxe Erregelamenduko 216.1 artikulua ezarriko, bertan arautzen diren bisitak espetxeko erizaindegirakoak baitira, hau da, espetxetik kanpoko jenderik sartu ezin den barne eremuetarakoak. Izan ere, segurtasun arrazoiak direla medio, ulergarria da bisita bakoitzean pertsona bat edo bi bakarrik agertzea, ez ordea hori gehieneko muga izatea, hala eginez gero presoaren egoera kartzelakoa baino okerragoa bailitzateke.
– Erabiltzen diren irizpide batzuek, murrizpen kuantitatiboekin batera -45 minutuko bisita bat egunean- kualitatiboak ere badakartzate, ez baitute onartzen lagunen bisitarik eta interpretatu egiten baitute “hurreko” terminoa. Irizpide horiek ez dute lege oinarririk, eta gainera, ez dituzte batere kontuan hartzen gaixoaren gorabehera bereziak.

– Zaintza lanak arautzean kontuan hartu beharko litzateke boluntarioen fenomenoa, Espetxe Legeak berak (75.2 art.) onartu eta bultzatu egiten baitu presoen birgizarteratzean egiten duen ekarpena. Bisitei buruzko araudiak aintzat hartu beharko lituzke egunero espetxeetan jarduerak antolatzen dituzten elkarteak, hala nola ospitaleratutakoak bisitatzera eta sostengua ematera doazen kolektiboak.
– Segurtasun arrazoiengatik arau orokorra murriztu behar bada (bisiten ukoa, ikus kontrolak...), idatziz jakinaraziko dagokio erregistroan, erabakiaren arrazoiak zehatz-mehatz azalduz.

Gehienetan, gomendio horiek 56. Jarraibidearen arkua jotzen dute, edo harengandik aldentzen dira, eta beraz, iradokizunak aplikatzekotan Jarraibidea aldatu egin beharko litzateke. Herrizaingo Sailaren erantzunaren zain gaude, eta ez dakigu iragarrita duen protokoloan sartuko dituen ere.

• **Elkarteek azaldutako arazo eta kezkatzeko zio nagusiak**

Martxoaren 14an (Vitoria-Gasteizen), apirilaren 1ean (Donostian) eta apirilaren 4an (Bilbon) elkartrukatzerako bilerak egin ziren presoentzako sostengu-erakundeekin eta espetxeetara egitarau osagarri edo alternatiboak eramaten dituztenekin. Guztira, 19 erakundek hartu zuten parte, gehienak Langraizen, Basaurin eta Martutenen esku jarduten dutenak: Arabako HIESaren aurkako Batzordea, Salhaketa (Araba), Aldarriketa, Gizabidea-Pastoral Penitenciaria, Arabako Espetxe-laguntzarako Txanda, Bizkaiko Espetxe-laguntzarako Txanda, T-4, Etorkintza, Salhaketa (Bizkaia), Zubia, Izangai, Bilbo-Etxezabal, Adsis-Bestalde, IRSE-Gipuzkoa, Hegaldi, Emaus, Proyecto Hombre, AGIPAD eta Gipuzkoako Espetxe-laguntzarako Txanda.

Aurreko urteetan bezala, elkarteek era askotako arazoak mahairatu zituzten: espetxeetako ezaugarri fisikoak, kartzelen barneko eta kanpoko osasun-artapena, batzuetan beren lana egiteko izaten dituzten oztopoak, zenbait kolektiboren egoera (emakumeak, atzerritarrak), zerbitzuen arteko koordinazio beharra...

Jarraian, laburbilduta, bilera bakoitzean jorratutako gai edo kezka nagusien berri ematen dugu:

1. **Araba**:
   – Arazoak daude kartzela osteko diru-laguntzaren aurrerakinak jasotzeko orduan.
   – Langraizetik autobus linea gutxi pasatzen dira, eta radio-taxik ez du hara joan nahi.
   – Kexak daude Ertzaintzak Santiagoko Ospitaleko Psikiatria Sailean ospitaleratutako presoekin darabiltzan kontrolerako irizpide eta sistemengatik.
   – Langraitzen ez dago atal irekirik emakumeentzat (egoera okerragoa emakumeen kasuan).
   – Utzikeria eta zikinkeria Langraitzeko erizaindegian.
   – Garbiketa arazoak Langraitzeko II. moduluan (jateko eremuan).
   – Kanpo baliabideak eta harrera pisuak urri dira (zenbait kolektiboren kasuan –emakumeak, gaixo larriak...– gainezka daude edo ez dago baliabiderik).
   – Txagorritxuko Zaintza Bereziko Unitatearen erregimen gogorra da.

– Beharrezkoa da espetxeetako osasun-eskumenak eskuratzea.
– Buru-gaixoen bazterkeria baimenen eta hirugarren graduaren kasuan. Haientzako Berariazko programak eta baliabideak proposatzen dira haientzat.

2. **Bizkaia**:
– Desadostasuna dago, Basauriren kasuan, drogari uzteko prozesuan dabiltzanekin erabilitako irizpideekin (espetxera lotara joan beharra, eskumuturrekoa eraman beharra...); berdin gertatzen da urruneko kontrolarekin (hainbat egunetan behin espetxera agertu beharrak lan egunak galtzea dakar).
– Elkarteek zailtasunak dituzte Tratamendurako Batzordearekin hitz egiteko; desadostasuna erabaki batzuekin; baimenen ukoa...
– Bizkaian ez dago harrera-pisurik emakumeenentzat.
– Zailtasunak daude Bizkaitik Langaritzerako bidaiak egiteko.
– Presoak Langraitzetik Bizkaira eramateko sistema, egun batzuk eman behar baitituzte Basaurin.
– Atzerriko presoen arazoak: ezin dute tramiterik egin INEMen, ez daude erroldaturik Basaurin...

3. **Gipuzkoa**:
– Kartzelatik atera diren presoen egoera Gipuzkoako Gizarteratzeko Planean sartzeko aukerak.
– Harrera-pisu gutxi (emakumeentzat ez dago).
– Kexak daude Martuteneko arauetan egindako aldaketengatik eta arautegia zorrotzegi ezartzen delako, bai presoei eurei dagokienez, baita elkartekideei sartzen uzteko orduan ere.
– Abokatuen Elkargoak espetxe-bitartekaritarako egin zuen proposamenak ez du erantzunik izan.
– Martuteneko ekoizpen-tailerrez arduratzen zen enpresa lekuz aldatu da, eta zereginetarako tailerretan sartzeko aukerak murriztu dira.
– Zalantzak daude presoak erroldatzeko orduan, udalek irizpide desberdinak erabiltzen baitituzte. Horrek eragozpenak dakartza gizarte premietarako laguntzak eskatzerakoan.

Goikoei eta beste puntu batzuei buruzko informazioaren eta kezken berri elkarri emateaz gain, bileretan ekimen eta programa interesgarriak ere aztertu ziren, besteak beste: Aldarriketak buru-gaixoentzat martxan jarri duen programa, eztabaida-lekuak ("Buru-osasuna eta zigorren betearaztea"), harrera-pisuen sarearen egoera, Bizkaian osatutako Baliabideen Gida, Salhaketak lehen graduko euskal presoen egoerari buruz egin duen ikerlana, zigor erreformaren aurka proposatutako manifestua...

Bestetik, denbora luze da lehen bilerak egin zirela (1995), eta kontuan harturik eztabaida-leku gehiago daudela esperientziak trukatzeko, erakunde honek planteatu zuen urteroko bilerak mantendu edo bertan behera utzi behar ziren. Bertara joandako gehienen ustez, beharrezkoa zen bilerak egiten jarraitzea.

Presoentzako laguntza-elkarteekin harremanei eusteko asmoz ere, erakunde honek idatzizko dokumentazioa bidali zien bileretara joan ez ziren elkarteei.

Ikusten denez, planteatutako gai batzuk (Langraitzerako garraiobideak, erizaindegiko egoera, presoak Arabatik Bizkaira eramatean izaten diren arazoak...; ikus urteroko txostenak)

behin baino gehiagotan mahairatzen dira, eta Arartekoak, aztertzeaz gain, berariazko jarduerak burutu ditu haien inguruan. Beste gai batuetan ekimen berriei ekin zaie.

Maiatzaren 26an, adibidez, erakunde honetako kideek psikiatria-artapenerako unitatea bisitatu zuen Santiagoko Ospitalean. Bertan zenbait alderdi aztertu ziren: zaintzarako kamara sistema, familiarren bisitetarako irizpideak, intimitatea medikua eta pazientearen arteko harremanetan, telefonoa erabiltzeko aukerak, erregistroak (bisita-liburua, sarrera-irteerak, gorabeherak), zaintzaileentzako aginduak...

Horretaz gain, informazioa elkartrukatu zuten zentroko langileekin eta haien nagusiekin beste bi zerbitzuei buruz: Osakidetzako profesionalek espetxean bertan ematen duten artapen psikiatrikoa; Ertzaintzak Santiagoko Ospitalera eramaten dituen zaintzapeko atxilotuei larrialdi zerbitzuetan emandako artapena.

Ohar garrantzitsu bat egin behar dugu. Planteatutako gaiek parte hartzen duten elkarteen jarrera islatzen du, baita orduan (2003ko martxo-apirila) zituzten kexak ere. Espetxeetako langileak ez datoz beti bat jarrera horiekin, eta gainera, pasatu den denborak beharbada lagundu du arazoetakoren bat konpontzen. Nolanahi ere, nahiz eta oraindik ez dakigun zein den zentro bakoitzak bere arazoez egin duen balorazio zehatza –eta hori lagungarria litzateke alderaketak egiteko eta ikuspegi orokor bat izateko–, uste dugu aipatutako gaiak bilduz hobeto ezagutu ditzakegula presoekiko harreman zuzena duten pertsonen eta elkarteen kezkak.

Bestalde, urtean –ez bileretan– bildutako datuen bitartez, erakunde honek jakin du elkarte batzuek arazoak izan dituztela beren programak behar bezala burutu ahal izateko, eta hala izan denean esku hartu egin du. Bate ere Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzez ari gara. Instituzioen laguntzari esker, elkarte askok esku-hartzerako programak burutzen dituzte espetxeetan, edo programa alternatiboak esparru irekietan. Laguntzetarako deialdiak berandu egiten badira edo ordainketak atzeratzen badira, elkarteek estu ibili behar dute: programak burutzen dituzte dagokion laguntza jasoko duten ez dakitela, edo eten egin behar izaten dituzte erabakiaren berri izan arte; ordezko diru iturriak bilatzen dituzte edo, edo zorrak hartzen dituzte; langileen ordainketak atzeratzen dituzte... Gainera, askotan programen jarraipena kolokan geratzen da, urtero aurkeztu behar direlako. Horrelako egoerak nabarmenagoak izan dira iazkoan, deialdien inguruko erabakiak asko berandutu baita, eta hor akatsak igartzen dira Eusko Jaurlaritzako sail batzuen funtzionamenduan.

• **Presoak Ertzaintzaren zaintzapean eramatea**

Urte asko dira gure Erkidego barneko presoen eramateak Ertzaintzaren eskumena direla. Hala ere, espetxe bakoitzean irizpide desberdinak erabiltzen dira zeregin horretarako, edo gutxi-asko, lekualdatzeetan erabiltzen diren baliabideak beharretara egokitzen dira.

Dugun informazioaren arabera, ez dirudi arazo handirik dagoenik Basaurin eta Martutenen.

Aurreko beste txosten batzuetan azaldu bezala, erakunde honek ofiziozko jardute bati ekin zion Langraitzeko presondegian egiten diren presoen lekualdaketak direla eta. Oraindik ere konpondu gabeko auzia da.

Arartekoaren esku-hartzeak zerikusia zuen Langraitzetik Bizkaiko epaitegietara deklaratzera egiten diren eramateengatik, garraioetan erabiltzen diren irizpideengatik

presoek zenbait egun eman behar baitituzte Basauriko kartzelan, eta horrek kalteak dakarzkieke: lana galtzen da, familiarrak nora jo ez dakitela egoten dira, etenak izaten dira osasun-tratamenduekin...

Gauza bitxi gertatzen da jakitea arazoaren muinean dagoen irizpidea ez dela beti ezartzen: izan ere, emakume edo lehen graduan dagoen preso bat eramaten dutenean, zuzen joaten dira epaitegiraino, eta egun berean itzuli. Berdin jokatzen da Basauri edo Martuteneko presoekin, beren lurralde historikotik kanpo epaituak izan behar dutenean.

Arartekoak Herrizaingo Sailarengana jo zuen, Langraitzetik Bizkaiko epaitegietarainoko bidaiak zuzen egin zitezen, eta Langraitzerako itzulera ere egun berean egin zedin, Basaurin geldiunerik egin gabe. Sailaren iritziz proposamena ezin zen gauzatu, bidaietan jarduten duen unitateak nabarmen handitu beharko lituzkeelako giza baliabideak eta baliabide materialak, eta ez langile kopuruak ez zerbitzuak dituen beharrak ez zuten horretarako biderik ematen.

Bi urteren buruan arazoa ez da zuzendu, eta Ertzaintzak Langraitzen dituen baliabide urrien eragina epaitegietarako bidaietan ez ezik, maiz beste leku batzuetara egiten diren lekualdatzeetan ere nabaritzen dira, esate baterako ospitaletara eta medikuen kontsultetara egiten direnetan edo familiari egiten dizkioten ezohiko bisitaldietan.

Erakunde honen ustez, egoera honi aterabidea eman behar zaio lehenbailehen.

- **Kartzelaren hautazko zigorrak eta betetzeak**

Zigor-arloko eskumenak egun banatuta dauden era kontuan hartu gabe, Ararteko erakundeak beti beharrezkotzat, presazkotzat eta posibletzat jo du gure Autonomia Erkidegoan zigorrak erregimen irekian edo presondegiak ez diren zentroetan betetzeko modalitateak garatzea eta kartzelaren hautazko zigorrak aplikatzea. Horrekin bat etorririk, gomendio orokor bana egin da: *Euskal administrazioek erkidegoaren onerako lanak zigor moduan betetzeko hitzarmenak izenpetu eta bultzatu beharra* (1999ko txostena) eta *Asteburuko atzipenaldiak eta kartzela zigorra betetzearen hautazko moduak: EAEko administrazioen erantzukizunak* (2000ko txostena).

2003an Zigor Kodean aldaketa sakonak egin ziren arren –ez oso egokiak gure iritziz– uste dugu gomendioak beharrezkoak direla oraindik. Lehen aldaketari dagokionez, ohartu beharra dago haren ondorioz komunitatearentzako lanak bultzatu direla zigorretan, eta aukera hori ordeko zigor nagusi bihurtu dela zenbait delitutan, hutsegite askotan eta isun gehienetan. Hori horrela gertatu ahal izan dadin, ezinbestekoa da euskal administrazio guztiek parte har dezaten eta postuak eskain ditzaten ordezko zigorrak burutu ahal izateko. Hala egin ezean, komunitatearentzako lan-zigorrek ez dute beren prebentzio ahalmena osorik gauzatuko, eta gogoan izan behar da gure inguru kulturaleko beste ordenamendu juridiko batzuetan lortu egin direla horrelako emaitzak.

Zigorraren aldaera hori –itxura batean bada ere– bultzatzen duen era berean, legelariak asteburuko arrestuaren figura ezabatu du, *haren gauzatzeak ez duelako behar bezalako emaitzarik ekarri* (ikus 15/2003 LOren ZA). Geuk ere adierazi genuen, 2000ko gomendioan, harritzekoa izango zela zigor horren ezartzeak arrakasta izan balu, ez espetxe-administrazioak ezta zigorra subsidiarioki betearaz zezaketen udalek ere ez zituztelako gutxieneko neurriak hartu arrestua behar bezalako egoeran bete ahal izan zedin, ezta arrestuaren betetze hutsa bermatzeko ere.

Orduko gomendio hartan azaltzen zenez, gure iritziz, beharrezkoa zen askatasun gabetzeko zigorra espetxeetatik kanpo betetzeko aukera bultzatzea. Izan ere, presoen kopuruak etengabe gora egiten duen honetan ezinbestekoa gertatzen da espetxe-zigorra kartzeletatik kanpo betetzearen alde agertzea. Zigorra betetzeko era ez da barnekoa bezain zorrotza, baina gehienetan emaitza hobeak lortzen dira presoaren birgizarteratzean. Esan beharra dago Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailak hainbat ekimen abiarazi dituela delako zigorraldi alternatibo horiek bultzatu, koordinatu eta ikuskatzeko asmoz. Alde horretatik, aurrerapauso bat da sortu berri den zerbitzua (Birgizarteratze eta zigorraren betearazterako laguntza zerbitzua, BBLZ), baina oraindik ere badago zeregin arlo desberdinetan. Lehen esan bezala, adibidez, buru-gaixotasuna duten presoek artapen berezia behar dute, eta horregatik hain zuzen ere, askoz zailagoa gertatzen da pertsona horiek gaur egun birgizarteratzean diharduten zentroetara edota bestelako zerbitzuetara bideratzea.

- **Drogazaleekin esku hartzeko programak**

2003ko irailaren 25ean jaso zuen erakunde honek presondegietan drogazaleekin esku hartzeko programen 2002ko memoriaren ale bat, Zigor Osasuneko zuzendariorde nagusiak bidalia. Memorian bilduta daude, aurreko urteetakoetan bezala, gai honetan egindako jarduera nagusiak eta esku hartzeko programa bakoitzaren gaineko oinarrizko datuak.

Hurrengo taulan ageri dira, memoriatik bereizita, gure Erkidegoko zentroei burzko datuak, ikuspegi globala lortzea eta, esate baterako, aurreko urteko datuekin erkatzea ahalbidetzen dutenak (haiek aurreko txostenetan daude).

| DROGA-MENPEKOTASUNETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK<br>GURE ERKIDEGOKO HIRU ZENTROEI DAGOZKIEN DATUAK,<br>Zigor Osasuneko Zuzendariordetza Nagusiaren 2002ko Memoriatik hartuak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **BASAURI** | **MARTUTENE** | **NANCLARES** | **GUZTIRA** |
| **INFORMAZIOA / PREBENTZIOA** | | | | |
| Informazioa/Motibazioa/Harrera | 293 | - | 312 | 605 |
| Osasunerako Hezkuntza | 316 | - | 312 | 628 |
| **XIRINGAK TRUKATZEA** | | | | |
| Banatutako xiringa kopurua | 1.121 | 446 | 1.942 | 3.509 |
| **METADONA** | | | | |
| Urteko sendabidea guztira | 259 | 145 | 369 | 773 |
| Abenduaren 31n sendabidean barneratuta zeudenak | | | | |
| Kopurua | 45 | 42 | 151 | 238 |
| Biztanle guztien gaineko ehunekoa | % 19,65 | % 16,41 | % 26,12 | 22,39 |
| Urtean laguntza psikosozialean izandakoak, guztira | 66 | - | - | 66 |
| Abenduaren 31n laguntza psikosozialean zeudenak | 18 | - | - | 18 |
| Ehunekoa, metadonarekin ari diren presoen gainean | % 40 | - | - | % 7,56 |
| **DESTOXIKAPENA** | | | | |
| Arauz egindako destoxikapenak | 148 | - | 124 | 272 |
| **OHITURA KENTZEA** | | | | |
| Anbulatorioan-urtean guztira | | | | |
| Antagonistekin | 14 | - | 35 | 49 |
| Antagonistarik gabe | 175 | 116 | 204 | 495 |
| Urtean ohitura kentzen izandakoak, guztira | 189 | 116 | 239 | 544 |
| Abenduaren 31n ohitura kentzeko bidean barneratuta zeudenak | 32 | 41 | 115 | 188 |
| Biztanle guztien gaineko ehunekoa | % 13,97 | % 16,02 | % 19,90 | % 17,69 |
| **ERKIDEGOKO BALIABIDEAK HARTZEA** | | | | |
| Metadona-programak | 72 | 37 | 58 | 167 |
| Ohitura kentzeko programak | 414 | 8 | 113 | 535 |
| Zentro anbulatorioak/egunekoak | 366 | - | 64 | 430 |
| Gizarteratze-pisuak | 41 | - | 7 | 48 |
| Erkidego terapeutikoak | 7 | 8 | 36 | 51 |
| Beste baliabide batzuk | - | - | 6 | 6 |
| **ERAKUNDE ERANTZUNKIDEAK** | EDEX | AGIPAD | LUR GIZEN | |
| | EJ-REN DROGA-MENPEKOTASUN ZUZENDARITZA<br>OSAKIDETZA | | | |

**• Presondegietako biztanleen gaineko datuak**

Hemen bilduta daude Justizi Administrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2002ko txostenetik hartutako datuak, gure Erkidegoko presondegietako biztanleen banaketari buruzko ikusmolde globala ematen dutelako.

**Taula: Prebentzio eta zigorpeko biztanleak presondegiz presondegi (2002)**

| | Prebentziopeko biztanleak | | | Zigorpeko biztanleak | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emak. | Guztira | Gizonak | Emak. | Guztira | Gizonak | Emak. | Guztira |
| Bilbo-Basauri | 86 | 0 | 86 | 176 | 0 | 176 | 262 | 0 | 262 |
| Langraitz Oka | 33 | 11 | 44 | 507 | 46 | 553 | 540 | 57 | 597 |
| Martutene-Donostia | 68 | 5 | 73 | 167 | 8 | 175 | 235 | 13 | 248 |
| Guztira | 187 | 16 | 203 | 850 | 54 | 904 | 1.037 | 70 | 1.107 |

Oro har harturik, goiko datuek igoera txiki bat adierazten dute aurreko urtekoen aldean (ikus 2002ko Txostena): 1.038 preso (247 Basaurin, 548 Langraizen, 243 Martutenen).

Goranzko joera horrek eutsi egin dio, behintzat Martutenen eta Langraizen: 2004ko otsailean Basaurin 234 preso zeuden, Martutenen 297 –10 emakume– eta Langraizen 649 –10 emakume–. Gainera, oso litekeena da joerak gorantz jarraitzea, eta are nabarmenagoa izatea datozen hilabeteetan. Beharbada ez dira honakoak leku eta une egokienak 1995eko Zigor Kodeak 2003an izandako aldaketak zehatz aztertzeko, baina herritarren eskubideak defendatu behar dituen aldetik, erakunde honetan kezkaturik gaude zigortzerako joera areagotu egin delako, arrazoirik gabe eta neurriz kanpo, gure ustez. Gainera, gogortze horrekin batera askatasun gabetzeko zigorretan nabarmen galdu da birgizarteratzeko gogoa, helburu hori Konstituzioaren oinarrizko eskubideetako bat izan arren.

Kritika bat egitekotan, aipatu behar dira, lehenbizi, erreformarako tresnak, eragina izan baitute zigor-ordenamendu juridikoaren oinarrietan: izan ere, erreformari ekiteko erabili diren arauek ez dute elkarrekiko loturarik, eztabaida juridikorik gabeak dira, eta ez dira mami juridiko-kriminalez batere hornitu. Azken batean, egin diren aldaketa guztiek gogoeta bera dute beren baitan: espetxe zigorrak gogortzea da delituari erantzuteko bide nagusia, ia bakarra.

Lege berriek talka egiten dute, arrazoi askorengatik, zigor-zuzenbide demokratikoaren oinarrizko printzipioekin (gutxieneko erabilpena, zigorraren neurrizkotasuna, zigor latzen eta gizagabeen debekua, berdintasuna, birgizarteratzea...). Honakoan, bakarrik ekarriko ditugu gogora espetxe-zigorren betetzeari buruzko arauak (segurtasunezko denbora tartea, erregimen irekia eta baldintzapeko askatasuna lortzeko murriztapenak, gehieneko espetxe-aldiaren luzapena, etab.), gure ustez haien ezartzeak ezerezean utz bailezake norbanakoari egokitu beharreko sistema zientifikoa, berau Espetxeetarako Lege Orokorrean jasoa. Erreformaren beste alderdi batzuk ere kontuan izan behar dira: berrerortzeak eta tamaina gutxiko delituek askoz zigor gogorragoak jasotzen dituzte; berriro ezartzen dira espetxe-aldi laburrak; inmigrazioari zigorraren bidez aurre egiten zaio soilik...

Joera kezkatzeko modukoa da: Europako Batasunetik eta NBEtik datozen irizpideak erantzun malgu eta askotarikoen aldekoak dira, baina aldi berean, zigor-legeek berriro bultzatzen dute gogortasunean oinarritutako sistema, delinkuentzia prebenitzeko batere desegokia dena; izan ere, horrelako arauekin bazter geratzen dira gizarte-inguruneari eta krimenaren alderdi eragileei heltzen dieten programak, nahiz eta mota horretako neurriak –hainbat herrialdetan ikusi den bezala– eraginkorragoak gertatzen diren prebentzioari begira.

## 1.1.2. ARABAN DIHARDUTEN SASOIKAKO LANGILEEN ARAZOEN JARRAIPENA

1995az geroztik Arartekoak Arabara datozen sasoikako langileen egoera aztertu izan du, batez ere mahatsaren eta patataren bilketan dihardutenen lan baldintzen segimendua eginez: kontratazio sistemak, aterpeak, adingabeen eskolatzea...

2002ko urriaren 11n *Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan* izeneko txostena argitaratu eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion, eta aurtengo azaroaren 27an Giza Eskubide eta Herritarren Eskaeretarako Batzordean eztabaidatu zen.

Iazko ohiko txostenean jasotako laburpen batean (ikus 2002ko Txostena, 1.1.2 atala) kezkagarrienak iruditzen zitzaizkigun datuekin batera, hartarako gomendioak biltzen genituen; azaltzen genituen, halaber, Legebiltzarrean gomendio horien haritik aurkeztu ziren ekimenak, aurrera begira ikuspegi berriak zekartzatenak: sasoikako langileei buruzko legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onartua; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Batzar Nagusiek 2003ko urtarrilaren 20an onartua.

Segimendu horren emaitza, hona hemen erakunde honetatik **2003. urtean** gauzatu diren **ekimenak**:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuari txostena emateko egindako bilera; bertan, gomendioak aztertzeaz gain hainbat ekimenen inguruko ikuspuntuak alderatu ziren.
- Parte hartu zen Arabako Foru Aldundiak Sasoikako Langileei buruz bultzatutako Mahaian.
- Eusko Jaurlaritzako Inmigraziorako zuzendariarekin egindako bilera; Inmigrazioari buruzko Planaren egitasmoa aztertzeaz gain, sasoikakoen egoera egitasmo horretan txertatzea baloratu zen.
- Arartekoak berak, erakundeko beste kide batzuekin batera, bisitaldi bat egin zuen Lezako aterpera eta sasoikakoentzako beste kokaleku eta lokaletara (irailaren 22a).
- 2003ko abenduan ofiziozko espedienteak helarazi ziren Arabako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Hezkuntza sailetara.

Gure txosteneko 17 gomendioekin batera, goiko ekimen horien guztien iparra hasieran aipatu diren bi proposamen instituzionalak izan dira.

Segimendu lanetako informaziorik esanguratsuena bi multzotan laburbil liteke:

1. 2003ko kanpainari buruzkoa.
2. Tarteko eperako planei edo ekintzei lotutakoa.

1) **Aurreko urteko nekazaritza-denboraldiari dagokionez,** datu adierazgarri batzuk emateaz gain, aurreko denboraldien aldean izan dituen desberdintasunak erakusten ditugu, esate baterako:

A) **Kontratazio baldintzen betetzea eta hobetzea** (gure txosteneko 4.etik 8.era bitarteko gomendioak):

– UAGAk **kontratuak jatorrizko lekuetan** egin daitezen bultzatzen eta kudeatzen duen programak, Arabako Foru Aldundiarekin hitzartuak, aurreko urteetan baino emaitza hobeak izan ditu: 865 kontratu eta 261 sasoikako langile 2003an –479 kontratu eta 172 sasoikako langile 2002an-. Lezako instalazioez gain, lehenbiziko aldiz erabili da Aguraingo aterpe komunitarioa. Aurreko txosten askotan erakunde honek kontratazio mota hau bultzatu beharra dagoela azpimarratu du, dauzkan alde mesedegarriengatik. Izan ere, azken urteotan horrelako kontratazioek gora egin dute, eta agerian geratu dira haien onurak eta bideragarritasuna. Baina horrekin batera, baliabide gutxi daudela ere ikusi da: UAGAk berak plazaratutako datuen arabera, aurten 261 sasoikako baino ez dira kontratatu modu horretan, eta inguru horietan aritu diren jornalariak, aldiz, 5.500 izan dira.
– Gai horiei buruzko informazioa urria izaten den arren, etengabe azaleratzen dira **"mafien" tartekaritzak eta azpikontratazioaren baldintzek** eragindako kexak, batzuetan nekazariek berek aurkeztuak. Ez da gauza erraza jakitea horrelako arazoak onera edo okerrera doazen; nolanahi ere, ez dirudi horren ondorio larriak dituen auziari behar bezain zorrotz heldu zaionik.
– **Kontrataziorako informazioa eta tramiteak** erraztearren, Aguraingo eta Biasteriko bulegoek lanean jarraitu dute, eta aldaketak burutu dira giza baliabideetan eta kudeaketan: langile-plantilarekin batera Arabako Foru Aldundiko eta Gizarte Segurantzaren Erakunde Nazionaleko adituek lanean dihardute altak eta bajak tramitatzeko, eta argibideetarako telefono zerbitzua ere (*900 linea*) erabilgarri dago.
– Ez dugu daturik **Lan Ikuskaritzaren jardueraz**, ezta Osalanek mahats-bilketako lan segurtasunaren inguruan izandako esku-hartzeaz ere, baina aurreikusitako esku-hartzeak direnez, haien emaitzak aztertu egin litezke.
– Oraindik ere ez dago Araban **nekazaritzarako lan hitzarmenik**. UAGAk hala zehaztuak, ordea, jatorrizko lekuko kontratazioan parte hartzen duten langileentzat antzerakoak dira kontratazio baldintzak.

B) **Aterpeetako ezaugarrien hobekuntza** (txosteneko 9.etik 12.era bitarteko gomendioak):

– Erakunde honek hainbestetan eskatu duen bezala, sasoikoentzako **aterpeetako ezaugarriak arautzeko** konpromisoa dago. Hala adierazi zuen Nekazaritza sailburuak 2003ko martxoaren 20an berarekin izandako bileran. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari dagokio horretarako dekretuaren edo aginduaren zirriborroa prestatzea.
Antza denez, gaia arautzeak aukera emango luke lokalak egokitzeko lanek instituzioen laguntza izan dezaten. Hala ere, araudirik ezean, azken denboraldiko aterpeak lehengo moduan erabili dira, eta alde horretatik denetarik egon da: behar bezala atondutako aterpeak eta lotsarazteko moduko kokalekuak eta lokalak.
– **Ekipamendu komunitarioei dagokienez**, oraingo biak erabili dira: Aguraingoaren kasuan -31 toki- funtsezko aldaketa egin da orain arteko irizpideetan (lehen, bi eguneko aterpe aldia ematen zen, kontratua gauzatu bitartean; orain, ordea, aterpe egonkor bilakatu da, jatorrizko kontratazioari

lotua); Lezakoak 48 toki ditu, eta aurrekoa bezala, jatorrizko lekuan kontratatutakoentzat prestaturik dago.

Irailaren 22an Arartekoak bisitaldi bat egin zuen Lezakora, hango ezaugarriak, baldintzak, funtzionamendu irizpideak, etab. bertatik ezagutzeko.

Sasoikakoentzat berariaz paratutako aterpea da, duela gutxi eraikia eta 2002an inauguratua, eta instituzio desberdinen elkarlanetik sortua (Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala, Arabako Foru Aldundia eta Lezako Udala); 48 ohatzek osatutako 6 logelez gain, aterpeak 3 higiene-gune (2 gizonezkoentzat eta beste bat emakumezkoentzat), biltegia, sukaldea eta jangela dauzka.

Bestelako baliabideak ere ditu erabilgarri: hainbat hizkuntzatan azaldutako funtzionamendu arauak, komun egokituak, berokuntza, itzalgailuak, telefono publikoa, armairuak...

Orain arte, denboraldietan UAGA arduratu da zuzeneko kudeaketaz, baina aurrera begira Udala, erabilera-baldintzak argitu eta zehazteaz gain, urtean egiten diren bestelako ekimenetan ere aprobetxatzea aztertzen ari da.

Gutiz kontrakoa da Albainako kanpamentua, egun berean bisitatua eta oraindik ere lehengo txostenetan adierazitako hutsak dituena; beste horrenbeste esan daiteke pertsona batek magrebtar talde handi bat sartzeko alokatu zuen lokal batez.

C) **Eskolatzearen eta artapenaren hobekuntza sasoikakoen familietako adingabeentzat** (txosteneko 13.etik 15.era bitarteko gomendioak):

– Abenduaren 11n bidalitako ofiziozko espediente batean informazioa eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, azken urtean **kolektiboaren eskolatze baldintzetan egindako hobekuntzari buruz**.

2004ko urtarrilaren 19an Hezkuntza Sailetik jasotako erantzunean, azken denboraldiari buruzko datuekin batera zenbait ondorio adierazten ziren, honako hauek, laburbilduta:

- 104 ikasle eskolatu ziren: 79 Arabako Errioxan (Ramiro de Maeztu eta Víctor Tapia LHIetan eta Eltziego, Bastida, Lantziegokoan; Samaniegoko BHIan); 25 Mendi aldean (Yoar LHIan eta Maestukoan; Kanpezuko BHIan); Lautadan ez zen ikaslerik eskolatu.
- 11 irakasle bidali ziren zentroetan laguntzeko, hau da, nahiz eta eskolatuen kopuruak behera egin (141 aurreko urtean), eutsi egin zaio giza baliabideei dagokionez.
- Aurkeztutako memorietan azaltzen denaren arabera, sendotu da zentroen parte-hartzea, eta oro har, irakasleen lanak ere hobera egin du.
- Baliabideak planifikatzean izandako zailtasunak; aurreko ikasturteetan erabilitako protokoloa ezarri da.

– Bestalde, **gizarte eta hezkuntza arloko programek** aurrera jarraitu dute, Arabako Foru Aldundiko Ongizate Sailak bultzatuta eta zenbait elkartek gauzatuta; programa horiek oso lagungarriak izan dira benetako eskolatzea lortzeko eta lekuan lekuko beharrak hobeto ezagutzeko.

D) **Gizartearen sentsibilizazioa eta gizarteratzea** (txosteneko 16. eta 17. gomendioak):

- Sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzearren, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak zenbait hizkuntzatan idatzitako foiletoak eta kartelak argitaratu zituen, nekazaritza denboraldietan eskaintzen diren zerbitzuen berri emanez. Kontratatzaileei zein kontratatuei zuzendutako foileto horietan irizpide eta gomendio sorta bat azaltzen zen, sasoikakoen kontratazioa eta bizi baldintzak hobetzeko asmoz.

  Horretaz gain, sasoikako langileak hartzen dituzten eskualdeetako udal eta ikastetxe askotan sentsibilizaziorako ekimen ugari burutu ziren: bideo-eztabaidak, jolasak, kultur arteko dantzaldiak, kultur arteko ikasketa-tailerrak, ipuin kontalariak...

  Caritas-ek ere sentsibilizaziorako tresnak jorratu ditu, triptikoak, kartelak, eta abar argitaratuz eta banatuz. Izan ere, azken urtean horixe izan da Caritasen lan eremu nagusia, eta horretarako, partehartzea eta kudeaketa murriztu du lehen bere ardura zuzenekoak ziren beste programa batzuetan, adibidez Aguraingo aterpean eta informazio bulegoetan.

E) **Instituzioen parte-hartzea** (txosteneko 1.tik 3.era bitarteko gomendioak):

- Arabako Foru Aldundiak bultzaturik, **Sasoikakoei buruzko Mahaiak** instituzioen arteko lana koordinatzen jarraitu du; gaian interesa duten udal askok eta Eusko Jaurlaritzako sail batzuek mahaian parte hartu dute.
- Eusko Legebiltzarrak onartutako legez besteko proposamenari eutsiz, **instituzioen arteko lankidetzarako Bilgunea** berritu egin da, lehengoa baino zabalagoa den eztabaida-leku bat sortzeko: “Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioen arteko sasoikakoen Mahaia”, 2003ko maiatzean eratua.

2) **Epe ertainerako egitasmoak eta ekimenak**

Lehen aipatu bezala, 2002ko abenduaren 12an Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onartu zuen sasoikako langileei buruz, eta 2003ko urtarrilaren 20an Arabako Batzar Nagusietan ere Mozio bat onartu zen gai berberaren inguruan; bi testuetan, epe ertainerako tresnak eta ekintzak presta zitzatela eskatzen zitzaien administrazio eta sailei (testuak ikusgai daude iazko txostenean: 2002ko Txostena, 1.1.2 atala). Funtsean, ondoko hau eskatzen zen:

1. “Eusko Jaurlaritzari: instituzio eskudunekin eta interesa duten elkarteekin lankidetzan, SEI HILABETEKO epean sasoikakoei buruzko **Osoko Plan** bat Legebiltzarrera eramatea, bertan eztabaidatu zedin eta alderdi politikoek egoki zeritzoten ebazpen proposamenak aurkez zitzaten; prozesu horretan ondokoak hartuko ziren oinarritzat: batetik Arartekoaren gomendioak eta txostena (“Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan”), eta bestetik, eta Arabako Foru Aldundiaren Sasoikakoei buruzko Mahaiaren esperientzia.”
2. “Eusko Jaurlaritzari: **Instituzioen arteko Mahai** bat antolatzea, sasoikakoen gaia Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan jorratzeko eta gorago aipatu den Plana Euskadi osora moldatzeko.”
3. “Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari: Sasoikako Langileen Artapenerako Osoko Plana Eusko Legebiltzarrean onarturik, asmo berari helduko zion **Dekretu** bat

ematea; Dekretuak **nahitaezkotzat arautuko zituen sasoikakoentzako instalazioak**, bide batez haietan bete beharreko baldintza eta ezaugarri oinarrizkoenak ere zehaztuz."

4. "Arabako Foru Aldundiari: **diru-laguntzetarako deialdia** zabalduko zuen **Foru Dekretu** bat osatzea, goragoko Osoko Planean eta araudietan oinarritua eta sasoikakoentzako instalazioen egokitzapena bultzatzera zuzendua."

Goiko neurriekin batera, Legebiltzarraren proposamenean eta Batzar Nagusien Mozioan (2. eta 3. puntuak, hurrenez hurren) proposamen orokor bat egiten da: "behar diren neurriak eta ekimenak har daitezela, Arartekoak bere txostenean -*Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan*- planteatzen dituen gomendioak bete ahal izateko"; aholku orokor horren ildotik, irizpide zehatzak zuzentzen zaizkio ondoko bakoitzari: Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila, Lan Ikuskaritza, Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Saila eta Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza.

Aurreko pasarteetan azalduta geratu da nola gauzatu diren proposamen horietako batzuk, adibidez EAEko Instituzioen arteko Mahaia. Gure ofiziozko espedienteari erantzunez, 2004ko urtarrilaren 14an Nekazaritza sailburuak zenbait datu azaldu zituen Osoko Planaren eta aterpeetarako araudi eta laguntzeen gainean:

– "Sasoikako langileen artapenerako Osoko Plana" 2003ko abenduaren 30ean helarazi zen Eusko Legebiltzarrera.
– Planak jorratzen dituen lan eremuetako bat aterpeei buruzkoa da; ildo horretatik aurreikusten diren neurrietako baten arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak agindu bat emango luke aterpeetan bete beharreko gutxieneko bizigarritasun baldintzak zehazteko.
– Sailburuak adierazten zuenez, Legebiltzarrean agerraldi bat egiteko asmoa zuen, bertan Planaren xehetasunak azaltzeko eta 2004an burutuko diren ekimenen berri emateko. Agerraldi hori, azkenean, 2004ko otsailaren 26an egin zen.

### 1.1.3. HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO EGOITZEI BURUZKO AZTERLANAREN JARRAIPENA

1994. urtean Ararteko erakundeak hirugarren adinekoentzako EAEko egoitzen gaineko txostena egin zuenetik, txosten horretako gomendioen jarraipena egin da; horretarako, urtero, erakunde honetako langileek bisitak egin dituzte adinekoen hainbat egoitzetara.

Egoitzetako Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua indarrean jarri zenetik, gainera, egoitzetako zerbitzu horiek onetsitako arauaren xedapenei egokitzen ote zaizkien begiratzen da.

2003. urtean ez da helburu horretako bisitarik egin egoitza-zentroetara; izan ere, EAEn adinekoentzako laguntza sistemari buruz egiten ari den azterlanak, atal nagusietako batean, gure lurraldeko egoitza mota guztiak aztertzen ditu –egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta babestutako apartamentuak–; bertan aztertzen dira egoitzen bilakaera eta gaur egun dituzten material, eginkizun eta langileen ezaugarriak.

Ezohizko txosten hau egiteko, galdera-sortak bidali dira 332 egoitza, etxebizitza komunitario eta babestutako apartamentutara, bete ditzaten eta, ondoren, emaitzak aztertzeko.

Gainera, era horretako zentroetara bisitak egiteko asmoa dago, eta bertatik bertara ikuskatu ahal izango da ezaugarri horiek dituzten 80 zentro inguru.

Horrenbestez, 2004. urtean adinekoentzako laguntza-sistemaren gaineko hurrengo txostena amaitu arte itxarongo dugu, EAEn egoitza-zerbitzuen egoera zein den zehatz jakiteko.

## 1.1.4. ADINEKOENTZAT EGOITZEZ KANPO DAGOEN LAGUNTZARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

*Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezi*an etxez etxeko eta eguneko zentroetako laguntza-zerbitzua izan zen aztergai nagusia. Txosten horretan aztertu ziren zerbitzu eta zentroen jarraipenean, 2003. urtean ez da eguneko zentroetara bisitarik egin, ezohizko txosten bat egiten ari baitzen. Txosten hori adinekoentzako EAEko laguntza-sistema du aztergai eta bertan laguntza-formulen ikerketa zehatzagoa agertzen da, errealitatearen ikuspegi osatuagoa eta egiaztatuagoa eskainiko duena.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) adinekoei emandako laguntzaren elementu garrantzitsu gisa aztertzeari dagokionez, 2002an Autonomia Erkidego honetan ELZ nola ematen zen jakiteko egin zen azterlanaren emaitzaren berri eman genuen, bi alderdi zehatz jorratu genituela: laguntza asteburuetan eta jai-egunetan, eta laguntza etxean laguntzaile jardun ohi duen pertsona ez dagoenean (oporrak, gaixotasuna, etab. direla eta) (ikus 2002ko Txostenaren 1.1.4. atala).

Horren arabera eta atera ziren ondorioak ikusirik, proposamen batzuk egin ziren etxez etxeko laguntza-zerbitzua hobetzeko, aipatutako bi alderdiei zegokienez.

Zenbait udalek jada betetzen zituzten adinekoei laguntza emateko proposamen horiek, aztertu ziren aldietan, hala nola Vitoria-Gasteizko Udalak eta probintziako udalerriek Araban (izan ere, lurralde horretan ELZ Foru Aldundiaren bidez ematen da), Arrigorriagako, Igorreko eta Izurtzako udalek Bizkaian eta Donostiakoak Gipuzkoan.

Azterketarako hautatu ziren gainerako udalerrietan alderdiren bat edo beste zuzendu beharra zegoela ondorioztatu genuen. Horri dagokionez, udalei iradokizun batzuk egin genizkien beren herrietako ELZ hobetzeko, idazki banaren bidez, eta gaiari buruzko iritzia eman zezaten eskatu genien.

Udalerri batzuek erantzun egin digute eta idazki horietan, gure iradokizunek harrera ona izan dutela antzeman daiteke, aurrekontua dela eta udal batzuek iradokizun guztiak burutzeko zailtasunak dituztela agertzen badute ere. Gainera, erantzun horietan udal askok ELZri buruzko iruzkinak egin dizkigute, ekarpen gisa. Iruzkin horiek oso interesgarriak dira, eguneroko bizipenek eta arazoekiko hurbiltasunak emadako ezagutzaz eta esperientziaz baliatuta egin baitira. Bizkaiko zein Gipuzkoako udal batzuek bidali dituzte aipatutako iruzkinak, Araban ez baitago arazo hori, aurretik azaldu dugun bezala. Interesgarria iruditu zaigu ekarpen horiek biltzea, udalek gaiari buruz duten iritzia islatzen baitute. Honela laburbildu ditugu:

- Gehienek baliabide ekonomikoen muga eta, arlo horri dagokionez, udalek egiten duten ahalegina aipatzen dituzte. Horrek oztopo larria dakar zerbitzua zabaltzeko, dagoen eskariak horrela eskatzen duen arren. Udalen funtsak foru ekarpen batzuekin osatzen badira ere, erabilgarri dauden finantza-baliabideak ez dira nahiko.
- EZLren eskaera aipatzen da, gero eta handiagoa baita. Hori biztanleriaren pixkanakako zahartzearen ondorioz sortzen da, besteak beste. Horri dagokionez, udalak kezkatuta daude, goranzko eskaerari aurre egiteko oztopo handiak izango baitituzte, finantzabideak bermatu ezean.

- Esparru horretan, Bizkaiko udalak bereziki kezkatuta daudela esan behar da, 2003ko uztailaren 10ean emandako ekitatezko arbitrajeko laudoak eragin ekonomiko handia izango baitu horietan, lurralde horretako etxez etxeko laguntzari buruzko hitzarmen kolektiboaren negoziazioari dagokionez.
- Sarri askotan, eta batez ere Bizkaian, aipatzen den beste gai bat mendeko pertsonei emandako laguntza da. Izan ere, zerbitzu horren bidez laguntza jasotzen duten pertsona asko aipatutako egoeran daudela adierazten da. Udalerri batzuek oso ehuneko altuak aipatzen dituzte, batzuetan % 50etik gorakoak. Horri dagokionez, gizarte-zerbitzuetako eginkizunak ezartzeko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren 3. artikuluari heltzen diote. Hona hemen artikulu horretan adierazten dena: *"60 urtetik gorako pertsonen kasuan, laguntza behar duten pertsonenganako atentzioa eta zainketa Foru Aldundiei dagozkie. Halaber, ezgaitasunen bat duten edo laguntza behar duten 0 eta 59 urte bitarteko pertsonenganako atentzioa eta zainketa ere Foru Aldundiei dagozkie".*

Bizkaiko udal askok ELZren ondoreetarako Foru Aldundiak egoera horretan dauden pertsona guztien mendekotasuna kontuan hartzeko eskatzen dute, eta ez bakarrik adinekoentzako egoitza batean sartzeko itxaron-zerrendan dauden pertsonena, gaur egun gertatzen den bezala. Izan ere, badaude pertsona asko, mendekoak izanda ere zerrenda horretan agertzen ez direnak, ez baitute egoitza batean egon nahi eta ondorioz, ez baitute horrelakorik eskatu. Horregatik, Foru Aldundiak ez du euren mendekotasun-maila baloratu. Hala ere, hori eginez gero, ziur aski pertsona horiek menpekotzat kalifikatuko lituzke. Era berean, lurralde horretako hainbat udalerrik uste dute Foru Aldundiak aipatutako zerrendako pertsona bakoitzari esleitutako laguntza orduak gutxi direla (25 ordu hilean, hain zuzen ere). Beraz, udal askok Aldundiak aipatutako arazoekiko konpromiso sendoagoa har dezan eskatzen dute.

Gipuzkoan, berriz, Foru Aldundiak mendeko pertsona guztiak hartzen ditu kontuan ondore horietarako, balorazioa guztiei egin baitie. Hala eta guztiz ere, udal batzuek azaldu dute komenigarria izango litzatekeela udalerri bakoitzari pertsona horiei laguntzeko urtean esleitzen zaion ordu kopurua gehitzea.

Informazioa osatzeko asmoz, Arabaren kasua ere aipatuko dugu, nahiz eta lurralde horretan ez omen den gertatzen arazo hori. Vitoria-Gasteizen, Udalak udalerri horretan mendekoak izan daitezkeen pertsona guztien balorazioa egiten du eta egoera hori baieztatzen bada, beraiei laguntzeko ardura Foru Aldundiari ematen zaio. Erakunde horrek ELZ ematen die hiriburuko pertsona horiei, baita lurraldeko gainerako udalerrietako pertsona guztiei ere (mendekoak izan nahiz ez).

Lehen aipatutako aldagaiak –gorantz doan eskaera handia (askotan mendeko pertsonena eurena) eta zerbitzuaren finantzaketa arazoak– etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskatzen duten pertsonen itxaron-zerrenda egoteko arrazoi nagusiak dira. Batzuetan zerrenda hori oso luzea da eta hainbat hilabete igarotzen dira eskatzaileek laguntza jaso baino lehen. Kasu horietan, udal batzuek laguntza jasotzen duten pertsonen kopurua gehitzea aukeratu dute, baina horren ondorioz, denbora laburragoa eskaintzen zaio pertsona bakoitzari. Udal batek –Getxokoak, alegia– baino ez digu adierazi bere udalerrian itxaron-zerrendarik ez dagoela zerbitzu hori eskuratzeko.

Egoera hori eta azkenaldian sortu diren arazoak ikusita, hainbat udal zerbitzu hori berrikustearen alde agertu dira, aztertu beharreko alderdiak hurrengoak direla:

zerbitzuaren filosofia, helburuak, baliabideak, finantzaketa, erakundeen konpromisoa, etab. Zerbitzua eraberritzeko, erakunde guztiek batera gogoeta egitea proposatzen da. Batzuek diotenaren arabera, zenbait kasutan behintzat, ELZ intentsitate handiagoko zerbitzuen lekua (eguneko zentroak, egoitzak, egoitzetako egonaldi laburrak, etab.) hartzen ari delako sortu da berrikusi nahi hori. Izan ere, uste dute ELZko gaur egungo erabiltzaile askok estaldura handiagoko baliabidea behar dutela.

Udalen batek, hala nola, Arrasatekoak, ELZ ematea arautzen duen Araudia aldatzen ari dela jakinarazi digu, udalerriaren gaur egungo beharretara moldatzeko asmoz. Mendeko pertsonei ematen zaien laguntza eta pertsona autonomoei ematen zaiena bereizi nahi dituzte, bai ematen den zerbitzuaren helburuei dagokienez, bai horren intentsitateari dagokionez.

Harremanetako bizitzarako laguntzaren arloan (lagunak, ibilaldiak, kanpoko pertsonekiko harremana, etab.), udal batzuek ELZ beste programa batzuez osatzen dute. Horien bidez, bakarrik dauden pertsonei –bereziki adinekoei– laguntasuna eskaintzen zaie. Adibidez, Zumaian adinekoek Nagusilan elkartearen laguntza daukate (ziur aski, laguntza hori beste udalerri batzuetan ere eskainiko da, elkarte horren jarduketa-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa baita). Getxoko Udalak pertsona horientzako laguntza-programa garatu du, Caritasko boluntarioekin batera. Era berean, Portugaletek ere badauka mota horretako zerbitzua. Ziur aski, udalerri gehiagotako gizarte-zerbitzuek ere mota horretako laguntza positiboak izango dituzte, baina aipatutakoek baino ez digute beren beregi jakinarazi.

Halaber, udal batzuek etxeko laguntzaileak lortzeko oztopo handiak dituztela adierazi digute. Arazo hori konpontzeko, Zumaiako Udalak 300 orduko prestakuntza-ikastaroa antolatu du, bere eskualdeko gainerako udalekin batera, lan mota hori egin nahi duten pertsonei zuzenduta dagoena.

Bestalde, zenbait udalek ELZren osagarrizko zerbitzuak ematen dituzte, mendeko pertsonei zein etxeko laguntzaileei euskarria ematen dietenak. Getxon adinekoei laguntza teknikoak (garabiak, ohe artikulatuak, taka-takak, etab.) ematen zaizkie, Foru Aldundiak 65 urtetik gorakoei ematen ez dizkienak. Halaber, zelariaren irudia dago, indar fisiko handiagoa eskatzen duten zereginetarako. Horrez gain, beharrizan berezia egotekotan (hala nola, ebakuntza osteko aldia, larrialdi egoerak, etab.) diru-laguntzak ematen ditu egoitzetan egonaldiak egiteko.

Beste udal batzuek bestelako neurriak dituzte adinekoei asteburuan emandako laguntza indartzeko, esate baterako, egun horietan eguneko zentroa irekitzea. Santurtzin laguntza-zentroa abiarazi da, ostiral, larunbat eta igandeetako gauak bertan emateko.

## 1.1.5. BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA NERABEEN ARTAPENAREN GAINEKO JARRAIPENA

Ararteko erakundeak babesik gabe dauden haur eta nerabeen artapenaren gaineko txosten berezia 1997ko irailean atera zuen jendaurrera. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (50 lurralde historiko bakoitzeko), eta gure Erkidegoan 1995ean zeuden 63 zentroak ikustera joan ginen. Eta txostena aztertutako kontuetako askoren gaineko 42 gomendio proposatuz burutu zen:

- marko juridikoaren eta adingabeen babesari buruzko eskumenen banaketaren gainean;
- zerbitzuen sarean lan egiten duten profesional desberdinen gainean;
- norbanakoen beharrei erantzuteko programa desberdinen gainean;
- antzeman, erabaki, parte hartu, berrikusteko eta abarreko prozeduren gainean;
- egoitzetako zerbitzuen antolamendu eta funtzionamenduaren gainean;
- zerbitzu horien kontrolaren eta ebaluazioaren gainean…

Bai txostenean bai ondorengo jardueretan, nabarmen hobe litezkeen alderdiak edo lehenesten diren beharrak azpimarratzean, erakunde hau ondoko hauetan bereziki tematu da:

- araudi erkide bat behar dela, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko, gure Erkidegoan;
- ahalik eta erantzunik desberdin gehien behar dela (familietako harrera, larrialdietako zentroak, eguneko zentroak...);
- erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi direla lurralde historikoen artean;
- babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar direla;
- oinarriko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinaketa;
- irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo gizarte autonomiako programak;
- haurren eta nerabeen eta beren familien partaidetzarako mekanismoak;
- zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldioroko kontrola.

Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldioroko bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera etxe edo zentroetara… Eusko Legebiltzarrerako ohiko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien laburpena jaso da.

Orain bi urte, txostena egin zenetik igarotako denbora zela-eta, eta haurren beharretan eta haurrak babesteko politiketan izandako aldaketak kontuan izanik, ahalegin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta izandako bilakaeraren eta lortutako aurrerapenen balorazioa egiteko. Horretarako, bisitez gain (bereziki bakarrik dauden atzerritar adingabeentzako eta jokabide arazo larriak dituztenentzako zentroetara), administrazio eskudun bakoitzarengana jo genuen, informazio xehatua eskatzeko, ondoko gaien inguruan:

1. Urte askotako indarreko planak eta abian dauden programak, familia, bitartekari zerbitzu, familia banantze eta babes sistematik irtetearen gainean.
2. Ekipo teknikoetan, artapen zuzeneko profesionalengan eta ekipoen arteko koordinaketan izandako aldaketa esanguratsuak.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan sartutako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, erabaki guneak..).
4. Arrisku eta babesik gabeko egoerak antzemateko sartutako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen partaidetza eta kexetarako mekanismoak eta bizikidetasun arauak ezartzea.
6. 2000 eta 2001 urteetan artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak.
7. Familia banantzeetako babes neurrien gaineko datuak (egoitzetan hartzeak, familietan hartzeak, adopzioak...) 2000 eta 2001 urteetan.
8. Estatuko eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza zerbitzuen sarearen gaineko datuak, zentro bakoitzaren tamaina, titularitate edo betekizunaren arabera.
10. Zerbitzuen eta programen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskaritza eta kontrolean sartutako hobekuntzak.
11. Berariazko informazio eta datuak bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboaren gainean.

Zenbait ataletan, eskatutako informazioa hasierako txosteneko datuekin alderatzeko moduko kopuruzko datuetan edo adierazleetan zehazten zen, horrela bilakaera ikus baitzitekeen.

Jasotako informazio guztia, laburbilduta, 2001 urteko txostenean islatu zen, lurraldez lurralde. Gainera, azkeneko atal batean, gogoetakoan, ondorio, joera eta alderdi aipagarri nagusiak jaso ziren (ikus 2001eko txostena, 57-86 orr.)

Jarraipenerako formula hori bereziki interesgarria iruditzen zaigu, aldian behin erabiltzeko, epe luzeetarako, datu orokorrak ematen dituelako eta abiapuntuari begira izandako joerak igartzen lagatzen duelako. Baina muga garrantzitsuak ere baditu. Bat, errealitatearen alderdi zehatzagoekin alderatzeko zailtasuna. Beste bat, datuak bildu eta aztertzeko dakarren lana. Onena litzateke administrazio eskudun bakoitzak teknika hori erabiltzea burututako jardueren gaineko memoria prestatu eta argitaratzeko, denbora jakin batean, kasu honetan babesaren gaiaz. Batzuetan egiten da, baina oraindik ez da guztietara zabaldu den ohitura.

Txostenean jaso eta xehetasunez aztertutako datu orokorrak alboratuta, azkeneko urte hauetan, erakunde honen artapena eta jarraipena, berriro ere, bakarrik dauden adingabe atzerritarrengana bideratu dira. Kapitulu honen gehiena hori aztertzen emango dugu.

## 1. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren berariazko egoera

### A) Testuingurua

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak, babesik gabeko adingabeen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar desberdineko taldea dira. Azkeneko urteetan, egoera

aldatuz joan da urtetik urtera, eta lurraldeen artean alde handiak daude. Azken aldian, Bizkaian ugariak dira halako adingabeak, Gipuzkoan gutxiago eta, gero eta gehiago diren arren, Araban gutxi daude. Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenik egitea eta, horien arabera, beharrei aurrea hartu edo behar diren baliabideak programatzea. Izan ere, adingabe hauen fluxuak (presentzia handiago edo txikiagoko uneak, lurralde batetik bestera joateak...) oso faktore aldakorren araberakoak dira: muga igarotzeko izatezko ahalbideak, atzerritarren gaietako araudia, harrera zerbitzuen egoera Erkidego bakoitzean, ez oso denbora luzean dokumentazioa lortzeko erraztasuna edo zailtasuna... Sarritan, halako faktoreek azaltzen dute zergatik, une jakin batean, lurralde jakin batean, harrera beharrak gehitu ala gutxitzen diren.

Gure Erkidegoan, erakunde arduradunek, ia kasu guztietan, beraientzat beren beregi prestatutako zerbitzuetan hartzea erabaki dute.

Iazko txostenean zehatz azaldu genuen nolakoa zen kolektiboaren egoera lurralde historiko bakoitzean (ikus 2002ko txostena, 1.1.5 atala, 75-88 orr.).

Era desberdineko datuak azterturik (kolektiboaren bilakaera, gure Erkidegoko bost harrera-zentroetara egindako agerraldiak, han dauden adingabe batzuekin eta heien hezitzaileekin izandako elkarrizketak, zentroen urteroko memorien azterketa...) erakunde honek antzemandako arazo nagusiak azaldu zituen. Ondoren adierazten diren arazoetako batzuk nabarmenagoak dira Bizkaian, bertan daudelako horrelako adingabe gehienak:

1. Aldundi batzuek adingabeen dokumentazioa eskuratzeko darabiltzaten irizpideak, adingabea hartu edota haren tutoretzaz arduratu eta 9 hilabete pasatu arte ez baitituzte tramiteak abian jartzen.
2. Zailtasunak daude adingabe horiei behar duten hezkuntza zerbitzua emateko, baita hezkuntza sistematik parte-hartze handiagoa lortzeko ere.
3. Arazoak daude, babes eta erreforma sistemen artean, informazio trukea, komunikazioa, lanaren jarraipena eta irizpide komunak ziurtatzeko.
4. Urri dira adingabeen emantzipazioa lortzeko baliabideak, bereziki bizi-tokiak eskuratzekoak.
5. Berandu egiten dira hezur-probak, dokumenturik gabeko adingabeen adina egiaztatzeko beharrezkoak, eta horrek eragozpenak dakartza.

Aurrekoez gain, bestelako arazoak ere geratu ziren agerian: osasun artapena, gizartearekiko harremanak, zenbait polizi ekintza –baita poliziak batzuetan parte ez hartu izana ere-, instalazioen mantenimendua, hezitzaileen egoera...

### B) **Ofiziozko jarduketak**

Gorago azaldutako lehen bi puntuei dagokienez, 2003an ofiziozko jardunei ekin zitzaien ondokoen aurrean: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Saila eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Ofiziozko jardunak bukatu ez badira ere, haien haritik bilerak egin dira, 2003an, goiko sailetako arduradunekin, baita informazio asko elkartrukatu ere lehen azaldutako bi gaien inguruan, alegia, dokumentazioa tramitatzeko irizpideak eta

hezkuntza sistemak adingabeen beharrei eman dien erantzuna. Ofiziozko jardueren ondorioz bestelako lorpenak ere izan dira, adibidez orain arteko irizpideak aldatzea, edo hasieran aurreikusita ez zeuden zenbait baliabide eskuratzea.
Bestalde, batzuetan harrera zentroetako adingaberen baimenak lortzean izan diren arazoak direla eta, Arartekoak esku hartu izan du Gobernuaren ordezkaritzen aurrean, haiexek baitute tramite horietarako ardura.

### C) Arautze marko orokorraren aldaketak

Esan bezala, gure Erkidegoko harrera-zentroetako adingabe atzerritarren kopurua hainbat gorabeherarengatik aldatzen da, eta horietako batzuk gure eskumen-eremutik kanpo daude.
Urtean gutxienez bi kontuk izan dute –eta beharbada, badute– eragina egoera horretan. Haietako bat Estatuko Fiskal Nagusiaren 3/2003 Agindua da, 2003ko urriaren 23an emana; aginduan atzerriko adingabeak itzularaztearen bidezkotasuna aztertzen da, Espainian legez kontra sartu nahian badabiltza eta ezargarria ez bazaie babes gabetasunaren egoera juridikoa. Bestea gai berberari buruzko Hitzarmena da, duela gutxi Espainia eta Marokoko erresumek adostua.
Arartekoak agerian utzi zuen Fiskalaren Aginduak eragiten dion kezka, batez ere ondoko arrazoiengatik:

- Adingabeek, eta bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, oso kolektibo ahula osatzen dute, babesaren beharra duena.
- Adingabeen interesa beste ezeri gailentzen zaio.
- Edozein neurri hartu aurretik, kontuan hartu behar dira adingabe atzerritarren gorabehera pertsonalak, norberaren egoera aztertuz.
- Agindua bere horretan ezarriz gero, 16 urtetik gorako adingabeen babes eza ekarriko luke, testu horrek emantzipatutzat jotzen dituelako eta ezbaian jartzen duelako haien babes gabezia.
- Atzerritik bakarrik etortzen diren adingabeak gero eta gehiago dira; hortaz, horri heltzeko politikak elkartasunezkoa eta harrera egilea izan beharko luke, gazte horiek gizarteratzea errazten duten neurriak hartuz gizarte eta hezkuntza alorretan.

Halaber, Herriaren Defendatzaileak eta beste hainbat babes-instituziok alorrean egindako lanaren alde agertu zen, Agindua berraztertuko delako esperantzan.

### D) Harrera zentroetarako bisitaldiak

Aurreko urteetako lan ildo beretik, Arartekoa berriro agertu da adingabe horientzat berariaz eratutako harrera zentroetara, unean uneko egoeraren datuak biltzeko, egindako aldaketak aztertzeko, hezitzaileen, arduradunen eta adingabeen euren iritziak jasotzeko, etab.
Azken agerraldiak honako egun hauetan egin ziren: 2003ko maiatzaren 28an eta irailaren 26an (Loiuko Zabaloetxe zentroa); 2003ko azaroaren 13an (Urnietako Urgentziako Harrera Zentroa), eta 2004ko otsailaren 12an (Vitoria-Gasteizko Boskoetxea zentroa).

Hurrengo atalean ("Hurrengo ezohiko txostena") azalduko diren datuen haritik, ondokoan datu orokorrak eta aldaketarik esanguratsuenak baino ez ditugu aipatuko:

– Harrera zentroen sarean egindako aldaketa bakarra Arabakoa izan da, 2003ko ekainaz geroztik beste berariazko baliabide bat ("Zabaltzen") eskuratu baitu, Gurutze Gorriak lagatako lokaletan. Harrezkero, Boskoetxean neskentzako artapena ematen da bakarrik; mutilek, ordea, Zabaltzenen jasotzen dute. Gainontzeko zentroetan (Loiu, Urduña, Martutene eta Urnieta) egoera aurreko txostenetan azaldutakoaren antzekoa da (ikus, adibidez, 2002ko Txostena; 1.1.5 atala).
– Bizkaian izandako aurrerapausoen artean, azpimarratzekoak dira babespeko eta alokairuko pisuak, adingabeek adin nagusitasunera iristean beren emantzipaziorako beharko dituzten baliabideak, hain zuzen. Bizkain, iaz, gutxienez 44 adingabe pasatu ziren zentroetatik etxebizitza partekatuetara.
– Harrera jaso duten atzerriko adingabeei dagokienez, hona hemen, laburbilduta, azken urteko (2003) datu orokorrak:
  • Araba: 47 adingaberi eman zitzaien harrera; haietatik 4 neskak ziren;
  • Bizkaia:
    - Zabaloetxe: 194 adingaberi eman zitzaien artapena; 231 sarrera; adingabe kopurua abenduaren 31n: 110.
    - Urduña: 30 adingabe ditu oraindik.
  • Gipuzkoa:
    - Urnietako Urgentziazko zentroa: 125 adingaberi eman zaie artapena (122 mutil eta 3 neska).
    - Martuteneko egoitza-zentroa: 13 adingaberi eman zaie artapena (denak dira mutilak).
– Goiko datu orokor horiek aurreko urtekoekin alderatuz gero, zenbait joera azaleratzen dira:
  • Goranzko joera Araban, bereziki nesken artean.
  • Beheranzkoa Bizkaian (sarrerak 337tik 231ra pasatu dira); horrek ez du esan nahi, haatik, harrera zerbitzuen beharra txikiagoa denik, batez besteko egonaldiak gora egin baitu.
  • Gipuzkoan, oro har, datuak antzerakoak izan dira; goranzko aldaketa txiki bat sumatu da.

Egitekotan daukagun txosten monografikoan egoeraren beste alderdi batzuk zehatz aztertuko dira, besteak beste: artapena jasotako adingabeen ezaugarri nagusiak (jatorria, adina...); dokumentazio kontuetan izandako emaitzak; eskolatzea eta hezkuntza beharrei emandako zerbitzua; lanerako aukerak; kultur ezaugarri eta erlijio sinesmenekiko begiramena, etab.

### E) **Hurrengo ezohiko txostena**

Azken urteotan ahultasun handiko adingabeei egindako jarraipenari esker, informazioa bildu da haien egoeraren alderdi desberdinen inguruan: burututako ekimenak, babes sistemek gazte horien beharrei heltzerakoan dauzkaten

zailtasunak, gaiak gizartean eta instituzioetan sortzen duen ardura... Hori guztia kontuan izanda, laster Arartekoak ezohiko txosten bat osatuko du egoera eta arazoak zorrotz aztertzeko eta beharrezko deritzegun hobekuntzak planteatzeko. Txosten horretan jasoko diren datu asko iazko ekimenen bitartez eskuratu ziren arren, ez dira honako txostenean ageri.

## 2. **Haur eta nerabeentzako artapenari buruzko Legea**

1997an, ezohiko txosten bat plazaratu zen haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuei buruz. Harrezkero, erakunde honek urtero adierazi du gure Erkidegoak lege baten beharra duela oinarrizko alderdi batzuk arautu ahal izateko, esate baterako, harrera zentroak baimendu, homologatu eta aztertzeko araubidea, elkarbizitzarako araudiak edo zehapen erregimena.

Hain beharrezkoa den lege horren harira, aurreko urtean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak beste zirriborro bat helarazi zigun, egoki irizten genien ekarpenak egiteko eskatuz.

Txosten bereko beste atal batzuetan erakunde honek zirriborroaren inguruan burututako jardueren berri ematen da (ikus II. kap.; B.3 atalaren azken puntua). Bestalde, txosten horrexen III. eranskinean, haur eta nerabeentzako laguntzari buruzko Legearen Aurregitasmoa aztertzen da, eta bertan azaltzen da zein den Arartekoaren iritzia adingabeen defendatzailea sortzeko proposamenari buruz.

### 1.1.6. ADINGABE LEGE HAUSLEEN GAIAN EGINDAKOAREN JARRAIPENA

Arartekoak adin txikiko lege-hausleei buruz egindako ezohizko txostena 1998an argitaratu eta Legebiltzarreko buruari eman zitzaion. Bai txostenak oro har, baita txosteneko gomendioek ere, hainbat erakunderi eragiten diote, eta batik bat biri: botere judizialari –fiskaltzak eta adingabeen auzitegiak–, hain zuzen ere prozedurei, neurriak hartzeari, jarraipenari eta neurrien ebaluazioari dagokienez; eta Eusko Jaurlaritzari –batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari–, neurriak betetzeari dagokionez eta, hortaz, bere esku jarritako neuri eta baliabide guztiei dagokienez. Legearen aginduz, gure jardueran arreta Eusko Jaurlaritzak bete beharreko proposamen eta gaietan jarri dugu.

Hori horrela, 1999. urtean, Arartekoaren jarraipena egiteko, ikustaldia egin zen gure erkidegoan adingabe arau-hausleentzat dauden hiru internamendu-zentroetara. Informazioa eskatu zitzaion, ofizioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari. Ikustaldien emaitza eta Sailetik jasotako erantzuna zehatz azaldu zen urte horretako ohiko txostenean (1999ko txostena, I. kap., 1.1.6). Txosten horretan, gomendioak betetzeari buruz antzemandako hainbat alderdi azpimarratu ziren, alderdi positibo zein negatiboak; neurri batzuen eta besteen garapena alderatzeko datuak aurkeztu ziren, eta arreta berezia eskaini zitzaien askatasuna gehiago murriztea dakarten zerbitzuen eraginkortasunerako lau gai garrantzitsu hauei:

- Internamendu-zentroen sarearen konfigurazioa.
- Bere langileen lan-egoera.
- Zerbitzuen harremana beste laguntza-sareekin.
- Adingabeen irtenbide eta emantzipazio aukerak.

2000. urtean egindako jarraipenean ere arreta berezia eskaini zitzaien gai horiei. Arartekoaren langileek ikustaldiak egin zituzten Andoiu, Urtuella eta Aramaioko zentroetara, eta, gero, Ararteko erakundeak, ofiziozko bi espedienteren bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera eta Justizia, Lan Gizarte Segurantza Sailera jo zuen. Espedienteetako batek adingabe arau-hausleek internamendu-zentroetan egiten duten denboraldian dituzten eskolatze-baldintzak zituen aipagai nagusi; bestean, informazio zehatzak eskatzen ziren goian aipatutako lau alderdiei buruz, azkeneko bi urteetan gauzatutako neurrien garapenari buruz eta zerbitzuen araubideari buruz. Horretaz gain, balorazio txiki bat egin zen adingabeen erantzukizun penala arautzen duen 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrilean indarrean sartzeari buruz eta, halaber, lege horretan aurreikusitako neurri guztiak abian jartzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak bideratzeari buruz (2000ko txostena, I. kap., 1.1.6 atala)

2001. urteko jarraipenari dagokionez, berriz ere ikustaldiak egin ziren hiru zentroetan, eta ofiziozko espediente bidez informazio zabala eskatu zitzaion Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari. Informazio horrek hamar puntu hauek jasotzen zituen:

1. Internamendu-zentroen sarean egindako aldaketak, aurreikuspenak eta beharrei aurre egiteko duten gaitasunari buruzko balorazioa.
2. Beren langileen lan-egoeran eta lan-baldintzetan egindako hobekuntzak.

3. Beste zerbitzuekiko akordioak, koordinazio-sistemak eta lankidetza (batez ere internamenduko adingabeen hezkuntza eta osasun arretarako).
4. 2001eko azaroaren 7ko Agindua aplikatzeko egindako edo aurreikusitako urratsak. Agindu horren bitartez, zentroetan hartutako adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko neurriak arautzen dira.
5. Abian jarritako berariazko programak edo zerbitzuak, adingabe horien internamendu-aldia bukatzean horien irteera errazteko.
6. Zerbitzu horien araubidearen egoera. Hainbatetan eskatu izan dio hori instituzio honek.
7. Azken urteotan gauzatutako neurrien garapena.
8. Adingabearen Erantzukizun Penalari buruzko Legea 2001eko urtarrilean indarrean jartzearen ondorioz izandako aldaketak, demandei, errekurtsoei eta erantzuteko gaitasunari dagokienez.
9. Gure erkidegokoak izanik ere azken urteotan beste erkidegoetako zentroetan sartu diren adingabeei buruzko datuak, eta egoera horren arrazoiak.
10. Adingabeen arau-hausteen biktima izan diren edo eragina jasan duten pertsonei eskainitako arreta.

Horrenbestez, eskatutako informazioak lehenago ere jarraipenerako gai izan ziren arazoak hartu zituen, baina horretaz gain gai berriak ere sartu zituen, eta kontuan hartu zituen zerbitzuan eragin zuzena izan zuten denbora hurbileko gertaerak edo faktoreak. Esate baterako: adingabeen erantzukizun penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoa 2001eko urtarrilean indarrean sartzea; lege horrek, besteak beste, parekatu egin zuen adin-nagusitasun penala eta zibila, eta, horregatik, neurrietara atxikitako adingabeen kopurua areagotu zuen eta aldatu egin zituen internamenduan zeuden adingabeen profila eta ezaugarriak. Bestalde, beste adibide bat: Zumarragan internamendu-zentrorako eraikitako instalazioak ETAk leherraraztea; horrek baldintzatu egin zuen internamendu-sarearen gaitasuna…

Adierazitako hamar gaiak hartu ditu azkeneko urteetan Arartekoak erreferentzi esparru modura, eta horietako batzuei bereziki erreparatu die, ikusitako garapenaren arabera edo jasotako kexaren baten eraginez. Eta jarraipen-txostenak egiterakoan (2001eko edo 2002ko txostena, 1.1.6 atala), honako informazio-iturri edo elementu hauek izan ditugu kontuan:

– Behaketa eta elkarrizketen bidez tokian bertan jasotako informazioa, internamendu-zentroetan edo autonomia-etxebizitzetakoren batean jasotakoa alegia.
– Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Justizia Sailordetzaren arduradun diren pertsonekin izandako bilerak, pertsona horien mende baitaude neurriak aplikatzeko zerbitzuak.
– Beste profesionalekin izandako bilerak, hala nola, Justiziako talde psikosozialarekin.
– Kexen edo informazio-eskaeren ondorioz Justizia Sailetik jasotako informazioak.
– Justizia Administrazioko Euskal Behatokiaren memoriak.

Iazko txostenean, funtsezko datuak laburbildu, zentroetara egindako ikustaldien emaitzaren berri eman edo profesionalek mahairatutako gaiak islatzeaz gain, azkeneko

atalean zenbait alderdi azpimarratu genituen, gure iritziz bereziki kezkagarriak edo hobetu beharrekoak zirelako. Besteak beste:

- Neurrien kopurua nabarmen areagotzeak aurre egiteko ahalmenean eragindako arazoak (ondorioak katea osoan: epaitegietan, talde psikosozialetan; Gazte Justizia Zerbitzuaren kudeaketa-ahalmenean; zentroetan hartzeko ahalmenean; ingurune irekiko neurrien kudeaketan eta jarraipenean…).
- Babes-sistematik etorrita internamenduan sartutako adingabe arau-hausleen proportzio handia; batez ere atzerriko adingabe lagundugabeena.
- Neurriak familia-ingurunetik hurbilago betetzeko aukera ematen duten formulak garatzearen beharra, indarkeria-ekintzetan inplikatutako adingabeen kasuan. Kasu horietan Auzitegi Nazionalak esku hartzen du.
- Zerbitzuen araubiderik eza, horren beharra dagoeneko hainbat urtez jakinarazi baldin bada ere. Araubide hori berme-elementua da alderdi guztientzat.

Azken urte honetan berriz ere ikustaldia egin dugu lehengo hiru internamendu-zentroetako batean (Urtuella, 2003-12-17); lehenengo ikustaldia egin dugu Landa eta Zumarragako zentro berrietara (2004-01-15), eta Gaztaroan Ekin-en egoitzan ere izan gara. Elkarte hori arduratzen da Andoiuko zentroaren eta Vitoria-Gasteizko autonomia-etxebizitzaren kudeaketaz.

Bestalde, 2003ko abenduaren 9an, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera zuzendutako ofiziozko espediente baten bidez, informazioa eskatu genion oinarrizkotzat jotzen genituen zortzi alderdiri buruz. Horren erantzuna 2004ko martxoaren lehenengo egunak arte jaso ez genuen arren, bere zabaltasuna eta datuen interesa kontuan hartuta, laburbiltzea eta txosten honetan sartzea erabaki dugu.

Horrenbestez, lehenengo zazpi ataletan Sailak emandako informazioa baliatuko dugu, funtsean. Zortzigarrenean, berriz, zentroetara egindako ikustaldien bidez eta profesionalekin egindako bileren bidez lortutako informazioa. Eta azkeneko atalean (9. atala), betetzeke dauden gure proposamenetako batzuk gogoraraziko ditugu.

## 1. **Azkeneko urteetan gauzatutako neurrien garapena**

Arartekoak adingabe arau-hausleei buruz egindako txostenak sustatu nahi zuen oinarrizko jarduera-ildoetako bat aurreikusitako neurriei buruz legeak eskaintzen dituen aukera guztiak garatzea zen, eta bereziki, askatasuna gutxien murrizten dutenak, hezkuntza gehien sustatzen dutenak eta internamendua eskatzen ez dutenak. Baliabide eta bitarteko gehiago edo gutxiago edukitzea izaten da neurriak benetan aplikatzeko faktore garrantzitsuenetako bat, eta erakunde honek horretan jarri du arreta berezia, izan ere neurriak betetzea Euskal Administrazioaren eskumena da.

Aurreko txostenetan gai horri buruzko datuak eman ditugu, balorazioak egin eta elementu positibo eta negatiboak azpimarratu ditugu. Batez ere 2000. urtean, izan ere urte horretan Gazte Justizia Zerbitzuak egindako memoria zehatz bat eduki eta aztertu ahal izan zen *("Adingabeen epaitegiek EAEn ezarritako neurriak 1999. urtean nola bete diren: azterketa").*

Memoria horrek aukera eman zuen, alde batetik, neurrien garapen orokorra eta numerikoa jakiteko, eta, horretaz gain, informazioa xehetasun handiagoaz aztertzeko,

erakunde honen irizitz interes handikoak diren irizpideen arabera. Esate baterako: neurriak gauzatzeko atzerapen-denborak, ekintza edo arau-haustea egin eta neurria hartu zen artean igarotako denbora; edo neurriak aplikatzerakoan izaten diren ezberdintasunak, adingabeak mutilak edo neskak diren; edo neurri gogor edo murriztaileenen (internamendua) eta kolektibo batzuen ezaugarri edo ahultasunaren arteko harremana: gutxiengo etnikoak, eskolatu gabeko adingabeak, babespean dauden adingabeak, arau-haustea berriz egin dutenak…

Azken urteotan hain azterketa zehatzik edukitzerik izan ez dugun arren, baditugu garapen-datu orokorrak, eta horrek aukera ematen du neurri bakoitzaren aplikazio-maila handia edo txikia izan den jakiteko, bai eta joera nagusien berri jakiteko ere. Datu orokor horiek jasotzen dira honako taula honetan:

**1997-2003 BITARTEAN EZARRITAKO NEURRIEN GARAPENA**

| | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA | GUZTIRA |
| Bitartekotza/Konponketa | 94 | 158 | 247 | 234 | 309 | 372 | - (1) |
| Ohartarazpena | 120 | 97 | 72 | 72 | 33 | - | - |
| Zaintzapeko askatasuna | 53 | 60 | 56 | 65 | 135 | 176 | 191 |
| Gizartearen aldeko zerbitzuak ematea | 53 | 39 | 77 | 83 | 123 | 185 | 321 |
| Tratamendu anbulatorioa | 4 | 3 | 9 | 7 | 26 | 31 | 18 |
| Gizarte eta kultura arloko zereginak | - | - | - | - | 20 | 27 | 47 |
| Harrera | - | - | - | - | 2 | 3 | 3 |
| Asteburuko internamendua | 5 | 8 | 15 | 16 | 42 | 62 | 71 |
| Internamendu-zentroan sartzea (2) | 22 | 31 | 51 | 64 | 63 | 98 | 110 |
| **GUZTIRA** | **351** | **396** | **527** | **541** | **753** | **954** | **(761)** (3) |

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Berak egina)

(1) Bitartekotzari buruzko azken urteko daturik ez daukagu oraindik.
(2) Zentroetako internamenduak kontabilizatzeko irizpideak aldatu egin ziren 1999. urtetik aurrera: 22 eta 31 adingabe dira (97 eta 98 urteak); baina 51 neurri, 37 adingaberi dagozkienak (99 urtea); 64 neurri, 33 adingaberi eragiten dietenak (2000. urtea); 63 neurri, 98 neurri, edo 110 neurri (ez adingabeentzat) azkeneko hiru urteetan.
(3) Kontuan izan behar da guztizko zenbateko horrek ez dituela bitartekotzak eta ohartarazpenak jasotzen.

Datu horiek argi erakusten dituzte joera batzuk. Beharbada joera garrantzitsuena neurrien kopuru orokorrean izandako gorakada handia izango da, eta ia neurrietako bakoitzean izandakoa, ohartarazpenetan eta harreretan izan ezik.

Gorakada batik bat 2001. urteaz geroztik gertatu da, 5/2000 Legearen aplikazioaren ondorioz. Izan ere, bitartekotzei eta ohartarazpenei buruzko datuak kontuan hartzen ez baditugu –berez ez dira neurriak, eta ez dute gauzatzeko baliabiderik eskatzen–, urtero izandako gorakada nabarmena izan da: % 75 (2001. urtea); % 42 (2002. urtea); % 31 (2003. urtea).

Gorakada ingurune irekiko neurrietan izan da batik bat esanguratsua. Izan ere, askatasun zainduak, gizartearen aldeko prestazioak, tratamendu anbulatorioak eta gizarte eta kultura arloko zereginak batzen baditugu, lau urtetan (2000-2003) 155 neurritik 577 neurrira pasatu da, hau da, 3,7az biderkatu da.

Erreferentzia gisa 2000. urtea hartzen badugu (5/2000 Legea indarrean jarri aurreko azken urtea), eta urte horretako datuak azken urtekoekin alderatzen baditugu, honako aldaketa eta joera hauek ikusten dira:

– Zaintzapeko askatasun neurriak ia hiru aldiz biderkatu dira (65 izatetik 191 izatera igaro dira).
– Gizartearen aldeko prestazioak ia lau aldiz biderkatu dira (83tik 321ra igaro dira).
– Tratamendu anbulatorioak 7tik 18ra igaro dira.
– Gizarte eta kultura arloko zereginak ez zeuden lehen, eta azken urtean 47 izan dira.
– Hezkuntza-taldeetan parte hartzeko harrerak hasi dira gutxinaka.
– Asteburuko internamenduak 16 izatetik 71 izatera igaro dira (4 aldiz biderkatu eta gehiago).
– Zentroetako internamenduak 64 izatetik 110 izatera igaro dira (% 72ko gorakada).

Beste datu aipagarri bat adiskidetzeko eta kaltea konpontzeko programek hartutako indarra da: 2002. urteko 372 bitartekotza-prozesuek (eskuragarri dugun azkeneko datua) urte horretan konpondutako kasu guztien ia % 40 eragin zuten. Gure datu-eskaerari Justizia Sailak emandako azken erantzunak ez du daturik eskaintzen azken urteko bitartekotzei buruz, baina bitartekotzen ehunekoaren murrizketa erlatiboa aurreratzen du, eta horren arrazoia ingurune irekiko neurrien gorakada izan litekeela aipatzen du hipotesi gisa.

Bestalde, bada beste datu kezkagarri bat internamenduei buruz: 2002ko internamenduen % 40 eta azken urteko % 20 baino gehiago zuhurtziazko neurriengatik egin dira, eta horrek hezkuntza-mailan esku-hartzea zailtzen du.

Zenbaki hutsen datuak alde batera utzita, Sailaren erantzunak alderdi kualitatiboen berri ere ematen du, eta horrek errealitatea eta izandako garapena hobeto ezagutzen laguntzen du. Adibidez:

– Laguntza jaso duten pertsonen adina nabarmen igo da (epaitutako hiru gaitatik, bat soilik 16 urtetik beherakoek egindako ekintzengatik; % 80k baino gehiagok 16 urtetik gora dute neurria betetzen hasteko unean; betetzen ari diren adinnagusikoen kopuru esanguratsua…).
– Neurrien iraupena nabarmen areagotu da (askotan, duela urte batzuetako neurrienaren bikoitza edo hirukoitza).
– Ezaugarri bereizgarriak dituzten kolektiboen edo arazo bereziak dituztenen agerpena eta horiek pixkanaka hartzen ari diren garrantzia: atzerriko adingabe lagundugabeak, egituratutako famili loturarik gabeko adingabeak, babes zerbitzuetan instituzionalizazio-istorio luzeak dituzten adingabeak, edo droga-kontsumoari lotutako arazo larriak dituzten adingabeak.

Sailak berak urte hauetako datuetatik eta garapenetik atera daitezkeen zenbait ondorio aipatzen ditu:

– Ugaritzen ari diren beharrei aurre egiteko baliabide, profesional, zerbitzu eta programa gehiagoren eskakizuna.

– Zenbait kolektiborekin (adierazitakoen modukoak) edo zenbait egoeratakoekin (zuhurtziazko neurrian daudenekin) lan egiteko dagoen zailtasun erantsia.
– Inplikatutako zerbitzu eta sistema guztien arteko lankidetzaren garrantzia (sistema judiziala, fiskaltza, osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, kalifikaziorako eta lana bilatzeko zerbitzuak...).
– Adingabekoek azaldutako jarrera deliktiboak direla-eta erakundeez batzuetan helarazten den inhibizio eta jarduera-faltaren inpresio txarraren faltsutasuna.

## 2. **Internamendu-baliabide eta -zentroen sareari buruzko aurreikuspenak eta aldaketak**

Gure erkidegoan berariaz adingabe arau-hausleen internamendurako erabilitako ikastetxeen sarea azken urteotan hiru ikastetxez osatuta egon da: ikastetxe bana Andoiun (hasieran neskentzat aurreikusia), Aramaion eta Urtuellan (mutilentzat).

Aurreko txosten batzuetan zentro horien muga batzuk azaldu genituen, kokalekuaren, titulartasunaren, egituraren edo zentroan hartzeko ahalmenaren ondorio zirenak. Baliabideak areagotzearen beharra ere mahairatu genuen, eta Zumarragako zentro berria sarean sartzea (hasiera batean 2001. urterako aurreikusia) zentroen konfigurazioa berrikusteko eta euren etorkizuna planifikatzeko aukera ona izan zitekeela pentsatu genuen.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak bere erantzunean azaldu zuen moduan, eta iazko txostenean adierazi genuen bezala, Zumarragako zentroa dagoeneko eraikia eta ekipamenduz hornituta zegoenean ETAk instalazioen aurka egindako atentatuak pikotara bidali zuen plangintza plaza-baliabideei dagokienez, kalte handiak eragin zituen eta eskaerei aurre egin ahal izateko hiru zentroen antolamenduan aldaketak egin beharra ekarri zuen. Gure aurreko txostenean zentro horietara egindako ikustaldietan antzemandako arazoak jaso genituen; zentro horiek eskariez gainezka edo euren ahalmenen mugan zeuden.

Egoera zertxobait aldatu da azken urtean. Izan ere, hiru zentro ezagunei –Aramaioko Mendixola zentroa (12 plaza), Urtuellako Miguel Ángel Remírez zentroa (8 plaza) eta Vitoria-Gasteizko Andoiu zentroa (7 plaza)– bi baliabide berri hauek erantsi behar zaizkio:

– Ibaiondo ikastetxea, Zumarragan. 2003ko uztailean ekin zion bere ibilbideari, momentuz soilik 7 plazarekin.
– Landa ikastetxea, Arrazua-Ubarrundian, 6 plazarekin.

Eta horiei Vitoria-Gasteizko eta Bilboko bi autonomia-egoitzak erantsi behar zaizkio. 2003. urtean, beraz, guztira 48 plaza baliatzeko moduan.

Justizia Sailetik jasotako informazioaren arabera, baliabide-sarea indartzeak itxaron-zerrendak egin behar izatea, internamendu-neurriak beste erkidego batean bete behar izatea eta zerbitzuek gainezka egitea saihestu ahal izan du.

Bestalde, Sailak berehalako etorkizunerako aurreikuspen batzuk aurreratzen ditu:

– Ibaiondo zentroan talde berriak irekitzea 2004ko udatik aurrera (gehienez aurreikusitako 36 plazetatik 21 erabiltzea).

– Urtuellako zentroko instalazioak birmoldatu eta egokitzea, 2004. urtean, eta Andoiu zentroan handitze-lanak egitea.
– Donostian autonomia-egoitza berria irekitzea (2004ko uda).

Proiektu horien arabera, 2004. urtearen bukaeran baliabide guztien artean 60 plaza eduki ahal izango dira.

Horri dagokionez, gure informazio-eskaeran hainbat datu eskatu genuen, era berean, plantillen egoerari buruz (profesionalen kopurua, hitzarmenak, iraupena, prestakuntza, lan-baldintzak…), edo zerbitzu horien jardunerako araubideari buruz, batez ere zigor-araubideari eta isolamendu-neurriei buruz. Aurreko urteetan ere egin genuen.

Justizia Sailaren erantzuna ikusita, gai horiei dagokienez honako datu hauek aipa ditzakegu:

– Zentroetako plantilla (2004. urtea): 128 pertsona (horietatik 90, hezitzaileak).
– Ingurune irekiko neurrietarako plantilla (2004): 23 (2004ko uztailetik aurrera eguneko zentrorako aurreikusitako 5 hezitzaileak barne).
– Erakundeekiko kontratuen iraupena luzatzea (gutxienez 5 urtekoak).
– Hobekuntza nabarmena langileen diru-sarreretan (% 20 eta % 30 artekoa azken bi urteetan).
– Argitaratu gabe jarraitzen du Zentroen Erregelamenduak, 5/2000 Legearen garapen gisa, adostua.
– Sailak zentroen jardunbidearen, erregelamenduen aplikazioaren eta diziplina-neurri gogorrenak hartzearen jarraipena egiten du. Adierazitakoaren arabera, neurri horiek gutxitu egin dira azken urtean.
– Profesionalen prestakuntzari dagokionez, urtean zehar gauzatutako hainbat ekimen eta jardueraren zerrenda azaltzen da (120 orduko ikastaroa Euskal Kriminologia Institutoarekin lankidetzan, Ibaiondo zentroko profesionalen hasierako prestakuntza…).

## 3. **Babes-sistemekiko erlazioa**

Aurreko segimenduetatik eskuratutako datu eta kezken arabera, honako informazio hau eskatu genion Sailari:

– Babesetik etorritako adingabeen ehunekoa (jokabide-arazo handiak dituzten nerabeak eta atzerriko adingabe lagundugabeak).
– Koordinazio-mekanismoak, baterako jarduera-irizpideak, informazio-trukerako eta jarraipenerako sistemak, esku-hartzearen jarraipena…

Justizia Sailak, bere erantzunean, jasotzen du gazteentzako justizia sisteman foru aldundien mendeko babes-sistemetatik etorritako adingabeen ehuneko handia dagoela, batez ere jokabide edo neurri gogorrenen kasuetan (zuhurtziazko neurriak eta internamendua). Eta honako datu hauek ematen ditu:

– Gizartearen aldeko zerbitzuak emateko neurrietan: % 23,4 babes-espedientedun pertsonei dagokie.
– Zaintzapeko askatasun neurrietan: % 28,82.

– Gizarte eta kultura arloko zereginetan: % 17.
– Tratamendu anbulatorioan: % 58.
– Zuhurtziazko internamendu neurrietan: % 58
– Internamenduetan: % 52,4.

Halaber, adierazten du azken urteko kasuen azterketaren arabera, bi sistemetan maizenik parte hartzen duten kolektiboak identifika daitezkeela:

– Atzerriko adingabe lagundugabeak.
– Famili esparruan eraso arazoak dituzten adingabeak.
– Emantzipatzeko edo euren familietara itzultzeko benetako aukerarik ez duten 18 urtetik gorakoak.
– Babes-zentroetan bizi diren adingabeak, ingurune irekian neurriren bat bete behar dutenak.

Bi sistemak koordinatze aldera, jakinarazten da dagokien arduradun politikoen arteko lehenengo topaketa egin dela dagoeneko (Eusko Jaurlaritzakoak eta foru aldundietakoak), eta, martxotik aurrera, lehentasunak eta koordinazio-mekanismoak zehazteko lan-talde egonkorra eratzeko asmoa dagoela.

## 4. Indarkeria-ekintzetan nahastutako adingabeentzako arreta

Atal honetan, galdera egiten zen Auzitegi Nazionalak hartutako neurriak betetzeko egindako esku-hartzeez eta lankidetza-hitzarmenen bat garatzeko aukeraz.

Justizia Sailak, gai honetan, neurri horiek betetzea Gobernu Zentralari dagokiola gogorarazi du. Bere iritziz une honetan hitzarmena sinatzeko aukerak blokeatuta daude, eta neurri horiek betearaztea bere gain hartzeko prestasuna errepikatu du.

## 5. Zerbitzuen araubidea

Atal honetan, haurtzaroari arreta eskaintzeko Legea onesteko aukerari buruz galdegin diogu Sailari, eta, bestalde, Gobernu zentralak 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onesteko aukerei buruz, izan ere bi arau horiek oinarrizkoak dira eta erakunde honek behin eta berriz adierazi du behar eta premia hori.

Lehenago adierazi da Zentroen Erregelamenduaz, 5/2000 Legearen EAEko aplikazioa garatu behar duenaz, bere edukiari buruz adostasuna badela dirudien arren, oraindik ez dela argitaratu.

Haurtzaroari arreta eskaintzeko Legeari dagokionez, jakinarazten da Gobernu Kontseilura bidali aurreko izapideetan jarraitzen duela.

## 6. Hezkuntza eta osasun arreta zentroetan bertan, eta lankidetza hezkuntza eta osasun sistemekin

Aurreko txostenetan kontsultatu daitekeen modura, behin eta berriz agertzen diren bi gai dira, eta zenbait momentutan erakunde honen ofiziozko jarduerak eragin ditu.

Hezkuntza arretari dagokionez, Justizia Sailaren balorazioa positiboa da, bere iritziz ez dago arazo azpimarragarririk, eta gai honi buruzko 2001eko azaroaren 7ko Agindua aipatzen du.

Eta zentroetako bertako osasun arretari eta osasun zerbitzuekiko lankidetzari dagokienez, Osasun Sailarekin 2003ko irailean izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren berri ematen du.

## 7. **Eskaerari behar bezala aurre egiteko sisteman egindako hobekuntzak**

Justizia Sailari egin genion informazio-eskaeran, azkeneko atalean, informazioa eskatu genion eskariari behar bezala aurre egin ahal izateko sisteman egindako hobekuntzez, esku hartzeko edozein mailatan:

- Zerbitzu judizialetan.
- Gazte Justizia Zerbitzuaren kudeaketa-ahalemenean.
- Neurriak aplikatzeko beharrezkoak diren baliabideetan (zentroak, etxebizitzak, hitzarmenak...).
- Jarraipenean, koordinazioan, ebaluazioan…
- Emantzipazio eta irtenbide aukeretan.

Baliabideetan eta zentroen sarean egindako hobekuntzen berri aurreko ataletan eman da dagoeneko. Besteak beste, aipagarriak dira honakoak:

- Epaitegiei dagokienez:
  - Bilbaon Adingabeen Epaitegi berria abian jartzea.
  - Bulego judizialetako plantillak handitzea.
  - Lanbide-egonkortasuna (plaza jabetzan duten magistratuak lau epaitegietan).
- Gazteentzako Justizia Zerbitzua handitu eta berregituratzea, neurrien jarraipena bermatzeko hainbat kargu sartuz, hala nola, zentro-arduraduna (betetzeke dago) edo lurralde bakoitzean jarraipena egitearen ardura duten teknikariak.
- Ibaiondo ikastetxean lan egingo duten Administrazioko langileen lehenengo plazak 2004ko udan betetzeko aurreikuspena.
- Adingabeen fiskaltza eta epaitegiekiko komunikazioetan protokoloak bateratu eta informatizatzea.
- Bizkaian eguneko zentro bat irekitzeko aurreikuspena (2004an).

Azkenik, berehalako etorkizunerako erronka modura, "Gazteentzako Justizia Euskal Autonomia Erkidegoan: neurriak betetzeko plana, 2004-2007" dokumentua idaztea aipatzen da. Dokumentu horretan datozen lau urteetarako aurrekontu-aurreikuspenak eta lan-ildoak finkatu nahi dira.

Honaino, funtsean, Justizia Sailetik jasotako informazioa. Informazio horrek datu gaurkotuak ematen ditu erakunde horrek orain arte egindako jarraipenetan jorratutako gai gehienei buruz, eta, zehatzago, 2003ko abenduaren 9ko gure ofiziozko azken espedientean mahairatutako alderdiei eta zortzi gaiei buruz.

Aukera ematen du egindako aldaketak ikusteko –horietako batzuk, hala nola baliabide-sarea handitzea edo profesional-kopurua areagotzea, oso garrantzitsuak, izan

ere nabarmen handitzen dute sistemaren erantzuteko ahalmena– eta halaber, azken urtean egindako garapena eta aurrerapenak baloratzeko, eta baita jarraipen berriei bide eman diezaieketen plan eta ekimenak ezagutzeko.

Hurrengo atalean, alderatzeko eta osatzeko elementu gisa, zentroetan egindako azken ikustaldietan ikusitako zenbait alderdi azalduko ditugu:

## 8. **Internamendu zentroetara egindako ikustaldiak. Alderdi aipagarriak**

2003ko urtarrilean, Ararteko erakundeko zenbait langilek Urtuella, Andoiu eta Aramaioko hiru zentroetan ikustaldia egin zuten. Berrikiago, urte horretako abenduan eta 2004ko urtarrilean, berriz ere ikustaldia egin zen Urtuellako zentroan, eta Landa eta Zumarragan irekitako zentro berrietara lehenengo ikustaldia egin zen.. Hemen, soilik interesgarriena iruditzen zaizkigun alderdiak adieraziko ditugu, batez ere egin berriak diren azkeneko bi zentroei dagokienez. Halaber, Andoiuko zentroari buruzko alderdiren bat ere jasoko dugu, eta Vitoria-Gasteizen Gaztaroan Ekin elkarteak kudeatutako autonomia-etxebizitzari buruzko alderdiren bat.

- Urtuellako **Miguel Ángel Remírez zentroan azken ikustaldia** 2003ko abenduaren 17an egin zen. Egun horretan 5 adingabe zeuden zentroan, izan ere beste hiruk ihes egina zuten (zentroak 8 plaza ditu); horietako batek zuhurtziazko neurria zuen. Hiru adingabeetatik bat bakarrik joaten zen kanpoko jardueretara, inguruko prestakuntza-zentro batera (LHIK). Bi adingabe Gipuzkoakoak ziren; gainerakoak Bizkaikoak.
  Instalazioei dagokienez –erakunde honek behin baino gehiagotan eman du zituzten mugen berri– eginak zeuden pintura-lanak, kanpoan zein barruan, ADSL linea instalatuta zegoen, eta ordenagailuak jartzekotan ziren. Berokuntza zentraleko sistema instalatzeko dago oraindik ere.
  Hezitzaileen plantilla nahiko egonkor mantentzen jarraitzen da (guztira, 15 pertsona) –zentroaren kudeaketa Berriztu hezkuntza-elkarteari dagokio–. Aldaketak, funtsean, barruko berregituraketen ondorio izan dira (zentro batetik elkartearen beste zentro batera aldatzea). Koordinatzailea berria zen, eta zentroan segurtasun-langileak sartu dira, gau eta asteburuetarako.
  Langile horiek adingabeekin lan egiteko duten kalifikazio eta esperientziari dagokienez, zentroko taldeak erreparoak ditu. Batzuen ustez lanaren kalitatea hobetuko litzateke taldea beste hezitzaile batez indartuko balitz, segurtasun-langileekin egin beharrean.
  Aurreko ikustaldietan egin zen modura, ikustaldia zigor-prozedura aztertzeko (fase edo aldietan oinarritutako berregokitze kognitibo-konduktualerako programa) eta hartutako diziplina-neurrien komunikazio eta erregistro sistemak aztertzeko baliatu zen.
  Halaber, beste zerbitzuekiko harremanak ere aztertu ziren: babes-sistemekiko harremanak, Ertzaintzarekikoak, osasun-sitemarekikoak… Azkeneko horri dagokionez, droga-mendekotasun arazoei berariazko erantzuna emateari eta arreta psikiatrikoari dagokienez, taldeak uste du osasun-sitemak internamenduan barruratutako adingabeen beharrei zerbitzu zabalagoa eskaini beharko liekeela.

Ikastetxearen hezkuntza proiektuan aldaketak egiten ari dira, eta diziplina-neurrien erabilerari edo gelan isolatzeari dagokienez, aurreikusitako prozedura erabiltzen da, Aramaiokoaren antzekoa, baina Aramaion oraindik ez da datu-base informatikoa erabiltzen hori erregistratzeko.

- 2004ko urtarrilaren 15ean egin zen **bisitaldia Landako instalazioetara** (Araba). Egun horretan hiru adingabe zeuden zentroan; horietako bi, atzerritarrak.
  Ikastetxeko talde hori ere Berriztu elkarteko partaide da, honela osatuta dago: zazpi hezitzaile, koordinatzaile arduradun bat, andereño bat, famili koordinatzaile bat, tailer-maisua eta sukaldaria. .Gaueko zaindaria ere badu.
  Zentroak instalazio batzuk prestatuak ditu (adibidez, egongela edo 5 logelak dauden eraikina) , eta beste batzuk egokitzen ari dira, neurri handi batean adingabeen beren lanari esker (zangak irekitzea, zoruak beheratzea, trenkadak egitea, alikatatua…).
  Izan ere, zentro hori internamendu-plazen eskari handiak sortutako egoera nolabait arintzeko ireki zen. Horretarako, (Caritasek erabilitako) aurreko instalazioak eginkizun berri honetarako berregokitzapen azkarra egin zen, eta hori nabaria da zentroak dituen zenbait mugatan: suteen kontrako segurtasun-sistemetan; eusteko egoeretarako erabilitako moduluaren baldintzetan; hezitzaileek berek erabilitako eremuen behin-behinekotasunean, edo berokuntza-sisteman; kirolerako kanpo-eremuetan…
  Esan zigutenez, esparruak oro har birmoldatzeko proiektu bat dago (kontuan izan behar da hainbat eraikin direla erabilgai). Informazio hori geroago berretsi zen, Justizia Sailak emandako erantzunean; aurreko ataletan laburbilduta dago. Gure ustez funtsezko gai bat da, izan ere instalazioak xede duten zerbitzurako egokiak diren edo ez, horri buruz erakunde honek egingo duen balorazioa egiten diren hobekuntzen araberakoa izango da. Ikusitako instalazioek muga handiak dituzte eta behin-behinekotzat jo behar dira.
  Aztertutako beste alderdiei dagokienez (hala nola, bizikidetza-arauak edo beste sistema eta zerbitzuekiko harremana), egoera Urtuellako zentrorako deskribatutakoaren oso antzekoa da. Biak elkarte berak kudeatzen ditu.

- **Zumarragako Ibaiondo zentoan** egun berean egin zen ikustaldia: 2004ko urtarrilaren 15ean.
  Egun horretan 5 adingabe zeuden zentroan: horietako 4 zuhurtziazko neurrian (3 atzerritar). Adingabeetako bat kanpoko prestakuntza-tailer batera joaten zen. Beste bat ihes eginda zegoen.
  Eraikuntza berriko zentroa da, berariaz eginkizun horretarako diseinatua, eta –errendimendu osoan– gehienez 36 adingabe arau-hausleri laguntzeko. ETAk egindako atentatuaren ondorengo eraikuntza lanak 2003. urtean bukatu ziren, eta horrek hasieran eraikineko zenbait instalazio erabiltzeko aukera eman zuen.
  Zentroak egitura modularra du, elkarri lotutako eraikinak, aurreikusitako bost hezkuntza-taldeetako bakoitzarentzat bere instalazioak dituelarik (7-8 gaztez osatutako taldeak). Gaur egun bost eraikin horietako bat besterik ez da erabiltzen, eta horretaz gain denentzako instalazioen zati handi bat: bilera eta bulego eremuak; tailerrak; ikasgelak; gimnasioa… Eta kanpoko jolastokiak: kirol-zelaia, igerilekua edo talde-patioa.

Esparruen banaketa etorkizunean hezkuntza-talde bakoitzak bizitza beste taldeengandik bereizita egin ahal izateko moduan pentsatuta dago, denek batera soilik instalazio batzuk erabiltzeko: ikasgelak, tailerrak, kirol-guneak… Denek erabiltzekoak dira, halaber, beste zenbait zerbitzu, hala nola, sukalde zentrala, mediku-kontsultarako prestatutako lokala, edo bisitak jasotzeko gelak.
Eraikuntza berriko zentroa izaki, deigarria gertatzen da oztopo arkitektonikoak ez saihestu izana eta sarbidea ez bermatu izana, gutxienez talde edo gune batzuetan.
Gure lehen ikustaldia zenez, abagunea baliatu egin genuen instalazioak ikusi eta gainbegiratzeko, gaur egungo taldearekin ikuspegiak trukatzeko eta adingabeekin berriketan aritzeko.
Hasieran abian jartzeko, zentroaren kudeaketa IRSEri esleitu zitzaion, lehiaketa bidez, zenbait hilabetetarako, luzatzeko aukera jarrita.
Gaur egungo taldea osatzen dutenak hauek dira: zuzendaria, zuzendariordea, hezitzaileen koordinatzailea, psikologoa, tailer-maisua, ikasgelako irakaslea, hamaika hezitzaile, sukaldaria eta laguntzailea. Hezitzaile-taldean gizonezkoak eta emakumezkoak orekatuta daude. Horietako bat Magrebekoa da, jatorri bereko adingabe atzerritarrekiko harremana errazteko.
Halaber, zentroak zaindariak ere baditu, eta segurtasun-neurri garrantzitsuak.
Eskuratutako informazioaren arabera, beharrezkoa dirudi atal bakoitzaren eskumenak, jarduera-irizpideak edo eginkizunak zehatzago adieraztea: talde hezitzailea eta segurtasuneko langileak, hainbat saili atxikiak (Justizia - Herrizaingoa).
Horretaz gain, Ertzaintzaren zaintzapean adingabeak lekuz aldatzerakoan sortutako zenbait arazoren berri jakin genuen; arazoak erabilitako ibilgailu-motari buruzkoak ziren.

- **Bilera Gaztaroan Ekin elkarteko langileekin**. Elkarte hori arduratzen da Andoiuko zentroaren eta Vitoria-Gasteizko autonomia-etxebizitzaren kudeaketaz. Kasu honetan, aurreko urteetan bezala Andoiuko zentroan ikustaldia egin beharrean elkartearen arduradunekin bilera egitea hautatu zen. Bilera bulego edo egoitza modura erabiltzen duten lokalean egin zen, 2004ko otsailaren 13an.
  Bi zerbitzuen (zentroa eta etxebizitza) azkeneko urteko jardunbideari buruzko datuak jaso ziren, baita talde hezitzailean egindako aldaketei buruzkoak eta gizarteko baliabideekiko eta beste zerbitzuekiko harremanei buruzkoak ere.
  Aurreko txostenetan adierazitako aurreko urteetako egoerarekiko “berrikuntzei” dagokienez, honakoak aipa ditzakegu:

  – 2002ko ekainetik aurrera autonomia-etxebizitza abian jartzeak aukera eman du baliabide berri bat izateko hainbat neurri-mota betetzeko. Orain arte 7 adingabek erabili dute, batez beste 4 hilabeteko egonaldian. Beharrezkoa izan da talde hezitzailea indartzea (5 hezitzaile eta koordinatzaile bat).
  – Baliabide hau izateak, eta Zumarragako zentroa irekitzeak, aukera eman dute Andoiuko zentroa hasiera batean xede zituen biztanleentzat erabiltzeko: neskentzat. 2003. urtean, lehendik ere han zen mutilen bati arreta eskaintzen jarraitu bazuten ere, 6 neska sartu ziren.
  – Gaur egun, Andoiun bost neska daude barneratuta (erregimen erdireki edo irekian). Horien heziketarako, gizarteko baliabideak erabiltzen dira: akademiak, LHIK, urrutiko hezkuntza…

- Eraikina berritzeko proiektua dago, onesteko dagoena (tailerren eta biltegiaren eremua handitzea).
- Konpondu gabeko arazoei dagokienez hauek aipatu behar dira: adingabe atzerritarentzako dokumentazioa lortzeko arazoak (egoera okertu egin dela uste dute), beste babes edo erreforma zentroekin irizpideak bateratu edo koordinatzeko oztopoak, zentroentzako araubiderik ez izatea…

## 9. **Beharrezkoak diren zenbait hobekuntzari buruzko azken hausnarketak**

Aurreko urteko txostenean, kapitulu honetan bertan, azken atal bat sartu genuen, balorazio-atal bat, eta hor hobetzeko hainbat proposamen jaso ziren (2002ko txostena, 1.1.6 atala, 4. puntua).

Honaino laburbildutako informazioa Justizia Sailak gure datu-eskaerari emandako erantzunean eta zentroetara egindako ikustaldietan oinarrituta dago, eta aukera ematen du egin genituen zenbait proposamenekiko aurrerapen nabarmenak ikusteko. Nolanahi ere, badira hiru alderdi, hainbat arrazoirengatik oraindik ere hobetu beharrekoak direnak. Hauek dira funtsean:

1) Babes sistemen eta gazte justizia sistemaren arteko harremana sakon lantzeko beharra.
2) Auzitegi Nazionalak indarkeria-ekintzengatik zigortutako adingabeek neurria familiengandik hurbilago betetzeko aukera.
3) Zerbitzuen araubidea, bermerako beharrezko osagai gisa.

Alderdi horietan, uste dugu iazko txostenean egin genituen balorazio eta proposamenek baliozkoak izaten jarraitzen dutela.

Adierazitako hiru alderdi horietako lehenari dagokionez, oso posiblea da adingabe atzerritar lagundugabeei buruzko lan-txosten monografikoa egiterakoan berriz ere alderdi hori jorratzea. Dena dela, hurrengo jarraipenetan ere berriro hartu ahal izango dira gai horiek.

## 1.1.7. SAN FRANTZISKO ALDEAN POLIZIAK ATZERRITARREKIN IZANDAKO ZENBAIT JOKAERA DIRELA-ETA ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziak egindako jarduerekin lotuta Arartekoak izan duen esku-hartzea 1997 urtean hasi zen. Harrezkero eta 1998 urte osoan burututako egintzak urte hartako Arartekoaren urteko txostenean jaso ziren labur-labur (1998ko Txostena, I. Kapitulua, 1.6 atala). Gainera, 1999ko ekainaren 17an, Arartekoa Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Herritarren Eskakizunetarako Batzordearen aurrean urteko txostena aurkezteko izan zenean, gai honi buruzko dossier osoa eman eta aurkeztu zizkien Legebiltzarreko taldeei.

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrak, 1999ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, Bilboko San Frantzisko auzoko egoera liskartsuari buruzko legez besteko proposamen bat eztabaidatu eta onartu zuen, eta, besteren artean, ondoko hau erabaki zuen: "3.- Legebiltzarrak eskatzen du Arartekoak Bilboko San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziaren jardueren gaineko txostenean azaldutako gomendioak aplikatzea eta inplikatutako Administrazioek gomendio horiek betetzeko konpromisoa hartzea. Hori egiaztatzeko, Arartekoari eskatzen zaio sei hilabete barru jakinarazi ditzala egindako gomendioak zenbateraino betetzen diren eta horren gainean egiten duen balorazioa."

Legebiltzarraren erabaki hori betetzeko, Arartekoak 2000ko otsailaren 29an Eusko Legebiltzarreko buruari txosten mardula eman zion: *"San Frantzisko aldean atzerriko jatorria duten pertsonekiko poliziaren jarduerekin lotuta Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari egindako gomendioak betetzearen jarraipena"*. Txosten honetan jasotako datu guztiak bildu eta baloratzen ziren. Txosten honen laburpena, balorazioan oinarrituta, edo, zehatzago esateko, Arartekoaren gomendio eta proposamenak zenbateraino betetzen ziren, 1999ko txosten arruntean sartu zen (ikus I. atala, 1.1.8 azpiatala).

Aipatutako jarraipen txosten hori osatzeko datu bilketan ahalegin garrantzitsua egin behar izan zen eta bost informazio iturri, osagarriak batzuetan, oso balio desberdinekoak bestetan, erabili ziren: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arduradunen datu eta balorazioak; elkarteen datuak eta balorazioak; erakundean jasotako kexak; epaitegietako ebazpenak; prentsan agertutako albisteak. Informazioa eskuratzeko eta sistematizatzeko ahalegin handia egin eta Legebiltzarrak berak eskatutako txostena izan arren, Legebiltzarrean ez da horren inguruko inolako ekimenik edo eztabaidarik egon.

Horregatik, eta Arartekoa erakundearen ezaugarriak ikusita, gaiak zaila dela kontuan hartuta, azken hiru urte hauetan ez da inolako jarraipen sistematiko eta berezirik egin. Jarraipen mugatua eta zeharkakoa egin da bakar-bakarrik: jasotako kexak, prentsan agertutako albisteak, alde horretako elkarteekin egindako bilera eta elkarrizketak, Hontza gaueko zentroa zabaltzearekin, HIESaren Kontrako Batzordearen eguneko arreta zentroarekin edo Munduko Medikuak erakundeak zabaldu berri duen kontsumo-zentroarekin zerikusia duten esku-hartzeak eta polizia etxe batzuetara egindako bisitak.

- Aurten bi kexa jaso ditugu alde horretako polizia-jardueren gainean: lehenengoa, etorkinekin lan egiten duen pertsona batek aurkeztu zuen, zuzenean egintzen

lekuko izan baitzen; bigarrena, berriz, kaltetuak berak. Bi kasuetan, etxe-atarien barruan egindako miaketak eta gorputz arakatzeak salatu ziren (ikus kexen aipamena txosten honen Herrizaingo alorraren "Sarrera"n).

Jarduera horiek direla-eta, Ararteko erakundeak gomendio berezi bat egin zuen ("Hiritarren gauza pertsonalen kontrolak") *Poliziak Bilboko San Frantzisko aldeko atzerritarrekin izandako zenbait jokaerari buruzko* txostenean. Han behin eta berriz adierazi genuenez, kontrol horiek legeak baimendutako kasuetan bakarrik egin behar dira eta beti azalekoak izan behar dute; horrez gain, etxe atarien barruan edo toki itxietan ez direla egin behar azpimarratu genuen (ikus Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena 1998, 112. or.).

Kexei dagokienez, eta gomendio hori betez, informazioa eskatu diegu Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari.

– Inguru horrekin lotutako albisteak komunikabideetan ematen zaien trataerari dagokionez, aurreko txostenetan azaldutako arazoak antzematen dira oraindik ere zenbait informaziotan, batez ere informazio-iturria polizia bera denean. Hala ere, alde hori ikuspegi positibotik ikusten dutenak gero eta gehiago dira: esate baterako, erakundeek hobekuntza-proiektu jakinak zabaltzen lagundu dute, gizarte-agenteek solidaritate-ekimenak kulturara hurbiltzekoak egin dituzte.
– Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinakundearekin izandako harremana, azken urte honetan, polizia kontuetan barik, beste bide batzuetatik joan da, hiri izaera edo auzoko zerbitzu azpiegituran eragina duten gaiak landu dira.
– Alde hartan arrisku egoeran dauden biztanleak artatzeko baliabide jakin batzuei buruz, erakunde honek esku hartu du, ofizioz, auzokideen kexen ondorioz edo elkarteek eskatuta, baliabide horietako hirutan: Hontza gauez artatzeko zentroa, IHESaren aurkako Batzordeak egunez artatzeko kudeatzen duen zentroa, eta arrisku gutxiagorekin kontsumitzeko zentroa, Munduko Medikuek kudeatua; azken bi horiek Bailen kalean daude. Esku-hartzeak, normalean, alor hauetan egin dira, batez ere: hirigintza alorrean (zerbitzu bakoitza baimentzeko izapideak), poliziarekin zerikusia zuten kontuetan (inhibizioak edo bidegabetzat jotako jarduerak), edo kontrako jarrerak bateratzeko ahaleginetan. Azken kontu horri buruz, sarritan agerian jarri dira auzokide-taldeen arteko jarrera eta sentiberatasun-maila ezberdinak, eta interes eta eskubide ezberdinak bateratzeko eragozpenak.

  Azkeneko esku-hartzeetako bat hauxe izan zen: Ararteko bisitan joan zen Hontza zentrora eta arrisku gutxiagorekin kontsumitzeko zentrora -aurten zabaldua- iazko abenduaren 18an. Jarduera horietako batzuen gaineko informazioa ematen da txosten honetan bertan (ikus, adibidez, Gizarte Ongizate alorreko 925/2001 zenbakidun kexa).
– Azkenik, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren etxe batzuetara egindako bisiten eta hainbat kexen bidez, frogatu egin da, gomendatutakoaren kontra, biluzik gorputza miatzea ohiko jarduera dela oraindik ere, nahiz eta hori egin beharra argi geratzen ez den edo justifikatzeko arrazoiak beren beregi jasota uzten ez diren (2001eko VI. kapituluan gai honi buruzko gomendio orokorra dago eta 2003ko txosten honetan, I., 1.1.11 azpiatalean eta Herrizaingo Sailari dagokion alorrean aipamenak egiten dira).

Erakunde honen iritziz, inguru horretan aurreikusitako jarduera eta esku-hartze proiektu garrantzitsuek -batzuk, dagoeneko, oso aurreratuak- aurkeztutako arazo konpontzen lagundu beharko dute (izaera orokorreko gomendioetan zein jarduera polizialei buruzko gomendio espezifikoetan), bidea eman beharko dute inguru horretako gizarte-eragile eta elkarteekin elkarlanean jarduteko eta, azken batean, eragina izan behar dute auzoan bizi edo lan egiten duten pertsonen -tartean dira atzerriko jatorria duten pertsonak- kolektibo zabalaren bizitzeko baldintzetan.

## 1.1.8. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERAREN JARRAIPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen ezohiko txostena 1999ko abenduaren 22an atera zen jendaurrera eta eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko buruari. Gerora, 2000ko otsailaren 2an, Gizarte Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu zen. Bestalde, 1999ko urteko txostenean egindako azterlanaren laburpena jaso zen, eskubideen ikuspegi bermatzailetik, gure erakundearen iritziz kezkagarrienak ziren zazpi alderditan zentratuz.

2000 urtean lan bilerak izan genituen txosteneko edukien gainean oinarrizko unitateetako profesionalekin eta udaletako eta foru aldundietako zerbitzu hauen arduradunekin, lurralde historiko bakoitzean. Alorreko profesionalen partaidetza handiari (300 bat pertsona lau bileretan), eta Gizarte Ongizateko foru diputatuek laguntza aktiboari esker, txostenaren edukiak eta gomendioak zerbitzuaren artapenaren ardura daukaten pertsonengana zabaltzea eta haiekin harremanak izan eta, ondorioz, praktikan zerbitzua hobetzeko aukerak gehitu ahal izan ziren. Beraien arazo eta eskari batzuk zuzenean ezagutu ahal izan genituen, hala nola, gainditura zeudelako sentipena, gizarte lana egiteko zailtasuna landa eremu edo toki sakabanatuetan; lurralde eta udalerrien arabera ordainsari eta estatus profesionalen alde garrantzitsuak; behin behinekotasun egoeren proportzio handia; mugak gizarteratze itunak burutzeko; arazoak beste zerbitzu batzuekin koordinatzeko, zalantzak laguntza edo programa jakin batzuetarako kudeaketa formularik komenigarrienen inguruan (udalarena edo zentralizatua)...

Oinarrizko gizarte zerbitzuek iritsitako garapen mailaren gaineko gogoeta estrategikoa egin beharra zegoelako iritzia oso zabalduta zegoela antzeman zen, txostenean ere jasotako beharra, baita gizarte ongizateko politiken funtsezko elementu gisa etorkizunean zer izan behar duten gaiari buruz ere.

Orduan Gizarte Ongizateko hiru foru diputatuekin izandako bilerei esker arazo batzuk denon artean aztertzeko, hobetzeko aurreikuspenak eta aurrekontuzko zein eskumenezko muga nagusi batzuk ere ezagutzeko aukera eduki genuen.

Azkeneko horiek direla-eta, 2001eko otsailaren 8an erakundeen arteko ituna sinatu zen, gizarte programa eta zerbitzu desberdinei zegozkien erantzukizun eta eskumenak argitzea bilatzen zuena, hain zuzen –besteak beste, oinarrizko gizarte zerbitzuenak –erkidego mailako, lurralde mailako zein udal mailako erakundeen aldetik.

Bai itun orokorrak bai Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan sinatu ziren lurralde akordioek ere, EUDEL, hiru lurralde historikoetako foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak biltzen zituen Erakundeen Arteko Mahaiak gizarte zerbitzuen 5/1996 Legea garatzeko 2000ko azaroaren 9ko proposamena zehaztea zekarten. Proposamenak hainbat oinarrizko hatsarre ezartzen ditu: zerbitzu edo programa bakoitza administrazio bakarraren ardura izango da; foru aldundiek eta udalek elkarri eskumenak eskuordetzeko aukera daukate, zerbitzuen prestazio eragingarriagora lortzeko; beren kabuz moldatzen diren pertsonen artapena udalei dagokie, eta besteren mende daudenena foru aldundiari...

Oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Lurralderako 2001eko otsailaren 9ko Akordio-Markoak aitortzen du dagoen egitura ez dela nahikoa; bertan dio *"herritarren informazioa, balorazioa eta orientazioa, beren eskubideei eta dauden gizarte baliabideei dagokienez, udal eskumenekoak izango direla"*, eta *"gizarte zerbitzuen sistema osorako sarrerako ate gisa"* definitzen ditu, eta "Gipuzkoako Gizarte

Zerbitzuen mapa" egiteko konpromisoa jasotzen du, *"zerbitzuen prestazioari exijitzeko maila ezarriko duena, beren beregi lurralde, eskualde, azpi-eskualde eta udal mailako oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokienez".*

Bizkaiko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz, lurralde horretarako 2000ko abenduaren 29ko akordioak hauxe dio: *"Zerbitzu hauen mantentzea, langileen kostea sartuta beti, udalen eskumena izango da".* Eta beste hau gehitzen du: "*Foru Aldundiak prestakuntza, aplikazio, gurutzaketa informatikoetan laguntzearen eta aplikazio esparrua Bizkaia deneko gizarte programak ezartzeko koordinaketaren kalterik gabe izango da*".

Aurreko gure txostenean agerrarazi genuen bezala, lortutako akordioek adierazitako arazoak konpontzeko eta Arartekoaren hainbat txosten monografikotan egindako gomendioak aplikatzeko borondate garbia erakusten zuten, oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko berariazko atalean barik beste batzuetan ere. Gure erakundearen ustez, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetzeko eginkizunak argitzeko bidean urrats garrantzitsua ere baziren, eta ondorengo jarraipenetarako erreferentziazko bitartekoa ziren.

Akordio horiek oinarritzat hartuta, Arartekoak ofizioz, Gizarte Ongizateko foru diputatuetako bakoitzarengana eta EUDELeko buruarengana jo zuen, informazio eske. Eskatutako informazioa funtsean, ondokoei buruzkoa zen:

1. Lurralde edo eskumen esparru bakoitzean gure 1999ko txostenean egindako 21 gomendioetako edozeinetan egindako aurrerapenak.
2. Lau erakundeetako bakoitzak akordio horiek aplikatzeko orduan aurkitutako oztopoen edo akordio horietatik sortutako hobekuntzen gainean egiten duen balorazioa.
3. Zenbait konpromiso zehatzetan, hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Akordio Markoan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Mapa taxutzen egindako aurrerapausoak.

2002ko azaroaren 27an eskatu ziren argibide horiek, eta erantzunak aztertu, laburtu eta iazko txostenean sartu ahal izan ziren (ikus 2002ko txostenaren 1.1.8 atala).

Ikusten denez, erantzunen zehaztasun-maila aldatu egiten da administrazio batetik bestera. Edonola, horiei esker, hobeto ezagut daitezke oinarrizko gizarte zerbitzuak hobetzerakoan eta gomendioak betetzerakoan izandako aurrerapenak eta eragozpenak; halaber, erantzunek lurraldeen artean alde nabarmenak daudela ere erakusten dute…

Erabilitako jarraipen-bideak bere mugak ere agerian utzi zituen. Iazko gure txostenean zera ondorioztatu genuen: "oinarrizko gizarte zerbitzuen sakabanaketak eta beren udal eraketak oso egoera desberdinak izatea dakar, eta profesionalen jarduerari eta herritarrei izatez ematen zaien zerbitzuari lotuago dauden gaien gaineko jarraipena egitea oztopatzen dute".

Kontuan izanik zer-nolako eragozpenak dauden udalerri bakoitzari buruzko informazioa lortzeko, eta iaz lortutakoak -gutxienez, Arabari eta Gipuzkoari zegokienak- eguneratutako hainbat datu eman zituela (ikus 2002ko txostena, I atala, 1.1.8 azpiatala), aurten jarraipen-jarduera berezirik ez hastea erabaki dugu.

Nolanahi ere, oinarrizko gizarte zerbitzu batzuetan arazoak sortu direla jakin dugu, Erandion esaterako, egonkorrak ez diren egoera profesionalak direla-eta; horrek eragin kaltegarria du zerbitzuaren iraunkortasunean eta, beraz, herritarrei eskaintzen zaien arretan.

## 1.1.9. EAE-N BURU-GAIXOEI EMATEN ZAIEN GIZARTE-ARRETAREN GAINEKO JARRAIPENA

2000ko ekainaren 19an Arartekoak buruko gaitzaren ospitaletik kanpoko trataerari buruz egindako ezohiko txostena aurkeztu eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari entregatu zion, eta urte bereko urriaren 26an Giza Eskubide eta Herritarren Eskabideetarako Batzordean eztabaidatu zen. Azaroaren 16an Osasun sailburuak, berak hala eskaturik, agerraldi bat izan zuen Legebiltzarreko Osasun Batzordean.

Txostenean 18 gomendio luzatzen zaizkie hainbat administraziori eta Osasun Salari. Izan ere, buru-gaixo kronikoen beharrak eta alorreko erantzukizunak zehazterakoan zailtasunak izan genituen, hein batean, asko direlako arlo horretan ardura duten administrazioak eta zerbitzuak. Gauza bera gertatzen zaigu izandako aurrerapenak baloratzean.

2001ean, gomendioen betetze-maila neurtzeko bi bide erabili genituen, biak elkarren osagarriak: batetik, informazioa elkartrukatu zen FEDEAFESen bildutako buru-gaixoen senideen elkarteekin, eta bestetik, datuak eskatu zitzaizkion Osasun sailbururi. Sailari eskatutako informazioa nahiko zabala zen, datu orokorrez gain informazio zehatzagoa eskatu baikenuen, bilera batean buru-gaixoen senideekin elkarteek azaldu zizkiguten kezka nagusien haritik. Zehazki, Osasun arloko arduradunen iritzia jaso nahi genuen elkarteek planteatutako lau arazo nagusiren gainean:

- Psikosi errefraktarioko unitatean zeuden murriztapenak.
- Lurraldeen artean irizpide desberdinak erabiltzen ziren gogoz kontrako ospitaleratzeetan.
- Arazoak kasuen jarraipenean eta profesionalen koordinazioan.
- Gehiegizko lan-zama buru-osasuneko zentroetan; horren ondorioak.

Erantzun moduan, Osasun Sailetik Osakidetzako Laguntza Psikiatriko eta Buru-Osasuneko arduradunak egindako dokumentu bat bidali zigun, eta harekin batera, balorazio bat, Arabako Ospitale Psikiatrikoaren Psikosi Errefraktarioko Unitatearen lehen urteko funtzionamendua aztertzen zuena. Dokumentuaren lehen atalean txostenaren 18 gomendioetako bosti lotutako alderdiak atertzen ziren, eta bigarrenean gorago azaldu ditugun lau gaiak. Hona hemen erantzundako bost gomendioak:

- Bitarteko baliabideak indartzea (txosteneko 5. gomendioa).
- Adingabeentzako berariazko zerbitzuak handitzea (6.a).
- Birgaitze zerbitzuen erabilera bermatzea (10.a).
- Zerbitzuen kalitatea kontrolatzea eta ebaluatzea (12.a).
- Tutoretza fundazioen sorkuntza bultzatzea (15.a).

Esan bezala, erantzunak bost gomendio horiek izan zituen ardatz. Hutsuneak onartzen zituen gomendio bakoitzaren inguruan, informazioa eskaintzen zuen zenbait zerbitzu berriri buruz edo hartutako erabakiei buruz, edo egingo ziren hobekuntza lanak azaltzen ituen, gutxi-asko zehaztuak. Laburbilduta, erantzuna urteko txostenean jaso zen (ikus 2001eko Txostena, 1.1.9 atala).

2002ko jarraipenak adierazi diren bi gai aukeratu zituen lan-ildo nagusitzat:

1. Tutoretza fundazioen egoera.
2. Gogoz kontrako ospitaleratzeak dakarren judizializazio anbulatorioa.

Iazko urteroko txostenean egoera luze aztertzen zen, bereziki lurralde bakoitzeko tutoretza fundazioen egoerari dagokionez (ikus 2002ko Txostena, 1.1.9 atala).

2003an lehengo jardute batzuekin jarraitu genuen, eta beste batzuei ekin genien:

- FEDEAFESeko elkarteekiko harremanari eutsi diogu haien kezken berri izateko, eta ofiziozko jardute batzuk abiarazi ditugu.
- Parte hartzen jarraitu dugu judizializazio anbulatorioa aztertzeko eratu diren erakunde arteko eztabaida-lekuetan.
- Gai horiei heldu diegu eta proposamenak egin ditugu Defendatzaileen Koordinaziorako Jardunaldietan.
- Haurrentzako artapen psikiatrikoari heldu diogu berriro, eta horren haritik, Sondikako La Ola hezkuntza-terapiarako eguneko zentroa bisitatu genuen.

Hona hemen jardute horietako batzuk:

## 1. FEDEAFES-Euskadiko Buru-gaixoen Senideen Elkarteen Federazioak planteatutako arazo nagusiak

Federazioak edo bere elkarteek antolatutako ekitaldietan parte hartzeaz gain, Arartekoak hala eskaturik, azaroaren 12an bilera bat izan genuen haien ordezkariekin. Bereziki zortzi gai planteatu zituzten, hona laburbilduta dakartzagunak:

### 1.1. Pisu babestuak

Beren esperientzian oinarriturik eta terapiaren ikuspegitik, elkarteek adierazten dute buru-gaixo batzuek famili ingurunetik kanpo bizi beharra dutela. Pertsona horietako askok laguntza eta ikuskapenaren beharra dute beregain jardun ahal izateko, eta haien ustez horretarako aukera egokiena pisu babestuak dira.

Gehienetan, pertsona horiek ez dute diru-sarrera propiorik, eta horregatik zailtasun handiak izaten dituzte alokairuaren eta mantenuaren gastuei aurre egiteko. Gainera, lan babestua eta ordaindua izan arren ezin dute babes ofizialeko etxebizitzarik eskuratu, ez baitituzte horretarako baldintzak betetzen.

Azaldutakoagatik, ordezkarien ustez, buru-gaixoen eta beren senideen elkarteek aukera izango balute Euskadin eraikitzen diren gizarte-pisuen hainbateko eskuratzeko eta pisu babestu bihurtzeko, bide egokia irekiko litzatekeela helburua gauzatzeko. Horretarako oraingo irizpide batzuk berraztertu beharko lirateke.

### 1.2. Egoitza txikiak

Bizitoki arazoak egoki bideratzeko asmoz, elkarteek 10 edo 15 lagunentzako egoitza txikiak sor daitezela eskatzen dute. Haietan, beregain jarduteko gai ez diren pertsona horiek etengabeko laguntza jasoko lukete eguneko 24 orduetan.

1.3. **Laudioko Buru-osasuneko Zentroa**

Proiektuak hamabi bat urte dituen arren, Osakidetzak orain arte atzeratu du Laudioko Buru-osasuneko Zentroaren geroaz hartu beharreko erabakia. Izan ere, zentro horrek irekita egon beharko luke adinekoen egoitza zaharrean, eta atzerapenaren arrazoia aurrekontua omen da, Osasun Sailak proiekturako aurreikusten zuen diru kopurua (360.000 +) hiru aldiz handitu baita gutxienez.

Dirudienez, sailak eraikina eraitsi eta haren ordez beste bat eraikitzeko asmoa darabil; gogoan duen beste aukerari jarraiki fatxadak mantendu eta egitura zaharberrituko lirateke, berau termitek erasanda baitago duela urte batzuetatik hona. Aurreproiektuak daude bi egitasmoetako edozeini ekiteko.

Oraingo buru-gaixotasuneko zentroa herriko pisu batean dago eta irisgarritasun arazoak ditu. Elkarteen iritziz pisua ez da nahikoa alde horretako pazienteen beharretarako, eta ondorioz, Gasteizera joan behar izaten dute tratamenduak betetzeko.

Aurrekoa ikusita, premiazkotzat jotzen dute buru-osasuneko zentro berri bat eraikitzea. Haien ustez, buru-gaixoentzako artapena hobetuko litzateke, espazioa nahikoa bailitzateke psikiatria, erizaintza eta gizarte laguntzarako kontsultak antolatzeko; horretaz gain, zereginetako tailerrak eta eguneko zentro bat izan beharko lituzke; senideen elkarteak ere espazio tarte bat luke aisia-tailerrak antolatzeko eta Aiala bailarako gaixoei birgizarteratzea errazteko.

Gaiaren inguruan jasotako informazioa azterturik, Arartekoak ofiziozko jardute bati ekin zion Osasun Sailaren aurrean, baina oraindik ez du erantzunik izan.

1.4. **Erreferentzia-pertsona**

Elkarteek azpimarratzen dute koordinazio handiagoa behar dela gaixo kroniko-akutuei ematen zaizkien zainketen jarraipenari dagokionez, pazienteak bere tratamendua bermatuko duen erreferentzia-pertsona bat izan dezan.

Haien iritziz, horretarako, beharrezkoa litzateke, botere publikoen esku-hartzeaz gain, erabiltzaile bezeroarekiko lotura eta profesionalen, bezeroen eta –hala badagokio– senideen arteko negoziazioa.

1.5. **Enplegua**

Elkarteen ustez beharrezkoa da, bestelako ereduen aldean, “enplegu lagundua” bultzatzea.

Ildo horretatik, gure ezohiko txosteneko proposamenen eta gomendioen alde agertu ziren (*Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*).

1.6. **Diru-laguntzak**

Elkarteek salatzen dutenez, eragozpen handiak izan dituzte beren programak eta jarduerak burutzeko, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekintzarako Sailak, berandu emateaz gain, murriztu ere egin dituelako diru-laguntzak. Bi arazo horiengatik (erabaki berantiarrak –2003ko laguntzei dagokionak erabaki gabe zeuden azaroan– eta laguntzen murriztapenak aurreko urtekoen aldean) burututa dauden ekimen askok (udalekuak, adibidez) arazoak izaten dituzte geroago finantziazio urriagatik.

Aurrekoaren erakusgarri, ASASAMek (Aiarako Bailarako Elkartea) kudeatzen duen etxeko tratamendu eta orientabiderako zerbitzuan izandako eragin kaltegarriak.

Lehenago ere, Arartekoak esku hartu behar izan zuen administrazioak arlo horretan izandako funtzionamendu okerragatik (ikus, adibidez, 1995eko Txostena, I. kap., 2.2.1 atala). Edonola ere, azken urte honetan, bide formaletatik zein informaletatik, elkarte asko agertu zaizkigu kexu beren programak eta planifikazioak kalteturik geratzen direlako berandu egiten diren deialdiak eta erabakiak direla medio.

### 1.7. **Konfidentzialtasuna**

Informazioaren konfidentzialtasunari dagokionez, elkarteek onartzen dute pazienteak begirunea eta errespetua jaso behar duela profesionalarengandik, baina uste dute aintzat hartu beharko liratekeela haren zainketen jarraipenaz arduratuko diren familiak, tutoreak edo erreferentzia pertsonak, zuzeneko zaintzaileak diren aldetik, lehen eskuko informazioa eman baitezakete prozesu terapeutikoren gainean. Elkarteen iritziz, gainera, eragile horiek ez dute beti jasotzen beharrezkoa zaien informazioa.

### 1.8. **Zuzeneko zaintzaileak**

Puntu honen inguruan ondoko eskaerak egiten dira:

- “Entzun egin behar zaie zaintzailei, jakin baitakigu kontsultako minutuak patologiak berak adierazten duena bezain engainagarriak gerta daitezkeela, eta horren aurrean beraiek eman dezakete informaziorik fidagarriena pazienteren egunerokoaz.”
- “Geu ere zaindu behar gaituzte, eta zaintzaile jarduten jarraitu ahal izateko honakoak behar ditugu: prestakuntza, laguntza taldeak, atseden zerbitzuak, eta prozesu terapeutikoan betetzen dugun zeregina aintzat hartzea”.

Azaldutako zortzi puntuen haritik, bestelako galdekizunak ere azaleratu ziren, txostenaren gomendioei edo edukiari lotuak:

- Araba eta Bizkaiko osasun eta gizarte arloetako mahaiak ez aurrera ez atzera daude, eta horrek eragina du egoera argitzean.
- Arabako gaixo akutuentzako eguneko zentroa lanez gainezka dago.
- Beharrezkoa da jardute-protokoloak edo aginduak ematea Ertzaintzari.
- Gogoz kontrako tratamenduak...

## 2. **Judizializazio anbulatorioa**

Ospitaleratzea saihesteko buru-gaixo batzuei ezartzen zaien tratamendu anbulatorioari dagokionez, erakunde hau harremanetan jarri da gaian interesa duten beste defendatzaileekin eta elkarteekin, eta era berean, parte hartu du instituzioen arteko eztabaida-lekuetan, hala nola buru-gaixotasun larrietarako tratamendu anbulatorioei buruz egindako tailerrean, Bilbon. Tailer horretako ebazpenak txosten honetan jaso dira (ikus Osasunari buruzko atalaren “Sarrera”: 11.1).

## 3. **Herriaren Defendatzaileen Koordinazio Jardunaldiak**

Toledon eta Albaceten 2003an egin ziren Jardunaldietan buru-gaixoen egoera aztergai bakarra izan zen. Txosten honetako I. eranskinean Arartekoak aurkeztutako

txostenaren edukia eta ondorioak ukitzen dira ("Haurren eta gazteen buru-osasunerako eta psikogeriatriarako baliabideak eta zerbitzuak").

## 4. Buru-osasuna haur eta nerabeetan. La Ola hezkuntza eta terapia zentrora egindako bisitaldia

Haur eta nerabeen buru-osasuna zehatz aztertu zen buru-osasunerako artapen komunitarioari buruz osatu genuen ezohiko txostenean (4.6, 4.7 edo 3.4 atalak). Besteak beste, honako beharrak azpimarratu ziren:

– Haurrentzako psikiatria zerbitzuen deszentralizazioa.
– Profesional espezializatuen kopurua handitzea: haur-psikiatrak eta psikologoak.
– Lurralde bakoitzaren eta bertako eskualdeen bitarteko egiturak eratu beharra.
– Gizarte, hezkuntza eta osasun arloetako batzordeak bultzatzea.
– Elikadura arazoetarako programak berraztertzea...

Han egindako gomendioetako batzuek zerikusia zuten biztanle-tarte honekin. Adibidez, 6. gomendioan ondoko hau proposatzen zen:

> *"Adingabeei zuzendutako zerbitzuak handiagotzea.*
> *Txosten honetako datuetan nabarmen ageri da adingabeentzako artapen maila murritzegia dela. Horren erakusgarri:*
> – *Haur eta nerabeentzako psikiatria baliabideak oso gutxi dira, eta bitarteko egituretan egon ere ez dago horrelakorik;*
> – *artapen goiztiarreko programak, eguneko zentroak, zereginetako programak, etab. behar dira autismo kasuetarako;*
> – *gero eta maizago azaleratzen diren arazo "berriek" (elikadura arlokoak: anorexia eta bulimia) ez dute behar bezalako erantzunik jasotzen...*
> *Premiazkoa da, beraz, adin tarte honetakoek behar diren artapena eta baliabideak edukitzea."*

Osasun sailburuak berak aztertu zituen galdekizun eta proposamen horiek, baina harrezkero behin eta berriz iritsi dira erakunde honetara, elkarteek zein babes-sistemetako arduradunek planteaturik, eta babes eta erreforma-zentroetara aldizka egiten ditugun bisitaldietan ere horrelakoak azaleratu dira.
Bestalde, aipatutako txosten hori plazaratu eta hilabete gutxira beste baliabide bat hasi zen jardunean Bizkaiko Lurralde Historikoan (Sondikan): La Ola eguneko hezkuntza eta terapia zentroa.
2004ko otsailaren 10ean Arartekoa bera eta erakundeko beste kide batzuk zentro horretara agertu ziren, haren funtzionamenduaren berri lekuan bertan jasotzeko. Hona hemen, laburbildurik, datu adierazgarri batzuk:

– Zentroa 2000ko azaroaren 29an hasi zen martxan, La Olako instalazioen jabea den BBK-k Hezkuntza Sailarekin eta Osasun Sailarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz.

- Izatez, zentroak ez zuen sorrera formalik izan, hitzarmenaren arabera alderdi bakoitzak baliabide multzo bat (langileak, materialak...) jartzen baitu erabilgarri, eta hortxe datza zentroaren funtzionamenduaren oinarria.
- Hasieratik bi talde edo ikasgelatan bildutako hamar bat adingaberi ematen die artapena: 8-9 mutil eta neska 1 edo 2 dira. Azken urteotan, guztira, 27 adingabe (2 mutil eta 4 neska) egon dira bertan, eta batez besteko egonaldia urtebete eta erdikoa izan da.
- Pentsatzekoa denez, hasierako proiektuan beharrezko ezaugarri guztiak hartu ziren kontuan: zentroren helburua; erabiltzaileen ezaugarriak; sartzeko prozedura; osasun eta hezkuntza langileak; familiekiko harremanak; zentroaren oinarrizko dokumentuak, etab.
- Esperientziak hala adierazita, aldaketa batzuk egin dira hasierako proiektuan: adingabeen adina 10-14 urtetik 9ra jaitsi da; aldatu dira, halaber, harrera orduak eta zentro arruntekiko harremanak (astean, 4 arratsalde jatorrizko zentroetan)...
- Eguneko zentroa eraikin bereizi batean dago, La Olako instalazioetan kokaturik. Azpiegiturari dagokionez, bi ikasgela, gimnasioa edo estalpeko gunea, bulegoak, bilera gelak, komunak, logelak, tailerrak e.a. ditu. Horretaz gain, Hezkuntza Bereziko Ikastetxearekin batera bestelako zerbitzuak ere erabiltzen ditu: jangela, gimnasio zabal bat, jarduera anitzetarako lokalak eta ondo zaindutako guneak kanpoaldean.
- Zentroko langileak espezialistak dira. Haietako batzuk Hezkuntzari lotuta daude (6 lagun zerbitzu eginkizunetarako: koordinatzaile 1, pedagogia terapeutikoko 3 irakasle eta 2 laguntzaile), eta besteak Osasunari atxikiak dira (psikiatra bat, psikologo 1, eta lanegun erdiko arduraldia duen logopeda 1).

  Praktiketako langileek eta boluntarioek taldea indartzen dute; bestalde, astean behin Uribe-Kostako Buru-osasuneko Zentroko psikiatra bat joaten da zentrora, eta hilean behin Berritzeguneko profesional bat.
- Espedienteak zentroan gordetzen dira, giltzapean, eta gurekin bileretan egondako langileek argi adierazi zuten bere egiten dutela konfidentzialtasun printzipioa, nahiz eta ez dagoen horretarako araudi edo protokolo zehatzik, sektore bakoitzarenak diren irizpide orokorrak salbu.
- Haurrek berek parte hartzen dute elkarbizitzarako arauak eztabaidatzean eta onartzean; ez dago barne araudirik.

Interes handia genuen oraingo plaza kopurua (10) dauden beharretarako adina diren jakiteko; izan ere, kontuan eduki behar dira ondoko datuak:

- Mota horretako zentro bakarra da Bizkaian.
- Hasierako proiektuan jasotzen zenez, esperientziaren arabera zentroaren tamaina handitu egin zitekeen gerora, 4 ikasgela eduki arte.
- Zentroak itxarote-zerrenda izaten du (bisita egin zenean, 6 adingabe zeuden sartzeko zain, eta denek betetzen zituzten baldintza guztiak).
- Oraindik ere baliabide hori ez da oso ezaguna jende artean, eta beraz, gerta liteke adierazi gabeko beharrak eta kasuak egotea.
- Zentroak ez du neraberik hartzen.

Zentroko langileen iritziak jasota, eta bildutako datu eta balorazioetan oinarriturik, erakunde honen ustez beharrezkoak dira horrelako baliabide gehiago, eta ondorio horretara iristeko nahikoa litzateke itxarote-zerrendei erreparatzea. Bestalde, uste dugu zentroari egindako eskabideak aztertu eta iragazki egiten direla, lehenago ezarritako baldintzak eta prozedurak beteta.

Dagoen beharrari eusteko, beharbada nahikoa litzateke plaza kopurua 15 edo 20 arte handitzea, eta horrek, noski, espazio handiagoak eta langile gehiago eskatuko lituzke. Gerta liteke, ordea, emaitza hobeak lortzea beste leku batzuetan gutxi-asko antzerakoak diren baliabideak ezarriz. Azken aukera horri helduz gero, nolabaiteko deszentralizazioa lortuko litzateke, bidaia batzuk laburtuko lirateke, eta erreferentzia zentroak eta familiak gertuago egongo lirateke.

Komenigarria litzateke, bestalde, zentroak araudi argiagoa eta bermatzaileagoa izatea, behintzat eskubideekin lotura zuzenena duten ezaugarriei dagokienez: sartzeko irizpideak, itxarote-zerrenden kudeaketa, barne araubidea, txostenen konfidentzialtasunerako bermeak... Argitasun neurri horiek mesedegarriak lirateke bai erabiltzaile zein beren familientzat eta bai bertan diharduten profesionalentzat ere.

Aurrekoak, esan bezala, Bizkaiko datuak dira.

Gipuzkoari dagokionez, Arartekoak zenbait erakundek osatutako proiektuaren berri izan du (*"Nerabeen eguneko hezkuntza eta terapia zentrorako proiektua"*, osasun eta hezkuntza arloetarako haur eta gazte azpibatzordeak Osakidetza, Hezkuntza Sail eta Gizarte Ekintzarekin elkarlanean taxutua). Proiektuak La Olarekin dituen desberdintasunak eta antzekotasunak gorabehera, ez dago zalantzarik haren beharra dagoela.

Txosten honetan jasotako hezkuntza behar berezien jarraipenaren haritik, Arartekoak informazioa eskatu du –baita dagoeneko jaso ere– goian azaldutakoari buruz (ikus txosten honetako 1.1.10 atala).

Emandako lehenbiziko erantzunean, 2003ko martxoaren 6an hartuan, La Olako zentroaz aritu ondoren Hezkuntza Sailak ondokoa zioen: *"Beste hitzarmen bat sinatzekotan dauka, OSAKIDETZArekin, Araban antzeko zerbitzu bat antolatzeko; OSAKIDETZA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIArekin batera ere proiektu bat prestatzen eta zehazten ari da, arazo disozialak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko"*.

Hilabete batzuk geroago, 2003ko urrian, informazio gehiago eskatu zitzaion Sailari, eta 2004ko urtarrilaren 30eko idazkian ondoko erantzuna jaso zen: *"Osakidetza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko Hitzarmenak, buru-gaixotasuna duten ikasleen arazoei erantzutekoak, lehengo egoera berean daude gutxi gorabehera, eta ardura handia dira Sail honentzat."*

Dirudienez, bada, baliabide horien eske jarraitu beharko da, eta helburu horrekin Arartekoak ofiziozko jardute gehiago aurkeztea darabil gogoan, dagokion Sailetan aurkezteko (Osasuna, Hezkuntza eta foru aldundietako Gizarte Ekintzarako sailak).

## 1.1.10. EAEko HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEI EMANDAKO ERANTZUNARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

Erakunde honek egindako *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* izeneko txostena argitaratu eta Legebiltzarreko presidenteari eman zitzaion 2001eko ekainaren 22an, eta urte horretako abenduaren 12an Legebiltzarrean eztabaidatu zuten.

Urte hartako ohiko txostenean laburpen bat egin zen, 10 gai kezkagarrienak eta egindako 21 gomendioak berriro adieraziz. Eta Hezkuntza-administrazioari bidali genizkion 21 aholkuen artetik, aurrenekoak azpimarratu genituen, duten garrantziagatik eta gure hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrean eta sistemaren lehentasunetan eragina dutelako: bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna ematea eta, hortaz, kontuan hartzea lehentasun hori Haur Hezkuntzako zero eta hiru urte bitarteko tartea arautzen denean; baliabideak esleitzerako orduan diskriminazio positiboa egitea bazterturiko ikaslerik gehien duten ikastetxeen alde; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea...

Geroago, 2002ko ekainaren 17an, Hezkuntza sailburuarekin eta sail horretako arduradun nagusiekin bildu ginen; bileran, beste batzuen artean, txostenarekin lotutako gaiak aztertu genituen eta txostenean jasotako aholkuen jarraipena egiteko premia adierazi.

Bilera hartan ahoz esandakoarekin bat etorrita, erakunde hau, 2002ko azaroaren 4an, ofizioz zuzendu zitzaion Hezkuntza sailburuari hasierako informazioa, orokorra, biltzeko asmotan. Informazio hori berriro eskatu zen 2003ko urtarrilaren 22an.

Iazko gure txostenaren azken paragrafoan hauxe adierazi genuen: “Txosten hau idatzi eta ixteko unean (2003ko otsaila), ez dugu inolako erantzunik jaso eta, horregatik, ezin izan dugu garaiz jakin zenbateraino bete diren gure gomendioak, ezta haien berri eman ere. Erantzuna, azkenean, martxoaren 6an jaso dugu, txosten hau bete-betean argitaratze-prozesuan dagoenean. Beraz, datorren urteko txostenean jakinaraziko eta aztertuko dugu.”

Beraz, Hezkuntza Sailak bere erantzunean emandako oinarrizko datuak bilduko ditugu hemen. Agiri hori 2003ko martxoaren 6an jaso genuen eta izenburu hau du: *“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Arartekoaren 2001eko ekaineko ‘EAEn hezkuntza premia bereziei emandako erantzuna’ txostenari dagokionez garatzen dituen ekintzen egoera”.*

Bestalde, atal bakoitzari dagokionez, guk 2003ko urriaren 6an eskatutako informazio osagarria ere jakinaraziko dugu, baita sail horrek 2004ko urtarrilaren 30ean emandako erantzuna ere.

Argiago ikus dadin, eta hiru agiri luze direla kontuan izanik, informazioa atalez atal laburtuko dugu, gomendioen hurrenkerari eta txostenean bereizten diren bost multzoetako bakoitzari jarraiki.

* * *

## 1. HEZKUNTZA-SISTEMAREN ANTOLAKETA OROKORRARI ETA BERE LEHENTASUNEI DAGOZKIEN GOMENDIOAK

### 1.1. Bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna eman (1. gomendioa)

- Hezkuntza Sailaren lehen erantzuna 297/2002 Dekretuan oinarritzen da -Haur eskolak 2002-2004 aldirako arautzekoa-, eta berariaz aipatu ditu 2 eta 4. artikuluak, eta lehen xedapen gehigarria ere bai, bada horietan adierazten da ikasle baztertuenak artatzean eman beharreko lehentasuna.
- Haatik, guri ez zaigu ardura, bereziki, zein irizpide erabili behar den -Euskal Eskola Publikoaren Legean jada finkatutakoa-, baizik eta egiaz nola aplikatzen den. Aipatu artikuluak kontuan izanik, zera jakin nahi dugu, zehatz-mehatz:

**1.1.1.** Lehentasun hori nola islatu den 0-3 urte bitarteko oraingo mapan (2003-2004 ikasturtea): “Lehentasuna izango dute gizarte eta ekonomi maila apaleneko aldeek eta, orokorrean, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzazkoak dituzten ikasleek, Euskal Eskola Publikoaren Legeak 9. artikuluan -2. atalean- ezarritakoaren arabera”. (Dekretuaren lehen xedapen gehigarria).
Hau da, irizpide hori zehazki nola aplikatu den jakin nahi dugu; nola islatu den orain sortutako plazetan edo ikastetxeetan, edo lehendik jardunean zeudenetan; nola zabaldu den alderik baztertuenetara...

**1.1.2.** Ea benetan erabili den, non eta zenbat bider, 4. artikuluan ezarritako irizpide berdintzailea, unitate bakoitzeko gehienezko ratioa gutxitzekoa.

Horregatik, sail horri informazio osagarria galdatzean, irizpide horren benetako eta oraingo aplikazioari buruzko datuak eskatu genizkion.

- Hezkuntza Sailaren erantzunak, 2004ko urtarrilaren 30ekoak, Haurreskolak partzuergora bidaltzen gaitu, horixe baita etapa hori neurri handi batean kudeatzeko arduraduna, eta partzuergo horrek haurrak onartzeko erabiltzen dituen irizpideetara (“Haurrak onartzeko argibideak”): minusbaliotasuna; harrera egoera; gizarteak esku hartzeko premiak, e.a.
“Baliabideen mapa”ri dagokionez, hauxe baino ez du adierazten: “Patzuergoak kudeatutako Eskolaurreko ikastetxeak ezartzeko irizpide batzuk erabiltzen dira, ondorengoak besteak beste: Patzuergoan sartzeko udalerriaren borondatea, espazioak izatea, gizarte-egoera ahuleko egoera edo zonaldea, eskaintza publiko eta pribatuaren urritasuna eta gizarte-egoera ahuleko biztanleen indizea.
Ikuspuntu horretatik ez dago ‘mapa bat’ zentzu hertsian esanda; aitzitik, adin horretan ematen den hezkuntza- eta laguntza-erantzunean sartzeko dagoen borondateak zehazten du eskaintzaren garapena”.
- Eskura dauden datuak ikusirik, ez dirudi, bada, egoera ahulenean dauden ikasleak lehentasunez eskolatzea lortzen ari denik, erakunde honek gomendatu zuen bezala. Aldiz, eskola plazak horretarako ekimen pribatua edo udalarena dagoen tokietan sortzen dira, eta ekimen hori bat etor liteke ala ez gizarte-

egoera ahuleneko aldeekin. Erakunde honek zera uste du: interesdun guztientzat eskola-eskaintza ez dagoen bitartean, legeak ezarritako konpentsazio edo diskriminazio positiboaren irizpideak nagusitu behar duela, eta hori lortzeko, ezinbestekoa dela erakundeek esku hartzea eta plangintza burutzea.

**1.2.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea (3. gomendioa)

Sailak 2003ko martxoan bidalitako erantzunean, hiru talde bereizi eta azpimarratu zituen:

a) Minusbaliotasun batekin lotutako hezkuntza-premia berezia duten ikasleak.
b) Ikasle etorkinak.
c) Ikasle ijitoak.

Hemen laburtuko dugu talde bakoitzari buruz jasotako informazioa.

**1.2.1.** Minusbaliotasun batekin lotutako hezkuntza-premia berezia duten ikasleak.

Sailaren lehen erantzunean, ikasle horiek eskolatzeari buruzko datu orokorra eman zen: % 60 sare publikoan eta % 40 itundutako sarean. Eta sail horren ekintza positiboari (itunaren bidez) eta gizartea sentiberago izateari esker, banaketan oreka handiagoa lortu zela uste zen.

Datu osagarriak eskatu genituenean, oraingo ikasturteari buruzko datuak eskatu genituen. Honako hauek dira Hezkuntza Sailak 2003-2004 ikasturterako emandako datuak:

Datu horien arabera, % 58ri sare publikoan eta % 42ri itunpeko sarean ematen zaie arreta.

| | SARE PUBLIKOA | ITUNPEKO SAREA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Haur eta Lehen Hezkuntza | 3.341 | 1.985 | 5.326 |
| DBH | 1.706 | 1.596 | 3.302 |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa | 216 | 163 | 379 |
| | **5.263** | **3.744** | **9.007** |

**1.2.2.** Ikasle etorkinak.

- Bere lehen erantzunean, Hezkuntza Sailak zenbait gogoeta helarazi zizkigun ikasle etorkinak gero eta gehiago izateaz, horrek hezkuntza-sistemari zekarkion erronkaz, eta antolatzeko zenbait neurri ezartzeaz, beharrei hobeto aurre egiteko: lurralde bakoitzean zenbait arduradun eta koordinatzaile nagusi bat izendatzea; eskolatzeko lurralde batzordeak; etorkizunean "Ikasle Etorkinak Artatzeko Plana" egitea.
- Informazio osagarria alderdi hauei buruz eskatu genuen:
  - Eskolatzeko Lurralde Batzordeak zein irizpide, arau edo neurri erabiltzen edo hartzen ari diren gure gomendioaren helburua lortzeko (ikasleen banaketa orekatua bermatzea eta eskola-ghettoak saihestea).

- Ikasle horien banaketari buruzko datu gaurkotuak (lurraldeen, sareen, eta abarren arabera).
- Zein alditan dagoen “Ikasle etorkinak Artatzeko Plana”, izan ere, martxoko idazkiaren arabera, orduan plan hori prestatzen ari zen.

• Matrikulatzeko irizpideak direla-eta, sail horren erantzunean -2004ko urtarrilaren 30ekoan-, honako hauek aipatzen dira: “Ikasle etorkinak EAEn ohiko epez kanpo eskolatzeko prozesua arautzera bideratutako argibideetan, Hezkuntza Sailburuordeak 2003ko irailaren 29an emandakoetan” ezarritako irizpideak:
  1. Hizkuntz normalkuntzarako prozesuan integratzea, gehien eskatzen diren B eta D ereduen bidez.
  2. Ikastetxea familiaren helbidetik hurbil egotea.
  3. Fondo publikoen bidez sostengatutako ikastetxe (publikoak eta itunpekoak) guztien arteko oreka.
  4. Ikastetxeetan dauden baliabideak aprobetxatzea.
  5. Familia hizkuntza bera duten ikasleak ikastetxean egotea.

  Ohiko epean matrikulatzeari buruz, ikasleak onartzeko dekretuetan ezarritakoari lotzen zaio.

• Ikasle etorkinak lurraldeen, eskola-sareen edo ereduen arabera banatzeari dagokionez, 2004ko urtarrilaren 1ean eguneratutako datu asko eskaintzen da. Banaketaren taulak, ziur aski, ikuspegi osoagoa islatzen du:

**Ikasle etorkinen banaketa, lurralde eta eskola-sareen arabera**

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| **Publikoa** | 1.225 | 81 | 3.161 | 75 | 1.334 | 57 | 5.720 | 71 |
| **Itunpekoa** | 273 | 10 | 1.013 | 25 | 1.011 | 43 | 2.297 | 29 |
| **Guztira** | 1.498 | 100 | 4.174 | 100 | 2.345 | 100 | 8.017 | 100 |
| **%** | 19 | | 52 | | 29 | | 100 | |

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | | EAE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| **A eredua** | 1.227 | 82 | 2.639 | 63 | 531 | 23 | 4.397 | 55 |
| **B eredua** | 222 | 15 | 899 | 22 | 1.002 | 43 | 2.123 | 26 |
| **D eredua** | 49 | 3 | 636 | 15 | 812 | 34 | 1.497 | 19 |
| **Guztira** | 1.498 | 100 | 4.174 | 100 | 2.345 | 100 | 8.017 | 100 |
| **%** | 19 | | 52 | | 29 | | 100 | |

2003-2004 ikasturtean egindako matrikulez datu hauek eman dizkigute:

| | A EREDUA | B EREDUA | D EREDUA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **ÁRABA** | 160 | 72 | 16 | 248 |
| **BIZKAIA** | 803 | 259 | 225 | 1.287 |
| **GIPUZKOA** | 21 | 124 | 112 | 257 |
| **GUZTIRA** | 984 | 455 | 353 | 1.792 |

Oraintsu eskolaratu diren ikasle etorkinentzat hizkuntza indartzeko dauden egitarauei buruzko datuak ere eman ditu Hezkuntza Sailak: ikastetxe publikoetako irakasleentzako zerbitzu-eginkizunak iragartzea (75 plaza: 45 Lehen Hezkuntzan eta 30 Bigarren Hezkuntzan); itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntzak iragartzea (2003ko abenduan egina).
Ikasle etorkinen eskolatze-planaren gainean, Gobernu Kontseiluak 2003ko abenduaren 9an onartutako Inmigrazioari buruzko Euskal Planean sartuta dagoela adierazi digu.

**1.2.3.** Ikasle ijitoak.

- Sailaren lehen erantzunean, hainbat ekimen aipatu ziren. Adibidez:
  - "Absentismoaren aurkako protokoloa", Bizkaian ezarritakoa, gizarte zerbitzuekin koordinatuz.
  - Iniciativa Gitana eta Kalé dor Kayikó bezalako elkarteekin lankidetza-hitzarmenak adostea.
  - Lan-batzorde bat sortzea, "Ikasle ijitoen eskolatze-plan" berri bat eratzeko.
  - Ikasle ijitoak lurraldez lurralde koordinatzeaz arduratzen den irakasle taldea.
  - Berariaz esku-hartzeko proiektuak edo eskolatze osagarria jasotzeko egitarauak, eskolan oso atzeratuak dabiltzanentzat...
- Informazio osagarria eskatzean, hiru alderdiri buruzko argibideak galdatu genituen, zera jakiteko:
  - Ea gauzatu den "Bilboko udalarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena, eskolara ez agertzeko arriskuan dauden 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin gizarte-hezkuntzetako lantegiak garatzeko".
  - Ea dagoeneko prestatu den "Ikasle ijitoak eskolatzeko plana", eta ea hori Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bultzatutako plan osoaren barruan sartzeko asmorik dagoen.
  - Ikasle horien banaketaz dauzkazuen datu gaurkotuak (lurraldeen, sareen, eta abarren arabera).

Azken gai horren gainean, eskura dituzten azken datuak eman dizkigute, 2001-2002. ikasturtekoak:

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehen Hezkuntzako ikasleak | 239 | 1.100 | 211 | 1.550 | 67 |
| Bigarren Hezkuntzako ikasleak | 76 | 400 | 67 | 543 | 23 |
| Itunpeko ikastetxeetako ikasleak | 51 | 70 | 98 | 219 | 9 |
| **GUZTIRA** | **366** | **1.570** | **376** | **2.312** | **100** |

Ikasturte horretan ikasle ijitoak zituzten ikastetxeei dagokienez, datuok eman dizkigute:

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Lehen Hezkuntzako ikastetxeak | 19 | 63 | 26 | 108 |
| Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak | 9 | 28 | 13 | 50 |
| Itunpeko ikastetxeak | 8 | 8 | 13 | 29 |
| **GUZTIRA** | **36** | **99** | **52** | **187** |

Eskolara ez agertzeko arriskuan dauden 12 eta 16 urte bitarteko nerabeekin egiten diren gizarte- eta hezkuntza-lantegiei buruz, hori garatzeko Bilboko Udalari zuzenean diru-laguntza bat eman zaiola erantzun digute.

Ikasle ijitoei hezkuntza-erantzun hobea emateko beste neurri edo estrategia batzuk direla-eta, "Herri ijitoa sustatzeko eta gizartean parte-hartzeko Kontseilua"n hartzen ari direnak aipatzen dira. Zehazki, han eztabaidatutako 4 helburu adierazten dira, eta haiei dagozkien ekintza-lerroak:

1: "Ikastetxeen curriculuma kulturen arteko harremanari begira aberastea, kultur erreferentzia desberdinekin, herri ijitoarenekin eta ingurunean dauden beste kultura gutxitu batzuenekin batez ere."

2: "Eskola-plangintza eta antolaketa berrikustea, ikasle ijitoekiko bereizketa ekiditeko asmoz."

3: "Ikastetxeek ikasle ijitoen familiekin harreman hobea izatea eta elkarteak eskola-bizitzan gehiago parte hartzea, desberdintasunak izan ez daitezen eskola-helburuak lortzeko prozesuan."

4: "Hezkuntza-etapa desberdinak arrakastaz gaindi ditzaten ikasle ijitoei laguntza ematea, Bigarren Hezkuntza, derrigorrezkoa eta derrigorrezkoaren ondorengoa, azpimarratuz."

**1.2.4.** Orain arte aipatutako gaiez gain -denak Hezkuntza Sailaren erantzunen ildotik-, gure 3. gomendioan ikasle baztertuenak aipatu genituen, eta ikasleok ez dira doi-doi hiru talde horietako batean sartzen. Horrela, gure txostenean, "ikastetxe kritikoak" deritzen ikastetxe mordoska baten egoera aztertu genuen, baita haietako eskola-kalifikazioak ere, haietan pilatzen baitira ezaugarri horiek dituzten ikasle asko eta asko. Hain zuzen, egoera horiek saihestu nahi genituen 3. gomendioaren bidez, eta, horretarako, zenbait neurri iradoki genituen (ratioak ezartzea; matrikulatzeko araudia berriz aztertzea; bidezkoak ez diren deribazioak edo estalitako kanporatzeak aztertzea).

Sail horren lehen erantzunean ez zen gai horietaz ezer adierazi. Hortaz, informazio osagarria eskatu genionean, galdera hauek egin genizkion:

- Ea proposaturiko neurrietakoren bat hartzeko asmoa dagoen (ratioak ezartzea; matrikulatzeko araudia berriz aztertzea; bidezkoak ez diren deribazioak edo estalitako kanporatzeak aztertzea).
- Ikasle horien banaketa dela-eta, ea badaukazuen gure txostenean azpimarratutako **egoerarekiko** eta arriskuekiko aldaketa esanguratsu bat erakusten duen daturik. (Kontuan izan 1999-2000 ikasturtekoak zirela han baliatutako datu gehienak)

Sailak 2004ko urtarrilaren 30ean bidalitako erantzunean ere argitu gabe jarraitzen dute gai horiek.

**1.3.** Gizartean baztertuak dauden ikasleei eman beharreko erantzunak garatzea (2 eta 4. gomendioak)

- Gizartean bazterturik dauden ikasleen alde diskriminazio positibozko jarduerak burutzeari dagokionez, sailaren erantzunean honela zehaztu dira, batik bat:
  a) Hezkuntza-indargarria
  b) Hezkuntzan esku hartzeko berariazko proiektuak
  c) Esku hartzeko proiektu globalak

Hiru alor horietako bakoitzean, zenbait datu ematen ditu (irakasleen kopurua, proiektuak, ikaskuntza-erkidegoak…) azken lau ikasturteotan (2000-2001.etik 2003-2004.era) izandako bilakaeraz.
Era berean, honako hauek ere azaltzen ditu: diskriminazio positibozko neurriak hartzeko aintzat hartu diren irizpideak (bekadunen portzentajea, eskola-absentismoa, gizartean traba bereziak dituzten ikasleak…), prozedurak (proiektuak, ofiziozko jarduerak), Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak “gizarte edo kultura egoera ahuletako ikasleen eskolatzearen” gainean bidali zuen zirkularrean (2001eko urtarrilekoa) ikastetxeei proposatutako jarraibideak.

- 2003-04 ikasturtean hezkuntza indartzeari buruzko datuez, berriz, honako koadro hau eskuratu digute:

| | **Ikastetxeak** | **23 ordu** | **12 ordu** | **Orduak guztira** |
|---|---|---|---|---|
| ARABA | 11 | 1 | 10 | 143 |
| BIZKAIA | 62 | 13 | 49 | 887 |
| GIPUZKOA | 31 | 2 | 29 | 394 |
| EAE | 104 | 16 | 88 | 1.424 |

Erkaketa eginez, 2000-01. ikasturtean 65 proiektu zeuden sare publikoan, eta 31,5 irakasle.

- Hezkuntzan berariaz esku hartzeko egitarauak, ikastetxeek –eskola atzerapen handiagatik edo eskola-ingurura ez moldatzeagatik– eskatutakoari erantzunez.. 2003-04. ikasturtean:

| | **Ikastetxeak** | **Irakasleak** |
|---|---|---|
| ARABA | 8 | 11 |
| BIZKAIA | 53 | 54,5 |
| GIPUZKOA | 28 | 24 |
| EAE | 89 | 89,5 |

2000-01eko datuak hauexek ziren: 42 proiektu eta 62 irakasle.

- Esku hartzeko proiektu orokorrak.
  Hezkuntza Sailaren erantzunean, batez ere “ikaskuntza erkidegoak” aipatzen dira, esperientziarik berriena den aldetik: 7 ikastetxek dituzte onartutako

proiektuak, eta beste lau eskatuta. Beste proiektu orokor batzuk ere aipatzen ditu, esaterako, Sestaoko Vista Alegre ikastetxe publikoan garatutakoa, ijitoen taldeari erantzuteko asmoz.

- Curriculum desberdinak eratzea. 2003-04. ikasturteko datuak:

| | Publikoko taldeak | Itunpeko irakaskuntzako taldeak | Taldeak guztira |
|---|---|---|---|
| ARABA | 21 | 10 | 31 |
| BIZKAIA | 68 | 31 | 99 |
| GIPUZKOA | 33 | 22 | 55 |
| EAE | 122 | 163 | 185 |

**1.4.** LHIKen arauketa eta arauturiko nahiz arautu gabeko irakaskuntzaren arteko artikulazioa (5. gomendioa)

- Hezkuntza Sailaren lehen erantzunean, hezkuntzako egitarau osagarriak erabiltzen ari diren egoeren adibide asko eskaintzen dira, eta 2002-03. ikasturteari dagokion datu orokor hau ematen da: "Uneotan 400/450 bat ikasle aparteko mota horretan eskolatuta daudela zehatz dezakegu, eta, beraz, gutxi gorabehera ikasleen % 0,8 DBHn eskolatuta dago".

  Sailaren erantzunean, LHIKen eta horiek artatzen dituzten ikasleen ezaugarri batzuk gogorarazten dira, araudia aipatzen da (1998ko uztailaren 30eko Agindua eta 2002ko maiatzaren 7ko Agindua), baita ezarritako adinezko mugak ere...

  Azken urteotako esperientzia ere aztertzen du, eta hainbat ondorio ateratzen. Adibidez:

  "a) Lehenengo ondorioak adierazten du testuinguru egokiena edozein modutara Bigarren Hezkuntzako jatorrizko ikastetxearekin lotura duen eta Curriculum Dibertsifikazioko Hezkuntzako Programetara itzultzea ahalbidetzen duen testuingurua dela. Une honetan bigarren hezkuntzako institutuei erantsita garatzen ari diren programak daude egoera horretan. Programa horiek ez dute loturarik galtzen bigarren hezkuntzako institutuekin, baina ikasleen interesekin lotuta dagoen eskola-lan mota eskaintzera eta curriculum aniztasunaren bitartez edo Lanbide-hastapeneko Programa batean jarraituta nerabeari bere bizitzako aukerak bideratzen lagunduko dioten motibatzeko lanak gauzatzera bideratutako berariazko programak dira. Egoera horretan daude lau ikasle talde (Astrabudua BHI, El Carmen HHI eta Fco. De Vitoria BHI).

  b) Berariazko ikastetxeetan (adibidez, Boluetako Osabidezko Hezkuntzako Ikastetxean) pentsatutako programak ere nabarmendu behar dira, horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gaitasunak lantzen saiatzen baitira ordezko sistema baten bitartez, eta aurretik aipatutako bi orientazioei eusten baitiete. Sistema hau bideragarria da aurreikusitako koordinazioak egoki badabiltza eta koordinazio hauek familiarekin eta jatorrizko ikastetxearekin lotura iraunkorra izatea ahalbidetzen badute soilik. Arreta hau fundazioek edo partzuergoek ematen dute batik bat, besteak beste, Peñascal Fundazioak (Tolosa, Bilbo-Errekaldeberri eta Bolueta), Osabidezko Hezkuntzako Gasteizko Partzuergoak, Donostiako 'Ortzadar' Fundazioak eta Otxarkoagako Lanbide Eskolak. Azkeneko eskola hau Bilboko

Elizbarrutiaren erakundea da, eta orain dela urte askotik batez ere maila ahuleko haurrak hartzen ari da.

c) Ekintza hauek osatuz, Gipuzkoan IZAN fundazioa dago. Fundazio honek zailtasun handiak dituzten ikasleekin lan egiten du eskolan jarraipeneko ekintzak garatuta eta eskolaz kanpoko ordutegian hezkuntza-indargarria emanda.

d) Hirugarren multzoan LHIKen (Lanbide-Hastapeneko Ikastetxeen) testuinguruan heziketa osagarriko berariazko talde bezala prestatutako ikasleak daude. Hala ere, hori ez da egoera egokiena, LHIKen helburua beste bat baita. Ikastetxe horietan erabil daitezkeen baliabideak erabilgarriak dira, baina DBHko oinarrizko gaitasunak lantzea ahalbidetuko duten hezkuntzako baldintzek ondo funtzionatu behar dute, ikasleak motibatzeko prozesu bat egon behar du eta, azkenik, jatorrizko ikastetxearekin lotura handia egon behar du berriro jatorrizko ikastetxera sartu ahal izateko. Egoera horretan daude Errenteriako, Donostiako, Barakaldoko, Durangoko eta Santurtziko Udalekin hitzartutako ikastetxeak.

e) Azkenik, eta hauxe da egoerarik okerrena, LHIK batean banaka sartzea, banan-banako programa eta tutorearekin. Egoera hori herri sakabanatuetan gertatu ohi da, eta horietan ezin izan ohi da Eskolatzeko Programa Osagarriko berariazko talde bat eratu."

- 2002-03. ikasturteari dagozkion datuak Hekzuntza Sailaren azken idazkian –2004ko urtarrilaren 30ekoan– eguneratzen dira. 2003-04. ikasturteko datuak honela laburtzen dira: "Gaur egun 468 ikasle daude eskolatze osagarriaren programetan, eta haietatik 73 neskak dira.

  386 ikasle eskolatuta daude talde espezifikoetan, 25 taldetan guztira. Haietatik, 10 talde Bizkaian, 218 ikaslerekin (40 neska), 10 talde Gipuzkoan, 137 ikaslerekin (22 neska) eta 5 Araban, 31 ikaslerekin (4 neska).

  Talde espezifiko horiek LHIKetan eta helburu horretarako programa espezifikoak dituzten ikastetxeetan eskolatzen dira.

  82 ikaslek dituzte banakako programak LHIKetan, LHIKetako 81 taldetan banatuta: 41 ikasle LHIKetako 47 taldetan Bizkaian, 28 ikasle LHIKetako 20 taldetan Gipuzkoan eta 82 ikasle LHIKetako 81 taldetan Araban." (Nabarmena da emandako datuetako batzuetan akatsak itzuri zaizkiela).

  Nolanahi ere, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organiko berria erabiliko bada, ezinbestekoa izango da berriro aztertu edo azaltzea ohiko sistemara moldatzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen premiei ematen zaizkien erantzun mota hauek.

## 2. IKASTETXEEN EBALUAZIOA ETA BARNE HARTZEKO PRAKTIKA ONEN SUSTAPENA

Multzo honi dagokionez –gure 6, 7 eta 8. gomendioak hartzen ditu bere baitan–, Hezkuntza Sailaren erantzunak lehenengo bietan jartzen du arreta. Horrela, Hezkuntzako Ikuskatzailetzaren jarduera-lerroak aipatzen ditu (2002-2005 hiru urteko ikuskatze Plana eta urteko planak), baita Hezkuntzako Ebaluazio eta Ikerketarako Euskal Erakundearenak ere. Datozen urteetako dituen lan-planen artean hauexek agertzen dira:

– “HPBei erantzuteko azpisistemaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioen testuinguruan, gure Erkidegoaren lagin adierazgarriarekin.
– Ikasle gorren eskolatze elebidunean eskolako taldekatze eredua ezartzearen luzetarako ebaluazio ikerketa.
– Gizarte eta kultura maila ahulean hezkuntzan esku hartzeko ereduen ikerketa.”

Bestalde, barne hartzeko jokaera egokiak errazteko sortu diren hainbat ekimen aipatzen ditu:
– Berritzeguneetan gauzatutako prestakuntza- eta aholkularitza-jarduerak.
– GARATU egitarauan jasotako lehentasunezko egitarauak.
– Barne hartzeko eskolari buruz egindako Biltzarra.

## 3. LANBIDE-IRUDI ZEHATZ BATZUK INDARTZEA, KOORDINATZEA ETA BERRANTOLATZEA

• Atal honek 5 gomendio zituen gure txostenean (9.etik 13.era). Sailak lehenengo erantzun orokorra eman zuen bere idazkian, eta bereizi egin ditu zerbitzuen arteko koordinazioa (12. gomendioa) eta Bigarren Hezkuntzako ordutegiaren antolaketa berraztertzea.

- Erantzunaren alderdi orokorrenei buruz, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak 2002-03. ikasturterako proposatutako Jarraibideetan ezarrita dauden lehentasunezko jarraibideak ageri dira (horietatik lau aniztasuna tratatzeko eta biztanlego ahulenak artatzeko dira), eta horien erabilera, berritzeguneen zuzendariek ikastetxeen zuzendaritza-taldeekin eta beste arduradun batzuekin (etapako aholkulariak, aniztasunari buruzko aholkulariak...) burututako jardueretan. Halaber, honako hauek gogorarazten dira: hezkuntza-premia berezietarako aholkularien lehentasunezko zeregina, gai horiei buruzko bilera bereziak -zuzendari lana egiteko egiaztatze-ikastaroetan egiten dira-, ikasturte hasierako jarraibideak, ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuten parte hartzen duten guztien koordinaziorako irizpideekin...
- Zerbitzuen arteko koordinazioa.

  Gai horren gainean, Hezkuntza Sailaren erantzunean, zenbait erakunde publiko eta pribaturekin sinatutako hitzarmenak aipatzen dira, hezkuntza-premia bereziei hobeto erantzutearren; zehazki, ONCErekin sinaturiko hitzarmena (1984. urteaz geroztik) eta psikosi larria duten ikasleentzako hezkuntza- eta sendabide-unitatea (Sondikako La Ola zentroan dago).

  Zentro horri dagokionez (Hezkuntza Saila, Osasun Saila eta BBK lankidetzan ari dira), sailaren erantzunean zera adierazi zen: “Beste hitzarmen bat sinatzekotan da OSAKIDETZAREKIN antzeko saiakuntza garatzeko Araban, eta nahaste disozialak dituzten ikasleei berariazko erantzuna prestatzen eta definitzen ari da OSAKIDETZAREKIN eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN”.

  Informazio osagarria eskatu genuenean, gai horiek orain zertan ziren galdetu genion Hezkuntza Sailari, are gehiago kontuan izanik gai horiei buruzko gomendio bereziak egin zirela eta Legebiltzarrean eztabaidatu zirela, gure txosten hau aurkeztu genuenean: *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo.*

Sail horrek 2004ko urtarrilaren 30ean bidalitako erantzunean, hauxe adierazten da hitzez hitz:
"Adimen-osasunaren arazoak dituzten ikasleen arazoei aurre egiteko asmoz Osakidetzarekiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko hitzarmenei dagokienez, ez dira aurreko egoerarekiko aurrerapen nabarmenak gertatu, Sail hau gai hauetaz kezkatuta dagoen arren.
Dena den, adimen-osasuna dela-eta ospitaletan haur- eta gazte-unitateak martxan jartzeak hobetu du ikasle horien arazo espezifikoei ematen zaien erantzuna. Ospitale-unitate horietan Sailak jarduten du, ikasle horiei laguntza ematen dieten ospitalerako irakasleak emanez.
Hau eta eskola-adinean eman behar diren osasun-arretei lotutako beste gai batzuk ez dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arazo hutsa, Euskal Autonomia Erkidegoko beste sail eta erakunde batzuk ere hartzen dituen arazo orokorrago baten adierazpenak baizik".
Gai horri buruz, Arartekoak La Ola hezkuntza eta sendabidezko eguneko zentrora egin zuen ikustaldiaren laburpena irakur daiteke, txosten honen 1.1.9 azpiatalean.

- Bigarren Hezkuntzako ordutegiaren antolaketa berriro aztertzea.
  Gai horretaz, Hezkuntza Sailaren erantzunean, legeak esku hartzeko ezartzen dituen mugak aipatzen dira, eta irakasleen jarraipen-lanak errazteko antolaketa-ekimenak sustatzea, esate baterako, hezkuntzan berariaz esku hartzeko proiektuak, hezkuntza indartzekoak, curriculum, ezberdinak eratzea, banaketak, e.a.
- Halaber, gure gomendioetako hiru gai zehatz hauei buruzko informazio osagarria eskatu zitzaion sail horri, ez baitzen horien gainean ezer esaten:
  - Irakasleen aniztasuna erraztea, gutxiengoen kulturetako pertsonak edo pertsona ezgaituak sartzeko aukera (10. gomendioa, 1. atala).
  - DBHko irakasleen prestakuntza, aniztasunari erantzuteko eta hezkuntza-premia bereziez arduratzeko (10. gomendioa, 2. atala).
  - 11. gomendioa betetzeko aukerak: "Irudi profesional 'berriak' eskolako dinamikan gehiago integratzea".
  - Gutxiengoen kulturetako pertsonak edo pertsona ezgaituak hezkuntza-lanetan jartzea dela-eta, hauxe adierazten da:
    "Etnia ijitoarekin harremana duten erakunde desberdinekiko hitzarmenen bidez begirale eta hezitzaileak egongo direla bermatzen da, eskola, familiaren eta gizarte-erkidegoaren artean bitartekari gisa jardungo dutenak.
    Elbarritasunak dituzten irakasleak eskolan egoteari dagokionez, irakasleen eta pertsonal laguntzailearen LEPetan lanpostuak gorde dira elbarritasunak izatea egiaztatzen duten pertsonentzat."
  - DBHko irakasleen prestakuntzaz, GARATU egitarauaren ikastaro-eskaintza aipatzen da, eta berritzeguneek sustaturiko mintegiak eta pedagogi jardunaldiak.
  - Lanbide-irudi berriak -hala nola, irakasle aholkulariak eta irakasle orientatzaileak- gehiago integratzeari buruz, berritzeguneek dinamizatutako berariazko mintegiak dituztela adierazten da.

## 4. PROZEDURAK ETA BALIABIDEAK HOBETZEA

### 4.a. Hezkuntza-premia bereziak detektatzea eta baloratzea (14. gomendioa)

- Sailaren lehen erantzunean, bakar-bakarrik adierazi zen zein pertsona arduratzen ziren balorazioa eta eskolatzeko proposamena egiteaz (berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietarako aholkulariak) eta informazioa nola islatzen zen ("inizialen eta digitu berezien bidez").
- Informazio osagarria eskatu zen, besteak beste, gure gomendioaren alderdi batzuez, horietaz ez baitzen ezer adierazi. Adibidez:
  - Beste zerbitzu batzuekin (gizarte zerbitzuak edota osasun alorrekoak) dagoen harremana, eskolatu aurreko diagnostikoak eta erantzun goiztiarrak errazteko. Hala ere, erakunde honek behin baino gehiagotan esku hartu behar izan du gai horren gainean, familien eta elkarteen kexen ondorioz.
  - Zenbait egoera berriz aztertu eta egoera jakin batzuk zuzendu beharra, nahiz eta egoerok oso nabarmenak izan, gure txostenean eskaini ziren datuen arabera: "lurraldeen arteko desberdintasun handiak, bai detekzio tasei eta bai balorazio irizpideei dagokienez; ikasleak neskak ala mutilak izan, detekzioan desberdintasun handiak egotea; hezkuntza-premia berezi batzuk behar bezala kontuan ez hartzea…"
- Sailak 2004ko urtarrilaren 30ean bidalitako erantzunean, gai horietako batzuk garatu ditu:
  - "2003ko irailean Hezkuntza Berriztapenerako Zuzendaritzaren zirkular baten bidez 'hezkuntza-premia berezien kodeak' ezarri eta beroriek erabiltzeko arauak eman ziren (…).
  - Nolanahi ere, sailkapen horri esker, informazioaren isilpekotasuna zaintzen duten kodeen bidez, sintesi bat izan dezakegu eta sintesi horrek egoera pertsonal eta sozialaren etiologiari buruzko alde nabarmenei, pertsona horrek dituen hezkuntza-premiei, behar dituen laguntzei eta berorien intentsitateari buruzko informazioa emango digu.
  - Beste zerbitzu batuekiko harremanari dagokionez, koordinazioa nahiko ona da, informazioa komunikatzeko sistema bateratua ez dagoen arren.

    Eskolatzearen aurretik, Foru Aldundietako zerbitzuek ebaluatu eta diagnostikatzen dituzte elbarritasunak dituzten ikasleak eta 'arreta goiztiarra' behar duten ala ez zehazten dute. Izan ere, Foru Aldundiek finantzatutako talde espezifikoen bidez garatzen da 0-3 urteko aldian 'arreta goiztiarr'aren programa hori. Lehen diagnostiko eta balorazio horiek abiapuntutzat hartzen dira, ebaluazio psikopedagogikoarekin batera, eskolatzeko irizpideak eta proposamena finkatzeko.

    Gizarte-zerbitzuek era autonomoan eta irizpide bateratuak izan gabe funtzionatzen dute hiru lurraldeetan eta horrek hezkuntzaren baldintzak lurralde bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar direla esan nahi du. Oro har, lankidetza ona dago.
  - Irizpide diagnostikoak berberak dira hezkuntza-premia berezien kodeekin batera datorren eskuliburuan agertutako hiru lurraldeetan, azken muturreko egoera batzuk kontuan hartzeko orduan profesionalek autonomia dutela nabarmendu behar den arren, diagnostikoa egiten duen pertsonalaren irizpide profesionalak baldintzatzen baititu egoera horiek.

- Hezkuntza goiztiarrari dagokionez, badago Osakidetzak, Foru Aldundiek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak osatutako lan-batzorde bat, hiru sareak elkarrekin lanean aritzeko eta koordinatzeko protokolo bat egitea helburu duena."

4.b. <u>Irizpideak bateratzea hezkuntza-premia berezien identifikazioan eta erregistroan (15. gomendioa)</u>

- Sailaren erantzunaren arabera, "Identifikazio irizpide homologoak eta hezkuntza premia berezien erregistro bateratu bat edukitzeko, ondorengo ekintzak egin dira:
  a) Lurraldeko koordinazioko bilerak. Bertan Berritzegune bakoitzeko HPBen aholkularien ordezkariek, baliabideen kudeaketako teknikariek eta Saileko teknikari kualifikatuek hartzen dute parte ikuspuntuak trukatzeko eta esku hartze psikopedagogikoko hainbat alderditan lotuta egoteko.
  b) Berariazko prestakuntza planak HPBen aholkularientzako programa edo gai interesgarriekin. Plan horiek jarduera profesionalak hobetzea eta irizpide diagnostikoak eta esku hartzeko irizpideak homogeneizatzea ahalbidetzen dute.
  c) 'HPBen kodeak' eta HPBen aholkulariek erabiltzeko kontsultako eskuliburua egin dira. Horietan nomenklatura eta irizpide diagnostikoak deskribatzen dira zehatz-mehatz HPBen inguruko hiru ardatz handitan: A taldea: HPBen etiologia/ B taldea: HPBen kodeak/ C taldea: beharrezko laguntzak eta beren intentsitatea.
  d) Datu-base bateratu baten aurrediseinua egin da. Datu-base horrek HPBei emandako erantzuna zein egoeratan dagoen jakitea eta hainbat adierazle kontuan hartuta HPBk daudela egiaztatzea ahalbidetzen du uneoro. Uste da 2002-2003 ikasturtearen amaieran erabili ahal izango dela konfidentzialtasun berme guztiekin."
- Datu-base horren gaineko informazio osagarria eskatu zen. 2004ko urtarrilaren 30eko idazkian zera adierazten da gai horretaz: "EIJIE datu-basea egiten ari da eta hezkuntza-sistema orokorrari buruzko beste datu-base zabalago batean sartzen da. Informazio honek (isilpekoa) gainontzeko informazioarekin datu-base orokor batean harremana izateak atzeratu du lehen datu-basea martxan jartzea".

4.c. <u>Jarduera protokoloak eta isilpekotasun bermeak (16. gomendioa)</u>

Datuen isilpekotasuna bermatzeko ezarritako elementu, arau edo irizpideei buruzkoa zen gomendio hori. Sailaren erantzunean esplizituki aipatzen dira isilpekotasun protokolo bat eta berritzeguneen zuzendaritzei eta hezkuntza-premia berezietarako aholkulariei bidalitako argibide batzuk, informazioa nola tratatu eta diagnosi-informazioa eta norberari, familiari eta gizarteari buruzko datuak nola erabili jakiteko, eta argibide horietan behin eta berriz azpimarratzen da isilpekotasunaren printzipioa. Geroago, 2004ko otsailean, argibide horien testua jaso dugu erakunde honetan (2001eko azaroaren 26ko argibideak dira, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarenak). Beraz, horiek aztertu ahal izango dira, honen antzeko kasuetan egin den bezalaxe (Osakidetzak sustatutako medikuntza-datuen basea).

4.d. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzea zaintzea (17. gomendioa)
Gomendio hori dela-eta, Hezkuntza Sailak zera dio: “Hainbat estrategia daude (...). Horietan guztietan Lehen Hezkuntzako azken zikloko aurretiko koordinazioa nabarmentzen da, bi hezkuntza etapetako irakasleekin hainbat motatako bilerak ezarrita, dauden zailtasunak aztertuta.
Hezkuntza Premia Berezien alorrean beharrezkoa da HPBen aholkulariak barne egotea eta informazioa transmititzea. (...)
Dena dela, zenbait kasutan ikasle batzuk Lehen Hezkuntzan urtebete gehiago egotea komenigarria dela adierazi behar da, DBHn ondo ibiltzeko aukera ematen duten oinarrizko ikasketa batzuk finkatzeko. Egoera honetan egongo lirateke burutiko atzerapenen batekin edo burutiko atzerapena dakarten beste minusbaliotasun batzuekin lotutako HPBk dituzten ikasle batzuk, berandu eskolatutako ikasleak edo ikasketetan jarraipenik izan ez duten ikasleak eta ikasle etorkin batzuk, azken hauek DBHra sartu ahal izateko hizkuntza alorreko oinarrizko gaitasunak ez dituztelako.”

4.e. Ikastetxeetan arkitektura-oztopoak ezabatzea (18 eta 19. gomendioak)

• Sail horrek irisgarritasuna errazteko neurriak hartu direla adierazi digu, neurri pertsonalak nahiz materialak.
Neurri desberdinak zehazten ditu, eta datu eta zenbaketa ekonomikoak ematen ditu (2002-03. ikasturtekoak gehienak).
Erantzun luzea da, eta hemen funtsezkoa transkribatzen dugu:
“Irisgarritasun neurri hauek pertsonalak edo sartzeko bitarteko materialak izan daitezke. Laguntza hauek eskatzeko protokolo bat dago, eta manuzko txostenak behar dira laguntzak eskatzeko.
Irisgarritasun neurri pertsonaletan ondokoak daude: Hezkuntza Berezko laguntzaileak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, logopedak, IBko irakasle ibiltariak etab. Neurri hauek guztiak banakako curriculum-egokitzapen garrantzitsuen baitan ikasleei beren gaitasunak egoki garatzen laguntzeko sortu dira.
Izaera teknikoko edo materialeko neurriak ondokoak dira:
1. Eskola-umeen garraiorako banakako laguntzak.
2. Espezializatutako materialen eta laguntza teknikoen hornikuntza.
3. Arkitektura-oztopoak ezabatzea.
Laguntzen lehenengo taldeari erantzuteko urtero deialdi bat egiten zaie familiei, eta aurtengo ikasturtean 676.700 eurokoa izan da.
Bigarren taldea material bereziena da. Material horiekin hornitzen dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, beren berariazko premiei erantzuteko aurrekonturik bada.
Eskola barruti guztietan nahiko ikastetxe badaude mugimen-minusbaliotasunekin lotutako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko. Dena dela, derrigorrezko etapetako ikasleei familiaren bizilekutik ahal den gertuen dauden arkitektura-oztoporik gabeko ikastetxeetan eskolatzeko aukera ziurtatzen zaie.
Azken hiru urteotan irisgarritasuna sustatzen duen 20/1997 Legea eta 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta

informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena betetzera bideratutako aurrekontuaren balioespena 13.430.077,26 eurokoa da.
Adibidez, azken 3 urteotan 26 igogailu, komunen 5 egokitzapen, arkitektura-oztopoak ezabatzeko 27 ekintza, sarreren 5 egokitzapen eta eskailerak libratuko dituen plataforma jarri dira.
Zabaltzeko eta berriztatzeko lanetan aurrekontuaren % 7 inguru 20/1997 Legea betetzeko ekintzetarako erabiltzen da sistematikoki. Hiru urteren buruan 6.300.000,00 euro erabili dira ekintza horietan.
Helburua ikastetxeetan % 100eko irisgarritasuna lortzea da arrazoizko epean, kontuan hartuta arkitektura-oztopoak ezabatzeko zerbitzu teknikoek eta HPBen aholkulariek emandako aurreikuspenak kontuan hartzen direla, ikasleak ez egotea, hezkuntza etaparen aldaketa eta beste hainbat ardura kontuan hartuta prozesua benetako premiara egokitu ahal izango da.
Dena dela, aurretik esan den bezala, birmoldaketako lan guztietan irisgarritasun proposamena ezar dadin prozedurak egiten dira.
Itunpeko ikastetxeen kasuan, urtero deialdi bat egiten da helburu horrekin, eta 2000-2003 hiru urtekoan 692.548,37 eurokoa izan da. Sare horretako 35 ikastetxeren eskaerei erantzun zaie."

- Arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko gomendio berezi bat egin genuen, zehazki, ikastetxeen oraingo egoeraren 'mapa' bat egiteko gomendatu genuen, baita etorkizunerako plan bat ere, 68/2000 Dekretuaren arabera. Horren gainean, eskainitako datuek ez dute argitzen bi proposamen horiek onartu diren ala ez. Hala ere, irisgarritasun unibertsalaren irizpidea agertzen dute, eta hori oso egokia iruditzen zaigu: "Helburua ikastetxeetan % 100eko irisgarritasuna lortzea da arrazoizko epean...". Horregatik, informazio osagarria eskatu zen, helburu hori erdiesteko aurreikusita zeuden urratsen berri izateko.
  Hezkuntza Sailaren azken erantzunean, 2004ko urtarrilaren 30ekoan, lehen adierazitako jarduera-lerroak aipatzen ditu berriro: berriztatze-lanak, berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietarako aholkulariek azaldutako beharrei erantzuna ematea...
  Nolanahi ere, gai zehatz horren gainean, erakunde honek txosten berezi bat aurkeztu du 2003. urtean (*Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna*). Txosten horretan ikastetxeei buruzko datuak agertzen dira, eta etorkizunean ofiziozko edo jarraipenezko jarduerei bide emango die.

## 5. GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOA ETA GIZARTE ERAGILEEN PARTE-HARTZEA

### 5.a. Gizarte-sentsibilizazioa eta hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea (20. gomendioa)

Bere lehenbiziko erantzunean, Hezkuntza Sailak adierazi zuen 2003. urtea -ezgaituen Europako Urtea- aprobetxatu nahi zuela gizartea sentiberago bihurtzeko hainbat ekintza abiarazteko, beste sail eta erakunde batzuekin koordinatuz.

2004ko urtarrilaren 30eko idazkian honela zehazten dira ekimenok:

- "Alde batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren instituzio-kanpainetan irudiaren eta testuaren aniztasunak agertu behar du.
- Bestalde, baterako kanpainak egiteko eta, eskola-elkartea eta hezkuntza-etapa desberdinetako ikasleak sentsibilizatzeko asmoz, materialak hedatzeko aukera eskaini zaie normalean gurekin lankidetzan ari diren erakundeei.

  Orain arte, 'glutenik gabeko menuak egiteko gida' egin eta geroago hedatzeko ekimena konkretatu da, gaixotasun zeliakoak dituzten pertsonen elkartearekin elkarlanean.

  Halaber, gorreriari buruzko liburuxkak egin dira, guraso eta osasun-zerbitzuetako pertsonalaren artean hedatzeko.

  Era berean, sindrome autistikoari eta Aspergerr-ari buruzko materialak egin dira, erakunde desberdinekin elkarlanean eta gurasoen artean zabaltzeko.
- Bestalde, 1200 pertsona eta familiak parte hartu zuten Donostian izan zen 'Guztientzako eskola' Biltzarrean, elbarritasunak dituzten pertsonen Urte Europarraren ekitaldi nagusi gisa.
- Biltzar horretan espazio espezifiko bat izan zen, praktika inklusibo onen esperientziak elkarri komunikatzeko espazio orokorrez gain. Espazio hori 'inklusioaren aldeko gurasoak' zeritzon eta hezkuntza-premia bereziak zituzten haurren eta gainontzeko ikasleen gurasoek hartu zuten espazio horretan parte".

5.b. <u>Familiekin eta elkarteekin dagoen harremana (21. gomendioa)</u>

Gomendio horri dagokionez, Hezkuntza Sailaren erantzunean, lehen-lehenik eta oro har, interesa duten pertsonen parte hartzea aipatzen da (familiak, ikasleak...), beraiei eragiten dieten erabakiak hartzean. Gainera, zehazkiago, hauxe adierazten du: "Banakako curriculum-egokitzapen garrantzitsua duten ikasleen gurasoek seme-alabek egokitzapen hori dutela jakinaren gainean egon beharko dute eta proposamen hori sinatu beharko dute, jakinaren gainean daudela adierazteko. Proposatutako neurriekin ados egon ezean, erreklamazio prozedura bat dago.

Jarraipen batzordeak ezarri dira, eta bertan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen gurasoen elkarteen federazioek beren ikuspuntuak adierazten dituzte, iradokizunak egiten dituzte eta zerbitzuaren erabiltzaileek zein iritzi duten jakinarazten diote Administrazioari. Une honetan Gorren Batzordeak eta Burutiko Atzerapeneko Batzordeak funtzionatzen dute. Hemendik gutxira mugimen-urritasuna duten ikasleen jarraipen batzordea deitzeko asmoa dago".

* * *

Horra laburturik Hezkuntza Sailari gure gomendioak betetzeaz eskatutako eta lortutako informazioa. Gure ustez, informazio zabala eta zehatza da eta, alde batetik, oraingo egoera hobeto ezagutzeko eta baloratzeko balio du, eta, bestetik, datu eta argibide batzuk hurrengo jarraipen-lanetarako erakusle gisa edo kontuan hartzeko elementu gisa erabil daitezke.

## 1.1.11. ERTZAINTZAREN ZIEGETAKO ETA UDAL GORDETEGIETAKO EGOERAREN JARRAIPENA

1990ean Arartekoak txosten monografiko bat egin zuen (*Kalabozoak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak*) Eusko Legebiltzarrari eta iritzi publikoari mota horretako lekuen egoeraren berri emateko, atxilotuek orduak, eta are egunak, eman behar baitituzte bertan, agintari judizialen esku geratu arte.

Harrezkero, erakunde honetako kidek atxilotze-lekuak bisitatu dituzte, txostenari jarraipena emateko eta, bertatik, haren gomendioak betetzen ziren egiaztatzeko. Horregatik, hain zuzen, agerraldien helburu nagusia –ez bakarra, ordea– ziegak aztertzea izan zen.

Ertzaintzaren atxilotze-lekuetan ziegen ezaugarri fisikoak bainoago, atxiloketen nondik norakoak aztertu ziren, aurreko txostenetan azaldu genuenez ziegetan egokitze lanak egin baitziren; izan ere, gure lehenago txosten bati eta Tortura Prebenitzeko Europako Batzordearen gomendioei jarraiki Herrizaingo Sailak burutua zuen ziegak eraldatzeko eta hobetzeko programa.

Udalen atxilotze-lekuak asko izanik, haietako batzuk baino ez ditugu bisitatzen urte bakoitzean, irizpide jakin batzuei jarraiki (jasotako kexak, azken eraberritze lanak, aspaldi berrikuskatu gabe daudenak, etab). Hala ere, 2003an bisitak murriztu dizkigute Ertzaintzaren eta udalen atxilotze-lekuetan eta ziegetan, Leioako udal atxilotze-lekuan eta Ertzaintzaren Irungo eta Deustuko ziegetan. Dena den ez da hori gure informazio iturri bakarra, aurreko urtetan hasitako ekimenen jarraipenak eta tramitatu diren kexa-espediente batzuek datuak eman baitizkigute zenbait udalerritako udaltzaingoaren jarduerei buruz.

Jarraian, bisitetan ateratako ondorioak laburbilduko ditugu.

### a) **Leioako Udalaren atxilotze-lekua**

Azaroaren 11n Udaltzaingoaren egoitza bisitatu genuen, Leioako udaletxeko beheko solairuan. Hara iristeko dagoen eskailera oztopo arkitektoniko handia da, eta mugitzeko arazoak dituzten pertsonak poliziaren bulegoetara udaletxeko beste atetik sar badaitezke ere, aipatutako oztopo horrek desagertu beharko luke. Gainera, beste traba bat dago ziegetaraino iristeko, bi eskalera tartetan behera jaitsi behar delako, eta ez dago hori saihesten duen tresna mekanikorik.

Bestalde, ziegen guneak ez du bere irispiderik, eta harako sarrera berbera erabiltzen da Poliziaren geletara eta beste udal bulego batzuetara joateko. Hasieran zuzeneko sarbide bat paratu zen garajetik, baina orain bestelako jardueretarako erabiltzen da. Bermeen ikuspegitik ez da gogoko egoera, segurtasuna arazoak gorabehera, poliziaren egoitzara sartzean atxilotua jendaurrean dagoelako, eta bestalde, gerta daiteke delitu bat salatzera joan den batek bere erasotzailearekin aurrez aurre topo egitea.

Ziegetako bi behar baino txikiagoak dira (5 $m^2$ dute, eta egokitzat jotzen den luzezabala 7 $m^2$-koa da). Horietako batek kanpoalderako leiho bat dauka, baina ia ez da egun-argirik sartzen, segurtasuna dela medio aurrean zulo txikiak dituen metalezko xafla bat jarri baitiote. Ziegan ohatze moduan erabiltzen den maila bat dago, eta lerro berean erdi parerainoko trenkada batek bereizita, lozazko komun bat. Korridore labur baten beste aldean dutxa bat dauka, eta alde berean ere, berokuntza-erradiadore bat eta gune

osoa argitu behar duen lanpara fluoreszente bat, baina haren argia nekez sartzen da ziegetako batean.

Hormak alikatatuak dira, eta ohart beharra dago material hori ez dela egokia estaldurak egiteko, baldosa bat apurtuz gero zatiak oso zorrotzak direlako.

Zaintza ez da etengabea, eta aldizka agente bana arduratzen da horretaz. Ziegan bideo-kamara bat jartzekotan daude, baina –behin baino gehiagotan esan dugunez– hala eginez gero segurtasuna ez ezik atxilotuaren intimitatea ere ziurtatu beharko litzateke. Nolanahi ere, udaltzaingoaren arduradunek azpimarratzen dute ziegak oso gutxitan erabiltzen direla eta atxilotze-aldiak ordu gutxikoak izaten direla, eta atxilotuak ziegan lo egin behar duenean, gehienetan Getxoko Udaltzaingoaren polizi etxera eramaten dutela. Era berean, argazki ezaupideetarako sistema duten arren, tramite hori Ertzaintzaren esku utzi ohi da.

Zenbait puntu aztertu ziren poliziaren jarduteko moduari buruz; horietako batzuk ekarri ditugu hona aipagai:

a) Ziegan sartzerakoan, atxilotuari aldean daramatzan gauza guztiak kentzen zaizkio, baita erlojua ere, eta gutunazal batean gordetzen dira. Gorputz miaketari dagokionez, adierazi zaigu atxilotuari ez zaiola inoiz biluzirik egiten.

b) Atxilotuari bere eskubideak adierazteko erabiltzen den aktaren kopia erakutsi ziguten, erdara hutsez. Euskarazko testu bat izan beharko lukete erabilgarri. Edukiari dagokionez, azpimarratu behar da bertan ez dela jasotzen, eskubideen artean, leporatutako egintzak eta atxiloketarako arrazoiak jakitekoa. Egia da, ordea, agiriak atal bat daukala atxiloketaren arrazoiak adierazteko, baina bertan soilik aipatzen da zein den egozten den delituaren izena, eta beharbada, atxilotuari informazio zabalagoa emango zaiola ahoz, baina legearen arabera, pertsonak leporatzen zaizkion egintzen berri izan behar du, ez horiei dagokien kalifikazio juridikoa. Berme hori indartzearren, egokiagoa litzateke aktaren lehen lerroaldean idatziz jasoko balitz erruztatuari berari azaldutakoa.

Komenigarria litzateke, era berean, AKLren 520. artikuluko eskubide guztiak azaldu ondoren beste atal bat erabiliko balitz, atxilotuak azaldu zaiona ulertu duen adieraz dezan, baita horretaz baliatuko den eta nola egin nahi duen adierazteko ere.

c) Atxiloketen erregistro liburuan oso informazio gutxi biltzen da. Adibidez, ez dira aipatzen ez bisitak, ezta lekualdatzeak edo polizi etxetik egiten diren ateraldiak ere. Horietako bat egiten denean –ospitalera, miaketa bat egitera, edo dena delakora– gorabeherak argiketa-agirian jasotzen dira, baina polizi jardueren gerorako kontsulta edo berrikusketa askoz errazago egin liteke esan diren datu horiek erregistro liburuan ere agertuko balira.

d) Aurrekoaz gain, gorabehera bereziak izan ditzaketen atxiloketez galdetu genuen. Jakin genuen, adibidez, agenteetako bi emakumezkoak direla, eta haiek egiten dietela gorputz-miaketa emakume atxilotuei. Atzerritarren kasuan, poliziaren arduradunek adierazi ziguten atxilotuen nortasuna egiaztatzeko izapideetan ez dutela atxiloketak gehiegi luzatzea ekarri duten atzerapenik antzeman. Gai berarekin jarraituz, azaldu ziguten etorkinen dokumentazioa indarrean dagoenean baliozkotzat hartzen dela eta atxilotuak epaitegira eramaten dituztela bestelako tramiterik gabe, gure iritziz zuzen jokatuz. Atxilotuak adingabeak badira ez dituzte ziegetan atxikitzen, agenteek erabiltzen dituzten geletako batean baizik.

e) Iaz egiten ari zen txosten monografiko batean (*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*) poliziaren artapena ukitzen

zela eta, gai hori ere hartu genuen kontuan gure bisitaldian. Sentsibilitate handia igarri genuen tratu txarrak jasandako emakumeenganako, eta hori ekimen zehatzetan gauzatua zen. Adibidez, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua indarrean hasi zenean Udaltzaingoak protokolo erraz bat osatu zuen, agente guztiek irizpide berberei euts ziezaieten beren jardueretan. Komenigarria litzateke, beharbada, dokumentu horri beste ohar batzuk (*Instituzioen arteko hitzarmena, etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobetzekoa*) eranstea; edonola ere, ekimena onuragarria izan da. Iritzi bera merezi dute beste neurri batzuek, adibidez, urruntze-aginduak biltzen dituen erregistroak, gainera agindua bete behar duenaren argazkia jasotzen du eta. Horrelako neurriak, jakina, errazago bete daitezke herri txiki batean, baina horrek ez die baliorik kentzen.

Agenteak, bestalde, prest zeuden arlo horretan berariazko prestakuntza jasotzeko, baina aurtengoan Euskal Herriko Polizia Ikastegiak ez omen du horrelako ikastarorik antolatu udaltzainentzat.

Premiazko egoeretarako harrera-lekuak direla eta, adierazi ziguten hotel bat erabiltzen zela eginkizun horietarako, eta tratu txarrengatik etxea utzi duten emakumeen zentro itunduari dagokionez, azaldu zitzaigunez ez zuten inolako eskaintzarik Bizkaiko Foru Aldundiaren partez.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan ere, bisitaldian horrelako kasuak erregistratzeko eta zenbatzeko irizpideak ere aztertu genituen, eta horren haritik iradokizunen bat egin genuen.

b) **Irungo Ertzain-etxea**

2003ko urriaren 14an erakunde honetako bi ordezkarik Ertzaintzak Irunen duen egoitza bisitatu zuten. Eraikin bereizi bat da, eta zaharra ez bada ere, atentzioa ematen du haren egoera eskasak, batez ere ugari diren metalezko elementuetan. Ate nagusiaren gaineko hegalkinak berak ere arriskutsua dirudi, duen itxura kaxkarragatik.

Ertzaintzaren gainontzeko polizia-etxeetan bezala, ziegak dauden guneak, oro har, diseinu ona du. Hamaika ziega dira; haietako batek, kolektiboa denak, 9 $m^2$ baino gehiago ditu luze-zabal, eta haren ateak burdinak ditu. Banakako ziegek azalera egokia dute (7 $m^2$ inguru), eta kanpoaldean metalezko xaflez egindako pertsiana moduko bat dagoen arren, egun-argia sartzen da. Geletako bik ate bikoitza dute, bata burdinazkoa eta bestea burdinez eta metakrilatoz hornitua. Argiaren intentsitatea ezin da erregulatu, nahiz eta erakunde honetatik hala eskatu hainbat aldiz. Atxilotuei ematen zaien burusia erabili eta botatzekoa da, ez ordea zerriak, behin baino gehiagotan erabiltzen baitira. Bisitaldian, hain zuzen ere, zerria batzuk lurrean botata zeuden, eta narras itxura ematen zuten.

Bainugela banakako ziegen aurrean dago, eta kristal zeharrargitsu batek korridoretik bereizten du. Komuna, konketa eta dutxa dauzka, eta garbi zegoen arren, horma nahiko hondaturik zeukan, batez ere kristalarekin bat egiten duen aldean.

Berokuntza eta aire egokituaren sistema bakarra da, eta gure informatzaileek adierazi zigutenez, ziegen gunean tenperatura egonkorra eta egokia da. Polizia-etxeko beste aldeetan, ordea, zaila da eguzki-argitik babestea, batez ere udan. Bestalde, leku batzuetan hezea pasatzen da. Ziegek ez dute aire sartunerik, eta bakarrik aireztatzen

dira ateko zuloetan barna. Izan ere, bisita egin genuenean haietako batean gaua eman zuen atxilotu bat beste ziega batera eraman zuten, kondentsazioa arazo nabariak zeudelako.

Mantenuaz, polizi arduradunak esan zigun bazkaltzeko eta afaltzeko tortilla-ogitarteko bat eta fruta ale bat eman ohi dizkietela. Horri buruz gomendio bat luzatu genien, atxilotze-aldia 24 ordutik gorakoa bada atxilotuak otordu oso eta bero bat izan dezan, plastikozko mahai-tresna eta guzti.

Atxilotze-aldiko jarduteak baloratzeko asmoz, momentu hartan atxilotuta zegoen pertsonaren erregistroaz gain etorkin batena ere aztertu genuen, berau ausaz aukeratua.

Zigan zegoen atxilotuarekin hitz eginda, adierazi zigun abokatu partikular bati dei ziezaiotela eskatu zuela, eta erantzun ziotenez ezin izan zutela topatu. Deiak zer ordutan egin ziren begiratzean ohartu ginen datu hori ez zegoela erregistraturik.

Atzerritarrak 30 ordu baino gehiago eman zituen ziegan, eta harekin ere antzerako hutsak izan ziren. Azaldu zigun, beteak beste, Atzerritarrentzako Brigadara eraman zutela, Ertzaintzaren polizi etxetik oso gertu, eta izan ere, halaxe ageri zen Brigadako agiri batean, baina lekualdatzearen datuak, ordea, ez ziren jaso ez euskarri informatiko batean ezta argiketa-agirian bertan edo atxilotuen liburuan ere (oraindik erabiltzen dira mota horretako liburuak). Ospitalera ere eraman zuten behin, eta ateraldia liburuan ageri bazen ere, erregistro informatikoan, aldiz, ez zegoen horren berririk.

Akats horiek azaltzeko adierazi ziguten aldaketak izan zirela eta atxiloketak erregistratzeko oraingo sistema informatikoa hiru hilabete lehenago jarria zutela. Antza, sistema berriarekin kontrol zorrotzagoa egin daiteke, baina haren aplikazioa zaila gertatzen da atxiloketa asko izaten diren polizia etxeetan, Irungoan kasu. Susmoa daukagu, agenteek ez ote duten lan burokratiko handiagoa ikusten sistema horretan tresna lagungarri baten ordez.

Bestalde, gu han izan gineneko atxiloketak informazio gehiago eman zigun emakumeen aurkako indarkeria kasuetan poliziak duen jokaeraz, horixe izan baitzen orduko atxiloketaren arrazoia. Nabarmena zen atxiloketa horiek epigrafe bakar batekin erregistratzeko nahia –eta guk egoki deritzogu hala egiteari– baina ikusten zen, era berean, irizpideak ez zeudela oso argi, hango kasua *etxeko tratu txarrak* izenarekin jaso baitzen, nahiz eta zantzuek aditzera ematen zutenaren arabera erruztatuak erasotako emakumea ez zen berarekin bizi omen zena. Emakumeen arazoak ukitzen dituen txosten honetako atalean azaltzen denez, “etxeko indarkeria” deritzon kontzeptua desegokia eta oso nahasgarria da; hobe litzateke *genero-indarkeria* edo *sexu-indarkeria* kontzeptuetara jotzea.

Hari beretik, informatzaileek azaldu ziguten lan-talde guztietan gutxienez emakumezko agente bat dagoela, berariazko prestakuntza hartu duena eta tratu txarrak salatzen dituzten emakumeei harrera egiten diena. Harremanak dituzte gizrte zerbitzuekin, eta adierazi zutenaren arabera, erakundeen arteko Protokoloa lagungarria izan zaie erasoak jasandako emakumeei izapideak errazteko.

Atxilotu adingabeei dagokienez, esan zutenez gehienetan ez dituzte ziegetan sartzen. Dirudienez, atxilotutako asko bakarrik dauden atzerritar adingabeak izan dira. Sistema informatikoaren bidez ikuskatu genuen kasu batean adingabeak atxilotze-aldi osoa eman zuen ziegan (17 ordu eta 30 minutu gutxi gorabehera).

Bisitaldiaren amaieran, ziega-guneak kontrolatzeko bideo sistemaren funtzionamendua aztertu genuen. Sistemaren arduradunak azaldu zigunez, beti dago

martxan, hondatuta egon zen hilabetean izan ezik. Informazioa disko gogorrean biltzeaz gain, segurtasun kopia bat egiten da, gero polizi etxean bertan gordeko diren zintetan.

c) **Deustuko Ertzain-etxea (Bilbo)**

Erakunde honetako bi aholkulari polizi etxe horretara azaldu ziren, 2003ko abenduaren 17an. Eraikinaren inguruan eraberritze lanak eginak zeuden: jendearentzako sarrera dagoen aldean arrapala batzuk paratu dituzte, mugikortasun urriko pertsonak aiseago sartzeko. Harrera guneko mahaiaren zati bat beheragotu egin da, gurpil-aulkietan dabiltzanak hobeto aritzeko.

Ziegen aldean hamabost banakako ziega daude, 7 bat $m^2$-koak; haietako altzari bakarra erlaitz moduko bat da, ertzak kamutsak dituena eta hormari atxikia. Ziega bateko ateak burdinak ditu, klaustrofobia dutenentzat erabiltzen baita. Ziegetako bitan eguzki argia sartzen da, argi-sistema erregulagarria dute, eta sabaian aireztatze sistema bat daukate, airearen hotz-beroa erregulatzeko. Atxilotuei burusiak eta zerriak ematen dizkiete, eta behin erabilita bota egiten dituzte.

Azaltzen ari garen guneak, ziegez gain, beste gela batzuk ditu: bi komun daude, dutxadunak, eta gela txiki batean gorputz-miaketak egiten dira. Bisita egin genuenean orbanak zeuden hormetan, odolezkoak beharbada. Seguru aski berrikuntzarik aipagarriena jangela gisa erabiltzen den gela txikia da, mahai bat eta lau aulki dituena, behegainari tinkatuak. Antza denez, atxilotuentzako janaria catering-enpresa batek eramaten du, eta adierazi zitzaigunaren arabera, jakiak aukeratzean kontuan hartzen da norberaren kultura; elkarrizketatu genuen atxilotu musulman batek esan zigunez, ordea, ez zuen gosaririk hartu, urdaiazpiko sandwich bat eraman baitzioten.

Eraikineko beste alde batean egun-argia duen ziega handiago bat (9 bat $m^2$ luze-zabal) egokitu dute adingabeko atxilotuentzat. Horrelako azpiegitura duen lehenbiziko ertzain-etxea da, eta uste dugu besteetara ere zabaldu beharko litzatekeela hobekuntza hori. Badago beste berrikuntza bat aipatzeko modukoa dena, osasun-jardueretarako paratu den gela, alegia: bertan forentsearekiko elkarrizketak egiten dira, botikina dago, etab.

Polizi jarduerekin zerikusia duten auziak ere aztertu ditugu (gorputz-miaketa, atzerriko atxilotuak, genero-indarkeria jasandako emakumeei ematen zaien tratua…), eta beste batzuetan bezala, halabeharrez aukeratutako espediente batzuk begiratu genituen, datuak erregistratzeko eta argiketak egiteko sistemak egiaztatzeko asmoz. Bi gazte magrebtar kexu azaldu zitzaizkigun, atxilotze-aldiak luzetsita, eta gai horretaz ere arduratu ginen.

Gazte horiek azaldu zigutenez, epaiketa arinen sistema ezarriko zitzaien, eta horren ondorioz polizi etxean egon behar zuten epaialdira arte. Berez, epaialdia 72 ordu pasatu aurretik egin behar da, baina egia da gaur egun atxiloketak lehen baino gehiago luzatzen direna. Seguru aski zuzendu ezinezko hutsa da, baina ikuspegi bermatzaile batetik, interesatuak gorabehera horien azalpen zehatzak jaso beharko lituzke behintzat.

Argiketak egiteko moduari dagokionez, horko horretan ere erakunde honetako aholkulariek interesatuak atxiloketaren arrazoien inguruan jasotzen duen informazioaz galdetu zuten, eta bertan ikusi zenez, Ertzaintzako talde guztiek erabiltzen duten agirian (*Eskubideen irakurketa eta erabilerari buruzko akta*) delituaren kalifikazio juridikoaz

gain ohar bat ageri da bakarrik, atxilotuari atxiloketaren arrazoien berri izateko eskubidea duela adieraztekoa. Aktaren atal batzuetan erruztatuak, bere eskubideak erabiliz, nahi dituen adierazpenak egin ditzake, baina hasierako atalean ez dago aukerarik badaezpadako askatasun gabetzearen arrazoiak biltzeko. Informatikaren alorretik ikusita, ez dugu uste arazo handirik dagoenik atal hori handitzeko, eta horrela, atxilotuaren informazioa hobeto bermatzeko. Hala ere, nahiz eta gomendio hori sarritan egin, Ertzaintzako arduradunek ez digute jaramonik egin alde horretatik.

Ildo beretik jarraituz, esan beharra dago Deustuko Ertzain-etxean ezarri duten kalitatearen kontrol-sistema zorrotzena dela polizia autonomikoak dituenen artetik. Batetik, zentroko arduradun batek egunean izandako atxiloketa guztiak ikuskatzen ditu, bete beharreko neurriak egiaztatzeko. Bestetik, segurtasun arduradunak bideo-sisteman (geroago arituko gara sistema horretaz) hartu diren irudietako batzuk begiztatzen ditu, eta irregulartasun batez ohartu orduko jakinaren gainean jartzen du bere nagusia. Bestalde, berariaz aukeratutako auditoreek egiten dituzten barne auditoriez gain, kanpo auditoriak ere antolatzen dira (Aenor).

Arartekoaren iritziz kontrol sistema horiek guztiak oso onuragarriak dira, eta komenigarri deritzo auditoria horien berri izateari, horrela ahaleginak bateratu bailitezke denona den helburu bat betetzeko, alegia, EAEko polizi zerbitzuak hobetzeko.

Ziegetako irudiak grabatzeko sistemari dagokionez, abian dela egiaztatu genuen, baina egunean hainbeste grabazio egiten direnez haien ikuskatzea oso motela da, eta ezin izan genituen ikusi guk geuk eskatutakoak. Grabatzen den materialaren tamainak bilketa-arazoak ere badakartza, eta ondorioz, zintak bi hilabetez edo gordetzen dira bakarrik. Arduradunaren ustez denbora tarte hori nahikoa da epaitegietatik datozen eskaerei erantzuteko, baina gure iritziz, grabazio horiek luzeago atxiki beharko lirateke, zigor alorreko arau-hauste arinen kasuan preskribatu arteko tartea sei hilabetekoa delako. Gai horren inguruan –eta hala adierazi dugu Herrizaingoari buruzko atalaren sarreran (II. kap; atala)– uste dugu grabazio sistemaren zenbait ezaugarri (kontrola, ikuskatzea, gordetzea…) ez direla oraindik behar bezala gauzatu, eta horrek eraginkortasuna kentzen dio sistemari.

## 1.1.12. ZADORRAKO URTEGIETAKO URAREN KALITATEARI BURUZKO TXOSTEN BEREZIAREN JARRAIPENA

1999ko martxoan gure ararteko erakundeak *Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urtegietan* izenburuko txosten berezia burutu zuen. Ullibarri-Ganboa eta Urunaga-Santa Engrazi urtegietako eta inguru gertuko ura aztertzeko xedeaz egin zen azterlana, kanpoko eragileek zer-nola eragiten zioten behatzeko.

Lanean hainbat ondorio atera ziren eta EAEko herri administrazioek babes egokia bermatzeko zeuzkaten neurri eta bitartekoen gaineko gomendioak ere egin ziren.

Zadorrako urtegietako uraren kalitatearen babes egokia bermatzeko eta, horrela, ezinbesteko ondasun hori egunero kontsumitzen duten ia milioi bat pertsonaren zuzkidura egokia ziurtatzeko, bost gomendio orokor eta hainbat gomendio sektorial luzatu genituen, uren kalitatea hobetzera eta eremu horretan dauden nekazaritza, abelazkuntza, hiri, industria eta astialdiko erabilpen eta jarduerek eragindako hondamena arintzera begira.

Heldu behar zitzaien gaien artean, Zadorrako sistemako urtegietako uraren kalitatearen arazoa zegoen, ikuspegi orokor, arloen arteko eta koordinatutik. Horretarako koordinaketako administrazio erakunde egonkorra eratu behar zela proposatu genuen, kontsulta edo informazio eginkizunekin edo, bestela, ebazteko ahalmenarekin, uren kalitateari ukitzen dioten eskumenak dituzten administrazio guztiak bildu eta topaketa gune izateko. Horren haritik, Zadorrako Sistemako Urtegiak Babesteko Mahaia sortu eta abian jartzeaz mintzo ginen.

Zadorrako Urtegien Arroa Babesteko Lurraldeko Zati Egitamua idaztea ere proposatu genuen, Zadorrako sistemako urtegietako uraren kalitatearen arazoari heltzeko asmoz, eta lurralde erreferentzia modura arro osoa hartuz.

Ikuspegi material batetik, korridore biologiko naturalak, pertsonak heltzeko zailak sortzeari garrantzitsu iritzi genion, urtegietako gertuko ingurunean erriberako landaredia berreskuratuz, beste erabilpen batzuk ordezkatzen laguntzeko eta uraren laminaren babes eragingarri modura balio izateko. Antzeko neurria hartuko beharko litzateke arroko ibaien eta ibaiadarren ertzetan ere.

Arroko nekazaritza lurrak “eremu zaurkor” izendatzeko aukera ere aztertzeko proposatu genuen –otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren eta 91/676/CEE Zuzentaraua aplikatuz–, jarduera egitarauak prestatuko liratekeen birtualtasunaz, nekazaritzatik sortutako nitratoen ondoriozko kutsadura murriztera begira. Jarduera egitarau horiek, eta nekazaritzako ohitura onen kodeak, nahitaez bete behar dira zaurkortzat jota dauden eremuetan dauden nekazaritza ustiapenetan. Beste gai interesgarri bat Ebroko Konfederazio Hidrologikoaren aurrean urtegietako arroa *“eremu sentibera”* izenda zezaten saiatzea zen, hirietako hondakin uren tratamenduaren gaineko 91/271/CEE Zuzentarauan aurreikusitakoaren ondoreetarako (abenduaren 28ko 11/95 Errege Dekretuaren eta martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuak aldarazitakoa). Horrek herrigune nagusietako hondakin uren araztegietan hirugarrendar tratamendua sartzera behartuko luke.

Gomendioak multzo desberdinetan sailkatuta zeuden: saneamendua, nekazaritzako ohiturak, abelazkuntzako ohiturak, mendiak, kontrol analitikoa, ibilgailuen trafikoa, babes zibila, astialdia, hezkuntza, ingurumena eta lurralde antolamendua eta hirigintza. Era berean, urtegien babesean inplikatutako administrazio desberdinei zuzentzen zitzaizkien,

hala nola, Eusko Jaurlaritzari, Arabako Foru Aldundiari eta eremu horretan eskumenekoak diren udalei.

Arartekoaren txosten berezia aurkeztu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibai eta Ibaiadarren Ertzen Antolamendurako Lurraldeko Zati Egitamua onetsi da (Mediterraneoko Isurialdea), abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuaren bidez. Lurralde antolamendurako bitarteko honek aintzira eta urmaelen mailarik gorenetik edo urtegiaren maila normaletik 200 metroko zabalerako perimetroko babes eremua definitzen zuen. Eremu horren gainean Lurraldeko Zati Egitamuaren zehaztapenak xehetasunez garatuko lituzkeen Plan Berezia idatzi beharko litzatekeela zioen.

Esparru horri ukitzen dioten Gune Hezeen Antolamendurako Lurraldeko Zati Egitamua eta Arabako Erdiguneko Lurraldeko Zati Egitamua ere tramitatzen ari dira.

Era berean, berezko fauna eta floraren habitat naturalen artapenaren gaineko Europako Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/CEE Zuzentarauari egitea aurreikusita dagoen aldarazpenean, Zadorrako urtegiaren eremuak 2000 Natura Sareko erkidegoarentzako intereseko tokien zerrendan sartzea pentsatuta legoke.

Ukitutako administrazioen arteko koordinazioari dagokionez, 1999ko maiatzean Zadorra sistemako urtegiak babesteko Mahaia eratu zen, gaiak eskumenik zuten administrazio eta erakunde desberdinen topaketa foro izateko, zegoen informazioa partekatzeko eta bakoitzaren jarduerak koordinatzeko. Hartara, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Ebroko Konfederazio Hidrologikoak, urtegietako arroko udalek, Amvisa-k, Bilbao-Bizkaia Partzuergoak eta Iberdrolak ituna sinatu zuten.

Bestalde, otsailaren 18ko 33/2003 Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Uraren Kontseilua sortu zen, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren mendekoa, gai horretan eskumenak dituena.

Gauzatzeko nahikoa denbora igaro dela iritzita, Arartekoak 2003 urtearen amaieran hainbat jarduera abiarazi ditu, gaiaren jarraipena egiteko eta egindako gomendioak zenbateraino bete diren ikusteko. Asmo horrekin jo dugu gaian eskumenik daukaten administrazioengana, bakoitzak zer jarduera praktikan jarri duen jakiteko –eta zenbateraino onetsi edo bete diren ere bai–, edo beren eskumenen esparrutik gomendio horiek betetzen laguntzeko zer egin duten jakiteko.

Urteko txosten hau ixten ari garenean, ukitutako administrazio batzuengandik informazioa heldu zaigu eta gainerakoek bidal diezaguten zain gaude. Behin dokumentazio guztia jasota, aztertu eta Zadorrako urtegien egoeraren eta txosten honetako gomendioak zenbateraino bete diren gaineko balantzea egingo dugu.

## 1.2. PERTSONA EZGAITUEN LANERAKO AUKERAK EAEn. TXOSTEN BEREZIA

Gaiari buruzko ohiz kanpoko txostena (*Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*) 2003an bukatu eta argitaratu zen; ekainaren 14an Eusko Legebiltzarreko lehendakariari helarazi zitzaion, eta azaroaren 5ean Giza Eskubide eta Herritarren Eskaeretarako Batzordean eztabaidatu zen.

Txosten hau duela gutxi plazaratu da eta osorik kontsultatzeko moduan dago, beraz, honako honetan puntu batzuk baino ez ditugu aipatuko, edukiaren adierazle: oinarrizko datuak, hobetu beharreko alderdiak, gomendioak…

Txosten berezi honetan ezgaituen laneratzea aztertzen da, gure Erkidegoan. Ahulezia bereziko egoeran dauden pertsonen kolektibo garrantzitsua du hizpide, beraz (lanerako adineko 60.000 pertsona inguru), eta garrantzi handiko gaiari ekiten dio: gure gizartean, ordaindutako lanerako irismena, pertsona askorentzat, gizarteratzeko bide nagusia da oraindik ere. **Hara zein den asmoa:**

- Gure Erkidegoan enplegua sustatzeko neurriak noraino heltzen diren jakitea, eta beste testuinguru batzuekin alderatzea.
- Ezgaituen enpleguaren kalitatea aztertzea.
- Kontratatutako pertsonen eta kontratatzen duten enpresen ezaugarriak aztertzea, laneratzen laguntzen edo laneratzea oztopatzen duten faktoreak ikertzeko…

Eta horretan guztian oinarrituz, azken batean, pertsona horiei bizitza kalitate hobea bermatzeko behar diren hobekuntzak proposatzea.

Beraien arazoen ikuspegi zabalagoa eskaini nahi genuen. Hartara, erakunde honek lan hau egiteko hasieran azaldutako aurretiazko oinarrietan, azterlanak alorraren arazoen ikuspegi orokorra eskain zezan eta lehenetsi genituen, edo guk esku har genezakeen zenbait arazo bereziki jorra zitzan saiatu ginen, batera bakarrik mugatu barik. Esaterako, irismena hiri ingurunetan eta, bereziki, herri zerbitzuak eskaintzen diren eraikinetan; zerga kontuak, lan merkaturako irismena, etxebizitza…

Azkenean, zailtasun teknikoak bitarte, azterlanen alorrak mugatu eta gaiak bereiztu behar izan genituen. Hartara, txosten honetan pertsona horiek lan merkatura heltzeko dituzten aukerak eta nola heltzen diren aztertzen da, eta beste batean gure Erkidegoko herri eraikinetako irismena jorratzen dugu (ikus 1.3 atala).

Biek jada adierazi dugun nahiari erantzuten diote, hau da, ezgaituen bizitza baldintzak hobetzea sustatzeko eta bereizkeriarik ez izateko eta gizarteratu ahal izateko duten eskubidea egiazkoago eta eraginkorrago bihurtzeko nahiari.

**Datuei dagokienez**, hona hemen, esaterako, txostenetik ateratako oinarrizko zenbait; ia guztiak 2000 edo 2001 urteari buruzkoak:

- Kalkulatzen da sei urtetik gorako ezgaituak, gure Erkidegoan, 144.000 inguru direla, biztanleriaren % 7,4. Horien erdia-edo 64 urtetik gorakoak dira, eta asko ez daude ezgaitu modura “erregistratuta”. Izan ere, ezgaitu “erregistratuak” 90.000 baino pixka bat gehiago dira eta, ahalmen urritasun maila eta ezgaitasun mota desberdinak dituzte (fisikoa, psikikoa, zentzumenezkoa), argi eta garbi.

- Pertsona horietatik guztietatik, 60.000 inguru lanerako adinean daude (16tik 64 urtera bitartean). Lanerako adineko ezgaitu “erregistratuak” 57.320 dira: 35.325 gizonezko eta 21.995 emakumezko.
- Lanerako adineko 100 ezgaitutatik 70 “ez-aktiboak” dira, hau da, ez daukate lan okupaziorik eta ez dira aktiboki enplegu bila ari.
  30 “aktiboetatik” 20 okupatuta daude eta 10 langabezian.
  20 okupatuetatik, erdia enpleguko zentro berezietan lanean ari dira, edo okupazio zentroetan, eta beste erdia enpresa arruntetan.
  Bestela esanda, lanerako adineko 60.000 ezgaituetatik 12.000 baino ez daude okupatuta (okupazio zentroetan daudenak barne), eta 7.000 soilik dira enpresa arruntetan dihardutenak, kontratu arruntarekin edo ahalmen urrikoentzako berariazko kontratuarekin.
- Lanean ari diren ezgaitu asko baldintza prekarioetan edo prestakuntza gutxiko enpleguetan ari dira. Hartara, 1.500etik gora daude INEMen izena emanda, “enplegua hobetzeko” eskatuz; era berean, enpleguko zentro berezietan lanean ari diren asko ere Langain hobetzea eskatzen duten pertsona modura ageri dira (1.594 pertsona).
- Ezgaituen gehiengoak bere egoeraren ondoriozko prestazioren bat jasotzen du; % 72k zergapeko pentsioak; % 12k zergapekoak ez direnak. Hala ere, 16.000 bat pertsonaren kasuan, laguntza hauek lanbide arteko gutxieneko soldatatik beherakoak dira eta horrek esan nahi du mendetasun ekonomikoa handia dela, normalean familien mende daudela, edo prekariotasun egoeran daudela.

Pertsona hauen errealitatearen inguruko datu horiek eta beste asko bildu eta aztertu dira txostenean. Datu orokorrak ez eze, ezgaitasun mota bati edo besteari buruzkoak ere bai. Hartara, datuak aztertu eta eskaintzeko orduan kontuan hartu diren **aldagai desberdinak** gogora ekartzea komeni zaigu:

- adina (adin multzoa);
- generoa;
- ezgaitasun mota (fisikoa, psikikoa, zentzumenezkoa);
- ahalmen urritasun maila (% 33-44; % 45-64; % 65-74; ≥ % 75);
- lurralde historikoa;
- zentro mota edo laneratzeko modalitatea (enpresa arrunta; lan enklabea...)

Horri esker, ezgaituen taldearen barruan gertatzen diren egoera desberdinak hobeto ezagutu ahal dira (emakumeak, gazteak, lurralde jakin batean bizi direnak, edo ezgaitasun mota jakin bat dutenak diren, egoerak aldatu egiten baitira), eta ezgaitu guztien arten lana lortzeko aukerarik gutxien duten kolektiboak zeintzuk diren antzematen da.

Ezgaituen lanerako ahalbideei dagokienez, asko dira inplikatuta dauden gizarte eragileak: ezgaituak beraiek, beren familiak, elkarteak, sindikatuak, enplegu emaileak, enpleguko zentroen titular diren pertsona edo erakundeak... Alor bakoitzak ikuspegi eta iritzi desberdinak, proposamen desberdinak... eduki ditzake. Horregatik, txostena egiteko inplikatutako **gizarte eragile desberdinak kontuan hartzen saiatu gara**. Batez ere, lanaren alderdi kualitatiboan: ezgaituen ahotsa bizitzako kontakizun modura

jaso da (9 bizitza kontakizun edo ibilbide) eta eztabaida taldeetan ere entzun zaie. Eztabaida taldeetan, gainera, elkarte, sindikatu, mutua, fundazio, enpresa eta administrazioetako ordezkariek hartu dute parte.

Baina, legeak Ararteko erakundearentzat ezartzen dituen eginkizunen eta bere txostenen ezaugarrien arabera, **hartu den ikuspegia batez ere erakundeen aldekoa izan da.** Bereziki, gure gomendioak egiteko orduan; ez ditugu gizarte eragile desberdinak ahanzten baina, bereziki, laneratzea sustatu eta lortzeko erakunde erantzukizuna duten administrazioetara jotzen dugu.

Eskubideak bermatzeko ikuspegi honen ildotik, hemen azpimarratu nahi ditugu – beste batzuetan egin dugun bezala-, bereziki kezkagarriak diren txosteneko hainbat alderdi, gure iritziz lehentasunez arreta eskaini behar baitzaie.

1. **Ezgaituen jarduera tasa biztanleria orokorrarena baino askoz ere txikiagoa izatea.**

Txostenean sartutako daturik berrienen arabera, ezgaituen langabezia tasa oro har biztanleriak duena baino askoz ere handiagoa da: % 33,3, % 13,7ren aldean. Diferentzia hori handiagoa gizonengan (% 33,8, % 9,5en aldean) emakumeengan baino (% 32,6, % 19,9ren aldean).

Zenbateraino laneratzen diren jakiteko funtsezko datua, ordea, hori ere ez da. Datu erabakigarria kolektiboaren "ez-aktibotasun" tasa altua da: lanerako adinean dauden 100 ezgaitutatik 30,9 baino ez dira aktibotzat jotzen, biztanlerian, oro har, tasa hori % 53,3koa den arren. Hau da, % 70a (ia % 80a emakume ezgaituen kasuan), familiaren sostenguaren edo gizarte prestazioen mende bizi da, laneratzea planteatu ere egin gabe.

Egiaz, zenbait muga funtzionalek laneratzea zail bihur dezakete, baina kasu askotan ezgaitasun egoerak, enpleguari dagokionez, testuinguruaren ondorio dira; bereziki, gizartearen pentsamoldearen ondorio. Garbi dago giro integratzaileago batean, gizartearen laguntza irmoagoa duen batean, pertsona horien jarduera tasak biztanleak oro har dituen tasetatik hurbilago egongo liratekeela, eta horrek integratzeko ahalbideak gehituko lizkiekeela.

2. **Lanari edo prestazio bati eusteko benetako ahalbideei dagokienez, bereziki ahulak edo behartsuak diren kolektiboak izatea.**

Datuak aldagai desberdinen arabera xehatzeak (adina, generoa, lurraldea, ezgaitasun mota eta maila....), kolektiboen artean lana aurkitzeko benetako ahalbideetan dauden diferentzia garrantzitsuak agerian jartzen ditu. Hartara, esaterako:

- Emakumeek gizonezkoek baino aukera gutxiago daukate;
- Ezgaitu psikikoek ezgaitu fisiko edo zentzumenezkoek baino gutxiago;
- Ahalmen urritasun handia dutenek (% 75etik gora), txikiagoa dutenek baino
- gutxiago...

Gure erakundearen iritziz, diferentzia horiek konpentsaziozko neurriak eskatzen dituzte, eta berariazko jarduerak, bereizketa positibokoak ahalbidetzen dituzte, oreka eta berdintasun handiagoa lortze aldera.

### 3. Lurralde bakoitzaren errealitatean ikusitako diferentzia garrantzitsuak.

Datuek erakusten dute lurraldea ere (generoa, adina edo ezgaitasun mota bezala), ezgaitu batek laneratzeko aukera handiago ala txikiagoak izateko faktore erabakigarria dela.

Diferentzia horiek bereziki esanguratsuak dira enpleguko zentro berezien eta okupazio zentroen sareaz ari garenean: Gipuzkoan, esaterako, 2000 urtean 3.257 toki zeuzkaten enpleguko zentro berezietan eta okupazio zentroetan, hau da, bere lurraldeko ezgaituen % 18,5entzako beste; Arabako estaldura antzekoa zen (% 17); Bizkaian, berriz, 2.296 toki baino ez zeuzkaten, hau da, lanerako adineko ezgaituen % 6,3rentzat baino ez.

Txostenak beste kontu batzuetan ere, hala nola, zentroen kudeaketa ereduan (titularitate publikoa ala pribatua) desberdintasun deigarriak igartzeko aukera ematen digu, baita ere alde esanguratsuak lurralde historikoen artean, ezgaitasunari lotutako prestazioei dagokienez (bai prestazio motan bai prestazioen zenbateko handiago edo txikiagoan).

### 4. Enpleguko zentro bereziek beren oinarrizko helburua ez betetzeko arriskua: enplegu arrunterako bidea erraztea.

Bai enplegu arruntetarako irispideen datuek eta bai jasotako balorazioek ere arrisku bera jartzen dute agerian: enplegurako zentro bereziak enplegu arrunterako zubi, bitarteko tresna edo bide ez izatea, alegia, ezgaituak enpresa arruntetara bideratzeko helburua ez betetzea, lan merkatuaren ezaugarriak direla medio, edo zentroen errentagarritasuna bilatu beharragatik.

Zentro hauek lortutako garapen maila kontuan izanik, batez ere zenbait eremu eta alor ekonomikotan, badirudi egoera hori berrikusi behar dela, prozesua sostengatzeko edo, bestela, zentroen gainean kontrol handiagoa izateko eta egon litezkeen ondore txarrak saihesteko.

Era berean, enpleguko zentro berezien eta okupazio zentroen artean dagoen harremana berrikusi edo araupetu behar da, sarritan elkarren ondoan dauden instalazioak erabiltzen dituztelako, edo instalazioak partekatzen dituztelako. Horrek baditu abantailak, baina baita arriskuak ere, esaterako, okupazio zentroetan artatutako pertsonak, inoiz edo, produkzio lanetan aritzea, inolako kontratazio, baldintza edo ordainsaririk gabe.

Horrek arazoak dakartza, eta izan ere, nolabaiteko ezinegona eragin du enplegurako zentro berezi garrantzitsuetako arduradunen artean. Txostena argitaratu ondoren, informazioa trukatu eta bilerak egin ditugu arduradun horietako batzuekin, eta adierazi dutenez, euren ustez, esaten diren zenbait gauzak ez diote batere onik ekartzen zentro horiek lehen eta orain egiten duten lan garrantzitsuari, ezta errealitatearekin bat etorri

ere. Joan den urrian, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak "Jendaurreko Entzunaldi" moduko bat antolatu zuen, ezgaituak EAEko lan merkatu arruntera bideratzeko Planaren zirriborroa aurkeztu eta eztabaidatzeko, eta han ere gai berbera mahairatu zen. Plan horretan, bestalde, aztertzen ari garen txostenaren datu, planteamendu eta proposamenetako asko jasotzen dira.

Arazoaren inguruko eztabaidan esperientzia eta asmo desberdinen arrastoa antzematen da. Erakunde honen iritziz, beharrezkoa da zentroen lana aitortzea eta baloratzea, urte askotako emaitza baita, gehien-gehienetan batere lagungarriak ez diren ezaugarriak gorabehera lortua. Baina beharrezkoa gertatzen da, era berean, aipatutako arriskuari aurre egitea, areago kontuan harturik horrelako zentroek izandako garapen maila eta txostenean bildutako datuak.

## 5. Enplegurik gehiena babestua, prestakuntza gutxikoa edo txarto ordaindutakoa izatea.

Txostenaren xedeetako bat ezgaituen enpleguaren "kopurua" barik "kalitatea" aztertzea zen. Txostenak, batez ere zatirik kualitatiboenean -datuek ez baitute beti halako konturik jasotzen- balorazio kezkagarriak eskaintzen ditu: prestakuntza maila txikiak, prestakuntza mailak baino askoz ere beheragoko kontratazioak, enplegu hobearen eskari handia…

Garbi dago gai horiek ukitutako pertsonen itxaropen mailarekin zerikusia dutela. Sarritan, beren lan egoerarekin kritikoen diren ezgaituak, edo lan hobea eskatzen dutenak, prestakuntzarik handiena izaten dutenak, edo hobeto ikusitako beste lan batzuk egiteko guztiz gai direla uste dutenak dira.

## 6. Gizarte kontzientzia urria edo lan eta enpresa munduaren prestakuntzarik eza.

Plano teorikoan, azken urteotan, aldaketa sakonak izan dira ezgaitasuna ulertzeko moduan. Gero eta balio handiagoa ematen zaie testuinguruari eta gizartearen pentsamoldeari laneratzeko faktore erabakigarri gisa, zama hori pertsonaren "ezgaitasunari" egozten zitzaion tradiziozko pentsaeraren aldean. Garbi dago muga funtzional jakin bat duen pertsonak lanpostu baten betekizunak egokiro bete ahalko dituela, zein testuingurutan kokatzen duten: oztopo arkitektonikoak, ergonomia, sostengu teknikoak, baliabide informatikoak… dira baldintzatzen duten elementu batzuk, eta testuinguru edo enpresa bat "errazagoa" izan dadin ala ez eragiten dutenak.

Ez dirudi kontzeptuen planoan ematen ari den pentsamolde aldaketa hori gizartearen multzoak barneratu edo bere egin duenik, bereziki kontratazioa mende hartzen duten edo arauketarako ahalmena duten erakunde edo pertsonek.

Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak eskola arruntetan sartzeak, bere garaian, gizarte aldaketa nekeza eta inplikatutako gizarte eragileen artean aurreiritzi eta praktikak aldatzea eskatu zuen bezala, ezgaituen laneratzeak ere gizartearen sentsibilizazioa lantzea, aurreiritziak eta estereotipoak zuzentzea eta enpresaburuak kontzientziatzea eskatzen du.

## 7. Daturik eta irizpiderik ez izatea, ez egoeraren jarraipena egiteko, ezta ezkutuko egoeren berri izateko ere

Kasu guztietan ez dugu nahi genituen datuak lortzerik izan. Batzuetan, iturriek (hainbat iturri desberdin) ez dituztelako antzeko irizpideak erabiltzen baterako konparazio eta analisiak egin ahal izateko.

Beste batzuetan, pentsa daiteke ez direla ezagutu nahi zenbait egoera, edo egoera horiek ezkutuan iraun dezaten nahi dela, hain zuzen. Nola da posible, bestela, LISMI onartu zenetik 20 urte igaro ondoren, oraindik hain zaila izatea gordetzeko kupoa zein enpresak betetzen duten eta zeintzuk ez jakitea? Edo ez-betetze horiek inolako ondoriorik ez izatea? Edo zenbait zentro edo talderen jarduera hain iluna izatea?...

Egiaz, asko dira hemen aztertutako gaietan eskudun diren edo inplikatuta dauden erakundeak. Estatuko Administrazioaren mendeko erakundeak; Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeak; aldundietako erakundeak... Errealitatea hobeto ezagutu nahi bada eta jarraipen handiagoa egin nahi bazaio, erakunde desberdinek beren datuak ustiatzeko antzeko irizpideak edo irizpide osagarriak erabiltzea litzateke onena.

## 8. Betetzen ez diren arauei dagokienez, kontrolerako eta erantzun eraginkorrerako mekanismorik eza.

Gure inguruko herrialderik gehienetan ezgaituei laneratzen laguntzeko politika aktiboak hartu dituzte, eta horretarako gehien erabiltzen den bide bat enpresetan eta administrazioetan gordetzeko kupoak ezartzea izan da. Kupo horiek, txostenean ikusten den bezala, “handiagoak” ala “txikiagoak” izan daitezke. Gure kupoa txikienetako bat da: lanpostuen % 2 gordetzea 50etik gora langileko enpresetan. Hala ere, kupo hori ere ez da betetzen: 2000 urteko datuetan, % 2ko kupo hori EAEko 50 langiletik gorako 1.680 enpresei aplikatzen badiegu, ezgaituentzat gutxienez 5.249 toki leudekeela ematen digu. Baina Gizarte Segurantzan afiliatuta zeudenak, benetan, ezgaituentzako berariazko kontratuarekin, ez ziren horren erdira ere heltzen (2.354 pertsona 2001eko abenduan).

Deigarriena, ordea, ez da kupoa ez betetzea, baizik eta 2000 urtera arte ez dela betebehar hori sistematikoki ez betetzea eragotzi edo zigortzeko inolako kontrol mekanismorik egon, edo mekanismo horiek, antza, ia ez direla erabili.

## 9. Zenbait arautze eta lan merkatuaren egungo errealitatea ez datoz bat.

Esaterako, kontraesanak nabari dira aldi baterako kontratazioek gero eta garrantzi handiagoa duten sistemaren eta, ia esklusiboki, kontratazio mugagabeetan oinarritzen jarraitzen duen ezgaituak kontratatzeko laguntza-politikaren artean.

Gure Erkidegoan 2000 urtean egin ziren 686.102 kontratazioetatik % 92 aldi baterakoak izatea, berez, datu kezkagarria da, eta biztanleriaren zati handi bat hartzen duen lan prekariotasunaren erakusgarri. Baina, hala den bitartean, kontuan hartu beharko da ezgaituen kontratazioaren sustapenerako. Izan ere, urte horretan bertan, guztirako 686.102 kontratazioetatik 734 soilik izan ziren ezgaituenak (% 0,1 inguru).

10. **Lana aurkitzean inplikatuta dauden gizarte-eragile desberdinen artean jarduerak nekez koordinatzea.**

INEM, Langai, enpresaburuak, administrazio desberdinak, ezgaitasun desberdineko pertsonen elkarteak, senideen elkarteak, lan mutuak, sindikatuak, kontratazioroko enpresa bitartekariak, enpleguko zentro bereziak, okupazioko heziketako zentroak, oinarrizko gizarte zerbitzuak... Horiek dira inplikatutako gizarte-eragile batzuk, izatez edo beren eginkizunen arabera, ezgaituak gehiago ala gutxiago, baldintza hobe edo okerragotan lanean has daitezen lagun dezaketenak.

Batetik, baliabide horietako bakoitzaren benetako eragingarritasuna aztertu beharko litzateke (benetan lortzen dituzten laneratze tasak), eta ondoriozko neurriak hartu. Bestetik, eragingarritasun handiagoa lortzearren, ahaleginak eta ekimenak koordinatu behar direla ematen du.

* * *

Txostenean jasotako datu, balorazio eta proposamenak kontuan hartuta, **Arartekoak 24 gomendio egiten dizkie administrazio arduradunei,** berari dagokion ikuspegitik -eskubideak bermatzea- eta, arestian esandako kezka-gaien eta hobetu beharreko kontuen ildotik.

Gomendio horien bidez, ezgaituen aukera-berdintasuna eta haien erabateko partaidetza eta laneratzea benetan eragozten duten oztopoak kendu nahi dira. Traba horiek -fisiko, tekniko eta gizarte mailakoak- gizartea sentsibilizatuz, konpentsaziozko edo bereizketa positiboko neurrien bidez, enplegu arrunterako igarobidea erraz dezaketen zerbitzuak hobetuz, dauden programak ebaluatu eta berrikusiz... gainditu nahi dira. Beraz, hona hemen zer proposatzen den:

- Erreserba kuotak gehitzea eta enpresek eta herri administrazioek benetan bete ditzaten bermatzea.
- Gure artean orain arte gutxi garatu diren enplegu formulak araupetu eta sustatzea, hala nola, sostengudun enplegua.
- Lantokiak eta lanpostuak egokitzeko eta enpresetarako sarbidea errazteko, sustapen-lana egitea.
- Gizartearen sentsibilizazio handiagoa lortzea, enpresa eta sindikatuak hartuta.
- Laneratzeko arazorik handienak dituzten kolektiboen aldeko berariazko politikak garatzea.
- Genero desberdintasunak orekatzea.
- Enpleguko zentro berezien eta okupazio zentroen egoera berriz aztertu eta berriz bideratzea.
- Lurraldeen arteko desorekak zuzentzea.
- Lan bitartekaritzako zerbitzuen eragingarritasuna areagotzea.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta elkarteek enplegurako irismena errazteko egiten duten lanaz baliatzea.
- Laneratzea errazten duten gizarte eragile desberdinen arteko koordinazioa eta lankidetza hobetzea.
- Ezgaituen prestakuntza eta trebakuntza hobetzea.

– Enplegurako irismena eta prestazioak bateragarri egitea.
– Enpleguaren kalitatea eta gerta litezkeen bereizkeria egoerak ebaluatzea.
– Ezgaituen benetako enpleguari buruzko informazioa hobetzea.
– Lagundu eta suspertzeko bideak lan merkatuaren bilakaerara moldatzea.
– Mutuak langileak berriro lanera itzul daitezen inplikatzea.
– Teknologia berriek eskaintzen dituzten ahalbideak erabiltzea.
– Programak ebaluatzea eta benetako laneratzearen gaineko jarraipena egitea.

Txosten hau Eusko Legebiltzarrari aurkeztu ondoren, eta kezkak eta gomendioak helarazi ondoren administrazio eskudunen arduradunei, jarraipen-lana egingo du, gomendioak zenbateraino betetzen diren jakiteko, hurrengo urteetan.

Horretarako lehenbiziko urratsa egina dago, hala ere: 2003ko azaroaren 9an Arartekoak ofiziozko jarduketei ekin zien, ezgaituak enplegu publikora iristea erraztu behar duen erreserbarako kuota martxan jarrarazteko. Asmo horrekin, aurreko urteko gomendio orokorra (ikus 2002ko txosteneko VI. kapitulua) eta hona laburbildutako txostenaren gomendioak aintzat hartuz, Arartekoak ondoko sail eta instituzioengana jo zuen:

– Eusko Jaurlaritzako Ogasun Saila
– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
– Osakidetza
– Hiru lurralde historikoetako foru aldundiak
– Vitoria-Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udalak.

Guztiei datu zehaztuak eta sailkatuak eskatu zitzaizkien, administrazio bakoitzean ari ziren ezgaituen kopuru osoa jakiteko, eta funtzio publikorako azken prozedura eta deialdietan gordetako erreserba kuotaren berri izateko. Gogoratu behar da 9 instituzio edo sail horiek langile gehienak eta kontratazio ahalmen handiena dutenak direla. Txosten hau bukatzear dagoela, erantzuna iritsi zaigu instituzio horietako batzuetatik, eta uste dugu hurrengo txostena egiterakoan datu guztiak izango ditugula.

## 1.3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN IRISGARRITASUNA. TXOSTEN BEREZIA

Europako Minusbaliatuen urtean, Arartekoak ohiz kanpoko txosten bat egin zuen -*Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna*-, eta 2003ko irailaren 24an Eusko Legebiltzarrera helarazi zuen.

Txosten hau ez da ekimen lokabe bat, Europako Minusbaliatuen urtearen ondorio soila. Uste dugu, alabaina, lagungarria izan dela, hausnarketa eta eztabaida piztu baitu pertsona horien aukera berdintasunerako behar diren neurrien inguruan, eta horixe zen, hain zuzen, Europako urtearen helburuetako bat.

Txostenak irisgarritasunaren aldeko ekimen politikoak aztertzea zuen **helburu**, irisgarritasuna bultzatzeko 1997ko abenduaren 4ko Legea indarrean sartuz geroztik honako tartea arakatuz, bereziki legea garatzen duen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren orain arteko indarraldiari dagokionez. Izan ere, Dekretu horrek eraikinetarako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak zehazten ditu.

Azterketa honekin, administrazio publikoek alorrean hartutako konpromisoa neurtu nahi genuen; horretarako, jakin beharra zegoen noraino bete dituzten Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udalek indarrean dauden arauetako aginduak.

Azterlanerako **metodologiaren** muina 95 puntuko galdesorta bat zen, Erkidegoko udal guztiei bidali zitzaiena; 250 udaletik 151k erantzun zuten, EAEko biztanleen % 77 biltzen dituztenek hain zuzen. Erantzun ez zuten udal gehienak 5.000 biztanletik beherako tartean daude, batez ere 1.000 biztanle baino gutxiagokoan.

Hiru foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan, informazioa erakunde bakoitzeko sailburuarekin izandako elkarrizketetan bildu genuen. Horretaz gain, gaiari lotutako araudietara eta zenbait erakunde publikok emandako dokumentuetara jo genuen. Horren adibide dira Euskadiko Irisgarritasunerako Kontseiluak urtero aurkezten dituen txostenak.

Informazioa borobiltzeko, horrelako eraikinen adierazgarri den zerrenda bat osatu genuen, aukeratutakoetan lekuan lekuko egiaztapenak egiteko asmoz: hiru hiriburuetako 428 udal egoitzatan bertaratu ginen; beste horrenbeste egin genuen aldundien hiru lurralde historikoetako 143 lokaletan eta Eusko Jaurlaritzaren 273tan.

Benetan aipagarria da bisitak egiteko irabazi-asmorik gabeko zenbait elkartek eman ziguten laguntza: Eginaren Eginez, Araban; Gipuzkoako Minusbaliatu Fisikoen Koordinaziorako Federazioa; eta Minusbaliatu Fisikoen Koordinaziorako Federazioa eta Bidaideak Bizkaian.

Eraikin publiko horien nondik norakoak jakin nahi dituenak datu zehatz ugari aurkituko ditu gure web orrian www.ararteko.net, bertan eskuragarri baitago orain gutxi argitaratutako txostena.

Atal honetan gaiaren zenbait alderdi ekarri ditugu, gure iritziz esanguratsuenak direnak.

Txostenaren emaitzak abiapuntu harturik, esan dezakegu aztertutako eraikinetan irisgarritasuna ez dela inondik ere beharko lukeen bezainbestekoa, alde nabarmena baitago bai administrazio publikoen artean eta bai administrazioek ematen dituzten zerbitzuen artean ere.

Gure Erkidegoan, irisgarritasunaren alorrerako indarrean dauden arauak honako hauetan daude zehaztuta: abenduaren 4ko 20/1997 Legea –Irisgarritasuna Bultzatzekoa– eta hura garatzeko eman diren bi dekretuetan.

Arauaren nolakoari erreparaturik, esan behar da aurrerakoia dela, oinarrian berdintasunaren printzipioarekin batera gizaki guztien aniztasunaren eta eskubideen defentsa igartzen baita. Izan ere, legeak bere egiten dituen zenbait kontzeptu, orotarako diseinuaren funtsari lotuta daude.

Helburuen aldetik, irisgarritasunaren alorrean araudiak eskaintzen duen berme eta babes maila nahiko handia da.

Ikuspegi horretatik, eta irisgarritasuna bultzatu nahian, legeak zenbait tresna zehazten ditu, Euskadiko administrazio publiko guztiek baliatu beharrekoak: kuoten erreserbak, lau urterako programak, sustapenerako politikak...

Goikoaz gain, kontrolerako tresnak ere aurreikusten ditu, lizentziak, kontratu administratiboen baldintza pleguak eta salbuespenen sistema erabiliz horretarako.

Bestalde, arauaren lege izaerak aurrerapen handia ekarri du aurreko egoeraren aldean, eta ezinbesteko baliabide bilakatu da, zehapen erregimena eskuratzean funtsezko tresna batez hornitu baita, araua behar bezala ezartzen eta betetzen dela ziurtatzeko.

Txostenaren muina: Legeak ezarritako aginduen betetze maila administrazio publikoetan.

Legeak bi urteko epea ematen zien euskal administrazio publiko guztiei irisgarritasunari buruzko lau urterako planak osatu zitzaten.

Epe hori 1999ko abenduan bukatu zen, eta orduko egoera ez zen baikor agertzeko modukoa. Aurrenik, **udalek** egindakoari erreparatuko diogu, eta esan beharra dago inkestari erantzun zioten udaletatik 2003ko otsailerako zazpik baino ez zutela onartu bere irisgarritasun plana: Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Guenes, Orio eta Urretxu, hain zuzen. Gaur egun beste udal bat dago zerrenda horretan, duela gutxi Leioak ere onartu eta aurkeztu baitu irisgarritasun plana.

Aurrekoarekin batera beste bi datu kezkagarri aipatu behar dira: inkesta egindako udalen % 63k ez zuten irisgarritasun plana egiteko asmorik azaltzen, **nahiz eta** legeak hala agindu; bestalde, 50.000 biztanletik gorako udaletan neurriren bat hartu bada ere, haietako batek ere ez du behin betiko onartu bere programa, ezta hiru hiriburuek ere. Hedabideen bitartez jakin dugunez, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteizko Udalek plana osatzeko lanean dihardute.

Sustapen politikei dagokienez, datuak ezin adierazgarriagoak dira: bederatzi udalek baino ez dute diru-laguntzetarako deia zabaldu irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat, eta norbanakoentzako laguntza ekonomikoak aurreikusten zituzten udalak hogei bat ziren soilik.

Goikoa ikusirik, oro har Euskadiko udalek ez dute behar besteko atarramenturik ateratzen legeak eskuragarri jartzen dizkien baliabideetatik, eta sarritan ez dituzte arauaren aginduak inondik ere betetzen.

Erabilera publikoko eraikinetako eraberritze eta eraikitze lanen gainean egin beharreko kontrol eta segimenduari dagokionez, udaletako % 56k onartzen dute beren teknikariek ez dutela ikuskapen sistematikorik egiten obretan irisgarritasunerako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko. Kezkagarriagoa izan da jakitea gehienetan udalen herenak ez dituztela eraberritze lanak ikuskatzen obrak amaitu ostean.

Era berean, ez da ezein udaletan zehapenik edo salaketarik erregistratu oin berriko eraikinetako irisgarritasun betekizunen inguruan, euskal udalek ez baitute kontrol egokirik burutzen arlo horretan.

Udal zerbitzu publikoetarako irisgarritasunari dagokionez, ondoko puntuak adieraziko ditugu:

Era horretako egoitzen % 36 iritsi ezinezkoak dira, eta egoera hori antzerakoa da hiru lurralde historikoetan.

Hiru hiriburuen artetik, Vitoria-Gasteizek ditu ezaugarririk egokienak, eta Bilbok, aldiz, arazorik nabarmenenak, bertako egoitzetatik herena baino gehiago iritsi ezinezkoak baitira.

Erabilerari so eginez gero, irisgarritasun maila onena gizarte zerbitzu, kirol jarduera eta zerbitzu orokorretarako egoitzetan antzematen da. Hezkuntza arlokoetan, ordea, % 24 baino ez dira irisgarritzat jo, hau da, hamar ikastetxetik lau bakarrik har daitezke iristeko modukotzat. Egoera kaskarrena Bilbon igartzen da, bertako egoitzarik % 70 agertzen baitira iritsi ezin.

**Hiru aldundien** kasuan, batek ere ez du oraindik benetako irisgarritasun planik osatu lau urterako, baina Araba eta Gipuzkoakoek zenbait ekimen burutu dituzte beren lokalak aztertu eta egokitzeko.

Aitzitik, norbanakoentzako laguntza ekonomikoen eta diru laguntzen alorrean, **egia da** hiru foru erakundeek ahalegin handiak egin dituztela. Ildo beretik, zerga alorreko laguntzak ere abiatu dituzte, bereziki salbuespenak eta kenketak ezarriz ondokoetan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), BEZ, zenbait garraiobideren gaineko zergak eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Aldundiek kontrol eta ikuskaritzarako eskumena dute hainbat zerbitzutan, batez ere gizarte laguntzarako zentroen kasuan.

Arrazoi legalak direla medio, ikuskaritza eta kontrolerako lanak gehienbat hirugarren adinekoen zerbitzuetan (egoitzak eta eguneko zentroak) gauzatu dira.

Horregatik, hain zuzen, 143 lokaletara egindako bisitaldien emaitzetatik bertarako irisgarritasuna guztiz egokia dela ondorioztatzen da: izan ere, aztertutako lokalen % 63 irisgarritzat jotzen dira; ehun lokaletik hamabostetan, mugikortasun urriko pertsonak sartu ezinik daude, eta ehuneko 22tan irisgarritasuna ez da erabatekoa.

Arlokako azterketari erreparaturik, gizarte zerbitzu espezializatuetan ia guztiak dira irisgarriak, baina hala-moduzkoa da –nabarmen- kultur, kirol eta gazte zentroetan.

Proportzionalki, egoera okerxeagoa da Gipuzkoan, bertako lokaletatik % 45 soilik hartu baitira erabat irisgarritzat.

Erkidegoko **administrazio orokorrak** ere ez du irisgarritasuna bultzatzeko lau urterako planik, sail guztietara zabaltzeko modukorik.

Benetako irisgarritasun planik ez eduki arren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak –Jaurlaritzaren eraikin guztiak kudeatzeko ardura duena, hain zuzen– eraikin guztien segimendu orokorra egin du, eta gehienak 20/1997 Legeak zehaztutako baldintzetara egokitu ditu.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak lau urterako daukan irisgarritasun plan bakarra Herrizaingo Sailak taxututakoa da.

Ikuskatutako 272 eraikinetatik, honako ondorioak atera daitezke:

Datu orokorrek adierazten dutenaren arabera, irisgarritasun maila ona dago: lokalen % 71 irisgarriak dira, eta % 9,9 iritsi ezinekoak. Horren arrazoia Lakuan gertatzen den zerbitzuen zentralizazioa da.

Dauden eremu desberdinak azterturik, egoera okerrena hezkuntza arloan –bai bigarren zein lanbide hezkuntzan eta bai unibertsitatean ere- eta osasunekoan ageri da.

Horren arrazoia, hein batean, eraikinen jatorrian datza, bigarren hezkuntzako sarea –eta neurri apalagoan Osakidetzarena ere- lehengo eraikinek osaturik dagoelako, eta haietako batzuk bestelako erabileretarako eginak zirelako. Hala ere, ez zen beharreko egokitze lanik burutu eskuratutako ondasun horiek atontzeko. Azpimarratzekoa da, horren haritik, Gipuzkoako ospitale-guneko egoera eskasa.

Haatik, azken urteotan eraikin berriak eraikitzeari ekin dioten sailek irisgarritasun maila onena dute. Horren erakusgarri argiena justizi jauregiak eta Ertzaintzaren polizi etxeak dira.

Ondorio gisa, esan beharra dago euskal administrazio publikoek oso gutxitan –ia kasu bakan batzuetan- baliatu dituztela legeak eskaintzen dituen tresnak, eta nahiz eta erakunde horietako asko ahaleginetan ari diren zein bere alorrean irisgarritasuna bultzatzeko, emaitzak ez dira batere homogeneoak izan.

Txostenarekin administrazio publiko guztiei ohartarazi nahi zitzaien, minusbaliatuentzako ibilgarri diren ibilbideak ezar zitzaten, haien gizarteratzea errazte aldera. Asmo horrekin txostenak 16 iradokizun egiten zituen:

- Alor honetan, administrazio publikoek orotarako diseinua hartu behar dute erreferentziatzat.
- Minusbaliatuen elkarteen parte hartzea sustatu behar da, ekintzak hasieratik planifikatzen direnean ere.
- Neurriak hartu behar dira eraikinaren zein inguru fisikoaren diseinuan eta eraikuntzan diharduten teknikariek eta profesionalek beharrezko informazioa izan dezaten minusbaliatuentzako irisgarritasuna bermatzeko politiken inguruan.
- Irisgarritasuna bultzatzeko lau urterako planik eginda ez duten administrazio publikoek lehenbailehen ekin behar diote lan horri.
- Udal zerbitzuetarako erabiltzen diren eraikinen kasuan berebiziko ahaleginak egin behar dira irisgarriak izan daitezen.
- Foru aldundiei dagokienez, lehentasuna eman behar diote, luze gabe, minusbaliatuentzakoak diren eraikinak egokitzeari. Beste horrenbeste egin beharra dago kultur, kirol eta gazte zentroetan.
- Eusko Jaurlaritzak, lehenik eta behin, bera titularra den hezkuntza eta osasun arloko zentroetako lanei ekin behar die, Donostiako ospitale-guneak bizi duen egoera berezia ere ahaztu gabe.
- Zerbitzuen eskaintza erakunde pribatuekin hitzartzean, komenigarria litzateke irisgarritasunaren alorrean bete beharreko eskakizunak zehaztea.
- Egiaztatu egin behar da lau urterako programak betetzen eta burutzen direla.
- Behar diren sustapen neurriak hartuko dira, ezarritako helburuak betetze aldera, eta oro har, irisgarritasuna bultzatzeko. Lagungarria litzateke administrazio bakoitzari dagozkion betebeharrak argi zehazturik egotea. Egokia gerta liteke Euskadiko Irisgarritasunerako Kontseiluak norberaren eskumenak bereiztea.
- Horrelako argitze lanak aparteko garrantzia du udalek obrak burutzeko eta beren irisgarritasun planak osatzeko jasotzen dituzten diru laguntzen kasuan.
- Bultzatu eta sustatu beharrekoak dira irisgarritasunaren alorrean espezializatuta dauden irabazi-asmorik gabeko elkarteak.

- Pertsonaren beregaintasuna bultzatzeko eta laguntza teknikoak eskuratzeko norbanakoei ematen zaizkien diru laguntzen kasuan, foru aldundiek handitu egin beharko lituzkete horretarako dituzten aurrekontuak.
- Udal ikuskaritzarako zerbitzuak indartzearekin batera, beharrezkoa da aldundiek udal txikiekiko elkarlana ere sendotzea.
- Argiagotu egin behar da abenduaren 4ko 20/1997 Legeak –Irisgarritasuna Bultzatzekoak– berekin dakarren zehapen erregimena.
- Minusbaliatuek duten irisgarritasunerako eskubidea sustatzeko, Eusko Jaurlaritzako Sail guztiek era desberdineko ekimenak bultzatu beharko lituzkete: jokaera egokien gidak, balorazioak, jarduteko jarraibideak, zabalkuntza eta prestakuntzarako ekimenak...

Edonola ere, iradokizun horiek guztiak euskal administrazio publikoentzako gomendio zehatz eta irmo batean laburbil litezke: bete egizue legea, bete egizue irisgarritasunerako araudia, balia itzazue araudi horren tresnak, bete itzazue kontrolerako eta sustapenerako neurriak, eta beharrezkoa bada, jo egizue zehapen erregimenera.

## 1.4. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI ERAKUNDEEK EMANDAKO ERANTZUNA EAEn. TXOSTEN BEREZIA

*Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn* izenburuko txosten berezia, erakunde honek 2003an egina, 2004ko urtarrilaren 29an argitaratu eta aurkeztu zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari. Beraz, oraintsu argitaratutako txostena da, eta horren berri jakin nahi duten pertsona eta erakunde guztiek eskura dute. Orduan, hemen txostenaren funtsezko edukien laburpen bat bakarrik egingo dugu: ikusitako arazo nagusiak eta hobetzeko gomendio edo proposamenak.

Emakumezkoen aurkako indarkeriak giza eskubideak larriki urratzen ditu eta, gainera, gure gizartean oso hedatuta dago. Urte askotan, errealitatea –generoa dela eta, gizarte desberdintasunekin estuki lotuta– ezkutatu egin da, baina azken urteotan gai horrekiko gizarteak duen sentiberatasuna handiagoa da.

Orain dela gutxi arte fenomenoa familiartekoa eta pribatua zen, baina mugimendu feministari esker, arazo sozial eta politiko garrantzitsua bilakatu da. Testuinguru horretan azpimarragarria da agintari publikoek duten zuzeneko erantzukizuna. Beraiei dagokie pertsona guztien bizitzarako nahiz askatasunerako eskubideak eta duintasuna babestea, eta, ondorioz, halabeharrez arazoari erantzun koherentea eta eraginkorra eman behar diote. Ikuspuntu horretan kokatzen da txostena: gure autonomia erkidegoan genero-indarkeria pairatu duten emakumezkoei erakundeek eskaintzen dieten laguntza aztertzen da. Ildo horri jarraiki, bakarrik errealitatearen zati bat lantzen du eta garrantzitsuak diren beste batzuk alde batera uzten ditu, besteak beste, arazoaren hedadura, arrazoiak, prebentzioa, egintza judizialak, elkarteen zeregina…

Ararteko erakundeari dagozkion eginkizunen arabera, txostenak helburu hau du: emakumezkoen beharrei erakundeek emandako erantzuna balioztatzea -alegia, behar horiei zenbateraino egokitzen zaien- eta, ondorioz, hobetzeko proposamenak definitzea genero-indarkeriaren egoerei aurre egiteko administrazio-egituren eta baliabide berezien ikuspuntutik: gizarte-arreta eta laguntza psikologikoa, orientabide juridikoa, aldi baterako ostatua, poliziaren babesa… Baliabideek tratu txarrak jasan dituzten emakumezkoen eskubideak eta arazoarekiko arreta egokia bermatu behar dituzte.

Are gehiago zehaztu nahi izanez gero, txostenaren ikerketa-eremua ondorengoetan oinarritzen da:

– Genero-indarkeria jasan duten biktimei laguntza eskaintzeko hiru foru-aldundiek eta udal askok gauzatu dituzten ekintzak. Nagusiki: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, larrialdiko etxebizitzak edota harrera-etxebizitzak.
– Erasoak salatzen dituzten emakumezkoei poliziak eskaintzen dien laguntza**,** baita gertakari horien isla erregistro-sistemetan eta poliziaren estatistiketan ere.

Txostena gauzatzeko, batez ere, hiru informazio-iturri edo bide erabili dira:

1) Erakundeek eta zerbitzuek emandako datuak eta dokumentazioa: foru-aldundiek, udalek, Ertzaintzak, udaltzaingoek, Emakundek…
2) Zerbitzuetara egindako bisitak eta elkarrizketak:
   – Gizarte-zerbitzu espezializatuak (udalerrietakoak 26 –2 Araban, 14 Bizkaian, 10 Gipuzkoan– eta 3 foru zerbitzuak).

- Polizia zerbitzuak (Ertzaintzaren 8 polizia-etxe eta lurralde historikoetako udaltzaingoen 10 polizia-etxe).
- Hiru lurraldeetako laguntza psikologikoaren eta orientabide juridikoaren zerbitzuak.
- Bestelako zerbitzuak (biktima artatzekoak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, 900 telefono-linea...).

3) Genero-indarkeria jasan duten 54 emakumeri (14 emakume Araban, 21 Bizkaian eta 19 Gipuzkoan) egindako elkarrizketak. Aipatu emakumeek zerbitzuak erabili dituzte, eta zein behar dituzten eta jasotako laguntzaz zein iritzi duten jakin nahi izan dugu.

Nolanahi ere, batik bat hutsuneak aipatu eta gomendioak egiteko orduan, kontuan hartu ditugu Ararteko erakundean aztertutako zerbitzuez jaso diren kexak, baita ere alor horretan –elkarteetan edo erakundeetan– lanean diharduten pertsonek emandako informazioak.

Erakundeek tratu txarrei emandako erantzuna oraindik berri samarra da eta etengabe aldatuz doa, hobetzea helburu duten ekimen berriak egiten baitira. Txostenak une zehatz baten "argazki finkoa" islatzen du, hain zuzen ere, informazioa bildu zen unekoa (2002 urtea eta 2003ko urtarrila). Gai zehatzetan azken urteetako (1997-2001 bitarteko) garapena ere eskaintzen du.

Lana egiterakoan aurkitu diren mugak eta zailtasunak gorabehera, txostenari esker, hainbat hutsune eta hobetu beharreko alderdi ikus daitezke. Haien artean hamar hauek azpimarratuko ditugu hemen:

## 1) Ez dago beharrei eta arazoaren larritasunari doitutako erantzun planifikaturik, arreta osorik

Txostenaren azalpenei erreparatuz, azken urteotan, administrazio bakoitzaren sentiberatasunaren, inplikazioaren edo baliabideen arabera, zenbait zerbitzu sortuz joan dira, laguntzen "mapa" zehatza egituratu arte. Mapa hori bidea egin ahala aldatuz doa eta, dirudienez, planifikazio orokorrari edo eraginkortasun-irizpideei baino gehiago, ekimen puntualei, berehalako beharrei edo presio mediatikoei erantzuten die.

Jarduteko modu honek azaltzen ditu, neurri handi batean, genero-indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko dauden diferentzia garrantzitsuak. Diferentziak laguntza-mota guztietan geratzen dira agerian: ostatatzeko aukerak, zerbitzuekiko hurbiltasuna, arreta-denborak, laguntzen zenbatekoak, poliziaren babes-maila...

Ez dirudi aniztasun hori eta arazoaren larritasuna bateragarriak direnik. Sarritan, mehatxatutako edo tratu txarrak jasandako emakumearen bizia bera egoten da arriskuan. Eta bizitzarako, segurtasunerako eta duintasunerako duen eskubidearen defentsa ez dago uzterik udalerrian zerbitzu bat edo bestea izatearen baitan. Ez da serioa. Arazoa, arriskuak eta jokoan dauden eskubideak larriak direnez gero, guztiz beharrezkoa da, norberaren egoera eta bizilekua alde batera utzita, kasu guztietan gutxieneko laguntzak eskaintzea; genero-indarkeria jasan duen edozein pertsonak horiek jasotzeko eskubidea baitu. Beraz, behar orokorrak aztertu behar dira, arreta osoaren aldeko apustua egin behar da eta, ondorioz, baliabideak planifikatu eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak aurrez ikusi behar dira.

2) **Ez dago nahikoa datu errealitatea doi-doi ezagutzeko**

Gizarte-zerbitzuei nahiz polizia-zerbitzuei erreparatuz gero, datuak erregistratzeko orduan huts larriak daude:

– ez dago irizpide komunik, beraz, ezinezkoa da datu partzialak gehitzea eta, hala, errealitatearen ikuspegi orokorrak izatea;
– ez dago datu-base komunik;
– sarritan, datuetan "salaketak" aipatzen dira, eta ez "emakume salatzaileak"; horren ondorioz, tratu txarrak jasaten dituzten pertsonak jarraitzea zaila izaten da;
– kasu batzuetan, irizpide edo kode komunak falta direnez, eta datuak informatizatu gabe daudenez, eskuz landu behar dira eta lan hori motelago egin behar da, lana handiagoa izateaz gainera.

Administrazio askok (udalek, mankomunitateek, foru-aldundiek…) dute gaiarekin zerikusia. Horregatik, are beharrezkoagoa da datuak islatzeko orduan irizpide homogeneoak izatea, arazoaren ikuspegi eguneratua eta doitua izan nahi bada, eta berorren bilakaera ezagutu nahi bada.

3) **Laguntza eskaintzeko orduan, alde garrantzitsuak daude toki batzuen eta besteen artean**

Jada aipatu denez, jokoan dauden eskubideei erreparatuz, tratu txarrak jasan dituen edozein emakumek antzeko laguntza jaso beharko luke, eta laguntza hori bere beharretara egokitu beharko litzateke, alde batera utzita egoera edo bizilekua.

Txostenak errealitatea bestelakoa dela azaltzeko datu ugari eskaintzen du: tokiaren arabera (lurralde historikoa, udalerria edo zerbitzua), laguntza batzuk edo besteak erabili ahal izango ditu. Diferentziek oinarrizko laguntza askotan dute eragina:

– Zerbitzu zehatzak izateko edo ez izateko aukera.
– Erabiltzeko eta funtzionatzeko irizpideak.
– Zerbitzuekiko hurbiltasuna-urruntasuna.
– Arretaren "intentsitatea" edo denbora (adibidez, orientabide psikologikoko saio-kopurua).
– Laguntza ekonomikoen zenbatekoa.
– Poliziaren zaintza edo babesa izan edo ez izateko aukera…

Kontua ez da arreta-ereduak bateratzea, baina bai tratu txarrak jasan dituen pertsonaren eskubideak osatzeko zenbait baliabide edo laguntza izatea, alde batera utzita edozein faktore geografiko.

4) **Badira aparteko ahultasun-egoeran dauden emakumeen taldeak, baina ez daukate zerbitzu batzuk erabiltzeko aukerarik**

Batez ere harrera-ostatuez ari gara, baina ez horietaz bakarrik. Erabateko autonomia funtzionala duten emakumeak hartzeko pentsatuta daude, baina arazo osagarriak dituzten emakumezkoak ez dituzte onartzen.

Emakumeak toxikomanoak, gaixo mentalak, edo ezgaitu fisikoak, psikikoak edo sentsorialak izanez gero, etxean indarkeria eta abusuak jasaten dituztenean, ezin dezakete baliabide hori erabil. Harrera-etxebizitza asko ez daude prestatuta mugitzeko arazoak dituzten pertsonek erabiltzeko (solairu altuetan daude, ez dute igogailurik…). Emakume inmigranteei dagokienez, dirudienez, egoerak zenbait alderditan hobera egin du: kasu gehienetan onartzen dituzte, nahiz eta legez kanpo egon. Hala eta guztiz ere, onartzeko baldintza bezala erroldatzea eskatzen zaie. Aparteko kasuren batean, udalerrian gutxieneko denboraz erroldatuta egon beharko dute.

### 5) **Ostatatzeko baliabide asko ez dira egokiak eta ez dituzte baldintzak betetzen**

Harrera-etxebizitzen "sarea" oinarrian 38 etxebizitzak osatzen dute eta datuak bildu zirenean, hau da, 2003ko urtarrilean, 234 plaza zeuden. Nahiz eta egoera-mota horientzat bereziki prestatuak ez egon, horri erabiltzen diren edo behar izanez gero erabil daitezkeen bestelako baliabideak erants dakizkioke. Nolanahi ere, Europako Batasunak behin eta berriz gomendatu arren, harrigarria da 20.000 biztanletik gorako udalerri batzuek ostatatzeko baliabide berezirik ez izatea. Udalerriak honako hauek dira: Barakaldo, Durango, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete eta Zarautz.

Bildutako datuen arabera, eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen laguntza-eskaerei erantzuteko baliabideak nahikoak dira. Baina, era berean, beharretara egokitzeko mugak daude edo eskainitako erantzunaren "kalitatea" urria da:

- Ia etxebizitza guztiek ez dute babesik eta gutxi dira laguntza pertsonala eskaintzen dutenak. Etxebizitza bakarrak, hitzartuak, ditu langile iraunkorrak.
- Ondorioz, era berean, premiazko eta arriskuzko egoeretan, egokiak ez diren bestelako baliabideak erabiltzera behartzen dute, hala nola ostalaritza-plazak.
- Segurtasuna bermatzeari, laguntza pertsonalari, kanpoaldearekin kontaktuak izateari, anonimatua mantentzeari… dagokionez, muga horien ondorio negatiboak larriagotu egiten dira etxebizitzan luzaroan egotean. Txostenean aipatzen denez, egoerak zenbait hilabete iraun dezake.

### 6) **Programak erabiltzeko mugak**

Lehen jada aipatu ditugu emakume-talde jakin batzuek (droga-mendekotasuna dutenek, gaixotasun mentalak dituztenek, minusbaliatuek, edo legez kanpo daudenek) zerbitzuak erabiltzeko dituzten zenbait muga. Hala ere, badaude erabiltzeko arazo orokorrak, emakume askorengan edo guztiengan eragina dutenak.

Batez ere, hiru arazoz ari gara:

- Zailtasun geografikoa, baliabideen lurralde-banaketarekin, zerbitzuen zentralizazioarekin eta deszentralizazioarekin zerikusia duena. Ez da bakarrik joan-etorriak egitearen arazoa; horrez gainera, erroturiko zenbait hesi psikologiko gainditu behar dira, bereziki, emakumezko helduek dituztenak.
- Zerbitzu batzuk (hala nola, Gipuzkoan, laguntza psikologikoaren programa) ezin daitezke "zuzenean" erabil, izan ere, ezinbestean, bizilekuko oinarrizko gizarte-zerbitzuetara edo bestelako zerbitzuetara jo behar izaten da.

– Ostatatzeko zenbait baliabide erabili ahal izateko, lehenago erasotzailearen aurka salaketa aurkeztu behar da. Eskakizun hori horietako baliabide batzuetan aplikatzen da.

Askotan, laguntza-eskaera larria dela kontuan hartu behar da: berehalako arriskuak saihestu behar dira edo larriki mehatxatuta dauden pertsonen segurtasuna bermatu behar da. Edozein zailtasun osagarrik aurrerapausoa eman nahi duen pertsonaren aukera geldiarazten du, eta oso ondorio larriak izan ditzake.

### 7) **Itxaroteko zerrendak**

Txostenak zenbait zerbitzu erabiltzeko itxaron behar denari buruzko datuak biltzen ditu: kasu batzuetan, zerbitzua bisitatu zen unean itxaron beharreko aldia adierazten da; beste batzuetan, berriz, gutxi gorabehera batez beste itxaron beharrekoa. Are kezkagarriagoak dira itxaroteko zerrendak asetzeari buruzko datuak. Horiek noizean behin gertatzen dira; laguntza psikologikoaren zerbitzuei dagokienez, arreta 4 astez (Araba) edo bi hilabetez (Bizkaia) atzeratzen dira.

Itxaronaldiak gehiegizkoak direlakoan gaude, bereziki, laguntza behar duten pertsonen ezaugarriak kontuan hartuta. Etxeko indarkerian gertatzen diren "zikloei" erreparatuz, emakumeek egindako laguntza-eskaerei berehala erantzun behar zaie, aukera pasatzen utzi gabe.

### 8) **Koordinazio-bideak ahulak dira edo udalerrian ez dago ekintza koordinatuak gauzatzeko protokolorik**

Agerikoa denez, tratu txarren egoerei erantzuteko, erakunde eta zerbitzu desberdinek esku hartu behar dute: polizialek, judizialek, sanitarioek, sozialek… Horregatik, zerbitzu bakoitzak besteen esku-hartzeak ezagutzea eta lanak koordinatzea ezinbestekoa da, ez bakarrik arazo jakin bati presako erantzuna eman behar zaion kasuetan, baizik eta baita ere norberaren esperientziak partekatzeko, erantzunak ebaluatzeko eta hobetzeko proposamenak proposatzeko.

Ildo horri jarraiki, ekarpen azpimarragarria da *etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei hobeto laguntzeko erakundeen arteko protokoloa* onartu izana. Protokolo hori Emakundek sustatu zuen eta jarduteko jarraibide orokorrak adierazten ditu eremu desberdinetan: osasuna, polizia, legeak, abokatuen elkargoak eta gizarte-zerbitzuak. Udalerri eta eskualde bakoitzak dituen berezitasunetara zehaztu eta egokituz gero, koordinatzeko orientabide-irizpide gisa erabil daitezke. Udalerrietan edo eskualdeetan oraindik ez dira zehaztu eta ekintza-protokoloen bidez adierazi, aparteko kasuetan izan ezik.

### 9) **Badira oraindik bete gabeko beharrak, kaltetutako emakumeen balioztapen eta proposamenen arabera**

Txostenaren oinarrizko helburu bat beharren eta erantzunen arteko egokitzapena balioztatzea da. Ikuspuntu horretatik, oso interesgarria da zerbitzua erabili duten

emakumezkoen iritzia aztertzea; beren hitzetan, eta beren esperientziaren arabera, bete gabeko beharrak edo behar bezala bete gabekoak ezagutzea.

Oro har, emakume elkarrizketatuei aski ona iruditzen zaie jasotako laguntza. Hala eta guztiz ere, hamarretik sei zerbait gehiago behar dutelakoan daude. Erantzunen arabera, “zerbait gehiago” hori hiru ekintza-lerrotan zehatz daiteke:

– Eskainitakoez bestelako baliabideak: baliabide ekonomikoak; lana edo lan merkatuan sartzeko laguntza; laguntza moral handiagoa; etxebizitzako, segurtasuneko eta informazioko beharrei erantzun hobea.
– Zenbait baliabide erabiltzeko baldintzak hain zorrotzak ez izatea (zerbitzu zehatz batzuk erabiltzeko baldintzak murriztea).
– Arreta-denbora luzeagoa: orientabide juridiko zabalagoa, laguntza psikologikoa denbora luzeagoan, ostatatze-zerbitzuan denbora luzeagoan…

10) **Ez dira nahikoa tratu txarrak jasan dituzten emakumeen segurtasuna bermatzeko babes-neurriak**

Erasotzailearekiko emakumearen eta bere kargura dituen seme-alaben segurtasun fisikoa bermatzeak lehentasuna du eta oinarrizkoa da, batez ere, une zehatzetan, hala nola, legez banantzen ari diren unean, edo, arrazoi desberdinengatik, bi pertsonek elkarrekin bizitzen jarraitzen duten bitartean.

Oinarrizko gai honi dagokionez, polizien arabera, polizia-jokaera zuzenagoak edo okerragoak azaltzen dira txostenean. Halaber, hutsak eta argi eta garbi hobe daitezkeen alderdiak aipatzen dira. Ildo horri jarraiki, gutxienez, honakoak aipatzen dira:

– Aparteko arriskua dagoen une zehatzetan poliziak lagundu eta babesa ematea.
– Berehalako arrisku-egoeretan biktimak edo erasotzaileak aurkitzeko sistemak.
– Harrera-baliabideetan segurtasun tresnak edo bermeak izatea.
– Urruntze-neurri judizialen eraginkortasun mugatua.

Emakumezkoen eta, hala badagokie, seme-alaben segurtasun fisikoa bermatzea erakundeen lehentasunezko betebeharra da. Erabateko babesa lortzea ezinezkoa izan arren, txostenean bildutako informazioaren arabera, segurtasun-bideak hobetu behar dira.

* * *

Arazo hauek gainditu nahian, txostenean 29 gomendio egiten dira eta bi multzotan antolatuta daude:

– Lehenengo multzoak gomendio orokorrak biltzen ditu. Ez da bereziki programa bat edo beste aipatzen. Gomendio horien helburua hauxe da: genero-indarkeria -batik bat elkarrekin bizitzean sortutakoa- jasan duten emakumeei ematen zaien laguntza orokorra hobetzea. Ildo horri jarraiki, ondorengoak beharrezkoak dira:

  • genero-berdintasunaren ikuspegia politika guztietan sartzea;
  • genero-indarkeria oso-osorik lantzea;

- sentsibilizazio-lanak indartzea;
- adituen trebakuntza hobetzea;
- irizpideak bateratzea eta datuak sistematizatzea;
- praktikak ebaluatzea eta adierazle egokiak diseinatzea;
- arreta-zerbitzu berezien helburua zehatz-mehatz definitzea;
- laguntzak bateratzea;
- zerbitzuen artean koordinazioa hobetzea;
- etxebizitza eta enplegua lortzeko neurriak edo baliabideak garatzea;
- ahultasun-egoera berezian dauden emakumezkoei (inmigranteei, minusbaliotasunen bat dutenei, gaixotasun mentalak dituztenei, toxikomani arazoak dituztenei…) laguntza handiagoa eskaintzea;
- arreta-zerbitzuak deszentralizatzea;
- aldez aurretik salaketa aurkeztu behar dela dioen baldintza kentzea eta zerbitzuak berehala erabiltzeko aukerak erraztea;
- itxaroteko zerrendak murriztea.

– Bigarren multzoan gomendio bereziak egiten dira eta eskaintzen den zerbitzu bakoitzarekin zerikusia dute:

- Ostatatzeak:
  - ostatatze-baliabideen kalitatea dibertsifikatu eta hobetzea;
  - baliabideak gehitzea;
  - bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzea.
- Laguntza psikologikoa:
  - tratamenduen gehieneko iraupena malgutzea;
  - zerbitzuak erabiltzaileei hurbiltzea;
  - erasotzaileentzako tratamendu-programak indartzea.
- Orientabide juridikoa:
  - zerbitzua behar duten pertsonei erabiltzeko erraztasunak ematea;
  - laguntza juridikoa emateko zerbitzu berriaren jarduera egokia bermatzea.
- Poliziaren arreta:
  - hasierako arreta eta lehen unean eskainitako informazioa hobetzea;
  - polizien artean "*Erakundeen arteko protokoloa*" hedatzea, prestakuntza erraztea, eta beren jokaerei buruzko jarraipena egitea;
  - eraso-arriskua murrizteko, kokapen- eta babes-sistemak garatzea;
  - datuen erregistro- eta babes-sistemak hobetzea.
- Gizarte-zerbitzuak:
  - datu-erregistroak hobetu eta bateratzea;
  - larrialdiko gizarte-zerbitzuak indartzea;
  - erakundeen erantzuna arintzea.

Gomendio hauek administrazio guztiei, neurri handiagoan edo txikiagoan, eragiten die: udalei, foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari. Betetzea ala ez betetzea euren mende dago, eta hurrengo urteetan ekingo diogu betetzearen jarraipenari.

## 1.5. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA, ADINEKOEI LAGUNTZEKO EAEko SISTEMARI BURUZKOA

"Adinekoei laguntzeko sistema EAEn" izenburua izango duen azterlana egiten ari da. Azterlanaren helburu nagusiak hauek dira: gure lurralde-eremuko adinekoentzako laguntza-zerbitzuen gaur egungo egoera objektiboki deskribatzea eta azken hamarkadan izan duen bilakaera aztertzea, izan ere, orain dela hamar bat urte egin baitziren adinekoentzako laguntzaren gaineko ezohizko txostenak: egoitzetako laguntzari buruzkoa eta egoitzaz kanpoko laguntzari buruzkoa.

Txostena hiru ataletan egongo da egituratuta, funtsean:

- Lehenengo atalean, adinekoen laguntza-beharrizan gero eta premiazkoagoei aurre egiteko gure Autonomia Erkidegoan egin diren jarduketen balantzea aurkeztuko da, arreta berezia jarriz mendekotasunari loturiko gizarte-arazoetan eta arazo horiek konpontzeko gizarte-zerbitzuek egiten dituzten laguntza-eskaintza formaletan. Egoitza-zerbitzuen, eguneko zentroen eta etxez etxeko laguntza-programaren azterketa zehatza jasoko da atal horretan, eta hainbat alderdi jorratuko dira, hala nola, plaza-kopurua, banaketa geografikoa, estaltze-maila, titulartasuna eta kudeaketa, finantzaketa eta gizarte-gastua.
- Bigarren atalean lege eta administrazio alderdien azterketa jasoko da; esate baterako, eskumenen eremua eta zerbitzuei buruzko araudia, zerbitzuak eskuratzeko baldintzen azterketa eta ikuskatze-zerbitzuen jardunbidea.
- Hirugarren atalean EAEn dauden egoitza-zerbitzu eta eguneko zentro mota ugarien ezaugarriak aztertuko dira. Horretarako oinarritzat hartuko dira zerbitzuek eurek galdera-sorta oso zehatzari erantzunez eman dituzten informazioak, zentro horiek baimendu eta ikuskatzeko eskumena duten administrazioek eman dituzten datuak, eta azterlanaren ardura duen lan-taldeak ehun bat zentrotara bisitak eginez bertatik bertara bildu duen informazioa.

Txosten hori 2004. urtean bukatuko da.

# 2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

## 2.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK

Urteotako esperientziak erakutsi digunez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Haiek beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, haiek administrazioei hiritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Aurreko txostenetan berretsi den bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteok benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak. Egin-eginean ere, sarritan defentsa edo babesa beharrenik duten pertsonak dira erakundeengana urrikien jotzen dutenak: haiek daudela ez dakitelako edo dagozkien eskubideak ez dakizkitelako, oinarrizko gizarte trebetasunen faltagatik, aurretiko esperientzia txarren ondorioz atzera egiteagatik, erakundeenganako edo arazoak konpontzeko duten gogo edo gaitasunarekiko mesfidantzagatik… Pertsona horietarik askok ez dute kexarik agertzen, zeren eta hori egin dezaketela ez baitakite edo hori nola egin ez dakitelako.

Horregatik, 2003an ere, Ararteko erakundeak gizarte-eragileekiko arauzko harremanak lantzen jarraitu du, baztertuta dauden pertsonei laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak bereziki. Talde horiek honakook dira: giza eskubideen aldeko taldeak, atzerritar pertsonei laguntzekoak, askatasunik gabekoei laguntzekoak eta baztertuta daudenei laguntzekoak, buruko gaixotasuna duten pertsonen senideak…

Gure Erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori, aldi berean, gizarte bizitasunaren seinalea eta haiekin lankidetzarako harreman egonkorrak-edo izan gura dituenarentzako erronka da. Gure kasuan, mugak kontuan harturik, gure lankidetzarako gogoa gauzatzen saiatzen jarraitu dugu. Horretarako, erabili ohi diren bide osagarriak baliatu ditugu:

- Beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoa azaldu duten talde eta elkarteei baietz erantzutea.
- Aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan urtero jarraitzea, hori posible izan denetan.
- Sektore bereziki problematikoekin edo une horretan lan egiten gabiltzan sektoreekin lan egiten duten talde jakin batzuekin harreman berriak finkatzeko aurrea hartzea.
- Antzeko interesak edo jarduera-eremuak dituzten elkarteen arteko koordinaziorako plataformak egotea aprobetxatzea.

Horrela, 2003an zehar, Ararteko erakundeak lankidetza-harreman biziak-edo izan ditu beren gizarte ekintza eremu batzuetan garatzen duten elkarteekin. Eremu horiek honakook dira:

- arrazakeria eta diskriminazioa eragotzi eta salatzea;
- hirugarren adinekoek gizarte-bizitzan parte hartzea;
- etorkinen erkidegoen eskubideak babestea;
- haurren eskubideak;
- frankismoak errepresaliatutako pertsonen eskubideak babestea;
- proiektu edo jarduerek eragindako auzokide elkarteen eskubideak;
- Babesik gabeko haurrak eta nerabeak hartzea.
- Justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta.
- Gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen defentsa eta beraientzako arretarako programak garatzea.
- Minusbaliotasun edo ezintasun era ezberdinetarako gizarte erantzuna.
- Atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizarteratzea.
- Ijito taldearen beharrizan zehatzekiko planteamendua eta erantzuna.
- Buruko gaixotasunak dituzten pertsonei eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea; buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea.
- Pertsona atxilotuak kartzeletatik atera edo hurbiltzea lortzea.
- Hiesa duten pertsonak laguntzea eta hartzea.
- Terrorismoaren biktimentzako arreta edo haien eskubideen defentsa.
- Sasoikako langileentzako eta beraien familientzako arreta.
- Hezkuntza-beharrizan bereziei erantzutea.
- Babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adinez txikiak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea.
- Giza eskubideak defendatzea eta beraien beste herri batzuetako bortxaketak salatzea.
- Hezkuntzarako eskubidea defendatzea.
- Hizkuntz eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea.
- Droga-mendetasunari buruzko arazoak dituzten pertsonei arreta ematea.
- Hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna.
- Etni gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea.
- Zona bereziki deprimituetako gizarte kohesioa eta haiek suspertzea.
- Bakezaletasuna eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea.
- Tratu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea.
- Baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako gizarte-osasunezko arreta.
- Hainbat talde profesionalen defentsa.
- Animaliak etikoki tratatzea.
- Gune publikoetara sartzeko erraztasuna.
- Osasun-eremuko intimitaterako eskubidea defendatzea.

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute. Bestetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kexa zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri;

batzuetan nahiko izan dira ahozko edo idatzizko informazio-trukeak, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean zehar taldeekin, elkarteekin eta erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira. Talde horiek honakook izan dira:

- ADSIS-Bestalde
- Lurraldeetako alkoholiko anonimoak
- Aldarriketa
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- APDEMA (Arabako buru-gaixoen aldeko elkartea)
- Arazoak (Arabako haur autisten gurasoen elkartea)
- Sunna kultura-elkarte arabiarra
- Hegaldi emakumeen elkartea
- Getxoko Lagun Artean emakumeen elkartea
- Arabako gorren elkartea
- Bizkaiko gorren elkartea
- Gipuzkoako gorren elkartea
- Barakaldoko ijito-elkartea
- Gipuzkoako Droga Erabilpen Desegokiaren Prebentziorako eta Ikerketarako Elkartea (AGIPAD)
- Juana Mugarrieta elkartea
- Euskal Herriaren Giza Eskubideen aldeko Elkartea
- Antropologiako euskal elkartea
- Buru-osasuneko euskal elkartea
- Kontsumitzaileen elkarteak
- Beste herri batzuen giza eskubideen aldeko elkarteak
- San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako elkarteak eta laguntza-taldeak
- Torturaren aurkako talde eta elkarteak
- Hainbat arazok eragindako auzokide elkarteak eta erkidegoak: hirigintza-planak, ingurumen arazoak, zerbitzu-sareko akatsak, trafiko-arazoak (Ulia, Zuatzaurre, Hondartza (Hondarribia), Getxo, Epalza kalea (Bilbo), Aizaharbe, Trespuentes...)
- Hainbat ikastetxetako ikasleen gurasoen elkarteak eta federakundeak
- ASPACE
- Aspasor (Gorren guraso eta lagunen elkartea)
- ATEA (Animaliak etikoki tratatzeko elkartea)
- ATECE (Burezurreko eta entzefaloko traumatismoa dutenen Arabako elkartea)
- Atzegi
- AZRAF
- Berriztu
- Besarka (Arabako harrera- eta adopzio elkartea)
- Bidaideak
- Bidasoaldeko Emakumeak

- Bidesari – Presondegietako Pastorala
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Lurraldeetako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko batzordea)
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Euskadin errefuxiaturik dauden kolonbiarren taldea
- Terrorismoak eragindako Biktimen Euskadiko taldea (COVITE)
- Era Berri taldea
- Adarra Pedagogi taldea
- Lurraldeetako abokatuen elkarteak
- Altzibar auzoko biztanleen elkartea (Oiartzunen dago)
- Bailen kaleko biztanleen elkartea
- Hiru lurraldeetako Hies-kontrako hiritar batzordeak
- Gazteriaren Kontseilua
- Hainbat ikastetxetako eskola-kontseiluak
- Bizkaiko Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundea
- Gipuzkoako Minusbaliatu Fisikoen Koordinakundea
- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala birgaitzeko taldeen koordinakundea
- Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko GKEko koordinakundea (honako kideok dituena: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, SOS-Arrazismoa, Euskadiko Txinatarren Elkartea, Senegaldarren Elkartea, Etorkinekin Bat...)
- Hiru lurraldeetako Gurutze Gorria
- DEE
- Hainbat sindikatu, talde eta elkarte profesional
- EDEX
- Eginaren eginez (Arabako ezindu fisikoen elkartea)
- EHLABE (enplegu babestuko zentroak)
- Ekimen
- Ekologistak martxan
- Ijitoekin diharduten irakasleak
- Etxerat
- Hainbat herritako pertsona atxilotu edo kartzelaratuen senideak
- FEDEAFES (Gaixo Psikikoen Senideen Elkarteen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horretan sartuta dauden elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Euskal Gorrak Gor elkarteen euskal federakundea
- Vicente Abreu federakundea
- Forum 50-70
- Eragintza fundazioa
- Etorkintza fundazioa
- Fernando Buesa fundazioa
- Hurkoa fundazioa
- Izan – Gizaki Proiektu fundazioa
- Bakearen Museoa Fundazioa (Gernika)

- Arabako buruko gaixoak babesteko fundazioa
- Gorabide babes-fundazioa
- Gao Lacho Drom
- Gaztaroan Ekin
- GEREA (adinekoentzako egoitzen elkartea)
- Gernika Gogoratuz
- Gesporlan (enplegu babestua)
- Bakearen aldeko Batzordea
- Geureak (frankismoak errepresaliatutako pertsonen elkartea)
- Goiztiri
- Gorabide
- Arazo ezberdinak dituzten ikastetxeetako gurasoen taldeak
- Lankidetza-programen kariaz edo beren problematika hedatzearren gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona taldeak
- Gurasoak
- Hartu-emanak (Etengabe ikasten jarraitzeko eta gizartean parte hartzeko adinekoen elkartea)
- Hezilan
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia
- Hontza (drogazaleei arreta emateko zentroa)
- IGON
- Ijito Ekimena
- Lurraldeetako Gizarterapen Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Kalé dor Kayikó
- Kamelamos Adikerar
- Lantegi batuak
- Lur gizen
- Munduko Medikuak
- Haur Hezkuntzaren aldeko Mahaia (hainbat elkarte eta sindikatuk osatua)
- Montajes Eraiki (enplegu babestua)
- Mugarik gabe
- ONCE
- Presondegietako Pastorala
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Geugaz plataforma
- Martutene plataforma
- Kartzela eta osasun plataforma
- Hainbat lekutako oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizaki Proiektua
- Barrancal-eko magrebtar erkidegoaren ordezkariak
- Saharar Errepublikaren ordezkariak
- Salestarrak
- Lurraldeetako Salhaketa
- Sarean (ikastetxeetako talde zuzendarien elkartea)
- Ijitoen Idazkaritza Nagusia

- Hezkuntzako zerbitzuak (Berritzeguneak, Hezkuntza Bereziko zerbitzuak, ISEI-IVEI, udal zerbitzuak...)
- Sindikatuak edo atal sindikalak (LK, ELA, ANAB, UGT)
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- T-4
- Hirugarren Ordenako Kaputxinoak
- Emauseko traperoak
- Abokatuen elkargoen presondegietako laguntzarako txandak (PLT)
- UNICEF-Euskal Herria
- Uribe Kosta
- Zain dezagun Urdaibai
- Zubia

Askotan, Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da edo hasi zen elkarteekiko lankidetza. Lankidetza mota horrek, informazioa lortzekoa eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzekoa askotan izan denak, eremu askotan iraun du urtean zehar. Eremu horiekin honakook ditugu: adin txikiko pertsona lege-urratzaileekin esku hartzea (Berriztu eta Gaztaroan Ekin hezkuntza elkarteak); sasoikakoak (Era Berri, Hezilan, UAGA, Cáritas...); buruko gaixotasunerako erkidego-arreta (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES...); laguntasunik gabeko adinez txiki atzerritarrekin esku hartzea (Harresiak Apurtuz koordinakundea, Gurutze Gorria-Gipuzkoa, Hirugarren Ordenako Kaputxinoak, AZRAF); kartzelaratutako pertsonei laguntzea (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizaki Proiektua, Bilbo-Etxezabal, Presondegietako Pastorala, Hegaldi); ezgaituak lan-munduan sartzea (Aspasor, Apdema, Arazoak, gorren elkarteak, urritu fisikoen koordinakundeak, Aspace...). Bestetan, elkarteekiko harremanak elkarteok antolaturiko ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatuz.

Egia esan, lankidetza edo informazio-truke guztietatik ez dator instituzio honen jarduerarik, berehalakorik bereziki. Alabaina, askotan, izandako bileretatik abiatuta, aldeen arteko lankidetzaren ondorioz eta aldeon jarduerarako askatasuna erabat errespetaturik, ildo honetako jarduerak sustatu dira:

- Elkarteek eurek aurkezturiko kexak (taldekakoak eta banakakoak) tramitatzea.
- Elkarteek agerian jarritako arazoak konpontzeko Arartekoaren ofiziozko jarduerak, Administrazioaren hainbat sailen aurrekoak.
- Herri erakundeen eta elkarteen arteko harremanak hobetzeko proposamen edo bitartekotza-lanak.
- Giza eskubideetako sentsibilizazio edo prestakuntzarako programetan parte hartzea.
- Hainbat taldek sustaturiko elkartasunezko ekitaldi edo kanpainetarako erakunde laguntza.
- Arauak aldarazteko proposamenak aurkeztea.
- Lanerako informazio eta agiri baliagarriak trukatzea.
- Eremu jakin bat gogoz ikertzea (lan monografikoak).

- Zerbitzu jakin bat edo berehala etortzekoa den arazo bat saihesteko presazko kudeaketak, agintaritzen aurrekoak.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetza-marko honetan 2003an zehar burututako zenbait jarduera esanguratsu. Horrela:

- Ijitoen ordezkari diren edo haiekin lan egiten duten hainbat elkarterekin harremanak izan ditugu. Harreman horiei esker, hobeto ezagutu ditugu haien arazoak, administrazio batzuekin jarduerak burutu ditugu, hasieran parte hartu dugu eta gero arduraz jarraitu dugu Herri Ijitoaren Kontseiluaren egituratzea edo haiek gizarteratzeko Plan osoa eratzea, geure egin ditugu diskriminazioari aurre egiteko dituzten kezkak, eta hori eragozteko arau eraginkorrik ez izatea…
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-etxeekin eta horiek kudeatzen dituzten elkarteekin aldizka izan dugun harremanari esker, errazago aztertu dugu haien egoera edo errazago esku hartu dugu, aurten, ofiziozko jardueren bidez. Horrek adorea eman dio erakunde honi, laster, arrisku egoeran dagoen talde horren gaineko txosten monografiko bat prestatzeko, edo administrazioaren jarraibide edo proposamen batzuez duen iritzia jendaurrean agertzeko (ikus txosten honen 1.1.5 azpiatala).
- Urtean zehar egindako ikustaldietako asko (Hontza gaueko zentrora, Bilboko Bailen kaleko "narcosala" delakora, erreforma etxeetara, sasoikako langileen ostatuetara, harrera-etxeetara…) lagungarriak dira zentro edo baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena izateko, haien oraingo egoera eta gure gomendioak zenbateraino bete diren ezagutzeko, jarduera berriak sustatzeko…
- Elkarte batzuek azaldutako kexen ondorioz (adibidez, frankismoaren garaian askatasunik gabe utzi zituzten pertsonen "Geureak" elkarteak, Eusko Jaurlaritzak eskainitako laguntzen gainean), administrazio erantzuleekin bitartekaritzako gestioak edo jarduerak burutu behar izan ditugu.
- Ezgaituak lan munduan sartzeari buruzko ikerketan anitz elkartek hartu zuten parte. Horrela, zenbait bileratan eta zuzenean, haien proposamenak eta iritziak jaso ahal izan genituen, eta elkarte barruko pertsonek beren lekukotza eman ziguten –beren bizitza-historia-, oso baliagarria baita errealitatea ezagutzeko eta arazoak eta akatsak antzemateko, gai horretaz paratutako txosten berezian ikusten denez (ikus argitaratutako txosten hura eta txosten honexen 1.2 atala).
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek aldez ordeztu du presondegietara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu (ikus txosten honetako 1.1.1 azpiatala).
- Tratu txarrak edo torturak salatu dituzten pertsona atxilotuen senideekin elkarrizketan aritu edo/eta bildu gara. Hori dela bide, horrelako ekintzak prebenitzeko eta ezabatzeko gomendioak eman ditugu, erakunde bermatzaileekin edo ikerketa-erakundeekin informazioak eta proposamenak trukatu ditugu, judizio-bideetatik at, atxiloketa lekuak bisitatu ditugu edo polizi atestatuak eta araketak berrikusi ditugu. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira torturaren prebentzioari buruzko Jardunaldia (erakunde honek antolatu zuen, EHUren udako

ikastaroen barruan, eta uztailaren 4an burutu zen) edo NBEren errelatore bereziarekin izandako bilera, haren txostena prestatzeko asmoz.

- Haurren Hezkuntzarako Plataformarekiko harremanak adorea eman digu erakunde honek behin eta berriz egindako gomendio hauei eusteko: 0 eta 3 urte bitarteko etapan plana egin eta lehentasunak ezarri beharra dagoela, Hezkuntza Sailaren arduradunekin laneko bilerak egin behar direla, haiei gure kezkak helarazi behar zaizkiela, horren benetako ezarpenari buruzko datuak eskatu behar direla... (ikus, esaterako, txosten honen 1.1.10 azpiatala).
- Sasoikakoen problematikan parte hartzen duten hainbat elkarterekin harremanak izan ditugu. Beraien bitartez, urte hauetan guztietan zehar jarraipen hobea egin ahal izan dugu eta datu gehiago ditugu. Horren ondorioz, errealitatera doituago dauden esku-harmenak, proposamenak eta gomendioak egin ahal izan ditugu. Harreman horiek balio izan dute gai honi buruzko txosten monografikoa egiteko datu-iturri bezala ere (ikus txosten honetako 1.1.2 azpiatala).
- Hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan ditugu elkarteen eta administrazioen arteko zenbait hitzarmenen ezaugarriak, horiek lan-baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea... (ikus, adibidez, txosten honen 1.1.9 azpiatala).
- Urritu fisikoen federazioek eta ezgaituekin lotutako beste elkarte batzuek azaldu dituzten arazoak lagungarriak izan dira ofiziozko hainbat jarduera bultzatzeko, haien kezkak eta lehentasunak hobeto ezagutzeko, haien eskaerak aintzat hartzeko, irisgarritasunari buruzko azken bi txosten monografikoak bideratzeko orduan (bata, erabilera publikoko eraikinei buruzkoa da, eta bestea, berriz, pertsona horiek lan munduan sartzeko dituzten aukerezkoa (ikus txosten honen 1.2 eta 1.3 atalak). Halaber, arazo horiek adorea eman ziguten, bai sentsibilizatzeko hitzaldi batzuk antolatzeko (Bilbon eta Gasteizen egin ziren, “Emakumea eta ezgaitasuna: diskriminazio bikoitza” izenburupean), bai Herri Defendatzaileen arteko Koordinaziorako Jardunaldiei begira, gai horietaz gauzatu zen tailerra koordinatzeko.
- Hirigintzako plan eta jarduerei eta berauen ingurugiroko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolaturiko pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietariko batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintza- eta ingurugiro-arloei buruzko azpiataletan (II. atala).
- Hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarteekin eta ikastetxeekin harremanak izan ditugu. Haiek bultzatuta, instituzio honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen globala aurkeztu zion eta, proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetza-bekatarako deialdia egin zuen. Beka horiek beren emaitzak ematen joan dira (ikus txosten honetako 2.3 azpiatala). Horrela, argitaraturiko materialak ikastetxe guztietara eta giza eskubideetako hezkuntzarekiko interesa agertu eta horretarako konpromisoa hartu duten elkarteetara eta taldeengana bidali dira. Ildo horretan, aurten, lehenbiziko aldiz,

Arartekoak giza-eskubideei buruzko eskola-lanen lehiaketa bat iragarri du, eta datozen hilabeteetan bere fruituak ematea espero dugu.

- Burua gaixorik dutenen senideen elkarteekin eta babes-fundazio batzuekin izandako harremanak faktore determinatzaileak eta laguntzak izan dira haiei gure Erkidegoan ematen zaien erkidegoko arretari buruzko lan monografikoan pertsonon arazoak gogotik aztertzeko eta artean jarraitu ez zitzaien arazoetako batzuei jarraitzeko (ikus atal honetako 1.1.9 azpiatala).
- Laguntza-elkarte batzuek atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzeari edo kanporatzeko aginduari, jasotako polizi tratuari edo haiek herri enplegurako deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzei begira aurkeztu dituzten salaketek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak tramitatzea, ofiziozko jarduerak, gomendioak...
- Hainbat herritako presoak kartzelatik ateratzeko plataformekiko bilerak direla bide, hainbat saili (herriaren defendatzaileari eta Tortura prebenitzeko Europako Batzordeari) haien egoera azaldu diegu. Izan ere, Arartekoak taldeoi jakinarazi gura die nolako jarrera duen hainbat gairi buruz, hala nola, presoak hurbiltzeari, kartzelen eta kartzeletako egoerari eta haiek hainbatziorengatik kartzelatik ateratzeari buruz.

Batzuetan, elkarteekiko harremanek balio izan dute haien ibilera-arazoak jasotzeko ere: beren lana burutzeko dituzten zailtasun eta oztopoak, haien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetza egonkorrerako bideak finkatzekoak, beren programekin jarraitzekoak, erakundeekiko topaguneak izatekoak, erakunde-planetan eta zerbitzuetan parte hartzekoak... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gainditzea; elkarte-erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasun-mahaia eta ijito-herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetza-hitzarmenetako erantzukizunak argitzea...

Instituzio honen iritziz, antolatutako gizarte zibilaren eta herri zerbitzuen eta administrazioen arteko lankidetza sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte-eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek hiritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien lidergoa berenganatu. Ildo horretatik, 2001eko txostenean (ikus VI. atala) jasota zegoen elkarteek askotan kudeatzen zituzten talde zaurkorrentzako zerbitzuak sortzeko erakunde-lidergoari buruzko gomendio orokorra.

Aurten, zerbitzu ezberdinetara egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, aurrerapenak ez ezik, konpondu gabeko arazoak ere badaudela egiaztatu dugu. Azken horien artean, azpimarratzekoak da administrazioaren eta elkarteen arteko hitzarmen batzuen argitasun edo zehaztasunik eza, edo diru-laguntzen deialdi jakin batzuk ebaztean izandako atzerapenak, egoera larri eta zailetan jarri baitituzte hala elkarteak nola martxan zeuden egitarauak. Gure iritziz, administrazioek laguntzok modu eraginkorrean kudeatzearen aldeko apustua egin behar dute, izan ere, aipatu ditugun eragozpenek oso eragin kaltegarria dute, ez elkarteetan beretan bakarrik, baizik eta, batez ere, elkarte horiek laguntzen dituzten herritar eta taldeengan, askotan oso egoera ahulean bizi baitira.

## 2.2. ARARTEKO ERAKUNDEAK DEITU DITUEN IKERKETA BEKAK

Eskubideetarako eta gizarteratzeko bide gisa enpleguak gure gizartean duen esanahia eta haren balizko alternatibak aztertzeko ikerketa-lana, Gorka Moreno Márquez bekadunak egina, 2003an aurkeztu da. Lan hori *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto* izenburuarekin argitaratu zen Arartekoaren Francisco de Vitoria Giza Eskubideei buruzko bilduman, 8. zenbaki bezala. Hedabideetan zabaldu zen, eta urteko azken asteetan instituzioei eta alorrean interesa duten zerbitzu eta pertsonei. Erakunde honen iritziz, lan horrek ekarpen interesgarria dakar gizartearentzat eta gizakien eskubideetarako berebiziko garrantzia duten fenomenoen eztabaidara.

Beatriz Sicilia Oña eta Ainara Marín Zenarruzabeitia bekadunak beren lanen ondorioak borobiltzen ari dira. Lanek ondoko izenburuak dituzte, hurrenez hurren: “Los derechos fundamentales en el proyecto de tratado constitucional de la UE” (“Oinarrizko eskubideak EBko Konstituzio egitasmoan”) eta “De la hostilidad a la hospitalidad en clave inclusiva” (“Etsaigotik abegirako tartea; elkartu nahia”).

2003-2004ko ikerketa-beka Aiala Olarte Hurtadori eman zaio. Txosten hau amaitzear dagoela, ez dago zehazturik zein gai jorratuko den lan horretan.

Bestalde, aurrera jarraitu dute IRSEri ikerketa aplikaturako eman zaion bekaren lanek. Aztertu nahi zen, haren bitartez, nolako aukerak dituen EAEko gutxiengo magrebtarrak bere kultura, erlijio eta hizkuntzarako eskubideak gauzatzeko. Txosten hau erredakzio aldian dagoela, bekarako informazioa biltzen ari da, kolektibo horietako pertsonei egindako elkarrizketen bidez.

2002ko urriaren 9ko Ebazpenak deitutako ikerketa aplikatuko bekari dagokionez, 22 pertsona edo talde aurkeztu ziren, eta Susana Redondori eman zitzaion, zainketa arinetan dauden pertsonei eta haien senideei ematen zaien artapena iker dezan. Gaiaren ezaugarriak eta konfidentzialtasun beharra kontuan harturik, informazio bilketa kostata egiten da, eta ondorioz ikerketa atzeratzen ari da.

Azken deialdian (2003ko urriaren 6ko Ebazpena, 206 zk.ko EHAA) 2 proiektu aurkeztu dira. Proiektuak azterturik eta deialdian agintzen diren elkarrizketak eginik, beka Jesús Manuel Septiéni eman zaio, 2004an. Lanean ikasle etorkinek EAEko hezkuntza sisteman duten integrazio maila aztertuko da.

## 2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLAN ERABILTZEKO MATERIALA EGITEKO BEKAK

Lau urtetan, jarraian, Ararteko erakundeak deitutako bi beketako batek izaera espezifikoa eta helburu zehatza izan ditu: giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskolan erabiltzeko materialak prestatu eta zabaltzea. Deialdi hauek erakunde honen kezka eta konpromiso iraunkor bati erantzun diote: belaunaldi berriak demokrazia bereizten duten balioetan gizarteratzeak giza eskubideen aldeko hezkuntzan, bake eta tolerantziarentzako hezkuntzan du bere oinarrietako bat; eta balio horiek haurtzaroan eta gaztaroan ikasi eta finkatzen lagundu ahal eta behar duten tresnetako bat eskola sistema da, bakarra ez den arren.

Gure gizarteko bake etorkizunerako funtsezkoa den auzi honi buruz, hainbat ekimen eta proposamen aurkeztu ditugu, hala nola, “Bakerako hezkuntza” izenburupean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuari egoki zenean aurkeztu zitzaiona, baita koordinazio-jardunaldietan gainerako defendatzaileen aurrean egin ziren proposamenak ere.

Beka deialditan jasotako erantzunak –guztira ia 100 proiektu aurkeztu dira deialdi horietara– agerian utzi du pertsona ugarik giza eskubideen hezkuntzarekin interesa eta konpromisoa duela. Deialdiek euren fuitua eman dute, batez ere azken hiru urteotan. Horrela, bada, lehenengo bekari dagokionez, behin eskola dinamikan integratzeko jarduera eta proposamenen prestaketa-lana amaituta, eta berrikusi eta esperimentatu ondoren, karpeta lodi bat argitaratu zen, euskaraz eta gaztelaniaz: *Materiales para la educación en derechos humanos. Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak.* Karpeta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietara banatu zen (DBH eta Batxilergoa) bai eta hezkuntza laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta zerbitzuetara ere.

Lan horren ostean, beste karpeta bat argitaratu zen giza eskubideen aldeko hezkuntzako material didaktikoekin: *Nuestros derechos. Gure eskubideak,* honako honetan Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Karpeta honetako materiala haurtzaroak berezkoak dituen eskubideetan oinarritzen da, 1989 urteko Haurraren Eskubideei Buruzko Batzarrean finkatutakoak, alegia. Hezkuntza alorreko profesional-talde batek prestatu ditu, egitura bereko 30 unitatetan antolatu dira lan sistematikoa errazteko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietara eta hezkuntza zerbitzuetara bidali da.

Hirugarren bekaren fruitu, giza eskubideen aldeko hezkuntzarako materialen kutxa argitaratu zen, *Los derechos en juego. Eskubideak jokoan* argitaratu eta zabaldu zen. Material hori DBHrako prestatu zen bereziki. Kutxa honek karta-jokoak eskaintzen ditu, 27 giza eskubideekin lotutako edukiak lantzeko behar diren elementuak, jokoa eta hausnarketa bateratuz eta hainbat talde-dinamika erabiliz. Material hori ere gure Erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzuetan banatu zen.

Egin den azken deialdiak multimedia euskarrian materialak lortzea izan zuen helburu, aurreko deialdien aldean berrikuntza eta baita zailtasun bat gehiago ere. Beka Mugarik Gabeko talde bati esleitu zitzaion, material mota hau prestatzen aurretik eskarmentua dauka-eta. Aurten sorkuntza lanean jarraitu dute, emakumezkoen eskubideetan oinarrituta. Lana ia bukatuta dago, berrikustea eta argitaratzea bakarrik falta da. Beraz, espero dugu datozen hilabeteetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan banatu ahal izatea.

Deitutako beka guztiek xede soil eta bakarra izan dute: eskola komunitateari hezkuntza zereginak garatzeko material erabilgarriak eskaintzea. Aldi berean, erakunde honek jarraitu nahi du kontu honen inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokion erantzukizuna azpimarratzen, eta, ahal duen neurrian, giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin konpromisoa duten –eskolaren eremuan edo bertatik kanpo– pertsonen eta kolektiboen arteko harremanak eta kolaborazioa bultzatuko ditu. Ildo honetan, urtean zehar ikastetxeetatik eta beste leku batzuetatik –harrera-zentroetatik, aisialdiko taldeetatik, gazte-taldeetatik eta gazteekin edo adingabeekin diharduten elkarteetatik– izan ditugun material eskariei erantzuten saiatu gara.

Batzuetan, beste erkidego batzuetako herri-defendatzaileek interesa erakutsi dute gure materialetan eta, hortaz, berriro argitaratzeko eta eskatu duten erkidegoetako ikastetxeetara bidaltzeko aukera aztertzen ari gara. Horrela, bada, Andaluziako Herri defendatzaileak 2003ko urtarrilaren 22an egindako eskariari dagokionez, erakunde biek lankidetza-hitzarmena sinatu dugu haurren eskubide bereziei buruzko material didaktikoko karpeta berriro argitaratzeko; horrela, karpeta hori Andaluziako ikastetxeetan banatuko da. Era berean, 2003ko irailaren 26an lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen Nafarroako arartekoarekin, material horiexek argitaratzeko eta Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan banatzeko.

Ararteko erakundea oso pozik dago argitaratutako materialek izan duten harrera ikusita. Hala ere, uste du erakundeak eskola-komunitateari egiten dion ekarpenak ez duela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren erantzukizuna ordeztu behar, lehen ere esan dugunez. Horregatik, behin helburuak beteta, ez du material didaktikoak prestatzeko beka-deialdirik egin. Material horiek irakaskuntzan duten benetako erabilgarritasuna jakiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ikastetxetan datuak bildu eta baloratu nahi ditugu.

Bestalde, helburu berarekin, aurten, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko, ikastetxeetara kartelak eta egutegiak bidaltzeaz gain, eskola-lanak prestatzeko lehenbiziko iragarpen-lehiaketaren oinarriak ere bidali ditugu. Lanok giza eskubideekin zerikusia izango dute, eta emaitzak datorren urtean jakingo dira.

## 2.4. EHUko UDAKO IKASTAROETAKO JARDUNALDIAK: "DEMOKRAZIA-SISTEMETAN TORTURA ETA TRATU TXARRAK PREBENITZEA ETA DESAGERRARAZTEA"

1997. urteaz geroztik, Ararteko erakundeak giza eskubideak aztertu eta eztabaidatzeko jardunaldiak antolatzen ditu EHUren Udako Ikastaroetan. Aurreko urteetan bezalaxe, aurten ere giza eskubideen alor zabala gaur egungo ikuspegitik jorratu nahi izan da.

Zazpigarren jardunaldiotan, "demokrazia-sistemetan tortura eta tratu txarrak prebenitzea eta desagerraraztea" aukeratu zen gaitzat. Giza eskubideak babestearen ikuspegitik aztertu zen gai bereziki hunkigarri hori, gizakiaren duintasuna errespetatzearekin oso loturik baitago.

Jardunaldiaren aurkezpenean, Mercedes Agúndez jarduneko arartekoak argi eta garbi adierazi zuen tortura eta tratu txarrak direla sistema politiko batek agintea erabiltzean izan dezakeen galbideratze gorenaren adierazgarriak.

Horregatik, demokrazia-sistemek kontrol-bideak eta berme-bideak bereganatu beharko dituzte, jokaera onartezin horiek prebenitu eta desagerrarazteko.

Arartekoarena bezalako erakunde batean, argiro prebentziozkoa den eremuan egiten dira gogoetok. Beharrezko baliabideak jarri behar dira horrelako jokaerak prebenitzeko, eragozteko eta, hala badagokio, zigortzeko.

Hitzaldi horren testua txosten honen III. eranskinean agertzen da.

Carlos Villán Durán jaunak, Nazio Batuek giza eskubideetarako duten Goi Ordezkaritzaren funtzionarioa baita, ponentzia hau aurkeztu zuen: "Munduan tortura eta tratu txarrak gauzatzea. Egungo joerak".

Ponentzia interesgarri horretan, Villán profesoreak nazioarteko Zuzenbidean tortura eta tratu txarrak debekatuta daudela azaldu zuen, eta horietaz babesteko legezko bermeak eta nazioarteko tresnak zeintzuk diren adierazi zuen.

Terrorismoaren aurkako legeriak aztertu zituen eta, eskubideak bermatzearen ikuspegitik, agerian jarri zuen oraingo krisialdia, 2001eko irailaren 11ko terrorismo-erasoez geroztik bizi duguna.

Haren esanean, tortura eta tratu txarren debekua ezin utzizko paradigma da, eta estatuei dagokie ez bakarrik jokaera horiei uko egiteko betebeharra, baizik eta baita ere osotasun fisikoa urra dezaketen jarduera guztiei aurrea hartzeko betebehar positiboa.

Laura Zúñiga Rodríguez Salamancako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko irakaslea, berriz, tortura eta tratu anker eta lotsagarriak prebenitzeko dauden tresna juridikoez mintzatu zen.

Tratu ankerrei aurre egiteko, babesa proposatu zuen Zuzenbide estatuaren ardatz nagusietakotzat.

Haren iritziz, jokaerok prebenituko badira, ezinbestekoa da legegintza-eremu egokia izatea, pertsonen ahultasun-egoerei bide emango ez diena; eta ezinbestekoa da, halaber, torturak edo tratu txarrak gertatzen direnean, herri-agintariek horiek ikertzea eta, hala dagokionean, erantzuleak zigortzea.

Xeheki aztertu zuen tortura deuseztatzeko ideia denboran barrena, eta ideia horren irudikapen juridikoa eta kontzeptuzkoa.

Espainian tortura prebenitzeko dauden baliabide publikoak zehaztu zituen, berme gutxien eskaintzen duten alderdien azterketa kritiko kontrastatua eginez.

Oso zehatz garatu zuen gai horri buruzko oraingo araudi penala eta jurisprudentzian ematen zaion trataera, Estatuan nahiz nazioartean.

Laura Zúñiga irakasleak azaldu zuen ikuspegi juridiko, legegintzazko eta jurisprudentziazko oso-oso horren ondoren, bukatzeko, herri-agintariei dei egiten zien, esku artean dugun hau Zuzenbideko demokrazia-estatu batean etengabe egin beharreko lana dela gogorarazteko.

Amaitzeko, Jan Malinowski jaunak esku hartu zuen. Berorrek koordinatzen ditu Tortura eta zigor edo tratu anker edo lotsagarrien Prebentziorako Europako Batzordearen Idazkaritzaren operazio-jarduerak. Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak duen zeregina azaldu zuen.

Batzorde horrek zein bereizgarri nagusi dituen zehaztu zuen, eta batzordeak Espainian egindako lana aztertu.

Ponentzia horri esker jakin dugu eskubideak bermatzerakoan nolako garrantzia duen europar erakunde horren lanak, eta Espainiako egoeraz zein iritzi duen.

Jardunaldiok helburu hau zuten: pertsona ororen eskubideak bermatzearren, konpromisoaren bitartez, zuzenean gizakiaren duintasunari dagokion gai horri buruzko eztabaida sortzen laguntzea, zehaztasunez. Arazo hori konponduko bada, herri-agintariek beti erne egon behar dute, eta Zuzenbideko estatu batean halako jokaera onartezinak gerta ez daitezen konpromisoa hartu behar dute. Izan ere, Francisco Tomás y Valiente-k *La tortura judicial en España* izenburuko bere liburuaren berrargitalpena egin zenean, hauxe adierazi zuen hitzaurrean: inon erabateko oinarrizko eskubiderik bada, *"torturatua ez izateko eskubidea da hori. Inoiz ez. Inor ez, kasuen araberako salbuespenik edo muga lausoturik gabe: 'inoiz ez'."*

Aipatutako ponentziak "Jornadas sobre derechos humanos" bilduman argitaratuta daude eta, orobat, gure web orrialdean ( www.ararteko.net.) kontsulta daitezke.

## 2.5. GIZA ESKUBIDEEI BURUZ HERRITARREKIN BATERA EGINDAKO LEHENENGO EZTABAIDA-FOROA

Erakunde honek, legez ezarri zaizkien eginkizunei loturiko esku-hartzeak egiteaz gain, giza eskubideen aldeko kultura sortzen laguntzen duten beste jarduera batzuk ere egiten ditu. Ildo horretan, gure helburuetako bat gizarte zibilarekiko hurbiltasuna lortzea eta hurbiltasun hori erraztuko duten tresnak antolatzea da.

Horrela bada, 2003. urtean ekimen berria abiarazi da, giza eskubideei buruz herritarrekin batera gogoeta egiteko bilgune eta eztabaidagunea sortzen laguntzea xede duena.

Oraingo honetan, Ezgaitasunen Europako Urtea zenez gero, foroa ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzkoa izango zela erabaki zen; zehatzago, ezgaitasunen bat duten emakumeen eskubideei buruzkoa.

Horretarako, deialdia egin zitzaien oro har Arabako eta Bizkaiko herritarrei eta, bereziki, emakumeen eta ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen alde lan egiten duten elkarteei, Pilar Ramirok Bilbon eta Gasteizen eman zituen hitzaldietara joateko. Hona hitzaldien izenburua: “Mujer y discapacidad: una doble discriminación” (“Emakumeak eta ezgaitasuna: bi aldiz baztertuak”).

Pilar Ramiro Minusbaliatu Fisikoen Madrilgo Koordinakundeko idazkari nagusia da eta CERMIko Emakumearen Batzordeko burua.

Hitzaldi horren eduki osoa Ararteko erakundearen webgunean ikus dezakezue: www.ararteko.net.

# 3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

## 3.1. HERRI DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XVIII. JARDUNALDIAK

Herri Defendatzaileen eta autonomi erkidegoetakoetako mandatarien arteko harremanek koordinazioa eta lankidetza dute oinarritzat. Horregatik, hain zuzen, urte osoan instituzio horiek harreman estuak dituzte beren ohiko jardueraren inguruan, eta egunerokoan gauzatzen den lotura horrekin batera, koordinaziorako jardunaldiak ere gai komunak eztabaidatzeko eta alderatzeko leku dira.

XVIII. Koordinazio Jardunaldiak, Gaztela-Mantxako Herri Defendatzaileak antolatuak, Toledon eta Albaceten egin ziren, urriaren 19tik 22ra bitartean.

Jardunaldietako gai nagusia buru osasuna izan bazen ere, lehenago hiru ikerketa-tailer antolatu ziren, aipatutako aztergai nagusiaz gain jardunaldietan jorratuko ziren beste puntu batzuk ere lantzeko.

Maiatzaren 9an eta 29an Vitoria-Gasteizen eratu zen tailerrean “Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideak” aztertu ziren.

Zaragozan ere tailer bat zabaldu zen ekainaren 12an eta 17an, honako gaia jorratzeko: “Emakumeen eta besteren beharra dutenen aurkako indarkeria elkarbizitzarako lekuetan”.

Bestetik, “Etxebizitza eskuratzeko aukerak” aztertu ziren Leonen, maiatzaren 14an eta ekainaren 6an egindako tailerrean.

Hiru tailerretako ondorioak XVIII. Jardunaldietara eraman ziren lanerako txosten gisa.

Hartara, Faustino López de Foronda Arartekoaren idazkari nagusiak ezgaituen eskubideei buruzko lanaren zirriborroa aurkeztu zuen, eta geroko eztabaidaren ondoren, jarraian azaltzen den moduan geratu zen erredaktaturik:

*“Herriaren defendatzaileek sakon eztabaidatu dute ezgaitasuna dutenen eskubideei buruz eta haien erabateko gizarteratzea lortzeko behar diren neurrien inguruan, eta horren haritik honako ondorioak iritsi dituzte:*

*A) ONDORIO OROKORRAK*

*Berdintasun printzipioa –* ***Lehena.*** *Konstituzioaren 9.2, 14. eta 49. artikuluekin bat etorriz, alor honetako politika publikoek beren baitan jaso behar dituzte berdintasun eta herritartasun osorako eskubideak, hala nola baztertua ez izatekoa.*

*Erabateko irisgarritasuna –* ***Bigarrena.*** *Erabateko irisgarritasunaren kontzeptuari helduz, botere publikoek herritar guztien behar desberdinetara egokitzen den ingurunea eratuko dute.*

| | |
|---|---|
| *Gizartearen Sentsibilizazioa –* | ***Hirugarrena.*** *Gizarteak barneratu behar du ezgaitasuna duten pertsonen egoera. Gizarte guztiak bere kideen askotasunera moldatu behar du. Horretarako, ingurunean behar diren egokitzapenak burutuko ditu, pertsona guztiek bizitzaren arlo guztietan parte hartu ahal izan dezaten. Izan ere, gizarteak askotasunera moldatzea bide bakar eta ezinbestekoa da gizakien berdintasuna benetan gauzatzeko eta haien eskubideak errespetatzeko.* |
| *Parte-hartzearen printzipioa –* | ***Laugarrena.*** *Behar-beharrezkoa da ezgaitasuna duten pertsonek eta haien erakundeek parte har dezaten tresna juridikoak eratzeko eta beren eskubideak guztiz erabilgarri bihurtuko dituzten neurriak zehazteko.* |

*B) HIRI INGURUNEEN IRISGARRITASUNA. OZTOPO URBANISTIKOAK ETA ARKITEKTONIKOAK. EZGAITUEN ESKUBIDEAK ERAGOZTEN DITUZTEN BESTELAKO OZTOPOAK DESAGERRARAZTEA.*

| | |
|---|---|
| *Araudien betetzea –* | ***Lehena.*** *Premiazkoa da administrazio publikoek irisgarritasunari buruzko arauak bete ditzaten, hala egin ezean arauok gogo onen sorta hutsala lirateke, batere eraginkortasunik gabea.* |
| *Irisgarritasunerako planak eta inbertsioak –* | ***Bigarrena.*** *Guztiz beharrezkoa da administrazio publikoek irisgarritasunari buruzko planak eta programak osatu ditzaten, eta hiri ingurunea etengabe egokitzeko behar diren aurrekontu partidak zehaztu ditzaten.*<br>*Ildo beretik, udalek diru inbertsioak egin behar dituzte irisgarritasuna bultzatzeko. Izan ere, horri zuzendutako aurrekontuek beste ezerk baino hobeto erakutsiko lukete helburu horrekiko ardura.* |
| *Diru-laguntzak eta bestelako laguntzak –* | ***Hirugarrena.*** *Beharrezkoa da irigarritasuna sustatzeko neurriak hartzeko, diru-laguntzen bitartez edo helburu bera duten nolanahiko tresnak erabiliz.* |
| *Kontrola eta ikuskapena –* | ***Laugarrena.*** *Erabat beharrezkoa da administrazio publikoek kontrolerako tresnak ezar ditzaten irisgarritasunerako arauak bete direla ziurtatzeko. Alde horretatik, oso lagungarria litzateke arauen betetzea baldintza gisa jartzea lizentziak, baimenak eta kalifikazioak ematerakoan.* |

*Era berean, administrazioek kontrolerako neurriak hartu beharko dituzte erabilera eta zerbitzu publikoko eraikin eta lokaletan, haietan irisgarritasuna bermatze aldera.*

*Zehapenak –* ***Bosgarrena.*** *Administrazio publiko guztiek zehatze-neurriak ezarri beharko dituzte hala egoki denean, bide bakarra baita irisgarritasuna bultzatzeko arauak betearazteko.*

*Irisgarritasuna Administrazioan –* ***Seigarrena.*** *Administrazio publikoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte beren titularitateko eraikinetan irisgarritasuna ziurtatzeko, bereziki osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuetako eraikinei dagokienez.*

*Irisgarritasuna eremu historiko- artistikoetan –* ***Zazpigarrena.*** *Lagungarria litzateke administrazio publikoek irisgarritasuna bultza dezaten interes kulturala duten eraikin historiko-artistikoetan, haien babesa eta kontserbazioa bermatzeaz gain ezgaitasuna dutenen eskubideak ere ziurtaturik gera daitezen.*

*Jabetza Horizontalaren Legea –* ***Zortzigarrena.*** *Jabetza Horizontalerako Legean aldaketak egin beharko lirateke, berriro ere, ezgaitasuna duen pertsona batek –legean aurreikusten diren ezaugarriei eutsiz– eraikin baten atal komunetako oztopoak kentzeko eskatzen badu, horretarako lanak beharrezkotzat jo daitezen, JHLren 10. artikuluko 1. idatz-zatian jasota dagoenaren arabera. Artikulu berbereko 4. artikuluak JHLren 9 e) artikuluari buruz zehazten duenez, lanak jabeen elkartearen kontura ordainduko dira.*

*Garraiobide irisgarriak –* ***Bederatzigarrena.*** *"Garraiobide irisgarriak" bermatzen duten neurriak behar dira, geltokiak eta azpiegiturak ez ezik, hiri barruko autobusak, hiri artekoak, trenak, metroa eta hegazkinak ere egokitu daitezen, herritar guztien autonomia bermatze aldera.*

*Irisgarritasuna komunikabideen eta teknologia berrien arloan–* ***Hamargarrena.*** *Neurriak hartu behar dira, komunikabideak eta teknologia berriak eskuragarriak izan daitezen herritarren guztientzat eta baldintza berberetan.*

*C) EZGAITASUNA DUTENEI LANERAKO ESKUBIDEA ETA AUKERAK BERMATZEKO NEURRIAK*

*Hezkuntza eta prestakuntza –* ***Lehena.*** *Premiazkoa da ezgaitasuna dutenen hezkuntza eta prestakuntza teknikoa hobetzea,*

*lanbide-gaitasun jasoagoaren eta trebetasun handiagoen bitartez lanerako aukera gehiago lortuko baitituzte; berariazko neurriak hartu beharko lirateke, gorabehera pertsonalak direla medio, ikasteko zailtasuna handiagoak dituztenentzat.*

*Lanpostuen erreserba –* ***Bigarrena.*** *Komenigarria litzateke egoki diren lege-aldaketak egitea, enpresek ezgaituentzat legez gorde behar duten lanpostu kopurua handitzeko, eta beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan, horrelako neurriak nahitaez betebeharrekoak izan daitezen enpresa txiki eta ertainentzat ere. Edonola ere, lan arloko agintaritzak legez ezarrita dagoen erreserba benetan betetzen dela begiratu beharko luke, arauetan aurreikusten diren kontrol eta segimendurako tresnak baliatuz.*

*Lan publikorako aukerak –* ***Hirugarrena.*** *Arlo publikoko lanpostuei dagokienez, komenigarria litzateke ezgaituentzat gaur egun dagoen erreserba-kuota handiagotzea; eta oraindik egin ez duten autonomi erkidegoek, behar diren lege aldaketei ekin beharko diete.*

*Erreserba-kuota eskaintza publiko osora zabaldu beharra dago, lanpostuak behin betikoak, bitartekoak edo aldi baterakoak izan. Bestalde, ezgaituentzako erreserban betetzen ez diren postuak ez da erabiliko lanpostu orokorrak gehitzeko; aitzitik, gorde egingo dira pertsona horiek geroago bete ditzaten.*

*Hautaprobak egokitu eta moldatu egingo dira norberaren beharretara, ezgaitasuna duten pertsonek beste guztien pare hartu ahal izan dezaten. Hala behar denean, ahozko edo idatzizko proben ordez proba praktikoak egin ahalko dira, ezgaitasuna –fisikoa zein psikikoa– duen azterketariaren gaitasuna neurtu ahal izateko.*

*Kapital publikoa duten enpresak –* ***Laugarrena.*** *Lanpostuetarako deia zabaltzen duten enpresen kapitalaren zati handiena, zuzen edo zeharka, administrazioena edo beren mendeko erakundeena bada, funtzio publikoan ezartzen den bezainbesteko erreserba-kuota gorde beharko litzateke ezgaituentzat.*

*Kontratazioetarako pizgarriak –* ***Bosgarrena.*** *Egoki jotzen diren aldaketen bitartez, komenigarria litzateke administrazioek*

*bultzatutako kontratazio prozesuetan beharrezkoak diren klausulak txertatzea, parte hartzen duten enpresek ezgaituentzako erreserba errespetatzen dutela bermatze aldera. Ildo beretik, behar diren arau egokitzapenak egin litezke kontratazio prozeduretan, legez ezarritakoa baino langile ezgaituen kopuru altuagoa duten enpresek balorazio positiboagoa edo beren aldeko puntu gehiago jaso ditzaten, edo bestelako bideren bitartez lehentasunezko jarrera izan dezaten.*

*Era berean, arauak egokituz edo negoziazio prozesuen bitartez maila apalagoko administrazio-kontratuen hainbesteko bat gorde liteke baztertze-arriskua dutenak gizarteratzeko diharduten zentroentzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.*

*Bestelako enplegatze-motak bultzatzea –*

***Seigarrena.** Komenigarria litzateke beste zenbait enplegatze-mota -lagundutako enplegua, enpresa-alde babestuak, lantalde mugikorrak, edo enplegu hautatua- orain arte garapen laburra izan duten arren lagungarriak izan bailitezke ezgaituak lan munduan has daitezen, enpresa arruntetan hartuta.*

*Enpresa irisgarriak –*

***Zazpigarrena.** Ezgaitasuna dutenentzat enpresak irisgarriak izan daitezen lortu behar da, era guztietako oztopoak desagerraraziz eta lantokien zein lanpostuen egokitzapena bultzatuz diru-laguntzen edo salbuespenen bidez.*

*Sindikatuak eta enpresariak sentsibilizatzea –*

***Zortzigarrena.** Sentsibilizazio-maila handiagoa lortu behar da gizartearengan, bereziki enpresarien eta sindikatuen artean, ezgaituek lanerako duten gaitasunaz.*

*Berebiziko zailtasunak –*

***Bederatzigarrena.** Premiazko da berariazko politikak zehaztea lan-merkaturako zailtasun handiagoa duten ezgaituentzat –emakumeak, gazteak eta buru ezgaitasuna dutenak–.*

*Landa aldean are zailagoa da pertsona horiek lan-merkaturatzea. Hortez, botere publikoek neurriak hartu beharko lituzkete sektoreen arteko alde hori murrizteko.*

*Enplegurako zentro bereziak eta zereginetakoak –*

***Hamargarrena.** Berraztertu beharko litzateke enplegurako zentro berezien eta zereginetarako zentroen lana. Ildo horretatik, jakin beharko litzateke horrelako zentroek beren hasierako*

| | |
|---|---|
| | *helburua betetzen duten, haien beharra ezbaian jarri gabe, gizarteratzea eta enplegu arrunterako iristea erraztuko lituzketen neurriak bilatzeko asmoz.* |
| *Lan tartekaritzarako zerbitzuak –* | ***Hamaikagarrena.*** *INEMek eta bestelako lan-tartekaritza zerbitzuek lan-merkaturatzean betetzen duten zeregina bultzatu behar da, ezgaituei lanerako aukerak errazteko darabiltzaten politikak hobetu ditzaten.* |

*D) HERRI DEFENDATZAILEEN EGINBEHARRA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEN BENETAKO GIZARTERATZEA ERRAZTE ALDERA*

*Herri defendatzaileek ondoko konpromisoak hartzen dituzte:*

| | |
|---|---|
| *Ofiziozko jarduteak, txostenak eta ebazpenak –* | ***Lehena.*** *Beren jarduera eremuetatik, ezgaituen gizarteratzea errazten duten neurriak bultzatzea, bereziki ondoko tresnak erabiliz: ofiziozko jarduteak; kontrolerako ekimenak, administrazio publikoetan ezgaituentzako berariazko neurriak betetzen diren egiaztatzekoak; ezohiko txostenak, hala nola benetako berdintasuna erraztuko duten ebazpenak.* |
| *Egoitza irisgarriak –* | ***Bigarrena.*** *Beren egoitzak eta lokalak irisgarri bihurtzea ezgaituentzat; bertan izan litezkeen oztopoak desagerrarazi, kexak aurkeztera doazen ezgaituei eta langileei eurei iristea eta jardutea errazteko.* |
| *Lanpostuen erreserbak –* | ***Hirugarrena.*** *Enplegu publikoan egiten den proportzio berean, erakunde bakoitzean ere lanpostu kopuru bat gordetzea ezgaitasuna dutenentzat.* |
| *Kontratazioen sustapena –* | ***Laugarrena.*** *Gure kontratazio-prozeduretan dagozkion klausulak txertatzea, parte hartzen duten enpresek ezgaituentzako erreserba-kuota betetzen dutela ziurtatzeko asmoz.* |
| *Tratamendu berezia –* | ***Bosgarrena.*** *Erakunde bakoitzak egoki deritzonaren arabera, bere barne egituran berariazko tratamendu bat txertatzea ezgaituen eskubideak babesteko eta zabaltzeko. Horretarako bide desberdinak daude: berariazko zehar-arlo bat sortzea ezgaituentzat –urteroko txostenetan eta web orrian atal zehatz bat eratuz–* |

| | |
|---|---|
| | *edo pertsona horiei berariazko arreta eskaintzen dien bestelako neurriak hartzea.* |
| *Web orri irisgarriak –* | ***Seigarrena.*** *Ahal den neurrian, gure web orriak irisgarri eskaintzea ezgaitasuna dutenei.* |
| *Elkarteen mugimenduarekiko lankidetza –* | ***Zazpigarrena.*** *Gure erakundeek ezgaituekin eta haien elkarteekin dauzkaten harremanak sendotzea, elkarlanaren bitartez eta, hala badagokio, haien arazoei eta eskubideei hobeto heltzeko hitzarmenak sinatuz."* |

* * *

Rubén García Lópezek, Procurador del Común-en aholkulariak, bigarren tailerraren inguruko txostena, etxebizitzarako aukerei buruzkoa, aurkeztu zuen.

Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, ondoko jardute-proposamenak onartu ziren:

*"Ondoren adierazten diren ekimen-proposamenak egiterakoan, abiapuntutzat hartu dira zenbait irizpide orokor, Parlamentuen Mandatarien ustez etxebizitzarako politika publikoei ekiteko erabili behar direnak: lurralde desberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa; aparteko arreta eskaintzea etxebizitza eskuratzeko zailtasuna handiagoak dituzten kolektiboei; ikuspegi orokor batetik, etxebizitzek duinak eta egokiak izateko behar dituzten gutxieneko ezaugarriak arautu beharra. Hona hemen hasieran aipatutako proposamenak:*

1. *Lurzoruaren merkatuan eragiteko neurriak:*

   – *Aspaldiko figura den 'udalaren lurzoru ondarea' egokitu. Horretarako:*

     - *Figura hori zabalduko litzateke, eta bere baitan hartuko lituzke administrazio publiko guztien ondarezko ondasun higiezinak, baita haiei lotuta edo haien mende dauden izaera publikoko erakundeenak ere, hirigintza plangintzak jo baditu aipatutako ondasunak hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarritzat. 'Lurzoru-ondare publikoak' izango litzateke kontzeptu berria.*
     - *'Gizarte interesa edo interes orokorreko bestelako xedeak/erabilerak' izeneko zehaztugabeko kontzeptu juridikoaz egin daitezkeen interpretazioak zehaztu eta murriztu egin beharko lirateke dagozkion arauetan. Horrela, bermaturik geratuko litzateke lurzoru ondare publikoen helburu nagusia, babes publikoko erregimenetako etxebizitzak eraikitzea, hain zuzen.*
     - *Ez litzateke enkantea erabiliko ondare publikoetako ondasunak besterentzeko. Horretarako, lehiaketa jotzen dugu sistemarik egokientzat; ondasunak tasadunak direnean zuzeneko esleipena onartu beharko litzateke.*
     - *Apirilaren 13ko Lurzoruari eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legeari dagokionez, 40. artikuluaren 3. puntua berraztertu beharko litzateke.*

– *Erabilera nagusia egoitzazkoa duten kudeaketa-eremuetan, diruzko aprobetxamendu osoaren zati bat babes publikoko erregimenetako etxebizitzak eraikitzeko erabiliko da. Hainbesteko hori jarduera osoko eremuetako bakoitzean -poligonoak edo jardute/betearazte unitateak- gauzatuko da, eta era berean, giza taldeak, erabilerak eta jarduerak orekatuta geratuko dira, espazioaren zatiketarik gera ez dadin.*
– *Finkatu gabeko hiri-lurzoruetan eta lurzoru urbanizagarrietan urbanizazio prozesuak bizkortuko dira. Horretarako:*

  • *Hirigintza kudeaketarako administrazio-prozedurari dagokionez, arauak ahalik eta gehien erraztuko dira, beti ere herritarren parte-hartzea ziurtatuz.*
  • *Prozeduretako izapideak atzeratu ez daitezen, administrazio bidea arinduko duten mekanismoak ezarriko dira. Alde horretatik, azpimarratzekoa da administrazio-isiltasunaren erabilera.*
  • *Mekanismo egokiak ezarriko dira lurzorua asmo espekulatiboekin atxikita gera ez dadin. Helburu horrekin, neurriak hartu behar dira lurzorua urbanizatzeko epeak betearazteko, Administrazioaren esku-hartze zuzenaren bitartez edo esku-hartze pribatuko figurak erabiliz.*

2. *Etxebizitza alokatuen merkatua sustatzea*

– *Alokairua etxebizitza eskuratzeko tresna gisa bultzatzearren, zerga alorreko neurriak hartuko dira, babes publikoko erregimenetako etxebizitzen eraikuntza sustatzeko edo alokairuko etxebizitzen eskaintza eta eskaera errentagarriagoak gerta daitezen.*
– *Alokairu kontratuen berme juridikoa sendotzeko, babes berezia behar den kasuetan administrazio publikoek neurriak hartuko dituzte alokairuaren errenta eta etxebizitzan gerta litezkeen kalteak ordainduko direla ziurtatzeko.*
– *Administrazio publikoek nabarmen handituko dute alokairuko etxebizitzen sustapen zuzena. Handituko da, era berean, premia handiko kasuetarako erabiltzen diren etxebizitza publikoen kopurua.*
– *Alokagarri eskainiko diren etxebizitzak berritzeko planari ekingo zaio hiringuruetan eta erdiguneetan; horrekin batera, leku berberetan ingurua egokitzeko neurriak hartuko dira.*

3. *Babes publikoko etxebizitzak sustatzea*

– *Oraindik egin ez den autonomi erkidegoetan, legegintza eskumena erabiliko da etxebizitza alorrean, bereziki etxebizitza babestuen gaineko zehatze-ahalmenari dagokionez.*
– *Merkatu libreko etxebizitzak eskuragaitzagoak diren udalerrietan, gehien eskatzen diren ezaugarrietako etxebizitzak sustatuko dira, indarrean dauden eraikuntza-arauak betetzen direla bermatuz.*
– *Etxea eskuratzeko aukera erraztuko zaie* ***beren egoeragatik laguntza berezia behar duten kolektiboei****: zaharrak; gazteak; etorkinak; fa-*

*milia ugariak; tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak; famili ardurak dituzten emakumeak (dibortzio edo bereizketa prozesuan egoteagatik, edo tratu txarrik ez jasateko bikotekidearengatik aldendu beharra dutelako); errenta eta gizarteratze arazoak izateagatik alorreko politiken beharra duten kolektiboetako kideak.*

*Era berean, terrorismoaren biktimek ere laguntza behar berezia dute, eta alde horretatik, babes ofizialeko etxebizitzetan bizi diren biktimei etxez aldatzeko erraztasunak emango zaizkie, jasaten duten jazarpenagatik eta segurtasun faltagatik.*

- *Etxebizitza babestu guztiak prozedura publikoen bitartez esleituko direla ziurtatuko da, publikotasuna, lehia publikoa eta gardentasunaren printzipioen arabera.*
- *Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira etxebizitza babestuak ezarritako epean esleitu eta eman daitezen, eta gehiegizko atzerapenek kalterik eragin ez diezaieten esleipendunei.*
- *Erabilgarri dauden eskumenak baliatuko dira etxebizitza babestuak behar bezala zaindu daitezen, eta beharrezkoa denean, ordezko betearazte tresnei ekingo zaie.*
- *Neurriak hartuko dira etxebizitza babestuak eraikitzekoak eta finantzatzekoak izan ez ziren helburuekin erabil ez daitezen; horretarako, babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa iraunkorra izango da.*
- *Alor horretan ikuskapen zerbitzu publikoak sortuko dira. Arau-hausteak (gainprezioak kobratzea, adibidez) antzematen direnean neurri eraginkorrak hartuko dira, eta eroslehentasunerako eta atzera eskuratzeko eskubideak erabiliko dira."*

* * *

Lan tailerretako ondorioen alderaketa bukatzeko, Justicia de Aragón-eko aholkularia den Francisco Polo Marchador-ek aurkeztu zuen txostenean emakumeek eta besteren beharra dutenek elkarbizitza lekuetan jasaten duten indarkeria jorratzen zen, hirugarren tailerrean landutako gaia, hain zuzen. Eztabaida batean ikuspegi desberdinak ukitu ondoren, honako ondorioak eta gomendioak eman ziren:

*"Administrazioaren jardutea eta haren eraginkortasun maila ikusirik, ondoren azaltzen diren proposamenak ematen ditugu, haietan defendatzaileek ahobatez adierazitako iritziak eta irizpideak biltzen baitira. Alorrerako ditugun oinarrizko lan-ildoak dira, eta haien bitartez eskaera bera luzatzen zaizkie Estatuko eta Autonomi Erkidegoetako Administrazioei, bakoitzak bere ardura eremutik honako neurriei ekin diezaien lehenbailehen, behar-beharrezkoak baitira indarkeriari erantzun egokia emateko.*

1. *Gure instituzioek, duela gutxi ordenamenduari erantsi zaizkion tresnen erabilerari jarraipena eta balorazioa egiteko konpromisoa hartzen dute, tresna horiek ('epaiketa arinak' eta 'babeserako aginduak') duten eraginkortasuna eta baliagarritasuna aztertzeko asmoz.*

*Helburu horrekin, zentzuzko ezarpen-tartea igaro ondoren, Estatuko Herriaren Defendatzaileak dagokion informazioa eskatuko dio Estatuko Fiskaltza Nagusiari.*

2. *Legezko marko bat bultzatuko da elkarbizitza lekuetako indarkeriari aurka egiteko, eta haren biktimek, beste edonork bezala, osoko laguntza jasotzeko eskubidea berehala erabili ahal izan dezaten, kontuan hartu gabe non bizi diren, zenbateraino bete diren administrazioaren jardute-planak edo zenbateko aurrekontuak dauden erabilgarri.*

   *Justizi Administrazioari dagokionez, neurri horrek famili gatazketarako jurisdikzioa sortzea ekarriko luke, behar besteko langilez eta baliabide materialez hornituz.*

3. *Indarrean dagoen sistema juridikoan zenbait lege-aldaketa egin beharko lirateke, besteak beste:*

   – *Indarkeria psikikoa aipatzen den zigor-artikuluetan zorroztu egin beharko litzateke kontzeptu hori, haren gutxieneko edo oinarrizko definizio bat emanez.*
   – *Salaketa jarrita izan arren norbait hiltzen den kasuei begira, hobetu eta erraztu egin behar da Administrazioari ondare-erantzukizuna eskatzeko sistema, haren okerreko funtzionamenduagatik eskatutako babes-neurriak hartu ez baziren.*
   – *Zigor auzibideari buruzko legea arlo penaleko ‘epaiketa arinak’ egoki egin zitezen aldatu zen bezalaxe, beste horrenbeste egin beharko litzateke auzibide zibilari buruzko legearekin, bereizketa edo dibortzio kasuetan eskatzen diren behin-behineko neurriek berehalako erabakia jaso dezaten, auzibide zibilari buruzko legeak ezartzen dituen epe laburretan, alegia.*
   – *Tratu txarrak gurean eta era administratibo irregularrean bizi diren atzerritarrek jasan dituzten kasuei begira, gehigarri bat egin beharko litzateke Espainian bizi diren atzerritarren eskubideei, askatasunei eta gizarteratzeari buruzko Lege Organikoan, zehazki 31. artikuluaren 4. idatz-zatian. Horren arabera, genero-indarkeria egiaztatzen bada, salbuespenezko gorabeheratzat hartuko litzateke, eta gizabidezko arrazoiengatik bide eman beharko luke pertsona horien egoera administratiboa legeztatzeko.*

4. *Botere publikoei, indarkeriari aurre egiteko dituzten neurriak gauzatu egin ditzatela eskatzen zaie, erantzukizun zuzena baitute herritarren bizitza, segurtasun, askatasun eta duintasunerako eskubidea babestu beharra duten aldetik.*
5. *Elkarlana eta lankidetza bultzatuko da ardura duten instituzioen eta profesionalen artean (epaileak, fiskalak, poliziak, abokatuak, hala nola osasun, laguntza eta hezkuntza zerbitzuak). Helburu berarekin, prestakuntza etengabea eta espezializatua emango zaie, bereziki indarkeriaren adierazleen antzemateari dagokionez.*
6. *Protokolo lotesleak osatzea eta ezartzea bultzatuko da, ezinbestekoak gertatzen baitira egin beharreko jarduteak eraginkorrak eta koordinatuak*

*izan daitezen. Neurriak hartuko dira protokoloak zabaldu eta jakinaraz daitezen eta haien sinatzaileek era eraginkorrean ezar ditzaten.*
*Uste dugu bai elkarte eta erakundeen eta bai gure instituzioen ordezkariek parte hartu beharko luketela protokoloen betetze-maila neurtu behar duten segimendu-batzordeetan. Protokoloak zorrotz ezartzen direla ziurtatuko dute, behar den lankidetza eta koordinazioa bermatze aldera.*

7. *Instituzioen lana egiazta eta balora dadila iradokitzen dugu, indarkeria mota hau jasaten dutenek laguntza osoa eta iraunkorra izan dezaten. Beharrezkoak da, horretarako, ondoko neurriak hartzea:*
   - *Autonomi erkidegoetan berariazko baliabideak eratuko dira; horren haritik, behar diren harrera zentroak eta egoitzak antolatuko dira, norberarentzako tratamendu iraunkorraren bitartez biktimen erabateko suspertzea lortzeko.*
   - *Egoera horretan dauden emakumeentzako harrera zentroetan eta egoitzetan, gutxieneko kalitatea eta funtzionamendu maila bermatuko da haien kudeaketaren ardura duten administrazio publikoen aldetik. Baliabide horiek zerbitzu publikoen izaera izango dute, eta hori kudeaketan islatuko da.*
   - *Azpiegitura horiek erabilgarri egon beharko dute ahultasun handiko egoera dauden kolektiboentzat: emakume ezgaituak, drogamenpekotasun edo bazterkeria arazoak jasaten dituztenak...*

8. *Behar diren neurriak eskatuko dira, emakume horiek, prestakuntza eta lan egokia jasotzeaz gain, etxebizitza duina ere izan dezaten. Eratu beharko lirateke, halaber, gizarte-bermerako funtsak, familiaren zatiketak pentsioak ez ordaintzea dakarren kasuetarako.*
9. *Komenigarria litzateke tratu txarrak eragiten dituztenen tratamendu eta birgaitzerako bideak aztertzea, birgizarteratzea eta prebentzioa ezarritako zigorraren osagarri izan daitezen.*
10. *Dagokien administrazioei behar besteko finantzazioa bideratu dezatela eskatzen diegu, Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako Laguntza Plana eta Gizon eta Emakumeen arteko Aukera Berdintasunerako Plana paper errea eta deklarazio hutsalak izan ez daitezen.*
11. *Gogoratzen diegu botere publikoei, Europako Batasunaren ordenamendu juridikoaren aginduz, zeharreko lerroak txertatu behar dituztela beren neurri politiko guztietan, ezinbestekoa baita genero-ikuspegia neurri politiko guztietan agertzea.*
12. *Beharrezkoa iruditzen zaigu hedabideetan arautegi deontologikoak bere egin ditzaten, emakumeen eskubideek begiruneko tratamendua izan dezaten eta azaleko azterbide sentsazionalistak bazterturik gera daitezen emakume, adingabe eta zaharren aurkako indarkeria tratatzean; bestalde, arautegi horrek abiapuntu izan behar du pertsona horien eskubideei buruzko informazio kanpainak zabaltzeko.*
13. *Haurren aurkako tratu txarren arazoari behar bezala heltzeko, beharbeharrezkoa da arazoa antzemateko eta jarduteko erabiltzen diren protokoloak lotesleak izan daitezen, biktimei babes egokia bermatzeko.*

*Administrazioak, bere aldetik, zorrotz eta estu betearazi beharko ditu protokolo horiek.*

14. *Bortizkeriaren belaunaldi zeharreko transmisioa etenarazi egin behar da prebentzio programen bitartez. Bestalde, ekimen planak abiarazi behar dira, oraingo babes sistemaren hutsak zuzentzeko asmoz.*
15. *Agerian utzi nahi dugu Administrazioak ia ez duela ezer egiten indarkeriaren biktimak adinekoak direnetan. Hala ere, premiazkoa da lehenbailehen esku har dezan, besteren mendeko adinekoak babesteko protokoloak ezarriz eta zabalduz, eta alorreko profesionalei ere aldizkako trebakuntza emanez.*
16. *Informazio homogeneoa lortzeko, instituzio publikoek oinarrizko ikerketa bultzatu behar dute. Horretarako, kalitateko sistema fidagarri bat erabiliko dute, arloko datu bilketa eta estatistiken taxutzea egoki burutzen direla ziurtatzeko.*

*Azkenik, eta egoera ahuleneko kolektiboei (emakumeak, adingabeak eta adineko pertsonak) berariazko laguntza eman nahian, ordezkatzen ditugun instituzioen izenean konpromisoa hartzen dugu gure erakunde eta funtzionamendu-egituretan horrelako zerbitzuak zabaltzeko, antzeko beste instituzioetan egin den bezala. Horrela, tratamendu zuzen eta espezializatua eskaini ahalko zaie indarkeria jasaten duten pertsona horiei, beren oinarrizko eskubideen errespetua bermatuz."*

* * *

Lehen eztabaida-mahaiak ondokoa izan zuen aztergai: "Laguntzarako zerbitzu eta baliabideak buru-osasunaren artapenean".

Bere lehen txostenean Mercede Agúndez jarduneko arartekoak jorratutako gaia "Haurren eta gazteen buru-osasunerako eta psikogeriatriarako baliabideak eta zerbitzuak" izenekoa izan zen (testua osoarekin txosten honetako I. eranskina osatu da).

Bigarren txostena ("Buru-gaixo kronikoentzako eta patologia dualak dituztenentzako artapen sistemak") Andaluziako Herriaren Defendatzaile José Chamizok aurkeztu zuen.

José Ramón Vázquez-ek, Galiziako valedor do pobok, "Buru gaixotasuna ordenamendu juridikoan" aztertu zuen.

Beste lan-mahai batean funtsezko gai bat jorratu zen: "Buru-gaixoa: zuzenbideko subjektua".

Kanariasetako Diputado del común den Manuel Alcaideren txostenaren gaia ondokoa izan zen: "Buru-gaixoen gizrte eskubideak eta eskubide zibilak ".

Bernardo del Rosal Valentziako Erkidegoko síndic-ek, honakoa aztertu zuen: "Buru-gaixoa: osasun sistema nazionalaren erabiltzailea; eskubideak".

Nafarroako Herriaren Defendatzaileak, Mª Jesús Arandak, honako aztergaia landu zuen: "Egin gabe geratu zen erreforma. Buru-gaixoen eskubide ahaztuak".

Hirugarren mahaian ondokoa aztertu zen: "Buru-osasunerako euskarriak: familiak eta elkarteak. Buru-gaixotasuna dutenen gizarteratzea".

Manuel Aguilar Herriaren Defendatzailearen bigarren ondokoak txosten hau aurkeztu zuen: "Buru-gaixotasunaren gizarte kostua: familiako zaintzaileen akitzea. Emakume etorkinak ordezko artapen-baliabide gisa".

Gaztela-Leongo Procurador del común den Manuel Garcíak ondokoa aztertu zuen: “Gaixoen eta senideen elkarteak, buru-osasunerako zerbitzuen emaileak”.

Azkenik, Kataluniako síndic de greuges-ek honako honetaz jardun zuen: “Buru gaixotasuna dutenen gizarteratzea eta lan munduratzea”.

Jardunaldietan, Nafarroako Herriaren Defendatzaileak antolatutako XVII. Jardunaldietan hasitako esperientzia interesgarriari heldu zitzaion. Horretaz gain, Gaztela-Mantxako gizarte zibilari irekitako II. Giza Eskubideei buruzko Eztabaida-lekua burutu zen; bertan José Guimónek, Euskal Herriko Unibertsitateko psikiatria-katedradunak, ondokoaz hitz egin zuen: “Buru-gaixoentzako gizarte eta osasun artapena Espainian: Sistema publikoa eta pribatua”.

## 3.2. EUROPAKO BATASUNEKO ESKUALDE-OMBUDSMANEN IV. BATZARRA

Apirilaren 9tik 11ra bitartean Europako Batasuneko Eskualde-Ombudsmanek laugarren biltzarra egin zuen, Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges-ek antolaturik. Biltzar horretan berme-erakunde horiek Europako Batasunean duten betebeharra aztertu zen.

Biltzarrean txostenak eta mahai-inguruak aurkeztu eta egin ziren zenbait gai interesgarriren inguruan:

Hasiera-hitzaldiak "Europako Konstituzioa" izan zuen hizpide.

Lehenbiziko mahai-inguruan "Europaren etorkizuna"-z eztabaidatu zen.

Bigarrenaren gaia "Inmigrazioa eta asiloa. EBren zeregina" izan zen.

Ondorengo eguneko mahai-inguruetan honako gaiei heldu zitzaien: "Ingurumenaren babesa EBn eta Eskualdeetako Ombudsmanen eginbeharra"; "Gardentasuna eta dokumentuen eskuragarritasuna, bereziki ingurumenari buruzko informazioaren alorrean".

Antolatutako mahai-inguruetan eskualde-Ombudsmanen bulegoen ordezkariek, Europako Herriaren Defendatzailearenak eta unibertsitate katedradunek hartu zuten parte, eta ikuspegi desberdinak adierazi ziren mahairatutako aztergaien inguruan.

## 3.3. IBEROAMERIKAKO HERRI DEFENDATZAILEEN ETA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE PUBLIKOETAKO MANDATARI ETA LEHENDAKARIEN FEDERAZIOAREN VIII. BILTZARRA

2003ko azaroaren 18tik 21era bitartean Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioak (FIO) VIII. Biltzarra egin zuen, Panama Hirian. Eztabaida-leku izateaz gain, jardunaldi horien helburua Ombudsmanen figura bultzatzea izan zen, Iberoamerikako herrietara zabaldu dadin.

Biltzarrean giza eskubideei eta Iberoamerikako herriei dagozkien gaiak jorratu ziren. Izan ere, Biltzarrak "Demokrazia eta Giza Eskubideak" izan zituen eztabaidagai nagusitzat.

Lehenbiziko eztabaida-jardunaldian ondoko gaiak ukitu ziren:

- Gardentasuna eta demokrazia
  - Informazioa eskuratzeko aukerak
  - Adierazpen askatasuna
  - Ustelkeria
- Ombudsmanen esperientziaren garrantzia gardentasuna eta demokrazia indartzeko
- Emigranteen babesa ziurtatu beharrak dakartzan eginkizunak
  - Latinoamerikako ikuspegia
  - Europako ikuspegia
  - FIOren Txostena
- Biztanleen egoera eta Estatuaren jarduera

Bigarren jardunaldian aztertutako gaiak honakoak izan ziren:

- Ombudsmana eta giza eskubideak babesteko nazioarteko sistemak
  - Amerikako sistema
  - Europako sistema
  - Nazio Batuen sistema
- Ombudsmanen esperientzia eta giza eskubideak babesteko nazioarteko sistemak

Jardunaldietan FIOren biltzar orokorra egin zen.

Ondoren, "Panamako Deklarazioa" jasotzen da, VIII. Biltzarraren amaieran onartua:

*"PANAMAKO DEKLARAZIOA*

*Panamako Panama Hirian, herriaren defendatzaileek, prokuradoreek, justizi emaileek, mandatariek eta giza eskubideetarako batzorde publikoetako buruek VIII. Iberoamerikako Ombudsbmanen Federazioaren (FIO) Urteroko Biltzarra egin dute, 2003ko azaroaren 18tik 21era bitartean, eta bertan ondoko DEKLARAZIOA onartu dute:*

1. *Ombudsmanek egiten duten lanaren garrantzia AITORTZEN dute, bizimodu demokratikorako oinarrizko baldintza diren giza eskubideekiko errespetua eta beharra bermatzen baitute.*
2. *BAT EGITEN dute herrialde horietan gobernu era demokratikoari eusteko egiten diren ahaleginekin, eta helburu bera duen Zuzenbide Estatuaren indartzearekin.*
3. *Berriz ere kezkaturik AGERTZEN dira bertako gizarteen erabateko garapena eta gizakien bizimodu duinerako eskubidea eragozten dituzten arazoengatik, eta biziki ESKATZEN diete Estatuei neurri politikoak har ditzatela informazio publikorako irispide librea errazte aldera, oinarrizko eskubide hori ezinbestekoa baita gardentasunaren mesederako eta ustelkeriaren izurria borrokatzeko.*
4. *Estatuak eta nazioartea PREMIATZEN dituzte, bere egin dezaten adierazpen askatasuna eta informaziorako eskubidea indartzeko ardura. Izan ere, informazio askotarikoa, benetakoa eta egokia jasotzeko eskubidea bermatzea lagungarria da herritarrak hezteko eta demokrazia sendotzeko.*
5. *Demokraziarekiko konpromisoa BERRESTEN dute, eta konstituzioaren kontrako indarkeria mota oro GAITZESTEN dituzte, kalte egiten baitiote demokraziaren, zuzenbide estatuaren edo giza eskubideen benetako ezarpenari. Beraz, DEI EGITEN dute gatazkan konponbide baketsuak bila daitezen.*
6. *Berriz ere AZPIMARRATZEN dute desarmeak, desmilitarizazioak eta segurtasun zerbitzuen kontrolak Ertamerikan duten garrantzia.*
7. *Politika publiko eta oso baten beharra ADIERAZTEN diete Eskualdeko Estatu guztiei, migrazioen gaiari helduko badiote. Neurri horiek botere exekutiboaren maila gorenetatik kontrolatuko lirateke, eta behar den laguntza teknikoaz gain, alorrean zerikusia duten sektore publiko zein pribatu guztien parte-hartzea eta adostasuna jasoko lukete, batez ere lekuan lekuko FIOren erakundearen partetik, hala nola giza eskubideen zein emigranteen eskubideen alde diharduten gobernuz kanpoko erakundeen aldetik ere.*
8. *Ildo beretik, I. Giza Eskubideei buruzko Txostena zabaltzeko asmoari EUSTEN diote; txostena, emigranteen gaia jorratzen duena, Federakunde honek egina da, eta Espainiako Erresumako Alcalá de Henaresko Unibertsitateak koordinatua.*
9. *Estatuei migrazioari buruzko nazioarteko arauak berrets ditzatela ESKATZEN diete, bereziki Nazio Batuenak eta Amerikako sisteman zein Europakoan jasotakoak.*
10. *Berriro ere, PREST AGERTZEN dira 18. Kontsultarako Iritziaren edukia eta ondorioak zabaltzeko. Agiri horrek, Amerikako Giza Eskubideetarako*

*Auzitegiak emanak, Dokumenturik gabeko Langile Emigranteen Egoera aztertzen du.*

11. *Bere egiten dute Giza Eskubideei buruzko eta Gizaldeko Nazioarteko Zuzenbidea ikertzen eta zabaltzen jarraitzeko KONPROMISOA, eta atzera ere ESKATZEN diete Estatuei nazioartean eta eskualdean helburu horrekin eratutako tresnak onets edo berrets DITZATELA.*
12. *BAT EGITEN dute nazioarteko eta eskualdeko giza eskubideen babes-sistemak sendotzeko prozesuarekin; biktimek edo haien ordezkariek Amerikako Giza Eskubideetarako Auzitegira zuzenean jotzeko aukerari dagokionez, haren bideragarritasuna aztertzea GOMENDATZEN dute, eta AGINTZEN diete eskualdeko Estatuei nazioarteko giza eskubideak babesteko erakundeen erabakiak bete ditzatela.*
13. *Berriz ere ADIERAZTEN diote Amerikako Giza Eskubideen babes sistemari bere organoekiko elkarlana indartzeko duten gogoa.*
14. *Iberoamerikako Lehendakarien eta Estatuburuen Goi bilerari dagokionez, berriki sortua duen Idazkaritza Teknikoarekiko elkarlan sendoaren garrantzia AZALTZEN dute.*
15. *Nazio Batuen Torturaren aurkako Hitzarmenari 2002ko abenduan erantsitako Hautazko Protokoloa sinatu ez duten Estatuei, sinatzeko eta berronesteko GOMENDATZEN diete. Tortura eragozteko neurri gisa, Protokoloak atxilotze-lekuak aztertzeko aukera jasotzen du, nazio barneko zein nazioarteko bisitaldien bitartez.*
16. *Merkataritza Librerako Hitzarmenen negoziaketan ari diren Eskualdeko gobernuei, hitzarmen horietan giza eskubideetarako bermeak sarrarazteko ESKATZEN diete.*
17. *Giza eskubideen haritik ere, elkarlanerako gogoa AZALTZEN diete, berriro, eskualdearen integrazioan diharduten organoei.*
18. *Beren poza AGERTZEN dute Emakumearen Defendatzaileen Sareak FIOren VIII. Biltzarrari egin dion Adierazpeneko ebazpen-proposamenengatik. Prest agertzen dira, halaber, Adierazpena –honako Deklarazioan jasoa– zabaltzeko, eta ildo beretik, haren 6. puntua kontuan hartuko da Federazioak bere Estatutuak aldatzeko eztabaidari berriro ekiten dionean.*
19. *Giza eskubideen aldekoek eta beraien erakundeek jasaten dituzten erasoak eta jazarpena GAITZESTEN dituzte, horrelako ekintzek demokrazia eta giza eskubideen eraginkortasunaren aurka jotzen baitute.*
20. *Biziki KEZKATURIK DAUDE Eskualdeko Herriaren Defendatzaileek dauzkaten aurrekontu murritzengatik, giza eskubideak bultzatzeko eta bermatzeko egiten duten lanaren kalterakoa delako, eta era berean, ahuldurik geratzen delako Estatuek onetsitako nazioarteko tresnei egin beharreko egiaztatze-lana.*
21. *BAT EGITEN dute, berriz ere, Guatemalako Giza Eskubideetarako Prokuradoretzaren lanarekin, eta ARBUIATU egiten dute haren kalterakoa den jarduera oro.*
22. *El Salvadorko Giza Eskubideetarako Prokuradorearen eta haren funtzionarioen aurkako mehatxuak GAITZESTEAZ gain, AINTZAT HARTZEN dute erakunde horrek herrialdean egiten duen lana, eta era*

*berean, BERE EGITEN dute Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak adierazitako sostengua.*

23. *BAT EGITEN dute Kolonbiako Herriaren Defendatzailearen bere herrialden egiten duen lanarekin, arrisku bizian baitago areagotu den barne gatazka armatuagatik eta giza eskubideetan gertatzen diren urratze larriengatik.*
24. *POZIK AGERTZEN dira, Txilen Herritarraren Defendatzailearen erakundea Konstituzioan txertatzeko ahaleginak indartu egin direlako, eta bide horretatik, dagokion egitasmoa aurkeztu delako eztabaidagai Diputatuen Ganberan. Nahi genuke, Federakunde honetatik, oraingo honetan asmoa gauzatu dadila, eta Iberoamerikako beste hainbat herrialderen antzera, Txilek ere giza eskubideen babeserako eta sustapenerako hain baliagarri den tresna eskura dezala.*
25. *BERRIZ ere ESKATZEN diote Dominikar Errepublikako Senatuari Herriaren Defendatzaile Nagusia izendatzeko prozesua burutu dezala.*
26. *Brasilgo Errepublika Federaleko agintariei eta Uruguaiko Ekialdeko Errepublikakoei, Iberoamerikan Ombudsmana dutenen taldean sar daitezela ESKATZEN diete, uste baitute Eskualdeko biztanleen bidezko asmoa dela, eta ezinbesteko tresna demokrazia eta Zuzenbide Estatuarentzat.*
27. *Atsekabea ADIERAZTEN dute Nazio Batuen giza eskubideetarako goi mandatari zen Sergio Viera de Melloren zorigaiztoko heriotzagatik, eta Iberoamerikako Ombudsmanen Federakundearen sostengua HELARAZTEN diote Beltrand Ramcharan mandatari-ordezkoari bere lanagatik.*
28. *Lankidetzari eusteko asmoa BERRESTEN diote Amerikako Giza Eskubideen Babeserako eta Sustapenerako Nazio Erakundeen Sareari.*
29. *ZORIONAK EMATEN dizkiote Zuzendaritza Kontseiluari, Argentinako Herriaren Defendatzaile Eduardo Mondino doktorea buru zuelarik Federazioa indartzeko egin duen lanagatik.*
30. *ESKERRONA ADIERAZTEN diote, berriz ere, Amerikako Giza Eskubideen Institutuari, FIOko Idazkaritza Tekniko bezala egiten duen lanagatik eta Ombudsman instituzioa Eskualdean bultzatzeko eta sendotzeko ahaleginengatik.*
31. *Iberoamerikako Herri Defendatzaileen Laguntzarako Eskualdeko Programa gauzatzeagatik, ESKERRAK EMATEN dizkiete Europako Batasunari eta Espainiako Nazioarteko Lankidetza Agentziari –programarako diru emaileak, berauek- eta, bereziki, Alcalá de Henaresko Unibertsitateari.*
32. *ESKERRONA ADIERAZTEN dio Panamako Errepublikako Herriaren Defendatzaile Juan Antonio Tejada Espinori FIOren VIII. Biltzarra antolatzeagatik, eta Panamako herriari, emandako abegiagatik eta harreragatik. Bestalde, ATSEGIN ZAIE erabaki hauek PANAMAKO DEKLARAZIOA izatea izen."*

Aurrekoaz gain, eta Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioaren (FIO) haritik, Panaman VII. Emakumearen Defendatzaileen Sarearen Bilera ere egin zen. Bileran ondoko testu hau hitzartu zen:

*"Emakumearen Defendatzaileen Sarea 1996an eratu zen, eta Ombudsmanek emakumearen giza eskubideen alorrean egiten duten lanaren berri elkarri emateaz gain, Sarearen helburu dira, halaber, gaian aditu diren eragileak bultzatzea eta genero-ikuspegia instituzioen jarduera eremuetan txertatzea. Hasieratik, Sareak laguntza teknikoa jaso du Amerikako Giza Eskubideen Institututik (IIDH).*

*Emakumearen eskubideak babestearen eta sustatzearen alde agertzeaz gain, FIOk Sarearen jarduera bere egiten duela adierazi du ondoko Biltzarretako ebazpenetan: Toledo (1997), Peru (1998), Tegucigalpa (1999), Mexiko (2000) eta Puerto Rico (2001). Beste horrenbeste egin du Panaman, 2003ko biltzarrean.*

*2003ko azaroaren 17tik 20ra bitartean Emakumearen Defendatzaileen Sareak zazpigarren bilera egin zuen Panaman, FIOren VIII. Biltzarraren barruan. Bileran 14 herrialdetako Ombudsmanen ordezkariek –hemezortzi guztira– hartu zuten parte: Argentina, Bolivia, Kolonbia, Costa Rica, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Panama, Peru, Puerto Rico eta Venezuela. Beste batzuetan bezala, IIDHren laguntza teknikoa izan zuten.*

*Ondoren, Sarearen Adierazpena daukazu irakurgai. Era berean, FIOren Panamako Biltzarreko Deklarazioak, 18. atalean, Sarearen Adierazpena jasotzen du, baita haren edukia zabaltzeko konpromisoa hartu ere:*

*IBEROAMERIKAKO EMAKUMEAREN DEFENDATZAILEEN SAREAREN ADIERAZPENA, VIII. IBEROAMERIKAKO OMBUDSMANEN FEDERAZIOAREN (FIO) BILTZARRARI EGINA*

*Panama, 2003ko azaroaren 19a*

*2003ko azaroaren 17tik 20ra bitartean Iberoamerikako Emakumearen Defendatzaileen Sareak bilera egin du Panaman, VIII. Iberoamerikako Ombudsbmanen Federazioaren (FIO) Urteroko Biltzarrean:*

*GOGOAN DU FIOren Biltzar Nagusira joandako Ombudsmanek Iberoamerikako Emakumearen Defendatzaileen Sare bat eratzea erabaki zuela, 1997an Toledon egindako urteroko ohiko bileran. Ombudsmanen erakundeen egituran goi mailako instituzio aditu bat txertatuz, eskualdeko emakumeen giza eskubideak defendatu eta sustatu nahi ziren. Alorrean lortutako emaitzei dagokienez, zenbait herrialdetan aurrera egin bada ere, beste batzuetan egoera lehengo bera da.*

*BADAKI FIO osatzen duten herriaren defendatzaileek lehenbailehen berrikusi beharko dituztela beren estrategiak, Iberoamerikako emakumeen giza eskubideak kinka larrian jartzen duten hainbat arrazoirengatik, besteak beste: emakumeen eskubideei erasotzen dieten etengabeko bereizkeria eta indarkeria, bereziki osasunaren, hezkuntzaren eta justiziaren alorretan, baita politikan esku hartzeko eskubideari dagokionez ere; emakume askok etxean jasaten duten bortizkeria, beren segurtasuna eta sexu askatasunaren aurka eraginda; beste lekuetatik alde egindako eta emigratutako emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria; sexuan jardutera behartutako emakumeak; indarkeria soziopolitikoaren biktima direnak; erraildako emakumeak...*

*Nazio Batuen Biztanleriarentzako Funtsak azken txostenean emandako DATUEN ARABERA, Latinoamerikako %45 biztanle pobreziaren mugaren azpian daude, eta berez, horrek ondoko adierazleek gora egitea dakar berekin: VIH/HIESa, haurdunaldi goiztiarrak eta amen heriotza-tasa, haur, nerabe, gazte zein helduetan eragin handia duten arazoak, hain zuzen.*
*ZIUR DAGO eskualdeko emakumeek –baita haurrak eta gazteak ere- beren eskubideak erabili ahal izan ditzaten beharrezkoa dela Ombudsman erakundeak sendoak izatea maila guztietan, bereziki emakumearen defendatzaileei dagokienez, horri esker eskatu egin ahalko baitiete Estatuei eta nazio zein toki gobernuei emakumeen oinarrizko beharrak beteko dituzten neurri politikoak har ditzatela, ekonomi, gizarte eta kultur alorretako eskubideak bultzatuz eta babestuz.*

*Aurreko guztiagatik, ondoko hau ERABAKI DU:*

*LEHENA. FIOren Urteroko Biltzarrari Toledoko Deklarazioan sinatu zuen eta ondoko biltzar guztietan berretsi zuen konpromisoa euts diezaiola proposatuko zaio. Han hitzartu zenaren arabera, Federazioa osatzen duten Ombudsman erakunde bakoitzean goi mailako sail espezializatu bat sortuko litzateke, emakumeen eskubideak defendatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko.*
*BIGARRENA. Eskaera formala luzatuko zaio FIOren Urteroko Biltzarrari, 2003tik aurrera Iberoamerikako Emakumearen Defendatzaileen Sarearen deklarazioak sar ditzala, oso-osorik, FIOren Urteroko Biltzarretako deklarazioei buruzko 1. eranskinean. Era berean, deklarazioak akta ofizialetan jasoko dira, eta bete beharreko konpromisoen izaera izango dute.*
*HIRUGARRENA. Bat egiten du FIOren Urteroko Biltzarrarekin sexu-heziketarako programak eta politikak zabaldu beharrari dagokionez, bai hezkuntza zentroetan eta bai gizarte osoan ere; uste du, halaber, traba guztiak desagerrarazi behar direla gizonek eta emakumeek –nerabe nahiz gazte– behar bezalako informazioa eta zerbitzuak izan ditzaten ugaltze-osasunaren alorrean, milurteko giza garapenerako helburuak bete nahi badira. Izan ere, herrialde horiek ondoren aipatzen diren agiriak sinatu dituzte: Emakumearen kontrako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena (CEDAW); Emakumearen aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Desagerrarazteko Amerikako Hitzarmena, hala nola Kairo eta Beijingeko Deklarazioak, azken horiek emakumezko haur, gazte eta helduek dituzten giza eskubideak –osoak, banaezinak eta besterenezinak– sustatzeko antolatuak.*
*LAUGARRENA. Eskaera egingo zaio FIOren Urteroko Biltzarrari, erakunde horretatik ekonomi, gizarte eta kultur alorretako eskubideak garatzeko premia helaraz diezaieten Estatuei zein haietako nazio eta toki gobernuei, eskualdeko herrietan dagoen pobrezia bereziki emakumeentzako zama latza delako, beraiek jasaten baitituzte batez ere tratu txarrak eta diskriminazioa, lanean, ekoizpen eta ekonomi baliabideak eskuratzean, osasun zerbitzuetan eta hezkuntzan. Zuzenbide zibilaren alorrean ere urratzen zaizkie eskubideak: askatasunerakoa, norberaren segurtasuna bermatzekoa eta justiziara jotzekoa.*

*BOSGARRENA. Emakumearen kontrako Bereizkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmenaren (CEDAW) Hautazko Protokoloari dagokionez, dei egiten zaie Ombudsman diren FIOko gizon-emakumeei, protokoloa oraindik berretsi ez duten Estatuei eta beren gobernuei hala egin dezatela eskatu diezaieten. Horren bitartez, eskualdeko emakumeek legezko tresna bat izango dute hitzarmenean jasotzen diren edukizko eskubideak bete daitezela exijitzeko.*
*SEIGARRENA. Eskatuko zaio FIOren Urteroko Biltzarrari Iberoamerikako Emakumearen Defendatzaileen Sarea bere kidetzat har dezala, hitz eta botorako eskubidea emanez. Horrela eginez gero, indartuta geratuko da Federazioaren parte hartzeko modu demokratiko eta integratzailea."*

## 3.4. HERRIAREN DEFENDATZAILEEI ETA ESKUBIDE KONSTITUZIONALEI BURUZKO JARDUNALDIAK

Espainiako Konstituzioaren 25. urteurrena zela eta, urriaren 27 eta 28an Enrique Múgica Herriaren Defendatzaileak Alcalá de Henaresko jardunaldiak antolatu zituen, “Herriaren Defendatzaileak eta eskubide konstituzionalak” aztertzeko asmoz.

Herriaren Defendatzaileaz eta autonomi erkidegoetakoez gain, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko herriaren defendatzaileek ere jardun zuten.

Gabriel Cisnerosek ondoko gaia jorratu zuen: “Herriaren Defendatzailea eta Espainiako Konstituzioa (figuraren sorrera eta garapenerako jarduera parlamentarioak)”.

Bestetik, Virgilio Zapatero “Giza eskubideak eta gutxiengoak” izeneko gaiaz mintzatu zen.

Jardunaldietan, Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioko Zuzendaritza Batzordeak bilera bat egin zuen bere VIII. Urteroko Biltzarra prestatzeko.

## 3.5. ARARTEKOAK BILERA EGIN ZUEN TORTURAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIETARAKO NBEko KONTALARI BEREZIAREKIN

Mertxe Agundez jarduneko arartekoak eta bere taldeak erakundearen egoitzan –Gasteizen– hartu zituzten Theo Van Boven jauna, torturarekin zerikusia duten gaietarako NBEko kontalari berezia, eta haren laguntzaileetakoren bat.

Bilera horren bidez, kontalariak informazioa lortu nahi zuen, Nazio Batuen Gizarte Eskubideetako Batzordeari aurkeztuko dion txostena paratzeko.

Arartekoak azaldu zizkioten kontuez zein iritzi duen adierazi zion NBEko kontalari bereziari, eta gai horri buruzko txostenak eta agiriak eman zizkion, interesgarriak gertatuko zitzaizkiolakoan.

# II. ATALA

## ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR, ETA TALDE BATZUEN ARAZOEI ESKAINITAKO BERARIAZKO ARRETA

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kexak ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarrizko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.377 kexak eta 2003 urtean hasi ditugun ofiziozko 116 jarduerak askotariko arazoen erakusgarri dira, eta horregatik kapitulu honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute. Beti ere gaien errepikapena saihesten saiatu gara.

Hautatutako espedienteak alorretan ordenatu dira, azpialorretan bilduta, espedientearen jatorria kontuan hartu gabe –ofizioz hasi diren ala alderdi batek eskaturik, kexa baten bidez–. Hala ere, ofiziozko espedienteak "OF" erreferentziaren bidez bereiz daitezke besteetatik.

Hautatutako espediente bakoitzean laburpena hiru zatitan egituraturik dago: erreklamazioa, azterketa eta emaitza.

Izenak berak adierazten duenez, "erreklamazioa" atalak arazoaren iturri izandako egitateen kontaketa dakar.

Azterketaren atalean, berriz, espedientea aztertzea eta ebaztea helburu duten era askotariko jarduerak azaltzen dira, bai zuzenbideari bai ikerketari dagozkionak.

Azkenik, emaitzaren atalean, jakina, Arartekoaren esku-hartzearen azken emaitzaren berri ematen da.

Bestalde, nabarmendu behar da gaikako banaketa baten arabera egiten dela alorren ohiko egituraketa. Banaketa horrek osatu behar du Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoen berariazko tratamendu batek.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, txosten honetan haien arazoen berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharrizanei beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi dituzte.

Hala, bada, bost alor sortu dira eta aholkularien artean arduradun bana aukeratu da alor bakoitzeko, talde horiei begira erakundearen jarduerak planifikatu, sustatu eta ordena ditzaten.

Txosten honetan, II. atal honen bigarren zati gisa, bost multzotan bildu dira talde jakin batzuen alde burutu diren jarduerak. Horrela, berariazko arreta eman zaie talde hauen arazoei:

- emakumeak
- adinekoak
- adin txikikoak
- atzerritarrak
- ezgaitasunen bat duten pertsonak

## A) ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERARIK GARRANTZITSUENETAKO BATZUK ALORREZ ALOR

# 1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

## 1.1. SARRERA

Arartekoak, 2003an zehar, guztira 19 kexa espediente aztertu ditu, nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza edo oinarrizko alorreko, industria edo bigarrendar alorreko eta zerbitzu edo hirugarrendar alorreko berariazko auziak azaltzen zirenekoak. Erreklamazio horiek erakundeak ekitaldi honetan burututako jarduerеtatik % 1,78 izan dira.

Sailkatzeko hartzen den irizpidearen arabera, ukitutako administrazioa ala erreklamazioaren azpian dagoen arazo zehatza kontuan hartuz ordena daitezke.

Bideratu diren espedienteetan zerikusirik izan duten administrazioei adituz, kexak honakoei eragin diete:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 10 |
| - Foru administrazioa | 7 |
| - Tokiko administrazioa | 2 |

Bestalde, kexetan zer jarduera alor eta zer-nolako arazoak aipatzen diren kontuan izaten badugu, honako azpiataletan egituratzen dira:

| | |
|---|---|
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 7 |
| - Industria | 4 |
| - Nekazaritza, abelazkuntza, arrantza | 2 |
| - Kontsumoa | 2 |
| - Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna | 2 |
| - Merkataritza | 1 |
| - Bestelakoak | 1 |

Iazko txostenean Gipuzkoako Foru Aldundiko orduko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak 2001-2002ko ehiza denboraldian garatutako jarduerak kexa desberdinak eragin zituela agerrarazi genuen, batez ere, baimen eskariak ukatzeko ohiko teknika modura administrazioaren isiltasuna erabiltzearekin eta legezkotasun printzipioaren urraketarekin zerikusia zutenak. Horregatik sail horri bi gomendio helarazi genizkion, hurrengo ehiza denboraldietan kexak eragin zituzten egitateen antzekorik berriro gerta zedin ekiditeko.

Foru Sailak bi gomendioak formalki behintzat onartu zituen arren, bete ez zituen hurrengo denboraldian ere bete, eta 2003-2004 azkeneko denboraldi honetan ere ez ditu bete. Gainera, gomendio horiek betetzen diren ala ez jakiteko egin dugun jarraipenean egiaztatu ahal izan dugunez, administrazioaren isiltasunak, sarritan, ehiza baimenak ukatzeko edo horien aurkako errekurtsoak ezesteko erabiltzen den formula izaten jarraitzen du.

Ehiza koadrilla batek, foru sail horrek koadrillari ehiza egiteko emana zion baimena lehenengo indarrik gabe laga zielako eta, ondoren, aldatu zielako aurkeztu zigun kexan ere legezkotasunari jaramonik egiten ez zaiola ikusten da.

Printzipio horren urraketa jaso ditugun beste kexa batzuetan ere planteatu da, hala nola, foru sail horrek ehiza postu bat jartzeko baimena eman zuen lurzoru bateko jabekideek aurkeztu diguten kexan, zeren, beraiek ziotenez, baimena beraiek aurka zeudela espresuki adierazi arren eman baitzen. Kexa honetan, halaber, administrazioaren isiltasuna izan da erreklamaziogileek foru erakundeari baimen hori indarrik gabe lagatzeko zuzendu dizkioten eskari guztiek jaso dituen erantzun bakarra.

Hemen aipatutako gai batzuei nola esku hartu dugun xehetasunak jarraian ageri den aukeratutako kexen sortan aurkituko duzue.

Nabarmendu behar dugu, batetik, sail honek kexak ebazten laguntzeko gure eskariei erantzuten ikaragarri atzeratu dela, baita, askotan, eskatutako informazioak ez zuela eman digutenarekin zerikusi handirik ere.

Arartekoarenean tramitatu diren industria gaietako kexak ez dira, berez, Euskal Autonomia Erkidegoko industria jardueraren ariketa berera bideratu, alborago geratzen diren kontuetara baizik, halakoek eragin ohi baitiete zuzenago euskal herritarrei. Hartara, Arartekoak bere iritzia eman dezan erako Europar Batasunetik datozen ibilgailuen matrikulazioari jarritako murrizketak aurkeztu dira. Oztopo horiek, hasieran behintzat, batasunaren esparruan merkantzia eta ondasunen zirkulazio librearen aurkakoak dira; alabaina, batzuetan badute izateko arrazoirik, matrikulaziorako murrizketak segurtasun zioetan oinarritzen badira. Hori da, esaterako, furgoneta Erresuma Batuan erosi eta, behin Euskal Herrian, matrikulatzerik ez zeukan bikotearen kasua.

1994ra arte, bolantea eskuinetara zeukaten ibilgailuak matrikulatzea beti ukatu izan da. Baina 1994an, Industria eta Energia Ministerioko Industria Kalitate eta Segurtasun gaietarako Zuzendari Nagusiaren 1994ko urriaren 25eko zirkular baten ondoren, halako ibilgailuak matrikulatzea onartu zen, betiere turismoak izatekotan, eta aurretiaz hainbat segurtasun baldintza beteta: kanpoan atzerako bi ispilu eta aurreko optiko moldatuak jartzea...

Erreklamaziogileen ibilgailua segurtasun elementu egokirik erantsi ezin zitzaizkion furgoneta bat zenez, ezin zuen ibilgailuen ikuskaritza teknikorik (ITV delakoa) gainditu. Kasu honetan, informazio urria eman ziotela antzeman genuen, zeren ibilgailua behin betiko ekartzeko paper guztiak amaitu ondoren, murrizketa hori zegoela planteatu baitzen.

Era berean, gas instalazio partikularrak ere kexagai izan dira Arartekoarenean, albokoentzat gogaikarriak direlako. Kexa hau hurrengo epigrafean jaso ditugun aukeratutako kexen sortan laburbildu dugu.

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak kontsumo gaiei buruzko beren erreklamazioei ematen dizkien ebazpenetatik herritarrengan sortzen diren desadostasunen ondorioz jartzen diren kexen kopuruak beheraka jarraitzen du. Alabaina, erreklamaziogileek kontsumo epaitzearen gainean eta epaile horien erabakiek ekartzen dituzten ondoreen gainean duten ezjakintasuna azpimarratu behar dugula uste dugu. Horregatik, sailak jendea halakoen jakitun egoteko hedapen ekinaldiren bat egitea ondo legokeela uste dugu.

Azkenik, arlo honi ukitzen dioten kexetan, partikularrek euskal administrazio publikoen ebazpenen mamia zein jarduerarako prozedura zalantzan jartzen dute.

## 1.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza**

⇒ *Legezkotasun printzipioaren urraketa Gipuzkoako lurraldean ehiza baimenak ematean* (627/2001)

• Erreklamazioa

Bizkaiko lurraldeko ehiza koadrilla batek esku hartzeko eskatu zigun, 2001eko irailean, Gipuzkoan 2001-2002ko ehiza denboraldia hastear zegoenez –hurrengo urriaren 12rako aurreikusita zegoen–, lurralde horretako Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Sailak ez zielako artean aurreko abuztuan ehiza araubidez erkideak ziren lurretan basurde ehizan aritzeko luzatu zioten baimen eskariri ezer erantzun.

Koadrillak, bere kexan, zioen ez zela sail horrek halako eskari bat erantzun gabe uzten zuen lehenengo aldia. Gauza bera gertatu zitzaien 1997-98 eta 2000-01 denboraldietan egin zizkioten eskariekin ere. Antza, eskari haiek ez ziren espresuki ebatzi, 1998-99 denboraldiari zegokion baimen ukapenaren aurka jarritako administrazio errekurtsoa, eta 2000-01ean ehizan aritzeko eskatutako baimenaren ustezko ezespenaren aurka jarritakoa ere espresuki ebatzi gabe geratu ziren bezala.

• Azterketa

Nekazaritza eta Ingurumen Sailak kexaren gainean bidali zigun informazioa aztertzean sail hark, sistematikoki, koadrilla honek bidalitako eskari desberdinei isiltasunaz erantzun ohi ziela jakin ahal izan genuen.

Baina, errealitate horrekin batera, foru erakundeak, koadrilla horrek 2000-2001ean ehizan aritzeko egindako eskaria azkenean ezetsiz ebatzi zuenean -2001-02 denboraldia hasi bezperan- aplikatzekoa zen araubide juridikoa (funtsean Ehizaren gaineko apirilaren 4ko 1/1970 Legean, martxoaren 25eko 506/1971 Dekretuaren bidez onetsitako lege hori betearazteko Arautegian, eta debekuen gaineko 2001eko ekainaren 15eko Foru Aginduan, non denboraldi hartarako baldintza orokorrak finkatzen ziren) ere urratu zuela jabetu ginen, zeren arau horietako batek ere ez baitzion sailari interesatuen eskaria ebatzi zuen bezala ebazteko aukerarik ematen. Eta hori, ukapenaren ebazpenean koadrilla erreklamaziogileak ehizan aritu nahi zuen eremuan, basurdeen poblazioaren egoerari adituz, jada nahikoa koadrilla arituko zelako ukatzen zitzaiela argudiatu zuten, baina Ehiza Legeak, bere Arautegiak eta denboraldi horretako debekuen Foru Aginduak berak ez zuten, ordea, baimenen kopurua mugatzeko gaitasunik ematen, ez eta aurreko ekinaldietan ehizan jardundako inori inolako lehentasunik emateko ere.

Gure ustez, debekuen Agindua aplikatzean muga eta irizpide horiek sartzea legezkotasunaren printzipioaren aurka zihoan (E.K.ko 9.3 eta 103.1 artikuluak) eta, ehizan aritzeko eskubidea legez nola eratuta dagoen adituz, eskubide hori berariazko zein baldintzatan garatu behar zen –espezien iraupena bermatzera zuzendatutakoak barne- debekuen Aginduan bertan aurresan behar zen.

Bestalde, ohartu ginen koadrilla erreklamaziogilearen eskaria ebazteko kontuan hartu ziren irizpideak ez zetozela Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Sailak oro har erabili zituztela esan zizkigunekin bat. Alabaina, irizpide orokor horiek ere aztertu

genituen, eta behar bezain argi eta zehatz formulatu ez zirela iritzi genion, horrek, azken batean, interpretazio ugari egiteko aukera ematen baitzuen, segurtasun juridikoaren printzipioarekin inola ere bateratzerik ez dagoen modura.

Azkenean, Gipuzkoako lurraldeko basurde ehiztarien koadrillek eta lurralde horretako Ehiza Federazioak ere, izatez, ehizarako baimenak emateko prozeduran eginkizun garrantzitsua betetzen zutela jakin genuen, araudizko inolako babesik gabe, eta jarduera hori, gainera, interesa daukazun administrazio prozeduretan esku hartu behar ez duzulako printzipioaren aurkakoa izan zitekeen [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28.2.a) artikulua].

• Emaitza

Egindako azterketaren ondorioz, eta kexak hizpide zuen ehiza denboraldia bukatuta zegoenez, Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Sailari, zeneko ehiza denboraldia hasi baino lehen, ehizan aritzeko baimen eskariak eta baimen horien ukapenen aurka bideratutako balizko errekurtsoak espresuki ebatzi eta interesatuei jakinarazi ahal izan zitezen mekanismoak jartzeko gomendatu genion. Gomendatu genion, halaber, ehiza debekuen gaineko Foru Aginduan ez zitzan ehiza eskubidearen inolako murrizketarik sartu, ez eta arautegiz behar duten babesik ez duten prozedurazko erabakirik ere.

Sailak gomendioak formalki onartu zituen, eta hurrengo 2002-2003ko denboraldirako debekuen Aginduan bi gomendioen edukia beteko zuen arauketa berria sartuko zutela esan ziguten. Hala ere, denboraldi horretan ere ez zituzten gure gomendioak.

Aurtengo debekuen Aginduak, egiaz, baimen eskariak ebazteko gehienezko epe bat jarri zuen; baina epe hori ez zen erreklamaziogileen kasuan bete, berriro ere denboraldia ia hastear zegoen arte itxaron behar izan baituzten baimena ukatu zietena jakiteko eta, berriro ere, isiltasuna izan baitzen ukapen erabakiaren aurka jarri zuten errekurtsoan jaso zuten erantzuna.

Denboraldi honetako debekuen Aginduak ehiza eskubideari zenbait murrizketa sartu zizkion, eta baimenak emateko irizpide orokor batzuk ezarri zituen. Baina, horiek guztiak, gure ustez, gomendioan egindako gogoetei jaramonik egin gabe egin zituzten, zeren arauketa berria ere ikaragarri nahasgarria baitzen eta interpretazio zalantza ugari sortzen baitzuen, finkatutako irizpideak lehentasun irizpideak soilik, koadrillek nolanahi ere bete beharreko baldintzak ziren, ala bi helburu horiek batera zituzten ziur zehazterik ez izateraino; ez zen-eta eman litekeen baimen kopurua zenbakiz zehaztez, ez zen-eta baimenak mugatuta zeudenik ere espresuki adierazten. Gainera, finkatutako irizpide horiek Gipuzkoako lurraldeko ehiza koadrillek soilik bete zitzaketela iruditu zitzaigun, eta irizpide horiek, ematen zuenez, nolanahi ere betebeharreko baldintzak baziren, eta ez lehentasunezko irizpide hutsak, ehizan aritzeko eskubide libreari muga bat sartzen ari zitzaizkiola, muga hori espresuki eta eskubide baten hain muga garrantzitsuari zegozkion ziurtasun eta argitasun mailarekin ez formulatzeaz gain, beste lurralde batzuetako koadrillak –kexagilea, esaterako– ezinbestean baztertzea baitzekarren, foru erakundeak bazterketa hori behar bezala justifikatu gabe.

Koadrilla erreklamaziogilearen kasu zehatzari zegokionez, ehizan aritzeko bere eskariaren ukapena, aurten ere, debekuen Aginduak oro har finkatutako bestelako irizpide batzuetan oinarritu zen.

Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Sailari gaiaren gaineko gure balorazioa helarazi genion, beraiek birpentsatu eta jarrera aldatu ezik, bi gomendioak bete ez zituztela ulertuko genukeela esanez. Erantzunean, foru erakundeak ez zion guk planteatutako galdera bati ere erantzun, heldu ere ez zien egin. Horrekin batera, hurrengo denboraldian, 2003-2004koan aurreko denboraldiko debeku Aginduak finkatutako baldintzak hitzez hitz errepikatu zituztela ikustenan, geure burua gai hartako gure esku hartzea amaitutzat jotzera behartuta ikusi genuen, sailak gure gomendioak bete ez zituela ondorioztatuz.

⇒ *Gipuzkoako lurraldean ehiza baimen bat kentzea legezko betekizunak errespetatu gabe* (781/2002)

• Erreklamazioa

Ehiza koadrilla batek esku hartzeko eskatu zigun, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Sailak 2001-2002 denboraldian denboraldi horretako emana zien ehiza baimena indarrik gabe laga zielako eta, geroago, ehiza denboraldia amaitzear zegoela, hasieran esleitutako eremua murrizten zien beste baimen bat eman zielako. Neurri horiek, erreklamaziogileek kontatzen zigutenez, beraien eta eremu berean aritzeko baimena zuen beste koadrilla baten artean zeuden tirabiren ondorioz koadrillaren zakur bat alde hartan hilik agertu zelako hartu ziren. Beraien iritziz, neurri horiekin beste koadrillari mesede egin besterik ez zen nahi, besteei ez baitzieten baimena inoiz eta ezertan ere aldatu.

• Azterketa

Nekazaritza eta Ingurumen Sailak hasieran koadrilla erreklamaziogilearen baimena badaezpada eten eta, gerora, ehiza eremua murriztu zietela baietsi ziguten. Era berean, auzitan zegoen beste koadrillari zegokionez inolako neurririk hartu ez zutela ere baietsi ziguten.

Sailak bere jarduera justifikatzeko, koadrilla erreklamaziogileak, esleituta zeukan ehiza eremuaren banaketarako, auzitan zegoen beste koadrillarekin eta beste hirugarren batekin itundutako akordioari jaramonik egin ez ziola argudiatu zuen, bigarren koadrillak bai bete zuen bitartean. Eman ziguten informaziotik ondorioztatu genuenez, erabakia ez zen, ordea, koadrilla erreklamaziogileari jakinarazi, ez eta ofizialki argitaratu ere; ez zen, halaber, eman zitzaien baimenean islatu.

Foru erakundeak eman zigun informazioak, bestalde, baimenaren murrizketa inolako legezkotasun bizioren ondorio izan ez zela, eta badaezpadako neurria eta ondorengo baimen aldarazpena egiteko ez ziotela inongo prozedurari jarraitu adierazten zuen.

Hori guztia ikusita, baimiena azaroaren 26ko 30/92 Legeak (102 art. eta hurrengoak), eskubideen adierazpen egitate bat eten edo berrikusteko ezartzen dituen prozedurazko betekizun bat ere bete gabe aldarazi zela iruditu zitzaigun. Era berean, kasu hartan lege horrek berak xede bererako eskatzen dituen aurreuste materialak ere betetzen ez zirela iritzi genion.

Ehiza baimenak emateko prozeduran interesa zuten hainbat koadrillak parte hartzeari zegokionez, hori Aldundiak bere jarduera zuritzeko emandako azalpenean

agerian geratu baitzen, 2002ko 21 eta 22 gomendioetan (627/2001/19 espedientea) kontu horren gainean esaten zena aplikatu beharko litzatekeela iruditu zitzaigun.

• Emaitza

Kexaren gaineko gure balorazioa helarazi genion Aldundiari, bere iritzia bidal ziezagun eskatuz. Handik gutxira, koadrilla erreklamaziogileak idatzi bat aurkeztu zigun –Aldundiak berak hala egiteko esan zielako, jakinarazi zigutenez–, gure jarduera eten genezan eskatuz. Hala egin genuen, interesatuaren eskaria betetzeko.

## B) **Merkataritza**

⇒ *Piroteknia produktuen salmenta ibiltariaren debekuaren gainean* (744/2003)

• Erreklamazioa

Ama batek Arartekoarengana jo zuen, Gipuzkoako herri bateko jaietan haurrei saltoki ibiltarietan petardoak saldu zizkietelako kexuka.

• Azterketa

Salmenta ibiltariaren alorreko indarreko legediaren arabera, udalek merkataritza jardueraren higiene, osasun, segurtasun eta antolamendu arauak betearazi behar dituzte, baita urraketa arin eta larriak kontrolatu eta zehatu ere, beste administrazio publiko batzuei emandako eskumenen kalterik gabe (Merkataritza Jardueraren gaineko maiatzaren 27ko 7/1994 legearen 19. artikulua).

Era berean, Lehergailuen Arautegiak (otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsia, 1998-03-12ko 61. BOE) eta, zehazkiago, I*, II eta III. motetako piroteknia artifizioen salmenta eta saltokien gaineko Arauen* gaineko 19. Jarraibide Tekniko Osagarriak halako piroteknia artifizioen salmenta ibiltaria espresuki debekatzen du. Argitu behar da I, II eta III motetako piroteknia artifizioak oro har jende guztiak erabili ditzakeen bakarrak direla.

Hara zer dioen, zehazki, 19. Jarraibide Tekniko Osagarriak, saltokiak aipatzen dituenean:

> *"I, II eta III. motetako piroteknia artifizioen txikizkako salmenta saltoki iraunkorretan eta kalean edo jabetza pribatuko lurretan jarritako etxoletan egin ahalko da. Espresuki debekatzen da saltoki ibiltarietan saltzea…"*

• Emaitza

Udal agintariek beren esku jartzen diren eginkizunen garrantzia eta oihartzuna gogoan izan zezaten borondatearekin, Arartekoak ofizio bat bidali zuen, non, batetik, gai hori arautzen duen legedia zein zen eta, bestetik, gure lege antolamenduak interes horien babesa tokiko erakundeei eman ziela gogorarazten baitzen.

Bere erantzunean, ukitutako Udalak esan zigun petardoen salmenta ibiltaria debekatua zuela herrian eta, nolanahi ere, etorkizunean piroteknia produkturik sal zedin eragozteko neurriak hartuko zituztela.

## C) **Industria**

⇒ *Administrazio publikoen kontrola gas galdara partikular bat jartzeko orduan* (816/2003)

• Erreklamazioa

Herritar batek auzoko baten etxetik gas galdararen errekuntzatik zetozen gasen irteera jartzeak berari eragiten zizkion traben berri eman zigun, gaia azter genezan.

• Azterketa

Gaiak eragin bikoitza zeukan, batetik, auzoko horren gasaren instalazioa Jabeen Batzarraren beharrezko baimenik gabe egin zuelako eta, bestetik, halako obretarako Udalaren lizentzia behar delako.

Auzokideen erkidegoan adostasunik ez zegoenez, erreklamaziogileak, jabe izanik, egitatea Batzarrean salatzea zeukan, Batzarrak jo zezan, bere interesen defentsan, jabekidearen aurka, aurretiazko akordioaren ondoren, ke irteerak eragiten zituen kalteak ezabatzeko neurri zuzentzaileak hartu edo, bestela, tximinia ken zezan eskatuz.

Halaber, instalazio horiek Udaletik dagokien hirigintza lizentzia behar dutela kontuan izan behar genuen. Lizentzia hori araututa dagoen adminstrazio egintza da, obra baimenduta dagoen ala udalerriko hirigintza arauekin edo lurraren legearekin bateragarria den egiaztu besterik egiten ez duena. Behar zuen lizentziarik eduki ezean, Udalak instalazioa legeztatzeko tramitea hasi behar zuen eta, horretarako, higiezinaren titularrari, hau da, jabeen erkidegoari, egindako obren proiektua aurkezteko eskatu behar zion.

Esku artean daukagun kasu honetan, tokiko erakunde horrek, hirigintzako legezkotasunezko espedientea tramitatu ondoren, gas irteera hura legeztatzeko modukoa zela ebatzi zuen.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak –bera baita instalazioaren egokitasuna egiaztatu eta segurtasunari eta osasunari zertan eta nola eragin liezaiekeen ikuskatzea dagokiona– gas instalazioa eta irtengunearen arrasetik gorako hustuketa bidearen amaierak aurreikusitako segurtasun eta osasungarritasuneko gutxieneko baldintza teknikoak betetzen zituela iritzi zion.

• Emaitza

Indarreko arautegia betetzen zuenez, erreklamaziogileari bere jabe erkidegoan egin zezakeenaren berri eman zitzaion.

# 2. GIZARTE ONGIZATEA

## 2.1. SARRERA

Arlo honetan 157 kexa jaso dira; horrela, eragindako administrazioen araberako sailkapena eginda, kexa horiek ondokoak izan dira:

| | |
|---|---|
| - Foru administrazioa | 44 |
| - Tokiko administrazioa | 32 |
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 14 |

Azpiarloen araberako sailkapena eginik, banaketa ondoko hauxe da

| | |
|---|---|
| - Pertsona nagusiei zuzendutako laguntza | 79 |
| - Eduki ekonomikoko gizarte prestazioak | 39 |
| - Ume eta nerabeei zuzendutako laguntza | 11 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 10 |
| - Familiei zuzendutako laguntza | 9 |
| - Bestelakoak | 5 |
| - Pertsona ezgaituei zuzendutako laguntza | 3 |
| - Emakumeei zuzendutako laguntza | 1 |

Aurten, aurreko urteetan gertatu denaz bestaldera, ez dira bisitatu pertsona nagusiei laguntzeko zentroak –zahar-etxeak eta eguneko zentroak–, aurreko urteetako aparteko txostenenetan egindako gomendioei jarraituz. Horren arrazoia izan da 2003. urtean zentro mota biei dagozkien txostenak gaurkotzeko lanari ekin zaiola; izan ere, horiek egin zirenetik –1994 eta 1995. urteak–, kontuan hartu beharreko aldaketa garrantzitsuak izan dira.

Ofizioz hainbat gizarte prestazio eskuratzeko adin mugari buruzko hiru jarduketari ekin diogu, betiere laguntza horren premiaren iraunkortasuna kontuan hartu gabe. Izan ere, Arabako taxi-bonuaren zerbitzua eta Araban zein Bizkaian pertsona ezinduei banan-banan ematen zaizkien prestazioak aipatzen gabiltza.

Taxi-bonuari dagokionez, Arabako Foru Aldundiari azaldu zaio laguntza eskuratzeko beharkizun modura 65 urteko adin muga egoteak muga hori gainditu baina laguntza jasotzeko benetako beharrizana eta premia duten pertsona asko baztertzen dituela. Gai hori zehatzago agertzen da arlo honetan jasotako kexa baten laburpenean.

Taxi-bonuaren prestazio horrek desberdintasunak eta aldeak ditu hiru lurralde historikoetan:

Araban, Foru Aldundiak lankidetza hitzarmenak sinatuta ditu hainbat udalerrirekin (Vitoria-Gasteiz, Laudio, Amurrio, Arrazua-Ubarrundia eta Aguraingo Koadrila). Beraz, zerbitzua ez da lurralde osoan eskaintzen. Finantzazioa foru erakundearen eta udal horien artekoa da. Adinari dagokionez, udalerri guztietan eskatzen da 12 urtetik gorakoa izatea. Gainera, Laudion eta Vitoria-Gasteizen 65 urtetik gora ez izatea eskatzen da. Kontuan hartu beharra dago bi udalerri hauetan Arabako biztanle guztien % 93 biltzen direla. Vitoria-Gasteizen, taxi-bonua 70 urtera arte luza daiteke, baina kasu zehatz batzuetan besterik ez.

Gipuzkoan, Foru Aldundiaren programa bat dago, mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonek taxia erabil dezaten. Lurralde osoan dago abian eta baldintza bakarra da 12 urtetik gorakoa izatea. Hortaz, beharkizunak betetzen dituzten pertsona nagusiek taxi-bonuaren zerbitzua eskura dezakete arazorik gabe. Programa hori urriaren 1eko 55/2002 Foru Dekretuaren bitartez araututa dago.

Bizkaiaren kasuan, jarduketa bati ekingo diogu ofizioz, Foru Aldundiak taxi-bonuaren bitartez lagunduak diren pertsonen premiei aurre egiteko duen moduaren berri izateko.

Foru aldundiek pertsona ezinduei eskaintzen dieten beste laguntza mota bat banan-banako prestazioak dira, ezintasun horren eraginak leuntzeko hainbat elementu eskura ditzaten, modu horretara gizarte integrazioa bultzatuz.

Eremu honetako prestazioak modu desberdinetan bideratzen dira hiru lurralde historikoetan. Araban eta Bizkaian 65 urteko adin muga ezarrita dago (martxoaren 10eko 17/1998 Foru Dekretua eta martxoaren 25eko 66/2003 Foru Dekretua, hurrenez hurren). Araban pertsona nagusientzako hainbat laguntza tekniko estaltzeko ahaleginak egin dira, baina ez dago arautegi zehatzik. Gipuzkoan, ordea, ez dago horrelako adin mugarik deialdi orokorrean (maiatzaren 2ko 38/2001 Foru Dekretua); hori dela eta, adin horretatik gorako pertsonek laguntzak eskura ditzakete, oso kasu zehatzetan izan ezik.

Laguntza mota hauetan adin muga hori ezartzeak pertsona nagusi askoren ongizatea ageriko moduan baldintzatzen duela uste dugu, laguntza teknikoek eta bestelako elementuek bizi kalitatea hobetzeaz gainera, kasu askotan etxean geratzeko aukera handiagoak ematen dituzte. Betaurrekoak, audifonoak, ohe artikulatuak, garabiak, etxea egokitzeko obrak (hala nola bainugela) eta abar eskuratzeko laguntzak dira. Horiek guztiak elementu garrantzitsuak dira 65 urtetik gorako pertsona askorentzat ere.

Araba eta Bizkaiko aldundiekin ildo honi jarraituz hasitako jarduketak oraindik ere ez dira amaitu.

Aipatu nahi dugun beste gai bat zera da, atzerapen mental edota gaixotasun mentalen ondorioz sortutako portaera arazoak dituzten pertsonei laguntzeko zentroen ezaugarriena, hain zuzen. Arazo hau adin txikikoei harrera egiteko zentroetan dago, bai eta adin nagusikoei laguntza emateko zentroetan nahiz ezintasunak dituzten pertsonentzako egoitzetan ere. Arazo honek hutsuneak ditu eta, horregatik, ez dauka erantzun zehatzik.

Bi kasu mota hauek Bizkaian azaldu dira, eta, hortaz, Foru Aldundira jo dugu. Halaber, antzekotasun handiak dituen beste kasu bat azaldu da Araban. Azken kasu honetan, iradoki dugu gaia beharrezko gizarte eta osasun batzordean eztabaidatzea. Egoera hori zehatzago aipatu dugu arlo honetako 883/2002 espedientean.

Legez aintzatetsitako eskubideen zaintza eta bermeekin zerikusia duen beste gai bat administrazio espedienteak izapidetzeko modua da, batez ere jadanik aintzatetsitako prestazioak bertan behera uzteari buruzkoa denean. Kasu hauetan, funtsezkoa izaten da mota honetako edozein prozeduraren fase arruntak errespetatzea, hala nola pertsona interesatuari espedientea zabaldu dela jakinaraztea eta espedientea eragin duten arrazoien berri ematea, urratutzat ematen diren manuak, defentsarako alegazioak egiteko aukera, ebazpena modu egokian arrazoitzea eta abar.

Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundia ukitzen duten hainbat kasu jaso ditugu, oinarrizko errentarekin eta zergarik gabeko pentsioekin zerikusia dutenak. Beste bat

Vitoria-Gasteizko Udalari dagokio, betiere gizarte beharrizan larrietarako laguntzekin (GBLL) zerikusia duena. Horiek guztiak tramitatzen ari dira une honetan.

Ezin ditugu alde batera utzi gizarte beharrizan larrietarako azken laguntza horien onuradunak diren hainbat pertsonak aurkeztu duten kexak. Pertsona horien beharrizanak estaltzeko baliabide falta agerian geratu da Vitoria-Gasteizen, udalak laguntzen zenbatekoa murrizteko hartutako erabakiaren ondorioz, bai eta laguntza hori 2003ko urriaren 31tik aurrera eskatu duten pertsonek jasotzeko ezarritako mugaren ondorioz ere. Murrizketa hori argudiatzeko arrazoia beharrizan horiei guztiei orain arteko moduan erantzuteko baliabide falta izan da.

Egoera honek ekarri zuen gizarte beharrizan larrietarako laguntza jasotzen ari ziren pertsona batzuen kopurua murriztuko zela eta beste batzuek ezin izango zutela laguntza eskatu, gizarte bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 31.2 b) artikuluan eta gizarte beharrizan larrietarako laguntzak arautzen dituen 199/1999 Dekretuaren 14.2. artikuluan ezarritakoez bestaldeko arrazoiak direla eta.

Gizarte beharrizan larrietarako laguntza gizarte bazterkeriaren aurkako legeak arautzen dituen prestazioetariko bat da eta autonomia erkidegoko aurrekontu orokorrek ezartzen dituzten baliabideek zeregin garrantzitsua betetzen dute udalek laguntzak aintzatetsi eta geroago zehatz ditzaten. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzara eta Vitoria-Gasteizko Udalera jo dugu, GBLLek zuzenean ukituriko erakundeak direnez gero. Horren ondoren, Arabako Foru Aldundiari ere argibideak eskatu dizkiogu, laguntza horiek zuzkitzeko egiten ari zen ekarpena berrituko zuela iragartzean. Espedienteak tramitatzen ari dira une honetan.

Vitoria-Gasteizen GBLLen inguruan sortutako arazo honi dagokionez, beste espediente bati ekin diogu ofizioz; izan ere, pertsona askok 2004an arazoak izango dituzte GBLLak hiri horretan berriro ere eskatzeko, egoitza eta aldez aurretiko erroldatze epea egiaztatzeko zailtasunagatik.

Prestazio honen kopuruan izandako murrizketaren ondorioz, pertsona askok euren alojamendua utzi behar izan dute (pentsioak, pisuak eta abar), ezin izan dutelako ordaindu. Horrekin batera, erroldan baxa hartu behar izan dute. Pertsona horiek gizarte beharrizan larrietarako laguntza ostera ere eskatu behar dutenean, 2004ko urtarrilean, ezin izango dute erroldatzea egiaztatu, ez eta eskatutako diru-laguntzaren bitartez eskuratzea espero duten alojamenduaren helbidea ere. Ofizioz ekin diogun jarduketaren bitartez, Arartekoren erakundeak jakin nahi izan du Vitoria-Gasteizko Udalak nolatan konponduko duen modu negatiboan ukitutako pertsona hauen arazoa.

Beste gai bati oratuz, aurreko urteko txostenaren arlo honetako sarreran aipatu genuen Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien eta euskal udalerrien elkartearen (Eudel) artean gizarte eta osasun laguntzarako lortutako akordioa. Orduan zehaztu genuen garapen agiria artean ere sinatzeko zegoela. 2003ko urtarrilaren 30ean beste aurrerapauso bat eman zen, erakundeen arteko lankidetza hitzarmena sinatu zenean, gure autonomia erkidegoko gizarte eta osasun laguntza garatzeko asmoz. Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren apirilaren 1eko Aldizkarian argitaratu zen.

Aurreko urtean ere 49 udalekin ofizioz aurrera eramandako jarduketak aipatu genituen, betiere jaiegunetan, asteburuetan eta oporrengatik edo bestelako arrazoiengatik langile falta izaten zenean etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioari (EELZ) zegokionez. Udalik gehienei banan-banako iradokizunak helarazi dizkiegu, zerbitzu honen prestazioa hobetzen laguntzeko hainbat alderdiri dagokionez. Gai hau zehatzago aztertuta dago I. kapituluan.

Zerbitzua denaz bezainbatean, udalerri batzuetan EELZak eskuratzeko dagoen itxaron zerrenda luzea ikusi dugu. Horren arrazoi modura eskaintza guztiei erantzuna emateko dauden aurrekontu arazoak aipatzen dira. Gure iritziz, egoera hori kezkagarria da, baldin eta EELZek oinarrizko baliabide modura duten garrantzia kontuan hartzen badugu; izan ere, zerbitzuaren jardunbide egokiak pertsona erabiltzaileei ongizatea eskaintzen die eta, gainera, espezialitate eta trinkotasun handiagoko zerbitzuak aritzea lortzen du, besteak beste.

Azkenik, gogorarazi beharra dago pertsona nagusiei funtsezko bi eskubideen arteko oreka bilatu behar izan duten zahar-etxeetan laguntzeko sortu diren arazoak: batetik, pertsona langileek grebarako duten eskubidea; eta, bestetik, zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideak.

Eguneko zentroei eragin zien greban, eskubideen arteko orekari eusteko zailtasunari beste arazo bat gehitu zitzaion: zentro horietan ematen diren zerbitzuak funtsezkoak diren ala ez ezartzea, horrek zehazten duelako ea gutxieneko zerbitzurik jarri behar den ala ez.

## 2.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK

### A) Babes berezia behar duten taldeei zuzendutako laguntza

⇒ *Hontza Zentroa: larrialdi eta babes zentroa, gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden droga ilegalen kontsumitzaileentzakoa* (925/2001; 22/2002OF; 23/2002OF)

• Erreklamazioa

Bizkaiko Caritasek Zamakolan kudeatzen duen gaueko babes zentroa, hasieran Zamakola aldean egokitutako lokal batean zegoena, arazo eta gorabehera ugarien zurrunbiloaren erdian egon zen. Obrak bukatutakoan, zentroa lanean hasi zen 2001eko uztailaren 4an. Auzokoen protestak kontuan harturik, ireki eta egun batzuetara zentroa ixtea erabaki zen, elkarren kontrako iritziak adostu nahian. Geroago, auziari lotuta zeuden bi alderdik (apezpikutza eta alkatetza) elkar harturik, eta artean auzoko talde bat aurka zegoela, zentroa berriro ireki zen abenduan, eta 2002.urtean lanean jardun zuen, poliziak babesturik. Sarritan, hedabideek arazoen berri eman izan zuten.

Alde desberdinen eskariz, 2001ean Arartekoak esku hartu zuen. Izan ere, Zamakola 9ko auzo-elkartearen erreklamazioaz gain, Caritasen esku hartzeko eskaria iritsi zitzaion, eta Bilbao La Vieja, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinadorak ere bere kezka azaldu zion erakundeari. Lehenengo erreklamaziogileek zentroa itxi zezatela eskatzen zuten, auzoari arazoak eta kalteak ekarriko zizkiolakoan; beste biek, ordea, Arartekoaren esku-hartzea edo bitartekaritza lana eskatzen zuten zentroak bere lana era egokian egin ahal izateko.

2002an erakundeak ofizioz esku hartu zuen, hedabideetan plazaratutako zenbait berri zirela eta. Halaber, ordurako Arartekoak bisita bat egina zuen zentrora, bertatik ezagutu nahi baitzituen hango arazoak, erabilpen datuak eta etorkizunera begirako zantzuak.

Zerbitzua San Anton elizaren ondoko eraikin batean kokatu ondoren eta funtzionamendua jada normala zelarik, 2003an erakundearen lana ere aldatu zen: kudeaketa taldearekiko harremanetan jarraituz, bisitak egiten ziren zentrora, ematen ziren zerbitzuei zein erabiltzailei buruzko datuak biltzeko. Aldi berean, Arartekoak behin eta berriz azaldu zuen horrelako zerbitzu gehiago behar zirela.

• Azterketa

Erakundetik kexa baten ondorioz burututako lehen jardunak 2001ekoak dira, baina bere lana aspaldikoa zen ordurako, zerbitzuaren beharra azpimarratuz, batez ere 1999an La Najako kaian bizi edo gaua egiten zuten pertsona ugariak –guztiak etxe gabeak edo drogak eragindako arazoak zeuzkatenak– handik bota ziztuztenetik. Hiriko alde horretan zihardguten elkarteekin, gizarte zerbitzuekin eta Udaleko arduradunekin izandako bileren bitartez, Arartekoak bazekien lehendik nolako beharrak zeuden, baita eguneko zein gaueko laguntza proiektuak ezagutu ere. Hasieratik bertatik, zerbitzuen beharra azaltzeaz gain, erakunde honek argi azaldu du zerbitzu gehiago sortzearen aldeko jarrera. Gainera, bazegoen Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onartutako legez besteko proposamen bat, hari beretik zihoana.

Bai 2001eko jasotako kexek eta bai zentroaren irekierari lotutako arazoek ere, bi gai desberdin zituzten, gutxienez, atzean, bata hirigintza kontuekin zerikusia zuena eta bestea gizarte alorrekoa. Lehenengoari dagokionez, irekiera lizentzia emateko prozedura aztertzeaz gain, erakunde honek bere ustez bete beharreko pausuak defendatu zituen, alegia, auzokoei jakinarazpena helarazi, haien alegazioak jaso eta aintzat hartu, eta lizentzia ematekotan arauen arabera egin beharra. Gizarte alorrari lotuago ageri diren auziei dagokienez, interesatuak elkarrenganatzeko ahaleginak proposatu eta bultzatu ziren, bai proiektua diseinatzeko orduan eta bai zerbitzua berriro abiaraztean ere.

Asmo horiek gauzatzeko, zenbait ekimen burutu ziren: informazio idazkiak, auzokideei, Caritasi eta Bilbao La Vieja, San Frantzisko eta Zabala Birgaitzearen aldeko Taldeen Koordinadorari zuzenduak; zentrora egindako bisitak; jarrerak hurbiltzeko zenbait bileretan parte hartzea; poliziaren zereginaren inguruan egindako jardunak; irekiera lizentzia emateko eskumena duen erakundeari -Bilboko Udala- zuzendutako gomendioa…

Bestalde, kontuan hartu zen nola proiektatu eta ireki zen zentroa, eta nolako erantzuna jaso zen auzoko batzuengandik, bai kasu honetan eta bai bestelako zerbitzuen aurrean. Aurrekari horiek ikusita, Arartekoak gomendio orokor bat mahaigaineratu zuen: *"Erakundeen buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean"* (ikus 2001eko Txostena, VI. kap.).

Polizi gorabeherak alde batera utzita, 2002ko ofiziozko egintzen helburua zentroak aurrera jarraitzeko behar ziren baldintzak bermatzea izan zen, eta horretarako mota desberdineko datuak aztertu ziren hainbat astetan, besteak beste: gau batean zentroko langile eta erabiltzaileekin egon zen egoera hantxe bertan ezagutzeko; informazioa ere jaso zen auzian interesa zuten kolektiboengandik (erabiltzaileak eurak, zentroko langileak, boluntarioak, zaintzaileak, bertan ari ziren Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arduradunak eta agenteak); ofiziozko espediente gehiago abiarazi ziren Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren aurrean…

Era berean, zerbitzua Zamakolatik San Antonera aldatu baino aste batzuk lehenago erakunde honek berriro jo zuen Bilboko Udalarengana informazio eske; lekualdatzearen inguruko gorabeheren eta koordinaziorako eta segimendurako mekanismoen berri

jasotzeaz gain, jakin nahi zen beste zerbitzurik anolatuko ote zen drogamenpekoak laguntzeko edo artatzeko, Hontzaren ahalbideak mugatuak izanda beharrezkoa izango baitzen baliabide osagarriak prestatzea.

Bestalde, lehen aipatu den erakunde honen gomendio orokorraren haritik Eusko Jaurlaritzako Drogamenpekotasunetarako Zuzendaritzak zabaldutako txostenari dagokionez ("*Drogamenpekoei laguntzeko baliabideak: Ekimen komunitarioetarako estrategiak taxutu, txertatu eta haien segimendua egiteko metodologia*"), Arartekoak modu zuzenean jakin zuen –baita Zuzendaritzari helarazi ere– nolako iritziak eta ekarpenak zituzten txostenaren inguruan gizarte eragileek, zentroaren eta bestelako baliabideen taxuketan eta funtzionamenduan zerikusia zutenek, hain zuzen ere.

2003ko abenduaren 18an Arartekoburua bera, erakundeko beske kideekin batera, zentroan bertaratu zen gaueko zerbitzu aldian, egoera eta funtzionamenduaren berri izateko asmoz. Geroago, zentroak egindako dokumentua ("*Egitasmoak eta Tailerrak*") aztertu da; 172 orrialdeko txosten horretan era guztiatako informazioa biltzen da: zentroaren eta artatzeko kolektiboaren ezaugarriak, egitasmo guztien xehetasunak, baloraziorako irizpideak, barne araudia, aurrekontuak, langileen profila, urteko lehen seihilekoari buruzko datuak... horretaz gain, 2003ko urtarriletik azarora bitarteko memoria eta 2003ko urte osoko datuak ere aztertu dira.

• Emaitza

Bilboko Udalak, 2001eko azaroaren 19ko Erabakiaz, zerbitzuan hasteko baimena eman zien Zamakolako instalazioei. Ahaleginaren ahaleginez, eta interesatutako alderdien arteko adostasuna lortzeko egin ziren bilerei esker, hasierako proiektuari aldaketa nabarmenak egin zitzaizkion, azaroaren 28ko dokumentu batean jaso zirenak. Era berean, 2002ko abenduaren 31 arteko epea finkatu zen zerbitzua beste leku batera alda zezaten; 2002ko abenduaren 23an, epea bukatzeko egun batzuk bakarrik falta zirela, zerbitzua beste instalazio batera eraman zen, San Anton elizaren aldameneko lokaletan egokitze lan handiak burutu ondoren.

Obra horiek aurrera zihoazen bitartean, berebiziko ahaleginak egin ziren gizarte eragileak aldi oro egoeraren jakitun izan zitezen, erabiltzaileentzako zerbitzu egokiarekin batera inguru eta komunitatearekiko errespetua ere bermatu beharra baitzegoen. Alde horretatik azpimarratzekoak dira, batetik, eratu zen segimendu batzordea –erakunde, elkarte eta zerbitzu desberdinetako partaideek osatua–, eta bestetik, zerbitzua eta bere programak arian-arian txertatzeko hartutako konpromisoa. Horren erakusgarri, aurreko urtean (2003) zentroak inolako arazorik gabe jardun du, eta gaur egun hiru programa mota eskaintzen ditu:

– *"**Atsedenerako eta oinarrizko zainketarako programa:** baliabide hau, "aterpetxe" izaerakoa, gauez irekita dago, 22:30etik 7:00ak arte. Lau gune ditu: harreragunean xiringen trukea egin daiteke; beste batean norberaren eta arroparen garbiketa egiteaz gain, jan daiteke; hirugarrena erizaintza gunea da, eta azkena, hamakak dituena, atsedena hartzekoa da. Zerbitzu honen erabiltzaileak gutxieneko eskakizun batzuk betetzeko moduan daude; haietako askok tratamentua daukate ordezko substantzien bitartez, kopuru gutxiak kontsumituz, eta oraindik ez dute behar besteko egonkortasuna iritsi baliabide arrunt batean edo beste era bateko egoitza batean egoteko.*

– ***Hurbilketarako eta gizarte-osasun arloko larrialdietarako programa:*** *tratamenduan ez dauden droga hartzaileentzako baliabidea; erabiltzaileak bazterketa egoeran daude eta ez dute lotura zuzenik izaten gizarte eta osasun arloko baliabideekin. Larrialdietarako baliabide hau erabiltzaileen bizimodura moldatzen da, eta eskarien eta betekizunen artean behar den malgutasuna bilatzen da berarekin. Gauez irekita dago, 1:00etik 4:00ak arte, eta oinarrizko gizarte eta osasun laguntza eskaintzen da.*
– ***Hurbilketa programa:*** *eskaririk planteatzen ez duten erabiltzaileei zuzendua; helburu nagusia erabiltzaileak arriskua gutxitzeko teknikekin hastea edo haiei esutea da. Kolektibo hau ibilkorrena, desestrukturatuena eta aldenduena da; ekimen nagusia xeringak trukatzea da."*

*"2003ko urtarriletik azarora bitarteko txostena"*-n zerbitzuari zein erabiltzaileen profilari eta ezaugarriei buruz ematen diren datu ugariak oso esanguratsuak dira, eta nahiko lagungarriak gertatzen dira zentroaren erabilgarritasuna eta bilakaera baloratzeko, edo era horretako baliabide gehiagoren beharra planteatzeko. Hona hemen, labur bilduta, 2003ko datu adierazgarri batzuk:

**HONTZA ZENTROA 2003: hilez hileko harrerak**

| HILAK | Gaua zentroan ematen Guztira | Zentrotik pasatu dira Guztira | Pertsona desberdinak Guztira | Berriak | Bildutako xiringa kopurua | Emandako xiringa kopurua | Erizaindegia: Ekintza kopurua | Erizaindegia: Pertsonak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| URTARRILA | 399 | | | 9 | 1.116 | 1.220 | 439 | 228 |
| OTSAILA | 392 | 78 | 69 | 23 | 1.330 | 1.447 | 688 | 282 |
| MARTXOA | 303 | 303 | 72 | 11 | 3.242 | 3.526 | 708 | 319 |
| APIRILA | 452 | 486 | 105 | 25 | 6.478 | 6.215 | 570 | 314 |
| MAIATZA | 420 | 714 | 133 | 42 | 8.361 | 7.798 | 695 | 350 |
| EKAINA | 402 | 876 | 191 | 73 | 8.959 | 9.065 | 735 | 373 |
| UZTAILA | 421 | 1.153 | 231 | 81 | 9.606 | 9.743 | 1.066 | 388 |
| ABUZTUA | 413 | 1.018 | 219 | 54 | 10.551 | 10.093 | 883 | 348 |
| IRAILA | 401 | 1.254 | 222 | 48 | 10.756 | 10.918 | 602 | 268 |
| URRIA | 464 | 1.164 | 233 | 50 | 8.879 | 9.026 | 629 | 325 |
| AZAROA | 404 | 1.036 | 213 | 47 | 8.163 | 8.936 | 651 | 290 |
| ABENDUA | 300 | 912 | 203 | 41 | 6.151 | 7.089 | 741 | 259 |
| **URTEAN, GUZTIRA** | **4.771** | **8.994** | **609** | **504** | **83.592** | **85.076** | **8.407** | **3.744** |

• Datuak aztertzerakoan kontuan izan behar da zentroa ez dela osorik ireki hasieratik, eta 2003ko maiatza arte ez dela haren kapazitatearen % 100 erabili.
• IXP: itzulitako xiringak: % 98.

Hona hemen aurtengo erabiltzailearen edo artatutako pertsonaren ezaugarriak:

– Gizonezkoa, gehienetan (% 80)
– Nazionalitate espainolekoak (% 82)
– Bilbon bizi dira (% 75)
– Bilbon edo Bizkaiko beste udalerri batean enpadronatuak (% 45 eta % 36 hurrenez hurren)

– Baztez ere, gazteak (% 62 35 urtetik beherakoak dira)
– Kokaina eta heroina injektatu ohi dituzte.

Pertsona horientzat harrera zentro gehiago antolatzeko aukerei buruz, Arartekoari emandako azken erantzunean Udalak ondoko hau adierazi zuen: *"Baloratzeko orduan, Bilboko Udalak normaltasun egoeran aztertu nahi luke San Antoneko zentroaren jarduera; hortik aurrera, eta hedabideetan azaldu den bezala, uste dugu horrelako zentro gehiago antolatu beharko liratekeela. Alabaina, oraindik ez da erabaki non egongo liratekeen, ezta zenbat erabiltzaile hartuko lituzkeen edo nola kudeatuko litzatekeen ere. Horren guztiaren berri jasoko duzu informazioa dagoen guztietan".*

Erakunde honen ustez, Hontzak 2003an izan duen funtzionamenduak eta gizarte bazterketa jasaten duten drogamenpekoen beharrei buruzko zenbait ikerketek datu ugari jartzen dituzte aztergai era honetako zentro gehiago sortzea erabakitzeko orduan.

B) **Pertsona ezgaituei zuzendutako laguntza**

⇒ *Gizarte eta osasun laguntza koordinatzeko beharrizana. Gizarte eta osasun eremuaren garapena* (883/2002)

• Erreklamazioa

Ezgaitasun handiko gazte bati adimen urritasuna eta portaera arazoa diagnostikatu zitzaion. Familiaren etxean bizi zen eta Arabako gizarte nahiz osasun zerbitzuen erabiltzailea zen.

Okupazio zentrora egunean-egunean joaten zen eta, gainera, asteburuak txandaka igarotzen zituen aldundiaren laguntza etxebizitza batean. Beste alde batetik, adimen osasuneko zentro batean laguntzen zioten eta hainbatetan ospitaleratu behar izan zuten arazo psikiatrikoak zirela eta.

Familiak adierazi zuen gazte honek bolada bortitzak izaten zituela eta familiarenganako nahiko portaera oldarkorra; horrek elkarbizitza arazoak sortarazten zituen etxean. Horregatik, hainbatetan eskatu zuten egoitza zentro batean modu iraunkorrean sartzea, baina Arabako Foru Aldundiak hori ezeztatu zion, egokitzat jotzen ez zuelako laguntza baliabide hori behin betiko ematea.

• Azterketa

Kasu honi buruzko argibideak eskatu genizkion Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Gaietako Sailari, lehenengo eta behin, eta Osakidetzari, geroago. Jasotako erantzunei esker ikusi ahal izan genuen bi erakundeek iritzi desberdinak zituztela arazoaren gainean nahiz jarduketa-proposamenen gainean ere.

Horrela, foru sail horren iritziz, kasu honetan arazo psikiatrikoak lehentasuna zeukan eta, beraz, irtenbideari oratu behar zitzaion, gehienbat, osasunaren arloan. Osakidetzaren ustez, ostera, gazte honen kasuan, adimen urritasuna nabarmendu behar zen, eta horri laguntza eman behar zitzaion, funtsean, gizarte zerbitzuen bitartez; beraz, sorospen psikiatrikoa osagarria izan zen, betiere portaera arazoari laguntzeko.

Jarduketa proposamenei zegokienez, aldundiak egokitzat jotzen zuen gazte honek zuen laguntza eta, gainera, ez zuen apropostzat hartzen egoitza zentroetarako sarrerak gehitzea.

Aitzitik, Osakidetzak uste zuen portaera krisialdiak zerikusia zuela gazte honen harreman eremu txikiarekin. Herri txiki batean bizi zen eta gizarte harremanak izateko aukerak familiarteko bizitzaren inguruan bilbatzen ziren. Horregatik, Osakidetzak gizarte baliabide batean edo beraren urritasunari egokituriko zentro batean sartzearen aldeko hautua egiten zuen. Beraien aburuz, gazte honen ezaugarriei hobeto egokitutako harreman eremuak lagunduko zion harreman beharrizanetariko batzuk betetzen.

Bi iritziek txosten teknikoen bermea zuten.

• Emaitza

Erakunde honek uste izan zuen kasu hau gizarte eta osasun eremuan kokatu beharra zegoela. Zehatzago, pentsatu genuen kasu hau Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Euskal Udalerrien Elkarteak (EUDEL) 2003ko urtarrilaren 30ean autonomia erkidego honen gizarte eta osasun laguntza garatzeko sinaturiko lankidetza hitzarmenean kokatzen zela.

Honekin bat etorriz, osasun eta gizartearen arloko eskumena duen erakundeetara jo genuen: Eusko Jaurlaritzaren kasuan, Osasun, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera; eta, Arabako Foru Aldundiaren kasuan, Gizarte Gaietako Sailera. Horrela, iradoki zitzaien kasu hau Gizarte eta Osasun Laguntzako Kontseiluan aurkeztea; izan ere, kontseilu hori hitzarmen honetan jasotzen den erakundea da horrelako kasuak aztertu eta horiei buruz eztabaidatzeko. Gaztearen familiari aurreko guztiaren berri eman zitzaion.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak jakinarazi zigun bat zetorrela guk egindako iradokizunarekin. Txosten hau idazteko momentuan bi erakunde horien erantzun horren zain gaude.

⇒ *Minusbaliotasuna duen pertsona bati zuzendutako etxez etxeko laguntza* (135/2003)

• Erreklamazioa

47 urteko pertsona batek minusbaliotasun handia izan zuen buruko isuri baten ondoren. Hemiplegia zuen eta gurpil aulki batean zegoen. % 100ko minusbaliotasun maila zeukan. Barakaldon bizi zen.

Egoera hori ikusita, haren alabak Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari laguntza eskatu zion, eguneko zentrorako, bai eta etxez etxeko laguntza zerbitzuari ere (EELZ). Erantzun zioten une horretan ez zegoela egoera horri egokituriko zentro bakar bat ere. EELZari zegokionez, haren herriko udalera jotzeko adierazi zioten.

Udalean EELZa eskatu zuen, baina hilabete batzuk igarota, artean ere ez zuen jaso laguntza hori; beraz, erakunde honetara jotzea erabaki zuen.

• Azterketa

Gizarte zerbitzuen funtzioak zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak foru aldundiei ezartzen die menpeko pertsonei zuzendutako laguntza eta udalei pertsona autonomoei zuzendutakoa. Horri jarraituz, Bizkaiko Foru Aldundira eta herrian EELZa kudeatzen duen Barakaldoko Udalera jo genuen. Toki erakundeak adierazi zigun eskatzailearen EELZaren premia kontuan hartzen zuela, baina aurrekontu arazoak alegatzen zituen, une horretara arte laguntza ez emateko argudio gisa.

Aldundira jo genuenean, hainbat aipamen egin genizkion: alde batetik, mendekotasun handia zuen pertsona bat zen eta gizarte zerbitzuetatik ez zuen inolako laguntzarik jasotzen, ez oinarrizkoa, ez espezializatua. Beste alde batetik, gorago aipatutako dekretuari men egin genion; bertan ondoko hau esaten zen:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonei zuzendutako laguntza foru eremuari dagokiola (3. art.).
- EELZari zegokionez, zerbitzu horren helburuetariko bat pertsona erabiltzaileen autonomiaren galera orekatzea dela, eguneroko bizitzaren jarduerak errazago egiteko, bai eta etxeko ingurua bizigarritasun egoeran izatea eta isolamendu egoera saihestea ere, betiere gizarte integrazioa bultzatuz. Zerbitzu honen prestazioa udalei dagokie (4.1.2. artikulua).
- Foru aldundiek minusbaliotasuna duten pertsonei zuzendutako zentro eta zerbitzuak bermatu behar dituztela (3.1.2. artikulua). Horren barruan, mugikortasuna bultzatzeko programak daude eta horien helburua da urritasun fisikoa duten pertsonek sarbideragarritasun handiagoa izatea inguruneko jarduerak egin ahal izateko. Egitarau honen barruan laguntzarako langile zerbitzua sartuta dago (3.1.2.2. artikulua).
- Funtzio bakoitza administrazio bakar bati egokitu behar zaiola, zerbitzuaren prestazio edo kudeaketaren eskuordetzeari eta administrazioen arteko lankidetzaren printzipioari kalterik egin gabe, betiere beharrizanak hobeto erantzuteko helburuarekin (1. art.).

Interesatuaren kasua testuinguru honetan kokatuta, gure iritziz, EELZaren finantzazioa aldundiari egokitu behar zitzaion, nahiz eta zerbitzuaren benetako prestazioa udalak aurrera eraman behar izan, betiere bi erakundeen arteko lankidetza erabakiaren bitartez.

• Emaitza

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zigun artean ere ez zegoela lurralde historiko honetan interesatuak eskaturiko ezaugarririk zuen zentrorik, baina itxaron zerrendan zegoela. Izan ere, urritasun fisikoa duten pertsonei zuzendutako eguneko zentro bat Bilbon eta hilabete gutxiren buruan zabaltzea aurreikusita zegoen.

Arazoa konpondu zen Barakaldoko Udalak EELZa interesatuaren esku jarri zuenean. Halaber, pertsona nagusientzako eguneko udal zentroan plaza bat eman zitzaion eta hantxe lagundu zioten, harik eta Bizkaiko Foru Aldundiak zabaldu nahi zuen eta berarentzat egokiagoa zen zentroan plaza bat eman arte.

⇒ *Garraioaren zerbitzua, ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako eguneko zentro batera joateko beharrezko baliabide modura* (189/2003)

• Erreklamazioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Bekoetxeko eguneko zentroa sortu zuen Bilbon, buruko gaitzaren ondoriozko bigarren mailako ezintasuna duten pertsonei zuzendua. Eskabide epe bat zabaldu zuen zentrora pertsona erabiltzaile modura joan ahal izateko.

Bedian bizi zen pertsona batek eskabidea aurkeztu eta onartua izan zen, baina plazaren barruan ez zitzaion garraio zerbitzua sartzen, bizilekua garraiorako zehaztutako arloetako lurralde eremutik kanpo zuelako. Horrek ez zion zentrora joatea uzten. Horregatik, arazoa hau konpontzeko ahaleginak egin zituen foru erakundean, baina ez zuen lortu eta erakunde honetara jo zuen.

• Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak plazak adjudikatzeko prozeduran onetsi zen zeintzuk izan behar ziren zentrora joateko garraioaren zerbitzua sartzeko edo ez sartzeko irizpideak. Zerbitzu horretatik baztertua izateko arrazoietariko bat zen eskatzailea zentroaren lurralde eremutik edo eragin gunetik kanpoko udalerri batean bizitzea. Bilboko zentro honen kasuan, Bedia gune horretatik kanpo geratzen zen, eta horixe izan zen foru sail horrek emandako arrazoia, pertsona horri garraio zerbitzu egokitua ez emateko.

Hori guztiori garrantzi handikoa zen interesatuarentzat; izan ere, horrek emandako plaza okupatzeko aukera baldintzatzen zuen.

Foru ebazpenetik ondoriozta zitekeen interesatuak, Bilboko eraginpeko guneren batean bizi bazen, zentrora joateko garraio egokitua izango zuela. Honi erantsi behar zaio zentro hau Bizkaia osoan dagoen mota honetako zentro bakarra zela; beraz, ukitutako pertsonak ez zuen beste batera joateko aukerarik.

Erakunde honen iritziz, hori horrela bazen, lurralde historiko berean jokabide desberdinak zeuden eta horretarako arrazoi bakarra egoitza tokia baino ez zen.

Jarduketa honen ondorioz, hainbat idatzi egin ziren, bai eta foru sail horren eta erakunde honen kideen arteko batzar bat ere; horien guztien helburua arazo honi irtenbide egokia ematea zen.

Foru erakundeak zehaztutako eraginpeko guneen ezarpena planifikazio ideia logiko baten ondorioa zen, horren bitartez pertsona bakoitza bere egoitzatik hurren dagoen zentrora doalako eta garraiobidean gehiegiko tartea ematea saihesten delako. Hala eta guztiz ere, planifikazio hori egin ahal izateko, hainbat zentro banatuta egon behar dira Bizkaiko geografian barna.

Hori ez zen kasu honetan gertatzen, Bekoetxeko eguneko zentroa ezaugarri horiekin Bizkaian zabaldu den lehenengoa delako. Horregatik, Bilboren eraginpeko eremutik kanpo geratzen diren udalerriek momentuz ez daukate mota honetako erreferentzi zentrorik. Arrazoi horiek zirela eta, gure iritziz, jokaera hori diskriminatzailea zen.

Foru Sailak aurreko argudioak onartu zituen eta mota honetako zentro gehiago zabaltzeko asmoa zabaldu zuen; gauzak horrela, gorago aipatutako planifikazioak zentzua izango luke. Gaur egungo kasuan, irtenbide bat aurkitu beharko litzateke eta hori ez da erraza hain arrazoi direla eta: alde batetik, zentro honen bitartez, lurraldeko premiak betetzeko zailtasuna; beste alde batetik, garraio egokituaren azpiegiturak Bizkaian nahiko mugatuak direlako eta lurraldeko geografiak errazten ez duelako ibilbideen sinplifikazioa.

• Emaitza

Foru erakundeak kasu honetarako behin-behineko irtenbidea bilatu zuen. Aukeren artean interesatua bere kabuz Galdakaora joatea zegoen eta hantxe hartu behar zuen zentrora zihoan garraioa. Modu horretara, zentrora joan ahal izango zen eta bidaiaren iraupena ez zitzaien luzatuko ibilgailu bera erabiltzen zuten gainerako pertsonei.

Interesatuak, ostera, Bediako bizilekua Amorebieta-Etxanora aldatu zuen. Horrek egoera aldarazi zuen.

Amorebieta-Etxanon eguneko udal zentro bat dago, bi atal desberdin dituena: pertsona nagusientzako atala eta pertsona minusbaliatuentzakoa. Bizkaiko Foru Aldundiak bertan hitzartutako plazak ditu eta plaza bat eman zion pertsona minusbaliatuentzako atalean eta interesatuak onartu zuen. Handik tarte batera, zentroak foru erakundeari jakinarazi zion pertsona hau, bere ezaugarriak zirela eta, ez zela behar bezala moldatzen atal horretan; hortaz, pertsona nagusientzako atalera lekualdatzea proposatu zuen. Lekualdaketa eginda, pertsona horri sorospena eman diote zentro honetan.

## C) **Pertsona nagusiei zuzendutako laguntza**

⇒ *Taxi-bonua: adin muga eta mugikortasunaren arazoa* (1227/2002)

• Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizen bizi den pertsona batek taxi-bonua deritzon garraiorako laguntza zuen. Horrela, 70 urte bete zituenean, laguntza hori kendu zitzaion adin kontuak zirela eta.

Pertsona hori ez zen neurri honekin bat etorri, mugitzeko zituen arazo handien ondorioz, ezin zuelako garraio publikoa erabili batetik bestera joateko.

• Azterketa

Taxi-bonua gizarte baliabidea da eta garraiorako bide alternatiboa eskaintzen die, urritasun maila dela eta, mugitzeko arazo handiak dituzten eta garraio publikoa ezin erabil dezaten pertsonei. Laguntza horri esker, taxia har dezakete leku batetik bestera joateko.

Araban, taxi-bonua foru egitarau baten barruan sartuta dago eta Foru Aldundiak Arabako hainbat toki erakunderekin sinaturiko lankidetza hitzarmenei esker gauzatzen da. Baliabidearen kudeaketa udalekoa da.

Vitoria-Gasteiz programa hori duten udalerrietariko bat da. Horretan sartzeko eskatzen diren beharkizunetariko bat da adina da: 65 urte baino gehiago ez izatea, alegia. Adin hori 70 urtera arte luza daiteke, baldin eta pertsona horrek laguntzaz 65 urte bete baino lehenagotik gozatzen bazuen eta gurpil aulkian badago edo ibili ahal izateko bi makilen laguntza behar badu. Horixe zen erakunde honetara jo zuen pertsonaren kasua.

Horren arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak taxi-bonua ezeztatzeko hartutako erabakiak hitzarmen honetan ezarritako irizpide orokor baten aplikazioari erantzuten zion.

Guztiarekin ere, ikusi ahal izan genuen betekizun horrek pertsona asko baztertzen zituela prestazio horretatik, benetako laguntzarako zuten premia kontuan hartu gabe; esan nahi baita, ez ziren aintzat hartzen mugikortasun arazo handiak. Gainera, ez zitzaien bestelako neurri alternatiborik eskaintzen. Beste alde batetik, adin muga hori ez zen agertzen aldundiak Arabako beste toki erakunde batzuekin sinatuta zituen antzeko hitzarmenetan.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundira jo genuen. Jasotako erantzunean adierazi ziguten, ordura arte izenpeturiko hitzarmenetan, bi arautegi mota zeudela: kale giroko biztanleak zituzten udalei zuzendutakoa eta landa guneko biztanleak zituzten udalei zuzendutakoa. Lehenengoek adin mugari eusten zioten; bigarrenek, ordea, ez zuten baldintza hori bete behar, biztanle gune sakabanatuak zirelako eta garraio publikoaren zerbitzuak hain ugariak ez zirelako.

• Emaitza

Aldundiak, era berean, programa hau gaurkotzeko nahia azaldu zuen, ondoko helburuen arabera: lurralde historikoko udalerri kopururik handienera zabaltzea, adin mugaren beharkizuna kentzea eta, laguntzak zehaztean, mugikortasunaren menpetasun maila (gaur egunean gertatzen den bezala) ez ezik pertsona eskatzailearen errenta maila ere aintzat izatea.

Proposamen horiek bidezkoak iruditu zitzaizkigun eta ahalik eta arinen gauzatzeko komenigarritasuna aipatuz erantzun genuen.

### ⇒ *Gizarte zerbitzuak: komunitatearen funtsezko zerbitzutzat hartzea* (195/2003)

• Erreklamazioa

Lan gatazka baten inguruan jasotako hainbat kexaren ondorioz, greba egiteko eskubidearen eta eguneko zentroetara joan ohi diren pertsona nagusiei laguntzeko zerbitzuaren arteko orekari eusteak dakarren arazoa aztertu genuen.

Eguneko zentroa funtsezko zerbitzutzat hartzea eta gutxieneko zerbitzuak ezartzea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak aztertutako gaia izan zen; sail horrek senideei jakinarazi zien zergatik ez ziren orduan eguneko zentroan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko zirkunstantziak betetzen.

• Azterketa

Gutxieneko zerbitzuen ezarpena legeak jarritako bitartekoa da, bi eskubideak –zentroko pertsona nagusiek laguntza jasotzeko duten eskubidea eta langileen greba eskubidea– bateratzen ahalegintzeko, betiere bakar batek bestea ezezta ez dezan.

Greba eskubidea mugatzen duenez, legeak ezartzen du gutxieneko zerbitzu horiek jarri behar direla, grebak komunitatearen funtsezko zerbitzuari eragiten dionean. Horrek dakarrena interpretazio arazoa da, funtsezko zerbitzuei buruzko kontzeptua juridikoki zehaztuta ez dagoelako eta zehaztapen hori zerbitzua ondo betetzeko izaeraren bitartez egin behar delako.

Administrazioak hasiera batean funtsezko zerbitzua zen ala ez baloratzeko kontuan izan zituen zirkunstantziei erantsi behar zitzaizkien grebaren hasieratik joandako denbora tarteari zegozkion zirkunstantziak. Doktrinak inguruabar hori hartu du aintzat, funtsezko zerbitzuak bermatzea bidezkoa den ala ez zehazten laguntzeko faktore modura.

Ildo zehatz honi jarraituz, zerbitzua funtsezkoa izan dadin, betetzen diren ondasunak eta interesak funtsezkoak izan behar dira eta horrela hartu behar dira, konstituzio bitartez babesturiko oinarrizko eskubide eta askatasun publikoekin batera.

Jardueraren izaerari dagokionez, konstituzioak babesten duen ondasun baten aurrean gaude gizarte eta ekonomia arloko politikaren printzipio gidarietariko bat delako

(50. artikuluan botere publikoek hirugarren adinarentzat sortu beharreko gizarte zerbitzuen sistema aipatzen da).

Guztiarekin ere, eguneko zentroetan ematen den jarduera konstituzio bitartez babesturiko ondasun modura aztertzeko bidea ematen digun ezarpen honek ulertaraz diezaguke edadeko pertsonei laguntzera zuzendutako gizarte zerbitzu guztiak funtsezkotzat hartu behar direla.

Honen inguruko ondorio batera ailegatu baino lehen, gizarte zerbitzuaren izaera aztertu beharra dago, betiere zerbitzu horrek komunitatean lortutako eraketa maila kontuan hartuta, bai eta grebaren inguruko zirkunstantziak ere.

Eguneko zentroak ez dira eguneko egoitzak huts-hutsean, baizik eta edadeko pertsonei laguntza emateko zeregina duten zentroak, betiere mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren 2.1. artikuluan zehazturiko profilen arabera. Zirkunstantzia honek pentsarazten digu greba martxan jartzea ez dela kontu axolagabea eguneko zentroan mendekotasuna duten pertsonentzat egin ohi den jarduerarako edo, antzekoa dena, grebak irauten badu, ezin zaio zerbitzuari eutsi, behar den moduan funtzionatzeko bermerik ez badago.

Orduan galde liteke ea jarduera eten behar den ala ez normaltasunez emateko modurik ez badago. Printzipioz, erantzuna aldatzen zen, funtsezko zerbitzutzat hartzen dugun ala ez; gainera, horretarako gatazka honetan azaldu zen beste zirkunstantzia bat baloratu behar zen: horren iraupen luzea.

Kasu honetan, zirkunstantzia hori jardueraren izaerarekin (jardueraren helbururik behinena edadeko pertsonak euren ohiko ingurunean izaten ahalegintzea da –Euskadiko Plan Gerontologikoa–) eta eguneko zentroaren ezarpen mailarekin (kontuan hartzekoa bezain handia, betiere helburu horri dagokionez) erlazionatzen badugu, uler daiteke behar adina arrazoi zegoela eguneko zentroetan aurrera eramaten den jarduera funtsezkotzat hartzeko eta, beraz, behar adina zirkunstantzia zegoela zerbitzuari eutsiko zitzaiola bermatzeko.

Elementuen lotura horrek (jardueraren izaera eta ezarpen maila nahiz grebaren iraupena) lehenago hartutako erabakia berrikustea justifikatzen zuen; izan ere, lehenago harturiko erabaki horren arabera, ez zegoen arrazoi juridikorik eguneko zentroaren funtzionamendua bermatzeko neurririk ezartzeko.

• Emaitza

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila bat etorri zen egoeraren azterketa honekin eta funtsezko zerbitzuak ezartzeko ekarri zituen ondorioekin; horrela bada, sail horrek beharrezko agindua eman zuen gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, betiere funtsezko zerbitzu honen jarraipena bermatuz.

⇒ *Etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko itxaron zerrenda* (405/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona batek jakinarazi zigun Barakaldoko Udalari Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskatu eta urtebete eta erdi eman duela itxaron zerrendan. Era berean, zehaztu zigun 80 urte zituela, bakarrik bizi zela eta osasun arazo batzuk zituela.

• Azterketa

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua oinarrizko baliabidea da eta helburu modura, besteak beste, pertsonak euren etxean egotea erraztu nahi du. Horretarako, pertsona erabiltzaileak euren ingurune komunitarioan integratzeko zereginak ezartzen ditu, isolamendu egoerak saihestuz. Halaber, autonomiaren galera aurrezaindu edota orekatzeko helburu dauka, eguneroko jarduerak egin eta bizilekua bizigarritasun baldintza egokietan izateko laguntza emanez (gizarte zerbitzuen zereginen zehazpenari buruzko uztailaren 30eko 155/2002 Dekretuaren 4.1.2.1. artikulua).

Udalera jo genuen kasu honen inguruko argibideak eskatu nahian eta arlo horretako erantzukizun politikoa duen ordezkariarekin batzartu ginen.

Eskatzaileak zehazturako denbora-tartea baieztatu ziguten; era berean, itxaron zerrendan 300 bat pertsona zeudela esan ziguten, horiek guztiak zerbitzua jasotzeko modura baloratuak izan zirenak. Egoera hau kezkagarria iruditu zitzaigun, pertsona hauen beharrizana kolokan jartzen ez zelako. Gainera, modu horretara EELZaren zeregina ahultzen. Udalak aurrekontu baliabideen falta alegatu zuen, eskari guztiari erantzun egokia emateko.

Udal beraren gainean kexa gehiago izan genituen. Horietariko baten ondorioz, toki erakunde honek hiru urte lehenago adierazi zigun itxaron zerrenda desagerrarazteko hainbat neurri hartuko zituela. Egoera berriaren ondorioz, aztertu beharra zegoen zeintzuk izan ziren itxaron zerrenda ostera ere sortzeko elementuak.

• Emaitza

Arazoak banakakoen eremua gainditzen zuenez, modu orokorrean heldu behar zitzaion. Ildo honi jarraituz, planteaturiko kasu zehatz hau ez zen oztopoa izan behar zerbitzu bera eskatzen zuten pertsonen eskubideak edo premiak kontuan har zitezen. Horrela adierazi zitzaion erreklamazio egileari.

Udalari eskatu zitzaion itxaron zerrenda sortzeko arrazoiak aztertzeko; izan ere, horrek zerbitzuaren prestazioa ageriko moduan atzeratzen zuen; helburua, azken batean, udalak itxaronaldia arrazoizko epe batera murritzeko neurri egokiak hartzea zen.

# 3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

## 3.1. SARRERA

2003an guztira 66 kexa jaso ditugu arlo honetan. Honelaxe banatu dira:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 30 |
| - Tokiko administrazioa | 27 |
| - Foru administrazioa | 7 |

Honelaxe sailkatu dira, gaiari adituz:

| | |
|---|---|
| - Elebitasuna | 49 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura. | 7 |
| - Kirola | 5 |
| - Kultur Ondarea | 2 |
| - Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna | 2 |
| - Bestelakoak | 1 |

**Elebitasunaren** atalean, herritarrek beren hizkuntza eskubideak murriztu zaizkiela irizten dieten kexak ditugu hizpide.

Batzuetan, murrizketa hori garrantzitsuagoa izan daiteke, esaterako, osasun arloan gertatzen bada, non pertsonen arteko harremanak giza eta gizarte aldetik duten oihartzunarengatik nabari diren –euskararen erabilpena Osakidetzan normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren zioen azalpenean esaten den bezala–. Horregatik, Osakidetzaren 2003/2007 Plan Estrategikoak, gaixoaren arreta hobetzera begira dituen helburuen artean, bere erakundea gaixoen hizkuntza errealitateari erantzuteko prestatzea eta hizkuntza ofizialetako edozeinetan jaramon egiteko prest egotea ere aurreikusten du.

Aurten nabarmen gehitu dira botere publikoei euskararen erabilpenaren gainean esleitutako betebeharrak betetzea* ren gainean jaso ditugun kexak. Kexarik gehienek egunkarietan argitaratutako iragarkietan edo hartzaile generikoengana bideratutako mota guztietako komunikazioetan gaztelania soilik erabiltzearekin zerikusia izan dute.

Kexa horiek botere publikoek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzea bermatzearekin lotuta zeudenez, administrazioengana bidali ditugu. Horrela, oro har, ukitutako administrazioek erabiltzen zuten irizpidea zuzena zela egiaztatu ahal izan dugu (bi hizkuntza ofizialen erabilpenaren aurreikuspena komunikazioetan eta publizitatean), eta kexak eragin zituzten egoerak akatsen ondorioz edo ezohiko ingurumariengatik geratu zirela.

Pentsa liteke irizpideak zuzen definituta badaude, kexa hauek tramitera onartzea antzu gerta litekeela. Baina guk ez dugu hala denik uste: lehenik eta behin, epai hori gauzak ikertu ondoren baino ezin baitaiteke ondoriozta eta, bigarren, irizpide egokiak izateak ez dielako akatsez bestelako arrazoi batzuengatik sortutako egoerei aterik ixten,

hau da, euskararen izaera ofizialaren irismena zenbaterainokoa den gaineko pertzepzio okerren ondoriozko egoerei.

Administrazioaren jardueraren beste fazeta batzuetan gerta daitekeen bezala, hizkuntza ofizialen erabilpenean ere oker gaitezke, esaterako, pertsona bati berak aukeratutako hizkuntzari erreparatu gabe beste hizkuntza ofizialean erantzuten zaionean bezala. Berriro sortzekotan ziurrenik erantzun berbera jasoko ez luketen egoerak dira, akatsen ondorioz gertatu direlako, hain zuzen.

Baina gertatu izan da, herritarrari formularioak euskaraz betetzeko eskaria betetzerik izan arren –baziren formulario elebidunak–, enplegatu publikoak ez zekienez herritarrak euskaraz betetzerik ez izatea, eta hori ez da akats bat. Zehazki, Administrazioak, ustezko kexa zio batean, bi hizkuntza ofizialetako formularioak bazeudela jakinarazi zigun, baina gaztelania hutsezkoa eman bazen langileak prozedura horrekin ohituta ez daudelako izan litekeela.

Jokaera hori akats baten ondorioz izan ez zenez, interesatuari jaramon egin zion langilearen ezjakintasunarengatik baizik, ukitutako administrazioari jakinarazi genion kasua ikertzeak kexa eragin zuen langilea euskararen ofizialtasunaren irismenaz jabe zedin balio izan zuela, hizkuntza hori erabiltzeko gogoa naturaltzat hartzen hasteko.

Bitartekoak mugatuak direlako kexak jasotzen segitzen dugu, jakina.

Zio hori ohikoa, kasu batzuetan justifikatua ere, izateak, ez digu hemen islatzea azalekoa denik pentsarazi behar. Batez ere, azken batean bitarteko nahikorik ez izatearen nolabait arintzen duten mekanismoekin funtzionatzera ohituta bagaude, neurri aringarriekin funtzionatzen deneko egoera horiek hizpide dugun hizkuntza eskubidea mugatzen ez dutela pentsatzeko akatsera eramaten gaituzte. Atal honetan 589/2003 zenbakipean laburbildu dugun kexak egoera horiek ilustratzeko balio lezake.

Arlo hori dagokion **kulturaren** atalean, kultur ondarearen babesaren gaineko hainbat jarduera burutu ditugu, alderdi desberdinetan.

Kasu batean, pertsona batek kultur ondasun jakin batean egingo zen esku hartzeari zegokionez administrazio eskudunaren geldikeria zela irizten zionagatik zuen kezka adierazi zigun. Kasua aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak kultur ondasun hura inbentariatu modura kontserbatzearen ildoko konponbide bat bermatzeko kontuan izango zituen jarraibideen edukia jakinarazi zigun.

Ondarearen kontserbazioarekin lotutako beste jarduera bat, ofizioz hasi genuen, komunikabideetan agertutako informazio batzuen ondoren, eta kultur ondasun bat monumentu multzo modura sailatzeak eragin dien pertsonekin zerikusia izan du. Pertsona horiek kezkatuta zeuden sailkapen horren beren eskubideei zenbateraino eragin liezaikeen pentsatzean. Administrazioak ukitutako alderdiei informazio xehatuagaoa eman zien eta arazoaren funtsezko alderdiak konpondu ahal izan ziren.

**Kirol** esparruan, kexa batzuek errekurtsoen ebazpenak ikaragarri berandutzen direla hizpide izan dute eta, horrek, 2003an ere administrazioaren funtzionamendua arina eta eragingarria ez denean sor daitekeen arazo erantsi hau aipatu genuela gogora ekartzen digu. Kexak eragin zituzten gaien mamiari aditzen badiegu, esan dezakegu zenbait kirol federaziok interesatuengan ondorioak dituzten erabakiak hartzeko erabiltzen duten prozedura ez dela beren jarduerak araupetu behar dituzten oinarri juridikoetara behar bezala egokitzen eta horrek ukitutakoen segurtasun juridikoan eragina daukala baiesteko datuak daudela.

## 3.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Elebitasuna

⇒ *Bitartekorik ez izatea onartzea, hizkuntza eskubidea murrizteko zuribide modura* (589/2003)

• Erreklamazioa

Zibiletik ezkontzeko epaitegi batera joan ziren pertsona batzuek, horretarako dokumentazioa euskaraz bete ondoren, ezkontza bera Autonomia Erkidego honetako hizkuntza ofiziala ere baden hizkuntzan, euskaraz egiterik egongo ez zela jakinarazi zieten. Kexan ziotenez, ez zieten, antza, zeremonia itzultzaile batekin egin zitekeela eskaini ere egin.

• Azterketa

Erakunde hau sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 9.2 artikuluak dionez, Arartekoak justizia Administrazioaren funtzionamenduaren gaineko kexak jasotzen dituenean, ikertu edo ebazteko eskumena duen erakundera bideratuko ditu. Ondorioz, kexa hau Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari bidali genion.

Aipatutako erakundeko Ikuskaritza Zerbitzuak, zegokion ikerketa egin ondoren, interesatuei itzultzaile bat erabiliz ezkontzeko aukera eskaini zitzaiela jakinarazi zigun, eta horrek kasua beste ikuspegi batetik aztertzera eraman gintuen. Hartara, jarduera hura Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231.5 artikuluan aurreikusitakora egokitzen zenez, euskara erabiltzeko eskubidea ez zela alboratu ondorioztatu behar genuen.

Ikuspegi juridiko batetik eskaintza horri eman behar zitzaion irismenaren kalterik gabe, pentsa zitekeen interesatuek interpretari bat erabiltzeari, nolanahi ere, hizkuntza eskubidea murriztea zela iritzi ziotela.

• Emaitza

Itzultzailearen eskaintzak euskara erabiltzeko eskubidea ez alboratzea zekarrela onartu ondoren, BJKNri gure balorazioaren berri eman genion, hau da, hori onartzea ez zela deneko hizkuntza eskubidearen murrizketarik egon ez zela onartzea.

Horren gainean, Ararteko erakundeak iritzi dio interpretari bat izatea deneko hizkuntza eskubide horri jaramon egiteko eskueran dauden oraingo baliabide pertsonal eta materialetarako egokia dela, eta hala jasotzen du BJLOren 231.5 artikuluak. Alabaina, kexa testuinguru horretan kokatu ondoren, muga bat justifikatuta dagoela onartzeak ez du herritarrek bi hizkuntza ofizialak baldintza berdinetan erabiltzerik ez dutelako planteatzen dituzten kexak zilegiak direnik onartzea eragotzi behar.

Herritarraren asmoaren zilegitasunaren onarpen hori euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunean aurkitzen dugu, horren helburua, bitarteko material eta pertsonalak daudenean, bi hizkuntzak parekatzea izango baita. Halaber, herritarrak bien bitartean aurkituko dituen muga saihestezinen justifikazioa muga horiek, bi hizkuntza ofizialen estatusa parekatzeko bide horretan, gero eta gutxiago izan daitezen eremuan kokatzean egongo da.

Kexa jarri zutenei ere balorazio horren berri eman ondoren, espediente hau artxibatu genuen.

⇒ *Herritarrek komunikazio ofizialak bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko duten hizkuntza eskubideari erantzuteko prestatutako ereduen erabilpena* (745/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona batek gaztelania hutsezko komunikazio bat jaso zuen eta zegokion epaitegira deitu zuen jakinarazi beharrekoa euskaraz ere jakinarazteko eskatuz. Horretarako eskari bat aurkeztu behar zuela erantzun zioten.

• Azterketa

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden botere publikoek esku hartzen duten egitateen jakinarazpenean bi hizkuntza ofizialak erabiltzea –interesatu pribatuek bata ala bestea erabiltzea espresuki hautatu ezean– azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8.1 artikuluan jasotzen den aurreikuspena da.

Pertsona honek zioenez, ez zuen jakinarazpena euskaraz egitea eskatu, gaztelaniaz ez eze euskaraz ere jakinaraztea baizik. Ez gaude, beraz, aipatutako 8.2 artikulu horren amaierako atalak hizpide duen suposamenduaren aurrean, non jakinarazpen elebidun baten arau orokorraren salbuespen modura, herritarraren bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzearen gaineko borondate espresaren adierazpena eskatzen den.

Kexa hau Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari bidali genion, eredu elebidunen prestakuntzari buruzko informazioa eskatzeko, eta Justizia Epaitegi Gorenera ere bideratu genuen.

Eztabaidagaia gure idatzian aipatutako 8.2 artikuluaren irismenaz egindako balorazioa ez denez –kasu honetan oker interpretatu zela ahaztu barik– gaiaren alderdi materialean zentratu ginen, eredu elebidunak prestatu eta erabiltzearekin zerikusia zuen auzian.

• Emaitza

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko egindako jardueren berri eman ziguen, jakinarazpen judizialen itzulpen normalizatuarekin eta eredu elebidunak eskaintzearekin.

Justizia Epaitegi Goreneko Gobernu Aretoak esan zigunez, erabilpen elebiduna egiterik bazen arren, praktikan esperientzia pilotu baten barruan zeuden epaitegietan soilik egiten zen.

Ingurumari hori ez zen nahikoa, gure ustez, euskara erabili nahi duenaren hizkuntza eskubidearen murrizketa justifikatzeko, idatzizko harremanez eta jada bi hizkuntza ofizialetan prestatutako eta, ondorioz, berehalakoan erabiltzeko moduan leudekeen ereduez baliatzea legokeen jarduerez ari ginelako.

Horregatik, erakunde horri gai honen gaineko gure balorazioa helarazi genion, hau da, inprimaki elebidunak erabiltzea eska litekeela –kasu honetan zitazio bat zen– eta erabilpen elebiduna ez zela esperientzia pilotuan ari ziren epaitegietara soilik mugatu behar.

## B) **Kultur ondarea**

⇒ *Tokian tokiko esparruan kultur ondarea babestu beharra* (742/2001)

• Erreklamazioa

Getxoko Andra Mari auzoan dagoen baserri baten jabeak, baserria udalerriko arau subsidiarioetan katalogatuta zegoen arren, hiri antolamenduko plan berrian higiezinaren inolako babes berezirik jaso ez zela zioen. Horregatik, Udalari alegazio idatzia aurkeztua zion, non baserriaren kultur balioa nabarmentzen zuen eta eraikin babestutzat jotzeko eskatzen zuen. Udalak, ordea, baserria dagoen esparruaren hiri garapenean baserri hura finkatzerik, ez eta babestutako eraikinen katalogoan sartzerik aurreikusten ez zela zioen.

• Azterketa

Udal planeamenduaren ahalmena zuhurtziara betetzen da, paisaia, historia zein kultur ondare eta baloreak zaintzea hartzen duen hiri ingurunearen antolamendu eta garapenerako hainbat parametro eta irizpideren arabera.

Kasu zehatz honetan, Getxoko Udalarengana jo genuen baserri hura deskatalogatzeko izan zituzten hirigintzako eta kultur intereseko arrazoiengatik galdezka.

Udalak Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onesteko jarraitutako jardueren eta Getxoko elizatea multzo historiko eta artistikotzat jotzeko espedientearen berri eman zigun. Baina bi bitarteko horietan ez zen, ordea, antolamendu irizpiderik aldatzen zenik ez eta baserriari babesa kentzen zitzaionik aipatzen. Gerora, bidali ziguten udal arkitektoaren txostenean baserria tokiko babesetik zergatik kendu zuten argitzen zen. Txostenak, sakonean, babesa eraikina degradatuta zegoela eta kalitate gutxiko eranskin ugari zituelako kendu ziotela zioen.

Era berean, kexagileak bi txosten ere aurkeztu zizkigun: Kultur Ondarearen Zuzendaritzarena bat eta historiagile batena bestea, non baserriaren tokiko arkitektura eta kultur balioa onartzen zen eta udal esparrutik eutsi behar zitzaiola esaten zen.

Arartekoak Udalari eraikin edo monumentuak mantentzea interes orokorrerako egiten dela eta botere publikoen jarduera bideratu behar duen kultur sustapenaren oinarriari aditu behar zaiola jakinarazi nahi izan zion. Higiezinak eta eraikinak gure historiako historia eta kultur ondasunean esanahi bat dutelako babestu eta mugatzea jabeen borondate hutsetik bereiztu beharreko kontua da.

Baserriaren izaera historikoak, aurkeztutako txosten teknikoetan inplizituki ageri eta udal arkitektoak ere onartzen zuenak, nahikoa behar zuen katalogazioa justifikatzeko. Garrantzitsua da tokiko intereseko ondasunen udal katalogazioak higiezinaren jatorrizko egiturari eutsi behar diola, nolako kontserbatuta dagoen eta konpontzeak zenbat balio duen alboratuz.

• Emaitza

Ingurumaria hauek ikusita, Udalak dokumentazio hau aztertzea proposatu zuen, baserri hura babestu behar zen ala ez berriro ebaluatzeko. Zehazki, Udalak esan zigun baserria mantentzea Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean aurreikusitako hiri garapen berriekin bateratzeko aukerak aztertzen ari zela jakinarazi. Horretarako, eremu haren antolamenduaren diseinuan arkitektura aldetik balio duen eraikinaren aldeari eusten saiatzea proposatzen da, eranskinak ezabatuta.

# 4. HEZKUNTZA

## 4.1. SARRERA

Aurten jasotako kexetatik, 91k zerikusia zuten hezkuntza alorrarekin. Hortaz, 2003an erakunde honek egin duen jardueretatik % 8,54 hezkuntza jarduerari lotuta egon da.

Alorrean ardura duten administrazioak banan-banan azterturik, hona hemen haietako bakoitzari dagokion kexa kopurua:

| | |
|---|---|
| - Autonomi Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 68 |
| - UPV/EHU | 15 |
| - Foru administrazioa | 4 |

Tramitatzeko onartu diren auzien edukiari dagokionez, hau da, hezkuntza-alorreko jarduera eremuei erreparaturik, ondoko kexa kopurua zuzendu da haietako bakoitzera:

| | |
|---|---|
| - Eskubideak eta betebeharrak | 52 |
| - Unibertsitate irakaskuntza | 9 |
| - Bestelakoak | 9 |
| - Ikastetxeak | 7 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 4 |
| - Bekak eta bestelako laguntzak | 2 |
| - Hezkuntza berezia | 2 |
| - Haur hezkuntza | 2 |
| - Arte irakaskuntza | 2 |
| - Hizkuntzen Irakaskuntza | 1 |
| - Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna | 1 |

Jakina denez, erakunde honek arreta handiz aztertu du **hiru urte bitarteko haurrentzako hezkuntza**ren ezartze prozesua, eta horren adierazgarri dira Eusko Legebiltzarrera urtero helarazi diren azken txostenak.

Nahiz eta haur eskolak arautzeko asmoz abenduaren 17an 297/2002 Dekretua onartu, tarte horretako haurrei zuzendutako zerbitzuei dagokienez, eskaintza publikoak aurrerapen bakarra izan du, sortu duen Haurreskolak izeneko partzuergoaren bitartez udalen elkarlana bideratzea, alegia.

Hezkuntzaren alorrean berezko eskaintza osatu beharrean, Administrazioa udalen elkarlana eta ekimenak sustatzearen alde agertu da. Argi denez, aukera hori Administrazioak duen eskumenaren ondorioa da, eta guk ez dugu zertan iritzirik azaldu horren inguruan. Adierazi beharra dugu, hala ere, orain finkatuta dagoen eskaintza publikoa ez dela planifikazioaren emaitza, hots, ez dagoela zehaztua Euskal Eskola Publikoaren Legean eta haur eskolak arautzeko Dekretuan jasotako irizpideen arabera. Ildo horretatik, kezkagarri iruditzen zaigu Euskadiko Administrazioak hezkuntza arloan izan duen jarrera, lehendik zegoen eskaintza finkatu baino ez duelako egin; izan ere,

eskaintza hori sendotzeko ekimen bakarra Haurreskolak partzuergoari heltzea erabaki duten Udaletatik etorri da. Horregatik guztiagatik, berriro ere esaten dugu hezkuntza alorreko agintaritzak haur eskolen mapa bultzatu behar duela, benetako beharren arabera osatuz, eta ez udalen erabaki hutsetan oinarrituz. Bestalde, haurrak dituzten familiei laguntzeko eratu zen instituzio arteko Planak berak onartu duenez, haur eskolek badute beste eginkizun bat, famili eta lan alorretako ardurak bateragarriak egitekoa hain zuzen, eta gure ustez, hauxe da bide bakarra haur eskolek premiazko zeregin hori bete dezaten.

Azken puntu horri dagokionez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haur eskolak finantzatzeko planak iragarri ditu, eta adierazi behar dugu dagoeneko zenbait kexa iritsi zaizkigula, zerbitzuak gehiegizko gastuak ekarriko dituelakoan familientzat. Nabari denez, beharrezkoa litzateke beken edota diru-laguntzen sistema sendoago bat, zailtasun handienak dituzten familientzat benetan lagungarriak litzatekeena laneko eta etxeko ardurak bateratzeko orduan. Era berean, erakunde honetatik azaldu nahi dugu, haur hezkuntzaren azken buruko helburua gogoan izanik, zerbitzu honek kostu berbera izan beharko lukeela eskaintza publikoaren sare osoan, eta jakinarazi diren finantziazio-irizpideek ez luketela oztopo izan beharko horretarako, gure ustez helburu hori premiazkoa eta ezinbestekoa baita.

**Hezkuntzarako plangintza**ren arloan, 2003an azpimarratzekoa da zenbait familiak aurkeztu duten kexa, salatu baitute bizi diren aldean ez dutela behar besteko eskaintzarik jasotzen hezkuntza alorrean. Geroago kexaren laburpenean zehatzago ikusiko denez (371/2003), Vitoria-Gasteizko egoitza-alde berri batean bizi dira, eta hezkuntza Administrazioak ez zuen aurreikusi –ezta erantzun ere, noski– hango familiek halabeharrez sorraraziko zuten eskolatze-eskaria.

Plangintzarekin jarraituz, beste kexa batzuk ere aurkeztu dira, orain dauden eskoletako instalazioak egokitzeko eskatzen dutenak. Hala gertatu da Getxoko Gobela ikastolan eta Hernaniko Langile ikastolaren kasuan ere. Honen haritik esan beharra dago zenbait ikastetxek egindako eskaera edo proposamenei helduz gero, har litezkeen neurri batzuek (ikastetxeek bat egin beharrak, instalazioak lekuz aldatzeak…) eztabaida ekar lezaketela, asmo eta nahi desberdinak egongo baitira aurrez aurre. Izan ere, halaxe gertatu da Getxon, hango Larrazazubi eta San Ignazio LHIek bat egitea proposatu zenean.

**Hezkuntza** arloan dauden **behar berezi**ei dagokienez, aurtengoan ezin ahaztu diabetesak jotako ikasleen eskolatzean izan diren arazoak (ikus 222/2003 kexaren laburpena). Instituzio honen iritziz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartua zuen diabetesak jotako haurren artapena, haiekiko ardura zuzenena eta berehalakoena irakasle-tutorearen esku utzita. Irakasle horrek beste irakasleen eta osasun arloko langileen laguntza jaso lezake hala behar izanez gero. Gauzak ez dira, ordea, horrela gertatu. Nahi genuke instituzioak eragindako ofizioko espedienteak ikasle horien osasun-beharrak betearaz ditzan, ikasleak eurak ez baitira gai beren buruaren zaintzaz arduratzeko.

Ildo beretik aditzera ekarriko dugu beste kexa bat, % 75eko minusbaliotasun fisikoa duen eta itundutako eskola batean hasi den haur baten gurasoek aurkeztua. Eskatzaileen arabera, behar bereziak dituzten haurrei artapen berbera eman behar zaie, ikastetxe publikoetan edo itundutakoetan ikasi ere. Izan ere, ikastetxe publikoetan hezkuntza berezirako laguntzaileen zaintza daukate jangeletan, eta zerbitzu hau behar-beharrezkoa da familiaren eta laneko ardurak bateragarriak izan daitezen.

Hezkuntzaren beste alderdi batera joaz, estatua laikoa izanik, egun gizarteak arreta handia jartzen du erlijio-neutraltasuna bermatu dadin. Horren erakusgarri dira aurkeztu diren bi kexa, **erlijio askatasun**erako eskubideari lotuak. Kexa horietako batean salatzen zen erlijio zehatz baten ikurrak jarrita zeudela ikastetxe publiko batean. Beste kexak zalantzan jartzen zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak matrikulaziorako argitaratutako inprimakien egokitasuna, haietan erlijio eskolarik hartu nahi zen ala ez adierazi behar baitzen. Kexa aurkeztu dutenen iritziz, horrela jokatuz Hezkuntza Administrazioak erlijio askatasunaren alderdi negatiboa urratu du (ikus 630/2003 kexaren laburpena).

**Ikasketen antolamendua**ri dagokionez, aurten **batxilergoa**ren araubidean egindako aldaketek aspaldi ez bezalako zalaparta eragin dute, eta aurkari ugari izan dituzte. Erakunde honen esku-hartzearen nondik norakoak beherago azaltzen dira, 860/2003 zenbakiko laburpenean. Dena den, sarrera honetan azpimarratuko dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bete gabe utzi dituela berak behin baino gehiagotan hartutako konpromisoak –haietako batzuk Legebiltzarrean bertan hartuak– eta "alegezkotasuna" nagusi izan da batxilergoaren egituraketan egindako azken aldaketak ezartzeko orduan. Oraindik ere, txosten honen erredakzioa bukatzear dagoela, argitaratzeko dago beharrezko arau juridikoa (dekretu bat), egindako aldaketei behar duten bermea emango diena eta ikasleei aukera berberak ziurtatuko dizkiena, batxilergoko ikasketak egiten dituzten zentroa publikoa edo itaundutako ikastetxe pribatua izan.

Aurten tramitatzeko onartu diren kexen artetik beste bat ekarri dugu hona, guraso batek aurkeztua, gutxitan izaten baitira honelako erreklamazioak. Gurasoak semearen **ikasketa espedientea** ezagutu nahi zuen, derrigor artxibatu beharrekoak ez diren agiri guztiak beretzat eskuratu ahal izateko. Erakunde hau gurasoaren alde agertu da, uste dugulako auzitan zegoela administrazio agirietara iristeko eskubidearen gauzatzea, eta eskubide orokor hori lege batean jasota dago (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko Legea, 35. artikulua). Ez ginateke iritzi berekoak izango ikaslearen espedienteko daturen batengatik pentsatzekoa balitz babes premia handiagoa duten interesak daudela tartean, adingabekoaren intimitaterako eskubidea, kasu.

**Zerbitzu osagarriak** aztertzean esan beharra dago azken urteotan nabarmen ugaldu direla **eskola garraioa**rekin zerikusia duten kexak. Iaz bildutako kexen laburpenean ere neska baten gurasoek helarazitako erreklamazioa (1070/2002) jaso genuen. Neska eskolara hasia zen, eta horretarako behar-beharrezkoa zitzaion garraio zerbitzua. Hango hartan azaldu genuenez, Hezkuntza Administrazioak zerbitzu osagarri hori gurasoen nahietara egokitzea ezinezkoa zela adierazi zuenean (B ereduko eskolen antolamenduak eta zonifikazioak eragozten baitzuten), gure ustez zehatz azaldu zuen zein ziren eskola garraioaren ibilbideak. Geroago, eskola garraiorako aukerei buruz familiari emandako informazioa ahalik eta zehatzen jakin nahian, besteak beste zentroko arduradun nagusiarengana jo genuen, eta alde horretatik adierazi behar dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zigula batere lagundu gure zereginetan, eskubideak zaindu eta bermatzean alegia. Hortaz, ikasturtea bukatuta, besterik egin ezinik gaude, ez bada familiari karguak hartzeko dituen aukeren berri ematea.

Aurrekoarekin jarraituz, susmoa dugu ez ote den beste horrenbeste gertatuko 2003-04 ikasturtean jasotako kexekin. Kexa horietatik nabarmentzekoa da Langraiz-Okan bizi den familia batek aurkeztutakoa. Seme-alabek derrigorreko bigarren hezkuntzako ikasketak egiten dituzte herritik kanpo, Vitoria-Gasteizen hain zuzen. Kasu horretan Hezkuntza Sailak, kalitatezko eskaintza landa aldera ere zabaltzeko politikan

oinarriturik, ez dio garraio zerbitzu osagarrirako eskaera onartu familiari, bere iritziz Langraiz-Okan dagoen hezkuntza eskaintza gazte horien beharrak asetzeko modukoa baita. Hala ere, herri horretan ez da D eredua eskaintzen, eta horixe da, hain zuzen, familiak aukeratutakoa.

Azpimarratzekoa iruditu zaigun beste kexa bat Berrobiko (Gipuzkoa) zenbait familiak aurkeztu zuten. Herriko haurrak Tolosako ikastetxeetara joaten dira, eta familien ustez, eskola garraioa eskaintzeko aukerak aztertzean Hezkuntza Administrazioak ez du jokatu haur horien kasuan ohiko kasuetan egiten duen bezala.

Era berean, 2003an berriro salatu da bidai laguntzaileen falta (ikus 961/2002 kexaren laburpena).

**Bekei** dagokienez, jasotako kexek berriz ere jarri dute ezbaian Hezkuntza Administrazioak deialdirako Aginduko baldintza ekonomikoak aplikatzean darabiltzan irizpideak. Erakunde honek bat egiten du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak alor horretan duen asmoarekin, hau da, uste dugu bekak emateko orduan benetako errentagarritasuna lortzea hartu behar dela irizpide nagusitzat. Hala ere, besteetan esan dugun bezala, irizpide horrek ez luke biderik ireki beharko zenbait baldintza Administrazioaren nahierara aplikatzeko, deialdiko oinarrien arabera hori neurriz eta arrazoiz egin behar baita (ikus 12/2003 kexaren laburpena).

Adierazgarri iruditu zaigu, halaber, beka gisa jasotako diru kopuru batzuen bahitura. Beherago ageri diren laburpenetako batean (1151/2002) azaltzen denez, erakunde honek beti adierazi du bere ustez ikasketarako beka gisa jasotako dirua ere bahiezintzat jo beharko litzatekeela.

**Unibertsitatearen alorrean**, berriro helduko diogu 2002an ukitu genuen gai bati, UPV/EHUk ukatu baitu barne auditoria baten txostena ezagutzeko aukera. Gure iritziz, UPV/EHUk duen jarrerak ezkutukeria eta isilpeko jarduerak bultzatzen ditu nolabait, eta horrek aurka egiten die egintza administratiboen publizitate eta argitasun printzipioei. Gainera, unibertsitate sailetan kudeatze ardura duten irakasleen lana ahuldurik geratzen da, txostenak izendunak izatea neurriz kanpo argumentatuz ez baitzaie bidezko interes zuzenik onartzen irakasle horiei.

Bukatzeko aipatuko dugun kasuan, eraldatutako ikasketa planari jarraituz biologia ikasten duten ikasle batzuek ezohiko deialdiak eskatu zituzten, eta horren haritik beren kexak aurkeztu zituzten. UPV-EHUk egoki azaldu eta justifikatu ditu horrelako eskaeren aurrean darabiltzan irizpideak. Haietako bat eskatzailearen egoera aztertzen du, hau da, ea pertsona horrek azterketara ez aurkezteko edo ez gainditzeko arrazoia ustekabeko gorabeheren edo bestelako gertaeren ondorioa izan ote den.

## 4.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Bekak eta bestelako laguntzak

⇒ *Unibertsitate bekak. Bahiezintasuna* (1151/2002)

• Erreklamazioa

Trafiko zehapen bat kobratzeko hasitako behartze prozeduraren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak diru gordailu bat bahitu

zuen herritar baten banku kontutik. Bahitutako diru kopurua ikasketa beka bati zegokion.

• Azterketa

Auzipetze Zibileko Legearen arabera soldatak, ordainsariak eta pentsioak bahiezinak dira, baina Administrazioaren iritziz, zerga arautegia azterturik, bekak ez dira norberaren lanaren etekinen baliokide, eta beraz, ezin dira bahiezintzat hartu. Gure ustez, ordea, zerga arauak bestela ere uler daitezke, eta horren arabera bahiezintzat jo litezke. Nolanahi ere, AZL interpretatzean legea bera hartu behar da oinarritzat, hots, zerga arauak ezin erabil daitezke interpretaziorako irizpide bakartzat. Gainera, berea ez den arlo batean aplikatzen badira, legearen muina ahultzen dute.

Beka baten bitartez diru funtsa publikoak ematen zaizkio onuradun pribatu bati eta helburu jakin batez, eta emakida hori lehendik ezarritako irizpide eta baldintza batzuen arabera erabakitzen da. Bere aldetik, onuradunak soilik erabil dezake diru hori aipatutako helburua (ikasketak kasu honetan) betetzeko, uste baita helburua onuragarria eta sustatzeko modukoa izanik ere, ezin gauzatu litekeela diru kopuru hori jaso ezean. Hortaz, dirua bermatu nahi den helburu zehatz baterako zuzentzen da, eta horixe da, hain zuzen, beka ematearen arrazoi edo kausa nagusia. Horren arabera, ezin izango balitz helburua lortu, bekak ez luke eraginik izango, ez bailitzateke oinarrian dagoen onura publikoa beteko, beka emateko erabakigarria izan dena, hain zuzen. Bekak xede zehatz bat izateagatik, ez dago erabilgarri onuradunarentzat, eta arrazoi beragatik ere, ez dirudi modu eraginkorrean besterendu edo eskualdatu lezakeenik. Aurrekoagatik guztiagatik, bahitutako ondasuna ez litzateke besterengarri izango, hots, bertan behera geratuko litzateke bahitura betearazteko erabilitako argudio nagusia.

Kasu honetan aurrez aurre jartzen dira Administrazioaren ahalmen bat eta interesdunaren eskubide bat, eta ondorioz bakoitzaren funtsa aztertu behar da. Horren arabera, behe-mailakoa den eskubideak beste eskubidea betetzea kolokan jarriko balu, zuzenketak egin beharko lirateke horrelakorik gerta ez dadin. Alde batetik, legez, Administrazioa behartuta dago behin betiko ezarritako zor bat kobrarazten. Bestetik, aldiz, bai lege organikoek eta bai Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziak (188/2001 zk.ko epaia, irailaren 20koa) zein Auzitegi Gorenarenak (1997ko azaroaren 20ko epaia) aitortzen diete ikasketa bekei heziketarako eskubidea bermatzeko zeregina. Heziketarako eskubideak izaera konstituzionala daukala-eta, aztergai dugun administrazio-ahalmenak baino garrantzi handiagoa du, eta bidezkoa izan arren ezargarritasuna mugatuagoa duen ahalmen hori neurri gabe erabiliz gero gerta liteke eskubidearen muina ezerezean geratzea. Azaldutakoagatik, zerga-administrazioaren ahalmenaren aldean, lehentasuna eman beharko zitzaion interesatuaren eskubidea gauzatzeari, ahalmena bestelako ondasunen kontura edo geroago burutu ahal baitzen eta eraginkortasuna galdu gabe.

AZLren 606. artikuluaren arabera, bizitzeko eta norberaren lanbidea, artea edo lana betetzeko zentzuz beharrezkotzat jo daitezkeen ondasunak bahiezinak dira. Berez adierazpen hori zehaztugabea denez, haren edukia unean uneko egoeraren arabera aldatzen da; beraz, ondasun bahiezinak zehazteko irizpideak ere nahiko aldakorrak dira. Hortaz, aurrez aurre jartzen dira bi alderdi: batetik, bahitura ezarriko zaion pertsonaren eskubideen gutxieneko edukia eta, bestetik, zorra kobratzeko eskubidea beranduago betetzeak betearazlearen eskubideari ekarriko dion murriztapena. Hartzekodunaren

eskubidearen bidezko mugak zehazteko asmoz, Auzitegi Konstituzionalaren arabera (113/1989 epaia, ekainaren 22koa), muga gizakiaren duintasunaren errespetua litzateke, eta horren haritik proposatzen du ondasun multzo bat hartzekodunen egintza betearazletik babestea, modu horretan zordunak bizimodu duina izan lezakeelakoan. Arauak ez du ezer esaten heziketarako eskubideaz. Hala ere, gizartearen bilakaerak dakartzan beharrengatik Konstituzioak hezkuntza oinarrizko eskubidetzat hartu izanak bide ematen du heziketa ere bizitzeko gutxieneko baliabideen artean jasotzeko. Horiek horrela, zor baten betearazpena atzeratu beharko litzateke kobratzeko erabiliko den dirua pertsona baten heziketarakoa balitz edo zorra kobratzeagatik heziketa arriskuan jarriko balitz.

Goian azaldutakoagatik, gure iritziz Administrazioak ez zuen ukitu behar diru kopuru hura, banku gordailu bat izan arren ikasketa beka baten dirua baitzen. Haren ordez bestelako ondasunak bahitu beharko ziratekeen, edo zorra geroago kobratu.

• Emaitza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren ustez burututako egintza zuzena eta arautegiaren arabera bete beharrekoa zen. Dena den, prest agertu zen guk helarazitako arrazoien ezarpena aztertzeko gerora izan litezkeen antzeko kasuetan.

## B) **Eskubideak eta betebeharrak**

⇒ *Eskola garraioa. Bidai laguntzaileen beharra* (961/2002)

• Erreklamazioa

Arabako herritar batek ikasturtearen hasieran zuzendutako kexaren arabera, Abornikanotik Izarrarako eskola garraioa bidai laguntzailerik gabe egiten zen. Antza denez, urtero gertatzen da gauza bera, garai berean eta zenbait ibilbidetan.

• Azterketa

Aurrekoari buruzko informazioa eskatu genuenean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, goian azaldutakoa berresteaz gain, azaldu zuen hutsaren berri izan bezain pronto errekerimendua egin ziola esleipendun enpresari zerbitzua behar bezala bete zezan, eta horretarako zenbait jardun burutu ondoren halaxe gertatu zela.

Hala izanda ere, erreklamazioaren aurkezlea kezkaturik zegoen, arazoak ez ote ziren hurrengo urteetan berriro gertatuko. Ulergarri deritzogu, laguntzailea behar-beharrezkoa baita mota horretako garraioetan segurtasun handiagoa lortzeko, batez ere –kasu honetan bezala- garraioa bigarren mailako errepidetan egiten bada, ibilaldi luzeak betez eta urte gutxiko haurrak eramaten.

Apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuak, eskola garraioari eta adingabekoen garraioari buruzkoak, zehatz azaltzen du zein kasutan den derrigorrekoa laguntzaileak egotea. Areago, dekretuan jasotako neurriak beteko ez balira, gerta liteke delako garraio zerbitzua etenaraztea.

Bestalde, kontuan izan behar da Hezkuntza Administrazioak ardura duela zerbitzua behar bezala bete dadin, nahiz eta garraioa zeharka eskaini, enpresa baten bitartez, alegia.

• Emaitza

Kexan azaldutako egoera zehatzari konponbidea eman bazitzaion ere, gerora horrelakorik gerta ez dadin erakunde honek gogorarazi zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari beharrezkoa dela prebentzio eta kontrolerako bitarteko zehatzak eta eraginkorrak ezartzea.

⇒ *Unibertsitateaz kanpoko ikasketarako laguntzen ukatzea. Familiakoak ez diren enplegatuak* (12/2003)

• Erreklamazioa

Batxilergo ikasle baten aitak gure esku-hartzea eskatu zuen, Hezkuntza Sailak ukatu egin baitzion semeari 2002-2003 ikasturterako eskatua zuen ikasketarako laguntza. Ezetza emateko arrazoitzat, Administrazioak azaldu zuen etxe horretan gastuak zituztela familiakoak ez ziren enplegatuei ordaintzeko. Interesatuak, ordea, ez zuen bidezkotzat jo ukatzeko arrazoia, bere errenta-maila ez zuelako gainditzen Deialdirako Aginduan ezarritakoa. Gaineratu zuen, halaber, beharrezkoa zitzaiola kontratupeko langile bat izatea, bestela ezin izango baitzituen bere merkataritza-jarduerak modu egokian bete.

• Azterketa

Aztertzen dugun laguntzetarako Deialdi Aginduko baldintza ekonomiko orokorrak zehaztu nahian errenta tarte batzuk ezarri dira. Horrekin batera, kudeaketarako bulegoari tresnak eman zaizkio eskatzaileari buruzko balorazioak egin ahal izateko, egoera bereziren bat gertatzen denean. Horren ondorioz, baldintza orokorrak betetzen dituen eskatzaile baten datuetan iruzur zantzurik sumatzen bada edo haietan igarritako koherentzia falta behar bezala argitzen ez bada, organo kudeatzaileak ukatu egin dezake eskatutako laguntza.

Egoera berezi horiek aipatu dugun Legean zehazten dira; izan ere, 18. artikuluaren 3. idazatian ondoko hau dago jasota:

> *"Laguntza uka liteke haren beharra behar bezala egiaztatzen ez bada. Beste horrenbeste egin liteke aurkeztutako agirien arabera familiatik kanpoko pertsonalerako gastuak daudela sumatuko balitz."*

Testua irakurrita, gure ustez goiko artikulua ez litzateke erabili beharko laguntzak besterik gabe ukatzeko. Artikuluaren arabera, aurkeztutako datuek deialdiko baldintza orokorrak betetzen badituzte organo kudeatzaileak gutxieneko egiaztatze lanak egin beharko ditu, datu horiek egiazkoak diren eta elkarrekin bat datozen jakiteko. Horretaz gain, gure iritziz eskatzailearen datuei buruzko balorazio hori ez litzateke soilik egin beharko interesatuak ukatzearen kontrako gorabidezko helegitea aurkeztu duen kasuan, prozedura osoan baizik.

Gure iritzia dagokion sailari helarazi genion, baina han, hartutako erabakiari eutsi zioten (enplegatuak dauden kasu guzti-guztietan laguntzarik ez ematea, alegia), gaiaren inguruan inolako balorazio juridikorik egin gabe.

• Emaitza

Kasua azterturik, Arartekoaren iritziz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabilitako irizpideak laguntzetarako Deialdi Aginduaren 18.3 artikulua hautsi zuen. Hori dela eta, aztertutakoa bezalako kasuetan irizpidez aldatzeko gomendatu diogu Sailari, hau da, ikasketarako laguntza eskatu duenaren familiak bere baitakoa ez den pertsonaren bat enplegatua duenetan, balorazioa kasuan kasukoa izan dadin eta horrelako eskaera guztiak bestelako azterketarik gabe uka ez daitezen.

Honako txostena bukatzen ari garen honetan, ez dakigu zer jarrera hartu duen Hezkuntza Administrazioak luzatutako aholkuaren gainean.

⇒ *Hezkuntza. Eskatzaileak bizi diren aldean eskaintza ez da behar bestekoa* (371/2003)

• Erreklamazioa

Lakuan eta Sansomendin bizi den Vitoria-Gasteizko aita-ama talde batek instituzio honetara jo zuen, beren bizilekuko erreferentzia-ikastetxeak ez baitziren inondik ere nahikoa seme-alabak D ereduan eskolatzeko.

Aurkeztutako kexan azaltzen denez, familiek bilerak egin zituzten Arabako lurralde ordezkariarekin. Adierazten zuten, halaber, zergatik ez zuten onartu Hezkuntza Administrazioak egin zuen proposamena, inguruetako ikastetxe bateko lokalak erabiltzea eta interesatuen seme-alabentzat garraio zerbitzu bat antolatzea planteatzen zuena. Gurasoen ustez, ordea, bazegoen beste aukera bat: erreferentzia ikastetxe bateko (Barrutia ikastola) ikasgelak edo inguru horretako lokal bat erabiltzea, hain zuzen. Salatzen zutenez, gainera, Administrazioak ez zion inolako erantzunik eman proposamenari.

• Azterketa

Erakunde honek esku hartu zuen auzian, eta Hezkuntza Administrazioak azaldu zuen, arrazoi zehatzak eta objektiboak emanez, zergatik ezin zituen onartu gurasoek beren seme-alabak eskolatzeko egin zituzten proposamenak. Hona hemen emandako informazioaren zati bat:

> *Behin betiko konponbidea emateko, ikastetxe bat eraiki behar da Vitoria-Gasteizko udalak laga duen orubean*
> *(…)*
> *arazoa sortu den inguruko gurasoek bazekiten (...) zein aukera zerabiltzan Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak 2003/2004 ikasturtera begira.*
> *Hala ere, arazoa zeukaten aita-ametako batzuek Ordezkaritzara jo zuten bestelako konponbideak planteatuz, baina Lurralde Ordezkariarekin egindako bileretan ez ziren onartu.*
> *Arartekoak osatutako testuan, planteatu ziren konponbideetako bi jasotzen dira, lehenago aipatutako bileretan mahairatuak:*
>
> • *CEP P.I. Barrutia LHIko zenbait gela erabiltzea.*
> • *lokal bat egokitzea inguru horretan.*

*Lehenengo proposamenari dagokionez, gauza jakina da CEP P.I. Barrutia LHIk bi lineako zentroa dena, hau da, 2 talde dituena maila bakoitzean. Beraz, Haur Hezkuntzako 3 mailak eta Lehen Hezkuntzako 6ak kontuan hartzen baditugu, zentroak 18 gela ditu guztira. Jakina denez, bestalde, aurreko urteotan ikastetxeak dituen baliabide guzti-guztiak erabili dira (1999/00n 19 talde; 2000/01ean 18 talde; 2001/02an 18 talde; 2002/03an 18 talde).*

*Gorde beharreko gela osagarriak erabili gabe uzten badira, ezin izango da beste ikasle talderik hartu, ez Haur Hezkuntzarako eraikinean ezta ikastolako Lehen Hezkuntzarako eraikinean ere. Gainera, bi eraikin horien artean hiriko bide bat dago.*

*Edonola ere, haur hauek hartzeko utzi egin beharko lirateke gaur egun ezinbestekoak diren eremu didaktikoak (psikomotrizitate gela, musika gela, hizkuntza laborategia...), eta horren ondorioz bestelako arazoak sortuko lirateke, hirian ospe handia duen zentro batean.*

*Gainera, honela konponbidea bilatuko litzateke datorren ikasturterako, baina zer gertatuko litzateke hurrengo ikastaroan?*

*Bigarren proposamena dela eta –inguru horretan lokalak bilatzea-, argi dago inguru horretan nekez aurkituko dela 1.004/1991 Errege Dekretuan ezarritako ezaugarriak dituen lokal bat (50 m$^2$ko gela bana taldeentzat, psikomotrizitate gela, irakasleen gela, bisitarientzako gela, komunak, patioa, etab.). Izan ere, talde eta ikasle kopurua handia ez balitz ere, behar diren eremu osagarriak ia lehengo berak izango lirateke. Ildo beretik, gogoratu beharra dago lokalek berea bakarrik den sarbidea beharko lukeela, eta jolastokiak ere, lokalarentzakoa soilik izateaz gain, neurri egokiak izan beharko lituzkeela."*

Goiko informazioaren berri izanda, erakunde honen ustez agerian jarri eta salatzekoa zen Hezkuntza Administrazioak ez zuela aurretiaz behar bezalako neurririk hartu sor zitekeen eskolatze eskariari eusteko, eta esperatzekoa zenez, eskaria hazi egin zen Vitoria-Gasteizko egoitza-alde berri horretan.

Aurreikus zitekeen bezala, eskolatze eskariak gora egin zuen, eta horri eusteko behar ziren instalazioak eta ekipamenduak urri geratu ziren. Gainera, egoera ez zen berehala zuzenduko. Esandakoa gertatu zenean, erakunde honek azaldu zuen Administrazioak konponbideak bilatu behar zituela, instalazio eta ekipamenduetan zegoen hutsa zuzentzeko eta egoera berriari eusteko adina izan zitezen.

Hala ere, kexan azaldutako egoera eta gorabeherak hemen esan den bezala izanda ere, Hezkuntza Administrazioak emandako azalpenak azterturik, instituzio honen iritziz sailak gurasoen eskolatze proposamenei egin zien ukoa arrazoiturik eta bidezkoa izan zen.

• Emaitza

Beraz, eta adierazitakoa aldaraziko zuen beste daturik ez zegoelarik, erakunde honek ez zuen arrazoirik ikusi berriro Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jotzeko.

⇒ *Erlijio askatasunerako oinarrizko eskubidearen alderdi negatiboa: hezkuntza arloan izandako benetako kasu bat* (630/2003)

• Erreklamazioa

Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikasketak direla eta, herritar batek adierazten zuen bere kexan ez zegoela ados Erlijio irakasgaia edo aukerakoak hautatzeko erabili behar den prozedurarekin, bai ikastetxe publikoei bai itaundutako pribatuei dagokienez.

• Azterketa

Funtsean, kexaren oinarria erabiltzen diren “matrikulazio inprimakiak” dira, batzuetan ikastetxeak berak eginak eta beste batzuetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratuak. Izan ere, inprimaki horietan (*“Izena emateko eskabide-orria…”* orriburukoak) interesatuak adierazi behar du erlijio eskolarik hartu nahi duen edo ez.

Laburbilduz, erreklamaziogilea ez dator bat prozedura horrekin, bere iritziz urratu egiten duelako erlijio askatasunerako eskubidea –zehatzago haren alderdi negatiboa–, Konstituzioaren 16.2 artikuluan jasoa. Galdetegia betetzean, esan bezala, erlijio irakasgairik izan nahi den azaldu behar da, eta horrek behartu egiten du herritarra bere sinesmenak, edo sinesmenik eza, aitortzen.

Horiek horrela, erreklamazioa jarri zuenaren ustez badaude bestelako prozedura batzuk oinarrizko eskubide hau hobeto errespetatzen dutenak, eta gainera, horrela jokatuz ez litzateke Hezkuntza Administrazioaren eginkizuna kaltetuko, haren lehentasunetako bat herritarren aukerak garaiz jakitea ere baita, ikastaroa modu egokian antolatu ahal izateko, hain zuzen.

Ildo beretik, kexa aurkeztu zuen herritarrak gogora ekarri zuen Gaztela-Mantxako Herriaren Defendatzaileak antzeko kasuetan izandako jarrera. Hango Defendatzailearen aburuz, Administrazioak horrela jokatzeak aurka egiten dio erlijio askatasunerako eskubidearen alderdi negatiboari, gisa horretako inprimaki bat betetzeak eskatzailea behartzen baitu bere erlijio sinesmen berri eman dezan.

Gaztela-Mantxako Erkidegoko Hezkuntza eta Kultura Sailari helarazi zitzaion ebazpenak bat egiten zuen, amaieran, goian azaldutakoarekin. Izan ere, ebazpenean –auzian ezargarri diren arauak eta Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia behar bezala aztertu ondoren– zenbait hausnarketa egiten ziren. Haietako batzuk aukeratu ditugu hona ekartzeko:

> *“…Estatuaren akonfesionaltasuna oinarritzat duen sistema juridiko-politiko batean, instituzio publiko guztiek, eta areago ikastetxeek, jokabide neutralari heldu behar diote. Beraz, herritarren askatasuna edo berdintasuna urratuta suertatzen badira, pentsatzekoa izango da hala gertatu dela akonfesionaltasunak ezarritako mugak gainditu direlako.*
> *Erlijio eta gurtza askatasuna ez da bakarrik ageri horretarako ahalmenak inolako eragozpenik gabe gauzatzen direnean; izan ere, inork ez du parte hartu behar bere sinesmenen kontra jotzen duten erlijio erritoetan edo gurtzetan, eta hortxe datza erlijio askatasunaren beste alderdia.*
> *Erlijio askatasunerako eskubidearen bi alderdiek -positiboa zein negatiboa- besteen sinesmenak errespetatzen behartzen gaituzte, baita norberaren*

*eskubidea erabiltzean ere. Gurasoek, bada, eskubidea dute beren sinesmenekin bat datozen erlijio edo moral irakaspenak aukeratzeko seme-alabentzat, eta hori aginte publikoek bermatu behar dute. Hortaz, ezin da inor behartu bere ideologia, erlijioa edo sinesmenak aitor ditzan.*
*Erlijio irakaspena nahitaez eskaini beharrekoa da ikastetxeentzat, eta aukerakoa ikasleentzat, eta 'haurrek erlijio eskolak hartuko dituzte beren gurasoek hala eskatu badute'. Gurasoek edo tutoreek –baita ikasleek eurek ere, adin nagusikoak badira– adieraziko dute, bere borondatez, erlijio irakasgaia nahi dutela, eta ikastetxeak hala galdetuko du ikaslea zentro horretan lehen aldiz matrikulatzen denean edo etapa bakoitzaren hasieran..."*

Aurrekari hauek ikusirik, kexa izapideetarako onartzea erabaki genuen. Gure jarduna behar bezala bideratzeko, EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza eskatu genuen, auziari buruz zeukan iritzia jakin nahian. Horregatik, txostena eskuratzeko eskabidean lehenago azaldu ditugun hasierako datuak gehitu genituen.

Bestalde, uste genuen Gaztela-Mantxako espedientean jasotako gorabeherak (haur hezkuntzan eta ikastetxe publiko batean jazoak) baliagarriak izango liratekeela irakasgaia nahitaezkoa den gainontzeko ikasmailetan eta itundutako zentro pribatuetan, bietan berdina delako ikasleak hartzeko prozedura.

Nahiz eta geroago indarrean sartu abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa, Hezkuntzaren Kalitaterakoa, ez genuen uste horrek aztergai geneukan auziaren nondik norakoak aldatuko zituenik.

"Kalitate Legea" deritzonak bigarren xedapen gehigarrian ukitzen du gai hau. Bertan azaltzen denez, irakasgai berri eta komun bat ezarri da ("Gizartea, Kultura eta Erlijioa"), nahitaez eskaini eta hartu beharrekoa, eta horri dagokionez aukera ematen zaio ikasleari adar konfesionala edo akonfesionala hauta dezan.

Bestalde, hezkuntza sistemaren antolamendu berri hori 2004-2005 ikasturtean hasiko da modu orokorrean aplikatzen. Hori dela eta, zenbait dekretu argitaratu dira antolamendu orokorra eta Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko irakasgai komunak zehazteko (2003ko ekainaren 27ko 829, 830, 831 eta 832 errege Dekretuak, hurrenez hurren).

Lehen dekretuan soilik adierazten da ikasleen ikasketa-planean erlijio irakasgaia izateko aukera jasota dagoela, hala nahi duten gurasoen seme-alabei begira (bigarren xedapen gehigarria). LH, DBH eta Batxilergoari dagokienez, beste hiruretan -lehen xedapen gehigarriaren laugarren idazatian- ondoren azaltzen den prozedura jasotzen da, gizarte, kultura eta erlijio irakasgaiaren adar konfesionala edo akonfesionala aukeratzeko:

*"Irakasgai honen adar bata edo bestea aukeratzeko prozedura abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuaren 3.1 artikuluan eta 3.2 artikuluaren lehen tartean zehaztutakoaren araberakoa izango da. Artikulu horietan Erlijioa eta haren ordezko ikasketak aipatzen dira, hau da, Gizarte, Kultura eta Erlijio irakasgaiaren aukera konfesionala batetik, eta akonfesionala bestetik".*

Erregelamenduzko arau horrek erlijioaren irakaskuntza arautzen du, eta antolamendu berriak bertan azaldutako prozedurari heltzen dio dauden aukeretako bat

hautatzeko orduan. Gaztela-Mantxako Herriaren Defendatzaileak oinarrizko eta derrigorrekotzat hartu zituen prozedura eta arau horiek berak izapidetutako espedientean.

• Emaitza

Txosten hau bukatzen ari garela, zain gaude Euskadiko Hezkuntza Administrazioak arlo honetan erabiliko duen tratamenduaren berri izateko.

⇒ *Eskola garraioa* (699/2003)

• Erreklamazioa

Gipuzkoako Berrobi udalerrian bizi diren familia batzuek kolokan jarri dute erakunde honen aurrean, hezkuntza administrazioak eskola garraioaren zerbitzua amaitutzat emateko hartutako erabakia; izan ere, zerbitzu horri eutsiko balitzaio, beraien seme-alabek Tolosako eskoletara joateko aukera izango lukete.

Lehenengo balorazio batean, erakunde honek interesatuei jakinarazi zien eskola garraioaren zerbitzu osagarri hau murrizteko erabaki hau legezko ezarpenei lotzen zaiela, betiere hezkuntzako benetako aukera berdintasuna bermatzeko asmoz. Ezarpen horiek garraioaren eta jantokiaren zerbitzuen doako prestazioa mugatzen dute ondoko kasuetara: hezkuntzako kalitatea bermatzeko, ikasleek inguruko udalerriren bateko eskolara joan behar badute, hain zuzen ere.

Ildo honi jarraituz, jakinarazi zaie, hezkuntza administrazioak udalerrian beraien aukerako hezkuntza eredua eskatzea ahalbideratzeko beharrezko neurriak hartu baditu, horrek zerbitzu osagarriak eskatzeko aukerari zilegitasuna kentzen diola; izan ere, zerbitzu osagarri horiek bakar-bakarrik justifika daitezke, lehenago esan dugun bezala, ikasleek inguruko udalerri batera lekualdatu behar dutenean kalitatezko hezkuntza zerbitzu batera sartu ahal izateko.

Edozein kasutan ere, laburbildu den lehenengo balorazio hau kontuan hartuta ere, familia hauek salatzen tematu dira, oinarrizko planteamendu hau alde batera utziz, hezkuntza administrazioa udalerrian bizi diren ikasleen arteko tratu bereiztua sortarazten ari dela; izan ere, batetik, famili talde bati ukatzen dio eskola garraioa izateko aukera, nahiz eta familia horien erabakia Berrobiko ikastetxeko irakasle batekin dituzten harreman zailetan babesten dutela jakin, betiere eskolako tratu txartzat hartzen dituzten eta bere garaian salatu zituzten gertakizun batzuetan oinarrituz; eta, bestetik, garraio zerbitzu horren doako erabilera baimentzen dio gai politikoekin zerikusia duten izaera pertsonaleko aparteko arrazoiak dituen familia bati.

Jakina denez, azken salaketa honen ondorioz, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu dio jakinaraz diezaion zeintzuk diren ikasleak hurbil dagoen Tolosako eskolara joateko garraio zerbitzua baimentzeko ala ez jarraitu diren irizpideak, betiere aipatutako kasuak oso aintzakotzat hartuta.

• Azterketa

Kexa tramitatzean egindako gestioen ostean, hezkuntzako ikuskaritzak artxiboak kontsultatu eta jakinarazi digu, Berrobiko ikastetxeari dagokionez, ez dagoela ikasleei, oro har, edo ikasle batzuei, bereziki, zuzendutako tratu txarrak egiaztatzen duen agirik, ez eta halako egoera erakusten duen salaketarik ere.

Halaber, honen ondorioz, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzako ikuskatzaile bat elkarrizketa bat izan zuen ikastetxeko zuzendariarekin eta horrek argi eta irmo ukatu zuen bere zuzendaritzapean horrelako tratu txarrik egon zenik; hala ere, aitortu zuen diziplinako arazo baten ondorioz irakasle batek zaplastako bat eman ziola ikasle bati. Hezkuntzako ikuskaritzak, gertakizun horiek guztiz argitzearren, batzarra egin zuen gertakizun horretan inplikaturiko familiarekin eta irakaslearekin.

Gauzak horrela, ez du ematen garrantzi handiko aurrekaririk dagoenik, ez behintzat plano juridiko batean; beraz, ezin da tratu txarren existentziari eutsi, ez eta horrek ekar ditzakeen ondorioei ere, baina onartu eta aintzat hartzen du familiek irakasle horrekin dituzten harreman korapilatsu eta zailak argudiatzeko izandako ika-mika.

Edozein kasutan ere, horretarako baimena duten hezkuntzako arduradun batzuek argudiatu duten bezala, aitortu beharra dago, hezkuntzako ikuskaritza beste ondorio batera ailegatu izan balitz ere (tratu txarren baieztapena...), kinka larri horrek beharreko esku-hartzeak ekarriko zituen, inplikaturiko pertsonen balizko diziplina erantzukizuna zehazteko eta abarrerako, baina horrek ez zuen ahalbideratuko tratamendu berezitua ezartzea, hala nola eskola garraioaren moduko zerbitzu osagarriak.

Bestalde, gai politikoekin zerikusia duten izaera pertsonaleko aparteko arrazoien ondorioz, garraio zerbitzuaren erabilera baimentzeko hartutako erabakiari dagokionez, erakunde honek kontu handiz esku hartu nahi izan zuen, are gehiago garraioa baimentzeko erabakia justifikatzeko erabilitako argudio korapilatsuak gogoan; hala ere, hezkuntza administrazioak ez dio Arartekoari horren inguruko azalpenik eman eta idatziz ondoko hau baino ez dio adierazi: "*garraio publikoa jartzeko erabakia (...) aparteko arrazoietan oinarritzen da eta hezkuntza administrazioak zerbitzuaren aldez aurretiko prestazio desegokiari irtenbide emateko duen nahian justifikatzen da, ukitutako pertsonei erantzun aproposa emateko; era berean, ikaslearen prestakuntza egokia bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzen laguntzen du.*"

Gauzak horrela, garraioaren doako erabilera baimentzeko erabakiak (geroago egiaztatu eta jakin ahal izan dugunez, kontseilariak berak hartutakoa izan da eta argudiatu da *izaera guztiz pertsonaleko zirkunstantzietan*) ez dauka bestelako azalpenik eta horrek ez du laguntzen jakiten, gainetik bada ere, zein zen hezkuntza administrazioak konpondu beharreko zerbitzu prestazio desegoki hori.

Gainera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimenaren erabakia arrazoitzeko zirriborratu duen egoera hau (hezkuntza zerbitzuaren prestazio desegokiak sortarazitako egoera konpontzeko premia) ez dator bat familiak garraio eskabidea eskatzeko erabilitako aurrekariekin; izan ere, lortu ahal izan dugun informazioaren arabera, erabilitako argudioek ikaslearen aitaren (udalerriko aurreko alkatea) eta Berrobi ikastetxeko irakasle baten (beste talde politiko bateko zinegotzia) arteko desadostasun politikoei baino ez diete men egiten. Desadostasun horiek, familiaren esanetan, une batean eskola kontseiluaren erabaki batean igarri ziren, bai eta seme-alaben hezkuntza jarraipena errazteko harreman on eta normalizatuetan ere, baina ikaslearekin berarekin izandako tratuan ondorio negatiborik batere ekarri gabe.

Honaino iritsita, gauza nekeza da alde batera utzi ahal izatea hezkuntza administrazio honek familia horrek alegaturiko arrazoi pertsonalei -egia esan, horiek ere ez dira batere azaldu- eta gainerako familiek dituzten harreman korapilatsuen erreakzio hutsari emandako tratamendu desberdina; izan ere, azken harreman horiek ere nahiko labainak

dira ikasleetariko batek jasotako tratu desegokiaren ondorioz, zeina administrazio instantzia guztiek onartu eta aintzatesten baitute.

Erakunde honen ustez, ez dirudi jarduketa mota hauek lagun dezaketenik hezkuntza administrazioak behin eta berriz aipatutako helburua, hau da, landa eremuko ikastetxeak sendotu eta indartzekoa, bultzatzen.

• Emaitza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zien erantzunik eman erakunde honek kexaren tramitazioan egindako iradokizunei; horrek behartu gaitu esku hartzeko ditugun aukerak amaitutzat ematera. Hala eta guztiz ere, hezkuntza administrazioari behin betiko ondorio hauek helarazi dizkiogu:

Lehena- Berrobiko ikastetxean programaturiko hezkuntza eskaintzak zilegitasuna kentzen dio hurbil dagoen Tolosako eskolara joateko garraioaren zerbitzu osagarria izateko gogoari.

Bigarrena- Eskolako tratu txarren balizko aurrekari edo gertakizunek, hala badagokio, diziplinako jarduketak ekarri behar dituzte, eta ez dira erabili behar tratamendu bereziak justifikatu eta ahalbideratzeko, hala nola eskola garraioaren moduko zerbitzu osagarrien tratamendua.

Hirugarrena- Izaera pertsonaleko aparteko arrazoiak kontuan hartzeko aukerek irizpide orokorrak eta eskola garraioaren egutegia finkatzeko urteroko jarraibideetan behar besteko estaldura izan behar dute.

Laugarrena- Kexa hau eragin duen kasuan, hezkuntza administrazioak, erakunde honen eskakizunak bazter utziz, ez du justifikatu, ez eta modu egokian arrazoitu ere, eskabidea gai politikoekin zerikusia duten aparteko arrazoietan oinarritu duen familiari laguntzeko premia. Horrek adierazi nahi du gutxienez arbitrariotzat hartu beharreko administrazio erabaki baten kasuan gaudela.

Bosgarrena- Gainera, erabaki honen bitartez, hezkuntza administrazioak hezkuntzaren osagarriak (eskola garraioaren zerbitzua, esate baterako) diren zerbitzuen kudeaketa zuzentzeko aukera berdintasuna urratu du, bereizkeria bultzatzeagatik baztertu beharreko batzuen aldeko tratua sustatuz.

⇒ *Batxilergoa. Batxilergo Modalitateak eta aukerako irakasgaiak* (860/2003)

• Erreklamazioa

Instituzio honetara zenbait kexa iritsi ziren Euskadiko Hezkuntza Administrazioak batxilergoan egiteko zerabiltzan aldaketak zirela eta, horren ondorioz ikasleek ezin izango baitzituzten aukerako irakasgaitzat hartu horrelako izaera ez duten irakasgaiak, ez bere modalitatekoak ezta ikastetxean dauden beste modalitatekoak izanda ere. Hala gertatuko zen irakasgai horien ordutegia ez zelako aukerako irakasgaien berbera izango.

Interesatuen iritziz, aldaketak muga estuak eta larriak ekarriko zituen batxilergoko ikasleen heziketan, baita murriztu ere ikasleak unibertsitate mailako ikasketetara iristeko dituen aukerak.

Bestalde, hedabideetako berritan ikusi genuenez, neurri horrek ezinegona eragin zuen hezkuntza komunitateko sektore batzuetan.

Horren haritik, jakin nahi izan genuen egia ote zen itundutako ikastetxeek –publikoak ez bezala– ikasteko ordutegia luzatu zutela aldaketak ekarriko zuen murrizketari itzuri egin nahian. Izan ere, hala eginez gero bertako ikasleek modalitateko irakasgairen bat eskatu ahal izango zuten aukerakotzat.

Gure ustez, horrela gertatzen bazen, argitu beharra zegoen jokaera horrek izan zezakeen berme juridikoa, bestela nekez arrazoitu eta onartu ahal izango baitziren ikastetxe publikoetako ikasleei hezkuntza-ibilbideetan ezarriko zitzaizkien mugak. Izan ere, arlo publikoko ikasleek murrizturik izango zituzten ikasteko aukerak, diru publikoa jasotzen duten ikastetxe pribatuetako ikasleen aldean.

Bukatzeko, ezin genuen bazter utzi beste salaketa bat. Horren arabera, ez zegoen araurik hartutako neurria babesteko behar besteko maila zeukanik.

• Azterketa

Instituzioak burutu beharreko jarduerei ekin zienean, Eskolen arloko zuzendariak txosten bat helarazi zigun. Txostenean, Batxilergoaren antolamenduan izandako aldaketak aztertzeaz gain, honako hau ere adierazten zen:

> *“Hala ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2002-2003ko ikasturtean bi irakasgai horietako irakasleekin izandako harremanen ondorioz eta Espainiako Estatuko beste Autonomia Erkidegoen klaseorduak aztertu ondoren, emandako orduekin irakasgai horiek ezin direla inolaz ere behar bezala eman ondorioztatu da.*
>
> *Arrazoi horiengatik, apirilaren 97/1997 Dekretua berriro aldatu behar da, Filosofia I eta Historia irakasgaiei beste ordu bat emanez.*
>
> *Astean 31 ordu izatea hezkuntzarako eta ikasleen errendimendurako kaltegarria dela, gehiengo zabal batek hori onartzen du, kontuan hartuta, ordu bat kendu zaie lehen eta bigarren kurtsoko aukerako irakasgaiei, lehen aipatutako irakasgaiek ordu gehiago izatearen truke.*
>
> *Hori horrela egiten da, derrigorrezko bigarren irakaskuntzaren ondokoa arautzeko joera berriak enbor-irakasgaiak indartzera, Humanitate Planaren aplikazioarekin hasitako prozesuaren ildotik, jotzen duela, aukerekotasuna bultzatzera jo beharrean, egiaztatu ondoren. Hau da, ikasleak egin nahi duen batxilergo modalitatea aukeratu behar du, eta prestakuntza-ibilbide horrek unibertsitate-ikasketa espezifiko batera eramango du. LOCE aplikatzean, orain bere garapena eztabaidatzen ari gara, seguru asko joera horrekin jarraituko da.*
>
> *Aukerako irakasgaiak astean 3 ordu izatera pasatzeak nahi ez den baina ezinbestekoa den ondorioa dakar, derrigorrean ezabatu behar baita ikasleak aukerako gisa ikasten ez dituen bere modalitateko batzuk aukerakoen multzoan hartzeko duen aukera, baita ikastetxeak ematen dituen beste modalitateetako irakasgai batzuk modalitate-irakasgai gisa hartzeko aukera ere, aukerako irakasgaiena ez bezalako ordutegia izango baitute hemendik aurrera irakasgai horiek...”*

Hasierako txosten horren ondoren beste txosten osagarri bat jaso genuen. Bertan ondokoa adierazten zen:

*"...Lehenik eta behin bi gai bereizi behar dira: ikastetxe pribatu batek klase-ordu gehiago eman ahal izateak ez du kexaren gaia den 2003ko ekainaren 19ko Ebazpena urratzeko ahalmena duenik esan nahi.*
*Hain zuzen, ikastetxe pribatu batek ez du inolako eragozpenik klase-ordu gehiago emateko, EHAAn argitara ematen diren Batxilergoko ordutegiak betiere gutxienezko ordutegiak baitira irakasgai bakoitzerako.*
*Baina aukera horrek ezin dio aipatutako Ebazpenak 3. artikuluan zehazten duenari inolaz ere eragin. Izan ere, artikulu horretan espreski debekatzen da ikasleek ikastetxeak ematen dituen modalitate-irakasgaiak aukerako irakasgai gisa aukeratu ahal izatea, ordu kopuru desberdina duten irakasgaiak dira eta.*
*Ikastetxe publiko nahiz pribatuetan irregulartasunik ikusiz gero, zuzenduko da, Hezkuntza Ikuskaritzak kontralatuko duen ikastetxe bakoitzeko Eskola Ekintzako Datutegia (EED) jaso eta gero."*

Bi txostenak aztertu ondoren, instituzio honek ateratako ondorioak helarazi genizkien interesatuei. Idazki horretan honako hausnarketak jasotzen ziren:

*"...hasteko komenigarria izango da zera ohartaraztea -nahiz eta informazio-eskarietan jada iradoki dugun-: oraingo hezkuntza-antolaketak Estatuari ematen dio hezkuntza-maila bakoitzeko ikasketa-planaren oinarrizko alderdiak -hau da, gutxienezko irakaskuntzak- ezartzeko ahalmena, baina gero, irakaskuntza horiek osatzen eta garatzen uzten die hezkuntza-administrazio eskudunei, hala nola, EAEko administrazioari.*
*Testuinguru horretan, batxilergoko ikasketei dagokienez, Estatuko oinarrizko araudiak hezkuntza-maila horren egitura azaldu du: modalitateak taxutu ditu, modalitate bakoitzeko irakasgaiak finkatu ditu, eta, azken batean, oinarrizko ikasketa-plana zehaztu. Haatik, aldi berean -esan berri dugunez-, araudi horrek berak hezkuntza-administrazioen esku utzi du aukerako irakasgaiak finkatzeko ahalmena, eta baita ere modalitate ezberdinetako berezko irakasgaitzat jotakoak ikasleek aukerako irakasgai gisa ikas ditzaketen ala ez zehazteko ahalmena. Hortaz, ez dago ahazterik euskal hezkuntza-administrazioak baduela Estatuko oinarrizko araudia osatu eta garatzeko ahalmena, eta, beste alderdi batzuen artean, aukerako irakasgaien behin betiko trataera zehatz dezakeela, dauden aukeren arabera.*
*Orduan, diskrezionalitate edo irizpen libre handiko ahalmena izanik, erakunde honek esku hartzeko aukera mugatuak ditu, eta kexarekin zerikusia duen administrazioari gauza bakarra eska diezaioke: bere erabakia modu egokian arrazoitu dezala, arbitrariotasun susmo guztiak uxatzeko.*
*Horrela, aipatu ditugun muga horiek kontuan izanik, Ikastetxeen zuzendariak bidalitako lehen idazkian emandako informazioaren kontra ezin da ezer erantzun, izan ere, hezkuntza-administrazioak zehatz-mehatz azaldu du zergatik egin diren azken aldaketok EAEko batxilergoaren antolaketan.*
*Jakina, emandako arrazoiei buruz kontrako iritziak izan ditzakegu, ados ez egotea ere legitimoa baita, baina desadostasun horrek ez dio legitimitaterik kentzen EAEko hezkuntza-administrazioak aukeratutako konponbideari,*

*eta, beraz, desadostasun horiek ezin ditugu arlo juridikora eraman, berorietan oinarrituta erabakia berriz azter dezala eskatzeko, e.a.*

*Egiaz, ezin dugu ukatu harrigarria dela euskal hezkuntza-administrazioak, "kalitatearen legea" deituriko lege berriaren ondorioz araudi berri batera aldatzen ari garen garai honetan, lehen aipatu dugun aukera ez ezartzea erabaki izana, beste hezkuntza-alor batzuetan ez bezala. Izan ere, legerian aurreikusita dago -agindu moduan ez izan arren- ikasle batek bere ikasketa-ibilbideak zabaltzeko aukera duela, aukerako irakasgaitzat hartuz beste modalitate bateko berezko irakasgaitzat jotakoetatik edozein, batez ere -berriro diot- legeria berriak ekarriko dituen aldaketak gorabehera, orain arte ahaleginak egin direlako ikasleek aldi berean bide ezberdinak bateratu ahal izateko, goi mailako ikasketak hasterakoan aukera gehiago izan zitzaten.*

*Gainera, hezkuntzako beste alor batzuetan eragozpen handirik gabe gainditzen da irakastorduen zama, baina aztertzen ari garen kasuan ezin saihestuzko premisa gisa erabiltzen da zama hori, hezkuntza-ibilbide edo espezialitate ezberdinak bateratzeko aukera zeharo baldintzatzen duen premisatzat. Horrela, gertuen dugun adibide bat aipatuko dugu: Nafarroako Foru Erkidegoa.*

*Hala ere, zorrozki juridikoa den ikuspegitik begiratuta -horixe dagokigu guri eta horrexetara bideratu behar du erakunde honek bere jarduera-, berriro adierazten dut: gure ustez, ez da gehiegikeriarik nabari euskal hezkuntza-administrazioak hartutako erabakian; erabakia behar bezala arrazoitua egoteaz gain, Estatuko oinarrizko legeriara egokitzen da, eta legeria hori errespetatu beharra dago.*

*Hori onarturik ere, eta ondotxo dakizunez, gure kezka nagusietako bat hauxe izan da: azken aldaketa horiek (batxilergoko ikasleei kendu egin zaie aukerako irakasgai gisa ikasten ez dituzten beren modalitateko batzuk aukerako irakasgaien multzoan hartzeko aukera) itundutako ikastetxe pribatu guztiei berdin eragin dien ala ez egiaztatzea, bada, gure iritziz, erakunde honen eginkizun saihestezina da ikasle guztiek ikasketa-itxaropen edo aukera berberak izango dituztela ziurtatzen ahalegintzea.*

*Azken gai horri buruz, gure ikuspegitik, hezkuntza-administrazioak gure eskariari emandako erantzunean, ez du onartu nahi etorkizunean hezkuntza-sektore ezberdinek azaldutakoak bezalako gorabeherak gerta daitezkeenik -horiengatik zabaldu genuen gure hasierako informazio eskaera-, eta egoera hori tratatzeko erreferenteak aipatu baino ez du egiten.*

*Horrela, ikusiko zenuenez, Ikastetxeetako zuzendariak bere erantzunean ohartarazi du itundutako ikastetxeek agian ez dituztela baterarraziko beren irakastorduak eta maila horretarako oinarrizko ikasketa-planean -beharrezko den gutxienekotzat- finkaturiko irakastorduak, baina ez da ausartu gure galderan iradokitako arriskuak aintzat hartzen.*

*Jakina, badakigu irakaskuntzan ezinbestekoak diren koherentzia eta homogeneotasuna ziurtatuak geratzen direla ikastetxeen -publikoak nahiz itundutako pribatuak izan- irakastorduak eta gutxieneko irakaskuntzei dagozkienak -astean 31 ordu- harremanetan jarriz, eta, normala denez, ordu horiek denok errespetatu behar ditugula.*

*Gutxieneko horietatik abiatuta, modu berean begi-bistakoa da itundutako ikastetxeek, onartzen zaien autonomiari esker, ohiko irakaskuntza-lana ez ezik, egokiak iruditzen zaizkien beste jarduera osagarri batzuk ere burutu ditzaketela beren kabuz.*

*Dena den, erakunde honek ohartarazi behar du eragozpen larria izan daitekeela proposatutako aldaketak arau-maila nahikoa ez izatea, ez bailitzateke harrigarria izango itundutako ikastetxe batzuek alderdi formal hori erabili nahi izatea beren erabaki hau babesteko: orain arte baimenduta zegoen aukera iraunaraztea (aukerako irakasgaitzat ikastea beste modalitate bateko gaiak).*

*Horrela, azaroaren 6an, Hezkuntza eta Kultura Batzordearen aurrean agertu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, berak eskatuta gainera, batxilergoaren ordutegiari buruzko aldaketak azaltzeko. Agerraldi horretan, zenbait taldek bereziki nabarmendu dute aldaketa horien "legezkotasun eza", hau da, babes juridiko nahikorik ez izatea. Hala ere, hezkuntza arduradun goren horrek adierazi duenez, aurki argitaratuko da ateratzeko dagoen dekretu hori.*

*Era berean, harrigarria iruditu zaigun arren, bai Hezkuntzako sailburuak, bai sailburuordeak, zera onartu dute: hala eskatzen duten ikastetxe publiko guztiei baimena ematen ari zaiela -haien egoera eta itundutako ikastetxeetan gertatzen ari dena berdintzeko, pentsatzen dugu- modalitate-irakasgaiak aukerako irakasgai gisa irakasteko (ordutegia eta ikasketa-plana egokituta, noski). Beraz, hala nahi duten ikasleek prestakuntza zabalago eta malguago hori jasotzen jarrai dezakete, nahiz eta horrek ez duen eraginik izango etorkizunean goi mailako ikasketetarako dituzten sarbide-aukeretan. Interesgarria irudituko zaizulakoan adierazten dizut hori.*

*Berriro lehen aipatu dugun puntu bati helduz (itundutako ikastetxe batzuek aldaketa horren arau-mailarik eza erabil dezaketela lehengo egiturari eusteko, hau da, aukerako irakasgaitzat hartzeko beste modalitate bateko gaiak), oraindik ezin da aurreratu itundutako ikastetxeek benetan baliatuko duten aukera hori. Edonola ere, hori egingo balute, benetan urratuko litzateke aukera-berdintasuna batxilergoko ikasleen ikasketa-itxaropenetan, onartutako murrizpen horiek jada ezarri baitira 2003-2004 ikasturtean EAEko ikastetxe publikoetan.*

*Horregatik, Hezkuntza Ikuskaritzak bere gain hartutako ikuskaritza-lana modu eraginkorrean aztertzeko asmoa dugu, itundutako ikastetxe pribatuak egiaz aldaketa horiek berdin ezarri ote dituzten jakiteko, ikasketa-ibilbide ezberdinak bateragarri egiteko murrizpenari dagokionez."*

• Emaitza

Kexak ezarri zituztenekin hartutako konpromisoa betetzearren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helarazitako idazkian erakunde honek eskatu dio Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuak egiten duen lanaren berri eman diezagula, Batxilergoko ikasleek aukera berberak dituztela ziurtatze aldera, ikasketak ikastetxe publikoetan edo itundutako pribatuetan egin ere.

## C) **Hezkuntza berezia**

⇒ *Hezkuntza baliabideak aldatzearen arrazoi eske* (990/2002)

• Erreklamazioa

Zentro publiko batean ikasten duen adin gutxiko mutil baten amak kexa bat aurkeztu zuen. Mutilak hezkuntza behar bereziak zituen, eta amak erreklamazioan azaltzen zuenez, ez zegoen ados Hezkuntza Administrazioak semeari ematen zion zerbitzuarekin, aurreko ikastaroan zituen fisioterapia eta logopedia saioak kenduak baitzizkion.

Amaren ustez, zerbitzua kentzeko arrazoia aurrekontuaren murrizketak ziren, eta horrek ulergaitzago egiten zion erabakia.

• Azterketa

Datuak ikusita, kexa tramitatzeko onartu genuen, eta berehala ekin genion espediente osatzeari. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo genuen informazio eske, gure lana behar bezala egiteko datu gehiago behar baikenituen. Horretaz gain, jakin nahi genuen zein iritzi zuen Administrazioak erreklamaziogileak emandako bertsioaren inguruan.

Jakinarazi zigutenez, saioak ez ziren gutxitu giza edo diru baliabideak urritu zirelako, baizik eta aurreko ikasturtean Berritzeguneak behar baino fisioterapeuta bat gehiago zuelako langile zerrendan.

Izan ere, lanpostu hori lan plantilari buruzko auzi-ebazpen bat betetzeko sortu zen. Kexa ezarri aurreko ikasturtean, ordea, ez zen horrelakorik gertatu.

Bestela esanda, lanpostua ez zen sortu zentroaren edo Berritzeguneari dagokion eremuko beharrei eusteko, eta beraz, ebazpenaren inguruko gorabeherak zuzendu zirenean, lehengo egoerara itzuli zen.

Azaldu zitzaigunaren arabera, ez zen gutxiespen zantzurik sumatzen Berritzeguneak mutilari ematen zion zerbitzuan, zentro horrek lurraldeko beste zentroek baliabide berberak baitzituen, fisioterapeuta bana, alegia.

Bestalde, sailak azaldu zigun nolako baliabideak –ohikoak zein bereziak– zeuden eskuragarri ikaslearentzat, eta guk horren berri eman genion erreklamaziogileari.

Geroago, interesatuak logopedia eta fisioterapia saioen iraupenari buruz emandako informazioaren haritik, argitu behar izan genuen zergatik ez zetozen bat berak eta Administrazioak emandako datuak.

• Emaitza

Gure aldetik ez genuen arrazoirik ikusten auzi horrekin jarraitzeko, eta beraz, bertan geratu genuen gure jarduna.

## D) **Bestelakoak**

⇒ *Hezkuntza. Diabetesak jota eta bere burua tratatu ezinik dauden ikasleen artapena* (222/2003)

• Erreklamazioa

Helarazi ziguten kexa batean azaltzen zenez, diabetesak jota dauden eta beren burua tratatu ezin duten eskola-garaiko haurrek ez dute ziurtaturik berehalako zaintza segururik, ez baita neurri-sorta zehatzik hartu horretarako.

• Azterketa

Lehendik -eta arazo berberagatik- beste kexa batzuk iritsi zitzaizkiola-eta, bagenekien Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartua zuela ikasle horiek artatzeko ardura, baina artean bukatzeko zegoen irizpide zehatz bat, horrelako kasuetan jarraitu beharrekoa, hain zuzen. Irizpide horietan garrantzi handia emango zaio hezkuntza-eremuan haur horien ardura zuzen eta berehalakoa izango dutenen figurari, haurrak –erizaintza artapen berezirik behar ez badute ere– ez direlako beren burua tratatzeko gai.

Horregatik, gure esku-hartzea bideratzean honako beharrizan hau iradoki besterik ez genuen egin: hezkuntzaren arloko Administrazioak lehenbailehen zehaztu behar zuela nortzuk eta nola arduratuko ziren ume hauei behar zuten laguntza emateaz, eroso eta egoki eskolatuko zirela bermatzeko moduan eman ere; baina ez genuen inolako zalantzarik egiten horrelako laguntzaren ardura, azken batean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zegokiola soil-soilik.

Azken esku-hartze honi eman zitzaion erantzuna ikusirik, bada, ohartu ginen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere gain hartu nahi zuela diabetesak jotako umeei laguntzeko ardura, eta irakasle tutoreari ematen ziola haur horiek zuzenean eta bertatik bertara zaintzeko eginkizuna, beste irakasle batzuk laguntzaile izatea eta aurrez osasun langileen aldetik trebakuntza jasotzea baztertu gabe. Nolanahi ere, Osasun Sailaren lankidetza eskatzeko aukeraz ohartarazten zuen hezkuntza arloko Administrazioak, jarduteko balizko protokoloak burutzen ahalegintzeko eta eskola-ingurunean behar diren osasun laguntzak aintzat hartzeko.

• Emaitza

Aurrekoa ikusita, erakunde honen ustez bideraturik geratu zen haur horiek hezkuntza eremuan behar duten zaintza berezia, eta hortaz, bukatutzat jo zuen bere esku-hartzea.

Gerora prentsaren bidez jakin dugunez, ordea, zenbait familiak arazo handiak dituzte oraindik ere diabetesak jotako haurrak eskolatzeko. Hortaz, ofiziozko izapideei ekin diegu, behin betiko argi gera daitezen hezkuntza sailak alor horretan dituen betebeharrak (34/2003/OF).

# 5. FUNTZIO PUBLIKOA

## 5.1. SARRERA

Guztira, 2003. urtean 100 kexa jaso ditugu funtzio publikoaren alorrean, hau da, tramitatu kexa guztietatik % 9,38.

Kexetan ukitutako administrazioak banan-banan azterturik, haietako bakoitzari ondoren azaltzen den kexa kopurua dagokio:

- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........ 55
- Tokiko administrazioa ........ 22
- Foru administrazioa ........ 16

Kexen edukiari dagokionez, ordea, ondoko azpialorretan banatu dira:

- Funtzio publiko orokorra ........ 44
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa ........ 32
- Osasun alorreko funtzio publikoa ........ 18
- Poliziaren alorreko funtzio publikoa ........ 3
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ........ 2
- Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna ........ 1

### Funtzio publiko orokorra

EAEko Administrazio orokorraren 2000ko LEP dela eta, aurten ere ukitu egin behar dugu deialdian iragarritako hautaproben etenaraztea. Zalantzarik gabe, egoera hau hainbeste luzatu da ezarritako auzi judizialengatik, eta Administrazioak berak ere ezin ditu auzi horiek saihestu. Ezin horregatik ahaztu, baina, hainbat eta hainbat azterketariren egoera estua, deialdiko hautaproba guztiak eginda aukera zilegi eta sendoak baitituzte EAEko funtzio publikoan behin betiko sartzeko. Horiek horrela, beren zerbitzu harremanak normalizatu ezinik dabiltzan bitarteko funtzionario batzuek erakunde honengana jo dute, LPE eteteko erabakiak ekar liezazkiekeen kalteak zuzentzeko eskatuz.

Ulertzekoa denez, zaila da zuzentze nahi hori gauzaraztea; izan ere, etenaldiaren alderdi teknikoak azterturik nekez igar liteke nolako atzeraeraginak izango dituen, geldiarazteko epaile-manuaren aginduz aurreko prozesu batzuk berraztertuko baitira, eta horrek guztiz baldintzatzen du LPEren tramitazioa. Hala ere, gertatutakoak badu alde positibo bat, EAEko Administrazioa prest agertu delako LPEren etenaldiak kaltetu dituen aldi baterako langileen lan egonkortasunaz arduratzeko; onartzen du, halaber, balitekeela gerora froga litezkeen kalte zehatzak zuzentzea.

2003ko ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardunak ere kexa asko eragin ditu, antolatu dituen hautaproba jendetsuak direla eta. Horko horretan, aurkeztutako salaketak aztertzeaz gain, erakunde honek zenbait iradokizun egin dizkio Aldundiari, eta foru Administrazioa prest azaldu da aholkuak hurrengo hauta-prozesuei begira aintzat hartzeko.

Ildo horretatik, eta kexetan jasotakoa benetakoa izanik, Arartekoak berriro adierazi du probetara aurkeztutakoen anonimatua ziurtatu beharko litzatekeela, horrela eginez

gero epaimahaiek objektiboago eta inpartzialago jokatuko luketelakoan hautagaien merezimenduak eta gaitasuna baloratzean. Era berean, epaimahaiaren osaketak eta lanak ere ahalik eta zuzenena izan beharko lukeela azaltzen du. Azkenik, eta HAEE-IVAPek proposatu bezala, giro erosoena eta egokiena bilatu beharko litzateke probak egiteko.

Parte hartzaile askoko hauta-prozesuei buruzkoak ez ezik, bestelako kexak ere egon dira, gai zehatzagoei lotuak ordea. Tramitatu direnetatik, azpimarratzekoa da Irurako Udalak administrazio laguntzaile bat hartzeko egin zuen deialdiari dagokiona. Beherago kexaren laburpenean (428/2003) azaltzen denez, erakunde honen ustez, praktiketako kontratuaren ezaugarriak gorabehera (aldi baterako izatea, ikasketak bukatzen direnetik kontratu mota hori denbora tarte mugatu batean egin beharra, etab.) horrelako harreman mota burututako zerbitzuen parekoa da, hau da, benetako lan harreman baten aurrean gaude. Gure iradokizunak aurkezturik, hauta-probak berriro azter zitezen lortu genuen.

Tramitatu den beste kexa baten gaia jabetzako atezain-plaza bat betetzeko deialdia da, Asparrenako Udalak Araiako eskola publikorako zabaldua. Hautagaien ikasketa-tituluak baloratzeko orduan, gure ustez deialdian ezarritako baremoari baino ez zitzaion heldu behar, bestelako iritzi teknikorik erabili gabe, eta hala ohartarazi genuen, baina ez zen aintzat hartu. Ez dugu ukatzen, inola ere, epaimahaiek ahalmena dutela horrela jokatzeko, azken batean jardun ahal izateko aitorturik duten eskumen baten gauzatze hutsa baita, baina gogorarazi nahi dugu aukera hori soilik baliatu behar dela deialdian dagoen hutsune batengatik oinarriak interpretatu behar badira, baina aztergai dugun kasuan ez da horrelakorik gertatu.

Arrazoi berberagatik (hautatzeko organoek beren jardueratarako duten ahalmena), Gipuzkoako Foru Aldundia psikologo plaza bat betetzeko egin zuen deialdian ere eztabaidagarri iruditu zitzaizkigun hartutako erabakiak Hango hartan ere, objektiboak ziren merezimenduak baloratu behar ziren arau batzuen arabera, beraz, ez genuen uste epaimahaiak bestelako irizpiderik erabil zezakeenik. Gure iritziz, bada, epaimahaiak aurreko esperientzia eduki beharko zuen kontuan, baldin eta lehenagoko postuan izandako betekizunak eta deialdiko postuari zegozkionak antzerakoak edo berdinak baziren. Kontuan hartzekoa zen, noski, deialdiko plaza eskuratuko zuena administrazio bereziaren plantilako psikologia-teknikaria izango zela, eta alde horretatik ezin izango zela pareko betekizunik bilatu aurreko beste lanpostuetan.

Zoritxarrez, 2003an ere kexa batzuk lotuta zeuden atzerritar egoiliarrek lan kontratupeko lanpostu publikoak betetzeko duten eskubidearekin. Kexa horien ondorioz, eta atzerritar egoiliarrek EAEko lan kontratupeko lanpostu publikoak betetzeko duten eskubidea egokiago bete dadin, berriro ekin diogu honako hauekin hasitako elkarlanari: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE-IVAP) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saila (Erakunde Harremanetarako eta Toki Administraziorako Zuzendaritza). Nolanahi ere, esan beharra dago kexa horietan zuzenen ukituta ageri diren administrazioak (Bergara, Donostia-San Sebastián eta Usurbilgo Udalak, besteak beste) prest azaldu direla salatutako egintzak berraztertu eta zuzentzeko.

Urte horretako beste kexa batzuetan azaldutako arazoak zerikusia zuen baimenak jasotzeko eskubidearekin, batez ere norberaren betebeharrak edota familiarekikoak eta lanpostukoak betetzen direla ziurtatu behar den kasuetan.

Horrelako kasuei dagokienez, eta askotan gertatzen den bezala (ia "ohi bezala" esan liteke, gure ustez), emakume batek, Vitoria-Gasteizko Udalarentzat bitarteko lanpostua betetzeko prest zegoenak, udalaren erabaki bat salatzen zuen, haren bitartez

ukatu baitzitzaion haurra zaintzeko eskatua zeukan lanaldi murrizketa. Beherago jasotako kexaren laburpenean (894/2003) azaltzen denez, erakunde honek egiaztatu duenaren arabera –eta kexan esaten zenez bestela–, udaletik ez zitzaien lanaldi murrizketarako aukera ukatu ordezko langileei. Udal administraziotik soilik planteatu zen lanaldi murrizketarako hautua aldi baterako kontratazio zerrendetan sartzean egin behar zela. Gure iritziz –jakina denez- honelako kasuak egoki aztertzeko, arazoaren bi alderdiak izan behar dira kontuan: batetik, ezin dira kudeaketaren beharrak erabili lanaldi murrizketarako eskaera orori ezetz esateko; bestalde, ordea, egia da batzuetan zaila dena bi aldeen beharrak bateragarriak egitea, alegia, lanpostuko betekizunak eta bitarteko ordezkoak dituen behar pertsonalak. Horiek horrela, eta Konstituzioaren beraren aginduz administrazioaren jardueretan bermatu behar den eraginkortasunaren alde eginez, lehentasuna eman behar zaie zerbitzuko premiei.

Hurrengo erreklamazioa, EAEko administrazio orokorreko langile minusbaliatu batek jarria, orain arteko kexen aldean desberdina izateagatik aukeratu dugu. Irisgarritasun arazoengatik beste euskaltegi batera joan behar zuenez, interesatuak konpentsazio bat eskatzen zuen, hizkuntza trebakuntzarako programan diharduten euskaltegietako ikas ordutegien arteko aldea zela medio, bere benetako lan ordutegia ez baitzetorren bat beste langileenarekin. Erakunde honetatik saiatu gara interesatuaren egoera eta euskara eskolak lan orduetatik kanpo jasotzeko baimena daukatenena modu berean trata ditzaten (ikus 204/2003 zk.ko kexa laburpena).

Alor honetan aukeratutako azken kexan salatzen denaren arabera, Eibarko Udalak era desberdinean baloratzen zituen zerbitzuetarako peoi plaza eta eraikinak garbitzeko peoiarena. Ondoren jasotzen den kexaren laburpenean (1229/2002) zehatz azaltzen denez, kexa aurkeztu zutenen ustez lanpostuak desberdin baloratzeak sexu diskriminazio zekarren ondoriotzat.

## Osasun alorreko funtzio publikoa

Espero zen bezala, funtzio publikoaren alor honetako kexak batez ere 2002ko LEPrako hautaproben ondorioz aurkeztu dira.

Kasu gehienetan, mota horretako probetan ohiko diren erreklamazioak aurkeztu ziren, esate baterako, epaimahaiak erabilitako ebaluazio irizpideen berri izateko eskubidea izatea eta, hala badagokio, kalifikazioak berraztertzeko eskatzekoa ere. Aipatzeko modukoa da Osakidetza-SVSren jarrera, berari esker, aurkeztutako kexak behar bezala tratatu ahal izan baitira.

Alabaina, horrelako azterketetan ohikoak diren erreklamazioez gain, bestelako kexak ere egon dira, askoz arazo larriagoei zegozkienak. Alde horretatik gogoratzekoak dira, besteak beste, barne medikuntzako mediku espezialistentzat egindako deialdiaren ingurukoak.

Erreklamaziogileek hasieran aurkeztutako datuetan ere prozesuaren emaitzak aldatuta ote zeuden susmoa azaleratzen zen, horren zantzua egon baitzegoen. Batetik, datuetan ikusten zenez, lehenengo hautaproban alde nabarmena zegoen aurkeztutakoen emaitzen artean, opositore talde txiki batek kalifikazio bikain-bikainak lortu baitzituzten proba gainditua ez zuten gainontzeko azterketarien aldean. Bestetik, kexan esaten zenez, epaimahaikide batek uko egin omen zion bere postua betetzeari, ez zetorrelako bat beste epaimahaikideekin ustezko irregulartasunen aurrean izandako jokabidearekin, zehazki zenbait opositorek lehenbiziko probaren galdera batzuk aurretiaz jaso izanaren susmoa baitzebilen.

Salatutakoaren hain larria izanik, erakunde honek esku hartzean Osakidetza-SVSk informazio espediente bat irekiarazi zuen, salatutakoa argitzeko asmoz. Hala ere, burututako jardueren bitartez eskuratu ziren datuek ez zuten berririk ekarri hasierako salaketarekin konparaturik, eta ondorioz, ez zen azaldu epaimahaiaren lana ezbaian jartzeko moduko datu sendorik eta adierazgarririk. Nolanahi ere, erakunde honen ustez, aipatutako kexak agerian uzten du neurri estuenak hartu behar direla epaimahaikideen jokabidearen inpartzialtasuna bermatzeko, baita azterketarien euren aurrean bermatzeko ere. Neurri horien beharra (epaimahaiaren osaketa, etab.) are nabarmenagoa da mediku espezialistena bezalako kategoria murriztuetan, edozein hautagairen mesederakoak izan daitezkeen jokabide guztiak eragozte aldera.

Europan minusbaliatuen urtea izan den honetan Arartekoak bere egin du kexa bat, hasieran osasun arloko LPE zela-eta aurkeztua. Izan ere, erreklamazio hori ofizioko jardute gisa planteatu da, eta Euskadiko administrazio publiko guztietara zuzendu da. Erreklamaziogileak parte hartu zuen langile estatutudunen mailarako hautaprobetan, zerbitzuetarako langile-peoien kategoriara sartzeko. Pertsona horrek minusbaliotasun psikiko bat zuen (buru atzerapen arina), eta horregatik azterketa teorikoaren ordez bere beharrei egokitutako proba praktiko bat egin ziezaiotela eskatzen zuen. Geroago jasotzen den laburpenean (347/2003) azaltzen denez, lanari ekiterakoan erakunde honek sendo eutsi dio berarentzat argi dagoen irizpide bati, alegia, beharrezkoa dela funtzio publikoan sartzeko probak hobetzea, azterketak era desberdineko minusbaliatuek –baita psikikoek ere– dituzten mugetara egokitu daitezen. Hari beretik, gauza jakina da minusbaliatu psikikoentzat zaila dena oroimenezko proba batzuk gainditzea, eta horregatik ez luke harritzekoa izan beharko hautaprobak ariketa praktiko gisa egokitzeko eskaera zilegiak, baldin eta egokitze hori ez bada erabiltzen hautagaiak delako postuaren beharrak betetzeko gauza ote diren neurtzeko, hau da, haien gaitasuna behar bezala frogatzen bada.

Bestalde, hona ekartzeko modukoa iruditu zaigu kexa batek dioenez, negoziaziorako eremu bereiziak egoteak eragina izan du ordezkoen zerrendak kudeatzeko orduan, eta horren adierazgarria da Vitoria-Gasteizko Santiago Ospitalean gertatutakoa. Han, bitarteko langile zegoen emakume batek kexa bat aurkeztu zuen, obstetrizia-ginekologia alorrean aukeratu gogo zuen prestakuntza ikastaroa eginez gero, atzera egingo zuelako ospitale horretako ordezkoen zerrendan. Kasua azterturik, erakunde honek ohartarazi nahi du erreklamazioaren asmoa, hau da, lan prestakuntza eta trebakuntzarako jarduerak aldi baterako kontratu eskaintzei uko egiteko bidezko arrazoitzat hartuak izatekoa, lan baldintzen arautze alorraren barruan dagoela, eta beraz, horrelako aukera bat bakarrik onar daitekeela lan baldintzak negoziatzeko ahalmena aitortua daukaten alderdiek elkarrekin hala erabakitzen badute. Alabaina, gerta liteke –aztergai dugun kasu honetan bezala– kontratazioei uko egiteko alderdi negoziatzaileek ezarritako baldintzak Osakidetza-SVSko beste osasun instituzioetako baldintza orokorrak baino zorrotzagoak izatea.

## Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

Osasun alorrean bezala, irakaskuntzakoan aurkeztutako kexa askok ere zerikusia zuten 2002ko LEPko hautaprobekin, eta haietako gehienak oraindik daude tramitazio prozesuan.

Tramitatu diren erreklamazioetatik aztertzeko modukoa iruditu zaigun batek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jokabidea du aipagai, sail horrek bakarrik jotzen baititu ikasketa merezimendutzat dagokion kidegoan sartzeko gaikuntza egiaztatzen

duten tituluak, bestelako titulazio agiririk aintzat hartu gabe, nahiz eta irakaskuntzarako aurrekoen baliokideak izan. Izan ere, sailaren iritziz, baliokidetzat jotako titulazio horiek ez datoz bat oro har eskatu ohi direnekin. Hezkuntza Administrazioa bera, ordea, berehala azaldu zen gai honetan laguntzeko prest, eta horri esker erakunde honek, ondoren ageri den kexaren laburpena (882/2003) oinarri harturik, gomendio bat aurkeztea erabaki du.

Beste kexa batzuetan, ordea, ondorio sendoak ateratzeko behar den informazioaren zain gaude. Kasu horietan salatzen denaren arabera, ez da baloratzen Europako Batasuneko beste herrialdeetan irakaskuntzan lortutako lan eskarmentua; bestetik, adibidez, postu baterako hautagaiak, hizkuntza eskakizunei buruzko arauak indarrean sartu zirenean bitarteko funtzionario zeudenak, kexu agertzen dira ez direlako aplikatzen hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko aurreikusten diren araubide iragankorrak.

LPE alde batera utzirik, zinez aipagarri deritzogu teknologia irakasle batek ezarritako kexari. Erreklamazio horretan (ikus 84/2003 erref. zk.ko kexa laburpena) auzitan jartzen ziren bigarren hezkuntzako lan postuen zerrendetan aldaketarik egonez gero irakasleak lekuz aldatzeko erabiltzen diren irizpideak. Gure ustez, honelako kexek alderdi positibo bat dute nabarmen, haiei esker agerian azaltzen diren hutsak edo akatsak oharkabe gera bailitezke erreklamaziorik aurkeztu ez balitz. Hortaz, kexa azterturik, Arartekoak bere egiten du erabat interesatuaren asmoa, oinarrian berariazko aurreikuspenen beharra planteatzen baita bigarren hezkuntzako irakasleen leku-aldatzeko indarrean dauden arauak zehazteko, horrela jokatuz gero irizpide orokorrak egokitu bailitezke egoera berezian dauden irakasleen kasuan –teknologiakoak, kasu–. Izan ere, irakasle horiek beste kidego baterako aurkeztu baziren ere, etengabe jardun dute espezialitate jakin batean.

Adierazi beharra daukagu irakasleen ordezkapenak kexa-iturri agortezin bilakatu direla. Tramitatutakoen artetik, irakasle batek aurkeztutakoa (ikus 940/2002 kexa laburpena) ekarri dugu hona, erreklamazioaren izapideetan izandako arazo ugariak gorabehera lortu egin zuelako eskatutakoa onartzea, hau da, ikasturtearen hasieran lanpostuen kudeaketan gertatutako akatsa konpontzea eta, ondorioz, eginak zituen zerbitzuak aintzat hartzea.

Bitxia da irakasle baten kexa. Haren ustez, Hezkuntza Administrazioak ez die behar bezalako artapenik ematen ahots kordetan arazoak dituztenei, gaitz hori ez dagoelako jasota lan gaixotasunen artean. Burutu ditugun jardunei esker jakin dugunez, Administrazioa prest agertu da prebentziorako programa edo neurri guztiak ahal den heinean baliatzeko: foniatriako tekniketan trebatzeko ikastaroak, megafonia eta bestelako bitarteko teknikoak eskuratzea, azterketa medikoak eta, gerora begira, ahotsaren diagnostikoa ordenagailuz egiteko sistema bat ezartzea.

Unibertsitate alorrari dagokionez, ez ditugu aztertu ebazpen judizialaren zain dauden kexak, halaxe dagoelako ezarrita Arartekoaren Legearen 13.1 artikuluan. Arrazoi horregatik esku hartu gabe utzi dugu kexa bat, lanaldi partzialeko irakasle laguntzaile bati irakaskuntza alorrean emandako agindua zalantzan jartzen zuena. Kexan azaltzen zenez, irakaskuntza-agindu hori ez zetorren bat Sailei buruzko Erregelamendu Markoan jasotakoarekin -jakina denez, erregelamendu horren arabera proposamenak arrazoiturik egin behar dira, irakasle guztiek irakasteko duten eskubidea bermatuta gera dadin-. Gainera, aipatutako aginduak eragotzi egiten zion irakasleari beste arduraldi bat hartzea, nahiz eta kontratazio rako bete beharreko baldintzetako bat izan.

Bestalde, adierazi nahi dugu kexa baten inguruan desadostasun handiak izan ditugula UPV/EHUko Idazkaritza Nagusiarekin. Kexa hau jarri zuenari egozten zitzaizkion ekintzak

eta esanak zirela eta, Diziplina Batzordearen aginduz bi isilpeko txosten ireki zizkioten (ikus 2/2003 laburpena). Erreklamaziogileak txostenen ondorioz sortutako agiriak ezagutu nahi zituen, horrelakorik egonez gero.

Hurrengo kasuan aurreko kasuko desadostasunak areagotu ziren, eta laguntza faltaz hitz egin genezake irakasle baten eskariz tramitatutako kexaren inguruan. Irakasleak bi helegite aurkeztu zituen lan egiten duen unibertsitate zentroko zuzendaria aukeratzeko hauteskundeak zirela eta. Ez zuen, ordea, erantzunik izan. Arartekoak ere hainbat aldiz eskatu zuen helegiteek ebazpen bat jaso zezatela, baina UPV/EHUk isilik jarraitu du.

**Poliziaren alorreko funtzio publikoa**

Joan den urtean, Aratekoaren jarduteak azaltzean, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailean ertzainen zenbait bidai gastu ordaintzeari buruz onartutako jarraibideak izan genituen hizpide. Jarraibide horiek emateko arrazoia baimendutako joan-etorriak ziren, EAEtik kanpo bizi diren ertzainek beren autoetan egiten dituztenak, hain zuzen. Jakina denez, Arartekoaren ustez Herrizaingo Sailak –hala egoki iriztekotan eta Poliziari buruzko Legean aurreratutako irizpideak kontuan hartuz– zehaztu egin behar zuen zein eremutan den aplikatzekoa egoitza-betebeharra. Horrela egin ezean, indarrik gabe utzi beharko luke edozein barne araudik, ertzainen funtzionario-harremanak ukitzen baditu eta egoitza-betebeharra erabiltzen badu, berau berdintasun printzipioaren aurkakoa izateagatik.

Behin baino gehiagotan ahalegindu bagara ere, zoritxarrez Herrizaingo Sailak ez du onartu erakunde honen aholkua, eta berriz eutsi dio gastuak ordaintzeko darabilen irizpide diskriminatzaileari.

## 5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa

⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Baimendun ikastetxe pribatuetan egindako zerbitzuen balorazioa* (153/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek, irakasleen ordezkapenak egiteko prest zegoenak, kexa bat aurkeztu zuen ez zegoelako ados –EAEko unibertsitatez kanpoko zentro publikoei dagokienez-ordezkogaien zerrendak kudeatzeko erabiltzen diren jarraibideekin (1995eko irailaren 13ko Ebazpena; urriaren 5eko EHAA, 191 zk.koa). Zehazki, ezbaian jartzen zituen lehenagoko irakasle-lana baloratzeko irizpideak, ikastetxe publiko, publiko bihurtutako ikastola eta sare publikoan sartu diren bestelako zentroetan egindako zerbitzuekin konparaturik, baimendun zentro pribatuetan egindako lanari balorazio txikiagoa ematen baitzaio.

• Azterketa

Esan beharra dago kexa honek ez duela auzitan jartzen aurreko esperientziak balorazio desberdina jasotzea, egondako ikastetxearen izaeraren arabera (publikoa edo pribatua). Izan ere, Auzitegi Gorenak berak ohartarazi duenez, bi zentro mota horitako

araubide juridikoaren artean desberdintasun nabarmenak daude, eta horrek justifikatu egiten du batean eta bestean egindako zerbitzuak era desberdinean baloratzea. Honi buruz, ikus Auzitegi Gorenaren Epaia, 1993ko abenduaren 15ekoa (RJ 1994/4360).

Hartara, benetan ezbaian jarri dena baloraziorako irizpideak dira, gaur egun ordezkogaien zerrendak kudeatzeko jarraibideetan jasotakoak, alegia. Bi arrazoi aipatzen dira horretarako:

Alde batetik, gehieneko puntuazio bat ezarri da, ikastetxe pribatuetan egindako zerbitzuei bakarrik aplikatzekoa. Izan ere, oraingo jarraibideen arabera, baimendun zentro pribatuetan izandako esperientzia baloratzeko 5 puntu baino ezin dira eman; sare publikoko ikastetxeetan egindako zerbitzuen kasuan, aldiz, ez dago inolako mugarik puntuak emateko orduan.

Bestalde, egondako zentroaren izaeraren arabera, puntu kopurua aldatu egiten da, nahiz eta zerbitzu-denbora berbera izan: zentro publikoen kasuan 2 puntu lortzen dira bi hilabeteko zerbitzu tarte bakoitzeko, hau da, ikasturte bakoitzeko 6 puntu lor daitezke, mugarik gabe; zentro pribatuetan izandako eskarmentuari dagokionez, ordea, 0,5 puntu ematen dira urtebeteko, eta gehien jota 5 puntu lor daitezke horrela).

Kexaren oinarriak arrazoitzeko eta sendotzeko, beste hezkuntza-esparruetan (Nafarroako Foru Erkidegoa, Kantabria, Kanariak, Madril...) erabiltzen diren irizpideak ekartzen dira gogora adibide gisa. Erkidego horietako irizpideen arabera ere tarte bat dago bi sareetako adar bakoitzean lortutako esperientziari puntuak emateko orduan, baina publikoko esperientziaren gehieneko saria ez da pribatuarena baino bi aldiz handiagoa izango, irakaskuntza publikoan behin betiko sartzeko merezimenduekin egiten den bezala.

Ordezkogaien zerrendak kudeatzeko oraingo jarraibideak azterturik, geuk ere uste dugu haietan jasotako irizpideek ez dutela arrazoizko justifikaziorik, ikastetxe publikoetan lehenago izandako esperientziak, mugarik ez izateaz gain, gehiegizko balorazioa jasotzen duelako, eta ondorioz, egiaztatzen den beste edozein motatako esperientzia ia saritu gabe geratzen da haren aldean. Hortaz, bat egiten dugu kexaren bidez adierazitako salaketarekin, uste baitugu bi sareetan lortutako esperientzia modu desberdinez saritzeak ez duela Konstituzioaren 23.2 artikuluan ezarritakoa betetzen.

• Emaitza

Erakunde honen iritziz ulergarria da Hezkuntza Administrazioak, jarraibideak aldatzekotan, izan nahi duen jokabide zuhurra, orain arteko jarraibide horiek, sindikatu guztiek bultzatuak, bakea ekarri baitute alorrean. Hala eta guztiz ere, egokia iruditu zaigu –berriz ere– ordezkogaien zerrendetarako kudeatze-jarraibideen aldaketa gomendatzea, horrela aurreko irakasle-lana berdin baloratuko bailitzateke, zentro publikoetan edo pribatuetan lortua izan.

Txosten hau bukatzear daukagula, zain gaude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zer egingo egoera hori 2004-2005 ikastaroan aldatze aldera.

⇒ *Irakasleen ordezkapenak. Ikastaroaren hasierako banaketan izandako akatsak* (940/2002)

• Erreklamazioa

Irakaskuntzan ordezkapenak egiteko prest zegoen herritar batek erakunde honen aurrean salatu zuenez, ikasturte hasieran, hutsik zeuden plazak banatzeko prozesua

bukatu berritan, Hezkuntza Administrazioak beste plaza bat zegoela iragarri zuen, banatze prozesuan sartuta ageri ez zen plaza bat, alegia. Hori dela eta, interesatuaren iritziz kudeaketa akats bat egon zen prozesuan, eta beharrezkoa zen, beraz, haren ondorio negatiboak zuzentzea.

• Azterketa

Oro har, eta kudeaketa hutsari begira, guk ere uste dugu ikasturte hasieran egiten den lanpostu banaketa ez dela prozesu samurra. Hala ere, lanpostuen banatze prozesua bukatu eta berehala plaza huts horren berri eman zuenean, Hezkuntza Administrazioak ez zuen daturik edo arrazoi objektiborik eskaini aipatutako plaza gerora izandako beharren ondorioa zela pentsatzeko.

Hortaz, beste plaza horren beharra arrazoiturik ez zegoenez (plaza bat lehenago lortu zutenen batek uko egitea, hasierako planifikazioan kontuan hartu ez ziren bestelako datuak…), prozesuaren ostean iragarri izanak nabarmendu egiten zituen akats zantzuak, hau da, lanerako hutsuneak betetzeko prozesuari begira plaza hori oker kalifikatu zelako susmoa. Akats horiek, ordea, ez zuten zertan ondorio kaltegarririk ekarri kexa aurkeztu zuenarentzat.

Aurreko guztiagatik, gure ustez egin beharrekoa zena azaldu genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari: ez bazeukan beste azalpenik plaza huts hori ikasturte hasierako banatze prozesuan ez egotea arrazoitzeko, gure iritziz hezkuntza Administrazioak onartu egin beharko zuen kudeaketa akatsa, banatze prozesuan sartzekoak ziren plaza hutsak tramitatzean egina. Horretaz gain, interesatuari eragindako kalteak ere zuzendu beharko zituen, behintzat pertsona horrek bete ezin izan zituen zerbitzuak ondorengo deialdiei begira aintzat hartuz, zerbitzu horiek ezin izan zituelako egin tramitazio akats horiek eragotzita.

• Emaitza

Tramite luzeak eta ugariak egin ondoren, erakunde honek etsi egin zuen, agorturik ikusten baitzituen esku hartzeko bideak. Hala ere, erakunde honek zenbait iradokizun egin zituen, bete gabeko plazak ikasturte hasieran iragartzean egindako akatsak zuzentze aldera. Ohartarazi genuen, ordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erreparoak azaldu zituela iradokizun horiek kontuan hartzeko, eta halaxe jakinaraziko genuela Eusko Legebiltzarrari helaraziko zitzaion hurrengo urteroko Txostenean.

Horiek horrela, harriturik geratu ginen, geroago erreklamaziogileak Sailburuaren Agindu bat helarazi ziotela adierazi baitzigun, eta haren bidez jakinarazten zitzaionez, oniritzia ematen zitzaion EAEko Administrazio Orokorraren ondare-erantzukizunagatik jarria zuen erreklamazioari. Izan ere, agindu horretan Sailburuak argiro onartzen zuen espedientearen oinarrian zegoen plaza gorabeheratsu hura ez zela hasieran eskaini *"Hezkuntza Konpentsatzaileak oker zehaztu zituelako haren ezaugarriak"*, eta hala arrazoitzen zuen ebazpenaren edukia.

Erakunde hau ez zegoen prest pasadizo hori bere horretan uzteko, uste baikenuen azalpenak eman beharra zegoela kexa tramitatzean izan omen zen koordinazio faltaren inguruan, horrelakorik berriro gerta ez zedin eta, hala bazegokion, Legebiltzarrera bidaltzeko genuen urteroko txostena berraztertzeko.

Hala ere, berriro jaso genuen ustekabekoa, sail horretako Azterlanetarako eta Araubide Juridikorako zuzendariak ez baitzuen onartzen koordinazio arazorik egon zenik

Arartekoarekin. Aitzitik, haren ustez kexaren berrazterketa baino ez zen egin, auziak administrazio jurisdikzioan zein bidetatik joko ere.

⇒ *Isilpeko jardueren edo informazioen berri izateko aukera* (2/2003)

• Erreklamazioa

UPV/EHUren zerbitzuan zegoen irakasle batek esku hartzeko eskatu zigun, egozten zitzaizkion ekintzak eta esanak zirela-eta Diziplina Batzordeak bi isilpeko informazio abiarazi baitzizkion, eta berak jakin nahi zuen zertan zegoen informazio horien tramitazioa. Azken batean, isilpeko jarduera edo informazioak izapidetzeak sortutako agiriak ezagutu nahi zituen, horrelakorik egonez gero.

• Azterketa

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak (HAAJ-APEL), artxibo eta erregistroetara iristeko eskubidea taxutzean, berariaz onartu du, 37.1 artikuluan, herritarrak eskubidea duela espediente baten zati diren eta administrazioaren artxiboetan dauden agirietara iristeko, baldin eta eskaera egin denerako espediente horiei dagokien prozedura bukatuta badago.

Beraz, ezarritako nahitaezko baldintzaz gain, alegia, ezagutu nahi den agiria eskaera egin baino aurrekoa izatea, aipatutako legeak beste baldintza gehigarri batzuk ezartzen ditu iristeko eskubidea arautzean: dokumentuek espediente baten barnean egon behar dute, espedientea administrazio artxiboetan egongo da eta bukatutako prozedura bati lotuta egongo da.

Jakina denez, doktrinan aditu diren zenbaitek ia aho batez gaitzetsi dute lege hori, zehaztugabea, korapilatsua eta iluna izateagatik. Areago, hemen hizpide dugunari helduz, batzuek uste dute HAAJ-APELren 37.1 artikulua estu-estu eta irizpide murriztaile batez interpretatuz gero Administrazioaren esku geratuko litzatekeela eskubiderako baldintzak betetzen diren ala ez erabakitzea. Ildo horretatik, hasieran Unibertsitateak erakunde honi emandako lehenengo erantzunean arrisku horren zantzuak antzematen ziren, funtsean, isilpeko informazioa ezin har zitekeela benetako prozedura administratibotzat esaten baitzuen. Hartara, komenigarri iruditu zitzaigun ondoko hausnarketak egitea, unibertsitatearen lehen erantzun hura egoki bideratu eta zuzentzeko asmoz:

HAAJ-APELek, 37.1 artikuluan, muga bat ezartzen dio iristeko eskubideari, bakarrik erabil daitekeelako ezagutu nahi den dokumentua espediente baten parte bada, baina zorrotzago aztertuz gero, konturatuko gara legeak berak ez duela zehazten zerk duen espediente izaera eta zerk ez. Isiltasunak isiltasun, ordea, gure ustez horrek ez luke zalantza edo eragozpen handirik eragin beharko, termino hori erabiltzen denean jarduera administratibo baten gauzatzeaz ari baikara argiki, hau da, jarduera administratibo baten aurrekari eta oinarri diren agiri ordenatu multzo batez.

Hortaz, oinarri horretatik abiaturik, eta kontuan harturik ordenamenduak berak aurreikusten eta onartzen duenez gerta daitekeela zenbait dokumentu benetako prozedura administratibo batetik kanpo geratzea (derrigorreko baldintzak ez betetzeagatik beste izapiderik gabe artxibatzen diren eskabideak, aurretiazko

informazioak, etab), erakunde hau guztiz bat dator doktrinan adituak diren zenbaiten iritziekin. Aditu horien ustez (Sánchez Morón eta Fernández Ramos, besteak beste) beharrezkoa da HAAJ-APELren 37.1 artikuluan jasotako lege-baldintza hori bateratzea eta "espediente" kontzeptuari instrumentaltasunez hornitzea. Horrela eginez gero, bermatu eta ziurtatu egingo litzateke egintza administratiboek sorrarazitako agiri administratiboetara iristeko eskubidea, delako egintza administratibo hori teknikoki "espediente" deritzon batean jasota geratu ala ez.

Gainera, HAAJ-APELren 37. artikuluaren beste idazati batzuetan zehaztutako muga legalak (intimitatea ukitzen duten agiriak, agiri izendunak...) aplikatzeko arrazoirik ez badago, gure ustez iristeko eskubidea inolako arrazoirik gabe murriztuko litzateke, eta esan beharrik ez dago eskubide horrek funtsezko eta oinarrizko bitartekoa izan behar duela administrazioaren gardentasuna ziurtatzeko.

• Emaitza

UPV/EHUri zuzendutako gomendioan Arartekoak eskatzen zion baimena eman ziezaiola interesatuari agirietara iristeko eta Diziplina Batzordeak haietan bilarazitako informazioen berri izateko.

⇒ *Bigarren hezkuntzako irakasleak teknologiari eta bestelako espezialitateei berratxikitzea: irizpide orokorrak egokitu beharra* (85/2003)

• Erreklamazioa

Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko funtzionario batek adierazten zuenaren arabera, apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuan jasotako jarraibideak aplikatzeak kalteak ekarriko lizkioke. Dekretuan ezarritako irizpideei jarraituz, ikasturtearen hasieran irakasleei lotutako plazak zehazten dira, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako Lanpostuen Zerrendaren bitartez. Horretaz gain, dekretuak irakasleak beren zentroen barruan berratxikitzeko prozesua arautzen du. Interesatuaren iritziz, bada, irizpide horiek aplikatzeak berak kalteak dakarzkio bere irakasle-ibilbidean, ez baita merezimendu handiagotzat hartzen lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegotik bigarren hezkuntzako irakasleenera egin zuen sustapena, ordurako teknologia irakasgaiaren titularra zelarik egina, hain zuzen.

• Azterketa

Apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuak honela dio: *"bertan (dekretuan) arautzen den prozesuaren xede eta gida nagusia klaustroen egonkortasuna da. Asmo hori gauzatzeko, zentro bakoitzean diharduten irakasleetatik ahalik eta gehienek ikastetxe horretan izan beharko lukete beren behin betiko destinoa. Horrela jokatuta, ikasketen planifikazioak eta heziketa lanak beharrezkoa den jarraipena izango lukete, kalitateko irakaskuntzaren helburu komuna lortze aldera"*. Funtsean, bada, helburu hori erabili da gogoan parte hartzaileei plazak egokitzeko irizpideak ezartzerakoan, kidegoan emandako zerbitzu aldia ez ezik -ohi bezala- zentroan bertan betetako zerbitzu aldia ere hartu baita aintzat, azken batean *"hainbestetan aipatzen den plantilen egonkortasunaren printzipioa"*ren haritik.

Nolanahi ere, ez da ahaztu behar LOGSEk eragindako hezkuntza eraldaketaren antolamenduak ireki duela bidea kidego desberdinetako irakasleek (bigarren hezkuntzako irakasleak zein lanbide heziketako irakasle teknikoak) plaza izan zezaten espezialitate berean –teknologian-; areago, derrigorreko barne-sustapenerako prozesuaren bitartez kategoriaz aldatu den irakasle batek sustapenaren aurreko plaza berean jarrai dezake, eta halaxe gertatu zen, hain zuzen, kexa hau aurkeztu duenaren kasuan, barne-sustapenaren bitartez lanbide heziketako irakasle teknikoa izatetik bigarren hezkuntzako irakasleen kategoriara pasatu ondoren lehengo plaza berean jarraitu zuen eta. Baina ez dira horiek izan prozesu hau erraztu duten neurri bakarrak: ekainaren 4ko 850/1993 EDak arautu egiten ditu irakaskuntza kidegoan sartu eta espezialitatea eskuratzeko prozesuak; bada, bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko teknologia espezialitatera iristeko, dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak eskatzen diren titulazio orokorren baliokidetzat jotzen ditu ingeniari tekniko, arkitekto tekniko eta flota zibileko diplomatuaren tituluak.

Goian azaldutakoa hezkuntzaren eraldaketak ekarritako egoeraren emaitza da, orduan sortu ziren espezialitate berriei eusteko eskura zeuden giza baliabide guztiak behar baitziren, eta hortik etorri dira erreklamaziogilearena bezalako egoerak. Hala ere, irakasleen egonkortasuna sendotu nahi bada irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko asmoz, eta koherentziaz jokatzekotan, bigarren hezkuntzako irakasleak kokatzeko irizpideak zehaztean ez dira azaldutakoa bezalako kasuak ahaztu behar.

Hortaz, behin ezaguturik nolakoa izan daitekeen espezialitate berrien ardura hartu duten irakasleen egoera, eta kontuan harturik beste irakaskuntza kidego baterako barne-sustapen prozesuak aparteko ahaleginak ekarri zituela haietako batzuentzat, zentzuzkoa litzateke aplikatu beharreko irizpide orokorrak egokitzea. Ildo horretatik, nor bere kidegoan funtzionarioa izandako denborari buruzko irizpideak zabalago izan beharko luke, eta hau bezalako kasuetan bi kidegoetan emandakoa hartu beharko litzateke aintzat –hau da, ez bakarrik bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan funtzionario izandako denbora-. Gainera ez dago zertan pentsatu berariazko jokabide hori baztertzailetzat har daitekeenik.

• Emaitza

Erakunde honek jakinarazi zion Hezkuntza Sailari bat egiten zuela interesatu honen eskaerarekin; hortaz, bere ustez bigarren hezkuntzako irakasleak birkokatzeko oraingo jarraibideei berariazko irizpide bat gehitu behar zitzaiela azaldutako egoeran dauden irakasleei begira, beste kidego baterako sustapena egin bazuten ere, etengabe jardun baitute espezialitate berean.

Txosten hau bukatzeko dugularik, ez dugu oraindik berririk izan hezkuntza arloko arduradunen iritzien inguruan.

⇒ *Irakaskuntza arloko funtzio publikorako hautaprobak. Sartzeko eskatzen den titulazioa: ikasketa espedientearen balorazioa* (882/2003)

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak irakaskuntzako funtzio publikorako hautaprobetan parte hartu zuen, zehatzago, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko. Herritar horrek

esku hartzeko eskatu zion erakunde honi bere erreklamazioa egiteko, alegia, kidegoan sartzeko aurkeztu zuen titulazioaren (elektrizitate eta elektronika teknikari espezialista) ikasketa espedientea merezimendutzat har zezaten lehiaketa aldian.

• Azterketa

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza Sistemaren Antolaketari buruzkoak (LOGSE), kidegoetarako sarbidea ukitzen du, eta ondorengo apirilaren 22ko 574/1991 Errege Dekretuak arautze iragankor bat jasotzen du sartzeko prozesu horren inguruan; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren iritziz, dekretu hori hitzez hitz interpretatuz gero –eta halaxe egin zuen hautaprobetarako deitzen zuen Aginduak, kexa eragin zuenak, hain zuzen- kidegoan sartzeko aparteko baldintzarik gabe ahalmena ematen duten titulazioen kasuan, mugak ezartzen dira ikasketa espedienteak edo kalifikazioen egiaztagiriak merezimendutzat hartzeko aukera; alabaina, sailak ez du baloraziorik egiten bestelako titulazioei buruzko egiaztagiriez, nahiz eta titulazio horiek baliokidetzat hartu diren irakaskuntzan jarduteko, baliokidetzat jotako titulazio horiek eta berez eskatzen direnak desberdinak direlako.

Erakunde honen ustez, horratik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatzen eta bultzatzen duen interpretazio horrek kontraesan larria du bere baitan; izan ere, onartzen da irakaskuntzarako baliokidetzat jo diren tituluak nahikoa direla irakasle kidegoetan sartzeko, baina lehiaketa aldian ez da merezimendu gisa hartzen titulu horien atzean dagoen ikas prestakuntza. Ohartaraztekoa da, haatik, ikas prestakuntza dela lehiaketa aldian neurtu behar dena, kidegoan sartzeko ahalmena ematen duten titulua luzatu aurretik prestakuntza tarte hori bete behar delako, hain zuzen.

Hortaz, interpretazio murriztaile hori baztertu eta gure iritziz 574/1991 EDaren erregimen iragankorrarekin hobeto egokitzen den beste bat bultzatu beharko litzateke. Izan ere, uste dugu 574/1991 EDaren II. eranskinean adierazitakoa (*aukeratutako kidegoan sartzeko, norberak aurkeztutako ikasketa agiriak bakarrik baloratuko dira kidego horretarako eskatzen den titulu orokorra lortzeko beharrezkoak badira*) bestela ulertu behar dela, eta horren arabera adierazpenak bere baitan jasoko lituzke irakaskuntzarako baliokide diren titulazioak ere, titulazio guztiak –hasieran onartutakoak zein baliokideak– kidegoan sartzeko sistemaren barruan baitaude. Horren aldean, LOGSEren bosgarren xedapen iragankorraren garapenean adierazitakoa salbuespentzat hartu beharko litzateke, sarbidea irekitzen baitie titulazio orokorrik eduki ez baina bitarteko funtzionario lana egiaztatzen dutenei. Salbuespeneko kasu horietan ere, ez dago eragozpenik aurkeztutakoek egiaztatzen dituzten tituluak merezimendutzat jo eta balora daitezen lehiaketa aldian.

Iritzi horren alde, aipatzekoa dugu 75/2001 Epaia, Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiak emana (JUR 2001\327596); horrelakoez aparte, nahikoa litzateke ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretua gogoratzea, bertan arauturik geratzen baitira irakaskuntzako funtzionarioen kidegoan sartu eta espezialitateak aukeratzeko prozesuak, sartzeko deialdi iragankorrak agortuta dauden kasuei begira. Esan bezala, dekretuan ere ikasketak merezimendutzat jotzen dira, eta horren haritik, aurkeztutako ikasketa espedientea baloratzeko agintzen du, baloraziorako zehaztapenik egin gabe, ordea. Lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko, aldiz, berariazko tituluez gain honako hauek ere aipatzen dira baliozkotzat (17.3 art.): unibertsitateko diplomatua,

ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa eta - LOGSEren hamaikagarren xedapen gehigarrian jasotakoari helduz- irakaskuntzarako baliokide diren tituluak, aurreko 574/1991 EDren arau iragankorrean gertatu bezala.

LOGSEren salbuespeneko erregimen iragankorren bukaerari begira, ordenamendu honek behin betiko sarbide sistema arautzen du, eta ikusten denez, ez du inolako eskakizunik aipatzen horretarako eduki beharreko titulazioaren ezaugarriez (orokorra, beste mota batekoa...), kasu horretan ez baita onartzen LOGSEren bosgarren xedapen iragankorrekoa bezalako salbuespenik, eta beraz, aurreikusten diren titulazio guztiei –baita baliokidetzat jotzen direnei ere– maila bera aitortzen zaie sarbide sistema orokorrari dagokionez.

• Emaitza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari gomendatu zitzaion goian azaldutako iritzia bere egin zezala, eta interesatuak ezarritako helegite administratiboa kontuan hartuta, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko aurkeztu zuen ikasketa espedientea balora zezala.

## B) **Funtzio publiko orokorra**

⇒ *Lanpostuak baloratzean ustez sexuagatik egindako diskriminazioa* (1229/2002)

• Erreklamazioa

Erakunde honen aurrean ezbaian jarri zen Eibarko Udalaren peoi lanpostuetarako (zerbitzuetarako peoia eta eraikinak garbitzako peoia) egindako balorazio desberdina, kexa aurkeztu zutenen ustez sexu diskriminazioa baitzegoen jokabide horren atzean.

• Azterketa

Kexa hau aztertzerakoan kontuan hartu zen Konstituzioak debekatu egiten duela pertsona bat bere ezaugarriengatik –baita sexuagatik ere– diskriminatzea, eta horren arabera, debekatuta geratzen dela diskriminazioa zeharbidez egitea ere. Ildo horretatik, argitu nahi genuen itxura batean arrazoizkotzat jo zitekeen bereizketa bat ez ote zen bereizkeria izango, EKaren 14. artikuluaren aurkakoa, hain zuzen. Bestela esanda, jakin nahi genuen zerbitzuetarako eta eraikinak garbitzeko peoi plazak desberdin baloratzean langileen sexua edo bestelako arrazoiren bat hartu ote zen kontuan.

Bistan zegoen lanpostuek balorazio desberdina izan zutena, eta hori bat zetorrena sexuagatik erabakitako bereizketa batekin. Beraz, harira zetorren diskriminazioaren debekua, eta edozein bereizketa izango zen susmagarria, baldin eta frogatzen ez bazen horretarako arrazoia, sexua barik, lanpostuaren ezaugarriak zirela. Halaxe antzematen genuen, izan ere, Eibarko emakumeen egoerari buruzko txostenari, udalaren plantila aztertzean agerian jartzen baitzuen, nabarmen jarri, E taldeko gizon gehienek 6. mailako edo goragoko ordainsaria jasotzen zutela, eta emakumeek, aldiz, 5. mailakoa; egoera deigarriena, ordea, garbiketarako eta lantaldeetako langileena zen, biek peoi kategoria bazuten ere, garbiketarakoek gutxiago kobratzen baitzuten.

Bestalde, gogoan genuen zer dioen doktrina konstituzionalak -zeharkako diskriminazio zantzuak dauden kasuei begira- frogaren ardura alderanztu beharraz, horren

arabera argi baitzegoen udal administrazioak eman behar zituela azalpenak eta arrazoiak lanpostuak era desberdinean baloratzeko irizpideak neutroak zirela frogatzeko, alegia, ez zegoela haietan sexuari lotutako baldintzen arrastorik.

Esan beharra dago lanpostuak baloratzeko prozedura objektibo bat ezartzea ez dela, berez, nahikoa sexu diskriminazioa ezabatzeko. Izan ere, horretarako aztertuko diren alderdi guztiak -eta haietako bakoitzaren garrantzia- behar beste zehaztu arren, gerta liteke diskriminazioa egotea, baloratzeko irizpideen baitan sexuaren marka ageri delako edo neurketa egitean beste ezaugarri batzuk bazter geratzen direlako, ez baita haietan baliorik igartzen.

Gaur egun, zenbait ikerketak adierazten dute zein ezaugarri dituen bere alde genero bakoitzak baloraziorako ereduetako irizpideen aurrean. Horren arabera, badaude lanaren alderdi batzuk, delako lanpostu bat "gizonezkotzat" jotzera bultzatzen dutenak, besteak beste, makina, erreminta eta materialei buruzko ezagutzak izatea, ahalegin fisikoak, bizkortasun fisikoa, zenbait arrisku mota eta lan baldintza desatseginak.

Zorionez, doktrina iraunkor bihurtu diren zenbait erabaki judizialen arabera susmo txarrekoa da ahalegina baloraziorako irizpide bakartzat hartzea, batez ere gizonezko ezaugarria delako. Hortaz, ahalegina ez da, berez, sexutik erabat bereizita dagoen balorazio irizpide bat, irizpide neutrala, alegia. Hala ere, onartzen da –oso muga handiekin onartu ere– zenbaitetan erabilgarri izan litekeela, baldin eta honako bi baldintza hauek betetzen badira: batetik, ezaugarri horrek funtsezkoa izan behar du dagokion lan horretarako; bestetik, egin beharreko lana baloratzean ez da ahalegina irizpide bakarra, eta berarekin batera sexuarekiko neutroagoak diren beste ezaugarri batzuk ere hartuko dira aintzakotzat (250/2000 KAEb 2000\250 AKE).

Kexa idazkian azaldutakora itzulita, peoi lanpostu horiek baloratzeko 13 ezaugarri edo alderdi hartu ziren kontuan, eta adierazitakoaren arabera, bai zerbitzuetarako peoi plazaren kasuan eta bai eraikinak garbitzeko plazarenean ere, pareko balorazioa eman zitzaien ezaugarri guztiei, ondoko hauei izan ezik: erabiltzen den ekipoarekiko ardura, besteen segurtasuna bermatzea, pisuaren edo jarreraren arabera egindako ahaleginak, inguruneko ezaugarriak eta istripu arriskua.

Hartara, harako lanpostuak (zerbitzuetarako eta eraikinak garbitzeko peoiak) baloratzeko neurtu ziren ezaugarri gehienak bat zetozen sexu kutsua zuten irizpideekin, batere neutroak ez ziren irizpideekin, hain zuzen; horrek bidea errazten zuen "gizonezkoagoak" omen diren lanpostuek –zerbitzuetarako peoiak, kasu- balorazio hobea lor zezaten.

Gogoratu behar da, gainera, ezaugarri batzuk -besteen segurtasuna eta istripu arriskua, adibidez- bakarrik hartu zirela kontuan zerbitzuetarako peoi plazarako. Hori ikusirik, pentsatzekoa izan zitekeen, gure ustez, hasieratik aurreiritzi sexistak eta objektibotasunez erantziak zeutzala funtsean, aditzera ematen baitzen gizonek bete izan dituzten lanpostuak arriskutsuagoak izanik, haietan behar dela trebezia fisiko handiagoa izan.

Azaldutako susmo guztien aldean, elementu bakar bat geneukan haiekin kontrastagarri, udalbatzaren erabaki bat, eraikinen garbiketako peoien maila goragotzeko eskaerei uko egiten ziena, hain zuzen. Erabakian bakarrik ematen ziren ondoko arrazoiak: *"Osatutako txostenak eta espedienteetako datuak ikusita, ez da garrantzizko aldaketarik antzematen egindako lanean, eta egotekotan, lana errazteko eta ahaleginak murrizteko egindako aldaketak izan dira; era berean, ez dugu uste diskriminaziorik dagoenik sexuagatik, ez modu zuzenean ezta zeharka ere. Bestalde, lan horiek oso desberdinak dira Obretarako Lantaldeetako peoiek egiten dituztenen*

*aldean, hainbat arrazoirengatik: lan inguruneko ezaugarriak, erabiltzen diren makinak eta erremintak, hala nola egin behar diren ahaleginak eta haien tamaina. Horretaz gain, erabat desberdinak dira burutu beharreko lanak eurak ere".*

Gure iritziz, erabaki horretan adierazitako argudioak ez dira behar bezain sendoak, eta beraz, ez dituzte erabakiari berari egozten zaizkion diskriminazio zantzuak desagerrarazten. Hortaz, eskaera bat luzatu genion Eibarko Udalari, txosten baten bitartez azal zezan zer iritzi zuen zerbitzuetarako eta eraikinen garbiketarako peoi lanpostuak berriri baloratu beharraz. Txostenean ez zen sexu kutsua duen irizpiderik erabiliko, eta komenigarri ikusten bazen horrelakoak erabiltzea lanpostuak baloratu ahal izateko, neurriz aplikatuko ziren, aurreiritzi sexistak baztertzeko asmoz.

• Emaitza

Eibarko Udalak bidali zigun erantzunean, lanpostu horiek baloratzeko erabilitako teknika luze azaltzeaz gain, lanpostu horietan objektiboki behar diren ezaugarriak aztertu zirela azpimarratzen zuen. Esaten zuenez, tartean ez zen inolako aurreiritzi sexistarik egon, eta horren erakusgarri –adierazten zen- lanpostu horietan gizonek zein emakumeek jardun izan zuten; azaltzen zenez, gainera, plaza horietarako behar diren ezaugarri edo irizpide objektiboek eragina izango zuten, ezinbestean, hautaprobak taxutzeko orduan. Beraz, erakunde honi erantzunez, udalak berretsi egiten zuen peoi plazak baloratzeko erabili ziren irizpideak edo baldintzak funtsezkoak zirela, eta ez zuen asmorik azaltzen irizpide horiek beste era batez eta neurriz aplikatzeko.

Adierazi denez, kexa honek izango zuen ibilbidea aztertzean, erakunde honek bere lan-ildoa bestera zuzendu behar izan zuen, Eibarko emakumeen egoerari buruzko txostenean –interesatuek bere kexa balitz bezala hartua, bestalde– iradokitzen ziren diskriminazio zantzuak gainditze aldera. Horretaz gain, kasu honetan argi zegoen erreklamazioak ukitzen zuen esparruan, lanpostuen balorazioan alegia, administrazioak ahalmen tarte handia daukala. Hala, bada, Eibarko Udalari gauza bakarra exijitu ahal zitzaion, peoi lanpostuen balorazioan ageri ziren desberdintasunen atzean sexuari lotutako arrazoirik ez zegoela froga zezala, hain zuzen.

Ondorioz, azken informazio hori aztertu ondoren, erakunde honen ustez ezin zen argi esan prozesuan sexu diskriminaziorik izan zenik, dagokion udal administrazioak azaldu eta arrazoitu egin baitzituen balorazioan aplikatutako irizpideak, eta nahiz eta beren horretan eta banan-banan harturik ezin esan daitekeen irizpide neutralak zirenik sexuari dagokionez, nahitaezkoak ziren lanpostu horien (zerbitzuetarako eta eraikinak garbitzeko peoiak) inguruko gorabeherak eta ezaugarriak egoki eta objektiboki baloratzeko.

⇒ *Euskara eskolak HAEE-IVAPek antolatu ez dituen euskaltegietan hartzea, irisgarritasun arazoak direla medio. Konpentsazio-orduak jasotzeko eskubidea* (204/2003)

• Erreklamazioa

Erakunde honi azaldu zionez, EAEko administrazio orokorreko langile minusbaliatu batek euskaltegi desberdinetan aritu behar izan zuen, irisgarritasuna arazoak zirela medio, hain zuzen. Bestalde, hizkuntz prestakuntzarako programetan ari diren euskaltegiek era desberdinean antolatzen dituzte eskolak, eta horren ondorioz, interesatuaren jardute-

ordutegiak ez zuen bat egiten beste enplegatuenarekin. Hori dela eta, erreklamaziogileak nolabaiteko konpentsazioa eskatzen zuen.

• Azterketa

Interesatuarekin izandako jokabidea azaltzeko, lehenbiziko erantzunean EAEko Administrazioak gogora ekartzen zuen euskara ikasteko ikastaro edo programa horiek aukera ematen dutela HAEE-IVAPek antolatutako taldeez bestelako euskaltegi pribatu edo publikoetara joateko. Ez zuen, ordea, ia hausnarketarik egiten kexan eskatutako ordu-konpentsazioen inguruan.

Horrelako jokaera ikusirik, erakunde hau interesatuaren egoeraren beste alderdi bat nabarmentzen saiatu zen, beharbada haren eskabideari eman beharreko tratamenduak eta euskara lan orduetatik kanpo ikasteko eskabide baimenduei emandakoak berbera izan beharko lukeelakoan. Ildo horretatik, lan baldintzak arautzeko hitzarmenaren 10. artikuluan bertan honakoa ezartzen da horri buruz: *"...lan-orduetatik kanpo gutxienez bi orduko euskara eskolak hartzen dituztenek edo lanalditik kanpo barnetegi erregimeneko ikastaroa aukeratzen dutenek eskubidea izango dute baimen ordaindu bat jasotzeko, eta hala badagokio, gastuak aurreko lerroaldean adierazten den moduan berreskuratzeko. Baimena Hizkuntz Eskola Ofizialeko ikastaroen kasuan ere onartuko da, eguneroko eskola bi ordu baino gutxiagokoa balitz ere. Baimenak ikastaroan hartutako eskolen laurdenak beste iraungo du. Barnetegi batera joaten direnen kasuan, baimenak eskolara joandako egun baliodunen herenak beste iraungo du. Nolanahi ere, baimena aldia ez da 5 egun baliodunetik gorakoa izango urtean, eta ikastaro bat baino gehiagotara jarraian joateagatik interesatuak baimen aldi desberdinetarako eskubidea badu, muga bera aplikatuko da."*

• Emaitza

EAEko administrazio orokorra prest azaldu zen erakunde honek egindako iradokizuna aintzat hartzeko eta, lan-orduetatik kanpoko euskara ikastaroengatik baimen ordainduetarako eskubideari dagokionez, indarrean dagoen lan baldintzei buruzko Hitzarmena kexakoa bezalako kasuetara zabaltzeko.

⇒ *Funtzio publikoan sartzea. Praktiketako kontratupean egindako zerbitzuen balorazioa* (428/2003)

• Erreklamazioa

Irurako Udalak Administrazio-laguntzaile bat hartzeko deialdia zabaldu zuen, eta bertan parte hartu zuen herritar bat, epaimahaiak egindako balorazioaren xehetasunak azterturik, ohartu zen ez zirela kontuan hartu praktiketako kontratupean egindako zerbitzuak. Interesatuak erakunde honek esku har zezala eskatu zuen, bere iritziz epaimahaiak ez zituelako deialdiaren oinarriak bete, haien arabera ondokoak ere baloratu behar baitziren merezimendu gisa: *"...beste edozein erakunde edo enpresa pribatutan egindako zerbitzuak, baldin eta lotura zuzena badute deitutako lanpostuaren betebeharrekin..."*

• Azterketa

Jakina denez, praktiketako kontratuen helburua lan esperientzia eskuratzea da, beti ere kasuan kasu eskatzen den titulazioari egokituz. Hortik datoz, hain zuzen, kontratu mota honen ezaugarri batzuk, besteak beste: kontratuaren iraupena, ikasketen ondorengo epe jakin batean egin beharra, etab.

Hala eta guztiz ere, ezaugarri horiek ez dute pentsarazi behar prestakuntzarako harreman hutsa denik, ezta egindako zerbitzuekin parekagarria ez denik ere. Izan ere, aipatutako ezaugarriak gorabehera, benetako lan harremana da, eta alde horretatik ez du zerikusirik ikasleek beren ikasketen edo lanbide heziketaren osagarri gisa egiten dituzten praktikekin. Hari beretik, Auzitegi Gorenak 1992ko irailaren 15ean emandako epaian (RJ 1992\6788) argi geratzen da kontratu mota horrek benetako lan harremanaren izaera duela eta haren helburua interesatua lan mundura lehenengo aldiz iristea dela; horretaz gain, epaiaren arabera, kontratu horren bidez egindako zerbitzuak ezin har daitezke "*maila apalagoko*"tzat beste edozein kontratu mota edo erregimenpean egindakoen aldean.

Gure iritziz horixe da praktiketako kontratupean egindako zerbitzuei eman beharreko balorazioa, eta horregatik erakunde honek uste du hauta lanetarako epaimahaiek edo organo teknikoek berezko duten ahalmen tartea ez dela nahikoa arrazoia deialdi honetan aritutako epaimahaiak praktiketako kontratuez egin zuen interpretazioari eusteko, administrazio-laguntzailea hartzeko deialdiaren oinarrien arabera (epaimahaiarentzat berarentzat ere lotesleak diren baldintzak, bestalde) enpresa pribatuetan egindako zerbitzuak baloratu egin behar baitziren, baldin eta zerbitzu horiek lotura zuzena bazuten deitutako lanpostuaren betebeharrekin; gainera, ez zen gainerako eskakizunik planteatzen kontratu motak zirela eta. Horiek horrela, epaimahaiak ezarritako baldintza, alegia, delako zerbitzuak praktiketako kontratupean ez egin izana, aparteko betebeharra zen, deialdiaren oinarrietan justifikaziorik ez zuena, eta egokitzat jo izanez gero oinarrietan jasoko zuten, ondorio garrantzitsuak ekarriko zituen baldintza zelako.

Argi utzi nahi dugu gure asmoa ez zela, inondik ere, hauta lanetarako epaimahaien edo organo teknikoen eskumenak auzitan jartzea. Esan beharra dago, ordea, ahalmen horiek bakarrik baliatu beharko liratekeela erabiltze hori justifikatuko duen arrazoirik badago, hau da, oinarriek hutsunerik edo behar beste zehaztu gabeko punturik izateagatik horiek interpretatu beharra badago. Honako kasuan horrelakorik gertatu ez denez, epaimahaiak izandako eta defenditutako jarrera, praktiketako kontratupeko zerbitzuak aintzat ez hartzekoa hain zuzen, ez da –guk uste– baloraziorako irizpide baten aplikazio bat, hautatzeko ardura duen organoaren eskumen teknikoetatik eratorria, aztergai dugun baloraziorako irizpidea zehazturik eta mailakaturik agertzen baita deialdian bertan. Areago, uste dugu epaimahaiak egindako interpretazioa baztertzekoa dela, gehiegikeria zelako eta deialdian jasotako oinarriak hausten zituelako.

• Emaitza

Gomendatu zitzaion Irurako Udalari erreklamaziogileak aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduak berriro balora zitzala, praktiketako kontratupean egindako zerbitzuak ere aintzat har zitezen.

Udalak onartu egin zuen gomendioa.

⇒ *Ordezkapenak* (894/2003)

• Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko Udalak zerrendak ireki zituen kontrolerako ofizial baten beharrak edo postua betetzeko. Kontratazioa aldi baterakoa zen, eta zerrendetan izena emanda zuen herritar batek bere kexa helarazi zigun.

Erreklamazioan azaltzen zenez, alta-prest egoeran zeudenen zerrendara pasatzeko eskatu zuenean, interesatuak baldintzatzat jarri zuen eskainitako kontratazioak arratsaldeko lanaldikoak izan zitezen, baita lanaldi murriztuko erregimenari heltzeko asmoa zuela adierazi ere; horretarako arrazoia etxeko ardurak ziren, haur txikiena, bi urtekoa, zaindu behar zuen eta. Salatzen zuenez, arratsalde bateko ordezkapena betetzekoa zen kontratu eskaintza batean ukatu egin zioten lanaldi murriztuari heltzeko aukera.

• Azterketa

Egin genuen eskariari erantzunez, udalak ondoko informazioa eman zigun: *“Aldi baterako Kontratazio Zerrendei buruzko Erregelamenduaren 18. artikuluaren arabera, Zerrendetan ageri direnek aukera daukate adierazteko zein baldintzatan onartu eta hartuko lituzketen sor litezkeen kontratu eskaintzak. Horri esker, udal erakundeak erabaki dezake nor dagoen lan eskaintzak jasotzeko moduan, kontratuaren ezaugarrien eta norberak adierazitako baldintzen arabera. Interesatuak azaldu zuenez, iraupenaren aldetik ez zuen arazorik edozein kontratu onartzeko, baldin eta lanaldia arratsaldekoa bazen eta kontratua berehala lanean hastekoa bazen (horiexek izan ziren berak ezarritako baldintza bakarrak). Hala ere, eskaintza egin zitzaionean jakinarazi zuen ezin zuela bete hasieran adierazi zituen baldintzetan. Interesatuak baldintza horiek egokitu balitu erabilgarri zeuzkan orduetara, ez zuen lanaldi murriztua eskatu beharko. Argi dagoenez, eskainitako kontratuaren ezaugarriak kontuan harturik, ez zen izapide administratiborik ere egin ahalko lanaldi murrizturako baimena emateko. Bestalde, eta ikuspuntu funtzionaletik azterturik, ez du zentzurik momentu horretan lan egiteko moduan pertsonak aldi baterako kontratatzeak, hala eginez gero kontratazio sorta bat burutu beharko baitzen oso iraupen laburreko kontratu bat betetzeko. Ulertzekoa denez, egoera horrek eragotzi egingo luke langileen ordezkapenei konponbidea ematea, horrelakoetan kontratazioak berehalakoa izan behar baitu. Beraz, ezin izan zen aintzat hartu interesatuak lanaldi murrizturako egin zuen eskabidea.”*

Jakina denez, erakunde honek bultzatu izan dituen irizpideen arabera, Administrazioak ahalegin guztiak egin beharko lituzke adin gutxiko haurrak zaintzeko eskatzen diren lanaldi murrizturako eskabideak onartze aldera, baita eskatzaileak ordezkoak edo bitarteko funtzionarioak direnean ere. Hala ere, hori ez litzateke egin beharko kudeaketaren kaltean, kalterik edo okerreko eraginik gerta ez dadin zerbitzu publikoaren kalitatean eta eraginkortasunean.

Izan ere, kudeaketaren ezaugarriek eta beharrek ez dute zertan aitzakia izan lanaldi murrizturako baimenak besterik gabe ukatzeko, eta horren haritik beharrezkoa da formalitateetatik haratago jotzea baimenen inguruan erabakitzerakoan. Ohartarazi nahi dugu, halaber, zenbaitetan zaila gerta daitekeela bi behar horiek (zerbitzuarenak eta ordezkoarenak) elkarren arabera moldatzea eta bideragarri egitea. Hartara,

aukeratzekotan zerbitzuaren beharrak lehenetsi behar dira, Konstituzioak agintzen duenez administrazioaren jarduerak ere eraginkortasuna izan behar baitu berezko ezaugarri.

• Emaitza

Gauzak horrela, uste dugu kasu honetan ezin zaiola ezer leporatu Vitoria-Gasteizko Udalari gaur egun duen jokamoldeagatik. Izan ere, udalak –kexan esaten denez bestela– ez die ukatzen ordezkoei lanaldi murriztuari heltzeko aukera, bai ordea adierazi lanaldi murrizketa eskatzeko asmoa alta-prest egoeran daudenen zerrendan sartzean azaldu dezaten, horrela eginez errazagoa izango baita ordezkogaien behar pertsonalak edota familiarekikoak eta kudeaketarenak elkarri egokitzea, kontuan hartuta azken horiek nahitaezkoak direla udal zerbitzu publikoak normaltasunez eta modu eraginkorrean betetzeko.

## C) **Osasun alorreko funtzio publikoa**

⇒ *Osakidetza/SVSren LEP. Hautaprobak minusbaliotasun psikiko bat dutenei egokitzea* (347/2003)

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak parte hartu zuen langile estatutudunen mailarako hautaprobetan, zerbitzuetarako langile-peoien kategoriara sartzeko. Probak zirela-eta erakunde honetara jo zuen, Osakidetzak ez ziolako onartzen oposizio aldiko probak egokitzeko egin zuen eskaera. Izan ere, interesatuak minusbaliotasun psikiko bat du (buru atzerapen arina), eta horregatik azterketa teorikoaren ordez bere beharrei egokitutako proba praktiko bat egin ziezaiotela eskatzen zuen.

• Azterketa

Lanari ekiterakoan erakunde honek sendo eutsi dio berarentzat argi dagoen irizpide bati, alegia, beharrezkoa dela funtzio publikoan sartzeko probak hobetzea, azterketak era desberdineko minusbaliatuek –baita psikikoek ere– dituzten mugetara egokitu daitezen.

Ildo beretik, konparazio azterketa bat egin genuen, beste autonomi erkidego batzuetan horri buruz hartutako neurriak alderatu nahian. Adibidez, Gaztela-Mantxako Erkidegoak bere funtzio publikoaren antolamenduan (martxoaren 4ko 1/1999 Legea, abenduaren 13ko 3/1988 Legea aldatzen duena) txertatu zuen aurreikuspenaren arabera, minusbaliotasuna duten pertsonek parte har dezakete hautatzeko edo lanpostuak betetzeko edozein probatan, eta beste azterketariekiko berdintasun egoera bermatzeko beharrezko dituzten denbora tarteak eta bitartekoak eskatu ahal izango dituzte. Bestalde, antolamendu horretan jasotzen den berrikuntza bati esker, Administrazioak berariazko lanpostuak sor ditzake % 25etik gorako minusbaliotasun psikikoa duten pertsonentzat, baita lanpostuetarako zerrenda bereizi bat eratu ere beraientzat.

Horrela eratzen den gainerako lanpostu-erreserba bereizitzat hartzen da, bakarrik bete baititzakete minusbaliotasun jakin batzuetako bat (psikikoa, adibidez) daukatenek; horretaz gain, aparteko txanda bereizi bat osatzen da. Azterketetan egiten diren egokitzapenei esker proben helburua zehatza da, alegia, aurkezten direnak erreserbako

lanpostuetan beharrezkoak diren lanak eta eginkizunak betetzeko gauza direla egiaztatzea.

Lege aurreikuspen horien bitartez azpimarratu eta gauzatu egiten da azaroko 29ko 12/2001 Legean (minusbaliatuak funtzio publikoan iristekoa) irekitako lan ildoa.

Egin den aukera aurrekoa bezain agerikoa ez bada ere, Aragoiko Autonomi Erkidegoak ere antzeko irizpideak planteatzen ditu. Horren adierazgarri, otsailaren 19ko 1/1991 Legegintzako Dekretuak, Funtzio Publikoaren Antolamenduari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, honako hau adierazten du: *"urteroko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duen Dekretuan erabaki ahalko da berariazko txandetarako deialdia egitea -lanbide espezialitateetako edo kategorietako zenbait Eskala eta Mailatan- minusbaliotasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala dutenentzat, deialdiaren ezaugarriak eta plaza kopurua ere zehaztuz..."*

Ikusten denez, goikoak bezalako erregulazio batek aukera handiak ematen ditu honako kexa honen azpian dauden egokitzapen neurriak har daitezen. Alabaina, gure ustez aurreikuspen horiek benetan eskaintzen duten ahalmen handia lanpostu erreserba bat osatzeko aukeran datza, berariazko plaza horietarako eskubidea duten minusbaliatuek lehia txikiagoa egin beharko baitute.

Hori horrela adierazi dugu gure Erkidegoan ez delako horrenbesteko zehaztapenik edo garapenik lortu funtzio publikoa eta minusbaliatuen kolektiboa uztartzeko orduan, eta beraz, ezin da berariazko txandarik eratu, goian azaldutako arauekin ez bezala. Hori horrela izanagatik ere, ahalik eta egokitzapen gehienak egin behar dira minusbaliatu psikikoek ere benetan aukera berberak izan ditzaten enplegu publikoaren alorrean.

Esandakoaren erakusgarri da Andaluziako Herri Defendatzaileak Sevillako Udalari egin zion gomendioa. Gomendio horretan eskatzen zen udal-lanpostuetarako deialdian -minusbaliatuen txandan- minusbaliotasun psikikoa zuten azterketariek ariketa teorikoen ordez proba praktikoak egiteko aukera izan zezatela, eta behar izanez gero, eskuragarri izan zitzatela laguntzarako giza baliabideak, materialak, behar besteko denbora, etab...

Osakidetzan, haatik, Giza Baliabideetarako Zuzendaritzak kontrako iritziari eusten dio, uste baitute ariketa teorikoaren ordez ariketa praktiko bat egiten bada ez direla benetan denbora tarteak edo bitartekoak egokituko, areago, probaren edukia eraldaturik geratuko litzateke euren ustez.

Ez da ahaztu behar, ordea, diskriminazio positiborako neurriak hartzeak ez dituela baztertu behar meritua eta gaitasuna, Konstituzioaren aginduz lan publikorako nagusi izan behar duten printzipioak, hain zuzen. Hori dela eta, lana egoki betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeaz gain, zentzuzkoa iruditzen zaigu hautaprobetan gainditu beharreko gutxieneko maila bat ere ezartzea.

Gure iritziz, horixe du hizpide Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak zazpigarren xedapen gehigarriaren, bertan azaltzen denez hautaprobetan minusbaliatuek beharrezko dituzten egokitzapenak egingo direla denbora eta bitartekoei dagokienez, baldin eta horrek ez badakar proben edukia jaistea edo maila eskastea. Hala ere, horrek ez du zertan eragozpenik ekarri kasu honetan, azken batean, azterketa-lekuan eskatzen diren egokitzapenek meritua eta gaitasuna egiaztatzea dutelako helburu, interesatuarentzat benetan ezinezkoa baita proba teoriko bat burutzea.

Hari beretik, ohartaraztekoa da alor horretan izen handia duten zenbait instituziok -besteak beste Minusbaliotasunerako Errege Patronatuak- hautaprobak egokitzeko neurriak aipatzen dituztela minusbaliatuak enplegu publikora iristeko jarraibideak egoki

aplikatzeko modua zehaztean; hortaz, beharrezko egokitzapenak egitea gomendatzen dute, bai ariketak burutzeko baldintzei dagokienez bai probak berak taxutzeko moduari dagokienez ere.

Horretaz ari garela, gauza jakina da minusbaliatu psikikoentzat oztopo bat dela zenbait oroimenezko proba gainditzen saiatzea, eta beraz, arrazoizkoa da horrelako hautaprobak egokitu eta proba praktiko gisa moldatzeko eskaera, baldin eta horren helburua azterketariak lanpostuko eginkizunak betetzeko duen gaitasuna eta ahalmena neurtzea bada.

Halaxe ulertu behar da, gure ustez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak zazpigarren xedapen gehigarriaren ezartzen duena. Haatik, Giza Baliabideetarako Zuzendaritzarena bezalako interpretazio murriztaileek hauta prozesurako bidea itxiko lieke erabat minusbaliatu psikikoei, baita minusbaliatuentzako berariazko erreserban bertan ere. Esandakoaren erakusgarri dira gorago aipatu ditugun neurriak, lanpostu jakinetan berariazko erreserbak eratzeko hartuak.

• Emaitza

Kexa honen aurkezleak hainbat erreklamazio eta helegitetan hala eskatu arren, Osakidetza/SVS ez da prest agertzen hautaproba horien inguruan hartutako erabakiak berrikusteko, bai ordea hurrengo hauta prozesuei begira aztertzeko. Horren haritik, komenigarri deritzo Euskadiko administrazio publiko guztientzakoa izango litzatekeen gidabide bat bilatzeari.

Aurreko hori ikusirik, ofizioz esku hartzea erabaki dugu. Horretarako beste pizgarri bat minusbaliotasuna duten pertsonak EAEko lan merkatu arruntean sartzeko planaren zirriborroa da, Eusko Jaurlaritzako Justizi, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren ekimenez duela gutxi aurkeztua, hain zuzen. Planaren zirriborroan jasotzen diren ekimenetako bat ulermen edota adierazpen minusbaliotasuna dutenei zuzenduta dago, administraziotik eskaintzen diren plazetara iristeko baldintzak haientzat egokituz; horren arabera, ikasketa ezagutzei buruzko proben ordez bestelako probak ezarriko lirateke, lanpostuko eginkizunak betetzeko gaitasuna neurtzeko asmoz.

# 6. OGASUNA

## 6.1. SARRERA

2003. urtean zehar erakunde honek guztira 70 kexa jaso ditu ogasunaren esparruan, guztira bideratutako kexetatik % 6,57, alegia.

Eragindako administrazioen aldetik, honela banatu dira:

- Foru Administrazioa ........................................................ 34
- Tokiko Administrazioa ..................................................... 32
- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) .......................................................... 2

Foru-zergen esparruan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak (PFEZ hemendik aurrera) termino absolutuetan kexa gehien eragiten duena izaten jarraitzen duen arren, pixkana jaisten doala antzematen da gure erregistroetan, 1998ko zergaren erreforma egintearen ondorioz sortutako akats batzuk gainditzen ari diren neurrian.

Hartara, 2000 eta 2001. urteetako txostenei begiratu bat ematen badiegu, aitortu beharrari buruzko diru sarreren mugen gaineko kontuak oso eztabaidatsuak izan zirela eta kexa ugari aurkeztea ekarri zutela ikusten dugu. Zorionez, dagoeneko kontu baketsua da hori, formula egokiak artikulatu baitira arauaren jatorrizko idazketak zekartzan tratru desberdintasunak ezabatzeko.

Hala ere, familiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketaren inguruan egindako kexen kopurua aurreko urteetakoen antzera mantendu da. Aurkeztutako auziei dagokienez, ohikoenak legezko bereizketa, ondorengoengatik dauden kenketak eta izatezko bikoteen ordainketa kasuetako ordainketaren berezitasunen gainekoak izan dira. Gai honi buruz, azpimarratu behar dugu gure erkidego autonomoaren eremuan izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen garrantzia, foru-zergen arautegian aldakuntza sorta bat ekarri baititu, ezkondutako bikoteak eta lege horren arabera eratutako izatezko bikoteak zerga mailan parekatzeko.

Dena dela, gaizkiulertuak saihesteko, ez dugu ahaztu behar parekatze honek onurak zein kalteak ekartzen dizkiola zergadunari. Onuren artean PFEZ batera ordaintzeko arauen aplikazioa eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende dauden eskuraketen salbuespena nabarmen daitezke. Elementu negatiboei dagokienez, esaterako, izatezko bikotekide batek jasotako konpentsazio pentsioak lan etekin modura hartzea, edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa zein den arabera zerga zorren gainean zer erantzukizun dagoen adibideak dauzkagu.

Foru eremuko zergapetzearen kudeaketan ohiko ezaugarri modura, aurten ere berandutzearen interesak zergadunaren alde likidatzeak euskal autonomia erkidegoko hiru ogasunetan bete gabeko gaia izaten jarraitzen du.

Beharrik gabe egindako ordainketak itzultzearen gaineko legeriak hamar urte baino gehiago dauka (145/1990, 73/1991 eta 178/1991 Foru Dekretuak Bizkaian, Gizpuzkoak eta Araban hurrenez hurren) eta bertan argi eta garbi onartzen da, berandutzearen interesak beharrik gabe egindako ordainketaren kontzeptuaren osagaiak direla.

Halaber, zerga batzuen (PFEZ, Baltzuak, BEZ) arautegi bereziek itzultzeko sei hilabeteko epea finkatzen dute, eta hori amaitzean, zergadunak dagokion interesa kobratzeko eskubidea dauka, erreklamatzen ibili beharrik gabe.

Dena dela, esan behar dugu, oro har esan ere, azaldutako bi suposamenduetan foru ogasunek ez dutela ofizioz zergadunaren alde sorrarazitako berandutza-interesik ordaintzen, baina onartu dituztela, ordea, geroago interesatuak erreklamatzen baditu.

Uste dugu interesak eskatzen dituztenei soilik ordaintzeko ohitura honekin dirutza handiak aurrezten dituztela foru altxorrek, zergadun gutxik erreklamatzen baitu, kasu batzuetan ezjakintasunagatik eta beste batzuetan mesfidantzagatik, baina legeria nabarmenki urratzen dute, herritarren eskubideen eta betebeharren artean justifikaziorik ez daukan desoreka betiereko bihurtuz.

Erakunde honek behin baino gehiagotan salatu izan du egoera hau. Zehazki, Arartekoaren erakundeak Legebiltzarraren aurrean aurkeztutako 2000 urteko txostenak izaera orokorreko gomendioa zekarren, “Zerga Administrazioak zergadunei itzultzeko interesen ordainketa” izenpean, egun ere gaurkotasun osoa daukana.

Foru eremuko prezio publikoei dagokienez, 2002ko amaieran eta 2003ko hasieran, pertsona ezinduak urgazteko zerbitzuen erabiltzaileen senitartekoek kexa sorta bat aurkeztu zuten Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka, dekretu araupetzaile berri batekin ados ez zeudela adierazteko. Dekretu hori 2002ko urtarrilean jarri zen indarrean eta prezio igoera handia ekarri zuen zerbitzu hauen erabiltzaile batzuentzat.

Kexa hauek, sakonean, ordaindu beharreko prezioa finkatzeko orduan erabiltzailearen diru sarrerak soilik hartzeko kontuan eskatzen zuten, familia unitate osoarena zenbatu beharrean. Aldi berean, zalantzan jartzen zuten dekretu horren legezkotasuna, gizarte zerbitzuen legea urratzen zuelakoan, eta neurri txikiagoko beste hobekuntza batzuk eskatzen zituzten.

Foru administrazioko eta erakunde honetako ordezkariek bilera egin ondoren, iradokizun batzuk onartu ziren, indarreko dekretuaren zenbatzeko sistemararekin hausten ez bazuten ere, askoz ere zabal eta arrazoizkoagoa egiten zutenak. Izan ere, familiaren diru sarreren muga hedatu zen; familiarekin bizi baina beren diru sarrerak lanbidearteko gutxieneko lansaria baino txikiagoak dituzten 26 urtetik gorako seme-alabak, ondorengoak eta beste senitarteko batzuk elkarbizitza unitateko kide gisa zenbatu ziren, erabiltzaileak nahi bezala erabiltzeko diru zenbatekoa igo zen eta erabiltzaileak bere borondatearen aurkako ingurumariengatik Autonomia Erkidegotik kanpora joan behar izan duen kasuetan prezioa murrituz konpentsatzen zen.

Gizarte eragile batzuek egindako presioak, zein ukitutako kolektiboak gehien ordezkatzen dituzten eta gertuen dituzten elkarteen eraginak, Batzar Nagusien esku hartzea ekarri zuten, zeinek Foru gobernuari prezio publiko hori zenbatzeko prozedura alda zezala eskatu baitzioten, erabiltzailearen diru sarrerak soilik zenbat zitezen.

Auzi honen garapenak etenaldi luzea izan zuen maiatzean egindako udal eta foru hauteskundeen ondorioz, eta oraingo foru gobernuak berriro hartu zuen bere eskuetan eta dekretu berri bat (204/2003) eman zuen. Dekretu horrek modu egokian ebatzi du eztabaida hori.

Tokiko zergen eremuan aurten Ondasun Higiezinen gaineko Zergan (OHZ) higiezinei egotzitako katastro balorazioaren aurkako erreklamazioak eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ) ezgaitasunarengatiko salbuespena ekarri duen arau aldarapena nabarmendu behar dira.

Jasota utzi behar dugu erakunde honek 1999. urtean gomendio orokor bat eskaini zuela ondasun higiezinen katastro balorazioan gertatzen ziren disfuntzioak aztertzeko. Gomendio horretan, “Ondasun higiezinen katastro kudeaketaren gaineko gogoeta batzuk”

goiburupean, egokitzapen lan horietan hasi gabe zeuden udalerrietan balorren ponentziak eguneratu behar zirela planteatzen zen. Bizkaiko Lurralde Historikoan oraindik hasi gabe dago zeregin hori eta, horregatik, Bizkaiko herritarrek beren etxeen balorazioak zalantzan jartzen eta horretan egiten diren konparaziozko bidegabekeriak salatzen jarraitzen dute.

Horren ildotik, funtsean erakunde honetara jotzen dutenak babestutako eraikinetan dauden etxebizitza eta merkataritzako lokaletako titularrak direla nabarmendu behar dugu, emandako balorazioarekin bat ez datozela adierazteko. Pertsona hauek zalantzan jartzen dute beren etxebizitzen katastro balioa etxebizitza libreen berdina edo handiagoa ere izatea, merkatuan etxebizitza libreen salneurria etxebizitza babestuen gehienezko salneurriak baina askoz handiagoak diren arren. Auzi honi buruz, ukitutako pertsonek behin eta berriro esaten dute merkatuko prezioa erreferentziatzat hartu behar dela etxebizitza babestuen zein libreen katastro balorazioan, eta hori balorazioan islatu behar dela.

Babestutako higiezin horietan dauden merkataritzako lokalek berezitasun gehigarri bat daukate, zeren duten erosketa erregimenari dagozkion eskubideak mugatuak badituzte ere, esate baterako, lehengoratzea 75 urte igarotzen direnean (gainazal erregimenean eskuratu badira), edozein unean jabez alda baitaitezke, gehienezko inongo preziori lotu barik, hau da, merkatuko prezioetan, askatasun osoz.

Arestiko hori katastroko baloraziora eramaten bada, merkatuaren preziotik gertu dagoen balorazioa daukatela esan nahi du. Erraza da ulertzea lonja horien jabeek beren merkataritza lokalen katastro balioa, konparazioaren ikuspegitik, bidezkoa ez dela pentsatzea.

Horri lotutako beste arazo bat, itxuraz Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden babespeko eraikinei dagokienez soilik agertzen ari dena, Katastro eta Balorazioen Zerbitzuan alta oso berandu ematen zaiela da. Bai Etxebizitza Sailak bai Bizkaiko Foru Aldundiko erakundeek berek atzerapenak pilatzeak etxebizitza eta merkataritzako lokalak sustapenak eskrituratu eta ematen direnetik urte batzuk joan direnean baloratzea dakar. Berandutze horren ondorioak, ordea, ez dira desdoitzea eragin duten administrazio publikoen gainera etortzen, higiezinak erosi dituzten pertsonen gainera baizik, udalek, HHZren kobrantza kudeatzen dutenak izanik, preskripzioa saihesteko, denbora tarte laburrean –urtebetean, gehienez bi urtean- ekitaldi horiei dagozkien HHZren ordainagiriak bidaliko baitituzte (ikusi aukeratutako kexen atala).

Tokiko Ogasunen 39/1988 Legea erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legeak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan (TMIZ) aurreikusitako salbuespena hedatu zuen, ezgaitasunen garraiorako erabiltzen diren ibilgailuentzat. Hartara, ahalmen urriko pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak zerga hori ordaintzetik salbuetsita daude, betiere beraiek soilik erabiltzen baidtuzte. Aldarazpen garrantzitsu hau 2003ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, erkiego osoaren lurraldean.

Kontzertu Ekonomikoak lurralde historikoei ematen dien arautzeko autonomiaren argitan, foru arauetan jasotzen den TMIZren arauketak ez diela erkidego osoko lurraldean onetsitako parametroei zertan jarraitu kontuan izanik ere, Arartekoak komenigarri iritzi zion hiru foru ogasunei informazioa eskatzeari, onura hori gure autonomia erkidegoan bizi diren ezgaituengana hedatzeko zer aurreikuspen zuten edo zer ekimen hartu behar duten jakin nahian.

Foru arauen erreformari 2003ko lehenengo lauhilekoan ekin zitzaion, autonomia erkidegoko lurralderako onetsitakoaren antzeko edukiaz. Salbuespena indarrean jartzeko eguna, ordea, 2004ko urtarrilaren 1era arte atzeratu zen.

Aplikazioa geroratzeko emandako arrazoiek batez ere honako argudio hauek aipatzen zituzten:

- Udalei Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) galdutako diru bilketarengatik konpentsatzeko formularen gaineko erabakia atzeratu zela.
- Udal ordenantzen erreforma erraztu nahi zela, horretako denbora tarte bat emanez.
- Segurtasun juridikoaren printzipioaren errespetuak arauaren atzeranzko ondorerik ekiditea gomendatzen zuen.
- Hiru lurralde historikoen artean akordio bat zegoela, Zerga Koordinaketako Batzordearen baitan hartua.

Legezkotasun zorrotzeko ikuspegitik hiru foru aldundiei ezer aurpegiratu ezin zaien arren, badirudi amaierako erabakia ez zetorrela oso bat erakundeok 2003 urtean hartu behar genituela hitz eman genuen helburuekin, ezin baitugu 2003a ezgaituen sustapenerako nazioarteko europar urtea izan zela ahaztu.

Ondorioz, Arartekoak hiru foru aldundiei beren erabakiarekin ados ez zegoela jakinarazi zien, eta deitoratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko ezgaituek 2003 urtean ere salbuespen horrez gozatu ahal izan zezaten formularik moldatu ez izana, jarduera ekonomikoen gaineko zergarako jasotako salbuespen berrietarako, ordea, bilatu baitzuten bidea eta, ondorioz, 2003 urtetik jada 2.000.000 eurotik beherako eragiketa bolumeneko subjektu pasiboek EJZ dela-eta zergarik ordain ez dezaten lortu baita.

## 6.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *Zergen likidazioak. Banan-banako jakinarazpena eta pertsona fisikoen helbidea* (786/2002)

• Erreklamazioa

Bilboko herritar batek, andre batek, Arartekoarengana jo zuen, Bilboko Udalak Ekonomia Jardueren gaineko Zergari (aurrerantzean EJZ) 1996 urteari zegokion kuota kobratzeko jarraitu zuen prozedurareki ados ez zegoelako.

Interesatuak bere kexan kontatzen zuenez, 1996ko maiatzean Udalean jardueraren baxaren adierazpena aurkeztu zuen, horretarako zegokion inprimakia betez (845 eredua).

Handik denbora batera, Udalak EJZren behin behineko likidazioa egin zion, interesatua 1996an jardueran aritu zen denborarengatik, baina jakinarazpena, interesatuaren esanetan, berak emandakoarekin inolako zerikusirik ez zuen helbide batean egiten saiatu zen.

Halako ingurumarietan, erreklamaziogilearen ustez, likidazio hura modu desegokian jakinarazi zenez, 2002an emandako premia bidez ordainarazteko probidentzia, bidegabea izan ez eze, preskribituta ere bazegoen.

• Azterketa

EJZ araupetzen duen Zerga Arautegiaren 16. artikuluak dio, zergapean dauden eta aurreko ekitaldietan hasitako jardueren ariketan baxa ematen denean, baxa adierazpena aurkezten denean kuota ordainduko dela, Administrazioak aurkezpenaren aldi berean egingo duen behin behineko likidazioaren bidez.

Kasu honetan, antza, behin behineko likidazio hori baxaren adierazpena aurkeztu zenean egin ez zen arren, guk uste dugu Administrazioak, gerora izan bazen ere, likidazio egin eta interesatuari jakinarazi behar ziola, hark baxa inprimakian bertan esandako helbidean, Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 45.2 artikuluan pertsona fisikoen zergetarako helbidearen gainean xedatzen duena betetzeko.

Egiaztatu ahal izan genuenez, ordea, Udala auziko likidazio horren jakinarazpena egiten ahalegindu zen helbidea ez zen, aipatutako Arauak agintzen duen bezala, interesatuaren zerga helbidetzat hartu behar zena eta, horregatik, Udalari hori aitortu eta zor hura preskribitutzat jotzeko eskatu genion.

• Emaitza

Hasiera batean Bilboko Udalak bere jarduera legezkoa zela defendatu zuen arren, erabili zuten helbidea EJZren matrikulan ageri zen berbera zela argudiatuz, gerora auziko zerga likidazio hura legez zegokion modura jakinarazi ez zuela aitortu zuen, ez zuelako jardueraren baxaren agirian bertan emandako helbide berria kontuan izan. Era berean, ordutik igarotako denborari adituz, onartu zuen likidazio berririk egiteko zuen eskubidea preskribituta zegoela.

⇒ *Informazio zerbitzua. Aurkeztu behar diren agiriak. Eskubide jakin batzuez gozatzeko baldintzak betetzeari buruzko frogaren zama* (407/2003)

• Erreklamazioa

Kexa honen sustatzailearen ustez, aita batek alabari emandako automobil baten kasuan, Arabako Foru Aldundian Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga likidatzeko aurkeztu behar ziren agiriei buruzko informazio okerra eman zioten. Telefonoz dohaintza emailearen eta hartzailearen ENA agirien fotokopiak aurkeztu behar zituela esan zioten, baita ibilgailuaren dokumentazioa ere. Dohaintza tramitatzera ogasunaren bulegoetara joan zenean, berriz, azkeneko bost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi zela egiaztatzeko errolda agiriak eskatu zizkioten.

Azkenik, erreklamaziogileak jabealdaketa egun hartantxe gauzatu nahi zuenez, eragiketa hura salerosketa modura likidatu zen, horrela ez baitzuen non erroldatuta zegoen justifikatu behar.

Erreklamaziogileak, telefonoz emandako informazioa, errealitatera doitzen ez zelako, okerra zela irizteaz gain, bere ustez, inork frogatzekotan, Administrazioak frogatu beharko lukeela zein izan den dohaintza hartzailearen azkeneko urteotako egoitza zioen.

Era berean, erreklamaziogileak irregular deritzo dohaintza estatuko araudia aplikatuz likidatzeko aukera ere bazuela ohartarazi ez ziotelako egitateari, gaia orduantxe burutzeko eskaini zioten aukera bakarra jabealdaketa hura salerosketa modura hartzea eta ondare eskualdaketen gaineko zerga likidatzea izan baitzen.

• Azterketa

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu telefonozko informazioak zenbait muga dituela, bere izaeraren beraren ondorioz. Herritarrei beren zerga betebeharrak errazteko dago, kasu bakoitzaren xehetasun zehatzak baloratzera sartu barik.

Ideia horretatik abiatuz, kasu honetan biltzen diren ingurumariak zein diren aztertu behar dugu, emandako informazioaren kalitatea baloratzeko.

Batetik, frogaren zamari dagokionez, Zergen gaineko Foru Arau Orokorraren 111. artikuluak xedatzen duena hartu behar dugu kontuan: *"bere eskubidea baliatu nahi duenak eskubide hori ematen dioten egitateak frogatu beharko ditu"*. Horrek esan nahi du, gure kasuari ukitzen dionean behintzat, oinordetza eta dohaintzen zergaren foru araudia aplikatzea nahi duten pertsonek azkeneko bost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan direla frogatu behar dutela. Hartara, ez da Administrazioa zergadunaren egoitza frogatu behar duena, betebehar hori, hasteko, interesatuarena baita. Alabaina, hurrengo lerroaldean xehetasun handiagoz azalduko dugunez, Administrazioak informazio hori baldin badauka ez du egoitza frogatzeko inolako agiririk zertan eskatu.

Kasu askotan, Foru Ogasunak badaki zein den dohaintza hartzailearen ohiko bizilekua (PFEZren aitorpenaren bidez batez ere); horregatik, eta zergadunak sarritan alferrikoak liratekeen gestioak egin behar izan ez ditzan, hasteko behintzat ez da egoitzaren frogagiririk eskatzen. Administrazioak interesatuaren egoitzaren gaineko nahikoa informazio ez duenean soilik frogatu beharko luke zergadunak, errolda agirien bidez, zein izan den azken 5 urteotako bere ohiko egoitza. Dohaintza hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzearen baldintza hori betetzen badu (apirilaren 24ko 25/1989 Foru Arauaren 2.1. artikuluan xedatutakoaren arabera), eta hala frogatzen badu, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren foru araudia aplikatu ahalko zaio. Egoitza hori frogatu ezean, dohaintzarako estatuko araudia aplikatuko da.

Hartara bada, informazioa emateko modu horrek inoiz, oraingoan bezala, inork gogoko ez dituen egoerak sor litzakeela ulertu arren, aurreko lerroaldean azalduko argudioak balio duela uste dugu, ematen den informazio horrek, kasuen ehuneko ehunerako erantzunik onena ematen ez badu ere, herritarren gehiengo handiari estaldura egokia ematen baitio.

Likidatzera jarritako eragiketa motari dagokionez, gure ustez ibilgailuaren jabealdaketa dohain egin bazen, zintzoak izanik, ez zatekeen salerosketa modura likidatu behar, dohaintza modura baizik, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari buruzko estatuko araudia aplikatuz, dohaintza hartzailearen Euskal Autonomia Erkidegoko egoitzaren frogarik ezean. Esan dugun bezala likidatu balitz, ordainduko zukeen kuota ibilgailuaren balioa, indarreko balorazio taulen arabera, % 7,65eko tipoaz biderkatzearen emaitza izango zatekeen, egin zaion Ondasun Eskualdaketen gaineko Zergaren likidazioak kuota, ibilgailuak taula horien arabera duen balioa % 4ko tipoarengatik biderkatzearen emaitza izanik, nabarmen baxuagoa atera baitzaio.

Beraz, gure iritziz, interesatuari estatuko araudipeko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta likidatzeko aukera eman ez bazioten, diru kalte handiagoa ekiditeko izan zen, eta ez, berak zioen bezala, informazio akats baten ondorioz.

• Emaitza

Erreklamaziogileari Administrazioaren aldetik irregulartasunik antzeman ez genuela jakinarazi genion eta, aldi berean, hemen islatu ditugun xehetasunen berri ere eman genion.

B) **Foru zergak - PFEZ**

⇒ *PFEZren salbuespena, Zahartasun eta Ezgaitasunezko Derrigorrezko Aseguruaren (SOVI) ezgaitasun pentsio modura jasotako diru sarreren kasuan* (777/2002)

• Erreklamazioa

Kexaren sustatzaileak bere PFEZ aitorpenak Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen zerbitzuaren bidez aurkeztu ohi ditu. Bere emazteak Zahartasun eta Ezgaitasunezko Derrigorrezko Aseguruaren (SOVI) ezgaitasun pentsio bat jasotzen zuen, ordura arte, 2000ko ekitaldiaren aitorpenean ezik, Errenta Mekanizatuko Zerbitzuari atxikitako langile teknikoek PFEZn salbuetsitzat joa zutena.

Baina 2002ko martxoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1999ko aitorpena egitean jarraitutako irizpidea zuzenduz, ekitaldi haren behin behineko likidazioa egin zuen, aipatutako pentsio hori zergapetuz eta ateratzen zen kuotari berandutza interesak ere aplikatuz. Gainera, urraketa larriarengatik zehapen espedientea ere abiarazi zuten (zerga zorraren zati bat edo zorra osorik arautegietan esandako epeetan ez ordaintzeagatik), alegazioak aurkeztu ondoren baliorik gabe geratu zena.

1999ko ekitaldiko likidazio hura jaso eta gutxira, erreklamaziogileak 2001eko zergaldiaren PFEZren aitorpena aurkeztu zuen, aurreko urteetako sistema beraz baliatuz eta, orduan ere, Administrazioak pentsio hura zergatik salbuetsitzat jo zuen.

Interesatuak ez zuen ulertzen zergatik pentsio bere urte batzuetan salbuetsita zegoen eta beste urte batzuetan, berriz, ez. Bestalde, aplikatutako berandutza interesei dagokienez, bere iritziz Gipuzkoako Foru Aldundiaren gehiegikeria baten ondorioa ziren, Aldundiak zergadunari egotzi baitzizkion aitorpenak egitean Administrazioak berak egindako ustezko akatsaren ondorioak. Bi gaiak argitzeko asmoz, interesatuak esku hartzeko eskatu zigun.

• Azterketa

Kexa honen sustatzaileak PFEZren araudiak pentsio zehatz hari ematen zion tratamenduaren gaia alde batera lagatzen zuen arren, Administrazioaren jarduera desberdinak babesten zituzten lege aldaketak egingo zirelakoan, guk kexa honen tramitazioa alderdi horretatik bideratu genuen, gure ustez datu horrek argituko baitzituen kexan esandako gainerako kontu guztiak.

Alde horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak pentsio hori adinarengatik, eta ez eskatzailearen ezgaitasunarengatik jasotzen zela hartzen zuela jakinarazi zigun eta, horregatik, PFEZren pean jartzen zuela, gainerako lan etekinekin batera.

Gure aldetik, Zahartasun eta Ezgaitasunezko Derrigorrezko Aseguruaren funtsezko ezaugarriak aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak zioenaz bestelako ondorio batera heldu ginen.

Egun, SOVI hori hondar araubide modura jarrita dago, eta iraungitako araubide hartan jartzen ziren baldintzak betez, orain indarrean dagoen Gizarte Segurantzan babesik ez daukaten langileei aplikatzen zaie. Babes ekintza horren barruan honako pentsio hauek daude sartuta:

- Zahartasuna

- Ezgaitasuna
- Alarguntasuna

Zahartasun pentsioak, aldi berean, bi aldagai ditu: zahartasun hutsarena, eta ezgaitasunezko zahartasunarena. Hona hemen bakoitza aitortzeko eskatzen diren ezaugarriak eta baldintzak:

a) Zahartasun hutsaren pentsioa: kotizaioko gutxieneko batzuk betetzeaz eta bestelako pentsiorik ez jasotzeaz gain, eskatzaileak 65 urte beteak behar ditu.
b) Ezgaitasunezko zahartasun pentsioa: 60 urtetik aurrea eutsi ahal zaio, eskatzaileak, arestian kotizazioko gutxienekoez eta bestelako pentsiorik ez hartzeaz esandako baldintzez gain, ohiko bere lanbiderako ezintasun iraunkorra eta erabatekoa daukanean, inongo laneko istripu edo gaixotasun profesionaletik ez datorkiona.

Ezgaitasunezko zahartasun pentsio hau ez da ezgaitasun pentsioaren berdina. Hartara, adin muga desberdinen mende egoteaz gain, ezgaitasunezko zahartasun pentsioetarako ez da ezintasuna eragin duten min edo gaixotasunak interesatuaren lan jarduera etenarazi dutenak izan daitezen eskatzen eta, ezgaitasun pentsioetarako, berriz, bai eskatzen da. Beraz, SOVIari behar zuten denboran kotizatu zioten, lan egiteari utzi zioten eta, gerora, ezgaitasun iraunkorreko egoera etorri zaien pertsonek 60 urte bete arte itxaron behar dute ezgaitasunezko zahartasun pentsio hori eskatu ahal izateko.

Azken batean, hauxe esan dezakegu:

1. Ezgaitasunezko zahartasun pentsioa bi egoera batzen direlako etortzen da: hartzaileak 60 urte bete dituelako eta ezgaitasun iraunkorra daukalako. Bi egoeretako bakoitzak bere aldetik ez du, berez, pentsio hau jasotzeko eskubiderik ematen, biak batera gerta daitezen beharrezkoa baita.
2. Adinarengatik besterik gabe datorren pentsio bakarra zahartasun hutsarena da, eta horri eusteko ez da nahikoa 60 urte izatea, 65 urte bete behar izan baitira.
3. Zahartasunezko bi pentsio mota hauen artean dagoen oinarrizko aldea da ezgaitasunezko zahartasunaren pentsioaren hartzaileak ezgaitasun iraunkorra daukala, horixe baita, azken batean, adin baldintza 5 urte jaistea dakarrena.

Datu hauek kontuan izanik, ezin genuen Gipuzkoako Ogasunak gai honetan jarraitzen zion irizpidearekin bat etorri, hau da, ezin genuen pentsioa hartzeko eskubidea zergadunaren adinaren ondorioz soilik zetorkiola esan, zaharra izatean bezain garrantzisua zen ezgaitua ere bazelako datuari jaramonik egin gabe.

Gure iritziz, Foru Ogasunak, ikusi dugun bezala, pentsio hau jasotzeko eskubidea izateko behar ez den ezgaitasunaren eta lan jardunaren etenaren arteko lotura eta, beheralako zerikusia izan ez arren (ezgaitasun aitorpena 60 urte bete baino lehenago gertatzen denean), erabat halabeharrezkoa dela ikusi dugun ezgaitasunaren eta pentsioaren beraren arteko loturarekin nahastu du.

Behin ezgaitasunezko zahartasun pentsioaren edukizko ezaugarriak mugatu ondoren, hurrengo urratsa PFEZren araudian aurreikusitako salbuespen suposamenduren batera eramateko modukoa den ala ez zehaztea da.

Zehazki, PFEZ araupetzen duen abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauaren 9b) artikuluak "***Gizarte Segurantzak** zein bere ordezko Erakunde kudeatzaileek **ezgaitasun iraunkorraren ondorioz onartutako pentsioak**...*" salbuestea aurreikusten du.

Horren ildotik, esan behar dugu Gizarte Segurantzak SOVI pentsioak, oro har, eta bereziki ezgaitasunezko edo ezintasunezko zahartasunekoa onartzen dituela (GZLO/94 7. Xedapen Iragankorra), guztiak hondar izaerakoak diren eta oraingo babes sistemaren barruan sartzen ez diren arren.

Bestalde, lehenago ikusi dugunez, ezgaitasunezko zahartasun pentsioa legearen edukiaren aldetik bi egoerek bat egiten dutelako sortzen da: 60 urteko adina eta ezgaitasun iraunkorra bateratzen direlako.

Hartara, SOVIren ezgaitasunezko zahartasunaren pentsioak PFEZ araupetzen duen 8/1998 Foru Arauaren 9b) artikuluak zergatik salbuesteko eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela ondorioztatzen dugu, Gizarte Segurantzak onartzen duelako eta, gainera, hartzailearen ezgaitasun iraunkorraren ondorioa delako, ondorio berehalakoa eta esklusiboa ez den arren.

• Emaitza

Azaldutako planteamenduaren arabera, erakunde honek gomendio bat helarazi zion Gipuzkoako Aldundiari, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan SOVIren (Zahartasun eta Ezgaitasunezko Derrigorrezko Asegurua) ezgaitasunezko zahartasun pentsioaren salbuespena onar zezan, eta ukitutako zergadunen zerga zorraren egoera erregularizatzeko beharrezko likidazioak egin zitzan eskatuz. Gomendioa oso-osorik onartu ziguten.

⇒ *Ezkontza banaketaren suposamenduak: baterako aitorpena eta ondorengoekiko bizikidetasuna* (668/2003)

• Erreklamazioa

Erakunde honetan kexa bat jaso genuen, Arabako Foru Aldundiak bidalitako behin behineko likidazioarekin ados ez zegoen aita banatu batek jarria, Aldundiak interesatuak 2002 urteari zegokion autolikidazioan baterako zerga ordainketarengatik zegokion kenkaria ezabatu baitzion.

Interesatua Ogasunaren bulegoetara joan zen, gai hura argitu nahian, baina, antza, kasu egin zion funtzionarioak ez zela akatsa, banatutako pertsonen zerga ordainketan irizpidea aldatu izanaren eta zerga kudeatzen zuen bulegoa 2002ko likidazioetan aplikatzen hasia izanaren ondorioa baizik eranzun zion.

Irizpide berria erreklamaziogilearen kasura aplikatuz, baterako aitorpena bere ezkontide ohiak baino ezin zuen aurkeztu, hark baitzeukan bion alabaren zaintza. 35/1998 Foru Araua indarrean jarri zenetik 2001era arte, PFEZren arauetan jarraitzen zen irizpideak, halako kasuetan, baterako aitorpena guraso bakarrari aurkezten lagatzen zion, bizikidetasunaren datua kontuan izan barik, nolanahi ere, Administrazioaren aurrean bi gurasoek sinatutako akordio bat aurkeztu behar bazen ere, eskubide hori nork baliatuko zuen argitzeko.

• Azterketa

Ukitutako araudi hori zehatz-mehatz aztertu ondoren, Arabako Foru Aldundiari informazioa eskatu genion, legezko banaketa dagoenean edo ezkontza loturarik ez dagoenean zerga ordainketaren xehetasunak ematen dituen araua interpretatzeko irizpidearen gainean (PFEZ araupetzen duen 35/1998 Foru Arauaren 91.2 artikulua).

Arabako Foru Aldundiak bere jarduera erreklamaziogileak aurkeztutako agirietan oinarritzen zuela, zehazki arauketa hitzarmenean eta banaketa epaian, eta datu horiek, egiazki frogatuta, egindako behin behineko likidazioa legezkoa zela erakusten zutela, datuetan erreklamaziogilearen zaintza eta babesa alabaren amari zegokiola frogatzen baita.

Baina ezin da, gure iritziz, planteamendu hori baliozkotzat eman, aurretiaz legezkoa den baloratu barik, hau da, indarreko legediak horren gainean zer dioen ikusi eta eskuarteko auzia horretan nola geratzen den aztertu gabe.

Horren ildotik, 35/1998 Foru Arauaren 91. artikuluak PFEZren ondoreetarako onartzen diren familia batasuneko modalitateen gainean zer dioen eta noraino iristen den aztertzea da kontua. Artikuluaren 1. atalak familia batasunaren modalitaterik arrunt edo ohikoa jasotzen du, legez banatu barik dauden ezkontideena eta, izatekotan, seme-alaba adingabe edo judizialki ezgaitutako adinekoena. 2. atalak, bere aldetik, legezko banaketako eta ezkontza loturarik gabeko suposamenduetan aplika daitezkeen berezitasunak finkatzen ditu, baina zehaztasun handirik gabe idatzita dagoenez, interpretazio arazoak sor ditzake, oraingoan gertatu den bezala.

Gure aldetik, 35/1998 Foru Arauaren 91.2 artikuluaren interpretazio irizpiderik zuzenena, legezko banaketako eta ezkontza loturarik gabeko suposamenduei dagokienez, honako eskema honen inguruan dago:

- ✔ **Arau orokor modura**, gurasoetako batek soilik aurkez dezake 91. artikuluaren 1. puntuan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten seme-alaba **guztiekin** baterako aitorpena. Horrekin aitak eta amak PFEZren ondoreetarako seme-alabak banatzea ekidin nahi da, arauak guraso bati bakarrik onartzen baitio baterako aitorpena aurkeztea, eta horrek bere familia unitatean seme-alaba guztiak sartuko ditu, beste gurasoa kanpoan utzita.
- ✔ Gainera, esan dugun bezala guraso bakarrari aitortzen zaion eskubide hau ez dago bizikidetasunarekin lotuta eta, beraz, seme-alabekin **bizi denari** (logikoki, seme-alaben zaintza eman zaiona) zein seme-alabekin **bizi ez denari** (zaintza eman ez zaiona) egokitzea gerta daiteke.
- ✔ Arau orokor honen **salbuespen bakarra** epaileak seme-alaba guztien zaintza guraso bakarrari eman ez dioneko banaketa kasuetan soilik gertatzen da. Halako kasuetan bakarrik, PFEZren ondoreetarako, bi familia batasun daudela onartzen da, bakoitza guraso batek eta zaintzaz dagozkion seme-alabak osatzen dutelarik. Hartara, bi seme-alabadun senar-emazteak banatzen badira, eta epaileak baten zaintza aitari eta bestearena amari ematen badie, guraso bakoitzak familia batasuna eratuko du, zaintzan egokitu zaion umearekin eta, beraz, nahi izanez gero, baterako aitorpena aurkeztu ahalko du, beste gurasoarekin inolako akordiotara iritsi beharrik gabe.
- ✔ Legezko banaketa eta izatezko batasunetako gainerako suposamenduetan, gurasoek ados jarri behar dute seme-alaba guztiekin batera familia batasuna nork eratzen duen kontuan. Hartara, seme-alaba guztien zaintza modu berean

emanda dagoenean (hau da, denak aitari, denak amari ala denak biei), gurasoen **akordioa** beharrezkoa da baterako aitorpena aurkeztu ahal izateko.

Eskuarteko kasu honi irizpide hori aplikatuz, guk, Arabako Foru Aldundiak orain dela gutxira arte egiten zuen bezala, erreklamaziogileak, alabarekin bizi ez arren, zergak alabarekin batera ordaintzeko aukera daukala ulertzen dugu, baina horretarako Administrazioari emazteohiarekin horren gainean lortutako akordioa aurkeztu behar du, hori da baldintza bakarra.

Ikusi dugunarengatik, ordea, Arabako Foru Aldundiak ez dio irizpide horri jarraitu 2002ko PFEZ aitorpenak berrikusteko orduan, baizik eta suposamendu horiek 91.2 artikuluaren 2. lerroaldean sartuz, erreklamaziogileari, alabaren zaintza ez daukanez, arau orokorra aplikatu beharrean, hau da, guk ulertzen dugunaren arabera, interesatuari zergak alabarekin batera ordaintzen laga beharrean, emazteohiarekin lortutako akordiorik aurkeztekotan alabarekin baterako aitorpena egiteko aukera ukatu baitio.

• Emaitza

Arartekoak gomendio bat zuzendu zion Arabako Foru Aldundiari, legez banatuta dauden eta ondorengoen zaintzarik eman ez zaien pertsonei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga araupetzen duen abenduaren 28ko 35/1998 Foru Arauaren 91.2 artikulua, interpretatzeko oraingoan erabilitako irizpidea baztertu eta aurreko ekitaldietan jarraitutako irizpidea berriro har zezan proposatuz.

Txosten hau amaitzen ari garenean, oraindik Foru Aldundiaren erantzunaren zain gaude, ea gure gomendioa onartu duen ala ez jakiteko.

## C) **Foru zergak. OEZ. Oinordetzak eta Dohaintzak**

⇒ *Bere garaian erositako etxebizitzaz bizi artean gozatzeko eskubidea alaba bati dohaintzan ematea. Jabetza finkatzea* (1181/2002)

• Erreklamazioa

Erreklamaziogilea 1985ean, emaztearekin batera, etxebizitza baten biziarteko gozamenaz jabetu zen, eta haren jabetza soila alabari eman zioten. 2001ean, gurasoek gozamen eskubidea alabari dohain ematea erabaki zuten, eragiketa hura irabazizko izaerarengatik eta esku hartzen zuten aldeen ahaidetasunarengatik, zergetatik salbuetsita egongo zelakoan. Foru Ogasunak, ordea, alabari Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren likidazioa bidali zion, interesatuek, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Arauan aurreikusitako salbuespena alegatuz, errekurritu zutena. Administrazioaren erantzunik jaso ez zutenez, interesatuek Arartekoarengana jo zuten, esku har zezan eskatzera.

• Azterketa

Bizkaiko Foru Aldundiarekin gai honen gaineko lehenengo kontaktu bat izan ondoren, interesatuak aipatutako likidazioaren aurka jarritako errekurtsoa ezesten zuen ebazpena helarazi ziguten. Ebazpena ikusita, informazio gehiago eskatu genuen, zeren Bizkaiko Foru Aldundiak likidazio hura Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren

araudian gozamen eskubideari eta, zehazki, jabetza soilaren jabaria finkatzeari buruz jasotako hainbat arau berezitan oinarritzen baitzuen, baina ez zuen, ordea, erreklamaziogileak bere errekurtsoan Zerga hori araupetzen duen Arauaren 5. artikuluko salbuespenaren gainean, emailea hartzailearen ezkontidea, aurreko zein ondorengoa, adopzioz hartzaile edo hartutakoa denean, bizirik daudela eta dohain burututako eskurapenari aplika dakiokeela dioen horren gainean adierazitako alegazioaren inolako aipamenik egiten.

Suposamendu honetako bitxitasuna Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari ez eze, Ondare Eskualdaketaren gaineko Zergari ere lotuta dagoela da. Azkeneko zerga honekin duen lotura gozamen hori erosketaren bidez eratu zelako datorkio, horrek zerga horren mende jartzen duelarik. Hartara, aurreko eta ondorengoen arteko dohaintzak Bizkaiko Lurralde Historikoan Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik salbuetsita daudela ahaztu barik, kontua da kasu zehatz hau (diruz erositako gozamen eskubidea dohaintzan ematea, eta jabaria jabe soilarengan finkatzea) beren beregi araututa dagoela Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren barruan, eta zerga honengatik ordaindu behar duela.

Erreklamaziogilearen alaba etxebizitzaren jabetasuna pixkana eskuratuz joan da edo, bestela esanda, bi fasetan (lehenengoan jabetza soila, eta gerora, gozamena iraungitzean, jabari baliagarria). Era berean, zergapetzea ere bi fasetan artikulatzen da, lehenengoa jabetza soilaren kostu bidezko erosketaren unean eta, bigarrena, gozamena iraungitzearen ondorioz, jabaria finkatu zaionean.

Jabaria jabe soilarengan finkatzen deneko kasu honetan jokoan sartzen diren bi zergen araudiei dagokienez, biek emaitza berera garamatzatela ohartu gara. Hartara, Oinordetzen gaineko Arauak, 25. artikuluan, gozamena iraungitzean zerga gozamena jaso zen moduaren arabera eskatuko dela dio (kasu honetan, Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga). Bestalde, Ondasun Eskualdaketen gaineko Zergaren Arautegiaren 39.3 artikuluak dio, jabaria jabe soilarengan aurreikusitako epea bete edo gozamenduna hiltzeaz bestelako arrazoiren batengatik finkatzen bada, jabe soilari artikulu honetan aurreikusitako likidazioaren eta gozamena iraungitzeko zio den negozio juridikoari dagokion likidazioaren artean handiena eskatuko zaiola. Eskuartean dugun kasuan, likidaziorik handiena lehenengoa da, Foru Ogasunak bidalitakoa, alegia (gozamenari iraungi den unean eratxikitako balioaren % 6a), zeren bigarrena zero baita, gurasoengandik alabarenganako dohaintzaren ondoriozko salbuespenarengatik, hain zuzen.

• Emaitza

Gure ustez, oraintxe azaldu dugun likidazio hori indarreko zerga araudia betez egin zen eta, horregatik, amaitutzat jo genuen espedientea, interesatuari zegokion informazioa bidali ondoren.

## D) **Udal zergak**

⇒ *Etxebizitza babestuei hobariak aplikatzea OHZ* (1017/2002)

• Erreklamazioa

Bilboko auzokide erkidego batek udalaren jarduerarekin ados ez zegoela adierazi zigun.

Desadostasuna udal administrazioak 2002an zehar Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren lau ordainagiri bidali zizkielako zen, zehazki, 1999, 2000, 2001 eta 2002koak, kontuan izan barik, gainera, beraiek bizi ziren etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitza sozial modura sailkatuta zeudela.

• Azterketa

3/1993 Foru Arauak, 1. Xedapen Gehigarrian, OHZren kuotan % 50eko hobaria sartzen du, babes ofizialeko araubidearen mende dauden etxebizitzentzat. Hobari horrek hiru urteko indarraldia dauka, higiezinari behin betiko kalifikazioa ematen zaionetik.

Ordainagirietan hobari hori zergatik sartu ez zen, eta urte berean OHZren lau ordainagiri zergatik bidali zitzaizkien jakin nahian, Arartekoak txosten bat eskatu zion Bilboko Udalari. Udal erakundeak erantzun zigun VISESAren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurretiazko jardueretan atzerapenak pilatuz joan zirela. Hartara, Udalak aitortzen zuen, sustapena 1998aren amaieran entregatu zen arren, beraiek ez zutela, 2001eko irailaren amaierara arte, etxebizitza horiei zegokien OHZrik igorri behar zutenik jakin.

Udal erakundea ordainagirien kobrantza denboran banatzen saiatu zen arren, urte berean lau likidazio pilatu zitzaizkion, udalak, nola edo hala, ordainagiriren batek preskribitzea saihestu behar baitzuen.

Bere azalpenean, Bilboko Udalak Arartekoari VISESAk, etxebizitza horiek OHZren erroldan sartzeko eskarian, ez zuela higiezinak inolako mugaren mende zeudenik eta, ondorioz, zerga hobarien onuradun izan zitezkeenik aipatzen esan zion; horregatik, ezin izan zuten ingurumari hori kontuan hartu, ordainagiriak kobratzera joan zirenean.

Nolanahi ere, aurreko guztiarekin batera, Bilboko Udalak jakinarazi zigun auzokide erkidego haren eskariari jaramon egingo ziotela eta 1999, 2000 eta 2001eko ekitaldietako OHZren kuotan % 50eko hobaria aplikatuko zietela. Horretarako baina, lehenengo hiru urte horiei zegozkien likidazioak baliogabetu eta, ondoren, likidazio zuzenduak igorri behar zituzten.

• Emaitza

Erreklamaziogileek Bilboko Udalak beren arazoa konpontzeko egingo zuenaren berri eman genien.

Aldi berean, Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuen Sailari kexa espedientean agerian geratzen zen VISESAren jardueraren disfuntzioa jakinarazi genion, behin arazo hori antzemanda, aurrerantzean halakorik berriro gerta ez zedin neurriak har zitzaten.

### ⇒ *Ibilgailuaren lapurretaren eragina TMIZren ordainketan* (547/2003)

• Erreklamazioa

Bizkaitar batek Arartekoarenean bera bizi zen herriko udalak, 2002ko maiatzaren hasieran lapurtu zioten automobilaren 2002 eta 2003ko TMIZ ordaintzeko eskatzen ari zitzaizkiolako kexatu zen.

Haren ustez, lapurreta Ertzaintzarenean salatu zuen unetik, ez zuenez furgoneta eskueran izan, ezin izan zuenez furgonetan ibili, zergarik ere ez zuen ordaindu behar.

• Azterketa

Komeni da kontuan izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan TMIZn zerga egitatea, edo zerga hori ordainaraztea dakarrena Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauak definitzen duela. Hara zer dioen:

> *"Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, mota eta kategoria direnak direlarik, kaleetatik zirkulatzeko egokiak diren halako ibilgailuen titularitatea zergapetzen duen zerga zuzena da, zirkulazio baimenean ageri den helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerri batekoa denean.*
> *Zirkulatzeko ibilgailu egokitzat dagozkion erregistro publikoetan matrikulatu dena hartzen da, betiere erregistroetatik baxa eman ez bazaio. Zerga honen ondoreetarako, aldi bateko baimenak eta matrikula turistikoa dauzkaten ibilgailuak ere halakotzat joko dira."*

Horrek esan nahi du ordaintzeko beharra ibilgailuaren titularitatearen ondorioa da, eta ibilgailua Trafikoko erregistroetan baxa eman gabe dagoelako, zeren baxan badago soilik ez baita, TMIZren ondoreetarako, ibilgailua zirkulatzeko egokia. Hau da, ibilgailua berez baliakizun izateak ala ez izateak ez du eragin praktikorik.

Salaketak, Trafikoko erregistroetan baxa eman ahal izateko nahikoa izango bada ere, ez du ibilgailua erregistro horietarako automatikoki baxan egotea berehalakoan eragiten, horretarako herritarrak espresuki eskatu behar baitu.

Zerga igortzen duena Udal bat da, eta berak, bere lana egiteko, Trafiko burutzetako erregistro publikoetan inskribatzen diren datuak soilik ditu eskueran. Horregatik da hain garrantzitsua gainerakoen aurrean ere ibilgailuen inguruko gorabeheren berri zabaltzea.

Trafiko gaietako legediak ibilgailu bat lapurtzen denean Ibilgailuen Arautegi Orokorretik aldi batez baxa emateko aukera eskaintzen du. Baina jarduera hori titularrak eskatuta egiten da, beti.

• Emaitza

Ukitutakoari jakinarazi genion Udala indarreko legediaren barruan jarduna zela, eta Bizkaiko Trafiko Burutzan ahalik eta lasterren ibilgailuari aldi batez baxa eman ziezaioten eska zezan aholkatu genion zeren, bestela, urtero-urtero TMIZ berria ordaindu beharko baitzuen.

## E) **Udalaren tasa**

⇒ *Kaleak aldamioekin okupatzea* (877/2003)

• Erreklamazioa

Erakunde honetan Bilboko jabe erkidego baten kexa idatzia jaso genuen, udalak kalea aldamioekin okupatzeagatik tasa modura igorritako hainbat ordainagiri baliogabetzeko eskaria ezetsi zielako ados ez zeudela esanez.

Ukitutakoek alegatzen zuten obrak 2001eko azaroan hasi eta 2002ko ekainean amaitu zirela baina, hala ere, 2001eko bigarren hiruhilekoaren eta 2002ko bigarren hiruhilekoaren arteko epeak kobratu nahi zizkietela.

Era berean, ordainagirian ageri den legendan transkripzio akats baten ondorioz, Bilboko Udalak hirutan igorri zuela, kobratzeko, *"3 trimestre 2002, ANDAMIO"* zioen ordainagiria. Ordainagiri hura, lehenengo unean, baliorik gabe utzi zen, zerga egitate hura egin ez zelako, baina, paradoxikoki, hirugarrenez jaso eta errekurritu zutenean, ordainagiria berretsi zieten, izatez 2002ko 2. hiruhilekoari zegokiolakoan.

• Azterketa

Bilbon udalaren jabari publikoaren bakarreko erabilpen eta aprobetxamendu bereziengatik dauden tasak araupetzen dituen Zerga araudiak dio, kalearen okupazioaren baimenean iraupen zehatzik espresuki finkatzen ez denean, ordaindu beharreko epea kalea aldamioekin okupatzeko baimena ematen den egunean hasten dela eta udalak, auzokideek udalean egindako baxa adierazpenaren udal adostasuna ematen duenean amaitzen dela.

Kasu honetan, kalea aldamioekin okupatzeko baimena 2001eko apirilean eman zen (2001eko 2. hiruhilekoan), eta 2002ko azaroan obraren amaierako egiaztapena aurkeztu zen, 2002ko ekaineko datarekin (2002ko 2. hiruhilekoa). Beraz, besterik ezean, 2001eko bigarren hiruhilekotik 2002ko 2. hiruhilekora bitarteko epearengatik ordaintzea zegokien.

Ukitutakoek alegatzen zuten obrak 2001eko azaroan hasi zirela, baina ez zuten aldamioak jartzen noiz hasi ziren erakusteko inolako frogarik aurkezten, eta datu hori zen, ondore horietarako, garrantzia zuena. Horregatik, aldamioak jarri zizkien enpresari ordaindutako fakturak berrikusteko iradoki zitzaien edo, bestela, enpresarekin harremanetan jar zitezen, ziurtagiriren bat luzatzeko eskatzeko, Bilboko Udalari aldamioak kalearen gainean benetan zenbat denboraz jarrita egon ziren egiaztatzeko moduko agiririk aurkeztu ahal izateko.

Azkenean, Udalari jakinarazi zitzaion udalaren jarduerak berak, ordainagiri guztietan "*3 trimestre 2002 ANDAMIO*" aipatzean jabeen erkidegoari nahasmena eragin ziela, eta horregatik ez zituztela ordainagiriak epe barruan ordaindu. Halatan, Arartekoak gainkarguak eta ordainagiri zehatz hori ordainarazteko epean eskatzearen ondorioz izan litezkeen gastuak ezabatzeko proposatu zuen.

• Emaitza

Bilboko udalak onartu zuen premiazko bidetik ordaindutako ordainagiria baliogabetu eta zenbateko hori itzultzea, eta zorraren printzipala jaso zezan ordainagiri berria luzatzea.

# 7. HERRIZAINGOA

## 7.1. SARRERA

2003an, Ararteko erakundeak herrizaingoaren arloko 107 kexa jaso ditu, hau da, epealdi honetan barrena jasotako kexa guztietatik % 10,04. Horrek % 19,6ko murrizketa ekarri du 2002an arlo honetan izandako kexa kopuruaren aldean. Horrela, ukitutako administrazioen araberako sailkapena eginda, kexa horiek ondokoak izan dira:

- Tokiko Administrazioa ........................................ 56
- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ........................................ 36

Kexen edukia kontuan hartzen bada, sailkapena ondoko hauxe da

- Trafikoa ........................................ 55
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ........................................ 26
- Eskubideak eta askatasunak ........................................ 15
- Joko eta ikuskizunak ........................................ 5
- Bestelakoak ........................................ 4
- Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna ........................................ 1
- Herritarren segurtasuna ........................................ 1

Gainera, ofizioz hasitako 6 espediente tramitatu dira, ondoko azpiarlo hauetan: atxiloketa zentroak (3), eskubide eta askatasunak (1), herritarren segurtasuna (1) eta trafikoa (1).

Aurreko urteetan bezala, **trafikoaz** aurkeztu diren kexarik gehienak zehapen araubideari buruzkoak izan dira eta, bereziki, trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunaren gaineko arautegia urratzeagatiko zigorrak jartzeko jarraitutako prozedurari buruzkoak.

Aurten, hala ere, banakako jakinarazpenak egiteko moduari buruzko kexak murriztu dira. Gainera, aurreko urteetan gertatzen zenaz bestaldera, arrazoi honengatik jaso ditugun kexarik gehienak ez dira oker egindako jakinarazpenak izan pertsona hartzailea egon ez delako; izan ere, kasurik gehienetan, jakinarazpena bidalia izan da prozedura hauek arautzen dituen arautegi zehatzak zehaztutakoa ez den beste helbide batera (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 78.2. artikulua).

Aitzitik, zehapen prozeduraren izapide eredu eta aurretiaz prestatutako ereduen ondorioz jarri diren kexen kopuruak gora egin du, hala nola, pertsona interesatuak proposaturiko frogen gainean administrazioak erantzun ez izana, aurkeztutako alegazioei erantzun zehatzik eman ez izana edo bestelakoak. Hori dela eta, Konstituzioaren 24.2. artikuluan aintzatetsitako defentsa eskubidearen perspektibatik gai horrek duen garrantzia kontuan hartuta, egokitzat jo dugu gaiari izaera orokorreko gomendio baten bitartez oratzea, txosten honetan sartuz (VI. kapitulua).

Zehapenen kontra jarritako administrazio errekurtsoen gainean ebazteko betebeharra atzera ere azpimarratu beharra dago, betiere derrigorrezko betearazpenari

ekin baino lehenago (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretuaren 83. artikulua eta otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 20. artikulua); izan ere, egiaztatu ahal izango dugunez, udal batzuek oraindik ere ez dute jardun hori betetzen.

Beste alde batetik, aipatzekoak dira birritan salatu eta zigortutako urratze bakarregatik egindako kexak. Kexa horietariko bat hurrengo epigrafean laburbildu dugu (1251/2002).

Erakunde honen kezka handia da gure hainbat udalerritan ezgaitasunen bat duten pertsonei gordetako plazak modu desegokian erabiltzea. Tamalez, arazo honek aurten ere kexa asko eragin ditu eta, ondorioz, ofizioz jardun behar izan dugu.

Gordetako aparkaleku plazak errespetatzeko pertsona batzuek erakusten duten begirune faltak modu larriak urratzen ditu babesa behar duen kolektibo baten eskubideak, pertsona honen izaera nabarmen gutxietsiz.

Horrenbestez, garrantzi handikoa eta funtsezkoa da udalek eskubide hauen defentsan irmo eta sendo inplikatzea; horretarako, arreta handiarekin bete behar dira araubide juridikoaren arabera gordetako plazen erabilera modu egokian erabiltzen diren ala ez zaintzeko zereginak.

Arlo honetako beste eremu batzuei dagokienez, lehenengo eta behin, azpimarratu behar dira hainbat ertzain etxetan zerbitzuak adjudikatuta dituzten enpresen bi beharginek aurkeztu dituzten kexak; izan ere, Herrizaingo Sailak ez die baimenik eman enpresek kontrataturiko zereginak betetzeaz arduratu behar diren lan taldeetan parte hartzeko. Bi kasuetan, erreklamaziogileak kexatu ziren sail horrek erabakiaren arrazoien berri eman ez zielako, behin eta berriz eskatu zuten arren. Txosten hau amaitzear gaudela, oraindik ere Herrizaingo Sailak arrazoi horien berri emateko zain gaude; izan ere, horien bitartez, erreklamaziogileei azaldu ahal izango zaie zeintzuk diren erabakiaren oinarria ez jakinarazteko arrazoiak eta zeintzuk diren poliziaren bulegoetara zerbitzu-enpresetako langileei sarrera baimentzeko aplikatzen diren irizpide materialak.

Halaber, aipatzekoa da Ertzaintzak hamar eguneko epean -desobedientziagatik eta agenteei eraso egiteagatik- birritan atxilotu duen pertsona baten kexa; izan ere, horrek hainbatetan izaten den gai bat datorkigu gogora, hau da, lehenengo sailkapen judizialetik faltatzat hartzen diren jarrerengatiko atxiloketa.

Arartekо erakundeak ez ditu kolokan jarri nahi Prozedura Kriminaleko Legearen 495. artikuluaren aplikazio praktikoak eta faltaren delitua zehazteko irizpide orokorren ezarpenak dakartzaten zailtasunak. Izan ere, zailtasun horiek azpimarratu genituen *Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak* izeneko txostenaren 8. e) gomendio zehatzean. Guztiarekin ere, egiaztapen horrek ez zigun oztoporik jarri ondoko hau adierazteko: "*aurrerapausoak eman behar dira egindako atxiloketen gaineko prebentzio-baliabideak eta osteko kontrola artikulatzeko ildoan*". Honi jarraituz, hainbat prebentzio neurri proposatu genituen beharrezko zigor-izaera ez duten jarrerengatiko atxiloketak saihesteko (Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena, 1998, VI. kapitulua).

Prebentzio ildo honetan sakonduz, Herrizaingo Sailari gogorarazi dizkiogu aipatutako neurriak eta eskatu diogu erresistentzia, desobedientzia, agenteak eraso edo antzeko urratzeengatiko atxiloketen kontrol kuantitatiboa egiten ari den ala ez jakinaraz diezagun, bai eta gomendioan aipatutako ebazpen judizialen azterketa ere (gai honekiko gomendio orokorra txosten honetako VI. kapituluan). Aldi berean, eskatu diogu azal diezagun, kexaren kasuan, zergatik ez zen erabili "egozpen eginbidea", horixe baitzen

sail horrek martxan jarri zituen neurrietariko bat, gomendioa betetzeko eta, emandako informazioaren arabera, gorago aipatutako zigorretan oinarrituriko atxiloketen kopurua murrizteko. Txosten hau amaitzean, oraindik ere ez dugu inolako argibiderik jaso.

Gai bera ikus dezakegu beste herritar batek jarritako kexan; izan ere, pertsona hau desobedientziagatik eta identifikatzeari uko egiteagatik atxilotu zuten, polizien jardun baten barruan eta hori halaxe gertatu zen, antza denez, erreklamaziogileak agenteei euskaraz egin zielako. Kexa honek, gainera, behin eta berriz agertzen diren beste bi gai planteatzen ditu: agente batzuek euskararen erabileraren kasuan duten jarrera eta agenteek informazio-eskabidea interpretatzea, batzuetan, azalpenak eskatzen dituenaren atxiloketa eragiten duen errespetu edo desobedientzia modura.

Bilboko San Frantzisko auzoan atzerriko pertsonekin izandako hainbat polizi jarduketak ere kexak eragin dituzte.

Kexa horietariko bat inguru horretan atzerritarrekin lan egiten duen pertsona batek aurkeztu du, bi agentek gizon bat etxe bateko atarian sartzen zutela ikusi eta gero. Gainera, pertsona horrek ziurtatzen du auzoko inmigranteen lekukotza batzuk entzun dituela, atarietan gorputz araketa eta miaketak jasan behar dituztela salatuz.

Ararteko erakundeak arazo horri heltzeko aukera izan zuen *Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak* izeneko txostenean. Txosten horretan Ertzaintzari eta Bilboko udaltzaingoari egindako gomendioen artean bazegoen proposamen zehatz bat, ondoko gaiaren ingurukoa: "*hiritarren gauza pertsonalen gaineko kontrolak*" [8.2. gomendioa)]; horretan, kontrol horiek legeak baimendutako kasuetara mugatu behar zirela eta beti "azalekoak" izan behar zirela adierazten zen; gainera, beren beregi azpimarratu zen ez zirela atarien barruan edo bestelako leku itxietan egin behar (Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena, 1998, VI. kap).

Gomendio horretatik abiatuta, Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari eskatu diogu nola aplikatzen duten gomendio hori jakinaraz diezaguten eta kexan salaturiko gertakizunen gaineko argibideak eman diezazkiguten. Txosten hau amaitzean, oraindik ere ez dugu horri buruzko argibiderik jaso.

Arrazoi beragatiko beste kexa, poliziaren esku-hartzeak ukitutako pertsona berak jarri du. Hark adierazitakoaren arabera, Ertzaintzako jantzia zuten bi agentek lagun batekin zegoen lekuaren ondoko etxe baten atarian sartu zuten eta bertan miatu, biluztu eta lurrera bota zizkioten aldean zeramatzan gauza guztiak.

Kexa hau konpontzeko egindako informazio eskabideari erantzunez, Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun, aipatutako gertakizunak zirela eta, zigor jurisdikzioan aldez aurretik diligentzia batzuk sortzen ari zirela eta edozein esku-hartze jarduketa egoitza judizialetan eman beharreko ebazpenen menpean zegoela. Edozein kasutan ere, jakin ahal izan genuenez, aldez aurretiko eginbide horiek artxibatuak izan ziren, sail horren laguntza eskatu baino lehenago. Gainera, gure iritziz, zigor bidean aldez aurretiko diligentzia edo eginbideak zabaldu izana ez da oztopoa izan behar diligentzia horietan izandako gertakizunak iker daitezen (Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 91.5. artikulua). Horrelaxe jakinarazi diogu Herrizaingo Sailari, bai eta bide batez eskatu ere, erreklamaziogileak salaturiko gertakizunak argitzeko garaturiko ikerlanen eta emaitzen berri eman diezagun. Txosten hau amaitzean, oraindik ere ez dugu argibiderik jaso.

Diligentzia judizialen existentzia Herrizaingo Sailak emandako erantzuna izan zen, Ertzaintzako kide bati buruzko beste kexa baten inguruko informazio eskaera egin zitzaionean. Kasu honetan ere jakin ahal genuen, hala ere, diligentziak artxibatuak izan

zirela sail horrek bere jarduketa diligentzia horien emaitzaren arabera baldintzatuko zuela jakinarazi baino bi hilabete lehenago.

Aurten, 2002ko txostenean bezala, poliziara –kasu honetan Ertzaintzara– senarraren tratu txarrak salatzeko jo zuen emakume baten kexa azpimarratu beharra dago; izan ere, laguntza eman behar izan zion agenteak ez zion tratu egokia eman. Herrizaingo Sailak gertaturikoak aztertu eta ondorioztatu ahal izan zuen, hain zuzen ere, agenteak ez zuela beharrezko jarraibideen arabera jokatu.

Halaber, aipatu behar dugu atzerriko pertsona batek aurkeztu digun kexa; izan ere, atxilotu zutenean, Ertzaintzak beraren egoitza baimena galdu zuen. Erreklamaziogileak emandako gorputz miaketaren diligentziaren kopian egiaztatu ahal izan dugunez, atxiloketa izan zenean, beste gauza batzuen artean, aipatutako dokumentu hori azaltzen zen. Gainera, erakunde honetako langileek atxiloketa izan zeneko polizi bulegoetara egindako bisitan egiaztatu ahal izan genuen emandako gauzen diligentzian beren beregi azaltzen zela interesatuaren egoitza baimena falta zela. Txostena amaitzean, oraindik ere ez dugu jaso kexa konpontzeko Herrizaingo Sailari eskaturiko informazioa.

Donostiako udaltzaingoaren esku-hartzea, betiere baimenik gabeko kaleko salmentaren salgaiak konfiskatzeari dagokionez, bi aldiz salatua izan da epe honen barruan. Kexetariko bat hurrengo epigrafean laburbildu dugu (490/2003). Laburbildu dugun gaiaren antzeko bat azaltzen zuen bigarren kexa aldekotasunez konpondu da tramitazioa izan bitartean; izan ere, Udalak saltzaileari hartutako merkantzia itzuli zion, jakinarazi digutenaren arabera.

Esanahi berezia dauka, azaleratzen dituen gaien garrantziagatik, Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko zuzendari baten kexak; izan ere, zentrora Ertzaintzaren bi agente sartu ziren berak jakin gabe eta ikastetxe barruan jarduteko izan zuten moduak ere eragin du kexa hori. Kexa honen laburpen bat (467/2002) egin dugu, hurrengo epigrafearen aukeraketan.

2003. urtean ustezko tratu txar eta torturengatiko kexak jaso ditugu berriro ere, Ertzaintzak terrorismoaren aurkako legeriaren pean egindako hainbat atxiloketaren kasuan. Hori dela eta, hainbat aldiz bildu gara *Gurasoak* elkarteko ordezkariekin eta ustez *kale borrokan* parte hartzeagatik atxiloturiko eta inkomunikazio erregimena aplikatu zaien hainbat gazteren gurasoek ere jo dute Arartekoaren erakundera.

Kexatzeko arrazoirik ohikoenak hiru alderdiren inguruan multzoka daitezke:

a) Batzuek atxiloketa egiten den uneari egiten diote men. Esate baterako, ondokoak salatzen dira: komunikabideen presentzia; familiaren kideak desegokiro tratatzea; poliziaren ikerketari ezer ekarriko ez dioten baina familiaren bizimodua oztopa dezaketen objektuak konfiskatzea (adibidez, gurasoen ezkontzako argazkiak, aitaren lanbide agenda…); poliziaren esku-hartzearen lehenengo unetan idazkari judiziala ez egotea edo azken horrek bere burua ezagutzera eze matea edo erregistroaren baimena ez aurkeztea; eta abar.

b) Poliziaren bulegoetan egon bitartean, erreklamaziogileek atxiloturiko pertsonari emandako tratu txarrak aipatzen dituzte. Kontakizunak desberdinak izan arren, ondoko hauek izaten dira salaketarik ohikoenak: mehatxuak, irainak eta presio psikologikoak; itaunketak, abokatua egon barik; lo egiten ez uztea; jarrera jakin batean egotera behartzea (adibidez, kukubilko jartzea); janaririk ez ematea; iletik tira egitea edo kolperen bate do beste; atxilotua biluztera behartzea edo biluzik

edukitzea; irain edo beheramendu sexualak… Familiak, halaber, kexu dira oinarrizko informaziorik ematen ez zaielako, batez ere atxilotua dagoen tokia zein den edo noiz jarriko duten epailaren esku. Ertzaintzak informazioa emateko telefono zenbakia eskaintzen dela ziurtatu arren, baliabide hori erabili duten senide gehienek uste dute ez dituela beraien beharrizanak betetzen eta batzuek "informazio ezaren telefonoa", "adar-jotzea" edo antzeko esakuneak erabili dituzte berori izendatzeko.

c) Oro har, erreklamaziogileek adierazten dute ez datozela bat, euren ustez, inkomunikazioaren aplikazio sistematikotzat jotzen dutenarekin, ez eta atxiloketa denbora luzatzearekin ere, aparteko neurri horiek hainbat kasu zehatzean beharrezkoak izan daitezkeela onartu arren. Beste alde batetik, atxiloketa bera alde batera utziz, hainbat kasutan -bereziki beste batzuetan atxilotuak izan diren eta ondoren askatu dituzten pertsonen kasuan- polizi jazarpen edo ankerkeriari buruzko kexak jaso dira.

Jakina denez, Ararteko erakundeak erreklamazio mota hauetan esku hartzeko dituen aukerak nahiko murritzak dira. Ezin da bazter utzi atxiloketa bera eta horren luzapena, inkomunikazioa edo etxeko miaketak epaile batek baimendutakoak izan direla, eta horri dagokio, antolamendu juridikoaren arabera, atxiloturikoaren eskubideak zaintzea zigor prozesu osoa izan bitartean. Bestalde, oso ohikoa izaten da ukitutako pertsonak berak gertakizunen salaketa judiziala jartzea; horrek erakunde honen esku-hartzea galarazten du, ezin baitio auzitegien iritziaren pean jarritako gaiak aztertzeari ekin.

Beste alde batetik, halako kasuetan gure zeregina ez da zuzentzen salaturiko gertakizunak argitzera, baizik eta poliziaren jardunak aurrezaindu eta ikuskatzeko eginkizunaren inguruan bilbatzen da, betiere esku-hartze bidegabeak saihesteko edo, hala badagokio, horiek aurkitu eta zigortzeko lanabesak eta tresnak ezar daitezen. Edozein kasutan ere, giza arrazoiengatik, sarritan harremanetan hasten gara Herrizaingo Saileko arduradunekin, atxiloturiko pertsonen egoeraren berri izateko, betiere horien senideek kezka zehatzen bat adierazten dutenean.

Ildo honi jarraituz, ezin gara gehiegi poztu; izan ere, iaz modu horretara lortutako informazioetariko batzuk ez ziren zehatzak izan (adibidez, atxilotu bati jantzi edo botikaren bat eman zitzaion ala ez edo Auzitegi Nazionalera aurkezteko unea zein izango zen…); horrek esku-hartze mota honen komenigarritasuna kolokan jarri eta, ondorioz, geure buruari galdetzen ari gatzaizkio hori egiten jarraitu behar dugun.

Beste alde batetik, aurreko urteetako lan ildo berari jarraituz, komunikaziorik gabeko atxiloketei dagozkien erregistro informatikoak eta argiketak berrikusi ditugu. Gauzak horrela, egiaztatu ahal izan dugu ordezkari judizialen edo auzitegiko medikuaren bisitak ohiko jardunak izaten direla. Era berean, uste dugu atxiloturiko pertsonak noizean behin ospitaleetara lekualdatzea bermeetariko bat dela. Zentzu negatibora joz, aipatzekoa da aztertutako datuetan izaten diren ohiko errakuntzak (esate baterako, ofiziozko abokatua eskatzeko ordu zehatza islatzean edo polizi diligentzia zehatz bat egitean). Egia esan, azterturiko kasurik gehienetan okerrak "txikiak" izan dira eta seguru asko datuak sartzeko prozedurak berak eragindakoak, baina berriro ere azpimarratu behar dugu polizi atxiloketaren garapena agiri bitartez ahalik eta modurik zehatzenean islatzeko garrantzia. Ildo honi jarraituz, sailari hainbat proposamen egin dizkiogu ikusitako akatsak aritzen laguntzeko, baina, momentuz, ez dugu inolako erantzunik jaso.

Nolanahi ere, iaz izandako berrikuntzarik nagusienetariko bat ondokoa izan da: *komunikazio ezaren erregimenean atxiloturiko pertsonei sorospena emateko koordinazio protokoloa* eta *komunikazio ezaren erregimenean atxiloturiko familiei sorospena emateko zerbitzua*.

Erakunde honek oso positibotzat hartzen ditu organismo desberdinen artean koordinatzeko ahaleginak (Ertzaintza, Osakidetza eta Legezko Medikuntzako Euskal Institutua). Bestalde, beti ulertu izan dugu azterketa medikoak atxiloturiko pertsonen eskubideen bermea direla. Ildo honi jarraituz, protokoloak azterketa horien aukerak garatu edo zehazten dituenez gero, bermeen birtualtasun hori ere indartzen du. Dena dela, ageriko gauza da azterketa medikoek, profesionalen esperientziak eta iritziak frogatzen duten bezala, mugak dituztela eta nekez zehatz dezaketela ea kasu hauetan Ertzaintzari egotzi zaizkion polizi jardun zehatz horiek egin diren ala ez (adibide modura aipa daitezke lo egiten ez uztea, mehatxuak, irainak eta atxilotuei ezarritako presio psikologikoak). Nolanahi ere, protokoloaren benetako aplikazioaren ebaluazio bat egiteari beharrezko deritzogu; hortaz, horri buruzko informazioa eskatu dugu, baina orain arte ez dugu argibiderik jaso.

Senideei sorosteko zerbitzuari dagokionez, ukitutakoek baieztatu dute, aldez aurretiko egoerarekin alderatuta, ez duela ezer hobetu. Bestalde, erakunde honek hainbatetan proposatu du eman beharreko informazioan atxiloturiko pertsona dagoen toki zehatza (ertzain etxea) eta epailearen esku jartzeko aurreikusten den ordua ere adieraztea. Era berean, Arartekoaren ustez, bi informazioetariko bakar batek ere ez ditu inkomunikazioaren baldintzak aldarazten eta, hala ere, zuzeneko senideen zalantzak eta ziurgabetasuna arintzen dituzte.

Gure iritziz, polizi gehiegikeriak aurrezaintzeko eragingarria izan daitekeen beste neurri bat Ertzaintzaren bulegoetan bideo grabazioen bitartezko kontrol sistema ezartzen datza. Ildo honi jarraituz, 1999an gomendio bat egin genuen eta hori bete den ala ez jarraitzeko zeregina egiten segitu dugu.

Aurreko urteko txostenean azaldu genuen legez, Ertzaintzaren atxiloketa zentroetara sarritan egin ohi ditugun bisiten bidez egiaztatu ahal izan dugu sistema instalatua izan dela, oro har, funtzionamenduan dagoela eta hainbat arazo edota atxiloketen gaineko hainbat salaketa judizial argitzeko balio izan duela. Edozein kasutan ere, ageri-agerian jarri behar da hainbat ertzain etxetan -inkomunikaturiko atxiloketak izan diren horietan- bi ziega eremu mota daudela, guztiz independenteak, eta grabazio sistema horietariko batean baino ez dela instalatu, kasualitatez, gutxien erabiltzen den tokian, hori trafiko unitatea delako. Argi dago jokaera horrek proposatu dugun sistemari prebentziorako eraginkortasuna kentzen diola; hortaz, ondorioztatu behar dugu oraindik ere ez dela guztiz bete 81/1999 gomendioa, betiere gure esku dauden informazioen arabera.

Bestalde, Herrizaingo Sailari berriro ere galdetu diogu bermeen neurria sendotzeko gomendioaren alderdiei buruz, -esate baterako grabazioen arduraduna nor izango den zehazteko; grabazioak zein epetan eta zein irizpideren arabera gordeko diren, eta abar-, eta horien gainean ez digu inolako informaziorik eman.

Azkenik, joko eta ikuskizunen eremuan komenigarria da kontuan hartzea herritarrek animalien eskubideak babestu eta defendatzeko sentsibilizazio handiagoa izateak laguntza ematen duela pertsona partikularrek eta elkarte babesleek administrazio publikoetara eta ostean Arartekoarengana jotzeko, eskubide horiek gauzatzea eskatzearren;

horretarako, administrazioek beraiei dagozkien zaintza eta kontrol zereginak betetzeko premia azpimarratzen da. Ildo honi jarraituz, animaliak defendatzeko elkarte batek sustaturiko bi kexa azpimarra ditzakegu; horietan ondokoa salatzen zen: batetik, etxe-abereak kaleko ikuskizunetan erabili izana eta, bestetik, basabereak gune zoologiko ibiltarietan erakutsi izana.

## 7.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Eskubideak eta askatasunak

⇒ *Bigarren Hezkuntzako Institutu batean izandako esku-hartze polizialak, ikastetxeko zuzendariak jakin gabe* (467/2002)

• Erreklamazioa

Bigarren Hezkuntzako institutu bateko zuzendariak erakunde honetara jo zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren inhibizioaz kexatzeko, betiere Ertzaintzako bi agente ikastetxera sartu eta bertan zeuden hainbat ikasle interpelatu zituztelako, berak jakin gabe.

Era berean, kexu zen sail horrek babesik gabeko egoera batean jarri zituelako bai bera bai ikastetxeko ikasleak ere, gaiaz inhibitu zelako eta defendatu ez zuelako; izan ere, ikastetxeko eremuaren barruan agenteen aurrean, institutuko zuzendari modura, izandako esku-hartzearen ondorioz, Herrizaingo Sailak beraren kontrako tramitazioari ekin zion, zigor prozedura bat ezarriz, ikastetxearen inguruan geroago egin zen eta komunikatu ez zen manifestazio baten ustezko erantzule modura.

• Azterketa

Kexaren planteamenduari men eginez, lehenengo eta behin Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetza eskatu genuen, interesatuak jakinarazitako gaien inguruko argibideak eman ziezazkigun.

Sail horrek emandako dokumentazioaren azterketaren bitartez egiaztatu ahal izango genuen ez ziela modu formalean erantzun erreklamaziogileak agenteen sarrera salatuz eta gertakizun horien ondorioz nahiz Herrizaingo Sailak abiarazitako zigor prozeduraren ondorioz bere buruarentzat eta zentroko ikasleentzat babesa eskatuz jarraian egindako idatziei; era berean, gertakizunak argitzeko tramitaturiko informazio espedientea lortzeko eskaerei ere ez zien erantzun. Baina horrekin batera, egiaztatu ahal izan genuen kexaren sustatzaileari nolabaiteko aholkularitza juridikoa eman zitzaiola zigor prozesuan eta azkenean prozesu hori artxibatzeko esku-hartze erabakigarria izan zuela.

Edonola ere, gure ustez, interesatuak aurkeztutako eskaerei zuzen eta beren beregi erantzuteko betebeharra bete ez zenez gero, Herrizaingo Sailaren aurrean egiten ari zen jarduketen gaineko argibiderik eman ez zitzaionez gero eta informazio espedientearen kopia bat emateari –gure iritziz, arrazoi barik– ezetz esan zitzaionez gero, kexaren sustatzaileak okerreko moduan pentsatu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila inhibitu zela eta bera, institutuko zuzendari modura, eta zentroko ikasleak babesik gabeko egoera batean utzi zituela.

Horregatik, gure aburuz, sail honek erantzun behar zien erreklamaziogileak egindako galderei, informazio espedientearen kopia bat emanaz; izan ere, modu horretara, legez duen betebeharra konplitzeaz gainera (azaroaren 26ko 90/1992 Legearen 42. eta 37. artikuluak), interesatua eta hark zuzendutako ikasleak defendatzeko egindako benetako jarduketen gaineko zalantzak argitzen lagunduko zuen.

Beste alde batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bidali eta erreklamaziogileak kexa aurkeztu eta gero eman zigun dokumentazioa aztertu eta gero, ondorioztatu ahal izan genuen Ertzaintzaren agenteak institutuko jolastokira sartu eta hortxe zeuden ikasle batzuk interpelatu zituztela, zentroko zuzendariaren baimenik gabe eta ezer ere jakinarazi gabe. Halaber, ondorioztatu ahal izan genuen zuzendariak, agenteen presentziaren berri izatean, haiengana jo zuela, zuzendari modura identifikatuz, eta agenteek, zirkunstantzia hori alde batera utziz, haren nortasun agiri nazionala eskatu ziotela.

Gure iritziz, agenteen jokabide horrek herritarren segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 21. artikuluan ikastetxe publikoen barruan sartzeko ezarritako mugak gainditu zituen eta ez zuen kontuan hartu ikastetxe bateko zuzendaria, organo horretako legezko estatusaren arabera, zentroko eta hezkuntza administrazioko ordezkaria dela, eta, hori den aldetik, funtzionamendu egokiaren eta bertako ikasleen erantzulea ere (azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoaren 21. artikulua, indarrean dagoena, betiere otsailaren 19ko 1/1993 Lege Autonomikoaren 33 eta 34. artikuluetan eta apirilaren 15eko 82/1986 Dekretuaren 50. eta hurrengoetan ezarritakoari dagokionez).

Dokumentazio beraren arioan, uste izan genuen, aldi berean, kexaren bultzatzaileak zentroko zuzendari modura dituen funtzioak egikarituz jardun zuela (bereziki, beharrezko neurriak hartzea hezkuntza komunitateaz kanpoko presentziek aldarazitako zentroaren ohiko funtzionamendua berrezartzeko); beraz, hori guztiori zela eta, Herrizaingo Sailak ez zuen haren kontrako zigor prozedurarik abian jartzeko inolako oinarririk, betiere geroago institutuaren inguruan egin zen manifestazioaren berri eman ez zuen balizko erantzule modura.

Horrenbestez, balorazi hori Herrizaingo Sailari helarazi genion, neurri zuzentzaileak hartu behar zituela adieraziz, ikastetxeetan kexa eragin zutenen antzeko esku-hartzeak saihesteko.

• Emaitza

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi zigun interesatuari hasiera batean eskaturiko espediente erreserbatuaren kopia bat eman ziola, eta, kexa eragin zuten gertakizunen ondorioz, hura defendatzeko egindako jarduketa guztien berri eman ziola.

Herrizaingo Sailak guk bidalitako balorazioari emandako erantzunean, beste alde batetik, tramitaturiko zigor prozedura besterik ez zen aipatzen. Hala eta guztiz ere, ez zuen ezer adierazten agenteak ikastetxean sartzearen inguruan egindako galderei buruz, ez eta zuzendariari emandako tratuaren inguruko itaunei buruz ere; era berean, ez zigun ezer ere esan hartutako neurri zuzentzaileen gainean.

Hori dela eta, berriro ere jo genuen sail horretara, gai horien inguruan lankidetzarako egin genuen eskaera berriro ere helaraziz.

Txosten hau amaitzean, oraindik ere ez dugu eskaturiko informazioa jaso.

⇒ *Baimenik gabeko kaleko salmentaren kasuan, salgaiak konfiskatzeko legez ezarritako bermeak ez betetzea* (490/2003)

• Erreklamazioa

Gipuzkoako SOS Arrazakeria deritzon elkarteak erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen Donostiako udaltzaingoak baimenik gabe kaleko salmentan ari ziren atzerriko bi pertsonei konfiskaturiko arropa itzul ziezaien eta elkarte honek udaltzaingoaren erregistroan aurkezturiko eskaerari beren beregi erantzun ziezaion, betiere salgai dekomisatuak berreskuratzeko modua adieraziz.

Gainera, elkartea kexu zen udaltzaingoaren komisario-buruak bete ez zuelako mugikortasunaren eta herri bideen zinegotzi-ordezkariak euren jabeei hartutako salgaiak itzultzeko berariaz eman zion agindua.

• Azterketa

Donostiako Udalak kexa konpontzeko emandako dokumentazio eta informazioa aztertu eta gero, egiaztatu ahal izan genuen konfiskazioa kautelazko neurri hutsa besterik ez zela izan eta gertakizunetan parte hartu zuten udaltzainek edozein zigor prozeduratatik aparte hartu zutela erabaki hori. Halaber, egiaztatu ahal izan genuen interesatuei ez zitzaiela nahitaezko entzunaldia eman, ez eta horren ordez alegazioak aurkezteko aukera ere (merkataritzako jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 44.1. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigor ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 31.2. eta 32. artikuluak) eta salgaiak kautelaz hartzeko jarduna burutu zela merkataritza jarduerari buruzko legeak ezarritako bestelako eskakizun formal eta materialak errespetatu gabe: agenteek betetako dokumentu bakar batean ere ez zen inola ere justifikatzen hartutako salgaiak faltsifikatuak edo iruzurrezkoak ziren ala ez edo merkaturatuak izateko gutxieneko beharkizunak betetzen zituzten ala ez; gainera, ez zen justifikatzen konfiskazioa zigor prozeduran ezar zitekeen zehapenaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa zen ala ez, eta ez zen inola ere arrazoitzen zergatik erabaki zen merkantziak kautelaz konfiskatzea.

Aitzitik, Udalak emandako dokumentazioak agerian jarri zuen udaltzaingoko agenteek erabaki hau hartu zutela konfiskaturiko merkantziak baimenik gabe saltzen ari zirelako, besterik gabe.

Horren ostean, Udalak ahaleginak egin zituen agenteek hartutako neurria justifikatzeko; ondorioz, txostenean aipatu zuen hartutako merkantzien etiketan hainbat akats zeudela. Ezin izan genuen jakin zertan oinarritzen zen txostena akats horiek aipatzeko, agenteek zirkunstantzia horiek in situ igarri ez zituztelako, dokumentuetan islatu ez zituztelako, konfiskazioa konkurrentzian justifikatu ez zutelako eta Udalak emandako administrazio espedienteetan horren inguruko berririk ere ematen ez zelako. Edozein kasutan ere, gure ustez, garrantzitsuena zen, aplikatu beharreko legezko araubidearen arabera, arrazoiak kautelazko jarduketaren erabakian azaldu behar zirela eta ez zela nahikoa modu horretara jokatzeko kasu materialen konkurrentzian oinarritzea legezko bidea izateko; hortaz, neurria balizko zigorraren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa zela bermatu eta, gainera, pertsona interesatuek horren berri izan behar zuten.

Azterketa honen arabera, ondorioztatu genuen kasu honetan ez zirela merkantziak kautelaz konfiskatzeko legez ezarritako bermeak zaindu eta, horren kariaz, konfiskazio hori indarrik gabe utzi beharra zegoela.

Beste alde batetik, kexa tramitatu bitartean, jakin genuen Udalak, azkenean, kaleko bi saltzaileak zigortu zituela isun bat jarriz eta kautelaz harturiko salgaiak konfiskatuz. Alabaina, egiaztatu genuen zigorrak ezarri zirela aldez aurretik beharrezko prozedura bakar bati ere hasierarik eman edo tramitatu gabe; izan ere, Udalak emandako dokumentazioan ez ziren agertzen zigor prozedura guzti-guztietan nahitaezkoak eta manuzkoak diren hastapen erabakia ez eta bestelako ezinbesteko tramiteak ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (127. artikulua eta hurrengoak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigor ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak (34. artikulua eta hurrengoa) ezartzen dutenari jarraituz.

Halaber, egiaztatu ahal izan genuen zigor ebazpenek zutela konfiskazioaren zigorra arrazoitzen. Gure iritziz, arrazoiketa hori funtsezkoa zen merkataritzako jarduerari buruzko Legearen erregulazioaren arabera, lege horrek zigor hori aukerazko izaeraz ezartzen baitu eta ez modu automatikoan, Udalak horrela ulertzen zuela ematen zuen arren (44.3. artikulua).

Ondorioztapen hauetatik abiatuz eta prozedurak zigor eremuan duen neurri konstituzionala kontuan hartuz (betiere, Konstituzioaren 24. artikuluak ezarritako defentsa eskubidea egikaritzeko zerbitzupean dagoen tresna modura), uste dugu zigorrak erabaki direla legez ezarritako prozedura batere aintzat hartu gabe eta, gainera, errua egozten zaien pertsonen defentsa eskubidea urratuz. Arrazoi hori dela eta, erabateko baliogabetasun akatsa dutela pentsatzen dugu [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.a) eta e) artikuluak].

Kexaren tramitazioan zehar, jakin ahal izango genuen, aldi berean, Udalak konfiskazioari eutsi ziola zigor ebazpenak eman eta gero, nahiz eta ebazpen horietan kautelazko xedapen bakar bat ere egon ez eta pertsona interesatuek zigorren aurka jarritako administrazio errekurtsoen gaineko ebazpenik izan ez. Hori ikusita, ulertu genuen jarduketa hori ez zegoela legez bidezkotuta; izan ere, kautelazko konfiskazioa iraungi zen zigorrak ezartzean [otsailaren 20ko 2/1998 Lege autonomikoaren 31.8.a) artikulua], eta Udalak ezin zuen konfiskazio zigorra betearazi, harik eta errekurtsoen gainean beren beregi ebatzi arte (lege bereko 43.5. artikulua).

Kexaren elkarte bultzatzaileak erregistroan aurkeztu zuen eskabideari eta udaltzaingoak horri beren beregi eman ez zion erantzunari dagokionez, Udalak emandako dokumentazioan egiaztatu ahal izan genuen modu ofizialean erregistraturiko eskabideari ez zitzaiola erantzun. Guztiarekin ere, Udalak ez zigun jarduketa honen gaineko azalpenik eman, eta ez zituen kontuan hartu kexaren tramitazioa izan bitartean eskabidearen inguruan beren beregi erabakitzeko betebeharra (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.1. artikulua) gogorazteko egindako jakinarazpenak.

Era berean, udaltzaingoaren komisario-buruak ez zuen bete mugikortasunaren eta herri bideen zinegotzi-ordezkariak kautelaz hartutako merkantziak pertsona interesatuei bueltatzeko berariaz emandako agindua; hori dagokionez, bada, egiaztatu ahal izan genuen agindu hori Udalak emandako dokumentazioan agertzen zela. Edonola ere, dokumentazio hori bidali zigun udaltzaingoaren komisario-buruak horren existentzia ukatu zuen behin eta berriz, horri buruzko azalpenik batere eman gabe.

Azkenik, egoki iritzi genion mugikortasunaren eta herri bideen zinegotzi-ordezkariak izandako jokabide kontrajarria nabarmentzeari, Udalak emandako dokumentazioan ikusi ahal izan genuen bezala; izan ere, lehenengo eta behin, kautelaz dekomisaturiko salgaiak itzultzeko agindua eman zuen eta, geroago, merkantzia berberak konfiskatzeko zigorra

ezarri zuen; halaber, zinegotzi horren pasibotasun eta geldotasuna azpimarratu behar da, elkarteak kexan salatzen zuen hasierako agindu hori ez betearazteagatik.

• Emaitza

Aurreko azterketan eta 1998ko ohiko txostenean, "poliziaren esku-hartzea baimenik gabeko kaleko salmentaren kasuan" izenaren pean, egindako gomendio orokorrean oinarrituz, Donostiako Udalari gomendio bat egin genion, kautelaz hartutako merkantziak bueltatzeko, kaleko bi saltzaileei ezarritako zigorrak indarrik gabe uzteko eta elkarte erreklamaziogileak udaltzaingoaren erregistroan aurkeztutako eskabideari erantzuteko.

Txosten hau amaitzean, oraindik ere ez dakigu Udalak gomendio hori onartu duen ala ez.

## B) **Herritarren segurtasuna**

⇒ *Defentsa eskubidea urratzea, erruztatuak proposaturiko proben ukoa zigor prozedura batean ez arrazoitzeagatik* (1212/2002)

• Erreklamazioa

Kexaren bultzatzaileak gure esku-hartzea eskatu zuen, Barakaldoko Udalak semeari herritarren segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 25. artikuluan ezarritakoa urratzeagatik jarri zion zigorrari zegokionez. Erreklamaziogileak kexan baieztatzen zuen bezala, Udalak ukatu zituen erruztatuak zigor prozeduran proposaturiko frogak, beharrezkotzat jotzen ez zituelako arrazoia emanez, besterik gabe.

• Azterketa

Barakaldoko Udalak zigor prozeduraren gainean eman zigun administrazio espedientearen azterketak lagundu zigun interesatuak bi froga egiteko eskaera prozeduraren barruko une egokian egin zuela egiaztatzen: batetik, prozedura hastea eragin zuten gertakizunak izatean berarekin batera zegoen pertsonaren lekukotza; bestetik, salatu zuten udaltzainen eta pertsona horren arteko aurrez aurrekoa, bai eta udaltzain horien eta beraren arteko aurrez aurrekoa ere. Era berean, egiaztatu ahal izan genuen lekukotzaren froga baztertzeko arrazoi bakarra "*beharrezkotzat ez jotzea*" izan zela, kexan ziurtatzen zen bezala, eta ez zegoela aurrez aurrekoari buruzko inolako aipamen edo adierazpenik eta hori ere ez zela gauzatu.

Hori guztia ikusita, argi genuen Udalak ez zuela bete erruztatuak proposaturiko frogak bideratzeko ukoa arrazoitzeko betebeharra, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 17.2. artikuluan eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 80.3. artikuluan exijitzen zen bezala, betiere lege berberaren 137.4. artikuluari zegokionez. Aurrezko aurrekoari zegokionez, ez zegoen inolako aipamenik horren inguruan eta, lekukotzaren frogari zegokionez, berori ukatzeko erabilitako formulak gaiari buruzko balorazioa baino ez zuen jakinarazten, baina ez balorazio hori egiteko arrazoiak.

Kasu honi Konstituzioaren 24.2. artikuluaren defentsa eskubidearen gaineko konstituzio-jurisprudentzia aplikatu eta hori zigor prozedura administratibora

zabalduta, gure ustez, Udalak interesatuari defentsarako froga egokien baliabideak erabiltzeko eskubidea kendu zion, eta horrekin batera, lehenago aipatutariko oinarrizko eskubidea.

Kexa tramitatu bitartean, Udalak azaldu zigun zeintzuk izan ziren lekukotzaren frogari uko egiteko arrazoiak. Horrela bada, gertakizunetan izan ziren udaltzainen txostenarekin bat etorriz, Udalak uste zuen erruztatuarekin ez zegoela lekukorik eta interesatuak prozesua oztopatzeko ahaleginak egin zituela, udaltzainek salaketan emandako gertakizunak ukatu zituelako eta froga hori proposatu zuelako.

Arrazoi horiek interesatuari prozeduran jakinarazi behar izan zitzaizkiola pentsatu arren, aztertu genituen eta ondoko ondorio honetara heldu ginen: ezin zutela inola ere justifikatu interesatuak proposaturiko lekukotza frogari uko egin izana. Eta hori halakoxea zen, gure irudiko, Udalak, erabakia modu horretara arrazoitzean, poliziaren bertsioari gertakizunen erabateko froga eztabaidaezinaren balioa ematen ziolako, betiere Konstituzioaren 24.2. artikuluaren defentsa eskubidea urratuz; izan ere, horren arabera, erruztaturiko pertsona batek egozten zaizkion gertakizunak ukatzeko eta bere bertsioa frogatzen ahalegintzeko eskubidea du. Gainera, gure iritziz, oso zalantzazkoa da administrazio espedientean dauden polizi diligentziek proposaturiko lekukoa gertakizunen lekuan ez zegoelako tesia abalatzea.

• Emaitza

Barakaldoko Udalari gomendio bat egin genion, kexa eragin zuen zigor prozeduran ezarritako zehapena indarrik gabe uzteko. Udalak ez du gomendio hori onartu.

## C) **Trafikoa**

⇒ *Ezgaituentzako aparkaleku txartela eskatu eta erantzunik ez* (1097/2001)

• Erreklamazioa

Pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen, Plentziako Udalak erantzun ez ziolako pertsona ezgaituei aparkatzeko ematen zaizkien txartel horietariko bat udal bulegoetan eskatzeko egindako galderari; halaber, ez zitzaion erantzunik eman geroago txartela emateko egindako eskabideari, betiere administrazioaren isiltasunaren erregimenaren aplikazioan.

• Azterketa

Plentziako Udalari gai honen inguruko argibideak ematea eskatu genion. Udalak, hainbat eskaeren ostean, bost hilabete beranduago erantzun zigun Uribe Kostako mankomunitatera jo behar genuela, erakunde hori baitzen kexaren bultzatzailearen eskabidea tramitatzen zebilena.

Mankomunitateak emandako informazioa aztertu eta gero, egiaztatu ahal izan genuen interesatuaren bi eskabidetariko bakar baten inguruan ere ez zela beren beregi ebatzi. Mankomunitateak, hala ere, uste zuen prozedura amaitua zela Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Balorazio eta Orientazio Unitateak erreklamaziogileari txartela ez emateko adierazten zuen txostena igorri eta gero;

izan ere, txosten horrek izaera loteslea eta aginduzkoa zuen (pertsona minusbaliatuei aparkatzeko txartelei buruzko abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren 6.3. artikulua), nahiz eta interesatuak txosten hori jaso zuela egiaztatzeko modurik eduki ez arren.

Erakunde honek, azaroaren 26ko 30/1992 Legean oinarri hartuz (82, 87 eta 89. artikuluak), adierazi zuen prozeduraren barruan emandako txosten bat, oso loteslea eta negatiboa izanik ere, ezin zela konparatu prozeduraren gaineko ebazpenarekin. Hori dela eta, gure ustez, interesatuaren eskabidearen inguruan ez zen beren beregi ebatzi, eta, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak ebazteko emandako ezarritako hiru hilabeteko epea nabarmen gainditua zenez, eskabidea onartzeko ustezko egintza sortu zen, administrazio isiltasun positiboa aplikatuz (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.2. artikulua eta abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren 6.4. artikulua). Era berean, ustezko egintzak erabateko eskubideak zekartzala uste genuen, kasu hau berrikusten ez zen bitartean, betiere eskubideak aintzatesten dituzten egintzak berrikusteko legeak ezartzen duen bidearen arabera (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102. artikulua eta hurrengoak); orobat, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Balorazio eta Orientazio Unitatearen txostena negatiboa bazen, txosten honen kontrako egintza birgaitzeko bide egokia ezin zen isiltasuna izan, baizik eta berrikusteko prozedura egokia erabiltzea.

Beste alde batetik, antza denez, Udalak interesatuari ez zion jakinarazi eskabidearen gainean ebazteko eskumena mankomunitateari zegokionik; hori dela eta, bi erakundeak ohartarazi nahi izan genituen alde zehatz honen inguruan.

Guk egindako azterketa hau mankomunitateari eta Udalari bidali genien, horren inguruko iritzia eman ziezaguten.

• Emaitza

Mankomunitateak, hainbat eskaeren ostean, urtebete beranduago erantzun eta adierazi zigun kexaren bultzatzailearen eskabideari beren beregi gaitz iritzi ziola, betiere Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Balorazio eta Orientazio Unitatearen kontrako txostena oinarri hartuz, eta interesatuari jakinarazi ziola hartutako ebazpena. Udalak, bestalde, ez zuen lankidetzarako gure eskabideari, ez eta ostean egindako jarraikako eskaerei ere.

Informazio berria ikusita, iruditu zitzaigun mankomunitateak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.4. artikuluan eta abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren 6.4. artikuluan ezarritako manua hautsi zuela, interesatuaren aldeko ustezko egintzaren kontrako berariazko ebazpena hartu zuelako, baina, eta berriro esan beharra dago, egintza hori indarrik gabe uzteko prozedura desegokia erabiliz. Gainera, oso kezkagarria begitandu zitzaigun erreklamaziogilearen ebazpena beren beregi emateko urtebete baino gehiago atzeratu izana.

Gauzak horrela, mankomunitateari eskatu genion beharrezko mekanismoak jartzeko, jarduketa honen prozeduran egiaztaturiko irregulartasunak atzera ere gertatzea saihesteko; orobat, kexa hau sortarazi duen prozedura mota hauetan interesatuta dauden pertsonei modu egokian jakinarazi behar zaie zein den tramitazioa bideratu eta ebazpena emateko erakunde eskuduna; horrelaxe adierazi genion mankomunitateari eta Plentziako Udalari. Horren bitartez, gai honetan esku hartzeko genituen aukera guztiak agortu ziren, eta, beraz, jarduketa amaitutzat eman genuen.

⇒ *Ibilgailu baten titularrari jarritako zigorraren baliogabetasuna, gidatzen zuen pertsona ez identifikatzeagatik trafikoari buruzko arautegia urratzearen ondorioz salatua izatean* (969/2002)

• Erreklamazioa

Pertsona batek gure esku-hartzea eskatu zuen Bilboko Udalak jarri zion zigorra zela eta, betiere interesatuaren ibilgailua gidatzen zuen pertsona ez identifikatzeagatik trafikoari buruzko arautegia urratzearen ondorioz salatua izan zenean.

Erreklamaziogilea kexu zen Udalak ezer egin ez zuelako automobilaren balizko gidari modura identifikatu zituen bi pertsonetarik nor zen autoa benetan gidatzen zuena egiaztatzeko, salatua izan zenean; era berean, kexu zen Udalak jardun zuelako identifikazioa egin izan ez balitz bezala.

• Azterketa

Horrela bada, Bilboko Udalak kexaren bultzatzailearen kontra hasitako bi zigor prozeduren gaineko administrazio espedienteak aztertu genituen (bata, autoaren gidariak egindakoa, eta, bestea, ibilgailuaren gidaria identifikatzeko betebeharrari ez konplitzeagatik jarritakoa); izan ere, pertsona horren ibilgailua trafikoaren arau-urratze bategatik salatua izan zen eta egiaztatu ahal izan genuen interesatuak beharrezko tramitean bi pertsona identifikatu zituen; era berean, pertsona horrek esaten zuen bezala, autoa biek erabili zuten gertakizunen egunean. Horrela, bi pertsona horien izen-abizenak, nortasun agiri nazionalen zenbakiak eta helbide osoa eman zituen.

Era berean, administrazio espedienteek egiaztatzen zuten, identifikazioa egin ostean, Udalak jardun zuela hori egin izan ez balitz bezala. Agiri horietan ez zegoen jakiterik ea kexaren sustatzaileak identifikaturiko pertsonengana jo zuten edo salaturiko gertakizuna izatean bietariko nork gidatzen zuen egiaztatzeko ezer egin zen ala ez. Orobat, ez zen dokumentatzen ea Udalak identifikazio mota hori baztertzeko moduko frogarik egin zuen ala ez.

Gainera, espedienteek ez zuten argitzen interesatuak egindako identifikazioa zergatik ez zitzaien lotzen legezko eskakizunei. Betebehar hori ez betetzeagatik jarritako zigorra justifikatzeko formulak oso orokorrak ziren eta ez zuten azaltzen zeintzuk ziren hartutako erabakia justifikatzeko arrazoi zehatzak.

Gertakizun horietatik abiatu eta martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 72.3. artikuluan ezarritako lankidetza betebeharrari Auzitegi Konstituzionalak emandako helmena kontuan hartuta (abenduaren 21eko 197/1995 epaia), erakunde honek uste zuen interesatuaren jarduna ez zetorrela inola ere bat manu horrek ezarritako ereduarekin.

• Emaitza

Bilboko Udalari gomendatu genion erreklamaziogileari jarritako zigorra indarrik gabe uzteko. Udalak jakinarazi zigun, hala ere, azken honek judizio bitartezko errekurtsoa jarri ziola. Horren ondorioz, gure jarduna bertan behera utzi behar izan genuen, erakundea arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1. artikulua aplikatuz.

⇒ *Zigor prozeduren bikoiztasuna gertakizun bera dela eta. "Non bis in idem"* (1251/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek ibilgailua aparkatu zuen zama-lanetarako gordetako leku batean eta bertan utzi zuen 24 ordutik gorako epe batean. Barakaldoko udaltzain batek bi salaketa jarri zituen arrazoi berberagatik eta, bigarrenarekin batera, ibilgailua herri bidetik kentzeko agindu zuen.

• Azterketa

Interesatuak adierazi zuen ez zuela ibilgailua mugitu, behin aparkatu eta gero. Zama-lanak egiteko gunean aparkatzearren izaten diren arau-hausteak kontuan hartuta, erakunde honek uste zuen, gertakizun bakar honen ondorioz, zigor prozedura bakarra ezar zitekeela.

Beste alde batetik, Udalak prozeduren konkurrentzia justifikatu zuen ibilgailua bi goiz jarraian zama lanetako gune batean egon zela argudiatuz; egiaztapen horren kariaz, udaltzaingoak pentsatu zuen araua bi epe desberdinetan hautsia izan zela.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 133. artikuluak "non bis in idem" printzipioa jasotzen du, horren edukia eta aplikazio modua jurisprudentziazko esku-hartzearen bitartez zehaztuz. Hori dela bide, ezin zaio beste zigorrik jarri zigor edo administrazio bidean zehapenen bat jaso duen gertakizunari, betiere subjektua, gertakizuna eta oinarria berberak direnean.

Horrela bada, gai honetan zehaztu beharrekoa zera zen: ea automobilak eremu erreserbatuan egindako egonaldia interesatuaren ekintza baten edo batzuen ondorioa izan zen ala ez. Gure iritziz, lehenengo kasuan, trafikoaren arauak urratzeagatik beste prozedura batek hautsiko zuen gorago aipatu dugun printzipioa; izan ere, zigorra birritan ezarriko zen, portaera bakarra zela eta, betiere neurriz kanpo eta arrazoirik gabe jardunez.

Espedientean, erreklamazioaren adierazpenez gain, gertakizun bakarra egon zelako tesia baieztatzen zuten hainbat elementu aurkitu genituen: alegazioak idazteko eta salaketak jartzeko modua.

Horren aldean, administrazioak udaltzainek salaturiko gertakizunen benetakotasuna argudiatzen zuen, baina horiek ibilgailua aparkatzeko moduari buruz egin zuten hipotesiari men eginez; hori, gure ustez, ez zen zigor bikoitzaren jarduna zuzenbidearen arabera babesteko adinakoa.

Beste alde batetik, garrantzizkoa zen agenteak ibilgailua ez kentzea lehenengo jardunean, baizik eta beste salaketa bat jarri arte itxarotea, ibilgailua kentzeko jarduna errepikaturiko jokabide batean oinarritzeko. Ezin genuen jarduketa hori babestu, interesatuaren jokabideari izaera hori ezartzeko gertakizun bat baino gehiago egotea beharrezkoa zelako, eta horrelakorik ez zen izan.

• Emaitza

Txosten hau amaitzeko gaudela, Barakaldoko Udalak oraindik ez digu adierazi presuntzioz haratagoko froga zehatzik duen ala ez, betiere aparkatzea ekintza batean baino gehiagotan egin zelako tesia egiaztatzeko; beraz, une honetan horren zain gaude oraindik ere.

# 8. JUSTIZIA

## 8.1. SARRERA

Gure erakundearen jarduera banatzen deneko eremu desberdinak mugatzeko, normalean, ikuskatutako administrazioaren jarduera esparruaz baliatzen gara. Alabaina, Justizia sailean, izen hori izan arren, ez da epaitegien funtzionamenduaren gaineko kontrol zorrotzeko lanik egiten, baizik eta justizia Administrazioarekin zuzenean zein zeharka zerikusirik dutelako besterik gabe lotuta dauden hainbat gai desberdin biltzen dira. Eta hori, muga nabarmenarekin, zeren botere judizialaren independentziaren printzipioak gure erakundeari –edo harengandik kanpoko bete edozeini– jurisdizkioaren bidearen mende jarritako gaiak aztertzea eragozten baitio. Erakunde hau sortu eta araupetzen duen 3/1985 Legearen 13. artikuluan jasotako dagoen kexarik ez onartzeko zio hori tarteko, aurten 33 erreklamazio errefusatu behar izan ditugu.

Tramitera onartu ditugun kexak, bestalde, honelaxe banatu dira:

| | |
|---|---|
| - Espetxe gaietako jarduerak | 13 |
| - Abokatu eta prokuradoreen elkargoak | 11 |
| - Justizia administrazioaren funtzionamendua | 4 |
| - Bestelakoak | 2 |
| - Doako urgazpen juridikoa | 1 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| - Adingabe lege urratzaileak | 1 |

Arestiko kexa horiei Estatuko Arartekoarengana edo herrialde desberdinetako antzeko erakundeetara bideratu ditugunak gehitu behar zaizkio, eskuartean daukagun gaiarekin duten zerikusia dena delarik, biderapen horren arabera sailkatzen baitira.

Herritarrek planteatu dizkiguten gaien azterketara sartuz, **justizia Administrazioaren funtzionamenduaren** gainekoetan kexarik ohiko edo sarrienek prozedura judizialetako atzerapenak dituzte hizpide. Salatutako berandutzak ia esparru jurisdizkionalik gehienei ukitzen diete, baina batean zein bestean nahigaberik handiena, ziurrenik, epaiak emateko epearengatik sortzen dela esan genezake.

Horren haritik, zigor jurisdikzioaz ari garela, delituen biktima izan diren eta epaitegien aldetik beren behar eta interesei jaramonik egin ez dietela sentiarazi dutela dioten pertsonengandik datozkigun kexak azpimarratu behar ditugu. Baten bat aipatzekotan, esaterako, sexu erasoa jasan zuen eta Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren zigor epaia lortu arte hainbat hilabetez zain egon behar izan zuen emakumearen kexa aipatuko dugu. Beste bi kasutan, ikaragarri ondorio larriak eragin zizkieten trafiko istripu banatan zerikusirik izan zuten bi pertsonek, prozedura eta, bereziki, errekurtsoen tramitazioa oso astiro joateaz gain, zuzenean eragiten zieten gaien gaineko informazioan (erantzukizun zibila, kasu batean, eta zigortuaren barkamen eskaera, bestean) hutsuneak izan zirela salatzen zuten.

Zigor urraketa arin baten kalteduna zen pertsona bat (bere automobilaren lehiatila pixka bat apurtu zioten, lapurreta ahalegin batean), ordea, epaitegira askotan joan behar izan duelako eta eragin dizkioten trabengatik kexatzen zen. Kontakizun luzean, hainbat hutsune planteatzen zituen, honelaxe laburbil genitzakeenak: kaltedun gisa egin zuen

lehenengo adierazpen baten ondoren, Bilboko zigor gaietako epaitegi batera ahozko epaiketara agertzeko deitu zioten. Lunbago gogorra zeukan arren, Justizia Jauregira joan zen. Zaila egin zitzaion zegokion aretoa aurkitzea, zitazioaren oharrean ez baitzioten non zegoen argitzen. Agerraldia izugarri atzeratu zen, eta zain egon zen denbora guztian zutik egon behar izan zuen. Bere txanda heldu zenean, epailearen haserrea entzun behar izan zuen, salatua agertu ez zelako. Agenteari bere arazo fisikoak azaldu zizkion, eta agenteak epaileari; ez daki zer erantzun zuen, baina bere hitzek aretoan zeuden pertsonei eragin zizkieten barre algarak entzun zituen. Handik gutxira epaiketa bertan behera geratzen zela eta beste baterako deituko ziotela esan zioten. Oporren ostean, jakinarazpen bat aurkitu zuen postontzian, Justizia Epaitegira joan behar zuela zitazioaren bila. Telefonoz baietsi zuen nora joan behar zuen eta joan zenean –lanean baimena eskatuta–, ez zen bere zitaziorik agertu eta beste egun batean itzultzeko esan zioten. Gogaituta, Informazio bulegoan inprimaki bat hartu zuen, kexa bat jartzeko asmoz. Egun berean, erreklamaziogilearen senide baten etxera heldu zen zitazioa, eta asaldatuta geratu zen. Arratsaldean bere kexa jasotako orrian ageri zen fax zenbakira bidaltzen saiatu zenean, faxa ez zebilen, eta orrian ageri zen telefono zenbakira deitu zuenean, zenbaki biak oker zeudela jabetu zen.

Zigor gaietarako epaitegiko titularrak emandako azalpenetan dio, bai, epaiketa atzeratu zela, salatua ez zutelako zegoen espetxetik epaitegira eraman, hala egiteko bidali zen ofizioa bidali arren. Magistratuak dio, era berean, epaiketa aretoaren kanpoaldeko eremua txukuntzeko eta prestatzeko eskumenik ez duen arren, lekukoaren osasun arazoen jakitun egon balitz, itxaronaldia arintzeko neurriak hartuko zituzkeela. Espedientea ebazteaz arduratzen zen epaile dekanoak, bere aldetik, interesatuari barkatzeko eskatzeaz gain, jakinarazpeneko zeduletan aretoak aurkitzeko behar diren xehetasunak emateko aginduak eman dituela azaldu dio, bere iritziz, informazio bulegoaz gain, nahikoa seinale dagoen arren. Datu okerrak zituen kexa orria eman ziotenean ere disfuntzioren bat izan zela ere aitortu du, baina akats horretaz ohartu eta erreklamaziogilearen kexa jaso baino lehen ongitua zutela baietsi du. Azken batean, eragindako kalte guztiak deitoratzen ditu, baina justizia Administrazioari lepora zekizkion disfuntzio guztiak zuzenduta daudela uste du.

Berme erakunde honen ikuspegitik, orain azaldutako kexaren tramitazioa zuzena izan zen, eta erreklamaziogilea moralki nolabait gogobeteta geratu zen, eta hori ontzat jo behar da. Alabaina, ez zioten zitazioak egiten diren moduari buruzko alderdiari heldu. Zitazioen idazkerak, aurreko urteetan, erakunde honi jarraitako hainbat erreklamazio eragin ditu, eta irekita eta hartzailearen helbidean dagoen edonori eman dakizkion kontuak ere bai, horren komunikazio pertsonalen isilekotasuna urratzea baitakar.

Prozeduretako atzerapenekin jarraituz, eta administrazioarekiko auzi bideko jurisdizkioari dagokionez, erreklamaziogileak jarritako errekurtso bat izaten ari zen atzerapenaren kexa baten ondoren, Justizia Epaitegi Goreneko Gobernu Aretoak zegokion aretoko presidentearen azalpenak helarazi zizkigun. Haren esanetan, tramitatzen ari ziren gaiak hainbeste zirenez, eta atzerritarren gaietako errekurtsoek lehentasuna zeukatenez, gainerako espediente guztien ebazpena nabarmen moteltzen zen. Gobernu Aretoak inolako irregulartasunik ikusten ez zuen arren, jakinarazi zigun, plan lagungarria zeukatela Epaitegi Goreneko administrazioarekiko auzietarako aretoak eguneratzen saiatzeko, aldi baterako eta etengabe magistratu ordezkoak atxikita.

Prozedura judizialen gehiegizko luzamenduarengatik datozkigun beste kexa batzuk auzipetuen badaezpadako espetxeratzea erabaki deneko zigor kausengatik dira. Hainbat atzerritarrez gain –gizartean errotuta ez daudelako epaiketaren aurretik espetxeratzeko aukera handiagoak dituzte–, *kale borroka* deritzonean parte hartzearen salaketapean badaezpada espetxeratuta dauden hainbat gazteren gurasoak ere etorri zitzaizkigun. 2001eko martxoan atxilo zituzten eta ordutik espetxean zeuden bi mutil eta neska baten datuak eman zizkiguten. Duela gutxi luzapena jakinarazi zietenez, egoera horrek beste bi urte iraun zezakeen.

Era berean, hiru gazteak etxetik nahikoa urrun dauden espetxeetan egoteak espetxeratze baldintzak gogortzea dakarrela zioten eta horri, badaezpadako espetxeratzea –bakoitzari leporatzen zaionaren larritasuna bereiztu gabe– ia sistematikoki erabakitzen delako ziurtasuna gehitzen bazaio, pertsona horietzat neurri judizialak "zigorrra nolabait aurreratzea" da, argi eta garbi. Erreklamaziogileek azpimarratzen zuten hiru gazte horien egoera ez dela ezohiko kasu bat, halako zigor prozeduretan badaezpadako espetxealdia denboran luzatzea ohiko arau bihurtu baita.

Erakunde hau sortu eta araupetzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikuluak justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak *ikertu edo ebazteko eskumenik duen erakundera* bideratu behar direla dioen arren, aurreko batzuetan Audientzia Nazionaleko Fiskaltzaren erantzunik jaso ez genuenez, gaia Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiari jakinaraztea erabaki genuen. Erantzunean Ikuskaritza Zerbitzuak gazteei zegozkien zigor prozedurak tramitatzen ari ziren epaitegiengandik jasotako informazioak azaldu zizkiguten. Informazioak aztertu ondoren, zerbitzu hark hauxe ondorioztatzen zuen: *"ez da atzerapen nabarmenik ikusten, kausen konplexutasunari eta izaerari adituz, kausak zentzuzko epeetan tramitatu direlako"*, eta beraz, Kontseilu Nagusiak aipatutako zigor kausa horiek tramitatzen ari diren epaitegiei buruzko inolako diziplina jarduerarik bideratu beharrik ez zegoela erabaki zuen.

Lege ikuspegitik irregulartasunik dagoela onartu arren, lege antolamenduak badaezpadako espetxealdia ezohiko egoeratzat jotzen duela azpimarratu behar da eta, hartara, badaezpadako espetxealdiaren gehiegizko luzamendua zigor Zuzenbide demokratiko baten oinarrizko funtsekin nekez bateratzen da. Ikuspegi honetatik, guk uste dugu epaiketa baino lehenagoko askatasun kentzea hain luzea inoiz izan ez dadin behar diren neurriak hartu beharko liratekeela.

Gai desberdin gehiago izan ditugu ere justizia Administrazioaren funtzionamenduari lotutako kexetan. Hurrengo atalean laburbilduta ageri direnez gain, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak kexagile bati, Ertzaintzak eragin zizkion lesioengatik eskatu zituen ondarezko erantzukizuneko erreklamazio batean kostak ordaintzera zigortu zutenari, eskatu zizkion lansariak gehiegizkoak izan zirelako –ukitutakoaren iritziz– jarritako kexa aipa dezakegu.

Atal honen hasieran ohartarazi dugunez, erakunde honek ezin du **epaitegien bidetik jada ebatzita –edo ebazteko dauden– gaietan** sartu eta, horrek hainbat eta hainbat kexa baztertzera behartzen gaitu. Hala ere, herritarrek epaitegien esku hartzean konponbide egokirik eman ez duela irizten dioteneko hainbat arazo eta auziren berri jasotzen segitzen dugu, nahi gabe ere.

Espero daitekeenez, tramitera onartu ez ditugun kexa batzuetan administrazio publikoek egindako ustezko irregulartasunez ari zaizkigu, administrazioarekiko auzi bidetik ere eraman direnak. Alabaina, herritarrek epaileen ebazpenen aurrean egite dituzten erreklamaziorik gehienak beste jurisdikzio maila batzuetaz dira eta, zehazki, familiaren

bizikidetza haustearen ondoriozko arazoen gainekoak nabarmentzen dira, asko direlako. Seme-alaben zaintzarengatik, edo bisiten araubidearengatik ados ez egotea sarri planteatzen dira eta, batzuetan, emakumeen aurkako indarkeria egoera antzematen da atzean, adingabeengana ere heda daitekeena. Bi kasutan, tratu txarrak jasandako bi emakume beren erasotzaileei, seme-alabek nahi ez arren, ondorengoak bisitatzeko eskubidea aitortu zietela kexatu ziren eta, hori –erreklamaziogileen iritziz–, haurrak arrikuan jartzea zen..

2003ko abuztuan, "babes agindua" deritzona jarri zen indarrean. Horren bidez neurri judizialak hartzen dira, zigorrezkoak (biktimarengana hurbiltzeko debekua…) zein zibilak (ezkontideen etxearen erabilpena, seme-alaben zaintza, eta abar), familia barruko indarkeriaren biktimei berehalako babes eraginkorra ematera begira denak. Lege erreforma hau aurrerapen garrantzitsua izan da, eta litekeena da babes judiziala tratu txarren aurrean eragingarria ez delako kexak gutxitzen lagundu izana. Nolanahi ere, emaitzak baloratzeko goiz bada ere, agerikoa da, jada, hitzartutako babes eta laguntza neurrien izatezko aplikazioan esku hartzen duten eragile guztien arteko koordinaketa beharrezkoa dela. Hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak "koordinaketa guneak" abian jarri ditu –abenduaren erdi aldera–, lege bitarteko horri etekin osoa ateratzeko asmoz.

Azpimarratu behar da, ordea, aurten, erakunde honetan genero indarkeriako kasu bana salatu nahi zuten bi emakumek poliziarengandik jasotako tratuarengatik jarritako kexak jaso ditugula (ikus. Herrizaingo Sailaren hitzaurrea).

Epaitegietako hainbat jarduerak eragiten duen arrenkura prozedura zibiletara eta beste jurisdizkio batzuetara ere hedatzen da. Zigor kasuei dagokienez, ugarienak Espetxe Zaintzako Epaitegiaren ebazpenekin, baldintzapeko askatasunaren ezespenarekin eta abarrekin ados ez daudela adierazten duen espetxeratuen kexak dira.

Beste batzuetan, **presoen erreklamazioak** beren eskubideen ustezko urraketen edo espetxe Administrazioak ustez egindako irregulartasunen gainekoak dira, aztertzea Estatuko Arartekoari dagokionak.

Horregatik, erakunde horri terrorismo delituengatik zigortutakoen egoerari buruz aurkeztu zaizkigun hainbat kexa bidali dizkiogu. Ez dugu, ordea, berdin jokatu Estatuko Arartekoak inola esku hartzerik ez duela garbi dagoen kasuetan, auzi zehatzik planteatu beharrean pertsona desberdinei ukitzen dieten egoera generikoak planteatzen direlako, edo ustezko irregulartasunik salatu beharrean, kexan espetxe politika edo legediarekin desadostasuna adierazten delako. Hala gertatu da, esaterako, elkarte edo udalen batek jada zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten beren herkideek espetxean jarraitzen dutelako beren ardura helarazi digutenean.

Ararteko erakundeak Estatuko bere homologoari esku hartzeko eskatu dion gaien artean, gizartean izan duen oihartzunarengatik, 2003ko apiriletik, presoek Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) liburu eta material didaktikoak lortzeko zituzten arazoa nabarmentzen da. Erreklamaziogileek -Etxerat elkartea, batetik eta, bestetik, preso baten senidea-, kexu ziren Bergarako UNEDetik bildatzen ziren ia pakete guztiak, ordura arte ikasle presoengana arazorik gabe heltzen zireneak, jatorrira itzuli zituztelako. Kontuan izan behar da egun haietan artean Espetxe Gaietako Lege Orokorra, unibertsitate ikasketei dagokienez, aldatzeko tramiteak hasi gabe zeudela.

Eman zizkiguten datuen arabera, 2002-2003 ikasturtean, 400 preso baino gehiago – delitu desberdinen salaketapean espetxean badaezpada giltzapetuta zein jada zigortuta

zeudenak– zeuden Euskal Herriko unibertsitateetan matrikulatuta: 301 EHUn, bat Deustuko Unibertsitatean, beste bat Arrasateko Unibertsitatean eta 109 25 urtetik gorako sarrera frogetarako. Gainera, beste hamar pertsona irakaskuntza ertainetan edo hizkuntza eskola ofizialetan matrikulatuta zeuden. Oro har EAEko herritarrak ziren, baina baziren beste lurralde batzuetakoak izan arren, tutoretza sistemari onuragarriagoa iritzita, EHUn matrikulatuak zirenak ere. Etxerat elkarteak zioen bere jarduera terrorismo delituengatik preso dauden pertsonei laguntzera bideratzen den arren, ematen zituzten datuak mota guztietako presoen gainekoak zirela. Hartara, 25 urtetik gorakoen ikastarorako matrikuluen % 80 beste delitu batzuengatik zigortutako pertsonenak ziren.

Bestalde, ikasketei buruzko kontuen aldaketen mendeko beste batzuk badaezpada espetxeratuta zeuden eta espetxeratu baino lehen jada EHUn ikasten ari ziren. Nolanahi ere, kexan aipatzen zituzten pertsona guztiak ikasturte akademikorako espetxe Administrazioaren baimenarekin matrikulatu ziren eta, kexa jarri zuten unean, litekeena zen ikasturtea galtzea, azterketarik egiterik ez izatearen ondorioz.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusian hainbat gestio egin ondoren, Estatuko Arartekoak erreklamaziogileei *"Euskal Herriko Unibertsitatean 2002-2003 ikasturtean matrikulatutako ikasleen ebaluazioa normal egingo zutela"* erantzun ziotela jakinarazi zien. Jakinarazpen hori espetxe lege orokorra gai horretan aldatzea onetsi ondoren gauzatu zenez, Estatuko Arartekoak zioen arauketa berria *"zeharo bat zetorrela presoen egoerarekin, espetxe zigorren helburu konstituzionalarekin eta hezkuntzarako oinarrizko eskubidearekin"*. Hala ere, eskubide iragankorreko araubidea planteatzean, lege arau berriak zehaztapena Espetxe Administrazioaren beraren erabakien esku lagatzen zuela aitortzen zuen.

Elkarte erreklamaziogileak, bere aldetik, uztailaren amaieran, Estatuko Arartekoari "ebaluazioaren normaltasunaren" gaineko zalantzak helarazi zizkion, zeren, Zuzendaritza Nagusiak konpromisoa hartu zuen arren, hainbat espetxetatik azterketak egin gabe atzera bidali zituzten eta, horri, ikasketa materialak jasotzeko oro har izandako atzerapenaren ondoriozko arazoak gehitu zitzaizkion. Nolanahi ere, badirudi arazoa ondo konpondu zela kasurik gehienetan. 2003-2004 ikasturteari dagokionez, jada arauketa berria aplikatzekoa izanik, hemengo Arartekoak ez du inolako informaziorik jaso.

Estatuko Arartekoari planteatu zitzaion beste auzi bat hiesaren aurkako herritar batzorde batek aurkeztutakoa izan zen. Batzordeak hiesaren amaierako fasean dauden pertsonei gaixotasun larri eta sendaezinengatik baldintzapeko askatasuna emateko ikaragarri luzatzen zirelako kexu zen. Langraitzen preso bat hil ondoren, elkarte erreklamaziogileak zioen, gaixoa VIHz kutsatutako pertsonentzat bereziki xedatutako zentro batean hartzeko eskaini zuten arren, baldintzapeko askatasunaren espedientea ez zen presoa, oso larri, ospitalera eraman zuten arte tramitatzen hasi. Batzordearen iritziz, azaldutako kasu hau ez da ezohikoa, zeren baldintzapeko askatasuna bizitzaren azkeneko uneetan emateko ohitura baitago.

Gure erakundearen ikuspegitik, kexan –azaldutakoaz gain– beste arazo bat ere nabari zen, hau da, kasu honetan bezala, gaixotasun larriez gain, trastorno psikikoak ere pairatzen dituzten presoak kartzelatik kanpo zaintzeko berariazko baliabiderik ez dagoela. Horregatik, Arartekoak Estatuko Arartekoak espetxe administrazioari hutsune horren berri eman ziezaiokela iradoki zuen. Iradokizuna onartu zen baina, oraingoz, ez da espetxe administrazioarengandik inolako erantzunik jaso.

Nolanahi ere, espetxe sistemak izan litzakeen erantzukizunak direnak direla ere, badirudi garbi dagoela arazo horrek urgazpen soziosanitarioko hazpegi nabarmena daukana, euskal administrazioek heldu behar diotena. Izan ere, bestelako gaixotasun edo drogamendetasunei lotutako buruko patologiak dauzkan presoak zaintzeko baliabiderik eta beren beregiko zentrorik ez izatea behin eta berriro salatu izan da erakunde honen aurrean, bai esparru hori jorratzen duten elkarteekin izandako bileretan bai kasu zehatzei buruzko kexetan.

Horregatik, aurrekari arazotsuak zituelako Gasteizko inongo zentrotan hartu ez zuten pertsona bat espetxetik irten zenean, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailera eta Osasun Sailera jo genuen, baita Udalera eta Foru Aldundira ere, azaldutako kasu horietan, zigorra espetxetik kanpoko zentroetan betetzen edo baldintzapeko askatasuna lortzen, edo zigorra amaitzean benetan gizarteratzen lagunduko duten baliabiderik ez dagoelako gure kezka adieraztera.

Administrazio desberdinek, beren erantzunetan, espetxetik irteten diren arazo psikiatrikodun pertsonek pairatzen duen bazterkeria egoerari aurre egiteko erakundeen erantzuna artikulatzen laguntzeko borondatea zutela eta prest zeudela jakinarazi ziguten. Alabaina, erakunde guztiak bat zetozen arazoa –arrazoi desberdinengatik– beren eskumen estukoa ez zela azpimarratzean, eta hori buruko osasun edota osasun fisikoko faktoreak, gizarte faktoreak (deserrotzea, bazterkeria…) eta lege faktoreak (zigorrak, espetxe araubidea, eta abar) biltzen direneko arazoetan sarritan ateratzen den gaia da.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiak jakinarazi zigun egoitza zentro bat eraikitzeko proiektua garatzen ari direla, *"honako soslaidun 14 bat pertsonarentzat: buruko gaixotasuna eta toxikomania aktiboa, sarritan VIH/HIESarekin eta gizarterako oso izaera gatazkatsuarekin lotuta daudenak"*. Egoitza hori ez doa azaldutako egoerarekin bat, zeren zentroa ez baita espetxetik irteten direnentzako laguntza bide modura ikusten. Horregatik, planteatzen diren kasu batzuei erantzun liezaiokeen arren, berariazko baliabide egokiak sortu behar direla azpimarratzen jarraitu behar dugu.

Arartekoaren espetxe alorreko jarduerak deritzegunekin segituz, buruko patologiak pairatzen dituzten presoekin zerikusia –zeharkakoa bada ere– duen beste gai bat ere aipatuko dugu. Langraitzeko espetxean halako presoei laguntzeko, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak diruz lagunduta, jarduerak egiten zituen elkarte batez ari gara. Arazoa zen, diru publikoekin finantzatutako halakoetan oso sarri gertatzen dena, onartutako diru laguntza urte amaieran ordaintzen dela baina egutegi urtearen barruan egindako jarduerak ordaintzeko soilik erabil daitekeela. Desfase horrek boluntarioen kolektiboak, lan egiteko, dirua aurreratzera behartzen ditu, eta kasu askotan –besteak beste, elkarte erreklamaziogilearenean–, dirurik aurreratzerik ez daukatenez, jarduerak eten behar izaten dituzte.

Oraingoan, espetxeko preso batek gugana jo zuen, arazo psikiatrikoak zituelako arauren bat urratu eta ondorioz parte hartzen ari zen bergizarteratzeko egitarautik kanpo utzi zutela. Espetxeko talde teknikoarengana jo genuen, kasu honetaz galdezka, eta esan ziguten presoa egitarautik kanpo elkarteak jarduerak eten zituelako geratu zela, eta ez diziplinazko espedientearengatik.

Kasu hori, gure ikuspegitik, presoentzat boluntarioen elkarteen laguntzak bergizarteratzeko duen garrantziaren froga txikia besterik ez da. Horrexegatik, administrazioek jabetu behar dute halako jarduerak diruz laguntzea ez dela liberaltasun edo eskuzabaltasun hutsa, herri botere guztiek zigortuen gizarteratzea bultzatzeko duten

betebeharraren ondoriozko eginbeharra baizik eta, hartara, alor honetan eta beste batzuetan ere, diru laguntzak ematea aritzeko neurriak hartu behar dira eta, ahal den guztietan, diru laguntzen ordez elkarteekin lankidetza itunak sinatu beharko lirateke.

Esandako horiez gain, presoek beste gai asko ere planeatu dizkiote gure erakundeari. Bi kasutan, zigorra Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo betetzen ari ziren presoek beren droga mendetasunerako tratamendu egokirik ez zegoela salatzen zuten eta, beraz, xede espetxearen gaineko erabakiaren egokitasuna zalantzan jartzen zuten. Beste erreklamaziogile batzuk askatasuna kentzearen ondorio kaltegarriak saihestuko dituen espetxe tratamendu egokirik ez zegoela ere bazioten. Behin eta berriro agertzen den gaia zigortuen egoera juridikoaren gaineko informaziorik ezarena da. Arazo hori batzuetan Administrazioari berari lepora dakioke (akatsak zigorren likidazioetan, eta abar), eta beste batzuetan, instantzia judizialei (ebazpenen jakinarazpenik egiten ez duelako...).

Arazo desberdin ugarien artean –elizatik ezkontzeko zailtasunak, edo Foru Aldundiaren zaintzapean dauden seme-alaben bisitak antolatzeko, Martutene eta Langraitzen berogailuaren arazoak–, baimenak emateko, komunikazioak onartzeko (aurrez aurrekoak, telefonozkoak, eta abar), edo atzerritarren dokumentazioaren gainekoak errepikatu zaizkigu. Bereziki aipatu behar dira zergapean ez dauden pentsioen gaineko kexak (ahalmen urritasunaren balorazioa, prestazioaren zenbatekoa, eta abar) eta, batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak Martuteneko presoei zegozkien pentsioak ordaintzeko ikusitako zailtasunak.

**Adingabe urratzaileei** ezarritako neurri judizialei dagokienez, txosten honetako 1.1.6 atalean aipatutako ofiziozko jarduerez gain, iaz beste bi kexa ere aztertu ditugu. Lehenengoa Audientzia Nazionalak (AN) atxilotutako bi adingaberen senideek 2001ean planteatutako gai bati buruzkoa izan da. Horren gainean, 7/2000 Lege Organikoak adingabeen zigor legea aldaraztean, terrorismoarekin zerikusia zuten jarduerengatik ezarritako neurriak Estatuko Gobernuak zehazten dituen berariazko zentroetan beteko zirela xedatu zuen, baina zigorrak autonomia erkidegoetan bete ahal izateko autonomia erkidegoekin itunak sinatzeko aukera ere aurreikusten da.

Egun ez dago halako itunik EAErekin. Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak jarduera terroristarekin zerikusirik duen edozein urraketa epaitzeko eskumena, inplikatuen adingabetasuna kontuan izan barik, ANri ematearen erabaki politiko-kriminalarekin ados ez dagoela adierazi du. Gure aldetik, azaldutako kritika horren funtsean bat gatozen arren, adingabearen interesari aditzeak, zigor erantzukizuneko lege ororen oinarrizko ardatza baita, eta adingabeek barneratze neurriak etxetik gertu bete ditzaten komenigarritasunak, lankidetza itunak ezar daitezen aholkatzen dute.

Sailak jakinarazi digunez, Justizia Ministerioak ez du horrelako inolako proposamenik egin. Hala eta guztiz ere, guk uste dugu Eusko Jaurlaritzak EAEn bizi diren zigorpeko adingabeen interesen defentsa lehenetsi behar duela eta, horregatik, eskueran dituen ahalegin guztiak egin behar dituela, baita ekimena hartu ere, ANk jarritako neurriak betearazteko lankidetza formulak ezartzen saiatzera begira. Justizia sailari gure ikuspegiaren berri eman diogu, baina oraindik ez dugu inolako erantzunik jaso.

Adingabe lege urratzaileen tratamenduari buruzko beste kexa batean, sustatzaileak Ertzaintzak bere semea atxilotu zuenean izan zuen jokabideaz kexu zen, eta bide batez soilik, bere semeak barnerapen zigorra betetzen zuen Urtuellako zentroan jasaten zuen tratuaz mintzo zen. Zehazki, zentroek bere semearen ihesaldi baten berri atzerapenez

jakinarazi ziotela zioen. Horren inguruko azalpenak eskatu genituenean, zentroaren funtzionamenduan inolako irregulartasunik ikusten ez zela ondorioztatu genuen, baina agian kexak agerian jarri zuen jakinarazpenean berandutu baziren, ustekabe hura gertatu zenean zentroan nahikoa langile ez zegoelako izan zitekeela.

Justizia alorrean jorratu ditugun gaiak gainbegiratzen amaitzeko, **abokatu eta prokuradoreen elkargoen** funtzionamenduaren gaineko erreklamazioen atala aipatu behar dugu, horren ikuskaritza, administrazio korporatiboa izanik, gure erakundeari baitagokio.

Esparru honetan, kexarik ohikoena erabiltzaileek jarduera profesional jakin batzuen aurrean jartzen dituzten salaketei erantzuten atzeratzen direlako, edo erantzuten ez zaielako izaten da. Bizkaiko Abokatuen Elkartea izan da, berriro ere, kexarik gehien eragin duena, baina profesional gehiago hartzen dituelako eta jende gehiagori jaramon egin behar diolako ere izan daiteke hori. Oro har, korporazio horren erantzuteko denborak laburtu dira, bai erreklamaziogileei bai erakunde honen eskariei erantzuteko orduan. Alabaina, aurreko urteetan planteatutako eta 2003aren hasieran itxitako hainbat gaitan Gobernu Batzordeak balizko akats deontologikoaren preskripzioarengatik irekitako diziplina espedientea artxibatzea erabaki behar izan zuen, zoritxarrez. Horrek esan nahi du –gure iritziz–, Abokatuen Elkargoari dagokion lanbide horren kontrolean nolabaiteko axolagabekeria egon dela.

Gaien tramitazioan gehiegi luzatzeagatik heldu zaizkigun kexek Abokatutzaren Euskal Kontseiluari ere ukitu diote. Elkargoek errekurtsoak ez ebazteari buruzko gai guztiak azkenean konpondu badira ere, ez da berdin gertatu 2001eko kexa batekin, interesdunari jada ebatzitako diziplina espediente batean zegoen dokumentazioa ukatu ziotelako kexarekin.

Atxiboak eskueran izatearen auzia Bizkaiko Abookatuen Elkargoari buruz ere sortu da. Horren gainean, Arartekoak azaldu du ez diola egoki irizten, antza funtzionatzeko ohiko modua den arren, eskatzaileek espedienteetan dauden dokumentuen kopia bat ez emateari.

Kasuak banan-banan aztertu beharko liratekeen arren, eskatutako dokumentua Elkargoaren artxiboetan badago, interesatuek kopia bat eskuratzeko eskubidea balia dezakete, 30/1992 Legearen 35 a) eta h) eta 37. artikuluetan hala esaten baita. Administrazioaren erregistro eta dokumentuetara heltzeko eskubidearen jatorria administraziaren gardentasunean dago, zeinek, sistema demokratikoetan, edozein administrazioren eta herritarren arteko harremanak egituratu behar dituen.

Iaz doako urgazpen juridikoaren eskarien ukapenei buruzko hainbat kexa jaso ditugu. Normalean ez dugu halakoetan sartzerik izaten, Batzordearen erabakien inpugnazioaren lege prozedura instantzia judizial batean amaitzen baita. Aurreko urteetan tramitera onartu ditugun kexak jarduneko erakundeen artean –Orientazio Juridikoko Zerbitzua edo Doako Urgazpen Juridikoaren Batzordea– eta eskatzaileen arteko komunikazioen gainekoak izan dira. Horixe da, hain zuzen, hurrengo ataleko aukeratutako kexen laburpenean sortutako auzia.

Azkenik, komeni da aipatzea hiru erreklamaziogilek hasieran izendatutako ofizioko abokatuaren ustezko jarduera okerrak salatu ondoren beste ofizioko abokaturik ez izendatzeko Elkargoaren erabakiarekin ados ez zeudela planteatu digute. Auzia konplexua da, zeren doako urgazpen juridikorako eskubideak ez baitu abokatua hautatzeko aukerarik ematen eta, bestalde, onuradunak eskatutako abokatu ordezkapenik ere ez baita

aurreikusten indarreko legedian. Alabaina, egia ere bada konfiantza oinarrizko elementua dela bezeroaren eta letratuaren arteko harremanetan eta, hartara, abokatuaren jokabide profesionalaren aurkako salaketa tartean sartzen denean, pentsa liteke ondorengo bateraezintasunezko balizko ziorik sortu dela, eta horren ondorioak eta garrantzia beti aztertu beharko lirateke.

Bilbon gertatutako auzian, kausaren ebazpenaren ardura zuen epaileak berak erreklamazioari beste abokatu bat izendatzea erabaki zuen. Beste bi erreklamazioak Gipuzkoan aurkeztu ziren eta, salatutako letratuek inolako hutsegite deontologikorik egin ez zutela xedatu ondoren, Abokatuen Elkargoak ez ordezkatzeko erabakia berretsi zuen. Erakunde honi emandako erantzunean, doako urgazpen juridikoa herri zerbitzua dela eta erabiltzaileek zerbitzu horren prestazioa araupetzen duten arauak onartu behar dituztela argudiatzen zuen, erabiltzaileek abokaturik hautatzerik ez dutelako, abokatuek bezeroak aukeratzerik ez duten bezala.

Arartekoari azaldutako motibazioak onartu planteatutako kasu horietan Abokatuen Elkargoaren aldetik inolako irregulartasunik egon ez dela pentsatu beste aukerarik ez zaio geratzen. Hala ere, arau orokorrek ez dute, gure ustez, ezohiko kasuak agertzerik ekiditen, eta kasu horiek, doako urgazpen juridikoaren izatezko errespetua bilatuz beti eta dirurik ezaren ondoriozko desberdintasunak saihestuz, banan-banan aztertu beharko lirateke.

## 8.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak

⇒ *Nahikoa motibaziorik ez doako urgazpen juridikoaren ukapen batean* (1081/2002)

• Erreklamazioa

Erreklamaziogileak dio Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikoko Zerbitzura (OJZ) jo zuela, doako urgazpen juridikoa onartu eta ofizioko abokatua izenda zekioten hiru eskari egitera. Handik egun gutxira, aipatutako zerbitzuak ezespenezko ebazpenak jakinarazi zizkion. Guztietan erabakiaren funts bakarra eskaria denboraz kanpokoa zela ageri zen.

• Azterketa

Gaiaren mamia aztertzera sartu barik, interesatuak Doako Urgazpen Juridikoaren Batzordean (DUJB) eskaria berrets zezakeelako eta, ukatzekotan, epaitegietara ere jotzea zuelako, jakinarazpena ikuspegi formaletik aztertzea komeni zela iritzi genion. Horren gainean, jakinarazpena hitzez hitz irakurtzean eskaria zergatik ezetsi zen jakiterik ez zegoela iruditu zitzaigun, ez baitzuen erabaki hura hartzeko baliatutako oinarrien gaineko inolako azalpenik ematen, ezta azalpen laburrik ere.

Baliteke motibazioa DUJBearen ebazpenean erreklamaziogileari motibazio horren berri ematea, baina guk ez genekien eman zitzaion ala ez. Ondorioz, Abokatuen Elkargora jo genuen, prozedurazko auzia planteatzera.

• Emaitza

Korporazio profesionalak txosten luzeaz erantzun zigun, OJZk erreklamaziogilearen doako urgazpenerako hiru eskari, Bilboko hiru instrukzio epaitegi desberdinetan tramitatutako hiru zigor prozedurari buruzkoak jaso zituela onartuz hasten zena.

Hiru espedienteak ezesteko zioa eskatzaileak berak egindako salaketengatik abiarazitako aurretiazko diligentziak artxibatzen zituezten hiru auto errekurritu nahi zituela zen. Elkargoak zioenez, Orientazio Juridikoko Zerbitzuak berak epaitegietara telefonoz deitu behar izan zuen informazio gehiago eskatzera, interesatuak ez zituelako errekurtsoak egiteko ofizioko txandako abokatuak eskatzen zitueneko auto judizialak aurkezten. Hartara OJZk zigor jarduerak noiz eta zergatik artxibatu ziren jakin zuen –epaitegiaren iritziz gertakariak ez zirelako delitu, ez eta falta ere–. Gainera, bulego judizialek jakinarazi zutenez, autoak sendoak ziren eta eskatzaileak ez zeukan errekurritzerik, prozeduretan agertu gabe zegoelako.

Aurreko azalpen horiek ikusita, gure erakundeak nahikoa motibaziorik ez zegoelako hasierako bere iritzia berretsi zuen. Alabaina, Abokatuen Elkargoak emandako informazioek –erreklamaziogileari jakinarazi genizkion– antzemandako hutsunea betetzen zutela iruditu zitzaigun. Horrekin batera, doako urgazpen juridikoaren eskaria egin zenetik joandako denbora eta DUJBk ukapena behar bezala argudiatu ez zuelako aukera –kontrastatu gabea– kontuan izanik, OJZk beste komunikazio bat egin beharrik ez zuela ondorioztatu genuen.

Hala ere, berme erakunde honek uste du zerbitzu horren jakinarazpne guztietan ukapena eragin duten arrazoien aipamen bat, laburra bada ere, sar dezaten komeni dela, eskatzaileak horiei ihardesteko nahikoa oinarri izan dezan behintzat. Horregatik, Abokatuen Elkargora jo genuen, berriro, OJZko arduradunei gogoeta horien berri eman ziezaieten eskatzeko, etorkizunean kontuan izan ditzaten.

## B) **Justizia administrazioaren funtzionamendua**

⇒ *Jendea ondo ez artatzea bake epaitegi baten mendeko erregistro zibilean* (1058/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana Portugaleteko Erregistro Zibileko funtzionario batek eman zion tratuarengatik kexatzera jo zuen. Kontatzen zuenarengatik, ezkontza hitzarmenen inskribapena eskatu behar zuenez lanean baimena eskatu behar izan zuen. Lanetik ahalik eta denborarik gutxien alde egiteko, erregistroaren bulegora 8.30ean joan zen, eta atean zain egon zen, lehenengoa izateko. 9etan, erregistroa zabaldu zutenean, funtzionarioarengana joan zenean, *epaiketak zituela eta* ezin ziola jaramonik egin esan zion. Berak jendeari kasu egiteko ordutegia zela eta halakorik egiten ez zen egunen gaineko inolako oharrik ez zegoela azaldu zion eta, nolanahi ere, beste egun batean itzultzeko oso zaila zeukala, baina funtzionarioak erantzun zion *berak ez zeukala errurik Eusko Jaurlaritzak langile gehiago ez jartzeagatik* eta, beraz, *ez zuela eskatutakoa egingo*, erreklamazioaren protestak alferrik zirela gehituz. Izan ere, erreklamaziogileak beste egun batean itzuli behar izan zuen erregistro zibilera, horrek lanean eragin zizkion kalteekin.

• Azterketa

Erreklamaziogileak salatutako gertakariak ikertzea komeni dela pentsatu genuen, benetan giza baliabideak falta zirela, horrek, nolabait, funtzionarioaren jarrera azalduko baitzuen, edo erreklamaziogileak zioenez, funtzionarioa bera zela tratu oker haren erantzule argitzeko. Bi aukerak planteatu genizkien Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoari, hurrenez hurren.

Sailetik aipatutako bake epaitegiaren jarduera eta langileriaren txosten luzea bidali ziguten, bulego judizial horretan giza baliabiderik falta zenik pentsatzerik ez zegoela ondorioztatzeko oinarria, emakume funtzionario baten gaixo egoera ordezkatzeko eskaria ukatzeko erabili zena, hain zuzen. Kexa zehatz honi dagokionez, egun hartan langile guztiak bertan zeudela egiaztatu zutela ere bazioten.

Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoak, bere aldetik, bake epaitegiko epaile titularrak egindako txostena helarazi zigun, zeinen ustez giza baliabide nahikorik ez zegoela garbi baitzegoen, eta emakume funtzionario baten gaixo egoera estal zezaten eskatzen baitzuen.

Informazio horiek nolabait kontraesanean zeudenez, Sailak bidalitako dokumentazioa aztertu genuen eta akats bat zekarrela jabetu ginen, zeren dokumentu batetik kexa eragin zuen egunean idazkaritzaren ofizial arduraduna gaixorik zegoela ondorioztatzen baitzen. Sakoneko auzia argitzea gure kontua ez zen arren, horren berri emateari egoki iritzi genion, administrazio eskudunak egoera horrek, epaileak behin eta berriro gertatzen zela zioenak, falta zen funtzionarioa ordezkatzeko pertsona bat izendatzea eskatzen zuen ala ez azter zezan.

Giza baliabide nahikorik izan zein ez, bake epaileak egindako txostenean ez zen erreklamaziogilea hartu zuen funtzionarioaren jarrera eta jendea tratatzeko moduaz inolako baloraziorik egiten eta halakorik aipatzea, gure ustez, komeniko zatekeen. Horregatik, joandako denborarengatik ziurrenik diziplinazko edozein urraketa preskribituta egongo zen arren, Arartekoak berriro jo zuen Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoarengana, kexa jaso zenean, aipatutako epaitegi hartako titularrak jendeari jaramon egiteko ofizial arduradunari gertakarien bere bertsioa emateko eskatu zion ala ez jakiteko eta, bereziki, ea funtzionarioak erreklamaziogileari ezin ziola kasu egin eta beste egun batean itzultzeko erantzun ziola aitortu zuen ala ez.

• Emaitza

Oraingo erantzunean, Justizia Sailak gertakarien egunean langile guztiak zeudela esatean okertu zela aitortzen zuen arren, bake epaitegian giza baliabiderik falta zenik ikusten ez zutela berretsi zuen. Horregatik sortzen zen lehenengo gaixo-egoera ez ordezkatzea erabaki zuten, eta erabaki horri eusten zioten.

Erreklamaziogileari kasu egin zion funtzionarioaren jarreraren balorazioari dagokionez, Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoko Idazkaritzak txosten laburra bidali zigun, epaitze deontologikorik egiterik ez zegoela esanez, *aztertutako jokabide hori, izatekotan, hutsegite arina izango litzatekeelako, eta preskribituta legokeelako.*

Gure ikuspegitik, penagarria da denbora igarotzeak salatutako funtzionario baten jokabidea baloratzea eragoztea, eta hala jakinarazi genion Gobernu Aretoari, etorkizunean halakorik berriro gerta ez dadin behar diren neurriak hartuko dituelako esperantzan.

⇒ *Zigor epai batean, zigortuaren identitateari buruzko akats batek beste pertsona baten lokala bahitzea eragin zuen* (206/2003)

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen Burgoseko Zigor Epaitegi baten bere nortasunaren gaineko akatsak eragin zizkion traba eta kalte nabarmenen berri ematera. Epaitegiak kexagilearen finka bat bahitzeko agindua eman zuen, epai hura bere izen eta deitura berberak zituen beste pertsona bati zegokionean. Akats horrengatik abokatu bat hartu behar izan zuen eta bost hilabetez itxaron epaitegiak beste auto baten bidez akatsa zuzendu zuen arte. Erreklamaziogileak zioen, bere ustez, hutsegite hura erraz sahiets zitekeela, zigortutako beste pertsonaren nortasunaren beste datu batzuk, esaterakom ENA zenbakia jaso izan balira.

• Azterketa

Kexa onartzeko modukoa zela iritzita, eta bi autonomia erkidego desberdinetako epaitegiek esku hartu zutela ikusita, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira jo genuen, egoki irizten zien neurriak hartzeko eskatuz.

Erantzunean, BJKNko Diziplina Batzordeak txosten luzea bidali zigun, erreklamaziogilearen kexaren ondorioz abiatutako aurretiazko informazio espedientean artxibatzeko hartutako erabakiaren berri emanez. Artxibatzea Ikuskaritza Zerbitzuaren txostenean oinarritzen zen, Zigor Epaitegiak emandako informazioak aztertu ondoren egindako txostenean, alegia.

Bertan azaltzen zenez, behin epaia sendoa zela, betearaztea erabaki zen. Kalte ordainetara behartutako pertsona kaudimenik gabea zenez, Jabetza Erregistratzaileen Estatuko Elkargora agindu bat bidali zen, zigortuaren izenean zeuden ondasun higiezinen erregistroen frogagiriak luzatzeko. Agindu horretan zigortuaren izena, ENA, jaioteguna eta jaioterria, ama eta aitaren izenak eta azkeneko helbidea agerrarazi ziren.

Erantzunean Bizkaiko jabetza erregistro batean zigortuaren izenean ondasun batzuk ageri zirela zioenez, epaitegiak bahimendua gauzatzea erabaki zuen. Erregistroari eskatutako ziurtagirian nortasun datu berberak agerrarazi ziren. Behin informazio hura jasota, finka baten bahimendua baita haren emazte eta jabekide modura ageri zenari jakinaraztea ere agintzen zuen autoa atera zen. Jakinarazpenaren ondorioz, erreklamaziogilea Bilboko Gauteguneko Epaitegira agertu zen, izen eta abizen berdinak izan arren, bera ez zela zigortua azaltzeko.

Zigor Epaitegiak jabetza erregistroarengana jo zuen berriro, auzia argitzen saiatzeko, baina erregistroan ez zegoen finkaren jabeez emandakoaz bestelako daturik eta, ondorioz, erreklamaziogileari eta emazteari bahitutako ondasunaren jabeak zirela egiaztatzen zuten dokumentuak eskatu zizkien, zigortuarena ez zela frogatzeko. Egiaztapenak egin ondoren, epaitegiak egindako bahimendua indarrik gabe lagatzea eta badaezpadako idaztoharra ezeztatzea erabaki zuen.

Diziplina Batzordeak, *azaldutakoa eta aurkeztutako dokumentazioa ikusita, epaitegiaren aldetik axolagabekeriarik egon ez dela* ondorioztatu zuen, *kaltedunaren eta zigortuaren izen eta abizenak berdinak izatearen ondoriozko zorigaiztoko akatsa gertatu dela, eskariak zigortuaren datu guztiak adieraziz bidali zituen epaitegiarena baino Jabetza Erregistroaren erantzukizuna dena, eta epaitegia sortutako arazoaren*

*berri izan zuenetik ahalik eta lasterren konpontzen saiatu dela*. Ondorioz, abiarazitako espedientearen artxiboa proposatzen zuen, diziplinazko erantzukizunik ez zekartelako.

• Emaitza

Azalpen horiek erreklamaziogileari helarazteaz gain, gure erakundeak jabetzaren erregistroari ere BJKNk ateratako ondorioen berri ematea ondo legokeela pentsatu zuen, halako akatsik berriro gerta ez dadin ahalegintzeko. Erregistroak emandako informazioan akatsik zegoela egiaztatzen bazen, ukitutako pertsonari azalpenen bat emateaz pentsa zezaten ere eskatu genien.

Handik gutxira, erregistratzaileak Arartekoari erantzun zion, eta honakoa argitu zion: ENA nahitaez jasotzea 196/1976 Dekretuaren bidez arautu zen lehenengoz, notario eta erregistratzaileen aurrean idatziz egindako agerraldietarako. Erreklamazioaren aldeko inskripzioa lehenagokoa zenez, datu hori ez zen derrigor sartu behar eta, izan ere, ez zen inskripzioan ageri. Hala ere, erregistroak epaitegiari bahituaren ezkontidearen izena ere eman zion epaitegiari, pertsona bat identifikatzeko ENA baino datu eragingarriagoa dena, ENA zenbakien bikoizketa kasurik ezagutzen den bitartean-erregistratzailearen esanetan- ez dira izen eta abizen bereko pertsonak eta izen eta abizen bereko pertsonekin ezkonduta daudenak ezagutzen. Kasu honetan, hain zuzen –gehitu zuen– aipamen horrek lagundu zuen erreklamaziogilearen nortasunaren gaineko zalantzak argitzen.

Horregatik guztiarengatik, erregistratzaileak, izen eta abizen berdinak izateak kexagileari eragindako arazo guztiak deitoratzen zituen arren, berak akatsean bat ere errurik ez zuela zioen. Ondorioz, BJKNko Diziplina Batzordera jo zuen, informazio guztia eduki gabe berari leporatutako erantzukizunarengatik ados ez zegoela adierazteko.

Gure erakundea ere bat dator jabetza erregistroaren titularrarekin, bazirela akatsa saihesteko beste datu –esaterako, bi inplikatuen jaioteguna eta jaioterria, eta ezkontidearen izena eta helbidea–, baina uste du datu osagarri horiek kontrastatzea prozeduran esku hartu zuten bi instantzien esku egon zela. Horregatik, BJKNk –justizia Administrazioaren funtzionamendua kontrolatzeko eskuduna– jada erregistratzaileen informazioak jaso zituela kontuan izanik, eta kexa eragin zuten gertakariak izan zirenetik denboratxoa joana zela ikusita, onena gai honetako gure esku hartzeari amaiera ematea zela erabaki genuen.

# 9. INGURUMENA

## 9.1. SARRERA

2003. urteko ekitaldian aurkeztutako kexetatik 47, hau da, jaso zirenetatik % 4,41, ingurumenari lotuta zeuden.

Erreklamazioetan ukitutako administrazioak banan-banan azterturik, kexak honela sailkatu dira:

- Tokiko administrazioa ........................................................ 45
- Foru administrazioa ........................................................... 2
- Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) ............................................................ 1

Edukiari dagokionez, kexak ondoko gaien ingurukoak izan dira:

- Egoitza-lurzoruetako jarduera sailkatuak .............................. 28
- Bestelako ingurumen-arazoak ............................................ 10
- Industri lurzoruetako jarduera sailkatuak .............................. 4
- Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura ....................................................................... 2
- Hondakinak eta isurkiak .................................................. 2
- Lurzoru urbanizaezinetako jarduera sailkatuak ..................... 1

Aurrekoetan bezala, aurtengoan ere kexa ugari ditugu jarduera sailkatuek eragindako ingurumen-arazoengatik. Izan ere, biztanleek maizenik jasan dituzten eragozpenak ostalaritzaren alorretik etorri zaizkie, hain zuzen horrelako establezimenduak -tabernak, pubak, jatetxeak, txokoak, elkarte gastronomikoak- egoitzazko hiri lurzoruetan daudelako kokatuta. Horiekin batera, bestelako jarduerak ere izan ditugu aztergai: aroztegiak, ibilgailuetarako tailerrak, etab.

Hortaz, berriz ere azpimarratuko dugu udalei auzi horretan dagokien zaintza-lana, eurek baimendu dituzten jarduerek beti eutsi beharko baitiete udal lizentzian ezarritako mugei eta neurri zuzentzaileei. Hartara, udalak ardura du kasuan kasuko jarduerak instalazio baimendunari dagozkion muga eta parametroetara egokiarazteko; zuzentze lan horrek zehapenen beharra baldin badu herritarren sosegua eta ingurumenaren kalitatea hausten dituzten jokabideak desagerrarazteko, herritar guztien interesa bermatzen duten tresnak aurkituko ditu indarrean dagoen lege ordenamenduan.

Halaber, industri jarduerak sortzen duen kutsadura ere agertzen da ekitaldi berean jasotako zenbait salaketaren oinarrian. Horren inguruko espedienteak tramitatzean, agerian geratu da zenbait udal txikik ahaleginak egin dituztela kutsagarri izan litezkeen jarduera horiek legeen eremuaren barruan burutu daitezen eta lege ordenamenduan ezarrita dauzkaten kutsadura-mugak bete ditzaten. Horrelakoetan, ahaleginak are aipagarriagoak dira kontuan hartzen badugu mota horretako jarduera gehienak hainbat hamarkadatatik honakoak direla, eta garrantzi handi-handia dutela herri horietako ekonomiarentzat.

Bestalde, erakunde honek ofiziozko jarduteei ekin die, erakundeak berak 1999an aurkeztu zuen txostenari jarraipena egiteko (*Uraren kalitatearen babesa Zadorra sistemako urgegietan*).

Txostenean Uribarri-Ganboako eta Urrunaga-Santa Engraziako urtegien egoera eta hango inguruena aztertzen zen, urak behar besteko kalitatea duela ziurtatzeko eta hornidura ere era egokian burutzen dela bermatzeko, ia milioi bat lagunek hartzen baitute ura sistema horretatik. Beraz, zenbait gomendio –batzuk orokorrak eta beste batzuk arlo zehatzetakoak– egin ziren uraren kalitatea hobetzeko eta bertako zenbait jarduerak eta erabilera motak (nekazaritza, abeltzaintza, industria eta aisialdi arlokoak) eragin ditzaketen kaletak arintzeko.

Beraz, Zadorraren sistemari dagokionez, uraren kalitatea da hartu beharreko ardura orokorretako bat, eta botere publikoek sektore anitzeko ikuspegi orokor eta koordinatu batetik aztertu beharko lukete. Helburu horrekin, administrazioak koordinazio organo iraunkor bat eratu zezan proposatu genuen; bertan, uraren kalitatearen inguruan eskumena duten administrazioak elkartuko lirateke, organoari egokitzen zaizkion lanak betetzeko: aholkularitza eta informazioa ematea edo erabakiak hartzea. Asmo horrekin proposatu genuen egitura Zadorraren Sistemako Urtegiak Zaintzeko Mahaia litzateke.

Aurrekoaz gain, plan bat osatzea ere planteatu genuen: Zadorrako Urtegien Arroa Zaintzeko Lurralde Plan Sektoriala. Haren bitartez, Zadorraren sistemako uraren kalitatea aztertuko litzateke, horretarako arro guztia erreferentziatzat hartuta.

Egiturazko bitartekoei dagokienez, beharrezkoa iruditzen zitzaigun urtegi bazterretako landaredia lehengoratzea, zeharbide biologikoak sortzeko. Zeharbide horiek, berez haziak eta gizakientzat ibilgaitzak, lagungarriak lirateke bestelako erabilera motak aldenarazteko eta ur-xafla modu egokian babesteko. Beste horrenbeste egin beharko litzateke arroko ibai eta ibaiadarretako ertzetan.

Aztertu genuen beste aukera, halaber, arro inguruetako nekazaritza aldea "inguru kaltebera" izendatzekoa izan zen (otsailaren 16ko 261/1996 errege Dekretua eta 91/676/EB Zuzentaraua); horrekin batera jardute planak beteko lirateke, nekazaritzarako nitratoek eragindako kutsadura murrizteko. Bai jardute planoak eta bai nekazaritzarako bidezko jarduerak ere nahitaez betetzekoak dira. Bultzatu beharrekoa zen, era berean, Ebroko Konfederakunde Hidrografikoak *"inguru sentikor"*tzat jo zezan urtegien arroa, kontuan hartuz horretarako 91/271 EB Zuzentarauan hirietako ur hondakinei buruz jasotakoa (Zuzentarau horren transposizioa abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege-dekretuaren eta martxoaren 15eko 509/1996 Errege Dekretuaren bitartez egin zen). Hala eginez gero, tratamendu tertziarioa derrigor ezarri beharko litzateke biztanlegune nagusietako hondakin urak biltzen dituzten araztegietan.

Arartekoaren ezohiko txostena aurkeztu ondoren, abenduaren 28ko 455/1999 Dekretuaren bitartez onartuta geratu zen Euskal Autonomi Erkidegoko Ibai-erreken Antolamendurako Lurralde Plan Sektoriala (Isurialde Mediterraniarra). Lurralde antolamendurako tresna horrek ur-masaren inguruan ezartzen duen babes-tarteak 200 m zabal du kota altuenetik (lakuak eta aintzirak) edo ohiko kotatik (urtegiak) gora neurtuta. Inguru horretarako plan berezi bat erredaktatu beharko litzateke Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoa xeheago zehazteko.

Tramitazio aldian daude, halaber, beste bi plan: batetik Hezeguneen Antolamendurako Lurralde Plan Sektoriala, eta bestetik Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Sektoriala, mota horretako inguruak ere biltzen dituena.

Aipatzekoa da otsailaren 18ko 33/2003 Dekretuak Euskadiko Uraren Kontseilua sortu duela, arlo horretan eskumena duen sailari atxikia.

Bestalde, transposizioaren zain dago 1992ko maiatzaren 21eko Batzordeak emandako 92/43/EB Zuzentaraua, habitat naturalak zein basa animaliak eta landareak zaintzekoa. Hala egiten denean, Zadorraren Urtegiaren ingurua Natura Sarea 2000n jasota geratuko da, Batasuneko leku interesgarrien artean, hain zuzen.

Aurrekoaz gain, zenbait gomendio multzo egin ziren arlo desberdinei buruz. Ingurumenari eta lurraldearen antolamenduari dagokionez, honako aholkuak eman ziren:

- Ur-xaflaraino ibilgailuz edo oinez iristeko moduko guneak murriztu eta zaindu, haren inguruan ur bazterretako landare naturalez estalitako tarte bat sortzeko.
- Arazketa sistemak eta iragazki berdeak ezarri, urbazterretako isurkiak urtegiko uretara iritsi ez daitezen.
- Ibaiadarrek eramandako uraren kalitatea kontrolatu, uretara doazen jalkinak ahalik eta gehien urritzeko. Horretarako ere, jalkinak geraraztekoguneak egokitu litezke ibaietan. Kontrolpeko gune horiek aldizka garbituko lirateke.
- Zadorraren Urtegiak Babesteko Lurralde Plan Sektoriala egin. Planak arro guztia hartuko luke bere baitan, arlo desberdinetarako politikei koherentzia emanez.
- Plangintzaz baliatuz, kimika arloko industriak debekatu arro aldeko industriguneetan; berdin jokatuko litzateke tratamendu zaileko hondakin toxikoak sortzen dituzten lantegiekin.
- Hiri plangintzaren bitartez, egoitza erabileren garapena debekatu urtegiaren ertzetako landa auzune txikietan.
- Akuikultura-ustiategiak (arrain zein karramarroen haztegiak) debekatu urtegietan. Mota horretako instalazio ibai-ibilguetan eraiki ohi dira, eta hondakin organiko ugari sortzen dituzte. Helburu berarekin, aztertu beharko litzateke komenigarria den horrelako neurriak arroko ibai-erreketara edo haietako tarte batzuetara zabaltzea.
- Urtegi aldean hain ugari diren arauz kanpoko eraikinak eta asentamenduak (txabolak, karabanak...) eraitsi, bertako inguruak eskasten baitituzte.
- Zadorraren sistemako urtegiak hobeto zaintzeko asmoz, goian azaldu diren proposamenak eta iritziak kontuan hartuko dira Erdialdeko Arabako Lurralde Plan Sektoriala egiteko orduan, batez ere egoitza eta industri lurzoruen antolamendua zehaztean.

Aurreko guztiagatik, eta kontuan hartuz erakunde honek goiko gomendioak eman zituenetik denbora luzea pasatu dela, arloan eskumena duten euskal administrazio publiko guztiengana jo dugu, zenbat gomendio aplikatu diren jakiteko eta gure jarraipen lanetan lagungarri izan litekeen edozeren berri izateko.

## 9.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Lurzoru urbanizaezinetako jarduera sailkatuak**

⇒ *Hondakindegi klandestino batek eragindako eragozpenak* (1386/2001)

• Erreklamazioa

Mallabiako auzokide batek hondakindegi baten irregulartasunak salatu zituen. Ustez, hondakindegia legez kanpokoa zen, eta herriko auzo batean zegoen.

Salaketaren arabera, maiz hondakinak erretzen ziren zabortegian, eta horrek eragozpen handiak eragiten zizkion inguruko jendeari.

Erreklamaziogileak zioenez, gertaera horiek askotan salatu zituen Udalean, baina ez zen inolako neurririk hartu arazoa konpontzeko.

Erakunde honek galdetu zion Udalari hondakindegiak derrigorreko udal baimena ote zeukan eta zein neurri hartu ziren salatutako arazoa konpontzeko. Galderari erantzunez, Alkatetzatik salaketaz geroztik burututako jardueren berri eman zitzaigun, ondoren adierazten den moduan:

> *"Zure idazkian aipatzen den Mallabiako auzokideak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan. Erregistro-data 2000ko abenduaren 18koa duen kexa horretan (...) auzo aldean legez kanpoko hondakindegi zegoela adierazten zuen, neurriak har zitezela eskatuz.*
> *Mallabiako Udalari (...) bidalitako idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailak legez kanpoko hondakindegien zerrenda eskatzen zion, leku horiek lehengoratu ahal izateko. Udal honek (...) Foru erakunde horri helarazitako erantzunean, hondakindegien zerrendarekin batera, (...)-k hondakin-gune hura zela-eta aurkeztutako kexaren kopia bidali zuen; bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik etorritako teknikariak hondakinen kudeaketari buruzko ikuskapena egiten ari ziren egun beretan, eta Udalak egokiera aprobetxatu zuen teknikariak ere jakinaren gainean jartzeko. Hari beretik Udalak, otsailaren 26an, ezarriak zituen neurrien berri eman zion (...)-ri..."*

Udalaren txostena ikusirik, Bizkaiko Foru Aldundiarengana jo genuen aurrenik, auziaren inguruan neurririk hartuko zuen jakiteko eta, hala eginez gero, neurri horien berri izateko. Erantzun ziguten ez zutela esku hartuko salatutako jardueren inguruan, hondakindegia lurzoru urbanizaezinetan kokatuta baitzegoen. Esan beharra dago foru aldundiek ahalmena dutela egoitzazko hiri lurzoruetan burutzen diren jardueretan esku hartzeko, hala jasotzen baitu 7.c.6 artikuluan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomi Erkidegoko instituzio komunen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoak.

Hortaz, Arartekoak laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari (Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila). Horrela, sail horretako zerbitzu teknikoek hondakinen isurketaz eta ondorengo erreketaz egindako txostena eskuratu genuen; txostenean ondokoa adierazten zen:

> *"Bidali duen idazkiaren bitartez, (...) jaunak salatzen zuen (...) baserrien artean hondakinak bota eta erre ohi direla, eta horrek kalteak dakartzala ingurumenarentzat eta bertako biztanleentzat.*
> *(...) jn.ak salatutakoa egiaztatzeko, 2002ko urriaren 30ean ikuskapen bat burutu zen adierazitako lekuan.*
> *Hara iritsita, hondakindegia kontrol gabea zela eta haren jabea (...) zela jakin genuen; 2001eko otsailaren 15ean ikuskapen bat egin zen hondakindegian bertan. Egiaztatu zen, halaber, jarduera hori ez dela eten, eta eraikitze zein eraiste lanek sortutako hondakinak biltzeaz gain, kontrol gabeko erreketak ere*

*egin izan direla, hondakin plastikoak, zurezkoak eta bestelako hondar erregarriak desagerrarazteko. Bestalde, metalezko hondar-meta txikiak ikusi dira, batzuetan metalari itsatsitako gai ez-metalikoak erre ondoren sortuak.*
*Lurzoruan edukiontziak ere uzten dira aldi baterako, eta haietako batean zurezko hondarrak daude. Era berean, aurreko ikusketan aipatutako autobus abandonatuak bertan jarraitzen du, ustez etxola moduan erabiliz.*
*Aurreko ikusketaren aldean, oraingo kota bi metro gorago dago -gutxi gorabehera- hondakindegiko luze-zabalera osoan.*
*Erretenarekin aurrez aurre dagoen ezponda maldatsuegia da (45°tik gorakoa). Ezpondaren azpialdean, erretenaren ertzean, forjatuetarako erabiltzen den burdin sarea ezarri da, botatako hondakinei euts diezaien. Asmo berarekin, euskarriak kokatu dira hego-ekialde parteko zuhaitzen parean. Zenbait lekutan "euskarri" horiek eman egin dute, eta erreteneraino iritsita, haren ibilgua estutu dute."*

Txostenak amaieran zioenaren arabera, aztertutako jarduera kontrol gabeko hondakindegi batena zen, eta bertako ingurumenean kalte larriak eragiten zituen. Hartara, beharrezkoa zen udalak berehala esku hartzea, kalteak areagotu ez zitezen. Horrekin bat, jardueraren titularra premiatu beharra zegoen, hondakindegia segituan itxi zezan eta kaltetutako ondasunak lehengoratzeko neurriak ere har zitzan.

• Azterketa

Derrigorreko udal baimena ez duten jardueren kasuan, Arartekoak bere egiten du jurisprudentziak maiz adierazi izan duen irizpidea. Ildo horretatik, Auzitegi Gorenak klandestinotzat jo ditu lizentziarik ez daukaten jarduerak, eta beraz, Zuzenbidearen araberakoa litzateke udal agintaritzak –kautelazko neurri moduan– horrelakoak etenaraztea JGOKAAn jasotako prozeduraren bidez legeztatu arte.

Adibide gisa, Auzitegi Gorenak 1988ko ekainaren 10ean emandako Epaia (Ar. 4195) ekarri dugu hona, nahiko argigarria delakoan:

*"...saltoki edo industri establezimendu klandestinoak irekitzen badira, edo 1961eko azaroaren 30eko Erregelamenduan jasotako jarduerei behar den lizentzia gabe ekiten bazaie, obrak etenarazi egingo dira, establezimendua itxiaraziko edo jarduera geldiaraziko kautelazko neurri gisa; erabakiak erabateko eta berehalako ondorioak sortuko ditu, giza elkarbizitzak beharrezkoak dituen mugak gainditzen duten egoerak luza ez daitezen. Kautelazko neurria indarrean egongo da dagokion lizentziaren bitartez arau hausterik ez dagoela egiaztatzen den arte edo arau hausteak zuzenduko dituzten neurriak hartzen diren arte."*

Irizpide berbera ageri da Auzitegi Gorenaren beste ebazpen hauetan: 1996ko azaroaren 5ekoa (RJ 1996\8271), 1998ko ekainaren 26koa (RJ 1998\5033)...

Azkenik, alor horri dagokionez, Euskadiko Autonomi Erkidegoan ezarri beharrekoa da otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikulua. Euskadiko Ingurumena Babesteko

Lege Orokorraren artikulu horrek ondokoa aurreikusten du lizentziarik gabeko jardueren kasuetarako:

> *"Jarduera bat behar diren lizentziak eduki gabe abian dela jakinez gero, Alkateak -ezarri beharreko zehapenak gorabehera- ondorengo neurriak hartuko ditu:*
> *a) Jarduera legeztagarria bada, egoera legeztatzeko errekerimendua egingo dio titularrari. Behar bezalako justifikazioa duten kasuetan izan ezik, epea ez da sei hilabetetik gorakoa izango. Areago, egoerak hala behar badu, Alkateak, interesatuari entzun ondoren, itxiarazi egin ahalko du jarduera hori.*
> *b) Jarduera legeztagarria ez bada –sektorearentzat indarrean dagoen arautegia edo udal ordenantzak betetzen ez dituelako-, itxi egin beharko da jarduera, interesatuari entzun ondoren."*

Bestalde, lege berberak jasota dakar, 105. artikuluan, kautelazko neurriak ezartzeko aukera:

> *"Herri Administrazioek –salbuespen gisa, eta zehapen espedienteari hasiera eman aurretik– ondoren zehazten diren kautelazko neurriak hartu edo ezarri ahal izango dizkiote lege honetan arau-haustetzat jotako ekintza bat ustez burutu duenari. Kautelazko neurri horiek ez dira, ordea, zehatzaileak izango:*
> *a) Obrak edo jarduerak etenaraztea.*
> *b) Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea.*
> *c) Ingurumeneko kaltea zabaltzea eragozten duen beste edozein neurri -zuzentzailea, segurtasunekoa edo kontrolekoa izan."*

Hortaz, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen arabera –11 b) art.–, azaroaren 27ko 36/2002 Gomendioa aurkeztu zion Mallabiako Udalari:

> *"Kautelazko neurri gisa, Mallabiako (...) auzoan erabiltzen den hondakindegia itxi dezala, eta haren titularra premiatu dezala hondatutako ondasunak lehengoratu eta konpon ditzan. Horrek ez du eragotziko zehapen espediente bat abiaraztea, hala badagokio."*

• Emaitza

Gomendio horri erantzunez, Udalak onartua zeukan erabakia helarazi zigun: dagokion espedientea abiarazi zen legez kanpo zegoen hondakindegi baten inguruan; hondakindegiko jarduera klandestinotzat jotzen zen eta berehalako geraraztea ezartzen zitzaion; halaber, hondakindegia kokatuta zegoen lurzorua nekazaritza-abeltzaintza babestekoa eta urbanizaezina zenez, legeztatzeko aukera oro ukatzen zitzaion jarduerari, ez zetorrelako bat Udal Plangintzarako AASSek lurzoru horiei buruz darabiltzaten aurreikuspenekin. Horretaz gain, udalak premiatu egiten zuen titularra, hondatutako ondasunak lehengoratu eta konpon zitzan.

### B) **Egoitza-lurzoruetako jarduera sailkatuak**

⇒ *Ostalaritza establezimendu batek zarata gogaikarriak sortzen zituen, ez zuelako behar bezalako soinu-isolamendurako sistemarik* (670/2001)

• Erreklamazioa

Zumaiako auzokide batek zarata gogaikarriak jasaten zituela salatu zuen. Zaratak etxe azpian era irregularrean ziharduen taberna batetik zetozkion.

Interesatuak adierazten zuenez, Zumaiako Udalak, instalazioaren titular berriaren eskariz, jarduteko eta irekitzeko nahitaezko lizentzia tramitatu zuen; hala ere, lokala ireki zenean ez zegoen behar bezala hosgabeturik, hau da, ez zituen hartu aldameneko auzokoei zarataren arazoa eragotziko zioten neurriak.

Erakunde honetatik, tramitatutako jarduera-espedienteari buruzko informazioa eskatu zitzaion Udalari.

Espedientean ageri zenez, irekitzeko lizentzia eman aurretik udal teknikariek soinu-neurketak egin zituzten –egunez eta gauez– kaltetuaren etxean, eta neurketen arabera lokalak araudia betetzen zuela adierazi zuten.

Alabaina, espedientean ez ziren zehatz azaltzen udal teknikariek egindako neurketak, eta erakunde honi komenigarria iruditu zitzaion lokalean bertan beste hots-neurketa bat egitea, inguruko etxebizitzekiko airez zeukan hots-isolamendua zenbatekoa zen jakiteko asmoz. Alde horretatik, kontuan izan behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak osatutako kalifikazio-txostenean 65 dB(A)-ko isolamendu maila hartzen zela neurri zuzentzailetzat. Bestalde, txosten berean ondokoa adierazten zen legeztatzeko proiektu teknikoaren titularrak aurkeztutako hosgabetze-egiaztagiriaz: *“neurri zuzentzailearen azpitik dago, eta urri samarra da irratia, telebista edo hari musikala ez diren bestelako musika-aparatuak erabiliko badira. Beraz, hobetu egin beharko da obrari ekiten zaionean.”*

Aurrekoaz gain, eskaera bat luzatu genion Udalari, lokalean jarritako musika-aparatuen ainguraketak begira zitzan. Ez da ahaztu behar aparatu horien igorpenak ezin zirela 90 dB(A)-tik gorakoak izan lokaleko inongo lekutan.

Udaletik honako hau azaldu zitzaigun:

> *“…Dagokion auzokideari igorpen-neurketaren emaitzak helarazi zitzaizkion (honekin batera gutunaren kopia doakizue). Ildo horretatik, eta ezaugarri tekniko-akustikoei dagokienez, ohartarazi beharra dago 2. pisuko etxebizitzan kanpo-zurajea oso eskasa dela, zaharra delako eta beste ezaugarri batzuk ere lehengo modukoak dituelako (lasaierak, itxidura sistemak, kristal bakarreko leihoak, etab). Ikusten denez, zurajeak ez du oinarrizko araudi ezargarria betetzen, eta ondorioz, fatxada ez dago behar bezala isolaturik.*
>
> *Egindako soinu-neurketek adierazten dutenaren arabera, tabernaren jarduerak sortzen duen hotsak ez du gainditzen onargarritzat jotzen den soinu maila, neurri zuzentzaileei buruz osatutako txostenean zehaztua berau; hala ere, txostenaren egileak berak, alegia, alor horretako jarduerak tramitatzeko eskumena duen ingurumen-organoak, ondoko hau azaltzen du tabernako hosgabetze-mailaz (60 dbA): “…urri samarra da irratia, telebista*

*edo hari musikala ez diren bestelako musika-aparatuak erabiliko badira.” Izan ere, mota horretako jarduerak ireki berriak edo erabat berrituak badira, gaur egun Gipuzkoako ingurumen-organo eskudunak 65 dbA-ko isolamendu instalatua eskatzen die berme-mailatzat. Aztergai dugun kasuan, ordea, berritze lanak ez ziren erabatekoak izan, helburua komunak hobetzea baitzen. Alabaina, obraren tamaina edonolakoa izanda ere, ez da onartuko oinarrizko soinu-araudia urratzea, eta guk dakigula ez da horrelakorik gertatu oraingo honetan.*

*Hartara, dagokion berme-maila beteko zela ziurtatzearren, egoki iruditu zitzaigun musika-ekipoak mugatzaile bat izan zezala, horrela ziurtatu ahal izango baitzen batez besteko soinu maila ez zela 85 dbA-tik gorakoa izango lokalaren barnean. Kontrol hori NC-15 motako muga batez ezartzen da frekuentzia guztietan...”*

Goiko txostenarekin batera, udalak beste dokumentu batzuk ere helarazi zizkigun, besteak beste, aireko soinuen isolamenduari buruzko txosten teknikoaren egiaztapena, enpresa espezializatu batek establezimenduaren jabearen eskariaz egina. Bertan ageri zenez, lokalaren hosgabetze maila 59 dB(A)-koa zen.

• Azterketa

Hona transkribatu dugun txostenean azaldutakoa azterturik, eta jardueraren titularrak aurkeztu zuen neurketaren emaitzak kontuan harturik, erakunde honek Udalarengana jo zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailaren laguntza eska zezan: lokaleko aireko soinuen isolamendua aztertuz, jakin ahalko zen instalazioak behar bezala funtzionatzen zuen.

Foru erakundeko zerbitzu teknikoek egindako txostena –2002ko abuztuaren 23koa– 2002ko abuztuaren 30ean iritsi zitzaion Udalari, eta urte bereko abenduaren 19an erakunde honi. Txostenaren 4. atalean esaten denez:

*“Aireko soinuei dagokienez (D), aztertutako lokalak 59.1 dB (A)-ko osoko hosgabetze gordina du (...) etxebizitzarekiko. Maila horretako hosgabetzea ez da nahikoa tabernarako, musika-aparaturik erabiliko ez balitz ere.*

*Adierazi beharra dugu aztertutako lokalean aireko hosgabetze gordina 65 dB(A)-tik beherakoa dela, eta maila hori da, hain zuzen, Neurri Zuzentzaileei eta Kalifikazioari buruzko Txostenak 6. neurri zuzentzailean ezartzen duena (Neurri Zuzentzaileei eta Kalifikazioari buruzko Txostena, 2000ko abuztuaren 21ekoa, Foru Aldundiko honetako Nekazaritza eta Ingurumen Sailak emana).*

*Auzokideek arazorik izan ez dezaten, titularrak lokal osoa hosgabetu beharko du, gutxienez aipatutako neurri zuzentzailean ezarritako maila lortu arte. Jakinarazpena jasotzen duen egunetik, interesatuak SEI HILABETEKO epea du, gehienez, hosgabetze lanak burutzeko.”*

Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egindako ikuskapen teknikoak argi adierazten duenez, jarduerak ez zituen betetzen dagokion lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak. Hala eta guztiz ere, Zumaiako Udalak ondoko hau azaldu zuen:

*"Jakina da zure ardura herritarren oinarrizko eskubideak zaintzea dena, eta Udal honek, eguneroko lanaren bidez, bat egiten du ahalegin horiekin. Horregatik, (...) Tabernaren jarduera irregularraren berri xeheagoak jasotzeko egin duzun eskaerari dagokionez, eta bereziki alorreko araudia urratzen ote zen jakin nahian Udalak Foru Aldundiko Ingurumen Sailari egin zion laguntza-eskaera ezagutu nahi duzula-eta, ondoko hau jakinarazten dizut:*

*1. Laguntza-eskaerari erantzunez, lokalak aireko soinuetarako duen hosgabetze-maila neurtu zen; ez zen aztertu, ordea, Eusko Jaurlaritzaren Erregelamenduan ezarritako maila betetzen ote zen, ezta irregulartasunik zegoen ere. Izan ere, orain arte egindako neurketek adierazten dutenaren arabera, bete egiten da aipatutako Erregelamenduan zehaztutakoa.*

*2. Udalak eskatutako agiriekin batera, jardueraren titularrak neurketa baten emaitza aurkeztu zuen; neurketa hori, enpresa pribatu batek titularraren enkarguz egina, bat dator aipatutako erakunde publikoak egin zuenarekin.*

*3. Diputazioko ingurumen alorreko organoak egindako neurketa-txostenak jarduera itxiarazteko gomendatzen du, instalaturik duen osoko isolamendua 65 dbA-tik beherakoa delako.*

*4. Diputazioko ingurumen alorreko organoak eskumena du txostenak emateko eta, hala behar denean, instalazioari edo haren handiagotzeari neurri zuzentzaileak ezartzeko, hala baitago jasota 3/98 Legean.*

*5. Foru erakundearen eskumenekoak diren neurri zuzentzaileek helburu bakarra dute, ezargarriak diren arau teknikoak betearaztea, hain zuzen.*

*6. Alor horretarako arau teknikoak sortzeko ahalmena ondokoei dagokie: horretan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako organoa eta Estatuko oinarrizko legeria.*

*7. Finkatutako jarduera baten titularrak eskubidea du horretan aritzeko, baldin eta ezargarriak diren arau teknikoak betetzen baditu, eta xedapen teknikoek sortzen duten segurtasun juridikoko eremua errespetatzen badu.*

*8. Aurrekoak gorabehera, eta osoko isolamendu maila nahikoa izango dela ziurtatzearren, mugatzaile iraunkor eta mugiezin bat jarrarazi da berme-neurri proportzional gisa. Mugatzailearen bitartez, soinu igorpenak 83 dbA-koak izango dira, eta inguruko etxebizitzetan zein jarduera-eremuan bertan antzematen diren soinuak 25 dbA-koak izango dira gehien jota.*

Aurreko guztia azterturik, erakunde honek ondoko hau adierazten du:

1. Jarduera sailkatuetarako lizentziak funtzionamendu lizentziak dira, baimena ematen duen administrazioak etengabeko kontrola izan behar baitu horrelako lizentziaren beharra duten instalazioen gainean. Instalazioa inoiz ixten bada, kontrolak ere ordura arte irauten du, instalazioak ingurumenerako dakarren arriskua ere iraunkorra delako.
   Jarduera horiek eragiten dituzten arazoak konpontzeko, Administrazioak aldi oro dauka erabilgarri neurri zuzentzaileak ezartzeko ahalmena. Halaber, neurri horiek berraztertu eta eguneratu egin ditzake, jardueren behar bezalako bilakaera ziurtatzen ez badute.

Beraz, zaratagatik gogaikarri gertatzen diren jardueren kasuan, lizentzia izatekotan bete egin beharko dira ezarritako neurri zuzentzaileak. Neurriak era askotakoak izan daitezke, bitarteko teknikoak egoera bakoitzeko ezaugarrietara egokitzen baitira, delako instalazioak eragozpenik ekar ez dezan.

2. Egoitzazko hiri lurzoruetan kokatutako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei dagokienez, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomi Erkidegoko Instituzio Komunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak, lurralde historikoei egokitzen die jarduera horiei buruzko araudiak beren eremu geografikoetan betearazteko eskumena (Legearen 7.c.6 art.).

   Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan onarturik geratzen dira egoitzazko hiri lurzoruetan kokatutako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko neurri tekniko orokorrak. Jarduera sailkatuek eragin litzaketen kalteak direla eta, Dekretuko zioen azalpenak dio foru instituzioek eskumena dutela beren ustez ondasunak eta pertsonak babesteko behar diren neurri zuzentzaile gehigarriak adierazteko.

3. Bestetik, Euskadiko Ingurumena Zaintzeko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen duenaren arabera (59. art.), jarduera bat legeztatzeko prozesuan foru instituzioek eman beharreko kalifikazio txostena loteslea da udal agintaritzarentzat, bai jarduera lizentzia ematearen aurkakoa denean eta bai neurri zuzentzaileak ezartzea gomendatzen duenean ere.

4. Euskadiko Ingurumena Zaintzeko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean adierazten denez (61.2 art.), Udalak irekiera lizentzia eman aurretik, udal teknikariek ikuskapena egin eta aldeko egiaztatze-akta eman behar dute derrigorrez. Horretarako, teknikariek egiaztatu egin beharko dute instalazioa bat datorrela onartutako proiektuarekin eta Autonomi Erkidegoko ingurumen organoak edo foru organo eskudunak ezarritako neurri zuzentzaileekin.

   Hosgabetze maila eskasa duten instalazioak ireki ez daitezen eta aldameneko auzokideei arazorik eragin ez diezaioten, prozedurako aldi horretan udal agintaritzak dagozkion neurketak ezarriko ditu lokaletako aireko soinuetarako isolamendu sistemetan.

5. Honako kasuan, ordea, irekitzeko lizentzia eman aurretik udal zerbitzu teknikoek ez zuten lokaleko aire soinuetarako isolamendu sistema behar bezala aztertu.

   Izan ere, Udalak emandako informazioaren arabera, prozedurako aldi horretan soinua neurtzeko probak egin ziren auzokidearen etxean, bertako igorpen maila ezagutzeko. Hala ere, ez eguneko orduetan ez gauekoetan, ez zen zehaztu zenbateko soinu mailak antzeman ziren, ezta instalazioan zein soinu-igorle zeuden piztuta neurketak egin zirenean.

   Haatik, foru teknikariek egindako proben arabera eta instalazioaren titularrak berak aurkeztutako soinu neurketen arabera, egiaztaturik geratu zen lokalak aire soinuetarako jarrita duen hosgabetze sistema 59 dB(A)-koa dela. Beraz, alde handia dago 65 dB(A)-ko mailara arte, horixe baita nahitaez bete beharreko neurri zuzentzailea, Gipuzkoako Foru Aldundiak neurri zuzentzaileak kalifikatzeko eta ezartzeko txostenean zehaztutakoa, alegia. Bestalde, esan beharra dago maila hori ez dela nahikotzat jotzen musika-aparaturik ez duten tabernen kasuan ere, horrelakoetan aireko soinuetarako hosgabetzeak 60 dB(A)-koa izan behar baitu.

Ohartarazi beharra daukagu, halaber, ostalaritza establezimenduetan ez dela musika-ekipoa soinu gogaikarrien igorle bakarra, horrelako jarduaretan badaudelako bestelako soinu-iturriak ere, esate baterako, bezeroen arteko solasak, materialak arrastaka eramatea edo lokalak funtzionatzeko erabiltzen diren era guztietako makinak eta tresnak.

Horregatik, aire-hosgabetzerako baldintza teknikoei dagokienez, gure Autonomi Erkidegoko foru aldundiek gutxieneko hosgabetze maila eskatzen diete nahitaezkotzat horrelako establezimenduei. Horrela, lokalak sortzen duen soinu-presioak ez ditu gaindituko –ez airez ezta egituraren bitartez ere– erregelamenduz ezarritako soinu-parametroak, hau da, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan ezarritakoak: "*...40 dB(A) 22:00ak arte eta 30 dB(A) goizeko 8:00ak arte, minutu batean eta Leq maila jarraian neurtuak; logeletan, sukaldeetan eta egongeletan 45 eta 35 dB(A)-ko puntako mailak, 8:00etatik eta 22:00etatik aurrera, hurrenez hurren. Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira udalek alor honetarako indarrean dituzten araudiak*".

6. Bestalde, erakunde honek urteroko txostenetan azaldu izan duenaren arabera, musika-ekipoan potentzia-mugatzaile bat jarriz erregelamenduetako soinu-mugak errespetatzen direla ziurta daiteke, baina ez dira arinduko horrelako jarduerek eragiten dituzten bestelako zaratak.

   Hari beretik, erakunde honek ostalaritzaren inguruan tramitatu dituen kexa-espedienteetan agerian geratzen da establezimenduen titularrek erraz manipula dezaketela potentzia-mugatzailea, eta batzuetan aldatu ere egin dela musika ekipoa, behar bezala ainguratuta edo zigilatuta egon arren. Horregatik, lehenik eta behin beharrezkoa da jarduera horiek instalazio lizentziak zehazten dituen neurri zuzentzaile guztiak betetzea, eta bigarrenik, auzokoek zarata larriengatik aurkezten dituzten salaketak jasotzean beharrezko neurketak eta egiaztapenak egiten direla, bereziki zaratak gaualdean sortzen badira.

   Bestalde, erakunde honek jakin du Zumaiako udalerriak ez daukala udal zerbitzurik ostalaritza establezimenduetan gauez dagoen zaratak aztertzeko eta kontrolatzeko, eta horren ondorioz ezin izan da eragiketarik burutu jarduera horietan izan diren ustezko arau-hausteak egiaztatze aldera.

7. Azkenik, egiaztatuta zegoen lokalak ez zituela betetzen instalazio lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak, aireko soinuetarako zeukan hosgabetze sistema ez zelako nahikoa aldameneko etxebizitzek giro-arazorik izan ez zezaten. Hartara, eta kontuan harturik neurri zuzentzaileak ezartzeko ardura udal agintaritzari dagokiola, Alkateak instalazioaren titularra premiatu behar izango zuen antzemandako hutsak zuzendu zitzan, hala jasotzen baitu, 64.2 artikuluan, Euskadiko Ingurumena Zaintzeko 3/1998 Lege Orokorrak, otsailaren 27koak.

Aurreko guztiagatik, urtarrilaren 22ko Gomendioa helarazi zitzaion Zumaiako Udalari, bertan honakoa adieraziz: "*Auzokoek zarata arazorik ez jasateko, errekerimendua egin behar zaio herri horretako (...) tabernaren titularrari, sei hilabeteko epean –gehienez– lokala erabat hosgabetu dezan. Aireko soinuetarako lortu beharko den gutxieneko hosgabetze maila 65 dB(A)-koa da, horixe ezartzen baitu neurri zuzentzailetzat 2000ko abuztuaren 21eko kalifikazio txostenak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumeneko Foru Diputatuak emanak.*"

• Emaitza

Zumaiako Udalak ez zion erantzunik eman egin zitzaion gomendioari. Beraz, erabakia ez onartutzat hartu genuen, eta gure esku-hartzea bukatutzat utzi.

⇒ *Hiri hondakin solidoak biltzeko kamioiak gauean ateratzen duen zarata* (527/2003)

• Erreklamazioa

Bilboko auzokide batek salatzen zuenez, zabor bilketarako kamioiak ateratako zaratak jasaten zituen etxean, bere kalean zerbitzu hori gauez egiten baitzen, goizaldeko ordu batetik ordu bietara bitartean, hain zuzen. Zaratak ia egunero iratzartzen zuen bi urteko alaba, eta nekez lortzen zuen berriro lo hartzea.

• Azterketa

Erakunde honek egindako errekerimenduari erantzunez, Bilboko Udaleko Ingurumen Alorreko Zerbitzu Teknikoak zarataren neurketa bat egin zuen, zabor bilketa zirauen bitartean Bilboko Ingurumena Babesteko Ordenantzan ezarritako parametroak gainditzen ziren jakiteko.

Ikuskapenean jasotako datuek egiaztatzen zuten halaxe gertatzen zela, erregelamenduz zehaztutako zarata-mugak gainditzen baitziren.

• Emaitza

Inguru horretan zabor bilketarako ordutegia aldatzea erabaki zen, eta orain 22:40ak aldera egiten da.

Kaltetua ados azaldu zen proposatutako aldaketarekin, eta beraz, erakunde honetatik bukatutzat eman genuen gure esku-hartzea.

⇒ *Diskoteka batek erregelamenduz ezarritako soinu-parametroak behin eta berriz gainditzen zituen arren, udalak ez zuen kontrolerako neurririk hartzen* (553/2003)

• Erreklamazioa

Vitoria-Gasteizko familia batek zenbait salaketa ezarrita zituen, eraikinaren behealdeko diskotekako zaratak jasaten baitzituzten etxean. Familiak esku hartzeko eskatu zigun, bere ustez hiriko Udalak ez baitzuen ezer egiten eta arduragabe jokatzen baitzuen.

• Azterketa

Udalak jakinarazi zigun establezimenduak berritze-lanak eginda zituela, eta ondorioz maila altu samarra lortu zuela aireko hosgabetzeari dagokionez, 78 dB(A) hain zuzen. Baina egunerokoan egiaztatu zenez, isolamendu maila gorabehera, lokalak sortzen zituen zaratak erregelamenduz ezarritako parametroen gainetik zeuden. Beraz, zehapen neurri gisa, jardueraren titularrari soinua mugatzeko sistema bat jar zezala exijitu zitzaion.

Hala ere, aldameneko auzokoek behin eta berriz aurkeztutako salaketak zirela eta, Udaltzaingoak soinu neurketak egin zituen, eta emaitzak azterturik egiaztatu zen soinua mugatzeko sistema ez zebilela behar bezala, eta neurketetan jasotako soinu-mailak gehieneko mugaren gainetik zeudela. Udal zerbitzu teknikoek ere ondorio berberak adierazi zituzten mugatzailetik eskuratutako datuak aztertu ondoren.

Horiek horrela, udal agintaritzak zehapen espediente bat abiarazi zuen, eta Alkatetzaren dekretuz hamabost egunez itxiarazi zuen establezimendua, egindako arau-hausteak zirela eta.

Azkenik, establezimenduko soinu-maila jasotzen duen ordenagailuaren datuetan oinarrituz, Udalak azaldu zigun nolakoa zen mugatzailearen funtzionamendua zehapen-espedientea ekarri zuten arazoen ostetik. Ikusten zenez, orduan mugatzaileak zuzen funtzionatzen zuen, eta horren erakusgarri, aurreko bost hilabeteetan erregistratutako datuen kopia bat bidali zitzaigun.

• Emaitza

Erreklamaziogileei informazio horren berri eman zitzaien, eta espedientea artxibaturik geratu zen.

## C) **Bestelako ingurumen-arazoak**

⇒ *N-1eko trafiko handiak Lasarte parean eragiten dituen eragozpenak* (713/2003)

• Erreklamazioa

Lasarteko auzokide batzuek esku har genezala eskatu ziguten, N-1eko trafikoak herriaren parean ateratzen duen zarata dela eta.

Azaldu zigutenaren arabera, lau urte lehenago zenbait izapide burutu zituzten, jasaten zituzten zaraten eta bibrazioen arazoari konponbidea emateko asmoz. Hala ere, salatutako arazoak berdin jarraitzen zuen artean.

• Azterketa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarengana jo genuen aurrena, eta han adierazi zigutenez, Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzatik jakinarazi zieten N-1 errepideko trafikoak sortzen zituen eragozpenak zirela-eta gehieneko abiadura 80 km/h-ra murriztu zela inguru hartan, horrela ibilgailuen ateratzen zuten zarata ere gutxitu egingo zelakoan. Era berean, azaldu zieten etengabeko abiadura-kontrolak egiten ari zirela, gidariek gehieneko abiadura-muga hari euts ziezaioten.

Gipuzkoako Foru Aldundiari ere informazioa eskatu genion, aztertzen ari ginen auzian eskumena erakunde horri zegokion eta.

Gipuzkoako Bide Egituretarako Saileko foru diputatuak ondokoa adierazi zigun:

> *"...Zarataren eragina murrizteko asmoz, berriki onartu diren oin berriko errepideen eta autopisten kasuan proiektu-aldian bertan aztertzen da hurbileko etxebizitzen ondoan pantaila akustikoak ezartzeko aukera.*

*Mota horretako pantailak jartzea oso garestia da, eta horregatik, bidea bera eraikitzeko proiektuak ez badu gastu hori hasierako inbertsioaren barruan jasotzen, zaila da asmoa gauzatzea.*

*Eraikita dauden errepideen kasuan, ordea, eragin akustikoa murrizteko egin den inbertsioak zaraten igorpen-gunea izan du helburu bakarra, eta horretarako, bidezoru drainatzaileak zabaltzen dira eman handiko errepideetan. Alabaina, aurrekontu arazoak direla medio ez da hesi-eragineko panel akustikorik ezarri, gure errepideetan premia larriagoak ditugu eta. Dena den, uste dugu hurrengo ekitaldietako aurrekontuek diru-partidak jaso beharko lituzketela horrelako inbertsioei ekin ahal izateko. Mota horretako babesgarriak ezartzekotan, lehentasuna eman beharko litzaieke etxeak baino berriagoak diren errepide edo autobideetako tarteei, baldin eta delako tarteak ez badu abiadura mugarik ezarrita. Azaldutakoaren arabera, uste dugu errepidea eraiki osteko etxebizitzek bere gain hartu behar zutela hesi-eragina lortzeko gastua, urbanizaziorako proiektuetan sartuz edo leihoetako kristalak indartuz.*

*Esan beharra dago, ordea, aurrekontuetan behar besteko diru funtsa dagoenean Gipuzkoako Foru Aldundiak aztertu egingo duela eragin akustikoa murrizteko aukera. Dena den, kostu-onura erlazioa azterturik, gerta liteke kasuren batean dirua leihoetako kristalak indartzeko inbertitzea, aukera hori pantaila akustikoak ezartzea eta zaintzea baino merkeagoa balitz."*

Gipuzkoako Bide Egituretarako Sailak bidalitako txosteneko arrazoiak irakurririk, erakunde honi erabakiak oinarri sendoak zituela iruditu zitzaion. Gainera, azterketa horrek ez zuen baztertzen salatutakoa bezalako egoeretan irtenbide bat bilatzeko aukera, baldin eta aurrekontuetan behar beste diru bazegoen erabilgarri.

• Emaitza

Interesatuei Gipuzkoako Bide Egituretarako Sailak erabakitakoaren berri eman zitzaien.

# 10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

## 10.1. SARRERA

Alor honen inguruan aurkeztu diren kexetako gai nagusiak zerbitzu publikoak –batez ere udalerrietakoak–, herri lanen proiektuak eta berauen burutzea izan dira. Ukitzen diren beste gai batzuk honakoei lotutakoak dira: administrazioaren kontratuak, prozedura eta funtzionamendua, nahitaezko desjabetzea eta administrazio publikoaren ondare erantzukizuna.

Tramitatu den erreklamazio kopurua azterturik, herri lan eta zerbitzuekin zerikusia duten kexak 136 izan dira, hau da, aurkeztutakoen % 12,76.

Administrazioak banan-banan azterturik, honako kexa multzoak ageri zaizkigu:

| | |
|---|---|
| - Tokiko administrazioa | 100 |
| - Foru administrazioa | 26 |
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 16 |

Jarduera arloei dagokienez:

| | |
|---|---|
| - Udal zerbitzu publikoak | 33 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 31 |
| - Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna | 24 |
| - Nahitaezko desjabetzea | 11 |
| - Garraiobideak | 10 |
| - Landa bideak | 7 |
| - Bestelakoak | 5 |
| - Irisgarritasuna | 4 |
| - Obren burutzea | 4 |
| - Bestelako zerbitzu publikoak | 4 |
| - Obretarako proiektuak | 3 |

Administrazioen **zerbitzu publikoen** helburua herritarren beharrak eta nahiak betetzea da. Toki Administrazioari dagokionez, udalen eskumenekoak diren gaiak apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legean zehaztuta daude, 25. artikuluan. Gehienetan auzokoek nahitaezkoak diren zenbait udal zerbitzu (edateko uraren hornidura, herriguneetarako irispideak edo hondakin bilketa) era eraginkorrean eman daitezela eskatzen dute, edo zerbitzu horien gauzatzearekin lotutako eskaerak egiten dituzte.

Udaletatik ematen diren zerbitzu publikoei erreparatuta, aipatzekoa da **hiri hondakinen** gaikako bilketa-sistemen kokapena. Beste batzuetan bezala, kexak etorri dira edukiontzien husteak ateratzen duen zaratak eragozpenak eragiten dizkielako biltzeguneen ondoan bizi direnei. Izan ere, huste lan horiek gau aldean egiten dira, kamioiek trabarik ekar ez dezaten ibilgailuen zirkulazioan. Alabaina, erabaki horrek, itxura batean arrazoizkoa izanda ere, ondorioak ekartzen dizkie gaikako bilguneen inguruan bizi diren

herritarrei, jarduera hori biztanle guztien onerakoa izan arren, aldameneko auzokoek ez dutelako zertan jasan maila horretako zarata.

Etxeetarako **edateko uraren hornidura** zerbitzuari dagokionez, Arartekoari zenbait gai helarazi zaizkio aztergai, besteak beste: urak sarean behar duen presioa, toki erakundeek hodietako konponketak egiteko ematen duten denbora luzea, ur-hodien titularitatea, kontagailuen ikuskapena edo haien nahitaezko aldaketa. Azken gai hori nahiko arazotsua izan da Donostian, bertako kontagailuak berritzeko kanpaina zela eta. Gai hau xeheago azaltzen da aukeratutako kexen atalean.

Kontuan hartzekoa da, halaber, udalei dagokiela bide publikoetako ibilgailuen eta oinezkoen **trafikoa antolatzeko ardura**, eta alor horretan erabateko ahalmena dutela egoki deritzotena erabakitzeko. Gaur egun, toki erakunde guztiek ahaleginak egiten dituzte jabari publikotik ahalik eta atarramentu handiena ateratzeko; ibilgailuentzako pasabideetarako baimenak emanez azaleko aparkalekuak desagerrarazteko eta, ondorioz, aparkatzeko arazoak gutxitzeko. Horregatik, hain zuzen, pasabiderako baimena eskatzen duten lokalei auto asko biltzeko azalera edukitzea exijitzen zaie. Ulertzekoa denez, aparkatzeko arazoa handiagoa den hirietako ordenantzak askoz zorrotzagoak dira pasabideetarako baimena emateko orduan.

Aurreko urteetan bezala, herritarrek pasabide-baimena lortzeko egin dituzten eskaerak kexa iturri izan dira, eskaera askori ezetza eman baitzaie. Mota horretako lizentziek erkidego-erabilera berezia onartzen die titularrei jabari publiko baten gainean; izan ere, jabariaren erabilera mota hori ohikoa –oinezkoentzakoa, alegia– baino intentsitate handiagokoa da, eta horregatik, hain zuzen, soilik lor daiteke udal baimenaren bitartez. Gogoan izan behar da, bestalde, pasabiderako baimena ematea ahalmen baten aukera bat dela, titularrari inolako eskubide subjektiborik ez dakarkiona, eta beraz, interesatuari edozein momentutan eska dakioke erabilera bertan behera utz dezala. Horren arabera, pasabiderako baimena ematerakoan, udalek ahalmen tarte zabal dute eskaeraren nondik norakoak baloratzeko, eta pasabidea ezartzeak bide publiko aparkatzeko plazen antolamenduan izan ditzakeen ondorioak aztertzeko. Azter dezakete, bereziki, zenbat aparkatzeko plaza ken litezkeen baimena emanez gero. Azterketa hori egiteko, kontuan hartzen da auzoko ibilgailu kopurua, eta momentu horretan dauden aparkatzeko plazak nahikoa ote diren beharrei eusteko.

**Garraio publikoaren** alorrean hainbat puntu daude aipatzeko. Horietako bat herritarrek egiten dituzten zerbitzu eskaerak dira, dagoen eskaintza baino handiagoak. Erreklamaziogileek adierazten dutenez, herri administrazioek garraiobide publikoen erabilera sutatu eta bultzatzen dute, baina eskaintza ez da nahikoa izaten biztanleen eskaerei eta beharrei erantzuteko. Eskatzen da, besteak beste, zerbitzuen maiztasuna handitzea, ordutegiak egokitzea edo lotura zuzenak ugaltzea. Horretaz gain, garraio zerbitzuak minusbaliatuei eskuragarri eta erabilgarri jartzeko eskatzen da, geltokietan zein ibilgailuetan euretan pertsona horien ibilia zailtzen duten oztopoak kenduz.

Azkenik, gogora ekarriko ditugun arazoek zerikusia dute **bide publikoetan** erabilera pribatuaren mesederako egiten diren lanekin. Horren erakusgarri dira, adibidez, bide publikoetatik finketaraino zabaltzen diren ibilgailuentzako irispideak, lehendik bidearen titularrari baimenik eskatu gabe burutuak. Horrelakoetan kaltetuak izan direnek –gehienetan alboetako onibarren jabeak– legaltasuna zaindu behar duten administrazioen

geldikeria salatzen dute, ez baitute ordenamenduak ematen dien zehatze-ahalmena erabiltzen.

Berriz ere, egoitza-gune berrietan eraikitzen diren bide azpiegiturek eta urbanizazio lanek kexak ekarri dituzte, horrelako lanek inguruko biztanleei eragiten dizkieten eragozpenengatik (zaratak, hautsa, espaloietan eta errepideetan biltzen den lokatza...).

Legebiltzarraren mandatari dihardduen honek jasotako zenbait erreklamazio **desjabetze-ahalmenaren** erabileraren ondorio dira. Maiz, jabeek preziamendu-orria aurkezten dutenetik balioespena ezarri arte denbora dezente pasatzen da, eta horixe izaten da kexetarako arrazoirik ohikoena. Administrazioak hogei egun balioduneko epea du jabeek egindako balioespena baietsi edo ezesteko (Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea, 1954ko abenduaren 16koa; 30. artikulua). Hala ere, erreklamaziogileetako batzuek salatzen dutenaren arabera, zenbaitetan administrazioak –Arabako Foru Aldundiko Herri Lanetarako Sailarekin gertatzen den bezala– ez du ezarrita daukan epean erantzuten. Preziamendu orriak elkartrukatzeko behar den malgutasuna gorabehera, balioespenak gehiegi berandutzen dira, eta akats hori konpondu egin beharko litzateke, herritarra babes gabe geratzen delako administrazioaren ahalmen horren aurrean.

Beste kasu batzuetan, kexen jatorria zerbitzu publikoak ematean eragindako kalteetan dago, herritarrak ez daudelako ados aurkezten dituzten **ondare-erantzukizunerako** erreklamazioak gaitzestearekin. Izan ere, oraindik ere administrazio publikoak –udalak bereziki– ez dira prest agertzen eskubide horiek bide administratiboan onartzeko, gehienetan zerbitzu publikoaren eta kaltearen arteko lotura ukatuz edo salatutakoa egiaztatzeko frogarik ez dagoela argudiatuz. Haatik, lege-ordenamenduak erantzukizunaren figurari ematen dion tratamenduak kaltetuek ordaina jasotzeko duten eskubidea lehenesten du, baita zerbitzu publikoaren emaileak arduragabe jokatu ez badu ere. Horiek horrela, erakunde honek berretsi egin ditu administrazioei luzatu izan dizkion aholkuak, errurik ez izan arren erantzukizun objektiboa onar ditzan gomendatuz.

Batzuetan, goikoak bezalako erreklamazioak erantzunik jaso ez delako aurkezten dira. Horrelakoen adierazgarri da herritar batek aurkeztutako kexa, Getxoko Udalean erreklamazioa egin zuenetik urtebete inguru pasatua baitzen ordurako. Kexari aterabidea eman nahian informazioa eskatu genuenean ere, ia urtebete itxaron behar izan genuen erantzuna izan arte, eta erantzun horretan Udalak zioenez, erreklamazioak bazuen erabaki bat. Erreklamaziogileak geroago azaldutakoaren arabera, ordea, kexa helarazi zigunean bezala administrazioa isiltasunaz baliatzen zen, orduko hartan bere erreklamazioari emandako ezetsiaren aurka aurkeztua zuen administrazio helegitearen kasuan. Hortaz, berriro jo genuen Udalarengana haren laguntzaren eske, baina bakarrik adierazi ziguten helegiteak ez zuela artean erantzunik. Gure ustez, ez dago onartzerik administrazio isiltasuna ohiko erantzuteko bide bilakatzea, eta horregatik gomendio bat zuzendu genion Udalari, urtebete baino lehenagotik aurkeztu zitzaion helegiteaz erabaki bat har zezan eta ondare-erantzukizunei lotutako prozedurak tramitatzeko eta erabakitzeko legeak ezartzen duen epeari hel ziezaion, kexa aztertzean ikusi genuenez bazeudelako mota bereko beste prozedura batzuk tramitazio ikaragarri luzea jasaten zutenak.

## 10.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Landa-bideak

⇒ *Etxebizitza baterako bidea mantentzea lur urbanizaezinetan* (423/2003)

• Erreklamazioa

Landa gune batean familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko asmoa zuen pertsona batek sarbidea urbanizatzeko eskatu zion Galdamesko Udalari. Udalak ezezko erantzuna eman zion; inguru horretako beste landa-bide batzuek hobekuntza lanak eginda zituztela ikusirik, interesatuak Arartekoarengana jo zuen, bere ustez ez zitzaiolako besteei bezalako tratamendua ematen.

• Azterketa

Hasieratik ohartu ginenez, eskaerari ezetza emateko Udalak erabili zuen araua martxoaren 6ko 5/98 Legea zen, Lurzoru eta Etxebizitzetarako Presazko Neurriei buruzkoa. Arau horren arabera, landa auzuneen kasuan irispideak eta zerbitzuak lurzatiaren jabearen konturakoak dira.

Hala ere, denbora gutxi zen landa auzune bereko beste bideak asfaltatu eta zabaldu zituztela.

Landa bideetako mantentze lan horietaz galdeturik, Udalak erantzun zuen udalerriak 37 auzune baino gehiago dituenez landa-bideetako lanak modu sistematikoan egiten zirela, erabilgarri zeuden diru-baliabideen arabera eta helburu horretarako dagoen Landa Bideetarako Programaren kargu.

Izan ere, esan beharra dago udalek ahalmen handia dutela onarturik ekitaldi bakoitzean egingo dituzten inbertsioak erabakitzeko eta alor horretako lehentasunak zehazteko. Era berean, Udalak bidalitako informazioan ondorioztatzen zenez, beste kasu batzuetako bide hobekuntzari ekiterakoan auzuneak zeharkatzen dituen bide nagusi bat eta haren adarren batzuk hartu ziren ardatz moduan, lehendik eraikinak zeuden lekuetara hedatuz hain zuzen. Beraz, Udalaren jokaera zentzuzkoa eta arrazoizkoa agertzen zen.

• Emaitza

Igorritako informazioa azterturik, Udalak bere autonomia mailari helduz jokatu zuela iruditu zitzaigun, ahalmen tarte bat baitauka ekitaldi bakoitzean egingo dituen hobetze eta mantentze lanak erabakitzeko. Dena den, Udalari ohartarazi genion irizpide orokorrak eta objektiboak baliatu beharko zituela landa-bideetako mantentze lanei begira, eta halaber, irizpide horiek herritar guztiek jakinak izan beharko luketela.

### B) Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna

⇒ *Nasa mugikorretako segurtasuna* (100/2003)

• Erreklamazioa

Bilboko Metroaren erabiltzaile batek aztergai ekarri zion Arartekoari Bilboko Alde Zaharreko geltokian dagoen zinta garraiatzailearen beharra eta segurtasun maila.

Interesatuak jakinarazi zuenez, korridoreko garraiatzailetik ateratzerakoan lurrera jausi zen. Bere ustez, istripua zinta oker jarrita zegoelako gertatu zen, eta adierazten zuen, halaber, hango erorikoak diru-kalteak ekarri zizkiola. Hala ere, erreklamazioa aurkeztu zuenean Bilboko Metroak ez zuen eskaera onartu, bere iritziz erakundea ez zelako kalteen erantzukizunduna.

• Azterketa

Arartekoak kexa izapideetarako onartu eta berehala kontaktuan jarri zen Bilboko Metroarekin, kexa jasotzean egindako izapideak azal zitzan eta nasa mugikor horretan hartutako segurtasun eta prebentzio neurriak zehaztu zitzan.

Bilboko Metroak adierazi zuenez, Alde Zaharreko geltokiko pasabide ibilkorraren kasuan eskailera mekanikoak eta nasa mugikorrak egiteko eta instalatzeko neurriak (UNE-EN 115) betetzen ziren.

Bilboko Metroak emandako informazioa alderatzeko asmoz, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Industri Sailera jo zuen, Bilboko Metroaren Alde Zaharreko geltokian ikuskapen bat egin zezan eta, bereziki, zinta garraiatzaileko ("anden mugikorra") irteerak behar bezala jarrita zeuden eta dagozkion segurtasun neurriak betetzen ziren egiazta zezan.

Bizkaiko Lurralde Bulegoak egindako azterketa bat zetorren Bilboko Metroak pasabide garraiatzailearen instalazioaz eta segurtasunaz azaldutakoarekin.

• Emaitza

Erreklamaziogileari jakinarazi genionez, gure ustez zintako irteera behar bezala jarrita zegoen, eta beraz, ezin esan zitekeen erorikoa geltokiko ekipamenduen akatsengatik gertatu zenik.

### ⇒ *Asua ibaiko zubi baten mantenimendua eta konponketak* (122/2003)

• Erreklamazioa

Asua ibaia tren pasabidearen pareko zubitik zeharkatu ohi duten bidaiari batzuek zubiko zoruaren eta segurtasun hesien egoera kaskarraren berri eman zioten Arartekoari.

Arazoa konpon zedin, administrazio desberdinetara jo zuten, baina alferrik. Beraz, eta zubia pasatzeak ekar zezakeen arriskua ezabarazi nahian, Erandioko Udalari zubia konpondu eta zoladura hobetu zezala eskatu zioten. Haatik, ez zuten inolako konpromisorik jaso Udalaren partez, eta horregatik arazoa Arartekoari helaraztea erabaki zuten.

• Azterketa

Kexa behar bezala tramitatzeko, auziari buruzko informazioa eskatu genion Udalari, eta handik erantzun zitzaigun zubia aldatzeko asmoa zegoela, eta hala egingo zela Eusko Jaurlaritzako Uretarako Zuzendaritzak Asua ibaia bideratzeko burutuko zituen lanekin batera. Adierazi zuten, halaber, bideratze proiektua burutu bitarteko alternatibak aztertu zituztela, baina ekar zitzaketen ingurumen-ondorioak zirela-eta etenik zeudela.

Horiek horrela, Erandioko Udalak zubiaren egoera eta beharrezkoak ziren mantentze lanak aztertu zituen. Azterlana bukaturik, Udalak lanak berehala hasteko konpromisoa hartu zuen.

• Emaitza

Egoeraren eta arazoa konpontzeko ekimenen berri izanda, gure esku hartzea amaitutzat jo genuen.

### C) **Udal zerbitzu publikoak**

⇒ *Panteoi pribatu bat saltzeko eragozpenak* (502/2003)

• Erreklamazioa

Bere kexa-idazkian Erandioko auzokide batek Udalaren jokaera aztertzeko eskatzen zuen, ez ziolako baimenik ematen bere panteoia saltzeko. Bere iritziz, eskualdaketarako mugak gehiegizkoak ziren, eta berdin irizten zion jabego-tituluaren balio mugari; agiriak, Bilbon 1942ko azaroaren 28an emanak, 99 urteko balio aldia zeukan ezarrita.

• Azterketa

Hilerrietarako Udal Zerbitzuaren araudia aztertu zen, zehatzago 1999ko iraileko udal erregelamendua, Erandioko udal hilerrietako "lurperatze-unitateak, hilartitzak eta hilarriak" arautzen dituena. Haren xedapen iragankorraren arabera, Erregelamendua indarrean sartu aurrean betikotzat egindako emakidei gehieneko epe bat ezarriko litzaieke, Udal administrazioaren esleipen eta kontratuetarako zehaztutakoa, hain zuzen.

Ildo beretik Bilboko Vista Alegreko hilerriko barne zerbitzurako erregelamendua aztertu zen. Goiko paragrafoan aipatutako xedapen iragankorraren arabera, erregelamendu hori, 1932ko irailaren 7an emana, Erandioko Udalarentzat ere ezargarria zen.

Oinordetza eta jaraunspen kasuetan eskualdaketari ezartzen zitzaizkion muga orokorrak ez ziren gehiegizkoak, herri onurarako ondasunak zirelako eta haien salerosketa mugatzeko neurriak zuzenbidearen araberakoak zirelako.

"Betiko emakidak" izenekoen araubidea aldatzen zuen xedapen iragankorrak, ordea, aparteko azterketa behar zuen.

Titulua emateko erabili zen Vista Alegreko hilerrirako Erregelamenduak 42. artikuluan adierazten zuenez, panteoien emakidak *"jabego gisa eta betiko egiten dira"*.

Auzi honen inguruko jurisprudentzian, neurri batez elkarren kontrakoak diren bi adar ageri dira: epai batzuen arabera, jabari publikoen emakidak ezin izan daitezke betikoak, eta ondorioz, dauden betiko titulu guztiei 99 urteko epea ezarri beharko litzaieke gehienez; jurisprudentziaren beste ulerkera, aldiz, "hil eskubidea" delakoaren alde agertzen da.

Funtsean, "hil eskubidea"-ren arabera, hilobia betiko emateak ez dakar, zentzu zibilean, jabetzaren benetako eskualdatze bat, eta ezin har daiteke, halaber, zerbitzu publikoaren benetako emakidatzat, tresna juridiko huts gisa baizik, eta haren bitartez baimena ematen zaio ehorzketaren titularrari bere senideen gorpuzkinak nahi beste denboraz eta dauden lekuan edukitzeko (1999ko urriaren 11ko AGE; RJ 1999/7815).

Hari beretik, betiko emakida 99 urteko tartera murrizten zuen araubidearen aldaketa, betiko edo mugagabeko kontratuak baliogabetzat jotzen zituena, ez zen onartu epaitegietan, horrelako hil-eskubideak emateko egintzei ez zitzaielako kontratu izaerarik

aitortzen. Kontratu izaera ez zetorren bat Hil eta Osasun arloko Poliziaren Erregelamenduaren 61 b) artikuluarekin (erregelamendua, 1960ko abenduaren 22koa, 1974ko uztailaren 20koaz ordezkatu zen); izan ere, artikulu horren arabera, udal hilerrien kasuan Udalak zeuzkan eskubide eta beharrean artean “lurzatiak eta hilobiak banatzeko eta besterentzekoak” zeuden, eta hortik ondorioztatzen denez, betikotzat egindako udal emakidak baliodunak dira (1989ko uztailaren 11ko AGE; RJ 1989/5746).

• Emaitza

Erakunde honen ustez, goian azaldutako planteamenduak egokiago uztartzen ditu norbanakoak behinola eskuratutako eskubide pribatuak eta zuzenbide publikoak zerbitzu publikoei buruz xedatutakoa. Horretan oinarriturik, irizpide hori aintzat har zezala eskatu genion Udalari.

Udalak azaldu zigunez, kontuan hartuko zuen iradokizuna, eta Hilerrirako Erregelamendua irizpide horiei helduz aldatuko zuen; hortaz, Araratekoak guztiaren berri eman zion interesatuari eta bukatutzat jo zuen bere esku hartzea.

### ⇒ *Ur kontagailu zaharren aldaketa* (901/2003)

• Erreklamazioa

Donostiako etxebizitza-eraikin baten titularra ez zegoen ados Donostiako Udalak 16 urtetik gorako ur kontagailuak aldarazteko hasitako kanpainarekin. Esan bezala, interesatua ez zegoen ados zerbitzuaren erabiltzaileak ordaindu behar zuelako neurgailu berriaren kostua.

• Azterketa

Aurrenik, kontuan izan behar da erakunde zerbitzu-emaileak egiten duen guztiak bat etorri behar duela zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren arau eta aurreikuspenekin. Donostiaren kasuan Udalaren Ur Zerbitzurako Erregelamendua zen aztertu beharreko araua, 1999an onartua eta argitaratua hain zuzen.

Arau horren 43. artikuluak, kontagailuak aldizka aldatzeari buruzkoak, honako hau dio: *“Instalazioaz geroztik, kontagailuek 17 urteko erabilpen-aldia izango dute. Denbora tarte hori gainditurik, aldatu egingo dira”.*

Horrelako xedapenen azpian arrazoi teknikoak eta baliabideen erabilera zuzena daude, eta helburua da kontsumorako bidaltzen den ur emariaren eta kontagailuek kontsumitutzat adierazten dutenaren arteko tartea murriztea.

Gainera, Europako Batasunak zenbait arau eman ditu gai horren inguruan, eta 1995eko gomendio batean Europako Batasuna ere 10 urtetik gorako ur kontagailuak aldatzearen alde agertzen zen, egiaztaturik baitzegoen funtzionamendu tarte hori pasaturik kontagailuek adierazten zituzten datuak ez zirela zehatzak.

Donostiako zerbitzu teknikoek berek adierazten zutenaren arabera, ikuskatze bisita bat egiten zen, eta haren ondorioz kontagailua aldatzea egoki jotzen bazen, abonatuari hilabeteko epea ematen zitzaion beste neurgailu bat jartzeko. Abonatuak neurgailu berri bat eros zezakeen, baina ezarritako epean aldatu ez bazuen, neurgailua alokaturik jartzen zitzaion.

• Emaitza

Kanpainak oihartzun zabala izan du inguruko hedabideetan, eta beraz, erreklamaziogileari adierazi genion gure ustez ez zela irregulartasunik sumatzen Donostiako Udalaren ekimenean.

# 11. OSASUNA

## 11.1. SARRERA

Arlo honetan 92 kexa jaso dira; horrela, ukitutako administrazioen araberako sailkapena eginda, kexa horiek ondokoak izan dira:

| | |
|---|---|
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 68 |
| - Tokiko Administrazioa | 20 |
| - Foru Administrazioa | 2 |

Azpiarloen araberako sailkapena eginik, banaketa ondoko hauxe da:

| | |
|---|---|
| - Erabiltzaileen eskubideak | 40 |
| - Osasun publikoa | 21 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 14 |
| - Osasun laguntza | 11 |
| - Osasun mentala | 3 |
| - Kontratazio araubidea, ondarea eta administrazioaren erantzukizuna | 2 |
| - Bestelakoak | 1 |

Erabiltzaileek kontsulta edo ebakuntza kirurgiko baterako itxaron beharreko denbora tartea osasun administrazioak nekez ahantz dezakeen garrantzi handiko gaia da; horrela bada, ahaleginen zati handi bat baliabideei etekinik handiena ateratzera bideratzen da, itxarote zerrendak murrizteko asmoz. Gaixoarentzat funtsezkoa den gai hau Osakidetzaren 2003-2007 Plan Estrategikoaren helburuetariko bat da; hori dela eta, egitasmo hori betetzeak sorospena hobetzen lagunduko du.

Edozein kasutan ere, lehenengo helburuaz gain –beharrizan zehatz edo tratamendu eskari bat kontuan hartzeko lehentasunak ezartzea–, itxarote zerrendak antolatzeak protagonismoa izan dezake erabiltzaileari informazioa helarazteko baliabide modura. Hortaz, neurri egokia izan daiteke pertsona bati itxarote zerrendei buruz eman beharreko informazioaren gaineko irizpide homogeneoen existentzia sustatzea.

Kontsultak izateko denbora tarteari dagokionez, erabiltzaileek kontsulta ginekologiko zehatz batzuetarako itxaron beharreko denboragatik euren desadostasuna adierazten duten kexa asko ditugu. Kexa horien gaineko datu batzuek hainbat galdera egitera behartzen gaituzte, hala nola, ea kasu horiek jaso behar izan ote zuten edukitako erantzunaren bestelakoren bat. Ildo honi jarraituz, pertsona horiei kontsulta ginekologiko baterako arrazoirik ez zegoela adierazi eta eskatutakoa osasun programa zehatz batean aurreikusita ez zegoen aldian behingo azterketa bat zela aipatu beharrean, pentsa daiteke gutxienez handik urtebeterako zita bat ematea aukeratu zela.

Alabaina, horrelako argibiderik eman ezean, gaixo bat itxarote zerrenda baterako onartzen bada, pentsatu beharra dago kexa hori arrazoituta dagoela, itxaron beharreko hain denbora luzeari buruzko aurreikuspenekin zerikusia duten kexetarik edozein egongo litzatekeen bezala.

Kexa hauei erantzun egokia eman ahal izateko, aintzat hartu beharra dago ez dela gauza bera eskaturiko laguntza ez ematea osasun programetan aurreikusita ez dagoelako edo baliabideak nahikoak ez direlako, eta, hortaz, laguntza izateko itxaron beharra dutela.

Hainbat **gaixo psikiatriko** eta beraien familiak erakunde honi egindako eskarietan ageri dira zeintzuk diren baliabide faltak dakartzan arazoetariko batzuk. Eskari horien hainbat atal osasunaren arlotik begiratuta bete behar diren arren, beste batzuk gizartearen arloari buruzko ikuspuntutik ere aztertu behar dira; izan ere, horrela izan ezean, gizarteratzeko lana ezinezkoa izango litzateke eta, era berean, ezin izango litzateke gaixo horiek behar dituzten laguntzen jarraipena bermatu. Horretarako, Osasunari buruzko Lege Orokorraren 20.3. artikuluak ezartzen duen bezala, behar-beharrezkoa da gaixo mentalaren arazoak osotasunean kontuan hartzeko ezinbesteko gizarteratze eta errehabilitazio zerbitzuak garatzea, betiere gizarte zerbitzuekiko koordinazioa bultzatuz.

Komunitateak gaixotasun mentaletarako eskaintzen duen laguntzaren egoerari buruzko aparteko txostenak besteak beste gomendatzen du gaixotasun mentala duten pertsonen gaineko gizarte sentsibilizazio baten premia. Edonola ere, helburu hori lortzeko abiaturiko kanpainaren batek –ospitale batera egindako bisita gidatuak– gogorarazten lagundu behar digu helburuak eskuratzeko moduak pertsona horien eskubideak errespetatu behar dituela, horien artean, intimitaterako eskubidea. Gure gizartean gaixotasun mentalek oraindik ere sortaraz ditzaketen iritziak gogoan izanda, horien estigma desagerrarazi behar dugu, baina, horregatik hain zuzen ere, zentroetan dauden pertsona gaixo horien **konfidentzialtasun eta intimitaterako eskubidea** berariaz bermatu beharra dago.

2002ari dagokion urteroko txostenean, gaixoei derrigortutako anbulatorioko tratamenduen bitartez esku hartzeko komenigarritasuna aipatu genuen, horrek errehabilitazioa ekarri ahal badu eta horri esker geroagoko ospitaleratzeak saihesten badira. Arazo honi gagozkiola, aurten gaixotasun mental larrien kasuei zuzendutako anbulatorio tratamenduari buruzko tailer bat egin da Bilbon, Osakidetzako Osasun Mentaleko Zerbitzuak, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak eta Arartekoren erakundeak sustatua. Tailer horretan ondoko erabakiak hartu ziren:

1. Arlo judizial eta fiskaletik nahiz gaixotasun mentalaren eremuan lan egiten duten era guztietako elkarte mugimenduetatik Zigor Judiziamenduari buruzko Legearen erreforma bultzatzea, lege horrek anbulatorioko tratamendu judizializatua ezartzeko aukera beren beregi ezar dezan.
2. Osasun arlo psikiatrikotik ildo honetako kasuei buruzko irizpideak ezartzeko adostasuna sustatzea.
3. Inplikaturiko foroetan neurri horri buruzko eztabaida bultzatzea (epaileak, fiskalak, osasun mentaleko zentroak eta abar), betiere jardunaldian aurkeztutako protokoloa oinarritzat hartuz.
4. Neurri hau lortzeko asmoz, hurbileko ingurunean sortzen diren ekimen guztietan parte hartzea.
5. Interneten bitartez eztabaidatu edo ideiak emateko foro iraunkor bat zabaltzeko aukera aztertzea.

Aurten Herri Defendatzaileak Koordinatzeko Jardunaldietan, Arartekoren erakundeak azaldu du gaixoei derrigortu beharreko anbulatorioko tratamenduetan aurrera egitea komenigarria dela, betiere horrek geroagoko ospitaleratzeak saihestuko dituen errehabilitazioa lortzen badu.

Ongizatearen eremuan bezala, hemen ere aipatu behar ditugu grebarako eskubide zilegiaren eta horrek ukitzen dituen pertsona erabiltzaileek laguntzarako duten eskubidearen arteko oreka aurkitzeak ekar ditzakeen zailtasunak. Gizarte arloan, pertsona nagusiei laguntzeko zerbitzuak izan ziren eta, horren barruan, bereziki, **programaturiko osasun garraioaren zerbitzua**. Komunitatearentzat funtsezkoa den baliabide honetan gutxieneko zerbitzuak betetzeko egiten ari zen jarraipenaren berri izateko, jarduketa bati ekin genion geure arioz.

Osasun Sailak emandako informazioaren arabera, gutxieneko zerbitzuak ezartzeko adostasuna lortu eta zerbitzu horien jarraipen zehatza egin zen. Administrazioaren ustez, garraio erabiltzaileen kexen arrazoia zerbitzuak berandutzea izan zen. Gauzak horrela, gai honi oratu beharko litzaioke zerbitzu hau normaltasunez ematen deneko baldintzak betetzeko ikuspuntutik; hori dela eta, administraziora jo genuen azken ildo horri jarraituz.

**Datu pertsonalen babesaren inguruan** izandako kexak direla eta, iazko txostenean azpimarratu genuen erabiltzaileek datuen gainean izan beharreko kontzientziazioa neurri teknikoen ezarpena bezain garrantzitsua dela.

Honen inguruan, Osakidetzako Zuzendari Orokorrak emandako informazioaren arabera, aurten eremu honetan egin diren jarduketak egiaztatu ditugu, esate baterako Osakidetzako langileek izaera pertsonaleko datuak babesteko dituzten zeregin eta betebeharrei buruzko 6/2003 Jarraibidearen onespena eta jarduketa prozedura baten ezarpena. Jarraibide hori erakunde horretan zerbitzuak eman eta edozein informazio sistema erabiltzen duten langile guztiei zuzenduta dago, eta, horren bitartez, datuak babesteko arautegia hobeto ezagutzeko modua sustatu da.

Osasunaren arloan, Arartekoren erakundeak pertsonen eskubideak ukitzen dituzten gaiei buruz egindako jarduketen artean, aurten **heriotzaurreko gaixoentzako laguntzari** buruzko beka bat bideratu da Euskal Autonomia Erkidegoan, pertsona horiei ematen zaien sorospenaren berri zehatzagoa izateko eta eskainitako zerbitzuaren gaineko hainbat ikuspuntu jasotzeko. Ikus dezagun, Osasun Sailaren legegintzaldi honetarako ezarritako ekimenen artean (Osakidetzaren 2003-2004 Plan Estrategikoan jasotakoa), pertsona horiei zuzendutako laguntza aztertzeko plan bat dagoela; egitasmo horretan, bada, laguntza emateko praktikak definituko dira eta gaur egungo zerbitzu motak eta horien finantzazioa. Heriotzaurreko gaixo baten familiak aurkeztutako kexa bat eta lan horiek batera izan dira. Kexa hori Osakidetzari bidali genion eta senideei heriotzaurreko gaixo hauen sorospena hobetzeko egiten ari ziren jarduketen berri eman genien.

Sexu aldaketarekin zerikusia duten ebakuntzen kasuan, Osasun Sailak oraindik ere ez du ezarri, osasun prestazioak sailkatzeko ondoreetarako, egoera intersexual patologikotzat hartu behar dena.

Nolanahi ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak iragarri du ebakuntza mota horietarako laguntzak aurreikusten dituela.

Osasun publikoaren atalean, Arartekoren erakundeak urdaitegiko produktuak azoketan saltzearekin zerikusia duten hainbat jarduketa burutu ditu. Jarduketen jatorria elkarte batek aurkeztutako kexetan daude, lehenago ukitutako udaletara eta geroago Osasun Sailera jo zuten arren; izan ere, kexen bitartez salatu nahi izan zuten produktu

horiek saltzen zirela “hotzaren katea” deritzona apurtzen zuten baldintzetan. Salmentaren jagotza eta kontrolaren ikuspuntutik eskumena udalarena izanagatik ere, uste izan genuen behar beste datu zeudela Osasun Sailari gai hori azaltzeko.

Udalei dagokienez, oso kontuan hartu genuen merkatuei, osasun publikoaren babesari eta kontsumitzaile zein erabiltzaileen defentsari buruzko gaian duten eskumena (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2. artikulua, g) eta h) idatz-zatiak).

Eta Osasun Sailera jo genuen, betiere udalek gai honetan duten ahalmenaren osagarri modura izenda genezakeena kontuan hartuz; izan ere, kaleko salmentarekin ez ezik azoka hauetara produktuak baldintza desegokietan garraiatzearekin zerikusia izan zezaketen zirkunstantziak gertatzen ari zirela pentsatzen genuen. Horrenbestez, sail horri iradoki genion EUDELen bitartez udalei jakinarazi eta gogorarazteko zeintzuk izan behar ziren hotzaren katearen menpeko elikagaien kaleko salmenta bideratzeko baldintzak.

Azkenik, EUDELera jo genuen, jakinaraz ziezagun zeintzuk ziren elkarte honetako kideek egoera horiek saihesteko hartutako neurriak eta egindako ahaleginak.

## 11.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### A) Osasun laguntza

⇒ *Erreklamazioa aseguru pribatua duen erabiltzaile bati diru-kopuru zehatz bat ordaintzeko egindako jakinarazpenagatik* (678/2003)

• Erreklamazioa

Euskal osasun sistemaren pertsona erabiltzaile bati laguntza eman zioten Basurtuko ospitale zibilean, aseguru konpainia pribatu baten itunpeko klinika batek hara bidali zuelako. Behin alta hartu eta gero, ospitaleko dei bat jaso zuen, *Igualatorio*ko paperak, ospitaleratzea ordaintzeko kontzeptu legez, bidal zitzan. Horrela, interesatua ez zen bat etorri erabaki horrekin, bere iritziz, aseguru pribatua izateak aparteko kosturik ekarri behar ez zuelako, horrelakorik ez zuen baten aldean. Azkenean, ospitaleak jakinarazpen idatzi bat bidali zion, 1.753,20 euroko diru kopurua ordaintzeko eskatuz.

• Azterketa

Hona hemen azaldutako kasu hau ez da berria; izan ere, 1995eko txostenean antzeko bat jaso genuen.

Aztertutako aurrekariek adierazten dute kasu honetan, Osasunari buruzko Lege Orokorraren 83. artikuluan ezarritakoarekin bat, hirugarren erantzuleari zerbitzuen kostua erreklamatzeko eskubidea egon daitekeela, betiere erakunde pribatu batek aseguraturiko pertsona bati osasun laguntza eman bazaio.

Derrigorrezko aseguru pribatua ez denez gero, zalantzak egon litezke ea segurantza horrek ondareak ekarri behar ote zituen sistema publikoak konpainiari aseguratuaren laguntzaren kostua jasanaraz ziezaion. Edozein kasutan ere, ospitalea arauzko ezarpen horretatik haratago joan zen, gaixoa behartzen zuelako nahitaez ordaintzera.

• Emaitza

Kexa aztertu eta gero, Osakidetzara jo genuen interesatuari laguntzaren kostuaren ordainketa eskatzea bidegabea zela pentsatzeko genituen arrazoiak azaltzeko. Era berean, interesatuaren baimena izanik, Osakidetzari pertsona honen aseguru pribatuaren datuak eman genizkion, hala bazegokion, konpainia horri fakturaren ordainketa exijitzeko tramiteei ekin ziezaien, betiere interesatuari eskatu beharrean.

Osakidetzako zuzendari nagusiak jakinarazi zigun gure balorazioa bat zetorrela erakundearen irizpideekin eta ospitaleko gerentearengana berriro ere jo zuela seguru pribatuak dituzten erabiltzaileei zentro publikoen laguntzaren kostua jasanarazteko bidegabekeria gogorarazi nahian.

## B) **Erabiltzaileen eskubideak**

⇒ *Erabilgarri ez dauden edo prestazio publikoetan oraindik sartu ez diren tratamenduei buruzko informazioa. Saiakuntza klinikoko prozedura* (1216/2001)

• Erreklamazioa

Kexa honek mahaigaineratzen du laguntza bidezko ugalketako tratamenduak eskuratzearekin zerikusia duen gaia, betiere gizonezkoa giza inmunoeskasiaren birusaren eramailea (GIB) zen bikote baten kasuan.

Kexa aurkeztu zuen unean, Euskadiko osasun sistemak ez zuen laguntza bidezko ugalketarik eskaintzen halako kasuetan. 2002ko urtarrilean Osakidetzak eman eta guk interesatuei helarazi genien informazioak kasua sistema publikoaren osasun prestazioen testuinguruan kokatzen zuen, betiere horren burutzapena garatzen ari zen saiakuntza kliniko modura.

Iazko apirilean, Osasun Sailak baimendu zuen bikote honi autonomia erkidegoko ospitale pribatu batean laguntza ematea, bertan saiakuntza klinikoa egiten ari zirelako; horrela bada, baimen horretan baldintza modura destinoko zentroa baieztatzea ezarri zen, lekualdaketaren kostua bere gain hartuz.

• Azterketa

Printzipioz, bestelako daturik ez dagoen bitartean, baimen hori saiakuntza kliniko batean parte hartzeko izan behar zen; hortaz, ez zien kosturik ekarri behar horretan parte hartzen zutenei. Baina ez zen horrela gertatu, eta horrek pentsarazten digu handik urtebetera, 2003an, hazia garbitzeko erabilitako teknika ez zela saiakuntza kliniko bat izan, horrelako prozeduretan gertatu ohi denez bestaldera, prezio zehatz bat ordaintzea eskatu zelako.

Beste alde batetik, abenduaren 3ko 1.247/2002 Errege Dekretuak Kohesio Sanitarioaren Fondoaren kudeaketa arautzen du, espediente hau izapidetu bitartean onetsi zena; horrela bada, dekretu horrek ezartzen du konpentsaturiko jardueren artean GIB positiboa dutenen haziaren garbiketa dagoela laguntza bidezko ugalketen kasuetarako (I. eranskina, B idatz-zatia).

Erakunde honen iritziz, kexa hau sortarazi zuen asmoa berriro aztertzeko datuak egon litezke; horretarako oinarria Osasun Sailburuordearen 2002ko uztailaren 16ko

ebazpena izango litzakete, agiri horretan Euskadiko osasun sistematik kanpo osasun laguntza lortzeko jarduketa protokoloak egiteko irizpideak eta araubidea ezartzen delako; era berean, oinarria egon liteke Osasunaren Lurraldearteko Batzordeak laguntza bidezko ugalketari buruz 2002an egindako txostenean.

Edonola ere, zalantza horiek nahiko arrazoizkoak ziren eta kexaren tramitea onartu zen; izan ere, erabiltzaileek eskubide osoa dute osasun administrazioak prestazio sanitarioen edukiari buruzko informazioa eman diezaien.

• Emaitza

Osasun Sailak, Osasun Ministerioarekin kontsultatu ondoren, Arartekoren erakundeari jakinarazi zion interesatuak joan zireneko zentroan hazia garbitzeko teknika saiakuntza klinikoko araubidean aplikatzen ari zirela. Teknika horri zegokionez, artean ere ez zen oso-osoan baztertzen fetuaren kutsadura bertikala; horrek azaltzen zuen zergatik ez zen sartu osasun sistema publikoaren prestazioen artean.

Laguntza bidezko ugalketa gauzatzeko xedez, GIB positiboen haziaren garbiketa Kohesio Sanitarioaren Fondoak konpentsatu beharreko prozeduren artean sartzeari zegokionez, Osasun Sailak jakinarazi zigun jada amaitutako entseguetan eta martxan zeuden horietan emaitzak oso itxaropentsuak izan zirela; beraz, pentsa zitekeen teknika hori hurbileko etorkizunean sartuko zela osasun prestazioen artean.

Hala ere, artean ere ez zen argitu kexa honen alderdi bat: entsegu kliniko modura baimendutako tratamenduagatik eskatutako kontraprestazioa. Entseguak Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarritako baldintzekin bat etorriz egin behar direla kontuan hartuta, kexaren alderdi hau Estatuko Herri Defendatzaileari helarazi genion.

⇒ *Lekualdaketa gastuak: berdintasun printzipioa onuradunak zehaztean* (503/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona batek bere senarrari aldiro-aldiro laguntzen dio Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo osasun sorospena eman behar diotelako. Pertsona nagusia zen, osasun zentrora bere kabuz joateko orientazio arazoak zituena, eta txosten medikoak adierazten zuen bezala, zentrora lagunduta joan behar zuen nahitaez.

Hala eta guztiz ere, 4/2002 Jarraibideak, mantenu, ostatu eta lekualdaketetarako diru-laguntzak emateko irizpideak ezartzen dituenak, ez zuen egoera hori aurreikusten; horrenbestez, laguntza ekonomikoa jasotzeko egindako eskaera ukatu zioten.

• Azterketa

Aurreko egoeraren aldean, diru-laguntza hauek arautzea aurrerapauso handia izan zen, batez ere administrazioaren eta herritarren arteko harremanen segurtasun juridikoari laguntzen diolako eta harremanotan grazia ezin delako sartu.

Alabaina, berdintasun printzipioaren ikuspuntutik, behar beste arrazoi zegoen arauaren helburuaren arabera berdinak ziren egoerek erabilera desberdinak ekar zitzaketela pentsatzeko, jarraibideak halaxe ezartzen duelako, horretarako justifikaziorik gabe.

Jarraibide horrek bere kabuz joateko modurik ez zuen pertsona bati laguntzeko diru-laguntzak ezartzen zituen (arauaren helburua). Edonola ere, diru-laguntzak lortzeko

baldintzak ezartzean, adin txikitasunaren arabera aplikatzen zituen, edo adin nagusitasunaren arabera judizio bidez ezgaituta zeudenen kasuan.

Horren ondorioz, adinez nagusiak ziren eta zentrora beren kasa ezin joan zitezkeen pertsonak diru-laguntza horietatik baztertzen ziren, judizio bidez ezgaituta ez zeudelako. Kexa eragin zuen kasua horixe izan zen.

• Emaitza

Aurreko arrazoiak direla eta, erakunde honek uste du kexa honen azterketari ez zaiola heldu behar jarraibidea aplikatzeko berdintasunarekin zerikusia duen kasu baten modura, baizik eta jarraibidean bertan dagoen berdintasun kasu baten gisan.

Gure balorazioari emandako erantzunean, Osasun Sailak jakinarazi zigun jarraibidea berrikusteko eta berridazteko prozedura bati ekingo ziola; horrenbestez, arau hori 3/2003 Jarraibidearen bitartez aldarazia izan zen.

⇒ *Prestazio publikoen barruan erabilgarri ez dauden edo oraindik sartu ez diren tratamenduen gaineko informazioa* (655/2003)

• Erreklamazioa

Gaixo batek eskabide bat aurkeztu zuen zentro pribatu batean lagun ziezaiotela, sistema publikoko espezialista baten txosten klinikoaren diagnosian oinarrituz.

Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzak eskabidea aztertu zuen, baina adierazi zioten Gurutzeko Ospitalera jo behar zuela bere kasua berriro baloratzeko eta, balorazio hori oinarri hartuz, proposamen terapeutiko bat egin beharko zela.

• Azterketa

Berriki aurkeztutako beste kexa batek pertsona honi ukatu zitzaion tratamendu bera aipatzen zuen. Zirkunstantziak desberdinak izanagatik ere, bietan Osakidetzako sendagile espezialistak proposatu zuen kasua zentro pribatu berberera lekualdatzea tratamendu bera emateko; era berean, beste osasun sistema publiko batzuek lekualdatutako gaixoei buruzko dokumentazioa ere eman zen.

Arartekoren erakundeak kexa hau tramitera onartzeko izandako arrazoiak ondoko hauek izan ziren: a) gaixoak ez zuen zuzenean jo zentro pribatura, aldez aurretiko baimena eskatu gabe eta bigarren aukera baten proposamena agortu gabe; b) lehenago aipatu dugunaren antzeko kexa bat egotea; izan ere, kasu horretan ere sistema publikoko sendagile espezialistak txostenean zehaztu zuen gaixoak tratamendua behar zuela, eta, beraren iritziz, sistema publikoa ez zegoela hori emateko prestaturik; ondorioz, gaixoak joan beharra zeukan ebakuntza egiteko gai izango zen zentro pribatu batera.

Egoera errepikatzen zenez, aukera hauek gaixoari zekarzkioten zalantzak argitzeko neurriren bat hartzea garrantzi handikoa zen; zalantza horiek argitu behar ziren sendagile espezialistak proposaturiko tratamenduaren eraginkortasun edo ez-eraginkortasunean oinarrituz. Horrela, gure txosten eskaera 63/1995 Errege Dekretuan ezarritakoaren inguruan bilbatu zen; izan ere, dekretu horren xedapen gehigarriak ezartzen du teknika berriak edo diagnostiko nahiz terapia arloko prozedurak baloratu behar direla segurtasun eta eraginkortasunaren arabera.

• Emaitza

Osasun Sailak jakinarazi zigun zergatik uste zuen gaur egun ez zirela betetzen gorago aipatutako 63/1995 Errege Dekretuan ezarritako beharkizunak.

Era berean, jakinarazi zigun aurrerantzean zein neurri hartuko ziren, desegokitzat jotzen zen informazioak gaixoei sortarazitako egoerak eta arazoak zuzentzeko. Horretarako, txostenak aipatzen zuen Osakidetzari eskatu ziola bi ordezkari izendatzea, Osasun Sailaren eta erakunde horretan arteko talde misto batean parte hartzeko; horren helburua, beraz, egoerak eta arrazoiak aztertzea eta gaixoei sortarazitako arazoari amaiera emateko ekintza lerro eraginkorrak proposatzea izango zen.

⇒ *Ofizioz emandako alta medikoarekin bat ez etortzea* (867/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona batek kexa aurkeztu zuen sendagilearen alta ezeztatzeko egindako eskaerari gaitz iritzi ziotelako, ikuskapen mediko batean oinarrituz.

• Azterketa

Alta medikoa erabaki administratiboa da eta pertsona batek lanean hasteko gaitasuna duela adierazten du. Irizpide tekniko eta medikoetan oinarrituriko erabaki bat denez gero, Arartekoren erakundeak ez dauka balorazio juridikoen kasuan izaten diren adina irizpide.

Legeak ezartzen du ikuskapen medikoak alta erabakitzeko gaitasuna duela; hala ere, aldez aurretik zerbitzu medikoak kontsultatu behar ditu eta horiek erantzuna eman behar dute baxa baieztatuz edo sendagilearen altaren bitartez alta proposamena onartuz. Beraz, borondate administratiboa eratzeko faseak dituen erabakia da eta hori medikuntzakoa ez den perspektiba batetik ere azter daiteke; hortaz, behar bezala egiaztatzen bada, interesatuak, beharbada, ez dela erabaki arbitrarioa ulertuko du.

Tramiteak egiaztatu ahal izateko, gure kexa Osasun Sailari helarazi genion.

• Emaitza

Osasun Sailak igorritako informazioak iritzi sendoak eman zizkigun eta horrelaxe ondorioztatu ahal izan genuen kexa eragin zuen erabakia arrazoituta zegoela.

Guk informazioa eskuratzeko egindako eskaerari emandako erantzunean, Osasun Sailak zehaztu zigun interesatuak bere patologian argudiatutako larriagotzeak aztertzen ari zirela Osakidetzako sendagileak eta aurreikusitako proba berriek lagunduko zutela horiek argitzen; horrela, Gizarte Segurantzaren Nazio Institutuak ezgaitasun iraunkorraren maila aztertzeko aukera ere izango zuen.

Txostenaren amaieran zehazten da Osasuneko Lurralde Zuzendaritzak, proba diagnostikoak eta bilakaera klinikoa errazteko, ez zuela inolako trabarik jarri berriro ere baxa jakinarazpen gehiago emateko. Eta oheburuko sendagileari baimena eman zion baxa jakinarazpenak emateko, helburu berarekin.

Datu hauek nahikoak izan ziren gorago aipatutako ondoriora iristeko, alta medikoa arrazoituta zegoela, alegia. Beraz, interesatuari horren berri eman eta gero, gure zeregina amaitutzat eman genuen.

# 12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

## 12.1. SARRERA

2003an, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek Lan eta Gizarte Segurantza arloari buruzko 5 kexa jarri dituzte. Erreklamazio kopuru hori baloratzeko orduan, hasieran behintzat oso gutxi direla ematen duenez, kontuan hartu behar dugu euskal erakundeen lan eta gizarte segurantzan oso eskumen esparru txikia dutela, kexarik gehien sor lezakeen gaia, Gizarte Segurantza, Estatuaren eskumena baita.

Horregatik, gizarte segurantzaren alorreko auziak hizpide dituzten kexak Estatuko Arartekoari bidaltzen dizkiogu, parlamentuaren mandatari hori baita Estatuko Administrazio Orokorraren erakundeen jarduera aztertu behar duena.

Gainerako kexak, hau da, lan arloari buruzko berariazko arazoak aipatzen dituztenak, Arartekoak zuzenean aztertzen ditu, gure kontrol eginkizunak euskal erakunde publikoen jarduera eta ez-egiteen gainera proiektatzen baitira, eta, lehen ere esan dugun bezala, lan alorreko eskumenak, hemen behintzat, Autonomia Erkidegoari dagozkio.

Kexa guztietan gutxieneko berdin bat dagoen arren, hau da, lan alorreko esku hartze publikoaren inguruan sortzen diren arazoak diren arren, edukiz oso desberdinak izaten dira. Hartara, garraiolarien greba batean bitartekari egiteko eskaria, seme-alaba zaintzeko eszedentzia estaltzeko pertsona bat kontratatzeagatik lanaldia banatzearen ondoriozko laguntza ukatzea, edo Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, borondatezko gizarte prestazioko erakunde batek (BGAE), eragiketa gauzatzeko epeari jaramonik egin gabe, finkatutako eskubideak beste erakunde batera lekualdatu zituelako % 2ko komisioa epez kanpo kobratu ziolako herritar baten erreklamazioen aurrean ezer egin ez zuela, horrelakoak bezalako gai desberdinetako kexak izan dira. Azkeneko kexa horren azterketa xehatuagoa jaso dugu jarraian, arlo honetako aukeratutako kexen atalean.

## 12.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### C) Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

⇒ *BGAE: finkatutako eskubideen lekualdaketa, komisioak eta epeak* (1102/2002)

• Erreklamazioa

Herritar batek esku hartzeko eskatu zigun, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakunde batek (BGAE) finkatutako bere eskubideak beste erakunde batera aldatu zituelako % 2ko komisioa kobratu ziolako eta, gainera, aplikatzekoa den araudiaren arabera, eragiketa hori gauzatzeko zeukan 30 eguneko epea ere bete ez zuelako behin eta berriro kexatu zitzaion arren, erantzun ez ziolako.

• Azterketa

Justizia Sailak legez BGAEen kontrola esleituta daukala kontuan izanik, lehenik eta behin haiengan jo genuen, erreklamaziogilearen idatziei erantzuteko eskatzera.

Justizia Sailak erreklamaziogileari aitzakiekin erantzun zion, lekualdaketa egin osteko datako zirkular bat argitaratu zela esanez, non komisioak % 0,3ra mugatzen ziren eta, BGAEk, batzuetan, kontu horietan irregulartasunak egiten zituztela onartuz.

Sailak, legezkotasuna bermatzeko bere eginkizunari heldu barik, interesatuari emandako erantzunarekin ados ez geundenez, kasuari buruzko gure jarrera adierazteko idatzia bidali genion, epea bete ez zuen subjektu erantzulea nor zen argitu eta zehaztu behar zela azpimarratuz.

Justizia Sailak, gure idatzi horri, txosten batekin erantzun zion, non, inolako frogarik eman barik, atzerapenaren erantzulea erreklamaziogilea izan zela zioen, zeren *"2002ko martxoaren 1era arte Erakundea bazkidea eskatuz zihoan dokumentazio osagarria ematen aritu baitzitzaion"*. Gure iritziz, argudio horri eusterik ez zegoen batetik, erakundeak, lekualdaketaren eskaria aurkeztu ondoren, bazkidearekin izan zuen lehenengo kontaktua 22 egun beranduago izan zelako, aplikatuko zioten komisioa % 2koa zela esateko (ordura artekoaren bikoitza) eta, bestetik, interesatuari eman zioten dokumentazioa BGAEren Arautegia, Estatutuak eta lekualdaketengatiko komisioen % 1etik % 2rako igoera xedatu zuen Biltzar Orokorraren erabakia zirelako eta, horretarako, garbi dago ez direla bi hilabete baino gehiago behar.

Halako ingurumarietan, gomendio bat bidali genion Sailari, BGAEaren aurka urraketa larriarengatik zehapen espedientea abiaraz zezan gomendatuz.

• Emaitza

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gomendioa onartu zigun.

# 13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

## 13.1. SARRERA

Hirigintzako arloaren barruan, Arartekoak udalerrien antolamendu urbanistikoan, horren gestioan eta udalen hirigintzako diziplina zereginetan eragina duten erreklamazioak izapidetzen ditu. Beste alde batetik, administrazio publikoetan etxebizitzaren arloari men egiten dioten kexak ere sartu dira.

Aurreko urteetan bezala, etxebizitza duina lortzeko makina bat pertsonek duten arazoak sorrarazten duen gizarte ardura dela eta, arlo honetako jarduketa kopuruak gora egin du. Erakunde honek jasotako kexen zenbatekoa 143koa izan da, hau da, aurten aurrera atera diren zereginen % 13,41eko kopurua.

Ukituriko administrazioen arabera, kexak modu honetara sailka daitezke:

| | |
|---|---|
| - Tokiko administrazioa | 87 |
| - Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 61 |
| - Foru administrazioa | 3 |

Azpiarloak honako hauek dira:

| | |
|---|---|
| - Etxebizitza | 64 |
| - Hirigintza diziplina eta aurriak | 32 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 16 |
| - Antolamendu urbanistikoa | 12 |
| - Irisgarritasuna | 11 |
| - Kudeaketa urbanistikoa | 7 |
| - Bestelako alderdiak | 1 |

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik ere ez du hirigintzari buruzko marko arauemaile propiorik. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintza arautzeko legearen aurreproiektua aurkeztu du, baina orain arte ez zaie beharrezko tramiteei ekin, legebiltzarrean horri buruz eztabaida dadin.

Arau horrek lurraren planifikazio, garapen eta burutzapenean parte hartzen duten agenteen jarduketak argitu eta sinplifikatzera zuzendu beharreko marko urbanistikoa ezarri behar du. Azpimarragarriak diren alderdien artean, aurreproiektuak Valentziako ereduak sartutako burutzapen urbanistikoaren sistema jasotzen du, hau da, agente urbanizatzailearen figura, urbanizaturiko lursailak eraikitzeko eskumenak izango dituena. Aurreproiektu honetan lurraren ondare publikoei eusten zaie, lurraren merkatuan esku hartzeko mekanismo zehatz modura; era berean, babes ofizialeko etxebizitzetarako erabili beharreko lurraren erreserba ezartzen da, lurzoru ez finkatuaren kasuan handituz –% 35etik gora– eta bi kategoria berritarako lurzoruaren erreserbaren betebeharra sartuz: prezio tasatuaren araberako etxebizitza eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua.

Erakunde hau poztu egin da aurreproiektua aurkeztu delako, eta botere publikoei eskatu nahi die gure autonomia erkidegoari lurzoruari buruzko arautegi bat eman

diezaioten, behin legebiltzarrean egin beharreko tramite eta eztabaidak izan eta gero.

Lurzoruaren **antolamendu urbanistikoari dagokionez**, aurkeztutako kexek men egiten diete lur jabe batzuek dituzten desadostasunei, betiere bat ez datozelako antolamenduaren arauek euren lursailerako edo lursail mugakideetarako ezarritako sailkapenarekin edo erabilerarekin. Desadostasunak sortzen dira irabazizko aprobetxamendu urbanistikoa urria dela edo urbanizazio zamak handiak direla uste dutenean. Beste alde batetik, antolamendu berriak mugakideari ekar diezazkiokeen ondorioak aipatu ohi dira, lursail edo erakin partikular bati modu negatiboan eragiten, batez ere argien edo ikuspegien kasuan.

Toki administrazioek eskumenak dituzte udalerri baten antolamendu urbanistikoa ezartzeko. Planifikazio ahalmen hori bat etorri behar da herri interesa eta onura asebetetzeko arrazoi subjektiboekin eta horien arabera argudiatu behar da. Udalaren jarduna irregularra eta desegokia izango da, baldin eta antolamenduari buruzko erabakia legearen aurkakoa edo arbitrarioa -arrazoituriko justifikaziorik ez duen ildotik begiratutadela egiaztatzen bada.

Ahalmen hori egikaritzeko mugen artean ondoko hauek daude: beharrezko arautegian (urak, itsasertza, errepideak...) eta lurraldea antolatzeko xedapenetan (udalerriko antolamendurako lotesleak direnak) jasotako zehaztapen sektorialak.

Lurraren eta eraikinen erabileraren antolamenduak edo hirigintza plangintzen mugek eta betebeharrek ez dakarte ordaindu beharreko eskubide baten sorrera. Hirigintzako jarduketak –ezarritako antolamenduarekin bateragarriak ez direlako– lehendik dauden eskubide zibilak iraungitzen baditu, horiek konpentsatuak izango dira eremu horretako gestioaren unean. Hori guztia gorabehera, ikus dezakegu hainbat kasutan hirigintzari buruzko plangintzak onibar edo eraikin mugakideari ondorio negatiboak ekartzen dizkiola, eta, hala ere, ez zuela eskubide bakar bat ere urratzen: garapen urbanistikoaren ostean kalteturiko erakinak dira. Gai hori herritar batek mahaigaineratu zuen; izan ere, barne erreformarako plangintza berezi batean (BEPB) ezarritako eraikuntza baten ostean, interesatuaren etxebizitzak kanpora begira zituen ikuspegiak galduko zituen, zeren aurrean jarritako eremuan harresi bat eraikitzeko baitzegoen eta horrek etxebizitza lurperatu antzean utziko baitzuen. Horregatik, justizia materialaren printzipioa aintzakotzat hartuta, inplikaturiko administrazioari iradoki genion eragin negatibo hori konpentsatzeko moduko neurrien aplikazioak aztertzea, bai kudeaketa urbanistikoan bai ondare erantzukizunaren institutuaren bitartez, beharkizun guztiak betetzen baziren.

Kexa bat jartzeko behin eta berriro azaltzen den arrazoietariko bat informazio urbanistikoa ez bidaltzea izaten da, nahiz eta herritar partikularrek, auzokideen elkarteek edota bestelako kolektiboek horretarako eskaera beren beregi egin. Atzerapenak zailtasun teknikoengatik izaten dira edo langileen zailtasunegatik edo egindako eskabide kopuru handiagatik... Administrazio publikoek bereziki nabarmendu behar dute herritarrek edozein unetan prozeduraren tramitazioaren egoeraren berri izateko daukaten eskubidea, bai eta espedienteen zati diren erregistro eta dokumentuak ikusi ahal izateko eskubidea ere.

Udalerriaren hiri plangintza tramitatzeko prozesuan, behin amaitu eta gero, funtsezkoa izaten da udalek herritarren partaidetza sustatzea herria egiteko momentuan. Gardentasuna botere publikoen funtsezko helburua izan behar da erabaki urbanistikoak

hartzeko unean eta herritarren mesfidantza kentzeko balio izaten du. Hori dela eta, partaidetza egokia oztopatzen duten trabak kentzeko ahaleginak egin behar dira, herritarren banakako interesak eta interes kolektiboak agerian jartzeko aukerak emanez. Administrazioen esku dauden baliabideen artean lehentasuna –Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 47. artikuluak jasotzen duenaren arabera– eman behar zaie teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilerari eta aplikazioari. Interneten erabilera garrantzi handiko tresna izan daiteke herritarren partaidetza bermatzeko. Horretarako, herri bakoitzaren hirigintza plangintza gaurkotua eta garatua pertsonen esku egotea komeni da, Interneten bitartez.

**Kudeaketa urbanistikoari** dagokionez, kexen arrazoi nagusia ondoko hauxe izan ohi da: jarduketa urbanistiko batek ukituriko lur jabeek sentitzen duten kezka, horren ondorioz, ohiko bizilekua galtzen baldin badute eta bestelako etxebizitzarik ez badute.

Ezarritako antolamendua garatzeko, kasurik gehienetan beharrezkoa izaten da eraikina dagoen eremua gestionatzea; horrek gaur egungo arautegian ezarritako jarduketa sistemetariko bat erabiltzea dakar: konpentsazioa, kooperazioa edo lankidetza. Kasu guzti-guztietan konpentsazio bat ezarrita dago ukitutakoari kenduko zaizkion ondasun eta eskubideen truke. Arazoa sortzen da bizilekuaren ohiko egoiliarrek beste etxebizitza batean berriro bizitzen hasteko duten eskubideari dagokionez. Lurzoruaren araubideari eta hiri antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratuan indarrean jarraitzen duen laugarren xedapen gehigarriaren zatian (ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Errege Dekretua) etxebizitzak legez okupatzen dituztenek berriro ere ostatu hartzeko duten eskubidea bermatzen da, baldin eta, jarduketa urbanistiko baten ondorioz, ohiko bizilekua utzi behar badute desjabetzeen kasuan.

Edozein kasutan ere, erakunde honek uste du jarduketa urbanistikoan bat etorri behar dutela hirigintza planen kudeaketak eta etxebizitza duin eta egoki baterako herritarren eskubideak. Hori guztiori dela eta, botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar izango dituzte legezko egoiliarrek berriro ostatu har dezaten, aukeratutako sistema edozein izanagatik ere.

Beste ekitaldi batzuetan bezala, **hirigintzako diziplina** izan da erakunde honi esku-hartze eskabiderik gehien eragin diona. Oro har, kexek administrazio eskudunak esku hartu ez izana planteatzen dute, batez ere udalen kasuan eta bereziki lurzoruari emandako erabileren kasuan; era berean, obrak beharrezko lizentzia barik burutzea salatu ohi da edo emandako obra lizentziatik haratago.

Nabarmendu beharra dago egindako lan edo esku-hartzeek arautegi sektoriala betetzeko betebeharra dakartela; esan nahi baita, egiaztatu beharra dago, besteak beste, eraikinaren segurtasuna edo suteak aurrezaintzeko arautegia betetzen den ala ez.

Beste kasu batzuetan, kezkak azaltzen dira pertsona baten jabetzako etxebizitza hirigintza plangintzatik kanpo geratzen delako. Eraikinak hirigintza plangintzatik kanpoko erregimenaren kasuan, plangintza horren aurretiko eraikinak ez datoz bat plan horretan ezarritako antolamenduarekin. Esan nahi baita, Udalak lurraren antolamendu zehatz bat onetsi du eta horren gainean eraikin bat dago, baina plangintza hori ez dator bat eraikinaren existentzia osoarekin edo horren zati batekin. Egoera hori gerta dadin, hirigintza plangintzari buruzko plana onetsi behar da, betiere legeriak

ezarritako izapide eta prozeduren arabera; horien artean, alegazioen tramitea zabaltzea dago, bai eta plangintzaren onespena beharrezko aldizkari ofizialean argitaratzeko betebeharra ere. Eraikina plangintzatik kanpoko erregimenean geratzeak jabetzari hainbat muga dakarzkio eraikinaren egoerari dagokionez; izan ere, horren ondorioz ezin da eraikina finkatzeko obrarik egin, apaindura, higiene edo zaintze lanen kasuan izan ezik.

Halaber, ohikoa izaten da buruturiko obrak ez direla antolamendu urbanistikoaren arabera egokitzen planteatzea, mugakideen jabetza eskubidearen aurkakoak direlako. Diziplina urbanistikoari buruzko eskumenei dagokienez, toki administrazioek esku har dezakete horiek legeria urbanistikoari egokitzen zaizkiola egokitzeko; aitzitik, ezin dute izaera pribatuko alderdiei buruzko jarduketarik bideratu.

Beste alde batetik, erakunde honek irisgarritasuna edo sarbideragarritasuna sustatzeko egin dituen jarduketei dagokienez, esan beharra dago ezgaitasuna duten pertsonen arazo zehatza laguntzeko atalean zehaztutako jarduketei lotzen gatzaizkiela.

Arlo honen bigarren atalean, **etxebizitzari buruzkoan**, Arartekoak esku hartzeko eskabide kopurua handitu dela ikusi dugu. Herritarrek eta, batik bat, gure erkidegoko gazteek kezkatu eta arduratzeko duten arrazoi nagusienetariko bat izaten da nola lortu etxebizitza duin eta egokia. Alde batetik, higiezinen merkatuak ez duelako ekoizten pertsonek eskuratzeko moduko salmenta edo alokairu preziorik eta, beste aldetik, salmenta edo errenta prezio eskuragarrietan eskaintzen diren babeseko etxebizitzak nahikoak ez direlako. Azken urteetan, egoera hori konpondu beharrean, okertzen ari dela ikusi dugu, etxebizitza libreen prezioak gora egin duelako modu esponentzialean. Prezioz babesturiko etxebizitzen eraikuntza gehitzearen ondorioz, merkatu libreak zehaztutako baldintzetan etxebizitza lortzeko aukerarik ez zutenen premiak asetzeko asmoa egon da. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak emandako datuekin bat etorriz, autonomia erkidegoan 2002ko ekitaldian babeseko 5.041 etxebizitza egin ziren -guztira egindako etxebizitza guztien % 34-, eta kopuru hori garrantzitsutzat hartu behar da estatuari batez beste dagokion % 7,7rekin alderatzen badugu. Edozein kasutan ere, Etxebiden izena eman duten etxebizitza eskatzaileen zenbatekoa, 2002ko abenduaren 31n, 82.681 pertsonakoa zen. Hau da, une horretan inskribatuta zeuden eta etxebizitza libreak eskuratzeko modurik ez zuten eskatzaileen eskariaren % 10 baino gutxiago betetzen zen.

Ararteko erakundeak kezkaz ikusi du fenomeno hori. Etxebizitzaren arazoaren azken emaitzan parte hartzen duten arrazoi eta agenteen konplexutasunak izugarri zailtzen du irtenbideak topatzea edo gutxienez merkatua egonkortzeko edo pertsona guztiek etxebizitza egokia eskuratzea bermatzeko proposamenak bilatzea. Prezioen gehikuntza faktore ekonomikoen garrantzia alde batera utzi gabe (hipoteka merkatua, etxebizitzan inbertitzea finantza aktibo modura), administrazio publikoen jarduketa eremuan benetako betebehar konstituzionala dago, eskubide hori berme dadin. Hori guztiori dela eta, etxebizitza duin bat lortzeari dagozkion arazoak edo euskal administrazio publikoek etxebizitzaren inguruan jarraitu dituzten politiken garapena Ararteko erakundearen kezka eta jarduketa iturririk nagusienetariko bat dira. 2003an herri defendatzaileek Gaztela-Mantxan izandako koordinazio jardunaldietan hausnarketa egin genuen etxebizitza duin bat eskuratzeak biztanleriaren sektore askori dakarzkion azaro larriaren inguruan. Horrela, jardunaldiotan botere publikoei zuzendutako proposamen eta gomendioak egin genituen,

alde batetik, lurzoruaren merkatuan esku har dezaten, eta, bestetik, alokairuko etxebizitza eta babesekoa susta dezaten.

Etxebizitzaren arloarekin zerikusia duten eta erakunde honen esku-hartzea eragin duten gaiak hainbat alderdiren inguruan biltzen dira.

Gorago esan dugun bezala, eskaintzen den babes ofizialeko etxebizitza kopurua askoz ere txikiagoa da eskatzen dena baino. Etxebizitzak adjudikatzeko formula bat ezartzeko, euskal administrazio publikoek hainbat baldintza ekonomiko eta etxebizitza premiaren beharkizuna betetzen dituzten eskatzaileen arteko zozketa aukeratu dute. Kexen arrazoi nagusietariko batek men egiten die babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko irizpideei. Arautegiak etxebizitzen eskatzaileak egon daitezkeen zirkunstantzia guztiak ezartzea ezinezkoa denez, (horretara jo behar duen arren), hainbat egoera zehatzetan arauzko erantzuna ez da egokia edo bidezkoa.

Arazo zehatzen kasuan, etxebizitza lortzeko zailtasun gehigarriak dituzten kolektibo batzuen egoera aipatu beharra dago. Gizarte bazterketako egoera edo arriskuan dauden pertsonak kinka larriagoan daude, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko gutxieneko diru-sarrerarik ez dutelako, nahiz eta bizileku duinerako beharrizanik gehien dutenak eurak izan. Administrazioek arazo hau konpondu nahi dute, premia handiko egoeretan izanda ere, etxebizitza parke bat sortuz. Edozein kasutan ere, neurri hori behin-behinean eskaintzen da eta epe mugatu baterako, aukera hori ematen duten etxebizitza eta udalerriak oso urria delako. Udalek etxebizitza duina eskuratzeko aukera bermatzeko baliabideak jarri behar dituzte premia handiko kasuetan eta kolektibo ahulen kasuan, hala nola gazte, kide bakarreko familia, oinarrizko errentaren edo gizarte premia handiko laguntzaren jasotzaile edo pertsona atzerritarren kasuan. Horrela bada, atzerritarrek etxe egoki bat aurkitzeko izaten dituzten arazoak nabarmendu behar dira, bai salmentaren edo errentaren prezio handiagatik bai, atzerritarrak izanik, jabeek alokairua ukatzen dietelako. Azken kasu honetan, administrazioak jardun xenofoboak saihesteko bermatzailea izan behar du eta infraetxebizitza edo azpierrentamenduen ondorioz sortutako egoeretarako bidea eragotzi.

Arartekoari kexa kopuru handia ekarri dion beste gai bat da babeseko hainbat etxebizitzatan izaten diren akatsak. Eraikuntza kalitatea duten etxebizitza duinak eskaintzeko aginduek administrazio publikoen jarduketa gidatu behar dute, eurak baitira eraikinen kontrola eraman behar dutenak, batez ere babesturiko etxebizitzena. Horretarako, bada, kontrol eta ikuskapen mekanismoak erabili behar dira, etxebizitzak eraikuntza eta diseinu arauei lotzen zaizkiela egiaztatzeko eta, ez betetzea egonez gero, akatsen konponbiderako bermeak ezartzeko, betiere antolamenduak administrazio egintzen derrigorrezko betearazpena bermatzeko ezartzen dituen lanabes juridikoen bitartez: isun hertsatzaileak eta betearazpen subsidiarioa.

Edozein kasutan ere, EAEn faltan igartzen da babes ofizialeko etxebizitzen erregulazio askotarikoa bateratu eta gaurkotzeko arauzko testu zehatz bat. Etxebizitzari buruzko 2002-2005 plan zuzentzaileak etxebizitza babestuen markoa egokitzea eta arautzea aurreikusten du, baina orain arte hori guztia ez da ezer gauzatu.

Azkenik, erakundeak aurreikusita dauka 2004an aparteko txosten bat egitea gazteriaren egoerari heltzeko, betiere gazteek lehenengo etxebizitza duin eta egokia lortzeko dituzten zailtasunei dagokienez.

## 13.2. **AUKERATUTAKO KEXAK ETA OFIZIOZKO JARDUERAK**

### A) **Irisgarritasuna**

⇒ *Zinema gelen banaketari buruzko azterlan zehatz baten premia, mugikortasun urriko pertsonek eskatuta* (392/2002)

• Erreklamazioa

Erakunde honetan hainbat kexa jaso ziren, batzuk banakoenak eta besteak kolektiboak, Vitoria-Gasteizen zabaldutako zinema gela berrietan pertsona ezgaituek sartzeko aurkitu zituzten arazoak salatuz.

Urritasun fisikoa duten pertsonei gordetako leku guzti-guztiak aurreneko lerroan baino ez daude; gainera, plazak harmailetan banatuta daude eta horrek ageriko moduan oztopatu eta zailtzen du zinera doazen eta mugikortasun urria duten pertsonen sarbideragarritasuna.

Pantailen neurriak ikusita, lehenengo lerrotik dagoen ikusmena oso deserosoa da samaren jarrera dela eta -gurpil aulkiek ez dute buru-euskarririk-, pantaila buruaren altuera baino askoz garaiago baitago. Gainera, tokia hain aurrean dagoenez gero, irudia ezin da behar den bezala ikusi.

Hori guztiori dela eta, euren iritziz, berdintasun eskubidea urratzen da, pertsona ezgaituak ez baitaude gainerako pertsonen parean eta ezin baitute askatasunez aukeratu zein izango den gelan izango duten kokapena.

• Azterketa

Erakunde honetan hasitako kexa espedienteei bide emateko, lehenengo eta behin Vitoria-Gasteizko Udalera jo genuen, Sidenorren kokatuko den merkataritza zentro berrian egiten ari diren zine geletan pertsona ezgaituentzat gordetako lekuei buruzko aurreikuspenen inguruko argibideak eskatzeko.

Eskaera honi erantzunez, toki erakunde horrek jakinarazi zigun, jakina denez, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinaren 6. artikuluan ezarritako irizpideak aplikatzen direla; izan ere, dekretu horretan hiri inguru, gune publiko, eraikin eta informazio zein komunikazio sistemetarako sarbideragarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dira.

Egia esan, manu horrek erreserba kopurua ezartzen du, bai eta kokapena ere. Azken kokapen hori proiektuaren teknikariak zehaztu behar du arautegiak ezarritako irizpideei jarraituz; irizpide horiek soil-soilik aipatzen dute gorde beharreko toki horiek sarbide eta pasaguneetatik hurren egon behar dutela.

Udaleko Herri Bidearen Zerbitzuak jakinarazi zigun hirian eraikitako azken zinema gelei zegozkien sarbideragarritasunei buruzko txostenek adierazten zutela horiek guztiak indarreko legeriari egokitzen zitzaizkiola, hau da, sarbideragarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeari eta apirilaren 1ko 68/2000 Dekretuari; beraz, zerbitzu horren ustez, ezinezkoa zen proiektuari teknikariari lokalean banatutariko erreserba plazak kokatzeko agindu, horrek indarreko arautegiaren agintea gainditzen zuelako. Edozein kasutan, proposaturiko iradokizunak kontuan hartzeko aldez aurreko joera kontuan hartuta, aipatutako zerbitzu horrek sustatzaile eta proiektu-egileari iradoki

ziezaiekeela gordetako lekuak banatzea komenigarria zela, baldin eta banaketa horrek ez bazekarren beste arautegi sektorial mota bat ez betetzea edo toki horiek sarbide edo pasabideetatik kanpo kokatzea.

• Emaitza

Espedientearen tramitazioan leku honetara iritsita, Arartekoak egokitzat jo zuen Vitoria-Gasteizko pertsona ezgaituen kolektiboaren zati handi batek planteaturiko arazoa Sarbideragarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari jakinaraztea, bai eta banakako pertsonek bidalitako erreklamazioak nahiz gure bulegoan gai honen inguruan jasotako kontsulta ugariak ere.

Egia da honako hau ez dela indarreko legeriaren ez betetze kasu bat, baina uste dugu 'guztiontzako diseinua' izeneko printzipioa ezinbesteko faktorea izan behar dela pertsona ezgaituen kasuan aukera berdintasuna errealitate bihurtzeko. Hori dela eta, kolektibo honek aldarrikatzen duen bezala, gure aburuz, beharrezkoa da gai honen inguruko hausnarketa eta azterlan zehatz bat egitea, betiere erreserbaturiko jesarlekuak lokalean banatzea posible den ala ez jakiteko, horiek guztiak harmailen gaur egungo diseinuen moldaketa edo berregituraketen bitartez lehenengo lerroan jartzea saihestuz.

⇒ *Oztopo arkitektonikoak Bigarren Hezkuntzako institutu batean* (733/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona ezgaitu batek gure esku-hartzea eskatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean, zeren, adierazi zuenaren arabera, sail horretara hainbat kasutan jo baitzuen 1992tik aurrera administrari laguntzaile modura lan egiten zuen bigarren hezkuntzako institutuko oztopo arkitektonikoak kentzeko eskatuz; hala ere, eskaera horiei emandako erantzunak ondokoak izan ziren:

- *"Ikasle ezgaiturik balego, beharrezko obrak egingo lirateke.*
- *Ez dago aurrekonturik.*
- *Bestelako lehentasunak daude."*

• Azterketa

Horren ondorioz, sail horri eskatu genion zentroaren irisgarritasuna bermatzeko obrak egiteko aukerei buruzko argibideak emateko.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi zigun beharrezko txostena eskatua zuela eta gutxi barru emango ziotela. Era berean, adierazi zigun obra kontratatzeko prozesua premia handiko espediente modura tramitatuko zela; horren kariaz, espero zuen 2004ko ekainean beharrezko obrei ekitea oztopo arkitektoniko horiek kentzeko.

• Emaitza

Kexaren gaia zen arazoa gutxi barru konponduko zelakoan, pertsona interesatuari adierazi genion gure esku-hartzea amaitutzat eman behar genuela, bestelako gestioen kalterik gabe, baldin eta horiek beharrezkoak baziren.

## B) **Oinarrizko eskubideak**

⇒ *Alokairuko etxebizitza-poltsaren funtzionamendua eta atzerritar guztienganako tratu diskriminatzailea* (13/2003OF)

• Erreklamazioa

Prentsan hainbat informazio agertu dira eta horien arabera pertsona batzuek euren etxebizitzen errentamendua baldintzatzen dute hartzaileak atzerritarrak izan ez daitezen; hori ikusita, bada, Arartekoak ofizioz ekin zion Vitoria-Gasteizko Udaleko alokairu etxebizitzen poltsaren funtzionamenduari buruzko ikerketari, atzerritarrenganako balizko tratu diskriminatzailea dela eta.

• Azterketa

Hainbat argibide jaso eta etxebizitzen udal bulegoa kudeatzen duen fundazioak egindako txostena aztertu zen, bai eta jarduerari buruzko memoria ere. Txostenean argi eta garbi azaltzen da ez dagoela beto arrazistaren aukerarik batere, emandako datuek erakusten duten bezala –etxebizitzen eskatzaile atzerritarrak % 25 dira eta % 30 horiei alokaturiko pisuak–.

Jasotako informazioa aztertzean, egiaztatu ahal izan zen eskaintzaile eta eskatzaileak harremanetan jartzeko prozesuan kontuan hartzen direla eskaintzaileen lehentasunak. Ildo honetan, gerta zitekeen jaberen batek etxebizitza pertsona edo kolektibo jakin bati alokatzeko errezeloa azaldu izana.

• Emaitza

Esan beharra dago etxebizitzen poltsa kudeatzen duen fundazioaren zeregin sistematikoak emaitzak ekarri dituela jabeen aurreiritziei aurre egiteko orduan, betiere alokairuko etxebizitzak behar dituzten atzerritarren kolektiboari dagokionez.

Udalak portaera xenofoboen aurka jarduten zuelako duda izpirik ere egon ez zedin, Vitoria-Gasteizko Udalari eskatu genion, jaberen batek atzerritar bati etxebizitza alokatzeko errezelorik edukiz gero, beraren etxebizitza eskaintzaileen poltsatik kentzeko.

## C) **Hirigintza diziplina eta aurriak**

⇒ *Igogailua instalatzeko obra-lizentzia suteak aurrejagoteko arautegiaren aurkakoa zen* (1176/2002)

• Erreklamazioa

Auzotar batek Bermeoko Udalaren kontzesio bat salatu zuen, etxean igogailu bat instalatzeko obra lizentzia eman zuelako. Horrela adierazi zuen, aurreikusitako obren ondorioz, etxebizitzetara sartzeko eskailera gehiegi murrizten zela, auzokideentzat ez-erabilgarri bihurtuz.

• Azterketa

Etxearen jabeen komunitateak obra lizentzia bat eskatu zuen igogailu bat instalatzeko, hainbat puntutan 76,25 cm-ra murrizten zen eskaileraren zabalera jasotzen zuen proiektu baten arabera.

Proiektu horren tramitazioan, udal arkitektoak adierazi zuen proiektuak ez zituela betetzen suteak aurrezaintzeko arautegian ezarritako manuak, ez eta urriaren 4ko 2.177/1996 Errege Dekretuak ezarritako eraikuntza arauak ere; azken dekretu horren bitartez, NBE-CPI/96 eraikintzako oinarrizko araua onesten da eta horrek eraikinei ezartzen die eskaileren eta korridoreen zabalera erabilgarririk txikiena: metro batekoa eta zenbait kasutan 90 cm-ra iritsi daitekeena. Era berean, udal idazkariak uste izan zuen erabaki hori legearen kontrakoa zela, arrazoi berberagatik.

Hori guztia gorabehera, Bermeoko Udaleko Gobernu Batzordeak obra lizentzia eman zuen, txostenak kontuan hartu barik.

Egia esan, aurkeztutako proiektu teknikoak ez zituen NBE-CPI/96 arauan ezarritakoak betetzen; arau horrek, gainera, ondoko hau adierazten du: "ebakuazio ibilbide modura ezarritako eskaileren eta korridoreen zabalera 1,00 metroren berdina edo handiagoa izango da". Sustapen Ministerioaren Etxebizitza, Arkitektura eta Hirigintza Zuzendaritza Nagusiak onartzen du igogailu bat eskaileran instalatzearen ondorioz oinarrizko arauak ezartzen duen gutxieneko zabalera %10 murritz daitekeela, betiere igogailuaren instalazioak erantzuten badio oztopo arkitektonikoen indarreko arautegiaren araberako eraikinaren egokitzapenari eta eskaileraren segurtasunaren baldintzak konpentsatzeko neurriak proposatzen badira, esate baterako suitzalgailuak, larrialdietarako argiak edo bestelakoak.

Edozein kasuetan ere, proiektuan ezarritako neurriak -0,76 metro- txikiegiak dira eta, inolako ezbairik gabe, ez dituzten betetzen NBE-CPI/96 arauaren ezarpenak.

Beste alde batetik, Bermeoko Arau Subsidiarioetan -baldintza tekniko eta osasunekoetan- jasotzen ziren eskaileren zabaleraren gutxieneko neurriak: guztira 1,10 metrokoak, hain zuzen ere.

Arartekoak lehentasunezkotzat jotzen du eraikinetan dauden eta mugikortasun urriko pertsonen sarbidea eragozten duten hirigintza eta arkitektura oztopoak kentzea. Hala eta guztiz ere, hori guztiori egin behar da eraikinen segurtasunari eta suteak aurrezaintzeari buruzko arautegiak betez.

Iritzi hauek ikusi eta obra lizentziaren tramitazioan txosten tekniko eta juridikoetan zehazten zenez, Arartekoak ondorioztatu zuen Bermeoko Udalak ez ziola lizentziarik eman behar izan aurkezturiko proiektuari; hori dela eta, gomendio bat bidali zuen igogailua instalatzeko lizentzia obra berrikustea eskatuz.

• Emaitza

Bermeoko Udalak, udal txosten teknikoetan oinarrituz eta Arartekoaren gomendioa betez, lizentzia ofizioz berrikustea onartu zuen, zuzenbidearen kontrakoa eta baliogabea zela ulertzen zuelako.

Guztiarekin ere, berrikuspena tramitera onartu zenean –Estatu Kontseiluak irizpena emateko zegoela–, Udalak egokitzat jo zuen jabeen komunitatearen errekurtso bat onartzea eta lizentziaren ofiziozko berrikuspena indar barik utzi zuen. Horretarako ez zuen kontuan hartu Estatu Kontseiluaren irizpena -ez zela beharrezkoa uste zuelako- eta aintzat hartu zuen Udalak kanpoan eskatutako txosten juridiko bat. Gauzak horrela,

Bermeoko Udalak iritzia aldatu zuen 30/1992 Legearen 102. artikuluan ezarritako prozedura alde batera utziz; esan nahi baita, ez zuen kontuan hartu Estatu Kontseiluaren txosten lotesle eta aginduzkoa eta berraztertze errekurtso bat onartu zuen ofiziozko berrikuspena onartzeko tramitean.

Gaiaren mamiari dagokionez, txosten juridikoan zehazten zen aldez aurretik existitzen ziren eraikinen kasuan ez zela aplikagarria NBE-CPI/96 araua eta korridoreen zabalera metro batetik 76,25 zentimetrora murriztea proportziozkoa zela etxe horretan bizi ziren pertsonen sarbideragarritasuna bermatzeko helburua aintzat hartuta. Hori guztia gorabehera, aitortzen zen obra lizentzia Bermeoko Arau Subsidiarioen baldintza tekniko eta osasunekoen kontrakoa zela; izan ere, horrek ezartzen du eraikuntza proiektuetan gutxienez bete behar direla eskaileren 1,10 metroko gutxieneko zabaleren neurriak.

Txostenean justifikazio modura aipatutako proportzionaltasun printzipioa ez da mugagabea eta muga bat existitu behar da horren aplikazioan eskaileren zabaleraren % 25eko murrizketa saihesteko; izan ere, neurri horietan pertsonen mugikortasuna oso mugatuta dago, batez ere larrialdietan.

Edozein kasutan ere, Arartekoak uste izan zuen ohar horiek ez zirela une egokian egin eta ez zirela nahiko lizentziaren berrikuspena indarrik gabe uzteko.

Bermeoko Udalak jarraitutako azken jarduketak ikusita, Arartekoak pentsatu zuen erabaki horren bitartez ez zela onartu erakunde honen gomendioa.

### ⇒ *Etxebizitza lizentzia ukatzea inguruaren kontrakoa zelako* (549/2003)

• Erreklamazioa

Pertsona batek salatu zuen Amurrioko Udalak udalerriko auzo batean etxebizitza bat eraikitzeko lizentzia eskaerari erantzun ez izana. Udal arkitekto aholkulariak eskaera lizentzia horren kontrako txostena egin zuen; izan ere, beraren iritziz, aurreikusitako eraikina ez zen egokia landa ingurune horretan, betiere hurreneko inguruko eraikinekin eta, oro har, herri txikietako tradiziozko eraikuntza tipologiarekin alderatuz gero. Aurkeztutako eraikuntza proiektuak sotoa eta beheko solairua zituen eragin arrazionalistako eraikin bat planteatzen zuen, fatxadako estaldura nagusiak egur eta beirazkoak izanik.

• Azterketa

Gaia aztertu eta gero. erakunde honek egiaztatu ahal izan zuen Amurrioko arau subsidiarioek ez dutela baldintza estetikorik aipatzen eraikuntza egiteko asmoa dagoen auzoaren hiri lurrean. Hori guztia dela eta, Arartekoak argibideak eskatu zizkion Udalari.

Udal arkitektoaren ustez, erreklamazio-egileak hainbat aldarazpen egin behar zituen aurkezturiko eraikuntza proiektuan, onetsi ahal izateko. Udal txostenean jasotako ezarpen juridiko eta teknikoen artean, arkitektoak Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 73.1.a) artikulua aipatzen zuen -apirilaren 9ko 1.346/1975 Errege Dekretuak onetsia-. Zuzeneko aplikazio arau horren bitartez, eraikuntzak oinarri-oinarrian egokitu behar dira kokatuta dauden ingurunearen arabera. Beraren ustez, lursaila tradiziozko landa ingurune batean kokatuta zegoen, baldin eta eraikitako ingurua eta nekazaritza nahiz abeltzaintzako erabilera kontuan

hartzen baziren. Edonola ere, arkitektoak aitortzen zuen Amurrioko hirigintza plangintzak ez zuela ezelako baldintza estetikorik ezartzen auzo horren hiri lurraren kasuan.

Lurzoruari buruzko Legeak eraikinak ingurunearen arabera moldatzeko jasotako legezko agindu horrek printzipio konstituzionalak babestu nahi ditu, esate baterako ingurumen egokirako eskubidea edo ondare historiko, kultural eta artistikoa babestu eta sustatzeko eskubidea. Manu hori aplikatu ahal izateko, justifikatu beharra dago eraikinak ez zaizkiola ingurumenari egokitzen hurreneko tokietan edo eraikinak izaera historiko, arkeologiko, tipiko eta tradizional baten taldearen zatiak direnean edo horien artean garrantzi edo kalitate handiko bat dagoenean.

Nolanahi ere, arau horren aplikazioak ez da inola ere udal administrazioak bere gain har dezakeen gai subjektiboa. Ahalmen teknikoak ezagutza espezializatu eta zehatzen ondoriozko irizpideen aplikazioa dakar eta administrazioaren irizpidea errekurtso-egilearen iritzi subjektiboan oinarrituriko beste baten ordez aldatzea galarazten du. Guztiarekin ere, erabakitzeko ahalmen hori berrikusteko modukoa da hartutako irizpidea justifikatzeko erarik ez badago.

Beste alde batetik, testu konstituzionalaren 9.3. artikuluak bermatzen duen segurtasun juridikoaren ikuspuntutik, udalerriko eraikuntza elementu zehatzen multzo bat zaintzeko udal borondatea, batez be landa guneetan, Udalaren eskumenak diren hirigintza plangintza eta antolamenduaren mekanismoen bitartez gauzatu behar da; izan ere, zuzeneko aplikazio arauen jatorria ondare historiko eta kulturala edo ingurumen balioa babesteko hirigintza antolamenduaren gabezia besterik ez da.

Beste gai batera pasatuz, Udalak jagon nahi dituen balioen babesak errespetatu behar du konstituzioaren 33. artikuluaren jabetza eskubideari dagokion eraikuntzaren legezko ahalmenen jarduna, baldin eta hirigintza plangintzaren zehaztapenei lotzen bazaie.

• Emaitza

Argudio horiek aztertuta, Arartekoaren ustez, eraikinen ingurunearen araberako egokitzapena eskatzen duen manuaren aplikazioa ez zegoen justifikatuta espedientearen txostenetan, baldin eta parametro eta arrazoi objektiboak kontuan hartzen baziren. Administrazio egintzen arrazoiketa falta horrek Lurzoruari buruzko 1976ko Legearen 73. artikulura jotzea eragozten zuen. Horregatik, Amurrioko Udalari gomendatu genion bizitza bakarreko etxea eraikitzeko hirigintza lizentzia arau subsidiarioetan ezarritako baldintzen arabera baino ez litzateke eman beharko.

Gomendio hori betetzeko, Udalak jakinarazi zigun lizentzia eman zuela aurkeztutako proiektuaren arabera.

## D) **Hirigintza antolamendua**

⇒ *Lurzoru urbanizaezinean etxebizitza bat eraikitzeko aukera* (1230/2002)

• Erreklamazioa

Auzokide batek Bizkaiko udal baten jarduna kolokan jarri zuen lurzoru urbanizaezinean bizitza bateko etxe bat eraikitzeko aukera ukatu ziolako. Kexaren bultzatzailea izeiak landatu eta saltzera zuzendutako finka baten jabea zen eta Udalari

galdetu zion ea finka horretan bizitza bateko etxea egin zezakeen. Udalak erantzun zion lurzoru urbanizaezinean etxeak soil-soilik egin daitezkeela nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen bati lotuta.

• Azterketa

Egia esan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko artezpideek, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak onetsitakoek, ondoko hau ezartzen dute hirigintza plangintzarako loteslea den zehaztapen batean: bizitza bateko edo biko etxea lurzoru urbanizaezinean debekatzea, baldin eta nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapen bati lotuta ez badago. Edonola ere, 10. artikuluak salbuespen bat ezartzen du nekazaritza edo abeltzaintzako baliabideen ustiapenaren lotura sinesgarritasunez frogatzen bada.

Halaber, Eusko Legebiltzarraren 5/1998 Legearen 1.2. artikuluak zehazten du babesturiko lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizaezin arruntean debekatuta daudela nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapen bati lotuta ez dauden eta etxebizitzetarako erabili nahi diren eraikin berriak eregitea.

Udalerriaren eta gainerakoen arau subsidiarioak beharkizun horretara egokitu behar dira; izan ere, lurraldea antolatzeko jarraibideak eta hirigintzari buruzko legeria bete beharrekoak dira eta bestelako hirigintza zirkunstantzia batzuk jaso behar dituzte, hala nola eraikuntzaren tipologia edo izan beharreko lursailik txikiena.

Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera eraikinari lotuta eta egokituta dagoela egiaztatzeko modua ondokoaren arabera egiten da: Hirigintza Kudeaketari buruzko Arautegiaren 44.2. artikuluak ezarritako prozeduraren arabera, alegia. Ustiapen bati lortutako eraikin bat egiteko baimena Udalari eskatu behar zaio eta horren inguruko ebazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Sailak ematen du.

Proposaturiko eraikina ustiapenaren titularrari lotuta eta nekazaritako jardueraren arabera egokituta dagoelako egiaztapena ematen da nekazaritzako ustiapenak gaurkotzeko 19/1995 Estatuaren Legeak ezarritako parametroekin bat etorriz. Orobat, Eusko Jaurlaritzaren 168/1997 Dekretuak ezartzen du zeintzuk diren lehentasunezko nekazaritza ustiapenek behar dituzten eta Bizkaiko Nekazaritza Ustiapenen Erregistroan inskribatuta egon behar diren landaketa unitaterik txikienak.

• Emaitza

Etxebizitza justifikatuta dagoen ala ez baloratu ahal izateko, nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera aurreko arautegian ezarritako beharkizunak bete behar ditu ezinbestean. Erreklamazio-egileari argibide hauek emanda, gai honetan izandako esku-hartzea bertan behera utzi genuen.

⇒ *Gasolindegi bat lekualdatzeko hirigintza hitzarmena eta hirugarren bati ekarritako ondorioak* (622/2003)

• Erreklamazioa

Auzokide batek eskatu zigun Vitoria-Gasteizko Udalaren eta hornitegi bateko jabeen artean sinaturiko hirigintza hitzarmena bat baloratzeko. Helburua jarduera hori udalerriko erdigunetik Udalaren lursail batera lekualdatzea zen, lurra trukatu eta okupatzen zuen lekuaren herri jabaria berreskuratu eta gero. Kexak, hala ere, agerian jartzen zituen

hitzarmena gauzatzeak interesatuaren ondareari ekarriko zizkion ondorio negatiboak; izan ere, kexaren bultzatzailea gasolindegi hori lekualdatu nahi zen lursailaren inguruan zegoen beste hornitegi baten titularra zen.

• Azterketa

Kexa aztertu eta gero, Udalera jo genuen eta erreklamazio-egilearen iritzien berri eman genion, batez ere beste gasolindegi bat zabaltzeak negozioari ekarriko zizkion ondorio negatiboen berri.

Horri emandako erantzuna ikusita, ondoriozta zitekeen Udalak ez zuela lurra trukatzeko erabaki hori berrikusteko eta gainerakoei kalte egingo ez zien beste alternatiba bat biltzeko borondate argiegirik. Udalak adierazi zuen instalazio berriaren kokapenak ez ziela kalterik ekarri behar inguruko gasolindegien negozio bolumenari eta jarduerari. Are gehiago, bere ustez, hiriaren gune zehatz batean gasolindegien eremu bat eratzeak sinergiak sortaraz zitzakeen, establezimendu guztien emaitzak hobetuz.

Ikuspuntu juridiko batetik, gasolindegi berriak erreklamazio-egilearen negozioari ekar ziezazkiokeen ondorio negatiboekin batera ondare erantzukizunaren ekintza bat egon zedin, zuzeneko moduan eta berehala frogatu eta erakutsi behar da horrek administrazioaren jardunarekin izan duen erlazioa; jardun hori, azken batean, lursail baten trukaketa izan da, kokapena errazteko.

Edozelan ere, kasu honetan ez zegoen hitzarmenaren eraginkortasuna exijitzeko baldintzarik, une horretara arte, organo eskudunek onetsia ez zutelako trukaturiko lursailaren kalifikazio aldaketa baimenduko zuen plangintza.

Inguruabar hori guztiz garrantzitsua zen salaturiko eragin negatiboaren jatorria kontuan hartu ahal izateko. Hitzarmena bete gabe zegoenez, artean ez zen zerbitzugunea lekualdatu eta, beraz, gasolindegi berriak inguruko zerbitzugune guztiekin izango zuen lehiakortasuna frogatu gabe zegoen.

• Emaitza

Hori guztia dela eta, Udalari iradoki genion sinaturiko hitzarmenari alternatibak biltzeko neurri egokiak hartzea, betiere jarduera hauek egoitza eremuetan sortarazten dituzten trabak kentzeko eta gainerakoen interesei kalte egitea saihesteko ahaleginak eginez. Iritzi hauek emanda, gai honetan izandako esku-hartzea bertan behera utzi genuen.

# 14. ZENBAIT GESTIO

## 14.1. SARRERA

Izen honen pean Arartekoak 2003an oratu edo kontuan hartu, baina -ukituriko gaien ezaugarriak direla eta- erakunde honen zeregina egituratzeko erabili ohi diren arloetan nekez sar daitezkeen jarduketak sartu ditugu.

Aurtengo ekitaldian arlo honetan 28 kexa zenbatu dira, hau da, guztira tramitaturiko espedienteen % 2.

Datu honek agerian jartzen du arlo honek daukan izaera murritza. Horri gehitzen badiogu planteaturiko gaien aniztasuna eta heterogenotasuna, guztiz korapilatsua da jasotako erreklamazioak kategorien arabera sailkatzea eta batzuen edo besteen edukiak nabarmentzea.

Azkenik, espediente hauetarik gehienak tramitatzeko modua bitartekaritza lan hutsetik bideratu direla argitu beharra dago, betiere gai hauek gure autonomia erkidegoan duten eragin eta giza ondorio handiak aintzakotzat hartuta.

Adibide modura, gerrako umeek, hau da, Gerra Zibilaren ondorioz Eusko Jaurlaritzak atzerrira atera zituen umeek, Euskal Autonomia Erkidegoan instalatzeko aurkitu dituzten zailtasunen arazoak aipatu behar dira. Arazo hori oso nabarmen ikusi ahal izan dugu desagerturiko SESBko errepubliketatik datozenen kasuan.

Halaber, gure erkidegoan bizi diren hainbat pertsonek kexa bat bidali digute egoitza baimenak berritzeko atzerapenak pilatu direlako; orobat, aholkularitza eskatu digute euskal erakunde publikoek kontrataturiko elkarteen zerbitzupean behar egiten duten langileen lan baldintzei buruz.

Egia esan, euskal administrazio publikoek abian jartzen dituzten egitarauak burutzeko gaur egungo hitzarmenek konpromiso modura ezartzen dute -bertan parte hartzen duten elkarteek bete beharrekoa- beharrezko langileak kontratatzeari buruzko, baina betiere lan betebehar guzti-guztiak modu egokian zainduz.

Hala eta guztiz ere, gerta daiteke hitzarmen horietan administrazioek esku hartzeko moduko ezarpenik ez egotea, betiere lan betebehar horiek konplitzen diren ala ez bermatzeko; hala ere, ez dago inolako oztoporik horren inguruan sor daitezkeen gorabeherak beharrezko jarraipen batzordearen jakinaren gainean jartzeko, handik neurri edo ondorioren bat etor daitekeen behar bezala aztertua izan dadin.

Azkenik, azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuaren bitartez, Francoren sasoian askatasuna kendu zitzaien pertsonei zuzendutako kalte-ordain ekonomiko batzuk ezarri dira, baina horrek ere Ararteko erakundean aurkeztuak izan diren hainbat kexu eragin ditu. Erreklamazio hauen motibazioa bikoitza da: alde batetik, oso gauza zaila da diktaduraren garaiko preso zelaietako egonaldien gaineko agiri frogak aurkitzea; eta, beste alde batetik, zalantzan jartzen da 65 urteko gutxieneko adina eduki behar izatea laguntzaren onuraduna izateko.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, laguntzaren sustatzailea denak, erakunde honi adierazi dio militarren artxiboak arakatzen jarraitzeko zeregina bere kontura betetzen jarraituko duela, nahiz eta eskatzailearen askatasun gabezia frogatu eta egiaztatu dekretuak ezarritako epeak amaitu eta gero. Halako kasuetan, sail horrek mekanismoren bat ezartzeko asmoa du, pertsona horiek ere beharrezko kalte-ordaina jaso dezaten.

## 14.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

⇒ *Ikastetxe batean epailearen dibortzio ebazpen bat interpretatzeko arazoak* (1050/2000)

• Erreklamazioa

Kexaren sustatzaileak azaldu zuen epailearen ebazpen bat lortu eta horrek orain arte senarrarekin bizi ziren adin txikiko lau seme-alaben zaintza ematen ziola. Ebazpen hori ikastetxeari jakinarazi zion arren, zuzendariak ez zion uzten ikastetxetik irtetean umeak hartzen eta ez zion esaten noiz ez ziren eskolara joaten. Esan ere esan zion aitak ez zituela umeak eskolara eramaten. Hori dela eta, erreklamazio-egileak uste zuen ikastetxeko zuzendariak senar ohiari laguntzen ziola epailearen ebazpenak bete ez daitezen.

• Azterketa

Hezkuntzako Ordezkaritzako aholkularitza juridikoarekin gestioak egin genituen. Bertan uste zuten amak eskubidea zuela umeen absentzien berri izateko, eta horrelaxe jakinarazi zioten zentroari.

Epaiaren betearazpenari zegokienez, arazoa zen epai autoaren idazkera guztiz nahasia zela, eta horrek zalantzak sortarazi zituen interpretazioa egin zenean.

• Emaitza

Informazio hau erreklamazio-egileari eta beraren abokatuari helarazi genion, epaileak autoaren edukia argitzeko ahaleginak egin zitzaten; era berean, jakinarazi zitzaien, hori lortu ezean, erakundera berriro ere jo zezakeela.

Erreklamazio-egilearen berri izan gabe denbora luze igaro ostean, kexaren espedientea itxi genuen.

⇒ *Pertsona behartsu batentzako laguntza eta aukeratzeko askatasun pertsonala* (68/2003)

• Erreklamazioa

Herritar batek jakinarazi zigun oso kezkatuta zegoela pobrezian bizi zen emakume baten kinka larria zela eta. Horrela, aipatu zigun adineko pertsona nagusia zela, ez zegoela fisikoki batere ondo, eskekotasunetik bizi zela eta Bilboko plaza zehatz batean gaua igarotzen zuela. Halaber, pertsona horri laguntza emateko beharrizana aipatu zigun.

• Azterketa

Emandako deskripzioagatik, kasu hau Udaleko gizarte zerbitzuei zegokien. Hori dela eta, Bilboko Udalera jo genuen, gizarte zerbitzuek pertsona hori ezagutzen zuten eta laguntzaren bat jaso zuen jakiteko asmoz.

Udalak emandako erantzunean, Udalak adierazi zigun zerbitzuek kasuaren jakinaren gainean zeudela, eta emandako datuak baieztatu zituzten. Halaber, profesionalek emakume honi hurreratzeko eta laguntza emateko zituzten arazoak aipatu zituzten;

izan ere, harreman guztiei eta laguntza orori egiten zion uko. Era berean, diagnostiko medikoa izan nahi zuten, hala behar bazen, beharrezko tratamendua aplikatzeko, baina emakumeak edozein zerbitzutara joateari uko egiten zion.

Udaleko gizarte zerbitzuen asmoek eta emakumearen askatasun pertsonalak talka egiten zuten, laguntza hori onartzeko prest ez zegoelako.

• Emaitza

Gizarte eta osasun zerbitzuen lankidetzari esker eta esku-hartze judizialaren bitartez, emakume hau laguntza zentro publiko batean sartu ahal izan zuten. Emakume honi modu jarraian laguntzea bermatuko zuten jarduketa koordinatuak ezarri ziren. Gauzak horrela, kasu honi erantzun egokia eman ahal izan zitzaion.

## B) BERARIAZKO ARRETA TALDEEN ARAZOEI

## 1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ARAZOEI

Azkeneko urteotan, haserre eta lotsaz, bizilagun izan dituzten gizonezkoen eskuetan hildako emakumeen kopurua etengabe goraka doala ikusten ari gara. Horrek agerian jartzen du, dramatikoki, emakumeen aurkako indarkeria gure gizarteko giza eskubideen urraketa larri, maiz eta zigorgabeena dela.

Horren ildotik, gogoratu behar dugu heriotzen zenbaki hori icebergaren tontorra besterik ez dela, emakumeen aurka egiten den indarkeriaz ikusten den aldea besterik ez, fenomeno zabal eta forma ugarikoa baita. Eta ez dugu ahaztu behar indarkeria hori, aldi berean, emakumeek emakume izate hutsarengatik pairatzen dituzten bazterkeria eta bidegabekeria ugarien beste adierazpen bat besterik ez dela. Gizarte, kultura, sistema politiko guztietan emakumeen aurkako indarkeriak irauteak erakusten diguna da ez dela emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunik munduko inongo tokitan lortu, herrialde desberdinetan emakumeen eskubideen errespetuan dauden aldeak nabarmenak diren arren.

Balantzaren beste aldean, gizarteak duela oso gutxira arte ikusten ez zen, esparru pribatuan ezkutatuta zegoen arazoaren aurrean jarrera aldatu duela ere ezin da ukatu. Aldaketa horren ondorioz, herri botereei pixkana inplikatzeko eskatu zaie, beraiena baita herritar guztien bizia eta eskubideak babesteko betebeharra. Alabaina, erakundeak beren berbeta aldatu eta emakumeen aurkako indarkeria gogor gaitzesteko aldatu eta indarkeria horren biktimei laguntzen hasi diren arren, egia da oraindik ez dutela genero indarkeriaren egiturazko izaera onartu, eta ez diete indarkeria horren ondorioei benetan dakarten segurtasun eta osasun publikoko arazo larri modura heltzen. Izan ere, emakumeen kolektiboak pairatzen duen bereizkeria -eta indarkeria ondorea-, hutsune garrantzitsua da biztanleen erdiarentzat sistema demokratikoaren izatezko indarrean.

Fenomeno honi azaletik eta zatika heltzen zaiolako froga bat zenbakizko analisiko ahaleginetan ikusten da. Heriotzei soilik erreparatzen badiegu –alarma seinalea direla baina indarkeria sexistaren benetako hedapenaren ideiarik ematen ez dutela onartuta–, zenbakien dantza eskandaluzkoa da, baita datu ofizialetan ere. Gorabeheren arrazoiak desberdinak dira: oro har, ez da genero indarkeria multzoan aztertzen; hartara, derrigorrezko prostituzio egoera baten ondorio diren heriotzak, emakumeen salerosketen ondoriozkoak edo, baita sexu eraso baten ondoriozkoak direnak ere ez dira zenbatzen. Datuek fenomenoaren zati bat, “etxeko indarkeria” deritzona, izaten dute hizpide. Termino hori, ordea, ikaragarri anbiguoa da, zeren familiaren baita gertatzen diren eraso guztiak (gorako zein beherako lerroetakoen artean, neba-arreben artean, eta abar) sar baitaitezke eta, aldi berean, oraindik elkarrekin bizi ez diren bikoteen harremanetan (ezkongaiak, lantzean behin elkarrekin egoten direnak, eta abar), edo bikote harremana aspaldi amaitu zenen artean gertatzen diren erasoak kanpoan gera baitaitezke.

Gure iritziz, datu fidagarririk ez egoteak emakumeen osotasunaren aurkako erasoak zenbakitan emateko orduan irizpide garbirik ez dagoela erakutsi ez eze, batez ere kontzeptuak argi zehaztu ez direla edo, are larriago dena, fenomeno honetan genero ikuspegia difuminatzeko asmoa -kontzientea ala ez- dagoela da. Ematen du ez dela interesatzen emakumeen aurkako indarkeriaren benetako jatorria agerian jartzea, jatorri horrek -egiturazko izaeradunak-, kultura patriarkalean sakon errotutako gure gizarte sistemaren oinarriak zalantzan jartzen baititu.

Genero indarkeriari heltzeko orduan doitasun edo zorroztasunik ez dagoen arren, nabarmendu behar dugu, azkeneko garaietan, gizartearen sentsibilizazio handiagoak herri botereen erantzuna gehitzea eragin duela, bai arreta baliabideak artikulatzearen aldetik bai legegintzaren aldetik. Legegintzari dagokionez, zigor Kodearen erreformaz gain –esanahi sinbolikoa praktikoa baino gehiago–, aipagarria da *Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua* delakoa abian jarri izana, zeinen aurrerapen nagusia zigorrezko badaezpadako neurriak (urruntzeko agindua, esaterako) eta neurri zibilak (seme-alaben zaintzaren esleipena, familiaren etxebizitzarena eta abar) konbinatzen dituela baita.

Gizartea gero eta kontzientziatuago egotea herritarren eskubideen defentsarako erakundeetan ere igarri da, eta emakumeen askatasunari, biziari, osasunari eta duintasunari eraso onartezinak egitea dakarren halako indarkeria errotik ezabatzen inplikarazi ditu. Gure aldetik, maiz esan izan dugu gai honi merezi duen seriotasunez heldu behar zaiola eta, azken aldian, ildo horretan beste urrats bat egin dugu. Eta berezkoa dugun ikuspegitik egin dugu, hau da, euskal erakundeak indarkeria sexistari ematen ari zaizkion erantzunak aztertu eta gainbegiratuz. Izan ere, iaz iragarri genuenez, 2003. urtearen amaieran Eusko Jaurlaritzari *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn* txosten monografikoa aurkeztu diogu, non administrazio desberdinek kolektibo horri eskaintzen dieten zerbitzuen gaineko informazioa (lege aholkularitza, laguntza psikologikoa, polizia arreta, eta abar) jasotzen den, kalitatearen gainean eta dauden beharretara zenbateraino egokitzen diren balorazioa egiteko.

Txosten honetako I. kapituluan dagokion atalean, igarri ditugun gairik kezkagarrienen laburpena jaso dugu, baita egindako gomendioena ere. Gomendioak bi ideiatan labur genitzake: batetik, politika guztietan genero ikuspegia sartu behar dela, indarkeria sexistari jatorritik, hau da, emakumeek gure gizartean duten mendeko jarreraren ondoriozko zioetatik aurre egiteko modu eraginkor bakarra delakoan. Erakundeen emandako erantzunari dagokionez, plangintzarik eza ikaragarria dela antzeman dugu. Herri administrazioek ez dute dauden beharretara eta arazoaren larritasunera doitutako osoko arretarik bermatzen eta, horregatik, etorkizunera begira, prestazioak bateratzeko eta tratu txarrak jasandako emakume guztiei, beren egoera pertsonala edo bizitokia direnak direlarik, oinarrizko zerbitzu batzuk ziurtatzeko ahalegina egin beharko dute.

Emakumeen aurkako indarkeriak dakarren emakumeen eskubideen urraketarengatik dagoen kezka agerian geratu zen, halaber, Arartekoak Koordinatzeko XVIII. Jardunaldietan, non gai horri egindako hiru azterlan tailerretatik bat eskaini zitzaion. Ateratako ondorioak txosten honetako I. kapituluko 3.1. atalean sartu dugun jardunaldi horien kronikan aurkituko dituzue.

Nolanahi ere, tailer horretan, eta lehenago aipatu dugun ezohiko txostenean ere, eskubideen defentsarako erakundeek genero indarkeriaren arazoari eta emakumeen eta gizonen artean irauten duten desberdintasunen arazo zabalagoari ere heltzeko dauzkagun mugak berriro agerian geratu dira. Ezin dugu alboratu bereizkeria egoerarik larrienak esparru pribatuan gertatu ohi direla, non eskubideak bermatzeko erakundeok sartzerik ez daukagun. Horregatik, berdintasunaren aldeko borrokari dagokionez, herri administrazioak kontrolatzeko gure eginkizuna, maizegi, salaketa hutsera edo, nahiago bada, gizartea sentsibilizatzera mugatu behar da.

Arestian esandakoak ez du esan nahi herri erakundeen funtzionamenduan izatezko berdintasunik iritsi denik. Egia da Administraziorako zerbitzuan ari diren emakumeen

kopurua gizonezkoenaren antzekoa dela –zenbait esparrutan handiagoa ere bai–, enplegu publikoan ez dituztelako lan pribatuaren merkatuaren alorrean, zoritxarrez, oraindik ere ohikoak diren oztopo eta bereizkeriarik ageri-agerikoak aurkitzen. Baina ez dugu ahaztu behar nahierako faktorea agertzen denean –buru izatera heltzea, libreki izendatutako lanpostuak lortzea…– gizonezkoen presentzia berriro ere nagusitzen dela. Eta berdin gertatzen da erakundeen ordezkaritza karguetan edo gobernu erakundeen eraketan: parekotasuna horizonte urruna da oraindik ere.

Era berean, bestela ezin zitekeen, herri administrazioen zerbitzura ari diren langileen jardueran, argi eta garbi igartzen dira familia eta etxeko bizitzaren antolamenduan dirauten desberdintasunen ondorioak. Hartara, esaterako, familiako eta laneko erantzukizunak eta ardurak uztatzeko neurriei (eszedentziak, lanaldi murrizketak, eta abar) eusten dieten gizonezkoen portzentajea oso txikia da oraindik ere, horrek emakumeei beren karrera profesionalei uko egitearen aldetik dakarkienarekin.

Testuinguru honetan, Arartekoaren eginkizuna, gerta daitezkeen ezkutuko edo zeharkako bereizkerien kasuak argitara ateratzen saiatzeaz gain, izatezko berdintasuna sustatzeko duten betebeharra betetzen ez duten, eta izatezko berdintasun hori eragozten duten oztopoak ezabatzen saiatzen ez diren zenbait herri administrazioren omisiozko jarrerak azaleratzera bideratzen da, nagusiki. Aurrerago iruzkinduko dugunez, Irun eta Hondarribiko udalen jarrera, beren alardeetan emakumeen partaidetzari buruz duten jokabideari dagokienez, paradigmatikoa da alde horretatik.

Iaz herri administrazio baten beste jarduera baten berri ere izan dugu, genero berdintasunaren aldeko borrokan aurrera egitetik urrun, atzerabidea dena dirudiena. Arabako Foru Aldundiaren erabakiaz ari gara, emakume eta gizonezkoen berdintasunerako Foru Plana amaitutzat jotzeko erabakiaz, alegia. Azpimarratu behar da Arabako erakunde hori aitzindari izan zela EAEn genero ekintzak eta politikak diseinatu, artikulatu eta ebaluatzeko berariazko zerbitzua sortzean -profesional espezializatuekin (berdintasunerako aholkulariak)-. Une hauetan, plana desagertu denez, egitura organikoa ezabatu dute eta, oraingoz behintzat, haien eginkizunak ez ditu beste inongo sailek bere gain hartu. Jokabide horrek, Europako zuzentarau guztien aurkakoa izan ez eze, herri botereek berdintasunaren aldeko borrokan duten inplikazioa benetakoa baino formala dela agerian jartzen du. Azalduko kasu hori ez da, ziurrenik, emakumeen eskubideen aldeko diskurtsoa izan arren, praktikan horien lortzera xedatutako aurrekontu eta baliabideak murrizten dituzten erakundeen adibide bakarra izango.

Amaitzeko, komeni da esatea eguneroko lanean ari garenean, gure erakundea ere saiatzen da emakume eta gizonen arteko baldintzen desberdintasuna gogoan izaten. Ez garenez betearazteko maila bat, gure erakundearen lanean genero ikuspegia izatearen helburua batez ere analitikoa da. Hau da, urtean zehar egindako jarduera aztertzean, bereizkeriazko tratuko balizko suposamenduez gain, emakume izateak planteatutako arazoa sortu edo larriagotzen duen, edo sakoneko arazoak edo gure esku hartzearen emaitzak emakumeengan eragin handiagoa daukan edo emakumeei desberdin eragiten dien kasuak antzematen ere saiatzen gara. Azterketa hori egitean ez diogu kexa jartzen duen pertsonaren generoari aditzen.

Erakunde honek emakumeen interesei adituz egiten duen jardueraren gaineko zeharkako irakurketa bereziki ahulak diren beste kolektibo batzuekin ere aplikatzen da (atzerritarrak, adingabeak, adinekoak, ezgaituak, eta abar). Purutasunean, giza talde horietako bakoitzaren barruan genero ikuspegia aplikatu eta berariazko arazoen barruan

"emakumeen bertsioa" nabarmentzea ere badago. Alabaina, azalpenetan argiak izatera begira, emakumeei bereziki ukitzen dieten gaiak atal bakarrean jorratzea aukeratu dugu. Horrek ezin digu emakume izateak gizarte bazterkeria jasaten duen edozein kolektiborengan bazterkeria hori biderkarazten duela ahantzarazi, ordea.

Errealitate hori nabarmentzeko asmoz eta erakunde honek 2003an zehar bi txosten monografiko argitaratu zituela baliatuz, joan den ekainean bi hitzaldi egin ziren (Bilbon eta Gasteizen) *Emakumeak eta ezgaitasuna* gaiaren inguruan.

Beste gai batzuetara igarota, esan dezakegu, erakunde honek genero kontuei ematen dien garrantziaren ondorioz, gure erakundeko zenbait kidek gaiari buruzko ikastaroetan parte hartu dutela edo txostenak aurkeztu dituztela emakume eta gizonen arteko berdintasunaren gaineko hainbat eztabaida-gunetan.

Emakumeei beren beregi ukitzen dieten gaiak jorratzera sartuz, jarraian emakumeek erakunde honengana jotzen dutenean zer-nolako kexak jartzen dituzten aztertuko dugu, ondoren balizko bereizkeriazko tratuak espresuki planteatzen direnei helduko diegu eta, amaitzeko, desberdintasun egoerak, zeharka, zeinetan sortzen diren zehaztuko dugu.

## 1. **Emakumeak erreklamaziogile**

Aurreko urteetako txostenetan bezala, soziologiako estatistikari buruzko atalean (III. kap.) kexak erreklamaziogilearen sexuaren arabera nola banatu diren erreferentzia sartu dugu. Atal honetan kexa horiek hizpide dituzten gaiak arreta handiagoz gainbegiratu nahi ditugu, ahal dugun heinean, eskainitako zenbakiak azaltzeko hipotesiren bat iradokiz. Baina azterketa horretara sartu baino lehen, emakumeek aurkeztutako urteko erreklamazioen kopuruetan izandako bilakaerari gainetik adituko diogu.

Hurrengo taulan ikusten denez, 1998an indize altua iritsi ondoren, beherako joera ikusi zitzaien, 2001ean berriro gora egin zuelarik. Espero zenaren aurka, hurrengo urtean emakumeek jarritako kexen kopurua berriro jaitsi zen eta 2003an, ordea, jasotako 1377 kexetatik %40tik gora emakumeek jarri dituzte, berriz.

| | **Emakumeak** | **Gizonak** | **Kolektiboak** |
|---|---|---|---|
| 1996 | 36,74 | 46,89 | 16,25 |
| 1997 | 39,88 | 48,72 | 11,90 |
| 1998 | 45,19 | 46,84 | 7,97 |
| 1999 | 38,97 | 45,99 | 14,65 |
| 2000 | 36,55 | 49,80 | 13,65 |
| 2001 | 41,31 | 43,82 | 11,57 |
| 2002 | 38,23 | 47,65 | 13,57 |
| 2003 | 40,45 | 45,54 | 13,36 |

2003an ere gehitu egin da emakumeek zuzeneko arretarako gure bulegoetara egindako bisiten portzentajea. Azkeneko bi urteetan gorako joera igarria genuen (% 39tik 2001ean % 41,26ra eta 2002an % 43,61era gehitu ziren), eta ekitaldi honetan

ere hala eutsi zaio, % 44,87ra helduz. Hiru lurraldeetako batez bestekoak gora egin izana, aurten ere, Gasteizko bulegora etortzen diren emakumeen portzentaje altuaren (% 49) ondorioa da, Donostia (% 43,3) eta Bilbora (% 41,32) etortzen direnak baino gehiago baitira, non aurten gizonezkoek (% 50,2) eta bikote edo kolektiboek egindako bisiten aldean gutxitu diren. Soziologiako estatistikaren atalean (txosten honetako III.-6 atala), erakundearen bulegoetara etorri diren pertsonen kopuru absolutuak ikusgai dauzkazue.

Jarraian emakumeek aurkeztutako 577 kexak gaiaren arabera nola banatzen diren ikusiko dugu:

**Kexen banaketa arloka eta erreklamaziogilearen sexuaren arabera**

| Arloa | Gizonak | Emakumeak | Taldeak | Anonimoak |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa ..... | 7 | 7 | 5 | - |
| Gizarte Ongizatea ................ | 45 | 95 | 17 | - |
| Kultura eta elebitasuna .......... | 16 | 8 | 42 | - |
| Arartekoak .......................... | 42 | 42 | 6 | - |
| Hezkuntza ........................... | 30 | 47 | 14 | - |
| Funtzio Publikoa .................. | 41 | 46 | 13 | - |
| Hainbat gestio ..................... | 18 | 5 | 4 | 1 |
| Ogasuna ............................. | 46 | 17 | 7 | - |
| Herrizaingoa ....................... | 67 | 30 | 9 | 1 |
| Justizia .............................. | 18 | 18 | 6 | - |
| Ingurumena ......................... | 26 | 19 | 2 | - |
| Herri Lan eta Zerbitzuak ........ | 75 | 50 | 11 | - |
| Ezetsiak .............................. | 90 | 71 | 16 | 7 |
| Osasuna ............................. | 38 | 39 | 15 | - |
| Lana eta Gizarte Segurantza .. | 3 | - | 2 | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza ....... | 65 | 63 | 15 | - |
| **Guztira** ............................. | **627** | **557** | **184** | **9** |

Aurreko zenbaki horien artean, bereziki deigarria da emakumeen Gizarte Ongizatearen alorrean aurkeztutako kexei dagokiena. Arloka kexen azpimultzorik ugariena izateaz gain, emakumeek gehien jarri duten erreklamazio mota ere bada, alde handiz gainera, baita gizonezkoek jarritakoei adituz alderik handiena dagoen arloa ere. Diferentzia nahikoa deigarria den arren, ez da berria, estu-estuan begiratuz, zeren kexak erreklamaziogilearen generoaren arabera bereizten aztertzeari ekin genionetik (1999), gizarte ongizatearen arloak emakumeek gizonezkoek baino kexa gehiago jartzen zituztela ohartu izan gara. Berdin gertatu ohi da Hezkuntza eta Osasun arloetan, eta oraingoan ere hala da, baina generoen arteko aldeak ez dira bestean bezain handiak. Gerta daiteke zenbakizko nagusitasun hori emakumeak beren kabuz moldatzen ez diren pertsonak (adingabeak, zaharrak…) zaintzeaz eta, ondorioz, laguntzazkoak diren esparru horietan sortzen diren arazoak konpontzeaz gehiago arduratzen direlako izatea.

Nolanahi ere, argi dago zenbakiak gainetik aztertzetik ezin direla emakumeak erakunde honetara etortzera mugitzen dituzten interesei buruzko ondorioak atera. Gainera, kontuan izan behar da sarritan arazoa benetan pairatzen duen pertsona ez

dela erakundearengana zuzenean etortzen dena izaten. Horren ildotik, oso adierazgarria da emakumeek beren arazoak zein kasutan planteatzen dituzten, zaintzen dituzten pertsonen arazoen interesen defentsan noiz aritzen diren eta, azkenik, zein gaitarako uzten duten gizonezko batek ordezka ditzan ikustea. Oraingoz, hori aztertzeko bitartekorik ez daukagunez, emakumeen sinadura daramaten gaiak aztertzearekin konformatu behar dugu.

Esandakoez gain, emakumeek jarritako kexak gizonezkoek jarritakoak baino gehiago izan ohi diren beste arlo bat Funtzio Publikoarena da. Aurten ere berdin gertatu da, batzuen eta besteen zenbakiak oso antzekoak diren arren. Nagusitasun horretan eragina duen faktore bat, ziurrenik –bakarra izango ez den arren, jakina–, enplegu publikoan emakume asko dagoela da, enplegu publikora iristeko lan pribatuko merkatuan baino bereizkeria gutxiago aurkitzen dutelako. Nolanahi ere, aurreko atalean esan dugunez, zenbakietan dauden aldeak bezain garrantzitsuak dira zer-nolakoetan daudenak. Izan ere, gai batzuk –adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketak, eszedentziak, eta abar– emakume funtzionarioek soilik planteatzen dituzte.

Oso antzeko zerbait ikusten dugu Herri Lan eta Zerbitzuen arloan: gizonezkoek eskatuta tramitatzen diren gaiak askoz ere gehiago diren arren, badago atal bat –herri garraioarena–, emakumeek kexen monopolioa dutela esan genezakeena. Horren azalpena da emakumeen herri garraiabideak gizonezkoek baino sarriago erabiltzen dituztela, gizarte multzo bereko gizonezkoek baino sarriago ere bai.

Hirigintza eta Etxebizitza arloaren aipu bat ere egin behar dugu. Iaz ez bezala, orduan gizonezkoek planteatutako arazoak emakumeek aurkeztutakoak bikoiztu zituzten, oraingoan kopuruak orekatu dira, baina deigarria dena da arlo honetara etorri dela emakumeen kexen kopururik handienen bigarrena, Gizarte Ongizatearen atzetik. Hemen ere ez du ematen zioen azalpenik ematerik dagoenik. Familiaren etxebizitzari buruzkoak diren kexen artean –babes ofizialeko etxebizitzen adjudikazioari buruzkoak, esaterako–, guraso bakarreko familien ordezkari diren emakumeek aurkeztutakoak bat baino gehiago direla besterik ez dugu aipatuko.

Jada 2002an gertatu zen bezala, aurten ere orekatuta daude Justiziari buruz jarritako kexen kopuruak, baita Estatuko Arartekoari bideratu dizkiogunak ere, aurreko ekitaldietan ez bezala, horietan gizonezko erreklamaziogileak askoz ere gehiago izan ziren-eta. Berritasun modura, emakumeek eta gizonek Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoan jarritako kexen kopuruak berdinak izan direla esango dugu, kexen guztirako zenbaketan arlo honi buruzko kexen kopurua oso txikia denez inolako ondoriorik ateratzeko aukerarik ez daukagun arren.

Kontrako muturrean, antzeko diraute kexak –urtero-urtero– nagusiki gizonezkoek sinatuta heltzen direneko arloak, hala nola: Kultura eta Elebitasuna, Ogasuna eta Herrizaingoa... Esan behar da, hala ere, Kultura eta Elebitasunari dagokionez, beste batzuetan ez bezala, kolektiboen protagonismo argia ikusten dela. Bigarrenari dagokionez, badirudi zerga gaietako erreklamazioetan "familia buruaren" kontzeptu patriarkalak nolabait bizirik dirauela. Herrizaingoaren arloari dagokionez, asko dira administrazio zehapenei buruzko kexak (trafiko isunak,eta abar) eta, batez ere, gizonezkoek egindako atxilotzeen gainekoak.

Gizonezko erreklamaziogileak ere ugariagoak izan ohi dira tramitera onartzerik ez dagoen kexetan, baina ez hainbeste Ingurumen, Hainbat Gestio edo Lana eta Gizarte Segurantza arloetan, non aurten gehiengo hori nahikoa igartzen baita.

## 2. **Sexuagatiko bereizkeriak**

Botere banaketaren banaketa desberdinaren eta emakumeek gure gizartean daukaten mendetasunezko tokiaren adierazpenik dramatikoena, ezbairik gabe, genero indarkeriak ematen du. Baina, lehenago ohartarazi dugunez, ez dira ugariak esparru horretan herri administrazioen aurka bideratzen diren kexak, zio desberdinengatik: batetik, indarkeriarik pairatu duten emakumeen arreta ez da oraindik herri botereen aurreko eskubide subjektibo moduan ikusten. Eskaria gero eta argiagoa den arren, zoritxarrez, bai gizarteak bai ukitutako emakumeek beraiek ere batez ere laguntza eskatzen duteneko auzi pertsonala dela pentsatzen segitzen dute, eta ez arazo politiko eta soziala, erakundeak erantzutera behartuta dauden arazoa. Beste alde batetik –lehenago ere aurreratu dugunez–, kexa planteatzera helduta ere, ohikoena da guk esku hartzerik ez izatea, auzia epaitegietan sartuta dagoelako, edo erakunde honek debekatuta daukan esparru pribatuko jarduera eskatzen delako. Justizia arloaren hitzaurrean (III. 8 kap.) tramitera onartzerik izan ez dugun lehenengo motako erreklamazioen hainbat adibide aipatu ditugu. Hemen tratu txarra jasan zuten eta beren erasotzaileei bionak ziren seme-alabak ikusteko eskubidea aitortzen zien epaiez kexatzen ziren, seme-alabek nahi ez arren eta horrek –erreklamaziogileen iritziz– arriskuan jartzen zituen.

Ezin dugu esku hartu, era berean, planteatutako arazoaren jatorria partikular baten gehiegikeriazkoa eta ez-legezkoa ere baden jokabidean dagoenean. Hala gertatu zen, esaterako, bizilagunak bien bost urteko alabarekin sorterrira ihes egin zion emakumeak jarritako kexaren aurrean. Beste batzuetan bezala, erreklamaziogileari epaitegietara jo behar zuela aholkatzera mugatu behar izan genuen.

Alabaina, indarkeria pairatu duten emakumeen arreta zerbitzuen funtzionamenduaren gaineko erreklamazioak heltzen hasi zaizkigu. Hartara, 2002aren amaieran Gasteizko udaltzain batek senarra tratu txarrengatik salatu nahi zuen emakume baten aurrean izandako jarreraren aurkako kexa jaso genuen. Antzeko edukiarekin, 2003ko ekainean, beste emakume batek Deustuko (Bilbo) ertzain-etxeko ertzain batek emandako tratuarengatik kexatu zen, salaketa beste polizia egoitza batzuetan jartzera behartu baitzuen. Arduradunek bi kasuetako batean ere funtzionarioek diziplina akatsik egin zutenik iritzi ez zioten arren –poliziek emakumeen bertsioa ukatzen zuten–, bigarren suposamenduan, Herrizaingo Sailak *"Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Erakundeen Arteko Protokoloan"* finkatutako irizpideei zuzen jarraitu ez zitzaiela aitortu zuen eta, ondorioz, aurrerantzean halakorik berriro gerta ez zedin neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuen.

Genero indarkeria zentzu zabalagoan hartuta, Bilboko emakume baten kasua aipa genezake, Bilboko Udalak, bere esanetan, mehatxatu eta irain xenofobo eta sexistak esan zizkion udaltzain baten jokabidearengatik jarri zituen bi kexei erantzun ez zielako kexatu zenekoa. Gure erakundeak egiaztatu ahal izan zuen polizien arduradunek ez zutela interesatuaren kexengatik inolako barruko ikerketarik egin, baina gertakari berberei buruzko epaitegietako jarduerak ere amaitu barik zeudela jakin genuenez, zigor prozedura auzipetuaren absoluzioarekin burutuko balitz diziplinazko espediente bat abiaraztea komeniko litzatekeela planteatu genion Udalari, zeren zigor erantzukizunik ez izateak ez baitu, halabeharrez, bestelako urraketa deontologikorik egon ez denik esan nahi.

2004aren hasieran jasotako kexa batean, zeinetan Ertzaintzak inkomunikazio erregimenean atxilotu zituen hainbat pertsonak tratu txarrak jasan zituztela kontatzen

zuten, emakume baten testigantza ere badago, non, sexu irainez gain, azterketa mediko batean intimitatea urratu ziotela ere salatzen baitzuen, lau ertzain aurrean zituela bularra bistan egon behar izan zuen-eta. Arartekoak gertakariak argitzeko eta, izatekotan, froga litezkeen erantzukizunak eskatzeko jarduerak abiarazi ditu.

Azaldutako kasuek aurkakoa iradoki lezaketen arren, azpimarratu behar dugu ez direla ohikoak herri Administrazioak emandako bereizkeriazko tratuen ondorio zuzenean jarritako erreklamazioak. Hala ere, halakotzat jo liteke Irun eta Hondarribiako emakumeen planteatzen duten auzia, beren herrietako Alardeetan parte hartzea ukatzen baitiete, bi herrietako jai adierazpen nagusiak diren arren.

1996tik, "eskopetadun" modura desfilatzea eragozten zitzaien emakumeek Arartekoarengana jo zutenetik, erakunde honek hainbat esku hartze egin ditu, eta tokiko korporazioei gomendioak luzatu dizkie, Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuaren 9.2. artikuluek diotena gogorazteko, hau da, herri botere guztiek pertsonen arteko berdintasuna izatez eta egitez gauza dadin baldintzak sustatzera behartuta daudela diotela gogora ekartzeko. Betebehar hori, ukitutako bi udal horien kasuan, nahi zuten herritarrek, gizon zein emakume, Alardean berdintasunez parte hartu ahal izan zezaten beharrezkoak ziren neurriak artikulatzean zehazten zen.

Piztutako auziaren bilakaera konplexua eta bi udalerrietako bakoitzean desberdina izan da, orientazioan beti bat etorri ez diren epaileen ebazpen desberdinak izanik. Nolanahi ere, oraingo egoera honelaxe laburbilduko genuke: Irun eta Hondarribiako emakumeek Alardean soldadu modura parte hartzeko duten eskubidea argi eta sendo onartu duen jurisprudentziazko dotrina bat dago, emakumeak herri jai horretatik kanpo lagatzea –edo jaian kantinera modura soilik parte hartu ahal izan dezaten mugatzea– tratu berdinketaren oinarrizko eskubidearen urraketa dela dioena. Hala ere, kontua da azkeneko urteotan Alardearen antolaketa pertsona partikularren eskuetan lagatzeak emakumeen partaidetza eragotzi duela.

Ingurumari horietan, bi herrietako zenbait kolektibok –2003ko data desberdinetan– Arartekoarengana jo zuten, beren udalei udal Alardeak ospatzeko luzatu zieten eskariarekin bat egin zezan eskatuz.

Bi korporazioei gure gogoeten berri eman genien, baina biek zioten legez ez zeudela Alardea antolatzera behartuta. Gure iritziz, arauaren interpretazio hori ikuspegiz estua da, eta izatezko berdintasuna eragozten duten oztopoak ezabatzeko konstituzioaren aginduaren aurkakoa ere bai. Baina, gainera, bi herrietako jai ospakizun nagusia publikoki eta partaidetzaz egitea komeni dela indartzeko beste mota bateko argudioak ere badaude.

Argudio horietako bat da, azkeneko bi urteotan, Alardeak ospakizunean nork parte har dezakeen erabakitzen duten partikularrek kudeatzen dituzten ikuskizun bihurtu direla. Horrek eragiten duen udal boterearen herriko jaien aitzindaritzako inhibizioak, izan ere, jaiak pribatizatzea dakar, edo bestela esanda, pertsona pribatu batzuen kolektiboari gogoko ez dituzten herritar edo gizarte multzoak jaitik kanpo lagatzeko eskubidea ematea. Gaur emakumeak baztertzen dituzte, baina bihar beste pertsona batzuk baztertzea gerta daiteke, jatorriarengatik, ideologiarengatik eta abarrengatik. Ate hori zabaltzea bizikidetza demokratikoaren oinarrizko balioei zuzenean erasotzea da.

Horregatik eta beste arrazoi batzuengatik, Arartekoak gomendio bana bidali zien Irun eta Hondarribiako udalei, zeinetan –kasu bakoitzerako beren beregiko ñabardurekin–, Alarde publiko, berdintasunezko eta herritar guztientzako zabalik daudenak ospatzearen alde egin zezaten eskatu zitzaien. Bi udaletako batek ere gure gomendioari espresuki

erantzun ez dion arren, beren jarduerak agerian utzi du ez dutela gomendioaren edukirik onartu eta, izan ere, aurten ere emakumeek ez dute bi herrietako jai nagusietan gizonezkoen baldintza berdinetan parte hartzerik izan.

Nabarmendu behar dugu, amaitzeko, gai beraren gainean Arartekoak Herrizaingoaren aurrean ere esku hartu duela. Tradiziozko herrietako jaiak “pribatizatzearen” fenomenoak dakartzan berariazko arazoei heldu behar zaiela planteatu genion eta, zehazki, Bidasoako eskualdeko Alardeetarako, zein, EAEko edozein udalerritako herriko jaien antolaketa pribatua aurreikus dadin irismen zabalagoko arauketa bat egitea komeni zela iradoki genion –herri ikuskizunen gaineko 4/1995 Legearen 5. artikuluaren babesean–, baina, nolanahi ere, arauketa horrek jaien ospakizunetan berdintasunezko partaidetza izatea bermatu beharko lukeela.

Bestalde, joan den urrian, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ere emakumeek Alardeetan gizonezkoen baldintza berdinetan parte hartzeko eskubidea dutela adierazi zuten.

Administrazio batek sexu arrazoiengatik itxuraz egindako bereizkeria baten aurrean gure erakundearen beste jarduera bat udal bateko emakume langileen kolektibo batek eskatuta burutu genuena izan da. Emakume horien ustez, zerbitzuetako eta eraikinen garbiketako peoien lanpostuen balorazioan irizpide sexistak aplikatu ziren. Arartekoak korporazioarengana jo zuen, peoi lanpostuen balorazioan zeuden diferentziek lanpostu horietan zeuden pertsonen generoarekin zerikusirik ez zutela froga zezan eskatuz. Gai honen azalpen xehatuagoa Funtzio Publikoaren gaineko txosten honen atalean aurkituko duzue (III. 5 kap.), baina ateratako ondorioa izan zen erabilitako irizpideak, bakanka hartuz sexualki neutralak ez ziren arren, ezinbestekoak zirela aztertutako lanpostuak ezaugarritzen zituzten faktore desberdinen balorazio egoki eta objektiboa egiteko.

Batzuetan, emakumeen kolektiboarenganako bereizkeriazko tratua hizkuntzaren bidez dator. Horixe da, EHUko unibertsitate zentro baten izena aldatzeko prozesua abian zegoela, egokiagoa den eta ikasketa horietan ari diren pertsona guztiak, generoa dena delarik, hartzen dituen lanbidearen izendapenari (*Ingeniería*) barik, profesional-gaien izendapen maskulinoaren erreferentziari (*Ingenieros*) eutsi nahi izan zitzaionean gertatu zena.

Gure ikuspegitik, hizkuntzaren sexu ñabardurarik gabeko erabilpena, bazterreko arazoa edo kontu formal hutsa izatetik urrun, emakumeek gure gizartean pairatzen duten bereizkeriaren aurka borrokatzeko lanabes garrantzitsua da. Duela gutxira arte, gaztelaniak maskulinoa generiko gisa erabiltzen duelako babestuta, hizketa neutroa dela esan nahi izan da, egia emakumeak bistatik kendu eta gutxitasuneko gizarte egoerari eusten modu erabakigarrian laguntzen duela denean. Aldatzea ez da erraza, baina jabetu behar dugu hizkuntzak errealitateak sortzen dituela eta izendatzen ez dena izan ere ez dela izaten. Horregatik guztiarengatik, gizarte osoak, eta herri botereek bereziki, bereizkeriarik gabe hitz egiteko modua sustatzeko ahalegina egin behar dugu.

Sinesmen horietan oinarrituz, Arartekoak hainbat gestio egin zituen, eta jakin zuen gaia berriro aztertu eta behin betiko izendapenean *Ingeniería* hitza jarri zutela.

## 3. **Emakumeengan eragin berezia daukaten beste gai batzuk**

Jarraian jorratuko ditugunak erreklamaziogileek tratu desberdin modura planteatu ez dizkiguten arren, aztertzean emakumeentzako berariazko arazo diren edo ondorio

desberdinak dakartzaten gaiak dira. Horrek, sarritan, gai zehatzaren azpian gizarte sisteman jada finkatuta dauden bereizkeria edo egoerak daudela adierazten du. Hala gertatzen da, gure ustez, familia eta lanbide erantzukizun eta ardura desberdinak gizon eta emakumeen artean banatzearekin zerikusia duten gaietan, esaterako.

Funtzio Publikoaren arloaren hitzaurrean erantzukizun horien uztartzearen gaineko hainbat kexa aipatu dira, gehien-gehienak emakumeek jarritakoak. Kasuistikara sartuta, udal bateko aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan zegoen emakume batek jarritakoa aipatuko dugu, ordezkapen kontratu batean lanaldi murrizketari heltzeko aukera ukatu zitzaiola salatzen zuenekoa. Erakunde honek ondorengo adingabeak zaintzeko lanaldiak murrizteko baimenak onartzeko ahalbideak agortu behar direla defendatu du beti, ordezkapeneko edo bitartekotasun ez-egonkorreko kasuetan ere bai, baina kasu honetan herri zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna zaintzearen ondoriozko baldintzak sartzen diren tartean eta, hartara, ez zegoen udal horren jarduerari ezer leporatzerik (cfr. III. kap. 5).

Seme-alabak zaintzeko betebeharrak eta lana bateraezinak direlako auzia beste gai batean ere azaleratu zen: emakume erreklamaziogileak berak amatasunaren ostean lan merkatura itzultzeko behar zituen lanerako gaitzeko ikastaroen ordutegi eta baldintzekin ados ez zegoela zioen. Kexa tramitera onartzerik izan ez genuen arren, inolako irregulartasunik salatzen ez zuelako, amei ezartzen zaizkien arduren gaineko gizarteko planteamendu kontraesanezko eta zentzugabeek emakume askori ekartzen dizkieten ondorio pertsonal negatiboak islatzen ziren.

2002ko txostenean Eusko Jaurlaritzak lan eta familia bizitzak uztartzeko eta seme-alabadun familiei diru laguntzak emateko ekimen berritzaileak aipatu genituen. Era berean, bizitzaren bi dimentsio horiek bateratu ahal izateko neurriei buruzko hainbat kexaren berri ere eman genuen. Zehazki, diru laguntzen denbora muga zalantzan jartzen zen, diru laguntzak araupetzen zituen Dekretua indarrean jarri zenetik aurrera hasitako eszedentzia eta lanaldi murrizketei soilik aplikatzen zitzaizkielako. Arau orok denborazko aplikaziorako muga objektibo bat jarri behar duen arren, deigarria zen legea indarrean sartu zen unean diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen zituzten pertsonek laguntzei eusterik ez izatea. Gure zalantza zen ea herri botereek benetan nahi zutena familia eta lan ardurak uztartzen laguntzea zen ala jaiotza tasa suspertzeko asmoz ari ziren.

Duela gutxi Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailetik heldu zaigun erantzunean, diru laguntzen asmoa, espresuki, *"amatasunak eta aitatasunak enpleguan sortzen dituen eragozpenak ezabatzea dela, familiek nahi duten beste seme-alaba izan dezaten errazteko, jaiotza tasa gehitzera begira"* argitu digute. Genero berdintasunaren ikuspegitik, motibazio horiek zalantzagarriak ziren eta, nahasgarriak, behinik behin. Izan ere, enplegurako oztopoak aipatzen dira, benetan ezabatu nahi direnak ugalketarako oztopoak direnean. Bestalde, neurriak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko bitarteko modura saldu nahi izan dira, baina esperientzia historikoak erakusten du helburu hori nekez bateratzen dela jaiotza tasak gehitzera bideratutako politikekin. Diru laguntzak genero arrazoietan oinarritutako rolen banaketa desberdina ikaragarri errotuta dagoen esparrura doazenez, gerta daiteke, neurri horiekin, etxeko ardurak familiako kide guztien artean orekaz banatzea sustatu ordez, emakumeak tradizioz emakumeei egotzi zaizkien eginkizunekin gehiago indartzea.

Agerian utzi behar dugu, ondore hori saihesteko, hain zuzen, Dekretu arautzaileak eszedentzia edo lanaldi murrizketa eskatzen duten gizonezkoentzat gauza bera egiten

duten emakumezkoentzat baino diru laguntza handiagoak aurreikusten dituela. Gizonezkoak seme-alaben zaintzan gehiago inplikatzera eta, azken batean, etxeko lanetan banaketa orekatuagoa lortzera bideratutako ekintza positiboko neurri bat da. Diru laguntzen aplikazioaren lehenengo urteko esperientziak, ordea, lortu nahi zen emaitzaz oso bestelakoa erakutsi du, zeren, antza, eskatutako diru laguntzetatik gizonezkoek eskatu dituztenak oso gutxi izan baitira -% 5 baino gutxiago-.

Diru laguntzen zenbatekoetan gizonezko eta emakumezkoen artean zegoen aldeak, bere garaian, zenbait protesta eragin zituen, baina erakunde honek jarduneko administrazioari gai zehatz baten gaineko irizpena soilik eskatu zion: Erreklamaziogile batek zioenez, bikoteen kasuan ekintza positiboaren argudioak zentzua izan zezakeen arren, argudio horri eustea zailagoa zen guraso bakarreko familien kasuan, non ez dagoen guraso baten edo bestearen inplikazio handiagoaz hitz egiterik.

Erantzunean, Sailak azaldu digu, helburu orokorra gizon eta emakumeen rol trukaketa sustatzea zela, gizonezkoak seme-alaben arreta eta zaintzan inplika zitezen, eta hortik ondorioztatzen du araudian aurreikusitako tratu desberdintasuna arrazoituta dagoela, “*familia dena delakoa delarik, zeren kasu guztietan balio baitu rolak aldatzeko, gizonezkoak orain arte emakumeei murriztutako familiako lanetan inplikatzeko helbururako, eta ez baitu halabeharrez eskatzen, eragingarria izateko, mota jakin bateko familia, bi gurasoko familia, alegia izaterik*”.

Era berean, erakunde honek planteatutako galderei dagokienez, hauxe erantsi du: “*Alabaina, gerta daiteke guraso bakarreko eta bi gurasoko familien arteko diferentziak lanaldi murrizketa edo eszedentziari eusteko duten laguntzen premietan islatzea eta, hartara, araudia gerora aldaraziko balitz hausnartuko litzatekeen gaia izango da*”. Aurreikuspen horri egokia deritzogu, batez ere guraso bakarreko familiarik gehienak emakume baten ardurapean daudela kontuan izanik.

Azaldutako gai desberdinen ondorio modura, agerrarazi behar dugu, berriro ere, errotik mozteko zailenak diren desoreken eragile eta sustrai nagusia emakumeek eta gizonek familia eta etxeko bizitzetan rolak oso desberdin banatuta dituztela da. Aurreko batzuetan esan izan dugu gure iritziz aurrerapena bikotekideen artean aukeratzerik uzten ez duten neurrietatik etor litekeela. Esaterako, aitatasun baimen batez ari gara pentsatzen, aitak hartu ezean amarenari pilatzerik ez legokeena, edo halakoak.

Sakoneko gaia, jada aipatu duguna -desberdintasuna familiako erantzukizunen ardurak hartzean-, agerian jartzen zaigu berriro ere senar-emazteen banaketak gertatzen direnean, seme-alaben zaintza emakumeen lepo gainera etorri ohi baita, nabarmenki. Horrek erakunde honi oso arazo desberdinak planteatzea ekarri du: zerga arintze edo kenkariei buruzko gaietatik hasi, eta bisiten erregimenaren edo pentsioak ez ordaintzearen ondoriozko auzietaraino. Ezbairik gabe, pertsona guztien benetako berdintasunean aurrera egitea soilik litzateke auzi horiek aritzeko eraginkorra. Alabaina, norabide horretako urratsak ematea dakarten neurriak asmatzen jarraitu behar dugu. Besteak beste, zaintza partekatuak sustatuko lituzkeenak, pentsiorik ordaintzen ez den kasuetarako hainbestetan eskatutako bermezko funtsa, hau da, prestazioen ordainketan subrogatuz, ordaintzera behartutakoaren hartzekodun bihurtuko litzatekeen herri erakundea sortzea.

Emakumeen egoera bereziki hizpide duten Osasun arloan izandako arazoen artean, antzutasun eta ugalketa lagundurako tratamenduei buruzkoa nabarmendu behar da, berriro ere. Zenbait kasutan, ukazioen zein zenbait teknikaz baliatzeko dauden atzerapenen arazoak azterketa ginekologikoen itxaro-zerrenden arazoekin nahastu izan

dira. Bat baino gehiago dira gai honen inguruan planteatu diren kontuak eta, oro har, baiezta dezakegu emakumeei urteko azterketako lehenengo egitarauen desagerpenaren gainean ematen zaien informazioan hutsegite nabarmenak igarri direla, baita oinarrizko arretako eta ginekologiako fakultatiboen artean koordinazioan akats eta hutsuneak ere.

## 2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEN ARAZOEI

Bizi-itxaropenaren luzapenak adinekoak gero eta gehiago izatea dakar. Talde horrek berariazko arazoak ditu eta kasu askotan, mendekotasun-maila handia ere bai.

Botere publikoek adinekoen ekonomia, osasun, gizarte edo gizarte-osasun arloko beharrizanei erantzun behar diete

Beraz, osasun eta gizarte-zerbitzuetako sistemak adinekoen beharrizanei modu integralean heltzen saiatu behar dira. Hala ere, oraindik asko falta zaigu hori gertatzeko.

Ararteko erakundeak kexak ebazten parte hartu du, ofiziozko jardueren bidez edo txostenak eginez, erakundeen erantzuna zein den jakiteko.

1994. eta 1995. urteetan adinekoei EAEn egoitzetan eta egoitzetatik kanpo ematen zaien laguntzari buruzko txosten bana egin zen. Txosten horietan egoitzen egoera eta garai hartan hasiberriak ziren hainbat baliabide (esate baterako, eguneko zentroak, edo etxez etxeko laguntza-zerbitzua, neurri handienean finkatu dena) abian jartzea aztertzen zen.

Aipatutako txostenetan agertzen ziren gaietako bat honako hau zen: egoitzen eskaintza eta egoitzetatik kanpoko laguntzarena ez ziren nahiko, zeuden beharrizan guztiak estaltzeko. Harrezkero administrazio publiko gehienek hirugarren adinekoentzako laguntza-baliabideak gehitzearen aldeko apustu garbia egin dute. Dena den, oraindik badaude laguntza behar duten beharrizan asko.

Halaber, araudiak nabarmen aldatu dira eta esperientzia berriak abiarazi dira. Horrek guztiak 2003an “Adinekoei laguntzeko sistema EAEn” gaiari buruzko txostena prestatzen lan egitea ekarri du. Txosten hori 2004an emango da aditzera (ikusi txosten honen 1.5. atala).

Adinekoei egoitzetatik kanpo emandako laguntzari dagokionez, adierazi behar da etxez etxeko laguntza-zerbitzuak (ELZ) adinekoei beren etxeetan bizi izaten lagun diezaiekeela. Horretarako, nahitaezkoa da zerbitzu horrek hasieran zeukan helburua betetzea, adinekoak behar duen bitarte osoan.

2002. urtean jarduera batzuk abiarazi ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan zerbitzu hori asteburuetan eta oporraldietan nola eskaintzen zen aztertzeko asmoz. Udalek gure iradokizunen erantzun gisa bidali dizkiguten oharrak eta ekarpenak txosten honen 1.1.4. kapituluan agertzen dira.

Herritarrek gero eta garbiago ikusten dute etxez etxeko laguntza hori eskubide moduan jaso beharreko zerbitzua dela. Horregatik, berriro esango dugu komenigarria dela gutxieneko laguntza-elementuak araudi egokiaren bidez ezartzea, iaz adierazi genuen bezala.

2003. urtean jaso diren kexetako askoren oinarria hauxe izan da: egoitza-zentro eta eguneko zentro jakin batzuen eguneroko jarduerari eragin dion lan-gatazkak adinekoentzako laguntzan izandako eragina.

Bistan denez, ez ditugu kexa horiek aipatzen hirugarren adinekoentzako laguntza-zerbitzuetan diharduten langileek legezko greba-eskubidea dutela zalantzan jartzeko, baizik eta babes berezia eman ezean, zerbitzuaren funtzionamendu arruntaren aldaketak adinekoen eskubideak eragin ditzakeela nabarmentzeko, behar baino neurri handiagoan.

Zentro horietan bizi ziren pertsonen eskubideak ez urratzeko, eta langileen legezko greba-eskubideari eragin gabe, irtenbidea bilatzen hasi zen, arriskuan zeuden interesak batzea ahalbidetuko zuena.

Inguruabar askok lagundu diote laguntza-zerbitzuetan arreta jasotzen duten adinekoen profila eta zerbitzu horien ezaugarriak aldatzeari. Gaur egun, aipatutako laguntza-zerbitzuen izaera eta ezartze-maila kontuan hartzen baditugu, komunitaterako oinarrizko zerbitzu gisa hartzen direla esan dezakegu. Ondorioz, etengabeko prestakuntza behar dute.

Gizarte-zerbitzuak oinarrizko zerbitzutzat jotzea ala ez, ez da zehaztasun akademiko hutsa, ondorio juridiko garrantzitsuak sor baititzake. Lan-administrazioko agintaritzak hasieran egoitza-zerbitzuak oinarrizko zerbitzu gisa hartzen zituen, eta horregatik, greba egotekotan zerbitzua emango zela bermatzen zuten gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ziren. Hala ere, bere ustez, egoitzetatik kanpoko zerbitzuak, hala nola, eguneko zentroak, ez ziren oinarrizko zerbitzuak eta ondorioz, ez ziren gutxieneko zerbitzu horiek ezarri behar.

Zerbitzu bat oinarrizkoa izan dadin, horren bidez betetako zerbitzuak eta interesak ere oinarrizkoak izan behar dira. Horrelakotzat jo behar dira konstituzioaren bidez babestutako ondasunak, baita oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak ere.

Ezin da ukatu eguneko zentroak eguneko egonaldi-zentro hutsak ez direla, mendeko adinekoei laguntzeko zentroak baizik. Hori dela eta, jardueraren izaerak, horren ezarpenak, eta kexak sortu zituen kasuaren barnean, grebaren iraupenak, oinarrizko zerbitzu gisa hartzea arrazoitzen zuten, eta ondorioz, gutxieneko zerbitzuak ezarri beharra, gure ustez.

Jasotako kexak eragin zituzten kasuetan, grebaren hasieran zerbitzu horiek oinarrizko zerbitzu gisa ez hartzeak greba-egoera baten ondorioz sortzen diren aldaketek eguneko zentroetan laguntza jasotzen zuten pertsonei behar baino neurri handiagoan eragitea ekarri du. Horrela, gatazkaren hasieran, komunitaterako oinarrizko zerbitzua zen ala ez zalantzan jartzen zenean eta artean gutxieneko zerbitzuak ezarri ez zirenean, zerbitzuaren titularrak ez zuen jarduera eten. Horren ondorioz, jarduerak aurrera egin zuen, bere funtzionamendua bermatzen zuen neurririk ezarri gabe.

Zerbitzu bat komunitaterako oinarrizko jarduera izateari buruzko zalantzak ez dagozkie bakarrik laguntza-zerbitzu horiei, gure gizarteko beste jarduera batzuetan ere sortzen direla.

Dena den, laguntza-zerbitzuetan zirkunstantzia berezia dago; izan ere, jasotzaileek –lagundutako adinekoak– babes berezia behar dute eta horien eskubideek ere bereziki arduratsua den babesa izan behar dute. Nahita eman ez bada ere, laguntza desegokiak beren bizi-kalitatea okerragotzea eragin dezake eta horregatik, babes berezi horrek adinekoek laguntza jasotzeko duten eskubidearen eta langileen greba-eskubidearen arteko oreka eraginkorra lortzen lagunduko luke.

Amaitzeko, gogoratu nahi dugu botere publikoek adinekoen ongizatea sustatu beharko dutela “osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdi arloan berariaz dituzten arazoei” erantzuten dieten gizarte-zerbitzuen sistema baten bidez, Konstituzioaren testuaren 50. artikulua oinarritzat hartuta. Beraz, ahal diren baliabide guztiak erabili beharko dituzte, helburu hori betetzeko.

# 3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEN ARAZOEI

Adingabeak, beren ezaugarriengatik, biztanleriako alor bereziki ahula dira, bermatu behar diren berariazko eskubideak dauzkaten pertsonak. Ararteko erakundeak kolektibo honen eskubideen defentsari lehentasunez aditu dio, eta artapena jarduera ildo desberdinetatik gauzatu da:

- kexak ebatzi eta berariazko gomendioak prestatzen;
- adingabe bereziki babesgabeen edo ahultasun handiagoko egoeretan daudenen zenbait talderen arazo zehatzak aztertu eta jarraipena egiten;
- biztanleriaren alor honetan lan egiten duten gizarte eragile, elkarte eta erakundeekin elkarlanean.

Atal honetan 2003 urtean zehar adingabe horien eskubideen defentsan aipatutako jarduera ildo bakoitzean burutu diren jarduera nagusiak laburbildu nahi dira. Gainera, azkeneko puntuan aurreko urteetan egindako zenbait gomendio espresuki aipatzen da, legeen zein araudien bidez garatu beharrekoak, bereziki oraindik atera gabeko Erkidegoko haurrak eta nerabeak artatzeko legeari buruzkoak

## 1. Kexa eta gomendio berariazkoak

Maiz adierazi denez, erakunde honetara iritsitako kexetatik gutxik dute lotura zuzenik adingabeekin, eta are gutxiago dira adingabeek berek aurkeztutakoak. Hala gertatzen da, antza, arrazoi desberdinak direla medio: adingabeak euren eskubideen jakitun ez direlako, erakunde hau beren defentsarako tresna ere badela ez jakitegatik, instituzioetara jotzeko ohiturarik ez dutelako edo nola egin ez dakitelako, familiarekin edo beste pertsona zein instituzioekiko duten mendetasunagatik… azken batean, eurengan bezalaxe laguntzarik gabeko beste kolektibo ahuletan eragina duten arrazoiengatik.

Biztanleriaren alor horrek harremanik handiena duen Administrazioaren zerbitzua hezkuntza zerbitzua da, zalantzarik gabe. Hartara, ikuspegi zabalago batetik, hezkuntzaren ia eremu osoak, unibertsitateko maila gorenak salbu, harreman zuzena dauka gazteen tratamenduarekin gure Erkidegoan (ikus Hezkuntza Saila, txosten honetako II. kapitulua). Badira beste zerbitzu batzuk (babes, osasun zerbitzuak, zerbitzu judizialak…), adingabeentzat beren beregi. Logikoki, kexa eta esku-hartzerik gehienak alor horietaz zaten dira.

Hartara, aurtengo kexa eta jardueren artean, ondokoak bezalako kontuak aztertu dira:

- adingabeek zaintzapeko gune publikoetan jasandako erasoak;
- sexu abusuak, adimen urriko adingabeei eginak;
- nazioarteko adopziorako eskaeretan, bikoteen egokitasunaz erabakitzeko irizpideak;
- adingabeentzako babes zentroetarako irizpideak, gurasoei beren seme-alaben inguruko gorabeheren berri ematea ala ez erabakitzeko;
- ertzainak ikastetxeetan baimenik gabe sartzea;

- ikastetxeetako txostenek seme-alaben zaintza emateko prozesuetan izan ditzaketen ondorioak;
- haurtzaindegi batean ustez izandako tratu txarrak
- eskolatzeko baldintzak eta 0-3 urte bitartekoentzako laguntzak;
- ikastetxeetako eskolatze baldintzak eta osasun artapena, diabetesa edo bestelako gaixotasunak dituzten haurren kasuan;
- desadostasunak unibertsitate-beka eskuratzeko zenbait irizpideren inguruan;
- eskola edo patioren inguruko linea elektrikoek sorrarazten duten segurtasun falta;
- ezgaitasunen bat duten adingabeentzat eguneko zentrorik ez egotea;
- langile gutxi egotea atzerriko adingabeentzako harrera zentroetan;
- desadostasunak zenbait erabaki hartzeko irizpideen inguruan: irakasgai bat ebaluatzeko, beste azterketa bat emateko aukera aztertzeko, edo Ikuskaritzak ikasleen ebaluazioan esku hartzeko;
- adingabeen kasuan, poliziak egiten dituen atxiloketen gorabeherak;
- tutoretzaren betetzea, eta foru aldundiek atzerritik bakarka etorritako adingabeen kasuan erabil behar dituzten irizpideak;
- eskolatze baldintzak hezkuntza behar bereziak dituzten adingabeentzat;
- eskolatze baldintzak ahultasun handiko egoeran dauden adingabeentzat, bereziki:
  - sasoikako langileen seme-alabak
  - bakarrik dauden atzerriko adingabeak
- jarraipenaren eta irizpide komunen beharra gazteentzako babes zerbitzuen eta justizi zerbitzuen artean.

Aurreko adibideetan ikusten denez, azkeneko urteko kexa eta jarduerarik gehienak, aurreko urteetan bezala, bi eremutara bideratu dira:

- hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, bereziki gizartean aukerarik eta babesik gutxieneko kolektiboentzat, hezkuntzako behar bereziak dituztenentzat edo hiru urtetik beherakoentzat;
- adingabeen babesa: desadostasunak erakundeen esku-hartzeen gainean;

Aurreko guztiaz gain, aurten aipatzeko modukoak dira beste kexa batzuk, adingabeen kontrako eraso, ustezko tratu txar eta abusuengatik aurkeztuak, eta gehienetan auzitara eramaten direnak.

Aipatutako bi alor horiek ondorengo atalean ukitzen dira, bakoitza ikuspegi desberdin batetik aztertzen bada ere.

## 2. **Alor bereziki ahulen gaineko arazoen analisia eta jarraipena**

Adingabeen kolektiboaren barruan badira, aldi berean, beren eskubideei dagokienez arrisku bereziko egoeretan dauden talde edo alorrak. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta jarri du aukera gutxiko edo behar bereziko egoeretan dauden haur eta nerabe horiengan. Eta batez ere lan monografiko eta ez-txosten berezien bidez, eta horiei egindako jarraipenaren bidez. Hartara, aurten, jarraipena ondoko zazpi alor hauetara bideratu da, nagusiki:

- haur babesgabeak (arrisku eta babesik gabeko egoerak);
- bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
- adingabe lege urratzaileak (neurri judizialak betetzearen mende);
- sasoikako langileen seme-alabak (eskolatu gabeko benetako egoeretan);
- hezkuntza behar bereziko ikasleak.
- atxilotutako adingabeak: atxiloketaren nondik norakoak;
- buru-gaixotasuna duten haurrak eta nerabeak.

- **Famili babesik gabeko haurren kasuan**, Arartekoak berariazko 42 gomendio eman zituen 1997an plazaratutako ohiz kanpoko txostenean. Geroago, gomendio horiek noraino bete ziren jakitearren, 2001ean informazio zehatza eta eguneratua eskatu zitzaien alorrean ardura duten instituzioei, hau da, diru foru aldundiei eta Vitoria-Gasteizko Udalari. Modu horretan, egindako aurrerapenen eta artean betetzeko zeuden puntuen berri izango zen.
  Aurtengo segimendua, artapena jasotzen duten kolektiboetako bati egin zaio bereziki: haren egoera ezagutzeko eta berarekin erabilitako bitartekoen berri izateko, bakarrik dauden atzerriko nerabeen kasua aztertu da, bere egoeragatik artapen berezia behar baitu (ikus txosten honetako I. kapituluko 1.1.5 atala eta hurrengo paragrafoa). Horretaz gain, babespean dauden eta portaera arazo larriak dituzten nerabeen kasua aztertu da.
- Goraxeago esan bezala, azken urte honetan arreta berezia jarri da **bakarrik dauden atzerriko adingabeen** egoeran. Egindako lana txosten honetan jasota dago (ikus I. kap., 1.1.5 atala). Azken urteotan bildutako datuen arabera, kolektiboa handituz joan da, eta Bizkaiko Lurralde Historikoan bereziki, urri geratu zaizkio instituzioen aurreikuspenak. Kolektiboari artapena emateko, oro har foru diputazioek berariazko baliabideak eta zerbitzuak erabili dituzte. Erakunde honetako kideek dauden babes zentroak (Loiu, Urduña, Martutene, Urnieta eta Vitoria-Gasteiz) bisitatu dituzte, haietako egoera hobeto ezagutzeko, eta alderi positiboak zein hobetu beharrekoak arakatzeko. Egoki iritzi zaionean –aurten kasu– ofiziozko jarduerak burutu ditu ardura duten instituzioen aurrean, batez ere Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Sailean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean.
  Arrazoi desberdinak direla eta (urteotan bildutako informazioa, babes sistemek kolektiboaren beharrei era egokian erantzuteko dituzten arazoak, instituzioetan eta gizartean eragindako kezkak...), hemendik gutxira erakunde honek ohiz kanpoko txosten bat egingo du, egoera zehatz aztertzeko eta behar diren hobekuntzak planteatzeko.
- **Adingabeko lege hausleei** dagokienez, 1998ko ohiz kanpoko txostenean Arartekoak 46 gomendio luzatu zizkien instituzioei. Aurtengo segimenduari esker, gure Erkidegoko atxiloketa-tokiak bisitatu dira (Andoiu, Urtuella, Aramaio, bi autonomi pisu, eta Landa eta Zumarragako zentro berriak) haietako egoeraren berri jasoz. Horretaz gain, bilerak egin dira hainbat talde profesionalekin, eta datuak zein balorazioak eskatu zaizkie neurriak betearazteko ardura dutenei (Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako Zuzendaritza).
  Neurrien betetze maila adierazten duten datu gaurkotuen bitartez, neurri horien bilakaera ezagutu eta baloratu dezakegu, baita txostenaren hasierako gomendioak

betetzeko arazoak agerian utzi ere. Azken urteko datuen artetik, aipatu behar da Bilbon adingabeentzako bigarren epaitegia ireki dela, eta atxiloketa neurriei dagokienez, zentroen sarea indartu dela Zumarraga eta Landan eraikitakoekin. Kolektiboaren egoeraz egindako azterketa txosten honetan jasota dago, I. kapituluko 1.1.6 atalean.

- Arabara patata eta mahatsaren bilketara datozen **sasoikako langileen kasuan**, azken urteotan Arartekoak behin eta berriz nabarmendu du haiekin datozen **seme-alaben egoeraz** arduratu beharra. Izan ere, 2002an gaiaren berariazko azterketa egin zen berriro, eta hala jaso zen Legebiltzarrean aurkeztutako ohiz kanpoko txostenaren atal batean (*Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan*). Aurtengo txostenean ere segimenduaren bitartez lortutako hainbat datu ematen dira kolektiboaren, eskolatze, bizimodu eta bizilekuei buruz (ikus I. kap., 1.1.2 atala).
- **Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei** dagokienez, erakunde honen prestatutako txosten monografikoan, Legebiltzarrean 2001ean banatu eta eztabaidatu zenean, eskola sistemak ezgaitasun fisiko, psikiko eta zentzumenetakoen ondoriozko beharrei eta gizarte edo kultura aldetik ahulen ziren egoerei lotutako beharrei emandako erantzuna aztertzen zen. Egindako azterlanaren arabera, hamar gai bereziki kezkagarri zeuden, eskubideen bermearen ikuspegitik, eta 21 gomendio egiten zitzaizkion hezkuntza administrazioari, batzuk hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari eta bere lehentasunei ukitzen diotenak, eta ikasle horien banaketa –desorekatua eta berdintasun gutxikoa– eta zentro jakin batzuetan biltzea saihesten ahalegintzen direnak. Txostena aurkeztu zenetik urtebete igarota, eta Hezkuntza Saileko arduradunekin bilera bat egin ondoren, sail horri gomendioak betetzeko egindako jardueren gaineko lehenengo erantzun bat eskatu zitzaion; erantzuna jaso eta aztertu ondoren, datu eguneratu gehiago eta informazio osagarriak eskatu ziren. Txosten honetan aurten egindako segimenduaren berri ematen da (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.10).
- **Buru gaixotasuna duten haur eta nerabeen egoera** jada ukituta genuen gaiaren inguruan egindako txostenaren zenbait ataletan (*Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*). Geroago, gaia berriro aztertu zen hezkuntza behar bereziei buruzko txostenean, eta sarritan erakunde honetan kexak jasotzen dira, alorrarekin zerikusia duten alderdi desberdinetatik: babesaren ardura duten instituzioak, zerbitzuetan diharduten talde edo elkarte profesionalak, hezkuntza alorreko langileak eta gurasoak berak ere.

  Aurten bisitaldi bat egin genuen kolektibo horrentzako zentro batera (La Ola, hezkuntza eta terapiarako eguneko zentroa), eta daukagun informazioan oinarriturik, berriro azpimarratzen dugu Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban baliabide gehiagoren beharra dagoela (ikus txosten honetako 1.1.9 atala).
- Bestalde, ziegen gaineko ezohiko txostenaren eta jarraipenean eta **atxiloketa tokietarako** ondoriozko bisitetan, arreta berezia jarri zaie adingabeak atxilotuta egoten diren baldintzei (ikus txosten honetako I. atala, 1.1.11.).

* * *

– Kolektibo hauetako bakoitzaren arazoak independenteki aztertzeak pentsaraz lezake elkarrekin loturarik edo harremanik ez duten adingabe taldeak direla. Ez da horrela, ordea. Sarritan –agian gero eta sarriago– egun talde horietakoren batekoa den adingabea bihar beste batean sartuta ageriko zaigu. Esaterako, babes zerbitzuetatik datozen, artapen psikiatrikoko arazo larriak dauzkaten, edo eskolatu gabe egon diren eta barnerapenean dauden adingabe lege urratzaileen proportzio handia. Errealitate kezkagarri horrek agerian jartzen du gure gizartean benetako «bazterketa zirkuituak» daudela oraindik ere, gizarte eta erakundeetatik lehentasunezko artapena behar duten adingabe kopuru jakin bati ukitzen diotenak.
– Aztertutako alor bakoitzak beren beregiko arazoak dauzka. Baina egia da, halaber, denetan edo askotan arazo erkideak ikusten direla. Hartara, esaterako:

  • zerbitzuen artean koordinatzeko dauden zailtasunek (harrera zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarrizko gizarte zerbitzuak…) eragin txarra daukate artapenaren kalitatean eta esku-hartzeen jarraipenean eta koherentzian;
  • erakundeetako artapena, sarritan, denbora tarte jakin baterako da eta, une zehatz batean, hezkuntzako ibilbidea izan litekeenarekin zerikusirik ez duen zerbaitengatik, eten egiten da, eta jarraitasunik gabe geratzen da.
    Horren haritik, azkeneko urteetan jasotako informazioa kontuan hartuta, bereziki kezkagarriak dirudite, batetik, erreforman dauden adingabeen proportzio handiak (barnerapen neurriez) eta, bestetik, erreforma zerbitzuen eta babes zerbitzuen artean esku-hartzeari dagokionez koordinatzeko eta jarraipenik izateko dauden zailtasunek.

– Erakundeen berezko esku-hartzeez gain, erakunde honi kezkagarri iruditzen zaio komunikabideetan batzuetan esandako kolektibo horietako edo horiek bezain ahulak diren beste batzuetako adingabeekin zerikusia duten albisteak nola ematen diren. Batez ere informazioa poliziaren iturrietatik datorrela dirudienean, eta gizarte alarma edo estereotipoak eta bazterkeria sendotzea eragin dezakeenean. Adingabearen interes gorenak –erakundeen erabaki eta esku-hartze guztien hatsarre zuzendaria- adingabeari ukitzen dioten gaien gainean hedatzen den informazioa gidatu behar du, eta beste edozein interes mediatikoren gainean egon.

## 3. **Gizarte eragileekiko elkarlana eta gizarte sentsibilizazioa**

Biztanleriaren alor honekin zerikusia daukaten kexak gutxi direla azaltzeko, balizko arrazoi gisa, erakundea nolabait ez ezagutzea, edo adingabeek beren eskubideen gaineko, edo eskubideok gurea bezalako instantzia batean defenda ditzaketelako kontzientzi gutxi edukitzea aipatu dira, besteak beste. Azkeneko urtean burututako jarduera batzuk zio horiek moztera bideratuta zeuden, edo zuzenean zein zeharka aldarazi nahi zituzten. Asko, halaber, eskubide horien berri zabaltzeko eta gizarte osoa sentsibilizatzeko asmoz egin dira.

Jarduera horien artean, esanguratsuenak direlakoan, ondokoak azpimarratuko ditugu:

- Lankidetzako lotura edo izandako harremanak arrisku egoeran dauden edo beren beregiko beharrak dituzten adingabeen artapenean lan egiten duten elkarte edo erakunde desberdinekin. Berriztu, Gaztaroan Ekin, Arazoak, Salesianos, Terciarios capuchinos, Iniciativa gitana, Kalé dor kayikó, Gao Lacho Drom, APDEMA, Gorren elkarteak, Atzegi, Aspace, Uribe-Kosta, Besarka, Cruz Roja, Hezilan, Nuevo Futuro, Unicef, ikastegietako guraso elkarteak… horiek bezalakoekin (ikus txosten honetako I. atala, 2.1).
- Elkarte eta erakundeekiko lankidetza honen esparruan Arartekoa eta erakundeko langileek elkarte horiek adingabeen arazoen gainean antolatutako foro edo topaketetan parte hartu duela ere azpimarra daiteke, bai gure Erkidegoan bai hemendik kanpo.
- Euskal Herriko ikastegietan kartelak eta erabilpen pertsonaleko egutegiak banatu dira, haurren eskubideen gaineko Konbentzioa hedatzeko asmoz.
- Ararteko erakundearen web orrialdearen barruan adingabeen arazoen gainean beren beregiko atala jarri da martxan.
- Erakunde hau Gasteizko ikastegietako eskola umeen taldeei aurkeztu zaie, gure egoitza ikustera etorri direnean, udalarekin dagoen lankidetzako egitarauaren barruan.
- Gure erakundea ikasleei aurkezteko bertara joan gaitezen eskatu diguten hainbat ikastegitako esku-hartze zuzena, normalean giza eskubideen gaineko lan sistematikoaren esparruan.
- Giza eskubideen gaineko lan sistematikoan eskoletan erabiltzeko materiala prestatu eta zabaltzeko egindako beken lau deialdien ondorioz, azkeneko bi ikasturteetan ikastegi guztietara jada bidali dira Bigarren Hezkuntzarako materialen karpeta, Lehen Hezkuntzarako haurren eskubideen gaineko beste bat, eta giza eskubideak jolas modura lantzeko baraja, gida eta baliabideen kutxa bat, Bigarren Hezkuntzako ikastegietara eta beste hezkuntza zerbitzu batzuetara. Oraindik amaitzeko eta bidaltzeko daukagu euskarri informatikoko materiala, deitutako laugarren bekaren emaitza (ikus txosten honetako I. atala, 2.3).
- Lehengo jarduera ildo hori askoz ere ikuspegi zabalagoaren barruan sartu behar da: Arartekoak adingabeen artean giza eskubideen errespetuan eta tolerantziaren eta errespetuaren balioetan oinarritutako kultura heda dadin dituen ardura eta konpromisoan. Edozein gizarte demokratikotan beharrezkoa den eta, gurean, hainbeste urtez indarkeria eta hilketaren erabilpen sistematikoarekin bizi garen honetan are beharragoa dena. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorena defendatu nahi izan du, eta bere kudeaketan elkarrizketa, bitartekaritza eta akordioen bilaketa baliatzen saiatu da. Bizikidetasunaren balioak hezkuntza sisteman sistematikoki jorra daitezen proposamenak ere egin ditu. Ikasleen artean giza eskubideen gainean banatzeko eta eskoletan erabiltzeko materialak prestatu eta hedatzea langintza horretako urrats bat besterik ez da.
- Aipatzekoa da, era berean, haur eskubideen gaia jorratzeko asmoz aurten lehenbizikoz zabaldu dela eskola-lanen txapelketarako deialdi bat, gure Erkidegoko ikastetxeei eta ikasleei zuzendua.

## 4. **Betetzeko dauden araudi izaerako gomendioak**

Urte hauetan zehar, erakunde honek, adingabeen egoerari buruz, araudi izaerako hainbat gomendio egin ditu. Batez ere ondokoez ari gara:

- Haur hezkuntza zerotik hiru urtera bitartean araupetu beharra, 1998an erakunde honen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1998ko txosteneko VI. kap., 2. atala), eta gerora hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean berretsi genuena (ikus txosten horretako lehenengo gomendioa).
- Ikastegietako ikasleen eskubide eta betebeharren araudia berrikusi beharra, hori ere gure erakundearen gomendio orokor baten gai izan zena (ikus 1997ko txosteneko VII. kap., 7.3 atala).
- Gure erkidegoko haurrak eta gazteak artatuko dituen lege baten beharra, hiru lurralde historikoetarako irizpide berdinak eta exijitzeko oinarrizko baldintzak ezar ditzana (ikus babesik gabeko adingabeen -1997- eta adingabe lege urratzaileen -1998- gaineko ezohiko txostenetan egindako gomendioak eta txosten honetako I. atala, 1.1.5).
- Hezkuntza behar berezien gaineko ezohiko txostenean egindako zenbait gomendio orokor, araudizko aldarazpenak eskatzen dituztenak. (Bereziki, hezkuntza sistemaren egoera orokorrari eta bere lehentasunei ukitzen dieten lehenengo bost gomendioak) (ikus 2001eko txosten horretako 6. kap.).

Daukagun informazioaren arabera, ondoko ohartarazpenak egin ditzakegun zenbateraino garatu edo bete diren argitzeko:

- Hiru urte arteko umeak eskolatzeko arauei dagokienez, hainbat esku-hartze eta harreman egin ostean Eusko Jaurlaritzak behin-behineko arauak ezarri zituen, bi ikasturterako, abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bitartez. Erakunde honen babesa duten proposamenen berri izateko, eta halaber aipatu arau horiei zer iritzi genien jakiteko, ikusi 2002ko txostenaren II. kapituluko 4. atala.
- Beste araudi batzuk, hauek ere Hezkuntza Sailari dagozkionak (esate baterako, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak edo biztanle behartsuentzako laguntzaren gainekoak) oraindik bidean dira (ikus, azken horiei buruz, honako txosten honen 1.1.10 atala).
- Gure Erkidegorako erakunde honetatik hainbestetan eskatu den haurren eta nerabeen artapenari buruzko legeari dagokionez, aurten Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailetik beste lege-zirriborro bat helarazi zitzaigun, egoki deritzogun ekarpenak egiteko eskatuz.

  Argi dago erakunde honen eginkizunen artean ez dagoela lege-proiektuetarako txostenak edo aldaketak proposatzea; hala ere, gaiaren garrantziagatik, eta kontuan harturik erakunde honek alorraren zenbait alderditan darabilen lana (adibidez, babes zentroetarako eta lege-hausleentzako atxiloketa-tokietarako araugintzan egin ditugun txostenak eta gomendioak), iritzi eta gomendio multzo bat helarazi zitzaion sailari, horretarako hiru bidez baliatuta:

- Zuzeneko ekimenak: Gizarte Ongizateko zuzendariarekin 2003ko maiatzaren 20an izandako bilera.
- Idazki informala: erakunde honetako aholkulariek 2003ko uztailaren 10ean lehengo sail bereko zuzendariari bidalia. Idazkiaren bitartez, eta urte hauetako esperientzian oinarriturik, gure ustez zirriborroan berrikusi beharrekoak ziren puntuak azaldu genizkion.
- Idazki formala: 2003ko uztailaren 18koa, Arartekoak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari bidalia; idazkiak zirriborroan proposatzen den organo bat –Adingabeen Defendatzailea– ukitzen zuen.

Azken idazki horrekin batera txosten luze bat ere bidali zen (“Haurren eta nerabeen artapenari eta zaintzari buruzko Legearen Aurreproiektua: adingabeen defendatzailea eratzeari buruzko azterketa-txostena”); beste dokumentu batzuk bezala, hori ere aztergai dago txosten honetan (ikus III. eranskina).

Laburbilduz, Arartekoak honako hau planteatzen du:

1. Legearen beharra azpimarratzeaz gain, zirriborroa aurreraturik egotea berri pozgarria dela azaltzen du.
2. Zirriborroarekin bat eginez, haur eta nerabeen kasuan eskubideen defentsarako berariazko baliabideak sortzearen alde agertzen da.
3. Ez dator bat Lege Aurreproiektuak adingabeen Defendatzailerako planteatzen duen ereduarekin, eta horretarako dauzkan arrazoiak adierazten ditu.
   Izaera parlamentarioa duen defendatzaile orokor bat egonik, alor jakin baterako defendatzaile bat sortuko balitz –berau ere izaera parlamentarioduna- beharrezkoa litzateke lehendik dauden arauen arabera txertatzea, hau da, Konstituziora, Estatutura eta legeetara moldatzea.
   Multzo konstituzionalaren teoriari helduz gero, bada, Aurreproiektuak planteatzen duen aukera Estatutuaren eta Konstituzioaren aurkakoa litzateke.

Azken iritzi hori, hona laburbilduta ekarria, zehazturik azaltzen da dokumentuaren testu osoan (ikus txosten honetako III. eranskina).

## 4. BERARIAZKO ARRETA ATZERRITARREN ARAZOEI

Aurreko urteetan bezala, 2003an jaso ditugun kexetatik gutxi izan dira atzerritarren egoerari lotutakoak. Lehengo beste txosten batzuetan azaldu dugunez, gure ustez aurkeztutako kexa kopurua txikia izan da pertsona horiek ezer gutxi dakitelako beren eskubideez eta administrazio publikoen jarduera kontrolatzeko tresnez, eta bestalde, horri instituzioetan duten mesfidantza gehitu behar zaio askotan; kontuan izan behar da, gainera, dituzten arazoetako askok lotura dute atzerritarrentzako araubidearekin edo Estatuaren eskumenekoak diren beste alor batzuekin, eta ondorioz, maiz Herriaren Defendatzailearen jo nahiago izaten dute kexak tramitatzeko, berari dagokiolako horrelako kasuen kontrola.

Ildo horretatik, heldu zaizkigun kexetatik, aurtengoan ere gehiago izan dira Administrazio zentralaren jarduerarekin zerikusia zutenak Euskadiko administrazio publikoen jardueraren ondorio zirenak baino.

Estatu eskumeneko alorrei lotutako kexa gehienak administrazioaren funtzionamenduari buruzkoak izan dira, besteak beste, ondoko gaien ingurukoak: egoitza eta lan baimena lortu edo berritzeko tramiteen berandutzea, erantzunik gabe geratzen diren tramiteak eta eskaerak (nazionalitate espainola berreskuratzekoa, jaiotza agiria lortzekoa eta atzerriko gida-baimenak trukatzekoa).

Egonaldi bisaren ukoak eta Ceutako muga-postu batean poliziak emandako tratuak ere horrelako kexak eragin dituzte.

Esan bezala, mota horretako kexak Herriaren Defendatzaileari helarazi dizkiogu, haren eskumen eremuaren barnean sartzen baitira.

Gure jarduera eremuari dagokionez, iritsi zaizkigun kexa gehienak poliziaren ekintzen ondorio izan dira, iaz gertatu zen bezalaxe. Izan ere, horrelako erreklamazioetako gai nagusiak lotura zeukan, batez ere, baimenik gabeko saltoki ibiltariekin eta Bilboko San Frantzisko auzoan oinezkoen gauzen gainean egindako kontrolekin. Atal honetara ekarri dugun kexa bat, saltoki ibiltarien ingurukoa, Herrizaingoaren alorretik aukeratutako erreklamazioen artean ageri da (490/2003). Gainontzeko kasuen xehetasunak alor bereko sarreran bildu ditugu.

Azpimarratzekoa da, halaber, aurtengoan ere azaleratu den beste gai bat, atzerritarrak kontratupeko funtzio publikoan sartzearekin zerikusia duena, hain zuzen. Kapitulu honetako funtzio publikoari buruzko alorrean (5. atala) zehatz azaltzen da gai horretan egin dugun lana.

Interes zuzena dutenek edo haien ordezkari diren elkarteek aurkeztutako erreklamazioez gain, guk geuk ere ekin diogu auziari, eta hona dakartzagu gure jardunen alderdirik adierazgarrienak.

Urrian Arartekoak bere kezka plazaratu zuen, Estatuko Fiskal Nagusiak agindu bat emana baitzuen, bakarka eta legez kanpo Espainian sartu nahian etortzen diren 16 urtetik gorako gazte atzerritarren aberriratzea zela eta. Horretaz gain, erakundeak bat egin zuen Herriaren Defendatzaileak eta beste instituzio bermezale batzuek gaiaren inguruan burututako jardunekin, agindua berraztertzea bultzatuko zutelakoan.

Era berean, erakundeak ofiziozko azterketa bati ekin zion, Vitoria-Gasteizko Udalak antolatutako alokairuko etxebizitza-poltsa baten funtzionamendua zela eta. Prentsan agertutako zenbait informazioren esanetan, bazitekeen kasu horretan atzerritarren kontrako diskriminazio zantzuak egotea, poltsako alogera eskaintza batzuetan maizterra

atzerritarra ez izatea erabiltzen omen zelako baldintza gisa. Kasu horretako jardunaren xehetasunak kapitulu honetan bildu dira, Hirigintza eta Etxebizitzaren alorretik aukeratutako erreklamazioen artean (13/2003OF).

Aurten ere lehenagoko gomendioen segimendua eta kontrola egiten jarraitu dugu, zehazki atzerritik bakarka iritsitako adingabeei dagokienez eta mahatsak edo patatak biltzera datozen sasoikoen kasuan, berauetako asko ere atzerritarrak. Txostenaren I. kapituluan puntu honen gaineko informazioa dago, ezohiko txostenei buruzko atalean.

Era berean, eta gaineko lerroaldean aurrenik aipatutako atzerritarren multzoaren kasuan, ezohiko txosten baten beharra aztertzen ari gara, pertsona horiek gure erkidegoan bizi duten egoera hobeto ezagutzeko asmoz.

Bestalde, giza eskubideekiko begirunea zabaltzeko ekimenak I. kapituluan jorratu ditugu, horretarako berariaz taxututako atal batean. Horren haritik, erakunde honek ikerketa aplikaturako urtero egiten duen beka-deialdiari dagokionez, aurtengo saria jaso duen lanean atzerriko ikasleek Euskadiko hezkuntza sisteman duten integrazio maila eta haien hezkuntza eskubideak jorratzen dira. Horren berri zehatzagoa nahi duenak goraxeago aipatutako kapituluan aurkituko du.

Azkenik, atzera gogorarazi nahi dugu erakunde honek giza talde interesatuekin duen elkarlana. Gaiaren alderdi hori zehatz aztertu da gizarte zibilarekiko harremanak ukitzen dituen atalean, txostenaren I. kapituluan, hain zuzen.

## 5. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEI BERARIAZ ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

Arartekoaren funtsezko helburua herritarren eskubide guztiak defendatzea izanik, esan liteke erakunde honek aparteko ahaleginak egin dituela eskubide horiek erabiltzean oztopo handiagoak dituztenak edonoren pare jartzeko. Alde horretatik, ezgaituen eskubideen defentsa betebehar nagusietako bat izan da erakundearentzat.

Izan ere, azken urteotan Arartekoak ezgaitasunen bat duten pertsonen arazoen berri izan du, aldizka batzuetan, sarritan bestetan, eta bide desberdinetatik iritsita:

- Norbanakoek zein erakundeek zenbait gairen inguruan helarazi dituzten kexak: arkitektura eta hirigintza oztopoak, zergen alorrean hainbat kasutan ezartzen diren neurriak, lana edo etxebizitza eskuratzeko aukerak, minusbaliotasunak neurtzeko erak edo irizpideak...
- Urte hauetan izandako bilerak, interesatuekin, haien familiarren erakundeekin zein laguntza elkarte askorekin eginak...
- Lehenagoko txostena, besteak beste oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzkoa, oinarrizko unitateetarako irisgarritasuna eta mugikortasuna aztertzen zituena; buru-gaixotasunen artapen komunitarioari buruzko txostena, lan munduan sartzeko aukerak jorratzen zituena, edo hezkuntza behar berezien inguruko txostena, eskolatzeko aukerak aztertzen zituena.

2001eko abenduaren 3an Europako Batasuneko Batzordeak Europako Ezgaituen Urtea izendatu zuen aurtengoa –2003–, eta geuk ere bultzada txiki bat eman nahi izan diogu zenbait ekimenen bitartez.

Horren haritik osatu dugun txosten monografikoan (*Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*), gure Erkidegoan enplegua sustatzeko ezarri diren neurrien eragina zehatz aztertzeaz gain, beste lekuetako emaitzekin alderatu dugu. Era berean, lan integrazioa errazten edo oztopatzen dituzten alderdiak hobeto ezagutu nahian, ezgaituen lanpostuen kalitateaz ez ezik kontratatuen zein enpresa kontratatzaileen ezaugarriak ere arakatu ditugu. Hori guztia kontuan harturik, kolektiboarentzat bizi-kalitate hobea ekar lezaketen neurriak proposatzen dira. Txostenaren berri izan nahi duenak, haren laburpena aurkituko du txostenaren beraren 1. kapituluan, baita txostena osoa ere gure web orrian www.ararteko.net, ezgaitasunen bat duten pertsonei buruzko leihoan.

Txosteneko datuek adierazten dutenaren arabera, EAEko ezgaituen lan integrazioa eta lan egoera ez da batere samurra. Adibidez, ezgaituen artean gainontzeko biztanleen artean baino langabezi tasa handiagoa dago: % 33,3 eta % 13,7, hurrenez hurren. Hala eta guztiz ere, ez da hori kolektiboaren lan integrazioa ondoen adierazten duen datua. Izan ere, ezgaituen jarduera tasa da adierazlerik argiena: haien artean, lanerako adina duten 100 lagunetik % 30,9k soilik hartzen dute bere burua aktibotzat; gainontzeko biztanleen artean, aldiz, tasa hori % 53,3koa da. Horren arabera, bada, kolektiboaren % 70ek familia edo gizarte laguntzak dituzte helduleku bakarra, eta aintzat hartu ere ez dute egiten lan munduan sartzeko aukera.

Generoaren araberako datuak ere aztertzen baditugu, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldea areagotu egiten da, bai jarduera tasaren aldetik baita jasotzen diren laguntzei dagokienez ere. Txostenean jasotako datuek adierazten dutenez, aldea nabarmena da, beti ere emakumeen kalterako.

Hortaz, kasu honetan emakumeak bi arrazoirengatik daude bazterturik, ezgaitasuna izan eta emakume izateagatik, hain zuzen. Horren jakitun, erakunde honek hitzaldi bana antolatu zuen Bilbon eta Vitoria-Gasteizen, 2003ko ekainaren 12an lehena eta 13an bestea. Hitzaldiak emakume ezgaituen egoeraz ohartarazi nahi zuen, gizakion eskubideak baliatzeko dituzten oztopoak eta eragozpenak agerian utziz. Bertan, alorrean itzala duen pertsona batek hartu zuen parte: Pilar Ramiro, CERMIko Emakumeen Batzordeburua eta prestakuntza, enplegu eta feminismo-gaietarako arduraduna PREDIF Koordinakundean.

Pilar Ramiro andreak hitzaldietan egindako ekarpena erakundearen web orrialdean aurki daiteke. Hizlariak, oraingo emakume ezgaituen egoera, eskariak eta beharrak aztertu ondoren, botere politikotik erantzun beharreko proposamen batzuk luzatzen ditu, guri honakoan aipatzeko modukoak iruditu zaizkigunak. Izan ere, generoen arteko berdintasuna sustatzeko eta bazterkeria ezereztatzeko politiken ildotik, aukera berdintasuna eskatzen du emakume ezgaituentzat, eta asmo horrekin zenbait neurri eta ekimen planteatzen ditu zeharkako lan-ardatz gisa, norberaren eskubideak eta benetako bizimodu normalerako aukerak gauzatzeko orduan emakume horiek betetzen baitute gizarte sektorerik ahulena. Horren arabera, Estatuak zein autonomi erkidegoek eta toki erakundeek genero berdintasunaren alde bultzatzen dituzten ekimenek zeharkako lan ildo bat osatu behar dute emakume ezgaituen alde.

Bestetik, 2003ko irailaren 24an Eusko Legebiltzarrera helarazi genuen txosten monografikoan, Erkidegoko erabilera publikoko eraikinak eta haietarako irisgarritasuna neurtzean, helburu hori duten ekimen politikoen bilakaera aztertzen ziren, horretarako 1997ko abenduaren 4ko Irisgarritasunari buruzko Legea eta haren garapenerako araudiak abiapuntutzat harturik. Txosten hori ere ikusgai dago lehengo web orri berean eta urteko txosten honetako I. kapituluan.

Irisgarritasunari buruzko txosten horren oinarrian ororentzako diseinuaren ideia dago. Funtsean, kontzeptu horren arabera gizartea bere partaideen aniztasunera moldatu behar da, gizaki guztiek bizitzaren alor guztietan osoki jardun dezaten behar diren ingurune-aldaketak gauzatuz. Hortaz, gizartea aniztasunera moldatze hori bide eraginkor bakarra litzateke gizakien berdintasuna eta haien eskubideen errespetua bermatu nahi bada.

Ororentzako diseinuaren ikuspegitik, gizarte eragile aktiboenen eta instituzioen ekimenek berebiziko garrantzia dute herritar guztiei eskubide berdintasuna eragozten dieten mota guztietako oztopoak –fisikoak eta gizarte zein ekonomiaren arlokoak– desagerrarazteko. Beharrezkoa da, halaber, ezgaituek eta euren elkarteek ere parte har dezaten guztiontzako irisgarritasuna lortuko duen ingurunearen diseinuan.

Ez dago ukatzerik botere publikoek bultzatu dituzten politika eragileei esker pausu garrantzitsuak egin direla ezgaituen aukera berdintasuna eta ororentzako diseinua finkatzeko. Hori horrela izanik ere, egia da oraindik ere lan handia dagoela egiteko, eta horregatik, erakunde honen ustez Europako Ezgaituen Urteak tresna bat izan behar du honako helburuak lortzeko:

- sentsibilizazioa: ezgaitasuna duten pertsonek babesa behar dute bazterkeriaren aurrean, eta eskubidea daukate beren eskubideak osoki eta beste herritarren pare erabiltzeko
- hausnarketa eta eztabaida bultzatu: zein neurri behar diren Europako ezgaituen aukera berdintasuna sustatzeko

Esan gabe doa ezgaitasunak dituzten pertsonek gainontzeko herritarren eskubide berberak dituztela, baina askotan zailtasunak dituzte eskubide horiek baliatzeko. Eragozpen ugari dauzkate bizimodu arrunta izateko eta beste pertsonek dituzten aukerak gozatzeko.

Horren adierazle dira norbanakoek erakunde honetara tramitatzeko helarazten dituzten kexak, haietan botere publikoen jarduera eremu guztiak ukitzen baitira.

Esate baterako, aipatzeko modukoa da, **funtzio publikoaren** alorrean, EAEko Administrazio Orokorreko langile ezgaitu batek aurkeztutako erreklamazioa. Irisgarritasun arazoak zirela medio, interesatuak euskaltegiz aldatu behar izan zuen, eta ondorioz bere arduraldi-orduak ez zetozen bat beste enplegatuenekin, hizkuntza prestakuntzarako programan diharduten euskaltegiek eskola ordutegi desberdinak zituztelako. Hori zela eta, interesatuak nolabaiteko konpentsazioa eskatzen zuen.

Erreklamaziogilearen egoera arrazoitzeko, EAEko Administrazioak gogora ekartzen zuen euskara ikastaroetarako deialdiaren arabera, IVAP-HAEEk antolatutako taldeetara ez ezik, bestelako euskaltegi publiko eta pribatuetara ere joatea zegoela, baina ez zuen inondik ere aztertzen kexan egindako eskaera, ordu-konpentsazioak jasotzekoa, alegia.

Horren aurrean, interesatuaren egoera bideratu nahian erakunde honek aterabide izan zitekeen aukera batez ohartarazi zuen, bere ustez eskaera hori euskara eskolak lan orduetatik kanpo hartzeko eskatzen –eta onartzen– diren eskaeren pare jartzeko modukoa baitzen. Izan ere, horrelako kasuetan baimen ordainduak jasotzeko aukera dago, hala adierazten baitu lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmenak 10. artikuluan: “*...egunero eta lan orduetatik kanpo gutxienez 2 orduko euskara eskolak hartzen dituztenek, edo lanalditik kanpo ere barnetegi erregimeneko ikastaro batera doazenek, gastuak kobratzeaz gain, eskubidea izango dute baimen ordaindua edukitzeko, aurreko lerroaldean zehazten diren baldintzen arabera. Baimen berbera izango dute Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikastaroetara joaten direnek, nahiz eta eskola bi ordu baino gutxiagokoa izan egunean. Baimenak, hartutako eskola orduen laurdena iraungo du. Barnetegien kasuan, baimenaren iraupena barnetegira joandako egun baliodunen herenekoa izango da. Edonola ere, urtean baimenaren gozatzea ez da inoiz bost egun baliodun baino luzeagoa izango, eta irizpide berbera erabiliko da interesatuak baimen bat baino gehiagorako eskubidea badu segidan izandako ikastaro desberdinetara joateagatik.*”

Administrazioa prest azaldu zen erakunde honen iradokizuna kontuan hartzeko, hau da, oraingo lan baldintzak arautzeko Hitzarmenak lan orduetatik kanpoko euskara eskolengatik onartzen dituen baimen ordainduak kexak azaldutakoa bezalako kasuetara ere zabaltzeko.

**Hezkuntza behar bereziei** dagokienez, aurtengo kexen artetik, nabarmentzekoa da % 75eko minusbaliotasun fisikoa duen haur baten gurasoek jarritakoa. Haurra eskolara ikastetxe itundu batean hasi dela eta, gurasoek uste dute hezkuntza behar bereziak dituzten haurrentzako artapenak berdina izan beharko lukeela ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan, ikastetxe publikoetan hezkuntza bereziko laguntzaileen zaintza baitute jantokietan, eta zerbitzu hori ezinbestekoa gertatzen zaie gurasoei famili eta lan ardurak bateragarri egiteko.

**Hirigintzaren alorretik** aukeratu dugun kexaren laburpenean pertsona batek bere eraikinean igogailua jartzeko obra-lizentziak eragindako arazoak azaltzen zituen, lizentziak baimena ematen baitzuen solairuetarako eskailerak estutzeko, eta horrek auzokideen ibilia eragotziko zuen eraikinaren barruan.

Erakunde honetatik aintzat hartu zen eraikin eta eraikuntzetako oztopo arkitektonikoak desagerraraztearen garrantzia, horrela ziurtatu egiten baita mugikortasun

urriko pertsonak eraikinetara sartu eta ibiltzea. Hala ere, oztopoak kentzeak ez du kalterik eragin behar eraikinetan garrantzia duten beste ezaugarrietan, adibidez oinarrizko eraikuntza-baldintzetan. Izan ere, eraikinetako segurtasun eta babes neurriak ziurtatzeko, beharrezkoa da suteen kontrako arauak betetzea, etxebizitzak era egokian hustu ahal izan daitezen. Bestalde, irisgarritasuna ez da soilik bermatzen altuera tarteak gainditzen dituen jasogailu bat ezarriz; horretaz gain eraikineko atalen artean ibilbide egokiak ziurtatu behar dira korridore eta eskaileren bitartez, eta noski, esan bezala jasogailua instalatuz, batez ere aulki gurpilduna erabiltzen dutenak gogoan izanda.

Ezgaitasuna duen beste pertsona batek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrean jarduteko eskatu zigun; erreklamazioan azaltzen zuenaren arabera, administrari laguntzaile zen 1992tik Bigarren Hezkuntzako institutu batean, eta behin baino gehiagotan eskatu izan zion sailari institutu horretako oztopo arkitektonikoak desagerraraz zitzala, baina beti jaso zuen ezetza. Horren berri izanik, informazio eske jo genuen sailarengana, zentroa irisgarri bihurtzeko lanak egin ote zitezkeen jakin nahi genuen eta.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailetik azaldu zitzaigunez, eskatua zeukaten proiektua, eta laster jasotzea espero zuten. Azaldu ziguten, halaber, lanen kontratazioa presazko espediente baten bitartez tramitatuko zela, eta hortaz, oztopoak kentzeko lanak 2004ko ekainean hastea espero zutela.

Jasotako beste salaketa batzuek ziotenez, Barakaldoko Gurutzetako Ospitaleko aparkalekuan ere arazoak zeuden sartzeko. Egin beharreko jardunak burutu ziren aparkalekuaren ardura zein administraziorena zen jakiteko, eta azkenean Osakidetzak jakinarazi zigun kexaren berri eman ziola aparkalekua ustiatzeko esleipena duen enpresari. Enpresak, bere aldetik, irisgarritasuna errazteko lanak burutuko zituela azaldu zuen.

Halaber, instituzio honen esku hartzea eskatu zen Bilbon eta Lezon eraikitako oinezkoen zaldainetako arazoak zirela eta. Bi kasuetan zaldainak gehiegizko malda zuela salatzen zen.

Hiri inguruari eta eraikuntzari dagokionez, hedabideen bitartez jakin genuen Vitoria-Gasteizko Europa gizartetxeko aparkalekuko igogailua ez zebilela, eta ondorioz, mugikortasun urriko pertsonak ezin ziren aparkalekuan sartu. Txosten hau bukatzear dugula, Vitoria-Gasteizko Udalari eskatutako informazioaren zain gaude.

Azkenik, eta honako honetan ere ofiziozko bidetik, Arartekoak Miramar Jauregian egindako sarrera berria aztertu zuen, irisgarritasunari buruzko arauak betetzen zituen argitzeko.

Erakunde honetako kide batzuk Jauregira agertu ziren, eta bertan egiaztatu zutenez, sarbide berrian eskailerak baino ez daude; ez dauka, beraz, mugikortasun urriko pertsonei sartzea erraztuko dien arrapalarik. 2003ko uztailaren 18an eskaera bat helarazi zitzaion Donostiako Udalari, eta harrezkero beste eskaera batzuk zuzendu arren, ez dugu inolako erantzunik jaso.

Esan beharra dago, bestalde, nekez lortuko dela ezgaitasuna dutenak erabat gizarteratzea, beren etxebizitza-eraikinetako oztopo arkitektonikoak deuseztatzen ez badira. Izan ere, aurtengo ekitaldian oso adierazgarria izan da zenbait erreklamaziok gai berbera ukitzea, haietan salatzen baitzen babes ofizialeko etxebizitzen kasuan mugikortasun urriko pertsonentzat gordetakoak ez zeudela behar bezala egokituta irisgarritasunari dagokionez.

Gure iritziz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ahalegin handiagoak egin beharko lituzke indarrean dauden irisgarritasunari buruzko arauetan

jasotako neurriak betearazteko, batez ere apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua ezargarri zaien etxebizitzen kasuan. Aipatu dekretu horretan irisgarritasun arau teknikoak onartzen dira hiri inguru, gune publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetarako. Azpimarratu behar da orain esleipendunei ematen ari zaizkien zenbait etxebizitzen sustapenak aurreko araudi teknikoaren arabera burutuak direla (1980ko martxoaren 3ko Agindua, babes ofizialeko eraikinetan minusbaliatuentzat gordetako etxebizitzetako sarbide, jasogailu eta barne ezaugarriei buruzkoa). Horrelakoetan, Administrazioak arauaren interpretazio bermatzaile bat egin behar du, ezgaitasunak dituztenen kolektiboa integratzeko eta eraikin guztietarako irisgarritasuna ziurtatzeko, horretarako oztopo arkitektonikoak ezabatuz.

Autonomia Erkidegoan, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeak neurriak hartzen ditu Erkidegoko herritar guztiei komunikazioa eta inguru fisikorako irisgarritasuna ziurtatzeko. Neurri horiek zuzenduta daude, bereziki, edozein arrazoi direla medio erabat gizarteratzeko trabak edo mugak dituztenei.

Legearen 9.3 artikuluaren arabera, sustatzaileek egokitu egin behar dute etxebizitza esleipendunaren ezaugarrietara.

Hortaz, pertsonaren buruaskitasuna bermatu nahian, eta 20/1997 Legeak agindutakoa kontuan harturik, ez dago interpretazio murriztailerik egiterik 1980ko martxoaren 3ko Ministerioaren Aginduaz; horren arabera etxebizitza ezgaitasuna duen pertsonaren beharretara egokitzeko ardura norbaitek hartzekotan, sustatzaileak hartu behar du bere gain.

**Zergen** alorrean, ezgaituen egoerak nabarmen egin du hobera PFEZ ordaintzeari dagokionez. Hobekuntza horiek hurrengo aitorpen aldian (2003ko ekitaldian) igarriko dira. Zehazki, jarduneko lanaren etekinen kasuan, hobari ezargarriaren hazkuntza-portzentajeak gora egin du ezgaituak diren hartzaileentzat, eta horretaz gain, neurriaren ezarpen eremua % 33-% 65 bitarteko minusbaliotasuna duten langileetara ere zabaldu da, langileek mugitzeko edo lana egiteko duten gaitasuna gorabehera. Hona hemen urte batetik besterako aldaketak:

### HOBARIEN GEHIKUNTZA EZGAITASUNA LANGILEENTZAT

| 2002. urtea | 2003. urtea |
|---|---|
| Ez dago hazkuntzarik hobari orokorretan | % 75: jarduneko langile ezgaituak, haien minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65etik beherakoa bada. |
| % 100: jarduneko langile ezgaituak, haien minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65etik beherakoa bada eta lanera joateko edo burutzeko hirugarrenen laguntza behar badute, edo mugikortasun urria badute. | % 150: jarduneko langile ezgaituak, haien minusbaliotasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65etik beherakoa bada., edo mugikortasun urria badute. |
| % 150: jarduneko langile ezgaituak, haien minusbaliotasuna % 65ekoa edo handiagoa bada, edo ezgaitasuna epaileek aitortuta badute. | % 200: jarduneko langile ezgaituak, haien minusbaliotasuna % 65ekoa edo handiagoa bada, edo ezgaitasuna epaileek aitortuta badute. |

Bestalde, ondorengo koadroak azaltzen duenez, PFEZen ezgaitasunengatik egiten diren kenketek nabarmen egin dute gora, eta horrez gain, % 65eko edo hortik gorako ezgaitasun egoera sortu da, hau da, hirugarren baten laguntza behar dutenen kasua (dagokion neurketa abenduaren 23ko Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinen arabera egiten da):

**KENKARIAK EZGAITASUN KASUETAN**

| 2002. urtea | 2003. urtea |
|---|---|
| % 33tik % 65era bitartean: 400 euro | % 33tik % 65era bitartean: 600 euro |
| % 65etik % 75era bitartean: 614 euro | % 65etik gora: 920 euro |
| % 75etik gora: 920 euro | % 75etik gora, hirugarren baten laguntzagatik 15 puntu lortzen baditu: 1.100 euro.<br>% 75etik gora, hirugarren baten laguntzagatik 40 puntutik gora lortzen badu: 1.400 euro. |

Bestalde, ezgaitasuna duten pertsonek ezbaian jarri dituzte, aspalditik, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezitik ("matrikulazio zerga" delakoa) eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik (TMIZ) salbuetsita geratzeko irizpideak. Izan ere, matrikulazio zergatik salbuetsita geratzeko, nahikoa zen ibilgailuaren titularrak minusbaliotasuna egiaztatzea. Zirkulazio zergaren kasuan, ordea, baldintza gehiago bete behar ziren, esate baterako, titularrak bere ezgaitasuna gainditzeko moduko egokitzapenak eginda izan behar zituen; gainera, ibilgailuak ezin zituen zehaztuta zeuden potentzia mugak gainditu...

Erakunde hau baldintzen desberdintasuna ezabatzearen alde agertu da, eta hari beretik, TMIZi eta matrikulazio zergari ezartzen zaien salbuespenak ezaugarri berberak izatea proposatu du.

Gainera, 2003aren hasieran indarrean hasi zen Estatuan abenduaren 27ko 51/2002 Legea, Toki Ogasunei buruzko 39/1988 Legea aldatzen zuena; lege berriaren arabera, ibilgailua TMIZ ordaintzetik salbuetsirik geratuko zen minusbaliotasuna egiaztatuta zuen norbaiten izenean matrikulaturik bazegoen, eta pertsona horrek bakarrik erabiliko bazuen. Hala ere, Euskadin neurri hori ez da hasieratik bere horretan ezarriko, salbuespena lurralde historikoetara zabaltzen duten hiru foru arauek ezarritakoaren arabera, gurean aldaketa hori 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko baita indarrean.

**Barne gaietako** alorrari dagokionez, benetan kezkagarria iruditu zaigu ezgaituentzat erreserbatutako aparkatzeko plazen arazoa, zenbait udalerritan maiz era desegokian erabiltzen direlako. Zoritxarrez, aurtengoan ere arazo hau kexa iturria izan da, eta ofizioz jardutera bultzatu gaitu.

Pertsona batzuek oso begirune gutxi dute erreserbatuta dauden aparkatzeko plazekin; babes berezia merezi duten herritarren eskubideei larriki erasotzeaz gain, jokamolde horrek gutxietsi egiten ditu pertsona horien gorabeherak.

Horregatik, ezinbestekoa da udalek eskubide horiek irmo eta tinko defendatzea, zorrozki ziurtatuz erreserbatutako plazak lege-ordenamenduak agindu bezala erabiltzen direla.

**Gizarte ongizateari** erreparatuta, hiru ekinbide hasi dira ofizioz, hainbat gizarte laguntza jasotzeko adin muga bat ezarri baita baldintza bakar gisa, eskatzaileak laguntza horien premia duen edo ez kontuan hartu gabe. Kasu honetan aipatu beharrekoak dira Arabako taxi-bonuaren zerbitzua eta Arabako eta Bizkaiko norbanakoentzako laguntzak, ezgaituentzat aurreikusiak.

Taxi-bonuaren kasuan, Arabako Foru Aldundiari adierazi zaio laguntza jasotzeko ezarrita duen adin mugak –65 urte gehienez– aukerarik gabe uzten dituela muga horretatik gora dauden pertsona asko, benetan laguntza horren beharra izan arren. Gai honen nondik norakoak jasota daude gizarte ongizate alorreko kexa laburpen batean (2. kapituluko 2. atala; 1227/2002 zenbakiko laburpena).

Taxi-bonua deritzon laguntzak ezaugarri desberdinak ditu hiru lurralde historikoetan:

Araban, Foru Aldundiak elkarlanerako hitzarmenak sinatuta ditu Vitoria-Gasteiz, Laudio, Amurrio, Arrazua-Ubarrundia eta Aguraingo Koadrilarekin. Ikusten denez, zerbitzua ez da lurralde guztira zabaldu. Finantzazioa foru erakundearen eta udal horien artekoa da. Udalerri guztietan, eskatzaileak 12 urte baino gehiago izan behar ditu. Laudio eta Vitoria-Gasteizen kasuan 65 urte izan behar dituzte gehienez. Gogoan izan behar da bi udal horietan Arabako biztanleen % 93 bizi direla. Vitoria-Gasteizen, zenbait kasutan, taxi-bonua 70 urteko adineraino luza daiteke.

Gipuzkoako Foru Aldundiak programa bat du mugikortasun arazo handiak dituztenek taxia erabili ahal izan dezaten. Programa lurralde osorakoa da, eta baldintza bakarra 12 urtetik gorakoa izatea da. Beraz, beste baldintzak betetzen dituzten adin horretatik gorako guztiek taxi-bonua eska dezakete. Programa urriaren 1eko 55/2002 Foru Dekretuak araututa dago.

Bizkaian ofiziozko jardunari ekingo zaio, Foru Aldundiak taxi-bonuaren zerbitzua beharretara egokitzeko dituen irizpideen berri izateko.

Gizarteratzea errazteko asmoz, goian azaldutakoez gain, aldundiek banakako laguntzak ere eskaintzen dizkiete ezgaituei, ezgaitasunaren ondorioak arinduko dizkieten elementuak eskura ditzaten.

Era horretako laguntzak modu desberdinean antolatuta daude lurralde historiko batetik bestera: Araban eta Bizkaian 65 urteko adin muga ezarrita dute (martxoaren 10eko 17/1998 Foru Dekretua eta martxoaren 25eko 66/2003 Foru Dekretua, hurrenez hurren). Araban adinekoentzako laguntza tekniko batzuk aurreikusten dira, baina ez dute horretarako arau zehatzik. Gipuzkoan, ordea, deialdi orokorrak (maiatzaren 2ko 38/2001 Foru Dekretua) ez du adin muga hori ezartzen, eta beraz –oso kasu zehatzetan izan ezik– 65 urtetik gorakoek ere eska ditzakete horrelako laguntzak.

Laguntza teknikoetarako zein bestelakoetarako adin muga bat ezartzeak nabarmen murrizten du adineko pertsona askoren ongizatea, haien bizi kalitatea goratzeaz gain, laguntza horiek erraztu egiten baitute nork bere etxean jarraitzea. Izan ere, laguntza horien bidez eskuragarri jartzen zaizkie hainbat baliabide (betaurrekoak, audifonoak, ohe giltzatuak, garabiak, bainugela edo etxeko beste

atalak egokitzeko lanak...), 65 urtetik gorako jende askorentzat benetan garrantzizkoak direnak, hain zuzen.

Helburu horrekin Araba eta Bizkaiko Aldundiekin hasitako jardunak bukatzeko daude oraindik.

Jorratu beharrekoa iruditu zaizkigu, halaber, laguntza zentroen ezaugarriak, zehatzago buru atzerapenak edota gaixotasunak eraginda jokaera arazoak dituztenen kasuan. Gazteentzako zentroetan ez ezik, gabeziak adinekoentzako artapen zentroetan eta ezgaitasuna dutenentzako zentroetan ere antzeman dira. Izan ere, hutsuneak daude horrelako arazoen tratamenduan eta artapenean, eta horren haritik Bizkaiko Foru Aldundiarengana jo dugu. Araban ere antzeko kasu bat izan dugula eta, lurralde horretan gaia dagokion gizarte eta osasun arloko batzordean tratatu dezaten proposatu dugu. Arabako kasu hori xeheagoa azaltzen da txosten honetako gizarte ongizateari buruzko atalean (2. kapituluko, 2. atala; 883/2002 zk.ko kexa laburpenean).

Azkenik, Europako Ezgaituen Urtea izan den honetan herriaren defendatzaileek hausnarketa egin nahi izan dute pertsona horien eskubide konstituzionalei buruz, eta horretarako gaiari buruzko tailer monografiko bat antolatu zen Vitoria-Gasteizen.

Asmo berberak bultzaturik, gaiari buruzko ondorioak biltzen dituen agiri bat onartu zen Albaceten, XVIII. Herriaren Defendatzaileentzako Koordinazio Jardunaldietan. Agiri horren testua aztergai dago txosten honetako I. kapituluan.

# III. ATALA

# ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

## 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jarduera zenbakitan bilduko dugu. Beraz, hurrengo orrialde hauetan administrazio ezberdinei eragiten dieten kexen kopurua, aipatu kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren xehetasun osoz agertuko ditugu. Azterketa soziologikoa eginez, erreklamatzeko moduak, erabilitako hizkuntza, etab. ezagutuko ditugu eta zuzeneko arreta eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera zehatz-mehatz azalduko dugu. Kopuruak estatistika-kapitulu honetan zehar ematen dira, baina jarraian laburpen gisa honako hiru alderdiak azpimarratuko ditugu: erakundeak eskaintzen dituen arreta eta informazioari esker, haren eta biztanleen artean sortzen den harremana; erakundearen eraginkortasun-maila; eta erreklamaziogileek Arartekoaren esku-hartzeaz egiten duten balorazioa.

2003. urtean zehar 3.548 kontsulta izan ziren, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure bulegoetara bertaratu diren pertsonenak. Arartekoaren zuzeneko arretarako bulegoetan bisita-kopurua guztira, 2.289, nabarmenki hazi zen Donostiako bulegoan. Jasotako bisita guztietatik 691 kexatan gauzatu dira, hau da, % 30, arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lana, arrazoi batengatik edo beste batengatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzea agerian utziz. Gainera, Internet herritarrek erreklamazioak jartzeko dituen bide gisa finkatu da. Izan ere, urtean zehar, kexen % 20,33 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu (www.ararteko.net).

Kexen kopuruari dagokionez, 2003an, herritarrek guztira 1377 erreklamazio aurkeztu dizkiote Arartekoari. Kontuan izan behar da kexetako batzuek dozenaka sinaduraren babesa zutela eta kexen % 13,36 kolektiboren batek aurkeztuak izan direla.

Urtean zehar, gainera, ofiziozko 116 espedienteri eman zitzaien hasiera, iaz baino 25 gehiagori. 2003. urtean bertan tramitatu diren kexei dagokienez, 335 kasutan irregulartasunak atzeman ziren, hots, aztertu diren banakako edo taldekako kexen % 32,15ean. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak konpondu ahal izan zituen irregulartasunen bat agertu zuten erreklamazioen % 93,1ean. Kasu gehienetan (% 91,1) ez zen beharrezkoa izan gomendiorik egitea. Hortaz, erakundearen eraginkortasun-maila oso ona dela ikus daiteke.

Jarduketa baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkesten emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso edo nahiko positibotzat jotzen da (galdekizuna erantzuten dutenen % 83,74aren ustez), baita euren arazoa konponduta ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso dutenen pertsonen artean % 75ek balorazio positiboa egin dute. Gainera, ia % 90ek baiesten dute beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko lieketela administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

***Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun maila***

| | % | % |
|---|---|---|
| **Konpondutako irregulartasuna** ................ | | 93,1 |
| Gomendiorik gabe .............................. | 91,1 | |
| Gomendioa onartuta ........................... | 8,9 | |
| **Konpondu gabeko irregulartasuna (gomendioa ez da onartu)**...................... | | 6,9 |

(Ikus 2. diagrama eranskinean)

2003an aurkeztutako 1.377 erreklamazioetatik 1.066 izapidetzea onartu da, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Taldeek (ekologista, auzo elkarte eta abarrek) % 13,36 aurkeztu dituzte.

**- Jasotako kexak**

Arestian esan dugunez, 2003an guztira 1.377 kexa jaso dira, eta horietako batzuek dozenaka sinaduraren babesarekin etorri dira, hala nola, Gasteizko Ariznabarra zaharrentzako egoitzaren auziari buruzkoa edo batxilergoaren arauketa berriaren gainekoa.

***Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 - 2003)***

| Urtea | Kop. |
|---|---|
| 1989 | 585 |
| 1990 | 1.159[1] |
| 1991 | 766 |
| 1992 | 1.781 |
| 1993 | 827 |
| 1994 | 747 |
| 1995 | 1.164 |
| 1996 | 1.674 |
| 1997 | 1.991 |
| 1998 | 2.660[2] |
| 1999 | 1.283[3] |
| 2000 | 1.231 |
| 2001 | 1.513[4] |
| 2002 | 1.253 |
| 2003 | 1.377 |

[1] 545ek kexa berdinen multzoa osatzen dute.
[2] 1.143ek kexa berdinen bi multzo osatzen dituzte.
[3] 62k kexa berdinen multzoa osatzen dute.
[4] 264k kexa berdinen bi multzo osatzen dute.

(Ikus 3. diagrama eranskinean)

**- Onartu gabeko kexak**

Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikuluak aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2003. urtean guztira zenbatutakoen artean, lehenengo eta behin, dena delakoarengatik onartu ez diren kexak bereiztu behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegietan planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo gelditzeagatik.

Nolanahi ere, 2003. urtean erreklamazioei ahalik eta estaldura juridikorik handiena eskaintzeko politika mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauei herritarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du herritarrei gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

***Onartu gabeko kexak eta egoerak***

| | |
|---|---|
| Norbanakoen arteko auzia | 59 |
| Epai bidean | 32 |
| Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik | 31 |
| Eskumen eremutik kanpo | 22 |
| Irregulartasun eza nabaria | 14 |
| Izenik gabe aurkeztu da | 9 |
| Legezko epeen zain egon beharra | 9 |
| Formazko akatsa | 3 |
| Estatuko Herri Defendatzailearekiko bikoiztasuna | 3 |
| Urtebetetik gora igaro da | 2 |
| Guztira | 184 |

(Ikus 4. diagrama eranskinean)

**- Estatuko Arartekoari edo beste ararteko batzuei bidalitako kexak**

Badira Estatuko administrazioaren jardueraren aurkako kexak, gure Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, ez daudelako gure kontrolpean. Erreklamazio horiek Estatuko Arartekoarengana bideratzen dira. Beste kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako legebiltzarren mandatariengana bideratzen dira, esaterako Andaluziako Arartekoarengana edo Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges delakoarengana.

2003an 85 erreklamazio Estatuko Arartekoari bidali dizkiogu eta 5 beste ararteko batzuei.

| | |
|---|---|
| Estatuko Defendatzaileari bidalitako kexak | 85 |
| Beste ararteko batzuei bidalitako kexak | 5 |

**- Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, ez direnak zehazki euskal herri administrazio baten jarduera jakin baten aurka zuzendu, eta horiek, estatistiken aldetik bereiztuta zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat kudeaketa egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2003an 28 jaso ditugu.

| | |
|---|---|
| Zenbait kudeaketa eragin dituzten kexak .................................. | 28 |

**- Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa kopurua ondo interpretatzeko modua**

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduketek eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herritarren administrazio horren funtzionamenduarekiko duten iritzi txarrarekin, akatsik nahiz gehiegikeriarik, edo legea betetzen ez duten jarduketak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da aurreko lerrokadan kexa kopuruaren interpretazioari buruz azaldutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela aurretiaz administrazio jakin baten jarduketak eragindako kexa kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritziz, kexa kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egin beharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

## 2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako arloen arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu 2003an aldaketa batzuk egon direla arlo bakoitzean biltzen den erreklamazio kopuruari dagokionez. Gizarte Ongizatearen arloan izandako kexen kopurua nabarmen hazi da, Gasteizko Ariznabarra zaharretxearen auziaren ondorioz jarritako kexen eraginez. Hezkuntza Sailari buruzkoak ere gehitu dira, batxilergoaren arauketa berriaren gainean kexa bat baino gehiago egon baita.

***Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera eremuka***

| | **Jasotako kexak** | **%** |
|---|---|---|
| Gizarte Ongizatea | 157 | 14,73 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 143 | 13,41 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 136 | 12,76 |
| Herrizaingoa | 107 | 10,04 |
| Funtzio Publikoa | 100 | 9,38 |
| Osasuna | 92 | 8,63 |
| Hezkuntza | 91 | 8,54 |
| Ogasuna | 70 | 6,57 |
| Kultura eta Elebitasuna | 66 | 6,19 |
| Ingurumena | 47 | 4,41 |
| Justizia | 33 | 3,10 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 19 | 1,78 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 5 | 0,47 |
| Guztira | 1066 | 100 |

(Ikus 5. diagrama eranskinean)

**- Kexen sailkapena azpiarloka**

2003an jasotako kexak gaika aztertuz gero, hurrengo koadroan azpiarlo bakoitzak gaikako arlo bakoitzean (Ararteko erakundeak horietan sistematizatzen du bere lana), egon diren aldaketetan duen eragina ikusten da.

***Jasotako kexen banaketa jardueraren azpiarloen arabera***

| | | |
|---|---|---|
| **Gizarte Ongizatea** | | **157** |
| Zaharrei laguntzea | 79 | |
| Diruzko gizarte prestazioak | 39 | |
| Haur eta nerabeei laguntzea | 11 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura | 10 | |
| Familiei laguntzea | 9 | |

| | | |
|---|---|---|
| Beste batzuk | 5 | |
| Ezgaituei laguntzea | 3 | |
| Emakumeei laguntzea | 1 | |
| **Hirigintza eta Etxebizitza** | | **143** |
| Etxebizitza | 64 | |
| Hirigintza arauen betetzea eta aurria | 32 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 16 | |
| Hiri antolamendua | 12 | |
| Irisgarritasuna | 11 | |
| Hirigintza kudeaketa | 7 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| **Herri lanak eta Zerbitzuak** | | **136** |
| Tokiko zerbitzu publikoak | 33 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm prozedura. | 31 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz.. | 24 | |
| Nahitaezko desjabetzea. | 11 | |
| Garraioak | 10 | |
| Landa bide eta errepideak. | 7 | |
| Beste batzuk | 5 | |
| Irisgarritasuna | 4 | |
| Obren burutzapena. | 4 | |
| Beste zerbitzu publiko batzuk. | 4 | |
| Obren proiektuak | 3 | |
| **Herrizaingoa** | | **107** |
| Trafikoa | 55 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 26 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 15 | |
| Jokoak eta ikuskizunak | 5 | |
| Beste batzuk | 4 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| Herritarren segurtasuna | 1 | |
| **Funtzio Publikoa** | | **100** |
| Funtzio publiko orokorra | 44 | |
| Irakaskuntzako funtzio publikoa | 32 | |
| Osasuneko funtzio publikoa | 18 | |
| Poliziaren alorreko funtzio publikoa | 3 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 2 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Osasuna** | | **92** |
| Erabiltzaileen eskubideak | 40 | |
| Osasun publikoa | 21 | |

| | | |
|---|---|---|
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 14 | |
| Osasun artapena | 11 | |
| Adimen osasuna | 3 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 2 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| **Hezkuntza** | | **91** |
| Eskubideak eta betebeharrak | 52 | |
| Unibertsitateko irakaskuntza | 9 | |
| Beste batzuk. | 9 | |
| Ikastegiak | 7 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 4 | |
| Bekak eta beste laguntza batzuk | 2 | |
| Hezkuntza berezia | 2 | |
| Haur hezkuntza | 2 | |
| Arte irakaskuntzak | 2 | |
| Hizkuntzen irakaskuntzak | 1 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 1 | |
| **Ogasuna** | | **70** |
| Udal zergak | 15 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 14 | |
| Foru zergak, PFGZ | 14 | |
| Goru aldundiek udal zergak kudeatzea | 12 | |
| Udal tasak | 9 | |
| Foru zergak, BEZ | 5 | |
| Foru aldundien prezio publikoak | 4 | |
| Beste batzuk | 3 | |
| Foru zergak, ondorengotzak eta dohaintzak | 2 | |
| Udal prezio publikoak | 2 | |
| **Kultura eta Elebitasuna** | | **66** |
| Elebitasuna | 49 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 7 | |
| Kirola | 5 | |
| Kultur ondarea | 2 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 2 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| **Ingurumena** | | **47** |
| Jarduera sailkatuak egoitzazko lurzoruan | 28 | |
| Ingurumenaren beste ukipen batzuk | 10 | |
| Jarduera sailkatuak industria lurzoruan | 4 | |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 2 | |
| Hondakinak eta isurketak | 2 | |
| Jard. sailkatuak lurzoru urbanizatu ezinean | 1 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Justizia** | | **33** |
| Espetxe gaietako jarduketak | 13 | |
| Abokatu eta prokuradore bazkunak | 11 | |
| Justizia administrazioaren funtzionamendua | 4 | |
| Beste batzuk | 2 | |
| Doako laguntza juridikoa | 1 | |
| Eskubideak eta askatasunak | 1 | |
| Adin txikiko lege-hausleak. | 1 | |
| **Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa** | | **19** |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 7 | |
| Industria | 4 | |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 2 | |
| Kontsumoa | 2 | |
| Kontrat. araubidea, ondarea eta adm. erantz. | 2 | |
| Merkataritza | 1 | |
| Beste batzuk | 1 | |
| **Lana eta gizarte segurantza** | | **5** |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura. | 2 | |
| Beste batzuk | 2 | |
| Lana | 1 | |

## 3. ESTATISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA

Administrazio bakoitzari adituz, 2003. urtean kexa kopururik handiena jaso duena tokiko administrazioa izan da, guztira bideratutako kexetan % 44,51, administrazio bakoitzari eragiten dioten kexen proportzioaren arabera. Horrek esan nahi du ez dela 2002. urtearen aldean gorabehera handirik izan, orduan % 45,33ko portzentajea zenbatu baitzen.

Gauza bera gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexekin, 2003an % 35,98 izan baitira eta 2002ko % 35,89aren aldean.

Foru administrazioak, bere aldetik, guztira aurkeztutako kexetatik % 14,64 erakarri ditu.

Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikatutako administrazioak ikertzeak ez duela irregulartasunik egin dutenik esan nahi, haren jardueraren bat kexa gai izan dela baizik.

***Zuzenean bideratutako kexen banaketa, ukitutako administrazioen arabera***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Toki administrazioa | 438 | 44,51 |
| Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 354 | 35,98 |
| Foru administrazioa | 144 | 14,64 |
| Herri erakundeak | 15 | 1,52 |
| UPV / EHU | 15 | 1,52 |
| Estatuko administrazioa | 12 | 1,22 |
| Justizia | 6 | 0,61 |
| Guztira | 984 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

A) **Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa arloka**

Uste izatekoa denez, Eusko Jaurlaritzak eskumen zabalak dituen arloetan (Funtzio Publikoa, Osasuna, Hezkuntza, Herrizaingoa, Hirigintza eta Etxebizitza) egon da kexa kopururik handiena. Ogasun sailak, berriz, ez dauka hainbesteko pisurik, Eusko Jaurlaritzak gai horretan jarduera esparru txikia daukalako, udal eta aldundien aldean.

***Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka jarritako kexen banaketa arloka***

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Osasuna | 68 | 19,21 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 61 | 17,23 |
| Funtzio Publikoa | 55 | 15,54 |
| Hezkuntza | 50 | 14,12 |
| Herrizaingoa | 36 | 10,17 |
| Kultura eta Elebitasuna | 30 | 8,48 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 16 | 4,52 |
| Gizarte Ongizatea | 14 | 3,96 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza, Turismoa | 10 | 2,82 |
| Justizia | 7 | 1,97 |
| Lana eta Gizarte Segurantza | 4 | 1,13 |
| Ogasuna | 2 | 0,57 |
| Ingurumena | 1 | 0,28 |
| Guztira | 354 | 100 |

(Ikus 7. diagrama eranskinean)

**- Sailen araberako banaketa**

Sailen arabera, Osasun Saila eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila dira erreklamaziorik gehien jasotzen dutenak, eta atzetik Herrizaingoa eta Etxebizitza eta Gizarte Gaiak datoz.

***Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurka jarritako kexen banaketa sailaren arabera***

| | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Osasuna | 91 | 25,71 |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa | 77 | 21,75 |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 63 | 17,8 |
| Herrizaingoa | 40 | 11,3 |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 24 | 6,78 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 12 | 3,39 |
| Kultura | 12 | 3,39 |
| Ogasun eta Herri Administrazioa | 11 | 3,11 |
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena | 10 | 2,82 |
| Garraio eta Herri Lanak | 8 | 2,26 |
| Nekazaritza eta Arrantza | 3 | 0,84 |
| Lehendakaritza | 2 | 0,57 |
| Lehendakariordetza | 1 | 0,28 |
| Guztira | 354 | 100 |

(Ikus 8. diagrama eranskinean)

B) **Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa lurraldeka**

2003an ere, aurreko urteetan bezala eta alde esanguratsurik gabe, Foru administrazioen aurka jarritako kexa gehien Bizkaiko Aldundiak hartu ditu, guztira aurkeztutako erreklamazioetatik % 45,14 berarentzat izan baitira, portzentajetan gutxitu diren arren, aurreko ekitaldiko % 53,29arekin alderatzen badugu.

Ondorioz, Gipuzkoa eta Arabako Aldundien aurkako kexen portzentajea gehitu da, % 30,55 eta % 24,31 baitute, hurrenez hurren.

**Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa lurraldearen arabera**

| | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bizkaiko Foru Aldundia | 65 | 45,14 |
| Arabako Foru Aldundia | 44 | 30,55 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 35 | 24,31 |
| Guztira | 144 | 100 |

(Ikus 6. diagrama eranskinean)

**- Banaketa arloen arabera**

Ogasuna eta Gizarte Ongizatea dira foru administrazioen aurka jasotzen diren kexa gehien eragiten duten arloak.

2003an Ogasun arloarekin zerikusirik duten erreklamazioak gutxitu direla ikusten da (% 30,46tik % 23,61era). Funtzio Publikoari buruzko erreklamazioak 2002an % 7,29 izatetik 2003an % 11,11 izatera igo dira.

**Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, arloaren arabera**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Ongizatea | 14 | 19 | 11 | 44 | 30,55 |
| Ogasuna | 8 | 14 | 12 | 34 | 23,61 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 10 | 13 | 3 | 26 | 18,05 |
| Funtzio Publikoa | 3 | 10 | 3 | 16 | 11,11 |
| Kultura eta Elebitasuna | 4 | 1 | 2 | 7 | 4,87 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 4 | 2 | 7 | 4,87 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 1 | 1 | 1 | 3 | 2,08 |
| Justizia | 2 | 1 | - | 3 | 2,08 |
| Osasuna | - | 2 | - | 2 | 1,39 |
| Ingurumena | 1 | - | 1 | 2 | 1,39 |
| Guztira | 44 | 65 | 35 | 144 | 100 |

(Ikus 9. diagrama eranskinean)

C) **Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak**

**- Banaketa lurraldeka**

Bizkaiko lurraldeko udalen aurka jarri dira kexarik gehien, tokiko administrazioaren aurka guztira jasotakoetatik % 51,14. Gipuzkoako udalek % 26,03 jaso dituzte eta

Arabakoek % 18,95. Ez da, beraz, 2002. urtearen aldean gorabehera esanguratsurik ikusten.

Uste izatekoa den bezala, biztanle kopuruarengatik, tokiko administrazioaren aurkako kexa gehien Bilbo (76 kexa), Gasteiz (61) eta Donostiako (38) udalek jasotzen dituzte. Gainera, Bizkaian Barakaldo (22), Portugalete eta Santurtzi bezalakoek eta Gipuzkoan Pasaia eta Errenteriak ere kexa kopuru nabarmena izan dute.

***Toki administrazioen aurka aurkeztutako kexen banaketa***

| | **Kop.** | **%** |
|---|---|---|
| Bizkaiko udalak | 224 | 51,14 |
| Gipuzkoako udalak | 114 | 26,03 |
| Arabako udalak | 83 | 18,95 |
| Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak | 8 | 1,82 |
| Arabako administrazio batzordeak | 7 | 1,6 |
| Arabako Errioxako Ur Patzuergoa | 1 | 0,23 |
| Gipuzkoak mankomunitate, partzuergo eta parkeak | 1 | 0,23 |
| Guztira | 438 | 100 |

***Autonomia Erkidegoko udalen eta administrazio batzordeen aurka aurkeztutako kexak***

| **Arabako udalak** | **Kop.** |
|---|---|
| Vitoria-Gasteiz | 61 |
| Amurrio | 3 |
| Elciego | 2 |
| Laudio | 2 |
| Salvatierra/Agurain | 2 |
| Okondo | 2 |
| Zuia | 2 |
| Arrazua-Ubarrundia | 1 |
| Asparrena | 1 |
| Bernedo | 1 |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | 1 |
| Laguardia/Biasteri | 1 |
| Lantarón | 1 |
| Legutiano | 1 |
| Ribera Baja / Erribera Beitia | 1 |
| Valdegovía | 1 |
| Guztira | 83 |

| **Arabako administrazio batzordeak** | **Kop.** |
|---|---|
| Bernedo | 1 |
| Durana | 1 |
| Fontecha | 1 |
| Hereña | 1 |
| Mendarozketa | 1 |
| Ondategi | 1 |
| Puentelarrá | 1 |
| Guztira | 7 |

| Bizkaiko udalak | Kop. |
|---|---|
| Bilbo | 76 |
| Barakaldo | 22 |
| Portugalete | 11 |
| Santurtzi | 10 |
| Basauri | 7 |
| Galdakao | 7 |
| Getxo | 7 |
| Durango | 6 |
| Erandio | 5 |
| Sopuerta | 5 |
| Leioa | 4 |
| Bermeo | 3 |
| Busturia | 3 |
| Mungia | 3 |
| Ondarroa | 3 |
| Sopela | 3 |
| Arrigorriaga | 2 |
| Berango | 2 |
| Gautegiz Arteaga | 2 |
| Güeñes | 2 |
| Urduña | 2 |
| Plentzia | 2 |
| Sestao | 2 |
| Sondika | 2 |
| Abadiño | 1 |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 1 |
| Alonsotegi | 1 |
| Amorebieta-Etxano | 1 |
| Arantzazu | 1 |

| Bizkaiko udalak | Kop. |
|---|---|
| Arrieta | 1 |
| Atxondo | 1 |
| Bakio | 1 |
| Balmaseda | 1 |
| Berriatua | 1 |
| Karrantza | 1 |
| Derio | 1 |
| Ermua | 1 |
| Etxebarriko Doneztebeko elizatea | 1 |
| Galdames | 1 |
| Gamiz-Fika | 1 |
| Gernika-Lumo | 1 |
| Gorliz | 1 |
| Ispaster | 1 |
| Lekeitio | 1 |
| Lemoiz | 1 |
| Loiu | 1 |
| Mañaria | 1 |
| Markina-Xemein | 1 |
| Mendata | 1 |
| Muskiz | 1 |
| Ortuella | 1 |
| Otxandio | 1 |
| Ubide | 1 |
| Ugao-Miraballes | 1 |
| Zalla | 1 |
| Zamudio | 1 |
| Zeberio | 1 |
| Guztira | 224 |

| Gipuzkoako udalak | Kop. |
|---|---|
| Donostia-San Sebastián | 38 |
| Pasaia | 8 |
| Errenteria | 7 |
| Hondarribia | 5 |
| Irun | 5 |
| Arrasate/Mondragón | 3 |
| Bergara | 3 |
| Deba | 3 |
| Eibar | 3 |
| Elgoibar | 3 |
| Usurbil | 3 |
| Irura | 2 |
| Lasarte-Oria | 2 |
| Leaburu | 2 |
| Legazpi | 2 |
| Mutriku | 2 |
| Segura | 2 |
| Tolosa | 2 |

| Gipuzkoako udalak | Kop. |
|---|---|
| Urretxu | 2 |
| Zarautz | 2 |
| Aduna | 1 |
| Andoain | 1 |
| Aretxabaleta | 1 |
| Astigarraga | 1 |
| Azkoitia | 1 |
| Berastegi | 1 |
| Getaria | 1 |
| Ibarra | 1 |
| Oiartzun | 1 |
| Ordizia | 1 |
| Orio | 1 |
| Billabona | 1 |
| Zizurkil | 1 |
| Zumaia | 1 |
| Zumarraga | 1 |
| Guztira | 114 |

**- Banaketa arloka**

Ohi bezala, toki administrazioen jarduketen eragindako kexak berdin antzera banatzen dira arlo guztien artean, udalek eskumen garrantzitsuak dituzten arlo guztien artean, alegia.

2003an Herri Lanen eta Zerbitzuen gaian erreklamazioak pixka bat gehitu direla ikusten da (% 21,03tik % 23,36ra), eta Gizarte Ongizate arloarekin zerikusia dutenak ere bai (% 3,50etik 2003ko % 7,48ra). Aitzitik, tokiko Administrazioaren Herrizaingo gaiei buruzko jardueren gaineko kexak gutxitu dira, % 15,19tik % 10,51ra jaitsiz.

***Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa arloaren arabera***

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Herri Lanak eta Zerbitzuak .. | 30 | 45 | 25 | 100 | 23,36 |
| Hirigintza eta Etxebizitza ..... | 13 | 47 | 27 | 87 | 20,33 |
| Herrizaingoa ...................... | 7 | 35 | 14 | 56 | 13,08 |
| Ingurumena ........................ | 10 | 21 | 14 | 45 | 10,51 |
| Gizarte Ongizatea .............. | 12 | 12 | 8 | 32 | 7,48 |
| Ogasuna ........................... | 2 | 25 | 5 | 32 | 7,48 |
| Kultura eta Elebitasuna ........ | 9 | 8 | 10 | 27 | 6,31 |
| Funtzio Publikoa ................ | 4 | 8 | 10 | 22 | 5,14 |
| Osasuna ........................... | 2 | 18 | - | 20 | 4,67 |
| Hezkuntza ......................... | - | 4 | - | 4 | 0,94 |
| Nekazaritza, Industria, Merkatritza eta Turismoa ..... | - | 1 | 1 | 2 | 0,47 |
| Justizia ............................. | 1 | - | - | 1 | 0,23 |
| Guztira ............................. | 90 | 224 | 114 | 428 | 100 |

(Ikus 10. diagrama eranskinean)

***Toki administrazioaren menpeko beste erakunde batzuen aurka aurkeztutako kexak***

| | Guztira |
|---|---|
| Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa .................................. | 4 |
| Imebisa - Metro Bilbao ................................................ | 4 |
| Txingudi S.Aren Zerbitzuak ......................................... | 1 |
| Arabako Errioxako Uren Partzuergoa ........................... | 1 |
| Guztira .................................................................. | 10 |

D) **Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak**

Udal, aldundi zein Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexa horiez gain, Ararteko erakundearen ikerkuntza esparrutik kanpo geratzen diren beste administrazio batzuen jardueren aurkako zenbait erreklamazio ere jaso dira. Herri erakunde zein organismoen, bazkunen eta abarren aurkako kexak dira. Atal honetan, era berean, Estatuko administrazioaren aurkako kexak ere jasotzen dira, Arartekoak modu informalean ikertu dituenak, nahiz eta jakin badakigun Estatuko administrazioaren jarduera gure erakundearen kontrol eremutik kanpo dagoela.

| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea | Guztira |
|---|---|
| Hezkuntza | 9 |
| Funtzio Publikoa | 5 |
| Ogasuna | 1 |
| Guztira | 15 |

E) **Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak**

Ararteko erakundea arautzen duen 3/1985 Legearen 9.2 artikuluak dioenez, Justizia administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko kexak kasu bakoitzean ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organora bideratuko dira.

Eusko Legebiltzarrean lehenago aurkeztu diren txostenetan azaldutakoaren arabera, halako kasuetan erakundeak Fiskaltzari, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko lehendakariari edo, bestela, Epai Boterearen Kontseilu Nagusiari bidali ohi dizkio kexak, beraiek iker ditzaten kontu horiek eta gure erakundeari egindako kudeaketen berri eman diezaioten.

2003. urtean 9 erreklamazio bideratu dira, Justizia administrazioak EAEn dituen administrazio zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez.

| | |
|---|---|
| Justizia Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurkako kexak | 9 |

## 4. LURRALDE ESTATISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA)

Arestiko urteetan bezala, kexa kopururik handiena, guztira 646, aurkeztu dutenak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarrak izan dira, iazkoaren aldean gorabehera nabarmenik gabe. Gipuzkoa, 318 kexarekin eta, batez ere, Araba, 322rekin, nabarmen igo dira.

***Kexen lurralde banaketaren bilakaera, jatorriaren arabera***

| | Bizkaia | Gipuzkoa | Araba |
|---|---|---|---|
| 1989 | 288 | 188 | 97 |
| 1990 | 828 (284)[1] | 195 | 125 |
| 1991 | 293 | 244 | 158 |
| 1992 | 332 | 241 | 201 |
| 1993 | 376 | 250 | 182 |
| 1994 | 349 | 234 | 160 |
| 1995 | 528 | 281 | 328 |
| 1996 | 746 | 448 | 446 |
| 1997 | 915 | 663 | 371 |
| 1998 | 1.471 (764)[2] | 905 (471)[3] | 244 |
| 1999 | 649 | 372 (311)[4] | 237 |
| 2000 | 645 | 295 | 256 |
| 2001[5] | 651 | 375 | 444 |
| 2002 | 643 | 294 | 268 |
| 2003 | 646 | 318 | 322 |

1 Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
2 Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
3 Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
4 Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
5 Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 11. diagrama eranskinean)

**- Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko**

Lurralde banaketaren arabera, kexen jatorriaren konparaziozko azterketa egiteko, lurralde bakoitzetik jasotako erreklamazio kopurua lurralde horretako guztirako biztanleriari lotuko diogu. Hurrengo koadroan lurralde bakoitzetik 10.000 biztanle multzo bakoitzeko jaso diren kexei buruzko datuak jasota daude.

**Kexen lurralde banaketa, 10.000 biztanleko**

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|---|
| 1989 | 4,3 | 3,3 | 3 |
| 1990 | 4,5 | 7,87 (2,7)[1] | 2,9 |
| 1991 | 5,8 | 3,6 | 2,5 |
| 1992 | 7,4 | 3,5 | 2,8 |
| 1993 | 6,7 | 3,7 | 3,3 |
| 1994 | 5,9 | 3,5 | 3 |
| 1995 | 11,59 | 4,54 | 4,11 |
| 1996 | 15,92 | 6,55 | 6,66 |
| 1997 | 13,24 | 8,03 | 9,77 |
| 1998 | 8,37 | 12,95 (6,73)[2] | 13,30 (6,93)[3] |
| 1999 | 8,37 | 5,74 | 5,56 (4,64)[4] |
| 2000 | 8,97 | 5,77 | 4,42 |
| 2001[5] | 15,56 | 5,7 | 5,53 |
| 2002 | 9,37 | 5,73 | 4,37 |
| 2003 | 11,24 | 5,75 | 4,71 |

1 Gai berari buruzko 545 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
2 Gai berari buruzko 708 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
3 Gai berari buruzko 435 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
4 Gai berari buruzko 62 kexa bakarrean hartzearen ondoriozko zifra.
5 Bi kexa multzo bideratu dira, guztira 264 kexagilerenak, hiru lurraldeetakoak.

(Ikus 12. diagrama eranskinean)

**- Kexen banaketa lurraldeetariko bakoitzean**

Herritarren jokabidea ez da berdina kexen egileak non bizi diren begiratzen badugu, hau da, hiriburuan ala lurraldeko gainerako udalerrietan. Araban, erreklamazioetatik % 81,99 Gasteizen bizi diren pertsonek egin dituzte, Bizkaian % 35,76 Bilbon bizi direnek, eta Gipuzkoan % 35,22 Donostian bizi direnek; zenbaki horiek 2002aren aldean hiriburuetakoak jaitsi eta beste udaletako pertsonek egindakoak, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, gehitu direla adierazten dute.

**Kexen banaketa, hiriburuko biztanleek edo lurraldeko gainerako udalerrietako biztanleek aurkeztu dituzten kontuan hartuta**

| Araba | Kop. | % |
|---|---|---|
| Gasteiz | 264 | 81,99 |
| Beste udalerri batzuk | 58 | 18,01 |
| Guztira | 322 | 100 |

| Bizkaia | Kop. | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 231 | 35,76 |
| Beste udalerri batzuk | 415 | 64,24 |
| Guztira | 646 | 100 |

| Gipuzkoa | Kop. | % |
|---|---|---|
| Donostia | 112 | 35,22 |
| Beste udalerri batzuk | 206 | 64,78 |
| Guztira | 318 | 100 |

**- Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik heldutako kexak**

2003an ere Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik etorritako zenbait kexa jaso dira. Horietatik, 86 beste autonomia erkidego batzuetatik zetozen (43 Nafarroako Foru Erkidegotik) eta 5 beste estatu batzuetatik.

| Beste autonomia erkidego batzuetatik jasotako kexak | Kop. |
|---|---|
| Nafarroako F.E. | 43 |
| Gaztela-Leongo A.E. | 17 |
| Kantabriako A.E. | 8 |
| Madrilgo A.E. | 5 |
| Errioxako A.E. | 3 |
| Kataluniako A.E. | 3 |
| Murtzia Eskualdeko A.E. | 2 |
| Kanariar Uharteetako A.E. | 1 |
| Valentziako A.E. | 1 |
| Andaluziako A.E. | 1 |
| Aragoiko A.E. | 1 |
| Asturiasko Printzerria | 1 |
| Guztira | 86 |

| Beste estatu batzuetatik etorritakoak | Kop. |
|---|---|
| Alemania | 1 |
| Bolivia | 1 |
| Frantzia | 1 |
| Erresuma Batua | 1 |
| Uruguay | 1 |
| Guztira | 5 |

## 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA (KEXEN EGOERA)

2003. urtean 1.042 espedienteren izapideak amaitu dira. Horietatik 615 urtean zehar aurkeztutako kexei buruzkoak izan dira, eta gainerakoak, 427, aurreko urteetan aurkeztutakoak ziren, jarri ziren urtean bertan osorik ezin izapidetu izan zirenak.

Ararteko erakundeak eman dituen ebazpenek agerian utzi dutenez, 2003an amaitutako 335 erreklamaziotan irregulartasunen bat zegoen, ukituriko administrazioaren jarduketan, hau da, kasuetatik % 32,15ean. Ez da, ordea, inolako irregulartasunik antzeman aztertutako espedienteetatik % 55,37an. Datu hauek irregulartasunen bat igarri deneko kasuak gehitu direla adierazten dute.

| | Guztira | Administrazioaren irregulartasuna | % | Irregulartasunik ez | % | Beste batzuk | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2003an amaitutako kexak | 1.042 | 335 | 32,15 | 577 | 55,37 | 130 | 12,48 |

(Ikus 1. diagrama eranskinean)

### - 2003an burututako espedienteak hasierako urtearen arabera banaturik

Beheko taulan 2003an burututako espedienteak ageri dira (1.006 espediente), hasierako urtearen arabera sailkatuta.

| Hasierako urtea | Kop. |
|---|---|
| 1992 | 1 |
| 1996 | 1 |
| 1997 | 3 |
| 1998 | 8 |
| 1999 | 17 |
| 2000 | 34 |
| 2001 | 81 |
| 2002 | 282 |
| 2003 | 615 |
| 2003an burututako espedienteak guztira | 1.042 |

### - 2003an aurkeztutako kexak: ebatzita daudenak eta izapidetzen ari direnak

2003an zehar aurkeztutako kexei dagokienez, Ararteko erakundeak 459 ebazpen eman ditu, eta beste 422 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Izapidetzen ari diren zenbait espedientetan, kexa aztertzen hasi ondoren hainbat inguruabar agertu dira (beste ararteko batzuekiko bikoiztasuna, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak, epai bideari ekin izana, eta abar), ikerketarekin aurrera egiten eragotzi digutenak. Espediente horiek *eratorritako ez-onarpena* izenpean jaso dira ondoko koadroetan.

***Kexa espedienteen egoera jarduera eremuen arabera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .... | 6 | 13 | 2 | 10 | 1 | - |
| Gizarte Ongizatea ............... | 43 | 41 | 6 | 32 | 3 | 7 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak ... | 72 | 69 | 23 | 40 | 6 | 8 |
| Kultura eta Elebitasuna ........ | 29 | 35 | 20 | 15 | - | 2 |
| Hezkuntza .......................... | 17 | 32 | 9 | 23 | - | 5 |
| Funtzio Publikoa ................. | 36 | 50 | 10 | 39 | 1 | 7 |
| Ogasuna ............................ | 20 | 42 | 10 | 32 | - | 6 |
| Herrizaingoa ...................... | 67 | 21 | 7 | 13 | 1 | 4 |
| Justizia ............................... | 7 | 2 | - | 2 | - | 2 |
| Ingurumena ........................ | 28 | 18 | 3 | 15 | - | 2 |
| Osasuna ............................. | 36 | 50 | 19 | 31 | - | 4 |
| Lana eta Gizarte Segurantza . | 1 | 2 | 1 | 1 | - | 1 |
| Hirigintza eta Etxebizitza ....... | 60 | 84 | 20 | 62 | 2 | 7 |
| Guztira ............................ | 422 | 459 | 130 | 315 | 14 | 55 |

- **Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren (Eusko Jaurlaritza) aurkako kexen egoera**

2002an 175 ebazpen eman dira Eusko Jaurlaritzaren aurka urte berean jarritako kexei dagokienez, eta 158 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

Burututako kasurik gehienetan, 124tan, ez da inolako irregulartasunik antzeman administrazioaren jardueran.

***Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoeraren azterketa, jarduera eremuen arabera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Osasuna ............................. | 21 | 44 | 17 | 27 | - | 3 |
| Hirigintza eta Etxebizitza ....... | 23 | 33 | 9 | 22 | 2 | 5 |
| Funtzio Publikoa ................. | 28 | 24 | 4 | 19 | 1 | 3 |
| Hezkuntza .......................... | 16 | 29 | 8 | 21 | - | 5 |
| Herrizaingoa ...................... | 28 | 7 | 2 | 4 | 1 | 1 |
| Kultura eta Elebitasuna ......... | 16 | 12 | 4 | 8 | - | 2 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak ... | 12 | 4 | - | 4 | - | - |
| Gizarte Ongizatea ............... | 6 | 8 | - | 8 | - | - |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .... | 1 | 9 | 1 | 7 | 1 | - |
| Justizia ........................... | 5 | 2 | - | 2 | - | - |
| Lana eta Gizarte Segurantza .. | 1 | 2 | 1 | 1 | - | 1 |
| Ogasuna ............................ | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Ingurumena ........................ | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira ............................ | 158 | 175 | 46 | 124 | 5 | 21 |

**Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexen egoera, Jaurlaritza osatzen duten sailei adituz**

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Arrantza ... | 1 | 2 | - | 1 | 1 | - |
| Kultura ........................... | 9 | 3 | - | 3 | - | - |
| Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa..................... | 31 | 40 | 10 | 29 | 1 | 6 |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa ................ | 3 | 8 | 2 | 6 | - | - |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa................... | 2 | 9 | 2 | 7 | - | 1 |
| Herrizaingoa ................... | 30 | 9 | 2 | 6 | 1 | 1 |
| Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza. .......... | 10 | 13 | 3 | 10 | - | 1 |
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena ............... | 7 | 3 | - | 3 | - | - |
| Lehendakaritza ............... | - | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Osasuna ......................... | 32 | 54 | 20 | 34 | - | 5 |
| Garraioa eta Herri Lanak .. | 6 | 2 | - | 2 | - | - |
| Lehendakariordetza ......... | 1 | - | - | - | - | - |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak ............ | 26 | 31 | 7 | 22 | 2 | 6 |
| Guztira ........................... | 158 | 175 | 46 | 124 | 5 | 21 |

- **Foru administrazioen aurkako kexen egoera**

Foru administrazioen aurka 2003an aurkeztu diren erreklamazioetako 76ren gainean jada emanda dago ebazpena, eta 16 kasutan irregulartasunen bat antzeman da. Beste 54 espediente oraindik izapidetzen ari dira.

**Foru aldundien aurkako kexen egoera, lurralde historikoen arabera**

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Arabako Foru Aldundia ..... | 21 | 20 | 6 | 14 | - | 3 |
| Bizkaiko Foru Aldundia ..... | 17 | 42 | 10 | 29 | 3 | 6 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | 16 | 14 | - | 13 | 1 | 5 |
| Guztira ........................... | 54 | 76 | 16 | 56 | 4 | 14 |

**Foru aldundien aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera**

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 4 | 3 | - | 3 | - | - |
| Gizarte Ongizatea | 18 | 22 | 4 | 15 | 3 | 4 |
| Kultura eta Elebitasuna | 4 | 3 | 2 | 1 | - | - |
| Funtzio Publikoa | 3 | 10 | - | 10 | - | 3 |
| Ogasuna | 9 | 22 | 5 | 17 | - | 3 |
| Justizia | 1 | - | - | - | - | 2 |
| Ingurumena | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 12 | 12 | 5 | 6 | 1 | 2 |
| Osasuna | - | 2 | - | 2 | - | - |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 2 | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 54 | 76 | 16 | 56 | 4 | 14 |

**- Tokiko administrazioen aurkako kexen egoera**

2003an jasotako erreklamazioetatik, Ararteko erakundeak 20 ebazpen eman ditu, eta irregulartasunen bat antzeman da 66 kasutan. Urte amaieran, 208 espediente artean izapidetzen ari ziren.

**Arabako udalen aurkako kexen egoera**

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Amurrio | 1 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Arrazua-Ubarrundia | 1 | - | - | - | - | - |
| Asparrena | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Bernedo | 1 | - | - | - | - | - |
| Elciego | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Laguardia | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Lantarón | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Legutiano | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Laudio | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Okondo | 2 | - | - | - | - | - |
| Ribera Baja / Erribera Beitia | 1 | - | - | - | - | - |
| Salvatierra / Agurain | - | 1 | - | 1 | - | 1 |
| Valdegovía | 1 | - | - | - | - | - |
| Vitoria-Gasteiz | 36 | 21 | 5 | 16 | - | 4 |
| Zuia | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 46 | 32 | 8 | 24 | - | 5 |

## Arabako administrazio batzordeen aurkako kexen egoera

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bernedo | 1 | - | - | - | - | - |
| Durana | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Fontecha | 1 | - | - | - | - | - |
| Hereña | 1 | - | - | - | - | - |
| Mendarozketa | 1 | - | - | - | - | - |
| Ondategi | - | 1 | - | - | 1 | - |
| Puentelarrá | 1 | - | - | - | - | - |
| Guztira | 5 | 2 | - | 1 | 1 | - |

## Gipuzkoako udalen aurkako kexen egoera

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aduna | - | 1 | - | - | 1 | - |
| Andoain | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Aretxabaleta | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Arrasate / Mondragón | 1 | 2 | - | 2 | - | - |
| Astigarraga | 1 | - | - | - | - | - |
| Azkoitia | 1 | - | - | - | - | - |
| Berastegi | 1 | - | - | - | - | - |
| Bergara | - | 2 | 1 | 1 | - | 1 |
| Deba | 2 | 1 | 1 | - | - | - |
| Donostia-San Sebastián | 19 | 17 | 7 | 10 | - | 2 |
| Eibar | - | 3 | 2 | 1 | - | - |
| Elgoibar | - | 3 | 2 | 1 | - | - |
| Errenteria | 4 | 2 | 2 | - | - | 1 |
| Getaria | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Hondarribia | 1 | 4 | 1 | 3 | - | - |
| Ibarra | 1 | - | - | - | - | - |
| Irun | 3 | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Irura | - | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Lasarte-Oria | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Leaburu | - | 2 | 2 | - | - | - |
| Legazpi | 2 | - | - | - | - | - |
| Mutriku | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Oiartzun | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Ordizia | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Orio | 1 | - | - | - | - | - |
| Pasaia | 5 | 3 | - | 2 | 1 | - |

… /…

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Segura ........................... | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Tolosa ........................... | - | 2 | - | 2 | - | - |
| Urretxu .......................... | 2 | - | - | - | - | - |
| Usurbil ........................... | 2 | 1 | 1 | - | - | - |
| Billabona ........................ | 1 | - | - | - | - | - |
| Zarautz ........................... | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Zizurkil ........................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Zumaia ........................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Zumarraga ...................... | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira ........................... | 53 | 57 | 24 | 31 | 2 | 4 |

***Bizkaiko udalen aurkako kexen egoera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Abadiño ......................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Abanto Ciérvana-Abanto Zierbena ............. | 1 | - | - | - | - | - |
| Alonsotegi ...................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Amorebieta-Etxano ......... | 1 | - | - | - | - | - |
| Arantzazu ....................... | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Arrieta ........................... | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Arrigorriaga .................... | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Atxondo ......................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Bakio ............................. | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Balmaseda ...................... | 1 | - | - | - | - | - |
| Barakaldo ....................... | 6 | 16 | 10 | 6 | - | - |
| Basauri ........................... | 2 | 5 | 3 | 2 | - | - |
| Berango ......................... | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Bermeo .......................... | 2 | 1 | - | 1 | - | - |
| Berriatua ........................ | 1 | - | - | - | - | - |
| Bilbao ............................ | 33 | 37 | 10 | 26 | 1 | 6 |
| Busturia .......................... | 2 | - | - | - | - | 1 |
| Carranza ........................ | 1 | - | - | - | - | - |
| Derio ............................. | 1 | - | - | - | - | - |
| Durango ......................... | 5 | - | - | - | - | 1 |
| Erandio .......................... | 2 | 3 | 1 | 2 | - | - |
| Ermua ............................ | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Etxebarri, anteiglesia de San Esteban de / Etxebarriko Doneztebeko elizatea ........ | 1 | - | - | - | - | - |

... /...

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Galdakao | 1 | 6 | 1 | 4 | 1 | - |
| Galdames | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Gamiz-Fika | 1 | - | - | - | - | - |
| Gautegiz Arteaga | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Gernika-Lumo | - | 1 | 1 | - | - | - |
| Getxo | 4 | 3 | - | 3 | - | - |
| Gorliz | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Güeñes | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Ispaster | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Leioa | 1 | 2 | - | 2 | - | 1 |
| Lekeitio | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Lemoiz | 1 | - | - | - | - | - |
| Loiu | 1 | - | - | - | - | - |
| Mañaria | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Markina-Xemein | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Mendata | 1 | - | - | - | - | - |
| Mungia | 2 | 1 | 1 | - | - | - |
| Muskiz | 1 | - | - | - | - | - |
| Ondarroa | 3 | - | - | - | - | - |
| Urduña | 2 | - | - | - | - | - |
| Urtuella | 1 | - | - | - | - | - |
| Otxandio | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Plentzia | - | 2 | - | 2 | - | - |
| Portugalete | 4 | 7 | 1 | 6 | - | - |
| Santurtzi | 6 | 4 | 1 | 3 | - | - |
| Sestao | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Sondika | 1 | 1 | - | 1 | - | - |
| Sopela | - | 3 | 3 | - | - | - |
| Sopuerta | 5 | - | - | - | - | - |
| Ubide | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Ugao-Miraballes | 1 | - | - | - | - | - |
| Zalla | 1 | - | - | - | - | - |
| Zamudio | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Zeberio | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 104 | 109 | 34 | 73 | 2 | 11 |

## Udalen aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 1 | 1 | - | - | - |
| Gizarte Ongizatea | 19 | 10 | 2 | 8 | - | 3 |
| Kultura eta Elebitasuna | 9 | 18 | 13 | 5 | - | - |
| Hezkuntza | 1 | 3 | 1 | 2 | - | - |
| Funtzio Publikoa | 5 | 16 | 6 | 10 | - | 1 |
| Ogasuna | 10 | 20 | 5 | 15 | - | 2 |
| Herrizaingoa | 39 | 14 | 5 | 9 | - | 3 |
| Ingurumena | 27 | 16 | 3 | 13 | - | 2 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 46 | 48 | 17 | 26 | 5 | 6 |
| Osasuna | 15 | 4 | 2 | 2 | - | 1 |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 35 | 50 | 11 | 39 | - | 2 |
| Guztira | 208 | 200 | 66 | 129 | 5 | 20 |

## Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, ukitutako erakunde publikoaren arabera

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa | - | 4 | 2 | 2 | - | - |
| Arabako Errioxako Uren Partzuergoa | 1 | - | - | - | - | - |
| Imebisa - Metro Bilbao | 1 | 3 | - | 3 | - | - |
| Servicios de Txingudi SAren Zerbitzuak | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira | 2 | 8 | 2 | 6 | - | - |

## Toki administrazioko beste erakunde batzuen aurkako kexen egoera, jarduketa arloen arabera

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizartearen Ongizatea | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Kultura eta Elebitasuna | - | 2 | 1 | 1 | - | - |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 2 | 5 | 1 | 4 | - | - |
| Guztira | 2 | 8 | 2 | 6 | - | - |

- **Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurkako kexen egoera**

***Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen kontrako kexen egoera***

| | Izapidetzen | Burututa | Administrazioaren irregulartasuna | Irregulartasunik ez | Besterik | Eratorritako ez-onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza ....................... | 1 | 8 | 6 | 2 | - | - |
| Funtzio Publikoa ............. | 1 | 3 | 1 | 2 | - | 1 |
| Ogasuna .......................... | - | 1 | - | 1 | - | - |
| Guztira ............................ | 2 | 12 | 7 | 5 | - | 1 |

## 6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)

- **Kexagileen ezaugarriak**

2003. urtean aurkeztutako kexen azterketa soziologikoak agerian jartzen du kexagile gehienak gizonezkoak badira ere, emakume kexagileen kopurua pixka bat gehitu dela, 2002an % 38,23 izatetik 2003an % 40,45era igaroz.

Erreklamazioak aurkezten dituzten taldeen kopurua garrantzitsua da oraindik ere, guztira 184, 2002an baino zerbait gehiago.

***Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera***

| Kexagileen ezaugarriak | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonezkoak ...................................... | 627 | 45,54 |
| Emakumezkoak ................................. | 557 | 40,45 |
| Taldeak ............................................. | 184 | 13,36 |
| Izenik gabe eginikoak .......................... | 9 | 0,65 |
| Guztira .................................... 1.377 | 100 | |

(Ikus 13. diagrama eranskinean)

- **Kexa-idazkia egiteko erabilitako hizkuntza**

Gaztelania da, oraindik ere, kexak idazteko orduan gehien erabiltzen den hizkuntza. Herritarretatik % 90,56ek gaztelaniara jotzen du, euskaraz zein elebidun aurkezten direnak % 9,44 diren bitartean, hau da, 2002an baino % 6,95 gehiago.

Ararteko erakundeak erreklamazioak herritarrak aukeratutako hizkuntzan izapidetzen ditu, irizpide modura. Arartekoak ofiziozko espedienteren bat abiatzen duenean, komunikazioa EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiten da.

| ***Kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera*** | | |
|---|---|---|
| **Hizkuntza** | **Kopurua** | **%** |
| Gaztelania | 1.247 | 90,56 |
| Euskara | 87 | 6,32 |
| Biak | 43 | 3,12 |
| Guztira 1.377 | 100 | |

(Ikus 14. diagrama eranskinean)

- **Kexak aurkezteko modua**

Kexak aurkezteko moduari dagokionez, datuek erakusten digute azkeneko urteetan izandako aldaketa finkatu egin dela, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan arreta zuzeneko bulegoak jartzearen ondorioz. Kexagileetatik % 53,6 bulegoetara agertu dira kexa jartzeko. Kexa jartzeko Internet erabiltzen duten pertsonen kopurua nabarmen igo da. Kexetan % 20,33 erakundearen web orritik heldu dira (www.ararteko.net); 2002an, berriz, % 13,73 heldu ziren.

| ***Kexen banaketa, aurkezteko moduaren arabera*** | | |
|---|---|---|
| **Jasotzeko era** | **Kopurua** | **%** |
| Bulegoetara agertuta | 738 | 53,6 |
| Postaz | 308 | 22,37 |
| Internetez | 280 | 20,33 |
| Faxez | 51 | 3,7 |
| Guztira 1.377 | 100 | |

(Ikus 15. diagrama eranskinean)

## 7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONOZKO KONTSULTAK)

1996tik, Ararteko erakundeak arreta zuzeneko bulegoak dauzka Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horri esker, administrazioren batekin arazoak dituzten herritarrei hobeto lagun diezaiekegu. Bulegoetan hartutako eskarmentuak erakusten du, gainera, bertan jasotzen diren bisitez gain, telefonozko kontsulta ugari ere egiten direla, erakundeko langileek erantzuten dituztenak.

Horregatik guztiarengatik, bisitez gain telefonozko kontsultak ere zenbatzen ditugu, pertsonek administrazio desberdinekin dituzten harremanetan dauzkaten eskubideen gaineko informazio lan interesgarria direla ziur baikaude. Hartara, 2003an guztira 3.548 kontsultari erantzun diogu, erakundearengana telefonoz jo zein bulegoetara agertu direnen artean.

***Kontsulta eta bisiten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan***

| Herria | Kontsulta kopurua | Bisita kopurua | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|
| Bilbo ................................ | 532 | 743 | 1.275 | 35,93 |
| Donostia ........................... | 481 | 716 | 1.197 | 33,74 |
| Gasteiz ............................. | 246 | 830 | 1.076 | 30,33 |
| Guztira ............................. | 1.259 | 2.289 | 3.548 | 100 |

***Telefonozko kontsulten kopurua arreta zuzeneko bulegoetan***

| Herria | Kontsulta kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo ................................................ | 532 | 42,26 |
| Donostia ........................................... | 481 | 38,20 |
| Gasteiz ............................................. | 246 | 19,54 |
| Guztira ............................................. | 1.259 | 100 |

2003an guztira 2.289 bisita jaso genituen hiru hiriburuetako bulegoetan. Horietatik % 32,46 Bilbora joan ziren, % 31,28 Donostiara (bisita kopuruan igoera nabarmena izan duen hiriburua), eta % 36,26 Gasteiza.

***Arreta zuzeneko bulegoetara egindako bisiten kopurua***

| Herria | Bisita kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo ................................................ | 743 | 32,46 |
| Donostia ........................................... | 716 | 31,28 |
| Gasteiz ............................................. | 830 | 36,26 |
| Guztira ............................................. | 2.289 | 100 |

(Ikus 16. diagrama eranskinean)

- **Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen ezaugarriak**

Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonetatik % 45,78 gizonezkoak dira eta % 44,87 emakumezkoak, hau da, ia parekatuta daude, jada azkeneko urteetan ikusitako joeraren ildotik. Taldeak % 4,28 dira.

**Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien ezaugarriak**

| | Bilbo | Donostia | Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizonezkoak | 373 | 315 | 360 | 1.048 | 45,78 |
| Emakumezkoak | 307 | 310 | 410 | 1.027 | 44,87 |
| Bikoteak | 49 | 41 | 26 | 116 | 5,07 |
| Taldeak | 14 | 50 | 34 | 98 | 4,28 |
| Guztira | 743 | 716 | 830 | 2.289 | 100 |

(Ikus 17. diagrama eranskinean)

- **Arreta zuzeneko bulegoetara etortzen diren pertsonen adina**

Adin multzoen araberako datuak aztertuz, ez da aurreko urteetakoen aldean gorabehera handirik ikusten. Bisitetatik % 51,2 dira 36tik 55 urtera bitartekoak.

**Arreta zuzeneko bulegoetara etorritako bisitarien banaketa, adin multzoka**

| Adina | Bilbo | Donostia | Gasteiz | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 20 | 21 | 53 | 94 | 4,11 |
| 26-35 | 130 | 77 | 114 | 321 | 14,02 |
| 36-45 | 215 | 166 | 260 | 641 | 28 |
| 46-55 | 143 | 196 | 192 | 531 | 23,2 |
| 56-65 | 126 | 105 | 103 | 334 | 14,59 |
| 66 edo gehiago | 109 | 151 | 108 | 368 | 16,08 |
| Guztira | 743 | 716 | 830 | 2.289 | 100 |

(Ikus 18. diagrama eranskinean)

- **Arreta zuzeneko bulegoetara etorri eta kexa aurkeztu dutenen kopurua**

Arreta zuzeneko hiru bulegoetan jasotako bisitetatik 687tan kexa jarri da, hau da, bisita guztien % 30ean.

**Kexa aurkeztu deneko bisitak**

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Bilbo | 277 | 40,32 |
| Donostia | 164 | 23,87 |
| Gasteiz | 246 | 35,81 |
| Guztira | 687 | 100 |

(Ikus 19. diagrama eranskinean)

Gainerako bisitei dagokienez, kasu batzuetan erakunde honen jarduketa eremutik kanpoko gaiei loturikoak izan dira; horrenbestez, ezin izan dira kexatzat bideratu; beste zenbait kasutan, agiri gehiago ekarri behar zituzten, edo aurretiazko kudeaketak egin behar ziren, administrazio organo eskudunetan; eta azkenik, beste kasu batzuetan, planteaturiko arazoak, edo kexa egiteko funtsik gabekoak ziren edo bisita kexa espediente baten izapideei lotuta egon da, edo herritarrak bere arazo zehatzetan jarraitu beharreko izapideei buruzko informazioa lortu nahi izan du.

## A) GASTEIZKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

2003an Gasteizko arreta zuzeneko bulegoan guztira 1.076 kontsultari egin zaio jaramon. 830 bisita hartu dira eta 246 kexa aurkeztu dira.

***Gasteizko bulegora etorritako bisitarien ezaugarriak***

| | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| Emakumezkoak | 410 | 49,4 |
| Gizonezkoak | 360 | 43,37 |
| Taldeak | 34 | 4,1 |
| Bikoteak | 26 | 3,13 |
| Guztira | 830 | 100 |

- **Gasteizko bulegora etorritako pertsonen adina**

Adinari dagokionez, bisitarietatik % 54,46 izan ziren 36tik 55 urtera artekoak. Aurreko urtearen aldean, 35 urtetik beherako bisitari gehiago izan direla ikusten da (% 17,34tik % 20,12ra).

***Gasteizko bulegora etorritako bisitarien banaketa adin multzoka***

| **Adina** | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 53 | 6,39 |
| 26-35 | 114 | 13,73 |
| 36-45 | 260 | 31,33 |
| 46-55 | 192 | 23,13 |
| 56-65 | 103 | 12,41 |
| 66 edo gehiago | 108 | 13,01 |
| Guztira | 830 | 100 |

- **Bisitarien jatorri geografikoa**

Gasteizko bulegora etorri diren pertsonetatik % 79,76 hiriburuan bertan bici dira, eta % 13 baino gehixeago lurralde historiko honetako beste udalerri batzuetan.

***Gasteizko bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Araba-hiriburua | 662 | 79,76 |
| Araba-beste udalerri batzuk | 115 | 13,86 |
| Bizkaia | 25 | 3,01 |
| Gipuzkoa | 16 | 1,93 |
| Besterik | 12 | 1,44 |
| Guztira | 830 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## B) DONOSTIAKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

Donostiako arreta zuzeneko bulegoan 1.197 kontsultari egin zaio jaramon. 716 bisita hartu dira, eta 164 kexa aurkeztu dira.

***Donostiako bulegora etorritako bisitarien ezaugarriak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonezkoak | 315 | 43,99 |
| Emakumezkoak | 310 | 43,3 |
| Taldeak | 50 | 6,98 |
| Bikoteak | 41 | 5,73 |
| Guztira | 716 | 100 |

- **Donostiako bulegora etorritako pertsonen adina**

Donostiako arreta zuzeneko bulegora etorritako 56 urtetik beherakoen portzentajea jaitsi da, baina 45 urtetik beherakoena igo egin da (% 36,87).

***Donostiako bulegora egindako bisitarien banaketa, adin multzoka***

| Adina | Kopurua | % |
|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 21 | 2,93 |
| 26-35 | 77 | 10,75 |
| 36-45 | 166 | 23,19 |
| 46-55 | 196 | 27,37 |
| 56-65 | 105 | 14,67 |
| 66 edo gehiago | 151 | 21,09 |
| Guztira | 716 | 100 |

- **Bisitarien jatorri geografikoa**

Donostiako arreta zuzeneko bulegora etorri diren gehienak hiriburuan bizi dira (% 55,17), eta % 43,99 Gipuzkoako beste udalerri batzuetakoak dira, 2002. urtearen aldean igoera nabarmena erakusten duena.

***Donostiako bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gipuzkoa-hiriburua ............................ | 395 | 55,17 |
| Gipuzkoa-beste udalerri batzuk ............. | 315 | 43,99 |
| Araba ............................................... | 1 | 0,14 |
| Frantzia ............................................ | 1 | 0,14 |
| Madril ............................................... | 3 | 0,42 |
| Nafarroa ........................................... | 1 | 0,14 |
| Guztira ............................................. | 716 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## C) BILBOKO ARRETA ZUZENEKO BULEGOA

2003an Bilboko arreta zuzeneko bulegoan 1.275 kontsultari egin zaio jaramon. 743 bisita hartu dira, eta formalki, 277 kexa aurkeztu dira.

***Bilboko bulegora etorritako bisitarien ezaugarriak***

| | Kopurua | % |
|---|---|---|
| Gizonezkoak ..................................... | 373 | 50,2 |
| Emakumezkoak ................................. | 307 | 41,32 |
| Bikoteak .......................................... | 49 | 6,6 |
| Taldeak ............................................ | 14 | 1,88 |
| Guztira ............................................. | 743 | 100 |

- **Bilboko bulegora etorritako pertsonen adina**

EAEko beste bi hiriburuetan bezala, Bilboko bulegora etorri diren pertsonarik gehienak 36tik 55 urtera artekoak dira.

***Bilboko bulegora etorritako bisitarien banaketa adin multzoka***

| **Adina** | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| 25 urte artekoak | 20 | 2,69 |
| 26-35 | 130 | 17,49 |
| 36-45 | 215 | 28,94 |
| 46-55 | 143 | 19,25 |
| 56-65 | 126 | 16,96 |
| 66 edo gehiago | 109 | 14,67 |
| Guztira | 743 | 100 |

**- Bisitarien jatorri geografikoa**

Bisitarien % 49,12 hiriburukoak bertakoak dira, eta % 47,78 Bizkaiko beste udalerri batzuetakoak dira.

***Bilboko bulegora egindako bisiten banaketa bisitarien jatorri geografikoaren arabera***

| | **Kopurua** | **%** |
|---|---|---|
| Bizkaia-hiriburua | 365 | 49,12 |
| Bizkaia-beste udalerri batzuk | 355 | 47,78 |
| Araba | 4 | 0,54 |
| Besterik | 19 | 2,56 |
| Guztira | 743 | 100 |

(Ikus 20. diagrama eranskinean)

## 8. OFIZIOZKO JARDUERAK

Herritarren kexak aztertu eta ikertzeaz gain, Ararteko erakundeak, bere ekimenez, hainbat gai ikertzeari ekiten dio: batzuetan, Euskadiko herri administrazioren batean jarduketa irregularrik egoteko arriskua ikusi dugulako; beste batzuetan, zerbitzu berriak emateko edo laguntzeko aukera ikusi dugulako. Ofiziozko jarduerak dira, Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 17.1 artikuluan Arartekoari ematen dion eskumena, bere kabuz esku hartzeko aukera eskaintzen diona, administrazioaren irregulartasunen edo akatsen baten ondorioz kalteturiko herritarren erreklamazioen zain egon barik.

2003an ofiziozko 116 espediente bideratu dira, aurreko urtean baino 25 gehiago. Ofiziozko jardueren artean, kopuruarengatik, Hirigintza eta Etxebizitza arlokoak nabarmentzen dira, bereziki *Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna* txostenaren jarraipena egiteko asmoz hasitako jarduerak.

| ***Ofiziozko jardueren banaketa arloen arabera*** | | |
|---|---|---|
| | **Ofizioz egindako espedienteak** | **%** |
| Hirigintza eta Etxebizitza | 60 | 51,73 |
| Ingurumena | 13 | 11,21 |
| Funtzio Publikoa | 11 | 9,48 |
| Gizarte Ongizatea | 10 | 8,62 |
| Herrizaingoa | 6 | 5,17 |
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 4 | 3,45 |
| Hezkuntza | 3 | 2,59 |
| Ogasuna | 3 | 2,59 |
| Gizarte Arazoak | 2 | 1,72 |
| Osasuna | 2 | 1,72 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 1 | 0,86 |
| Justizia | 1 | 0,86 |
| Guztira | 116 | 100 |

(Ikus 21. diagrama eranskinean)

Aurreko urteetan bezala, tokiko administrazioak izan dira ofiziozko jarduketa gehien eragin dutenak, zehazki, % 55,46. Bestalde, % 28,57 Eusko Jaurlaritzaren gainera eta % 15,97 foru administrazioen gainera erori dira.

| ***Ofiziozko jardueren banaketa, eraginpeko administrazioen arabera*** | | |
|---|---|---|
| | **Kopurua** | **%** |
| Toki administrazioa | 66 | 55,46 |
| Eusko Jaurlaritza | 34 | 28,57 |
| Foru Administrazioa | 19 | 15,97 |
| Guztira | 119 | 100 |

(Ikus 22. diagrama eranskinean)

## 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)

Ararteko erakundeak duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bidea hasi zuen, bitartekaritza eskatu dioten pertsonen iritzia jakiteko. Horrela, erakundearen ibileraren punturik ahulenak ezagutu nahi dira, eskaintzen den zerbitzua hobetzen saiatzeko.

Horretarako, 1996ko urtarriletik, kexa espediente baten izapideak amaitzen direnean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioa jakiteko.

Azken urteotan, bai kexagileek bete dituzten galdera sorten kopuruak eta bai gure zerbitzuez azaldu duten iritziak ere berretsi egiten dute esperientzia honen emaitza ona. 2003. urtean galdera sorta bidali zaien pertsonetatik % 46,6k erantzun digute, eta horrek ondorio fidagarri eta aintzat hartzeko modukoak ateratzeko aukera ematen digu.

Emaitzak baloratzeko orduan kontuan izan behar dugu ezen, urte honetan izapideak amaitu zaizkien kexa guztietatik % 32,15ean soilik iritzi zaiola arauz kontrakoa dena delako administrazioaren jokabideari.

Betetako galdera sorten datuak laburbilduz, erreklamazioren bat aurkeztu duten eta izapidetzen amaitu zaizkien herritarretatik % 83,75ek hauxe esan dute, *“Arartekoak emandako informazio ona edo oso ona izan da”*, eta % 62,56k *“erabat edo nahiko ados daude Arartekoak euren kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin”*.

Arartekoaren esku hartzea oro har, hau da, erakutsitako interesa, egindako gestioak, eta abar, nola baloratuko luketen galderari, kexagileetatik % 83,74k *“oso balorazio ona edo nahikoa ona”* egiten dutela diote eta baiesten dute eta % 89,66k *“kasu guztietan edo kasu batzuetan Arartekoarengana jotzeko gomendatuko lioketela administrazioarekin arazoak dituenari”*.

Azpimarratu behar da *“kexaren jatorrizko arazoa konpondu barik dago oraindik edo nahiko txarto konpondu da”* erantzun diotenen artean (galdera sorta erantzun dutenen % 52,22) *“erakundearen esku hartzeaz balorazio positiboa edo oso positiboa”* egiten dutenak (% 75,47) eta *“kasu guztietan edo kasu batzuetan Arartekoarengana jotzea gomendatuko luketenak”* (% 84,9) gehitu direla.

Inkestetatik ateratzen diren datuez gain, kexagileek beren iritzi eta iradokizunak ere helarazi ahal dizkigute galdera sortaren ataletako bat betez. Aurreko urteetan bezala, herritar askok Arartekoak aginte handiagoa, erabakitzeko ahalmen handiagoa izan behar duela iradokitzen dute, eta ebazpenek lotesleak, bete beharrekoak izan beharko luketela. Gainera, batzuk uste dute egon litezkeen administrazio erantzukizunak exijitu beharko lituzkeela, ofizioz, eta zuzen jokatu ez duten administrazioak zigortzeko ahalmena eduki beharko lukeela. Zenbaiten iritziz, Ararteko erakundeak administrazioetatik bidaltzen dioten informazioa sakon aztertu beharko luke. Hainbat herritar bat datoz Ararteko erakundea informazio igorle hutsa delako iritzian, eta kexa jarri zutenetik erantzuna jaso zuten arte joandako denbora luzeegia izan zela. Berresten dute erakundearen zabalkundea eta lana publizitate ekinaldien bidez indartu beharko litzatekeela.

- **Inkestaren emaitzak** (Ikus 23 eta 28 bitarteko diagramak eranskinean)

**. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?**

| | |
|---|---|
| . Oso ona | 37,44 |
| . Ona | 46,31 |
| . Txarra | 7,88 |
| . Oso txarra | 4,92 |
| . Erantzunik ez | 3,45 |

**. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?**

| | |
|---|---|
| . Oso luzea | 13,30 |
| . Luzea | 35,47 |
| . Laburra | 34,98 |
| . Oso laburra | 10,83 |
| . Erantzunik ez | 5,42 |

**. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?**

| | |
|---|---|
| . Erabat ados | 30,54 |
| . Nahiko ados | 32,02 |
| . Ez nago ados | 11,82 |
| . Erabateko desadostasuna | 16,26 |
| . Erantzunik ez | 9,36 |

**. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:**

| | |
|---|---|
| . Oso ondo konpondu da | 18,72 |
| . Nahiko ondo konpondu da | 23,15 |
| . Nahiko txarto konpondu da | 6,41 |
| . Ez da konpondu | 45,81 |
| . Erantzunik ez | 5,91 |

**. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku hartzea? (hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)**

| | |
|---|---|
| . Oso ona | 51,23 |
| . Nahiko ona | 32,51 |
| . Nahiko txarra | 4,93 |
| . Oso txarra | 5,91 |
| . Erantzunik ez | 5,42 |

. **Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

| | |
|---|---|
| . Bai, beti | 67 |
| . Bai, batzuetan | 22,66 |
| . Ez, inoiz ere ez | 7,38 |
| . Erantzunik ez | 2,96 |

Galdetutakoen erantzunak beren kexa eragin zuen arazoa konpontzearen ala ez konpontzearen arabera desberdinak izan zitezkeen. Ez da, baina, horrelakorik gertatu, kexagileek beren arazoa ez dela konpondu edo txarto konpondu dela dioten galdera sortetako datuek berresten dutenarengatik.

- **Ararteko erakundeak izandako esku-hartzeari buruz kexagileek euren arazoa *"ez da konpondu"* edo *"nahiko txarto konpondu da"* erantzunez baloratu dutenak** (Ikus .. eta .. diagramak eranskinean)

. **Oro har, zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prestasuna, egindako gestioak...)**

| | |
|---|---|
| . Oso ona | 30,19 |
| . Nahiko ona | 45,28 |
| . Nahiko txarra | 9,43 |
| . Oso txarra | 11,32 |
| . Erantzunik ez | 3,78 |

. **Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**

| | |
|---|---|
| . Bai, beti | 56,6 |
| . Bai, batzuetan | 28,3 |
| . Ez, inoiz ere ez | 14,16 |
| . Erantzunik ez | 0,94 |

# IV. ATALA

# ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA

## 1. **SARRERA ETA OHARRAK**

Lege antolamenduak Ararteko erakundearen modukoei esleitzen dizkien kontrol eginkizunak betetzeko ezinbestekoa da erakunde horien jarduera esparruetan sartzen diren herri administrazioen laguntza. Izan ere, administrazio horiek izapidetzen diren espedienteen ebazpen oinarritua lortzeko behar den informazio guztia eman behar dute eta, gainera, ezarritako epeetan egin behar dute hori, ikerketa eta kontroleko lanek gutxieneko eragingarritasuna izan dezaten nahi bada behintzat.

Errealitate horretaz jabetuta, Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, 23. artikuluan, bere kontrolpean jarritako herri administrazioen betebehar hori espresuki aipatzen du, administrazio horiei eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten eta argitasun guztiak lehentasunez eta premiaz aurkeztu behar dutela dioenean. Era berean, 26. artikuluan ohartarazten du informazioak, espedienteak edota bestelako datuak bidaltzeko eskatzen zaienean, erakundeak eskatutakoari erantzun dakion epe bat ezarri beharko duela. Betebehar hori sendotzeko, lege berberak dio, 24.2 artikuluan, herri Administrazioaren zerbitzura ari den edozein organismo, funtzionario, zuzendari edo pertsonak Arartekoaren ikerketa lanaren aurrean jarrera ezkorra edo oztopatzailea erakusten tematzekotan, txosten berezia egin ahal izango da, urteko txostenean dagokion atalean aipatzeaz gain.

Izan ere, kapitulu hau urteko txosten honetan sartu badugu, Legebiltzarrak eta, hedapenez, iritzi publikoak oro har Arartekoari zintzoki lagundu ez dioten, Arartekoaren esku hartzea eragotzi edo atzeratu duten eta herritarrek jarritako kexak behar den epearen barruan ebatzi ahal izatea eragin duten kargudunak edo funtzionarioak nortzuk izan diren jakin dezaten izan da.

Gertatzen da, gainera, kontroleko erakunde hauei lagundu behar horrek lege antolamenduan hain garrantzi handia hartzen duela non ez betetzeak zigor bideko tratamendua ere baduen. Izan ere, lankidetzarik edo laguntzarik ez ematea Estatuko Erakundeen eta Botere Banaketaren aurkako delitu gisa aurreikusita dago Zigor Kodearen 502.2 artikuluan, eta *"Autonomia Erkidegoko Ararteko, Kontu Epaitegi edo antzeko erakundeen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioei eskatzen zaizkien txostenak bidaltzera ukatzen direlako edo bidaltzea besterik gabe atzeratzen dutelako, edo ikerketarako beharrezkoak diren administrazioko espediente edo dokumentazioak eskuratzea eragozten dietelako"* enplegu edo ardura publikotik sei hilabetetik bi urterako etenaren zigorra ezar lekieke. Ikusten denez, mota diseinatzeko orduan lehenago aipatu ditugun bi aldagaiak hartzen dira kontuan, multzoan, lankidetza betebehar hori betetzen dutenak, alegia, zorrozki betetzea eta epe jakin batean egin beharra.

Lehenago aurreratu dugun bezala, kapitulu honek herri administrazio eta erakundeek lege antolamenduak ezartzen dien lankidetza edo laguntza betebeharraren aurrean nola jokatu duten erakusten du. Jarraian agertuko diren datuetan Arartekoak, inplikatutako erakunde eta organismoei erakunde bermatzaile honi laguntzeko duten betebeharra gogoratuz eta bete dezaten eskatuz egin dituen gestioak erakusten dira, bidali zaien informazio eskariari erantzun ez dioten edo erantzuten atzeratu diren kasuetan eta, era berean, gomendioak betetzeari eta legezkotasunaren gogorarazteei buruz jakindako isiltzeei buruzko kasuetan ere bai.

Kexa espediente batzuetan, informazio eskariari erantzuten ekitaldi bat baino gehiagoko berandutza ere izaten da. Horregatik, egoki iritzi diogu, aurreko ekitaldietan esan izan dugun bezala, txosten honetan 2003an izapidetzen ari ziren kexa espedienteetan egindako agindeien zerrenda xehatua egiteari, izapideak aurreko urteetan hasi arren. Hori egin badugu Arartekoaren irizpenaren mende jartzen diren jardueren erantzule diren erakundeen lankidetzaren indizeen gaineko ikuspegi orokorragoa eskaintzeko izan da.

Ezinbestekoa da adieraztea, agindei horiek egitean, Arartekoa ez dela automatikoki aritzen. Laguntzeko betebeharra gogorarazteko eginkizun hori zuhurtziaz baliatzen da, administrazioaren kudeaketan eragina daukaten aldagaiak neurtuz, eta kexa jarri duten pertsonei modu eragingarri eta lasterrean erantzun ahal izateko helburu garbiaz. Hona hemen, besteak beste, zein diren, guretzat, nahitaez aditu behar zaien ingurumariak: informazioa eskatzen den arazoaren izaera materiala, eskaria egiten zaion organoaren burokrazia eta administrazio sarearen konplexutasuna, artatu beharreko prozeduren balizko pilaketa, hauteskunde garaien ondorioz kontrolaren mende jarritako erakundeen eraketan dauden denbora aldagaiak, arduradun eta funtzionarioak biratzea edota ordezkatzea, eta abar.

Ingurumari horri adituz, hain zuzen, ekitaldi honetan berritasun bat erantsi diogu agindeien tramitazio mekanizatuari, bategatik ala besteagatik erakunde honek eskatutako lankidetzari erantzuteko ardura duten pertsonengan biraketa bat izaten da. Hartara, orain arte jarraikako hiru agindeiri ez erantzuteak fiskaltzarekin jarduerak abiaraziko zirelako ohartarazpena bazekarren, oraingo berritasunarekin tramitazioaren ardura duen titularra aldatzen denerako salbuespena sartu dugu, eta halakoetan balizko ohartarazpenaren aurretik bete ez diren agindeiak berriro zenbatzen dira. Horrekin zigorrezko ondoreak ekar litzaketen jarduera pertsonalei tratamendu egoki eta ñabardurazkoagoa eman ahal izatea lortu nahi da.

Zoritxarrez, ordea, ez da falta erakunde honen kontrol betekizunarekiko eta, ondorioz, herritar erreklamaziogileen eskubideenganako errespeturik ezeko jarrera adierazten duen ardura gabezia nabarmena agerian jartzen deneko unerik. Izan ere, hainbatetan, laguntzeko betebeharra ez betetzea maila aipagarrietarako heltzen da. Ararteko erakundeak, behin eta berrizko agindeiei erantzun zaienean, ukitutako administrazioei Zigor Kodearen 502.2 artikuluan zehaztutako delitua egiten ari litezkeela eta, hartara, gaia zigor bideko jurisdikziora bidera genezakeela gogorarazi behar izan diegun gaiez ari gara.

2003ko ekitaldian 4. zenbakia daukan zerrendan ageri diren titular arduradunei helarazi diegu ohartarazpen hori:

Egia da titular arduradunek azkenean, ohartarazpen horietako gehienetan eskatutako informazioa eman egin digutela Hala ere, ezin dugu laguntzeko prestutasunik

ezak erakunde honen esku hartzea egokiro eta zuzen bideratzea oztopatu duela salatu gabe utzi.

Larriagoa da, ezbairik gabe, jarraian esango ditugun honako titular arduradunen jarrera, egin zaizkien ohartarazpenak egin arren, urteko txosten hau egiten ari garen unean oraindik erakunde honi laguntzeko inolako itxurarik erakutsi ez dutelako.

| | | |
|---|---|---|
| José Luis Portillo | Karrantzako Alkatea | 930/2000/23 espedientea |
| Mikel Arieta-Araunabeña | Erandioko Alkatea | 892/2002/17 espedientea |
| Joseba Escribano Etxebarria | Galdakaoko Alkatea | 996/2002/25 espedientea |

Oztopozko jarrera horren haritik, hain zuzen, berriro ere aipatu behar ditugu 2001ean Pasaiako alkatea protagonista izan genueneko gertakariak.

Dakizuenez, 2001ean, Juan Carlos Alduntzin Pasaiako alkateak behin eta berriro ukatu zion laguntza gure erakundeari, urte horretan Gipuzkoako udal horrekin izapidetu ziren kexa espedienteetako ikerketa lana oztopatzeko jarrera garbia erakutsiz.

Arartekoaren idatzi guztietan, pertsona orok bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea duela dioen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua eta "ETA EZ" euskaraz eta gaztelaniaz leloa idazten zenez, Juan Carlos Alduntzin jaunak, erakunde honek lelo horrekin bidaltzen zizkion idatziak jasotzean, 2001eko maiatzaren 15ean Alkatetzak emandako ebazpen bat ateratzen zuen, non ondokoa xedatzen baitzuen: "*neutraltasunera bueltatu arte, arartekoak bidaltzen dituen idatzi guztiak hari itzultzea*". Ebazpen horretan oinarrituz, Juan Carlos Alduntzin Juanena Pasaiako alkate jaunak Ararteko erakundetik bidali zaizkion idatzi guztiak itzuli dizkigu.

Oztopatzeko jokabide argi eta garbi horrek erakunde honek udal horren jarduerekin zerikusia dutelako izapidetzen diren espedienteetan esku hartzea oztopatzen du, behin eta berrizko eskakizunak egin arren, eta erakunde honengana jo duten herritarrengan defentsarik gabeko egoera sortzen du.

Egoera larri horren ondorioz, 2001.12.27an erakunde honek Ministerio Fiskalari gertakariok jakinarazi zizkion, Zigor Kodeko 502.2 artikuluan aurreikusitako delitua egiten ari zen ala ez esan zezan.

Donostiako 1. Instrukzio Epaitegiak 039/02 prozedura laburtua abiatu zuen, "*Gipuzkoako Pasaia herriko alkate Juan Carlos Alduncín Juanena jaunaren aurkakoa, indarreko Zigor Kodearen 502.2 artikuluan aurreikusi eta zigortutako Estatuko Erakundeen aurkako ustezko delituarengatik*".

Prozeduraren eginbideak bete ondoren, fiskalak, 2002ko apirilaren 25ean, zigor bideko epaitegiaren aurrean ahozko epaiketa zabaltzea eskatu zuen.

Donostiako 5. Zigor Epaitegiak 2003ko apirilaren 11n eman zuen epaian Pasaiako alkateari hamaika hilabetez enplegu zein kargu publikoetatik baztertzeko zigorra ezarri zion.

Epaiari apelazio errekurtsoa jarri zioten eta 2003ko urriaren 1ean Gipuzkoako Probintzia Entzutegiak ezetsi egin zuen Donostiako 5. Zigor Epaitegiak 2003ko apirilaren 11n emandako epaiaren aurkako apelazio errekurtsoa. Ondorioz, epai hori erabat berretsi zuen, hau esanez: "*JUAN CARLOS ALDUNTZIN JUANENA jauna, jada definitutako eta erantzukizun kriminala aldarazteko ingurumaririk gabeko Estatuko erakundeen aurkako delitu baten egile izanik, ENPLEGU EDO KARGU PUBLIKOTIK hamaika hilabetez KENDU eta prozesuaren kostak ordaintzera zigortzen da*».

Arartekoari ez laguntzeagatik egindako faltarengatik herri agintari bat, Zigor Kodearen 502.2 artikulua aplikatuz, zigortzen den lehenengo aldia izanik, epaiaren testu osoa IV. eranskin gisa sartzeari egoki iritzi diogu.

* * *

Arestiko iruzkinak egin ondoren, uste dugu hainbat kontu ere argitu behar ditugula, jarraian sartuko diren zerrendetan bildutako datuak hobeto ulertu ahal izateko:

- Lehenengo zerrendan, gure kontrolaren mende jarri diren eta izapideetan gutxienez informazio eskari bat eta, izatekotan, agindei bat edo gehiago egin behar izan zaien erakunde edo organismo desberdinetan izapidetutako espedienteak guztira jaso dira. Zerrenda honetan gomendioak betetzeaz eskatutako informazioak eta luzatutako agindeiak ere sartuta daude. Hona hemen zutabe bakoitzean zer informazio islatzen den:

  (1) zenbat espedientetan egin den 2003. urtean informazio eskariren bat.
  (2) 2002an informazioa eskatu deneko espedienteetatik zenbatetan egin den agindeiren bat.
  (3) agindeia egin zaien espedienteen portzentajea, 2003an informazio eskaririk egin zaieneko guztirako espedienteen aldean.
  (4) 2003an agindeirik zenbat espedienteri egin zaion, aurreko urteetan egindako informazio eskariei buruzkoak izanik.
  (5) 2003an agindeirik egin zaien espedienteetan, agindeien kopuruaren xehatzea.
  (6) 2003an guztira egindako agindeiak.

- Bigarren zerrendan xehetasunez islatzen dira, banan-banan, izapidetzeko gure irizpenaren mende jarri diren egitateak egin dituzten organo edo erakundeei agindeiak helarazi behar izan zaizkieneko espedienteak, bai ohiko informazioei dagokionez bai gomendioak betetzeari dagokionez.
- Erreferentziei izartxoa gehitu zaieneko espedienteak aurreko urteetan izapidetzen hasitako eta 2003an, izapidetzen jarraitzen zutenez, agindeiak egin behar izan zaizkienak dira.
- Azkeneko zutabean islatzen den datua, informazioa oraindik jaso gabe dagoen ala jasota dagoen dioena, muga data 2003ko abenduaren 31 zelarik sartu da.

Azkenik, komeni da nabarmentzea behin baino gehiagotan aipatzen diren espedienteak informazio bat baino gehiago behari izan dutenak direla. Horrela agerrarazten dira planteatutako eskari bakoitzeko zenbat agindei egin behar izan diren jasotzeko.

# 2. ARARTEKOAK 2003. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA

## A) Eusko Jaurlaritza

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Errekerimenduen kopurua desglosatua | | | | | |
| Saila | 2003eko eskaera espedienteak | Errekerimendua duten espedienteak | % | Aurreko urteetako errekerimenduak | 1 | 2 | 3 | 4 | + 5 | 2003eko errekerimenduak guztira |
| Nekazaritza eta Arrantza | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kultura | 7 | 4 | 50 | - | 1 | 3 | - | - | - | 7 |
| EITB | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 73 | 33 | 45,20 | 7 | 28 | 8 | 3 | - | 1 | 58 |
| Musikene-Euskal Herriko Musikako Goi Zentroa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 8 | 3 | 37,5 | 1 | 3 | 1 | - | - | - | 5 |
| HAEE | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 9 | 2 | 22,22 | - | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Herrizaingoa | 46 | 9 | 19,57 | 7 | 14 | 2 | - | - | - | 18 |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 23 | 9 | 39,13 | 2 | 6 | 4 | 1 | - | - | 17 |
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena | 8 | 1 | 12,5 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Osasuna | 13 | 5 | 38,46 | 2 | 7 | - | - | - | - | 7 |
| SVS/Osakidetza | 51 | 10 | 19,61 | 3 | 9 | 4 | - | - | - | 17 |
| Garraioak eta Herri Lanak | 4 | 2 | 50 | - | 1 | 1 | - | - | - | 3 |
| Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Lehendakariordetza | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 49 | 26 | 53,06 | 2 | 16 | 8 | 2 | 2 | - | 46 |

## B) **Foru aldundiak**

| Arabako Foru Aldundia | (1) 2003eko eskaera espedienteak | (2) Agindeia duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako agindeiak | (5) Agindeien kopurua desglosatua 1 | (5) 2 | (5) 3 | (6) 2003ko agindeiak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Nekazaritza eta Ingurumena | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Gizarte Gaiak | 14 | 5 | 35,71 | 1 | 6 | - | - | 6 |
| Diputatu Nagusia | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak | 5 | - | - | - | - | - | - | - |
| Herri Lanak eta Garraioak | 5 | 1 | 20 | - | - | 1 | - | 2 |
| Herri Lanak eta Hirigintza | 5 | 1 | 20 | - | - | 1 | - | 2 |
| Hirigintza eta Ingurumena | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |

| Bizkaiko Foru Aldundia | (1) 2003eko eskaera espedienteak | (2) Agindeia duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako agindeiak | (5) Agindeien kopurua desglosatua 1 | (5) 2 | (5) 3 | (6) 2003ko agindeiak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Ekintza | 8 | - | - | - | - | - | - | - |
| Herri Administrazioa | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | 1 |
| Nekazaritza | 3 | - | - | - | - | - | - | - |
| Kultura | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ogasuna eta Finantzak | 8 | 2 | 25 | 1 | 3 | - | - | 3 |
| Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Ingurumen eta Lurralde Ekintza | 2 | - | - | - | - | - | - | - |
| Herri Lanak eta Garraioak | 8 | 5 | 62,5 | 2 | 5 | 2 | - | 9 |
| Lehendakaritza | 1 | - | - | - | - | - | | - |

| Gipuzkoako Foru Aldundia | (1) 2003eko eskaera espedienteak | (2) Agindeia duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako agindeiak | (5) Agindeien kopurua desglosatua 1 | (5) 2 | (5) 3 | (6) 2003ko agindeiak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza eta Ingurumena | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Foru Administrazioaren Kalitatea | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |
| Kultura eta Euskara | 2 | - | - | - | - | - | - | - |
| Gizarte eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzea | 5 | - | - | - | - | - | - | - |
| Landa Ingurunearen Garapena | 7 | 3 | 42,86 | - | - | 1 | 2 | 8 |
| Garapen Eramangarria | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Zergak eta Finantzak | 8 | 2 | 33,33 | 1 | 3 | - | - | 3 |
| Bide Azpiegiturak | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | 1 |
| Gizarte Politika | 1 | - | - | - | - | - | - | - |
| Lehendakaritza | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |
| Gizarte Zerbitzuak | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | 1 |

C) **Udalak**

## - Araba Lurralde Historikoa

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Agindeien kopurua desglosatua | | | | |
| **Udala** | 2003eko eskaera espedienteak | Agindeia duten espedienteak | % | Aurreko urteetako agindeiak | 1 | 2 | 3 | 4 | 2003ko agindeiak guztira |
| Amurrio | 2 | 2 | 100 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Arrazua-Ubarrundia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Artziniega | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Asparrena | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Ayala / Aiara | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Bernedo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Elciego | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | 2 | 1 | 50 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Laguardia | 1 | 1 | 100 | 1 | - | 1 | 1 | - | 5 |
| Llodio | 3 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Okondo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ribera Baja / Erribera Beitia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Salvatierra / Agurain | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Valdegovía | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Vitoria-Gasteiz | 54 | 17 | 31,48 | 4 | 13 | 4 | 3 | 1 | 34 |
| Zuia | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Agindeien kopurua desglosatua | | | | |
| **Batzak** | 2003ko eskaera duten espedienteak | Agindeia duten espedienteak | % | Aurreko urteetako agindeiak | 1 | 2 | 3 | + 4 | 2003ko agindeiak guztira |
| Arkaute | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bernedo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Durana | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Fontecha | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Hereña | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| LLanteno | - | - | - | 1 | - | 1 | - | - | 2 |
| Maestu | - | - | - | 1 | - | 1 | - | - | 2 |
| Mendarozketa | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Nanclares de la Oca / Langraiz Oka | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Puentelarrá | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |

## - Bizkaia Lurralde Historikoa

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Agindeien kopurua desglosatua | | | | | |
| Bizkaiko udalak | 2003ko eskaera duten espedienteak | Agindeia duten Espedienteak | % | Aurreko urteetako agindeiak | 1 | 2 | 3 | 4 | +5 | 2003ko agindeiak guztira |
| Abadiño | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 3 | 2 | 66,67 | 2 | 1 | 2 | 1 | - | - | 8 |
| Alonsotegi | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | - | 3 |
| Amorebieta-Etxano | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Arcentales | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arrankudiaga | - | - | - | 1 | - | - | - | - | 1 | 5 |
| Arrieta | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arrigorriaga | 1 | - | - | 2 | - | - | 2 | - | - | 6 |
| Atxondo | 1 | 1 | 100 | - | - | - | 1 | - | - | 3 |
| Bakio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Balmaseda | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Barakaldo | 19 | 5 | 26,32 | 2 | 5 | 1 | 1 | - | - | 10 |
| Barrika | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Basauri | 8 | 2 | 25 | 1 | 2 | - | 1 | - | - | 5 |
| Berango | 1 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Bermeo | 4 | 3 | 75 | - | 3 | - | - | - | - | 3 |
| Berriatua | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bilbao | 69 | 19 | 27,54 | 18 | 25 | 6 | 5 | - | 1 | 58 |
| Busturia | 3 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Carranza | 1 | 1 | 100 | 1 | - | 1 | 1 | - | - | 5 |
| Derio | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Durango | 8 | 4 | 50 | 2 | 4 | 1 | 1 | - | - | 9 |
| Ea | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Erandio | 3 | 2 | 66,67 | 3 | 1 | 3 | 1 | - | - | 10 |
| Ermua | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Errigoiti | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Galdakao | 5 | 5 | 100 | 1 | 3 | 1 | 1 | 1 | - | 12 |
| Galdames | 2 | 1 | 50 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Gamiz-Fika | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Gautegiz Arteaga | 2 | 2 | 100 | - | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Gernika-Lumo | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Getxo | 11 | 8 | 72,73 | 5 | 6 | 6 | - | 1 | - | 22 |
| Gorliz | 2 | 2 | 100 | - | 2 | - | - | - | - | 2 |
| Güeñes | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Leioa | 4 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lekeitio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Lemoa | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Lemoiz | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Loiu | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Mañaria | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Markina-Xemein | 4 | 3 | 75 | - | 3 | - | - | - | - | 3 |
| Maruri-Jatabe | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Mendata | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | - | 1 |
| Mungia | 3 | 2 | 66,67 | 1 | 1 | 1 | 1 | - | - | 6 |
| Muskiz | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Ondarroa | 3 | 1 | 33,33 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Orduña | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Orozko | 1 | 1 | 100 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Ortuella | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Otxandio | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Plentzia | 2 | 1 | 50 | 1 | 1 | - | 1 | - | - | 4 |
| Portugalete | 12 | 6 | 50 | 6 | 3 | 6 | 1 | 2 | - | 26 |

| Bizkaiko udalak | (1) 2003ko eskaera duten espedienteak | (2) Agindeia duten Espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako agindeiak | (5) Agindeien kopurua desglosatua 1 | 2 | 3 | 4 | + 5 | (6) 2003ko agindeiak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Santurtzi | 9 | 3 | 33,33 | - | 1 | 2 | - | - | - | 5 |
| Sestao | 6 | 4 | 66,67 | 2 | 5 | - | 1 | - | - | 8 |
| Sondika | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Sopelana | 3 | 1 | 33,33 | - | - | 1 | - | - | - | 2 |
| Sopuerta | 5 | 5 | 100 | - | - | 1 | 4 | - | - | 14 |
| Zalla | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zeberio | 1 | 1 | 100 | 1 | 2 | - | - | - | - | 2 |

## - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

| Gipuzkoako udalak | (1) 2003ko eskaera duten espedienteak | (2) Agindeia duten espedienteak | (3) % | (4) Aurreko urteetako agindeiak | (5) Agindeien kopurua desglosatua 1 | 2 | 3 | 4 | (6) 2003ko agindeiak guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Andoain | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Aretxabaleta | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Arrasate / Mondragón | 2 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Astigarraga | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Azkoitia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Beasain | - | - | - | - | - | 1 | - | - | 2 |
| Berastegi | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Bergara | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Deba | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Donostia-San Sebastián | 39 | 18 | 46,15 | 3 | 12 | 7 | 2 | - | 32 |
| Eibar | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Elgoibar | 2 | 2 | 100 | - | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Errenteria | 7 | 1 | 14,29 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Getaria | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Hondarribia | 4 | 1 | 25 | 3 | 3 | 1 | - | - | 5 |
| Ibarra | 1 | 1 | 100 | 1 | 1 | 1 | - | - | 3 |
| Irun | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Irura | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Lasarte-Oria | 4 | 2 | 50 | - | 2 | - | - | - | 2 |
| Leaburu | 2 | 2 | 100 | - | - | - | 2 | - | 6 |
| Legazpi | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Mutriku | 2 | 1 | 50 | - | - | - | - | 1 | 4 |
| Oiartzun | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Ordizia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Orio | 2 | 2 | 100 | 2 | 2 | 2 | - | - | 6 |
| Ormaiztegi | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Pasaia | 4 | 4 | 100 | 2 | 4 | 2 | - | - | 8 |
| Segura | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Tolosa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Urretxu | 2 | 1 | 50 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Usurbil | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Villabona | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Zarautz | 2 | 2 | 100 | 1 | 1 | 2 | - | - | 5 |
| Zumaia | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |

## D) Beste erakunde publiko batzuk

| | (1) | (2) | (3) | (4) | (5) | | | | (6) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2003ko eskaera duten espedienteak | Agindeia duten espedienteak | % | Aurreko urteetako agindeiak | Agindeien kopurua desglosatua 1 | 2 | 3 | + 4 | 2003ko agindeiak guztira |
| Bizkaiko Abokatuen Elkargoa | 6 | 1 | 16,67 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa | 3 | 1 | 33,33 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Bizkaiko Albaitarien Elkargoa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Bizkaiko Finka Administratzaileen Lurraldeko Elkargoa | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Euskal Abokatuen Kontseilua | 4 | 1 | 25 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa | 6 | 1 | 16,67 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Debagoienako Mankomunitatea | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea | - | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| Mebisa-Bilboko Metroa | 4 | 3 | 75 | 1 | 3 | 1 | - | - | 5 |
| Estatuaren erakunde eta administrazioak | 1 | 1 | 100 | - | 1 | - | - | - | 1 |
| Txingudi S.A. Zerbitzuak | 1 | - | - | 1 | 1 | - | - | - | 1 |
| EAEko Auzitegi Nagusia | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Euskal Herriko Unibertsitatea | 16 | 5 | 31,25 | 1 | 6 | - | - | - | 6 |

# 3. ARARTEKOAK 2003. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA

## A) Eusko Jaurlaritza

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Kultura | 491/2003/18 | Pilota federazioa. Epailea izateko federazioaren lizentzia berritzea. | 2 | 2003-09-10 | J |
| | 492/2003/18 | Pilota federazioa. Epailea izateko federazioaren lizentzia berritzea. | 2 | 2003-09-10 | J |
| | 493/2003/18 | Pilota federazioa. Epailea izateko federazioaren lizentzia berritzea. | 2 | 2003-09-10 | J |
| | 445/2003/18 | Euskarazko testuak itsuentzat | 1 | 2003-07-11 | J |
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 337/2002/24* | Behin betiko destinoa galtzea lanpostua kentzeagatik | 1 | 2003-01-24 | J |
| | 940/2002/20* | Irakasleen ordezkapenak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1030/2002/25* | Elbarrien tratua. Lanbide Ikasketetarako sarrera | 2 | 2003-03-19 | J |
| | 1065/2002/24* | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-01-23 | J |
| | 1066/2002/24* | Prezio Publikoak irakaskuntzako zerbitzuengatik | 2 | 2003-05-07 | J |
| | 1199/2002/20* | Ikastetxeak bateratzea | 2 | 2003-03-04 | J |
| | 1201/2002/25* | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-02-13 | J |
| | 153/2002/20 | Aurreko esperientzia baloratzea, irakasle ordezkapenetarako | 1 | 2003-05-14 | J |
| | 940/2002/20 | Irakasleen ordezkapenak | 2 | 2003-06-19 | J |
| | 1065/2002/24 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-11-27 | JG |
| | 1070/2002/20 | Eskola garraioa | 1 | 2003-03-20 | J |
| | 1070/2002/20 | Eskola garraioa | 1 | 2003-05-23 | JG |
| | 1149/2002/24 | Lansariak. Osagarri espezifikoa | 1 | 2003-11-27 | JG |
| | 1163/2002/25 | Eskola garraioa | 1 | 2003-03-19 | J |
| | 1169/2002/24 | Ordezkapenak. Ikasturte hasieran adjudikatzea | 1 | 2003-09-05 | J |
| | 12/2003/20 | Beka ukatzea | 1 | 2003-03-27 | J |
| | 85/2003/20 | Irakasleak berrartzeko irizpideak | 3 | 2003-07-07 | J |
| | 85/2003/20 | Irakasleak berrartzeko irizpideak | 2 | 2003-12-16 | JG |
| | 126/2003/20 | Unibertsitatekoa ez den beka ukatzea | 1 | 2003-03-20 | J |
| | 127/2003/20 | Hezkuntza behar bereziko ikasleak eskolatzea | 1 | 2003-03-20 | J |
| | 151/2003/20 | Sinbolo erlijiosoak ikastetxe publikoan | 2 | 2003-05-14 | J |
| | 156/2003/20 | Hezkuntzako funtzionarioa babes erregimen desberdinetan sartuta | 1 | 2003-03-20 | J |
| | 198/2003/20 | Lantegietan prestakuntza modulua kentzea | 1 | 2003-04-08 | J |
| | 222/2003/20 | Diabetesa duten ikasleen arreta | 1 | 2003-04-23 | J |
| | 414/2003/20 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-09-03 | J |
| | 481/2003/20 | Eskolako instalazioak | 1 | 2003-05-29 | J |
| | 583/2003/20 | Eskolako instalazioak | 1 | 2003-09-03 | J |
| | 669/2003/20 | Kantu titulu profesionala | 1 | 2003-09-18 | J |
| | 693/2003/20 | Eskolako instalazioak | 2 | 2003-10-01 | J |
| | 693/2003/20 | Eskolako instalazioak | 1 | 2003-11-19 | JG |
| | 699/2003/20 | Eskola garraioa | 2 | 2003-09-29 | J |
| | 699/2003/20 | Eskola garraioa | 1 | 2003-11-13 | JG |
| | 733/2003/17 | UPV / EHUko bere lanpostuko irisgarritasun eza. | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 786/2003/20 | Ebaluazio txostenak | 1 | 2003-11-19 | J |
| | 797/2003/25 | Eskola garraioa | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 860/2003/20 | Batxilergoa. Hautazko eta modalitateko ikasgaiak | 1 | 2003-09-18 | J |
| | 904/2003/24 | Hizkuntza eskakizunak. Funtzio publikorako sarbidea | 1 | 2003-11-27 | J |
| | 946/2003/20 | Itunpeko ikastetxeko hezkuntza bereziko laguntzaileak | 1 | 2003-12-03 | J |
| | 1022/2003/20 | Irakasleen enplegu publikoaren eskaintza (EPE) – Aurreko zerbitzuen balorazioa | 1 | 2003-11-06 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | 1029/2003/20 | Irakasleentzako – Aurreko zerbitzuen balorazioa | 1 | 2003-11-06 | J |
| | 1047/2003/20 | Irakasleen ordezkapenak | 2 | 2003-12-16 | JG |
| | 1068/2003/20 | EOI hutsuneak | 1 | 2003-11-19 | JG |
| | 1083/2003/20 | Eskola garraioa ukatzea | 1 | 2003-12-16 | J |
| | 1156/2003/20 | Eskola garraioa ukatzea | 1 | 2003-12-16 | J |
| Ogasuna eta Herri Administrazioa | 724/2002/20* | Hezitzaileen poltsa. Merituen balioztapena | 1 | 2003-01-21 | J |
| | 799/2002/20 | Aukera libreko egunetako baimena | 1 | 2003-05-22 | J |
| | 232/2003/20 | EPE geldiaraztea | 2 | 2003-07-18 | J |
| | 333/2003/20 | Bigarren Hezkuntzako Institutua – Kalteen eskaera | 1 | 2003-05-14 | J |
| HAEE | 56/2003/20 | Ordezkapenak.Goi Ingeniari | 1 | 2003-11-06 | J |
| Industria, Merkataritza eta Turismoa | 529/2003/25 | Parke eolikoen instalatzaileen hautaketa | 1 | 2003-10-30 | J |
| | 752/2003/22 | Ur-kondukzio partikularra jartzea | 1 | 2003-10-15 | J |
| Herrizaingoa | 508/1999/21* | Ertzaintzak gaizki jokatzea | 1 | 2003-04-01 | J |
| | 1149/2001/18* | Euskararen ofizialtasuna urratzea | 1 | 2003-01-09 | J |
| | 197/2002/19* | Ertzaintzaren komisaria zabaltzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 813/2002/19* | Ertzaintzak trafiko ezbeharrean hildakoen familiakoari emandako tratua | 1 | 2003-03-13 | J |
| | 856/2002/19* | Zezenketaren kontrako elkarretaratzean Ertzaintzak atxilotua | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 970/2002/19* | Zirkulazio ezbeharren gaineko Ertzaintzaren argiketa txostena eskuratzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 1197/2002/19* | SOS Deiak erakundea gaizki funtzionatzea | 1 | 2003-03-13 | J |
| | 360/2002/19 | Jakinarazpen akastunak trafiko zehapen prozeduran | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 835/2002/19 | Jakinarazpen akastunak trafiko zehapen prozeduran | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 14/2003/20 | Laguntza zerbitzuko baldintzak | 1 | 2003-04-08 | J |
| | 44/2003/19 | Ertzaintzaren jokaera gertakari batean | 1 | 2003-05-22 | J |
| | 384/2003/19 | Poliziaren atxiloketa gidarien artean | 1 | 2003-12-09 | JG |
| | 809/2003/19 | Ertzaina baten jazarpena | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 809/2003/19 | Ertzaina baten jazarpena | 1 | 2003-12-30 | JG |
| | 846/2003/19 | Ertzaintzaren gorputz miaketa San Franciscoko atari batean | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 846/2003/19 | Ertzaintzaren gorputz miaketa San Franciscoko atari batean | 1 | 2003-10-16 | JG |
| | 854/2003/19 | Ertzainaren jarrera euskaraz galdetzean | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 1123/2003/25 | Ertzaintzaren ukoa motor baten ibilgetzea kentzeko | 1 | 2003-12-17 | JG |
| Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza | 481/2002/22* | Lan baldintzen gaineko salaketa | 1 | 2003-06-19 | J |
| | 861/2002/16* | Laguntzen bateraezintasuna 176/2002 Dekretua | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 1186/2001/21 | Adin gabeko lege hausleei neurriak betearaztea | 2 | 2003-12-04 | JG |
| | 1102/2002/16 | BGAE. Eskubide finkatuak aldatzea | 1 | 2003-05-20 | J |
| | 204/2003/20 | Ordu desberdintasunen konpentsazioa | 1 | 2003-03-27 | J |
| | 204/2003/20 | Ordu desberdintasunen konpentsazioa | 1 | 2003-07-07 | J |
| | 231/2003/21 | Zentro bereziak adimen gaixotasuneko presoentzat | 1 | 2003-09-19 | J |
| | 476/2003/16 | 176/2002 Dekretuko laguntzak. Elkarbizitza seme-alabekin | 2 | 2003-10-28 | J |
| | 748/2003/20 | Informatika ikastaroak. Dirulaguntzak entitate pribatuei | 3 | 2003-11-06 | JG |
| | 751/2003/18 | Interneteko informazioa gaztelaniaz bakarrik | 2 | 2003-12-22 | JG |
| | 1023/2003/20 | INEMeko langileak | 1 | 2003-11-19 | J |
| | 1069/2003/20 | Lanbideko kategoriaren onarpena | 1 | 2003-11-19 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurralde Antolamendu eta Ingurumena | 884/2003/23 | Herri lanak | 1 | 2003-09-26 | J |
| Osasuna | 712/2002/18* | Gastuak itzultzea | 1 | 2003-01-09 | J |
| | 1155/2002/18* | Prestazio ortoprotesikoa eskueran izatea | 1 | 2003-02-11 | JG |
| | 1216/2001/18 | Antzutasunaren tratamendua eta GIB | 1 | 2003-06-10 | J |
| | 883/2002/01 | Kontu bat Arreta Sozio-sanitarioaren Kontseilura eramateko proposamena | 1 | 2003-12-16 | J |
| | 230/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 1 | 2003-04-23 | J |
| | 665/2003/25 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-07-11 | J |
| | 868/2003/20 | Etxebizitza eskubidea duen langilea | 1 | 2003-10-01 | J |
| SVS / Osakidetza | 1016/2002/20* | Lansarien demanda | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1053/2002/18* | Itxaroteko zerrenda | 1 | 2003-01-30 | J |
| | 1118/2002/18* | Atentzio medikoaren ziurtagiria | 1 | 2003-01-09 | J |
| | 1016/2002/20 | Lansarien demanda | 1 | 2003-11-13 | J |
| | 1250/2002/20 | Lekualdatze lehiaketa – Desplazatuak diren behin behineko itzulitakoen tratamendua | 1 | 2003-04-23 | J |
| | 214/2003/20 | Osakidetzako EPE. Frogen balorazioa | 1 | 2003-04-02 | J |
| | 235/2003/20 | Osakidetzako EPE. Lanbideko esperientziaren balorazioa | 1 | 2003-07-07 | J |
| | 678/2003/18 | Laguntza kostea erabiltzaileari fakturatzea | 1 | 2003-07-29 | JG |
| | 685/2003/18 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-09-29 | J |
| | 750/2003/20 | Osakidetzako EPE. Frogen balorazioa | 1 | 2003-09-03 | J |
| | 750/2003/20 | Osakidetzako EPE. Frogen balorazioa | 1 | 2003-11-13 | J |
| | 837/2003/18 | Gaixoaren arreta isilik gordetzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 844/2003/20 | Osakidetzako EPE. Frogen balorazioa | 2 | 2003-10-21 | J |
| | 847/2003/18 | Itxaroteko zerrenda | 1 | 2003-11-07 | J |
| Garraioak eta Herri Lanak | 174/2003/27 | Atrakatze baimena portuan | 1 | 2003-03-27 | J |
| | 174/2003/27 | Atrakatze baimena portuan | 1 | 2003-06-17 | J |
| | 358/2003/27 | Portuaren hedapena | 1 | 2003-05-07 | J |
| Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos | 787/2003/22 | Bagoien irisgarritasuna | 2 | 2003-11-28 | JG |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 975/2002/16* | 176/2002 Dekretuaren Laguntzak. Elkarbizitza seme-alabekin | 1 | 2003-03-21 | JG |
| | 1054/2002/27* | Eraikuntza akatsak etxebizitza sozialetan | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 901/2002/17 | Irismeneko ezintasuna duten pertsonentzako gordetako EBO | 2 | 2003-05-19 | J |
| | 59/2033/27 | EBO deskalifikazioa | 1 | 2003-05-08 | J |
| | 59/2003/27 | EBO deskalifikazioa | 1 | 2003-06-17 | J |
| | 90/2003/27 | Hondamenak babes publikoko etxebizitzan. | 1 | 2003-03-12 | J |
| | 90/2003/27 | Hondamenak babes publikoko etxebizitzan. | 3 | 2003-07-29 | J |
| | 93/2003/27 | Atzerapena etxebizitza ematean | 1 | 2003-03-12 | J |
| | 143/2003/27 | Babes publikoko etxebizitza | 1 | 2003-03-12 | J |
| | 152/2003/27 | Etxebidera sartzearen ukatzea | 1 | 2003-03-12 | J |
| | 152/2003/27 | Etxebidera sartzearen ukatzea | 1 | 2003-06-17 | J |
| | 152/2003/27 | Etxebidera sartzearen ukatzea | 2 | 2003-11-20 | J |
| | 208/2003/27 | Etxebizitza erosteko laguntzak | 2 | 2003-05-07 | J |
| | 324/2003/27 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-05-07 | J |

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimen-duaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | 391/2003/23 | Xehekapen azterlana tramitatzea | 1 | 2003-05-19 | J |
| | 450/2003/27 | Etxebizitza egokitu baten beharra | 3 | 2003-07-29 | J |
| | 494/2003/27 | Atzerapena etxebizitza ematean | 1 | 2003-06-02 | J |
| | 516/2003/27 | Hondaketak EBOn | 1 | 2003-06-02 | J |
| | 516/2003/27 | Hondaketak EBOn | 2 | 2003-11-20 | JG |
| | 566/2003/27 | EBOren eskaera | 2 | 2003-11-03 | JG |
| | 571/2003/25 | Laguntzak diktaduraren zapalketaren biktimei. | 1 | 2003-10-30 | J |
| | 574/2003/27 | Hondaketak EBOn | 2 | 2003-09-29 | J |
| | 577/2003/27 | Etxebizitza libre erabili baterako laguntza ukatzea | 1 | 2003-10-03 | J |
| | 674/2003/27 | EBO adjudikatzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 675/2003/27 | Zarata kutsadura | 1 | 2003-11-21 | JG |
| | 681/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 686/2003/27 | Etxebizitza libre erabili baterako laguntza ukatzea | 2 | 2003-12-15 | JG |
| | 701/2003/27 | Etxebizitza mailegua behar baino lehenengo itzultzea | 2 | 2003-11-20 | J |
| | 711/2003/27 | Etxebizitza libre erabili baterako laguntza ukatzea | 1 | 2003-09-30 | J |
| | 724/2003/27 | Etxebizitza soziala adjudikatzea | 2 | 2003-11-20 | J |
| | 780/2003/27 | Babes ofizialeko etxebizitzak familia ugariei | 1 | 2003-09-15 | J |
| | 931/2003/17 | Irismeneko ezintasuna duten pertsonentzako gordetako EBO | 1 | 2003-11-14 | JG |
| | 961/2003/17 | EBOren akatsak | 1 | 2003-11-14 | JG |

## B) Foru aldundiak

### - Arabako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Gaiak | 716/2002/01* | Eguneko zentroaren eskaera autismoa duten pertsonentzat | 1 | 2003-09-01 | J |
| | 1227/2002/01 | Adin mugak bono-taxia eskuratu edo edukitzeko | 1 | 2003-09-01 | J |
| | 1252/2002/21 | Erresidentzia eskaera adimen urriko bi pertsonentzat | 1 | 2003-04-22 | J |
| | 883/2002/01 | Kontu bat Arreta Sozio-sanitarioaren Kontseilura eramateko proposamena | 1 | 2003-12-16 | JG |
| | 518/2003/01 | Adineko pertsonentzako erresidentzia plazaren eskaera tramitatzea | 1 | 2003-09-01 | J |
| | 792/2003/16 | Erresidentzia zentro batean greba zela eta eman ez diren zerbitzuak. Konpentsazio eskaera | 1 | 2003-11-18 | J |
| Herri Lanak eta Garraioak | 714/2003/22 | Zuhaitzak moztea | 2 | 2003-11-28 | JG |
| Herri Lanak eta Hirigintza | 311/2003/18 | Euskararen erabilera trafiko seinalean | 1 | 2003-05-13 | J |
| Hirigintza eta Ingurumena | 631/2003/18 | Desadostasuna kontratazio prozedurarekin | 1 | 2003-09-30 | J |

### - Bizkaiko Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Herri Administrazioa | 441/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-10-30 | J |
| Ogasuna eta Finantzak | 1040/2002/22* | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-02-07 | J |
| | 890/2003/22 | Egotzi ahal zaion gutxieneko balioa | 1 | 2003-11-05 | J |
| | 948/2003/16 | Atzerapena BEZ itzultzeko | 1 | 2003-11-18 | JG |
| Herri Lanak eta Garraioak | 944/2002/23* | Obrak Elorrioko saihesbidean | 2 | 2003-03-12 | J |
| | 1173/2002/23* | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-02-10 | J |
| | 1450/2001/22 | Gaueko zerbitzuak Bizkaibusen | 1 | 2003-06-19 | J |
| | 181/2003/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-06-27 | J |
| | 227/2003/23 | Derrigorrezko desjabetzea | 1 | 2003-07-29 | J |
| | 402/2003/23 | Derrigorrezko desjabetzea | 1 | 2003-07-15 | J |
| | 441/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-05-30 | J |
| | 441/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-07-31 | J |

## - Gipuzkoako Foru Aldundia

| Saila | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Foru Administrazioaren Kalitatea | 620/2003/20 | EPE. Psikologoa. Lanbideko esperientziaren balorazioa | 1 | 2003-10-01 | J |
| Landa Ingurunearen Garapena | 260/2002/19 | Lagun talde batekoa eta Gipuzkoako Ehiztarien Federaziokoa izateko beharra orkatza eta basurdea ehizatzeko | 3 | 2003-12-09 | JG |
| | 959/2002/19 | Ehiza lekua lursail pribatuan jartzea jabeen baimenik gabe | 3 | 2003-12-09 | JG |
| | 831/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-12-04 | JG |
| Zergak eta Finantzak | 1151/2002/24* | Trafiko zehapena | 1 | 2003-02-02 | J |
| | 27/2003/16 | Behin behineko likidazioa eta zehapena PFEZ aurkezteko agindeiari muzin egiteagatik | 1 | 2003-05-26 | J |
| | 48/2003/16 | Ebatzi gabeko PFEZ likidazioaren kontrako helegitea | 1 | 2003-05-26 | J |
| Bide Azpiegiturak | 861/2003/17 | Irismena falta hiri inguruan | 1 | 2003-11-14 | J |
| Lehendakaritza | 1249/2002/16 | Seme-alabak zaintzeko eszedentzia tartea zatitzea | 1 | 2003-05-26 | J |
| Gizarte Zerbitzuak | 1101/2002/01 | Eguneko zentroko garraio zerbitzuaren geltokia | 1 | 2003-04-03 | J |

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Amurrio | 131/2003/27 | Osoko bilkuraren mozio eztabaida | 2 | 2003-05-08 | J |
| | 549/2003/23 | Eraikitzeko lizentzia | 1 | 2003-09-30 | J |
| Artziniega | 1019/2002/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-10-21 | JG |
| Asparrena | 393/2003/20 | Hautaprobak. Titulazio akademikoen balorazioa | 1 | 2003-05-16 | J |
| Ayala / Aiara | 1198/2002/17 | Eliza baten kanpaiaren hotsek eragindako eragozpenak | 1 | 2003-06-04 | J |
| | 1198/2002/17 | Eliza baten kanpaiaren hotsek eragindako eragozpenak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Iruña Oka / Iruña de Oca | 419/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-05-07 | J |
| | 419/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-09-30 | J |
| Laguardia | 472/1999/19* | Ibilgailua kaletik jasotzea | 2 | 2003-05-22 | JG |
| | 113/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-06-26 | J |
| Laudio | 1004/2002/22* | Bermea itzultzea | 1 | 2003-04-08 | J |
| Salvatierra / Agurain | 779/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Vitoria-Gasteiz | 814/2001/23* | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-01-17 | J |
| | 592/2002/17* | Ogitarteko denda bat zabaltzearen kontra | 1 | 2003-01-10 | J |
| | 909/2002/22* | Geltokiak seinalatzeko dispositiboak ezabatzea (TUVISA) | 3 | 2003-06-19 | J |
| | 1091/2002/01* | Oinarrizko errentaren aldakuntza | 1 | 2003-03-14 | J |
| | 514/2000/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-04-29 | J |
| | 1464/2001/19 | Udaltzaingoaren jokaera trafiko istripuan | 2 | 2003-12-09 | JG |
| | 576/2002/16 | Helbide fiskala | 1 | 2003-11-18 | JG |
| | 582/2002/19 | Jakinarazpen okerrak trafiko zehapen espediente batean | 3 | 2003-12-30 | JG |
| | 653/2002/22 | Emakida kontratuaren klausulak berrikustea | 1 | 2003-11-05 | JG |
| | 1246/2002/20 | Aldi baterako kontratazio zerrendak | 3 | 2003-05-14 | J |
| | 1246/2002/20 | Aldi baterako kontratazio zerrendak | 1 | 2003-11-06 | J |
| | 121/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-05-30 | J |
| | 231/2003/21 | Zentro bereziak adimen gaixotasuneko presoentzat | 1 | 2003-09-19 | J |
| | 420/2003/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-06-04 | J |
| | 516/2003/27 | BOEko eraikuntza akatsak | 1 | 2003-06-02 | J |
| | 538/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-06-26 | J |
| | 590/2003/18 | Gaztelania bakarrik erabiltzea autobus geltokian | 3 | 2003-11-07 | JG |
| | 687/2003/22 | Semaforoak aldatzea | 2 | 2003-11-28 | J |
| | 742/2003/22 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-11-28 | JG |
| | 807/2003/23 | Babes ofizialeko etxebizitzak | 1 | 2003-09-30 | J |
| | 1079/2003/18 | Gaztelania bakarrik erabiltzea informazioan | 1 | 2003-12-22 | J |
| | 1107/2003/19 | Mimo antzezpenak kalean | 1 | 2003-11-26 | J |

## - Administrazio batzak

| Batzak | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Durana | 532/2003/22 | Bide konponketa | 1 | 2003-10-15 | J |
| Hereña | 560/2003/23 | Informazioa eskuratzea | 2 | 2003-11-21 | JG |
| Llanteno | 724/2001/22* | Kalteen erreklamazioa | 2 | 2003-04-08 | JG |
| Maeztu | 917/2002/22* | Ihesbide bat ez konpontzea | 2 | 2003-03-24 | J |
| Mendarozketa | 505/2003/22 | Sarbidea egoera txarrean | 1 | 2003-06-19 | J |
| | 505/2003/22 | Sarbidea egoera txarrean | 1 | 2003-11-28 | J |

## - Bizkaia Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 886/2002/17* | Udal lokal batetik datozen zaraten eragozpenak eta ur filtrazioak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1224/2002/18* | Gaztelania bakarrik erabiltzea publizitatean | 3 | 2003-05-13 | J |
| | 1224/2002/18 | Gaztelania bakarrik erabiltzea publizitatean | 1 | 2003-07-11 | J |
| | 1239/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-05-15 | J |
| Alonsotegi | 485/2003/27 | Udaleko bizilagunen erroldan alta ematea eskatzea | 3 | 2003-11-21 | JG |
| Amorebieta-Etxano | 926/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 2 | 2003-12-22 | JG |
| Arrankudiaga | 1241/2002/23* | Hirigintzaren legeztapena | 5 | 2003-09-29 | J |
| Arrigorriaga | 1021/2002/22* | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-06-19 | JG |
| | 1223/2002/18* | Gaztelania bakarrik erabiltzea publizitatean | 3 | 2003-05-13 | J |
| Atxondo | 383/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 3 | 2003-09-26 | J |
| Balmaseda | 132/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-04-29 | J |
| | 132/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | J |
| Barakaldo | 767/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 784/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 112/2003/23 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-04-15 | J |
| | 363/2003/27 | Herriko etxea fatxadaren aurrean eraikitzea | 1 | 2003-05-08 | J |
| | 409/2003/27 | Herriko etxea fatxadaren aurrean eraikitzea | 3 | 2003-11-21 | JG |
| | 585/2003/18 | Euskararen erabilera publizitatean | 1 | 2003-07-11 | J |
| | 696/2003/23 | Lurrak berriro zatitzeko proiektua | 2 | 2003-11-21 | J |
| Barrika | 233/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-03-03 | J |
| Basauri | 812/2002/17* | Industria lurzoruan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 442/2003/23 | Ondare erantzukizuna | 3 | 2003-11-19 | JG |
| | 455/2003/27 | Igogailua jartzeko lizentzia | 1 | 2003-05-08 | J |
| Berango | 1133/2002/22* | Zuhaitzak kalean | 1 | 2003-02-07 | J |
| Bermeo | 1176/2002/23 | Hirigintzako lizentzia | 1 | 2003-01-30 | J |
| | 404/2003/27 | Eraikuntza hirigintza arauetara egokitzea | 1 | 2003-05-07 | J |
| | 627/2003/22 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-10-10 | JG |
| Bilbao | 431/2001/19* | TAOren eremuan aparkatzeko pertsona ezinduentzako araudi berezia | 3 | 2003-07-08 | J |
| | 837/2001/22* | Udal gordailuetako ondasunak berreskuratzea | 1 | 2003-04-08 | J |
| | 402/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 403/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 420/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 433/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 446/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-09 | J |
| | 451/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-18 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Bilbao | 456/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 3 | 2003-07-08 | J |
| | 584/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 682/2002/24* | Zehapen prozedura. Trafikoa | 1 | 2003-01-24 | J |
| | 833/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 919/2002/22* | Atzerapenak etxean berriro sartzeko | 1 | 2003-01-15 | J |
| | 926/2002/24* | Ibilgailuak kaletik jasotzea | 1 | 2003-01-21 | J |
| | 968/2002/25* | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-03-19 | J |
| | 1100/2002/19* | TAO isunak | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 1192/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 3 | 2003-07-08 | J |
| | 1216/2002/23* | Kalteen erreklamazioa | 1 | 2003-02-10 | J |
| | 424/2002/24 | Ibilgailuak abandonatzea. Zehapen prozedura. Trafikoa | 1 | 2003-09-17 | J |
| | 1183/2002/18 | Prezioak berrikustea kontratu administratiboan | 4 | 2003-07-11 | J |
| | 1183/2002/18 | Prezioak berrikustea kontratu administratiboan | 2 | 2003-12-22 | JG |
| | 19/2003/23 | Garajeen sarbideak | 1 | 2003-04-03 | J |
| | 28/2003/19 | TAO txartela ukatzea | 3 | 2003-09-29 | JG |
| | 32/2003/17 | Udal lursaila osasunerako kaltegarri | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 136/2003/19 | TAOren parkimetroen funtzionamendu okerra | 3 | 2003-09-29 | JG |
| | 197/2003/27 | Garaje plazaren kontzesioa | 2 | 2003-06-17 | J |
| | 338/2003/28 | Udaltzaingoaren pasibotasuna ezinduentzat gordetako aparkalekua zaintzeko | 1 | 2003-05-22 | J |
| | 357/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-05-14 | J |
| | 389/2003/22 | Suhiltzaile tasa-Egikaritzeko prozedura | 1 | 2003-06-19 | J |
| | 389/2003/22 | Suhiltzaile tasa-Egikaritzeko prozedura | 1 | 2003-10-15 | J |
| | 535/2003/27 | Kopuruaren erreklamazioa | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 542/2003/19 | OTA isunak | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 543/2003/19 | Zehapena taberna bati ixteko ordutegia ez betetzeagatik | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 577/2003/27 | Etxebizitza libre erabili baterako laguntza ukatzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 642/2003/22 | Ur beltzetako kondukzioaren ihesbidea | 2 | 2003-11-28 | JG |
| | 710/2003/23 | Urbanizazio obrak | 2 | 2003-11-19 | JG |
| | 783/2003/18 | Premiamendu prozedura batean hizkuntza ofizialak erabiltzea | 2 | 2003-11-07 | J |
| | 909/2003/19 | TAO funtzionamendua | 1 | 2003-12-30 | JG |
| | 994/2003/19 | TAO | 1 | 2003-12-09 | JG |
| Karrantza | 930/2000/23* | Hirigintzako informazioa | 3 | 2003-09-17 | J |
| | 424/2003/16 | Landetxe baten gaineko IIVTNU (HBGGZ) likidazioa | 2 | 2003-12-10 | J |
| Derio | 1027/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 1 | 2003-11-07 | J |
| Durango | 16/2002/19* | Salaketa herri segurtasunik ez dagoelako | 3 | 2003-07-08 | J |
| | 1055/2002/16* | Tokiko zergak. Gutxieneko kuotak | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 1027/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-05-19 | J |
| | 81/2003/22 | Ur isurketa kanalizazio faltagatik | 1 | 2003-05-14 | J |
| | 717/2003/22 | Zaborren tasa. Ordenantzan finkatu gabeko tarifa | 1 | 2003-10-15 | J |
| | 718/2003/22 | Ordenantzak onestea. Prozedura | 2 | 2003-11-28 | JG |
| Erandio | 1213/2000/19* | Ezinduentzako gordetako plazetan aparkatzeko arazoak | 2 | 2003-05-22 | J |
| | 573/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 3 | 2003-06-04 | J |
| | 892/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | JG |
| | 502/2003/27 | Panteoia saltzeko baimena ukatzea | 1 | 2003-06-17 | J |
| | 502/2003/27 | Panteoia saltzeko baimena ukatzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 953/2003/16 | OHZ. Ordainketa bikoitza | 1 | 2003-11-18 | J |
| Galdakao | 996/2002/25* | Ondare erantzukizuna | 4 | 2003-11-25 | JG |
| | 141/2003/27 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-05-07 | J |
| | 141/2003/27 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-07-29 | J |
| | 178/2003/27 | Balkoiaren itxidura eraisteko agindua | 1 | 2003-05-07 | J |
| | 179/2003/27 | Balkoiaren itxidura eraisteko agindua | 2 | 2003-05-07 | J |
| | 565/2003/23 | Hirigintza lizentzia | 1 | 2003-09-26 | J |
| | 1039/2003/22 | Haurrentzako jolasguneak | 1 | 2003-11-28 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Galdames | 423/2003/27 | Bideak urbanizatzea | 1 | 2003-05-07 | J |
| | 423/2003/27 | Bideak urbanizatzea | 1 | 2003-07-29 | J |
| Gamiz-Fika | 862/2003/22 | Hirigintza diziplina: obrak lizentziarik gabe | 1 | 2003-10-15 | J |
| Gautegiz Arteaga | 576/2003/23 | Hirigintza diziplina | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 943/2003/20 | Hautapen prozesua. Administrazio laguntzailea lanpostua | 1 | 2003-11-19 | J |
| Getxo | 759/2000/19* | Udal batzaren osoko bilkuretan pankartak erakustea | 1 | 2003-01-17 | JG |
| | 789/2002/17* | Telefonia mugikorraren antena bat jartzearen kontra | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 922/2002/20* | Langileen ordezkaritza | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1088/2002/22* | Kondukzioaren ihesbidea | 1 | 2003-02-07 | J |
| | 1131/2002/23* | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-03-11 | J |
| | 749/2002/20 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-05-29 | J |
| | 749/2002/20 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-12-16 | JG |
| | 789/2002/17 | Telefonia mugikorraren antena bat jartzearen kontra | 1 | 2003-07-14 | J |
| | 789/2002/17 | Telefonia mugikorraren antena bat jartzearen kontra | 1 | 2003-11-14 | J |
| | 922/2002/20 | Langileen ordezkaritza | 2 | 2003-11-05 | J |
| | 1171/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-05-16 | J |
| | 310/2003/20 | Langileen ordezkaritza | 2 | 2003-09-18 | J |
| | 391/2003/23 | Xehekapen azterlanaren tramitazioa | 1 | 2003-05-19 | J |
| | 484/2003/27 | Hirigintza diziplina | 1 | 2003-06-02 | J |
| | 920/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-12-04 | J |
| Gorliz | 1080/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-02-10 | J |
| | 791/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Güeñes | 512/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 1 | 2003-11-07 | J |
| Lemoa | 750/2002/23* | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-02-10 | J |
| Lemoiz | 793/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 1 | 2003-09-26 | J |
| Loiu | 331/2003/18 | Leku publikoetan erretzea | 1 | 2003-05-13 | J |
| | 331/2003/18 | Leku publikoetan erretzea | 1 | 2003-11-07 | J |
| Markina-Xemein | 1012/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | JG |
| | 1045/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | JG |
| | 1046/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | JG |
| Maruri-Jatabe | 317/2002/23* | Negutegiak jartzea | 1 | 2003-01-17 | J |
| Mendata | 968/2003/25 | Erroldatzeko eskabidea | 1 | 2003-11-25 | J |
| Mungia | 804/2001/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-01-13 | J |
| | 230/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 3 | 2003-11-07 | J |
| | 821/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-11-19 | J |
| Muskiz | 712/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 2 | 2003-11-19 | JG |
| Ondarroa | 874/2003/20 | Aldi baterako beharrak Udaltzaingoan | 2 | 2003-12-03 | JG |
| Orozko | 462/2002/23 | Obrek eragindako eragozpenak | 2 | 2003-05-14 | J |
| Plentzia | 1097/2001/19* | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 1 | 2003-02-18 | JG |
| | 1078/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-05-14 | J |
| Portugalete | 1127/2001/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1250/2001/25* | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-03-19 | J |
| | 984/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 999/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 1105/2002/23* | Garajea eraikitzeko obrak | 1 | 2003-02-10 | J |
| | 1222/2002/18* | Publizitatea gaztelaniaz bakarrik | 4 | 2003-07-11 | J |
| | 984/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 3 | 2003-12-19 | JG |
| | 1110/2002/24 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-10-24 | JG |
| | 1217/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 29-02-2003 | J |
| | 79/2003/27 | Bermea ez itzultzea | 1 | 2003-03-12 | J |
| | 79/2003/27 | Bermea ez itzultzea | 3 | 2003-09-30 | J |
| | 215/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-05-14 | J |
| | 790/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-11-14 | J |
| Santurtzi | 624/2002/25 | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-07-01 | J |
| | 988/2003/19 | Ez diote uzten udal kiroldegiko instalazioak erabiltzen | 1 | 2003-10-21 | J |
| | 988/2003/19 | Ez diote uzten udal kiroldegiko instalazioak erabiltzen | 1 | 2003-11-26 | J |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Santurtzi | 1054/2003/25 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-12-04 | JG |
| Sestao | 1082/2002/24* | Ibilgailuak kaletik jasotzea | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 1093/2002/22* | Etxebizitza bat udalari eskaintzea | 1 | 2003-02-07 | J |
| | 262/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-06-04 | J |
| | 675/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 3 | 2003-09-29 | JG |
| | 1129/2002/21 | Irregulartasunak Udaltzaingoaren atxiloketa gunean. | 1 | 2003-10-16 | J |
| | 216/2003/27 | Simondrogas auzoaren hondaketa | 1 | 2003-05-07 | J |
| Sopelana | 1/2003/18 | Txakur solteen kontrola | 2 | 2003-05-13 | J |
| Sopuerta | 155/2003/22 | Bidea konpontzea | 1 | 2003-03-31 | J |
| | 155/2003/22 | Bidea konpontzea | 2 | 2003-10-15 | JG |
| | 163/2003/22 | Bidea konpontzea | 1 | 2003-03-31 | J |
| | 163/2003/22 | Bidea konpontzea | 2 | 2003-10-15 | JG |
| | 370/2003/22 | Lur sail komunalen emakida eskaera | 2 | 2003-11-27 | J |
| | 562/2003/27 | Ondasun komunalak berreskuratzea | 3 | 2003-11-21 | J |
| | 1026/2003/18 | Txarkuteria produktuak kalez kale saltzea | 3 | 2003-11-07 | J |
| Zeberio | 1117/2002/23* | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-01-17 | J |
| | 98/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-05-14 | J |

## - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Andoain | 610/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Astigarraga | 559/2003/17 | Isurketak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Azkoitia | 881/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | J |
| Beasain | 806/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | J |
| Berastegi | 836/2003/29 | Euri urak batzea | 1 | 2003-09-25 | J |
| Deba | 366/2003/27 | Etxebizitza eraistea | 1 | 2003-07-29 | JG |
| Donostia-San Sebastián | 209/2002/19* | Udaltzaingoaren inhibizioa trafiko istripuan | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 904/2002/23* | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-03-12 | J |
| | 1096/2002/28* | Trafiko zehapena | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 168/2002/17 | Jarduera eta usain gogaikarriak | 1 | 2003-03-03 | J |
| | 209/2002/19 | Udaltzaingoaren inhibizioa trafiko istripuan | 1 | 2003-05-22 | J |
| | 1242/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-03-11 | J |
| | 186/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-09-26 | J |
| | 368/2003/24 | Ibilgailuak kaletik jasotzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 490/2003/19 | Kale salmentako salgaiak konfiskatzea | 1 | 2003-07-08 | J |
| | 490/2003/19 | Kale salmentako salgaiak konfiskatzea | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 490/2003/19 | Kale salmentako salgaiak konfiskatzea | 1 | 2003-11-26 | J |
| | 528/2003/18 | Euskararen erabilera EBOren aurkezpenean | 2 | 2003-09-29 | J |
| | 554/2003/22 | Pasabide iraunkorraren eskabidea | 2 | 2003-10-15 | J |
| | 665/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-11-19 | J |
| | 682/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-11-19 | JG |
| | 771/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-11-19 | J |
| | 820/2003/19 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-12-30 | JG |
| | 824/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-09-26 | J |
| | 834/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-09-29 | J |
| | 937/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-11-19 | JG |

| Udala | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Donostia-San Sebastián | 963/2003/19 | Kale salmentako salgaiak konfiskatzea | 1 | 2003-11-12 | J |
| | 986/2003/19 | Jakinarazpen okerra trafiko zehapenean | 2 | 2003-12-09 | JG |
| | 1050/2003/19 | Mimo antzezpena kalean | 1 | 2003-11-11 | J |
| Eibar | 584/2003/18 | Gaztelania bakarrik erabiltzea obretako informazioan | 1 | 2003-07-11 | J |
| | 7/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-04-03 | J |
| Elgoibar | 396/1999/22 | Zarata gogaikarriak | 1 | 2003-10-22 | J |
| | 489/2003/23 | Zerbitzu publikoak ematea | 2 | 2003-07-17 | J |
| Errenteria | 667/2003/23 | Erroldatzea | 1 | 2003-10-23 | J |
| Hondarribia | 1032/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-02-12 | J |
| | 1033/2002/23* | Urbanizazioa | 1 | 2003-02-06 | J |
| | 1034/2002/19* | TAOren ordenantza aldatzeko eskabidea | 1 | 2003-02-18 | J |
| | 616/2001/23 | Hirigintza diziplina | 2 | 2003-06-04 | J |
| Ibarra | 440/2002/23* | Hirigintza diziplina | 2 | 2003-03-12 | J |
| | 993/2003/19 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-12-30 | JG |
| Irun | 147/2003/23 | Erromanizatzearen museoa | 1 | 2003-09-26 | J |
| | 1017/2003/23 | Hirigintzaren legeztapena | 1 | 2003-11-19 | JG |
| Irura | 428/2003/20 | Hautaprobak. Aurreko esperientziaren balorazioa | 1 | 2003-05-14 | J |
| Lasarte-Oria | 394/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | JG |
| | 591/2003/18 | Bi hizkuntza ofizialen erabilera udalekuetan | 1 | 2003-07-11 | J |
| Leaburu | 144/2003/27 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-06-17 | J |
| | 145/2003/27 | Administrazioaren isiltasuna | 3 | 2003-06-17 | J |
| Mutriku | 358/2003/27 | Portu baten hedapena | 4 | 2003-11-25 | JG |
| Oiartzun | 884/2003/23 | Herri lanak | 1 | 2003-09-26 | J |
| Ordizia | 176/2003/22 | Farola baten titularitatea | 1 | 2003-06-19 | J |
| Orio | 503/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-02-28 | J |
| | 634/2002/24* | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-02-20 | J |
| | 634/2002/24 | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-10-24 | JG |
| | 843/2003/17 | Hirigintza diziplina | 2 | 2003-11-14 | JG |
| Ormaiztegi | 279/2002/23 | Hirigintzako lur zatiketa | 1 | 2003-06-27 | J |
| Pasaia | 177/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-02-14 | JG |
| | 1000/2002/23* | Ondare erantzukizuna | 2 | 2003-02-11 | JG |
| | 1215/2002/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2 | 2003-06-06 | J |
| | 446/2003/27 | Udaleko biztanleen erroldan alta ematea | 1 | 2003-06-06 | J |
| | 479/2003/27 | Udaleko biztanleen erroldan alta ematea | 1 | 2003-06-06 | J |
| | 910/2003/22 | Garraio publikoaren irisgarritasuna | 1 | 2003-11-28 | JG |
| Urretxu | 752/2002/22 | Edan ezin den ura | 1 | 2003-10-15 | J |
| Usurbil | 707/2003/16 | Ur kontsumoa | 1 | 2003-11-18 | JG |
| Villabona | 930/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-11-14 | J |
| Zarautz | 1005/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-01-17 | J |
| | 1005/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2 | 2003-05-13 | J |
| | 486/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-06-04 | J |
| | 486/2003/17 | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 1 | 2003-09-29 | J |
| Zumaia | 939/2003/23 | Administrazioaren isiltasuna | 1 | 2003-11-19 | JG |

## D) Beste erakunde publiko batzuk

| | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Agindei kopurua urtean zehar | Azkeneko errekerimenduaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaiko Abokatuen Elkargoa | 828/2002/21 | Espediente bat eskuratzeko ukapena | 1 | 2003-07-08 | J |
| Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa | 372/2003/21 | Abokatuen elkargoaren erantzunik eza | 1 | 2003-10-16 | J |
| Abokatuen Euskal Kontseilua | 366/2001/21 | Espediente bat eskuratzeko ukapena | 1 | 2003-10-02 | J |
| Bilbao Bizkaia Ur Patzuergoa | 449/2002/22 | Tarteko horma baten eraikuntzak ekarritako kalteak | 1 | 2003-08-04 | J |
| Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea | 1097/2001/19* | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 1 | 2003-02-18 | J |
| Mebisa Bilboko Metroa | 1077/2002/22* | Ezeztatzeko makinak ixteko dispositiboa | 1 | 2003-01-31 | J |
| | 1077/2002/22 | Ezeztatzeko makinak ixteko dispositiboa | 1 | 2003-05-14 | J |
| | 1077/2002/22 | Ezeztatzeko makinak ixteko dispositiboa | 1 | 2003-10-15 | JG |
| | 100/2003/22 | Erorketako erantzukizuna | 1 | 2003-04-08 | J |
| | 449/2003/22 | Bizikleta bat kaletik jasotzea | 1 | 2003-07-15 | J |
| Estatuaren erakunde eta administrazioak | 589/2003/18 | Euskara erabiltzeko eskubidea ezkontza zibilean | 1 | 2003-09-29 | J |
| Txingudi S.A. Zerbitzuak | 309/2000/23* | Ondare erantzukizuna | 1 | 2003-02-03 | J |
| Euskal Herriko Unibertsitatea | 615/2002/25* | Administrazioaren isiltasuna. Organo akademikoen hauteskundeetako helegiteak | 1 | 2003-02-13 | J |
| | 785/2002/20 | Barruko auditoria txostenak eskuratzea | 1 | 2003-04-23 | J |
| | 5/2003/16 | Unibertsitateko matrikularen zenbateko itzultzea | 1 | 2003-05-26 | J |
| | 408/2003/20 | Ordaintzeko demanda | 1 | 2003-06-12 | J |
| | 443/2003/20 | Irakasle elkartuaren lanpostuko deialdia | 1 | 2003-05-29 | J |
| | 827/2003/20 | Ordutegiko malgutasuna | 1 | 2003-09-18 | J |

# 4. ARARTEKOAK 2003.URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

## A) Eusko Jaurlaritza

| Saila | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa | Kabinetearen Zuzendaria | Igone Martínez de Luna a.t.a. | 1030/2002/25* | LH ikasketan sartzeko ezintasunak kontuan hartzea | 2003/05/15 | J |
| Herrizaingoa | Kabinetearen Zuzendaria | Javier Portuondo j.t.a. | 119/2002/19 | Ertzaintzaren jarduera | 2003/02/18 | J |
| Etxebizitza eta Gizarte Gaiak | Kabinetearen Zuzendaria | Agustín Atxa Picaza j.t.a. | 90/2003/27 | Babes publikoko etxebizitzaren kalteak | 2003/09/30 | J |
| | | | 450/2003/27 | Etxebizitza egokituaren beharra | 2003/09/30 | J |

## B) Foru aldundiak

### - Bizkaiko Foru Aldundia

| Saila | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Herri Lanak eta Garraioak | Foru Diputatua | José Félix Basozabal j.t.a. | 944/2002/23* | Elorrioko saihesbideko obrak | 2003/05/12 | J |

## C) Udalak

### - Bizkaia Lurralde Historikoa

| Udala | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena | Alkatea | Juan José Gómez Mezcorta | 886/2002/17* | Elorrioko saihesbideko obrak | 2003/04/30 | J |
| Arrigorriaga | Alkatea | Alberto Ruiz de Azua | 1126/2001/19 | Udalak erroldan alta emateko ukapena | 2003/02/18 | J |
| Atxondo | Alkatea | José Antonio Igarza | 383/2003/23 | Hirigintzako legezkotasuna | 2003/11/26 | J |
| Bilbao | Alkatea | Iñaki Azkuna j.t.a. | 589/2002/19* | TAO txartela ukatzea | 2003/02/18 | J |
| | | | 968/2002/25* | Ondare erantzukizuna | 2003/05/16 | J |
| Karrantza | Alkatea | José Luis Portillo | 930/2000/23* | Hirigintzako informazioa | 2003/12/15 | JG |
| Erandio | Alkatea | Mikel Arieta-Araunabeña | 892/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2003/04/30 | JG |
| Galdakao | Alkatea | Joseba Escribano Etxebarria | 996/2002/25* | Ondare erantzukizuna | 2003/05/16 | JG |
| Plentzia | Alkatea | Nicolás Oñate | 1097/2001/19* | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 2003/05/23 | J |
| Portugalete | Alkatea | Miguel Ángel Cabieces | 1078/2002/23 | Administrazioaren isiltasuna | 2003/10/15 | J |
| | | | 1127/2001/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2003/04/30 | J |
| | | | 1250/2001/25 | Ondare erantzukizuna | 2003/05/16 | J |
| | | | 984/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2003/04/30 | J |
| Sestao | Alkatea | Segundo Calleja Macho | 999/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2003/04/30 | J |
| | | | 675/2002/17* | Lurzoruetan sailkatutako jarduerak | 2003/01/13 | J |

### - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

| Udala | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Donostia-San Sebastián | Alkatea | Odón Elorza j.t.a. | 4/2002/23* | Lurrak mantentzea | 2003/03/10 | J |
| | | | 904/2002/23* | Administrazioaren isiltasuna | 2003/05/07 | J |
| Orio | Alkatesa | Mirari Arruabarrena | 634/2002/24* | Ondare erantzukizuna | 2003/05/28 | J |
| Pasaia | Alkatea | Juan Carlos Alduntzin | 1000/2002/23* | Ondare erantzukizuna | 2003/03/10 | J |

## D) Beste erakunde publiko batzuk

| | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea | Lehendakaria | José Mª Ezpeleta | 1097/2001/19* | Pertsona ezinduentzako aparkatzeko txartela | 2003/05/23 | J |

# V. ATALA

# ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak -otsailaren 27koak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: *"Dagokien ihardutze-sailei, herrilanariei edo hoien lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko"* (sic). Kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio-jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio-jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio bat bidaltzen du kexak eragindako administraziora, jokaera alda dezan eskatzeko.

Hala ere, zehaztu behar da beti ez dela beharrezkoa gomendioa egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkotasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregulartasunak antzeman dituzten 246 administrazio-jokaera gomendiorik egin gabe konpondu dira.

Azalpena eman ondoren, egindako gomendioak betetzeari lotuko gatzaizkio eta hurrengoa adieraziko dugu: 2003. urtean egindako 36 gomendioetatik eta 2002an erabakitzeko zeuden beste 19 gomendioetatik, 17 onartu dira; 24 ez dira onartu; 13 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude; eta 1 eten egin da, arazoa jurisdikzioaren esku jarri baita.

Adierazi beharra dago onartu ez diren gomendioen erdiak baino gehiagok (13) trafiko alorreko zigor-jarduerekin eta administrazioaren erantzukizunarekin dutela zerikusia.

Kopuruaren araberako ikuspegitik, 2003an egindako gomendioetatik % 40,5 onartu direla aipatu behar da, erabakitzeko daudenak kontuan izan gabe, jakina.

Dena den, emaitza horien balorazioa egiteko orduan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendioak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa besterik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Areago, kontuan hartu behar da onartu gabeko gomendio bakoitzak erakunde honen funtzio bermatzailerako oztopoa ez ezik, legezkotasuna ez betetzeko edo herritarren eskubideak urratzeko iraunkortasuna ere badakarrela, herritarrei legezko eskubideak berrezartzea galaraziz.

Horrela, errealitate horrek kezkatuta, aipatzekoa da erakunde honek administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakien arrazoiak behar bezala azaltzeko beharrari ematen

dion garrantzia, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunaren gabeziak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzera eta gure argudioak errepikatzera, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatu ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio-jokaera bat aldatzea gomendatzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzekotan, erakunde honek bere gomendioari eutsiko dio, hala balegokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendioa onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendioa ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendioa, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean.

Erakundeen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendioa ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, besterik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Ildo horretan, gomendioei erantzuteko askotan eskatu bada ere, Zumaiako Udalak 670/2001 zenbakiko kexa-espedientean egindako gomendioari eta EHUk 615/2002 zenbakiko kexa-espedientean egindako gomendioari erantzun nahi ez izatea azpimarratu behar da. Jokaera horren ondorioz, aipatu gomendioak ez onartutzat jo behar izan ditugu azkenean.

Gure ustez, gomendioa eragin duten espedienteak amaitzeko beste modu desegoki bat gomendioa ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe. Halaxe gertatu da, adibidez, Basauriko Udalari 685/2002 kexa-espedientean egindako gomendioarekin.

Uste dugu jokatzeko modu horiek -erantzun nahi ez izatea edo bidegabeko ezezko erantzuna- Eusko Legebiltzarreko erakunde mandatari gisa eman dizkiguten funtzioak onartzea urratzen dutela. Era berean, gure ustez, jokaera horiek Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko emandako mekanismoetako bat erabiliz beren eskubideak aitortzeko eta ordenamendu juridikoa betetzeko babesa eskatzen erakunde bermatzaile batera joan diren herritarrekiko oso begirunerik gabeko portaera islatzen dute.

Jarraian, 2002an egin diren eta 2001eko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendioen egoeraren aipamena egin dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak; 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioren behin betiko erabakiaren zain daudenak; eta 4) eten egin direnak, arazoa jurisdikzioaren esku jartzeagatik.

# 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK

## A) EUSKO JAURLARITZA

### Herrizaingo Saila

*** 1797/1998/19 espedientea (27/1999 Gomendioa)**. Bizkaiko lurraldeko trafiko arduradunak Berangoko udalerriko kale batean egindako arau-hauste batengatik ezarri zuen zehapen bat ofizioz bertan behera lagatzeko gomendatu zen. Izan ere, lehenak zehapena ezartzeko eskumenik ez zuela ondorioztatu zen, egiaztatu baitzen ez zela bete Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuak 68.2 artikuluan aipatzen duen eskumen-aldaketa egiteko prozedura egokia.

*** 244/2001/24 espedientea (33/2003 Gomendioa)**. Baliorik gabe utz dezala (...) jaunari (...) zenbakiko zigor-prozeduran ezarri zion zigorra. Prozedura hori (...)n egindako salaketaren ondorioz bideratu zen.

### Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

*** 1102/2002/16 espedientea (25/2003 Gomendioa).** Lege-hauste larriagatik, Vitalpensión BGAEren kontra zigor espediente bat has zedila gomendatu zen, erakunde horrek ez baitzuen bete (...) jaunaren eskaera -alegia, bere eskubide metatuak lekuz aldatzea- gauzatzeko zuen epea.

### Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

*** 670/1996/23 espedientea (25/2002 Gomendioa)**. Egin beharreko izapide administratiboen ondoren, kexagileak egindako ondare-erantzukizunezko erreklamazioa espresuki ebatz zedila gomendatu zen, eta haren errotan Ibai-Eder presaren obren ondorioz eragindako kalteengatik ordain ziezaiotela.

*** 670/1996/23 espedientea (26/2002 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: egiteke zeuden izapide administratiboen ondoren, erabaki bat har zedila herritarrak urez hornitzeko Ibai-Eder presan aurreikusitako aprobetxamendua Gipuzkoako Uren Partzuergoari ematearen gainean. Eta, halaber, zehazki adieraz zedila zein kalte-ordain ordaindu behar zuen Gipuzkoako Uren Partzuergoak, kexagileak irin-errotaren industria erabilpenerako lehendik zeukan emakidari ustez eragin zitzaizkion gaitz eta kalteen ondorioz.

### Osasun Saila

*** 712/2002/18 espedientea (3/2003 Gomendioa)**. Gomendatu zen berriz azter zedila (…)k egindako eskabidearen ukapena (sanitarioa ez zen garraioan joan edo etortzeak eragindako gastuak ordain ziezazkioten eskatu zuen), eta beste erabaki bat har zedila, gertakariak jazo ziren unean haren egoera berean zeuden beste erabiltzaile batzuei ezarri zitzaizkien irizpide berak ezarriz. Hau da, orduan Arabako osasun-zonako gainontzeko erabiltzaileei eman zitzaien tratu bera eman ziezaiotela.

**Garraio eta Herri Lan Saila**

*** 541/2000/19 espedientea (6/2001 Gomendioa)**. Donostiako portuan aparkalekuetarako aurreikusitako lekuan, ezinduen edo mugikortasun mugatuko pertsonen ibilgailuek erabiltzeko bakarrik gutxienez hiru plaza gordetzea gomendatu zen, abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta lege hori betetzeko eman zen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan finkatutakoarekin bat. Dekretu horren bidez onartu ziren hiri gunetara, herri eremuetara, eraikuntzetara eta informazio eta komunikazio sistemetara sartzeko baldintzei buruzko arau teknikoak. Halaber, Donostiako portuan aparkatzeko xedatuta dauden arauak ezartzean, abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuan aurreikusitakoak kontuan har zitezela gomendatu zen -Dekretu horrek Ezinduentzako Aparkatzeko Txartela arautzen du, eta Komunitateko Eredu Bateratura egokitzen du-.

B) **TOKIKO ADMINISTRAZIOA**

**ARABAKO UDALAK**

**Gasteizko Udala**

*** 814/2001/23 espedientea (28/2002 Gomendioa)**. Jatetxe baten jabeak jarduera zabaltzeko egin zuen lizentzia-eskaera berariaz ebazteko gomendatu zen, Ingurumena Babesteko 3/1998 Legean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, arlo horretako udal zerbitzuek ikuskatzeko bisitaldia egin zezatela gomendatu zen, jarduera-zabaltze hori eragozpenak eta besterentzako arriskuak saihesteko araudi teknikoa jarraituz egingo zela egiaztatzeko.

**Amurrioko Udala**

*** 549/2003/23 espedientea (29/2003 Gomendioa)**. Familia bakarrarentzako etxe bat eraikitzeko baimen-eskabidea berariaz ebatz zedila gomendatu zen, arau subsidiarioetan Lekamaña auzoko hiri-lurrerako aurreikusita dauden hirigintza-zehazpenak bakarrik kontuan hartuz, izan ere, kasu horretan ez zegoen ezartzerik 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 73. artikulua, ez baitzen justifikatu proiektuak inguruan eragin kaltegarria izango lukeenik.

**Laudioko Udala**

*** 1002/2002/23 espedientea (13/2003 Gomendioa)**. . Laudioko Udalak aurrez ezarritako udal betebeharrak bete zitzala gomendatu zen, bai sinatutako obligazioetatik zetozenak, bai (...) zenbakiko (...) eraikinaren jabe-elkartearen ondasuna zamatzen duen erabilera publikotik zetozenak.

## BIZKAIKO UDALAK

### Bilboko Udala

*** 384/2002/16 espedientea (35/2002 Gomendioa)**. Banku-helbideratzea duten errolda-ordainagiriak pagatu izanaren frogagiriak ofizioz eman zitezela gomendatu zen, eta, hartara, bete zitezela Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabilketari buruzko Araudian ezarritako xedapenak. Jakina denez, araudi hori martxoaren 18ko 36/1997 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

### Getxoko Udala

*** 979/2000/19 espedientea (23/2003 Gomendioa)**. (...) zenbakiko zigor prozeduran kexagileari ezarritako zigorra baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, baita zigorra betearazteko bideratu zen premiamendu prozedura ere; eta interesdunak zigorra betetzeko kopururik ordaindu bazuen, itzul zekiola kopuru hori.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Donostiako Udala

*** 53/2001/23OF espedientea (37/2002 Gomendioa**). Santo Tomas feriako zozketan, animaliak salmentak bultzatzeko erabiltzea eragotz zedila gomendatu zen, eta berma zedila ospakizun horretan beteko direla Animaliak Babesteko 6/1993 Legearen -urriaren 29koa- 4. eta 5. artikuluak, eta baita animaliak babestu eta edukitzeko udal horren Ordenantzaren 9. artikulua ere.

*** 974/2002/21 espedientea (24/2003 Gomendioa)**. Herri horretako Udaltzaingoak barneko ikerketa bat has dezala gomendatu zen, poliziaren jokaera bidegabe bat izan dela pentsarazten duen bidezko arrazoirik dagoen aldi guztietan. Horrela, herritarrek egindako kexak edo salaketak, edozein bidetatik datozela ere, lehen adierazgarri edo seinaletzat hartu behar dira, beti ikertu behar dira, eta ez dira erabat gaitzetsi behar. Aurretiaz informatzeko izapideak hasiko dira, nahiz eta, egintzak prozedura penal batean aztertzen badira, izapideok bertan behera utziko diren.

Halaber, zera gomendatu zen: aurrerantzean, Udaltzaingoak polizi zerbitzuaren kalitatea zaindu eta neurtzeko tresnatzat erabil zitzala honako datuok: polizi jarduera baten ondorioz sortutako liskarrengatik egiten diren atxiloketen kopurua; horrelako lege-hauste penalengatik egindako argiketetan, udaltzainak sarri agertzen diren ala ez salatzaile gisa; polizien jarduerengatik zenbat kexa jaso diren, e.a.

### Errenteriako Udala

*** 758/2001/24 espedientea (1/2003 Gomendioa)**. Isun batengatik eta garabiak ibilgailu bat bidetik kentzeagatik kobratu zituen diru-kopuruak atzera itzul zitzala gomendatu zen. Kopuru horiek (...) salaketa-orriaren bidez (...)an hasi zen espedienteari zegozkion, (...) matrikuladun ibilgailua zela-eta.

### Irurako Udala

*** 428/2003/20 espedientea (14/2003 Gomendioa)**. Irurako udalean administrari lanpostu bat betetzeko asmoz, (...)k alegatu eta egiaztatutako lanak berriz

baliozta zitezela gomendatu zen; horrela, balora zitezela hark praktiketako kontratupean egindako lanak, eta zuzen zedila egun-zatiko kontratupean burututako lanak balioztatzean egindako akatsa -halakorik izan zela egiaztatuz gero-.

## C) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

*** 882/2002/16 espedientea (16/2003 Gomendioa)**. (…) jaunari (...) euroko kopurua itzul ziezaiotela gomendatu zen -bere garaian gainkargu gisa ordaindua-, partzuergoak ez baitzuen egiaztatzerik izan premiamendu probidentzia jakinarazi zuenik. Orobat, aurrerantzean, premiamendu probidentzia guztiak jaso izanaren adierazpena duten posta ziurtatuaren bidez jakinaraz zitezela gomendatu zen, horrela beteko baitziren azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 59. artikulutik 61.era bitartean ezarritako xedapenak.

## 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

### A) EUSKO JAURLARITZA

#### Herrizaingo Saila

*** 597/2000/19 espedientea (47/2000 Gomendioa)**. Trafiko alorreko zigor-arauak ezarriz ipini zen zehapen bat bertan behera uztea gomendatu zen, salaketa egin zenetik bi hilabetera jakinarazi baitzen prozedura hasia zela, eta, gainera, Ararteko erakundearen ustez, espedienteak ordurako galdua baitzuen bere balioa.

*** 1171/2001/24 espedientea (5/2003 Gomendioa)**. Beharrezko tramiteak burutzeko gomendatu zen: (1) zigor espediente jakin batean pertsona batek erantzukizunik ez zuela adierazteko; (2) espediente hori eta derrigorrezko dirubilketa baliorik gabe uzteko; eta (3) hori zela-eta ordaindu ziren diru-kopuru guztiak itzultzeko.

*** 164/2002/25 espedientea (19/2003 Gomendioa)**. Poliziaren eginkizuna betetzeko zuzen eta egokia irizten bazitzaion, zehaztu zedila zein lurralde-eremuri dagokion bizilekuari buruzko betebeharra, Ertzaintzako funtzionarioek bete beharrekoa. Bestela, ertzainen funtzionario-harremanari buruzko edozein alderdi zehazteko orduan, baliorik gabe utz zitezela bizilekuaren irizpidea erabiltzen duten edo horretan oinarritzen diren barneko arau guztiak, zerbitzuagatik eman beharreko ordainekin gertatzen zen bezala.

### B) FORU ADMINISTRAZIOA

#### Gipuzkoako Foru Aldundia

*** 627/2001/19 espedientea (21/2002 Gomendioa)**. Ehizarako baimen-eskaerak eta baimen horiek ukatzearen kontra egin daitezkeen errekurtsoak espresuki ebazteko neurriak har zitezela gomendatu zen, eta ebazpen horiek kanpaina bakoitza hasi baino lehen jakinaraz zitezela.

*** 627/2001/19 espedientea (22/2002 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: ehiza-debekualdien Foru Agindua ezartzerakoan, ez dadila araudiaren babesik gabe ehiza-eskubidea murriztu, ezta prozedurazko erabakirik hartu ere.

*** 222/2002/16 espedientea (21/2003 Gomendioa)**. Arrantza-baimenengatiko oraingo prezioak alda zitezela gomendatu zen, dagokion federazioko kideen alde dauden desberdintasunak kenduz.

### C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

#### ARABAKO UDALAK

#### Gasteizko Udala

*** 31/1999/19OF espedientea (10/2000 Gomendioa)**. Bizikletan oinezkoen guneetatik ibiltzeko bide ematen duten erabilerak, trafikoa eta hiri izaerako herri bideetako

zirkulazioa arautzen dituen udal Ordenantzaren aginduak alda zitezela gomendatu zen. Izan ere, ordenantza horrek urratu egiten ditu Trafiko, Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testuko aurreikuspenak -martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuen hori-, eta baita urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazioko Arautegi Orokorraren aurreikuspenak ere.

*** 741/2000/23 espedientea (13/2002 Gomendioa)**. Kexagilearen erreklamazioa ezestea erabaki zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, udaltzaingoaren txostenetik ondorioztatzen zenez, kexagilearen autoari udal gordetegian egon zen bitartean eragin zitzaizkion kalteak aurrealdeko matrikulan. Halaber, beste ebazpen bat emateko gomendatu zen, kexagileari benetan eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onar zekion, espedientean zehazten zen proportzioan eta zenbatekoan.

*** 397/2001/23 espedientea (31/2002 Gomendioa)**. Kexagileak aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen ebazpena baliorik gabe utz zedila gomendatu zen, udalak udal jaiak antolatzen ziren bitartean sortutako kalteen ardura hartu behar bailuke, "zezen suzkoa"k berez dakarren arrisku-egoeratik datozen egintzak direla eta. Era berean, kasu honi dagokion administrazio-espedientea bideratu ondoren, kexagileari eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onartzeko gomendatu zen.

### Asparrenako Udala

*** 393/2003/20 espedientea (15/2003 Gomendioa)**. (...)ko eskola publikoan atezain lanpostu bat jabetzan betetzeko (…)k alegatu eta egiaztatu dituen tituluak berriz baliozta zitezela gomendatu zen; horrela, behar bezala alegatu eta egiaztatutako titulu guztiak baliozta zitezela, eta gehienezko 5 puntuko muga bakarrik ezar dadila, alegia, deialdiaren oinarrietan titulazio akademikoari buruzko baremazio-atalerako ezarrita dagoena.

## BIZKAIKO UDALAK

### Bilboko Udala

*** 472/2001/23 espedientea (30/2002 Gomendioa)**. Kexagileak aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen ebazpena baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, udalak arduratu beharko luke hiri-bideak mantentzeko herri zerbitzuaren funtzionamenduak eta errepide edo espaloiaren trazadura aldatu dela ez ohartarazteak eragindako kalteez. Era berean, kasu horri zegokion administrazio-espedientea bideratu ondoren, kexagileari eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onartzeko gomendatu zen.

*** 682/2002/24 espedientea (12/2003 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: (...) zenbakidun espedienteko zigor-erabakia atzera botatzeko, espedientea eta derrigorrezko diru-bilketa bidea baliorik gabe uzteko, eta espediente hori dela-eta ordaindu ziren diru-kopuru guztiak itzultzeko.

### Abanto-Zierbenako Udala

*** 1080/2001/22 espedientea (15/2002 Gomendioa)**. Zabor-bilketako kamioia ezin irits daitekeen aldeetako etxeetara zabor-tasa moduan bidali ziren likidazioak baliorik

gabe uzteko gomendatu zen, edukiontzi hurbilenak etxe horietatik 300 metrora edo gehiagora daudenean, izan ere, etxe horiei egiaz ez zaie zabor-bilketa zerbitzurik ematen ari.

**Barakaldoko Udala**

*** 41/2002/22 espedientea (9/2003 Gomendioa)**. (…) jaunak -bere ibilgailua herri-bidetik kentzeagatiko tasa kobratzearen kontra- egindako errekurtsoa berariaz ebatz zedila gomendatu zen, horretara behartzen baitu 30/1992 Legearen 42. artikuluak. Horretarako, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak 71. artikuluan agindutakoa bete beharko du, dekretu horrek onartu zuen-eta Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko testu artikulatua.

*** 1212/2002/19 espedientea (31/2003 Gomendioa)**. (...) zigor-prozeduran agindutako zigorra baliorik gabe utz zedila gomendatu zen.

**Basauriko Udala**

*** 685/2002/24 espedientea (4/2003 Gomendioa)**. Udal erroldan ageri ziren datuak zuzentzeko gomendatu zen, han udalak eskura duen informazioa ager zedin; informazio horren arabera, (…)k (...) urtetik gora darama, etengabe, Basauriko (…) kalean bizitzen.

**Bermeoko Udala**

*** 1176/2002/23 espedientea (6/2003 Gomendioa)**. (…) kaleko eraikin batean igogailu bat jartzeko emandako obra-lizentzia berriz azter zedila gomendatu zen, ez baitzituen betetzen NBE-CPI/96 arauan ezarritako xedapenak.

**Getxoko Udala**

*** 640/2002/23 espedientea (8/2003 Gomendioa)**. Gomendatu zen baliorik gabe utz zedila (...)k -Isasi kalean erortzeak eragindako kalteengatik- egindako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa atzera bota zuen alkatetza-dekretua, izan ere, organo bideratzaileak ez zituen funtsezko probak egin, alegatutako egintzak benetakoak ziren ala ez egiaztatzeko.

Halaber, espedientea erabaki-proposamena egin aurreko aldira itzul zedila, eskatutako lekukoen froga burutu zedila, eta udal zerbitzuei txosten bat eska zekiela gomendatu zen. Zerbitzu horiek -arrazoi bidez eta modu egokian- adierazi beharko lukete zehazki zein diren egintza horiek eta udalak zer egin duen horren gainean. Gero, beste erabaki bat hartu beharko luke, egiaztatutako egintzak eta haien zergatiak baloratu ondoren.

**Ondarroako Udala**

*** 780/2000/23 espedientea (12/2002 Gomendioa)**. Kexagilea Arrigorri hondartzako zerbitzuak ustiatzeko kontratazio-prozeduratik kanpo uzteko egintza baliorik gabe uzteko gomendatu zen, ez baitzion hiru eguneko eperik eman udal zergen ordainketa egunean zeukala egiaztatzeko udal ziurtagiria aurkezteko. Halaber, gomendatu zen baliogabetze-adierazpenean zehatz zedila nolako kaltea eragin zitzaion kexagileari, baldin eta bera izan balitz kontratu-hartzaile.

## GIPUZKOAKO UDALAK

### Hondarribiko Udala

* **885/2003/21 espedientea (22/2003 Gomendioa)**. Joana Mugarrietakoa elkarteak eta Jaizkibel konpainiak eskatutakoarekin bat etorririk, irailaren 8rako udal horrek herritar guztientzako udal Alardea susta zezala gomendatu zen. Alarde horretan berariaz onartu behar zen emakumeek gizonen baldintza beretan jaian parte hartzeko eskubidea dutela.

### Irungo Udala

* **507/2003/21 espedientea (17/2003 Gomendioa)**. Udal horrek 1.221 zenbakiko Erabakia, 2003ko maiatzaren 19koa, berriz azter zezala gomendatu zen, eta, hortaz, San Martzialeko udal Alardea iragar zezala ekainaren 30erako, ospakizun hori antolatu nahi zuenari ezinbesteko baldintza hau jarriz: pertsona guztien arteko berdintasun printzipioa errespeta zezala, eta, bereziki, emakumeei beren herrikide diren gizonezkoen baldintza beretan ospakizunean parte hartzeko eskubidea onar ziezaiela.

### Lazkaoko Udala

* **531/2000/23 espedientea (14/2002 Gomendioa)**. Kexagilearen ondare erantzukizunezko erreklamazioa ebatzi zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen. Izan ere, administrazioak erabilitako prozeduratik ondorioztatzen zenez, herri-bideak ordenatzeko udal zerbitzuaren jarduerak eragina izan zuen kexagilearen ibilgailuan sorturiko kalteetan.

### Zumaiako Udala

* **670/2001/17 espedientea (2/2003 Gomendioa)**. Herritarrei zaratak eta eragozpenak ekiditeko, udalerri horretako (…)n dagoen (…) tabernaren titularrari zera eskatzeko gomendatu zen: gehienez sei hilabeteko epean lokala erabat hosgabetu zezala. Eragiketa hori egin ondoren, airetiko zaratarako isolamendu akustikoa gutxienez 65 dB(A)-koa izango zen, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak 2000ko abuztuaren 21ean egin zuen kalifikazio-txostenean eskatu zen neurri zuzentzailean ezarri zena.

## D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### EHU

* **615/2002/25 espedientea (10/2003 Gomendioa)**. (…)k jarri zituen gora jotzeko errekurtsoak berariaz ebazteko gomendatu zen. Unibertsitate horretako Arkitektura Eskola Tekniko Nagusian hauteskunde-prozesua burutu zen, eta prozesu haren ondorioz, zuzendaria aukeratu zuten. Horixe zen, hain justu, bi errekurtsoen gaia.

# 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK

## A) EUSKO JAURLARITZA

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

*** 12/2003/20 espedientea (34/2003 Gomendioa)**. Zera gomendatu zen: unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko laguntzak eskatzen dituen ikaslearen familiak kontratatutako langileak dituenean -familia unitatetik kanpokoak-, ez daitezela eskaerak besterik gabe ukatu, baizik eta kasuak banan-banan azter daitezela, deialdiaren Aginduaren 18.3 artikuluan ezarritakoa betetze aldera.

*** 882/2003/20 espedientea (30/2003 Gomendioa)**. Interesdunak jarritako administrazio-errekurtsoa onar zedila gomendatu zen, eta, hortaz, lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko berak alegatu zuen ikasketa-espedientea balora zedila.

### Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

*** 1054/2002/27 espedientea (7/2003 Gomendioa)**. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Bizkaian duen Lurralde Ordezkaritzaren zerbitzu teknikoek presako txostena egin ondoren, organo eskudunak agindu bat eman zezala gomendatu zen -2.114/1968 Dekretuaren 111. artikuluan ezarritakoaren babesean- beharrezko lanak burutu zitezen; agindu horretan epe bat jar ziezaiola enpresa sustatzaileari, eta ohartaraz ziezaiola agindua betetzen ez bazuen, betearazte subsidiarioa gauzatuko zuela edo hertsatzeko isuna jarriko ziola, ezarri beharreko legeriak eta jurisprudentziak adierazitako moduan.

Halaber, espediente horren bilakaera aztertzeko gomendatu zen, emandako agindua erabat bete arte.

## B) FORU ADMINISTRAZIOA

### Arabako Foru Aldundia

*** 1481/2001/16 espedientea (3/2002 Gomendioa)**. Apirilaren 24ko 25/1989 Foru Araua -Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa- garatzeko araudi bat onar zedila gomendatu zen, espresuki kontuan hartuz oraingo zerga-sisteman zergadunari onartzen zaizkion eskubide eta bermeak.

*** 668/2003/16 espedientea (26/2003 Gomendioa)**. Abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren -Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzekoa- 91.2 artikulua ulertzeko erabiltzen den irizpidea kentzeko gomendatu zen, legez bananduta dauden eta beren ondorengoen zaintza ez duten pertsonei buruz. Izan ere, ez zitzaien uzten seme-alabekin batera aitorpena egiten, eta jokaera hori artikulu horrexetan agindutakoaren kontrakoa da. Halaber, zegozkion behin-behineko likidazioak egin zitzala gomendatu zen, kaltetuak gerta litezkeen egoerak erregulatzeko.

**Bizkaiko Foru Aldundia**

*** 1450/2001/22 espedientea (27/2003 Gomendioa)**. Bi emakumeri ordain ziezaietela gomendatu zen, Bizkaibus zerbitzu publikoan Bilbotik Sodupera joatean legezko moneta onartu ez zitzaielako benetan eragin zitzaizkien kalteengatik.

*** 1450/2001/22 espedientea (28/2003 Gomendioa)**. Beharrezko neurriak har zitezela gomendatu zen, gaueko zerbitzu bereziak ere legezko monetaz ordaindu ahal izan daitezen.

## C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

### BIZKAIKO UDALAK

**Durangoko Udala**

*** 717/2003/22 espedientea (32/2003 Gomendioa)**. 2000. urteari dagokion zabor biltze eta deuseztatze zerbitzuagatik eta estolderia zerbitzuagatik (...)ko eta (...)ko jabeen elkarteei bidali zitzaizkien likidazioak baliorik gabe uzteko gomendatu zen, "atari bakoitzeko" tarifa ez baitzen agertzen udalerri horrek 2000. urterako onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Ordenantza fiskalean.

**Galdakaoko Udala**

*** 1472/1998/23B espedientea (23/2002 Gomendioa)**. Zuatzaurre auzunerako 1998ko maiatzaren 5ean sinatu zen bitartekaritza-ituna osorik beteko dela bermatzeko, neurriak har zitezela gomendatu zen, oraindik egin barik dauden gauzak, bereziki ondoko hauek bete daitezen:

- Hegoaldean eraikitako parke berriaren azpian dagoen hegoaldeko magalaren azterketa geoteknikoa idaztea.
- Egiteko dauden urbanizazioko obra guztiak egitea, bitartekaritzako itunean aurreikusita dagoen bezala.
- Hirigintzako planeamenduaren interpretazio egokia, 9. blokean dagoen eraikuntza proiektuaren gainean sinatutako itunean aurreikusita dagoenaren arabera.

**Getxoko Udala**

*** 1339/2001/19 espedientea (35/2003 Gomendioa)**. Kexagileak bere ondare erantzukizunezko erreklamazioa ezetsi zuen erabakiaren kontra jarritako errekurtsoa berariaz ebatz zedila gomendatu zen.

Era berean, martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuak ondare erantzukizunezko prozedurak bideratu eta ebazteko ezarrita dituen epeak. behar bezala bete zitezela gomendatu zen.

### GIPUZKOAKO UDALAK

**Donostiako Udala**

*** 490/2003/19 espedientea (36/2003 Gomendioa)**. Honako hau gomendatu zen: 306451/03 eta 303824/03 zenbakiko salaketen ondorioz kautelaz

kendu ziren salgaiak itzul zitezela, baliorik gabe utz zitezela arrazoi horregatik kaleko saltzaile kaltetuei ezarri zitzaizkien zigorrak, eta erantzun ziezaiotela elkarte kexagileak Udaltzaingoaren Erregistroan (...)n egin zuen eskabideari.

**Lasarte-Oriako Udala**

*** 442/2002/23 espedientea (20/2003 Gomendioa)**. Buruntza kaleko eskailerak jaistean erori eta jasandako kalteengatik (...) andreak egindako ondare erantzukizuneko erreklamazioa atzera bota zuen alkatetza-dekretua baliorik gabe uzteko gomendatu zen, izan ere, erabakia hartzerakoan, udalak ez zituen bete ezarritako prozedura-arauak: alegia, organo bideratzailea izanik, ez zituen eskatu dagozkion txosten teknikoak, eta ez zituen funtsezko probak egin, alegatutako egintzak benetakoak ziren ala ez egiaztatzeko.

Halaber, espedientea erabaki-proposamena egin aurreko aldira itzultzeko, eskatutako lekukoen froga burutzeko, eta udal zerbitzuei txosten bat eskatzeko gomendatu zen. Zerbitzu horiek -arrazoi bidez eta modu egokian- adierazi beharko lukete zehazki zein diren egintza horiek eta udalak zer egin duen horren gainean.

Azkenik, beste erabaki bat hartzeko gomendatu zen, egiaztatutako egintzak eta haien zergatiak baloratu ondoren.

D) **ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK**

**EHU**

*** 2/2003/20 espedientea (18/2003 Gomendioa)**. (...) irakasleari agiri jakin batzuk ikusteko aukera ziurtatzeko gomendatu zen. Izan ere, agiri horietan agertzen ziren unibertsitate horretako Diziplina Batzordearen ekimenez lortutako isilpeko informazioak.

## 4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOA, GAIA AUZITEGIETARA PASA DELAKO

**Bilboko Udala**

*** 969/2002/19 espedientea (11/2003 Gomendioa)**. Kexagileari (...) zenbakiko zigor-prozeduran ezarritako zigorra baliorik gabe utz zedila gomendatu zen. Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 72.3 artikuluan ezarritako betebeharra ez betetzeagatik ipini zitzaion zigor hori.

# VI. ATALA

# GOMENDIO OROKORRAK

## 1. ZERGA-KUDEAKETARAKO FORMULA MODERNOAK ETA BEREZITASUNAK ARAUDIEN BIDEZ JASO ETA ONARTZEA

Gaurko zerga sistema herritarren lankidetza aktiboan oinarritzen denez, zergaduna, zorrak ordaintzera ez eze, bere egoera ekonomikoaren eta, batzuetan, beste batzuenaren gaineko hainbat eginbehar, betebehar formal eta material multzo oso bati ere aurre egitera eta Administrazioari aginduzko dei ugaritan laguntzera ere behartuta dago, bere egoera juridikoa lehenagoko garai batzuen aldean nabarmen okertu zaiolarik. Zergen aplikazioan dagoen partaidetza aktiboa argien erakusten duen egitate bat zergadunari berari, dagokion auto-likidazioa aurkeztuz, kudeaketa prozedura abiarazteko ardura ematen zaiola da.

Alabaina, zenbait zerga hain direnez konplexuak, eta arauak gero eta ugariagoak eta ezegonkorragoak direnez, zergadunari ezartzen zaizkion betebeharrak ondo betetzeko arrazoizkotasunaren muga onargarriak gainditzen dituzten jakintza tekniko eta juridikoei ezinbestean lotzea dakar, batez ere Administrazioarengandik informazio egokiarekin batera etortzen ez direnean.

Alde horretatik, zerga administrazio desberdinek azkeneko urteetan zergadunaren informazio eta urgazpenerako kontuetan aurrerapen nabariak izan dituztela aitortu behar dugu, batez ere zerga-kudeaketarako formula berriak, erabiltzaileentzat ez eze, zerga sistemaren multzoarentzat ere oso lagungarriak direnak sartu baitira.

Zehazki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren esparruan (aurrerantzean PFEZ), Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan zergadunari laguntzeko zerbitzuak nahikoa finkatuta daude, lurralde bakoitzean izen desberdinak eman dizkieten arren ideia berari erantzun eta antzeko funtzionamendua daukatenak. Hurrenez hurren, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Rent@raba, Rentanet eta Errenta mekanizatuaz ari gara.

Baina, oso ezarpen maila handia duten arren, harrigarria bada ere, hiru foru ogasunetako batek ere ez du, orain arte, zergadunari PFEZrekiko dituen eginbeharrak betetzeko urgazpen zerbitzu moderno honen osozko arauketarik eskaini. Aurkitzen ditugun araudien aipamen urrietan oinarritzen bagara, formula hau aitorpena egiteko beste moduen antzekoa da, Administrazioak aitorpen mota zehatz honetan zuzenean parte hartzeak, tradiziozko moduaren aldean, gure iritziz, ikaragarri desberdin bihurtzen duen arren.

Hartara, lurralde historiko bakoitzeko araudietan begiratuz, hauxe ikusten dugu:

Araban, Zergen Foru Arau Orokorraren lehenengo xedapen gehigarriak, zerga xedapen zehatz batzuk aldarazten dituen otsailaren 26ko 3/2001 Foru Arauaren 1. artikuluaren laugarren atalaren bidez jatorrizko testura erantsi zenak, Ogasun, Finantza

eta Aurrekontuen foru diputatuari eskuduntza ematen dio, zergapetuta dagoenak, besteak beste, zergen aitorpenak bitarteko telematikoen bidez noiz eta nola aurkeztu ahalko dituzten zehazteko eta halako prozedurak baimentzeko. Gainera, 2002 ekitaldiko PFEZ eta Ondarearen gaineko Zergen aitorpenak aurkezteko arauak eta ereduak onesten dituen 140/2003 Foru Arauak, Rentar@baz honela mintzo da: *"Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenak aurkezteko zerbitzua da, aitorpen modalitate honi heldu ahal izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten zergadunei doan ematen zaiena. Zerbitzu hau Arabako Foru Aldundiaren Ogasun sailaren bulegoetan eta langintza horretarako baimendutako Erakunde Laguntzaileetan egiten da".*

Bizkaian, abenduaren 29ko 11/2000 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriak Ogasun eta Finantzetako foru diputatuari eskuduntza ematen dio, zergapetuta dagoenak, besteak beste, zergen aitorpenak bitarteko telematikoen bidez noiz eta nola aurkeztu ahalko dituzten zehazteko eta halako prozedurak baimentzeko. Eskuduntza hori, egun, ZKFAaren 106 artikuluko 13. atalean araupetuta dago. PFEZren azkeneko ekinaldia arautu zuten xedapenetan (56/2003 Foru Dekretua eta 1145/2003 eta 1146/2003 Foru Aginduak), ordea, ez dugu Rentaneti buruzko inolako erreferentziarik aurkitu.

Gipuzkoan, 2002ko zergaldiari buruzko PFEZ eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenen modalitateak, ereduak eta aurkezteko moduak onesten dituen 324/2003 Foru Aginduak, aitorpen mekanizatua PFEZren aitorpenetarako aurreikusitako hiru moduetako bat dela dio, baina ez du haren berariazko ezaugarririk aipatzen, modu horretaz balia daitezkeen zergadunak nortzuk diren mugatu besterik ez du egiten.

Lurralde historiko bakoitzean PFEZ araupetzen duten foru arauek ere ez dute gai honen gaineko inolako xehetasun interesgarririk ematen, aitorpen modalitate berrien ezarpenari estaldura ematera mugatzen dira, zerga honen aitorpenak "*Foru Aldundiak finkatutako bitarteko, prozesu informatiko edo bestelako modu edo zerbitzuez baliatuz edo aprobetxatuz, arautegien bidez ezartzen den bezala*" egin ahalko direla besterik esan gabe.

Praktikan, zerbitzu horretara jotzen duen zergaduna Administrazioari, edo harek baimenduta erakunde laguntzaile modura ari denari, bere egoera pertsonalaren eta familiakoaren gaineko informazioa ematera mugatzen da, likidatu behar duen zergaldiari dagokionez, garrantzitsu irizten dien diru sarrera eta gastuen frogagiriak aurkeztuz, beren beregiko inolako formulariorik bete beharrik gabe. Jarraian, Zerga Administrazioak edo, bestela, erakunde laguntzaileak izatezko egoera horren kalifikazio juridikoa egiten du, bere interpretazio irizpideak aplikatuz, eta ateratzen den zerga emaitza zenbakitan adierazi ondoren, zergadunari aurkezten dio, sina dezan. Behin sinatuta dagoenean, zerga auto-likidatutzat jotzen da. Aitzitik, zergadunak sinatzen ez badu, PFEZrengatik ordaindu beharreko kuotarako kontuan hartu zaion daturen batekin ados ez dagoelako, edo beste edozergatik, ez da inolako zerga ondorerik gauzatzen.

Halako ingurumarietan, zergapetuta dagoenak Administrazioari protagonismo osoa ematen dionean, bere jarduera zerga Administrazioak edo erakunde laguntzaileak prestatutako proiektua bere egitera mugatuz, ez dirudi oso egokia denik hortik ateratzen den emaitzari auto-likidazio deitzerik. Baina izendapena are desegokiagoa da, gure iritziz, zerga Administrazioak zergadunari proposatzen dion proiektua zergadunak bere

borondatez aurkeztutako datuekin egin ez eze, proiektu hori, ondoren, Administrazioak, zergadunak aitortu dituen datuekin bat datorrela ziurtatzeko, zergadunaren diru sarreren gainean duen informazioarekin alderatu eta, izatekotan, osatu ere osatzen dela, kontuan hartzen badugu. Azken batean, esan dezakegu izatez aurretiaz Administrazioak egiaztatu duen kalkuluari auto-likidazio izena ematen ari garela.

Nolanahi ere, kalifikazio juridiko hori plano teoriko batean oso eztabaidagarria dela uste badugu ere, ez luke zertan eguneroko jardunean arazo garrantzitsurik sortu behar, foru ogasunek, gure iritziz "auto-likidazio" izena oker jarrita duten aitorpen horietara biltzen diren berezitasunak beti kontuan hartzen ez dituztelako ez balitz, foru ogasunek azken batean egiten dutena, aitorpenak aurkezteko ekinaldi bakoitza amaitzean, egiaztapen lanei bereizi gabe ekitea baita, gerora berrikusten dituzten aitorpen modalitate batzuetan beren partaidetzarengatik datorkien erantzukizunik kontuan izan gabe, alegia.

Honen haritik aurkeztu zaigun kasurik deigarriena aitorpena egin zuen funtzionarioak egindako akats bat zuzentzeko behin behineko likidazio bat bidali zuen foru administrazioa protagonista izan duena izan da. Funtzionarioak zerga oinarrian kenkari bat bikoiztu zuen, eta administrazioa ez zen hizpide dugun egoera erregularizatzeko emaitzazko kuotaren diferentzia ordain zekion eskatzera mugatzen, bere garaian ordaindu ez zitzaion kuotaren zatiarengatik berandutza interesak ere eskatu zizkion zergadunari, eta urraketa larria egin zuelakoan zehapen espedientea ere abiarazi zion.

Argi dago kasu honetan administrazioak ez zuela, zehapen espediente hori abiarazteko, akats haren egilea zergaduna barik bera izan zela kontuan hartu, zergadunak, sinadurarekin, akats hura jasotzen zuen aitorpena bere egin arren. Bestalde, ez zen kontuan izan, era berean, gure zerga sisteman ez dagoela zerga urraketen alorrean erantzukizun objektiboko inolako araubiderik, baizik eta alor hori erruduntasun printzipioak zuzentzen duela eta, hartara, zerga urraketak zehagarriak izateko, errurik izan behar dela, arina bada ere, emaitzaren ondorioz zehapenik ezartzea baztertuz.

Zerga administrazioek egiaztapenak aitorpen modu berriei datxezkien berezitasunak kontuan hartu gabe egiten dituztela ohartu garen beste kasu batzuk, erakunde laguntzaile baimendu batek egindako auto-likidazioari bere garaian erantsi ez zitzaizkion etekinak gehitzen direnean gertatzen dira. Erregularizazioaren ondorioz ateratzen den kuotaz gain, Administrazioak berandutza interesak ordaintzea eskatu eta zehapen espedientea tramitatzen du. Halako kasuetan, zerga Administrazioak zergadunak datuak ezkutatu dizkiola interpretatzen du, likidatu beharreko zergaldian izandako etekin guztiak aitortu ez dizkiolako. Ondorioz, egoera hori dagokion behin behineko likidazioaren bidez erregularizatzeaz gain, zehapen espedientea zabaltzen dio, urraketa larriarengatik, eta bere garaian ordaindu ez zuen kuotarengatik berandutza interesak ere eskatzen dizkio.

Guk, ordea, halako kasuetan zergadunak, oro har, fede onez aritzen direla uste dugu, ez baitirudi zentzuzkoa denik Ogasunari diru sarrerarik ezkutatzerik, zeren, jakin badakigunez, akatsik ezean, berez ogasunak zergadunen gaineko informazio guztia baitauka. Hartara, gure iritziz, zenbait diru sarrera aitortu ez bada, sarritan, ahaztu direlako gertatu da, besterik gabe, eta halako ahanzturak ulergarriak dira, une batean aurreko urtean izandako diru sarrera guztiak gogoratu behar izaten direlako, eta beti ez dugulako behar den dokumenturik izaten. Gainera, aitorpenak aurkezteko sistema mekanizatuaz baliatzen diren zergadun askok bide hori ondorengo ustekabe desatseginak saihesteko hautatzen dute, hau da, aitorpena zuzen egin dutela ziur egoteko,

Administrazioak, beren gainean dituen datuekin, beren aitorpenei oniritzia eman diela eta datu horiek zegokien modura kalifikatu direla pentsatzeak ematen dien konfiantzaz, indarreko araudiaren arabera zergapean dauden errentak zergapetu zaizkiola eta salbuetsita dauzkanak, ordea, kanpoan utzi dizkiotela, hain zuzen.

## ONDORIOAK

Rent@raba, Rentanet eta Errenta Mekanizatua izenez ezagutzen diren zerbitzuen erabilpenetik ateratzen den emaitza auto-likidazio hutsa baino gehiago da, izan ere, Administrazioak zuzenean parte hartzen duelako, berezko zerga likidazioko administrazioaren egintza batekin parekatzeko modukoa ere ez den arren. Gure iritziz, "kalifikatutako" zerga aitorpen baten aurrean gaude, auto-likidazioaren eta behin behineko likidazioaren bitarteko kategoria modura eratu beharko litzatekeena.

Planteamendu hau legez onartzea aurrerako urratsa litzateke, Administrazioaren aldetik, herritarren lankidetza aktiboan oinarritzen den zerga-kudeaketarako oraingo gure sistema finkatzeko eta, administratuak zergen aplikazioan bere borondatez parte hartzeak mesfidantza nabaria sortzen zuen konstituzioaren aurreko garaietatik geratzen diren arrastoak gainditzeko.

Horren ildotik, foru administrazioek gai hau araudien bidez gara dezaten iradokitzen dugu, beren benetako izaerari adituz, zerga eta lege harreman berezi honetan inplikatuta dauden aldeen jarrera juridikoa zehaztasun eta berdintasunezko irizpidez mugatuz, eta lege antolamenduak zergadunaren alde aitortzen dituen printzipio eta bermeak errespetatuz, bereziki fede onarena eta segurtasun juridikoarena, arestian azaldu ditugun adibideetan ikusi dugunez, printzipio horiek ez daukate behar besteko babesik.

Marko juridiko berri horretan, zerga Administrazioak erregularizazio zehatz batzuk egiteko ahalmena edukiko luke, gure ustez. Alabaina, berandutza interesak automatikoki aplikatzeari utzi beharko litzaioke, deneko erregularizarioaren mende aplikatu ala ez aplikatzera mugatu, eta kontua administrazioaren erakunde batek egindako akatsak zuzentzea denean erabat baztertuz.

Azaldutako kasu horietan aplikatutako zehapenei dagokienez, bidegabetzat jo behar direla uste dugu, indarreko lege antolamenduari adituz ere, zeren zehapen prozedura orori, zerga prozedura barne, ustezko errugabetasuna aplikatzen baitzaio, eta zerga Administrazioari dagokio, eta ez zergadunari, zergadunaren erruduntasuna dakarten ingurumariak frogatzea.

## 2. POLIZI KIDEGOEK KONTROL-TRESNAK EZARRI BEHARRA, AGENTEEK ARAUZ KANPO JARDUTEN DUTEN KASUETARAKO

Europako Kontseiluaren *Giza eskubideak eta polizia* izenburuko argitalpenean (1994) honako hau nabarmentzen da: "*gizartea maila guztietan zenbat eta zibilizatuagoa, libreagoa, heziagoa eta jakintsuagoa izan, gero eta gehiago espero du polizi funtzionarioengandik, baita funtzio publikoaren gainerako agenteengandik ere*". Eta honela amaitzen da: "*Gizabanakoaren duintasunaz eta giza eskubideez kontzientzia zorrotzagoa izanda, gaur egun –lehen baino askoz errazagoa baita– jendeak polizien portaerari buruzko kritikak eta salaketak egiten ditu, nahiz eta lehengo garaietan portaera hori ez zen gaitzesgarritzat joko; horrek polizien jokabideak txarrera egin duelako gezurrezko irudia sor dezake. Hala ere, azterketa sakonagoa eginez gero, agenteei gaur egun lehen baino gehiago eskatzen zaiela ondorioztatuko da*" (28. or.).

Ikuspegi horretatik, polizi zerbitzuaren aurrean aurkeztutako erreklamazioen kopuru handia jendeak zerbitzuaren kalitatean duen konfiantzaren adierazle izango litzateke, eta ez konfiantzarik ezaren seinale. Hala eta guztiz ere, erakunde honen jardueraren beste arlo batzuen aldean, gutxi dira polizien jokaerei buruz jasotzen diren kexak.

Ziur aski, erreklamazioen urritasuna azaltzen duten faktoreak anitzak eta mota askotakoak izango dira. Esate baterako, baliteke herritarrek itxaropen gutxiago izatea polizi jokaeraren gainean beste zerbitzu batzuen gainean baino (hala nola, osasun- edo gizarte-zerbitzuak). Izan ere, zerbitzu horiek kexa gehiago jasotzen dituzte, agian etapa aurredemokratikoaren eraginagatik. Bestalde, gizartetik baztertuta egoteko arrisku gehien duten herritarrengan, polizi agente baten portaera salatzeko nolabaiteko beldurra edo susmoa nabaritzen da, polizi agenteei zigorra ezartzeko edo atxilotzeko botere handia esleitzen baitzaie. Izan ere, erakunde honek *San Frantzisko aldean (Bilbo) poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera* izeneko txostena burutzean izan duen esperientziak baieztatzen du zenbait eremutan jendea ez dagoela ados polizien zenbait jokabiderekin. Hala ere, ez omen dago desadostasun hori agertzeko bide egokirik.

Nolanahi ere, nahiz eta asko ez izan, Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko polizia guztiei (Ertzaintza, tokiko poliziak, etab.) buruzko kexak jasotzen ditu. Kexa horiek mota askotakoak dira, txosten honetan eta beste urte batzuetako txostenetan Herrizaingoari buruzko atalean islatzen den bezala (II. atala, A - 7.a). Oso zehatzak izan gabe, honako gai hauei buruzko kexak aipatuko ditugu: torturak edo tratu txarrak komunikaziorik gabeko atxiloketetan; nagusikeria, errespeturik gabeko jokaera eta batzuetan, jokaera iraingarria pertsonak identifikatzerakoan, trafikoa kontrolatzen ari denean eta antzeko jarduеretan; portaera diskriminatzaileak edo xenofoboak; arrazoirik gabeko atxiloketak; jokaera desegokia salaketak aurkeztean; mota ezberdinetako erasoak, etab.

Kasu horietako askok elementu komuna daukate: eragindako pertsona polizi arduradunengana doanean bere kexa adieraztera, ez da barneko prozedurarik abiarazten gertatu dena argitzen saiatzeko eta diziplina-espedientea irekitzeko arrazoiak dauden ala ez egiaztatzeko. Batzuetan ez da espedientea irekitzen, ezta Arartekoak jasotako erreklamazioa Administrazio arduradunari bidaltzen zaionean ere; miaketa egindakoan ontzat jo ohi da ukitutako agenteen bertsioa, eta hoberenean euren bertsioa azaltzeko

eskatzen zaie, aurretik eman ez badute. Azken batean, kexen aurrean horrela jokatzeak kexak erabat baztertzea dakar, beraietan bil daitezkeen zantzuak inola ere kontuan hartu gabe.

Gure ustez, jarrera zuzena kontrakoa izan beharko litzateke: informazio-iturri gutxi daude agenteek kalean izaten duten benetako portaerari buruz; hori dela eta, eragindako pertsonen lekukotasunak arretaz aztertu behar dira, horietatik polizi jardueren kalitatea neurtzeko erabilgarriak izan daitezkeen datu objektiboak ateratzeko. Horri dagokionez, polizi etikako aditu batek hurrengoa adierazten zuen: "*Prestakuntza eta kontzientzia alde batera utzita, ez dago jendearekin lan egiten duten polizi agenteen gainbegirapenik, jokaera desegokiak saihesten dituenik. Egia esan, polizi agenteak asko dira, eta gainbegiraleak, aldiz, oso gutxi*". Horregatik, amaieran esaten zuen gustukoa izan ala ez izan, poliziak nolabaiteko ikusezintasuna zuela (S. J. Vicchio, "Ética e integridad policial", *Eguzkilore*, 12. zk., 189. or.).

Horri dagokionez, eta egindako hainbat esku-hartzeren bidez, erakunde honek polizia ezberdinen informazioa bildu du, agenteei denboraldi zehatzetan ireki zaizkien diziplina-espedienteei buruz. Erantzunetan nabarmena da aipatutako espedienteak gutxi izan direla eta gehienek ez dietela erantzun herritarren kexei, Arartekoak beste baliabide batzuen bidez kexaren bat egon zela jakin bazekien ere.

Barneko ikerketak hasteko orduan ikusi den mesfidantzaren aurrean, erakunde honek sarritan adierazi du poliziaren gehiegikeriak galarazteko lehen urratsa gehiegikeria horiek izan daitezkeela onartzea dela. Azpimarratu behar da edozein motatako kexa jasotzean aldez aurretik informazio espedientea irekitzeak ez duela esan nahi ezinbestean kexari sinesgarritasun osoa ematen zaionik, ezta agenteen profesionaltasunaz etengabeko susmoa ezarriko denik ere. Aldiz, polizi arduradunek beharrezkoa den prebentziozko lana egiten dutela eta, aldi berean, polizi lanaren alderdi kualitatiboak aintzat hartzen dituztela esan nahi du. Hori baino ez.

Bestalde, Arartekoa ez da ofizioz edo interesdunak eskatuta barneko ikerketak egin behar direla dioen erakunde eskubide-bermatzaile bakarra. Esaterako, Nazio Batuetako Torturaren kontrako Batzordeak 1998-05-14an emandako irizpena aipa daiteke, bere garaian senarrarekin batera atxilotu zuten Euskal Herriko emakume batek aurkeztutako salaketari buruzkoa. Irizpen horrek honela dio 8.2. atalean:

> *"Hitzarmenaren 12. artikuluaren arabera, Batzordeak xedatzen du agintaritzek ex officio ikerketa hasi behar dutela, tortura edo tratu txarrak egon direla pentsarazten duen bidezko arrazoirik dagoen guztietan, susmoa edozein bidetatik datorrela ere. Halaber, 12. artikuluak ikerketa berehala egitea eta inpartziala izatea eskatzen du."*

Kasu hartan aztertutako egintzak kexa gehienak sortzen dituztenekin erkatzerik ez badago ere, polizi arduradunen jarrerak berbera izan behar du, batik bat balizko jokaera okerra salatzeko erabiltzen den bideari garrantzia ukatzeari dagokionez.

Gure ikuspuntutik, ordea, poliziaren balizko jokaera bidegabe bat aipatzen duen edozein berri ikertu beharra dago, berdin diolarik polizi arduradunek zein bidetatik jakiten duten berri hura. Beste kontu bat da barneko ikerketa horrek zein ezaugarri izan behar dituen; ezaugarriok salatutako irregulartasunaren garrantziaren araberakoak izan beharko dute, noski.

Laburbilduz, gure iritziz, poliziaren zerbitzuaren kalitatea neurtu behar da, eta hori egiteko, ezinbestekoa da zerbitzu horren arduradunak herritarren kexak jasotzeko prest egotea. Gainera, kexa horiek aintzat hartze hutsarekin, lortzea komeni den ondorio prebentiboa lortuko litzateke. Begi-bistakoa da hori.

## 1. **Ikerketa-prozedura**

Polizi jarduera oso kode deontologiko zorrotz bati lotuta dago, eta antolamendu juridikoak agenteei ematen dien botereak erabileraren gaineko kontrol hertsia eskatzen du. Bestalde, polizi funtzioa zein esparrutan garatzen den kontuan hartuta –herritarren oinarrizko eskubideekin etengabe tirabiran ari dela– jardueran gauzatutako edozein okerrek edo gehiegikeriak legez kontrako portaera ekar dezake, zigorraren edo, behintzat, diziplinaren arloan garrantzia izango duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legeak kode deontologikoa ezartzen du. Indarreko antolamendu juridikoarekiko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa eragin zuten printzipioekiko erabateko errespetutik abiatuta, kodea eman ez ezik, diziplina-araubidearen oinarria ere bada. Aipatutako diziplina-araubidearen oinarrizko diseinua legean bertan agertzen da. Horren garapena eta zehapen-prozeduraren erregulazioa Euskal Herriko Polizia Kidegoen Diziplinazko Araudia onartu zuen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren bidez gauzatu dira.

Araudi horrek hutsegite arinak, larriak eta oso larriak bereizten ditu. Arau-haustearen garrantziaren ezberdintasunak prozedura-xehetasunak dakartza berekin, hutsegite larriak edo oso larriak zehatzeak aldez aurretik diziplina-espedientea bideratzea baitakar; hutsegite arinen kasuan, berriz, ez da beharrezkoa espedientea bideratzea: nahikoa da erruztatuari ezinbesteko entzunaldi-izapidea ematea.

Funtzionarioen zehapen-prozedura arautzen duten printzipio nagusietako bat ofiziozko abiaraztea da. Horretatik ondorioztatzen da, besteak beste, organo eskudunak gertatu dena argitzeko duen beharra, balizko hutsegite bat egin izana edozein bideren bitartez jakinarazten zaionean. Horri dagokionez, Araudiak “*komunikazio edo salaketa jaso, edo balizko arau-hauste baten berri izatea*”z hitz egiten du (170/1994 Dekretuaren 42. eta 46.1 artikuluak). Egiaztapen-eginbide esaten zaien horiek egintzak egiaztatzeko balio dute eta derrigorrezkoak dira hutsegite arinak eragindako prozeduran. Balizko arau-hausteak larria edo oso larria ematen duenean, aurreko informazioei buruzko espedientea bideratzea aukerakoa da, diziplina-espedientea besterik gabe ireki baitaiteke.

Nolanahi ere –eta hori azpimarratu behar da– polizi arduradunek agenteen balizko jokaera okerren gaineko edozein zantzu aztertu behar dute, partikular baten kexa edo salaketa gutxietsi gabe, polizi funtzionarioek aurkako bertsioa eman dutela-eta. Alde horri dagokionez, nabarmendu behar da agenteak pertsona batekin edo gehiagorekin gatazka batean sartuta egon direnean, “lekuko inpartzial eta objektiboen” izaera galtzen dutela beren jokabidea azaltzean. Hori dela eta, arlo horretan –eragindako pertsonarekin izan duten jokaerari buruzko adierazpenak, elkarrizketan erabili dituzten hitzak, etab.– beren bertsioek ez dute egiazkotasunaren presuntziorik.

Azken batean, jasotako kexa edo salaketa oso zalantzagarria edo sinesgaitza denean baino ezin izango da erabat baztertu. Gainerako kasuetan, organo eskudunak gutxieneko ikerketa burutu beharko du, arau-haustea modu anonimoan jakinarazi bada ere.

## 2. **Prozedura administratiboa eta penala batera gertatzea**

Aipatutako araudiaren 5. artikuluak ondokoa ezartzen du: “*diziplina erantzukizuna funtzionarioak izan dezakeen erantzukizun zibil edo penalaren kaltetan gabe ulertuko da*”. Hala ere, arau hori zehapen-zuzenbide osoan oinarrizkoa den *non bis in idem* printzipioarekin batera egon behar da. Printzipio horrek egintza beraren gainean oinarri bera daukaten bi zehapen ezartzea galarazten du, jokabidea bi eremu jurisdikzional ezberdinetan aztertzen bada ere. Horregatik, eta ordena penalaren nagusitasunaren ondorioz, arau erregulatzaileak ezartzen du Ertzaintzaren agenteen aurka mota horretako prozedura bat dagoenean, administrazio-jarduerak eten beharko direla, hala denean, kautelazko neurri egokiak hartzeari kalterik eragin gabe. Baina eten hori alde batera utzita, nabarmendu behar da araudiak azaltzen duela prozedura penala hasteak “*ez duela eragotziko aurreko informazioa edo bidezko diziplina-espedientea egintza berengatik bideratzea*”.

Erakunde honen esperientziaren arabera, jokabide hori nahiko berezia da. Izan ere, eragindako pertsonak balizko jokaera okerra zigor bidez salatzen duenean, normala da barneko edozein ikerketa prozedura judiziala amaitzen denerako uztea. Are gehiago, salaketa artxibatzekotan edo absoluzio-epaia ematekotan, oro har gaia ebatzitzat jotzen da, diziplina-bideari berriro ekin –edo hala denean, hori hasi– gabe.

Ezin da ukatu Diziplina Araubideko Araudiak –ordena penalaren nagusitasunaren printzipioa aplikatuz– ezartzen duela eremu horretan emandako epai irmoak Administrazioa lotzen duela biltzen dituen egintza frogatuen aitorpenari dagokionez. Dena den, kontuan hartu behar da egintza batzuek garrantzi penalik ez izateak ez duela esan nahi beste mota bateko erantzukizunik ez dagoela, hala nola, administrazio arlokoak, zibilak, etab. Gure ustez, erantzukizunak beti argitu behar dira, edozein motatakoak izanda ere.

Bestalde, askotan prozedura penala ahozko epaiketaren fasera heldu baino lehen artxibatzen da. Erakunde honek largespen nabarmen batzuen berri izan du. Esaterako, horietako batzuk *egile ezagunaren faltan* oinarrituta daude, salatutako egintzaren unean lanean zein agente ari zen jakiteko inolako eginbiderik egin ez dela. Horrela, badirudi organo judizialak atxilotutako pertsonaren salaketaren sinesgarritasuna hasieratik ukatzen duela, edo beste modu batean esanda, polizi jokaeren kontrol judizialean nolabaiteko arduragabekeria dagoela. Ikuspuntu eskubide-bermatzaile batetik, prozedura penalaren largespena emanda, polizi agintaritzek salaketa eragin zuen polizi portaeraren azterketa sakona burutu beharko lukete, absoluzio-epaiko kasuetan bezala.

Horri dagokionez, garrantzitsua da aipatutako 170/1994 Dekretuaren 26.2. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, horren arabera:

> *“Diziplinazko hutsegiteen preskripzio epeak gertakizun berberengatik aurrez izapidetutako prozedura penala amaitzen denetik aurrera hasiko dira kontatzen, beti ere azken prozedura hori epe horiek igaro baino lehen hasi izan dadinean. Irizpide horri jarraituko zaio, nahiz eta epaileen behin betiko erabakiaren aurretik diziplinazko prozedurarik ireki ez izan, edo irekitakoa geldi egon, erabaki horren zain.”*

Badirudi argi dagoela arau horrek zigor arloan polizi jokaeraren barneko balorazioaren bidez egindako epaiketa ikuspegi deontologikotik osatu nahi duela, deontologia eta zigorra ez baitatoz bat askotan.

Amaitzeko, gogoratu behar da diziplina-espedientea gelditzea –eta ondorioz, preskripzioa etetea– bakarrik dela bidezkoa, epaitegien irizpenaren mendean jarritakoa polizi funtzionarioen jokaera bera denean, eta ez argiketan bildutako egintzak epaitzen direnean. Zentzu zabalean, esan daiteke “gaiari” buruzko jarduera judizialak badaudela, baina egia esan, auzi penalean ez da polizien esku-hartzea aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatu dioten pertsonaren portaera baizik. Aldi berean, pertsona hori izan ohi da polizia salatu edo bere portaeraz kexatu dena. Egia da inputatuak ikusitako jokabidearen balorazioak –erresistentzia aktiboa egon den ala ez, etab.– polizi jokaeraren kalifikazioa eragin dezakeela. Horri dagokionez, hura absolbitzeak agenteen esku-hartzearen bidegabekeria edo gehiegikeriaren zantzua ekar dezake. Hala ere, akusatuari zigorra ezartzeak inoiz ere ez du adierazten polizi portaera zuzena izan denik. Horrela, legez kontrako bi jardueraren aldiberekotasuna gertatuko litzateke, jarduerok elkarren artean konpentsatzen ez direla.

Hala eta guztiz ere, hainbat kasutan erreklamazio-egilearen aurkako auzi penala bideratzeak salatutako polizi jokaerari buruzko barneko ikerketa eragotzi izan du.

## 3. Polizi jokaeraren irregulartasunei buruzko beste kontrol-tresna batzuk

Lehen aurreratu dugunez, erakunde honetan polizi zerbitzuaren funtzionamenduaren gainean jasotzen diren kexek jatorri eta arrazoi ezberdinak dituzte. Hala ere, kexa batzuk “salaketa-gurutzaketa” edo, zehatzago esanez, “kontrasalaketa” izenaz dei daitekeen fenomenoaren testuinguruan sortzen dira. Hori esatean, hurrengo egoerez ari gara: polizien edozein esku-hartze –balizko trafikoko arau-hauste baten salaketa, partikularren arteko eztabaida, pertsona susmagarri baten identifikazioa edo atxiloketa, etab.– hasi ondoren, eragindako pertsonak azalpenak eskatzeak edo agenteen jokaera gaitzesteak agente horien erantzun neurrigabea eragiten du, gure ustez, eta ondorioz, beraiek ere salaketa jartzen dute errespeturik ezagatik, erresistentziagatik edo desobedientziagatik. Gainera, ez da hain arraroa salaketa horiek eztabaidan sartutako pertsonaren atxiloketa eragitea, eta oro har epaileek egintza balizko hutsegitetzat jotzen dute hasieratik, zirkunstantzia astungarria ekarrita. Horrek esan nahi du benetan ez zegoela pertsona atxilotzeko arrazoirik edo, egotekotan, oso ahula zela.

Erakunde honek lehen aipatutako *San Frantzisko aldean (Bilbo) poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera* izeneko txostena gauzatzeko (horren laburpena Arartekoak Eusko Legebiltzarrari 1998an egindako Txostenean ikus daiteke) egin zuen ikerketan egoera horiek behin eta berriz agertzeak berariazko gomendioa egitera behartu gintuen. Une hartan gomendioa Ertzaintzari eta Bilboko Udaltzaingoari beren beregi zuzendu zitzaien, nahiz eta uste dugun edukia orokorra dela polizia guztietarako.

Txosten hartan, 8. gomendioan (*Giza eskubideen aurkako polizia jokabide oro galarazi behar da, eta horretarako, aurre hartzeko mekanismoak sartu behar dira gehiegikeria posibleen aurrean*), (e) atalean alegia, hurrengoa azaltzen zen: polizia jarduera bat dela eta, eragindako pertsonak egindako informazio eskaera, edota are, jarduera hori zalantzan jartzea edo kritikatzea, ez da besterik gabe hartu behar agintearen agenteenganako errespetu gabezia edo desobedientzia gisa. Eta hiritarren jokabidea penalki nabarmendu baldin badaiteke, estu-estuki aintzat hartu behar da AKLren 495. artikuluaren aurreikuspena, zeinaren arabera ez baitaiteke faltengatik atxilotu –arau-

hauste penal arinak– auzipetuak helbide ezagunik ez duenean eta behar hainbateko bermerik ematen ez duenean izan ezik, agertze posiblea ziurtatzeari begira.

*Aitortu egiten genuen zailtasunak sortu ohi direla arau horren ezarpen praktikoan, bereziki agenteek berek erabili beharreko balorazio-irizpideak erabakitzerakoan. Egiazki ia ezinezkoa gertatzen da delitua eta falta bereizteko jarraibide zehatz eta objektiboak ezartzea, baina aurrerantzean egin daiteke prebentzio mekanismoak eta egindako atxiloketen ondoko kontrolen egituraketa egiteko bidean. Alde horretatik gomendio hauek egiten genituen:*

*"1. Poliziek ohikotzat jo behar dute euren jarduerari buruzko azalpenak ematea, eragindako hiritarrak halaxe eskatzerakoan.*
*2. Ondoko kalifikazio judizialean faltatzat jotzen diren jokabideengatiko atxiloketak galarazteko, joerak hauxe izan behar du: ez dadila izan gatazkan parte hartzen ari den agentea bera erabakia hartuko duena, eta saiatu behar da erabakia bertan dauden beste lankide batzuen esku uzten, edo, bestela, atxilotzeko erabakia zenbait agenteren artean har dadila.*
*3. Nolanahi ere, jokabideren larritasunaz inolako zalantzarik izanez gero, askatasunaren alde jokatu behar da. Beraz, poliziek pertsonaren identifikazioa egiteko eta ondoko lokalizaziorako beharrezkoak diren datuak hartuko dituzte, eta ez dute beste ezer egingo.*
*4. Komeni da San Frantzisko aldean, gogor egiteagatik, ez obeditzeagatik, agenteak erasotzeagatik edo antzeko arau-hausteengatik, egiten diren atxiloketen kontrol zenbakigarria izatea, eta ikusiko da kopuruak bereziki agente batzuengan edo patruila batzuetan pilatzen diren.*
*5. Halaber, erabilgarritzat jotzen da honi buruzko ebazpen judizialak aztertzea. Esate baterako, zenbat atestatu pasatzen diren hasieratik faltengatiko epaiketak izatera, kondenen proportzioa eta beste."*

Gomendio horren azken bi ataletan (8.a, e) bildutako proposamenen antzekoak "*Polizia jardueren kontrolbideak indartzea*"ri (7.a) buruzko gomendioan sartzen ziren. Horretan, gaiari lotutako bi alderdiei buruzko kontrol kuantitatiboa gauzatzearen komenigarritasuna aipatzen zen. Honakoak dira bi alderdiak: agenteei balizko jokaera okerrengatik irekitako barneko espedienteak, eta agintearen agenteen aurkako atentatu, erresistentzia, desobedientzia edo errespeturik ezari buruzko delituak –edo hutsegiteak– azaltzen dituzten polizi argiketak.

Azken urteotan, Arartekoak poliziei askotan eskatu die gai horiei buruzko informazioa. Oro har, azpimarragarria da datuen erregistrorik ez egotea eta batez ere, datuei buruzko inolako analisirik egin ez izana. Horri dagokionez, komeni da argitzea analisi hori burutzea ez dagokiola erakunde honi, ez behintzat hasieran. Gure ustez, datu-bilketa barneko kontrol-tresna izango litzateke, polizi jarduera batzuk neurtzeko baliagarria gerta daitekeena.

Esate baterako, Donostiako Udaltzaingoari lotutako gai batean, delitu mota horiei buruzko argiketetan sartuta zeuden funtzionarioen zerrenda eman ziguten. Horrela ikusten da, esate baterako, zenbait agentek urtebetean lau bider baino gehiagotan salatu edota atxilotu dutela norbait arrazoi horrengatik, eta kasu batean, zazpi bider. Horrelako

delituengatiko salaketak behin eta berriz jartzeak zera adieraz dezake, agian: halako agente batek ez dakiela egoera batzuk kontrolatzen atxilotzeko duen ahalmena erabili gabe. Jakina, zantzu hori beste batzuekin kontrastatu beharko dute polizi arduradunek, baina –erakunde honen ustez– ez da inolaz ere alde batera edo aztertzeke utzi behar.

## 4. **Ondorioak**

Ikuspuntu deontologikotik nabaria da polizi jardueren gaineko etengabeko ikuskapena burutu beharra, balizko jokaera okerrak saihesteko eta azken batean, poliziek herritar guztiei ematen dieten zerbitzua hobetzea ahalbidetzeko modu gisa.

Kontrol-tresnek forma eta ezaugarri ezberdinak izan ditzakete. Ararteko erakundearen gomendio orokor honetan bi jarduketa ildo iradokitzen dira, honela laburbil daitezkeenak:

a) Euskal Herriko polizia ezberdinek barneko ikerketa bat hasi behar dute ofizioz, polizien jokaera bidegabea izan dela pentsarazten duen arrazoirik dagoen guztietan. Horri dagokionez, herritarrek egindako kexak edo salaketak, arduradunek edozein bidetatik dakizkitela ere, lehen adierazgarri edo seinaletzat hartu behar dira, beti ikertu behar dira, eta ez dira erabat baztertu behar. Egintzak argitzera bideratutako administrazio-jarduerak hasiko dira, nahiz eta, egintzak prozedura penal batean aztertzen badira, izapideok bertan behera utziko diren.

b) Euskal Herriko poliziak polizi zerbitzuaren kalitatea zaindu eta neurtzeko tresnatzat erabiliko ditu honako datuok: polizia jarduera baten ondorioz sortutako liskarrengatik egiten diren atxiloketen kopurua; horrelako lege-hauste penalengatik egindako argiketetan, agenteak sarri agertzen diren ala ez salatzaile gisa; polizien jarduerengatik zenbat kexa jaso diren, etab.

## 3. TRAFIKOA, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIOA ETA BIDE SEGURTASUNA: AURREZ TAXUTUTAKO EREDUEN ERABILERA ZEHAPEN PROZEDURAK TRAMITATZEAN. ZENBAIT ARAZO DEFENTSARAKO ESKUBIDEAREN INGURUAN

Gero eta zabalduago dago aurrezarritako ereduak –mekanizatuak zein mekanizatu gabeak– erabiltzeko joera trafikoari, ibilgailu motordunei eta bide segurtasunari lotutako zehatze prozedurak tramitatzeko orduan. Horretaz oharturik, Arartekoa kezkatuta agertzen da, jokabide horrek nabarmen murrizten baititu interesatuen bermeak eta eskubideak. Bermeak ahultzearen arrazoi nagusia prozedura-izapideetarako erabiltzen diren ereduetan dago, orokorrak direlako eta ez dutelako loturarik kasuan kasuko egoerarekin, hau da, estereotipo hutsak dira, edozein motatako prozeduran erabiltzeko modukoak, eta gehienetan soilik dira baliagarriak interesatuen galderei erantzun formalak emateko, ez ordea defentsarako eskubideak –Konstituzioak 24. artikuluan aitortua– berekin dakartzan eskaera materialak asetzeko. Izan ere, erabiltzen diren esamolde estandarizatu eta orokorrak -"aurkeztutako alegazioek (edo proposatutako frogak) ez dituzte egintzak indargabetzen", "ez dago alegazio onargarririk salaketan azaldutako egintzen aurrean" eta antzerakoak- ez dira nahikoa izaten erabaki administratiboaren funtsezko arrazoiak adierazteko, eta bestalde, erantzun formala ematen diote prozedurak dakarren edozein galdekizuni, berau zernahiri buruzkoa delarik ere.

Hortaz, horrelako prozeduren kasuan, ulergarriak eta onargarriak gertatzen dira tramite administratiboak arrazoizko eta errazago bihurtzeko teknikak, areago kontuan izanik zenbat prozedura tramitatu behar dituzten arlo horretan eskumena duten administrazioek[1]. Hala ere, aukera horrek ezin ditu horrelako tramiteak bestelakotu, berezkoa duten izaeraz eta balioaz erantziz[2]. Hala gertatzen da, gure ustez, hona ekarri ditugunak bezalako esamolde orokorrak edo antzerakoak erabiltzen badira erruztatuek aurkeztutako alegazioak eta proposatutako frogak ez onartzeko; beste horrenbeste esan

---

[1] Autonomi Erkidegoari dagokionez, arazo honek batez ere Administrazio Orokorrean eta hiru hiriburuetako udaletan du eragin handiena.

[2] Auzitegi Konstituzionalak, hain zuzen ere, ondokoa azaldu du esparru jurisdikzionalean ereduak erabiltzearen inguruan: *"organo jurisdikzionalak aurretiaz taxututa dauden ereduez edo ebazpen formatuez baliatzeak ez du zertan hautsi epailearen berme eraginkorrerako eskubidea; hala ere, benetako arriskua dakar (...) berdinak ez diren kasuetan erabiliz gero. Konstituzioaren ikuspegitik, beraz, jokabide hori bidezkoa izango da ebazpen juridikoa behar bezala arrazoitu bada eta koherentziaz heldu badio alderdien asmoen muinari"* (97/1996 AKE, ekainaren 10ekoa, 4. FJ). Auzitegiaren hitzetan, *"funtsezkoena da erabakiaren oinarrizko irizpide juridikoak ulergarriak izatea, hau da, 'ratio decidendi' delakoa zein izan den jakin ahal izatea"* (9/2003 AKE, urtarrilaren 20koa, 5. FJ).

Administrazioaren zehatze prozedurari dagokionez, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du: *"Ebazpenak ematean inprimaki normalizatuak (estandarizatuak) erabiltzeak ez dakar, berez, inolako babesgabetasunik, baldin eta –honako kasuan bezala- haietan argi eta behar bezain zehatz ageri badira egintzei eta auziari buruzko datuak; izan ere, aurka egiteko adinakoak izateaz gain, datu horiek baliagarriak izan behar dute, zehatuak Administrazioaren iritzia indargabetu lezaketen elementu frogagarriak aurkeztu ahal izan dezan espedientean"* (1997ko maiatzaren 21eko AGE, 5. FJ, RJ 4375).

daiteke orokorra eta beste edozein prozeduratan erabilia den esamolde bat baliatzen bada ezarritako zehapena arrazoitzeko; edo espedientearen puntu zehatzak argitzen ez dituzten iritzi zehaztugabeak baliatzen badira zehapen horren aurka ezarri den administrazio helegite bat gaitzesteko.

Batzuetan, bestalde, ematen den erantzun estandarizatuak ez du inolako loturarik interesatuak planteatu dituen galdekizunekin. Horrelakoetan, bada, aztergai dugun jokabideak ondo agerian uzten du ez direla benetan aztertu eta baloratu prozeduran aurkeztutako alegazioak.

Jokamolde horren erakusgarri da aurten pertsona batek aurkeztu digun kexa: bere kontrako zehapen prozedura bat abian zegoela jakinik, alegazio bakarra aurkeztu zuen dagokion tramitean (abizenetan bi aldaketa egin zituela-eta, espedientearen izapidegileari halaxe ager zitezela eskatu zion). Esan dugunez, gertatutakoa nahiko adierazgarria da, egindako lehen eskaera horri eta prozeduran aurkeztu zituen beste eskaerei ondoko erantzuna eman baitzitzaien: *"tramiteen aldia bukaturik, eta aurkeztutako alegazioak azterturik (...), uste dugu ez dutela justifikatzen egindako arau-haustea, ezta zu ondoriozko erantzukizunetik salbuetsita geratzea ere, eta 320/94 EDren 14. artikuluaren arabera, frogaturik geratzen dira salatutako egintzak"*. Prozedurak etengabe jarraitu zuen aurrera, eta behin ere ez zen aintzat hartu erreklamaziogileak egindako eskaera guztiz zilegia.

2002ko ohiko txostenean bertan ohartarazi genuenez, urte hartan trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorreko zehatze prozedurengatik aurkeztutako kexetatik, asko prozedura horiek modu estandarizatuan tramitatzeak eragindakoak dira.

Aurten ere horrelako kexa gehiago etorri dira. Hortaz, eta kontuan izanik gai horrek defentsarako eskubideari begira duen garrantzia, egoki iruditu zaigu gomendio orokor bat azaltzea haren inguruan.

****

Gaiari heltzerakoan, nahitaezkoa zaigu Auzitegi Konstituzionalak EKren 24. artikuluko bermeei buruz eratu duen jurisprudentzia aipatzea, zehazki berme horiek administrazioaren zehapen-prozeduretara hedatzeaz adierazten duena[3]. Auzitegiak honela zehaztu du berme horietako bat: *"ziurtatu behar zaio inplikatuari bere burua defendatu ahalko duela ebazpena eman aurretik eta, horren arabera, Administrazioak darabilen prozedurak aukera emango diola zehatuari egoki deritzen frogak aurkeztu eta proposa ditzan, hala nola bere eskubidearen mesederakoa den guztia alegatu dezan"* (3/1999 AKE, urtarrilaren 25ekoa, 4. FJ)[4].

Auzitegi Gorenak ere behin baino gehiagotan azpimarratu du prozedurak bere baitan biltzen dituen bermeen garrantzia, berme horiei esker gauzatu egin baitaiteke

[3] AK-k duela gutxi emandako ebazpen batean (54/2003 AKE, martxoaren 24koa), Auzitegiak berak gai horren inguruan osatutako jurisprudentzia jasotzen da, 3. FJn hain zuzen. Bertan bilduta agertzen dira Auzitegiaren pronuntziamendurik garrantzitsuenetako batzuk, doktrinaren abiapuntua den ekainaren 8ko 18/1981 epaiaren ondoren emanak.

[4] Iritzi berekoa da lehen aipatu den 54/2003 AKE, martxoaren 24koa (3. FJ).

defentsarako eskubidea administrazioaren zehapen-prozeduraren alorrean[5]. 2000ko ekainaren 1eko ebazpenak (RJ 7378) honela azaltzen du aurreko hori: *“ematen den administrazio ebazpenak errespetatu egin behar ditu prozedurarako gida-arauetan zehazten diren bermeak, berme horien xede nagusia administratua Administrazioaren aurrean babestea delako”* (1. FJ).

Haatik, eta Auzitegi Konstituzionalak berak ohartu duenez, *“zehatuak bere defentsarako dituen alegazio-tramiteak ezerezean geratuko lirateke, horrekin batera alegazioei erantzuteko beharrik ez balego; berdin gertatuko litzateke errugabetasun presuntziorako eskubidearekin, organo erabakitzaileak azaldu beharko ez balu nola baloratu dituen egindako frogak eta haietatik eratorritako egozpen-ondorioak”* (7/1998 AKE, urtarrilaren 13koa, 6. FJ). Hartara, arrazoiak jasotzeko eskubidea tresna bat da EKren 24. artikuluko bermeak administrazioaren zehapen-prozeduran ere gauzatu daitezen, eta horregatik hain zuen, Auzitegi Konstituzionalak argi aitortu du eskubide horrek duen izaera konstituzionala[6].

Doktrina konstituzionala bilduta dago azaroaren 26ko 30/1992 Legean. Izan ere, zehapen-prozeduraren oinarri nagusien artean, legeak prozeduraren beharra (134. eta 127 artikuluak) aipatzen du, eta horrekin batera ustezko erantzukizundunak dituen beste eskubide batzuk: alegazioak aurkezteko eskubidea, hala nola ordenamendu juridikoak onartzen dituen eta bidezko diren defentsarako bideak erabiltzekoa (135. art.); arrazoitutako ebazpena jasotzeko eskubidea (138. art.), eta proposatutako frogak gaitzesteko erabakia ere arrazoitua eman dadin eskubidea (80.3 art.).

Trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorreko zehapen-prozedura erregulatzen duen araudiak ere berme horiek jasotzen ditu (Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatua, martxoaren 2ko 339/1990 Erregearen Legegintzako Dekretuak onartua –73. eta 79. artikuluak–; otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretua, alor horretarako zehapen-prozeduraren Erregelamendua onartzen duena –1, 10, 13. eta 15. artikuluak–).

Esan bezala, legean egindako aurreikuspenek helburutzat dute defentsarako eskubidea, 24. artikuluan jasoa, bermatzea. Hala ere, berme horiek formalismo huts bat bezala beteko balira, ez litzateke aintzat hartuko Konstituzioak prozedurari eta arrazoitu beharrari aitortzen dien betekizuna, alegia, 24. artikuluko gainerako bermeak eta eskubideak administrazioaren zehapen-prozeduretan ere gauzaraztea. Hortaz, eta helburuei erreparatuz gero, zehapen-prozedurako erruztatuaren planteamenduei erantzutean, funtsezkoa da Administrazioak behar besteko informazioa ematea bere erabakiaren oinarrian dauden egintzei eta irizpide juridikoei buruz, erruztatuak informazio hori izango baitu oinarri erabakiaren muina kritikatu edo haren aurka egiteko, eta azken batean, bere interesen defentsa era egokian antolatzeko.

Trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorrari dagokionez, prozedurako tramiteak aurretiaz taxututako ereduen arabera egiten badira, hau da,

[5] Honakoaz gain, badaude beste ebazpen batzuk gaiaren inguruan, besteak beste, 1990eko otsailaren 12ko AGE, 4. FJ (RJ 774).

[6] Aipatutako ebazpenean (7/1998 AKE, urtarrilaren 13koa) hala dio Auzitegiak: *“administrazio-zehapenak arrazoituak izatea (...) beharrezkoa da EKren 24. artikuluko oinarrizko baloreak babesteko eta artikulu horrek administrazioaren zehapen-prozeduretara zabaltzen dituen bermeak ere zaintzeko”* (7. FJ).

moldezko arrazoibide orokorrak erabiliz eta kasuan kasuko gorabeheren berri zehatzik izan gabe, ez datoz bat –itxura batean bada ere– prozedurak Konstituzioaren arabera behar lukeen izaerarekin, defentsarako eskubidea gauzatzeko tresna edo bide izatearekin, alegia. Aitzitik, horrelako tramiteei helduz gero, prozedura tramite sorta bat baino ez litzateke izango, hutsala eta agortu arte nahitaez betetzekoa.

Esan beharra dago, ordea, prozedurako akats guztiek ez dituztela ondorio berdinak izaten erruztatuaren defentsarako eskubidean. Hortaz, gure ustez alderdi horretan eragin nabarmenagoa dutenak aztertuko ditugu bereziki. Gainera, eguneroko lanak erakutsi digu akats horiek maiz gertatzen direla prozedura aurretiazko ereduei jarraiki burutzen bada. Zehatzago, froga zein zehapen-ebazpena bera ukitzen dituzten zenbait akatsez ari gara.

***

Ikusi denez, aipatutako prozeduretan ondokoaren gisako erantzunak erabili ohi dira frogak gaitzestean: “aurkeztu diren frogek ez dituzte salatutako egintzak indargabetzen”. Sarritan ere isila izaten da frogak errefusatzeko bidea.

Alabaina, Auzitegi Konstituzionalak defentsarako eskubideaz duen interpretazioa kontuan izanda, errefusatzeko bide batak zein besteak arazoak planteatzen dituzte eskubide horren inguruan. Auzitegiak sortutako doktrinaren arabera[7], zehapen-prozedura batean eskatu diren frogak gaitzestekotan, erabakia arrazoitu egin behar da, horrek ere osatzen baitu defentsarako egoki diren tresnak erabiltzeko eskubidea, berau EKren 24. artikuluan jasoa. Horregatik, Auzitegiaren iritziz, eskubidea urratu egiten da proposatutako froga argudiorik gabe errefusatzen bada, edo argi badago emandako argudioa arrazoibidearen kontrakoa eta zentzugabea dela.

Gorago esan bezala, doktrina hori jasota geratu da zuzenbide positiboan, esate baterako azaroaren 26ko 30/1992 Legean (80.3 art.)[8], bai eta trafiko alorreko zehapen-prozedura –orain hizpide duguna, hain zuzen– erregulatzen duen araudian ere (320/1994 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, 13. artikulua).

Auzitegi Gorenak ere hausnarketa egin du auzi honen gainean, eta haren iritziz, frogak arrazoitu gabe errefusatzen badira, akats hori gertatu den prozedura guztiz baliogabea da zuzenbidearen arabera. Hari beretik doa, esate baterako, 2000ko ekainaren 1eko epaia (RJ 7378).

Halaber, Auzitegi Nagusietan ere baliogabeturik geratu dira lehenago ezarritako zehapen asko, frogak inolako arrazoibiderik gabe errefusatu zirelako, hain zuzen. Ildo horretatik, 2001eko apirilaren 23an emandako epaian (RJCA 843) hala dio Kanarietako Auzitegi Nagusiak erantzun orokorrei buruz: *“froga eskaerari erantzunik ez emana, eta are baieztapen zehaztugabe horiek, kasu zehatzari heldu gabe eginak eta egintzak indargabetu geratu ez zirela ziotenak, urratze nabarmena dira entzute eta defentsarako eskubideetan, interesatua zehaturik geratu baitzen egina zuen froga*

---

[7] Urtarrilaren 20ko 9/2003 AKEk Auzitegiak gaiaren inguruan emandako doktrina laburbiltzen du, epairik esanguratsuenak aipatuz.

[8] Abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak, zehapen-ahalmena baliatzeko jardunbidearen Erregelamendua onartzen duenak, berretsi egiten du eskakizun hori 17.2 artikuluan.

*eskaera erantzunik gabe zegoela ere. Horiek horrela, pentsatzekoa da irregulartasunak izan zirela, prozedura erabat baliogabetzeko adinakoak, hautsita geratu baitzen defentsarako eskubidearen muina, Konstituzioak babesteko modukoa eta zuzenean aplikatzekoa den eskubide baten muina, alegia"* (4. FJ).

Iritzi berekoa agertu zen Euskadiko Auzitegi Nagusia 2001eko urriaren 5ean emandako epaian (RJCA 195). Aztertzen zen zehapen-prozeduran -gehiegiko abiaduragatik burutua- ez zen erabakirik hartu proposatutako frogen inguruan, ezta frogak berak egin ere; Auzitegiak epaian adierazi zuenez, *"errekurtsogileak proposatutako frogak egin gabe uzteaz gain, ez zen erantzun argirik eman haien gainean, ez alde ez kontra. Aurrekoak urratu egiten du administrazio prozedura, eta defentsarik gabe utzi errekurtsogilea"* (3. FJ).

Aipatzekoak dira, halaber, Balearretako Auzitegi Nagusiak 1997ko otsailaren 18an emandako epaia (RJCA 248) eta Aragoiko Auzitegi Nagusiarena, 2000ko maiatzaren 10ekoa (RJCA 2452), berau ere trafikoko zehapen-prozedura bati buruz emana.

Hortaz, aipatutako arauak ikusirik eta hona ekarri dugun doktrina konstituzionalari eta jurisprudentziari eutsiz, zehapen-prozeduraren izapidegileak, frogak bidezkoak diren aztertzeaz gain, beti eman beharko du erantzuna haien gainean, onesteko edo gaitzesteko bada ere. Bestalde, frogak errefusatzekotan arrazoitutako erabaki batez egin beharko da, horretarako dituen argudio zehatzak azalduz eta moldeko arrazoirik eman gabe, azken horien bidez iritzi orokorrak adierazten baitira, orokorrak izateagatik edozein froga-proposameni erantzuteko erabilgarriak, hain zuzen, ez ordea ezezko erabakiaren arrazoiak –egintzei buruzkoak zein juridikoak– azaltzeko modukoak. Bestalde, horrela jokatu ezean hautsita geratuko litzateke kontraesan eskubidea, zehapen-jardunean oinarrizkoa; izan ere, interesatua egintzen inguruan duen bertsioa egiaztatu ezinik badago, eta horretarako proposatu dituen frogak arrazoirik adierazi gabe atzera botatzen badira, Administrazioa izango da, azken batean, egintzak baieztatzen dituen alde bakarra.

***

Mota honetako prozeduretan ere zehapen-ebazpenak maiz erabiltzen ditu lehendik egindako moldeak, adibidez, "ez dago baliozko alegaziorik salatutako egintzen aurka", edo lehen esandako hori: "tramitatzeko aldia bukaturik, eta aurkeztutako alegazioak azterturik (...), uste dugu ez dutela justifikatzen egindako arau-haustea, ezta zu ondoriozko erantzukizunetik salbuetsita geratzea ere, eta 320/94 Errege Dekretuaren 14. artikuluaren arabera[9], frogaturik geratzen dira salatutako egintzak".

Frogak errefusatzeko gertatzen den bezala, zehapen-prozeduretako ebazpenak emateko ere horrelako esamolde orokorrak erabiltzen badira, azaleko iritzia baino ez da adierazten interesatuak aurkeztutako alegazioei buruz, baina ez dira jakinarazten, inondik ere, ebazpenaren oinarrian dauden arrazoi zehatzak.

---

[9] Artikulu honek ustezko egiazkotasunaz hornitzen ditu trafikoa zaintzen duten agintaritzaren agenteek egindako salaketak.

Bestalde, sarritan moldeko ebazpen horiek ez dute taxuzko balorazio bat ematen frogaren inguruan, bakarrik baloratzen baitituzte –eta batzuetan, aipatu baino ez– prozedurari ekiteko erabili ziren frogak, adibidez, trafikoa zaintzeko ardura duen agintaritzak derrigor egin behar duen salaketa[10], zinemometroak neurtutako abiadura eta beste. Ez dute ezer adierazten, ordea, salatutako pertsonak proposatzen dituen frogei buruz, ezta egin edo baloratu behar dituzten ere.

Gehienetan, gainera, ebazpenak ez du ezer esaten zehapenaren tamainaz, ezarritakoa gutxienekotik gorakoa denean.

Batzuetan, prozeduran nahastutakoek planteatzen dituzten galdekizunek ez dute lotura zuzenik prozedura abiarazi duten egintzekin. Horrelakoetan, aztergai ditugun moldeko esamoldeek ez dute ebazpen zantzurik ere ematen galdekizun horien inguruan, eta halaxe gertatzen da, esate baterako, abstentzioarekin edo ezespenarekin[11], nortasun datuen aldaketekin –lehenago aztertutako kasuan bezala–, edo egintzekin zerikusi zuzenik ez duten gainontzeko alegazioekin.

Gorago esan dugun bezala, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, defentsarako eskubidea errespetatzen duen zehapen-ebazpen batek ezaugarri batzuk bete behar ditu: behar bezain arrazoitua izan[12], erruztatuak planteatutako galdekizunen muinarekin koherente izan, eta egindako froga eta haren egozpen-ondorioak baloratu. Era berean, lehen ere azaldu ditugu nola gauzatu behar den hori guztia defentsarako eskubidea benetan bete dadin.

Besterik gabe, gogorarazi nahi dugu eskakizun horiek bere horretan ageri direla jasota zenbait arautan: azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta zehapen-ahalmena baliatzeko prozeduraren Erregelamendua, abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuak onartua eta trafiko alorrean ordeztaile gisa aplikagarria[13] dena (Legearen 138. art. eta Erregelamenduaren 20.2 eta 4 artikuluak). Bestalde, otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak, trafikoko zehapen-prozeduraren Erregelamendua onartzen duenak, gauza bera egiten du, 15. artikuluan, arrazoibideari eta kongruentzia printzipioari dagokienez.

***

Azkenik, egiaztatu dugunaren arabera, Administrazioak duen joera hori, alegia, interesatuen galdekizun zehatzei erantzuten ez dieten arrazoi orokorrak erabiltzekoa, maiz agertzen da zehapen horien kontra ezarritako administrazio helegiteak ebaztean, horrelakoetan ere moldeko ereduak baliatzen baitira sarritan. Horren ondorioz, zehapen-

---

[10] Bestalde, salaketan jasotako egintzei onartzen zaien ustezko egiazkotasun hori noiznahi erabiltzen da irizpide gisa. Erabilera mekaniko eta erretoriko horren adierazgarri, batzuetan zehapenaren oinarri gisa baliatzen da nahitaezko salaketaren beharrik ez duten jardunbideetan, nahiz eta -jakina denez- ustezko egiazkotasuna soilik aitortzen zaion salaketaren beharra duen prozedurari.

[11] Aurten jaso dugun kexa batean auzi hori planteatzen zen.

[12] Zehapenaren tamaina arrazoitu beharra zehapena bera argudiatzearen alderdi bat da. Horren oinarrian, zigorra norbanakoari ezartzeko teknika dago, berau administrazioaren zehapen-zuzenbidera zabaldu baita. Gai hau jorratuta agertzen da Euskadiko Auzitegi Nagusiak 2003ko otsailaren 14an emandako epaian (JUR 116382, 6. FJ).

[13] Otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 1. artikulua.

prozeduran izandako akatsak lehengo moduan geratzeaz gain, helegiteen ebazpenetan ere huts berberak igartzen dira.

***

Aurreko guztia kontuan harturik, gure ustez, bai Administrazio Orokorrak eta bai toki administrazioek ziurtatu egin beharko lukete alor horretan (trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna) tramitatzen dituzten zehapen-prozeduretan erruztatuak defentsarako duen eskubidearen berme konstituzionalak eta legalak errespetatuko direla. Horretarako, berariazko neurri batzuk bete behar dituzte administrazioek:

1. Erruztatuak aurkezten dituzten alegazioak aintzat hartu eta, gaitzesten badituzte, behar bezalako zergatiak eman.
2. Interesatuak proposatutako frogen bidezkotasuna baloratu eta erantzun argia eman, baiezkoa zein ezezkoa izan. Bidegabetzat joz gero, ebazpen argudiatu batez egin beharko da.
3. Jardunbideak behar beste arrazoi emanez ebatzi. Halaber, zehapen-ebazpenak argi erantzun behar die prozeduran planteatutako galdekizun guztiei; era berean, frogaren balorazio osatu bat emateaz gain, zehapenaren tamaina ere arrazoitu behar da.
4. Zehapenen aurkako helegiteak modu argudiatuan ebatzi, interesatuak planteatutakoarekin koherentzia erakutsiz.
5. Egintza bakoitzaren zergatiak azaltzean, erabakiaren oinarrian dauden arrazoi zehatzen berri eman.

# 4. IRISGARRITASUNARI BURUZKO ARAUAK: KONTROLERAKO TRESNAK ERABILI BEHARRA

## Sarrera

Europan Minusbaliatuen urtea izan den 2003an, irailaren 24an, Arartekoak gaia jorratzen duen txosten bat -*Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna*- aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Txostenean egindako azterketaren bitartez 2003ko helburuetariko bat bete nahi genuen, minusbaliatuen eta aukera berdintasunaren inguruko hausnarketa eta eztabaida biziagotzea, hain zuzen.

Izan ere, jakin nahi genuen zertan den erakunde publikoek irisgarritasunaren alde burutu duten lana Irisgarritasuna Bultzatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa, indarrean hasi zenetik, areago apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren III. eranskinaz geroztik hona, bertan eraikinetarako irisgarritasunari buruzko arau teknikoak ezartzen baitziren.

Oraingo honetan berriro ukitu nahi dugu txostenaren ondorioetako bat, deigarriena berau, batez ere ohiz kanpoko txosten hura taxutzeko informazioa administrazioek berek eman zutelako; Deigarriena dela esan dugu herri administrazioek oso gutxi baliatu dituztelako irisgarritasuna gauzarazteko kontrol tresnak, helburu bera duten arauetan ezarriak, hain zuzen.

Ildo beretik doaz jasotako kexetako asko, haietan ere salatzen baitira irisgarristasuna errazteko arauak betearaztean izandako irregulartasunak, batzuetan herri administrazioei eurei leporatuak. Zenbait berritze eta zabaltze obra ez ezik, oin berriko eraikin batzuk ere jarri ziren ezbaian, bazter geratu baitira horrelakoetan bete beharreko eskakizunak eta salbuespenak, alor honetan ezartzekoak diren arauetan aurreikusiak, hain justu.

Goikoaren erakusgarri dira honako erreklamazioak, norbanakoek zein minusbaliatuen elkarteek aurkeztuak: mugitzeko arazorik ez dutenek minusbaliatuentzako aparkatzeko plazak erabiltzea; azalera gutxiko plazak; ibilgailuetako matxurak, aparkalekura sartzea eragozten dutenak; komunak egokitu gabe dituzten hotelak eta jatetxeak; minusbaliatuentzat gordetako babes ofizialeko etxebizitzak, ezin iritsizkoak gertatzen zaizkienak; irisgarritasunerako neurriak betetzen ez dituzten saltoki ireki berriak, edo zerbitzu publikorako eraikinei (osasun etxeak, ikastetxeak…) buruzko kexak.

20/1997 Legea garatzen duen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak erabilera edo zerbitzu publikokotzat jotzen ditu ondoko eraikinak, duten titularitatea gorabehera: Herri Administrazioaren zerbitzuak, era guztietako osasun zentroak, zeharrentzako egoitzak eta umezurztegiak, hezkuntza zentro guztiak, ikasle etxeak, hornidura-azokak, saltokiak, aisi eta merkataritza zentroak, erlijio eta kultur zerbitzuak, zinemak eta antzokiak, estadioak eta kiroldegiak, ostalaritzako eraikinak eta lokalak, tren eta autobus geltokiak, itsas garraiorako guneak, aireportuak, bulego eraikinak, bankuak eta aparkaleku nahiz komuna publikoak.

Erabilera edo zerbitzu publikoko eraikinen kasuan, hirigintza antolamendurako eskumena duten instituzioek irisgarritasunerako neurriak betetzen direla ziurtatu eta kontrolatu behar dute, 20/1997 Legearen arabera. Horretan funtsezkoa da udalen ardura, obretarako eman behar dituzten baimenen eta lizentzien bitartez arauak benetan ezartzen diren egiazta baitezakete.

Haatik, erakunde honetan tramitatutako salaketek eta ohiz kanpoko txostenean bildutako informazioak adierazten dutenez, murriztuta geratzen da udalek irisgarritasuna bermatzeko duten gaitasuna.

Bestalde, interesatuen erakundeen ustez, arauak ez dira betetzen administrazioak, profesionalek eta gizarteak berak ez dutelako benetan barneraturik minusbaliatuen egoera.

Gure iritziz, herri administrazioek ez dute behar besteko baliabiderik jartzen irisgarritasunari buruzko arauetako aurreikuspenak betetzeko orduan, eta honako gomendioan horretarako ditugun arrazoiak azaltzen saiatuko gara.

**Irisgarritasunari buruzko araudietan ezarritako kontrol tresnak. Herri Administrazioek araudiok betetzearen beharra.**

20/1997 Legearen 15.1 artikuluak honela dio: *"Lege honen aginduak bete beharrekoak dira hirigintza plangintzarako tresnak onartu eta ezarri ahal izateko; beste horrenbeste egin behar da Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Diputazioek eta Udalek lizentziak, baimenak eta kalifikazioak eman edo bestelako egintzak burutu ditzaten."* Halaber, 17.1 artikuluaren arabera, administrazioek egiaztatu behar dute kontrol tresnak legeak ezarritakoari egokitzen direla.

Beraz, lizentziak, baimenak eta kalifikazioak emateko beharrezkoa da lehenago irisgarritasunari buruzko arauak betetzea eta dagokion administrazioak hala egin dela egiaztatzea.

Kontuan izan beharra dago hirigintza jardueretarako lizentziak araupeko egintza administratiboak direla, eta haien bitartez Administrazioak prebentziorako kontrola baliatzen duela administratuen ekintzen gainean, ezarri nahi diren instalazioak hirigintza ordenamenduarekin bat datozela egiaztatzeko. Argi dago, beraz, lizentzien erabilera legaltasun kontrol bat izateaz gain, nahitaezko egintza dela, baimena eman edo ukatzeko beharrezkoa baita jakitea eskatutako jarduerak ordenamendu ezargarriaren betetzen duen ala ez.

Kontrola burutzeko ahalmen hori udalei dagokie gehienbat, indarrean dagoen toki araubidearen eta hirigintza arauen arabera eurek daukatelako lizentziak eta baimenak emateko eskumena oin berriko obretan, eraikinak berritu edo handitzeko lanetan, etab.

Gorago adierazi dugunez, bada, funtsezkoa da udalek alor honetan duten eginbeharra. Gogoan izan behar da prozesuan udalak hiru bide dituela arauak betetzen diren begiratzeko eta egiaztatzeko: (1) proiektua aztertzea, obrarako lizentzia eman baino lehen; (2) lanak ikuskatzea, obrak egiten diren bitartean, eta (3) obra bukatutakoan, lanak eman zaien lizentziaren arabera burutu diren egiaztatzea.

Hala ere, ohiz kanpoko txostena osatzeko bildu zen informazioa azterturik, esan daiteke udal erakundeek ez dutela behar bezalako kontrolik egiten irisgarritasunari dagokionez.

Izan ere, udalen % 56k aitortzen dute beren teknikoak ez direla modu sistematikoan joaten eraberritze obretara, bertan irisgarritasunerako eskakizunak betetzen diren egiaztatzera. Are kezkagarria da jakitea udalen herenak ez dituztela eraberritze lanak ikuskatzen amaitu direnean. Gauza bera gertatzen da erabilera edo zerbitzu publikorako egiten diren oin berriko eraikinak eta lokalak ikuskatzeko ardurarekin.

Hala eta guztiz ere, inkesta egin zitzaien profesionaletatik % 23k soilik uste zuten beren udalek teknikari gehiago kontratatu behar zituztela edo teknikarien lana irisgarritasuna bermatzeko ikuskapenetara eta kontroletara bideratu behar zutela. Era berean, 27 udalek obrak bukatutakoan ikuskapen sistematikorik egiten ez zutela zioten, eta harritzekoa da jakitea haietatik % 55ek ez zutela teknikari gehiagoren beharrik sumatzen horrelako ikusketa aldiak egiteko.

Erakunde honetan egiaztatu dugunez, behin baino gehiagotan, udalek irisgarritasunaren alorrean atzemandako arau-hausteak norbanakoen salaketei edo Arartekoaren eskaerei erantzunez egindako ikusketetan azaleratu dira.

Hortaz, ikuskaritza zerbitzuek egoki jardungo badute, beharrezkoa da udalek baliabide materialak zein pertsonalak eskuratu ditzaten, irisgarritasunari buruzko lege-arauetan ezarritakoa beteko dela ziurtatze aldera.

Irisgarritasunari buruzko Legean jasotzen denez, ezinbestekoa da udal teknikariek proiektu tekniko eta lizentzia edo baimen eskaera guztiak azter ditzaten irisgarritasunaren ikuspegitik. Ildo beretik, Legearen 17.2 artikulua ezarriz eta alor honetako arau ezargarriak betetzen direla egiaztatzeko asmoz, udal agintaritzak exijitu behar du aurkezten diren hirigintza dokumentu guztietan argi ageri dadila arauak bete egiten direla.

Era berean, obrak burutu bitartean ere ikuskatu behar dira, eta horretarako premiazkoa da toki erakundeek beren ikuskaritza zerbitzuak indartzea. Izan ere, hona datozen salaketez erabakitzen ari garela, behin baino gehiagotan ikusi dugu teknikoki ezinezkoa dela -eraikuntzak edo eraikinak bukatu ondoren- instalazioak irisgarritasun beharretara egokitzea.

Ulertzekoa denez, edozein motatako obra bukatzen denean nahitaezkoa da derrigorreko egiaztatze-bertaratzeak egitea, lehenbiziko okupaziorako lizentzia eman aurretik egiaztatu behar baita eraikuntza bat datorrela lehenago emandako lizentziarekin. Halaber, horrela jokatuz legaltasuna berrezartzeko neurriak har daitezke edo –behar denean– 20/1997 Legeak arau-hausteetarako aurreikusten dituen zehapenak ezarri.

Alde horretatik, badago beste datu bat atentzioa ematen duena: ohiz kanpoko txostenaren inkestari erantzun zioten udaletatik, batek ere ez du zehapenik erabaki eraberritze edo eraikitze lanetan irisgarritesunerako neurriak ez betetzeagatik.

Ildo beretik jarraituz, gogoratzekoa da Legeak zekarren berrikuntza nagusietako bat zehapen araubidea bera zela, eta hori berebiziko aurrerapausoa izan zela aurreko egoerarekin alderatuta. Izan ere, aurreko arauek ez zuten zehapenetarako aukerarik ematen, eta horren ondorioz irisgarritasunari buruzko arauak asmoak baino ez ziren –gogo onekoak bezain hutsak–, betearazteko batere ahalmenik ez zutenak, hain zuzen.

Geuk ere egiaztatu dugunez, zehapenik ezak murriztu egiten ditu arauek ematen dituzten aukerak.

Horren haritik, ohartu beharra dago arau-hauste administratibo bat gertatzen bada Administrazioak ez duela espediente administratibo bat hasiko ote duen erabaki behar: hasi egin hasi behar du. Bestela jokatuz gero, arduragabekeria erakutsiko luke orden publikoaren alorrean dituen betebeharrei dagokienez.

Bestalde, alor honetan azpimarratu behar da 20/1997 Legearen arabera zehapenak ez duela arau-hauslea oker dagoena birjarri beharretik salbuetsita uzten, ezta, araua bete ez duen kasuetan, behar diren egokitzapenak egitetik edo proiektua aldatzetik ere. Arrazoi beragatik, hirigintza alorreko diziplinarekin gertatzen den modu berean,

Administrazioa behartuta dago kaltetutako ondasunak ilegaltasun egoeraren aurreko ezaugarrietara lehengoratzen. Irisgarritasunari buruzko araua loteslea da herritarrentzat eta Administrazioarentzat, legaltasun printzipioak botere publikoen jarduera guztien oinarrian agertu behar baitu.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubiderako Oinarriak Arautzekoak, 21-k) artikuluan agintzen duenez, udalek zehapen ahalmena baliatu behar dute irisgarritasuna bultzatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea urratu den zantzuak dituztenean. Administrazio publikoak zehapen ahalmenaz hornitzen dituzten arauak ez dira gogoak emanda eratu, aitzitik, badute izateko arrazoia, Administrazio publikoaren eskumenen eremuan gertatzen diren arau-hausteak zigortu beharra, alegia.

Bukatzeko, aurretiazko kontrolerako tresna bat aipatu behar dugu, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasoa. Izan ere, Dekretu horrek irisgarritasunerako arau teknikoak ezartzen ditu hiri aldeetan, gune publikoetan, eraikinetan eta informazio edo komunikaziorako sistemetan, eta bere V. eranskineko 3.3 artikuluan zehazten du zein salbuespen onartzen diren eranskin bereko 2.1 artikuluaren aplikazioan, azken artikulu honetan irisgarritasunerako irizpideak jasotzen baitira eraikin eta lokalak berritu, handitu edo aldatzeko lanei dagokienez.

Zehazki, 3.3 artikuluak honela dio: *"Aurreko atalean aipatu diren elementuren bat ezin egoki badaiteke Eranskin honetan jasotako gutxieneko irisgarritasun baldintzetara, hala adierazi beharko da dokumentu baten bitartez, eta lizentzia onartu aurretik nahitaezkoa izango da Udal Zerbitzuek gai horri buruzko txosten bat aurkeztea. Espedientea Euskadiko Irisgarritasunerako Kontseilura helaraziko zaio, haren berri izan dezan."*

Ikusten denez, orografiak, egituraren ezaugarriek edo formakoek irisgarritasunerako neurriak hartzea eragozten badute, edo horrelako neurriak betetzeak gehiegizko gastuak ekarriko badituzte, arauak salbuespena dokumentuz justifikatzera behartzen du.

Halaber, lizentzia eman edo ukatu aurretik, udal zerbitzuek txosten bat aurkeztu beharko dute proposatutako neurriaren egokitasuna baloratuz.

Ez dirudi txosten hori loteslea denik, eta alde horretatik gogoratu behar da derrigorreko txostenak lizentzia emateare n kontrakoak izan arren gerta litekeela udalbatzako kideek alde bozkatzea, eta horren haritik, hain zuzen, 20/1997 Legearen 22.2 artikuluak udalbatzako kide horien erantzukizuna ezartzen duela.

Hori horrela izanda ere, gure iritziz txosten teknikoak erabakigarria izan beharko luke prozeduraren ibileran, txostenean azterketa tekniko bat egiten baita dokumentazioan salbuespenerako arrazoitzat ager litezkeen gorabeheren inguruan. Horrela jokatuta, teknikoki frogatuko balitz dagozkion irisgarritasun neurriak gauzatu egin daitezkeela, salbuespena ez litzateke onartuko, eta berdin gertatuko litzateke datuek agerian utziko balute egin beharreko lanen aurrekontuek estuasunik gabe har dezaketela bere gain irisgarritasunerako egokitzapenek dakartzaten gastuak.

Informazio gutxi dago eskuragarri benetan salbuespenetarako prozedurak nola gauzatzen diren jakin ahal izateko.

Dauzkagun datuak Euskadiko Irisgarritasunerako Kontseiluak urtero aurkezten dituen txostenetakoak dira. Hala, bada, 2000ko txostenean hiru kasutan jasotzen dira salbuespenerako jakinarazpenak, eta 2001ekoan jakinarazpenak 47 dira. Alde nabarmena igartzen da lurraldetik lurraldera, baita udalen artean ere. Kontseiluak adierazitakoaren arabera, ez daki datu horiek errealitatea islatzen duten, alegia, udal

guztiek beren eginkizuna behar bezala bete eta horrelakoetan dagokion jakinarazpena luzatzen duten.

Gainera, Kontseiluak adierazten du helarazitako jakinarazpen gehienak berri emate hutsak direla, haietan bakarrik adierazten baita zein kasutan eta zein irisgarritasun neurriri lotuta onartu den salbuespena. Pentsatzekoa da jokabide honekin –indarrean dagoen araudiak agintzen duenez bestela– espedienteak helarazi beharra saihesten dela, eta ondorioz, Kontseiluak ezin du egiaztatu onartutako salbuespena behar bezala arrazoiturik dagoen ala ez.

Argi dago horrela ezerezean geratzen dela arauaren helburua, hots, kontrolerako ahalmena erabiltzea ordenamenduan jasotako irisgarritasun neurrietatik salbuesteko aukera modu egokian ezarri den jakiteko.

## Proposamenak

Honaino azaldutakoa ikusirik, Arartekoak uste du herritarrei ingururako irispidea eta komunikazioa erraztu nahi bazaie –bereziki edozein arrazoi dela medio horretarako eragozpenak dituztenen kasuan–, botere publikoek behar diren ekimenak bultzatu behar dituztela, indarrean dauden araudietan irisgarritasunaren inguruan zehaztutako neurriak benetan bete daitezen.

Hartara, udalek -batez ere- nabarmen sendotu behar dituzte ikuskaritza zerbitzuak, norbanakoen jarduerak era egokian kontrolatzeko eta haietan esku hartzeko, legalitatea berrezartzeko bideak ezbairik gabe aplikatzeko, eta irisgarritasuna bultzatzekoa abenduaren 4ko 20/1997 Legean jasotzen diren zehapenak baliatzeko.

Azkenik, toki erakundeei gogorarazi egiten zaie salbuespena jasotzen duten udal lizentzia guztien berri eman behar diotela Euskadiko Irisgarritasunerako Kontseiluari, dagokion arauak hala agintzen duelako. Gainera, jakinarazpenarekin batera udal espediente osoa ere helarazi behar da, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak V. eranskineko 3.3 artikuluan ezarri bezala.

## 5. URBANIZAZIO PRIBATUEN MANTENTZEA, ERABILERA PUBLIKORAKO ZORRA DAGOEN KASUETAN

Gure hiri-herrietako urbanizazio askok, duten helburuagatik, interes publikoaren zerbitzuan daude, titularitate pribatuak izan arren, adibidez guztion atsedenerako guneak, espazio irekiak edo bi eremu bereizien arteko pasabide direnak.

Erabilera publiko hori jasota ageri da hiri plangintzarako arauetan edo urbanizazio proiektuetan, edo izatezko ohituran du jatorria, jabeek zein jabeen komunitateko kide ez direnek modu baketsuan eta hala nahita erabili izan dutelako gune hori aspalditik.

Baina urbanizazioa mantentzeko eta jendearen erabilerak bertan eragindako kalteak ordaintzeko ardurak zehazterakoan arazoak sortzen dira, eta ohikoa izaten da toki administrazioak eta auzokoen elkarteak bat ez etortzea horren inguruan. Izan ere, ondasun pribatu baten gainean erabilera publikorako zortasun bat eratzen denean, ez dago behar bezain zehazturik zein betebehar dituen udalak, ezta nola ulertu behar diren egonaldi eta bide-zorra arautzen duten klausulak, eta hortxe datza, hain zuzen, desadostasunaren jatorria.

Zenbait auzokoen eta jabeen elkartek hala eskaturik, Arartekoak arazoa aztertzeari ekin dio, elkarte horien iritziz Udalak bere gain hartu behar baititu mantentze eta kontserbazio orokorreko gastuak.

### Erabilera publikoko eta titularitate pribatuko guneak: Lege Araubidea

6/1998 Legeak, Lurzoruaren Araubideari eta Balorazioei buruzkoak, 19. artikuluan dioenez, jabea behartuta dago finka egoera egokian kontserbatzen, eta guk printzipio orokor hori hartu behar dugu abiapuntutzat.

Udalari dagokionez, berea da beti zerbitzu publikoak (segurtasuna, argiteria, garbiketa edo bideetako zoladura) mantentzeko ardura, baina bakarrik publikoak diren bide eta guneetan, eta hala zehazten du Toki Araubideari buruzko 7/1985 Oinarri Legeak 25. eta 26. artikuluetan.

Beraz, finka partikularrek beharrezkoak zaizkien baliabideak eskuratu behar dituzte, jabetzak dakarzkien betekizunei aurre egiteko. Jabeen elkarteen kasuan, Jabetza Horizontalari buruzko 49/1960 Legearen testu bateratuak honela dio 10. artikuluan: *"elkarteak eraikina eta bertako zerbitzuak egoki mantentzeko eta kontserbatzeko obrak burutu beharko ditu, eraikinaren egitura, iragazgaiztasuna, bizigarritasuna eta segurtasuna bermatze aldera"*.

Hala ere, batzuetan finka pribatuak erabilera publikoaren gainzama eramaten du, eta horrek nolabaiteko ordaina ekarri behar du, behintzat erabileraren erabiliaz ondasunean izan daitezkeen kalteengatik. Auzitegi Gorenak 2001eko maiatzaren 21ean emandako epai batek (RJ 2001\3792), jabego pribatukoa zen plaza baten erabilera zela eta, aintzat hartu zuen jabeek egoki deritzen erreklamazioak egiteko eskubidea. Auzitegiaren epaiaren hitzetan: *"Jabego pribatu baten erabilera publikoak haren kontserbaziorako ekarri behar duen arrazoizko ordainak gauzatze egokia du negoziazioan eta eskubideen antolamenduan"*. Erabaki horren arabera, bada, udalak esku hartzearen arrazoia jabeei eman beharreko bidezko konpentsazioa da, haiek beren gain hartzen baitute erabilera publikoa errespetatzeko ardura.

Konpentsazio horrek oinarria du zuzenbidearen printzipio orokorretan. Horietako bat on ustearen printzipioa da, Kode Zibilaren 7.1 eta 1.285. artikuluetan jasoa eta era guztietako kontratuak baldintzatu behar dituena; horren arabera, bai Administrazioa eta bai administratuak behartuta daude zuzen, leial, zintzo eta zentzuz jokatzen. Ekitatea ere printzipio horietako bat da, eta jasota dago Kode Zibilaren 3.2 artikuluan.

Aipatutako zuzenbidearen printzipio orokorretatik ondorioztatzen da udalerriak behar bezalako konpentsazioa eskaini behar duela jabego pribatu batean egiten den erabilera publikoagatik.

## Aztertutako bi kasu: Laudioko ataripeen mantentzea eta Donostiako Udalaren ordenantza

Laudioko eraikin bateko jabe elkartearen eskariz erakunde honek tramitatutako kexaren arabera, Udalak ez zituen behar bezala mantentzen eraikineko ataripeak eta terrazak, nahiz eta erabilera publikokoak izan, bertan egoteko eta udalerriko beste auzo batera pasatzeko erabiltzen baitziren.

Erabilera publikoko zor hori ezartzen zuen xehetasunezko azterketak zioenez, eskailerak, ataripeak eta lorategidun terrazek izango zuten erabilera publikoko zorra konpentsatzearren, Udalak bere gain hartuko zituen garbiketa, argiteria eta lorategiak mantentzeko gastuak.

Hala ere, Udalak ez zuen hartutako ardura betetzen, jabeen elkarteak salatzen zuenaren arabera. Izan ere, udalaren iritziz, berari bakarrik zegokion mantentze arrunteko lanak egitea, ez ordea ohiz kanpoko konponketak edo hirugarrenen ekintza bandalikoen ondorioz hondatutako elementuak aldatzea.

Kasu honen abiapuntua betekizun-erregimena, Udalak erabilera publikoaren ordainetan bere gain hartua. Harreman hori alderdiek nahita eta libreki erabakia da, baina bere benetako oinarria, azken batean, on ustea, ekitatea eta bidezkotasuna dira, hau da, Administrazioaren jokabidearen funtsa izan behar duten printzipioak. Beraz, Udalak urbanizazioa era egokian kontserbatzeko eta mantentzeko neurriak hartu behar ditu, urbanizazioak berak ere erabilera publikoaren ondorioak eraman behar baititu. Gainontzeko betebeharrak, aldiz, jabeen ardura dira.

Kasua azterturik, erakunde honen ustez, pasabide gisa erabiltzen zen tartea mantentzeko eta kontserbatzeko lanak (garbiketa eta lorezaintza) Udalak egin behar zituen, udalerri mailan horrelako zerbitzuetarako ezarrita zeuden baldintza berak betez, gainera. Izan ere, bide zorra eta erabilera publikokoa zoladurari ezartzen zaizkio, eta ez jabego pribatua diren beste eraikuntza-elementuei (hormak, paramentuak edo eraikineko beste elementu horizontalak). Horren arabera, fatxada hiribidearekin mugakide duten beste eraikinekin bezala jokatu behar zen, eta horretarako kontuan hartzekoa zen Udalak graffitiak eta pintadak garbitzeko eta kentzeko darabilen garbiketa-erregimen orokorra edo helburu bereko ordenantza.

Hiri altzariei eta argiteriari dagokienez, Udalak berritu beharreko argi-puntuak eta hiri altzariak aldatu behar zituen, eraikinean egoteko eta pasatzeko erabilera publikoa hitzartutakoaren arabera gauzatu ahal izan zedin.

Bestalde, zenbait udalek jasota eta zehatuta dauzkate –modu orokorrean– zein diren udalerriak bere gain hartu beharreko eginkizunak erabilera edo pasabide publikoaren

izaera ezarrita duten urbanizazio pribatuen kasuan. Hala egin du Donostiako Udalak, eta 1998ko azaroaren 23ko osoko bilkuran onartutako eraikuntzarako ordenantza osagarrietan (1999ko urtarrilaren 14ko GAO) jasota ageri da zein baldintza bete behar diren jabetza pribatuek ezarrita dituzten erabilera publikoko zorrak gauzatzeko. Ordenantza horietako 25. artikuluaren arabera:

> *"Erabilera publikoko zorra ezarrita duten guneetan Udalak bere gain hartuko ditu argiteri publikoaren zerbitzua eta haren mantentzea –betebehar horretatik kanpo geratzen dira, ordea, lurzatiaren jabeek jarritako argi-puntu gehigarriak, beharrezkoak ez badira–. Udalaren ardura da, halaber, azaleko akabera-lanak –zoladurak eta estaldurak–, baina ez lokalen fatxadetakoak edo sabaiak.*
> *Era berean, lurzatia bere baitan hartzen duten azpiegitura orokorren kasuan, sarearen elementuak mantentzeko ardura Udalari edo kasuan kasuko enpresa hornitzaileari dagokio.*
> *Haatik, jabeen kontura dago, gune horietan, ondoko elementuen kontserbazioa: ataripeen barnealdeko fatxadak, egiturazko elementuak, isolatze edo iragazkaizte lanak eta lurzatirakoak diren udal zerbitzuen hartuneak."*

Ikusten denez, ordenantzen bidez zehaztu nahi da zein diren Udalaren betekizun orokorrak, beharrezkoak diren zerbitzuak mantentzeko eta erabilera publiko bat ezarrita duten urbanizazio pribatuen kasuan.

Aztertutako bi kasuetan Administrazioak bere gain hartzen du beharrezko zerbitzu publikoak mantentzeko ardura urbanizazio pribatuetan, berauek ezarrita duten zorra era egokian gauzatu ahal izan dadin. Hala gertatzen da, hain zuzen, argiteri, garbiketa eta zoladuraren kontserbazioarekin.

## GOMENDIOA

Goian egindako hausnarketak eta aztertutako kasuan kontuan harturik, Arartekoaren ustez beharrezkoa da udalek mantentze lanetarako baldintzak zehaztu ditzaten erabilera publikoko zorrak daudenean. Udalak bere gain hartu behar ditu zenbait betekizun, finkari ezarritako erabilera publikoak sorraraziak.

Zehatzago azalduta, udalak zoladuraren eta hiri altzarien garbiketa egin behar du, fatxaden, paramentuen eta sabaien kasuan salbu. Alde horretatik, beharrezkoa da gune horietako gutxieneko garbiketa maila zehaztea, toki erakundeak alor horretan ematen duen zerbitzuaren nondik norakoak kontuan hartuta. Era berean, gastuak pasabide diren guneetan ikuspena ziurtatzeko egiten diren hornitze eta mantentze gastuak (farolak eta ataripeko sabaiko argi-puntuak) udalaren kontura ordaintzekoak dira, hiri altzariak berritzeko egin beharrekoak bezala (eserlekuak, paperontziak...). Halaber, lorategiak egonez gero, behar bezala mantendu beharko dira, udalerriko gainontzeko lekuetan egiten den modu berean. Pasabide-guneko zoladuran, oinezkoen ibilera eragozten edo zailtzen duten elementu hondatuak konpondu behar dira, eta beste horrenbeste egingo da segurtasunerako elementu osagarriekin (barandak).

Jabeen elkarteei dagokienez, haiei dagokie, kasu guztietan, eraikineko egiturazko elementuak (fatxaden aurrealdea eta ataripeko sabaiak) kontserbatzea, saneamendurako sarea eta euri zein hondakin uretarako isurbideak sare orokorrarekiko lotuneraino mantentzea, bai eta hondatutako elementuak (kutxetak eta hustubideak) aldatzea. Jabeen eginbeharra da, halaber, hormetako pintadak, graffitiak eta bestelakoak desagerraraztea, antzeko kasuetan Udalak herriko gainontzeko lekuetan egiten dituen garbiketa-lanak gorabehera.

# VII. ATALA

# ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikuluak, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko egina bera, honako hau erabakitzen du: "*Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio*".

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta euskal erakunde publikoek hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da, hau da, Autonomia Erkidegoko Administrazio nagusiak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki-Administrazioak erakusten duten errespetua.

2003. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan-esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Esan behar dugu 2003an giza eskubideetan izandako urraketarik larriena ETAk hiru pertsona hil dituela izan da.

Aurten, halaber, ekintza terroristaren ondorioz, euskal herritar askoren bizitza, osotasun fisiko, askatasun, segurtasun pertsonal, adierazpen askatasun eskubideak murriztuta egon dira, bereziki alderdi politikoetako kargudun hautatu eta militante, sindikatu, epaile, fiskal, irakasle, kazetari, espetxeetako funtzionario, enpresari, polizia eta abarrenak. Zoritxarrez, haien eguneroko bizitza iluntzen duten eta euskal herritar askoren eskubideak ikaragarri mugatzen dituzten halako gertakariak berriro ere salatu behar ditugu.

Kapitulu honetan egiten den balorazioak, ordea, euskal autonomia erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horretan izan litekeen eskubideen urraketa ditu hizpide.

Kapitulua konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, horien defentsa esleitzen baitzaio Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Kapitulu honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako II. Kapituluaren hitzaurreetako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Lehenengo hurbilketa batean, Ararteko erakundean eta Estatuko gainerako parlamentuaren mandatarien txostenetan konstantea da Espainiako Konstituzioaren I. Goiburuaren bigarren kapituluko lehenengo atalean sartutako eskubideren baten balizko urraketen gaineko kexak oso gutxi direlako aipamena, hau da, oinarrizko eskubide eta askatasun publiko deritzenenak. 2003an ere hala izan da.

Arestian esandakoaren froga gisa, aurkeztutako kexarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzea gerta litekeelako kasuen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoei

eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorrei objektibotasunez zerbitzatuz jokatzea ezartzen zaie–.

## 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua**

  *"Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako diskriminazioa ezin da nagusi izan."*

Asko dira zuzenean zein zeharka berdintasun printzipioaren balizko urraketarekin zerikusirik izan lezaketen kexak.

Erakunde hau, bere esku hartzeetan, konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzailea den herri botereen jarduerarik gerta ez dadin saiatu da.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioaren urraketa beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Garbi dago emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun eskubidearen urraketarik larrienak esparru pribatuan gertatzen direla, batez ere lan eta familia barruko harremanetan, lanera sartu edo lanean irauteko baldintzetan edo familiako zama eta arduren banaketan agerian geratzen baitira.

Genero indarkeria, askotan heriotza ondorioak dakartzana, emakumeen bereizkeria horren adierazpenik muturrekoena da.

Genero ikuspegia politika publiko guztietan sartu behar da, indarkeria sexistari gure gizartean emakumeek duten mendeko tokian errotuta dauden sorburuetatik bertatik aurre egiteko metodo eraginkor bakarra baita.

Herri botereek, konstituzioan eta estatutuan pertsonen arteko izatezko eta egitezko berdintasunaren agindua betetzeko, berdintasun hori gauzatzeko neurriak hartu beharko dituzte.

Bizitza publikoan berdintasunik sustatu nahi bada, esparru pribatuan ere ematen diren bereizkeria egoerak ere ezabatu behar dira. Familia eta lan bizitzak uztartzeko ekimen publikoak etxeko erantzukizun eta ardurak gizon eta emakumeen artean oreka handiagoz banatzen laguntzeko modura planteatu behar dira, tradizioz emakumezkoen eginkizun modura jotako lanetan emakumearen papera indartzea saihestuz.

Zoritxarrez, zenbait kasutan, herri botereek, izatezko berdintasunik sustatu beharrean, berdintasun hori eragozten duten oztopoak sendotzen dituzte, esaterako nola, Irun eta Hondarribiako udalek beren herrietako alardeetan emakumeen partaidetzari dagokionez duten jarrerarekin.

Beste zenbait kasutan, genero berdintasunerako bidean aurrera egin beharrean, atzerako pausuak aurkitzen ditugu, hala nola, Arabako Foru Aldundiak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana amaitutzat jotzeko hartu duen erabakian.

Lege eta arauetako neurriak ez dira izatezko berdintasuna lortzeko nahikoak, gizartea ere sakon aldatu behar da. Alabaina, oso garrantzitsua litzateke gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren legea onestea, ildo horretan konpromiso garbi hartzeko oinarri izan dadin legea, hain zuzen.

Atzerritarrek ere kexak jarri dituzte, arraza dela-eta baztertzen dituztela salatzen dutelarik.

Zenbait kasutan, administrazio jarduera batzuei dagokienez, balizko bereizkeria pertsona horiei berdintasunaren printzipioarekin bat datorren begirunezko traturik ematen ez zaiela irizten zaiolako salatzen da; beste batzuetan, ordea, bereizkeria jarrera horiek esparru pribatuan gertatzen dira.

Atzerritarrek, atzerritar direlako, alokairuan hartzeko etxebizitza aurkitzeko arazo handiak izaten dituzte, pertsona askok ez duelako bere etxea atzerritarrei alokatzerik nahi.

Erakunde honek ofiziozko ikerketa bati ekin zion Gasteizko Udalak kudeatzen dituen alokatzeko etxebizitzen burtsaren funtzionamenduari buruz zeren, prentsan agertutako albisteen arabera, litekeena burtsa horretan sartutako alokairu eskaintza batzuk alokairu hartzailea atzerritarra ez izatearen baldintzapean egotea baitzen.

Ezgaituek ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte gainerako biztanleekin izatezko berdintasuna lortzeko orduan, bai lan merkatura sartzeko, bai eguneroko bizitzan, kasu askotan garraiabiderik erabiltzerik ez dutelako, edo hirigintzako eta arkitekturako oztopo ugari daudelako.

## 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

### 2.1. BIZITZEKO ETA INTEGRITATE FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua**

  *“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”*

Ararteko erakundeak herri botereek herritarren bizitza eta osotasun fisikoaren eskubideak zorrotz errespeta ditzaten zaindu behar du.

ETA erakunde terroristak eskubide horiek sistematikoki urratzen dituela ere salatu behar dugu.

2003. urtean hiru pertsona hil dituztela gogor gaitzesten dugu, eta haien senitarteko eta lagunenganako gure elkartasunik maitekorrena adierazten dugu.

Bizitza edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxua, askatasunaren murrizketa euskal herritar askoren gainean dago.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikuluaren testua ipintzen jarraituko du “*Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea*”, ETArik EZ leloarekin batera.

Aipatu dugu emakumeen aurkako indarkeria dela, oraindik, bizitza eta osotasun pertsonalerako eskubidearen urraketarik larriena, eta erakunde honek ezin du horren aurrean soraio egon.

2003an EAEn emakumeen aurkako indarkeriari erakundeetatik ematen zaien erantzunaren gaineko txostena amaitu dugu. Funtsezkoa da herri botereen erantzuna tratu txarrak jasandako emakumeen beharrizanetarako egokia izatea, pertsona guztien arteko izatezko berdintasuna genero indarkeria errotik desagertzeak soilik ekarriko duelako ideia berresten dugun arren.

Zoritxarrez, plangintzarik gabeko erantzunaren aurrean gaude, beharrizanetara eta arazoaren larritasunera doitutako arreta osorik ezaren aurrean.

2003an Ertzaintzak "lege antiterrorista" delakoaren pean egindako atxiloketetan tratu txar eta torturak izan direlako salaketa batzuk jaso ditugu.

Azpimarratu behar dugu erakunde honek gai horretan egindako jarduerak batez ere prebentziora bideratu direla beti.

Era berean, gogoratu behar dugu erakunde hau sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluak Arartekoak epaileen ebazpenik izan duten edo izateko zain dauden gaiak aztertzera sartzerik ez duela dio. Jakin badakigu atxilotutakoak atzeman, inkomunikatu eta espetxeratzea epaile batek baimendu dituela eta bera dela, era berean, zigor prozedura osoan zehar haien eskubideak babesteaz arduratu behar duena. Agintaritza judizialak baino ez dauka legez kanpoko ustezko jarduerak ikertzeko eta litezkeen zigor erantzukizunak ezartzeko boterea.

Esandakoarengatik, erakunde honek Ertzaintzari ukitzen dioten tortura eta tratu txarren salaketen aurrean ezin du kasu partikularrak ikertzera sartu eta, hartara, esku hartzeko duen bide bakarra polizien jarduera etengabe ikuskatu eta prebentzio aldetik jorratzea da, zilegiak ez diren jarduerak saihesteko edo, bestela, aurkitu eta zehatzeko aukera eman dezaten mekanismoak jartzeko.

Horren ildotik, Eusko Legebiltzarrari urteko txostenak aurkezten dizkionean, Ararteko erakundeak behin eta berriz azpimarratu du zigorgabetasuna babes lezaketen espazio eta denbora ilunak ezabatu behar direla, pertsona guztien eskubideak errespetatzea bermatzeko: atxilotutako pertsonek tratu txarrik ez jasotzeko duten eskubidea, eta atxiloketa, ikerketa edo galdeketetan esku hartzen duten poliziak beraiek salaketa faltsuekin kalumnia ez ditzaten duten eskubidea.

Jaso ditugun kexen ziorik ohikoenak hiru alderdiren inguruan multzoka ditzakegu:

- Batzuk atxiloketa egiten den uneaz ari dira. Esaterako, komunikabideen presentzia, familiako kideei tratu okerra, beren iritziz, polizia ikerketarako bat ere argigarriak ez diren gauzak atzematea, poliziaren esku hartzearen hasieran idazkari judizialik ez egotea, edo baldin badago bere burua ez ezagutaraztea edo erregistrorako baimenik ez erakustea, eta halakoak salatzen dira.
- Polizia egoitzetan dauden bitartean, erreklamaziogileek atxilotutakoari tratu txarrak eman dizkiotela salatzen dute. Kontakizunak desberdinak diren arren, salaketarik ohikoenetan honakoak aipatzen dira: mehatxuak, irainak, eta presio psikologikoak; abokaturik gabeko galdeketak, lorik egiten ez uztea, jarrera batean luzaro egonaraztea (kukubilko, esaterako); jatekorik ez ematea; ileetatik tiratzea edo kolpe bakanak ematea; atxilotutakoa biluzaraztea edo biluzik egonaraztea; sexu motako irain edo umiliazioak...
- Oro har, erreklamaziogileek ezohiko neurri horiek kasu zehatzean beharrezkoak diren ala ez aditu gabe, inkomunikazioa sistematikoki aplikatzearekin eta atxiloketaren denbora luzatzerekin ados ez daudela adierazten dute.

Iaz gai honetan izandako berrikuntzarik nagusiena *Inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonen arretaren koordinaziorako protokoloa* eta *Inkomunikazio erregimenean atxilotutakoen senideei kasu egiteko* zerbitzua abian jarri zirela izan zen.

Erakunde honek oso ondo ikusten du instantzia desberdinen artean koordinatzeko ahalegin hori (Ertzaintza, Osakidetza eta Lege Medikuntzako Euskal Erakundea). Bestalde, azterketa medikoak atxilotutakoen eskubideen bermetzat hartu ditugu beti. Horren haritik, protokoloak, azterketa horien ahalbideak garatu edo zehazten dituen aldetik, haien birtualtasun bermatzailea indartzen du. Hala ere, garbi dago azterketa medikoek –profesionalen eskarmentuak eta iritziak diotenez– beren mugak dituztela eta nekez erakuts edo argi lezaketela Ertzaintzari halako kasuetan egotzi zaizkion polizia ohitura batzuk izan diren ala ez (adibidez, lorik egiten utzi ez dietela, mehatxatu dituztela, iraindu edo modu desberdinetan psikologikoki presionatu dituztela salatzen dutenean).

Bestalde, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailari, prebentziorako asmoz, ziegen eremuan korridoreetan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ipin zezan gomendatu ziola, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

Herrizaingoak gomendioa onartu zuen arren, Ertzaintzaren ziegetara egin ditugun bisitetan ikusi ahal izan dugu, ordutik denboratxoa joan den arren, oraindik ez direla oro har jarri eta, zehazki, inkomunikatutako atxilotuen eremua daukaten zenbait ertzain-etxetan ez duela funtzionatzen. Herrizaingo sailak ez die, halaber, grabaketak kontrolatu eta erregistratzeko jarri dituen mekanismoen gaineko gure informazio eskariei erantzun.

## 2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua**

*"1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulu honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.*

*2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritza judizialaren eskuetan uzteko askatuko da*

*3. Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxiloketaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilijentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.*

*4. 'Habeas corpus' prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko."*

Beste batzuetan ere esan dugunez, polizien atxiloketetan legezkotasunaren errespetuaren kontrola batez ere zigor instrukzioaz arduratzen diren erakunde judizialen esku dago. Hala ere, legeak gure erakundeari esleitzen dion herritarren eskubideen

defentsaren betekizunak badaezpadako neurri hori zein baldintzatan garatzen den bereziki aditzera behartzen gaitu.

Behin eta berriro jasotzen ditugu Ertzaintzak, hasierako kalifikazio judizialetik falta diren jarrerengatik, atxilotu dituen pertsonen kexak.

Pertsona bat kexatzen zen zio horregatik hamar egunetan birritan atxilotu zutela.

Gai bera ageri da beste herritar baten kexan, ertzainenganako desobedientzia falta batengatik eta, antza, erreklamaziogilea ertzainei euskaraz zuzendu zitzaielako hasi zen polizia jarduera batean bere burua identifikatzera ukatu zelako Ertzaintzak atxilotu zuela zioena.

Egia da zaila izan daitekeela delitua noiz eta falta noiz den mugatzeko irizpideak finkatzea. Alabaina, erakunde honek hainbat prebentzio neurri proposatu ditu, behar den zigor garrantzirik ez duten jarrerengatik inor atxilotzea eragozteko eta, esan du prebentzio neurriak artikulatzeko eta egindako atxiloketen geroko kontrola egiteko mekanismoak artikulatzeko ildotik aurrera egin beharko litzatekeela.

Herrizaingo Sailak Ertzaintzak erresistentzia, desobedientzia, ertzainei eraso edo antzeko urraketengatik egiten dituen atxiloketen kontrol kuantitatiboa egin eta, gero, gertakari horien gaineko epaileen ebazpenen edukia zein izan den aztertu beharko luke.

Gorputz araketaren diligentzia egiteari dagokionez, erakunde honek gomendio orokorra emana dauka horren gainean –2001eko txostenean–, baita gomendio zehatzak ere udaltzaingo desberdinen eta Ertzaintzaren jardueren gainean, segitzen du kexa gai izaten, halakorik egin beharra eta neurriaren egokitasun edo proportzionaltasuna frogatu ez deneko arrazoirik gabeko biluzarazteak salatzen baitira.

Atxiloketaren iraupena, ziegetako egonaldia (elikadura, argiketa), eta atxiloketako uneko laguntza letratua dira gure erakundearen esku hartzearen gai, atxilotuen eskubideak bermatzeko gai interesgarriak dira-eta.

Atxilotuak askatasuna zergatik kendu dioten jakin behar du, eta hori atxiloketa aktan jasota egon behar da.

Poliziek Bilboko San Frantzisko auzoan atzerritarrekin nola jokatzen duten kexa gai izan da aurten ere.

Kexa bat jarri zuen pertsona batek salatzen zuen bi poliziak gizon bat etxe bateko atarian sartu zutela ikusi zuela, eta atarien barruan araketak eta gorputz miaketak jasan dituztela salatzen duten etorkinen testigantzak entzun dituela zioen.

Beste batek zioen bi ertzainen atari batean sartu, arakatu, biluztu eta bere gauzak lurrera bota zizkiotela.

Berriro ere ohitura horiek onartezinak direla esan behar dugu, eta halakorik egin dadin eragozteko neurriak hartu behar direla.

Zenbait bisitatan atxilotutako pertsonari bere eskubideen gainean ematen zaion informazioa gaztelaniaz soilik idatzita dagoela ikusi dugu. Gutxienez euskarazko testu bat eskueran izatea ongitu beharreko beste gabezia bat da.

Azpimarratu behar dugu Deustuko ertzain-etxean atxiloketetan kalitatearen kontroleko zerbitzua abian jarri dela. Batetik, zentroko arduradun batek burututako atxiloketa guztiak aztertu eta hainbat ildo gainbegiratzen ditu. Segurtasun arduradunak egunero begiratzen die bideo sistemak egindako zenbait grabaketari, eta irregulartasunik ikusiz gero, horien berri ematen du. Gainera, barruko eta kanpoko ikuskaritzak ere egiten dira (Aenor).

Erakunde honek oso ondo irizten dio kontrol sistema horiek jartzeari, EAEn polizia zerbitzua hobetzen lagunduko dute-eta.

## 2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua**

  *"Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da."*

Gero eta handiagoa da, herritarrengan, intimitaterako eskubidea bermatzea eta administrazio desberdinek erabiltzen dituzten datu pertsonalak babestea eskatzeko kontzientzia. Isilekotasunaren errespetuaren gaineko badaezpadako neurriak datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak, bitarteko informatikoen bidez tratatu zein ez, eta bereziki babestutakotzat jo zein ez, oso ugariak direlako hartzen dira.

Herritarrek datu pertsonalak babesteko duten eskubideak fitxategiak eskuratzea, onartzea edo deuseztatzea eskatzen denean nola jardun behar den garatzea eskatzen du.

Administrazio publikoek beren informazio sistemak isilekotasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri ez eze, datuen tratamenduko zerbitzuetan hirugarrenek ere esku har lezaketela ere kontuan hartu behar dute.

Herritarrak irismen ekonomikoa duten datuen, edo barne-barneko eremuari ukitzen diotenen datuen, esaterako datu medikoen, batez ere nolabaiteko gizarte estigmaren zama jasan behar duten HIES eta halakoen isilekotasunaren gainean gehiago jabetzen dira.

Erabiltzaileen eskubideak bermatzeko ildo horretatik onetsi da 6/2003 jarraibidea, Osakidetzako langileek datu pertsonalen babesaren gainean zer egINkizun eta betebehar daukaten dioena eta jarduera prozedura bat ezartzen duena. Jarraibide horrekin, datu pertsonalekin aritzen den autonomiadun erakunde horrek datuak babesteko araudiak zer dioen jakin eta aplikatzea lortu nahi da.

Herritarrengan kezka piztu duen beste gai bat polizia egoitzetan dauden datu pertsonalak ezabatzearena da.

Polizia zerbitzuetan gorputz miaketaren diligentziaren gainean 2001eko txostenean egindako gomendio orokorrean, Arartekoak nortasunaren esparrurik barne-barnekoenean argi eta garbi muturra sartzea dela irizten dion egintza nahikoa ohikoa zelako kezka azaldu zuen.

Badirudi garbi dagoela atxilotuen eskubideei, bai intimitaterako eskubideari bai osotasun moralaren eskubideari egiten zaien kaltea, halako neurri bat justifikatzen duten banan-banako ingurumariak gertatzen direnean, lortu nahi den helburu zilegira egokitzen denean edo neurri horren eta ukitutako pertsona esfera juridikoan eragiten den kaltea proportzionalak direnean soilik justifikatuko bailitzateke.

Zoritxarrez, egintza hau, lehenago ere esan dugunez, ohikoa da oraindik ere udaltzainek eta Ertzaintzak egiten dituzten atxiloketetan, bereziki estupefazienteen trafikoaren salaketapean atxilotzen dituzten atzerritarrak direnean.

## 2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

- **Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua**

  *"Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera."*

Erakunde publikoek berdintasuna, merezimendua eta gaitasunaren printzipioak errespeta ditzan lan egiteko joera dauka erakunde honek, baita publizitatearen esparruan ere, enplegu publikoan nagusi izan behar baitute Konstituzioak horrela aginduta. 2003. urtean langileak aukeratzeko prozesu batek baino gehiagok izan du erakunde honek esku hartzeko beharra.

EAEko Administrazio Orokorraren esparruan, esan behar dugu 2000ko EPEko eremuan bidean zeuden hautespen prozedurarik gehienak judizialki eten izanak, besteak beste, bitarteko izaerako langileek beren zerbitzu egintza normaltzerik ez izatea ekarri duela.

EAEko Administrazioak EPE geldiarazteak ukitzen dien aldi baterako langileen lan egonkortasuna zaintzeko konpromisoa adierazi du, etorkizunean zehaztu eta froga litezkeen balizko kalteen ordainik eman litekeela ukatu gabe.

2003ko ekitaldi honetan Bizkaiko Foru Aldundiak kexa kopuru esanguratsua jaso du, jende ugari aurkeztu zeneko hautapen frogak egin zituelako.

Arartekoak berretsi du hautagaien izenik ez agertzea bermatu behar dela, dituzten merituak eta gaitasuna epaitzeko orduan, epaimahaiko kideen lanaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna ziurtatzeko. Era berean, epaimahaiak zuzen osatu eta zuzen joka dezaten ahaleginik handienak egin behar direla azpimarratu du eta, azkenik, hautapen frogak egiteko ingurunerik eroso eta egokiena eskaini behar dela ere esan du, HAEEk jada aurreratu dituen proposamenen haritik. Foru Administrazioak iradokizunak onartzeko konpromisoa hartu du, etorkizuneko hautapen prozesuetarako.

Zoritxarrez, 2003an, bertoko egoile diren atzerritarrei lan izaerako enplegu publikoei eusteko arazoei buruzko hainbat kexa errepikatu dira. Salaketa berri hauek Herri Arduralaritzako Euskal Erakundearekin (HAEE) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Erakunde Politika eta Tokiko Administrazio Zuzendaritzarekin hasitako lankidetzari berriro eustera eraman gaituzte, bertoko egoile diren atzerritarrek EAEko lan izaerako enplegu publikoetara sartzeko duten eskubidearen gauzapena eraginkorragoa izateko ahalbideak sendotzera begira. Esan behar dugu kexa horiek zuzenean jotzen dituzten administrazioek (Bergara, Donostia eta Usurbilgo udalak, besteak beste) planteatutako salaketak berraztertu, birbideratu eta gainditzen saiatzeko prest daudela adierazi dutela.

2002ko EPEren esparruan iragarritako hautapen prozesuak egin izana izan da osasun arloko funtzio publikoaren alor edo eremuan jasotako kexen iturri nagusia.

Kexarik gehienak halako prozesuetan parte hartzen dutenek ohi dituzten nahien oihartzuna dira, hala nola, epaimahaiak jarraitutako balorazio irizpideak jakin nahi izatea eta, dagokionean, emandako kalifikazioak berrikus daitezen eskatzea. Puntu honetan ezinbestekoa da Osakidetza-SVS Zuzendaritza Orokorrak emandako laguntza nabarmentzea, horri esker jarritako kexei modu egokian jaramon egin eta erantzun ahal izan baitzaie.

Ezgaituen Europako Urte honetan, Arartekoak bere egin du hasieran osasun arloko EPE hori dela-eta jarri baina une hauetan EAEko herri administrazioen multzoari zuzendutako ofiziozko jarduera modura planteatzen ari den kexa bat. Ezgaitu psikiko batek (adimen atzerapen arinekoa) azterketa teorikoaren ordez bere beharretara egokitutako froga praktikoa egin ziezaioten eskatzen zuen. Erakunde honek esku hartu badu ezgaitasun desberdinen, ezgaitasun psikikoak barne, ondoriozko mugetara egokitzea lortzera begira, funtzio publikorako sartzeko hautapen frogak perfekzionatzeko formula berriak bilatzeari buruz guztiz ziur dagoelako izan da. Horretaz, guztiok dakigu zernolako oztopoa duten ezgaitu psikikoek oroimenezko froga jakin batzuk gainditzen saiatzeak eta, beraz, ez gaitu harritu behar hautapen frogak praktikaren aldetik eratuz moldatzea planteatzearen egokitasunak, betiere horrekin hautagaiak eutsi nahi dieten lanpostuetarako duten gaitasuna neurtzen bada, behar bezala gaituta daudela ziurtatuz.

Ezgaituen hautapen prozesuetako partaidetzaren gaiarekin lotuta, erakunde honek erreserbako kuotaren oraingo portzentajea igotzea planteatu du, behar diren lege aldarazpenak bideratuz. Gainera, erreserbako kuota funtzio publikora sartzeko mota guztietako prozedura eta deialdietara hedatu behar da, behin betiko sartzekoetan ez eze, baita bitarteko eta aldi baterako hautapenetan eta barruko sustapeneko prozesuetan ere.

## 2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZIPIOA

• **Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua**

*“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”*

*“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nork bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere. Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitzeko arauak jarriko ditu legeak.”*

2002. urtean zehar, azken urteetan gertatu den bezala, prozedura judizialen atzerapenekin lotutako kexa gutxi jaso dira. Edozelan ere, justizia-administrazioaren funtzionamendu arruntaren denbora eta epeak luzeegiak direla ikusten da berriz ere hiritarren ikuspuntutik.. Berandutze hauek jurisdikziozko esparru ia guztiak hartzen dituzte.

Trafiko araudiaren urraketaren ondoriozko zehapen prozedura baten esparruan postaz bidalitako jakinarazpenek huts egin dutenean, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan aurreikusitako betekizun formalak bete behar dira, defentsarik ezeko egoerak saihesteko.

Zergen esparruan, zergak ediktuen bidez jakinarazteak dakartzan arazoak azpimarratu behar dira, ordainagiriaren bidez aldizka kobratzeko zergei dagokienez. Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga dira mota honetakoak.

Horrek esan nahi du, zergetako jakinarazpenetan indarrean dagoen jakinarazpen adierazi, pertsonal eta banakoaren arau orokorraren aurrean, zerga hauetan lehenengo likidazioa soilik jakinarazi behar zaiola pertsonalki zergadunari, zeren hurrengo urteetan ordainagiriak ediktuen bidez eta kolektiboki jakinarazten baitira.

Zenbait toki-administraziok azken urteetan egindako ahalegina nabarmendu behar dira, Bilboko Udalarena edo Gasteizko Udalarena, besteak beste, urtean zehar ordaindu behar diren zergei dagokienez borondatezko aldian egiteko ordainketen datak hiritarrei modu indibidualean jakinarazten dituztenak, eta banku-helbideratzeak sustatzen dituztenak. Hau guztia ordainagiria premiamendu bidetik ez sartzeko eta ondorioz kitapenaren kontrako aurkezpena aurkeztu ahal izateko.

## 2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua**

  *"Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere."*

Ararteko erakundeak duela urte batzuetatik hona salatu ditu Euskadin kokatutako hiru presondegietako egiturazko hutsuneak, eta Konstituzioaren aginduak esaten duena betetzeko oztopoak dira hutsune horiek, hau da askatasuna kentzen duten penek lortu behar duten heziketa eta birgizarteratzearen kontrako oztopoak.

Pozik gaude EAEko hiru espetxeetan espetxe barruan xiringen trukerako egitarauak ondo funtzionatu duelako, ezarri zenean izandako erreparo eta mesfidantza gogorren ostean.

Zaintza bereziko ospitaleetako unitateen funtzionamenduari dagokionez, garrantzitsua da bisitak, osasun arloko langileekiko harremanaren isilekotasuna, polizia zaintzaileen funtzionatzeko ildoak eta halakoak araupetzeko irizpide bateratuak jartzea.

Terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen egoerari buruz kolektibo zein erakundeek jarritako kexak, gaixotasun larriak dituzten pertsonak askatzearekin, zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoen egoerarekin, bisitekin, gutunekin... zerikusia dutenak, eskumen arrazoiak tarteko Estatuko Arartekoari bidaltzen dizkiogu.

2003an, ildo horretan, EHUn matrikulatutako presoek (400 inguru) ikasteko eta azterketak egiteko liburuak eta material didaktikoak jasotzeko dituzten zailtasunei buruzko kexak jaso ditugu.

## 2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua**

"1. *Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.*
2. *Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea,bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.*
3. *Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.*
4. *Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.*
5. *Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*
6. *Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*
7. *Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzatutako ikastegien kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
8. *Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
9. *Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
10. *Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera."*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio-eskubide bat da eta horregatik litzateke egokiagoa gizarte eskubideekin batera lantzea. Hala ere, Konstituzioaren idatzian agertzen denez eta aukeratutako metodoa dela-eta, atal honetan aztertua izango da.

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza mailan, haurren hezkuntzaren lehenengo zikloak konpondu gabeko erronka bat izaten jarraitzen du.

Erakunde honek beti defendatu izan du gizarte eta ekonomia aldetik maila txikieneko eremuak, eta hezkuntza eta hizkuntza behar bereziak dituzten ikasleak lehentasunez artatzeko aukera eskainiko duen hezkuntza eskaintzaren plangintza egin behar dela.

Bestalde, 0 eta 3 urte bitarteko zikloan, onarpenerako berariazko arau edo irizpide batzuk ezarri behar direla ere berretsi dugu.

Haur-eskolak araupetzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua argitaratu zenetik denboratxoa joan den arren, haurtzaroko lehenengo urteetako umeez arduratzeko zerbitzu honen eskaintza publikoaren inguruan, Haur-eskolak izeneko partzuergoa sortuz udalen lankidetza lortzea izan da bide horretan aipa dezakegun aurrera pausu garrantzitsu bakarra.

Ez dugu Hezkuntza administrazioak bere hezkuntza eskaintzari uko egin eta horren ordez udal ekimenaren laguntza lortzen saiatzeko hartu duen erabakia baloratuko. Nolanahi ere, agerian jarri behar dugu, berriro ere, eskaintza publikoa, orain jada finkatutako eskaintza modura eskaintzen dena, ez dela Euskal Eskola Publikoaren Legean eta haur eskolak araupetzen dituen Dekretuan definitutako irizpideen araberako plangintza lanaren emaitza. Horren haritik, EAEko Hezkuntza Administrazioa lehendik

zegoen eskaintza Haur-eskolak partzuergoarekin bat egitea erabaki duen udal ekimenaren gehigarri bakarrarekin finkatzera mugatu izanak kezkatzen gaitu. Horrek, hezkuntzako agintariek udalen erabakimenaren mende geratzetik urrun, benetan dauden beharrizanei adituz hausnartutako plangintzari erantzungo dion haur eskolen mapa iristeko gai izan dadin aitzindaritza izan behar dutelako gure gomendioa berriro ere egitera garamatza.

Hezkuntza beharrizan bereziei buruz, baldintza arruntetan eskolatuta egonik, osasun zaintzako beharrizan jakin batzuk dituzten ikasleei arreta egokia emateko jarduera-estrategia edo -protokoloak adostu eta finkatzea komeni dela nabarmendu da. Beharrizan horren adibide modura, diabetesak jota dauden eta bere buruaren zaintzaren ardura bere gain hartzeko gai ez diren ikasleen egoerari buruz jasotako kexak aipatuko ditugu. Erakunde honetatik hezkuntza eta osasun arloetako arduradunen lankidetza bereziaren eskaria luzatzen dugu, halako ikasleek eskolan egon eta jarraitu ahal izan dezaten eta, aldi berean, osasun zaintzako dituzten beharrizanak ondo ase dakizkien ziurtatuz.

# 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

## 3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK

- **Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua**

*“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.*

*2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.*

*3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”*

Familien PFEZren zerga ordainketak kexa ugari eragiten ditu. Gehien planteatu diren gaiak legezko bereizketa kasuetako zergen ordainketaren berezitasunen, ondorengoengatik dauden kenkarien eta izatezko batasunen zergen ordainketen gainekoak izan dira. Gai horri lotuta, aurten gure autonomia erkidegoaren esparruan izatezko bikoteak araupetzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen garrantzia azpimarratu behar dugu, lege horretatik foru zergen araudian hainbat aldarazpen eratorri baitira, ezkontideak eta lege horren arabera eratutako izatezko bikoteetako kideak zergen aldetik parekatzeko.

Hala ere, esan behar dugu parekatze horrek zergadunari onurak eta zamak ekartzen dizkiola. Onuren artean, PFEZn baterako ordainketaren arauak aplikatzea eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren mende dauden eskurapenetarako salbuespena dira nabarienak. Elementu negatiboei dagokienez, izatezko bikoteko kide batek jasotako konpentsazio pentsioak lan etekin modura hartzen direla, edo izatezko bikotearen

araubide ekonomikoa zein den arabera zerga zorrengatik duten erantzukizuna aipatuko genituzke, adibide modura.

Bestalde, foru ogasun desberdinek Rentaraba, Rentanet eta Errenta Mekanizatua izeneko zerbitzuan abian jarri dituzte.

Zerga aitorpen "kualifikatuaren" aurrean gaudela uste dugu, autolikidazioaren eta behin-behineko likidazioaren bitarteko kategoria gisa eratu beharko litzatekeena.

Horregatik, foru administrazioek gai hau arautegiz garatu beharko lukete, bere benetako izaerari adituz, inplikatutako alde bakoitzaren jarrera juridikoa zehaztasunez eta berdintasun irizpidez mugatuz, eta lege antolamenduak zergadunaren alde onartzen dituen printzipioak eta bermeak errespetatuz.

Foru esparruko zergen kudeaketaren hazpegi erkide modura, egiaztatu dugu, aurten berriro ere, zergadunaren aldeko berandutza interesen likidazioa EAEko hiru foru ogasunek betetzeke duten gaia izaten jarraitzen duela.

Izan ere, berandutza interesak sarrera okertzat jo arren eta zenbait zergaren araudiak interesak 6 hilabeteko itzulketa epea igaro ondoren ordaintzea aurreikusten duen arren, foru ogasunek ez dute, oro har, zergadunaren alde sortutako berandutza interesik ofizioz ordaintzen, interesatuak gero eskatzen baditu onartzen baditu ere.

Interes horiek eskatzera animatzen diren zergadunak, ez jakiteagatik edo mesfidantzarengatik, gutxi direla jakiteak agerian jartzen du herritarren betebeharren eta eskubideen artean justifikaziorik gabeko desoreka dagoela.

Tokiko zergen esparruan, aurten Ondasun Higiezinen gaineko Zergan (OEZ) higiezinei esleitutako katastro balorazioaren aurka eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (TMIZ) ezgaituentzako salbuespenean izandako arau aldarazpenaren aurka jarritako erreklamazioak nabarmenduko ditugu.

Bizkaiko Lurralde Historikoan oraindik ez zaio lan horri ekin eta, beraz, Bizkaiko herritarrek oraindik beren etxeen balorazioetan gertatzen diren neurri berarekin ez neurtzearen ondorioak zalantzan jartzen eta agerrarazten segitzen dute.

Tokiko Ogasunen 39/1988 Legea berriztatzen duten abenduaren 27ko 51/2002 Legeak TMIZn ezgaituen garraiorako ibilgailuentzat aurreikusitako salbuespena hedatu zuen. Hartara, ahalmen urriko pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak zerga hori ordaintzetik salbuesten dira, haien erabilpen esklusibora xedatzen diren heinean. Aldarazpen garrantzitsu hori 2003ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean lurralde erkidean.

Kontzertu Ekonomikoak lurralde historikoei arautzeko ematen dien autonomiaren argitan, foru arauetan jasotzen den TMIZren arauketak lurralde erkidean onetsitako parametroei zertan jarraitu ez duen arren, Arartekoak hiru foru ogasunei informazio eskaria bidaltzea komeni zela iritzi zion, erakunde horiek onura hori gure autonomia erkidegoan bizi diren ezgaituengana hedatzeko zer nolako aurreikuspena zuten edo zer ekimen abiaraztekoak ziren jakiteko.

Foru arauen berriztapenari 2003ko lehenengo lauhilekoan ekin zitzaion, lurralde erkidean onetsitako antzeko edukiarekin. Salbuespena indarrean jartzea, ordea, 2004ko urtarrilaren 1era arte atzeratu zen.

Legezkotasun zorrotzeko ikuspegitik hiru foru aldundiei ezer aurpegiratzerik ez dagoen arren, badirudi amaierako erabakia ez zetorrela erakundeok 2003an egiteko hartu genuen konpromisoarekin oso bat, 2003 urtea, ez dezagun ahantz, ezgaituei eskainitako urtea baitzen.

Ondorioz, Arartekoak hiru foru aldundiei erabaki harekin ados ez zegoela jakinarazi zien, eta deitoratu zuen Euskal Autonomia Erkideko ezgaituek 2003an ere salbuespen hartaz goza zezaten neurririk hartu ez izana, ekonomia jardueren zergarako jasotako salbuespen berriei zegokienez, ordea, bideak eta bitartekoak jarri ziren bitartean.

## 3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua**

*"1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.*
*2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.*
*3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera."*

Ondare-erantzukizunaren figurak herritarrek zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren ondorioz beren ondarean jasandako kalteengatik ordaina jasotzeko duten eskubidea adierazten du.

Herri administrazioek ez dute onartu nahi eragindako kalteen ordainaren izaera objektiboak ez dakarrela herri zerbitzuen jardueran edo ez-jardueran errurik edo axolagabekeriarik izan behar izatea, zeren nahikoa baita herri zerbitzuen funtzionamendu normal zein anormalaren eta eragindako kaltearen artean kausazko lotura dagoela frogatzea.

Herri administrazioek, oro har, erreparo handiak izaten dituzte eragindako kalteengatik duten erantzukizuna onartzeko eta, sarritan, erantzuteko duten betebeharraren izaera objektiboa gogorarazi behar izaten zaie.

Bestalde, esan behar dugu jabetza pribatuaren eskubidearen edukia eskubide horri konstituzioan esleitzen zaion funtzio sozialak mugatzen duela, eta funtzio horren adierazpenetako bat udalerrien hirigintzako antolamendua dela. Lursail baten jabeek udaleko hirigintza planeamenduaren arabera lurra erabili edo lurrean eraikitzeko pairatzen duten mugaketa hirien eta herrien zentzuzko garapena dakarren interes sozial eta orokorrarengatik justifikatzen da. Arartekoarengana jotzen duten herritar askok zalantzan jartzen dute herri botereek berenak diren lurretan hirigintzako aprobetxamendu edo erabilpenerako jartzen dieten muga.

Jabeei aitortutako hirigintzako ahalmenak legeek ezartzen dituzten mugen barruan ulertu behar dira beti eta, nolanahi ere, unean-unean baimentzen diren erabilpen eta eraikuntzak antolatzen dituen udaleko hirigintza planeamenduaren barruan.

Jabetzaren funtzio sozialaren adierazpen berezi bat urbanizazio pribatuetan herri erabilpeneko mendetasunak egotea da.

Jabeak beren jabetza baldintza egokietan mantentzera behartuta badaude ere, udalerriek segurtasuna, argiketa, kaleen zoladura edo garbiketa bezalako herri zerbitzuak bete beharko lituzkete.

# 4. GIZARTE ESKUBIDEAK (POLITIKA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK)

## 4.1. FAMILIAREN BABESA. ADIN TXIKIKOEN ESKUBIDEEN BABESA

- **Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikuluak**

*"1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute."*

*"4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babesa izango dute."*

Babesik gabeko adin txikikoen kolektiboaren barruan, ezaugarri eta behar bereziak dituzte bakarrik dauden atzerriko adin txikikoek.

Adingabe hauen egoera oso kezkagarria da eta, Autonomia Erkidego osoan berdin banaturik ez badaude ere, euren presentzia oso nabarmena da Bizkaiko Lurralde Historikoan eta handitu da Araban eta Gipuzkoan.

Kezkagarria da Aldundi batzuek adingabeen dokumentazioa izapidetzeko erabiltzen duten irizpidea, hau da, ez dela tramitaziorik hasten harik eta adingabea eurentzako beren beregi ezarritako zerbitzuren batetan hartu eta bederatzi hilabete igaro arte.

Kezkagarria dira, baita ere, adingabe horiei hezkuntza egokia eskaintzeko dauden arazoak, alegia euren beharretara egokitua eta hezkuntza sistemaren inplikazio handiagoarekin.

Nabarmendu behar dira, positiboki nabarmendu ere, Bizkaian tutoretzako etxebizitza eta alokairuen bidez egin diren aurrerapenak, adingabe hauen emantzipazioa errazten baitute adin nagusitasunera iristen direnean.

Estatuaren Fiskal Nagusiaren 2003ko urriaren 23ko 3/2003 Jarraibideak dio Espainian legez kanpo sartu nahi diren atzerriko adingabeak itzuli behar direla. Horren onespenaren aurrean gogoratu behar da kolektibo hau oso zaurgarria dela eta babesa behar duela. Ez dago adingabearen gaineko interesaren goitik beste arrazoirik jartzea. Beraz, hartu nahi den edozein neurriak aztertu beharko ditu adingabe atzerritar bakoitzaren zirkunstantziak bere egoeraren banan-banako tratamenduaren bidez.

Kolektibo honen egoerak azken urteotan erakunde honen arreta berezia jaso duenez, egoki iritzi zaio 2004. urterako txosten berezia egitea.

Benetan kezkagarria da babesean hartutako adingabe atzerritarretatik asko eta askok erreforma zentroetan amaitzen dutela.

Barnerapena ezartzen zaien adingabe lege-urratzailerik gehienak babes zentroetatik datozenez, horrek pentsarazten digu babes sistemetan zerbait huts egiten ari dela..

Adingabe lege-urratzaileekin dagoen arazo nagusietako bat barnerapen epea agortu eta adingabeak bere ingurune naturalean integratu edo beste zerbitzu batzuetan artatu behar dutenean sortzen da.

Administrazioa egoera konplexu horiei aurre egiteko erantzun egokiak diseinatzen ari da.

Ezinbestekoa da, beraz, babes sistemen eta gazteen justizia sistemaren arteko loturak sakonki aztertzea. Bereziki, benetan kezkagarria da babesean hartutako adingabe atzerritarretatik asko eta askok erreforma zentroetan amaitzen dutela.

Terrorismo delituetan inplikatuta dauden adingabeei, hau da, Entzutegi Nazionalak esku hartzen dueneko kasuei dagokienez, zigor neurriak beren familia inguruneetatik gertuago bete ahal izan ditzaten formulak garatu behar dira.

1997tik hona, erakunde honek behin eta berriro adierazi du adin txikikoentzako lege baten beharra dagoela EAEn, esparru honetan erreferentziak eta jarraibideak ezartzeko eta, zehazkiago, oinarrizko arazoak arautzeko, hala nola, baimenak; erregistroa; harrera zentroen homologazio edo ikuskapena; aldeen eskubideak eta betebeharrak; elkarbizitza arautzen dituen prozedurak edo zehapenen araubidea...

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailak haurren arreta eta babeseko lege aurreproiektu berria prestatu du, parlamentuko taldeak ados jarriez gero, hainbatetan salatu dugun arau hutsune iraunkor horri amaiera emango diona.

## 4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua**

*“1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.*

*2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez*

*3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”*

Osakidetzaren 2003-2007 Plan Estrategikoaren lehen helburuetako bat itxaroteko zerrendak murriztea da.

Osasunaren Administrazioak ahaleginak egin behar ditu baliabide materialak eta giza baliabideak modurik eraginkorrenean aplikatzen herritarren osasun beharrak artatzeko.

Buruko gaixotasunaren alorrean ezinbestekoa da adimen gaixoen arazoei arreta integrala emateko behar diren errehabilitazio eta birgizarteratze zerbitzuak garatzea eta gizarte zerbitzuen koordinazioa bilatzea.

Adimen gaixotasunaz gizartean dagoen sentsibilizazioak bat joan behar du osasun zentroetan artatutako adimen gaixoen konfidentzialtasun eta intimitaterako eskubidearen errespetuarekin.

Adimen gaixoen eskubideen defentsan irizten da Prozedura Kriminaleko Legearen erreformaren bidez errehabilitazio izaerako nahitaezko tratamendu anbulatorio psikiatrikoa ezartzeko aukera onartu behar dela, ondorengo barnerapenak saihesteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko gaixo terminalen egoerari buruz, Osakidetzaren 2003-2007ko Plan Estrategikoak gaixo hauen artapena aurreikusten du, eta arreta praktikak eta zerbitzu motak definitzen ditu, bai eta euren finantzazioa ere.

## 4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua**

*“1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea,baita hura zaintzeko betebeharra ere.*

*2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.*

*3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.”*

Sailkatuak deritzen jarduerek sortutako ingurumeneko afekzioen gaineko kexek, kasu askotan, kutsadura akustiko eta atmosferikoko kasu suposamendu larriak jartzen dituzte agerian.

Ostalaritzako establezimenduek, hala nola, taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomikoek zarata, kirats eta ke traba handiak eragiten dituzte. Hala ere, ostalaritzako jarduerak ez dira ingurumeneko erasoak egiten dituzten bakarrak, badira-eta beste zenbait jarduera, besteak beste, diskotekak, ibilgailuen konponketarako tailerrak, akademiak, industria jarduerak edo soinketa tokiak, ingurumenari erasotzen diotenak.

Herritarrek uste dute udal agintaritzek, oro har, ez diotela arazo honi aurre egin nahi, eta ez dituztela arazo horiek konpontzeko behar diren zehapen zein hertsapen neurriak hartzen.

Jakina denez, sailkatutako jardueren lizentziak funtzionamenduko lizentziak deritzenen barruan sartzen direla, eta horrek baimena ematen duen administrazioak etengabe kontrolatzea exijitzen du. Funtsezkoa da administrazioak beren eskumenekoak diren ikuskaritza eta kontroleko eginkizunak betetzeko behar dituzten bitartekoez hornitzea eta gauzatzeko borondatea izatea.

Aurten ere jarduera industrialek sortzen duten kutsadurari buruzko kexak jaso dira. Kasu askotan duela zenbait hamarkada funtzionatzen duten industriaz ari dira, kokatzen den udalaren ekonomiarako funtsezkoak izanik.

Udalek, oro har, ahalegin handiak egiten dituzte jarduera horiek legean sartzeko, behin funtzionamendua legeak ezartzen dituen kutsatzeko mugei egokituz gero, zuzentzeko behar diren neurrien bidez.

Ibilgailuen zirkulazioak sortzen duen kutsadura akustikoa, gero eta nabariago, ingurumenari egiten zaion erasorik ohikoena da.

Kasu batzuetan, hiriko hondakin solidoak biltzen dituen kamioia da gaueko orduetan zarata handiak sortzen dituena.

Ezinbestekoa da udalek isurtegi klandestinoen funtzionamendua galaraztea, ingurumeneko kalte larriak eragiten baitituzte udalerrietan.

Beste alde batetik, garrantzitsua da giza kontsumorako uraren kalitatea gordetzea. Ullibarri-Ganboa, Urrunaga eta Santa Engrazia urtegiek ia milioi bateko pertsonen populazioa hornitzen dute. Horregatik, funtsezkoa da ur hauen kalitatea bermatzea eta eremu honetan diren nekazal, hiri, industria eta aisialdiko erabilera eta jarduerek dakartzaten arrisku potentzialek eragindako narriadura arintzea.

## 4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

- **Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua**

  *“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, lurraren erabilpena interes orokorrarekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.*
  *Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”*

Etxebizitzaren garestitasunak eta merkatu libreak ezartzen dituen zailtasunek egiten dute herritar gehientzat etxebizitza erostea lortezina izatea azken urteetan izandako igoera orokorren ondoren.

Hartara, pertsona askok administrazioek eta promotore pribatuek prezio babestuan eskaintzen dituzten sustapenen bitartez besterik ezin dute etxebizitza bat lortu.

Onartu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoan, eraikitzen diren hiru etxebizitzetatik bat gutxienez babestua dela. Baina, zoritxarrez, herri administrazioen konpromiso garrantzitsu honek ez du hartzen etxebizitza libreak eskuratzerik ez duten eskatzaileen %10a besterik. Horregatik, adjudikazio prozesuak erabakitzeko zenbait irizpide objektibo ezarri behar dira, zeren, esan dugun bezala, babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenak eskaintzen diren etxebizitza kopurua baino askoz ere gehiago baitira.

Jasotzen diren kexa gehienek etxebizitzen esleipenaren prozesuan sartzeko irizpideren bat zalantzan jartzen dute. Ez dugu ahaztu behar, gainera, kolektibo zehatz batzuek zailtasun erantsia daukatela etxebizitza duin bat eskuratzeko: gazteak, guraso bakarreko familiak, ahalmen urriko pertsonak, gizarte laguntzak jasotzen dituztenak –AES edo oinarrizko errenta–, edo etorkinak.

Gutxiago bada ere, sustapen ofizialeko etxebizitzen eraikuntzaren ondoriozko arazoak eta akatsak planteatzen dira oraindik ere. Horregatik, herri administrazioek kontrolatu eta ikustatzeko funtzioa bete behar dute etxebizitzak eraikitzeko eta diseinatzeko arauak betetzen direla ziurtatzeko eta, behar izanez gero, administrazioaren egintzak halabeharrez egikaritzen direla bermatzeko ordenamenduak aurreikusten dituen baliabide juridikoak ere erabili: zehapen koertzitiboak edo betearazte subsidiarioa.

Bestalde, berriro ere esan behar dugu mahatsa eta patata biltzera etortzen diren sasoikako langileen bizi baldintzak arautu behar direla, instalazio horiek bete behar dituzten gutxieneko baldintza eta betekizunak ezarriz.

2003ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrari bidali zaio “Sasoiko Langileen Arreta Integraleko Plana”, eta alojamenduei dagokien eremuan, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailak bizitzeko lekuaren baldintzak arautzea aurreikusten da, bete beharreko gutxieneko betekizunak bilduko duen aginduaren bidez.

Aurreko urteetan bezala, lurraren euskal arau baten beharra aldarrikatu behar dugu, egun dauden xedapen legalak moldatu eta sistematizatzeko eta, besterik ezean, lurraren, eta bide batez, etxebizitzaren, prezioaren areagotzea murrizteko.

Dena dela, ezinbestekoa da herri agintearen esku hartzea, alde batetik, lurraren merkatuan eta, beste aldetik, alokairuzko etxebizitza eta etxebizitza babestua sustatzen.

## 4.5. URRITU FISIKOEN, SENTIMENEZKOEN ETA PSIKIKOEN ESKUBIDEAK (EZGAITASUN FISIKOA, SENTIMENEZKOA EDO PSIKIKOA DUTENEN ESKUBIDEAK).

- **Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua**

  *"Aginte publikoek minusbaliatu fisiko, sentimenezko eta psikikoentzako prebentzio, tratamendu, birgaitze eta gizarteratze politika egingo dute. Behar duten zainketa espezializatua eskainiko die, eta laguntza berezia emango die, izenburu honetan hiritar guztientzat ezarri diren eskubideak erabili ahal izan ditzaten."*

2003. urtean, Europako Batasuneko Kontseiluak Ezgaituen Europako Urte izendatutako urtean, alegia, gure herri eta hirietan ezgaituei hiri ingurunerako, eraikinetarako, espazio publikoetarako, garraiabideetarako eta komunikazio sistemetarako irismena bermatzen ez zaiela egiaztatu ahal izan dugu.

Herri botereek irismenaren kontzeptuari garrantzia eman behar diote, diseinu unibertsalaren ideian oinarrituta, hau da, funtsean gizartearen multzoak gizarteko kideen aniztasun eta desberdintasunera egokitu behar duela esan nahi duen ideian, pertsona guztiek bizitzaren arlo guztietan erabateko partaidetza izan dezaten bermatuko duten aldarazpenak eginez, horixe baita pertsona guztien izatezko berdintasunera eramango gaituen bide bakarra.

2003an Euskal Autonomia Erkidegoko erabilpen publikoko eraikinetan dagoen irismenaren gaineko txostena aurkeztu dugu. Bertan, besteak beste, Irismena Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta lege hori garatzeko dekretuak zenbateraino bete diren aztertzen da. Lege horrek irismena sustatzeko hainbat bitarteko aurreikusten ditu: kuoten erreserbak, lau urteko egitarauak, sustapen politikak.

Benetan kezkagarria da herri administrazioek, eta bereziki euskal autonomia erkidegoko udalek, ez dituztela legeak eskueran jartzen dizkien bitartekoak nahikoa erabiltzen eta, kasu askotan, araudietako aginduak ere lasai asko urratzen dituztela ere ikustea. Zazpi udalerrik soilik zituzten irismenerako lau urteko egitaraua onetsita txosten hau egiteko unean. Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta hiru foru aldundiek ere ez daukate halako planik.

Ez dira, halaber, sustapen politikak eta kontrolerako jarduerak behar beste baliatzen. Zehatzeko esku hartzerik ere ez da egiten. Zerbitzu publikoak dauden eraikin asko eta asko ez dira irisgarriak, eta hori bereziki kezkagarria da hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuei dagokienean.

Eraikin publiko horietan irismena bermatzeko ahalegin berezia egin behar da. Herri botereek irismen araudia betetzeko behar diren neurri guztiak hartu behar dituzte.

Ezgaituek beraientzako gordetako aparkalekuez baliatzeko zailtasunak aurkitzen segitzen dute, kasu askotan erreserbarako eskubiderik izan gabe toki horiek erabiltzen dituzten pertsonen jarrera ez-solidarioarengatik eta udal askok halako gertakarien aurrean erakusten duten pasibotasunarengatik.

Hezkuntza administrazioak ezgaitasun motaren baten ondoriozko hezkuntza beharrizan bereziei erantzun behar die, halako umeen eskubideak bermatzeko behar diren neurriak hartuz, baita 0-3 adin tartean ere, askotan ezgaitasunak umeei txiki-

txikitan eskolatzea eragotzi baitie. Horregatik, eskoletan irismena sustatzeko politikak lehentasuna eduki behar du.

Ezgaituek zailtasun handiak aurkitzen dituzte lan merkatuan sartzeko.

Ararteko erakundeak 2003an ezgaituek laneratzeko dituzten arazoen gaineko ezohiko txostena burutu du.

Egiaztatu dugu ezgaituen ez-aktibotasun tasa biztanleriak, oro har, duena baino askoz ere handiagoa dena. Lan merkatura sartzeko duten zailtasuna, gainera, areagotzen da ezgaituak emakumeak, ezgaitu psikikoak eta ahalmen urritasun maila altua dutenak direnean. Horregatik, berariazko enplegu politikak garatu behar dira laneratzeko oztoporik handienak dituzten kolektiboen alde.

Erreserbako kuotak gehitu eta enpresek eta herri administrazioek kuota horiek benetan bete ditzaten lortu behar da. Funtsezkoa da orain arte gutxi garatu diren enplegu formulak, hala nola, babesdun enplegua araupetu eta sustatzea.

Nolanahi ere, asko geratzen da oraindik ezgaituak lan merkatuak erabat sar daitezen lortzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da enpresa eta sindikatuengana ere hel dadin gizarte sentiberatze eta kontzientzia zabaltzea.

## 4.6. ADINEKOEN ESKUBIDEAK

- **Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua**

  *“Aginte publikoek, pentsio egoki eta aldizka eguneratuen bitartez, adineko pertsonen nahikotasun ekonomikoa bermatuko dute. Eta familiaren betebeharrak alde batera utzita, euren ongizatea sustatuko dute gizarte zerbitzu sistema baten bitartez, osasun, etxebizitza, kultura eta aisialdiko arazo espezifikoak konpontzeko.”*

Adinekoak zaintzeko gizarte zerbitzuen eskaintzak –egoitzetakoak zein egoitzaz kanpokoak– gutxiegi izaten jarraitzen du eta, gainera, modu desberdinean banatuta dago, zein administrazioren mende dagoen arabera. Horregatik, laguntzazko eskaintza gehi dadin behin eta berriz eskatzen jarraitu behar dugu, gero eta handiagoak diren beharrei erantzun ahal izateko. Hala ere, herri administrazioak egoitzazko eta eguneko zentro berriak sortzen ari direla nabarmendu behar dugu, gure Autonomia Erkidegoak duen defizita arintzen lagunduko dutenak, ezbairik gabe.

EAEko udalerrien artean, adineko pertsonen etxez etxeko zerbitzuaren estaldura mailan gorabehera eta alde handiak daudela egiaztatu dugu. Udalerri guztietan larunbat, igande edo jai egunetan, edo Aste Santua bezalako oporraldietan nagusiei lagunduko dien zerbitzua bermatzeko eskatzen jarraitu behar dugu.

2003an EAEn adineko pertsonak zaintzeko sistemaren gaineko txostena prestatu dugu. 2004an aterako dugu eta azkeneko urteetan kolektibo horren laguntzaren eskaintzan izandako bilakaeraren ikuspegi oso eta xehatuagoa emango digu.

## 5. LABURBILKETA

Atal honek Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesaren egoeraren beharrezko balorazioa jasotzen du. Balorazio hori Konstituzioak onartutako eskubideak aztertuz egituratzen da, baina ondorioen atal bat izanik, ez ditu Arartekoaren jardueran gertatzen diren kontu guztiak agortu nahi.

Balorazio osatuago batek beste atalen segimendu bat egitea eskatuko du, batez ere II. atalarena, sarreran esparru material bakoitzaren benetako balorazioak agertzen baitira, eta atal honetan ez dira kasu guztiak jasotzen.

Era berean, bereziki behartsuak diren eta eskubideak urratzea errazago gerta dakiekeen zenbait kolektibori ukitzen dieten gaiak ere aztertu ahal izango dira.

Kexen laburpenek 2003an zehar sortutako kasurik garrantzitsuenak zeintzuk diren ikusten laguntzen digute.

Bestalde, I. atalak zenbait eskubide aztertzen laguntzen digu, 2001ean egindako txosten monografikoen bitartez, baita lehenago aurkeztutakoen segimendua egiten ere.

Edozein modutan, atal honetan eta txosten guztian agertzen den diagnostikoa aginte publikoentzat baliagarria izatea espero besterik dugu egingo, hiritarren eskubideak babesteko neurri zehatzak hartzeko.

# ERANSKINAK

# I. ERANSKINA

## HAUR ETA GAZTEEN BURU-OSASUNERA BIDERATUTAKO ETA PSIKO-GERIATRIAKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

### Herri Defendatzaileen Koordinaketako XVIII. Jardunaldiak

## 1. HAURRAK – GAZTEAK – 3. ETA 4. ADINAK: BEREZIKI AHULAK DIREN JENDE ALORRAK

Koordinaketako Jardunaldi hauetarako, gure gogoeten gai nagusi modura buru osasunaren urgazpena hartu dugu. Gai nagusi honen barruan, niri kolektibo jakin batzuetan zentratzea egokitu zait; zehazki, batetik haur eta gazteen eta, bestetik, adineko pertsonen buru osasunera xedatutako baliabide eta zerbitzuen arazoetan.

Ba al dauka zentzurik gaira adinen arabera hurbiltzeak? Badago bereizterik buru osasunaren urgazpenean adinari lotutako berariazko arazorik? Bidezkoa da analisi honi eskubideen defentsaren ikuspegitik heltzea?

Eman ditzagun, hasteko, **zenbait datu** eta aitor ditzagun, halaber, errealitatearen ezagupenean ditugun **mugak**.

Gure eremuari dagokionez, adingabeen, gazteen edo oso nagusiak diren pertsonen buru osasunaren urgazpenaren arazoak partzialki ezagutzen ditugu, urte hauetan halako edo bestelako bideetatik jaso ditugun datu sakabanatuengatik. Hartara, esaterako:

- Buruko gaixotasun kronikoa daukaten pertsonen urgazpena aparteko edo ezohiko bi txostenetan jorratu dugu: lehenengoa, psikiatrikoen gainean, 1992an (*Psikiatrikoak. Buruko gaixoen egoera ospitale psikiatrikoetan*); bigarrena, buruko gaixotasunaren erkidegoko urgazpenaren gainean, 2002an (*Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*). Azkeneko honetan berariazko atalak sartu ditugu, geroago baliatuko ditugunak, haurren eta nerabeen buru osasunaren gainean, elikaduraren trastornoen gainean –gazteriarengan eragin handia dauka, batez ere neskengan–, edo autismoaren arazoaren gainean...
- Bestalde, hirugarren adineko pertsonei oro har dagokienez eta beren buru egoera alboratuta, bere garaian ezohiko bi txosten egin genituen: bata zahar egoitzen gainean (*Hirugarren adinekoentzako egoitzak Euskal Autonomia Erkidegoan*), eta bestea egoitzetatik kanpoko urgazpenaren gainean (*Euskal Autonomia Erkidegoan hirugarren adineko egoitzetatik kanpo ematen zaien urgazpenaren gaineko ezohiko txostena*). Egun, adineko pertsonen egoeraren azterlan eguneratu egiten tematuta gaude, berriro.
- Beste azterlan monografiko batzuetan ere, indar handi edo txikiagoz, adingabeen edo egoitzetara bildutako kolektiboen buru osasunarekin zerikusia duten arazoak agertu dira: hartara, esaterako, adingabe lege urratzaileen gaineko azterlanetan (*Adin txikiko lege-hausleak*), edo hezkuntza bereziko beharren erantzunaren gainean (*EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*), edo espetxeetako egoeraren gaineko txostenean, edo ordaindutako enpleguetara edo okupaziozko zerbitzuetara iristeko aukeren gainean argitaratu dugun azkeneko lanean (*Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*).
- Bai gure gomendioak betetzen diren jakiteko egindako jarraipenean, bai buruko gaixoen senideen elkarteekin aldioro izaten ditugun bileretan, sarritan, adin jakin bateko jende arloari lotutako berariazko arazoak agertu ohi dira.

Azaldu dugunez, adin alor horietako berariazko arazoen gaineko azterlan xehatuak barik, informazio partzialak, zeharkakoak izaten dira. Nolanahi ere, ponentzia hau urte hauetako eskarmentuaren bidez pilatu dugun jakintzan oinarritu nahi dugu.

Gure Erkidegoan buruko gaixo kronikoei ematen zaien erkidegoko urgazpenaren gaineko gure azterlana abiapuntu hartzen badugu, esaterako, ikusten dugu, erkidego mailako urgazpeneko baliabideetara iristeko egoten diren itxaro-zerrendak alboratuta, horiek edozeini gertatzen zaizkio, **biztanle multzo jakin batzuek sarera sartu edo iristeko arazo bereziak aurkitzen dituztela**. Gure kasuan:

- Herrigune handietan bizi ez diren pertsonak.
- Biztanlerik gehienen daramaten bizimoduaz bestelakoetan bizi direnak: etxe finkorik ez daukaten pertsonak, beren senideekin harremanik ez dutenak… Zailtasun bereziak dauzkatenak, beraz, baliabideetara iristeko eta bertan irauteko.
- Gutxiengo etniko eta kulturaren aldetik gehiengoaz bestelako taldeetakoak diren pertsonak, batez ere etorkin atzerritarrak, askotan egoera irregularrean egoten direnak.
- Buruko gaixo modura har ditzaten nahi ez duten pertsonak, urgazpen zerbitzuetara jotzen ez dutenak, beren trastornoak ezkutatzea nahiago dutelako, gaixorik daudela onartzen ez dutelako edo eskaintzen diren baliabideen edota baliabide horien erabilgarritasuna ezagutzen ez dutelako.
- Oso pertsona gazteak (haurrak), eta nagusienak ere (zaharrak). Gure ikerketan garbi geratu da oso gazteek eta oso zaharrek buruko osasunaren urgazpenerako berariazko zentroetara iristeko arazo handia daukatela, batzuetan urruntasunarengatik, beste batzuetan etxeko urgazpenik ez daukatelako, edo beharrezko irizten zaion hainbat baliabide ez dagoelako.

Ez da beti erraza izaten adin multzoka xehatutako datu nahikoa izaterik. Gaixotze tasaren gaineko zenbatespenak –hau da, biztanleriaren multzoan gaixotasun bat daukaten pertsonen proportzioa eta, beraz, “litezkeen eskarietara” edo “erantzuteko beharretara” gerturatuko gintuzketenak–, orokorrak izan ohi dira edo, nolanahi ere, adin jakin batean (esaterako 15 urtetik aurrekoengan) edo hiriko ala baserri munduko biztanleria den bezalako aldagaietan oinarritutako urgazpen beharrizanen gaineko prebalentziak kalkulatzen dituzte.

Bai izaten ditugu, batzuetan, zerbitzuetara benetan etortzen diren, baliabide horiek erabiltzen dituzten pertsonen adinaren gaineko datu xehatuak. Baina ezin ditugu inoiz ahaztu benetan tratatzen diren buruko gaixotasunen tasen eta trastorno psikiatrikoek biztanleengan duten eraginaren gaineko zenbatespenen artean gorabehera edo alde handiak egoten direla. Buruko osasunari dagokionez, tratatutako gaixo bakoitzeko urgatzi beharko litzaiekeen baina urgazpen zirkuluetatik kanpo dauden beste 20 pertsona daudela baiestera heldu da. Zerbitzu ondo garatuak dituzten herrialdeetan ere, buruko osasuneko informazio zerbitzuetan erregistratutako biztanleriaren datuek izatez buruko arazoak dituzten biztanleen %15 soilik islatu ohi dute.

Gerta liteke, gainera, litezkeen beharrizanen eta izatezko eskarien edo baliabideen benetako erabilpenaren arteko jauzi hori adinen arabera desberdina izatea. Dauzkagun zenbait datuk hala dela erakusten dute, antza.

Buruko gaixotasunaren erkidego mailako urgazpenaren gaineko txostena prestatzeko erabili genituen informazio iturrien artean, besteak beste, 405 buruko gaixo kronikoren laginari elkarrizketa pertsonalak eginez jasotako datu eta iritziak ere izan genituen. Beraien erantzunak aztertzeko orduan, generoa, lurraldea edo diagnostikoa bezalako aldagaiez gain, adina ere kontuan hartu zen. Zehazki, hiru adin multzo finkatu ziren: 18tik 34 urtera bitartekoak, 35etik 59ra artekoak eta 60 urtetik gorakoak.

Hara, bada, esaterako, azkeneko urtean gizarte eta osasun baliabide edo zerbitzu desberdinak erabili zituzten pertsona horien portzentajeei aditzen badiegu, gazteenek honako zerbitzuak proportzio handiagoan erabiltzen dituztela aurkitzen dugu: buruko osasun zentroak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, eguneko zentroak, okupaziozko zentroak, enpleguko zentro bereziak, ahalmen urritasunen orientazioko zentroak eta baita egoitzak ere.

60 urtetik gorako pertsonek, laginaren arabera, besteak baino proportzio handiagoan bi baliabide besterik ez zituzten erabili: etxeak eta etxez etxeko urgazpen zerbitzuak, eta gainerakoen proportzio berean erizaintza programak.

Osasun zerbitzuak adinaren arabera nola edo zenbateraino erabiltzen diren adituz, 60 urtetik gorakoek familia medikuaren zerbitzuak espezialistenak edo erizainenak baino gehiago erabili zituzten, baina ospitaleratze, psikiatra edo psikologoenak baino gutxiago (datuak aipatutako txosteneko 9 eta 12 grafikoetan). Beren bizi baldintzei buruzko beste gai batzuetan, hala nola, lan egoeran edo diru sarreren iturri eta mailetan ere alde esanguratsuak aurkitu ziren.

Buruko osasun zentroez erkidego mailako bestelako urgazpeneko baliabideak, gure kasuan behintzat, psikosidun gizon gazte samarrez gainezka egoten dira, adin guztietako emakumeek eta gizon nagusiagoek zerbitzu horietara ia jo edo baliatzen ez dituzten bitartean.

Ez dirudi adinari lotutako behar edo eskarietan dauden aldeak desagertuko direnik, alderantziz baizik. Osasunaren Mundu mailako Erakundearen beraren iritziz, Europan zahartzearekin, bizimoduarekin (alkohola, jokabide arriskutsuak, indarkeria, estresa, sexu jokamolde arriskutsuak, eta abar) zerikusia duten zioen

ondoriozko buru trastornoak eta egoera psikosozial okerren mende egoteak, jendarte eta familia loturen ahultzeak, langabeziak, mugikortasun geografikoak, gizarte bazterkeriako gero eta multzo handiagoek (baztertuak, etxerik gabeak, etorkin atzerritarrak, eta abar) eragindako zioen ondoriozkoak ikaragarri gehituko dira.

Esan ditugu, beraz, **hemen aztertutako kolektiboen buru osasunean eragina daukaten eta izaten jarraituko duten gure gizartearen zenbait ezaugarri.** Besteak beste:

1. **Jaiotza tasaren jaitsierak eta bizitza itxaropenaren luzapenak markatutako bilakaera demografikoa**
   Gure ingurunean, azkeneko hamarkadetan, gizartean oihartzun ikaragarria daukan fenomenoa gertatu da: biztanleriaren egiturazko zahartzea, bizitza itxaropena luzatu delako eta jaiotza tasa oso txikia delako. Fenomeno honek ondorio garbiak, ezbairik gabeak dauzka gizarte zerbitzuen gehitzean edo pentsioen finantzaketan *ez eze*, baita osasun sisteman *ere*.
   Europan 60 urtetik gorako pertsonak % 50etik gora gehitu dira azkeneko hiru hamarkadetan. Eta demografiaren aurreikuspenek iragartzen dute 2020an Europar Batasunean 100 bat milioi adineko pertsona biziko direla, eta horien laurdenak, hau da, 20 edo 25 milioi, 80 urtetik gorakoak izango direla.
   Gure Autonomia Erkidego guztiak, abiada eta bizitasun handiago edo txikiagoz, joera horretara sartu dira. Izan ere, egun Espainia Europar Batasunean bizitza itxaropenaren aldetik lehenengo postuetan dago (emakumeen kasuan bizitza itxaropenik handienaz: 82,7 urte, 2000 urteko datuetan), eta azkeneko postuan jaiotza tasei dagokienez (emankortasun indizea: 1,22, 2000 urtean).

2. **Familiaren egituran gertatzen ari diren aldaketak**
   Familia handiaren tradiziozko eredutik familia nuklearraren eredurako aldaketa gertatu da, faktore askoren ondorioz, baina nagusiki urbanizazio prozesuarengatik eta, batez ere, emakumea lan merkatuan sartu delako.
   Etxe berean bizi zen hiru belaunaldiko familiak familia tipologia desberdinei utzi die tokia. Bi belaunaldiko familia nagusitzen da, non guraso eta seme-alabak etxe berean bizi diren, baina beste familia eredu batzuk gero eta ugariagoak dira.

3. **Emakumearen rolaren aldaketa lan merkatuan**
   Familiak zaharren beharrizanei, edo haurren ongizatea zaintzeari erantzuten ziola generikoki baiesten zenean, benetan adierazten zena eginkizun horiek etxeko emakumeei eta, oso modu nabarmenean, zaharraren alabaren bati edo haurren amari zegozkiela zen.
   Mediterraneo aldeko herrialdeetan, emakumea da zaharrak zaintzearen ardura *ez eze*, haurrak, ezgaitu edo buruko gaixoena *ere* bere gain hartzen duena, eta horrek tradizioz emakumeari lan merkatura sartzea ikaragarri zail jarri izan dio.
   Zaintzailearen egungo soslai hori eraldatzen ari da, eta esan dezakegu aldaketa garaian gaudela eta emakumea lan merkatura sartzea gizonezkoak haurrak eta zaharrak zaintzeko lanak egiten ere has daitezen beharrezko bihurtzen ari dela.

4. **Hainbat balore, igurikapen eta bizimoduren hedapena**
   Esan dugu gizarteen modernizazioa gehitu ahala zahartzaroaren gizarte balorazioa jaisten dela. Horren ildotik, nolabaiteko haustura dago tradiziozko gizarteekin, non zahartzaroa pertsonaren bizitzako betetasun garaia zen. Tradiziozko gizarteetan adineko pertsonei esleitzen zitzaizkien jakinduria, prestigioa eta eskarmentua bateragarria zen inperfekzio, gainbehera eta sufrimendu egoera bat ere bazela onartzearekin. Gure gizartean, sarriegi, adineko pertsona izatearekin baterako balore positiboak ahaztu eta beren alderdi negatiboak, ordea, handiesten ditugu.
   Bestalde, industria garaiaren osteko gaurko gizarteak zenbait gizarte alor, gazteak nagusiki, laneko ez-aktibotasunera bultzatzen ditu, beren igurikapenak mugatzera. Kontsumo eta ongizateko igurikapen lar estimulatuak, frustrazio bilakatzen direnak, elkarren ondoan bizitzeko arazoak, depresio arinak, eta halako gaixotasunak besterik sorraraziko *ez* dituzten bizitza erritmoekin,, oraingo bizimodu berriek zenbait patologia, esaterako, elikadura trastornoak, ludopatiak, legezko eta legez kanpoko substantzien mendetasuna heda daitezen lagunduko dutela badirudien arren.

Hauek eta beste faktore batzuek eragiten diete pertsonen bizitza baldintzei eta, ondorioz, beren osasun baldintzei ere bai. Eragina are handiagoa da adingabeengan, eta adinez oso nagusiak direnengan. Ez da adin kontua, berez, "**mendetasun kontua**" baizik, horretan bi kolektiboak nahikoa bat baitatoz.

Horregatik, guri dagokigun eskubideak babesteko ikuspegitik, haur eta gazteen eta zaharren buruko osasunari eskaintzen zaizkion beharrizan eta erantzunei arreta berezia eskaintzea komenigarria eta baliagarria dela ematen du.

## 2. BURUKO OSASUNA HAUR, NERABE ETA GAZTEENGAN

Jakin ondo dakigunez, buruko osasuneko prebentzioa batez ere hasierako haurtzaroko esku hartzeetan oinarritzen da. Pertsona nagusiaren sufrimenduaren jatorria eta aurrekaria, sarritan, bizitzako lehenengo urteetako bere sufrimenduan egoten da. Horregatik da hain garrantzitsua haurren buruko osasunarekin lotuta dauden beharrei xehetasunez heltzea. Hemen batzuk aipatuko ditugu, batzuetan gabeziaren ondorioz nabarmentzen direnez sektore horien buru osasuna modu egokian artatzeko oztopo edo muga garrantzitsua direlako.

Gaixotasun psikiatriko kronikoak bilakaera hiru urtetik gora, aldaketa nabaririk gabe luzatzen zaienak izaten dira, eta hemen, eskuartean daukagun kolektiboari dagokionez, honako diagnostikoak sartu ditugu: haur eta nerabeen psikosiak, bilakaerazko harmoniarik ezak, psikosi eta gabezia osagaiekin, nortasunaren antolamenduaren trastorno larriak, jokabidearen trastorno larriak, eta abar. Patologia hauek guztiek eskolan, familian eta gizartean integratzeko zailtasun handiak sortzen dituzte haur eta nerabeengan, eta halakoen tratamendurako banan-banako urgazpeneko berariazko programa terapeutikoak behar izaten dira. Programa horietan, esaterako, anbulatorioko urgazpen espezializatua, “eguneko ospitaleko” erregimenean, eta ospitaleratzeak prozesu larrietarako, prozesu kronikoak berriro larritzen direnerako, edo tratamenduak edo diagnostikoak egiteko... Buru osasunaren urgazpenen eta laguntza psikiatrikoan diagnostikoa, jarraipen klinikoa, psikofarmakoterapia, eta banan-banako, familiako zein taldeko terapiak sartzen dira. Sarri askotan balio ugariko bitarteko egiturak egon behar izaten dira, hala nola, eguneko ospitaleak, eguneko zentroak, arratseko unitatea.... Halako egiturak ezinbesteko elementu terapeutikoak izaten dira, buruko patologia larria daukaten haur eta nerabeen tratamendu intentsiboak antolatzeko: psikosia, disarmoniak, nortasunaren trastornoak eta halakoak dauzkatenentzat.

Buruko gaixotasunaren erkidego mailako urgazpenaren gainean egin genuen lanean biztanleriaren sektore hauen arazoak beren beregi aztertzen zireneko hainbat azpiatal sartu genituen, baita sektore horiengan eragin handia daukaten buruko gaixotasun jakin batzuen gaineko beste batzuk ere, besteak beste, elikadura trastornoen edo autismoaren gainekoak. Berriko ekarriko ditugu hona interes orokorrekoak izan daitezkeen zenbait kontu.

**Baliabide nahikoa daukaten ala ez daukaten baloratzeko,** sarritan, beharrizanen eta erantzuteko gaitasunaren artean konparatu, haztatu behar izaten da.

Munduko Osasun Erakundearen (OMS) zenbatespenen arabera, jaiotako 10.000 haur bakoitzeko 10-14 haur eta nerabe jotzen dituzte trastorno psikiatriko larriek, zenbatespenok, 15 urtetik beherako gure herrikideen ingurunera aplika ditzakegu. Bestalde, adituen kalkuluetan, buruko trastornorik duten 20 urtetik beherako hiru gaztetik batek soilik jasotzen du laguntza eragingarririk.

Gure kasuan, txostena egiteko aztertutako datuak eta informazioak kontuan izanik (osasun sistemak berak aurreikusitako konpromisoak eta egitarauak, 15 urtetik beherakoen buru osasuneko urgazpenen prebalentzia, urgatzitako pertsonen diagnostikoak eta dauden zerbitzuen ezaugarriak, urgazpen beharrak eta kopuruak....), **hobetu beharrean dauden zenbait, arazo, muga edo gauza** aipa ditzakegu, ziurrenik beste testuinguruetan ere gertatuko direnak:

- Ez dago bitarteko egiturarik, edo egotekotan ez dira nahikoak, psikosi edo bestelako buru trastorno larrietan plan terapeutiko trinkoak garatzeko (bilakaerazko harmoniarik ezak, muga-mugako egoerak, nortasun trastornoak...).
  Bitarteko egiturak, plan terapeutiko trinkoak, alorren arteko egitarauak, laburbilduz, halako patologia larrietarako ezinbestekoak diren zaintzen jarraipena, sarritan, ez da nahikoa garatuta egoten.
- Baliabide pertsonal espezializatuak urriak dira (hala nola, haurren psikiatrak edo urgazpen taldeetako beste profesional batzuk), gure inguruneko beste europar eskualde batzuetan daudenen aldean, edo OMSren gomendio eta irizpideen aldean (haur eta gazteentzako psikiatra bat eta psikologo bat 18 urtetik beherako 12.500 adingabeko, esaterako). Gogoratu 1999an, Europako 31 herrialderen gaineko azterlan batek Espainia azkeneko tokian jarri zuela haurrentzako psikiatren kopuruari dagokionez (bat 52.950 adingabeko).
- Baliabide jakin batzuk herrigune handietan pilatzen dira eta, ondorioz, ez daude oso eskueran beste eskualde batzuetan edo baserri guneetan bizi diren pertsonentzat.
- Erakunde desberdinen mendeko baliabideak koordinatzeko eta “gizarte eta osasun eremua” deritzona artikulatzeko zailtasunak...

Azkeneko arazo honi dagokionez, haur psikiatriako urgazpen anbulatorioko zentroetan, babes sistemekin "partekatzen direnetan" urgatzitako adingabeen aipamen berezia egitea komeni da. "Gizarte kasuak" deritzenak dira, **gizarte zerbitzuetan urgatzi edo tutoretzapean edukitzen diren haur eta nerabeak**, hain zuzen, sarritan desegindako eta diru arazoak dituzten familietakoak, adingabeengan eskola porrota izan eta gurasoengan ere patologia psikiatrikoa izan ohi direnetan. "Arazo ugariko" kasuak izaten dira, psikoterapiaren bidez jorratzeko zailak, arazoak asko eta larriak izaten direlako, eta behar dituzten erantzunak ere oso desberdinak izaten direlako (osasun, gizarte, hezkuntza eta abarren aldetik). Gizarte eta osasun esparruan erakundeen arteko lankidetza handiagoa eskatzen dute, ahal bada.

Gure kasuan gero eta handiagoa da foru aldundietako gizarte zerbitzuetatik euskal osasun zerbitzu publikoko haur eta gazteen psikiatria taldeetara bideratzen diren haur eta nerabeak artatzeko eskaria. Aldi berean, gero eta gehiago dira buru osasunaren alorrean artatzen diren eta gizarte zerbitzuen urgazpena ere behar duten gaixoak, arrisku edo babesik gabeko egoeran daudelako.

Sarritan, adingabe hauek, hainbat zerbitzuren erabiltzaile, urgazpen intentsiboagoa behar izaten dute, erkidego eta erakundeen arteko koordinaketako lan handiagoa sorrarazten dute eta buruko trastorno larriagoak izaten dituzte, iraupen handiagoko tratamenduak behar izanik. Horrek urgazpen talde desberdinentzako ikaskuntza erkidea eskatzen du, bai haur eta gazteen buru osasunaren alorrekoentzat bai erakunde desberdinen mende egoten diren gizarte baliabide eta talde espezializatuen alorrentzat. Ikuspegi honetatik, bitarteko egituren falta hartzen da, eguneko zentro edo ospitaleak, esaterako, tratamendu terapeutiko intentsibo eta espezializatuagoko haurrentzat, eskolatze normalizatu eta beren beharretara egokitutakoekin bateragarri.

Gure artean gero eta ugariagoa den familia egoera gazte justiziako zerbitzuek artatzen dituzten eta dituzten buru osasuneko gaixotasun arazoek dauden zerbitzuekin behar bezala artatzerik ez dauden eskariak planteatzen dituzten **gazte lege urratzaileen artean** ematen dena ere bada.

Sarritan, harrera edo barneratze zentroetara egiten ditugun bisitetan, arazo horiek aurkitzen ditugu, jarduera irizpideekin edo dauden baliabideen mugekin profesionalen eskariekin talka egiten duten profesionalen eskariak. Batzuetan zerbitzuak edo erantzuteko duten ahalmena gehitzea planteatu dugu; beste batzuetan urgazpen irizpideak berrikusi eta bereziki zaurgarriak edo ahulak diren alor hauentzako lehentasun edo konpentsazioko irizpideak ezartzea proposatu dugu. Pentsatzen dut beste ararteko batzuen bulegoetan ere halako edo antzeko egoera eta arazoak aurkitu ohi dituzuela.

Berariazko kolektibo desberdinen beharrizan bereziak azpimarratzeko ildo beretik, hemen gutxienez hiru alorri lotutako arazoak aipatzea komeni da: elikadura trastornoak, autismoa, eta droga mendetasuneko arazo larriak dituzten adingabe edo gazteak.

- **Elikadura trastornoak** eragin handia izaten ari dira gazteengan, batez ere neskengan. Urduritasunezko anorexiaren kasuan, erkidegoan gutxienez 100.000 biztanletik 8ri eragiten diela kalkulatzen da. Urduritasunezko bulimian, urtean 100.000tik 13 jotzen dituela kalkulatzen da, eta emakumeen bizitzaren % 1ean eta gizonezkoen bizitzaren % 0,1ean luzatzen dela (Lucas et al., 1991). Oro har, zenbaki handiagoak eman ohi dira, Psikiatriako Amerikar Elkarteak (APA) ematen ditu, non 14tik 30 urtera bitarteko % 0,8 eta % 1 emakumek urduritasunezko anorexia eta % 2-4k bulimia pairatzen dutela kalkulatzen baita. Baina aukera gutxi dago zenbaki horiek gure ingurunera extrapolatu ahal izateko, ukituen familien eta profesionalen zenbait elkartek gaixoen zenbatespenak ikaragarri handiak direla dioten arren.

  Trastorno hauek oihartzun hirukoitza eragiten dute, esparru psikologikoan, fisikoan eta harremanetakoan, eta kroniko bihurtzeko (kasuen % 20) edo hein batean soilik sendatzeko (% 36) joera handia daukate, heriotza tasa nabarmenaren ondoan, urduritasunezko anorexia gaixoen % 5 eta urduritasunezko bulimia gaixoen % 2 inguruan zenbatzen dena (Toro y cols., 1995; Instituto Nacional de Salud, 1995; López y cols., 1999). Gure ingurunean elikadura trastornoen eraginaren benetako igoeraren gaineko nolabaiteko polemika dago, baina inork ez du ukaten arazo horien urgazpen eskaria gehitu denik, sarritan datu epidemiologiko fidagarririk ia ez dagoen arren. Garbi dago elikadura trastornoen urgazpenaren eskaria igo egin dela gure artean azkeneko urteotan, baina ez da ziurra horrek halako gaixotasunak gehitu direnik esan nahi duenik.

  Zenbakiek arazoa larria dela adierazi arren, eta azken garaietan islatutako gizarte alarmari garrantzitsu iritzita ere, patologia hauek artatzeko berariazko dispositiborik garatzea komeni den inguruko zalantzak hor daude, zeren, zenbait eremutan, kasuen erregistroak izanik, ez baitute elikadura patologia horien igoera nabarmenik antzeman, eta horrek haur eta gazteen buru osasunaren urgazpena modu orokorrean garatzearen alde egingo luke (Menéndez y Pedreira, 1999). Ez dago, beraz, berariazko baliabide eta egitarauen beharraren gaineko adostasunik oraindik. Alabaina, gizartearen presioaren

eta komunikabideek sortzen duten iritziaren ondorioz, leku batzuetan zentro berriak sortzen ari dira, horrek sare paraleloak finka daitezen dakarren arriskuarekin.

Ez dagokigu guri elikadura trastornoei buru osasunaren trastornoen aldean eman behar zaien garrantziaren inguruan eztabaidatzen sartzea, osasun baliabideen banaketa eta antolakuntzaren aldetik. Baina garbi dago gaixotasun horiek pertsona hauen eta beren familien bizitza kalitatean izaten ari diren eragina (eskizofrenia patologien parekoa izan daitekeen eragin fisiko eta emozionala), kroniko bihurtzera jotzen dutela eta dauden datuak kontuan izanik, honakoak behar direla:

– Eskari berri hauek planteatzen dituzten osasun arazoei erantzun egokia ematea, osasun planetan ezarritako lehentasunen artean sartzea, eta oraingo zentro, ekipo eta terapien ebaluazioa egitea.
– Berariazko urgazpen programak sortu eta mantentzea, eskueran egon daitezenak eta finantzaketa publikoak, elikadura trastornoen ondorioz bai kasu berrien bai aurretiaz zeuden tratamendu eskaintzak utzita zeudenen eskaria gehitzearen arabera.
– Behar diren baliabideak biztanleriari egokitzea ahalbidetuko duen azterlan epidemiologiko baten bidez errealitatea jorratzea. Bulimia eta libratze jokabideko koadroak dituzten emakumeen aldetik dator demandarik handia, nabarmen gainera.
– Berariazko programetako ekipoek oinarrizko prebentzio eta antzemate eta esku hartze goiztiarreko programen alde egitea, gaixotasuna igartzeko eta tratamendua eskatzeko garaian ikusten den atzerapen handia gainditzen laguntzeko.
– Zaintzaile taldea ondo prestatu eta informatuta edukitzea, erraz sor daitezkeen eta egoerak eta bizimodua zailago egin dezaketen errefusatze erreakzioak arintzen saiatzeko. Erakunde gutxi dira behar bezain sarrera luzeak mantentzeko gai, eta oso gutxi dira halako barneratzeak erregimen pribatuan dakartzaten gastuak jasan litzaketen familiak.

• **Autismoak** jotako pertsonei dagokienez –1000 inguru Euskal Autonomia Erkidegoan–, beren senide eta elkarteekin izandako elkarrizketa eta harremanen arabera, gutxienez ondoko arazo eta beharrizan berariazko hauek aipa genitzake:

– Urgazpen goiztiarreko programen beharra, ukitutako pertsonez edo autismoa edo garapenaren trastorno orokorra pairatzeko arriskua duten pertsonez ondo arduratu ahal izateko, artape eta esku hartze goiztiarrak funtsezkoak dira (0tik 3 urtera).
– Autismoak jotako pertsonen artean, askok, adinaren arabera, eskolatzea amaitu du. Eskolatze luzatuko programetarako jarritako mugek, batetik eta, gizarte eta lan baliabideen eskaintza urriak, bestetik, gazte hauek, eskolatzea amaitu ondoren, askotan lanik edo okupaziorik gabe gera daitezen eragiten dute, horrek, bai beraientzat bai beren familientzat, ez aurrera ez atzera, egonkortasunik gabe gera daitezen dakarren arriskuarekin.
– Eguneko zentroak, okupaziozko zentroak eta enpleguko zentro bereziak behar dira, pertsona bakoitzaren ezaugarrietara ondoen doitzen diren gizarte eta lan modalitateak eskaini eta lan merkatu arruntera sartzea erraz diezaietenak.
– Familiartekoek eta profesionalek, sarritan, ez dute egonkortasunik ezeko egoeran dauden halako pertsonak artatzeko behar den baliabiderik izaten. Baliabide materialen eta giza baliabideen zuzkidurak krisietako urgazpen unitateak sortzea eskatzen du, eguneko ospitaleen beharra eta epe ertain eta luzeko plazak gehitu behar direla ahaztu barik.
– Gaixoaren familia bizi den tokitik gertu dauden egoitza baliabideak ere behar dira (egoitza txikiak, tutoretza osoaren edo erdiaren pean dauden pisuak…), beste Erkidego batzuetan edo etxetik urrun dauden egoitzetara eramaten dituztenean gertatzen diren deserrotze eta urruntzeak saihesteko.
– Elkarteen ekimenez, sarritan erakundeen laguntzarekin, gozamen eta astialdirako baliabideak sortuz joan dira, gizarte, osasun urgazpen eta hezkuntza alorretako jardueren osagarri. Egun dauden erkidego baliabideetarako irismena sustatu, baliabideok hedatu eta sendotu eta familiek arnasa eta atsedena hartu ahal izan dezaten programak garatu behar direla dirudi.

• Gazteen buru osasuneko arazo asko **drogen gehiegizko kontsumoarekin** lotuta daude. Hemen ez dugu berariazko arazo horiek aztertzeko asmorik baina adi diezaiegun merezi duten lau gai gutxienez bai aipatuko ditugu:

– Legezko eta legez kanpoko drogen kontsumoaren bilakaeraren eta gazteengan dituzten ondorioen gaineko zenbait datu bereziki kezkagarriak dira. Hartara, esaterako, kontsumo jakin batzuetan

gero eta gazteago hasten direla, edo osasunerako bereziki arriskutsuak diren hainbat praktika nola hedatzen ari diren. Ikuspegi horretatik, prebentzio, prestakuntza eta informazio programen garrantzia azpimarratzea komeni da.
- Zenbait droga “legez kanpokotzat” hartzeak edozein osasun kontroletatik baztertzen ditu. Agerikoak dira horrek kontsumitzaile horien buruko osasunari dakarzkion arriskuak, baita nerabe eta gazte askorentzat klandestinitate hori erakargarria dela ere. Prebentzioaz eta prestakuntzaz gain, aurreko atalean hitz egin dugu horien garrantziaz, zenbait programa esperimentalek, hala nola, substantziak kontsumitzen den tokietan bertan aztertu eta informatzeak, zenbait kontraesan gainditzen dituzte eta arrisku larriak saihesteko lagungarriak izan daitezke.
- Sarritan, droga mendetasuneko arazo larriak dituzten pertsonak urgatzi eta sendatzera bideratzen diren zerbitzu edo baliabideek, pertsona horiek onartu edo errefusatzeko, hemen jokoan dauden irizpideak erabiltzen dituzte: adingabe-adinez nagusi izatea, beren borondatez ala behartuta joatea, buru osasunez nola dauden… Baliabiderik ez izatea edo baliabide mugatuak izatea nabarmena d, antza, adingabeen edo buruko osasun arazoak dituzten pertsonengan. Horrek irizpide jakin batzuk berraztertzera animatu behar du.
- Toki askotan, droga kontsumoei lotutako arazo larriak dituzten pertsonak artatzeak urgazpen berariazko eta bereiztuko sarea sortzera eraman du, eta gizarte ekimenez sortuz joan diren eta, erakundeen erantzunaz kanpo, elkarte eta kolektibo desberdinek kudeatzen dituzten hainbat baliabide egon dadin ere bai. Halako kasuetan alde bakoitzaren betekizuna eta erantzukizuna argitu behar direla dirudi. Nolanahi ere, Administrazioak zerbitzu guztiak ondo ari daitezen eta bertan urgatzitako pertsonak errespeta daitezen zaindu behar du.

* * *

Hartara, bada, laburbilduz eta azaldutakoaren ildotik, haur eta gazteen buru osasunaren urgazpena hobetuko bada, gure iritziz behintzat, **beste ezeren aurretik** honako gaiei aditu beharko zaie:

- Bitarteko egiturak nahikoak diren, gutxiegi diren ala egon badauden ala ez.
- Dauden baliabideak nola banatzen diren lurraldean (zentralizatzioa-deszentralizazioa) eta ea hirigune handietan bizi ez direnen edo biztanleriaren alor jakin batzuen eskueran dauden ala ez.
- Egun dauden psikologo, psikiatra eta espezialisten kopurua, OMSk Europarako gomendatutako ratioen arabera.
- Ospitaleetan haur eta gazteen psikiatria sail edo zerbitzu nahikorik dagoen, adingabe eta adinez heldu gaixoak elkarren ondoan luzaro bizi behar izan ez daitezen ahalbidetzeko.
- Zaintzen jarraipena, beharrezko ekipo, bitarteko baliabide, programa terapeutiko intentsibo eta alorren artekoak sortuz.
- Baliabideen eta esku hartze desberdinen plangintza, garapen, koordinaketa eta ebaluaziorako gizarte-hezkuntza-osasun urgazpeneko batzordeak eratzea.
- Oraingo baliabide eta zerbitzuen ebaluazioa eta, ondorioz, irizpideak berrikustea.
- Buru osasuneko sistema eta programen lehentasunen artean, bereziki ahulak edo behartsuak diren kolektibo batzuk beren beregi kontuan hartzea…

## 3. ZAHARTZEA ETA BURU OSASUNA

Lehenago ere aipatu ditugu pertsonen bizitza eta osasun baldintzetan oso eragin handia daukaten zenbait gizarte alderdi. Besteak beste, bizitza itxaropenaren luzapena, familia egituraren eta belaunaldien arteko harremanetako aldaketak, zaintzaileen soslaiaren bilakaera edo zahartzearen gizarte balorazioaren jaitsiera.

XX. mendearen bigarren erdian, pertsonen batez besteko bizitza itxaropena hogei urte luzatu da, gure ingurunean, eta hori gizartearen lorpen handi modura hartu behar dugu, ez soilik kezkatzeko arrazoi edo beharrizan eta gizarte zama berrien iturri modura. Kontu da orain arte inoiz ez dela hainbeste adineko pertsona izan eta, datu guztien arabera, hurrengo hamarkadetan gehituz joango dira.

Egia esan, adineko pertsonak multzo denetariko eta heterogeneoa osatzen dute, non ohiturak, baloreak, diru eta osasun baldintzak desberdinak, pertsonalak eta besterenganaezinak diren. Elementu erkideak aurki dakizkien arren, zaharrak ezin dira gizarte talde homogeneo modura hartu. Adineko pertsona beste egoera edo baldintza daude.

Hartara, egia da adineko pertsona gaixoak daudela, fisikoki eta psikikoki oso jota, diru premia handiaz, bakar-bakarrik edo buruko osasun arazo larriez. Horiei behar den gizarte eta erakunde arreta guztia jarri beharko zaie. Baina asko dira, halaber, gaixorik ez daudenak, diruz nahikoa nasai bizi direnak, bakardade arazorik ez dutenak edo beren bizitzaren lemari tinko eusteko gai direnak.

Baina zahartzea, oro har, osasuna hondatuz joatearekin lotuta doa, sarritan kroniko bihurtu eta heriotzarekin soilik amaitzen dena.

Hara zer zioen Laín Entralgok: *«Gaixotasun kronikoa iraupenarengatik pairatzen duenaren eguneroko bizimoduan, osagai saihestezin bilakatzeraino, gaixoak hura bizimodua antolatu eta egiteko ezinbestean kontuan hartzeraino txertatzen denari deritzogu.»*

XX. mendearen bigarren erdian, elikaduran, higienean, botika eta tratamendu medikoetan, lehenago antzematerik ez zegoen eta berandu diagnostikatzen ziren gaixotasunen igartze goiztiarrean izandako hobekuntzei esker, teknologiaren aurrerapenarekin, bizitza igurikapenak luzatzea lortu da. Biztanleak zaharrago izatera heltzea, trastorno larri ugari desagertzea lortu da baina, era berean, gaixotasun kronikoak dituztenak, gizarte eta osasun zerbitzuen urgazpen handiagoa eta luzeagoa eskatzen dutenak nabarmen gehi daitezen, eta oraindik erantzun egokirik eman ezin zaien arazo berriak ager daitezen ere ekarri du.

Askotan, zahartzeari lotutako gaixotasun kronikoa edo hondamen fisiko zein psikikoa gizartean arazo mediko modura barik, gizarte eta ekonomia arazo modura ikusten da, gizartearen aldaketei, Estatuak herritarren arazoen eta, zehazki, osasun urgazpeneko arazoen konponbidean duen eginkizunari lotuta dagoena.

Testuinguru honetan kokatu behar ditugu gure gogoetak. Ez gara hemen, arestiko kapituluan egin dugun bezala, adinari lotutako gaixotasun honi edo hari (esaterako, Alzheimerra) beren beregi lotutako arazoak aztertzera sartuko, baizik eta giltzarri deritzegun eta gure eguneroko lanean behin eta berriro planteatzen zaizkigun hiru gai azpimarratzera mugatuko gara:

– **Eskubideen murrizketa eta ezgaitzea**

  3. adinari lotutako gure jardunaldi baten goiburuak, gogora ekartzen zuenez, “Eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen”. Alabaina, batzutan, adineko pertsona baten buruko gaixotasunak bere eskubideen murrizketa ekartzen du.

  Gure lege antolamenduak epaileari ematen dio, behar duen aholkularitzarekin, ezgaitasuna noiz dagoen eta zein esparrutara hedatu behar den erabakitzeko ahalmena. Termikoaren konnotazioa negatiboa izan arren (“ezgaitzea”), inor ezgaitzat jotzen duen prozedura judiziala buruko gaixotasunik duten pertsonen eskubideen berme modura eratzen da, ukitutako pertsonaren familiaz eta egoitzaz kanpoko erakundea baita, eta haren interesaren alde erabaki behar baitu.

  Ikuspegi horretatik, ezgaitzea erabakitzeko prozesuak arindu behar dira eta, horretarako, epaitegi eta auzitegiek pertsona eta materialezko baliabide espezializatu gehiagoz hornitu behar dute, buruko gaixoen babes juridikoa hobeto bermatzeko.

  Bestalde, prozesuzko arauak eta Kode Zibilarenak berarenak aplikatuz, ezin dugu bistatik galdu buruko gaixoek eskubideak dauzkatela eta ezgaitzeak lortu nahi den babeserako estu-estuan behar diren eskubideei soilik eragin behar dietela.

  Berme berdinak hartu behar dira segurtasunaren eta askatasunaren, arriskuak hartzearen eta askatasuna murriztearen arteko oreka bilatzea beharrezko bihurtzen den beste egoera batzuetan, hala nola, kasu jakin batzuetako borondatez kontrako barnerapenetan edo anbulatorioko tratamenduetan. Ahalbide horretaz eztabaidatzen ari gara gu egun, hain zuzen.

– **Tutoretza**

  Ezgaitzearen ondorio zuzena tutoretza da, sarritan senitartekoren batek izaten duena. Alabaina, buruko gaixoak diren eta ezgaitzea beharrezkoa duten senitartekorik eta beren tutoretza izan lezakeen beste inor ez duten pertsona nahikoa dago, defentsarik gabeko egoeran eta, horrek, pertsona horien ongizatea, segurtasuna eta babesa zainduko duten nortasun juridikoak eratu behar izatea dakar. Tutoretzako fundazio bat omen litzateke modurik egokiena eta, horregatik, halakorik sortzea sustatu beharko litzateke.

  Itxura guztien arabera, halako egoerak gehituz joango dira, eta kasu guzietan ez dago beharrizan horiei erantzun egokia emateko nahikoa inplikazio erakundeen aldetik (EAEko lurralde bakoitzeko tutoretza fundazioen egoera ikusteko, jo 1.1.9. atala, 117tik 124 orrialdera, Eusko Legebiltzarrarentzako 2002ko ohizko txostenean).

  Senitartekorik ez duten adineko ezgaituen egoera juridikoa hobetu behar da. Izatezko zaintzaileen eta tutoretzaren egoera eta izaera juridikoa zein diren hobeto zehartu behar da, familiarteko eta gizarte tutoretzako erakundeak sustatu behar dira, ezarritako baldintza eta berme guztiak betetzen badira

betiere, ezgaituaren senitarteko-tutorea hiltzekotan familiak subsidiarioki tutoretza judizialera jo dezan bultzatu behar da.

– **Egoitzetan dauden buruko gaixoen eskubideak**
Adineko pertsonentzako egoitzen oraingo sareak dituen mugak ondo ezagutzen ditugu denok eta, sarritan, gure arreta eta gomendioen xede izan dira. Ez gara hemen berriro horiek errepikatzen hasiko, baina garbi dago zenbateko eragina izan lezaketen buruko gaixoak diren adineko pertsonen urgazpenerako ahalbideetan eta bizitza baldintzetan.
Bai azpimarratuko dugu, ordea, pertsona horiek dituzten eskubideak bermatu behar direla, bereziki ahulak direlako, bai beren buru osasunaren egoerarengatik bai beren erakunde egoerarengatik.
Araudi esparru argia eta pertsona horien eskubideak bermatzeko behar diren bitartekoak eduki behar direla azpimarratu behar dugu: egoitzetan dauden pertsonen eskubideen edukia argi eta garbi definituko duten arauak, profesionalen jarduera araupetu behar duten ildoak finka ditzatenak, nolanahi ere, izan behar dituzten mugak ezar ditzatenak, eskubideak, betebeharrak, prozedurak, erabaki guneak, partaidetza eta erreklamazio bideak zehaztuko dituzten arautegiak, ohitura onen eskuliburuak, ebaluazio eta kontrolerako bitartekoak…
Gero eta beharrezkoagoa da zaharren eskubideen gutuna araupetzea, zaharrek 3. adinekoentzako zentro eta establezimenduen erabiltzaile gisa dituzten eskubideak (pribazitatea, isilekotasuna, duintasuna, autonomia, beren eskubideen jakintza eta defentsa…) araupetzea –zenbait Erkidegotan jada egin den bezala-, edo laguntzazko zerbitzuetarako irismenean berdintasun printzipioa estu-estuan errespetatuko dela bermatuko duten irizpide objektibo zorrotzak ezartzea.
Oraindik egin ez duten tokietan, araudizko antolaketa horiei erabakitasunez ekiteko une egokia dela dirudi. Alabaina, buruko gaixotasunik duten pertsonen kasuan, ez sarritan, arau eta bitartekorik zehatzenak ere, hala nola, barne erregimeneko arautegiak edo ohitura onen eskuliburuak, ez dira nahikoak izaten, eskubideak murriztea dakarten heinean, erabakiaren arduradunaren aldetik epai etikoa eskatzen duten erabakiak hartu behar direnean. Litekeena da halako egoeretan, bai ukitutako pertsonentzat bai profesionalentzat beraientzat, etikan adituak diren pertsonen batzordeak, konponbiderik bidezkoenak iradokitzeko gai direnak egon daitezen berme elementu garrantzitsua izatea.

* * *

Eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen, ez eta buruko gaixotasunarekin desagertzen ere. Pertsonaren duintasunak, giza dimentsioan bizitza eskubidearekin ezinbestean lotuta daudelako pertsonak bere dituen eskubideen muin edo hazi, botere publikoak behar diren baliabideak antolatzera eta zerbitzuen eta urgazpenaren kalitatea bermatzera behartzen ditu. Buruko gaixoak diren adineko pertsonen bizitza kalitatea hobetzea erakundeen ekintza ororen lehentasunezko helburu izan behar da eta, baita, ondorioz, gure jarduerarena ere.

## 4. ZENBAIT PUNTU ERKIDE ETA AZTARNA GURE JARDUERARAKO

Aurreko ataletan haur eta gazteen zein zaharren urgazpenari ukitzen dioten berariazko hainbat kontu nabarmendu ditugu. Oraingoan gure erakunde jarduera bideratzeko aztarna izan daitezkeen hainbat elementu erkide aipatuko ditugu. Buruko osasunean gai giltzarriak dira, bi kolektiboei ukitzen diete, beraienak esklusiboki ez diren arren. Hemen zazpi azpimarratuko ditugu, duten garrantziarengatik eta gure betekizunekin lotura zuzena dutelako, eta gutxienez aipatuko ditugu, sakontzera sartu gabe:

1) **Gizarte eta osasun urgazpeneko eremua**
Jatorriz egitura anbiguoa zen, eta ospitaletik osasunaren urgazpeneko oinarrizko mailaren arteko erdibidean zegoen gizarte eta osasun urgazpena kontzeptuzko eta praktikazko ikuspegietan bilakatuz joan da, helburua sendatzea barik, pertsonak autonomia sustatuz, hondatzeari aurrea hartuz eta mendetasuna konpentsatuz, (Europako Kontseiluaren arabera, mendetasuna eguneroko bizitzako jarduerak egiteko urgazpen edota laguntzarik behar izatea dela ulertuz) zaintzea deneko egoera ugariei aplika dakizkiekeen laguntza alternatiba eta kudeaketa bitartekoekin. Horixe da, hain zuzen, buruko gaixoen egoera, eta are argiago dago, ahal bada, aztertutako bi kolektiboetan.
Hala ere, sarritan, gizarte eta osasun urgazpenak behar dutenei erabateko arreta jartzea oztopatzen duen distantzia ipintzen du, hala beharrizanen gizarte eta osasun izaerak oso argi dauden egoeretan, nola bi sistemen mugetan zehaztu gabe dauden egoerak direnean, biak tartean ukituta gerta daitekeelarik.

Asko dira gizarte eta osasun urgazpenaren alderdiak bat egiten duteneko egoerak: gizarte eta osasun eremua da, ukitutako pertsona horien arazoei osotasunez heltzeko beharrezko topaketa eremua.

Batzuetan, osasun eta gizarte sistemen banaketa ez da irizpide tekniko eta urgazpenezkoetan oinarritzen, ez dira koordinaketa funtzional egonkorrerako erakunderik izaten eta badirudi administrazioen eta aurrekontuen interesen mende egoten dela. Osasun urgazpena erakunde baten eskumena da, gizarte urgazpena beste baten eskuetan dagoen bitartean, bi sistemak koordinatu edo artikulatzeko mekanismorik gabe. Errealitate horrek bereizketa egitea, baita aurrez aurre jartzea ere eragin du, sistema bakoitzak besteari aurrekontua aurreztea dakarkiola pentsaraziz. Koordinaketarik ezak eta, ondorioz, aurrez aurre jartzeak ondorio larriak izaten ditu: urgazpeneko gutxitasunak, arretan hutsuneekin, sistema batek ere ez duelako erantzukizunik hartzen, zerbitzuak desorekatuta garatzeko arriskua dagoelako, kalitate eta errendimenduan huts egiten delako, prestatuta ez daudeneko baliabide, betekizun eta eginkizunen ardura hartu behar delako…

Zenbait tokitan bi sistemak gerturatzeko zubiak ezarriz doaz, harremanen ugaritasunaren, teknikari eta politikarien ardura handiagoaren, eta ukitutakoen eskarien ondorioz, edo lankidetzarako itunak ere sinatu dira. Oraindik bide luzea dago egiteko, gizarte eta osasun urgazpenerako eremu bakarra sortzera iristeko, elkarren aurkako jarrerak gaindituz eta, horien ordez, elkarren osagarritasunezkoak hartuz.

2) **Bitarteko egiturak eta erkidegoko baliabideak**

Profesional guztiek bitarteko egiturak ospitale psikiatrikoan eta egonaldi laburreko ospitaleratze unitateetan dauden gaixoak erakundeengandik askatzeko prozesuak garatzeko, eta buruko osasun zentroetan egindako esku hartzeak osatzeko ezinbesteko baliabidetzat hartzen dituzte (Estatuko Arartekoa, 1992). Hala ere, aho bateko adostasun hori ez da osasun baliabideen plangintzara hedatzen, erakunde itxiak baino itxurazkoagoak eta merkeagoak direla ulertu arren, eta beharrizan hori, batzuetan, gizarte zerbitzuek edo boluntarioen zein ukitutakoen familien laguntza duten elkarte eta fundazioek betetzen dute, ez-osorik ordea. Eguneko zentroak eta ospitaleak, tailerrak, erkidego terapeutikoak, pisu babestuak, okupaziozko zentroak, klubak, tailerrak, eta abar, halakoek erakunde itxietako urgazpena gainditzeko aukera emango lukete. Baina aipatu dugun gizarte eta osasun zerbitzuen arteko disoziazioak buruko gaixo kronikoentzat baliabide horiek zuzkitzea zaildu du, historikoki.

Honek, sarritan, arazo ekonomiko eta administratiboak sortzen ditu, baliabide horiek sortu eta funtzionatzeko trabak ekartzen dituztenak. Bestalde, sarritan, ez dira bat etortzen behar diren bitarteko egituren kopurua zehazteko irizpideetan eta, ondorioz, ez da erraza izaten kopuruz gutxiegi edo kalitatez eskasak direla agerian jartzea ere, baliabideen plangintza egitean ez baitira beharrizan horiek kontuan hartzen.

Buruko nahaste larri eta kronikoak pairatzen dituztenek gizarte edo gizarte eta osasun mailako babesa eta laguntzak behar izaten dituzte, gainerako herritarren dituzten beharrizanez bestelakoak dituztelako baino gehiago, beren ezgaitasunak beren kabuz asetzea zailtzen dielako. Bitarteko dispositiboak buruko osasun zentroentzako baliabide osagarria dira, eusteko ahalmenean eta erakundeengandik askatzeko esku hartzeak dinamizatzeko orduan giltzarri.

3) **Familiaren sostengua**

Buru osasuna zaintzeko zerbitzuek aldaketak trastornorik larrienen tradiziozko erakunde bidezko tratamendua ere aldarazi du, ospitaleetatik erkidegora eramanez eta, hartara, familia bihurtu da zerbitzuen prestaziorako iturri nagusi, eta etxea urgazpen eta zaintzarako oinarrizko zentro (Fadden et al., 1987). Baliabiderik bat ere edo gutxiegi dagoenean, sarri gertatzen da –edo “normala” da, batzuek diotenez–, familia zuzena bera izatea buruko gaixoen ardura hartzen duena. Izan ere, gizartea aldatu eta familiaren egitura klasikoa bilakatu diren arren, oraindik pertsona horietako asko senideekin bizi dira.

Gaixotasun psikiatrikorik daukan senide adingabe zein adinekoa izatea ez da norberak aukeratzen duen ezer, bizitzako gorabehera bat baizik, eta komeniko litzateke horrek pertsona horiek zaintzeko ardura hartzen duten familiei dakarkien kostea kontuan hartzea. Egia esan, iraupen luzeko zaintzen gaineko politikarik gehienek etxeko egonaldia jartzen duten lortu beharreko helburu modura, baina hori bezain egia da sarritan ez direla horretarako baldintza egokiak izaten. Ingurunean zaintzeak, batzuetan, zaintzen duena ingurunea bera, familia, alegia, dela dakar, edo argiago azaltzeko, gehienetan familiako emakume batek zaintzea.

Gehiago aditu behar zaie etxean buruko gaixo bat zaintzen dutenen laguntza beharrizanei. Estatuak osasun eta urgazpen medikoaren eskubideak bermatzen baditu, zaintza horiek familiari ekartzen dioten zamak dakarren ahultze ekonomiko eta soziologikoa ere konpentsatzen saiatu behar du. *Zama* hitza hautatu badugu, gaixo psikiatrikoen senideek, haien ardura hartzearen ondorioz, beren bizitzan izaten dituzten arazo, zailtasun eta oztopoen presentzia adierazteko izan da (Otero, 1993).

Familiaren jarduerak erantzun terapeutiko, birgaitzaile eta prebentibo egokia izan daiteke eta, gainera, eskueran egon eta egingarria izaten da askotan. Horregatik, familiaren eta familiartekoen babesa baliabide nagusia da buru osasunean trastorno larriak pairatzen dituzten hainbat pertsonarentzat, eta gaixoaren autonomia gaitasunak garatzearekin batera joan behar da.
Buruko trastorno kronikoa daukaten pertsonen familiek gehien errebindikatzen dituzten beharrak lanbide heziketako zentro, lanerako gaitze, enplegu babestuko eta arrunteko zentro, okupaziozko zentro, modalitate desberdinetako egoitza eta egonaldietarako baliabideetara bideratu ohi dira eta, beti, bazterkeriari eta laidoztatzeari aurre egiteko gizartea sentsibilizatzera. Bigarren plano apal batean soilik ageri ohi dira familia berari zuzenean laguntzeko eskariak. Hala ere, kasu askotan familiak zerbitzuen prestazioen iturri nagusi eta etxeak urgazpen eta zaintzarako eremu nagusi izaten jarraitzen dutela kontuan izanik, horrek dakarren laguntzazko zama ikaragarri eta itogarria ikusita, atsedena hartu eta, ondoren, zaintzeari berrekiteko aukera eman dezaten arnas eta atsedenaldi programak behar direla berretsiko dugu. Egun, buruko gaixotasunik duten pertsonen familiei ematen zaien laguntza eta babesa defizitarioa da, argi eta garbi. Gaixo eta familiei etxean laguntzeak, gaur ez dago ia halako laguntzarik, askoz ere baldintza hobetan zaintzea erraztuko luke, ezbairik gabe.

4) **Administrazioaren eginkizuna eta elkarteen mundua**

Zorionez, asko dira buruko gaixoen senideen edo gaixo horiei laguntzeko elkarteak eta, batez ere, ugariak elkarte horietan sartuta dauden pertsonak. auto-laguntzazko elkarteak ez hainbeste.
Batzuek, beren beregi adinari lotutako buruko gaixotasunetara bideratuta (elikaduraren trastornoak, Alzheimer...). Helburuak gizarteak gaixotasuna edo egoera hobeto ezagut dezan ingurukoak izan ohi dira, bizitza kalitatea hobetzeko elkartu beharrean, erakundeengandiko urgazpenik ezak edo mugak gainditzeko partaidetza errazteko... Elkarteetan biltzea, etxea bezala, izan ere, buruko gaixoei eta beren familiei laguntzeko bidea ere bada eta, hartara, indartu beharko litzateke.
Hala ere, gizartearen ekimenek ez dute Administrazioaren erantzukizunik estali edo ordezkatu behar. Zerbitzu edo baliabide publikoak sortzean, zein elkarteengandik beraiengandik sortutako edo beraiek kudeatutako baliabideen sostengu eta kontrolean.
Horren ildotik, sarritan, ikusitako errealitatea nabarmen hobe daiteke: baliabide gehiago edo gutxiagoko kolektibo edo elkarteak, historia, ekimena, lurraldea edo bakoitzaren presio ahalmena bezalako faktoreen arabera; irizpide argi edo homogeneoei erantzuten ez dieten diru laguntzak; berme gisa erabil litekeen oinarrizko araudirik eta kontrolerako mekanismorik eza; programa zein zerbitzuen jarraitasuna bermatzeko zailtasunak...
Baliabide eta zerbitzuak sarritan elkarteen beraien mende daudela kontuan izanik (enplegu babestuko zentroak, okupaziozko zentroak, eguneko zentroak...), eta beste gogoeta batzuk alboratuta, garbi dago esandako gai horiek buruko gaixo batek, izatez, bere bizitza kalitatean eragin zuzena izango duen zerbitzu batera iristeko aukera handiago edo txikiagoak izan ditzan baldintzatzen dutela.

5) **Eskubideen gutuna eta prestazioen zehaztapena**

Arestian aipatutako arazo asko pertsona horien oinarrizko eskubideak, beren egoerarengatik eskubidez dagozkien prestazioak zehazten dituen arau, gutun, plan edo programarik ez egoteagatik datoz.
Hartara, zerbitzuak eta baliabideak sortu eta jartzeko orduan, horixe baita gure ponentziaren gai nagusia, administrazioek hautatzeko aukera handiak dauzkate. Autonomia mailako legeek zerbitzuak sortzeaz eta prestaziozko jarduerak sustatzeaz mintzo dira, baina administrazio bakoitzari sortu edo ezartzea dagozkion prestazio zehatzak mugatzeko orduan ez dute inolako zehaztasunik ematen, eta beraientzat konpromisozkoa den zein herritarrek, gure kasuan, buruko gaixoek edo beren senideek, beraiei epaitegien bidetik erreklamatzeko balia lezaketen betebeharrik ezartzen ez dieten formuletara jotzen dute.
Legeak egiteko modu honen salbuespen bakarra, gizarte zerbitzuak sortu eta mantentzeko eskubide subjektiboak ezartzearen ildotik, Tokiko Araubideko Oinarriak araupetzen dituen Legean aurkitzen dugu, zeinek 18.1.g artikuluan herritarrei derrigorrezko zerbitzuak jartzea eskatzeko administrazioarekiko auzi bideko jurisdikziora jotzeko aukera ematen dien (gizarte zerbitzuen prestazioa 20.000 biztanletik gorako udalerrietan). Baina kasu honetan ere epaileen baiezko epai batek ere ez dio demanda jarri duen pertsonari prestaziorik bermatzen, harik eta, zerbitzua jarri ondoren, eskatu duen herritarraren eta zerbitzua ematen duen udalerriaren arteko harremanak arautegien bidez finka daitezen arte. Hara, bada, behin zentro, zerbitzu edo prestazio teknikoak jarri eta funtzionatzen ari direnean, orduan izan lezake ukitutako pertsonak horietara heldu, horiek erabili edo gozatzeko eskubide subjektiborik, zerbitzu bakoitza araupetzen duten arautegiek hala xedatzen duten neurrian. Beraz, zenbat eta gai gehiago araupetuta aurkitu dauden zerbitzu eta prestazioetara iristeko arauketan, hainbat eta sendoagoa izango da pertsona hauen zein beren senideen

jarrera juridikoa, prestazio jakin baten zerbitzuan onartu eta erabiltzeko edo onuraduna izateko aukera eskatzeko ondoreetarako.
Buruko gaixotasunik daukaten pertsonen eskubideak arautegien bidez bermatzea, eskubidez dagozkien prestazioak zehaztea, oraindik iristeko dauzkagun lorpen garrantzitsuetakoen artean daude.

6) **Baliabideak nahikoak diren ala ez diren adierazleak**
Guri, oro har, errealitatearen alderdi defizitarioak azpimarratzea dagokigu. Horrek baloratzea, neurtzea, beharrizanak eta baliabideak alderatzea dakar, eta ez da beti erraza izatean eginkizun horretarako balioko digun adierazlerik edukitzea.
Eskuartean daukagun gaian, esan berri dugunez, ez da pertsona hauek eskubidez lituzketen prestazioen gaineko zehaztasun handirik egon ohi, ez eta biztanleriak dituen beharrizanen azterlan edo zenbakizko adierazpenik ere. Horien ezean, zenbatespen, finkatutako irizpide edo autoritatea ezagutzen zaien OMS bezalako erakundeen gomendioetara, lurraldeen edo Erkidegoen arteko konparaketetara, jo behar da, dauden datuen arabera. Eztabaidarako gai izan daitezkeen formulak denak.
Zerbitzu edo baliabideen gaineko datuak alderatzeko aukera ematen duten zenbakizko adierazleez mintzo gara. Esaterako, eguneko zentroen kopuruaz, ospitale psikiatrikoetako egonaldi laburretarako unitateenaz, ospitale orokorretako psikiatria unitateenaz, ospitaletan X biztanleko dauden ohe psikiatrikoen kopuruaz, X biztanleko dauden ospitaleetako egonaldi psikiatrikoenaz, X biztanleko dauden kontsulta kopuruaz, X adingabeko dauden haur psikiatrenaz; 65 urtetik gorako X biztanleko dauden egoitzetako plazen kopuruaz... Giza baliabide, erkidegoko baliabide, ospitale, egoitza eta abarren gaineko adierazleez, alegia.
Oro har, arestian aipatutakoen artean erabiltzen den irizpidea dena delarik, baliabideak gutxiegi direla garbi ikusten da, lurraldeka oso desberdin banatuta daudela, sarea bete-beteta dagoela eta zenbait oinarrizko zerbitzu gainezka daudela (itxaron zerrendak, urgazpen denbora laburrak, familiako eta profesionalen kexak...).
(*Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo* goiburuko gure txostenean, hemen aipatutako adierazlerik gehienen datuak jasotzen dira, autonomia erkidegoen artean alderatzen direnak, taula desberdinetan. Ikusi, adibide modura, 9. eta 10. taulak).

7) **Ebaluazioaren adierazleak**
Sevak dioen bezala (1993), buru osasuneko ebaluazioa programa eta zerbitzuen gaineko berri soilik ematen duten osasun urgazpeneko adierazleen definizio hutsetik bereiztu behar da. Osasun urgazpeneko ikerketak eta ebaluazioak eragingarritasuna iritsi nahi dituzten lorpenak iristen dituzten heinean neurtzen saiatu behar dute. Horrek, ordea, zailtasun handiak aurkitzen ditu, bata ebaluazioa edozein zerbitzutan beharrezkotzat jotzeko dagoen sentsibilitatea oso urria dela.
Buruko gaixoen urgazpenaren kasuan, ez dago laguntzazko datu eta jokabideak modu egokian erregistratzeko gogo handirik. Hala ere, asko dira buruko osasun zerbitzuetan ebaluazio prozesuetarako behar diren baldintzak adierazi dituzten autoreak. Antolakuntzazko zenbait parametro aipatu ohi dira: ikertzeko gaitasuna, administrazio sostengua, antolakuntzazko egitura, ingurumen testuingurua eta berrikuntzarako prestutasuna… Baina behinena, funtsezkoena, gutxienez biztanleriaren soslai soziodemografikoaren, biztanleriaren eskarien hartzaile diren zerbitzuen funtzionamenduaren, urgazpeneko dispositibo desberdinen finantzaketaren eta jardueraren, profesionalen, senitartekoen eta erabiltzaileen balorazioaren eta abarren gaineko informazioa eman lezakeen erregistro sistema ona edukitzea izango da.
Zenbait tokian badira buruko osasunaren alorrean kalitaterako erabateko planak, epe jakin batean lortu beharreko helburuak finkatzen dituztenak. Halako planak egoteak zehaztapena eta konpromiso politikoa dakartza, eta ebaluaziorako bitarteko giltzarriak dira, ezbairik gabe, eta guri, erakundeen konpromisoak bete daitezen eta eskaintzen den zerbitzua kalitatezkoa izan dadin zaindu behar dugun erakunde izanik, egin behar dugun jarraipen lana bera ere errazten digutenak.

* * *

Azkeneko urteotan buruko osasun arazoei emandako erantzunari aldaketa handiak egin zaizkio, neurri handian, “erakundeengandik askatzea” eta “erkidego urgazpenaren” aldeko apustua bezalako terminoen bidez laburbiltzen direnak. Baina erkidego urgazpena ez da “erkidegoak” ematen duen urgazpenaren sinonimo, “erkidegoan” ematen den urgazpenarena baizik. Eta urgazpenak, erkidegoan, erkidego mailako baliabide, dispositibo, programak behar ditu, eta zerbitzu prestuak, eskuerakoak, aniztuak eta biztanleria atal desberdinen beharrizanetara egokituak behar ditu. OMSk duela gutxi azpimarratu duenez, “erkidego urgazpenerako desbideratze honek erkidegoan osasun arloko langileak eta birgaitzeko zerbitzuak egon daitezen eskatzen du,

baita krisi egoeretarako laguntza, etxe babestuak eta enplegu babestuak izatea ere". (Munduko osasunaren gaineko txostena, 2001. Deskripzio oharra.)

Buruko gaixoak ez dira, normalean, zerbitzu eskatzaile izaten, ez dute beren interesak defendatu eta garaiarazteko inolako presio talderik osatzen. Are gutxiago beren adin edo egoerarengatik mendetasun handia daukatenean, adingabeen eta oso zaharrak direnen kasuan bezala. Beraiek moldatzen dira dauden programa eta zerbitzuetara moldatzen dira, eta ez programak beren beharrizanetara.

Horregatik, gureak bezala eskubideak bermatzeko dauden erakundeek, pertsona horien egoerari, beraientzat bideratutako baliabide eta zerbitzuei bereziki aditu behar diete, beren buruko arazoentzat ahalik eta urgazpenik onena izan dezaten duten eskubidea praktikan berma dadin zainduz.

## AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA


- ARARTEKOA, Eusko Legebiltzarrarentzako txostenak:
  - *Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo* (2000)
  - *EAEn egoitzez kanpo adinekoentzat dagoen laguntzari buruzko txosten berezia* (1996)
  - *2002ko ohizko txostena*
  - *Adin txikiko lege-hausleak* (1998)
  - *Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn* (2003)
  - *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* (2001)
  - *Adinekoen egoitzak EAEn* (1992-1993)
  - *Psikiatrikoak.Ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera* (1992)

- Europako Kontseilua (1998): Ministro Kontseiluaren gomendioak 98-09-18.
- Defensor del Pueblo (Estatuko Arartekoa) (1992): *Estudio y recomendaciones del Defensor del Pueblo sobre la situación jurídica y asistencial del enfermo mental en España*. Publicaciones del Defensor del Pueblo, Madrid.
- Fadden, G.; Bebbington, P.; Kuipers, I. (1987): The burden os care: the impact of functional psychiatric illness on patients family. *Br. J. Psychiatry* 150: 285-292.
- Lain Entralgo (1982) : *El diagnóstico médico. Historia y Teoría*. Salvat Edit., Barcelona.
- López Seco, F.; Rodríguez del Toro, C. (1999). Factores asociados a la cronicidad en trastornos de la alimentación. *An. Psiquiatría*. Vol. 15, nº 4: 137-144.
- Lucas A.R., Beard C.M., O´Fallon W.M., Kurland L.T. 50-Year trends in the incidenceof anorexia nervosa in Rochester, Minn: a population-based study. *Am J Psychiatry* 1991; 148: 917-922.
- Menéndez F., Pedreira J.L. Trastornos de la conducta alimentaria en niños y adolescentes. *Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq*. 1999; 19:7-22.
- Otero, N. y Rebolledo, S. (1993): Evaluación de la carga familiar en pacientes esquizofrénicos después de un programa de rehabilitación. *Psiquiatría Pública*, Vol. 5, nº4: 217-223.
- Organización Mundial de la Salud: Informe sobre la salud en el mundo 2001, Salud mental: nuevos conocimientos, nuevas esperanzas. OMS.
- Seva, A. (1993): *La calidad de la asistencia psiquiátrica y la acreditación de sus servicios*. INRESA: Zaragoza.
- Toro, J.; Castro, J.; Nicolau, R.; Cervera M., Toro A., Zaragoza M., Blecua M.J. Estudio descriptivo de 221 pacientes con anorexia nerviosa. *Psiquiatría Biológica* 1995; 2: 181-187.

# II. ERANSKINA

# SISTEMA DEMOKRATIKOETAN TORTURA ETA TRATU TXARRAK PREBENITU ETA EZABATZEARI BURUZKO JARDUNALDIA

## AURKEZPENA

Ararteko erakundeak, EHUrekin lankidetzan, aurtengo jardunaldia gai zail eta oso garrantzitsuari buruz antolatzea erabaki du. Gai hori honakoa da: "**Sistema demokratikoetan tortura eta tratu txarrak prebenitu eta ezabatzea**".

Aurreko jardunaldietan hausnar egin dugu beste eskubide edo problematika garrantzitsu batzuk direla eta: bakearen kultura, pertsona zaharren eskubideak, arrazagatik ez baztertzeko eskubidea, adin txikiko legehausleen eskubideak eta abar. Gaur sakontasunez hitz egin gura dugu sistema demokratikoetan atxilotutako pertsonei ematen zaien tratuari buruz, tortura eta beste eginera degradatzaile batzuk prebenitu eta ezabatzeko mekanismo edo tresna eraginkorrei buruz eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 5. artikulua: *"Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere",* eta Konstituzioaren 15. artikulua: "*Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisikoa eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara"* benetan betetzea bermatzeko erari buruz.

Giza eskubideak babestearen alde bagaude, ezin gara axolagabe izan, botereak giza duintasunerako eskubidea urratzeko erabil dezakeen modurik larrienaren aurrean. Bakezko elkarbizitzari eusteko bakarrik erabil daitekeen derrigortze-indarraren erabilpen anker eta legezkontrakoa dakar torturak. Hortaz, sistema demokratikoaren desitxuratzerik larriena dakar, eta torturatuak oinaze bidegabea jasaten du, inola ere ezin justifika daitekeena. Jendeak ezin du horren aurrean ezikusiarena egin.

Gai honi heltzeko, gurekin hemen daude esperientzia handiko hiru pertsona, gai honetan perspektiba ezberdinetatik sakontzen lagunduko digutenak:

- Carlos Villán jauna, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Ordezkariaren Genevako bulegokoa, munduko torturari eta tratu txarrei eta egungo joerei buruz mintzatuko zaigu. Hortaz, perspektiba globala erabiliko du, mundu osokoa. Egungo perspektiba. Mundu honetan zenbait giza eskubide, segurtasunarekin lehian, irailaren 11z geroztik kolokan bide daude.
- Laura Zúñiga andreak, Salamancako Unibertsitateko irakasleak, bereziki perspektiba juridikotik hitz egingo du: tratu jasangaitz eta degradatzaileei aurrea hartzeko ditugun tresna juridikoak zein diren eta zertarako aukera ematen duten azalduko digu.
- Azkenik, Jan Malinowski jaunak, Europako perspektiba zehatzago batetik, CPTko bere lan-esperientzia kontuan harturik, Tortura Prebenitzeko Europako Batzordearen eginkizuna, esku hartzeko mekanismoak eta gomendioak azalduko dizkigu.

Arartekoa naizen aldetik, niri dagokit lehenengo hitzaldi hau egitea, Jardunaldia aurkeztekoa. Eta hemen bereziki hausnar egin gura dut gure errealitaterik hurbilenari buruz, gure Autonomia Erkidegokoari buruz. Izan ere, erkidego honetan, sarritan-edo, polizi atxiloketen ondorengo tratu txarrak eta torturak salatzen dira.

Salaketa horietariko batzuek, atxilotutako pertsona zein den eta beraren gizarte edo politika laguntza zein den kontu, garrantzi publikoa handia hartzen dute. Baina beste batzuk isilean adierazten dira, famili eremuan edo lagun artean. Gogoan har bedi, esate baterako, zenbait atzerritarren egoera.

Kasu bakoitzaren gizarte garrantziaren maila alde batera utzita, beti kezkatu behar gaitu pentsatzeak nolako oinazeak ekartzen ote dizkieten tratu txarrek ukitutako pertsonari eta beronen ahaide eta lagunei. Eskubideak urratzearen aurka eta horrelako tratuek giza duintasunari, elkarbizitza zibilizatuari eta herritarren eskubideak bermatzeko sistemari ekartzen dieten erasoaren aurka agertu behar dugu. Sistema hori Zuzenbidezko Estatuari dagokiona izango da.

Egia esan, gure gizartean susmo zabala dago, berezkoa edo induzitua, poliziak tortura eta tratu txarrak atxilotutako pertsonak bere burua erruztatzea lortzeko edo beste pertsona batzuei buruzko informazioa lortzeko eta polizi ikerketan aurrera egiteko erabiltzen dituelakoa.

Txosten, datu eta epaiek erakusten dutenez, horrelako eginerak ez dira orokortu, ezta guztiz ezabatu ere baina.

Tortura-kontaketak biltzen dituen txostena jasotzen dudan bakoitzean, epaileek kondena jarri, eginbideak burutu edo judizio bidean salaketak artxibatzen dituzten bakoitzean eta, bereziki eta zuzenean, atxilotutako pertsonen senideek edo haiek eurek esku har dezagun eskatzen diguten bakoitzean, aurrean errealitate mingarria

dut, gure berme-arreta eskatu eta horrelako eginerak ezinezko egiten dituzten prebentziozko neurriak hobetu beharra gogora ekartzen diguna.

Orokorrean, salaketarik gehienak komunikaziorik ezeko kasuetako komisaldegietako egonaldiko polizi jarduketei buruzkoak dira. Haiek hartuko ditugu ardatz. Alabaina, nabarmendu behar denez, polizi jarduketek ukituriko pertsonek salatzen dituzte bestelako abusuak eta irregulartasunak ere, esate baterako, epai-agintariak gero kargurik gabe aske uzten dituen pertsonen salaketak, atxilotuaren senideenganako etxeko miaketako gehiegikeriak eta irainak, lekualdaketetako tratu txarrak… Era berean, gogoan izan behar dira presondegiari buruzko kexak. Izan ere, presondegiko tratu txarrak torturatzat hartu ahal dira.

Hortaz, komunikaziorik gabeko atxiloketei gagozkiela, gogora ekarri behar da ezen atxilotutako pertsonak minik ez jasatearen azken bermatzailea kasuaren berri dakien instrukzioko epailea dela. Beste alde batetik, gure antolamendu juridikoan, tortura delitu bezala tipifikatuta dago. Hori dela eta, botere judizialak argitu behar du. Judizioko esku harmen biek arartekoak azaltzen zaizkion banakako kasuak ezagutzea eragozten dute. Horregatik, atxilotutako pertsonen senideekin biltzen naizen eta beren kexak entzuten dizkiedan bakoitzean, haiek beren salaketa judizio bidean aurkeztera bultzatzen ditut, bide hori baita Zuzenbidezko Estatuaren berezko berme-mekanismoa.

Egia da epaileen zioongatiko kondenak gutxi direna. Frogak lortzea ez da batere erraza horrelako kasuetan. Baina, agian, kezkagarrienak izaten dirateke epaiketak gertatu ohi diren atzerapena eta epaiketak egin eta epaiak betearazi ahal izateko gainditu behar diren zailtasunak. Labur esanda: salatutako egitateak argitzeko eta, hala denean, legearen eta giza duintasunaren kontrako jarduketak zuzentzeko polizi, judizio eta politika sailen arteko itxurazko lankidetza falta.

Ildo horretatik, garrantzi handikoa deritzot Torturaren aurkako Nazio Batuen Batzordeak bere senarrarekin batera atxilotu zuten euskal biztanleak aurkeztutako jakinarazpena (edo salaketa) kontuan harturik 1998ko maiatzaren 14an emandako irizpenari. Irizpenaren 8.2 paragrafoan adierazita dagoenez:

> "*Batzordeak ikusi du ezen, Konbentzioaren 12. artikuluarekin bat etorririk, agintariek ex officio ikertzen hasi beharra daukatela, baldin eta tortura edo tratu txarrak burutu direla uste izateko ziorik badago. Eta ez du garrantzi handiagorik susmoaren jatorriak. 12. artikuluaren arabera, laster eta inpartzialki ikertu beharra dago. Lastertasunari dagokionez, Batzordeak uste du ezen berau funtsezkoa dela biktimak aipatutako egintzak jasaten jarraitzea saihesteko. Gainera, haiek aplikatzeko erabilitako metodoengatik orokorrean ondore iraunkor edo larririk gertatzen ez bada, torturaren aztarna fisikoak, eta, arrazoi handiagoz, tratu anker, jasangaitz edo degradatzaileenak, epe laburrean desagertzen dira.*"

Horrela bada, ikertu beharra defendatzen jarraitu behar da, ofizioz ere, baldin eta tratu txarren edo torturen gaineko zentzuzko zantzurik badago. Horretarako, pentsatu behar da tratu txarrak eta torturak agian badirela, behintzat.

Gerta daiteke hemen dauden pertsonetarik batek baino gehiagok gai hau hemen konpondurik ez dagoena baina beste toki batzuetan guztiz konpondurik dagoena dela pentsatzea, esate baterako, demokrazi esperientzia handiagoko beste toki batzuetan, Europako gure inguruko beste toki batzuetan eta bestelako tokietan. Tamalez, Tortura Prebenitzeko Europako Batzorde serio eta fidagarriaren aldizkako txostenek ez dakarte ondorio baikorrik.

CPTk, Malinowsky jaunak gero azalduko digun bezala, aldizkako bisitak egiten ditu, edo aurreko gaztigurik gabekoak, Europako Kontseiluko herri kideetako atxiloketa-zentroetara. Duela zenbait urte, *Journal* aldizkariaren zenbaki batean, labur bildu ziren Batzordeak Europako hogeita hamar bat herritara bisitak zortzi urtez egin ondoren atereak zituen ondorioak. Zehazki, poliziak askatasunez gabetutako pertsonek tratu txarrak jasateko zituzten arriskuei buruzkoak ziren zehazki. CPTk herri bakoitzaren egoera islatzeko aukeratutako terminoak oso neurtuak ziren: *"arrisku handia dago", "arrisku txikia dago tratu fisiko txarrak jasan ditzaten", "poliziak atzitzean eta beren atxilotu ondorengo lehenengo orduetan tratu txarrak eman diezazkien arrisku larria dute", "tratu txarrak jasotzeko arrisku txiki ez dena dute", "tratu txarrak nahiko ohikoak dira"*... Kontuan har bedi ezen ondorio horiek ez zirela, kasu bat ipintzearren, Turkiari buruzkoak, baizik eta Alemaniari, Belgikari, Frantziari, Italiari eta Portugali buruzkoak, hurbil-edo dauden herri batzuk aipatzearren. Turkiari buruz ondorioztatutakoaren arabera, "*torturak eta poliziak atxilotutako pertsonei emandako gainerako tratu larriek oso eginera zabalak izaten jarraitzen dute*".

Kontuan hartu behar da ezen ondorio isolatua ekartzeak ezin dituela ñabardura guztiak inoiz harrapatu. Baina poliziak Europan ematen dituen tortura eta tratu txarren arazoen eta arriskuen gaineko erkapenezko ikusmolde orokorra lortzen lagundu ahal du. Gure inguruko sistema demokratikoetako poliziaz ari gara.

Une hartan, Espainiari zegokionean, 1991n eta 1994an aldizkako bisitak egin ondoren, CPTk, torturara jotzea ordurako ohikoa ez zelako poztu eta gero, adierazi zuen ezen "*goiz zela tortura eta tratu txar larriak ezabatuak zirela ondorioztatzeko*".

Era berean, 2001eko uztailean egindako bisita zela bide, CPTk ohar kritikoak egin zizkion Espainiako Gobernuari. Izan ere, arautegiaren arabera, atxilotutako pertsona komunikaziorik gabe egon daiteke bost egunean ere, eta denbora horretan ez du bere konfiantzako medikurik ez abokaturik atzitzerik. Ondorio berbera atera du NBEren kontatzaile bereziak bere 2002ko txostenean. Bertan perspektiba orokorretik baieztatu duenez, *Komunikaziorik ezeko aldian torturatzen da sarrienik. Komunikaziorik ezeko aldiaren legezkontrakotasuna ezarri behar da eta komunikazioz gabetuak berehala askatasunean jarri.*

Kezka berbera azaldu dute beste erakunde batzuek, esate baterako, Nazioarteko Amnistiak. Era berean, Torturaren aurkako NBEren Batzordeak Espainiari buruzko *Ondorio eta gomendio proiektu*an adierazi du ezen atxilotuak komunikaziorik gabe gehienez 5 egunean atxilotuta edukitzeak oso kezkaturik dagoela oraindik ere. Hori dela eta, polizi galdeketak bideoan grabatzea gomendatu du kautelazko neurri bezala.

Halaber, kezkatzeko beste zio batzuk nabarmendu behar dira, Batzordeak agiri horretan adierazitakoak. Alde batetik, *etorkinen kontrako tratu txarren salaketak bereziki kezkagarriak* direla adierazi du, *sexu-abusua eta bortxaketa barnean sartuta*. Beste alde batetik, FIES *presoen espetxeko baldintza gogorrak* kritikatu ditu, hau da, araubide itxi bereziko presoenekoak.

Azken gai honi buruz azpimarratu gura dut ezen egun tramitatzen ari diren zigor-eraldaketek arindu barik handitu egiten dutela, oso, espetxe zigorren zorroztasuna, bai iraupena bai betetze-baldintzak. Modu berean, behin-behineko espetxealdia eraldatzeko proiektuak atxilotuak edo presoak komunikaziorik gabe gehienez 13 egunean edukitzea onartzen du. Horrek giza eskubideen aldeko erakundeen gomendioen ororen kontrako bidetik joaten dela esan nahi du.

Ararteko erakundeak giza eskubideak bermatu gura ditu eta egoera honek kezkatzen du. Horrexegatik antolatu ditu jardunaldiok. Baina, kezkatik harago, hemen erakutsi gura dugu, laburbilduta bada ere, zein diren esku hartzeko gure aukerak, noiz eta nola jarduten dugun, zein diren gure mugak eta, bereziki, zein proposamen eta gomendio egin gura ditugun prebentzioaren arloan. Izan ere, hori da gure eremua –prebentzioarena–. Kasu zehatzak argitzea ez dagokigu guri, epaileei baino, esan dudan bezala.

Azken urteetan poliziaren torturaren edo tratu txarren balizkoetan hiru bide ezberdin eta, askotan, elkarren osagarritatik hartu dugu esku, funtsean. Bide horiek honakook dira:

1. Tratu txarrak jasan izana salatzen duten pertsonengatik, batzuetan, eta, sarriagotan, haiei laguntzen dieten senideengandik eta elkarteengandik jasotako kexak.
2. Zenbait elkarte edo erakundek aldizka egiten dituzten txostenak, epealdi jakin batean edo jarduketa jakin batzuez geroztik pilatutako informazioa labur biltzen dutenak.
3. Ofizioz (hau da, norbere ekimenez) hasitako ikerketak eta beraien emaitzen gainean egindako aldizkako jarraipena. Hirugarren bide honen bi adibide esanguratsuenak Bilboko San Frantzisko aldean atzerritar jatorriko pertsonenganako poliziaren tratuari buruz 1997az geroztik burututako ikerketak eta polizi ziegetarako aldizkako bisitak eta hasierako azterketa dira, zalantzarik gabe. Jarduketa horiek Eusko Legebiltzarrarentzat eginiko hainbat txosten zehatzetan islatuta geratu dira; eta beraien jarraipena, urteko txosten bakoitzean.

[Horrela, esate baterako, txosten monografikoetan:
- "*Bilboko San Frantzisko aldeko atzerritar pertsonenganako polizi jarduketen gaineko Arartekoaren esku-harmena*", 1998koa.
- "*San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipen-txostena*", 2000koa.
- 1991ko aparteko txostena: "*Kalabozoak. Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak*".
  Eta urteroko ohiko txostenetan, I. kapituluan: "*San Frantzisko aldean poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipena*", eta "*Ertzaintzaren ziegetako eta udal gordetegietako egoeraren jarraipena*".]

Gure jarduketen zergatia argituta, ikus dezagun orain nola hartzen dugun esku, eta zein diren esku hartzeko gure tresna nagusiak eta beraien aukerak eta mugak.

Sarritan ukitzen dituzte salaketek euskal administrazioen menpean ez dauden edo epaileak ikertzen ez dituen polizi kidegoak. Kasu biotan, legeak gure jarduketa eragotzi edo mugatzen du. Horrela, esate baterako, Guardia Zibileko edo Polizia Nazionaleko agenteen torturaren edo tratu txarren salaketen aurrean, gure jarduketa, legearen aginduz, honakoa izaten da soilik, normalean: senideak jasotzea, beraien testigantza entzutea eta Herriaren defendatzaileari gure kexa eta kezka azaltzea, hura kasuotarako eskudun erakundea den aldetik.

Zuzenean esku hartzeko aukerak zabaltzen dira salaketek ertzainak edo udaltzainak ukitzen dituztenean. Horrelakoetan, urteotako esperientziarekin bat etorririk, esku hartzeko gure tresnak honakook izan dira, funtsean:

- Atxiloketa-lekuetarako bisitak.
- Polizi atestatuak arauz berrikustea.
- Kontraste-elementu bezala balio izan dezaketen beste informazio-iturri batzuk bilatzea: ofiziozko abokatuak, auzitegi-medikuak, operatibo ezberdinetako polizi agenteak...
- Polizi arduradunekiko bilerak.

Ikertzeko bideotariko bakoitzak bere mugak eta aukerak ditu. Horrela, esate baterako:

- Atxiloketa-lekuetarako bisitak direla medio, instalazioen baldintza fisikoak ezagutu ahal dira, beharrezko hobekuntzak mahaigaineratu eta beraien burutzapena egiaztatu, polizi egineran erabilitako zenbait prozedura eta irizpide berrikusi, bisitaren unean atxilotuta dauden pertsonak elkarrizketatzea (zenbait kasutan), polizi miaketak eta zenbait kontrol-mekanismoren ibilera berrikusi...
- Polizi atestatuak arauz aztertzea lan luze eta neketsua da, berrikusi behar den agiri kopuruagatik bereziki. Bistan denez, agiriok poliziarenak dira eta, hortaz, poliziaren atxiloketari buruzko ikusmoldea islatzen dute. Alabaina, alderdi objektibo garrantzitsuak egiaztatzea ahalbidetzen dute. Hainbat alderdi egiaztatu ohi ditugu: polizi sailetan sartzeko eta irteteko orduak, aske uzteko edo Nazio Entzutegira lekualdatzeko orduak; eskubideak jakinarazteko aktaren existentzia, beronen egokitzapena eta atxilotutako pertsonari jakinaraztekoa jakinarazi zaion ordua; hala denean, komunikaziorik eza baimentzea, eta atxiloketaren luzamendua; deklarazioaren unea eta iraupena; abokatuari gaztigatzea eta horren komisaldegiko presentzia; atxilotutako pertsonek judizio-segizioaren edo/eta auzitegi-medikuaren bisita jaso duten, eta zenbat aldiz; ospitalera eraman diren.

Azken gai hori hartuko dugu hizpide une batez. Erakunde honen ikuspuntutik, normalean instrukzioko epaileak, judizio-idazkariak eta auzitegi-medikuak osatuta egoten den judizio-segizioaren bisita eta auzitegi-medikuak egindako azterketa medikoak atxilotuen eskubideak errespetatzea bermatzeko mekanismo nagusiak dira.

Ildo horretatik adierazi ahal dugunez, Ertzaintzak terrorismoarekin edo kale borrokarekin loturiko jarduketengatik azken urte bietan egindako atxiloketei buruzko atestatuak bereziki berrikustearekin bat etorririk, judizio-segizioaren bisita kasu ia guztietan gertatzen da, eta, beraietariko askotan, egunero, atxiloketak irauten duen bitartean. Gainera, batzuetan, atxilotua ospitalera eramaten dute, beronek eskatuta edo poliziaren edo epailearen ekimenez. Besterik da bisitek edo azterketa medikoek beren helburua betetzen duten edo bete ahal duten.

Kontuan har bedi ezen, horrelakoetan, Ertzaintzako kideei egozten zaizkien irregulartasun nagusiak honakook izaten direla: mehatxuak, psikologi presioak eta irainak; abokaturik ez dagoen galdeketak; lo egiten ez uztea; jarrera zehatz batean (esate baterako, kokoriko) denbora luzean egotera behartzea; jatekorik ez ematea; iletik tiratze edo kolpe isolatuak; atxilotua biluztera eta biluzik egotera behartzea; irainak eta sexu motako irainak...

Izan daitekeena da horrelako jarduketak edo beraien ondorioak auzitegi-medikuaren bisitan edo ospitaleko larrialdi zerbitzuan aztertuz antzeman ahal iztea? Zentzuzko zalantza dirudi. Horrela, esate baterako, bisita eta azterketon dinamika xehetasun handiagoz ezagutzeko xedez, auzitegiko talde medikoekin elkarrizketan aritu gara. Atxilotuenganako beren bisitetan garatzen dituzten eginerei buruzko beste informazio interesgarri batzuez gain, kexagileek salatzen zituzten irainezko tratuak azaldu genituenean, medikuek adierazi zuten ezen haiek ere sarritan-edo entzunak zituztela atxilotuen ahotan okerreko tratuotariko batzuen kontaketak. Baina azterketan zuzenean ikusten zituztenak bakarrik agerrarazten zituzten beren txostenetan. Horrela, esate baterako, beraiek esandakoaren arabera, oso kexa orokortua da atxilotuei lo egiten ez uztearena: gauean zenbait aldiz iratzartzen dituzte eta egiten dituzte zigor gelatik irtenarazi ere. Era berean, lekualdaketei eta, bereziki, eskuburdinak jartzen diren moduari eta atxilotua haietan izatera behartzen duten jarrerei buruzko kexak aipatu zituzten. Azken batean, ukituriko pertsonen duintasuna ustez zaurtzen dituzten poliziaren jarduketak dira, baina haiek nekez egiaztatu ahal dira azterketa medikoaren bitartez.

Berrikuspenak eta polizi atestatuetan sarturiko gaztigu mediko ezberdinen arteko erkapenak eta atxiloketa-kasuetan sarritan erabilitako larrialdi-zerbitzuren batean jasotako informazioak ondorio bera dakar: zaila da horrelako azterketen bitartez frogatzea tortura edo tratu txar zehatzik dagoen, horrelako tratuak psikologikoak badira bereziki.

Eusko Jaurlaritzaren Justizi, Osasun eta Herrizaingo sailen artean sinatu berri da "*Komunikaziorik gabe atxilotutako pertsonenganako laguntza koordinatzeko protokoloa*", Ertzaintzaren, Osakidetzaren eta Legezko Medikuntzaren Euskal Erakundearen arteko hiru momentutako jarduketa-koordinazioa bilatzen duena, atxiloketaren oste-ostekoa, atxiloketakoa eta hura bukatu aurretikoa.

Protokolo hori oraindik berria da eta beraren benetako aplikazioa eta baliagarritasuna aztertu eta baloratu beharko da. Alabaina, Ertzaintzak atxilotutako azken pertsonen senideen kexek zalantzatan jartzen dute haren baliozkotasuna.

Azken lerrokadotan, lehen esan bezala epaileak salaketa bakoitza ikertzeari dagokion eremuaren barruan sartu gara. Edozein kasutan, hark egin beharrekoa egiteko dituen zailtasunetariko batzuk jakin eta jakinarazi ahal izan ditugu haren bitartez.

Poliziaren torturaren edo tratu txarren salaketen edo kontaketen aurrean, batzuek dena sinesten dute, itsumustuan, zalantzarik izan gabe; beste batzuek, ostera, erabat baztertzen dute haiek egoteko aukera ere; eta beste batzuek haien sinesgarritasuna baldintzatzen dute, salaketa egiten duen pertsona edo taldea nor den eta salaketak zuzentzen zaizkion polizi kidegoa zein den kontu.

Ez dut uste jarrerotariko ezein jarrera zuzena denik. Aurreiritzietan edo interesetan oinarrituriko jarrerak dira, aurreiritzi edo interes ezberdin eta, are, kontraesankorrak badira ere.

Tortura ezabatzeko behar den lehenengo baldintza hura egotea gerta daitekeela onartzea da. Adimen-jarrera da: errealitate bat egon daitekeela pentsatzen duenarena, nahiz eta hura desatsegina, baztertzeko modukoa edo, are, haren interesen kontrakoa izan arren.

Bigarren baldintza tortura ezartzeko gogo irmoa izatea da. Funtsean, jarrera etikoa da: giza duintasunaren kontrako eginerak erabiltzeari uko egiten dion gizarte zibilizatuarena.

Hirugarren baldintza eginera horiek prebenitzeko, saihesteko eta, hala denean, zigortzeko beharrezko bitartekoak jartzea da. Jarrera politikoa da, beharrezko baliabideak dituzten eta beharrezko neurriak hartzen dituztenena.

Erakunde honi dagokiona den prebentzio-arloan gaude jada, argi eta garbi. Egia da salaketak errepikatzea haien egiatasunaren froga ez dena. Hala ere, atxilotuen eskubideak zaurtzea prebenitu nahia dela eta, aipatu salaketak ikertu behar den inoizkako legezkontrakotasunaren zantzu bezala hartu behar dira kontuan. Edozein kasutan, salaketa horiek horrelako gertaerak etorkizunean gertatzea saihesteko neurria hartu beharra agerian jartzen dute.

Eta hori izan da erakunde honen lan-lerroa urte hauetan guztietan zehar: gune eta denbora opakoak txikitzea eta kontrol-mekanismoak indartzea.

Tortura ezabatzeko zigorgabetasuna hautsi behar da. Eta zigorgabetasuna gune opakoetan babesten da, jarduketa kontrolatu ezinean edo berau kontrolatzeko zailtasunean. Frogarik ez lekukorik ez badago, beste batzuen testigantzaren aurreko norberaren testigantza izango da.

Gure prebentzio-ikuspuntutik, oso argiak dira horrelako eginerak saihesteko eskura ditugun bitartekoak. Batzuk aipatuko ditut:

- Komunikaziorik gabeko denborak eta atxiloketaren luzamendua ezabatzea.
- Grabatzeko bitarteko teknikoak erabiltzea.
- Abokatuak atxiloketaren lehenengo uneetatik present egon eta esku hartzea.
- Polizi agenteen aurrean ez deklaratzeko beren eskubideari heltzen dioten pertsonak berehala epailearen eskutan jartzea.
- Presio bidez lortutako argibideak deuseztea.
- Erakunde bermatzaileen atxiloketa-lekuetarako bisitak, aurretik gaztigatu gabe.

Eta prebentzio-bitartekoak nahiko ez badira, ikerketa eta, hala denean, zehatzeko eta gaitza konpontzeko neurriak hartzea ezartzekoa da. Hala nola:

- Tratu txarrak susmatuta ofizioz ikertzea.
- Salaketak argitzeko polizi lankidetza.
- Epaiketetako azkartasuna edo haiek ez atzeratzea.
- Epaiak benetan betetzea.
- Eta gure sisteman nekez aipaturik dagoen zerbait: biktimari ordaintzea.

Bitartekootariko bakoitzak torturatzea erraztu edo posible egiten duen faktoreetarikoren bati erasotzen dio, edo neutralizatzen du. Bitarteko bakoitzak bere indarra du, bere prebenitzeko gaitasuna. Haiek guztiak edo berauetarik asko aplikatuz gero, tortura guztiz ezabatuko litzateke. Adierazpen Unibertsalean ezarritakoa hertsiki betetzea bermatuko du: "*Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere*"

Tortura guztiz ezabatzeaz gain, polizi egineren gaineko gizarte susmo osoa gaindituko litzateke. Perspektiba horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailarentzako gure gomendio bat hona ekarri gura dut, torturarekin loturiko arazoei begira NBEren kontatzaile bereziak mahaigaineratutakoarekin bat etorririk, beste alde batetik [E/CN4/1998/38].

Ziega aldeko korridoreetan dauden kameretatik egindako grabazioetan oinarrituriko kontrol-sistema bat atxiloketek irauten duten denbora osorako Ertzaintzaren komisaldegi guztietan ezartzeko gomendioaz ari

naiz. Gomendio hori 1999ko urrian egin genuen eta bere prebentzio helburua eraginkortasunez bete ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk finkatu genituen bertan. Horrela, esate baterako, oharrarazi zen ezen grabazioen ibilerak eta kontrolak atxiloketak egin eta atxilotutako pertsonak zaintzen dituzten polizi unitateetatik lokabe-lokabe izan behar du. Grabazioak berriro ikusteko eta, hala denean, antzemandako irregulartasunak ikertzeko eta zehatzeko prozedura bat ezarri behar da.

Eta mekanismo hori nahiko bermatuta ezarriz gero bi gauzatarako erabil zitekeela azpimarratu zen: alde batetik, atxilotutako pertsonen eskubideak zaintzeko eta, beste alde batetik, Ertzaintzaren ospea oinarririk gabeko kexa edo salaketa posibleetatik babesteko.

Modu berean, hainbat alderdi zuzenean egiazta daitezke, hala nola, zenbat aldiz irteten den atxilotua zigor-gelatik beste leku batzuetara eramateko eta zein ordutan eta zein unetan ematen zaizkion elikagaiak, edo zaintza-agenteek edo zonara sartu ahal diren beste batzuek atxilotutako pertsonari, esate baterako, lo egiten uzten ez dioten... Bistan denez, ez dira berriro ikusi behar atxiloketa guztien grabazio osoak. Prebentzio-ondorea sistema horrela abian jarrita lortuko litzateke.

Hasieran, gomendioa aplikatu ahal izateko zailtasun teknikoak gogora ekarri ziren. Geroago, haren bideragarritasun teknikoa frogatuta, Herrizaingo Sailak formalki onartu zuen gomendioa betetzea, eta berau aplikatzeko zenbait urrats egin zituen, grabazio digitaleko 28 ekipo erostea eta instalatzea bereziki. Ertzaintzaren ziegetarako bisiten bitartez egiaztatu ahal izan dugu ezen, pasatutako denbora gorabehera, sistema ez dela atxiloketa-leku guztietara orokortu; egin-eginean ere, ez da komunikaziorik gabe atxilotuentzat erabili ohi diren zigor gelen aldeetan ezarri. Beste alde batetik, ikusteko dago neurri hori benetan nola aplikatzen den, zein baldintzatan garatzen den, zelan kontrolatzen diren grabazioak eta grabaziook egitateak edo salaketak argitzeko bitarteko bezala erabiltzen diren.

Gure ustez, hori tortura prebenitzeko eta ezabatzeko urrats erabakigarria izango litzateke eta, bera aztertuta, sistema beste polizi kidego batzuek egindako atxiloketetara zabal liteke.

Errotik argitu behar dira atxilotutako pertsonen eskubideak errespetatzeari buruz gure gizartearen zati batean oraindik dauden zalantzak. Zalantza horiek, lantzean behin, honakook ekartzen dituzte: izua, familien oinazea, eztabaida antzua, elkarren kontrako bertsioak, okerrei alderdikoitasunez onura ateratzea, epaiketarik gabeko kondena publikoa, erakundeek ospea galtzea, mendeku-nahiak indartzea.

Horrek erabaki politikoa eskatzen du, erakundeen eraginkortasuna, Zuzenbideko Estatu baten tresna bermatzaile guztiak erabiltzea.

Erakunde honi hori gogoratzea dagokio, nahiz eta batzuei apika gustatzen ez zaien.

Izan ere, ETAk hildako Francisco Tomás y Valiente irakasleak idatzirik utzi zuen bezala, “*bahitzearen, torturaren, muturrekoaren eta garondoko tiroaren segida makabroan, txarrena tortura da*”. Izan ere, gizarte baloreak desegiten ditu, giza duintasuna zaurtzen du eta gizakien arteko konfiantza hondatzen du.

Eta hori esatean kontuan hartu dugu ezen gure artean daudela, oraindik, hiltzen duten pertsonak, hiltzeko prest dauden hiritarrak, albokoa suntsitzea normaltzat hartzen dutenak, hura beren buruan bizitzeko eskubiderik gabeko etsai bihurtzen dutenak.

Horrelako jokaeren aberrazio morala kondenatzen dugun modu berean, gaitzetsi behar dugu tortura haien kontra aritzeko erabiltzea. Ezin da hori Zuzenbideko Estatuan erabili.

Bukatzeko Ernesto Sábatok Argentinan desagertutakoei buruzko *Nunca más* izenburuko txostenaren hitzaurrean jasotako istorio bat kontatuko dut. Bertan adierazita dagoenez, Aldo Moro bahituta zegoela, segurtasun zerbitzuetako kide batek Della Chiesa jeneralari horri buruzko informazioa zuen preso bat torturatzea proposatu zion. Jeneralak honako hitz gogoangarri hauek baliatuz erantzun zion: “*Italiak Aldo Moro galtzea du. Ezin du, ostera, tortura ezarri*”.

Agian hitz horiek sistema demokratikoetan tratu txarrak eta tortura erabat ezabatzea lortzeko erari buruz hausnar egiteko erreferentzia bezala balio izan diezaguke. Horixe da jardunaldion helburua.

# III. ERANSKINA

# HAURRAK ETA NERABEAK ZAINTZEKO ETA BABESTEKO LEGE AURREPROIEKTUA ADINGABEEN ARARTEKOAREN IRUDIA SORTZEARI DAGOKIONEZ AZTERTZEN DUEN TXOSTENA

## I. SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak Haurrak eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko Lege Aurreproiektuaren behin betiko testua bidali dio gure Ararteko Erakundeari, jakitun egon gaitezen eta egoki irizten diegun gogoeta eta oharrak egin diezazkiegun.

Lehenik eta behin, gure erakundeak behin eta berriro eskatu duen lege aurreproiektu hau izatea oso ondo ikusten dugula esan behar dut, hain oinarrizko gaia araupetu gabe zeukan Autonomia Erkidego bakar bihurtzen gintuen araudi ezari amaiera emango baitio.

Ez dagokigu jaso dugun artikuluen testuaren edukiaren gainean gure irizpidea formalki adieraztea, gai honetaz sailak eta gure erakundeak hainbat bilera eta topaketatan iritziak elkarri jakinarazi dizkiogun arren.

Bai uste dugu, ordea, iruzkintzen ari garen Aurreproiektuaren 94 eta 95. artikuluetaz dugun iritzia jakinarazi behar dizuegula.

Aipatutako arau horiek Adingabeen Arartekoaren erakundea sortu eta betekizunak arautzen dizkiote.

Hara zer dioen aurreproiektu horren zioen azalpenean:

*“Erakundeen antolaketa araupetzean, V. Goiburuan, legeak Adingabeen Arartekoaren irudia sortzea aurreikusten du eta, ekimen horretarako, Europako Kontseiluko Parlamentuko Bilkuraren haurren eskubideen gaineko 1121 Gomendioan jasotako gomendioei, Europako Parlamentuaren A3-2149/91 eta A3-0172/92 Ebazpenei, haurrek Europako Batasunean dituzten arazoez eta Haurren Eskubideei buruzko Gutun batez, hurrenez hurren, jarraituz eta beste Autonomia Erkidego batzuetan, hala nola, Katalunia eta Madrilen, izendatutako zein gure inguruneko beste herrialde batzuetan, hala nola, Suedia, Norvegia, Danimarka, Erresuma Batua, Belgika eta Austrian izandako Parlamentuko Mandatarien esperientzietara gehituz.”*

Beste ezer baino lehen, gure erakundearen gogoetak batez ere Adingabeen Arartekoaren irudia sortzeak Ararteko erakundearen eginkizunetan zer-nolako eragina izan lezakeen gai nagusiaz izango direla esan behar dugu.

Ez dugu adingabeen eskubideen defentsarako erakunde bat sortzea ondo ala txarto dagoen zalantzan jarriko, baizik eta ea orain aztertuko ditugun arau horietan esandako terminoetan eratu behar den eta, zehazkiago, Legebiltzarraren mandatari izan behar duen.

## II. TXOSTENAREN GAI DUGUN AURREPROIEKTUAREN 94 ETA 95. ARTIKULUEN AURREKARIAK

Arestian esandako aurreproiektuaren zioen azalpenean arau horien aurrekariak zein diren adierazten zaigu, bai Europako bai beste autonomia erkidego batzuetako esparruetan.

Nabari den lehenengo kontua da esandako aurrekari horiek homogeneo izatetik oso urrun daudela, Zioen Azalpen horretan aipatzen diren irudiak oso izaera juridiko desberdinetakoak baitira.

Egiaztapen horrek ez du zehaztapen akademiko hutsa izan nahi, berarengandik txostenean zehar azalduko diren legezkotasun eta egokiera gogoetak ondorioztatu ahalko dira-eta.

Zehazkiago, aurreproiektuak Adingabeen Arartekoaren erakundeari esleitzen dion Eusko Legebiltzarraren mandatari gorenaren izaeraren gaineko, eta aurretiazko araudien, konstituzio, estatutu eta legezko esparruan nola txertatzen den gaineko hainbat gogoeta egingo dira.

## III. NAZIOARTEKO ZUZENBIDE KONPARATUA

Adingabeen defentsarako berariazko irudiak sortzea duela gutxiko kontua da.

**Norvegiako** Adingabearen Bulegoa mundu osoan sortu zen lehena izan zen, 1981ean, eta gainerako adingabeen defendatzaileen edo *Ombudsmen for Children* guztien eredu izan da. Administrazioaren aldetik haurraren eta familiaren gaietarako Ministerioaren mende dago, zeini urtero-urtero bere jardueren gaineko txostena aurkezten dion.

Gerora, Europako zati handi batean adingabeen defentsarako bulegoak jarriz joan dira, batez Eskandinaviar Herrialdeetan eta Europa Erdiko Herrialdeetan.

Hainbat herrialde hispanoamerikarretan, Australian eta Kanadan ere adingabeen defentsarako bulegoak sortu dira.

Irudi hauek eredu desberdinetan oinarritzen dira, sortzeko arauaren, gobernuari dagokionez duten jarrera edo tokiaren, independentziaren eta eginkizunen arabera.

Aldagai horiei aditzen badiegu, honelaxe sailkatuko ditugun ararteko edo defendatzaile horiek:

a) **Adingabeen defendatzaileak, adingabeen defentsarako erakunde bat sortzeko berariazko legean jasotakoak.**

Kategoria honetan, lehenago aipatutako Norvegiaz gain, Suedia, Islandia, Frantzia, Luxenburgo, Guatemala, Costa Rica edo Peru aipatu beharko genituzke.

Legebiltzarraren beren beregiko lege baten bidez sortu arren, ez ditu hark hautatzen, normalean Gobernuak, presidenteak zein ministerio zehatz batek hautatzen baititu.

Hartara, Adingabearen Arartekoa **Suedian** Gobernuak izendatzen du, eta ekonomia eta administrazioaren aldetik Osasun Publikoaren eta Gizarte Gaien Ministerioaren bidezko lotura dauka. Urtero txostena aurkezten dio Gobernuari Suediako adingabeen eskubideen errespetuaz.

**Islandian**, Adingabearen Arartekoa Lehenengo Ministroak izendatzen du, eta hari aurkezten dio urtero egindako lanaren txostena.

**Frantzian**, Adingabearen Arartekoaren irudia oso berria da (2000ko martxoaren 6ko 196 Legea) eta Errepublikako Presidenteak izendatzen du Ministroen Kontseiluaren bidez.

Urtero Errepublikako Presidenteari eta Parlamentuari txostena aurkezten die.

b) **Adingabeen defendatzaileak, haurrak babesteko legeen bidez sortutakoak.**

Defendatzaile batzuk haurrak babesteko berariazko araudiaren esparruan sortu dira.

Esaterako, Zeelanda Berriko, Austriako eta Kanadako Ontarioko arartekoak.

**Austrian**, Haurren Ongizatearen 1989ko Legeak *länder*-etako haurren arartekoak sortzea soilik aurreikusten zuen. Gerora, 1991n, Haurren Nazio mailako Arartekoa sortu zen, Ingurumen, Gazteria eta Familia Ministerioak sustatuta eta finantza eta politikoki mendekoa da. Aldi berean, Australiako länderretako adingabeen 9 arartekoak eta, bereziki, Styriakoa, Gazteriarako Tokiko Ministroak izendatzen ditu.

c) **Jada badiren erakunde publikoetan kokatzen diren arartekoak.**

**Danimarka** Nazio Kontzilio bat dago haurrentzat, eta Kontzilioko presidentea (Danimarkako Adingabearen Arartekoa) eta kide batzuk Gizarte Gaietarako Ministroak izendatzen ditu, eta ministerio horretan kokatzen dira.

Danimarkako Adingabearen Arartekoak urteko txostena prestatzen du, haurren eskubideen alde lan egiten duten GKEei, Gobernuko kideei eta politiko garrantzitsuei banatzen zaiena.

**Israelen** Adingabearen Arartekoaren Bulegoa jarri da, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik aritzen dena.

**Belgikan,** Flandes eskualdean, haurraz arduratzeko Bulego Ofizialak 1992an sei urtetik beherako haurren Defentsarako Zerbitzua sortu zuen.

**Alemanian**, haurren defentsa Parlamentuko Haurrentzako Batzordetik bideratzen da.

**Kanadan**, britainiar Columbian, Arartekoaren Bulegoak 1987an Arartekoaren Ondokoaren postu berria sortu zuen, haur eta gazteez arduratzeko.

Geroago ikusiko denez, **Espainian**, Estatuan zein hainbat autonomia erkidegotan, eginkizun hori arartekoei, arartekoen ondokoei esleitzen zaie edo, bestela, berariazko arloak sortzen dira.

d) **Gobernuz kanpoko erakundeek eratu eta zuzendutako Arartekoak.**

**Finlandiaren** kasua bitxiagoa da. Herrialde horretan, 1981ean sortutako Adingabearen Arartekoa gobernuz kanpoko erakunde baten mende dago, Haurraren Ongizaterako 100 kide dituen Mannerheim Ligaren mende, alegia, eta urteko txostenaren bidez bere jardueraren kontuak aurkezten dizkio.

Finlandiako *Ombudsman* Bulegoan, haurren eskubideen kexetarako ararteko bat dago.

**Israelen**, Haurrentzako Nazio Kontseilua deritzon GKEak 1990ean Haur eta Gazteen Arartekoa jarri zuen.

* * *

Ondorioz, azkeneko hogei urteotan adingabearen defentsarako irudi desberdinak sortu dira, batez ere Europan, oso izaera juridiko desberdinak dituztenak, eta adingabeen eskubideak babesteko asmoa izatean bat datozenak.

Horietako asko gobernuaren mende daude, edo hark izendatzen ditu, eta zenbait kasutan adingabeei buruzko berariazko ministerioei lotuta daude, eta gobernuaren aurrean urteko txostenaren bidez aurkezten dituzte kontuak.

Ez dago, beraz, aipatutako *Ombudsmen for Children* horien artean, zehatz-mehatz, parlamentuaren mandatari denik eta txostena Parlamentuaren aurrean aurkezten duenik, Madrilgo Autonomia Erkidegoko Adingabearen Arartekoaren kasuan eta Aurreproiektu honetan, aurrerago esango ditugun diferentziekin, proposatzen den irudiaren kasuan bezala.

## IV. HAURRAK BABESTEKO ESTATUKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO LEGEAK ETA ADINGABEEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO IRUDIAK SORTZEA

Adingabeentzako babes bereziko mekanismoak jarri behar direla hedatuta dagoen pentsamendua da, kolektiborik ahulenetako bat eta beren eskubideak urratzekotan erantzuteko ahalmenik gutxienekoa baitira.

Babes berezi horren beharraren sinestamenduak zioen azalpenean aipatutakoak bezalako adierazpenak ekarri ditu, bai Europako Kontseiluan bai Europako Batasunean, adingabeen eskubideak bermatzeko erakundeak sortzea gomendatzen baitute.

Haurrak babesteko Estatuko eta autonomia erkidegoetako lege desberdinek aukera hori modu desberdinetan aurreikusi dute.

Ikuspegi estu honetatik, hau da, adingabeen eskubideen babeserako defentsa erakunde baten balizko sortzeari dagokionez, dauden arauak honelaxe sailka genitzake:

a) **Haurrak babesteko legeak, adingabeen eskubideen defentsarako beren beregiko inolako erakunderik sortzea aurreikusten ez dutenak**.

Kategoria honetan, arrazoi bat edo besterengatik, adingabeen defentsan jada badiren berme bitartekoak sendotuko dituen inolako mekanismorik sartu ez duten lege guztiak leudeke (6/1991 Legea, martxoaren 21ekoa, Balear Irletako Autonomia Erkidegoko jardueraren gainekoa, adingabe lege urratzaileengan aplikatu beharreko neurri judizialei buruzkoa, eta 7/1991 Legea, martxoaren 21ekoa, **Balear Irletako** adingabe babesgabeak zaindu eta babestearen gainekoa; 1/1997 Legea, otsailaren 1ekoa, **Kanariar Irletan** adingabeen artapen osoaz; 3/1999 Legea, martxoaren 31koa, adingabeen gainekoa, **Gaztela - Mantxakoa**; 4/1994 Legea, azaroaren 10ekoa, adingabeen babes eta zaintzaren gainekoa, **Extremadurakoa**; 3/1995 Legea, martxoaren 21ekoa, haurren gainekoa, **Murtziako Eskualdekoa**; 5/1998 Lege, martxoaren 18koa, adingabearen gainekoa, **Errioxakoa**, eta 7/1994 Legea, abenduaren 5ekoa, Haurren gainekoa, **Valentziako Erkidegokoa**).

b) **Adingabeen Arartekoaz bestelako erakundeak sortzea aurreikusten duten legeak**.

1/1991 Legea, urtarrilaren 27koa, Adingabea babesteko, Asturiasko Printzerrikoa. 23. artikuluan Adingabearen Batzordea sortzeaz ari da, adingabeen babes, prestakuntza eta arretarekin zerikusia duten arlo desberdinetako profesional arduradunek osatutako erakunde kolegiatu modura.

c) **Adingabeen Arartekoa Herriaren Arartekoaren egituraren barruan sartuz eta autonomia erkidego bakoitzeko izen desberdinekin sortzea aurreikusten duten legeak.**

Adingabeen defendatzailerik sortzea aurreikusten duten araurik gehienek ez dute erakunde berririk abian jartzea pentsatzen, baizik eta, jada autonomia erkidego bakoitzean izen desberdina duen Herriaren Ararteko erakunde orokorra dagoela baliatuz, haren egituraren baitan sartzen dute.

Kasu honetan soluziobideak ere ez dira berdinak, eta aukera desberdinak planteatzen dira.

- 1/1996 Lege Organikoak, urtarrilaren 17koak, Adingabearen Babes Juridikoaren, Kode Zibilaren eta Auzipetze Zibilaren Legearen aldarazpen partzialaren gainekoak, 10. artikuluan eskubideez baliatzea errazteko neurriak jartzen ditu, eta artikulu horretako 2 e) atalean *"bere eskubideak defendatu eta bermatzeko, adingabeak kexak Arartekoari aurkez diezazkioke. Horretarako, Arartekoaren Ondokoren batek adingabeekin zerikusia duten gaiez arduratuko da"* dio.

  Estatuko Arartekoaren 1996ko urteko txostenean, 61. orrialdean, lerroalde hau ageri da:

  > *"Izan ere, Adingabearen Babes Juridikoaren, eta Kode Zibilaren eta Auzipetze Zibilaren Legearen Aldarazpen Partzialen 1/1996 Lege Organikoak, 10. artikuluan, "eskubideez baliatzea errazteko neurriak" izenburupean, dio Arartekoaren Ondokoetako batek adingabeekin zerikusia duten gaien ardura iraunkorra izango duela. Arau honetan xedatutakoaren haritik, haurrei buruzko kexak Arartekoaren Lehenengo Ondokoak eta adingabea zaintzeko arloak jorratzea erabaki zen, tramitazioa kexaren xede zen gaian eskuduna den arloak egiten jarraituko duen arren".*

- 1/1998 Legeak, apirilaren 20koak, Adingabearen Eskubideez eta Arretaz, **Andaluzian**, 4. artikuluan adingabearen eskubideen defentsa araupetzen du.
  Artikulu horren c) atalean adingabeek *"kexak Adingabearen Arartekoaren aurrean aurkeztu ahalko dituztela".*
  Artikuluak gehitzen du *"zentro guztietako agintari edo arduradunek Adingabearen Arartekoari eskatzen zaien informazio guztia emango diotela". "Adingabearen Arartekoa"* goiburua duen arau honen lehenengo xedapen gehigarriak hauxe dio:
  "Andaluziako Adingabearen Arartekoaren irudia ezarri da, Andaluziako Herriaren Arartekoaren Ondoko gisa".

  Ondore horietarako, Andaluziako Arartekoaren gaineko abenduaren 1eko 8. artikuluaren 1. atala honelaxe idatzita dago:

  > *"1. Andaluziako Arartekoak hiru laguntzaile izango ditu ondoan, zeini bere eginkizunak eskuordetu ahalko dizkien, eta zeinen artean Andaluziako Adingabearen Arartekoari dagozkion eginkizunetan arituko dena izendatuko duen".*

- Adingabeak Babesteko abenduaren 14ko 10/1989 Legeak, **Aragoikoak**, 10. artikuluan, hauxe zioen:

  > *"Aragoiko Justiziak Gorteentzako urteroko txostenean Autonomia Erkidegoko Administrazioaren adingabeen babesaren gaiko jarduera baloratuko du, bereziki haien eskubideez balia daitezen errespetuari dagokionez. Horretarako, Autonomia Erkidegoko Administrazioari behar dituen datu guztiak eskatu ahalko dizkio".*

  Haurren eta Nerabeen Lege berriak, 2001eko uztailaren 20koak, **Aragoikoak**, eskubideez baliatzea bermatzeko neurriak araupetzen dituen 8. artikuluan, 2, e) atalean, dio adingabeak *"kexak Aragoiko Justiziaren aurrean edo, bestela, Arartekoarenean aurkeztu ahalko dituela".*

  Artikulu bereko 4. atalean hauxe dio:

  > *"Aragoiko Justizia Sailak haurren eta nerabeen eskubideak defendatuko ditu, haurren eta nerabeen babesaren alorrean indarrean dagoen legedia bete dadin zainduko du, haurren eta nerabeen babesa hobetzeko ezar litezkeen neurriak proposatuko ditu, eta haurren eta nerabeen eskubideen eta kolektibo horiez hobeto arduratu eta zaintzeko hartu behar diren neurrien gaineko informazioa sustatuko du. Adingabeen eskubideak gauza daitezen bermatzeko:*
  > *a) Adingabeei erakunde honetaraino iristeko bidea errazteko neurriak hartuko ditu.*
  > *b) Ofizioz edo alderen batek eskatuta ekingo dio lanari, adingabeen eskubideen balizko urraketarik izan delako kexen espedienteak tramitatuz.*
  > *c) Bere betekizunak egiteko behar dituen datu eta txosten guztiak eskatuko dizkio Herri Administrazioari.*
  > *d) Aragoiko Gorteei urtero aurkeztu behar dien txostenean herri erakunde eskudunaren jarduera baloratuko du, batez ere adingabeen eskubideen gauzatzearen errespetuari*

*dagokionez. Txostenean babes neurriak aplikatzen zaizkien edo neurri judizialak betetzen ari diren adingabeen egoeraren gaineko berariazko atalak jasoko ditu.*

*e) Autonomia erkidego zein tokiko administrazioei eskubideak izatez betetzeko, edo legeetan aurreikusitako egitarau edo jarduerak abian jar ditzaten eskatu ahalko die."*

- 8/1995 Legeak, uztailaren 27koak, haur eta nerabeen arreta eta babesaren gainean aritu eta 37/1991 Legea aldarazten duenak, **Kataluniakoak**, hauxe dio 11.7 artikuluan:

  *"Síndic de Greuges" delakoaren martxoaren 20ko 14/84 Legea aldarazten duen abenduaren 14ko 12/1989 Legeak xedatzen duenaren arabera, haurrek eta nerabeek ere "Síndic de Greuges" horrengana zein Haurren Defentsarako haren Ondokoarengana jo dezakete, beren kexak ebatz ditzaten".*

- Bestalde, ekainaren 9ko 3/1997 Legeak, Galiziakoak, familia, haur eta nerabeen gainekoak, haurren eta nerabeen eskubideak araupetzen dituen 9. artikuluan, 1 c) atalean dio haurrek eta nerabeek hauxe egin ahalko dutela dio:

  *"Estatuko Arartekoaren eta Valedor do Pobo delakoaren aurrean kexak aurkeztuko ahalko dituzte. Horretarako, Vicevaledor direlakoetako batek adingabeekin zerikusia duten gaien ardura iraunkorra hartuko du.*
  *Valedor do Pobo horrek, bereziki haurrei eta nerabeei buruzkoak diren eskubideen defentsarako eskumenak Vicevaledore dituenetako bati esleituko dizkio.*
  *Zentro guztietako agintari edo arduradunek Valedoreari eskatzen dien informazio guztia emango diote.*
  *Adingabeen ardura duen Vicevaledoreak honakoetan bereziki saiatuko da:*
  *Haurren eta nerabeen eskubideen maila guztietako defentsan.*
  *Haurren eta nerabeen babesaren alorrean indarrean dagoen legedia errespeta dadin zaintzen.*
  *Valedor do Poboren bidez haurren eta nerabeen babesa hobetzeko zer-nolako neurriak aplika litezkeen zein jadanik daudenen aplikazioa nola hobe litekeen proposatzen.*
  *Gizartearen aurrean haurren eta nerabeen eskubideen eta kolektibo horiez hobeto arduratu eta zaintzeko hartu behar diren neurrien gaineko informazioa zabaltzen."*

- Aipamen berezia merezi du 7/1999 legeak, apirilaren 28koak, **Kantabriako** Autonomia Erkidegoko Haurren eta Nerabeen Babesaren gainekoak.

  Eskubideen bermea eta defentsa araupetzen duen 9.3 artikuluan hauxe dio:

  *"Kantabriako Arartekoaren irudia araupetzen duen Kantabriako Parlamentuko Legeak haur eta nerabeei buruzko eskubideen defentsarako Arartekoaren Ondoko bat jarriko du".*

  Oraindik Kantabriako Arartekoaren irudia eratu gabe dagoen arren, legeak sortzen denean adingabeen eskubideen defentsarako ondoko bat izateaz pentsatu beharko dela aurreikusten du.

* * *

Lege horiek, beraz, gaia hiru modu desberdinetan jorratzen dutela ikusten dugu:

- Arartekoaren Erakundera bideratzen dute, inolako kontrol erakunderik zehaztu gabe, adingabeen eskubideen defentsa (Aragoi).
- Arartekoaren erakundean jada badauden Ondoren bati agintzen zaio adingabearen eskubideak babestea (Estatuan, Andaluzian, Galizian).
- Adingabeen eskubideen defentsarako eta babeserako beren beregi sortutako arartekoaren ondokoaren esku lagatzen da (Katalunian).

d) **Adingabeen Arartekoa parlamentuko mandatari sektorial modura sortzea aurreikusten duen Legea.**
**Madrilgo Erkidegoan** Haur eta Nerabeen eskubideen bermeen gaineko martxoaren 28ko 6/1995 Legeak, 76. artikuluan, Adingabekoen Arartekoa sortu zuen, Madrilgo Biltzarraren Mandatari Goren

modura, Madrilgo Erkidegoan adingabeen eskubideak zaintzeko, eta biltzarraren lege baten esku lagatzen ditu haren estaldura, funtzionamendu araubidea eta jarduteko prozedura.
Uztailaren 8ko 5/1996 Legeak Madrilgo Erkidegoko Adingabearen Arartekoa araupetu zuen.
Berritasunik garrantzitsuena da parlamentuaren mendeko Ararteko sektoriala sortu zela –adingabeen eskubideen defentsan soilik jarduteko–, parlamentuaren mendeko Ararteko orokorrik ez duen autonomia erkidegoan.

**e) Adingabeen Arartekoa jada parlamentuaren mendeko ararteko orokor bat daukan autonomia erkidegoan, parlamentuaren mandatari sektorial modura.**
**Euskal Autonomia Erkidegoko** haurren eta nerabeen arreta eta babeserako Legearen aurreproiektuak eskuartean daukagun gai honetako berritasun handi modura, jada ararteko orokor bat daukan (gure Ararteko erakundea) autonomia erkidego batean adingabeen eskubideen defentsarako parlamentuaren mandatari sektoriala sortzea dakar.

* * *

Ondorioz, ikusten dugu eskubide hauen berme bereziko sistemaren bat aurreikusten duten haurrak eta nerabeak babesteko legeek ararteko orokorrik ez duten autonomia erkidego batean ararteko sektoriala sortzen dutela –Madrilgo Autonomia Erkidegoa– edo ararteko hori jada eratuta dagoen –Estatua, Katalunia, Andaluzia, Galizia, Aragoi– edo eratzekoak diren -Kantabria- ararteko orokorraren egituraren baitan sartzen dutela.

Aztergai dugun aurreproiektuaren aukeraren modukorik ez da orain arte ikusi, zeren jada ararteko orokorra dagoen tokian ararteko sektoriala sortzen baita.

## V. ARARTEKOEN LEGEAK ETA ADINGABEEN ESKUBIDEEN DEFENTSA

Orain arte esandakotik arartekoak araupetzen dituzten lege desberdinek haurren eta nerabeen defentsa nola aurreikusten duten ikustea funtsezkoa dela baiezta dezakegu.

a) **Adingabearen eskubideak defendatzeko beren beregiko arartekoaren ondokoa sortzen duen legea. Kataluniako** *Sindic de Greuges*-en martxoaren 20ko 14/1984 legeak, hemen interesatzen zaigunaren aldetik abenduaren 14ko 12/1989 legeak aldarazita, 34.5 artikuluan hauxe dio: *"Síndic de Greuges-ek, Parlamentuko Batzordearen adostasunaz, bere konfiantzako pertsona bat izendatu ahalko du haurren defentsarako bere Ondokoa izateko, eta pertsona horrek 7. artikuluan esandako baldintzak beteko ditu eta ez da 8. artikuluan zerrendatutako bateraezintasunen mende egongo."*

b) **Jada badauden arartekoen ondoko batzuei adingabeen defentsa esleitzen dieten legeak.**

- Arartekoen ondokoen eskumenak araupetzen dituen Arartekoaren gaineko apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 12.1 artikulua aztertzean, arestian esandakoa kontuan izan beharko da, hau da, Adingabearen Babes Juridikoaren 1/1996 Legetik aurrera, haurrei buruzko kexak Ondoko Lehenengoak eta adingabearen arloak koordinatuko dituztela, tramitatu kexaren gaian eskumena duen arloak tramitatzen jarraituko duen arren.

- 9/1983 Legeak, abenduaren 1ekoak, Andaluziako herriaren Arartekoarenak (**Defensor del Pueblo Andaluz** delakoa), alderdi honetan abenduaren 11ko 11/2001 Legeak aldarazi zuenak, 8.1 artikuluan hauxe dio: *"Andaluziako Herriaren Arartekoak lau ondokoren laguntza izango du, bere eginkizunetarako eskuordetu ahalko dituenak, eta lauetako bat Andaluziako Adingabeen Ararteko modura dagozkion eginkizunetan lagun diezaion izendatuko du".*

- 6/1984 legeak, ekainaren 5ekoak, Galiziako Arartekoarenak (**Valedor del Pueblo de Galicia)**, alderdi honetan martxoaren 26ko 1/2001 legeak aldarazitakoak, 8. artikuluan hauxe dio: *"Valedor do Pobok gehienez hiru vicevaledorren laguntza izango du, zeintzuk bere eginkizunen eskuorde izan ahalko diren eta, beren izendapenean finkatzen den ordenaren arabera, eginkizun horietan ordeztuko duten",* eta ekainaren 9ko 3/1997 legearen 9. artikulutik aurrera, *"Valedor do Pobok, bereziki haur eta nerabeenak diren eskubideen defentsarako eskumena vicevaledoreetako bati esleituko dio".*

c) **Bereziki babestutako kolektiboen gaineko bestelako aurreikuspenik eransten duten legeak.** Adingabeen defentsa arartekoen ondokoei esleitzen dieten arestian aipatutako legeez gain, Arartekoen gaineko legeetan bestelako aurreikuspenak sartzen dira, edo halako gaiei erantzun besterik ez diete egiten, barne antolamenduzko irizpideen bitartez.

- Ez da adingabeenaz bestelako kolektiboen babesik aurreikusten duen legerik falta, hala nola, **Kanariar Irletako Diputado del Común** delakoaren uztailaren 31ko 7/2001 Legea, bere 11.4. artikuluan hauxe dioena: *"Diputado del Común delakoak bere ondokoetako bati adinekoen eskubideen babesaz bereziki ardura dadin aginduko dio"*.

- Beste lege batzuetan, hala nola, Gaztela – Mantxako Arartekoarenean (Defensor del Pueblo de Castilla – La Mancha), arararteko horren bulegoaren oinarrizko egituran sartutako berariazko bulegoen izatearen araudizko aurreikuspena sartzen da.

  10.3 artikuluan hauxe dio:

  *"Arartekoaren bulegoak, gutxienez, honako arduretarako berariazko bulegoak izango ditu:*
  *a) Emakumeen Eskubideen Bulegoa*
  *b) Adingabeen Eskubideen Bulegoa*
  *c) Etorkinen Eskubideen Bulegoa*
  *d) Gaztela - Mantxako osasun sistemaren Erabiltzaileen Defentsarako Bulegoa*
  *e) Hezkuntzarako Eskubideen Bulegoa*
  *f) Gai Orokorren Bulegoa"*

  Ikusten dugunez, Gaztela – Mantxako Arartekoaren legeak irizpide mistoa erabiltzen du, eta garrantzi berezia ematen die kolektibo jakin batzuen (emakumeak, adingabeak, etorkinak eta osasun sistemaren erabiltzaileak) eta gai jakin batzuen babesari (hezkuntzarako eskubidea).

- Ararteko desberdinak araupetzen dituzten gainerako legeetan, autonomia erkidego bakoitzean dituen izen eta izaera desberdinekin, ez dago adingabeen edo bereziki ahulak diren beste kolektibo batzuen eskubideen babesaren aurreikuspen espresik eta, horregatik, barruko antolaketak eta erakundearen jarduera eremu desberdinetan banatzen den moduak erakusten digu kolektibo horien eskubideei nola heltzen dieten.
  (Ararteko erakundea sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legea; Valentziako Generalitateko 11/1986 Legea, abenduaren 26koa, Síndico de Agravios delakoaren gainean; 4/1985 Legea, ekainaren 27koa, Aragoiko Justizia araupetzen duena; Nafarroako Foru Erkidegoaren Arartekoa araupetzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea; Gaztela eta Leongo *Procurador del Común* delakoaren gaineko martxoaren 9ko 2/1984 Legea).

- Hemen bereziki interesa dakigukeenari dagokionez, **Ararteko** erakundearen barruko antolamendua zein den adierazi behar dugu.
  Gure erakundearen jarduera, kexen tramitazioari eta ofiziozko esku hartzeari dagokienez, funtsean administrazioko esparru materialei erantzuten dieten sail desberdinetan egituratzen da (Hirigintza eta Etxebizitza, Ogasuna, Hezkuntza, Funtzio Publikoa, Herrizaingoa...).
  Sail horien eta beren azpisailen azkeneko definizioa eta egituraketa 1999an egin zen, eta Eusko Legebiltzarrarentzako 1999ko txostenean islatu zen (142 – 145 orr.).
  Adingabeen eskubideei ikuspegi material honetatik heltzen zaie, sail desberdinetan. Gizarte Ongizate Sailean, "Haur eta nerabeen laguntza" azpisailean, Hezkuntza Sailean, funtsean "Haur hezkuntza", "Lehen Hezkuntza", "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza", "Hezkuntza berezia" azpisailetan; Justizia Sailean "Adingabe lege urratzaileen sailean".
  Gainera, gerta daiteke beste sailetan ere adingabeak ukituta egotea ere (Osasun sailean, Kultura eta Elebitasunean, Herrizaingo sailean).
  1999an, urteko txostenean bertan ageri denez (145. or.), gaikako banaketari erantzuten dion sailen tradiziozko egitura bereziki kualifikatuta dauden zenbait kolektibori ukitzen dieten eta Ararteko erakundearen jarduerak jorratu izan diren sailetan sakabanatuta dauden gaien tratamenduarekin osatzen da.
  Ondore horietarako bost sail eratu ziren, zeharkakoak direla esan genezakeenak, eta aholkularien artean sail horietako beste hainbeste arduradun izendatzen dira, Ararteko erakundearen jarduera berariazkoak planifikatu, sustatu eta agin ditzaten, kolektibo horiei dagokienean.

Beraz, ondokoen berariazko arazoei aditzeko beren beregiko bost jarduketa sail sortu dira:

- emakumeak
- adinekoak
- adingabeak
- atzerritarrak
- ezgaituak

Adingabeen arretarako sail honetatik jarduketa desberdinak egin dira, Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten zaizkion txostenetan islatuta geratu direnak.

d) **Legeak adingabearen eskubideetarako ararteko sektoriala sortzen du.**
Madrilgo Autonomia Erkidegoan Adingabearen Arartekoaren uztailaren 8ko 5/1996 Legeak, kasu honetan, bere izenak adierazten duenez, Adingabearen Arartekoa Madrilgo Biltzarreko Mandatari Goren modura sortzen du, Madrilgo Erkidegoan adingabeen eskubideak babestu eta sustatzeko.
Madrilgo Autonomia Erkidegoak parlamentuaren mandatari den ararteko sektoriala sortzearen aldeko apustua egiten du, eta ararteko orokorra sortzeko aukera baztertzen du, agian Estatuko Arartekoaren egoitza Madrilen dagoenez, erkidego horretako herritarren eskubideak berme erakunde horren presentziarekin nahikoa babestuta daudela irizten diolako.

## VI. ESKUBIDEEN DEFENTSAKO IRUDIEN ARTEKO DIKOTOMIAK ZERRENDA EDO SEKTORIALAK SORTZEN DITU

XX. mendeko bigarren erditik pertsonen eskubideen berme eta defentsarako bitartekoak, oso izaera juridiko eta ezaugarri desberdinetakoak, ikaragarri ugaltzen ari dira.

Horren ildotik, Suediako *Ombudsmanaren* antzeko irudiak arrakasta nabarmenaz erakundetu dira, izen eta eginkizun desberdinekin, herrialde desberdinetako konstituzio eta legedietara eta lurralde esparru desberdinetan (estatu, eskualde, tokian tokikoetan) sartu direnak.

Bestalde, gai desberdinak araupetzen dituzten legeetako askok, beren artikuluetan, asmo bermatzailez, pertsonen defentsa eta babeserako edo arautzen diren gaiei buruz izaeraz oso desberdinak diren irudiak sartu dituzte.

Hartara, adineko pertsonen, atzerritarren, ezgaituen, zergadunen, unibertsitateko ikasleen, osasun zerbitzuetako paziente eta erabiltzaileen, soldaduen, buruko gaixoen, presoen… defendatzaileak sortzea planteatu izan da, baita kasu batzuetan sortu ere. Pentsatu zerrenda hori beren eskubideen babes berezia behar lezaketen kolektibo guztietara heda litekeela.

Bestalde, gai jakin batzuei buruzko defendatzaile sektorialak sortzeko pentsamendua ere piztu da: Ingurumenaren Arartekoa, Hezkuntza Eskubidearen Arartekoa…

Era berean, irizpide material horretatik, izan litezkeen garrantzi bereziko esparruak beste ararteko plantea litezke.

Ez da falta izan, erakundezkoa ez den ikuspegi batetik, irakurlearen edo zenbait hedabidetan ikus-entzulearen, banku handi batzuetako bezeroen, merkataritza gune handieren bateko kontsumitzaile edo bezeroen defendatzailea bezalako irudi bermatzailerik sortzea.

Espezializazio eta sektorez sektorekako dinamika honetan, aipatu ditugun kolektibo handi horien barruan azpitaldeak sortzeko aukera ere planteatzen hasi da. Hartara, esaterako, aurrez aurre jartzen zaien egoeraren ezbairik gabeko larritasunaren aurrean, badago tratu txarrak jasandako emakumeen defentsarako erakundea aldarrikatzen duenik, haien babesari modu zehatzean heltzeko, emakumeen defentsa erakunde generikoari nahikoa iritzi gabe.

Ararteko orokor / ararteko sektorial binomio honetan ezinbestean antagonikoak behar ez duten bi kontzepzio aurrez aurre jartzen dira.

Ikuspegi orokorrean, eraginkortasun, baliabide pertsonal eta materialak ahalik eta ondoen erabiltzeko, arazoen osoko tratamenduko eta halako irizpideak planteatzen dira.

Aukera horren kritika modura, pertsona guztien eskubide guztiak oro har jorratzeak kolektibo batzuen zenbait arazo “ahanztea”, edo horiei heltzeko behar bezain bizi edo behar beste ahaleginez ez aritzea ekar lezakeela aipatzen da.

Ikuspegi sektorialaz aldarrikatzen den abantaila arazo zehatz batez esklusiban aritzea litzateke, izan ere, eta horrek ahalegin guztiak lan horretan jartzeko aukera emango luke, espezializazio handia ahalbidetzeaz gain.

Desabantailak arazoen tratamendu orokorrik ez litzatekeela egongo, eta berme irudi sektorialen inflazioak baliabide pertsonal eta materialak ikaragarri sakabanatzea ekarriko lukeela lirateke.

Egia da errealitateak ez dituela egoera "geldoak" aurkezten, errealitatea konplexua da eta bere osotasunean jorratu behar da.

Hartara, adingabeak, gainera, gaixorik egotea, atzerritarrak izatea, eskolatuak egon ala ez egotea... gerta daiteke

Emakumeek ezgaitasun fisiko zein psikikoa izan, hirugarren adinekoen multzokoak izan zein preso egon litezke.

Halako kasuetan pertsona horiei planteatzen zaien arazo baten aurrean balizko ararteko sektorialetako zeinek esku hartu beharko lukeen galdera egin genezake.

Esparru sektorial zehatz batetik esku hartzeak hura bezain garrantzitsuak diren gainerako errealitateak alboratzea ekar lezake.

Horregatik, gero eta gehiago, sintesi aukera batean, egitura orokorrak sortzearen alde egiten da, non, erakunde bakoitzak irizten dion bizitasunaz, babes berezia behar duten kolektibo edo gaietako arazoak sakonago edo gehiago jorra litezkeen.

Nolanahi ere, eskuartean daukagun suposamenduan, kontua ez da hainbeste berme irudi orokorretara ala sektorialetara jo behar dugu, sarritan erakunde orokorrak eta sektorialak aurkitzen ditugu-eta.

Halakoetan izaera juridiko berekoak ez direla gertatu ohi da.

Hartara, esaterako, izaera orokorreko parlamentuko ararteko baten ondoan, gai bakoitzean hurrenez hurren eskudunak diren sailen edo erakundeei atxikitako ararteko sektorialak ere aurkitzea gerta daiteke.

Gure Autonomia Erkidegoa adibide modura aipatzearren, tramitatzen ari den Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen proiektuan emakume eta gizonen berdintasunerako defentsa erakundea sortzen da eta, gainera, gure Ararteko erakundearen eginkizunetatik argi eta garbi bereizi eta mugatutako egitekoak esleitzen zaizkio, eta Emakunde / Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Erakundeari atxikitzen zaio.

Madrilgo Autonomia Erkidegoa, bestalde, lehenago ere esan dugunez, parlamentuko Ararteko sektoriala duen bakarra da. Madrilgo Autonomia Erkidegoko Osasun Artapenaren Antolamendurako abenduaren 21eko 12/2001 Legeak, 36tik 39 artikulura bitartean, Pazientearen Arartekoa sortzen du, parlamentuko izaera eman barik, "osasun Administrazioaren erakundea" dela dioena eta, bestalde, "Osasun Sailaren baitan erakunde independente" gisa definitzen duena baizik.

Kasu honetan, Madrilgo Autonomia Erkidegoak ez du aurreikusten parlamentuko ararteko sektorialik batera suerta daitezen ere, zeinetan, gutxienez, eskumenen konkurrentziarik egongo ez litzatekeen, eta Osasun Administrazioan sartzen du.

Pentsatzekoa da parlamentuaren mandatari izaera bera luketen ararteko sektorialen kopuru zehaztugabea egotekotan nolako zailtasun handia sor litekeen.

Ez da hori aztergai dugun aurreproiektuak proposatzen digun egoera, bertan parlamentuko mandatari izaera eta, adingabeen defentsari dagokionez, gure Ararteko erakundearen eginkizun berdinak izango dituen ararteko sektoriala proposatzen baita,.

## VII. ADINGABEEN PARLAMENTUKO DEFENDATZAILE BAT AURRETIAZ DAGOEN ARAUDIAN NOLA TXERTATZEN DEN AZTERTZEA: KONSTITUZIOAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUTONOMIA ESTATUTUAN ETA LEGE ARAUTZAILEETAN

Espainiako 1978ko Konstituzioan Herriaren Defendatzailea edo Arartekoaren irudia sartzearekin, herritarren eskubide eta askatasunen defentsa indartu nahi izan zen, eta bermeen konstituzio sistema perfekzionatu zen.

Zenbait autonomia erkidegok beren hurrenez hurreneko autonomia estatutuetan autonomia esparruko legebiltzarretako mandatariak sortzea aurreikusi zuten, Estatuko Herriaren Defendatzailearen antzekoak, eta ezaugarrietan bat datoz, baina bakoitza dagokion esparrura mugatuta.

- Parlamentuko izaera daukate, eta hautatzen dituzten eta beren jardueren kontu eman behar dieten legegintzarako ganbara edo biltzarretako mandatariak dira.
- Funtsezko eginkizun modura konstituziozko eskubideak eta askatasunak babestu behar dituzte, baita Administrazioaren funtzionamendua zuzena dela kontrolatu ere, eta horretarako, beren jardueraren oinarrizko bitarteko gisa, herri administrazioen beren jarduera ikuskatzaile gaitasuna eman zaie.

- Beren eginkizunetan aritzeko autonomia eta irizpide independentzia daukate, eta ez daude inongo aginduzko manamenduren mende.
- Beren jardueran aritzeko, titularrek bortxa-ezintasun eta inmunitatezko eskumen eta berme bereziak dituzte.
- Ez dira hertsatzaileak, gogatze edo konbentzitzera soilik bideratuta baitaude.

Konstituzioaren testuaren 54. artikuluan kokatuta egoteak berak adierazten digu txertatuta dagoen I. Goiburuko eskubide guztiak bermatzeko sistema modura sortzen dela.

Horregatik, Estatuko Arartekoa eta autonomia erkidegoetako arartekoak konstituzioan eta dagozkien estatutuetan pertsona guztien eskubide guztiak defendatzeko erakunde modura diseinatzen dira, eta pertsona bakarreko erakunde modura egituratzen dira, zeini erakundearen multzoaren ordezkaritza eta titularitatea esleitzen zaizkion.

Jada esleitutako eskumen orokordun erakundeak dituzten autonomia erkidegoetan irudi sektorialak sortzeko aukera aurretiaz dagoen konstituzio, estatutu eta lege araudien esparruak baita arau horietatik eratorritako eta esan berri ditugun ezaugarriek beraiek ere baldintzatuta dago.

Araudien esparrua aztertzean, konstituzioaren testuaren 54. artikulua aipatu dugu, Herriaren Defendatzailea *“goiburu honen barruko eskubideak defendatzezko”* sortzen duena; EAEko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluak hauxe dioela ere esan behar dugu:

*“Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere Legebiltzarraren legearen bidez, eta Konstituzioaren 54. artikuluak finkatutako erakundea errespetatuz, aipatutako artikulu horren hizpide dituen eginkizunak, eta Legebiltzarrak agin liezaiokeen beste edozein, harekin koordinatuta egin ditzan antzeko erakunde bat sortu eta antolatzea.”*

Hor idatzi dugun araua, oso teknika juridiko eskasekoa, ikaragarri zehaztugabea da, antzeko irudiak aurreikusten dituzten estatutuko aurreikuspenekin alderatzen badugu, Galiziako Estatutuan arautakoarekin ezik, hura EAEko estatutuaren ia berdin idatzita baitago.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluak ez dio ezer erakundearen izenaz, ez eta legebiltzarraren mandatari izaeraz, eta nork izendatu behar duen, zein eginkizun izango duen ere. Eginkizunez dio *“aipatutako artikuluak* [Espainiako Konstituzioaren 54. artikulua] *hizpide dituenak eta Eusko Legebiltzarrak eman liezaiokeen beste edozein direla”*. Finkatzen duen bakarra da Legebiltzarraren Lege baten bidez sortu behar dela eta, *“E.K.ren 54. artikuluak finkatutakoaren antzeko erakunde”* izan behar duela, eta harekin koordinatuta lan egin behar duela.

Alberto López Basaguren eta Gonzalo Maestrok, Estatutuaren artikulu hori aztertzean hauxe diote:

*“Euskal Autonomia Erkidegoko Ombudsmanaren ezaugarritzea erabat zorduna dago Konstituzioaren 54. artikuluan Estatuko Herriaren Defendatzailearen ezaugarritzearekin, Autonomia Estatutuaren 15. artikuluak argi eta garbi dioenez”.*

Eta hauxe gehitzen dute:

*“Artikulu honen idazketa ez da oso egokia, benetan. Baina guri orain interesatzen zaigunari dagokionez, lehenik eta behin, Estatutuak estatuko Herriaren Defendatzailearen aldi berean izango den autonomia erkide mailako Ombudsman bat egotea eta harekin koordinatuta lan egin dezan aurreikusten duela esan nahi du; eta bigarren, Euskal Autonomia Erkidegoko Ombudsmanaren estatuzko ezaugarritzea ere arau goreneko 54. artikuluko Herriaren Defendatzailearen konstituziozko ezaugarritzean oinarrituko dela adierazi nahi digu.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak Autonomia Erkidegoko Ombudsmana sortu eta antolatzeko autonomia mailako legegilearengana jotzea erabat baldintzatzen du konstituzioaren testuan Ombudsmanaz egiten den ezaugarritzera jotzeak, Herriaren Defendatzailearen antzeko erakunde bat sortzea inposatzen duelarik.*

*Konstituzioaren 54. artikuluak Ombudsmanaz egiten duen ezaugarritzeak zer-nolako erakunde mota hautatzen den zehazten du, antolamendu desberdinetara hedatuz, irudi honek Eskandinaviako jatorrizko ezaugarrien aldean oso erakunde desberdinak eman baititu: jatorrizko irudiaren ezaugarriak, ikusi dugun bezala, Ombudsmana parlamentuaren mandatari modura eratzera mugatzen baitira, eta irudi hori, nolanahi ere, parlamentuaren aurrean erabat autonomoa da, eta herri administrazioen jarduerak ikuskatzeaz arduratu behar du, bere ikuskapen jardueraren ardatz nagusia konstituziozko eskubideen defentsa delarik”.*

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoan legebiltzarraren mandatari bat sortzeko EAEko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluarekin kontrastatu behar da, ezinbestean, eta estatutuko arau horrek E.K.ko 54. artikulura jotzeko teknika erabiltzen duenez, sortzen den irudiak Konstituzioaren artikulu horretan aurreikusitakoaren “antzeko erakundea” izan beharko luke.

Horregatik, Herriaren Defendatzailearen konstituziozko ezaugarritzea zehaztu nahi izan dugu.

Konstituzioak eta 3/1981 Lege Organikoak aukeratu duten Ombudsmanaren eredua aurreko lerroaldeetan deskribatu berri dugu.

Eredu honek oso soslai garbiak ditu hainbat gairen gainean, hala nola, I. Goiburuko eskubide guztien defentsaren gainean, eta halakorik ezean, ezin izango dugu “antzeko erakunde” batez hitz egin, bestelako erakunde batez baizik.

Parlamentuko izaera duen ararteko sektorial bat sortzea EAEko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluaren eredutik urruntzen da, E.K.ren 54. artikuluaren eta 3/1981 Lege Organikoaren haritik, zeren, lehenago esan dugunez, konstituzioaren testuaren eskubide guztiak eta pertsona guztientzat bermatzeko erakundea diseinatzen baita.

Legearen aurreproiektu ereduak EAEko Autonomia Estatutuaren 15. artikulua urratzen du, estatutuaren arau horrek E.K.ren 54. artikulura jotzeko teknika erabiltzen duelako eta, lehenago esan dugun bezala, parlamentuko mandatari orokorra, konstituzioaren testuaren I. Goiburuko eskubide guztiak defendatuko dituen mandataria hautatzen duelako eta, horregatik, konstituzionaltasunaren blokaren dotrinaren arabera, estatutuaren aurkakoa eta, ondorioz, konstituzioaren aurkakoa dela ulertu behar dugu.

Madrilgo Autonomia Erkidegoan halako ezaugarriak dituen irudia izanik, Adingabearen Arartekoa Legebiltzarraren mandatari goren modura sortzea estatutuaren eta, ondorioz, konstituzioaren aurkakoa dela nekez esan litekeela argudia liteke.

Alabaina, Lege Aurreproiektu honetan proposatutakotik gertuen dagoen aurrekaria bera dela dirudien arren, bi ereduen artean desberdintasun garrantzitsuak daude.

Madrilgo Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan (otsailaren 25eko 3/1983 Lege Organikoa) ez da Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan esandakoaren antzeko irudirik sortzea aurreikusten, autonomia erkidegoetako estatutu askotan, Euskal Autonomia Erkidegoarenean ere bai, gertatzen den bezala.

Horregatik, ez dago irudi hau Autonomia Estatutuan egindako diseinuarekin alderatu beharrik, estatutuan horren gainean ezer aurreikusten ez delako, hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegorako Estatutuaren kasuan, ordea, 15. artikuluan aurreikuspen espresa dago eta, gainera, E.K.ren 54. artikulura jotzen du. Horregatik, parlamentuko *Ombudsman* baten ezaugarridun irudia sortzeko Konstituzionaltasunaren blokean finkatutako oharrak errespetatu behar dira (Konstituzioa / Estatuko Herriaren Defendatzailearen 3/1981 Lege Organikoa eta Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutua).

## VIII. ADINGABEEN ARARTEKOA SORTZEKO UNEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN BESTE ARRAZOI BATZUK

Ondore dialektiko hutsetarako besterik ez balitz ere, parlamentuko defendatzaile sektorial bat sortzea aurretiazko konstituzio, estatutu eta lege araudien esparruak baldintzatzen ez duela eta autonomia erkidego beran legebiltzarreko mandatari diren bi ararteko –orokorra bat eta sektoriala bestea– batera izatea zuzenbidera egokitzen dela onartu arren, oztopoak gure ingurunerik gertuenean orain arte eman ez den aukera bat horri oztopoak zorrozki juridikoak ez diren beste argudio batzuengatik ere jar geniezazkioke.

Kasu honetan, ararteko sektorial baten sortzeak ezingo luke, inola ere, konstituzionaltasun blokeak Estatuko Herriaren Defendatzaileari eta Autonomia Erkidegoetako arartekoei –eta zehazkiago, gure Arartekoaren erakundeari– eskubide guztien defentsan esleitzen dizkien eskumenak albora lagatzerik ekarri, horrek defendatzaile orokor horien –gure Arartekoaren eta Herriaren Defendatzailearen– eskumenek, adingabeen interesen zaintzan, halabeharrez bat egitea ekarriko bailuke.

Jakin badakigunez, erakunde horien arteko harremanak ezin izango lirateke hierarkia edo eskumen printzipioan oinarrituz artikulatu, lankidetza eta elkarlan, herri baliabideen erabilpenaren eraginkortasun eta erakundezko leialtasun printzipio orokorretan oinarrituz baizik.

Printzipio horietatik abiatuz, garbi dago parlamentuko defendatzaile sektorialak sortzea kontzeptualki zaila dela jada Herriaren Defendatzaile edo Ararteko orokorra eratuta daukaten lurralde esparruetan.

Defentsarako bitarteko ugari izateak ez du beti herritarren eskubideak hobeto bermatuko dituen esparrua denik esan nahi.

Arartekoek edo herriaren defendatzaileek, gai honi heldu zaion bakoitzean, herritarrak defendatzea eta adingabe, emakume, atzerritar edo eskubideen urraketarako aukera handiagoak izan ditzakeen beste edozein baldintzatakoa izateari gehi liezazkiokeen arazoei bereziki aditzea, dagoen babes maila areagotzea eskatuko bailiguke, egitura berriak sortzea baino garrantzitsuagoa dela esan dugu beti.

Horren ildotik, zentzuzkoa dirudi berariazko egitura bat sortzea egun dauden egiturak nahikoak ez direla edo beren lana ondo betetzen ez dutela egiaztatzekotan soilik justifikatuko litzatekeela esatea.

Arartekoaren erakundeak adingabeen eskubideen defentsa beti lehenetsi duela uste dut, benetan, bere barruko egituran haurrei eta nerabeei ukitzen dieten arlo materialetan lan eginez, eta adingabeen babeserako berariazko arlo bat sortuz.

Xehetasunetan luzatzeko asmorik gabe, urteko txosten desberdinak aztertuz, Arartekoaren erakundeak adingabeen eskubideen babesaren eremuan egindako jardueren zerrenda aurki daiteke:

a) **Adingabeei ukitzen dieten kexen ebazpena,** batez ere Hezkuntza, Gizarte Ongizate, Justizia, Kultura... alorretan.

b) **Ofiziozko jarduerak egin eta txosten monografikoak prestatzea,** hizpide batez ere adingabeak dituztenak, eta txosten horiek jasotzen dituzten gomendioak betetzearen gainean urtero egindako jarduerez ari direnak.

Horren haritik, honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Babesik gabeko haur eta nerabeentzako laguntza zerbitzuen gaineko ezohiko txostena. 1997.
- Adin txikiko lege-hausleen gaineko ezohiko txostena. 1998.
- EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunaren gaineko txostena. 2001.

Berariazkoak ez diren beste txosten batzuetan ere kolektibo horren gaineko gaiei ere heltzen zaie.

Hartara:

- "Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo" aztergai duen txosten monografikoan, bi kapitulu haurren eta gazteen arreta psikiatrikoaren egoerari buruzkoak eta elikadura arazoak (anorexia eta bulimia) dituzten nerabeen berariazko arazoen gainekoak dira.
- "Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan" izenburua duen txosten monografikoan sasoikako langileen seme-alaben arazoak jorratzen dira.
- Urteko txosten desberdinetan, azkeneko urteetan, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei, jarrera arazo bereziak dituzten adingabeei, adingabe lege urratzaileei, edo familia aldetik babesik ez duten adingabeei dagokienez, zer-nola esku hartu den islatzen da.

c) Giza eskubideen eta, zehazkiago, adingabeen **giza eskubideen errespetuaren kultura** sortzen laguntzeko jarduerak:

- Giza eskubideetan hezteari buruz eskoletan erabiltzeko materialak prestatzeko bekak.
- Material horiek argitaratu eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegi guztietara banatzea:
  - Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak (Bigarren Hezkuntzarako, DBHrako eta BAtxilergorako)
  - Gure Eskubideak (Lehen Hezkuntzarako)
  - Giza eskubideak jokoan (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako)
- Haurraren eskubideekin zerikusia duten materialak Euskadiko ikastegi guztietara banatzea: Haurraren eskubideen Konbentzioaren aleak, egutegiak, kartelak.
- Txostenak, hitzaldiak, jardunaldiak, EHUren Udako Ikastaroetan (Adingabearen Zigor Erantzukizunaren Legearen gainean).
- Adingabeentzako beren beregiko orrialdea erakundearen web gunean. *www.ararteko.net*

Uste dut Arartekoak adingabeen eskubideen babesaren gaian izandako jarduerari adituz, ezin zaiola, inola ere, babes hori nahikoa izan ez denik edo legez agindutako eginkizunen utzikeriarik egin duenik leporatu, ezin dela halakorik egin duenik ondorioztatu.

Horregatik, legezkotasun arrazoiengatik ez eze, eragingarritasunarengatik eta herri zerbitzuen optimizazio arrazoiengatik ere, ez dirudi eskumenez Arartekoaren erakundearen bat egin dezan, eta bermatzeko xede bera izan eta baliabide berdinak erabiliko dituen egitura berririk eratzerik justifikatzen denik.

Arrazoizkoagoa dirudi, gainerako autonomia erkidegoetan eta Estatuan gertatzen den bezala, eginkizun hori jada dagoen erakundeari esleitzea, bere barruko antolaketaren esparruan, edo bestela administrazioko erakunderen bati atxikitzea.

## ONDORIOZ

- Adingabeak beren eskubideen gauzatzeari dagokionez bereziki ahula den kolektiboa dira eta, horregatik, pertsona horien eskubideen babeserako mekanismoak indartu eta areagotuko dituzten egiturak abian jartzea komeni da.
- Aurreproiektuaren zioen azalpenak aipatzen diren nazioarteko bitarteko desberdinak (Europako Kontseiluko Parlamentuko Bilkuraren 1121 gomendioa (1991), Europako Parlamentuaren A3-314/91 eta A3-0172/92 Ebazpenak) eta Europako Kontseiluko Parlamentuaren Biltzarrak Ministroen Batzordeari haurren gaineko Europako estrategia baten gainean egindako 1286 gomendioa (1996), edo (98) 8 gomendioa, 1998ko irailaren 18koa, Ministroen Kontseiluak Estatu kideei egindakoa… Nazioarteko bitarteko horietan haurraren defendatzailea, edo *"independentea dela bermatzen duen eta haurraren ongizatea benetan sustatzeko eskumenak dituen beste edozein egitura"* izatearen alde agertzen dira.
- Aurreproiektuak, legebiltzarraren mandatari den adingabearen arartekoa sortzeko erreferentzia modura, aipatutako nazioarteko bitarteko horietako batzuk hartzen ditu, eta aurrekari modura, Europan eta Espainian dauden eredu desberdinak.
- Adingabeen eskubideak defendatzeko sortuz joan diren irudi desberdinak oso izaera juridiko, jatorri eta eginkizun desberdinetakoak dira.
- Nazioarteko Zuzenbide konparatuan, Norvegian 1981ean Adingabearen Bulegoa sortu zenetik, Europako zati handi batean adingabeen eskubideen defentsarako irudiak jarriz joan dira. Irudi horiek oso eredu desberdinetan oinarritzen dira eta asko eta asko gobernuak izendatzen ditu edo haren mende daude, eta zenbait kasutan adingabeen gaineko berariazko ministerioei lotuta daude, eta urteko txostenaren bidez gobernuari beren jardueraren kontu ematen diote.
- Estatuko eta zenbait autonomia erkidegoko haurrak babesteko zenbait legetan adingabeen eskubideen defentsarako irudiak aurreikusten dira.
- Lege horiek ararteko sektoriala sortzen dute ararteko orokorrik ez dagoen autonomia erakunde batean –Madrilgo Autonomia Erkidegoan–, edo defendatzaile edo ararteko hori jada ararteko orokorra daukaten erkidegoetan egitura horren baitan sartzen dute –Estatuan, Katalunian, Andaluzian, Galizian, Aragoin–.
- Guk aztergai dugun aurreproiektuaren aukeraren parekorik ez dago, jada ararteko orokorra dagoen tokian ararteko sektoriala sortzen baitu.
- Herriaren defendatzaile edo arartekoak araupetzen dituzten zenbait legek adingabeen eskubideak babesteko berariazko mekanismoak sartzen dituzte.
  Beste kasu batzuetan, legeek babeserako berariazko sistemarik aurreikusten ez duten arren, barruko antolaketan bereziki ahulak diren kolektiboei buruz, besteak beste, adingabeei buruz, nola esku hartu behar den finkatzen da.
- Arartekoaren erakundearen funtzionamenduan, adingabeen eskubideei ikuspegi material batetik heltzen zaie arlo desberdinetan.
  "Zeharkako" ikuspegi batetik, adingabeen eskubideen berariazko babesean aritzen den saila daukagu.
- Irudi orokorraren zein irudi sektorialaren aukerek beren abantailak eta desabantailak dituzte, kasu askotan, sintesiaren bidetik konpon daitezkeenak, hau da, egitura orokorretan bereziki babestu behar diren kolektibo edo gaietarako mekanismoak sartuz.
- Zenbait kasutan parlamentu izaerako ararteko orokorrak eta, aldi berean, administrazioko sail edo atalen mende edo horietan sartuta dauden ararteko sektorialak daude.
- Jada parlamentuaren mandatari den ararteko orokorra dagoen tokian izaera bereko ararteko sektoriala sortzeko aurretiaz dagoen arau esparruan, hau da, konstituzio, estatutu eta legeen esparruan ondo txertatzen den kontrastatu behar da.
- *Ombudsman*aren irudia 1978ko Espainiako Konstituzioan 54. artikuluaren bidez sartzen da.
  Estatuko Herriaren Defendatzailearen apirilaren 6ko 3/1981 Legearen arauketatik irudi honen ezaugarrizko oharrak atera daitezke.
  Guri hemen interesatzen zaigunerako, hau da, konstituzioaren testuan bertan aipatutako araua I. Goiburuaren eta bere aurreikuspen guztien itxieran kokatuta dagoenez, irudi horiek pertsona guztien eskubide guztiak defendatzeko sortzen direla baiezta daiteke.

- EAEko Autonomia Estatutuaren 15. artikuluan legez E.K.ren 54. artikuluan aurreikusitakoaren "antzeko erakundea" sortzea aurreikusten da.
  Horregatik, estatutuko arau horrek E.K.ren 54. artikulura jotzeko teknika erabiltzen du eta, horregatik, konstituzioaren arauak eta bera garatzeko lege organikoak sortutako erakundearen ezaugarrizko eta definiziozko oharrek estatutuz aurreikusitako autonomia erkidego honetako irudia ere definitu beharko dute.
- Beste gai batzuen artean, E..K.ren 54. artikuluak / Herriaren Defendatzailearen 3/1981 Lege Organikoak pertsona guztien eskubide guztiak defendatzeko erakunde orokorraren eredua aukeratzen dute.
- Horixe da, era berean, Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutuak hautatzen duen eredua, E.K.ren 54. artikuluan esandakora jotzeko teknikarekin.
- Euskal Autonomia Erkidegoan legebiltzarraren mandataria den ararteko sektoriala sortzea bertoko Autonomia Estatutuak jotzen duen konstituzioaren eredutik urrunduko litzatekeenez, ezin gintezke "antzeko erakundeaz" mintzatu, bestelako erakunde batez baizik.
  Konstituzionaltasun blokaren teoria aplikatuz, aukera horri estatutuaren aurkako eta, ondorioz, konstituzioaren aurkako iritzi beharko genioke.
- Ondore dialektiko hutsetarako besterik ez balitz ere, lurralde esparru berean legebiltzarraren mandatari diren bi ararteko –orokorra bat eta sektoriala bestea– izan zitezen orain arte inon eman gabeko aukera onartuko bagenu, kontzeptuzko zailtasun agerikoa izango genuke egoera hori gauzatzeko.
  Nolanahi ere, Herriaren Defendatzailearen eta gure Arartekoaren egiturek beren eskumenik inola ere uzterik izango ez luketenez, adingabeen defentsan, zilegitasun berdinaz, ararteko orokorrak eta sortu nahi den ararteko sektorialak topo egingo lukete.
- Zentzuzkoa dirudi arartekoen konkurrentzia aukera hori eraginkortasunaren printzipioaren errespetuaren ikuspegitik egokiena ez dela pentsatzeak, halakorik egitea dagoen erakunde orokorraren bermeak nahikoak ez direla edo erakunde horrek bere lana ondo betetzen ez duela egiaztatzekotan soilik justifikatuko litzatekeela.
- Nik uste dut ez dela hori gure Arartekoaren erakundearen egoera, adingabeen eskubideen defentsako bere jarduerari aditzen badiogu, bai jasotzen diren kexen ebazpenean, bai ofiziozko jardueretan, ezohiko txostenen prestakuntzan, edo giza eskubideen eta, kasu honetan, adingabeen eskubideen errespetuaren kultura sortzen laguntzeko jarduera desberdinak egiten dituenean.
- Zentzuzkoa dirudi, legezkotasun eta egokitasunezko azaldutako arrazoiengatik, Lege Aurreproiektuan sortu nahi den irudia, administrazioko sail edo atal baten baitan sartzeak, edo lehendik daukagun Arartekoaren erakunde honetara jotzeak, gure barruko egituran txertatzeko, jada herriaren defendatzaile edo ararteko orokor bat duten autonomia erkidegorik gehienetan eta estatuan bertan gertatu den bezala.

Gasteizen, 2003ko uztailaren 18an

JARDUNEKO ARARTEKOA
Mercedes Agúndez Basterra

# IV. ERANSKINA

169/03 zenbakiko Epaia, Gipuzkoako Probintzi Auzitegiko Lehen Atalak bi mila eta hiruko urriaren batean emana.

Donostiako Probintzi Auzitegiak, goian aipatutako magistratuek osatuak, Donostiako 5. Zigor Epaitegiko 74/03 Prozedura Laburtua aztertu du gorabidezko aldian. Estatuko erakundeen aurkako delitu batengatik izapidetua den prozedura horretan (...) da alderdi apelaziogilea, (...) prokuradore andreak ordezkatua eta (...) legelari andreak defendatua; bestetik, alderdi apelatua Ministerio Fiskala da.

Hala egin da dagokion gorabidezko errekurtsoagatik, zeina ezarrita baitago gorago aipatutako Zigor Epaitegiak 2003ko apirilaren 11n eman zuen epaiaren aurka.

## AURREKARIAK

**Lehena.-** Hiriburu honetako Zigor Epaitegietako 5.ak 2003ko apirilaren 11n emandako epaian honako EPAITZA hau ageri da:

*“**(...) jauna kondenatzen dut,** lehenago azaldu den bezala, Estatuaren institutuzioen aurkako delitua egiteagatik. Ez da antzeman erantzukizun kriminala aldatzen duen inguruabarrik. Hortaz, ENPLEGUAZ ETA KARGU PUBLIKOAZ GABETURIK geratuko da hamaika hilabetez, eta prozesuaren kostuak ordainduko ditu”.*

**Bigarrena.-** Ebazpena alderdiei jakinarazita, (...)-ren ordezkariak apelazio errekurtsoa aurkeztu zuen. Errekurtsoa onartu zen, eta Ministerio Fiskalak haren aurka egin zuen. Jarduteak, Erregistro eta Banaketarako Bulegoan 2003ko maiatzaren 30ean sartuak, txandaz 1. Atalari egokitu zitzaizkion, eta 1067/03 zenbakiko Apelazio-erroiluan erregistratu ziren. BOZKETA ETA EBAZPENA 2003ko irailaren 23an, goizeko 12:30etan, egingo zirela erabaki zen, eta aipatutako izapideak adierazitako egunean eta orduan egin ziren.

**Hirugarrena.-** Auzialdi honetan (...) magistratu andreak jardun du txostengile.

## GERTAKARI FROGATUAK

Onartzen dira errekurritutako epaian frogatutzat hartu diren gertakariak, jarraian adierazten denaren aurka jotzen ez duten heinean:

“Erruztatua den (...) jauna, adin nagusikoa eta zigor aurrekaririk gabea, Pasaiako alkate zen 1999ko uztailetik, eta 2001. urtean zenbait informazio-eskaera jaso zituen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko Erakundeak bidaliak. Izan ere, bere jarduera arautzen duen 1985eko otsailaren 27ko lege autonomikoak hala aitorturik, Arartekoak ikerketak egiteko duen ahalmena erabili zuen, Udalaren eskumenak zirela-eta udalerriko herritar batzuek hainbat kexa helarazi zizkiotelako, ondoko espedienteak abiarazi zituzten kexa berberak, hain zuzen: 827/2000/17, 636/2001/17 eta 1070/2001/17.

Arartekoak Pasaiako Alkateari bidalitako idazki guztietako goiburuan, hitzaurre gisa, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 3. artikulua ageri zen, hitzez hitz jasoa (“Gizaki orok du bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea, ETArik EZ, ETA NO”). Hori zela eta, (...) jaunak, aipatutako Udalerriko alkate zen aldetik, ebazpen bat eman zuen, 2001eko maiatzaren 15ean, non agintzen baitzuen Arartekoak igortzen zituen idazki guztiak bidaltzaileari itzultzeko, harik eta erakunde horrek berriro neutraltasun politikoari heldu arte. Orduko ebazpenaz geroztik, erruztatuak ez die erantzun helarazi zaizkion errekerimenduei, 827/2000/17 zk.ko espedienteari salbu, eta horko horretan ere erantzuna laburra izan zen. Nahiz eta behin eta berriz jakinarazi zaion jokabide hori KPko 502.2 artikuluan jasotako figuratzat jo zitekeela, bereari eutsi dio, eta ez du kolaboratu nahi izan aipatutako erakundearekin, legeak Arartekoari aitortzen dion ikerketa jarduera oztopatuz”.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENA.-** Donostiako 5. Zigor Epaitegiko magistratuak 2003ko apirilaren 11n emandako Epaiak (...) kondenatu zuen Estatuko instituzioen aurkako delitu baten egiletzat. Ezarritako zigorra jasota dago epaiaren xedapen-atalean eta ebazpen honen aurrekarien atalean.

Akusatuaren prozesu-ordezkariak apelazio errekurtsoa jarri zuen, Lehen auzialdiko Epaia ezezta zedila eta akusatua delituaz absolbituko zuen beste epai bat eman zedila eskatuz. Errekurtsoan horretarako adierazi ziren arrazoiak geroago aztertuko dira.

Errekurtsoaren idazkia helarazi zitzaionean, Ministerio Fiskalak gaitzets zedila eskatu zuen, baita apelatutako ebazpena bere horretan berrets zedila galdegin ere.

**BIGARRENA.-** Errekurtsorako arrazoiak zehaztean, apelaziogileak azaltzen du egintza frogatuak ez zirela behar bezala baloratu, eta adierazten du, horren erakusgarri, (...) jaunak ez zuela 2001eko maiatzaren 15eko ebazpena eman Arartekoak bidalitako dokumentuetan Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 3. artikulua ageri zelako, baizik eta artikuluaren azpian ETArik EZ, ETA NO leloa agertzen zelako.

Izan ere, lelo hori ez dago jasota egintza frogatuei buruzko atalean, bertan honako hau azaltzen baita, hitzez hitz:

Arartekoak Pasaiako Alkateari bidalitako idazki guztietako goiburuan, hitzaurre gisa, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 3. artikulua ageri zen, hitzez hitz jasoa ("Gizaki orok du bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerako eskubidea"). Hori zela eta, 2001eko maiatzaren 15ean (...) jaunak, aipatutako udalerriko alkate zen aldetik, ebazpen bat eman zuen, Arartekoak igortzen zituen idazki guztiak bidaltzaileari itzultzeko aginduz, harik eta erakunde horrek berriro neutraltasun politikoari heldu arte.

Kausaren nondik norakoa azterturik, argi dago akusatuak azaldu den moduan jokatu zuela aipatutako 3. artikulua ETArik EZ, ETA NO leloarekin batera agertzen zelako, eta horixe dela auzipetutako egintza. Beraz, ez dago ezer eragozterik aurkatzeko arrazoi horren aurrean, eta azaldutako gertakari hori errekurritu den epaiaren arrazoibide juridikoei buruzko atalean agertzen den arren, egintza frogatuen artean ere jaso beharko zen. Hala ere, honako ebazpen honetan azalduko denez, egintza frogatuak esan bezala aldatuta ere, horrek ez dauka garrantzizko eraginik bigarren auzialdiko egoitza honek hartu duen azkeneko ebazpenean, ez baitakar inolako ondoriorik zigorra jasotzen duen figura penalaren izate juridikoari dagokionez.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsogileak argudiatzen du, halaber, aurkaturiko epaiak okerreko pronuntziamendu bat daukala, bertan ondoko hau adierazten baita:

Lankidetza, eskatutako txostenak igortzea, ezinbesteko eta nahitaezko zeregin dira erakunde horren kontrolpean duden Administrazio Publiko guztientzat. Gainera, instituzioen arteko elkarlan hori idatziz gauzatu behar da ezinbestean, eskatzen den modu berean, alegia.

Apelaziogilearen iritziz, goiko baieztapen horrek ez du lege-oinarririk bere alde, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 12. artikuluaren arabera legeak ez duelako agintzen laguntza edo informazio eskaerak idatziz egin behar direnik, ezta Administrazioek idatziz erantzun edo kolaboratu behar dutenik ere.

Legea azterturik, esan beharra dago Arartekoarekiko lankidetza ez dela zertan bakarrik idatziz burutu, baina egia da, era berean, ez dela baztertzen aukera hori, eta bere lanerako modu egokiena hori dela deritzonean, Arartekoak erabili egin dezakeela. Izan ere, alderdi apelaziogileak berak azaldu duenaren arabera, Arartekoa komunikabide desberdinez –telefonoa, adibidez– baliatu da bere lankidetzarako eskaerak egiteko, eta ulertzekoa denez, gaia zein den, erakundeak bide bat edo bestea aukeratuko du. Ildo beretik, beraz, ez da onargarria errekurtsogileak horren inguruan egin duen alegazioa, horren arabera Administrazioek berek erabakiko bailukete Arartekoarekiko harremanak nola gauzatu, baita komunikabide batzuk –idatzizkoa honako honetan– baztertzeko ahamena izango ere, nahiz eta bide horiek egokienak izan delako arazoari heltzeko. Horrexek ez luke, hain zuzen ere, lege oinarririk izango, areago, apelaziogilearen errekurtso-idazkian aipatzen den Legearen beraren kontra joko luke, lege horretan aukera zabalak eskaintzen baitira instituzioen arteko komunikazio, informazio eta elkarlanerako bideei dagokienez. Hala egin zen, hain zuzen ere, Arartekoaren lana ahalik eta eraginkorrena izan dadin, eta azken batean, herritarren mesederako.

Goian aztertu dugun aurkatze-argudioak zerikusi handia du errekurtso-idazkiaren laugarren ataleko argudioarekin, froga oker baloratu zela adierazten duenarekin, alegia. Izan ere, horren arabera ez da egia akusatuaren jokabideak Arartekoak Administrazio publikoen gainean egin dezakeen kontrola galarazi zuela, Arartekoak bazituelako eskura bestelako lege-tresnak kontrol hori gauzatzeko, esate baterako, Pasaiako Udaletxera ager zitekeen; hortaz, apelaziogilearen ustez, ikerketa burutu ez izanaren ardura Arartekoarena ere bada, hots, salatzailearena berarena.

Azaldutako argudio horrek ez du aurrera jotzerik, gorago adierazi denez ikerketaren eremuan dagoen Administrazioak ezin baitu, legez, komunikaziorako edo elkarlanerako tresnarik baztertu, eta halaber, ezin du lankidetzarako baldintza gisa eskatu laguntza-galdea bide jakin batez egin diezaiotela. Puntu horri dagokionez, hartara, aurkaturiko epaiak zuzen eta Zuzenbidearekin bat etorriz erabaki du.

**LAUGARRENA.-** Errekurtsogileak aurkaketarako arrazoietako batean dioenez, zatiketa printzipioa ez ezik, Zigor Zuzenbidea ahalik eta gutxien ezartzekoa ere hautsita geratu zen. Alegazioaren oinarri azaltzen duenez, Alkateak 2001eko maiatzaren 15ean emandako ebazpenak bide administratiboa agortzen du, eta haren aurka administrazio-auzigaietako errekurtsoa jar badaiteke ere, ez zen horrelakorik egin; adierazten du, bestalde, Alkatearen jokabidean ez zela lankidetza ukatzeko asmorik sumatzen, eta bai egon zela, ordea,

adostasun falta instituzioen artean, Udalak erantzun egin baitzien Arartekoaren jardutea eragin zuten kexei, haien konponbidea lortzearren.

Argudio horrek ere ezin du aurrera egin, ondoko arrazoi hauengatik:

a.- bi aukera daude, elkarren baztertzaile ez direnak: batetik, errekurtsoa jar daiteke administrazio-ebazpenaren aurka Administrazio-auzigaietako jurisdikzioan, eta hala eginez gero, erabakiko litzateke egintza hori indarduna edo baliogabea den administrazio eremuan, eta ondorioz, baita eraginkorra den ere; bestetik, gerta liteke emandako ebazpena arau penaletako zigorra jasotzeko modukoa izatea, eta ari garen honetan, Estatuaren instituzioek egoki funtzionatzen dutela ziurtatu behar duen araua ezarriko litzateke. Beraz, administrazio-errekurtsoak eta zigor-jarduerak interes juridiko desberdinak babesten dituzte, eta (...) jaunak egindakoa aurreikusita dago Zigor Kodeko 502. artikuluko tipo penalean eta errekurritutako epaian azaldu den moduan; horrek ez dakar, gainera, ez zatiketa printzipioa ezta Zigor Zuzenbidea ahalik eta gutxien ezartzekoa ere urratzea.

b.- instituzioen artean izan omen zen desadostasunak ez luke justifikatuko zigorgarri den arau-hauste bat egitea, eta era berean, ez luke arau-hauslea legez dagokion zehapenetik salbuetsiko. Hori horrela da, nahiz eta Udalak Arartekoaren esku-hartzea eragin zuten kexei erantzun eta konponbidea bilatzen saiatu, azken batean, hala jokatuz Udalak dagozkion zereginak bete baino ez zuelako egin, eta gainera, Arartekoak herritar batek kexa bat aurkeztean ekin behar dio kontrol eta ikerketa lanari, eta ikertutako Administrazioak kexaren atzean dagoen arazoa konpontzeko ahaleginak egin arren, horrek ez du zertan baldintzaturik Arartekoaren jarduten bilakaera eta emaitzak. Kexen berri izan zuenean Pasaiako Udalak haien ardura hartu bazuen ere, bere administratuekiko betebeharrei heldu baino ez zuen egin, eta horrek ez dakar Arartekoaren lana etetea.

**BOSGARRENA.-** Azkenik, errekurtsogileak adierazten du aurkaturiko ebazpenak ez zuela froga behar bezala baloratu, ez baita frogaturik geratu akusatuak Arartekoaren kontrol lana oztopatzeko edo laguntza ukatzeko asmoa zuenik; gaineratzen du, ildo beretik, Arartekoak ETArik EZ, ETA NO leloa gabe bidalitako dokumentuek erantzuna jasotzen zutela, eta horrela jokatuz eztabaida politiko bat nabarmendu nahi zela bakarrik.

Gogoratu beharra dago, aurrekoaren haritik, Auzitegi Gorenak 1997ko martxoaren 27an emandako autoa, bertako ebazpenen artean adierazten baita apelazio errekurtsoa *jurisdikzio osoko* deritzenetakoa dela, eta beraz, aukera ematen diola bigarren auzialdiko Sailari eztabaidagarri diren gai guztiei –muinari lotutakoak nahiz prozesalak– heltzeko. Horren arabera, azter dezake errekurritutako ebazpenaren arrazoibide juridikoa egokia den edo ez, eta azter ditzake, era berean, burututako froga osorik eta orokorki baloratzeko egiten diren eragiketa guztiak; horretatik iristen dituen ondorioak, bestalde, “a quo” epaileak errekurritutako epaian ondorioztatuaren berdin-berdinak edo desberdinak izan daitezke. Izan ere, Auzipetze Kriminaleko Legearen 741. artikuluak ahalmena aitortzen dio epaileari epaiketan egindako froga guztiak zinez eta zintzoki balora ditzan, eta eskumen horrek ez ditu inondik ere kaltetzen ustezko errugabetasunerako eskubidea edo epailearen babes eraginkorra jasotzekoa, baldin eta emandako epaian epailearen balorazioa behar bezala arrazoiturik agertzen bada (Auzitegi Konstituzionalak 1990eko uztailaren 2an, 1992ko abenduaren 4an eta 1994ko urriaren 3an emandako epaiak, besteak beste). Ondorioz, balorazioa soilik zuzendu beharko da baldin eta nahitaezko kargu-frogarik ez edukitzeagatik hutsean geratu bada – orduan ustezko errugabetasunaren printzipioa urraturik geratuko bailitzateke–, edo burututako jardunak azterturik agerian eta nabarmen geratzen bada “a quo” epaileak huts egin duela, eta akatsaren tamainagatik argi iritziko balitz beharrezkoa dela errekurritu den ebazpenean gertakarien azalpena irizpide objektiboei helduz aldatzea.

Dagokigun auzian, aurkaturiko epaian agerian dago nolako hausnarketak egin zituen “a quo” epaileak frogatutzat jotzen dituen egintzak –besteak beste, akusatuak Arartekoaren lana eragozteko zuen asmoa– azaltzeko, burututako frogak behar bezala eta zuzenbidearekin bat etorrita baloratuz, alegia, eta balorazio horretan ez da inolako zentzugabekeriarik antzematen. Frogak baloratzea, alderdi auzilariei barik, Auzitegiari dagokio, eta ezin da alderdi errekurtsogilearen balorazioa auzialdiko Epaitegiak egindakoaren ordez jarri, ahalmen hori “a quo” epaileari baitagokio soil-soilik. Froga helarazten zaion Epaileak beregain balora dezake, ez baina, arbitrarioki, eta bigarren auzialdiko auzitegiak auzia oso-osoaz ebazteko ahalmena badu ere, azken batean bakarrik azter dezake nola jokatu duen “a quo” epaileak frogen balorazio orokorra egiteko orduan, hau da, balorazio hori logikaren kontra, arbitrarioki edo esperientziaren eta uste oneko kritikaren irizpideak baztertuz egin duen, edo oso bestela, frogen balorazio orokorra zuzena den eta bat datorren auzitik eratorritako emaitzekin (Auzitegi Gorenaren Epaia, 2002ko martxoaren 18koa).

Auzialdiko Epaileak epaiketako frogen inguruan egin zuen balorazioa azterturik, uste dugu gailendu behar den iritzia errekurrituta dagoen ebazpenarena dela, ez duelako logikaren eta esperientziaren edo kritika zintzoaren irizpideen aurka jotzen. Izan ere, akusatuak, epaiketan hala onartzeaz gain, apelazio errekurtsoan

ere berretsi du ez zegoela prest Arartekoak ETArik EZ, ETA NO leloarekin bidaltzen zituen dokumentuak tramitatzeko, eta hori bat dator 2001eko maiatzaren 15eko ebazpenean argi adierazitako asmoarekin, hau da, ez zuela aipatutako erakundearekin kolaboratuko, eta helburu horrekin Arartekoaren lana oztopatuko zuela baldintza formalak ezarriz, legeak aurreikusita ez egoteagatik arauzko oinarririk ez duten eta, ondorioz, bete behar ez diren baldintzak baliatuz, azken batean.

Bestalde, eta apelazio-idazkian azaltzen denaren arabera, akusatuak izaera politikoko eztabaida bat azalerarazi nahi zuen, haren ustez leloa ezarri egin ziotelako eta modu horretan hautsita geratzen baitzen instituzioek gorde beharreko neutraltasuna. Horri buruz bakarrik esango dugu instituzioen behar hori ez zela urratu, ETArik EZ, ETA NO leloaren bitartez Arartekoak ez duelako besterik egiten, ezpada gizaki guztien oinarrizko eskubideen alde agertu, talde terroristak erasotzen dien oinarrizko eskubideak defendatuz, hain zuzen. Egia da instituzio publikoei beren jardutean neutraltasun politikoari euts diezaiotela exijitu behar zaiela, baina Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 3. artikuluan jasotako eskubideak –bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalerakoak, alegia– hausten dituzten pertsonak edo taldeak, ETA kasu, publikoki gaitzesteak ez du neutraltasunaren kontra jotzen. Arartekoak ez luke instituzio publikoa izateagatik dagokion zeregina beteko, ordea, pertsonaren duintasunaren muina diren giza eskubideak urratzen direla ikusi, eta ezer egingo ez balu horren aurrean. Izan ere, instituzio publikoa den aldetik, Arartekoak dituen betebeharretako bat elkarbizitzarako eremuak babestea dela, horrelakoetan norbanakoaren nortasuna oztoporik gabe eta besteen begirunez garatuko baita. Funtsean, hain zuzen, oso gauza desberdinak dira errekurtso-idazkian azaltzen den eztabaida politikoa, batetik, eta eskubiderik oinarrizkoenak –pertsonaren bizitza eta segurtasun fisikoa, adibidez– defendatzea, eta azken horien alde agertzea, Arartekoak egin duen bezala, zeharkako bide bat da aipatutako eztabaida benetan eta libreki egin ahal izan dadin.

Apelazio-idazkiko zortzigarren alegazioa aurreko aurkatze-alegazioen errepikapena baino ez da. Hortaz, onartu gabetzat jo behar dugu, oso-osorik, aztertutako apelazio-errekurtsoa, Donostiako 5. Zigor Epaitegiak 2003ko apirilaren 11n emandako epaiaren aurka aurkeztua, eta epaia, aldiz, berretsirik geratzen da, berau ere oso-osorik, errekurtsogileak edukiari buruz zituen asmoak ezetsita geratu direlako, eta horren aldean, epaiaren Egintza Frogatuen atalean gehitu diren hitz bakanek ezer gutxi aldatzen dute.

**SEIGARRENA.-** Prozesuaren kostuak apelaziogileari dagozkio, edukiari buruz zituen asmoak guztiz ezetsiak izan direlako.

Aipatuta diren artikuluak, hala nola oro har eta honako honetan aplikatu beharreko guztia ere azterturik, ondokoa

## EBATZI DUGU

**Ez da onartzekoa, eta beraz ez dugu onartzen** (...) prozesuan ordezkatzen duenak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa, Donostiako 5. Zigor Epaitegiak 2003ko apirilaren 11n emandako epaiaren aurka aurkeztua, eta ondorioz, berretsi egiten dugu, osorik, errekurritutako epaia.

Errekurtsoaren kostuak alderdi apelaziogileari ezartzen zaizkio.

Ebazpen hau irmoa da, eta ezin da, hortaz, haren aurkako errekurtsorik aurkeztu.

Legeak agintzen duen epean, jatorrizko jarduteak eta epai hau hasierako Epaitegira helaraziko dira, betearaz ditzan.

Gure epaia hori izanik, honako hau eman, agindu eta sinatzen dugu.

# V. ERANSKINA

# **Grafikoak**

## ARARTEKOAK ZENBATETAN IKUSI DUEN IRREGULARTASUNA ADMINISTRAZIOAREN JOKAERAN 2003an BUKATUTAKO KEXETAN




**1. DIAGRAMA**

## ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEA ZENBATERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA




**2. DIAGRAMA**

## ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2003)




1 545 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
2 1.143 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.
3 62 kexek kexa berdin-berdinen multzo bat osatzen dute.
4 264 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

**3. DIAGRAMA**

## 2003an JASOTAKO KEXEN EGOERA ONARPEN PROZESUAREN ONDOREN




**4. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA




**5. DIAGRAMA**

## ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




**6. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




1 Osasuna
2 Hirigintza eta Etxebizitza
3 Funtzio Publikoa
4 Hezkuntza
5 Herrizaingoa
6 Kultura eta Elebitasuna
7 Herri Lanak eta Zerbitzuak
8 Gizarte Ongizatea
9 Nekazaritza, Industria, Merkataritza, Turismoa
10 Justizia
11 Lana eta Gizarte Segurantza
12 Ogasuna
13 Ingurumena

**7. DIAGRAMA**

## EUSKO JAURLARITZAREN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA SAILEN ARABERA




1 Osasuna
2 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa
3 Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
4 Herrizaingoa
5 Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza
6 Industria, Merkataritza eta Turismoa
7 Kultura
8 Ogasun eta Herri Administrazioa
9 Lurralde Antolamendu eta Ingurumena
10 Garraio eta Herri Lanak
11 Nekazaritza eta Arrantza
12 Lehendakaritza
13 Lehendakariordetza

**8. DIAGRAMA**

## FORU ALDUNDIEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




1 Gizarte Ongizatea
2 Ogasuna
3 Herri Lanak eta Zerbitzuak
4 Funtzio Publikoa
5 Kultura eta Elebitasuna
6 Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa
7 Hirigintza eta Etxebizitza
8 Justizia
9 Osasuna
10 Ingurumena

**9. DIAGRAMA**

## UDALEN AURKA AURKEZTUTAKO KEXEN BANAKETA ALORREN ARABERA




1 Herri Lanak eta Zerbitzuak
2 Hirigintza eta Etxebizitza
3 Herrizaingoa
4 Ingurumena
5 Gizarte Ongizatea
6 Ogasuna
7 Kultura eta Elebitasuna
8 Funtzio Publikoa
9 Osasuna
10 Hezkuntza
11 Nekazaritza, Industria, Merkatritza eta Turismoa
12 Justizia

**10. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA (1989-2003)




| | 1989 | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 1997 | 1998 | 1999 | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BIZKAIA | 288 | 828 | 293 | 332 | 376 | 349 | 528 | 746 | 915 | 1.471 | 649 | 645 | 651 | 643 | 646 |
| GIPUZKOA | 188 | 195 | 244 | 241 | 250 | 234 | 281 | 448 | 663 | 905 | 372 | 295 | 375 | 294 | 318 |
| ARABA | 97 | 125 | 158 | 201 | 182 | 160 | 328 | 446 | 371 | 244 | 237 | 256 | 444 | 268 | 322 |

**11. DIAGRAMA**

## LURRALDE BAKOITZETIK JASOTAKO KEXEN BILAKAERA 10.000 BIZTANLEKO (1989-2003)




**12. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMATZAILEEN EZAUGARRIEN ARABERA




**13. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA




**14. DIAGRAMA**

## JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA




**15. DIAGRAMA**

## 2003an ARRETA ZUZENEKO BULEGOETAN JASOTAKO BISITAK (KOPURUA ETA EZAUGARRIAK)




**16. DIAGRAMA**




**17. DIAGRAMA**

### BANAKETA ADIN TALDEEN ARABERA




**18. DIAGRAMA**

## KEXA BILAKATUTAKO BISITAK




19. DIAGRAMA

## ARRETA ZUZENEKO HIRU BULEGOETARA JOANDAKOEN JATORRI GEOGRAFIKOA




20. DIAGRAMA

## OFIZIOZKO JARDUERAK (2003)

### BANAKETA ALORREZ ALOR




**21. DIAGRAMA**

### ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




**22. DIAGRAMA**

## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 1. Nola baloratuko zenuke jasotako informazioa?




**2003**




**2002**

**23. DIAGRAMA**

### 2. Nola baloratuko zenuke kexa aurkezteko unetik prozesuaren amaierara arte igarotako denbora?




**2003**




**2002**

**24. DIAGRAMA**

## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

### 3. Zenbateraino zaude ados Arartekoak zure kexari buruz emandako ebazpenarekin edo proposamenarekin?




**25. DIAGRAMA**

### 4. Zure ustez, kexa eragin duen arazoa:




**26. DIAGRAMA**

## ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA (inkestaren emaitzak)

**5. Nola baloratuko zenuke, oro har, Arartekoaren esku-hartzea? (Hau da, erakutsitako interesa, erabilgarritasuna, egindako kudeaketak...)**




**2003**




**2002**

**27. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**




**2003**




**2002**

**28. DIAGRAMA**

## ARAZOA “ez da konpondu” edo “nahiko gaizki konpondu da” DIOTEN ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGIN DUTEN BALORAZIOA

**5. Oro har zer iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Hau da, azaldutako interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)**




**2003**




**2002**

**29. DIAGRAMA**

**6. Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekoarengana jotzeko aholkatuko zenioke?**




**2003**




**2002**

**30. DIAGRAMA**

# GAIEN AURKIBIDEA

## A

**Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak**
- Bidegabeko atzerapenak, 273
- Doako laguntza juridikoa, 273, 274

**Adinekoak, 47, 125, 339**
- Buru-osasuna, 501
- Egoitzak, 46, 175, 339
- Egoitzaz kanpoko laguntza, 339
- Eguneko zentroak, 46, 175
- Gizarte zerbitzuak, 496
  - Gutxieneko zerbitzuak, 339
- Irisgarritasuna
  - Taxi-bonua, 186, 357
- Laguntza teknikoak, 357
- Laguntza zentroak, 175

**Adingabe atxilotuak, 344**

**Adingabeak, 341, 491**
- Adingabe atxilotuak, 344
- Adingabeen aurkako indarkeria, 268
- Adingabeko lege hausleak, 56, 343, 491
- Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 343, 491
- Babesik gabeko adingabeak, 50, 343
- Buru-osasuna, 501
- Burutik gaixo dauden adingabeak, 344
- Eskola garraioa, 197, 200, 206
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak
  - Hezkuntza-premia bereziak, 196, 353
- Gerra zibila, 324
- Gizarte taldeak, 345
- Haur hezkuntza, 195, 347, 487
- Herriaren defendatzaileak, 521
- Hezkuntza-premia bereziak, 344, 347
- Kexak, 341
- Legegintzaren beharra, 347, 492
- Ombudsmana, 521
- Piroteknia produktuak, 173
- Sasoikako langile adingabeak, 344
- Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
  - Batxilergoa, 197, 208
  - Erlijio askatasunerako eskubidea, 197, 204
  - Hezkuntza-premia bereziak, 81, 196, 213, 353
  - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 347
  - Ikasteko laguntzak, 198, 201, 441
- Zaintza
  - Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 325

**Adingabeen aurkako indarkeria**
Epaileen ebazpenak, 268
**Adingabeko lege hausleak, 56, 343, 491**
Atxilotuak, 272
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 350
Zigorra non bete, 272
**Administrazioaren erantzukizuna**
Administrazioaren kontratazioa, 439
Bizkaibus, 442
Ebatzi beharra, 442
Espetxeratuak
Frankismoa, 324
Gasolina-zerbitzuguneak, 322
Herri lanak, 433
Hiri plangintza, 312
Hiri-bideak mantentzea, 439, 443
Jabetza pribaturako eskubidea, 490
Metro-Bilbao, 296
Udal zerbitzu publikoak, 438, 440
Zerbitzu publikoak, 295
**Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak**
Eraginkortasun printzipioa
Gizarte eta osasun laguntza, 176, 177, 182, 358
Kooperazio printzipioa
Gizarte eta osasun laguntza, 176, 177, 182, 358
Koordinazio printzipioa
Gizarte eta osasun laguntza, 176, 177, 182, 358
**Administrazioaren kontratazioa, 439**
**Alardea**
Emakumeak, 333
Sexuagatiko bereizkeria, 440
**Alokatzeko etxebizitzak**
Atzerritarrak, 318, 349
**Animalien babesa, 256**
Jendaurreko ikuskizunak, 435
**Antolamendu juridikoaren printzipio nagusiak**
Berdintasun printzipioa, 478
Atzerritarrak, 318, 349, 479
Emakumeak, 227, 232, 329, 330, 333, 335, 440, 478
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 351
Lan-bereizkeria, 252
Osasun zerbitzuak erabiltzeko joan-etorrietarako laguntzak, 306, 433
Tarifak, 437
Legezkotasun printzipioa
Baimenak, 168, 169, 170, 172, 437
Irisgarritasuna, 465
Kaleko salmenta, 254, 259, 349, 442
Udal tasak, 442
Segurtasun juridikoaren printzipioa
Legegintzaren beharra, 447
Udal tasak, 442
**Aparkalekuak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 252, 262, 356, 434
Udal zerbitzu publikoak, 294
**Arartekoari lagundu beharra, 535**
**Arkitektura-oztopoak**
Ikastetxeak, 317
Zinema-aretoak, 316

**Arlo politikoaren eta bake sozialaren printzipio nagusiak**
Norberaren duintasunerako eskubidea
Gaixo terminalak, 303
**Arrantzarako baimenak**
Tarifak, 437
**Aseguru pribatuak**
Osasun gastuak, 304
**Atxilotuak, 97**
Bideograbazioak, 256
Gizarte taldeak, 126
Gorputz araketak, 483
Laguntzaren koordinazioa, 256
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 252, 481
Polizia, 252
Senideentzako arreta, 256
Tortura, 138, 163, 254, 515
Tratu txarrak, 97, 138, 163, 254, 480, 515
Ziegak, 97
Bideograbazioak, 97
**Atzerritar adingabeak**
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 350
**Atzerritarrak, 479**
Alokatzeko etxebizitzak, 318, 349
Berdintasunerako eskubidea, 479
Funtzio publiko orokorra, 216, 349
Gizarte taldeak, 126
GKEak
Hitzarmenak, 324
Ombudsmana, 154
Polizia, 69, 253, 254, 349
**Aukeramen teknikoa**
Langileen aukeraketa, 216
**Auzibideratzea**
Akatsak, 277
Bidegabeko atzerapenak, 266
Euskara eta justizi administrazioa
Jakinarazpenak, 193

**B**

**Babes bereziko taldeak**
Adinekoak, 47, 125, 339
Buru-osasuna, 501
Egoitzak, 46, 175, 339
Egoitzaz kanpoko laguntza, 339
Eguneko zentroak, 46, 175
Gizarte zerbitzuak, 339, 496
Irisgarritasuna, 186, 318, 353, 357
Laguntza teknikoak, 357
Laguntza zentroak, 175
Adingabe atxilotuak, 344
Adingabeak, 341, 491
Adingabeen aurkako indarkeria, 268
Adingabeko lege hausleak, 491
Buru-osasuna, 501
Eskola garraioa, 197, 200, 206
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 196, 353
Gerra zibila, 324
Gizarte taldeak, 345

Haur hezkuntza, 195, 347, 487
Hezkuntza-premia bereziak, 344, 347
Kexak, 341
Legegintzaren beharra, 347, 492
Ombudsmana, 521
Piroteknia produktuak, 173
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 81, 196, 197, 198, 201, 204, 208, 213, 347, 353, 441
Zaintza, 325
Adingabeko lege hausleak, 56, 343
Atxilotuak, 272
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 350
Zigorra non bete, 272
Atxilotuak, 97
Adingabeko lege hausleak, 272
Bideograbazioak, 97, 256
Gizarte taldeak, 126
Gorputz araketak, 483
Laguntzaren koordinazioa, 256
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 252, 481
Senideentzako arreta, 256
Tortura, 138, 163, 254, 515
Tratu txarrak, 97, 138, 163, 254, 480, 515
Ziegak, 97
Atzerritar adingabeak
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 350
Atzerritarrak
Berdintasun printzipioa, 479
Funtzio publiko orokorra, 216, 349
Gizarte taldeak, 126
GKEak, 324
Ombudsmana, 154
Polizia, 69, 253, 254, 349
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 343, 491
Adingabeko lege hausleak, 350
Estatuko Fiskaltza Nagusia, 349
Babesik gabeko adingabeak, 50, 343
Burutik gaixo dauden adingabeak, 344
Burutik gaixo daudenak, 302
Adinekoak, 501
Adingabeak, 344, 501
Espetxeratuak, 271
Gizarte arreta, 74
Gizarte taldeak, 126
Intimitaterako eskubidea, 302
Laguntza zentroak, 176, 358
Nahitaezko tratamendu anbulatorioak, 302
Ombudsmana, 141
Osasunerako eskubidea, 492
Drogaren menpekoak
Gaueko aterpetxeak, 178
Emakumeak
Alardea, 333
Berdintasun printzipioa, 478
Berdintasunerako planak, 329
Emakumeen kontrako indarkeria, 118, 141, 254, 268, 327, 333, 478, 479
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 140, 330, 351
Funtzio publiko orokorra, 227, 232, 335

- Hizkera sexista, 335
- Kexak, 329, 330
- Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 329, 335, 478
- Legegintzaren beharra, 478
- Sexuagatiko bereizkeria, 333, 440

Espetxeratuak
- Burutik gaixo daudenak, 271
- Espetxeak, 26
- Frankismoa, 324
- Gizarte taldeak, 126
- HIESa duten gaixoak, 270
- Terrorismoa, 269

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 358
- Adingabeak, 196, 353
- Aparkalekuak, 252, 262, 356, 434
- Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 485
- Burutik gaixo daudenak, 358
- Eguneko zentroak, 184
- Emakumeak, 140, 330, 351
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 354
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 183, 188
- Foru prezio publikoak, 236
- Funtzio publiko orokorra, 218, 229, 233, 353
- Gizarte taldeak, 126
- Gizarteratzea, 351, 495
- Irisgarritasuna, 113, 186, 316, 317, 318, 352, 353, 354, 357, 465, 495
- Laguntza teknikoak, 357
- Lana, 105, 351
- Matrikulazio zerga, 356
- Ombudsmana, 141
- PFEZ, 355
- Salbuespenak, 237
- TMIZ, 356

Familia, 491

Gaixo terminalak
- Norberaren duintasunerako eskubidea, 303

Gazteak
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 314

GIB-eramaileak
- Datu pertsonalak babestea, 483

HIESa duten gaixoak
- Espetxeratuak, 270

Ijitoak
- Gizarte taldeak, 126

Landerrak
- Gizarte eta osasun laguntza, 325

Sasoikako langile adingabeak, 344

Sasoikako langileak, 41
- Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 494
- Gizarte taldeak, 126

Terrorismoaren biktimak
- Gizarte taldeak, 126

**Babes ofizialeko etxebizitzak, 494**

Eraikuntzaren akatsak, 315, 441

Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 354

Legegintzaren beharra, 315

OHZ
- Hobariak, 247

**Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 343, 491**
Adingabeko lege hausleak, 350
Estatuko Fiskaltza Nagusia, 349
**Babesik gabeko adingabeak, 50, 343**
**Bakezaleak**
Gizarte taldeak, 126
**Batxilergoa**
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
Aukerako irakasgaiak, 197, 208
**Berdintasun printzipioa**
Atzerritarrak, 318, 349, 479
Emakumeak, 478
Alardea, 333
Berdintasunerako planak, 329
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 330
Funtzio publiko orokorra, 227, 232, 335
Hizkera sexista, 335
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 329, 335
Legegintzaren beharra, 478
Sexuagatiko bereizkeria, 333, 440
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Lan-bereizkeria, 351
Lan-bereizkeria, 252
Tarifak
Arrantzarako baimenak, 437
**Berdintasunerako eskubidea, 478**
Atzerritarrak, 479
Alokatzeko etxebizitzak, 318, 349
Emakumeak, 329, 335, 478
Alardea, 333
Berdintasunerako planak, 329
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 330
Funtzio publiko orokorra, 227, 232, 335
Hizkera sexista, 335
Legegintzaren beharra, 478
Sexuagatiko bereizkeria, 333, 440
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Lan-bereizkeria, 351
Lan-bereizkeria, 252
Osasun zerbitzuak erabiltzeko joan-etorrietarako laguntzak, 306, 433
Tarifak
Arrantzarako baimenak, 437
**Berdintasunerako planak**
Emakumeak, 329
**Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea**
Atzerritarrak, 216
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 485
Sarrera, 218, 233
Funtzio publiko orokorra
Sarrera, 230, 435
Funtzio publikoa
Enplegu eskaintza publikoa, 484
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
Sarrera, 218, 225, 438, 441
**Bereizkeria**
Atzerritarrak
Alokatzeko etxebizitzak, 318, 349

**Berriro gizarteratzeko eskubidea**
Espetxeratuak, 26, 486
**Bideak**
Zerbitzu publikoak, 294
**Bidegabeko atzerapenak**
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 273
Auzibideratzea, 266
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea, 485
**Bideograbazioak**
Atxilotuak, 256
Ziegak, 97
**Bitartekaritza**
Hirigintza kudeaketa, 442
**Bizikletak**
Hiriko trafikoaren antolamendua, 437
**Bizitzeko eskubidea**
Emakumeak
Emakumeen kontrako indarkeria, 118, 327, 333, 478, 479
Terrorismoaren biktimak, 479
Tortura, 138, 515
Tratu txarrak, 138, 515
**Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak**
Prozedura zigortzailea, 309, 433
**Buru-osasuna**
Adinekoak, 501
Adingabeak, 501
Osasunerako eskubidea, 302
**Burutik gaixo daudenak**
Adinekoak, 501
Adingabeak, 344, 501
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Laguntza zentroak, 358
Gizarte arreta, 74
Gizarte taldeak, 126
Laguntza zentroak, 176, 358
Nahitaezko tratamendu anbulatorioak, 302
Ombudsmana, 141
Osasunerako eskubidea, 302, 492

**D**

**Datu pertsonalak babestea, 483**
GIB-eramaileak, 483
Intimitaterako eskubidea
Osasuna, 303
Tratamendu automatizatua
Zentralizazioa, 483
**Defentsarako eskubidea**
Prozedura zigortzailea, 261, 439
Trafikoa, 251, 433, 458
**Dekomisoa**
Kaleko salmenta, 254, 259, 349, 442
**Desjabetzapenak**
Herri lanak, 295
**Diskotekak**
Zaratak, 290
**Doako laguntza juridikoa**
Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak, 273, 274

**Drogaren menpekoak**
Gaueko aterpetxeak, 178

## E

**Eguneko zentroak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 184
**Ehiza, 437**
Baimenak, 169, 172, 437
Administrazioaren isiltasuna, 168, 170, 437
**EHU**
Gora jotzeko errekurtsoak
Ebatzi beharra, 440
**Elkartzeko eskubidea**
Arrantza, 437
**Emakumeak**
Alardea, 333
Berdintasunerako eskubidea, 478
Berdintasunerako planak, 329
Emakumeen kontrako indarkeria, 118, 254, 268, 327, 333, 478, 479
Ombudsmana, 141
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 330
Lan-bereizkeria, 351
Funtzio publiko orokorra, 232
Kexak, 329, 330
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 329, 335, 478
Legegintzaren beharra, 478
Sexuagatiko bereizkeria
Alardea, 440
**Emakumeen kontrako indarkeria, 118, 327, 333, 478, 479**
Epaileen ebazpenak, 268
Ombudsmana, 141
Polizia, 254
**Enplegu eskaintza publikoa, 215**
Osasun alorreko funtzio publikoa, 217
**Epaileen ebazpenak**
Adingabeen aurkako indarkeria, 268
Emakumeen kontrako indarkeria, 268
**Erabilera publikoko eremu pribatuak**
Zortasunak, 434, 470
**Eraginkortasun printzipioa**
Gizarte eta osasun laguntza, 177
Burutik gaixo daudenak, 176, 182, 358
**Eraikinak, 313**
Irisgarritasuna, 113, 317, 322, 352
Lur urbanizaezinak, 321
Obrak egiteko baimenak, 321
Egokitasun estetikoa, 320, 434
**Erlijio askatasunerako eskubidea**
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 197, 204
**Errepideak**
Udal zerbitzu publikoak, 297
**Errolda**
Okerren zuzenketa, 439
**Eskola garraioa**
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 197, 200, 206

**Espedientea ikusteko aukera**
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 219, 223, 443
Unibertsitate hezkuntza, 198
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 254, 257
**Espetxeak**
Espetxeratuak, 26
**Espetxeratuak, 26**
Berriro gizarteratzeko eskubidea, 486
Burutik gaixo daudenak
Gizarte eta osasun laguntza, 271
Frankismoa
Kalte-ordainak, 324
Gizarte taldeak, 126
HIESa duten gaixoak
Baldintzapeko askatasuna, 270
Terrorismoa, 269
**Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea**
Atzerritarrak
Alokatzeko etxebizitzak, 318, 349
Babes bereziko taldeak, 314
Babes ofizialeko etxebizitzak, 494
Eraikuntzaren akatsak, 315, 441
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 354
Gazteak, 314
Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 313
Ombudsmana, 141
Sasoikako langileak, 494
**Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 177**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 183
Itxaron zerrendak, 188
**Europako Batasunaren politikak**
Salgaien joan-etorri askea
Ibilgailuen matrikulazioa, 169
**Europako konstituzioa**
Ombudsmana, 154
**Euskara eta administrazio publikoa**
Ezkontza zibilak, 192
Hizkuntz normalizazioa, 190
Funtzio publiko orokorra, 229, 353
Osasuna, 190
**Euskara eta hezkuntza**
Hezkuntza plangintza
D eredua, 196, 202
**Euskara eta justizi administrazioa**
Jakinarazpenak, 193
**Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 358**
Adingabeak
Hezkuntza-premia bereziak, 196, 353
Aparkalekuak, 252, 262, 356, 434
Babes ofizialeko etxebizitzak, 354
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea, 485
Burutik gaixo daudenak
Laguntza zentroak, 358
Eguneko zentroak
Garraio berezia, 184
Emakumeak, 140, 330
Lan-bereizkeria, 351
Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 183

Itxaron zerrendak, 188
Foru prezio publikoak, 236
Funtzio publiko orokorra
Hizkuntz normalizazioa, 229, 353
Sarrera, 218, 233
Gizarte taldeak, 126
Gizarteratzea, 351, 495
Irisgarritasuna, 465, 495
Babes ofizialeko etxebizitzak, 354
Eraikinak, 113, 352
Ikastetxeak, 317
Taxi-bonua, 186, 357
Zinema-aretoak, 316
Laguntza teknikoak, 357
Lana, 105, 351
Matrikulazio zerga, 356
Ombudsmana, 141
PFEZ, 355
TMIZ, 356
Salbuespenak, 237
**Ezkontza zibilak**
Euskara eta administrazio publikoa, 192

## F

**Familia, 491**
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 216
PFEZ
Baterako aitorpena, 244, 441
**Federazioak**
Kirola, 191
**Foru prezio publikoak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 236
**Foru zerbitzu publikoak**
Administrazioaren erantzukizuna
Bizkaibus, 442
Ordaintzeko modua
Bizkaibus, 442
**Foru zergak**
OEZ
Salbuespenak, 246
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga
Zergadunen eskubideak eta bermeak, 441
PFEZ
Baterako aitorpena, 244, 441
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 355
Familia, 236
Izatezko bikoteak, 236
Salbuespenak, 242
Zor ez diren sarreren itzulketa, 236
**Funtzio publiko orokorra**
Atzerritarrak, 349
Enplegu eskaintza publikoa, 215
Hizkuntz normalizazioa
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 229, 353
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 216
Emakumeak, 329

Langileen aukeraketa
Aukeramen teknikoa, 216
Ordezkapenak
Emakumeak, 232
Sarrera
Atzerritarrak, 216
Aurretiko zerbitzuak, 230, 435
Sexuagatiko bereizkeria
Emakumeak, 227, 335

## G

**Gaixo terminalak**
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea, 303
Norberaren duintasunerako eskubidea, 303
**Garraioa**
Zerbitzu publikoak, 294
**Gas galdarak**
Obrak egiteko baimenak, 174
**Gaueko aterpetxeak**
Drogaren menpekoak, 178
**Gazteak**
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 314
**Gidaria identifikatu beharra**
Prozedura zigortzailea, 264, 444
**Giza eskubideak**
Berdintasunerako eskubidea, 478
Atzerritarrak, 479
Emakumeak, 478
Berriro gizarteratzeko eskubidea
Espetxeratuak, 486
Bizitzeko eskubidea
Emakumeak, 327, 333, 479
Terrorismoaren biktimak, 479
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Emakumeak, 140
Hezkuntzarako eskubidea, 487
Ikertzeko bekak, 135
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
Atxilotuak, 480
Emakumeak, 327, 333, 478, 479
Terrorismoaren biktimak, 479
Material didaktikoa, 136
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
Atxilotuak, 481
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea, 483
Atxilotuak, 483
Datu pertsonalak babestea, 483
GIB-eramaileak, 483
Oinarrizko errenta, 135
Polizia, 451
Terrorismoaren biktimak, 477
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
Zergen alorreko prozedura, 486
**Gizarte bazterketa**
Gizarte beharrizan larrietarako laguntzak, 177

**Gizarte beharrizan larrietarako laguntzak, 177**
**Gizarte eskubideak**
Adin-muga, 175, 357
Adinekoak, 47, 125, 496
Egoitzak, 46, 175, 339
Egoitzaz kanpoko laguntza, 339
Irisgarritasuna, 186, 318, 353, 357
Laguntza teknikoak, 357
Adingabeak, 491
Adingabeko lege hausleak, 343, 491
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 343
Babesik gabeko adingabeak, 50, 343
Legegintzaren beharra, 492
Sasoikako langile adingabeak, 344
Adingabeko lege hausleak, 56
Burutik gaixo daudenak
Laguntza zentroak, 176, 358
Emakumeak
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 351
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 141
Atzerritarrak, 318, 349
Babes bereziko taldeak, 314
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 441
Gazteak, 314
Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 313
Sasoikako langileak, 494
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Adingabeak, 196, 353
Aparkalekuak, 434
Eguneko zentroak, 184
Emakumeak, 351
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 354
Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 183, 188
Foru prezio publikoak, 236
Funtzio publiko orokorra, 218, 229, 233, 353
Gizarteratzea, 351, 495
Irisgarritasuna, 113, 186, 252, 262, 316, 317, 318, 352, 353, 356, 357, 465, 495
Laguntza teknikoak, 357
Lana, 105, 351
Matrikulazio zerga, 356
PFEZ, 355
Salbuespenak, 237
TMIZ, 356
Familia, 216, 491
PFEZ, 244, 441
Ingurumen egokia izateko eskubidea
Atmosferako kutsadura, 493
Kutsadura, 279, 281
Kutsadura akustikoa, 279, 285, 290, 291, 293, 440, 493
Ombudsmana, 154
Kultur ondarea, 191
Hiri plangintza, 194
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 72
Osasunerako eskubidea
Buru-osasuna, 302, 501

Burutik gaixo dauden adingabeak, 344
Burutik gaixo daudenak, 492
Itxaron zerrendak, 492
Uraren osasungarritasuna, 103, 279, 493
Txiroak
Gizarte beharrizan larrietarako laguntzak, 177
**Gizarte eta osasun laguntza, 177**
Burutik gaixo daudenak, 176, 182, 358
Espetxeratuak
Burutik gaixo daudenak, 271
**Gizarte taldeak, 126**
Adingabeak, 345
Atxilotuak, 126
Atzerritarrak, 126
Babes bereziko taldeak, 126
Burutik gaixo daudenak, 126
Espetxeratuak, 126
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 126
Haur hezkuntza, 126
Hezkuntza-premia bereziak, 126
Ijitoak, 126
Sasoikako langileak, 126
Terrorismoaren biktimak, 126
**Gizarte zerbitzuak**
Adin-muga, 175, 357
Adinekoak, 496
Egoitzak
Adinekoak, 339
Egoitzaz kanpoko laguntza
Adinekoak, 339
Etxez etxeko laguntza zerbitzua, 177, 188
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 183
Gaueko aterpetxeak
Drogaren menpekoak, 178
Gizarte beharrizan larrietarako laguntzak, 177
Gizarte eta osasun laguntza, 177, 182
Grebarako eskubidea
Gutxieneko zerbitzuak, 178, 187, 339
Gutxieneko zerbitzuak
Adinekoak, 339
Laguntza teknikoak, 357
Laguntza zentroak
Adinekoak, 46, 175
Burutik gaixo daudenak, 176, 358
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 184
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 72
Prozedura administratiboa
Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 176
Taxi-bonua, 186, 357
**Gora jotzeko errekurtsoak**
Ebatzi beharra, 440
**Gorputz araketak**
Atxilotuak, 483
**Grebarako eskubidea**
Gutxieneko zerbitzuak, 178, 187, 303, 339

# H

**Haur hezkuntza**
Gizarte taldeak, 126
Irakaskuntzaren programazio orokorra
3 urte arteko haurrak, 195, 347, 487
**Herri lanak, 433**
Desjabetzapenak, 295
**Herriaren defendatzaileak**
Adingabeak, 521
Arartekoari lagundu beharra, 535
Atzerritarrak, 154
Burutik gaixo daudenak, 141
Emakumeen kontrako indarkeria, 141
Eskubide konstituzionalak, 162
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 141
Europako konstituzioa, 154
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 141
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 154
**Herritarren eskubideak eta betebeharrak**
Espedientea ikusteko aukera, 198, 219, 223, 254, 257, 443
Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak
Egoitzak, 339
Herritarren parte-hartzea
Hiri plangintza, 312
Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
Batxilergoa, 197, 208
Informaziorako eskubidea
Hiri plangintza, 312
Jabetza pribaturako eskubidea
Administrazioaren erantzukizuna, 490
Dohaintzak, 246
Hiri plangintza, 312, 490
Panteoiak, 298
Jendearentzako arreta
Justizia administrazioaren alorreko funtzio publikoa, 275
Kontsumitzaileen eskubideak, 169
Piroteknia produktuak, 173
Oinarrizko errenta, 135
Osasun zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta bermeak
Informaziorako eskubidea, 305, 307
Prozedura administratiboa
Gizarte zerbitzuak, 176
Zergadunen eskubideak eta bermeak
Informaziorako eskubidea, 240
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 441
Zor ez diren sarreren itzulketa, 236
Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa, 488
PFEZ, 236, 244, 441
Zor ez diren sarreren itzulketa, 435, 437, 438, 439
**Herritarren parte-hartzea**
Hiri plangintza, 312
**Hezkuntza**
Unibertsitate hezkuntza
Ikasteko laguntzak, 198
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza
Ikasteko laguntzak, 198, 201, 441

**Hezkuntza-premia bereziak**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Adingabeak, 196, 353
Gizarte taldeak, 126
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 81
Baliabideak, 196, 213, 353
Diabetesa, 196, 213
**Hezkuntzarako eskubidea, 487**
Adingabeak
Hezkuntza-premia bereziak, 344, 347, 353
Haur hezkuntza
3 urte arteko haurrak, 195, 347, 487
Hezkuntza-premia bereziak
Diabetesa, 196, 213
Ikasteko laguntzak, 198, 201, 441
Bahiturak, 198
**HIESa duten gaixoak**
Espetxeratuak
Baldintzapeko askatasuna, 270
**Hilerriak**
Panteoiak, 298
**Hiri plangintza**
Herritarren parte-hartzea, 312
Informaziorako eskubidea, 312
Jabetza pribaturako eskubidea, 312, 490
Administrazioaren erantzukizuna, 312
Kultur ondarea, 194
**Hirigintza**
Legegintzaren beharra, 311
**Hirigintza hitzarmenak**
Administrazioaren erantzukizuna, 322
**Hirigintza kudeaketa**
Urbanizazio proiektua, 442
**Hirigintzako diziplina, 313**
Eraikinak, 313
Hirigintza hitzarmenak, 322
Obrak egiteko baimenak
Igogailuak, 318, 353, 439
**Hiriko trafikoaren antolamendua**
Bizikletak, 437
**Hitzarmenak**
GKEak
Atzerritarrak, 324
**Hizkera sexista**
Sexuagatiko bereizkeria
Emakumeak, 335
**Hizkuntz normalizazioa**
Euskara eta administrazio publikoa, 190
Ezkontza zibilak, 192
Osasuna, 190
Euskara eta hezkuntza
Hezkuntza plangintza, 196, 202
Euskara eta justizi administrazioa
Jakinarazpenak, 193

# I

**Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 155**
**Ibilgailuak erretiratzea, 265, 435, 439**
**Ibilgailuen matrikulazioa, 169**
**Igogailuak**
Irisgarritasuna, 318, 353
Obrak egiteko baimenak, 318, 353, 439
**Ijitoak**
Gizarte taldeak, 126
**Ikasleen eskubideak eta betebeharrak**
Batxilergoa
Aukerako irakasgaiak, 197, 208
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 347
**Ikasteko laguntzak**
Unibertsitate hezkuntza, 198
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 198, 201, 441
**Ikastetxeak**
Irisgarritasuna, 317
Polizia, 254, 257
**Ikertzeko bekak**
Giza eskubideak, 135
**Industriak, 279**
**Informaziorako eskubidea**
Hiri plangintza, 312
Osasun gastuak itzultzea, 307
Zergadunak, 240
Osasun zerbitzuen erabiltzaileak, 305
**Ingurumen egokia izateko eskubidea**
Atmosferako kutsadura
Ibilgailuen trafikoa, 493
Ostalaritza establezimenduak, 493
Kutsadura
Industriak, 279
Legez kontrako zabortegiak, 281
Kutsadura akustikoa, 434
Diskotekak, 290
Ibilgailuen trafikoa, 493
Ostalaritza establezimenduak, 279, 285, 440, 493
Trafikoa, 291
Zabor kamioiak, 290, 293
Ombudsmana, 154
**Integritate fisiko eta moralerako eskubidea**
Adingabeak
Adingabeen aurkako indarkeria, 268
Atxilotuak
Laguntzaren koordinazioa, 256
Senideentzako arreta, 256
Tortura, 138, 163, 254, 515
Tratu txarrak, 97, 138, 163, 254, 480, 515
Atzerritarrak, 253
Polizia, 69
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 491
Estatuko Fiskaltza Nagusia, 349
Emakumeak
Emakumeen kontrako indarkeria, 118, 254, 268, 327, 333, 478, 479
Gaixo terminalak, 303
Landerrak
Gizarte eta osasun laguntza, 325

Terrorismoaren biktimak, 479
Tortura, 138, 163, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 515
**Intimitaterako eskubidea**
Burutik gaixo daudenak, 302
Datu pertsonalak babestea
Osasuna, 303
**Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa**
Enplegu eskaintza publikoa, 218
Laneko segurtasun eta osasuna
Lanbide-gaixotasunak, 219
Lanpostuak betetzea, 224
Ordezkapenak, 219, 220, 221
Aurretiko zerbitzuak, 220
Prozedura zigortzailea
Espedientea ikusteko aukera, 219, 223, 443
Sarrera
Titulazioak, 218, 225, 438, 441
Unibertsitateko funtzio publikoa
Administrazioaren isiltasuna, 220
Irakasle elkartuak, 219
**Irakasle elkartuak**
Unibertsitateko funtzio publikoa, 219
**Irisgarritasuna**
Aparkalekuak, 252, 262, 356
Arkitektura-oztopoak
Igogailuak, 318, 353
Ikastetxeak, 317
Zinema-aretoak, 316
Eraikinak, 113, 229, 317, 322
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 465, 495
Funtzio publiko orokorra, 353
Legezkotasun printzipioa, 465
Oztopoak garraioan
Taxi-bonua, 186, 357
**Itxaron zerrendak, 301, 492**
Ginekologia, 301

## J

**Jabetza pribaturako eskubidea**
Administrazioaren erantzukizuna, 490
Dohaintzak, 246
Hiri plangintza, 312, 490
Panteoiak, 298
**Jakinarazpenak**
Euskara eta justizi administrazioa, 193
Zergen alorreko prozedura, 486
**Jarduera sailkatuak**
Diskotekak
Zaratak, 290
Industriak, 279
Legez kontrako zabortegiak, 281
Ostalaritza establezimenduak
Lizentziak, 434
Zaratak, 279, 285, 434, 440
Trafikoa
Zaratak, 291

Zabor kamioiak
Zaratak, 290, 293
**Jendaurreko ikuskizunak**
Animalien babesa, 256, 435
**Jendearentzako arreta**
Justizia administrazioaren alorreko funtzio publikoa, 275
**Justizia administrazioaren alorreko funtzio publikoa**
Jendearentzako arreta, 275

## K

**Kaleko salmenta**
Dekomisoa, 254, 259, 349, 442
Osasun publikoa, 303
Piroteknia produktuak
Adingabeak, 173
**Kexak**
Emakumeak, 329, 330
**Kirola**
Federazioak, 191
**Kontsumitzaileen eskubideak, 169**
Kaleko salmenta
Piroteknia produktuak, 173
**Kooperazio printzipioa**
Gizarte eta osasun laguntza, 177
Burutik gaixo daudenak, 176, 182, 358
**Koordinazio printzipioa**
Gizarte eta osasun laguntza, 177
Burutik gaixo daudenak, 176, 182, 358
**Kultur ondarea, 191**
Hiri plangintza, 194
**Kutsadura akustikoa**
Diskotekak, 290
Ostalaritza establezimenduak, 279, 285, 434, 440
Trafikoa, 291
Zabor kamioiak, 290, 293

## L

**Lan-bereizkeria**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Emakumeak, 351
Polizia, 252
**Lana**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 105, 351
**Lanbide-gaixotasunak**
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 219
**Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea**
Emakumeak, 329, 335, 478
Funtzio publiko orokorra, 216
**Landa-bideak**
Lur urbanizaezinak
Udal zerbitzu publikoak, 296
**Landerrak**
Gizarte eta osasun laguntza, 325
**Laneko segurtasun eta osasuna**
Lanbide-gaixotasunak, 219
**Langileen aukeraketa**
Anomaliak, 217
Aukeramen teknikoa, 216

**Legegintzaren beharra**
Adingabeak, 347, 492
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315
Hirigintza, 311
Lurra, 311, 494
Zerga-kudeaketa, 447
**Legez kontrako zabortegiak, 281**
**Legezkotasun printzipioa**
Baimenak
Ehiza, 168, 169, 170, 172, 437
Irisgarritasuna, 465
Kaleko salmenta, 254, 259, 349, 442
Udal tasak, 442
**Lizentziak**
Ostalaritza establezimenduak, 434
**Lur urbanizaezinak**
Eraikinak, 321
Landa-bideak
Udal zerbitzu publikoak, 296
**Lurra**
Legegintzaren beharra, 311, 494

**M**

**Material didaktikoa**
Giza eskubideak, 136
**Matrikulazio zerga**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 356
**Medikuaren altak**
Aldi baterako ezintasuna, 308
**Metro-Bilbao**
Nasa mugikorrak, 296

**N**

**Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 313**
**Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea**
Atxilotuak, 252, 481
Atzerritarrak, 253
Polizia, 69
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 491
Estatuko Fiskaltza Nagusia, 349
Landerrak
Gizarte eta osasun laguntza, 325
Polizia, 254, 257
Tortura, 138, 163, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 515
**Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea**
Atxilotuak
Gorputz araketak, 483
Datu pertsonalak babestea, 483
Tratamendu automatizatua, 483
GIB-eramaileak, 483

**O**

**Obrak egiteko baimenak**
Eraikinak, 320, 321, 434
Gas galdarak, 174
Igogailuak, 318, 353, 439

**OEZ**
Salbuespenak
Dohaintzak, 246
**Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea**
Atzerritarrak
Gizarte komunikabideak, 69
**OHZ**
Hobariak
Babes ofizialeko etxebizitzak, 247
**Oinarrizko errenta**
Herritarren eskubideak eta betebeharrak, 135
**Oinarrizko eskubideak, 477**
Adierazpen-askatasunerako eskubidea
Terrorismoaren biktimak, 477
Adingabeak
Hezkuntza-premia bereziak, 347
Berdintasunerako eskubidea, 478
Alokatzeko etxebizitzak, 318, 349
Atzerritarrak, 479
Emakumeak, 227, 232, 329, 330, 333, 335, 440, 478
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 351
Lan-bereizkeria, 252
Osasun zerbitzuak erabiltzeko joan-etorrietarako laguntzak, 306, 433
Tarifak, 437
Berdintasunezko baldintzetan sartzeko eskubidea
Atzerritarrak, 216
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 218, 233, 485
Funtzio publiko orokorra, 230, 435
Funtzio publikoa, 484
Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa, 218, 225, 438, 441
Berriro gizarteratzeko eskubidea
Espetxeratuak, 26, 486
Bizitzeko eskubidea
Emakumeak, 327, 333, 478, 479
Emakumeen kontrako indarkeria, 118
Terrorismoaren biktimak, 477, 479
Tortura, 138, 163, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 515
Defentsarako eskubidea
Herritarren segurtasuna, 261, 439
Prozedura zigortzailea, 251, 433, 458
Elkartzeko eskubidea
Arrantza, 437
Emakumeak
Emakumeen kontrako indarkeria, 327
Erlijio askatasunerako eskubidea
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza, 197, 204
Grebarako eskubidea
Gutxieneko zerbitzuak, 178, 187, 303, 339
Hezkuntzarako eskubidea, 487
Adingabeak, 344
Haur hezkuntza, 195, 347, 487
Hezkuntza-premia bereziak, 81, 196, 213, 353
Ikasteko laguntzak, 198, 201, 441
Integritate fisiko eta moralerako eskubidea
Adingabeak, 268
Atxilotuak, 97, 256, 480
Atzerritarrak, 69, 253

Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 349
Emakumeak, 118, 254, 268, 327, 333, 478, 479
Gaixo terminalak, 303
Landerrak, 325
Terrorismoaren biktimak, 477, 479
Tortura, 138, 163, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 515
Intimitaterako eskubidea
Burutik gaixo daudenak, 302
Datu pertsonalak babestea, 303
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea
Atxilotuak, 252, 481
Atzerritarrak, 69, 253
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 349, 491
Landerrak, 325
Polizia, 254, 257
Terrorismoaren biktimak, 477
Tortura, 138, 163, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 515
Norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea
Atxilotuak, 483
Datu pertsonalak babestea, 483
GIB-eramaileak, 483
Ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea
Atzerritarrak, 69
Terrorismoaren biktimak, 477
Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea
Bidegabeko atzerapenak, 485
Nom bis in idem, 265
Zergen alorreko prozedura, 486
**Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 72**
**Ombudsmana**
Adingabeak, 521
Arartekoari lagundu beharra, 535
Atzerritarrak, 154
Burutik gaixo daudenak, 141
Emakumeen kontrako indarkeria, 141
Eskubide konstituzionalak, 162
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 141
Europako konstituzioa, 154
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 141
Iberoamerikako Ombudsmanen Federazioa, 155
Ingurumen egokia izateko eskubidea, 154
**Osasun alorreko funtzio publikoa**
Enplegu eskaintza publikoa, 217
Langileen aukeraketa
Anomaliak, 217
Ordezkapenak, 218
Sarrera
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 218, 233
**Osasun gastuak**
Aseguru pribatuak, 304
**Osasun gastuak itzultzea**
Informaziorako eskubidea, 307
**Osasun publikoa**
Kaleko salmenta, 303
Uraren osasungarritasuna
Zadorrako urtegiak, 103, 279, 493

**Osasun zerbitzuak erabiltzeko joan-etorrietarako laguntzak**
Berdintasun printzipioa, 306, 433
**Osasun zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta bermeak**
Informaziorako eskubidea, 305
Osasun gastuak itzultzea, 307
**Osasuna**
Buru-osasuna, 302
Datu pertsonalak babestea
Intimitaterako eskubidea, 303
Euskara eta administrazio publikoa, 190
Gaixo terminalak
Norberaren duintasunerako eskubidea, 303
Gastuen itzulketa
Informaziorako eskubidea, 307
Grebarako eskubidea
Gutxieneko zerbitzuak, 303
Itxaron zerrendak, 301
Ginekologia, 301
Medikuaren altak
Aldi baterako ezintasuna, 308
Osasun gastuak
Aseguru pribatuak, 304
Osasun zerbitzuak erabiltzeko joan-etorrietarako laguntzak
Berdintasun printzipioa, 306, 433
Sexu aldaketa, 303
**Osasunerako eskubidea, 492**
Buru-osasuna
Adinekoak, 501
Adingabeak, 501
Burutik gaixo dauden adingabeak, 344
Burutik gaixo daudenak, 302, 492
Itxaron zerrendak, 492
Uraren osasungarritasuna
Zadorrako urtegiak, 103, 279, 493
**Ostalaritza establezimenduak**
Zaratak, 279, 285, 434, 440
**Oztopoak garraioan**
Taxi-bonua
Adin-muga, 186, 357

## P

**Panteoiak, 298**
**PFEZ**
Baterako aitorpena
Ondorengoekin bizitzea, 244, 441
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 355
Salbuespenak
SOVI, 242
**Piroteknia produktuak**
Kaleko salmenta, 173
**Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio nagusiak, 477**
Adin-muga, 175, 357
Adinekoak, 47, 125, 496
Egoitzak, 339
Egoitzaz kanpoko laguntza, 339
Eguneko zentroak, 46, 175

Irisgarritasuna, 186, 318, 353, 357
Laguntza teknikoak, 357
Adingabeak, 491
Adingabeko lege hausleak, 343, 491
Babesik gabeko adingabe atzerritarrak, 343
Babesik gabeko adingabeak, 50, 343
Legegintzaren beharra, 492
Sasoikako langile adingabeak, 344
Adingabeko lege hausleak, 56
Burutik gaixo daudenak
Laguntza zentroak, 176, 358
Emakumeak
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 351
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 141
Atzerritarrak, 318, 349
Babes bereziko taldeak, 314
Babes ofizialeko etxebizitzak, 315, 441, 494
Gazteak, 314
Nahitaez utzitako etxebizitzaren ordezkoa jasotzeko eskubidea, 313
Sasoikako langileak, 494
Ezgaitasunen bat duten pertsonak
Adingabeak, 196, 353
Aparkalekuak, 434
Eguneko zentroak, 184
Emakumeak, 351
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 354
Foru prezio publikoak, 236
Funtzio publiko orokorra, 218, 229, 353
Gizarte eskubideak, 113
Gizarteratzea, 351, 495
Irisgarritasuna, 186, 252, 262, 316, 317, 352, 356, 357, 465, 495
Laguntza teknikoak, 357
Lana, 105, 351
Matrikulazio zerga, 356
PFEZ, 355
Salbuespenak, 237
Sarrera, 233
TMIZ, 356
Familia, 491
Lanbidea eta familiako bizitza uztartzea, 216
PFEZ, 244, 441
Ingurumen egokia izateko eskubidea
Atmosferako kutsadura, 493
Kutsadura, 279, 281
Kutsadura akustikoa, 279, 285, 290, 291, 293, 434, 440, 493
Ombudsmana, 154
Kultur ondarea, 191
Hiri plangintza, 194
Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 72
Osasunerako eskubidea, 492
Buru-osasuna, 302, 501
Burutik gaixo dauden adingabeak, 344
Burutik gaixo daudenak, 492
Itxaron zerrendak, 492
Uraren osasungarritasuna, 103, 279, 493

**Polizia**
Atxilotuak, 252
Bideograbazioak, 256
Laguntzaren koordinazioa, 256
Senideentzako arreta, 256
Tortura, 138, 163, 254, 515
Tratu txarrak, 138, 163, 254, 515
Atzerritarrak, 69, 253, 254, 349
Barneko ikerketak, 435, 451
Emakumeen kontrako indarkeria, 254
Giza eskubideak, 451
Ikastetxeak, 254, 257
Lan-bereizkeria, 252
Norberaren askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea, 254, 257
Tratu txarrak
Atxilotuak, 97
Zerbitzuaren kalitatea, 435, 451
**Poliziaren alorreko funtzio publikoa**
Zerbitzuarengatiko kalte-ordainak, 220, 437
**Prozedura administratiboa**
Administrazioaren erantzukizuna
Bizkaibus, 442
Ebatzi beharra, 442
Espetxeratuak, 324
Gasolina-zerbitzuguneak, 322
Herri lanak, 433
Hiri-bideak mantentzea, 439, 443
Jabetza pribaturako eskubidea, 312
Metro-Bilbao, 296
Udal zerbitzu publikoak, 438, 440
Zerbitzu publikoak, 295
Administrazioaren isiltasuna, 220
Baimenak, 168, 170, 437
Administrazioaren jardunaren printzipio nagusiak
Eraginkortasun printzipioa, 176, 177, 182, 358
Kooperazio printzipioa, 176, 177, 182, 358
Koordinazio printzipioa, 176, 177, 182, 358
Administrazioaren kontratazioa, 439
Baimenak
Ehiza, 437
Espedientea ikusteko aukera, 198, 254, 257
Ezeztapena
Baimenak, 169, 172
Federazioak
Kirola, 191
Gora jotzeko errekurtsoak
Ebatzi beharra, 440
Herritarren eskubideak eta betebeharrak
Gizarte zerbitzuak, 176
Hirigintzako diziplina, 313
Eraikinak, 313
Hirigintza hitzarmenak, 322
Obrak egiteko baimenak, 318, 320, 353, 434, 439
Lizentziak
Ostalaritza establezimenduak, 434
Obrak egiteko baimenak
Eraikinak, 321
Gas galdarak, 174

Igogailuak, 439
Okerren zuzenketa, 439
Prozedura zigortzailea
Babes ofizialeko etxebizitzak, 441
Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak, 309, 433
Defentsarako eskubidea, 261, 439
Dekomisoa, 254, 259, 349, 442
Ebatzi beharra, 251, 442
Eskumenak
Trafikoa, 433
Espedientea ikusteko aukera, 219, 223, 443
Gidaria identifikatu beharra, 264, 444
Ikasteko laguntzak, 198
Iraungitzea, 437
Jakinarazpenak, 435
Trafikoa, 251, 433, 458
Zor ez diren sarreren itzulketa, 435, 437, 438, 439
Zerga-kudeaketa
Legegintzaren beharra, 447
Zergen alorreko prozedura
Derrigorrezko dirubilketa, 436
Jakinarazpenak, 239, 486
Zerga-bilketa, 249, 435, 442

**Prozedura zigortzailea**
Babes ofizialeko etxebizitzak
Eraikuntzaren akatsak, 441
Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak, 309, 433
Defentsarako eskubidea
Trafikoa, 251, 433
Dekomisoa
Kaleko salmenta, 254, 259, 349, 442
Ebatzi beharra
Trafikoa, 251, 442
Eskumenak
Trafikoa, 433
Espedientea ikusteko aukera, 219, 223, 443
Herritarren segurtasuna
Defentsarako eskubidea, 261, 439
Ikasteko laguntzak, 198
Iraungitzea, 437
Jakinarazpenak
Trafikoa, 435
Nom bis in idem
Ibilgailuak erretiratzea, 265
Trafikoa, 251
Defentsarako eskubidea, 458
Zor ez diren sarreren itzulketa
Trafikoa, 435, 437, 438, 439


## S


**Salgaien joan-etorri askea**
Ibilgailuen matrikulazioa, 169
**Sasoikako langile adingabeak, 344**
**Sasoikako langileak, 41**
Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, 494
Gizarte taldeak, 126

**Segurtasun juridikoaren printzipioa**
Legegintzaren beharra
Zerga-kudeaketa, 447
Udal tasak, 442
**Sexu aldaketa, 303**
**Sexuagatiko bereizkeria**
Alardea, 440
Emakumeak, 227, 232, 333
Funtzio publiko orokorra, 335
Hizkera sexista, 335

## T

**Terrorismoa**
Espetxeratuak, 269
**Terrorismoaren biktimak, 479**
Gizarte taldeak, 126
Oinarrizko eskubideak, 477
**TMIZ**
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 356
Salbuespenak
Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 237
Zergapeko egitatea, 248
**Tortura**
Atxilotuak, 138, 163, 254, 515
**Trafikoa**
Defentsarako eskubidea, 251, 433, 458
Ibilgailuak erretiratzea, 435, 439
Prozedura zigortzailea, 251, 437, 442
Eskumenak, 433
Gidaria identifikatu beharra, 264, 444
Zor ez diren sarreren itzulketa, 435, 437, 438, 439
Zaratak, 291
**Trafikoaren antolamendua**
Aparkalekuak, 294
**Tratu txarrak**
Atxilotuak, 97, 138, 163, 254, 480, 515
**Tutoretza judiziala edukitzeko eskubidea**
Bidegabeko atzerapenak, 485
Nom bis in idem
Prozedura zigortzailea, 265
Zergen alorreko prozedura
Jakinarazpenak, 486

## U

**Udal tasak**
Legezkotasun printzipioa, 442
Segurtasun juridikoaren printzipioa, 442
Zaborra, 438
Zerga-bilketa, 249, 442
**Udal zerbitzu publikoak**
Administrazioaren erantzukizuna, 438, 440
Erabilera publikoko eremu pribatuak, 434, 470
Errepideak, 297
Hilerriak
Panteoiak, 298
Landa-bideak
Lur urbanizaezinak, 296

- Metro-Bilbao
    - Nasa mugikorrak, 296
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, 72
- Polizia
    - Zerbitzuaren kalitatea, 435
- Trafikoaren antolamendua
    - Aparkalekuak, 294
- Ur hornidura, 294
- Ur kontsumoa, 299
- Zaborra, 293

**Udal zergak**
- EJZ
    - Jakinarazpenak, 239
- Matrikulazio zerga
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 356
- OHZ
    - Hobariak, 247
    - Katastro-balorazioa, 237
- TMIZ
    - Ezgaitasunen bat duten pertsonak, 356
    - Salbuespenak, 237
    - Zergapeko egitatea, 248
- Zergen alorreko prozedura
    - Jakinarazpenak, 239

**Udalez gaindiko tasak**
- Derrigorrezko dirubilketa
    - Jakinarazpenak, 436

**Unibertsitate hezkuntza**
- Azterketak, 198
- Espedientea ikusteko aukera, 198
- Ikasteko laguntzak
    - Bahiturak, 198

**Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza**
- Adingabeak
    - Zaintza, 325
- Atzerritar adingabeak, 350
- Batxilergoa
    - Aukerako irakasgaiak, 197, 208
- Eraikinak
    - Irisgarritasuna, 317
- Erlijio askatasunerako eskubidea, 197, 204
- Eskola garraioa, 197, 200, 206
- Espedientea ikusteko aukera, 254, 257
- Hezkuntza plangintza
    - D eredua, 196, 202
- Hezkuntza-premia bereziak, 81
    - Baliabideak, 196, 213, 353
    - Diabetesa, 196, 213
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak, 347
- Ikasteko laguntzak, 198, 201, 441
- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa
    - Ordezkapenak, 220

**Unibertsitateko funtzio publikoa**
- Administrazioaren isiltasuna, 220

**Ur hornidura**
- Udal zerbitzu publikoak, 294

**Ur kontsumoa**
- Udal zerbitzu publikoak, 299

**Uraren osasungarritasuna**
Zadorrako urtegiak, 103, 279, 493

## Z

**Zabor kamioiak**
Zaratak, 290, 293
**Zaborra**
Udal tasak, 438
Udal zerbitzu publikoak, 293
**Zadorrako urtegiak**
Uraren kalitatea, 103, 493
Uraren osasungarritasuna, 279
**Zaratak**
Diskotekak, 290
Ostalaritza establezimenduak, 279, 285, 440
Trafikoa, 291
Zabor kamioiak, 290, 293
**Zerbitzu publikoak**
Administrazioaren erantzukizuna, 295
Bideak, 294
Garraioa, 294
**Zerga-kudeaketa**
Legegintzaren beharra, 447
**Zergadunen eskubideak eta bermeak**
Informaziorako eskubidea, 240
Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zerga, 441
Zor ez diren sarreren itzulketa
Foru zergak, 236
**Zergak ordaintzerakoan berdintasun printzipioa, 488**
PFEZ
Baterako aitorpena, 244, 441
Izatezko bikoteak, 236
**Zergen alorreko prozedura**
Derrigorrezko dirubilketa
Udalez gaindiko tasak, 436
Jakinarazpenak, 239, 486
Zerga-bilketa
Ordainketaren egiaztagiriak, 435
Udal tasak, 249, 442
**Ziegak**
Polizia, 97
**Zor ez diren sarreren itzulketa**
Prozedura zigortzailea, 435, 437, 438, 439
**Zortasunak**
Erabilera publikoko eremu pribatuak, 434, 470